

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Euskararen historia soziopolitikorako:
Espainiako Gerra Zibilak zauritutako
Euskaltzaindia
(1936-1954)**

Antón UGARTE MUÑOZ

Tesi zuzendaria / Director de tesis

Esteban ANCHUSTEGUI IGARTUA (UPV/EHU)

Saila / Departamento

Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
Filosofía de los Valores y Antropología Social

2016

Edukien aurkibidea

1	Sarrera.....	17
2	Laburdurak.....	13
3	EUSKALTZAINDIAREN SORRERATIK GERRARA.....	23
3.1	Euskaltzaindiaren sorrera eta eginkizunak: estatutuak eta barne erregelak.....	23
3.2	Espainiako bederatzia euskaltzainak	30
	Resurrección M ^a Azkue	30
	Julio Urquijo	32
	Arturo Campión.....	34
	Juan Bautista Egusquiza	35
	Raimundo Olabide (SI).....	37
	Ramón Inzagaray.....	37
	Dámaso de Inza (OFMCap).....	38
	Severo Altube	40
	Bonifacio Echegaray.....	41
3.3	«Real Academia Española»ren «Sección Vascongada»	42
3.4	Euskaltzaindiaren jardura.....	46
3.5	Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa	56
3.6	Kataluniako ispilu hautsia.....	59
3.7	«Real Academia Galega».....	63
3.8	Donostiako «Real Academia Española»	65
3.9	Pedro Sainz Rodríguez, Hezkuntza Nazionaleko ministroa	73
3.10	Esperimentu monarkikoaren bukaera Madrilen	81
3.11	Euskaltzainen ahaleginak euskal agintari frankistekin	88
4	EUSKALTZAINDIA 1941-1949: NAHI ETA EZIN	95
4.1	Bizkaiko Probintzia Diputazioaren «Junta de Cultura de Vizcaya».....	95
4.2	«Junta de Cultura de Vizcaya»ren inposizioa Euskaltzaindiari	100
4.3	Gerraondoko Euskaltzaindiaren lehen batzarra (Bilbo, 1941-04-28).....	106
4.4	Gerraondoko euskaltzain berriak	111
	Juan Irigoyen	111
	Nazario Oleaga	112
	Pablo Zamarripa	113

Juan Carlos Guerra	114
Eladio Esparza (eta «Príncipe de Viana» aldizkaria)	115
Angel Irigaray.....	117
Ignacio M ^a Echaide.....	118
4.5 Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa eta diru laguntza ofizialak.....	119
4.6 Euskaltzaindiaren «Diccionario español-vasco» egitasmoa.....	125
4.7 Euskaltzaindiaren batzarren egitura 1940ko hamarkadan	131
4.8 Bigarren Mundu Gerra ondoko izendapen berriak	141
Pedro Yrizar eta Julio Caro Baroja.....	142
Antonio Tovar, José Vallejo eta Alessandro Bausani.....	145
Federico Krutwig.....	147
4.9 Federico Krutwigen txostenak Euskaltzaindiaren batzarretan.....	149
5 EUSKALTZAINDIA AUZITAN: BARNEALDEA	161
5.1 Euskararen jazarpena Espainia frankistan	161
5.2 «Revista Internacional de Estudios Vascos»	166
5.3 Euskaltzainburuaren ikerketak eta «Euskera» agerkaria.....	176
5.4 Florentino Castroren «El enigma del vascuence ante las lenguas indeuropeas»	183
5.5 Gerhard Bähr-en «Baskisch und Iberisch».....	185
5.6 «Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País».....	188
5.7 Julio Urquijoren euskal biblioteka eta omenaldi ofizialak	196
6 EUSKALTZAINDIA AUZITAN: ERBESTEA	213
6.1 Frantziako hiru euskaltzainak	213
Pierre Lhande (SI)	213
Georges Lacombe (eta bere biblioteka).....	214
Jean Elissalde.....	217
6.2 Erbeste abertzalearen jarrera Euskaltzaindiarekiko	218
6.3 Euzko-Gaztediren «Euzko-Ikaskuntza Astea» (Baiona, 1946ko iraila).....	223
6.4 «Gernika» eta «Eusko-Jakintza» aldizkariak.....	227
6.5 Euzko-Alderdi Jeltzaliaren kultur plangintza	232
6.6 Eusko-Ikaskuntzen Lagunartearen biltzarra (Biarritz, 1948ko iraila)	240
6.7 «Euzkeraren Eguna».....	244
7 BILBOKO BOTERE FRANKISTA.....	249
7.1 Eladio Esparzaren dimisioa eta Bonifacio Echegarayren berrartzea	249
7.2 Juan Miguel Seminario	252

7.3	Bizkaiko Probintzia Diputazioaren presidentea.....	254
7.4	Eusko-Ikaskuntzaren ondare tragikoa.....	257
7.5	Bizkaiko «Zumárraga» aldizkaria	259
7.6	Juan Miguel Seminarioren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1949-06-25)	263
8	EUSKALTZAINDIAREN ERREFORMA	271
8.1	Erreforma prestatzeko Federico Krutwigen korrespondentzia	271
8.2	Erreforma txostenaren aurkezpena (Donostia, 1949-09-30).....	286
8.3	Euzko-Alderdi Jeltzaliaren jarrera	290
8.4	Pierre Lafitteren sarrera ekitaldia (Donostia, 1949-11-25).....	297
8.5	Nicolás Ormaechea «Orixe»ren oposizioa.....	301
8.6	Izendapen berriak.....	303
	Pierre Lafitte	305
	Jean Saint-Pierre	306
	Manuel Lecuona	307
	Louis Dassance (eta «Gure Herria» aldizkaria)	308
	René Lafon	310
	Henri Gavel.....	312
9	EUSKALTZAINDI ZAHARRAREN GAINBEHERA: 1950-1951	313
9.1	Espainian euskaraz argitaratzeko zailtasunak	313
9.2	Euskararen idatzi (eta klase) hizkuntza.....	318
	«Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito»	323
9.3	Manuel Lecuonaren sarrera ekitaldia (Iruñea, 1950-06-24)	329
9.4	Louis Dassancen eta René Lafonen sarrera ekitaldiak (Baiona, 1950-07-15).....	332
	Euskal lurraldetasuna.....	338
9.5	Pablo Zamarriparen heriotza eta «Euzko-Gogoa»ren erronka	340
9.6	Bilboko eta Donostiako elizbarruti berriak.....	346
9.7	Donostiako ordezkari: Julio Urquijoren heriotza	350
9.8	«Orixe»ri betoa eta erbesteko Euskal Akademiaren mehatxua	355
9.9	Juan Gorostiagaren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1951-04-28/29).....	363
9.10	Sarrera ekitaldi baten fiaskoa eta «Junta de Cultura de Vizcaya»ren kontrola.....	368
9.11	Umezurtz: Resurrección M ^a Azkueren heriotza	374
9.12	Eskuin posibilista: José Miguel Azaolaren «Vasconia».....	382
9.13	Jean Saint-Pierre apezpikuaren heriotza	384
9.14	Bilboko «Nuevo Ateneo»	387

9.15	«Cantabria» frantziskotar probintzia	401
	Luis Villasante (OFM) eta Imanol Berriatua (OFM).....	403
9.16	Federico Krutwigen gutunak Luis Villasanteri	405
10	EUSKALTZAINDI BURUGABEA: 1952KO KRISIA	413
10.1	«Que nos salven la lengua aunque sean los fascistas»	413
10.2	Euskaltzaindiaren zuzendaritza berrosatzeko saioa	421
	«Euskal-Kulturaren Elkharrgoa».....	427
10.3	Luis Villasanteren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1952-05-23).....	432
10.4	Federico Krutwigen aurkako auzia	441
	Legez kontrako propaganda.....	446
10.5	Izendapen berriak	463
	Luis Michelena	463
	Jules Moulier «Oxobi»	465
	Urgazleak eta baztertutako hautagaiak	466
10.6	Euskaltzaindiaren erresilentzia.....	467
10.7	Parisko diaspora	477
11	EUSKALTZAINDIA 1953-1954: IRAUN ETA JARRAI.....	485
11.1	«Junta de Cultura de Vizcaya»rekin bakea	485
11.2	«Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo»	489
11.3	Gipuzkoako Probintzia Diputazioaren liburutegiko hitzaldiak.....	501
11.4	Resurrección M ^a Azkueren ondarea eta Bilboko egoitzaren egokitzapena.....	506
11.5	Gipuzkoako eta Nafarroako diru laguntza ofizialak	513
11.6	Euskaltzaindiaren argitalpenak	517
	«Euskera» agerkari ofiziala	517
	Literatur sariak, lexikografia eta klasikoak	527
11.7	Salamancako «Manuel de Larramendi» katedraren inaugurazioa.....	535
	«Diccionario etimológico vasco» egitasmoa.....	537
11.8	Ignacio M ^a Echaideren zuzendaritza eta araudi berria.....	540
11.9	Euskaltzain berriak.....	549
	Antonio Arrue	549
	José M ^a Lojendio (eta bere anaiak).....	550
12	Ondorioak	553
13	AIPATUTAKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	563
13.1	Artxibo eta bibliotekak.....	563

13.2	Hemeroteka	564
13.3	Bibliografia	567
14	Eranskinak	607
14.1	Resurrección M ^a Azkueren Euskaltzaindiko biblioteca.....	607
14.2	Euskaltzaindiaren batzarrak	637
	Akademikoen batzar kopuruak	641
	Batzar kopuruak tokiko	642
14.3	Irudiak	643

1 Esker ona

Familiari eta lagunei; jasandakogatik.

Euskaltzaindiari; bereziki Azkue biblioteka-artxiboko eta Euskararen Historia Soziala egitasmoko lankide eta arduradunei.

Erabilitako biblioteka-artxiboetako arduradunei: Arantzazuko Santutegia (Joseba Etxeberria), Baionako Euskal Museoa (Marie H el ene Deliard), Baionako Mediateka (Marie-Andr ee Ouret), Bilboko Elizbarrutia (Cristina Castillo), Bilboko Euskal Museoa (Marian Alvarez), Bilboko Udala-Surbisa (Jokin Zelaia), Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Bizkaiko Foru Liburutegia, Deustuko Unibertsitatea (M^a Dolores Revuelta), Donostiako Elizbarrutia (Jose Angel Garro), Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskaltzaindia (Pruden Gartzia-Josune Olabarria), Eusko Ikaskuntza (Mar a Aseguinolaza), Gasteizko Elizbarrutia (M^a Dolores Lecuona), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, Hernaniko Udala (Jes s Mari Gomez), Koldo Mitxelena Kulturunea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Olaso Dorrea Sorrerakundea, RAE (Covadonga de Quintana), Sabino Arana Fundazioa (Eduardo Jauregi-I naki Goiogana), Sancho el Sabio Fundazioa, Tolosako Udala (Guadi Larrarte).

Ainhoa Agirreri, Mikel Agirreazkuenagari, Bego na Alberdiri, Pedro Alberdiri, Kepa Altonagari, Xabier Altzibarri, Jesusa Alvarezi, Kike Amonarrizi, Dabid Anauti, Joseba Arruabarrenari, Isabel Azaolari, Ricardo Basterrari, Adolfo Careaga zenari, Jerardo Elortzari, Manu Erzillari, Idoia Estorn esi, Ricardo Etxepareri, Sebastian Gartzinari, Patxi Hipolito zenari, Joseba Intxaustiri, Jabier Kaltzakortari, Jurgi Kintanari, Joseba Lakarrari, Carmelo Landari, Josu Lavini, Rakel Lizarralderi, Juan Lojendiori, Emilio Lopez Adani, I nigo Lopez Simoni, Emilio Majuelori, Julen Manterolari, Ram n Mart n Suqu ari, Luis Michelenaren ondorengoei, Arantzazu Oregiri, Leire Pe agarikanori, Joan Mari Torrealdairi, Arantxa Ugalderi, Joseba Viarri, Mar a Jos  Villari, Javier Ybarrari, Mikel Zalbideri, Angel Zelaietari eta Aitor Zuberogoitieri.

Ahaztutakoei.

Hilei (eta bidenabar biziei) errespeto gehixeago zor zaie. «Nere Aitaren etxean egoitza asko dira», Aita Iraizozek itzuliaren arabera.

Mitxelena

2 Laburdurak

AEB: Ameriketako Estatu Batuak

AFD: Arabako Foru Diputazioa

ALV: Academia de la Lengua Vasca = Euskaltzaindia

ASJU: Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo

BIAEV: Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos

BMG: Bigarren Mundu Gerra

BOE: Boletín Oficial del Estado

BOPV: Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya

BPD: Bizkaiko Probintzia Diputazioa

BRAE: Boletín de la Real Academia Española

BRAG: Boletín de la Real Academia Gallega

*BRSVAP: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País =
Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*

CE-PV: El Correo Español-El Pueblo Vasco

CAM: Caja de Ahorros Municipal

CAP: Caja de Ahorros Provincial

CEDA: Confederación Española de Derechas Autónomas

CNT: Confederación Nacional del Trabajo

CSIC: Consejo Superior de Investigaciones Científicas

DVEF: Diccionario vasco-español-francés

EAE-ANV: Euzko Abertzale Ekintza = Acción Nacionalista Vasca

EAE-DOPV: Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa = Diario Oficial del País Vasco

EAJ-PNV: Euzko-Alderdi Jeltzalia = Partido Nacionalista Vasco

EBA-FAPE: Euzkel Bazkunen Alkartasuna = Federación de Acción Popular Euskerista

EBB: Euzkadi Buru Batzar

EBE: Espainiako Bigarren Errepublika

EEES-SLL: Euskera ta Euskal Elerti Salla = Sección de Lengua y Literatura

EGLB-CCE: Euzkadi'ko Gogo-Lantze Batzordea = Consejo de Cultura de Euzkadi

EGLZ-DCE: Euzkadi'ko Gogo-Lantze Zaingoa = Departamento de Cultura de Euzkadi

EGZ: Espainiako Gerra Zibila

EI-SEV: Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos

EID-BSEV: Eusko-Ikaskuntza'ren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos

EIL-SIEB: Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea = Société Internationale d'Etudes Basques

EJ-GE: Euzkadi'ko Jauriaritza = Gobierno de Euzkadi

ELA-STV: Euzko Langileen Alkartasuna = Solidaridad de Trabajadores Vascos

EY-LPPV: Euskaleñaren yakintza = Literatura popular del País Vasco

FET-JONS: Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista

GBB: Gipuzko Buru Batzar

GPD: Gipuzkoako Probintzia Diputazioa

HAEE-IVAP: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de
Administración Pública

IAEV: Instituto Americano de Estudios Vascos

IANFC: Instituto Antonio de Nebrija de Filología Clásica

ICOS: International Council of Onomastic Sciences

IdeE: Instituto de España

IEC: Institut d'Estudis Catalans

IICJU: Instituto de Investigaciones Científicas Julio de Urquijo

IPV: Institución Príncipe de Viana

JAE: Junta para Ampliación de Estudios e Investigaciones

JCV: Junta de Cultura de Vizcaya

JORF: Journal officiel de la République française

LIAB: Ligue Internationale des Amis des Basques

LMG: Lehen Mundu Gerra

MRP: Mouvement républicain populaire

NBB: Napar Buru Batzar

NBE: Nazio Batuen Erakundea

NFD: Nafarroako Foru Diputazioa

OFM: Ordo Fratrum Minorum

OFMCap: Ordo Fratrum Minorum Cappuccinorum

OPE: Oficina Prensa Euzkadi

PEN: Poets, Essayists, Novelists

PCE: Partido Comunista de España

pta: pezeta

RAE: Real Academia Española

RIEV: Revista Internacional de Estudios Vascos = Revue Internationale des Etudes Basques

RSVAP: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País

SEAEP: Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria

SERE: Servicio de Emigración de los Republicanos Españoles

SFVJU: Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo

SI: Societas Iesu

SLP: Société de Linguistique de Paris

UNESCO: United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

3 Sarrera

Ikerketa honen hasieran Federico Krutwigen (1921-1998) inguruko informazioa biltzeko saioa dago. Jakin mina piztu zidan, gizarte jatorriagatik, euskal kulturaren historian rara avis zen euskaltzainak. F. Krutwigek *Bilbao de los años cuarenta* (1991) izeneko memorietan eman zuen ikuspegi partziala gorabehera, euskal kulturaren historian oso gutxi aztertutako garai baten lekuko pribilegiatua izan zen. Urteak igaro ahala, dokumentazio gero eta aberatsagoa aztertu ondoren, testuinguruaren garrantzi historikoaz jabetu nintzen (Ugarte Muñoz 2010-2011).

Hortik abiatzen ziren, hain zuzen, tesiarekin erantzun nahi nituen galdera nagusiak. Nola lortu zuen Euskaltzaindiak 1941n berriz batzarrak egiteko baimena eskuratzea, esaterako, Eusko-Ikaskuntzak izoztuta jarraitzen zuen bitartean? Frankismoak bere hizkuntza politika zurrizko erabili zuen tresna izan zen? Edo barne erbestean erresistentzia kulturalean aritu zen akademia? Edo garaiko baldintza gogorak nekez jasan zituen goi kulturako erakundea? Horrelako galderei erantzun ahal izateko informazio berria agertuz joan den arren, 2018-2019an ehun urte beteko dituen Euskaltzaindiaren eta euskal kulturaren garai iluna izaten jarraitzen du 1936-1954 arteko horrek.

Kontziente edo inkontzienteki, orduko euskaltzain gehienak eskuindartzat edo are frankistatzat jotzen direnez, nire ustez ikergaia arbuia edo erdeinatu egiten da. Alde batetik, 1936an amaitzen dira euskal kulturaren ikerketa asko, ondoren zehaztasunik ezaren behe lainoak irensten gaitu 1956-1960 arte. Bestetik, nahiago izan da erbesteko idazle abertzaleak aztertu, frankismoak zikindutako lurraldetik ihes egindako sinboloak direlako: N. Ormaechea, J. Zaitegui, A. Ibinagabeitia, V. Amézaga edota M. Ugalde, besteak beste. Ez dago maila horretako bibliografiarik, aldeak alde, J. Urquijo, B. Echegaray, N. Oleaga edota J. M. Lojendio eskuindarrak ikertu nahi dituenarentzat. Adibidez, I. M. Echaide euskaltzainburu integristaren biografia bere semeak idatzi behar izan zuen, aski traumatikoa dirudien erabakian (Etxaide-Itharte 1986). Berriki A. Arrue euskaltzain karlistaren ekarpena aztertu nahi izan denean, berehala talka egin dute bi ikuspegi politiko ustez elkarrezinek (Martorell 2011; Sudupe 2012).

Baina iragana ez litzateke izan behar gure autoirudia apaintzeko nahierara erabiltzen den biltegia. Konpartimentazio politiko-linguistiko antzu batean sartuta gaude, nire ustez. Beharrezkoa da arreta gehiagorekin barnealde (uste osoz edo ezinbestez)

frankista aztertzea. Hor sartzen dira L. Michelena-A. Irigaray bezalako abertzaleak ere, ikerlan sendorik eragin ez dutenak, hizkuntzalaritza-filologiatik kanpo. Espainiako Gerra Zibilak eta 40 urteko diktadura amaigabeak euskarazko kulturaren memoria publikoa eraso eta, hasieran, genozidio kulturala burura ermateko asmoa izan arren, ez zuen kateaz guztiz eten. Maila guztiak hautsi izan balira, ez nintzateke honelako ikerlan bat egiteko gauza izango. Nire tesiaren asmoa da, hain zuzen, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriaren aro ilunegi hori oinarri enpirikoarekin eta zintzotasuna historikoarekin aztertzea. Nire aurreko idazlanak ikerketa honen aurrean gisa uler daitezke (Ugarte Muñoz 2012; 2013; 2014; 2015).

J. Haritschelhar euskaltzainburuak, F. Krutwig akademikoaren urrezko ezteiak ospatu zituztenean, Euskaltzaindiaren historia hiru arotan banatu eta oihartzuna izan duen «katakomba»ren metafora errepikatu zuen:

Hiru aro nagusi nabari dira Euskaltzaindiaren historian. Lehena, gerla aintzinekoa, 1919-tik 1936 arte; bigarrena gerla zibilaren ondotik 1968 arte; hirugarrena Arantzazuko kongresutik honara doa. Lehenbiziko urratsetarik katakunbetara, katakunbetarik berpiztera, berpiztetik euskara baturantz, hola deit daitezke hiru aro horiek (Haritschelhar 1997: 9)

Omenaldi liburu horretan, J. M. Satrustegui idazkari ohiak bide beretik jarraitu zuen. Euskaltzainburuak bezala, Nafarroako ordezkariak garaiko agiri eta testigantzak ezagutu eta argitara eman arren, nahiago izan zuen bere interpretazioan narrazio poetiko idealizatuari eutsi, gaiak gehiagorako ematen ez zuelakoan:

Gertakizunen abiapuntu berezkoa Azkue izan zen, basamortu gorriko lehortean bera baitzen lekukotasunaren aldaska bizirik mantendu zuen enborra, Erribera kaleko zuraje ilunen ataka meharretan erdi fosildutako itzalen antzera. Bizirik, hala ere, Euskaltzaindiaren eten gabeko historia idazten. Cogito ergo sum esan zezakeen itxura guzien aurka euskaltzainburuak Elkargo izkutuaren izenean, hainbat kultur elkarte eta ekintza garrantzitsu, oroigarrien sabaian zokoraturik zeuden bitartean.

Ibaizabalgo ur kutsatuen ertzean bizirik iraun eta euskaraz amets egiteko adorea zutenen artean Gregorio Maidagan ere aipatu ondoren, F. Krutwig zatekeen bere germaniar abizen eta guzti, sator zuloko euskal gaietan gehiena azaltzen zen hurrengo mamua. Gutxi edo asko, hori da tiroketa eta sirena artean, nahiz geroago kaki nabarren ondoan joan-etorrika igarotako ordu ez euskararen inguruan esan daitekeena. Merezimendu asko eta itxaropen

gutxi ameslarion zaletasunarentzat, arrisku guztiekin (Satrustegi 1997: 313).

Omenaldi horren aurretik eta ondoren, bestelako urteurren eta lorpenak ospatzeko, Euskaltzaindiak hainbat saio egin zituen bere historia kontatzeko. Urte eta ekintza askoren deskribapena orrialde gutxitan ematera behartuta, eta ikerketa zientifikoan ohikoak diren erreferentziak aipatzeko aukerarik gabe, aztertu nahi izan dudan garaian ezin izan zuten behar bezala sakondu. Ulegarria denez, erakundearen aurkezpen ofizialak edo ofiziosoak izateak ere egileen interpretaziorako gaitasuna mugatu zuen (San Martín 1968; Villasante 1976; Arana Martija & Ugalde 1984; Torrealdai & Murua Uria 2009).

Euskaltzaindiaren biblioteka-artxiboko zuzendariak, lehen eskuko informazioarekin, erakundearen historiako berri ugari bildu zituen, baina modu zatikatu eta asistematikoa (Arana Martija 1982; 1983a; 1983b; 1990; 1991; 1992; 1993; 1997; 2004). Beste horrenbeste esan daiteke Nafarroako Foru Diputazio frankistarekiko harremanaz argitaratutako artikulu bakanegiaz (Jimeno Jurío 1996). J. L. Lizundia akademiaren diruzainak, halaber, «Euskaltzaindiaren historia» egitasmoa zuzendu zuen hiru urtez, baina emaitzarik argitaratu gabe eten egin zen, eta ondorioz tesi honetarako ezin izan dira egitasmo horretako materialak erabili (ALV 2014). Hizkuntzalari-gramatikariek, bestalde, euskararen estandarizazio prozesuan sakondu dute, baina testuinguru soziopolitikoak bigarren mailan utzita (Zuazo Zelaieta 1988; Goenaga 2000; Salaburu 2015).

Ezin dira aipatu gabe utzi Eusko-Ikaskuntzari (Euskaltzaindiaren «ama»ri, beraz) eskaini zaizkion ikerlan aitzindariak. Hala ere, autonomia estatutuaren gaiari garrantzi gehiago eman zioten, eta halabeharrez Espainiako Bigarren Errepublikarekin amaitzen zen kontaketa (Estornés Zubizarreta 1983; 1990). Hain zuzen, azterketa horien nolabaiteko jarraipen tematikoak dira Euzkadiko Jaurlaritzaren kulturgintzaz edota Euzko Irakastola Nagusiaz egin diren ikerlanak, Gerra Zibilarekin bukatzen direnak (Sebastián García 1994; Aizpuru 2012). Gerraondoa aztertzen dutelako, aipamen berezia merezi dute Eusko-Ikaskuntzen Lagunarteak Pirinio Behereetan antolatutako biltzarren historiak, erbesteko ikuspegiari eusten diotenak (Larronde 2004b; 2004d).

Horregatik eredugarria da, Kataluniako goi mailako ikerketarekin gertatu ohi den bezala, Institut d'Estudis Catalans-en historia ofiziala. Alde batetik, muga kronologiko kanonikoak gainditu zituztelako: bi liburukitan 1907-1942 eta 1942-1989 arteko historia jaso zuten, hurrenez hurren. Bestetik, Kataluniako erakundearen azterketa dokumentatua eta kritikoa delako (Balcells & Pujol 2002; Balcells, Izquierdo & Pujol 2007).

Bikaintasun historiografiko horretaraino iritsi ez arren, funtsezkoak dira filologoek Real Academia Española-z egin dituzten saioak, RAEko kideen artean euskaltzainak zeudelako (Zamora Vicente 1999; García de la Concha 2014). Nolanahi den, tesian aipatutako idazlanen zerrenda osoa bibliografia atalean aurkituko du irakurleak.

Euskaltzaindiaren historia kritikoki aztertzeo aukera, euskaltzain bereziki nabarmenen biografia intelektualen saioetatik etorri da batez ere. Ezinbestean aipatu behar da R. M. Azkuez egindako tesia, betiereko euskaltzainburuak irmo zuzendu zuelako erakundearen hasierako historia. 1919-1936 arteko Euskaltzaindiaren ibilbidea ezagutzeko iturri argitaratu onena izan arren, berriz ere Bigarren Errepublikaren mugarekin aurkitzen gara (Kintana Goiriena 2008; 2015). Muga kronologikoaz beste, P. Lafitte Frantziako euskaltzainaren 1920-1944 arteko sare intelektualaz egindako tesiak, ez du egoitza eta jarduera nagusia Espainian zuen Euskaltzaindian sakontzen (Hernández Mata 2007). Beste horrenbeste esan daiteke akademiaren Baionako ordezkari historikoak egindako ekarpen ugarietz (Charrington 1990; 1997a; 1997b; 2003a; 2003b; 2007; 2009; 2013). Lehen frankismoko euskal barnealdeari askoz gehiago erreparatu zion beste euskaltzain baten biografia erraldoiak. N. Ormaechea «Orixe» idazle handietsiarentzat, ordea, Euskaltzaindia erbesteko ardura igarokorra izan zen. Gainera, ikerketa horretan akademiaren artxiboa ez zen erabili (Iztueta 1991).

Hain zuzen, hutsune historiografiko hori betetzeko nik arakatu dudana artxibo nagusia, noski, Bilboko Euskaltzaindiarena izan da. Exhaustiboki aztertu dut erakundearen funtsezko dokumentazioa (batzar agiriak, zuzendaritza-idazkaritzaren gutuneria, kontabilitate ekonomikoa), baita R. M. Azkue euskaltzainburuaren eta bestelako artxibo pertsonalak ere. Horren gehigarri, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak gordetzen dituen J. Urquijo eta Luis Michelena euskaltzainen korrespondentzia aztertu dut, baita Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo-ren sorerrako dokumentazioa ere. Korporazioaren irudi horren osagarri, beste bi iturri nagusi erabili ditut. Alde batetik, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, akademiaren kontrola zeraman frankismo ofizialaren ikuspegia ematen duena. Bestetik, Bilboko Sabino Arana Fundazioaren artxiboa, erbeste abertzaleak sortutako dokumentazioa gordetzen duena. Horrela, aztergaiaren irudi orekatua eman ahal izan dut. Erabilitako artxibo zerrenda osoaz jabetzeko, irakurleak iturrien atalera jo dezake.

Euskaltzaindiaren historia nahitaez euskararen historia sozialean kokatzen da,

erakundeak sorreratik hizkuntzan ez ezik gizartean eragin nahi zuelako, batez ere euskaraz hitz egiten zuen gizarte gutxiagotuan. Euskararen historia sozial hori egiteko beharra eta tresna intelektualak *Un futuro para nuestro pasado* tesi soziolinguistikoa eta ondoko lanetan ezarri ziren (Sánchez Carrión 1987; 1991; 1992). Tesi horren eragina oso nabarmena da 1987 ondoko euskarazko kulturaren historiografian, baina kudeatu beharreko informazio ugariak arazoak sortzen ditu hiztunen historia soziala egiterakoan, eta ondorioz pertsona edo erakunde/plataforma aipagarrien azterketara jo da, salbuespen gutxirekin (Erize Etxegarai 1997; Madariaga Orbea 2014). Euskaltzaindiak, hain zuzen, euskararen historia sozial anonimo hori egiteko egitasmoa abiatu eta metodologia proposatu du (Intxausti Rekondo 2007; Zalbide, Joly & Gardner 2015).

Nire saioa ere J. M. Sánchez Carriónen tesiaren lorratzeko ikerketa da, pertsonen eta komunitateen arteko berdintasuna duelako helburu etiko. Gabezien artean, emakumeen presentzia eskasa nabarmendu behar da, garaiko matxismoaren isla besterik ez dena. Era berean, ezkerreko ideologiak ia ez dira agertzen, garaiko euskal gizartearen izaera kontserbadoreagatik eta euskarazko kulturaren ezkerrek zuen pisu txikiagatik. Nolanahi den, ez da euskal hiztunen azterketa, baizik eta erdaraz ere aritzen zen goi kulturako euskal erakunde batena. Pertsona bakarrari (F. Krutwig, adibidez) erreparatu ordez, historia prosopografikoaren zenbait ideia ere erabili ditut euskaltzainen ekarpena, korporazio gisa, aztertzeko. Zentzu horretan lagungarri izan dira Eusko-Ikaskuntzaren zuzendaritzako kideak, euskal parlamentario garaikideak edota Bilboko alkate frankistak aztertu dituzten taldeko lanak (Agirreazkuenaga 1998; 2007; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008).

Terminologiari dagokionez, irakurleari atentzio gehien emango diona «Espainia-Frantzia» hitzen erabilera izango da. «Euskal Herria» termino arautua erabili dut mendetako errealitate kulturala adierazteko, Espainiari dagokionez («País Vasco-Navarro» zioen gaztelaniaz 1932ko autonomia estatutu egitasmoak) Bigarren Errepublikan bere ahalmen politikoa gauzatu gabe geratu zena. Maila politiko-administratiboaz aritzean «Hegoalde-Iparalde» anakronismoak baztertu egin ditut, «barnealde-erbeste» bikote politikoaren alde. Era berean, Frantzian izaera administratiborik ez duten «Lapurdi-Nafarroa Beherea-Zuberoa» probintzien ordez, «Pirinio Behereak» («Basses-Pyrénées») departamendua erabili dut ia beti, barrutiak bereiztea nahasgarria zelakoan. «Euzkadi» termino ofiziala erabili dut lurralde/gobernu autonomoa izendatzeko, baina bestelako toponimo guztietan Euskaltzaindiaren forma

arautuak erabili ditut.

Ahal izan dudan neurrian, ikerlan europeista/ez-nazionalista egiten saiatu naiz, eta horretarako «Espainia-Frantzia» terminoak erabili ditut mendetako egitura historiko-politiko saihestezinak izendatzeko, konnotazio identitarioak inposatzeko asmorik gabe. Gaur egungo Euskadi autonomoan abertzaletasunak izan duen gizarte hegemoniaren ondorioz, euskal kulturaren azken 40 urteko historiografia irakurtzen duen ezjakinak Euskal Herria egitura politiko autonomotzat edo are independentetzat jotzeko arriskua du. Espainia eta frankismoa bata bestearekin identifikatu eta nahastu egin dira, lehenengoa tabu bilakatuta. Baina nire ustez hori errealitatearen distortsioa da, besteak beste, egitasmo politiko abertzaleen ibilbidea ulertzea oztopatzen duelako.

Onomastikarekin jarraituta, uko egin behar izan diot hasieran erabili nuen irizpide koherenteari, hots, Euskaltzaindiaren onomastika batzordeak araututako euskal deituren formak erabiltzeari. Zoritxarrez edo zorionez, irizpide hori ez da betetzen batzorde horretatik eta akademiaren biblioteka-artxiboaren katalogoetatik kanpo (Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea 1998; Azkue Biblioteka Batzordea 2006). Nire aurreko idazlanetan euskal arau onomastikoak jarraitzeko burua nekatu ondoren, bidegabea iruditu zait tesian «aita santua baino papistago» agertzea. Azkenean, nahi baino berridazketa gehiago egin ondoren, *Euskera* agerkari ofizialean mende erdiz argitaratutako euskaltzainen izendegiak erabili ditut irizpide nagusi gisa, erdal grafiarekin idatzita agertzen direnak, salbuespen oso gutxirekin (ALV 1919-1920; 1930b; 1931; 1953; 1958; 1961b; 1962; 1963-1964; 1968).

Euskal idazle zaharren deiturak ere jatorrizko grafia klasikoan utzi ditut, forma arautuak nahiko hedatuak egon arren: «B. Dechepare», baina ez «B. Etxepare», etc. Horrek inkoherentzia bitxiak eragin ditu: «Luis Michelena» forma erabili dut Gipuzkoako euskaltzain ospetsua izendatzeko, nahiz eta haren «euskal» izena daraman Koldo Mitxelena Kulturunea (KMK) behin eta berriz aipatu behar izan dudan iturri gisa. Hain zuzen, garaiko erakundeen izenak ere, ulerterrazago diren jatorrizko erdal forma ofizialetan utzi ditut; itzulpen arruntak dituzten ministerio-diputazio-unibertsitate-elizbarruti bezalako kasu ezagunetan izan ezik.

4 EUSKALTZAINDIAREN SORRERATIK GERRARA

4.1 Euskaltzaindiaren sorrera eta eginkizunak: estatutuak eta barne erregelak

Euskaltzaindia giro jakinean sortu zen, LMGko testuinguruan eta Espainiako autonomismoaren gorakadan. 1917ko probintzia hauteskundeetan BPDan jeltzaleak nagusitu eta R. de la Sota izendatu zuten presidente. BPDko jeltzaleek euskal kulturaren aldeko neurri berritzaileak hartu zituzten, esaterako, hezkuntzaren alorrean. Horrela, C. Elguezabal diputatu jeltzaleak euskararen hizkuntz akademia sortzearen aldeko mozioa aurkeztu zuen 1918ko urtarrilaren 25eko batzarrean. BPDak baiezkoa eman zion proposamenari. Araba-Gipuzkoa-Nafarroako diputazioekin batera, egitasmoa Gipuzkoako Oñatin irailean ospatuko zen EI-SEVen sorrera biltzarrean lantzea adostu zuten. Oñatiko biltzarreko Hizkuntza sailak elkarte bat sortzea erabaki zuen euskara ikertu eta zaintzeko. Era berean, Euskaltzaindia izango zenaren lau kide sortzaileak hautatu zituzten: A. Campión, R. M. Azkue, J. Urquijo eta L. Eleizalde. Nolabait ALVren izaera bikoitza irudikatu zuten. R. M. Azkue euskara katedraduna zen Bilboko irakaskuntza ertaineko institutuan. L. Eleizalde jeltzalea BPDko «Erri-Irakaskuntza-Batzorde» berriaren burua zen. Baina A. Campión-J. Urquijo errentadunek ezin zuten euskaraz normaltasunez egin, nahiz eta historia-filologian adituak izan. Horrek hasieratik baldintzatu zuen gaztelania lan hizkuntza nagusi izango zuen ALVren jarduera.

EI-SEVek deituta, lau akademiko sortzaileak bildu ziren 1919ko irailaren 21ean GPDaren jauregian. Laurokin batera, euskara eta euskal kultura lantzen zituzten aldizkari nagusietako ordezkariak bildu ziren gainerako zortzi akademikoak hautatzeko: D. Aguirre, P. Broussain, B. Adema, R. Inzagaray, J. Aguerre, J. B. Egusquiza, R. Olabide eta P. Lhande. BPDak aurkeztutako moziotik beretik ALV eragin jeltzalepean lotzeko saioak egon ziren, baina elkartearen gutxieneko aniztasun ideologikoa eta autonomia politikoa ziurtatzea lortu zen. Nolanahi den, 1920an bi euskaltzainek uko egin zioten postuari (B. Adema-J. Aguerre) eta beste bi hil egin ziren (D. Aguirre-P. Broussain). Ondorioz, lau euskaltzain berri izendatu zituzten: G. Lacombe, S. Altube, D. de Inza eta M. Landerretche (Estornés Zubizarreta 1983; Hernández Mata 2007; Kintana Goiriena 2008; 2015; Torrealdai & Murua Uria 2009).

Euskaltzaindiak, Donostian, 1920ko ekaineko batzarrean onartu zituen *Euskaltzaindiaren sortarauak = Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*. Horren

arabera, ALVren helburua euskara zaindu eta lantzea zen, hala filologiaren arloan nola gizarte erabileran. Horregatik, ALVk bi sail nagusi izango zituen: «Ikerleen» saila eta «Yagoleen» saila (ALV 1920a). Ikerleen saila («sección filológica») arlo zientifikoaz arduratu behar zen: fonetika, semantika, prosodia, morfologia, sintaxia edota ortografia. Hau da, euskararen deskribapen zehatza burutu behar zuen, gramatika eta, batez ere, hiztegi banatan jasoko zena. Garaiko ikerketa filologikoen mailan jarri nahiz, fonetika laborategia eta bulego lexikografikoak ezartzeko asmoa adierazten zuten 1920ko estatutuek, RAE-IECen erduei jarraituta. Tokiko unibertsitaterik ezean, ALVk diruz lagundu zituen G. Bähr-O. Apraiz-P. de Iraizoz urgazleak filologia ikasketak egin zitzaten Alemania-Suitzan, gero Euskaltzaindian lan egiteko, baina inkesta dialektologikoetan laguntza puntuala ematera mugatu ziren, lankidetzara iraukorrik sortu gabe.

Bigarren sailaz den bezainbatean, Yagoleen sailak («sección tutelar») euskara gorde, hedatu eta araztu behar zuen bizitzaren maila eta gizartearen harreman guztietan. Horretarako bitarteko nagusia literatur estandar bat sortzea zen, dialekto guztietan oinarrituta omen. Era berean, Ikerleen sailari lexikografian lagundu behar zion. Euskaltzaindiak ahalegin handiak egin zituen gaztelania-euskara hiztegi normatibo handi bat plazaratzeko, baina ikusiko dugunez asmo horrek ere porrot egingo zuen. Estandarizazioaren bidetik, *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera* (1920) delako txostena aurkeztu eta eztabaidatu zen, baina batez ere Bizkaiko abertzaleek egiten zuten oposizioagatik, Euskaltzaindia ez zen ausartu bide horretan aurrera egiten. Neologismoen edota pertsona izenen auziak arazo berak eragin zituen. Erdibide gisa, 1920an sabindar ereduari jarraitzen zion alfabetoa arautu zuen Euskaltzaindiak.

Erdarazko paisaia linguistikoan eragiteko asmoarekin, idatzizko bizitza publikoan nonahi agertzen ziren liburu, testu edota iragarkiak euskaratzeko asmoa agertzen zuen: eskola, eliza, museoak, laborategiak, buletinak, egunkariak edota kale izendegiak. Halaber, euskarazko idazketa nahiz irakurketa areagotzeko, literatur lehiaketak antolatu eta idazlan klasikoen eta erlijiosoen itzulpenak sustatu behar zituen. Bestalde, euskarazko dokumentu zaharrak jaso eta argitaratzeko eta euskal hizkuntza eta literatur katedrak sortzeko asmoa agertzen zuten. Ikerleen sailarekin gertatu bezala, 1920ko estatutuek ezarritakoa baino maila apalagoan ibili behar izan zuen Yagoleen sailak ere, prentsan euskarazko presentzia testimoniala ziurtatzea ere nekeza zen garaian.

ALVren antolaketa organikoari dagokionez, Euskaltzaindia 12 euskaltzainek («socios numerarios») eta 8 urgazlek («correspondientes») osatzen zuten, guztiak euskal jatorrikoak eta hizkuntzaz euskaldunak. Gutxieneko kopuru horri, zehaztu gabeko deduzkoak («socios honorarios») eta urgazleak gehi zitezkeen, atzerritarrek barne. Euskaltzainen betebeharra, alde batetik, ALVren zereginetan laguntzea eta idazlanak argitaratzea zen, eta bestetik, batzarretan parte hartu eta erabakiak hartzea. Urgazleek, aldiz, ikerketak bidali behar zituzten ALVra, eta euskaltzainburuaren baimenarekin batzarretako literatur gaietan parte har zezaketen, hitzarekin, baina botorik gabe. S. Altube-R. Olabide euskaltzainak azterrian egon zirenean 1920ko hamarkadan, batzarretarako behin-behineko ordezkioak ere izendatu ziren pare bat urtez.

Euskaltzaindiaren zuzendaritza euskaltzainburuak, diruzainak, artxibozain-bibliotekariak («gutuntzain» jatorrizko terminologian) eta idazkariak («idazlari» edo «zadorlari» jatorrizkoan) osatzen zuten, euskaltzainen artean botoz aukeratuak. Bestalde, soldatapeko idazkariorde bat izendatuko zen, ez zuenak zertan euskaltzain izan behar. Euskaltzainburuaren zeregina zen batzarrak zuzentzea, araudi-erregelak eta erabakiak betearaztea, ALVren zereginak banatzea eta agintari-erakundeen aurrean ordezkari izatea. Idazkariak ALVren batzar agirien, dokumentuen, gutuneriaren eta oroitidazkien ardura hartzen zuen bere gain. Artxibozain-bibliotekariak ALVren liburu-eskuizkribuak zaindu behar zituen. Diruzaina, azkenik, kudeaketa ekonomikoaz arduratzen zen, ALVren nahiz diputazioen aurrean.

Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon ezarri zen, behin-behinekoa izan behar zuen Ribera kaleko etxean, baina bulego egokiagoa lortzeko saioek huts egin zuten. Batzarrak ohikoak nahiz apartekoak izan zitezkeen. Ohiz kanpokoak deitzeko hiru euskaltzainek eskatu behar zuten. Estatutuen arabera, ohiko batzarrak pribatuak nahiz publikoak izan zitezkeen. Pribatuak 15 egunean behin bildu behar ziren, literatur eta kudeaketa gaiez jarduteko. Batzar publikoak euskaltzain berrien sarrerak eta literatur sariketarako antolatzen ziren. Diputazioen laguntzarekin, euskaltzainei dietak ordaindu behar zitzaizkien batzarretara joan ahal izateko. Batzarrak botoz onartu gabe, ALVk ezin zituen lanik agindu edota bere izenean idazlanak argitaratu.

Euskaltzaindiaren baliabide ekonomiko nagusiak diputazioen aurrekontuetatik etorri behar ziren. Bestelako erakunde eta partikularrek dohaintzak egin zitzaizkien. Era berean, ALVren argitalpenak nahiz egitasmoak beste diru sarrera bat izan behar ziren. Horretarako, ALVk izaera juridikoa behar zuen dohaintzak jaso, kontratuak egin eta

baliabideak kudeatzeko.

Euskaltzaindiak, Donostian, 1920ko urtarrileko batzarrean onartu zuen *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* delakoa. Horren arabera, Ikerle-Yagoleen sailak batzorde iraunkorretan banatuko ziren, zereginak behar bezala burutzeko. Kasu honetan ere asmo handinahiek euskararen errealitate soziologiko gutxiagotuarekin topo egin zuten, eta letrak agindutakoa baino maila apalagoan ibili zen (ALV 1920b). Ikerleen sailak gramatikaren arloan, fonetika, morfologia eta sintaxi batzordeak izango zituen. Lexikografiaren arloan, bestalde, onomastika, paremiologia, terminologia edota dialektologia batzordeak izango zituen. Yagoleen sailak, orobat, batzorde bereziak izango zituen literaturaren, gizarte sustapenaren, itzulpengintzaren eta estandarizazioaren arloetan. Sail bakoitzak zuzendari eta idazkari bana izendatu behar zuen batzordeen lana koordinatzeko eta Euskaltzaindiaren ohiko batzarretan lanen berri emateko.

ALVren ohiko batzarretan euskaltzainburua izango zen mahaiburu eta bere alboetan eseriko ziren Ikerle-Yagoleen sailburuak. Horien ondoan idazkariaren tokia zegoen. Idazkariak huts eginez gero, sailburuak hartuko zuen haren ardura. Euskaltzainburuak otoitz batekin emango zion hasiera batzarrari euskaltzain guztiak zutik zeudela. Batzarretan hurrengo gaiak aztertuko ziren hurrenez hurren: aurreko batzar agiria irakurri, sailtako lanak eta mozioak aurkeztu, euskaltzainen nahiz kanpokoan lanak eta mozioak aurkeztu, gai ekonomikoak azaldu eta, azkenik, postu berriak iragarri nahiz bete. Batzarrak zutik entzundako beste otoitz batekin amaitzen ziren.

Ohiko batzarren egutegia urrian hasi eta uztailean amaitzen zen. Batzarra osatzeko gutxienez 7 euskaltzain bildu behar ziren. Salbuespen gisa, euskaltzainen heriotza edo ukoagatik, 6 euskaltzainek osa zezaketen batzarra. Gutxiago bilduez gero, gai ordena jarrai zitekeen, baina ezin zituzten erabakiak hartu. Erabaki larriak hartzeko 7 euskaltzain baino gehiagok bozkatu behar zuten, eta erabakiak oso larriak izanez gero, gutxienez 7 euskaltzainek eman behar zuten aldeko botoa. Euskaltzain guztiek zuten erabakia behin bakarrik geroratzeko eskubidea.

Karguak bi urtean behin berritu behar ziren boto bidez. Biurteko berriaren lehen batzarrean, aurreko idazkari-diruzainak egindakoaren berri eman behar zuten. Era berean, euskaltzainburu berriak bere egitasmoen berri eman behar zuen. Ekitaldia meza batekin hasi behar zen eta, mota guztietako euskaltzainez gain, hurrengo erakundeak gonbidatu

behar ziren: diputazioak, tokian tokiko udalak eta EI-SEV. Hamabi euskaltzainen artean, heriotzagatik edo ezintasunagatik, sortutako hutsuneak betetzeko, hurrengo prozedura erabili behar zen. Hutsuneak berehala iragarri ondoren, bi hilabeteko epea egongo zen hiru euskaltzainek sinatutako hautagai aurkezpenak egiteko, hautagaiaren meritu eta bibliografiarekin. Epea igarota, euskaltzain berriak gehiengo osoz hautatu behar ziren ohiko batzarrean.

Idazkariak izendapenaren jakinarazpen ofiziala eman behar zion euskaltzain berriari eta horrek onarpena bidali behar zuen. Ondoren, euskaltzain berriak gehienez sei hilabete zituen bere sarrera hitzaldia idazteko eta bi hilabete beste euskaltzain batek erantzun hitzaldia prestatzeko. Batzorde berezi batek bi hitzaldiok onartu ondoren, batera argitaratuko ziren sarrera ekitaldia baino lehenago. Sarrera ekitaldiak publikoa eta solemnea izan behar zuen. Idazkariak aurkezpena egin ondoren, bi euskaltzainek hautagaia lagunduko zuten batzar mahairaino. Sarrera eta erantzun hitzaldiak irakurri ondoren, guztiak zutitu, eta euskaltzainburuak titulu-intsigniak eskuratu behar zizkion euskaltzain berriari.

1920ko erregelaren arabera, Euskaltzaindiak hiru motako argitalpenak izan behar zituen. Alde batetik, urtero argitaratu behar zuen oroitidazkia, baina praktikan ezerezean geratuko zen hori ere. Bestetik, urtean behin gutxienez argitaratu behar zuen agerkari ofiziala, alde batetik, ALVren ikerketa-kritika-informazioekin eta, bestetik, euskaltzainen edo bestelakoen idazlanekin. Azkenik, periodikotasun zehatzik gabe, ALVk agindutako edota onartutako idazlan bereziak argitaratu behar ziren. Aldizkariak batzorde berezi bat arduratuko zen eta ALVren argitalpen orok erakundearen zigilua eraman behar zuen. Hain zuzen, *Euskera* agerkaria izan zen 1920-1936 artean Euskaltzaindiaren ikerketa filologikoen erakustoki nagusia, batez ere R. M. Azkue, S. Altube, J. B. Egusquiza euskaltzainen edota N. Ormaechea urgazlearen kasuan (cf. Villasante 1953b).

Euskaltzainburuak, idazkariak eta bi sailburuek osatutako kontseilua arduratu behar zen Euskaltzaindiaren barne kudeaketaz. Hau da, kontseilu berezi horren ardura zen literaturaz eta ekonomiaz kanpoko erabakiak bideratzea eta egoitzako material eta baliabide guztiak behar bezala zaintzea. Administrazio kontseilua euskaltzainburuak, idazkariak, bi sailburuek eta diruzainak osatzen zuten. Kontseilu horrek diruzainaren urteko bi kontu nagusiak, diru sarrera eta gastuena eta diputazioei aurkeztutakoa, aztertu behar zituen. Era berean, argitaratzaile eta saltzaileekin ALVren argitalpenak negoziatzeaz arduratu behar zen. Azkenik, diruzainak egin beharreko ordainketa

igorpenak prestatu eta ALVri egindako dohaintzez eta diru sarrerez arduratu behar zen, batzarrean aurkezteko. Diruzainak ezin zuen bere kasa erabakirik hartu kasu guzti horietan; soilik gastu txikietan.

Bukatzeko, 1920ko erregelek ALV eta EI-SEV arteko harremanak zehazten zituzten. Euskaltzaindia EI-SEVen filiala edo «alaba» zen, baina erabateko autonomia zuen bere estatutuek adierazitako literatur ekintzetan. Asmoa badirudi ALVren izaera juridikoa filial gisa zehaztea zela, baina hori arazo bilakatuko zen, EGZean EI-SEV desagertu zenean. Euskaltzaindiak, teoriarik, EI-SEVen gainerako filialen arloz arloko laguntza eskatzen zuen euskal hiztegia osatzeko. Horren ordainez, Euskaltzaindiak EI-SEVen sail zientifikoei lagunduko zien testuen itzulpengintzan. Dena dela, EI-SEVen jardueran gaztelania nagusitzearen ondorioz, euskara ez zen inoiz lan hizkuntza transbertsala bilakatu eta horrek ALVren ahalmena murriztu egin zuen berehala. Era berean, Euskaltzaindiak ez zuen bere eginkizun normatiboa bete, esaterako, gaztelania-euskara hiztegiaren egitasmoan. EI-SEVen zuzendaritzan Euskaltzaindiak ordezkari izan behar zuen, unean uneko euskaltzainburu eta idazkariaren bidez. Hala ere, erregeletako behin-behineko artikulak agintzen zuenez, Oñatiko 1918ko biltzarrean EI-SEVeko zuzendaritzako kide izendatutako bi euskaltzainak (J. Urquijo-L. Eleizalde) ziren hil arteko lehenengo ordezkariak. Euskaltzaindiak 1935 arte urtero 3.000 ptako aurrekontua jaso zuen EI-SEVetik. Dena dela, Euskaltzaindiak ibilbide askea egin zuen, eta harreman gutxi izan zuten bi erakundeek. Hori bereziki nabarmena da ALV ia diktatorialki zuzendu zuen R. M. Azkue elizgizonaren kasuan, gutxitan parte hartu baitzuen EI-SEVen zereginetan.¹

L. Eleizalde idazkaria 1923an hil zenean, C. Echegaray historialari maurista izendatu zuten ondorengotzat; baina oso gutxirako, 1925ean hil baitzen. B. Echegaray anaiak bete zuen hutsunea. M. Landerretche zaharra ere 1930ean hil zen eta J. Elissalde elizgizona izan zen ondorengo izendatua. Hasierako aldaketen ondoren, diktadura primorriveristatik EGZa hasi arte, talde berak osatu zuen ALVren zuzendaritza, nolabaiteko egonkortasunarekin: R. M. Azkue buru, R. Inzagaray idazkari, S. Altube

¹ EI-SEVen hasierako zuzendaritzan, A. Campión ohorezko buruaz gain, L. Eleizalde-J. Urquijo-P. Broussain euskaltzainak aurkitzen ziren. Ondoren, Echegaray anaiak, S. Altube eta G. Lacombe ere aritu ziren zuzendaritzan. Hutsune nabarmena, noski, R. M. Azkue euskaltzainburuarena zen. Dena dela, batzarretako partaidetzak ikusita, L. Eleizalde hil ondoren, J. Urquijo-B. Echegaray izan ziren EI-SEVeko euskaltzain aktiboenak 1930eko hamarkadan (Estornés Zubizarreta 1983; Agirreazkuenaga 1998; Hernández Mata 2007; Kintana Goiriena 2008)

diruzain, A. Campi3n Ikerleen sailburu, D. de Inza Yagoleen sailburu eta G. Lacombe bibliotekari. Zuzendaritza hori 1923ko azaroan aukeratu zenetik, 1925ean, 1927an, 1930ean eta 1932an berrautatu zuten. Hurrengo urteetan ez zen zuzendaritza berritzeko bozketarik egin (ALV 1925: 119-121; 1926: 65-66; 1930a: 46-47; 1933: 22-23, 285-286).

1930-1936 artean, hauek izan ziren hamabi euskaltzainak:

1. Resurrecci3n M^a Azkue
2. Bonifacio Echegaray
3. Julio Urquijo
4. Arturo Campi3n
5. Severo Altube
6. Georges Lacombe
7. Jean Elissalde
8. Ram3n Inzagaray
9. D3maso de Inza (OFM^{Cap})
10. Juan Bautista Egusquiza
11. Raimundo Olabide (SI)
12. Pierre Lhande (SI) (Arana Martija 1990: 22).

Lurraldetasunari dagokionez, 1930eko hamarkadan, 12 euskaltzainetatik 9 ziren Espainiakoak (%75), eta %25 Frantziakoak: G. Lacombe-J. Elissalde-P. Lhande. %25 Bizkaiko (R. M. Azkue-J. Urquijo-J. B. Egusquiza), %25 Gipuzkoako (B. Echegaray-S. Altube-R. Inzagaray), %16,66 Nafarroako (A. Campi3n-D. de Inza) eta %8,33 Arabako (R. Olabide). Oreka geodemolinguistiko horrek, diru laguntza ofizialetan ere isla nabarmena zuen.²

Ideologikoki guztiak ziren oso kontserbadoreak. Eliza katolikoaren hegemonia erabatekoa zen, eta 12 euskaltzainetatik zazpi (%58,33) elizgizonak ziren; lau diozesiar apaiz (R. M. Azkue-J. Elissalde-R. Inzagaray-J. B. Egusquiza), bi jesuita (R. Olabide-P. Lhande) eta fraide kaputxino bat (D. de Inza). Nork bere ideologia izan arren, aita santuari, apezpikuei edota ordenako nagusiei zor zieten mendekotasunak, nolabaiteko babesa ematen zion Euskaltzaindiari garaiko testuinguru politikoan saihestezinak ziren borroka eta susmoekiko. Horrela, Espainiako Bigarren Errepublikan tentsio politikoak

² Adibidez, 1930-1932 artean ALV^k urtero jaso zuen 26.490 ptako aurrekontu ofiziala honela banatu zen: Gipuzkoako erakundeek 11.990 pta ematen zituzten, Bizkaikoek 9.500 pta, eta Nafarroakoek 2.000 pta. Aurrekontua EI-SEVek emandako 3.000 pezetekin borobiltzen zen. Araba-Frantziako erakundeek ez zuten ezer ematen (ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1930-1932).

goia jo zuenean, ez zen ezker-eskuinaren arteko hausturarik egon, ALVn ezkerrik egon ez zegoelako.³ Joera hori ongi islatzen zuten jeltzaleak, bestalde, ALVren %25 ziren, horietako bi elizgizonak: S. Altube, J. B. Egusquiza eta R. Olabide. Jeltzale-eskuindarren arteko hausturarik ere ez zen egon hasieran, guztiak bat zetozelako Lizarrako Estatutuak irudikatzen zuen autonomismo katoliko konfesionalean: gehienez ere, EBerekiko akzidentalak eta sozialki oso moderatuak ziren. Ikusiko dugunez, Gerra Zibilak banatuko zituen Espainiako euskaltzainak.

4.2 *Espainiako bederatzi euskaltzainak*

Resurrección M^a Azkue

Resurrección M^a Azkue Aberasturi (1864-1951) Bizkaiko Lekeition jaio zen. 1888an apaiztu eta Bilboko irakaskuntza ertaineko institutuko euskara katedra irabazi zuen. Irakasle lanetan jardun zuen 1920an erretiroa hartu arte. *DVEF* (1905-1906) bere lanik ospetsuena, Frantzia argitaratzeko probak zuzentzen ibili ondoren, Belgika-Alemanian musika ikasketak egin zituen. Ezohiko lan gaitasunaren emaitza dira, halaber, *Cancionero popular vasco* (1922-1925) kantutegia eta *EY-LPPV* (1935-1947) folklore bilduma. 1919tik Euskaltzaindira zuzendu zituen bere indarrak. 1921eko apirilko batzarrean eman zuen gipuzkeraren aldeko iritzia literatur estandarrerako. ALVren batzarretan irakurri eta eztabaidatu ondoren argitaratu zituen *Morfología vasca* (1925) edota *Gipuzkera osotua* (1935) idazlanak.

Politikagintza aktiboan ez zuen parte hartu, ideologikoki karlismotik integrismora eta integrismotik nolabaiteko abertzaletasun kulturalera igaro zen, baina EAJ-PNVrekin identifikatu gabe. Hain zuzen, eztabaida garratzak zian zituen S. Aranaren jarraitzaile ortodoxoekin, ez ziotelako autoritaterik aitortzen. Frankismoaren baliokide odolgabea den neurrian, diktadura primorriveristan izandako jokabidea da bereziki esanguratsua.

1924an, diktadorearekin berarekin biltzen saiatu ondoren, Ciudad Realeko apezpikuari idatzi zion. Euskaltzainburuaren ustez, separatismoaren aurka egiteko neurri eraginkorrena, hain zuzen, euskara lehen hezkuntzan sartzea zen. Euskaltzaindia

³ Adibidez, 1930eko hamarkadan Euskaltzaindiarekin monografia bat argitaratu zuen EAE-ANVko Justo Gárate (1900-1994), ez zuten urgazle izendatuko 1960 arte. Kontuan har bedi ezker moderatuaz ari garela. Bergarako mediku eruditak berdin gaitzesten zituen marxismoa, antisemitismoa, nazismoa edota freudismoa (cf. KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-02-12).

erakunde zentsuratzaille gisa ere eskaini zion direktorioari, euskal liburuen argitalpena ziurtatzearen. Kolaborazionismoa baino areago, euskaltzaletasunak gidatutako akzidentalismo politiko etengabea izan zen. R. M. Azkuek oso argi zuen unean uneko hierarkia politiko-erlijiosoari zor zitzaion mendetasuna.⁴

Lizarrako Estatutu konfesionalaren aldeko jarrera eta harreman ona izan zuen diputatu jeltzaleekin; baita handiki eskuindarrekin ere, EBEn aurkako estatu kolpea prestatzen ari zirenak. Eliza katolikoari esleitzen zion aginpidean integrisimo politikitik gertu egonda, beldurrez ikusi zuen EBek hartu zuen bide laizista, eta susmo txarrez jeltzaleen ezkerrekiko elkartasuna. 1934ko greba iraultzailearen harira, adibidez, G. Bähr-ek honela idatzi zion: «Lacombe, con quien hablé brevemente en París el pasado octubre [...] me contó qué aterrado había estado Vd. por la revuelta de los comunistas» (apud Jauregi 2005: 168).

1936ko uztailaren 16an Iruñeko I. Baleztina karlistaren etxean egon zen. Konspirazio giroa oso nabarmena zen, baina euskaltzainburua inguruan gertatzen zenetik guztiz kanpo zegoen, bere ikerketa linguistikoetan murgilduta. Egoera guztia bertatik bertara bizi izan zuen B. Echegarayren arabera, gero ere «[p]ara Azkue, la guerra no existía» (apud Ibarzabal 2001: 31).

1936ko azaroan, Euzkadiko Erri-Zaintza Zaingoari («Departamento de Gobernación de Euzkadi») pasaporte eskatu zion itsasoz Baionara joan ahal izateko, bi hilabetez folklore bildumako materialak osatu nahi zituelako Frantzian.⁵ Azaroaren amaieran R. M. Azkue Bilbon bildu zen T. Monzón sailburuarekin eta abenduaren 10ean gipuzkera osotuan idatzitako eskaria bidali zion. Euzkadiko buruzagi jeltzaleekiko oso adeitsu agertu arren, Lekeitioko baimenen arduradun komunistarekin zuen harreman txarra salatu zion. EGZak sortutako baldintza gogorrei zenbait hilabetez itzuri egin eta bere ikerlanetan murgiltzeko nahia nabarmena zen eskarian:

⁴ F. Arocenak, adibidez, Euskaltzaindiaren batzar agirietan agertzen ez den gertaera esanguratsuen berri eman zuen: «Durante la dictadura de Primo de Rivera solía hallarse presente, sobre todo en los primeros tiempos, un policía; y ocurrió que uno de ellos planteó desde el primer momento la pregunta de si los presentes se disponían a expresarse en español o en *dialecto*. Oír esto don Resurrección y subirse a las paredes fue obra de un instante. El pobre policía, a quien hago la justicia de no creerle mal intencionado, quedó completamente acobardado; pero sucedió que se estaba tratando de la proyección de topónimos vascos fuera del país y que el policía se iba interesando en el asunto hasta el punto de que sugirió *sotto voce* al académico más cercano que él conocía algunos topónimos de ese género en su propia tierra, y como no le pareciera a éste desatinado, le invitó a que expusiese su información, la cual efectivamente no fue desatinada» (ABA-EUS: F. Arocenaren gutuna J. San Martíni, 1969-01-14).

⁵ ABA-RMA: T. Monzónen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-12.

Euskalefiari diozun maitasun andiaren arnari edo frutu bezala, ontzat ar zazu, afen! nire eskari au ta igor zadadu «len bai len» pasaporte ta gainera salvo conducto deritzaion papertxo

Lekeition paper onen arduraduna Ernaniko seme Apolinar Otxoa, komunista, dugu. Orain hamabost ora yoateko «salvo» ofen eske yoan nintzakionean, oso gaizki ta otz ta motz artu ninduen. Befiz agertu banenkio ¿emango oteliket? Beldur bear, askori ukatu die-ta. Aurétiaz ta biotzez eskertsu nauzu, Monzon. Otsailaren erdian andik itzultzean, ango lanen befi, labur laburtxorik bada ere, emango dizut.

Ântzi etzaidanean! Beste eskaritxo bat. Esan didatenez batzui bost eunen orde, mil'a pezeta eramateko eskubidea ematen omen diezu. Bi ilabetetan an bizi ta lankideai eskupekotxoak emateko, mil'a oriek eztitut lafegi izango; ta ora or beste jafen! bat.

Zure lankide ta bion adiskide maite Agife ta Leizaola ikus ditzazunean, ene biotz biotzetiko goraintzi andiak eman.⁶

Ordurako ia Gipuzkoa osoa okupatuta zegoen. Agian Frantzian geratzeko asmoa zuen euskaltzainburuak, gertaeren zain. Azkenean, militar matxinoek aurrera egitearen ondorioz, R. M. Azkue Lekeition geratu zen, baina ez zuen erbestera biderik hartu (Arana Martija 1983a; Kintana Goiriena 2008; 2015).

Julio Urquijo

Julio Urquijo Ybarra (1871-1950) Bizkaiko Deustun jaio zen. Kulturgintzan burutu zuen lanik garrantzitsuena *Revue Internationale des Études Basques (RIEV)* sortu eta 1907-1936 artean zuzentzea izan zen. Parisen sortu zuen, baina Donostian argitaratu zen 1922tik aurrera. J. Urquijoren edizio-faksimilei esker eskura zituzten XX. mendeko euskaltzaleek Aro Modernoko idazlanak. Bere euskal biblioteka munduko baliotsuenetakoa zen. Atzerrian lortutako sonaren erakusgarri, Bonn-eko Unibertsitateak ohorezko doktore izendatu zuen 1924ean. EI-SEVEN garrantzi handiko karguak bete zituen. 1918ko lehen biltzarrean «Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca» hitzaldia eman zuen. Erakundeko buruorde izan zen 1930 arte, eta Hizkuntza saileko kide 1933 arte.

1894an Vicenta Olazábalekin ezkondu zen Donibane Lohizunen, Tirso Olazábal buruzagi karlistaren alaba. Hain zuzen, karlismoaren politikagintzan aritu zen eta errege-

⁶ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna T. Monzóni, 1936-12-10.

nahiek Conde de Urquijo (1908) eta zaldun (1913) izendatu zuten. Bi aldiz hautatu zuten Gipuzkoako tradizionalismoaren ordezkari Espainiako Diputatuen Kongresuan (1906, 1931). Karlismoaren ildo autonomista ordezkatzan zuten, Conde de Rodezno-ren erroaren aurrean. Uste izatekoa da EBEn aurkako konspirazioen berriz bazuela.

Bizkaiko plutokraziako kide zen eta eragin politiko handiko bi anaia izan zituen.⁷ Adolfo Urquijo (1866-1933) alfonsotar monarkikoa, BPDko presidente izendatu zuten 1905ean, eta bertatik euskal akademiaren egitasmoa nahiz kontzertu ekonomikoaren negoziazioa bultzatu zituen. José M^a Urquijo (1872-1936) neokatolikoa, berriz, *La Gaceta del Norte* egunkari arrakastatsuen sortzaile (1901) izan zen. Lizarrako Estatutuaren sustatzaile izan arren, EAJ-PNVren arerio bilakatu zen (Estornés Zubizarreta 1983; Arana Martija 1993; Granja Sainz 2008; Agirreazkuenaga et al. 2007; Chacón Delgado 2015).

J. M. Urquijo anaia EGZean fusilatu egin zuten milizianoek, V. Pradera eta beste eskuindar batzuekin batera. Militar matxinoek Donostia 1936ko irailean okupatu ondoren, hiriko egunkariak haren heriotza konfirmatu zuten (*El Diario Vasco* 1936-09-18). Propaganda frankistak abertzaleei eraso egiteko erabili zuen eskuindar ospetsuaren heriotza.⁸ Aldi berean Baionako egunkari profrankistak J. Urquijok bizirik iraun zuela iragarri zuten:

Nous nous réjouissons doublement, et du sauvetage de son incomparable bibliothèque basque, et surtout, de son heureuse survivance à la Révolution. Ses deux mois de cachette ont paru bien longs à ses nombreux amis de France, inquiets à son sujet. Le sort réservé à son frère José María, directeur de la Gaceta del Norte, fusillé para les rouges, endolorit malheureusement notre joie (*Le Courrier de Bayonne* 1936-09-18).

Diktadura frankistaren testuinguru berrian, Bizkai-Gipuzkoako kontzertu ekonomikoak ezbatuko zituztela ageri zenean, J. Etayo Nafarroako artxibozain-kazetari karlistak, J. Urquijoren bizkar utzi zuen euskal kultur erakundeen etorkizuna:

⁷Ama oso gazte galdu zutenez, Rafaela Ybarra (1843-1900) izebak, Santos Angeles Custodios kongregazioaren sortzaileak, hazi zituen. Gainera, R. M. Azkue Deustuko etxeko kapilau izan zuten 1889-1904 artean (Kintana 2015: 77-78).

⁸ EAJ-PNVk berak ikerketa bat abiatu zuen informazioa osatzeko. EGZean Zarauzko ordena publikoaren arduradun izandako J. Cincunegui hurrengo azalpena eman zuen: J. M. Urquijo Zarauzko geltokian atxilotu eta H. Maura diputatu monarkikoarekin batera egon zen preso. Bagajea miatu zioten, baina ez zuten eduki konprometigarririk. CNTko milizianoek Donostiara eramateko asmoa agertu zutenean, eztabaida larria sortu zen. Zarauzko zenbait jeltzalez lagunduta eta bidean ez zutela hilko aginduta baino ez zieten utzi CNTkoei atxilotuak Donostiara eramaten (SAF-AA: J. Cincuneguien gutuna I. López Mendizábal, 1937-10-25, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1).

Pero no se salvarán, «sino [sic] las salva Vd.», —esta es mi convicción firmísima— las instituciones de cultura vasca. Aún le queda a Vd., don Julio, esta tarea salvadora para coronar su vida de servicio al País. No dudo que ha de cumplirla. A Vd. no ha de alcanzarle el recelo que ha de envolver, ha de envolvernos a otros muchos, aunque yo creo, en conciencia, no merecerlo.⁹

Arturo Campión

Arturo Campión Jaimebón (1854-1937) Iruñeko senatari jeltzale ohia, abertzaleendako ez ezik, euskaltzale guztiendako euskal kulturaren sinbolo handienetakoa zen. 80 urteak beteta, literaturaren, Nafarroako historiaren edota hizkuntzalaritzaren alorretan idatzitako lan ugarien *Euskariana* bildumari amaiera ematen ari zen. 1930eko hamarkadan argitaratu zituen X-XII. liburukiak: *Orígenes del pueblo euskaldunen azken zatiak* (1931, 1936) eta *Algo de historia* (1934). Espainiako historiografia ofizialaren aurka eraikitako erudiziozko harresia ziren.¹⁰ Dena dela, idazlan guzti horiek laguntzaileen bidez baino ezin izan zituen egin 1920ko hamarkadatik aurrera, itsututa eta fisikoki ezinduta zegoelako. R. M. Azkueri 1935ean idatzitako gutunean adierazi zuen bere egoera tamalgarria:

El Estado orgánico de mi salud es perfecto, per[o] ahí termina todo lo que me satisface[,] en todo lo demás vivo sumido en la más terrible y completa de las impotencias, ni puedo andar sino llevado del brazo, ni puedo leer, ni escribir, ni tocar el piano, ni hacer nada por mí mismo, ni hacer nada para visitarles, a[.] pesar de mis vivos deseos, para tomar alguna parte en los trabajos de Vd y de sus dignos compañeros, pues flaquean todos los recuerdos de cosas pasadas y no me atrevo a lanzarme a los caminos que tanto an[h]elo recorrer, así vivo sumido, si esto es vivir, en el más completo de los aburrimientos.¹¹

Horrela bada, Euskaltzaindiak urtero bere Iruñeko etxean egiten zuen batzarrean parte hartzera mugatzen zen. 1936ko uda, beti bezala, Donostiako Ategorrieta auzoko etxe dotorean eman zuen. EGZak izua besterik ez zion eragin. M. Irujoren aginduz, A. Campiónen etxea babestuta egon zen, milizianoen erasoen beldurrez. Hain zuzen,

⁹ KMK-JU: J. Etayoren gutuna J. Urquijori, 1936-09-20.

¹⁰ Oso minduta agertu zen, adibidez, J. Urquijok RAEko «otserrian» egindako sarrera hitzaldian bere *Orígenes del pueblo euskaldunen* lehen zatia (1927) ez zuelako aipatu ere egin (KMK-JU: A. Campiónen gutuna J. Urquijori, 1929-11-30).

¹¹ ABA-RMA: A. Campiónen gutuna R. M. Azkueri, 1935-10-16.

Nafarroako erudituak nahigabetuta idatzi zion J. Urquijori, anaiaren heriotzagatik: «Le escribo a Vd para manifestarle la indignación y la pena que me causa la horrible [sic] acto perpetrado contra su caballeroso hermano a quien estimaba mucho sin conocerle personalmente[te]». ¹² Era berean, bere iloba eskuindarren erailketak asko sufriarazi zion. Matxinoek Donostia okupatu ondoren, frankisten aldeko adierazpena argitaratu zuen Iruñeko egunkarian:

Tengo el gusto de hacer constar que liberada esta ciudad de la tiranía roja, quiero manifestar a la vez que mi protesta más enérgica por el incalificable proceder del nacionalismo vasco, mi adhesión inquebrantable a la Junta Nacional de Burgos (*Diario de Navarra* 1936-09-14).

Gerra egoeraren presiopean sinatutako agure baten adierazpena zirudien. 1937ko uztailaren 18an hil zen Donostian, baina oso jende gutxi bildu omen zen Iruñeko hiletara. Besteak beste, F. Cambók omenezko testua idatzi zuen, Nafarroako euskaltzainak jeltzaleen «okerreko» bidea saihestu zuela nabarmenduta. E. Esparzak *Diario de Navarra*, ordea, A. Campiónen ikuspegi historiografikoaren aurka idatzi behar izan zuen. Gainera, haren ondare bibliografiko eta dokumentala NFDak zabartu egin zuen hurrengo urteetan (Granja Pascual 1988; Estornés Lasa 1996; López Antón 1998; Bidador 2003; Majuelo 2011).

Juan Bautista Egusquiza

Juan Bautista Egusquiza Meabe (1875-1939) Bizkaiko Lemoan jaio arren, apaiztu ondoren Lekeitio, euskaltzainburuaren jaioterrian, bizi izan zen latin katedran lanean. Zornotzan 1912an sortutako Jaungoiko-Zale Bazkunako kide izan zen eta 1919an euskaltzain izendatu zuten. Era berean, 1917an lehenengo aldiz jeltzaleak BPDan nagusitu ondoren, Junta de Instrucción Pública-ko kide izendatu zuten, beste jeltzale batzuekin batera: C. Elguezabal, F. Landáburu, L. Eleizalde, E. Bustinza, M. Eguileor edota F. Belausteguigoitia. Hezkuntza abertzale-konfesionalaren ikuspegitik, euskararen irakaskuntza sustatu eta eskolen azpiegiturak hobetu zituzten. Baina 1919an monarkiko espainolistak BPDan nagusitzearekin bat, gatazkak sortu ziren. Hain zuzen, 1921ean J. B. Egusquizak Junta de Instrucción Pública berriaren gaitzespen botoa jaso zuen J.

¹² KMK-JU: A. Campiónen gutuna J. Urquijori, 1936-10-07.

Altunaren eskuliburu «separatista» saritzeagatik (Arrien 1989a: 64-71). Euskaltzaindian betetzen zuen eginkizuna ere gaitzetsi egin zuen G. Bähr Alemaniako urgazleak 1924an:

El representante principal del grupo extremadamente opuesto, orientado políticamente en el nacionalismo, es Eguskitza. Es párroco en Lekeitio y puede que haya tenido una buena formación (seminarista), y es muy hábil en la oratoria y en la disputa, pero es obvia su exclusiva preparación en los métodos teológicos, de los cuales se sirve también en las discusiones académicas. Es el portavoz de los aranistas, luchó con corazón y alma a favor del término «euzkera», ridículo y de ninguna manera aceptable, y de parecidas monstruosidades. Y esto que ni siquiera se ha distinguido literariamente, a menos que me equivoque, pero considera sin duda su dialecto (el vizcaíno) como el más primitivo, lógico y limpio y como la mejor base para la futura «κοινή» [koine] (apud Jauregi 2005: 243).

J. Intxusagarri jeltzaleak, halaber, ALV barneko tirabiren lekukotasuna eman zuen: «Beintzat neuk, bein baño geiagotan entzun neutsan Eguskitza euskaltzañari, Azkue Euskaltzaindiko buru zan artean ez eبالa euzkeriak aufera txikirik be egingo, esaten».¹³ J. B. Egusquiza euskarazko idazle- sermolari ospetsua zen, EBEn *Gizarte-auzia* (1935) argitaratu zuen, Eliza katolikoaren irakasbide sozialaz. Ikusi dugunez, EGLZ-DCEren lanetan lagundu zuen. Militar matxinoak Lekeitio sartu bezain laster, atxilotu eta epaitu egin zuten. Frogarik ezean, aske utzi zuten eta Lemoara itzuli zen oso gaixorik, baina susmopean jarraitu zuen. 1939ko irailean hil baino lehenago, R. M. Azkueri laguntza eskatu behar izan zion (Urrutia 2013a). Maiatzaren 16an idatzi zion agiriak frogatzen du, J. B. Egusquizaren ustezko frankismoa baino areago, agintari errepresioegileek euskaltzainburua taldekotzat zutela, besteri berme politikoak ziurtatzeko bezain beste:

Que desde hace muchos conozco y trato al sacerdote D. Juan Bautista Egusquiza y Meabe, miembro de número de la citada Academia de La Lengua Vasca, de quien me consta que jamás ha desarrollado actividad política de ningún género, ni participado en ideologías o propagandas afectas al Nacionalismo o Separatismo Vasco, pudiendo también afirmar que en sus labores en el seno de la Academia citada nunca ha rozado la esfera política, limitándolas al aspecto filológico propio de la Academia en general en contraposición con las teorías de este carácter propugnadas por los elementos nacionalistas pertenecientes a la misma.

Certifico así mismo por el trato y relación tenidos con él desde la iniciación del Glorioso

¹³ABA-AIB. J. Inxusagarriren gutuna A. Ibinagabeitiari, [1955?].

Movimiento Nacional, que el expresado señor, no sólo ha tenido actuación contraria al mismo, sino que constantemente ha expresado su plena simpatía y cordial adhesión a dicho Movimiento Salvador.¹⁴

Raimundo Olabide (SI)

Raimundo Olabide Carrera (1869-1942) jesuita Gasteizen jaio zen. J. B. Egusquizarekin Euskaltzaindian tandem antzeko bat osatu zuen. Biek literatur eskola purista ordezkatu zuten batzarretan, eta jeltzaleek Bizkaiko gizartean zuten eraginari esker, ALVk sabindar ortografia arautzat hartzea lortu zuten 1920an. Ondoren, neologismo-arkaismo puristak ALVren lexikografia normatiboan sartzearen alde egin zuten. EBek jesuiten ordena desegin baino urtebete lehenago agertu zen R. Olabide euskaldun berriak grezieratik itzultitako *Itun Beña* (1931). Purismoaren literatur monumentua izan zen; euskal literaturaren historiako erdarazko interferentzia lexiko-sintaktiko guztiekin bat-batean eteteko esperimientua. Horretarako, gipuzkeraren morfologian oinarritu arren, euskara arkaikoa nahiz edozein azpidialektoko lexikoa erabili zituen. Gernikan bizi zela EGZeko bonbardaketa sufritu ondoren, Bibliaren itzulpen lanetan jarraitu zuen. Arratiako Arantzazutik, ALVko idazkariordeari bibliografia eskariak, hala nola J. Duvoisinen Biblia (1859-1865), egin zizkion Bilbora.¹⁵

Esanguratsuki, Euzkadiko Jaurlearitzak euskal literaturaz arduratzeko 1937ko urtarrilean izendatu zituen bost lagunen arteko euskaltzain bakarra izan zen. Gero erbesteratu eta Frantziako Tolosan hil zen auto istripu batean. Euskaltzaindiaren garaiko batzar agirietan ez zen haren heriotza jakinarazi, eta seguruenez berandu izan zuten horren berri. Bonbardaketatik nekez salbatutako euskarazko Biblia osoaren eskuizkribua (*Itun Zâr eta Beña*) ezin izan zuten 1958 arte argitaratu Bilbon (Sebastián García 1994; Altuna 2001; Jauregi 2005; Kintana Goiriena 2008).

Ramón Inzagaray

Ramón Inzagaray Bastarrarena (1878-1947) Donostian jaio zen. Gasteizko elizbarrutiaren seminarioan ikasi ondoren 1903an apaiztu eta 1906tik Donostiako La

¹⁴ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. B. Egusquizaren izenean, 1939-05-16. Euskaltzainburuak abertzaletzat salatutako beste elizgizon batzuei laguntzen saiatu zen, hala nola, Bilboko Santa M^a de Begoña-ko koadjutore izandako Federico Orbea (ABA-RMA: F. Orbearen gutuna R. M. Azkueri, [1938?]).

¹⁵ ABA-RMA: R. Olabideren gutuna G. Maidagani, 1936-12-08.

Asunción ikastetxeko kapilau izan zen. 1916tik San Vicente elizan koadjutore jardun zuen bizi guztian.¹⁶ Donostiako Euskal-Itz-Jostaldien Batzarreko («Consistorio de Juegos Florales Euskaros») kide izendatu zuten 1914an. Gazte integristen artean, euskarazko eskolak antolatzen aritu zen, gero aipatuko dugun I. M. Echaiderekin batera. Lehendabiziko euskaltzainetako bat izan zen 1919an. L. Eleizalde jeltzalea 1923an hil zenean, R. Inzagaray hautatu zuten ALVren idazkari. Irakasle onaren fama zuenez, EI-SEVek euskara azterketak egiteko gaitasuna eman zion. 1931ko otsailean, EI-SEVeko J. Oruetak ordezkari bat eskatu zionean R. M. Azkueri, GPDak sortu behar zuen euskararen aldeko batzorderako, R. Inzagaray izendatu zuen.¹⁷

Donostiako *Argia* astekariaren arduradunetako bat izan zen 1921-1936 artean. Aldizkari horrek apolitizismoa baztertuta, EBEn EAJ-PNVren eta autonomia estatutuaren alde egin zuen. Horregatik, beste euskal aldizkari eta elkarte gehienak bezala, EGZak eta ondoko diktadurak irentsi egin zuten. Antza denez, arazoak izan zituen errepresio matxinoarekin, baina ez zuten zigortu, agian integrismoarekin izandako harremanagatik. Besteak beste, idazkari gisa berak zeraman Euskaltzaindiaren akta liburua falangistek eramane egin zuten. Nahigabetuta bizi omen zituen gerraondoko urteak R. Inzagarayk. Euskaltzaindiaren gerraondoko Donostiako batzarretara agertu arren, ez zuen ekarpenik egin, seguru asko EGZean izandako arazoek sortutako beldurragatik. Nolanahi den, haren ikerketen emaitza *Historia eclesiástica de San Sebastián* (1951) liburu postumoa izan zen (Zugasti 1971; Euzko Apaiz Talde 1981; Estornés Zubizarreta 1983; Estornés Lasa 1996; Díaz Noci 2012).

Dámaso de Inza (OFMCap)

Miguel Olasagarre Zubillaga «Dámaso de Inza» (1886-1986) kaputxinoa Nafarroako Intzan jaio zen. *Zeruko Argia* (1919-1936) hilabetekariaren zuzendari izateaz gain, 1920an euskaltzain izendatu zuten eta ALVko Yagoleen sailburu izan zen. Kargu horrek erantzukizun handia zuen, batez ere herri hizkuntzen sustapenak Espainian izan zezakeen inplikazio politikoengatik. Euskaltzaindia sortu ondoren, A. Campión-D. de Inza Iruñeko apezpikuarekin bildu zirenean 1919an, J. López Mendozak seminarioan

¹⁶M^a Dolores Lecuona Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoaren zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2014-04-15.

¹⁷ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Oruetari, 1931-02-07.

euskarazko katedra sortzeko zailtasunak aipatu zituen:

Conozco que los pueblos en que el vascuence se halla intacto y en los que no hay lectura de periódicos, son los mejores de mi diócesis y los más afectos a la Iglesia; y por esto tres veces he pretendido establecer la clase de vascuence, pero no he conseguido vencer los obstáculos que a ello se opusieron.¹⁸

M. Múgica apezpikuak 1924-1928 artean euskararen erabilera areagotzea lortu zuen, eta apezpikuaren aginduz D. de Inzak prestatu zuen *Kristau ikasbidea* (1927). Baina geroztik T. Muñiz apezpikuaren jarrera euskararen aurkakoa omen zen. R. M. Azkuek eskatuta, 1935eko otsailean D. de Inzak txosten bat prestatu zuen Iruñeko elizbarrutiaren hizkuntz politika deskribatzeko. Ikuspegi konfesional batetik, Nafarroako eremu euskaldunean erretoreek gaztelaniaz egiten zutela salatzeaz gain, horrek izan zezakeen arrazoi politikoa ere iradoki zuen. Txostena Pío Montoya apaizari bidali zioten, horrek bere adiskide zen J. A. Echeguren apezpikuari eman ziezaion, Vatikanon arazoa aurkezteko. P. Montoyak emandako erantzunean, euskarak eragiten zituen arazo politikoak azalerratu ziren:

Lamento no haber estado acordes anteriormente, en nuestra común iniciativa, ya que el Sr Obispo de Oviedo, dada su delicada situación, quería permanecer en el anonimato más absoluto, sin salir a la palestra, donde las enconadas pasiones pudieran dar al traste con su apostolado episcopal, tan gloriosamente iniciado en el pueblo astur, hasta donde han llegado, sugerencias tan malévolas como falsas.¹⁹

EGZa lehertu zenean, D. de Inza Hondarribiko komentuko bikarioa zela, milizia anarkisten gehiegikeriak pairatu zituzten eta jeltzaleek babestuta egon behar izan zuten. Hain zuzen, J. M. Urquijo erail zutenean, gutuna idatzi zion J. Urquijori, kaputxinoen Altsasuko ikastetxetik:

Ayer recibimos la horripilante noticia de la muerte violenta dada también a su hermano D. José María. Ya desde que supimos que lo habían apresado en Zarauz temíamos por su suerte en manos de esas fieras humanas, que parecen demonios encarnados, según lo hemos experimentado también nosotros, pues yo me encontraba en Fuenterrabía y hemos visto su fiereza ante gente desarmada. Aquí toda la Comunidad y Colegio Seráfico le ha

¹⁸ ABA-EUS: D. de Inzaren txostena Iruñeko elizbarrutiko euskararen egoeraz, 1935-02-24. Txostena A. Campiónek ere sinatzen zuen.

¹⁹ ABA-EUS: P. Montoyaren gutuna R. M. Azkueri, [1935].

ofrecido al Señor la sagrada Comunión y mañana tendremos la Misa de sufragio por su eterno descanso. Goce de Dios!

Le felicito a Vd. cordialmente por que ha sabido escapar con vida después de sufrir tantos sobresaltos como sin duda habrá padecido. También nosotros padecimos, ya el día que fuimos encerrados en Guadalupe, ya en los días en que nos arrebataron todo lo que les pareció útil para sí los de la C.N.T. de Irun.²⁰

Kaputxionen probintzia agintarien eta fraide abertzaleen artean tentsio gogorak egon ziren 1930eko hamarkadan. Militar matxinoek Irun-Hondarribia okupatu zituztenean, komentuko kaputxinoak susmopean geratu ziren, abertzaletasunak Gipuzkoako fraideen artean zuen indarragatik. Nafarroan askatutako errepresioaren testuinguruan, ordenako agintariak Santiago de Txilera destinatatu zuten D. de Inza 1936ko amaieran. Besteak beste, J. A. de Donostia kaputxino urgazlea ere, Lekarozko ikastetxeko irakasle kargutik kendu egin zuten (Pagola 2005; Echeverría 2007).

Severo Altube

Severo Altube Lerchundi (1879-1963) Gipuzkoako Arrasaten jaio arren, Gernikako Udaleko musika bandaren zuzendaritza irabazi zuen 1901ean. Ondoren, Alkartasuna arma fabrikako gerentea izan zen 1916tik. Alderdi jeltzale moderatuaren ordezkari, independentistekin bateratzeko negoziazioan parte hartu zuen 1930ean. EAJ-PNVko kide gisa, Gernikako alkate izendatu zuten EBEn eta autonomia estatutuaren prozesuan parte hartu zuen. Bizkaiko gobernadore zibil antiabertzaleak agindutako errepresioaren ondorioz, alkatetza utzi zuen 1935ean. EI-SEVen zuzendaritzako kide eta euskaltzaina zen 1920tik.

Sabindar ortodoxoekin eztabaida ugari izan zituen, haien hizkuntz eredu artifizialak, eta irizpide politikoegiak, euskararen erabilera oztopatzen zutelakoan. Euskaltzaindiko diruzainaren ustez, muturreko purismoak euskararen atzerakadari konponbidea eman ordez, kaltea areagotu egiten zuen. Herri euskarari, erdararen eragina barne, idatzizkoan jaramon gehiago egitea eskatu zuen, irakurleak erakartzearren. S. Altubek azken 40 urtetako euskalgintzari egindako kritika ez zen oharkabean igaro eta eraso gogorak jaso zituen. Hala ere, S. Altube uste osoko abertzalea zen eta ez zion uko egiten ideologia politikoari. Hain zuzen, euskararen iraupena ziurtatzea bi puntu hauetara

²⁰ KMK-JU: D. de Inzaren gutuna J. Urquijori, 1936-09-16.

bildu zuen:

1.^a Para el resurgimiento del euskera, es absolutamente necesario que el sentimiento patriótico arraigue fuertemente en el corazón de la inmensa mayoría de los vascos.

2.^a Es también absolutamente necesario que el euskera sea conservado sin grandes quebrantos en su actual «extensión» e «intensidad», hasta el día en que el patriotismo del pueblo conquiste las posiciones políticas y sociales necesarias para apoyar la ingente labor de reeuskerización de Euzkadi (Altube 1933: 386).

Lexikoan, teorikoki bederen, antipurista izan arren, morfologia-sintaxi-fonologian erdal interferentzien kontra agertu zen hurrengo lanetan: *Erderismos* (1930), *El acento vasco* (1932) edota *Observaciones al tratado de «Morfología vasca»* (1934). Politikagintza baino areago, kulturgintza izan zuen ardura nagusi. Euzkadiko Jaurlaritzan ez zuen kargurik izan, 1936ko irailean erbesterako bidea hartu baitzuen.

Lehenengo Argentinara, Gregoria Gangoiti emaztearen familia aberatsa han bizi zelako eta ondoren, Frantziara jo zuten. Paueko Hôtel de l'Europe-n bizi izan zen eta, bestek beste, *La fonction de la douleur* (1958) filosofia saiakera idatzi zuen, bere egoera psikologikoaren ezaugarri ere bazena (Velez de Mendizabal 1979; Estornés Zubizarreta 1983; Iztueta 2003; Altzibar 2005; Altonaga 2006; Granja 2008).

Bonifacio Echegaray

Bonifacio Echegaray Corta (1878-1956) Gipuzkoako Zumaian jaio zen. Bere anaia Carmelo Echegarayk bezala, eztabaida gogorrak izan zituen S. Arana abertzaletasunaren sortzailearekin XIX. mendeko amaierako prentsan Hain zuzen, anaia nagusia zenaren aulkia hartu zuen Euskaltzaindian 1926an. Madrilen zuen bizitokia, 1916tik baitzen Espainiako Tribunal Supremo-ko epaimahaiko idazkari. EI-SEVEN zuzenbide-historiaren arloetan ez ezik, euskararen ardura nagusia izan zuen EBA-FAPEn. EBEn bi aldiz bildu zen Instrukzio Publikoaren ministroekin euskarazko hezkuntza ofiziala eskatzeko. 1932an autonomia estatutua idazteko ordezkari izendatu zuen Euskal Herriko udalen batzordeak. EAJ-PNVrekiko independentea ez ezik, kritiko ere izaten jarraitu zuen, R. M. Azkueri 1930eko hamarkadan idatzitako gutunetan ageri denez.²¹

EJ-GEren justizia eta kultur alorreko goi mailako funtzionarioa izan zen. Batzorde

²¹ABA-RMA: B. Echegarayren gutuna R. M. Azkueri, 1932-12-06.

juridikoan, gai politiko, penal, administratibo eta juridiko-militarren ataleko presidente izan zen.²² Besteak beste, bere anaia zenaren biblioteka suntsitu zuen Gernikako bonbardaketa irratiz salatzeaz arduratu zen 1937ko maiatzean, eta militar matxinoek Bilbo okupatu zutenean Frantziara erbesteratu zen. 1940 arte, EJ-GEren kulturgintzari eusten saiatu zen. J. A. Aguirre lehendakariak eskatuta, EGZaren historia euskal ikuspegitik idatzi behar zuen, garaiko kontrapropaganda lanen testuinguruan, baina ezerezean geratu zen. Azkenean, A. Onaindiak emandako eta EAJ-PNVrentzat kontuzkoak ziren dokumentuak itzultzea agindu zioten. 1938ko abuztutik ez zuen EBeko funtzionario soldata jasotzen, osasunagatik uko egin ziolako Gobernu frontepopulistarekin Valentzia-Bartzelonara joatea. Gainera, Madril errepublikanoan hiru seme-alaba Txileko enbaxadan gordeta zituen, eta nahigabetuta zeuden abertzaleen laguntza eskasarekin. Seme zaharrena EBEn alde borrokan ari zen Madrilgo frontean.²³ B. Echegarayk, emaztea eta bi alabarekin, Donibane Garazin ezarri zuen bizitokia, baldintza material gogorretan. 1939ko maiatzean EAJ-PNVk SEREen zuen ordezkariaren bidez saiatu zen EJ-GEk eskaintzen zion baino diru laguntza handiagoa lortzen, baina ukatu egin zioten.²⁴ EJ-GEko V. Amézagari 1939-1941 artean idatzi zizkion gutunetan, bizimodu latzaren ondorio psikologikoak eta erbesteko zenbait arduradun politikoekiko amorrua agertzen ziren. Ameriketara joateko asmoek huts egin zuten eta Espainiara itzultzeko baimenaren zain zagoen (Estornés Zubizarreta 1983; Sebastián García 1994; Arana Martija 2004; Irujo Ametzaga 2007; 2009; Aizpuru 2012; Chacón Delgado 2015).

4.3 «Real Academia Española»ren «Sección Vascongada»

R. M. Azkue-J. Urquijo 1927tik Real Academia Española-ko kide ziren. Erabakia diktadura primorrivistak separatismoaren aurka hartutako neurrien ildoan kokatu zen. Gaztelaniaren nagusitasun ofiziala bermatzeko politikaren barruan, gainerako hizkuntzak erabilera pribatu-literario hutsera mugatu nahi ziren (Irujo & Urrutia 2009: 185-189). Alfonso XIII.aren 1926ko azaroaren 26ko dekretuan, RAERI galdetu gabe, eskualdeko hizkuntzen zortzi ordezkariak sortu ziren.

²²«Orden nombrando la Comisión Jurídica Asesora = Agindua Batzorde Lege onuemalea izendatuaz». In: *EAE-BOPV*, 1936-10-23.

²³EAH-EJAH-LS: «Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría. Correspondencia (A-B ...)». B. Echegaray eta J. A. Aguirre-P. Basaldua-A. Irala arteko gutunak, 1937-08-30/1940-03-12.

²⁴EAH-EJAH-LS: «Emigración. Sección Transitoria de Subsidios y Ayudas. Correspondencia General. Correspondencia (E)». B. Echegaray-J. Jáuregui arteko gutunak, 1939-05-28/1939-10-26.

La Real Academia Española se compondrá de cuarenta y dos Académicos numerarios, ocho de los cuales deberán haberse distinguido notablemente en el conocimiento o cultivo de la lenguas españolas distintas de la castellana, distribuyéndose de este modo: dos para el idioma catalán, uno para el valenciano, uno para el mallorquín, dos para el gallego y dos para el vascuence.²⁵

Errege dekretuaren arabera, akademiko berriek eskualdeko hizkuntzen gramatika-hiztegiak arautu behar zuten. RAEren estatutuek agindutakoaren aurka, ez zuten Madrilen bizi beharko, aski zuten urtean hiru batzarrera joatea. Helburua hiru akademia periferikoen autonomia nahiz autoritatea ahultzea zen, zentralizazioaren bidez. RAEk protesta egin arren, 1927ko martxoaren 10ean «Sección Catalana» (A. Rubió-E. d'Ors-L. Fullana-L. Riber), «Sección Gallega» (A. Cotarelo-R. Cabanillas), eta «Sección Vascongada» (R. M. Azkue-J. Urquijo) eratu behar izan zituzten.²⁶ Diktadorea erori ondoren, 1930eko maiatzaren 22an, RAE aurreko egitura arruntera itzuli zen. Eskualdetako ordezkariak eskubide osoko akademiko izaten jarraitu zuten, baina euren postuak amortizatuta geratu ziren.²⁷

1926ko dekretuak eskualdeko ordezkariak sortu bezain laster, zurrumurruek hasi ziren hautagaiez den bezainbatean. Diktadura primorriveristan euskal ikasketak susmoz begiratzen ziren, eta R. M. Azkue euskaltzainburua beldur zen diputazioen diru laguntzak ez ote ziren urrituko. Gipuzkoako Joaquín Churruca eta Bizkaiko Esteban Bilbao diputatu eskuindarrek, ordea, diru laguntzei eutsiko zietela agindu zioten. Bestalde, Madrilgo *El Debate* egunkariak zioenez, RAEko euskararen ordezkariak Nafarroakoak izango ziren. Horietako bat V. Pradera ideologo tradizionalista izan zitekeela zabaldu zen. Beste iturri baten arabera, R. M. Azkue-J. Urquijo ziren hautagai nagusiak, baina biak Bizkaikoak zirenez, Madrilen bizi zen B. Echegaray Gipuzkoako euskaltzaina zen hirugarren aukera. Euskaltzainburuak, guzti horren berri eman eta *Euzkadi* egunkari jeltzalean esandakoak kritikatzeko idatzi zion J. Urquijori.²⁸

R. M. Azkuek beldurrez ikusi zuen diktadura primorriveristaren asmoa,

²⁵ «Real decreto relativo a la composición, en la forma que se expresa, de la Real Academia Española». In: *Gaceta de Madrid* (1926-11-27).

²⁶ RAEren batzarrean 22na boto eskuratu zituzten, euska atala osatzeko aurkeztu zituzten R. M. Azkue-J. Urquijo hautagaiek. Hala ere, adostasuna ez zen erabatekoa izan. Bina boto jaso zituzten Marqués de Dos Fuentes-ek eta J. Fernández Amador de los Ríos *Diccionario vasco-caldaico-castellanoren* (1909) egileak. M. Unamunok ere boto bat jaso zuen, eta beste boto zuri bat egon zen (Zamora Vicente 1999: 296).

²⁷ RAEren eta euskal atalaren historiarako erabilitako iturri nagusiak: Zamora Vicente 1999; García de la Concha 2014; Kintana 2015.

²⁸ KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1927-01-08.

euskararen autoritate normatiboa RAEren esku gera zitekeelako. Uste zuen 1920an araututako euskal ortografia «bizkaitarra» espainiaritu nahiko zutela: «eusker» ordez eusquera» idaztera behartu, adibidez. Baina RAEk eta bereziki R. Menéndez Pidal buruak begi txarrez ikusi zuten dekretuaren inposizioa. Diktadorearekiko oposizioaz jabetuta, ortografiaren auzian RAEko buruaren laguntza baliatu nahi zuen R. M. Azkuek.²⁹ Azkenean, 1927ko otsailean R. Menéndez Pidak berak jakinarazi zion R. M. Azkue-J. Urquijo proposatu zituztela euskararen ordezkari.³⁰ Euskaltzainburuak berehala onartu zuen izendapena.³¹ Beste horrenbeste gertatu zen J. Urquijorekin.³²

R. M. Azkuek *Algunos rasgos característicos del vascuence comparados con los de otras antiguas lenguas* izeneko sarrera hitzaldia 1928ko abenduaren 28an irakurri zuen Madrilen, eta oso ongi islatzen du euskaltzainburuaren akzidentalismo politiko euskaltzalea, F. Francoren diktaduran muturrera eramango zuena. Nazionalismo espainolari ez ezik, diktadurari berari gorazarre eginda, euskararen aldeko neurriak eskatu zituen:

¿No os parece justo, respetables y muy apreciados colegas, que los alumnos de nuestras escuelas sean racionalmente instruidos? Introdúzcase —y no pedimos que se haga en la proporción del celta en las escuelas públicas del País de Gales—, introdúzcase algún tanto el vascuence en las nuestras para que los niños sepan lo que es amar a Dios y consigan al terminar sus estudios elementales hablar mejor no sólo su lengua materna sino aun el castellano. Dios quiera que los señores que han tomado la iniciativa de este segundo Renacimiento de España a que acudimos, acojan cariñosa y fraternalmente esta mi súplica, para que no quede sumido en la ignorancia ni uno siquiera de los que forman aquel pueblo, heredero de una de las lenguas más antiguas y originales del mundo (Azkue 1928: 27).

Urtebeteren buruan, 1929ko azaroaren 24an, J. Urquijok irakurri zuen *De algunos problemas de interés general que suscita el vascuence* sarrera hitzaldia Madrilen. Ohi zuenez, euskalaritzaren egoeraz eta euskal goi kulturaren beharraz aritu zen. Halaber, euskaltzainburuari jarraitu zion, hitzaldiko amaiera eskarian:

Mi compañero, D. Resurrección María de Azkue, en frases sentidas y elocuentes, que

²⁹ KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1927-01-13.

³⁰ ABA-RMA: R. Menéndez Pidalen gutuna R. M. Azkueri, 1927-02-28.

³¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna R. Menéndez Pidal, 1927-03-03.

³² KMK-JU: R. Menéndez Pidalen gutuna J. Urquijori, [1927ko otsaila].

tuvieron eco fuera de esta Real Academia, os hablaba de un problema de cultura popular en nuestras provincias, relacionado con el vascuence. Su resolución es de urgencia, pues nunca fue debidamente tomado en cuenta, a pesar de haberse fijado en él, desde el siglo XVIII, algunos de nuestros escritores. Junto a ese problema, existe otro, de alta cultura, que tampoco debe ser abandonado: el de la conveniencia de que nuestros centros universitarios presten cada vez más atención a las investigaciones relativas a las lenguas que se hablaban o se hablaron en España y sus antiguos dominios, y colaboren, por medio de sus especialistas más eminentes, en labor de los futuros Congresos Lingüísticos (Urquijo 1929: 34).

Izendapen eta hitzaldi hauek, noski, oihartzun handia izan zuten. Eskuindarrek oro har eta karlistek txalotu egin zuten izendapena.³³ Alderantziz, susmoak eta egonezina sortu zuten abertzaleen artean.³⁴ Diktaduraren amaiera begi bistakoa zenean, RAEko eskualdeko ordezkariak ezabatuko zituztela zabaldu zuten egunkariak. Euskaltzainburuak RAEko zuzendariari minduta idatzi zion, gogorarazteko euskal ordezkariak ez zutela direktorio militarren erabakiarekin zerikusirik izan.³⁵ R. Menéndez Pidal zuzendariak RAEko kide oso izaten jarraituko zutela ziurtatu zien.³⁶

Euskaltzainak aspaldiko ezagunak ziren, baina bizitokia Madrilgo egoitzatik urrun zutenez, ez ziren RAEk ostegunero egiten zituen batzarretako kide aktiboak. Diktadura primorriveristaren dekretuak eskualdetako ordezkariak ezarritako zereginak ezerezean geratu ziren.³⁷ J. Urquijok Espainiako Kongresuko diputatu aukeratu zutenean 1931n, erraztasun gehiago izan zituen Madrilgo batzarretan parte hartzeko. Dena dela, RAEko diruzainak 1936ko urtarrilean aurkeztutako datuen arabera, ordura arte J. Urquijo soilik 25 aldiz agertu zen batzarretara, eta R. M. Azkue 13 aldiz besterik ez.³⁸ RAEren lexikografia eta eguneroko zeregin akademikoetatik urrun; kide berrien izendapenean

³³ Adibidez, P. Zamarripa urgazle karlistak bidalitako zorian gutunean (KMK-JU: P. Zamarriparen gutuna J. Urquijori, 1927-05-06).

³⁴ N. Ormaechea urgazleak J. Urquijori 1929an gutunez adierazi zionez (Iztueta & Iztueta 2006: 100-101).

³⁵ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna R. Menéndez Pidal, 1930-04-19.

³⁶ KMK-JU: R. Menéndez Pidalen gutuna J. Urquijori, 1930-04-21.

³⁷ RAEren artxiboan, R. M. Azkueren 13 orrialdeko idazlan zati bat gordetzen da, euskara-gaztelania arteko gramatika konparatu baterako sarrera antzekoa (RAE-RMA: R. M. Azkueren idazlan izengabea, [192?]).

³⁸ RAE-XLVI: RAEren batzar agiria, 1936-01-02. Honela banatzen ziren batzar kopuruak: E. Cotarelo (1656), R. Menéndez Pidal (1467), F. Rodríguez Marín (1267), M. Asín (775), E. Gutiérrez Gamero (668), J. Casares (605), R. León (596), L. Torres Quevedo (568), J. Alvarez Quintero (458), V. García de Diego (432), G. Maura (416), S. Alvarez Quintero (339), A. González de Amezúa (319), L. Eijo (307), A. Gimeno (296), A. Palacio Valdés (239), A. Cotarelo (239), R. Cabanillas (208), I. Bolívar (202), «Azorín» (169), N. Alcalá Zamora (150), L. Fullana (109), M. Linares Rivas (103), G. Marañón (65), M. Artigas (48), S. Bermúdez de Castro (39), T. Navarro (34), J. Urquijo (25), L. Riber (14), R. Maeztu (14), R. M. Azkue (13), P. Baroja (12), A. Rubió (3), E. Díez Canedo (3).

jarri zuten arreta gehien, botoa postaz bidaltzeko ahalmena baitzuten. Euskaltzainburuaren ideologia kontserbadorearen erakusgarri, 1931ko azaroan, J. Urquijok ez bezala, euskaltzainburuak ukatu egin zion N. Alcalá Zamora EBeko presidenteari botoa.³⁹ Era berean, R. M. Azkuek 1936ko martxoan J. M. Pemánen aldeko botoa eman zuen, Conde de Romanones liberal dinastikoaren hautagaitzaren aurka.⁴⁰

4.4 Euskaltzaindiaren jarduera

Euskaltzaindiak gerra aurrean zuen jardun normala nolakoa zen ikusteko, alde batetik, 1935 urteko *Euskera* agerkarira jo behar da, EGZa lehertu aurretik agertu ziren azken agiri ofizialak dituelako. 1934ari dagokionez, urte horretan bi eguneko 8 batzar egin zituzten; guztira 16 batzar, alegia. Batez besteko 8,25 euskaltzain (R. M. Azkue, J. Urquijo, J. B. Egusquiza, S. Altube, G. Lacombe, R. Olabide, D. de Inza, R. Inzagaray, J. Elissalde, Madrilen bizi zen B. Echegaray eta A. Campión zaharra, maiztasunaren arabera zerrendatuta) eta 2,37 urgazle (N. Ormaechea-J. Gorostiaga batez ere) biltzen ziren; araudiak eskatzen zituen gutxieneko kopuruak beteta.⁴¹

Zortzi batzar bikoitz horietako lau Donostian izan ziren, EI-SEVen egoitzan; beste hiru Bilbon, Ribera kaleko egoitzan; eta bakarra Iruñean, A. Campión euskaltzainaren etxean. Zeregin nagusia gaztelania-euskara lexikografia zuten, baina askotariko filologia txostenak irakurri zituzten. Gainera, euskaltzainburuak bere *Gipuzkera osotua* idazlana zatika irakurri zuen, taldean aztertzeko. Bestalde, autonomia estatutuaren gaiak zabaltzen zituen aukerekin lotuta, haur hezkuntzan euskara sartzea ere hizpide izan zuten (ALV 1935).

1935ko batzar agiriak ez dira inoiz argitaratu, baina *EI-SEVen* buletinari eta bereziki Euskaltzaindiaren artxiboko agiri ez onartuei esker, urte horretan gertatutakoa jaso dezakegu. 1935ean ere bi eguneko 8 batzar egin zituzten; guztira 16 batzar, beraz. Batez besteko 8,62 euskaltzain (R. M. Azkue, S. Altube, G. Lacombe, J. B. Egusquiza, R. Olabide, D. de Inza, J. Urquijo, R. Inzagaray, J. Elissalde, B. Echegaray eta A. Campión, maiztasunaren arabera zerrendatuta) eta 2 urgazle (N. Ormaechea-J. Gorostiaga) bildu

³⁹ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-03-01.

⁴⁰ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. B. Kolbi, 1936-03-11.

⁴¹ Askoz gutxiago agertu ziren Bizkaiko F. Belausteguigoitia-N. Oleaga-G. Manterola eta Nafarroako A. Irigaray urgazleak.

ziren. G. Maidagan idazkariordeak ere bost batzarretan parte hartu zuen. Donostian bost batzar bikoitz egin zituzten, Bilbon bi, eta Iruñeko bere etxean egiten zen bakarrera agertu zen A. Campión maiatzean.⁴²

Batzarretako gai nagusia *Diccionario español-vasco* delakoa eta horrekin lotutako txostenak izaten jarraitu zuten. Bestalde beste hainbat idazlan irakurri zituzten: euskaltzainburuaren *Gipuzkera osotua*, N. Ormaechearena euskal azentuaz edota B. Echegarayrena Euskal Herriko historiaz. Halaber, bi hizkuntzalari urgazle izendatu zituzten: Frantziako R. Lafon (hildako J. Etchepareren ordeaz) eta Txekoslovakiako R. J. Slaby lexikografoa (EI-SEV 1935a: 37; 1935b: 31; 1935c: 22; 1936d: 34).⁴³

Zoritxarrez, ez dago 1936ko batzarren berri zehatza ematerik. Batzarrak ekainera arte baino ez ziren egin, eta soilik urtarril-otsaileko agiri zirriborroak gordetzen dira. EGZaren ondorioz, *Eusker*a agerkaria ez ezik, *EI-SEV*en buletina ere etenda zegoen. Agirien ardura R. Inzagaray idazkariak zuen, baina bere eskuetan zegoen akta liburua falangistek desagerrarazi zuten Donostian (Torrealdei & Murua Uria 2009: 51).⁴⁴ 1936ko batzar agiriak argitaratu ez ziren arren, diruzaintzako dietak aztertuz gero, ikusi ahal dugu Euskaltzaindiak ohiko batzar bikoitzak egin zituela urtarrilean Bilbon, otsailean Donostian, apirilean Donostian, maiatzean Iruñean eta ekainean Lekeition. Euskaltzaindiaren 1936ko batzarretako partaideak hauek izan ziren: R. M. Azkue, J. Urquijo (urtarrilekoan izan ezik), J. B. Egusquiza, R. Olabide, R. Inzagaray, S. Altube, D. de Inza, G. Lacombe, B. Echegaray, N. Ormaechea, J. Gorostiaga eta G. Maidagan (urtarrilekoan izan ezik).⁴⁵

Bestalde, Euskaltzaindiaren artxiboan, R. Inzagarayren 1936ko bi batzar agiriren zirriborroak gordetzen dira, onarpen ofizialik ez dutenak. Bilboko egoitzako urtarrilaren 28-29ko agiriak dioenez, *Diccionario español-vasco* lantzen jarraitu zuten. S. Altube diruzaina, 1935eko ekonomia kontuen berri emateaz gain, gaztelaniazko «de» preposizioaren euskarazko ordainez aritu zen. Euskaltzainburuak, bestalde, «Curiosas coincidencias de fenómenos lingüísticos entre nuestra lengua y algunas otras» txostena

⁴² ABA-EUS: Euskaltzainen dieten eta osteren likidazioa, 1935.

⁴³ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiri ez onartuak, 1935-03-07/08 & 1935-10-24/25. Rudolf J. Slavy euskaltzaleak 1935 udan R. M. Azkueren hainbat lan zabaldu zituen Pragako prentsa-irratian (Kintana 2015: 403-405)

⁴⁴ Euskaltzainburuordeak adieraziko zuenez, «hemos hablado del libro de actas de Inzagaray. Se ha perdido; cayó en manos de la Falange [sic]. R.I.P.» (ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-20).

⁴⁵ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren 1936 urteko dieten eta osteren likidazioa. A. Campión zahar eta ezinduaren ordezkari gisa joaten zen N. Ormaechea batzarretara (Orixe 1949: 18).

irakurri zuen.⁴⁶

F. Belausteguigoitia urgazlea ere bertan izan zen, bere *Hacia una lucha verdad pro-euskera* (1936) liburua aurkezten. Uste osoko jeltzalea izan arren, ez zettorren bat sabindar ortodoxoekin. Literatur dialektalismoa eta gehiegizko purismoa gaitzesten zituen. Bide horretatik, Euskaltzaindiaren autoritatearen babeslea izan zen, batez ere alderdikideen aurrean:

Contra el parecer de estimables correligionarios, yo no considero como defecto la «neutralidad política» de la Academia, su no nacionalismo, ni aún la variada significación política de sus componentes (la de algunos manifiestamente adversa). Otra cosa sería que la Academia en conjunto llegara a adquirir carácter sistemáticamente contrario a las aspiraciones y sentimientos nacionalistas, lo que no es de temer; porque además de estar reñido con las bases de su constitución, sería laborar contra su propia existencia. Ya que la vida y prosperidad de la Academia dependerán siempre de la simpatía y de la adhesión generales y singularmente de la de los nacionalistas (Belauste 1936: 117).⁴⁷

Donostian, EI-SEVEN egoitzan, otsailaren 27-28an berdintsu jarraitu zuten, lexikografia zutela langai nagusi, eta zenbait euskaltzainek egindako oharrak edota txostenak irakurri zituzten.⁴⁸ Hortik ekaineko batzarrera salto egin behar dugu. EGZ aurreko azken batzarra euskaltzainburuaren Lekeitioko jaioterrian izan zen, Donostiako Euskaltzaleak («Acción Popular Vasca») elkarteak Azkue aita-seei eskainitako jaiarekin bat egin zuelako. Besteak beste, E. Urquiaga «Lauaxeta», M. de Alzo, A. M. Labayen edota T. Monzón jeltzaleek omenezko hitzaldiak egin zituzten (*El Día* 1936-06-28; 1936-06-30).

Argitalpenez den bezainbatean, 1934ko *Euskera* agerkarian, S. Altuberen *Observaciones al tratado de «Morfología vasca» de Don R. M. de Azkue* (1934) monografia garrantzitsuaz beste, hurrengo artikulua argitaratu ziren: N. Ormaechearen «Personales, posesivos, intensivos», J. B. Egusquizaren «Verbos compuestos, factitivos o causales», J. Gorostiagaren «El testimonio de la lengua en prehistoria» eta R. M. Azkueren «Gipuzkera osotua»ren lehen zatia (cf. Villasante 1953b). 1935eko *Euskeran*, J. Gáratek prestatutako J. A. Moguelen *La historia y geografía de España ilustradas por*

⁴⁶ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren onartu gabeko batzar agiria, 1936-01-28/29.

⁴⁷ Liburu hori gaur egun ez dago Euskaltzaindiaren bibliotekan (ABK), agian desagerrarazi egin zutelako errepresalia politikoen beldurrez.

⁴⁸ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren onartu gabeko batzar agiria, 1936-02-27/28.

el idioma vascuence (1935) monografiaren lehen zatiaz eta G. Bähr-en «Los nombres de parentesco en vascuence»z beste, R. M. Azkueren hurrengo artikulua argitaratu ziren: «Gipuzkera osotua»ren bigarren zatia, «Advertencias a las *Notas sobre el santoral vasco*», «Curiosidades de un manuscrito inédito de Añibarro», «Evolución de la lengua vasca» eta «Observaciones acerca de *Euskaltzaindiari* de Altube'tar S.» (cf. Villasante 1953b).

Bi euskaltzainen ahalegin pertsonalak nabarmentzen ziren. Alde batetik, R. M. Azkuek *Gipuzkera osotua* (1935) liburua aurkeztu zuen, lehendabizi *Euskeran* zatika argitaratua. Euskaltzaindiak sortzetik hartu zuen euskara estandar bat sortzeko betebeharra, baina huts egin zuen, batez ere literatur euskara sortzeko interes gehien zuten abertzaleen artean ALVren autoritatea zalantzan jartzen zelako. Euskaltzainburuaren gipuzkera osotua azken ahalegin bat zen, sabindar eskolak batez ere Bizkaian zuen eraginari itzuri egin, eta Gipuzkoako dialekto nagusian oinarritutako gramatika estandar naturalago bat sortzeko. R. M. Azkue literatur eredu hori Gipuzkoan zabaltzen saiatu zen, besteak beste, Euskaltzaleak elkartearen *Yakintza* aldizkariaren bidez.⁴⁹ R. M. Azkue hainbat aldiz bildu zen gipuzkera osotua hedatzeko sortutako batzordearekin Donostian, 1935eko abendutik 1936ko maiatzera arte (EI-SEV 1936d: 37; Kintana 2015: 393-407).⁵⁰

Bide beretik, baina ikuspegi soziologikoagori men eginez, S. Altubek *La vida del euskera* (1934) liburua argitaratu zuen, lehendabizi 1933ko *Euskeran* agertua. Jeltzalea izan arren, abertzaleek erabiltzen zituzten irizpide linguistikoak zientifikoki ahulak zirela uste zuen, eta garaiko Frantziako hizkuntzalaritza soziologikoa (A. Meillet-J. Vendryes-A. Dauzat) euskararen arazoei aplikatzen saiatu zen. Hain zuzen, 1936an *Euskeraren* zenbaki bakarra inprimatu zen, ohiko bien ordeztu: S. Altuberen *Más sobre la vida del euskera = Barrero euskeraren bizitzari buruz* monografia. Baina EGZaren ondorioz, zenbaki hori banatu gabe geratu zen, 1937an inprimatutako, *Euskeraren* beste zenbaki monografikoa bezala: J. A. Moguelen *La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuencer*en bigarren zatia.⁵¹

Bestalde, EAJ-PNV motore nagusi zuen autonomismoak, EBek katalanari ireki zizkion bide berriak jarraitu nahi zituen, euskararen kasuan ere. Berez, euskal autonomia

⁴⁹ Hain zuzen, J. Ariztimuño elkartearen arduradunak berebiziko garrantzia ematen zion euskal literaturaren eginkizunari: «[La] literatura popular es el verdadero índice del alma artística de la raza euskeldun» (ABA-RMA: J. Ariztimuñoen gutuna R. M. Azkueri, 1934-01-29).

⁵⁰ ABA-RMA: J. Ariztimuñoen gutunak R. M. Azkueri, 1935-12-12 & 1936-05-26.

⁵¹ ABA-RMA: V. Gaubecaren gutunak Euskaltzaindiari, 1942-03-10 & 1944-03-04.

estatutua zehazteko prozesua EBerekin bat abiatu zen 1931n, baina Katalunian ez bezala, gorabehera politikoez EGZA lehertu arte atzeratu egin zuten. «Lizarrako Estatutua» izenarekin ezagutzen dena, EI-SEVek idatzitakoan oinarritzen zen. Historian lehen aldiz, euskara-gaztelaniaren koofizialtasuna ezartzeko bidea ikusten zen. Horrek batez ere hezkuntza-administrazioari eragiten zien. Eremu euskaldunean, hezkuntza maila guztietan euskaraz irakasteaz gain, funtzionarioek (epaitegikoek barne) euskaraz jakiteko betebeharra arautzen zen. Horretarako, diputazioek eremu edo lurralde euskalduna mugatu behar zuten, Lizarrako Estatutua onartua izan ondoren. Bestalde, Euskaltzaindiari epaitegiko funtzionarioen eta notarioen euskara gaitasuna epaitzeko ahalmena ematen zion Lizarrako Estatutuak.

Baina jeltzale-karlistek bultzatutako autonomia estatutu horretako hainbat eskumenek (erlijioaren auzian, adibidez) talka egiten zuten EBeko Konstituzioarekin. Horren ondorioz, ezkerrek sustatutako diputazioetako batzorde kudeatzaileek beste autonomia estatutu egitasmo bat idatzi zuten 1932an, EBeko Konstituzioari egokituta. Estatutu horrek hizkuntza eskubideen lurraldetasunean sakondu arren, koofizialtasunari eutsi zion. Baina Espainiako 1933ko hauteskunde orokorretan CEDA eta lerrouxismo eskuindarra nagusitu ondoren, autonomia estatutuaren gaia blokeatu egin zen (Irujo & Urrutia 2009: 189-200; 2014: 231-239). Estatutuen batzorde parlamentarioan, eskuinezkerak bat egin zuten, EAJ-PNVren asmoen aurka. Arduratuta, euskaltzainburuak, J. A. Aguirre diputatu jeltzaleari 1934ko urtarrilean ekimen politiko xaloa proposatu zion, nolabait EAJ-PNVk tradizionalismoarekin berriz bat egitea zekarrena (Kintana Goiriena 2008: 66-67).⁵² Giro politiko oso liskartsuan, diputatu jeltzaleek 1935eko ekainean, EBeko Instrukzio Publikoaren ministerio eskuindarrari eskatu zioten Euskal Herriko irakasle eskoletan euskara katedrak sortu eta horien ardura, unibertsitatetik ezean, Euskaltzaindiari ematea. Hain zuzen, EI-SEVen zuzendaritzak azaroaren 20an J. J. Rocha Instrukzio Publikoaren ministro lerrouxistari beste idazki bat bidali zion hezkuntza elebitasunaren alde, diputatu jeltzaleen bidetik, baina Euskaltzaindiaren aginpiderik aipatu gabe.

Bestetik, B. Echegaray euskaltzaina buru zuen EBA-FAPE euskara elkarten federazioa zegoen.⁵³ B. Echegarayk, EBA-FAPEren 1935eko abenduaren 21eko

⁵² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. A. Aguirreri, 1934-01-24.

⁵³ Euskararen aldeko Euskal Herri osoko elkarteak biltzen zituen: EI-SEV, ALV, Euskaltzaleak, Euskaltzaindiaren Laguntzalleak, Euskeraren Adiskideak, Eskualzaleen Biltzarra, Jaungoiko-Zale Bazkuna

batzarrean adierazi zuenez, Euskaltzaindia eta bereziki S. Altube euskara haur hezkuntza publikoan sartzeko metodologia egokien bila zebiltzan. Horretarako, federazioko elkarteek udalez udal sustapen taldeak sortzea nahi zuten. J. M. Barandiaran-A. Irigarayren ekimenez, halaber, Gasteiz-Iruñeko apezpikuei EBA-FAPEk eta EI-SEVek eskariak egin zizkieten, eskola katolikoetan ere elebitasuna ezartzeko. Hain zuzen, D. de Inza (OFMCap) Yagoleen sailburuak ere Iruñeko apezpiku berriarekin elkarrizketa izan zuen, elizbarrutiko euskararen egoera hobetzeko asmoz (EI-SEV 1935c: 31; 1936a: 9-10; 1936b; 1936c).⁵⁴

Hilabete batzuk igaro ziren Fronte Popularrak 1936ko otsailean hauteskunde orokorrak irabazi zituenetik. Jeltzaleen haustura indar eskuindar espainolistekiko erabatekoa zen, eta blokeatuta zegoen autonomia estatutuaren gaia Fronte Popularrarekin negoziatzen hasi ziren. Hezkuntza arloari dagokionez, 1936ko ekainean M. Irujo diputatu jeltzaleak gutun bat bidali zion R. M. Azkueri, beste eragile askorekin batera, M. Domingo Instrukzio Publikoko ministroari elebitasunaren aldeko telegrama bat bidal ziezaion, giroa prestatzeko.⁵⁵ J. A. Aguirre diputatua ezin izan zen Lekeitioko omenaldian egon, Madrilen autonomia estatutua negoziatzen ari zelako, baina gutun bat bidali zion R. M. Azkueri, etorkizunean Euskaltzaindiak erakunde normatibo gisa izan zezakeen estatutu maila aipatzeko (Kintana Goiriena 2008: 608).⁵⁶

Ezkerrak Espainian boterea berreskuratu eta EGZa hasi ondoren, 1936ko urriaren 6an EBEko gorteetan onartu zen Euzkadiren Berjabetasun Araudiak («Estatuto de Autonomía del País Vasco»)⁵⁷ Zazpigarren artikuluan euskararen erabilera ofiziala zehazten zuen, eta horretarako eremu euskalduna ongi mugatu behar zen. EAJ-PNVk 1936 inguruan egindako estimazioaren arabera, Araba-Bizkai-Gipuzkoan 458.000 inguru euskal hiztun (8.000, 250.000 eta 200.000, hurrenez hurren) zeuden, biztanleriaren %50etik oso gertu, alegia (*Alderdi* 1950-02).⁵⁸ Inkesta horren zehaztasuna gorabehera, autonomia estatutuak euskararen gutxiagotasun historikoaren aurka egin nahi zuen, lurraldetasunean oinarritutako gizarte elebitasun funtzionalki orekatuagoaren

eta Grupo Baraibar.

⁵⁴ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiri ez onartuak, 1935-01-24/25, 1935-06-26/27, 1935-10-24/25 & 1935-11-28/29.

⁵⁵ ABA-RMA: M. Irujoren gutuna R. M. Azkueri, 1936-06-04.

⁵⁶ ABA-RMA: J. A. Aguirrearen gutuna R. M. Azkueri, 1936-07-03.

⁵⁷ «Estatuto de Autonomía del País Vasco = Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia». In: *EAE-BOPV*, 1936-10-09.

⁵⁸ Araba-Bizkai-Gipuzkoak guztira 891.710 biztanle zituzten 1930ean eta 955.754 biztanle 1940ean (Instituto Nacional de Estadística).

bitartez.

Euzkadiren Autonomia Estatua, diputazioetako batzorde kudeatzaileenaren ildokoa zen eta Euskaltzaindiari ez zion aginterik eman. EJ-GEren gerra garaiko legegintzak ere ez zion Euskaltzaindiari inolako aipamenik egin. EI-SEV eta Euskaltzaindia ez ziren integratu EJ-GEren egitura instituzionalean, eta ez zuten aurrekonturik jaso EJ-GETik. EGZean, jarduna eten egin zuten eta hibernatuta geratu ziren bi erakundeak. Seguru asko horri esker, diktadura frankistak ez zituen ofizialki deuseztatu, nahiz eta EI-SEVen kasuan, ezerezean geratu ziren hura berpizteko saioak.

Era berean, Euskaltzaindia ez zen gauza izan euskara estandar bat arautzeko, ez gramatika ez hiztegi mailan, eta ondorioz, EJ-GEren hizkuntz irizpideak (*EAE-DOPVn* edota *Eguna* egunkarian) tradizio jeltzaleko idaztankera-terminologia puristari jarraitu zion, gipuzkeraz idatzita egonagatik. Euskarazko testugintza ofizialak, eten historikoen erruz, unean uneko indar politikoen eraginari erantzuten zion, hizkuntza ereduaz den bezainbatean, adanismoa kondenatuta (HAEE-IVAP 1997; Trebiño 2014; Altzibar Aretxabaleta 2015).

Euskararen gizarte sustapen lan hori zein delikatua zen frogatzen du, zeregin horretan gehien konprometitutako euskaltzainek erbesterako bidea hartu behar izan zutela EGZean: D. de Inza, B. Echeagaray, S. Altube edota R. Olabide. R. M. Azkue euskaltzainburua agertzen da salbuespen gisa. Are okerrago dena, Euskaltzaindiarekiko elkarlanean nabarmendutako hainbat elizgizon, fusilatu egin zituzten EBEn aurka altxatutako eskuindar espainolistek: J. Ariztimuño «Aitzol» (Euskaltzaleak), Martín Lecuona (Euskaltzaindiaren Laguntzalleak) edota gipuzkera osotuaren batzordean aritutako J. Marquiegui-L. Guridi Arrasateko apaizak (Orixe 1949: 21).

R. M. Azkue, bere ohiko jokabide apolitikoari jarraituta, uzkur edo hotz samar agertu zen Euzkadiko Jaurlaritzarekiko. Horrek ez du esan nahi jeltzaleekin parekotasun handiak ez zituenik, autonomia estatutuaren beharraz edota euskarazko hezkuntzaren premiaz den bezainbatean. Hain zuzen, B. Echeagarayk, ALVko idazkariordearen bidez, hurrengo mezua helarazi zion Lekeitiora 1936ko azaroan: «Dígale a D. Berbiz [Resurrección] que convendría tener una pequeña reunión de Euskaltzaindi en Bilbao con los miembros de nº de esta provincia o que resida en ella, juntamente con los

correspondientes».⁵⁹ 1936ko urritik, B. Echegaray Euzkadiko Lege Onuemale Batzordeko («Comisión Jurídico Asesora de Euzkadi») kide zen.⁶⁰

G Maidagan idazkariordeak euskaltzainburuari eskatu zion hitz egin zezala J. B. Egusquiza-R. Olabide euskaltzain jeltzaleekin erabaki bat hartzeko.⁶¹ Berariaz ez adierazi arren, argi dago Euskaltzaindiaren EJ-GErekiko harremana bileraren gaietako bat izan behar zuela. Seguru asko sortzear zen Euzkadiko Gogo-Lantze Batzordean («Consejo de Cultura de Euzkadi») ALVk izan behar zuen ordezkartiaz. R. M. Azkuek uste zuen militar matxinoek urriaren 17an fusilatutako Aitzolen heriotza salatzeke izan zitekeela bileraren deia. Urduri, gutun bat bidali zion B. Echegarayri, oker «Presidente de Justicia y Cultura»ri zuzenduta:

Reunirnos en Euskaltzaindi? He estado con Eguskiza. Ni él ni yo tenemos traje de paisano para ir ahí. No sería mejor que un domingo nos reuniéramos en Guernika? Altube y Olabide residen allí. Allá iríamos Eguskiza y yo. Usted podría venir acompañado de Nazario Oleaga y Maidagan. ¿Le parece bien? [...] Si se trata de honrar la memoria de Aitzol, parece preferible hacer esto más tarde con solemnidad.⁶²

Ez dut aurkitu bilera hori egin zenaren frogarik, ordea. B. Echegarayk L. Michelenari kontatu zionez, garai horretan R. M. Azkue Lekeition jaso eta Bilbora eramán zuten lehendakaria agur zezan. Euskaltzainburuak ez zuen politikarik aipatu, bere bilduma etnografikoa baino ez. Bidean ikusitako milizianoak zer ziren ere ez omen zekien, eta lehendakariarekin izandako bileran ezeroso egon zen umea zenetik ezagutzen zuen J. A. Aguirreri zein tratamendu eman ezin asmatu zebilelako (Ibarzabal 2001: 31-32).

Gerra egoeraren ondorioz, EJ-GEk erabateko autonomiarekin kudeatu zituen eskumen gehienak. Kataluniako ereduari jarraituta, 1936-1937 artean J. M. Leizaola buru zuen Euzkadiko Gogo-Lantze Zaingoa-k («Departamento de Cultura de Euzkadi») hainbat neurri hartu zituen hezkuntza-hizkuntzaren alorrean, nahiz eta gehienak ezin izan zituen garatu gerra egoeratik, eta militar matxinoen garaipenak eten egin zuen euskalduntze instituzionala. Dena dela, EI-SEV izan zen eredu nagusia EGLZ-

⁵⁹ ABA-RMA: G. Maidaganen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-02.

⁶⁰ «Orden nombrando la Comisión Jurídica Asesora = Agindua Batzorde Lege onuemalea izendatuaz». In: *EAE-BOPV*, 1936-10-23.

⁶¹ ABA-RMA: G. Maidaganen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-02.

⁶² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Echegarayri, 1936-11-04.

DCErentzat, euskal kulturaren, unibertsitate publikoaren eta autonomia politikoaren egitasmoekin 1919tik izan zuen lotura estuagatik (Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Sebastián García 1994; Aizpuru 2012).

Katalunia errepublikanoan ez bezala, elizgizonen eragina oso handia izan zen EJ-GEren kulturgintzan. EGLZ-DCEko Euskera ta Euskal Elerti Salla («Sección de Lengua y Literatura») 1936ko azaroaren 7an sortu zutenean, Juan Gorostiaga Bilbao (1905-1988) apaiz gaztea izendatu zuten buru. Bizkaiko Deustun jaiotako J. Gorostiaga jeltzalea zen. Ekialde Hurbileko hizkuntza zaharretan aditua (Erromako Biblia Institutu Pontifikalean ikasi zuen), 1932an urgazle izendatu zuten. Lexikografian R. M. Azkueri laguntzeko kontratatu zuen ALVk, N. Ormaechearen hutsunea betetzeko. J. Gorostiaga bete-betean aritu zen Euzkadi autonomoaren alde lanean. M. Múgica apezpiku deserrituaren agindupean, Bizkaian 1937an sortu zen seminarioko irakasle izendatu zuten. Militar kolpezaleek Bilbo okupatu aurretik, Frantziara erbesteratu eta EJ-GEren haur kolonietan eta propaganda antifrankistan aritu zen, baina berehala Kubara alde egin behar izan zuen BMGgatik Hala ere, R. M. Azkue-J. Gorostiagak postazko harreman adeitsuetan jarraitu zuten (Clero Vasco 1966: 356-358; Arana Martija 1990: 17-19; Alonso Carballés 1998: 207; Kintana 2015: 374-395).⁶³

J. Gorostiagak EEES-SLLra elizgizon ugari bildu zituen, besteak beste, R. Olabide-J. B. Egusquiza euskaltzainak eta Jaungoiko-Zale Bazkunako kide ziren J. C. Ibarguchi-G. Manterola urgazleak. Talde honen egiteko nagusia euskarazko ikasliburuak prestatzea izan zen, hezkuntzaren bidez hizkuntzaren eta euskaldunen kultur maila jasotzearen, 1936ko autonomia estatutuak agintzen zuen bidetik. Era berean, administrazioan euskararen erabilera eragiten saiatu zen EEES-SLLn, are gudarien artean ere. J. Gorostiagaren zuzendaritzapean, orobat, Euzkel Irakasletza izeneko irakasle talde jeltzalea bildu zen euskarazko hezkuntza antolatzeko asmoarekin 1936ko abenduaren 30etik 1937ko otsailaren 4ra arte. Horien artean, 1919an urgazle izendatutako F. Belausteguigoitia-A. Urriolabeitia-J. M. Errazti jeltzaleak. Idazkaria A. Urrutia klaretar hiperpurista zen.

Gerra egoeragatik, EEES-SLLk ezin izan zuen ezta N. Ormaechearen *Euskaldunak* poema «nazionala» argitaratu ere, indar sinbolikoz betetako 10.000 berset

⁶³ ABA-RMA: J. Gorostiagaren gutunak R. M. Azkueri, 1940-02-26 & 1940-07-01.

baino gehiagoko idazlana. Beste egitasmo filologiko batzuk ere bete gabe geratu ziren: Erdi Aroko euskal onomastika edota J. Leizarragaren Itun Berriko (1571) aditz formak jasotzea. Euzkadiko mapa linguistikoa burutzeko asmoa agertu zuten, halaber, autonomia estatutuaren hizkuntz araudia aplikatzeko ezinbestekoa zena. R. M. Azkue euskaltzainburua, ordea, ahalegin horietatik urruti agertzen zen. EEES-SLLrekin izan zuen harreman bakarra aldizkari zientifiko baten egitasmoarekiko elkarlan zapuztua izan zen. J. Gorostiagarengana soilik laguntza eske jo zuen, J. A. Aguirre «adiskidearen» bitartekaritza lortzeko, Lekeitiotik 1937ko martxoan bidalitako gutunean:

Por malos informes de esta villa (probablemente de la Delegación de Guerra, formada por dos comunistas procedentes de Rentería, vendedores allí de periódicos de extrema izquierda) hoy está el muchacho [Alberto Ortiz Colmenares] en el cuartel del Batallón Disciplinario de Portugalete, en calidad de detenido, sometido a riguroso trabajo y mal alimentado. Los delegados de aquí, a que arriba me refiero, desconocedores en absoluto de esta villa, catalogaron a Alberto como fascista y emboscado. Nunca ha estado afiliado a ningún partido, jamás ha mostrado afición a la política y nada de esto se le puede imputar.⁶⁴

EJ-GEk 1936ko abenduaren 14an Euzkadiko Gogo-Lantze Batzordea («Consejo de Cultura de Euzkadi») sortu zuen.⁶⁵ J. M. Leizaola sailburuak 1937ko urtarrilaren 28an, besteak beste, B. Echegaray-R. Olabide euskaltzainak izendatu zituen EGLB-CCEko kide; legelaria goi mailako hezkuntzaren atalean eta elizgizona euskararen atalean. Hain zuzen, euskal literaturaz arduratzeko izendatutako bost kideak ezpal jeltzaleko idazle-irakasleak ziren: T. Aguirre, J. Altuna, B. M. Garro, E. Urquiaga eta aipatutako R. Olabide. Esanguratsuki, aginduak R. Olabide izendatzean, «Euskaltzaindia» barik, «Euskera-Jakitunen Batzordea» erabili zuen «Academia de la Lengua Vasca»ren pareko termino gisa (HAEE-IVAP 1997).⁶⁶

EGLB-CCEaren araudiaren idazketa taldekoa izan zen B. Echegaray 1937ko otsail-martxoan, baina batzordeak ezin izan zuen bere aholkularitza lana bete Euzkadi autonomoan. Euskararen gutxiespen historiko baten inertziaren ezinaz gain, 1937ko

⁶⁴ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1937-03-07.

⁶⁵ «Decreto creando el Consejo de Cultura de Euzkadi = Oroagindaua.- Euzkadi'ko Gogo-lantze Batzordea sortu-eraziaz». In: *EAE-DOPV*, 1936-12-16.

⁶⁶ «Orden designando a las personas que se citan para constituir las diferentes Secciones que integran el Consejo de Cultura de Euzkadi = Agindua Euzkadi'ko Gogo-lantze Batzordea osatzen duten Sailletara nortzuk joan izendatuaz». In: *EAE-DOPV*, 1937-01-30.

ekainean Bilbo erortzearekin ezabatu egin zen elebitasun orekatuago baten asmo hura. Aipatutako EGLZ-DCEko kide guztiek erbestera joan behar izan zuten, hil edo atxilotu ez bazituzten (Euzko Apaiz Talde 1981; Arrien 1989b: 138-140; Sebastián García 1994; Aizpuru 2012).

Txiletik D. de Inzak 1937ko irailean R. M. Azkueri idatzi zion gaztelaniaz (ohi zuenaren aurka) Euskaltzaindiko kideen berri eskatzeko

Mi distinguido amigo D. Resurrección. ¿Vive? Dios sea bendito!

No sé una palabra de todos nuestros compañeros de Academia. Solo he sabido hace tres días, con inmensa pena, la muerte de D. Arturo de Campión. Todos nosotros, navarros y vascongados le hemos encomendado con sufragios particulares. Si V. sabe el paradero de los otros compañeros, hágame el favor de comunicarme.

Estoy aquí desde primero de este año. Estuve en Fuenterrabía hasta la entrada de los de Franco, sufriendo algo, que algún día Dios mediante, le contaré. Aquí me mandaron mis Superiores y estoy contento con mi suerte.

Qué fue de las hermanas de Vd? Tendré la dicha de tener dos letras de Vd?

A mi salida supe que Orixe estaba en el Castillo de Pamplona ¿sabe V. algo de él?

Desde mi salida ruego mucho por Vds. al Señor.

Yo estoy trabajando incesantemente en el sagrado ministerio desde mi llegada, sin tiempo para otros asuntos.

Saludos cordialísimos a todos mis amigos y compañeros.⁶⁷

R. M. Azkuek gutunez erantzun zion gainerako euskaltzain guztiak bizirik zeudela, eta G. Maidagan ALVko idazkariordeak ere lanean jarraitzen zuela Bilbon bestelako arazorik gabe. Azken berri horiek asko poztu zuten D. de Inza. EGZak bere horretan irauten zuenez, militar matxinoen garaipena opa zuen: «Mucho me alegro de que ya se vislumbre el triunfo final del ejército católico».⁶⁸

4.5 Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa

Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoaz den bezainbatean, 1930eko hamarkadan 26.000 inguru pta jasozituen urtero Euskal Herriko erakunde ofizialetatik. 1935ean, esaterako, 25.980 pta jaso zituen: GPD (10.000 pta), BPD (5.000 pta), EI-SEV (3.000

⁶⁷ ABA-RMA: D. de Inzaren gutuna R. M. Azkueri, 1937-09-27.

⁶⁸ ABA-RMA: D. de Inzaren gutuna R. M. Azkueri, [1937-1938?].

pta), Nafarroako Probintzia Diputazioa (2.000 pta), Donostiako Udala (1.980 pta), eta 1.000na pta eman zituzten hurrengo erakundeek: Bizkai-Gipuzkoako CAP, Bilboko CAM eta Bilboko Udala. Bestalde, urte horretan 2.674,88 ptako diru sarrerak izan zituzten: egoitzaren zati bateko etxe errenta, argitalpenen salmentak, agerkariaren harpidedunen kuotak eta aurrezki kutxetako kontuen etekinak. Horrela ordaintzen ziren urteko gastuak gorabehera larririk gabe. Aipatutako 1935eko urtean, adibidez, ALVren urteko gastua 26.251,05 ptakoa izan zen: egoitzaren alokairua eta mantentzea (3.568,40 pta), batzarretako dietak (8.828,65 pta), R. M. Azkueren lansaria (4.000 pta), langileen soldatak (4.530 pta), argitalpenak (4.534 pta) eta lexikografia batzordea (790 pta).⁶⁹

EGZaren ondorioz, Euskaltzaindiak urtero jaso ohi zuen 26.000 ptako aurrekontua ikaragarri gutxitu zen, baina hala ere 14.000 pta jaso zituen 1936an eta 2.500 pta 1937an EBEn legalitateari leial zirauten Bizkai-Gipuzkoako erakundeetatik. 1936an GPD-BPDak 5.000na pta eman zituzten eta 1.000na pta hurrengo erakundeek: Bizkai-Gipuzkoako CAP, Bilboko CAM eta Bilboko Udala. 1937an, Gipuzkoa militar matxinoen esku geratzearen ondorioz, Bizkaiko erakundeek baino ez zizkioten diru laguntzak eman Euskaltzaindiari: BPD (1.235 pta), Bilboko CAM (1.000 pta) eta Bilboko Udala (247 pta). 1938an, Bilbo ere frankisten menpe geratu ondoren, Euskaltzaindiak ez zuen inolako diru laguntza ofizialik jaso. 1938ko diru sarrera urriak (285,13 pta), egoitzaren zati bat errentan jartzetik eta aurrezki kutxetako etekinetatik etorri ziren.⁷⁰

EGZa hasi eta 1941 arte, Euskaltzaindiak ez zuen batzarririk egin, baina egoitzak zabalik jarraitu zuen, egoerak ahalbidetu zuen neurrian. R. M. Azkue bera, militar matxinoek Bilbo okupatu ondoren, Lekeitioko jaioterria utzi eta egunero joan zen Ribera kaleko egoitzara, ohiko eginkizunetara. K. Boudari 1938ko amaieran idatzitako gutunaren arabera, egoitzan lan egiten zuen egunero 9:00-13:30 eta 17:00-20:00 artean. Alemaniako hizkuntzalariarekin aspaldiko harremana zuen eta euskaraz idatzi ohi zioten elkarri, baina EGZak inposatutako egoeraren erakusgarri, gutuna «¡Viva Franco!» eta «¡Arriba España!»ka amaitzeaz gain, gaztelaniaz idaztera behartuta ikusi zuen bere burua: «No he escrito esta nota en vascuence por no dar mucho trabajo a los encargados de censurar la correspondencia».⁷¹

Euskaltzaindiaren jarduera etenda zegoenez, urteko gastuetan ez zegoen

⁶⁹ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1935.

⁷⁰ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1936-1938.

⁷¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna K. Boudari, 1938-11-07.

batzarretarako, liburu-agerkarien argitalpenetarako edota lexikografia batzorderako esleipenak egin beharrik. Dena dela, egoitzako langileek, 1936-1940 artean soldatak kobratu zituzten: J. Palomero garbitzailea eta urtez urteko mandatariak (R. Peraita, J. Ugarte eta C. Acha).⁷² 1937ko maiatzaren 8an, Bilbo artean EJ-GEren esku zegoela, euskaltzainburuak azkenengo aldiz jaso zuen 1.000 ptako ordainketa, urtero esleitzen zitzaion soldataren laurdena, alegia. G. Maidagan idazkariordeak, orobat, 1937an kobratu zuen azken aldiz bere urteko soldataren (3.000 pta) %83,33a.⁷³ Hortik aurrera R. M. Azkue-G. Maidaganek ez zuten soldatarik kobratuko ALVn, eta bulegoko laguntzailearen lanpostua ere, mandatari huts izatera igaro zen, gutxiago kobratuta. Bestalde, 1937-1940 arteko egoitzaren alokairua, argia, ura, telefonoa, aseguruua, posta eta mantentze lanetako fakturak ordaindu ziren. Besteak beste, Burgosko Gobernuaren 1937ko maiatzaren 28ko dekretu batek etxe errenten erdia barkatu zuen, eta A. Arteche enpresari monarkikoak, ALVren egoitzaren jabeak, diru laguntzak eman zituen.⁷⁴

Gerraondoko depresio ekonomiko latzean, 1938an diru sarrera ofizialik jaso gabe geratu ondoren, 1939an 5.000 pta lortu zituen Euskaltzaindiak frankisten menpe zeuden erakundeetatik: 2.000na pta eman zituzten Bizkaiko CAPak eta Bilboko CAMak, eta 1.000 pta Gipuzkoako CAPak. 1940an, ordea, 1.000 pta baino ez zituen bildu Euskaltzaindiak: 500na pta eman zituzten Bizkaiko CAPak eta Bilboko CAMak.⁷⁵ Horri esker ez ezik, ALVn metatutako saldo positiboari esker eta euskaltzainburu-idazkariordeak lansaririk jaso ez zutelako, ALVn aurre egin ahal izan zion oinarrizko gastuen ordainketari.

Bibliotekaz den bezainbatean, 1936-1937 artean, soilik A. Griera katalanista arnegatuaren *Tresor de la llengua, de les tradicions i de la cultura popular de Catalunya* bildumaren lehen hiru liburukiak (1935-1936), *Geografia general del País Vasco-Navarro* bilduma (1911-1925) eta *EAE-DOPV* erosi ziren.⁷⁶ Ondoko urteetan ez zen

⁷² ABA-EUS: Euskaltzaindiko langileen ordainketa agiriak, 1936-1940.

⁷³ ABA-EUS: Euskaltzaindiko dieten eta osteren likidazioa, 1937, eta G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1936-1940.

⁷⁴ ABA-EUS: Euskaltzaindiko funtzionamendu gastuetako fakturak, 1936-1940. Antonio Arteche Villabaso (1880-1962) Espainiako Kongresuko diputatu izan zen 1905-1923 artean eta Alfonso XIII.ak Marqués de Buniel izendatu zuen 1916an. Banco de Bilbao-ren zuzendaritzari lotutako familia aberatseko kide zen, eta berak arindu zituen ALVren egoitza ordaintzeko gastuak (Agirreazkuenaga et al. 2007: 496-500).

⁷⁵ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1939-1940.

⁷⁶ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aldizkari eta liburu erosketak, 1936-1937.

besterik erosi, diru sarreren eskasiagatik, baina argi dago EJ-GEren autoritatearen nolabaiteko onarpena zela Euzkadiko aldizkari ofiziala erostea, baina Bilbon iraun bitartean EJ-GEk ez zion aurrekonturik esleitu eta ez zuen ALV bere erakundearen egituran integratu. Areago, euskaltzainburuak Bizkai-Gipuzkoako eskuindarregana jo zuen diru laguntza eske, EJ-GE erori ostean, gero astiroago ikusiko dugunez.

4.6 Kataluniako ispilu hautsia

EI-SEV-Euskaltzaindiaren pareko eta aurrekari den Institut d'Estudis Catalans-en kasuarekin erkatzea argigarria dateke. Kataluniako Generalitat errepublikanoaren egituraren barnean kokatu zen IEC, eta Generalitat-eak diruz lagundu zuen erakunde akademikoa. Hala ere, EGZean IEC ez zen asko nabarmendu, argitalpenekin jarraitu zuen, baina osoko bi batzar besterik ez zituen egin. Beste erakunde berri bati utzi zion katalan kultura errepublikazalearen gidaritzza intelektuala: Institució de les Lletres Catalanes. Gizarte iraultzak zekarren mehatxuagatik, adibidez, J. Puig Cadafalch, IECeko Historia-Arkeologia ataleko burua, erbesteratu egin zen. Hala ere, Lliga Catalana eskuindarregaren zuzendaritzako gainerako kideek ez bezala, uko egin zion Katalunia errepublikanoa salatu eta Burgosko Gobernuarekin bat egiteari. IECeko beste kide batzuk Generalitat-eko kargu nabarmenak izan ziren, hala nola, P. Bosch Gimpera, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko errektore eta Justizia sailburua. Militar matxinoek Bartzelona okupatzear zedenean, IECren zuzendaritzako kide gehienak erbesteratu egin ziren. P. Fabra Filologia ataleko buruarena kasu nabarmena da, katalan estandarregaren sortzaile nagusia, erbesteko Generalitat-earen aholku batzordeko kide izango zena 1945-1948 artean. Bartzelonan geratu zen R. d'Alòs-Moner ICEeko idazkariak, bestalde, erantzukizun politikoen espediente bati aurre egin behar izan zion, 1939an hil baino lehenago.

1907ko sorreratik IECen ardura politikoa zuen Bartzelonako Probintzia Diputazioan, eztabaida bat izan zen erakunde akademikoa deuseztatu ala frankismoaren kontrolpean berriz abiatzeko. Diputazio frankistak, adibidez, 1940 arte arte ziurtatu zuen IECeko lexikografian ari ziren hiru langileen soldata, baita Biblioteca de Catalunya zenaren arduradunarena ere. Hala ere, urte horretan falangistek monarkikoak baztertu zituzten tokiko boteretik eta jarrera erasokorragoa abiatu zuten. IEC debekatu ez bazuen ere, 1940ko urtarrilean R. Serrano ministroak Bartzelonako gobernadore zibilaria agindu zion ordezeko gisa Instituto de Estudios Mediterráneos erakunde ultraespainolista sortzea.

IEC, erakunde errepublikanoak bezala debekatua izan gabe, desagertutzat jotzen zen. Egoitza-material-argitalpenak Bartzelonako Diputazioak bereganatu zituen. Instituto de Estudios Mediterráneos-ek diru laguntza handia jaso arren, lau liburu baino ez zituen argitaratu 1945-1952 artean. Ondorioz, IECek klandestinitatean egin behar izan zuen gerraosteko lehen batzarra 1942an, erbestetik itzuli berria zen J. Puig Cadafalch-en etxean. J. Puig buruak eta R. Aramon idazkariak eramango zuten IEC berregiteko ardura, aurrekontu-egoitzarik gabe, eta batzar pribatuen bidez. Kide berrien artean hala errepresaliatuak nola justizia frankistarekin arazorik ez zutenak zeuden (Balcells & Pujol 2002: 318-328).

Hain zuzen, IECeko kide Higinio Anglés (1888-1969) elizgizonak eta R. M. Azkuek aspaldiko harremanak zituzten musikologiaren bidez. Bion arteko eskutitzetan atzeman daiteke nola euskaltzainburuaren gerra aurreko pragmatismo politikoa bilakatua zen, EGZaren eta antikomunismoaren ondorioz, alderdi frankistaren aldeko jarrera. H. Anglés apaizari R. M. Azkuek 1939ko urtarrilean idatzi zion gutunean gogo beroz laudatu zituen, hala *Grandeza cristiana de España* (1938) liburu martirilogikoa, nola Bartzelona errepublikanoan desagertutako Manuel Irurita Nafarroako apezpiku integrista:

Habrá V. recibido, como recibí yo y leí con entusiasmo, la obra de nuestro carísimo amigo Luis Carreras. Mi mayor preocupación al estallar la guerra y saber que Barcelona estaba en poder de los rojos era averiguar el paradero de mis inolvidables y carísimos amigos Irurita, Anglés y Carreras. Llegue cuanto antes la hora del triunfo definitivo y de abrazarnos.⁷⁷

EGZaren giro zelatarian, orobat, «¡Arriba España!»ka eta «¡Viva Franco!»ka idazten zien euskaltzainburuak H. Anglési nahiz L. Carreras berari.⁷⁸ Elizgizon hauek Lliga Catalana-ren sektore kontserbadorea ziren, F. Cambó buru zuen alderdiaren zuzendaritza bezala, Burgosko gobernu matxinoaren aldekoak (Riquer 1997). Ezkerreko alderdien jazarpen erlijiosoa salatzen zuelako, R. M. Azkuek zoragarritzat jo zuen *Grandeza cristiana de Españan*, hurrengo pasarteak aurkitzen dira:

⁷⁷ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna H. Anglési, 1939-01-23. Izatez, H. Anglések 1938ko abuztuaren 15ean idatzi zion Gasteiztik, baina euskaltzainburuak lau hilabete eta erdi egon zen erantzun barik. Diktadura primorriveristan, euskaltzainburua RAEko kide izendatu zutelako, M. Irurita Lleidako apezpikuak «biotzetik» zoriondu zuen (ABA-RMA: M. Iruritaren gutuna R. M. Azkueri, 1929).

⁷⁸ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutunak L. Carrerasi (1938-11-18) eta H. Anglési (1939-01-26).

Tal ha sido durante la guerra y la revolución la tragedia de Cataluña lacerada y sangrante, manifestándose cuanto ha podido contra la deformación del exterior por la ficción estatal de los gobiernos de Madrid, de Barcelona y de Bilbao, soportando impotente la faz roja con que, doblemente expropiada en su casa, la ha humillado la horda propia y la sobrevenida de todas partes.

Tal es la realidad espiritual y el fervor de adhesión, que en sus juventudes combatientes, en sus selecciones expertas, en toda generación y estamento, con unanimidad cordial, la Cataluña sobreviviente, leal y respetable, aporta a la España vencedora de la revolución (Carreras 1938: 48).⁷⁹

Bestalde, erbesteko EJ-GEren *Euzko Deya* agerkariari eraso egin zion liburuan: «el periódico vasco de París, vocero de la malhadada campaña de los clérigos, y laicos sedicentes católicos, en la cuestión española» (Carreras 1938: 50). Ideologikoki, frankismora lerratutako katoliko eskuindarrak ziren, baina herri kulturarekiko arduratsuak. Esaterako, Espainiaren Vatikanoko Enbaxadak, EGZeko jazarpen giroan, H. Anglés-L. Carreras katalanistatzat ez ezik separatistatzat ere jo zituen (Raguer i Suñer 2003: 247-249).⁸⁰ Tradizionalismoan hazitako apaizentzat, Falange-ren egitismo politiko estatolatra aberrazioa besterik ez zen. H. Anglések, «Año de la Victoria» gisa datatutako gutunean, R. M. Azkueri azaldu zion J. Goebbels ministro naziak debekatu egin zuela L. Carrerasen liburuaren edizio alemana; frantses-italiera-ingelesera itzulita egon arren.⁸¹ R. M. Azkue-H. Anglés germanofiloak ziren, baina batez ere apaiz katolikoak, eta gogor kritikatu zuten nazismoaren antikristautasuna. Espainiako EGZaren garaipen faxistak eta berehalako BMGk ataka zailean jarri zituen. R. M. Azkuek, esaterako, 1940an honela

⁷⁹ Euskaltzaindiaren bibliotekan dagoen alea L. Carrerases euskaltzainburuari eskainitakoa da: «A Dn Resurrección Azcue, sacerdote ejemplar, sabio insigne, amigo fiel, homenaje cordial del Autor» (ABK). P. Bosch Gimperak Ingalaterrako erbestetik aurre egin egin behar izan zion liburuari 1939an: «este libro nos hará daño directamente a nosotros, puesto que el grandísimo hijo de puta de Carreras incluye datos muy correctos y generalmente ciertos, pero como es natural no explica que él y otros fueron salvados por Gassol y por la Generalitat, y que les faltó tiempo para pasarse al bando de Franco [...] colocar al final la tesis del anticomunismo y de Franco como salvador de España [...] el peligro es que con el libro pretende demostrar el fracaso de las instituciones que encarnaban la autonomía de Cataluña y de los partidos democráticos, y que si se deja sin respuesta, lo consigue» (apud Gracia Alonso 2011: 427).

⁸⁰ Luis Carreras Mas-ek (1884-1955), 1920ko hamarkadan euskara eliz hizkuntza ofiziala izan zedin egindako R. M. Azkueren saioak lagundu zituen. F. A. Vidal Barraquer Tarragonako artzapezpikuaren ondoan, katalanaren erabilera babestu zuen diktadura primorriveristan. Ondoren Eliza katolikoak erregimen errepublikanoa aitortzearen aldekoa izan zen, M. Irurita Bartzelonako apezpikua ez bezala. F. A. Vidal Barraquer-ek ez zuen «Carta colectiva de los obispos españoles a los obispos de todo el mundo con motivo de la guerra en España» delakoa sinatu eta Suitzara erbesteratu zen. L. Carreras, ordea, gerraondoa Bartzelonan bizi zen, egoera zailean. Katalan nazionalistek ez zuten ahaztu propaganda frankista, eta frankistek, aldiz, apezpiku menderakaitzaren idazkari ohia baztertu egin zuten. L. Carreras katalanismo katoliko kontserbadorearen eredu intelektual gisa aritu zen hil arte (Irigoyen 1990: 367-368; Massot i Muntaner 2003)

⁸¹ ABA-RMA: H. Anglésen gutuna R. M. Azkueri, 1939-07-20.

idatzi zion Madrilen bizi zen M^a Beatriz Kolb Alemaniako adiskideari: «Añado otra muy cordial enhorabuena por lo estupendamente bien que llevan la guerra sus conterráneos. Quiera Dios que luego de la Victoria completa no metan a España en socialismos sindicalismos nazistas [sic]». ⁸²

Era berean, esanguratsua da Antoni Grieraren (1887-1973) *Tresor de la llengua, de les tradicions i de la cultura popular de Catalunya*ren lehen liburukiak Euskaltzaindiak erosi izana. Diktadura primorriveristan izandako jarreragatik, A. Grieraren IECren arteko harremana gaiztotu egin zen. Katalunia autonomoan, P. Fabraren irudia asko indartu zen, bereziki *Diccionari general de la llengua catalana* (1932) normatiboarekin. ⁸³ A. Grieraren apaizak, IECren materialak erabilita, bere kontura argitaratu zuen aipatutako hiztegi dialektologikoa, eta arrazoi horregatik, IECren lexikografia lanetik kanporatu zuten 1935ean. A. Grieraren katoliko antikomunista zen, Acció Social Popular-eko idazkaria. Elkarte horrek, hain zuzen, argitaratuko zuen hiztegi dialektologikoa. Bestalde, M. Irurita apezpikuak Bartzelonako elizbarrutiko seminarioan irakasle izendatuko zuen, galdutako soldata berdintzeko (Balcells & Pujol 2002: 293-298).

Gorabehera guzti horien berri eman eta hiztegi dialektologia eskaintzeko, A. Grieraren gutunak bidali zizkion euskaltzainburuari. ⁸⁴ R. M. Azkuek, P. Fabraren irudikatzen zuen hizkuntzalaritza modernoarekin baino, A. Grierarekin harreman estuagoak izatea esanguratsua da. ⁸⁵ EGZean, A. Grieraren militar matxinoen ordezkari kulturala izan zen Europako hainbat biltzarretan. 1938ko uztailean Parisen A. Dazatek antolatutako ICOS biltzarrean parte hartu zuen. A. Grieraren euskararen jatorriaz aritu zen; beraren iritziz latinetik eratorritako beste hizkuntza erromaniko bat zen. Euskaltzainburuak ez zuen inoiz halakorik onartuko, eta bertaratutako euskal ordezkariak protesta egin zuten. Txostenaren asmo politikoa oso garbia zen: «Como al problema de la lengua especial vasca se une ampliamente el de la existencia de raza especial, la afirmación que yo presento aquí traspasa el terreno de la lingüística para entrar en el de la Historia y en el de la Etnografía» (apud Alted Vigil 1984: 125)

⁸² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. B. Kolb-i, 1940-05-20.

⁸³ Euskaltzaindiaren artxibo-bibliotekan ez dago P. Fabraren hiztegia erosi izanaren arrastorik (cf. ABA-EUS; ABK).

⁸⁴ ABA-EUS: A. Grieraren gutunak R. M. Azkueri, 1936-03-14 & 1936-04-16.

⁸⁵ ABA-RMA: A. Grieraren gutunak R. M. Azkueri, 1911-1929.

A. Griera 1936an erbesteratu zen, Generalitat-earen baimenarekin, eta 1939an Kataluniara itzuli arte Burgosko Gobernuaren aldeko propaganda lanetan aritu zen. Seminarioko latin katedra betetzen jarraitzeaz gain, Bartzelonako Unibertsitateko irakasle izango zen 1942tik aurrera. Frankismoarekin bat egiteari esker, halaber, CSICen mendeko Instituto Internacional de Cultura Románica-ko zuzendari izendatuko zuten, eta hiztegi dialektologikoaren argitaratzea bukatu ahal izango zuen 1947an, artean katalan idatzia neurri handi batean galarazita zegoenean R. M. Azkuek, frankismoarekin maila horretaraino ez identifikatu arren, antzekotasun ideologiko handiak zituen A. Grierarekin. Ordena katolikoaren defendatzaile sutsuak ziren, gizarte iraultza aldarrikatzen zuten ezkerreko alderdien aurkari sutsuak (Griera 1963: 94, 168; Balcells & Pujol 2002: 323-234).

4.7 «*Real Academia Galega*»

Real Academia Galega-ren kasua gertuago agertzen da Euskaltzaindiarenetik, IECena baino, agintari frankisten baimena lortu zuelako EGZak etendako jarduerarekin jarraitzeko. RAGren azken presidentea 1936ko abenduan hil ondoren, Manuel Casás Fernández Coruñaiko alkate ohi eskuindarra, izan zen behin-behineko burua.⁸⁶ RAGko idazkaria ere auto istripu batean hil zen 1937ko irailean gerrako berriemaile lanetan ari zela eta Alejandro Barreiro *La Voz de Galicia*ko zuzendariak hartuko zuen haren postua. EGZaren ondorioz, etenda zeuden Espainiako Gobernuak, Galiziako diputazio-udalek eta Ameriketako kultur erakundeek ematen zituzten diru laguntza ia guztiak. Coruñaiko udaletxeko egoitza eta biblioteca-artxiboa osorik zeuden, baina osoko batzarrak eta argitalpenak, ordea, geldiarazita: *BRAG, Colección de Documentos Históricos* edota *Diccionario Gallego-Castellano*.

⁸⁶ LMGko autonomismoaren gorakadan, Irmandades de Fala elkarte nazionalistak sortu ziren galizieraren erabilera publiko-politiko aldarrikatzeko. Horren aurrean, Coruñaiko alkateak bere ideologia kontserbadore-antiseparatista erakutsi zuen *Gaceta de Galicia* egunkarian 1917ko ekainean: «Las *Hirmandades da Fala*, que, en general, constituyen una agrupación de buenos gallegos, pueden y deben ser un núcleo simpático, cultivando nuestra lengua y vulgarizando la obra de nuestros poetas, arraigando en la conciencia de Galicia las grandes virtudes de nuestra raza sobria, sana y fuerte; pero es preciso que se prevengan contra las sopechosas y funestas alianzas con separatistas más o menos encubiertos y con los caciquillos de nuevo cuño que reniegan de los políticos y buscan su amparo cuando les conviene, como los revolucionarios que truenan contra la propiedad y crecen y prosperan con los pingües rendimientos de los llamados burgueses, o los anticlericales que se relamen de gusto, aprovechando la *sopa boba* de los conventos» (apud Vázquez Souza 2000: 157)

RAGko behin-behineko zuzendaritza P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionaleko ministroarekin bildu zen eta gestioen berri eman zuten garaiko batzar bakarrean, 1939ko abenduan. Zuzendaritzak, orobat, J. M. Pemán-E. d'Orsekin hitz egin zuen, RAGren egoera berria argitzen saiatzeko. E. d'Ors Instituto de España-ko idazkariak M. Casas Fernándezi adierazi zionez, IdeE-ren asmoa hizkuntz akademia periferikoekiko hurrengoa zen:

[N]o absorber sino antes bien fomentar el desarrollo y la autónoma perpetuación de tales Academias y Asociaciones, muchas de las cuales son honor de España y de su riqueza de expresiones substanciales; dándoles al efecto las mayores facilidades (apud Barreiro Noya 1942: 319).

Horrekin lotuta, eta garaiko ezinegonaren eta giro korapilatsuaren erakusgarri, Ramón Cabanillasen (1876-1959) kasua aipatu behar da. Mende hasierako poesia tradizionalaren gailurra, Irmandades de Fala-ren galegismo politikoarekin konprometitu zen. RAGko kide izendatu zuten 1920an eta RAEko kide diktadura primorriveristan, galizieraren atal sortu berrian. Bizitokia Madrilera aldatuta RAEko batzarretan parte hartzen eta galizierazko lexikografian aritu zen. Betiere ikuspegi katoliko-autonomista batetik, EBEn galegismotik urrunduz joan zen eta lerrouxismora hurbildu. Espainiako Gobernu eskuindarrak Consejo Nacional de Cultura-ko kide izendatu zuen.

EGZ lehertu ondoren, Gobernu frontepopulistak Valentziara bidali zuen beste hainbat intelektualekin batera. Ez alferrik bere seme bat Solidaridade Galega Antifeixista taldeko kide izan zen. Hala ere, E. Montes kazetari falangistaren laguntzari esker, 1937ko ekainean eremu frankistara aldatzeko baimena lortu zuen. IdeE-ren Salamancako sorrera batzarrean egon zen 1938ko urtarrilean, eta egun berean RAEko behin-behineko zuzendaritzako kide izendatu zuten. Dena dela, gerrak eragindako traumaren ondoren, Galiziara itzuli eta isiltasunean murgildu zen 1940ko hamarkadan, bere iragan galegistak eragindako hainbat salaketari aurre egin behar izanda (Ramírez Jerez 2005: 72; Rei 2009; García de la Concha 2014: 272-279).

RAGri dagokionez, F. Suárez de Tangil-Conde de Rodezno-Marqués de Lozoya bezalako agintari monarkiko frankistek emandako sostenguari esker, Hezkuntza Nazionaleko ministerioa urteko 4.500 ptako diru laguntza ematen hasi zen. Tokiko diru laguntzen artean Coruña-ko Udalarena nabarmentzen zen. Ministerioaren baimen bereziari esker, orobat, 1905eko sorreratik 40 kidez osatutako korporazioaren hutsune

ugaria bete ahal izan zituzten sarrera ekitaldi bana antolatu behar gabe. Horrela, 1940ko abenduako batzarrean, 19 kide berri izendatu zituzten. Hala ere, A. M. Rodríguez Castelao bezalako galegista errepublikazale erbesteratuen aulkiak ez zituzten ordezkatu.

1941ko uztailean sarrera ekitaldi bateratua egin zuten Santiago de Compostelako Unibertsitatean, C. Ruiz del Castillo errektorea mahaiburu zutela. Hura izan zen RAGren gerraondoko lehen ekitaldi publikoa, agintari zibil-militar-erlijioso ugariren aurrean egindakoa. Kide berri guztien izenean, F. Bouzas Breyk «El mito de las aguas en el Noroeste hispánico» hitzaldia irakurri zuen, izenburuan bertan, Galiziar erreferentzia egitea saihesten zuena. Guzti horren berri eman zen BRAGren 1942ko urtarrileko lehen zenbakian. M. Casás Fernández presidentek sarrerako hitzetan Galiziako historia eta kultura Hispanitatearen kontzeptuarekin ez ezik, Alemania-Portugalgo nazioekin lotu nahi izan zituen, BMGko eragin politikoa nabarmen utzi zuena. RAG frankismoaren Galiziako kultura toleratuaren sinbolo eruditua bilakatu zen eta bertan behera utzi zituen galegismoarekin lotutako hizkuntza estandar bat sortzeko asmoak. Ezintasun horren aurrean, barnealdeko nazionalista errepublikazaleek Galaxia argialetxea sortuko zuten Vigon, galizierazko liburugintza duinari eusteko, hain zuzen, R. Cabanillasen *Antífona da Cantiga* (1951) poema liburuarekin hasiko zena (Casás Fernández 1942; Barreiro Noya 1942; RAG 1942; Núñez Seixas 1997; Monteagudo Romero 2008).

4.8 Donostiako «Real Academia Española»

EGZ lehertu ondoren, RAEk aldaketa berriak jasan zituen. R. Menéndez Pidal burua eta beste akademiko gutxi batzuk EBEn alde agertu ziren manifestu baten bidez (*ABC*, Madril, 1936-07-31). M. Azaña presidentek 1936ko irailaren 15ean sinatutako dekretuak, Espainiako sei errege akademia ohiak desegin, kideak kargugabetu eta ondasunak konfiskatu zituen, «Instituto Nacional de Cultura» delakoa sortzeko.⁸⁷ Hain zuzen, R. Menéndez Pidal berak iradoki zion F. Barnes Instrukzio Publikoko ministroari egitura berria, kalte okerragoak saihesteko. Dena dela, gerra egoeratik, Instituto Nacional de Cultura-k ez zuen jardunik izan, eta RAEko kideak sakabanatu egin ziren, erbestera joandako zuzendaria barne.

Burgosko gobernu matxinoak, Frantziako ereduari jarraituta, «Instituto de España» delakoa sortu zuen, F. Francok sinatutako 1937ko abenduaren 8ko dekretuz. JAE

⁸⁷ «Decreto (rectificado) declarando disueltas todas las Academias dependientes de este Ministerio». In: *Gaceta de Madrid*, 1936-09-17.

nahiz Instituto Nacional de Cultura errepublikanoa ordezkatu eta Espainiako sei errege akademia ofizialak batzen zituen: «Academias de la Lengua Española, de la Historia, de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales, de Ciencias Morales y Políticas, de Bellas Artes de San Fernando y de Medicina».⁸⁸ IdeE-ren sustatzaile nagusiak P. Sainz Rodríguez (ministro izendatua izan baino lehenago) eta bereziki E. d'Ors handigura izan ziren. Azkenak amesten zuen kulturaren senatu edo kupula izan behar zuen IdeE-k. Institut de France-n eredia segitzen zuen, hain zuzen, 1911-1920 artean E. d'Ors idazkari izan zuen IECEk bezalaxe.⁸⁹

IdeE sortzen zuen Burgosko Gobernuaren 1937ko abenduaren 8ko dekretuak, Espainiako errege akademiei dei egiten zien frankismoaren kultur inperialismora biltzera. Abenduaren 27an, Burgosko irakaskuntza ertaineko institutuan, IdeE sortzeko batzarra bildu zen. Mahaiburua J. M. Pemán erreakzionario amorratua zen, ministro maila zuelako Junta Técnica del Estado-ko Comisión de Cultura y Enseñanza-ko buru gisa.⁹⁰ RAEren ordezkariak Agustín González de Amezúa, Miguel Artigas eta E. d'Ors izan ziren. Bertan izendatu zuten IdeE-ren zuzendaritza: Manuel de Falla (buru), P. Sainz Rodríguez (buruorde), E. d'Ors (idazkari), Pedro Muguruza (kantzelari), V. Castañeda (argitalpen idazkari), M. Artigas (liburuzain) eta A. González de Amezúa (diruzain). 1938ko urtarrilaren leko dekretuak erakundearen egitura arautu zuen.⁹¹

M. de Fallaren agintaritza sinbolikoa zen; egiazko zuzendariak buruorde-idazkaria ziren. IdeE-k osoko lehen batzarra 1938ko urtarrilaren 5ean egin zuen

⁸⁸ «Decreto núm. 427.- Disponiendo la convocatoria de las Reales Academias». In: *BOE*, 1937-12-

⁸⁹ Hamar urtez Parisen bizi ondoren, Eugenio d'Ors (1881-1954) Iruñean zegoen 1937ko apiriletik, Fermin Yzurdiaga apaizaren zuzendaritzapean prentsa-propaganda falangistaz arduratzen ziren idazleekin lanean. Iruñeko *¡Arriba España!* egunkariko eta *Jerarquía* aldizkariko falangismo beligeranteak eztabaida sortuko zuen F. Yzurdiaga-M. Olaechea apezpikuaren artean, baita hierarkia politiko-erlijiosoaren artean ere. E. d'Orsen estilo barrokoari jarraituta, Falange-ren imaginario inperialista elikatu zuten, Nafarroako «Covadonga» katolikotik. 1938ko urtarrilaren 31n osatutako F. Francoren lehen gobernuan, P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionalen ministroa izan zen. Museo eta Arte Ederretako zuzendari nagusi E. d'Ors izendatu zuen, Europan zuen ospeagatik. Lliga Regionalista-ren ildoko intelektuala eta Kataluniako Mankomunitatearen hezkuntz arduradun nagusia izan zelako, susmoak eragin zituen izendapenak, baina urte asko ziren katalanismoarekin hautsi zuela. 1920-1921 artean, Mankomunitatean dimisioa aurkezteaz gain, IECEko idazkaritza kargugabetu zuten. E. d'Orsen eboluzio ideologikoa eta pertsonalismo ia megalomaniakoa, jasanezina egin zitzaizkien Kataluniako agintari politiko-kulturalei. Irainduta, E. d'Orsek uko erabatekoa egin zion jatorrizko katalan kulturari, eta mendekuaren antzekoan, militar matxinoen aldeko sutsua izan zen EGZe (Alted Vigil 1984; Sainz Rodríguez 1987; Balcells & Pujol 2002; González González 2010; Martínez Sánchez 2012; Ucelay-Da Cal 2012).

⁹⁰ RAEren eta IdeE-ren historiarako erabilitako iturri nagusiak: Alted Vigil 1984; Escribano Hernández 1998; Zamora Vicente 1999; González González 2010; García de la Concha 2014.

⁹¹ «Decreto núm. 436, constituyendo el Instituto de España con el conjunto de Académicos Numerarios de las Reales Academias». In: *BOE*, 1938-01-02.

Salamancako Unibertsitatean. F. Gómez Jordana Junta Técnica del Estado-ko buruaz gain, nazioarteko diplomazialariak bertan izan ziren: Italia, Alemania, Japonia, Guatemala, El Salvador eta Erresuma Batua. M. de Falla ustezko burua, Cadizen gaixorik zegoelako, ez zen batzarrera agertu. P. Sainz Rodríguezek azaldu zuen IdeE-ren zeregin nagusia, militar matxinoen fronte intelektuala izatea, alegia:

Por eso este Instituto es unidad. Unidad en la inteligencia, unidad en la tarea unidad en la conciencia moral de nuestro pueblo. No olvidemos que vamos a jurar ante el yugo y las flechas, que es el emblema sagrado de la redención de nuestro pueblo y que por eso este Instituto ha de tener este carácter de frente de guerra. Somos los encargados de trazar las trincheras del pensamiento para que la muerte que todos los días mata a este pueblo español, que ha sabido sublevarse por su tradición, no sea infecunda en las trincheras de la guerra (*ABC*, Sevilla, 1938-01-07).

F. Gómez Jordanak akademien autonomia gordeko zela agindu zuen, baina erakunde berriko kide guztiei E. d'Orsek asmatutako, eta dekretuz ezarritako, zin lotsagarria egitera behartu zieten. Gainera, zin hori Itun Berriaren eta Falange-ren ikurra zeraman *Don Quijote de la Mancharen* ale banaren gainean egin behar zuten:

¿Juráis en Dios y en vuestro Angel Custodio servir perpetua y lealmente al de España, bajo Imperio y norma de su Tradición viva, en su catolicidad, que encarna el Pontífice de Roma; en su continuidad, representada por el Caudillo, Salvador de nuestro pueblo?⁹²

Baiezkoa emana zuten Burgosen batzartutakoek, eta Salamancan RAEko beste kide hauek zin egin zuten: L. Eijo, R. Cabanillas, G. Maura, W. Fernández Florez, Marqués de Lema, R. M. Azkue, J. Urquijo eta Pío Baroja. Hala ere, *El árbol de la ciencia*ren egile fedegabeak, «lo que sea costumbre» erantzun omen zuen, eta Madril-Alcaláko apezpikuak, zina heretikotzat jota, promes baino ez omen zuen egin (González González 2010: 14). Kontuan hartu behar da EGZeko jazarpen giroak susmagarri bilakatu zuela ortodoxia katolikotik kanpo aritutako guztiak. Donostiako liburutegi eta liburu dendak depuratu zituen batzordeak, adibidez, P. Barojaren «pozoiz intelektuala» edota W. Fernández Florezen «materialismo sentsuala» gaitzetsi zituen (Alted Vigil 1984: 64).⁹³

⁹² «Orden dictando normas para el reingreso e ingreso de los señores Académicos, de conformidad con lo preceptuado en el Decreto de 8 de diciembre último». In: *BOE*, 1938-01-02.

⁹³ Bere ilobaren arabera, P. Barojak Nafarroako Gobernu Zibiletik jaso zuen Salamancara joateko agindua eta familiak agindua betetzea eskatu zion. L. Eijo apezpikuak eta beste batzuk oso hotz hartu omen zuten Salamancan, eta horregatik, 1940tik aurrera Madrilén bizi arren, RAEko batzarretan parte hartzeari uko egin zion (Caro Baroja 1972b: 337-338).

Egun horretan RAEk ere batzarra egin zuen eta hurrengoek kargua hartu zuten: E. d'Ors, W. Fernández Florez eta J. M. Pemán. Halaber, bi akademiko berri izendatu ziren: P. Sainz Rodríguez eta Manuel Machado. Militar matxinoen esku zeuden lurraldeetako akademikoak bildu eta erakundea berrezartzeko presa nabaria zen. Estatutu-erregelei jaramonik egin gabe, EGZe an hildakoen hutsarteak bete eta behin-behineko zuzendaritza izendatu zuten: J. M. Pemán (buru), Madril-Alcaláko apezpikua (zentsore), J. Urquijo (idazkari), A. González de Amezúa (diruzain), R. Cabanillas (kide laguntzaile) eta M. Artigas (liburuzain).⁹⁴

Guk dakigula, inon ez da adierazi J. Urquijo Euskaltzaindiaren kide sortzailea, RAEko idazkari (akademia bateko bigarren postu garrantzitsuena) izan zenik EGZe an. IdeE-k Euskaltzaindia bere barruan hartu ez arren, zin egin zuten zortzi akademikoen artean R. M. Azkue-J. Urquijo zeuden. EGZe an, IdeE-ren eta errege akademia guztien behin-behineko egoitzak Donostian egon ziren. Ondorioz, 1938-1939ko RAEren batzar gehienak bertan egin ziren, bi euskaltzainak mahaian egoten zirela. Dena dela, RAEren historialari ofizialek aitortu dutenez, EGZaren garaiko batzar agiriek interpretazio arazoak sortzen dituzte:

En realidad, las actas procedentes de la zona nacional no son un modelo de transparencia. Aparecen sin firmar y con enmiendas. Se percibe que la persona que las redacta, seguramente apoyándose en notas manuscritas del secretario en funciones, no emplea los términos con el rigor académico (Zamora Vicente 1999: 460).

J. Urquijoren artxiboan eskuizkribu eta gutun ugari dago agiri horien jatorrizko egile bera izan zena frogatzen dutenak. 58 orrialdeko sorta luze batean, J. Urquijok eskuz eta makinaz idatzitako agiriak gordetzen dira. Salamancan IdeE-ren zuzendaritza hautatu eta, erakunde berriaren barruan, RAE berrezarri zenetik hiru egunera, 1937ko abenduaren 30ean, RAEren beste batzar bat egin omen zuten hurrengoek Donostian: A. González de Amezúa, R. M. Azkue, M. Artigas, P. Sainz Rodríguez, M. Asín, Marqués de Lema, E. d'Ors, P. Baroja, J. Urquijo eta J. M. Pemán (galdera ikur bat jarri zion azken horri idazkariak). J. Urquijoren eskuzko agiriak ez du edukirik zehazten.⁹⁵

⁹⁴ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-01-05. IdeE-ko kide guztien biografia laburretarako: Ramírez Jérez 2005.

⁹⁵ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1937-12-30.

1938ko urtarrilaren 13an M. Machado kide berritzat onartu zuten Donostiako San Telmo Museoan. J. M. Pemánek, bestalde, adierazi zuen behin-behineko buru izatea onartzen zuela, R. Menéndez Pidal 1936ko azarotik «kanpoan» zegoelako, eta Burgosko Gobernuak bizitza akademikoa berrezarri nahi zuelako. Akademikoen literatur idazlan guztiak biltzeko bilduma bat abiatzeko aukera aipatu zuten. IdeE-ri eskaria bideratzeaz M. Artigas, P. Baroja eta M. Machado arduratuko ziren. Gainerako batzarkideak M. Asín apaiza, A. González de Amezúa, R. M. Azkue, Marqués de Lema (Salvador Bermúdez de Castro), E. d'Ors eta J. Urquijo izan ziren.⁹⁶

IdeE-k ekitaldi publikoa egin zuen 1938ko otsailaren 19an, San Telmo Museoan. Mahaiburuak, bi ministro (Hezkuntza Nazionalekoa eta Herri Lanetakoa) eta RAEko burua izan ziren. Udaleko eta probintziako ordezkariak ere bertan izan ziren, baita Gasteizko elizbarrutiko administratzaile apostolika ere. Hain zuzen, F. J. Lauzurica karlo-frankista amorratua izan arren, Gasteizko elizbarrutiaren autonomia gordetzen saiatzen ari zen euskararen pastoralean.⁹⁷ R. M. Azkuek, tirabira hauen jakitun, 1938ko apirilean gutun bat idatzi zion eta azken ohar gisa ezin izan zion euskararen gaiari eutsi: «Supongo que por ahora no podrá hacerse algo de los textos vascos».⁹⁸

Dena dela, IdeE-ko idazkariak Espainia-Italia faxisten arteko harreman estua izan zuen hizpide. Ildo beretik, Alemaniako zenbait irakasle, akademiko laguntzaile izendatu zituzten eta Alemaniako himnoa entzun zuten batzartuek, zutik eta besoa luzatuta. Ondoren, M. Machadok sarrera hitzaldia egin zuen. Sevillako poeta Estatu Berriak erabili egin zuen, EBEn aldele nabarmena zen Antonio anaiaren aurkari sinboliko gisa. Ataka gaitzean zegoen M. Machado, Burgosen atxilotuta egon baitzen EGZ hasi zenean. J. M. Pemánek erantzun hitzaldian hitz erdika aipatu zituen iragan hurbileko arriskuak: «Así, puede llegarse al borde del abismo, pero para salvarse al fin...» (*La Voz de España* 1938-02-20).

RAEko kide berriaz gain, I. Zuloagak, J. Allendesalazarrek eta beste akademiko batzuk ere zin egin zuten. Bertaratuen artean, J. Urquijo-J. Zaragüeta egon ziren. Azkenik,

⁹⁶ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-01-13.

⁹⁷ 1937ko abenduan, Gipuzkoako komandantzia militarren bidez, euskararen eliz erabilera debekatu zen, baina 1938ko martxoan Gasteizko elizbarrutiaren buletinean, administratzaile apostolikaok arau batzuk argitaratu zituen, erabilera hori neurri handian baimentzen zutenak. S. Martínez Anido Ordena Publikoko ministroak berehala erantzun zuen horren aurka, eta hura abenduan hil ondoren negoziazio sekretu baten bidez bideratuko zen Estatuaren eta Eliza katolikoaren arteko gatazka (Intxausti 2014b: 206-223).

⁹⁸ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna F. J. Lauzuricari, 1938-04-11.

Hezkuntza Nazionaleko ministroak hitz egin zuen ministerioak, izen berriak adierazten zuenez, herritarrei kontzientzia nazional berria emateko zuen asmoaz. Amaieran, hurrenez hurren, karlista-falangisten ereserkiak eta himno nazionala jo zituzten. Gauean afari bat ospatu zuten udaletxean, eta gobernadore zibilak, kontzertu ekonomikoaz gabetutako gipuzkoarren espainolismoa nabarmendu behar izan zuen (*El Diario Vasco* 1938-02-20).

Otsailaren 21ean, P. Baroja eta markesa izan ezik, urtarrileko kideak batzartu ziren GPDko jauregian. Hezkuntza Nazionaleko ministerioa ikasliburuez dekretu bat argitaratzear omen zegoen. Lehen eskuko informazioa zuten IdeE-ko idazkariaren bidez. RAEko diruzaina, aukera hori baliatu eta eskola liburuak berriz argitaratu eta banatzearen beharraz mintzo zen. M. Artigasekin batera, gai hori eramateko batzordea osatu zuen.⁹⁹ Martxoaren 29an berriz bildu ziren GPDko jauregian hurrengoak: burua, M. Asín, markesa, E. d'Ors, M. Machado eta idazkaria. R. M. Azkuek huts egin zuen, beraz. Conde de Romanones-ek IdeE-ri egindako 25.000 ptako dohaintzaren berri eman zuten. Erdia RAEko akademikoen idazlan guztien bildumarako erabiltzea erabaki zuten.¹⁰⁰

Esan bezala, Espainia frankistan J. Urquijok idatzitako batzar agiriak ez dira oso fidagarriak. Zuzenketaz beterik daude, edukian ez ezik, baita datetan ere. Bestalde, komunikabideek ere informazio nahasgarria ematen zuten. Adibidez, 1938ko martxoaren 4an euskaltzainburuak J. M. Pemáni hurrengo idatzi zion:

Al despedirme de V. en San Sebastián le pregunté cuándo tendría lugar la próxima Junta de Nuestra Academia y me dijo V. que hacia fines de este mes de marzo, y esta mañana he quedado sorprendido al leer en la Gaceta del Norte que ayer se reunieron ustedes sin que los coristas (por lo menos yo) hayamos tenido noticia de ello.

En la última junta a que tuve el gusto de acudir, al exponer nuestro dignísimo Tesorero lo de los textos de instrucción primaria, que desde el año de 1857 empezaron a salir del seno de la Real Academia, me acordé yo de que en Alemania, según supe la temporada larga que pasé allí, bajan de arriba aun los textos de bachillerato; lo cual podría intentarse también entre nosotros. No quise exponer el asunto hasta obtener de amigos alemanes que tengo en Bilbao datos más detallados. Y en efecto, luego de mi llegada estuve con el

⁹⁹ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-02-21.

¹⁰⁰ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-03-29.

consul alemán, de quien supe que hasta ahora se hacía esto sólo por regiones, saliendo por ej. de las Autoridades de Münster los textos de los Institutos de Westfalia; pero muy pronto parece que saldrán de Berlín para todos los de la Nación.¹⁰¹

La Gaceta del Nortek argitaratutako berri laburra irakurrita, argi dago otsaileko batzarraz ari zela, eta ez martxoan egindako beste bilera batez.¹⁰² Nolanahi den, diktadura primorriveristan egin zuen bezala, euskaltzainburua agintari espainolistekin kolaboratzeko prest agertzen zen. Seguru asko, Euskaltzaindia berriz abiatzea eta euskararen erabileraren aurkako erasoak ahal zen neurrian gutxitzea ziren R. M. Azkueren helburuak. Nolanahi den, ez zuen erantzun positiborik jaso eta erabat bakartuta sentitzen zen. Oso nahigabetuta zegoen diktadura frankistak euskaltasun maiteari marrazten zion etorkizun beltzarekin. 1938ko martxoaren 31n loba bati adierazi zionez, bizimodu publikoa zeharo baztertu eta Salvator izeneko ordena erlijiosora erretiratzeko asmo sendoa izan zuen (Kintana Goiriena 2008: 215).

Egoera oso bihurria zen eta igartzen da euskal ikasketekin, zer egin ez zegoela batere argi, diktadura frankistak euskaltasuna nahitaez abertzaletasunarekin lotzen zuelako. Hala ere, apirilaren bukaeran, euskaltzainburua Sevillaraino joan zen, RAEk egin zuen batzarrera. IdeE-k hurrengo ekitaldi publiko handia, hain zuzen, Sevillan egin zuen apirilaren 28-30 artean. Besteak beste, E. d'Orsek sarrera hitzaldia egin zuen RAEko kide gisa. M. Unamunoren hutsarte betetzen zuela adierazi zuen. Legez ez zen zuzena, ikusi dugunez katalan ataleko kide izendatu baitzuten 1927an. Besteak beste, G. Queipo de Llano jeneralak ere hitzaldia egin zuen. Nolanahi den, Ameriketara zuzendutako politikagintza berria izan zen ekitaldiaren gai nagusia (*ABC*, Sevilla 1938-05-01). R. M. Azkuek txantxetan hartu zuen IdeE-ren handinahikeria Perun bizi zen lehengusu bati idatzitako gutunean:

Me sirven de distracción las correrías del Instituto de España a que pertenezco como miembro de una de sus seis academias. Se inauguró este Instituto (creado por el invicto Generalísimo) en Salamanca el día de Reyes. A fines de Abril tuvimos sesiones en Sevilla

¹⁰¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. M. Pemáni, 1938-03-04.

¹⁰² J. Urquijoren anaia zenak sortutako egunkariaren iturria, idazkariaren agiria zela dirudi, baina zuhurki ez zuen euskaltzainik aipatzen batzarrean: «Se ha reunido la Real Academia Española. Trató de los textos que servirán en los Centros de Enseñanza, particularmente en las Escuelas públicas y privadas, y de las relaciones que en esta materia se establecerán entre la Academia y del Instituto de España; así como del asunto con los académicos don Agustín G. Amezcua, don Eugenio d'Ors, don José María Pemán y don Miguel Artigas; y se acordó continuar examinando los diferentes aspectos del problema, designando a los señores Amezcua y Artigas para seguir preparando la labor futura» (*La Gaceta del Norte* 1938-03-04).

y las tendremos por Junio en San Sebastián y afines de Julio en Compostela. Supongo que no querrán llevarnos a... Lima. Si tal sucediera te prometo subir de allí a Payta a pasar unos días con vosotros.¹⁰³

Espainiak Hispanoamerika militarki konkistatzea ameskeria hutsa zen, baina hara zuzendutako politikagintzan kulturak, ordea, garrantzi berezia hartzen zuen. Inperioaren izaera «espirituala» aipatzen zuten agintari frankistek behin eta berriz. Diplomazia mailan, 1938ko udan soilik Ameriketako El Salvador-Guatemala-Nicaraguak ezagutzen zuten ofizialki F. Francoren gobernuak. Akademia mailan, berriz, E. d'Orsek grina berezia erakutsi zuen Hispanoamerikako filofrankistak kooptatzeko, RAE berregiteko asmoarekin. Hezkuntza Nazionaleko ministroaren kultur inperialismoak toki gutxi utzi zien gaztelania ez beste herri hizkuntzei:

[E]s un deseo de incorporación a una misma nación, cuyas raíces arraigan aquí, pero cuyos frutos exuberantes pueden y deben nacer, igualmente, en cualquiera de los países que, sintiendo y pensando en la lengua de Cervantes, deseen que nuestro común y futuro destino se desenvuelva a la sombra y al amparo de la Cruz (apud Alted Vigil 1984: 142).

Egun horretan, apirilaren 30ean, RAEko akademikoek ere batzarra egin zuten Sevillan: J. M. Pemán, E. d'Ors, Madril-Alcaláko apezpikua, G. Maura, R. M. Azkue eta M. Machado. Azkenak hartu zuen J. Urquijoren idazkari zeregina. Hezkuntza Nazionaleko ministerioren apirileko aginduz RAEren gramatikak nahitaezko ikasliburutzat ezarri ziren lehen hezkuntzan, eta edizio berriak berrikusi beharraz mintzatu ziren.¹⁰⁴ Maiatzaren 26an hurrengo kideak batzartu ziren Donostian: M. Asín mahaiburu, diruzaina, markesa eta J. Urquijo idazkaria. Ikasturte berrira begira, gramatika berrikusia onartu eta hura ahalik azkarren baldintza onenetan saltzea erabaki zuten.¹⁰⁵ Ekainaren 30ean, Hezkuntza Nazionaleko ministroa, IdeE-ko idazkaria eta M. Machado gehitu zitzaizkien Donostiako batzarrerara. Abendutik martxorako kontuak onartu eta gramatika ikasliburuez mintzatzen jarraitu zuten. E. d'Orsek, bestalde, Portugalera egindako bidaiaren berri eman zuen.¹⁰⁶

¹⁰³ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Aberasturiri, 1938-05-14.

¹⁰⁴ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», M. Machadoren agiria, 1938-04-30.

¹⁰⁵ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-05-26.

¹⁰⁶ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-06-30.

Salbuespeneko egoeraren erakusgarri, RAEk Donostian batzartzen jarraitu zuen eta J. Urquijo, idazkari gisa, koordinazio lanaz arduratu zen, J. M. Pemán buruarekin eta gainerako akademikoekin postazko harremana eramanez. Aldi berean, Europako gorabeheren berri zuen Frantziako (G. Lacombe-H. Gavel) edota Alemaniako (G. Bähr) lankideen bidez.¹⁰⁷ P. Barojak, ordea, otsailaren 13ko batzarretik aurrera, joateari utzi zion gaixotasunaren aitzakian, eta Parisera itzuli zen bizitzera (Zamora Vicente 1999: 460).¹⁰⁸

Abuztuaren 30ean RAEren behin-behineko burua, ministroa, M. Asín, diruzaina, E. d'Ors, M. Artigas, R. M. Azkue, W. Fernández Florez eta idazkaria bildu ziren. Gai nagusien artean, Ameriketako hizkuntz akademien atxikimendua bilatzea zegoen, aipatutako kultur politika inperialistaren bidetik.¹⁰⁹ Irailean ere batzartu ziren eta diruzainak zeraman ikasliburuen edizioaren berri eman zen. Lehen hezkuntzarako prestatutako *Epítome de gramática de la lengua española* (1938) ikasturte berrirako agertuko zen.¹¹⁰

4.9 Pedro Sainz Rodríguez, Hezkuntza Nazionaleko ministroa

P. Sainz Rodríguezek, Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak = Encuentros Internacionales de Vascólogos* (1981) liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen Madrilén, RAEko kide gisa. J. M. Satrustegui idazkariaren galdera bati erantzuteko, 1982ko azaroaren 10ean hurrengo gutuna idatzi zuen bere 1938-1939 arteko jokabidea azaltzeko:

Recuerdo perfectamente el acto celebrado en la Librería Calpe con motivo de la presentación de un libro publicado por esa Academia. Allí aludía a mi actitud favorable a la libertad cultural de los vascos durante mi gestión como ministro.

Entonces, en plena guerra, había un sector en aquel ambiente, principalmente de falangistas y requetés, que parecían dispuestos a emplear la violencia contra las instituciones vascas de cultura. Yo decidí, para evitar cualquier acto de esa índole, simular que el Gobierno las había confiscado. Mediante esta simulación evité este peligro y

¹⁰⁷ KMK-JU: «Notas y encargos», 1938-1939.

¹⁰⁸ 1939ko martxoan, P. Sainz Rodríguezek agintaldiaren amaieran, ministroak baimena lortuko zion J. Caro Baroja ilobari, atzerrira joateko ikasketekin jarraitzera. Ministerioa utzita ere, antropologo gaztearekiko harremanarekin jarraituko zuen (Escribano Hernández 2011: 207, 220-221).

¹⁰⁹ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-08-30.

¹¹⁰ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-09-28.

cuando salí del ministerio quedaron esos organismos en su situación anterior.

Esta misma actitud de convivencia fue servida muy bien por Eugenio d'Ors, que era mi director de Bellas Artes. Él organizó una exposición de pintura, creo que en Vitoria, y animó a otras organizaciones, como el Orfeón Donostiarra, que cantó en diversos actos.

Estas son las noticias que de memoria, sin consultar papeles puedo darle. Estoy a su disposición para cualquier puntualización que se le ocurra (Escribano Hernández 2011: 530).

Baieztapen horrek zalantzak eragiten ditu, nekez sinetsi baitaiteke gobernu mailan konfiskazioak «simulatu» egin behar zirenik. Pedro Sainz Rodríguez (1897-1986) eskuindar intelektual ospetsua zen, unibertsitate-argitalpen munduari oso lotua. Diktadura primorriveristan hizkuntza politikaren aurka eta katalanaren aldeko manifestua erredaktatu zuen 1924ko martxoan, F. Cambók gidatutako oposizio katalanistaren eraginpean. Diktadoreak dimisioa aurkeztu ondoren, Bartzelonara gonbidatu zuten R. Menéndez Pidal eta beste intelektual batzuekin batera. Bertan, P. Sainz Rodríguezek nazionalista espainol baten «konkordia»rako bidea azaldu zuen: «Las bases de la España grande han de partir de dos negaciones: No queremos asimilar a Cataluña, queremos estudiarla, a lo que Cataluña contestará con un *No separatismo*» (*La Vanguardia* 1930-03-25).

EBEko parlamentarioa izanagatik, eskuindarren estatu kolpearean protagonistetako bat izan zen. Bloque Nacional kontrairaultzailean eta monarkikoez abiatutako konspirazio guztietan parte hartu zuen, Falange-ren borrokarako indarra eskuratzeko prozesuan barne. EGZean, «Delegado Nacional de Educación y Cultura» izendatu zuten, bereziki Falange-ren eragina moteltzeko. Izan ere, Eliza katolikoaren eta I. Gomá kardinalaren sostengua izan zuen, hezkuntza konfesionala ziurtatzearen (Alted Vigil 1984: 31-40; Escribano Hernández 1998; González González 2010: 14-17; Ucelay-Da Cal 2012: 99-108).

Erregimen zaharreko gizona zen, ikasketa klasikoen maitalea. Adibidez, M. Menéndez Pelayoren idazlan guztien argitalpena abiatu zuen ministeriotik. Euskarak, ministroarentzat ez zuen katalanak literatur hizkuntza gisa zuen interesa. Historiaurreko «Hispania»ren arrasto zen neurrian interesatzen zitzaion hizkuntza zaharra, menturazko ikerketa filologikoen aztergaia. Ildo horretan, J. Cejadorren hipotesi iberistak babestu zituen, barregarritzat jotzen zirela jakin arren (Sainz Rodríguez 1987: 41).

Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren behin-behineko egoitza Gasteizen zegoen eta bi euskaltzainek zuzeneko harremana zuten P. Sainz Rodríguezekin RAEko batzarren bidez. E. d'Ors-ek ez bezala, gutxitan jantzi zuen falangisten militar itxurako soinekorik, eta Euskaltzaindiko tradizionalistei eskuragarriago iruditu zitzairen alfonsotar monarkiko hura, militar-falangistak baino. Bere buruari euskara kultur tresna bilakatzea agindu zion ALV, ordea, ministroaren asmoetatik kanpo zegoela dirudi, memorietan ez baitu Euskaltzaindiarik aipatzen (Sainz Rodríguez 1978).

Bestalde, Estatu Berriaren hezkuntza alorreko lehen urratsak abiatzear zeuden. Hain zuzen, 1938ko urriaren 22an ministroak ikasturte berriari hasiera eman zion Bilboko irakaskuntza ertaineko institutuan. Ekitaldiak eta bereziki ministroaren hitzaldiak oihartzuna izan zuten, baina oraingoan euskal hizkuntzaz esandakoak sortu zuten zeresana. Berarekin E. Giménez Caballero falangista eta ministerioko beste kargu batzuk joan ziren.¹¹¹ Egoitza Bilbon zuen Industria eta Merkataritzako ministroak harrera egin zien eta tokiko agintarien artean J. F. Lequerica alkatea edota J. M. Areilza alkate ohia egon ziren, baita euskaltzainburua ere.¹¹² Faxismora lerratutako eskuindar politikariak izan arren, Espainiako kultur aniztasunarekin harremanak izan zituzten.¹¹³

Euzkadiko hiriburu ohian egindako ekitaldiak esanahi berezia zuen. Hizkuntza klasikoen eta gaztelaniaren ezinbestekotasuna nabarmendu ondoren, ezustean euskararen irakaskuntzaz jardun zuen ministroak, tokiko prentsaren arabera:

España se siente solidarizada con sus provincias vascas. Yo espero en breve que el Instituto de España organizará en sus Institutos el estudio del idioma vasco, porque la España Imperial siente como suyo lo que es nacional y es de España (*CE-PV* 1938-10-23; *La Gaceta del Norte* 1938-10-23).

Donostiako egunkariak ordea, neurria abertzaletasunaren aurkakoa zela nabarmendu zuen:

¹¹¹ P. Sainz Rodríguez-E. Giménez Caballerok, diktadura primorrivistarekiko oposiziotik, intelektual katalan-espainolak koordinatzeko F. Cambóren saioetan parte hartu zuten. Katalunia-Espainiak elkarrekin gidatutako hispaniar inperialismoa aldarrikatu zen, Estatuko barne borrokak saihesteko bidea. E. d'Orsen barrokismo literarioaren eta katalanismo motik jasotako kultur batasunaren eraginak ere nabarmenak izan ziren. EBEn E. Giménez Caballerok *Genio de España* (1932) liburuan, faxismoarekin erabat identifikatu eta hautsi egin zuen katalanismoarekin (Ucelay-Da Cal 2012: 101-124).

¹¹² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna Z. Vizcarrari, 1940-02-24.

¹¹³ Adibidez, J. F. Lequericak EI-SEVen sorrera biltzarrean hurrengo eskaera aurkeztu zuen idatziz: «que del Gobierno de Su Majestad se solicite la creación de una sección de dedicada al estudio de la lengua vascongada en el Centro de Estudios históricos de Madrid y, si procede, en su día de una cátedra de la misma en la Universidad Central» (Lequerica 1919-1920).

Vuelve a referirse el señor Sáinz Rodríguez a la lacra de la enfermedad separatista que ha padecido Vizcaya. Dice que el separatismo ya no es problema porque se trata de un microbio que fermenta en los Estados débiles. Añade que se restablecerá la cátedra de vascuence porque el Estado, lejos de hacer campaña separatista con los valores nacionales los incorpora a la cultura general de la Patria (*El Diario Vasco* 1938-10-23).¹¹⁴

Nolanahi den, prentsak jasotako aipuak lurrikara txikiak eragin zituen Euskal Herrian. Falangistekin egindako alderdi bateratzea ez zuen tradizionalista guztiek begi onez ikusi. Nazionalismo espainol eskuindarrarekin bat egiten zuten, baina ez nahitaez zentralismo erabatekoarekin eta herri hizkuntzen baztertzearekin. Karlistak nagusi zituen Tolosako Udaleko batzorde kudeatzaileak mozio bat onartu zuen hitzaldiaz:

-1ª. Que conste en acta el agrado y satisfacción con que ha visto el Ayuntamiento tolosano las afirmaciones del Sr. Sain[z] Rodríguez al declarar que en plazo breve organizará en los institutos españoles el estudio del idioma vasco, y al felicitarle por ese motivo se le estimule a que no desanime para que sea un hecho, una realidad, su pensamiento en este sentido y. -2ª. Se haga conocer a todos los Ayuntamientos de esta provincia el acuerdo recaído para si consideran procedentes adherirse al mismo transmitan a su vez su cordial felicitación al Excm. Sr. Ministro de Educación Nacional. Dios a guarde su V. Y. muchos años.- Tolosa, 10 de noviembre de 1938.- III Año Triunfal.¹¹⁵

Tolosatik zetorren mezua jaso eta Hernaniko Udalak, Gipuzkoako eremu euskalduneko beste herri bat, ministroa zorientzea erabaki zuen:

Se lee una comunicación del Ayuntamiento de Tolosa proponiendo se felicite al Excmo. Sr. Ministro de Educación Nacional por haber afirmado, en discurso pronunciado en Bilbao, según la prensa Navarra reivindicando el concepto de nuestra legendaria lengua como uno de los valores espirituales más sublimes y eminentes de la Historia y de la Tradición de este País, que «España se siente solidarizada con las provincias Vascas. Yo

¹¹⁴ E. Esparzak bere «Friso rojo» atalean, P. Sainz Rodríguezek separatismoaren aurka esandakoak aztertu zituen ohi zuen zinismoarekin: «El Estado no dejó de comprender la finalidad de aquel fraude escandaloso, ¡pero era débil y nada pudo contra el separatismo con el que pactó! Ni el separatismo pudo tampoco nada con aquella tropa de mandrines, como lo ha comprobado esta terrible experiencia, ya que en pueblos vascos de preponderante predominio separatista, la conciencia religiosa (que era lo que el separatismo quería custodiar frente a la República) ha sufrido iguales atropellos e idénticos trallazos que en pueblos dominados por los marxistas. ¡Que lo diga el Cristo de Ochandiano! Y eso, siendo los separatistas combatientes con los rojos? Total, que la razón la teníamos nosotros» (*Diario de Navarra* 1938-10-26).

¹¹⁵ TUA: Tolosako Udalaren batzar agiria, 1938-11-11. Juan Mocoroa zen behin-behineko alkatea, falcondista eta aliadofiloa. 1945ean atxilotu egin zuten, Iruñean egin zen karlisten protestan parte hartzeagatik (Villanueva 1997: 637, 643; Martorell 2011: 856).

espero en breve que el Instituto de España organizará en los Institutos el estudio del idioma vasco, porque la España Imperial siente como suyo lo que es Nacional y es de España». [...] El Ayuntamiento acuerda quedar enterado de esta declaración con la más viva de las satisfacciones y felicitar por ella a su ilustre autor toda vez que el cultivo del idioma vernáculo nunca se ha interpretado en esta Región como desamor a España.¹¹⁶

Horren arabera, bazirudien euskarak sarrera izango zuela bigarren hezkuntzan, izan ere, 1938ko irailaren 20ko «Ley de Reforma de la Enseñanza Media» promulgatu zen eta gainerako mailen erreforma prestatzen ari zen Hezkuntza Nazionalako ministerioa. Batxilergoa koadroak formatzeko eskola katoliko-klasiko-kontrairaultzailea bilakatu nahi zen. Besteak beste, Italia faxistako ereduak eragin nabarmena izan zuen hezkuntza egitasmoan. Inperialismo nazionalista erabatekoa zen, eta gaztelaniaren garrantzia nabarmentzen zen legearen atarikoan:

Complemento natural de las humanidades clásicas han de ser las humanidades españolas. Es nuestra lengua el sistema nervioso de nuestro Imperio espiritual y herencia real y tangible de nuestro Imperio político-histórico. Como dijo Nebrija en ocasión memorable, fue siempre la lengua compañera inseparable del Imperio. Sólo un profundo estudio de nuestro idioma sobre sus textos clásicos y el aprendizaje de su empleo y de sus bellezas, puede darnos la seguridad de que el presente renacer de nuestro sentido nacional y patriótico, labrado a golpes de dolor y adversidad, no sea una exaltación pasajera, sino algo permanente y sustantivo en el espíritu de las generaciones venideras.¹¹⁷

Baina euskararena, P. Sainz Rodríguezen Bilboko hitzaldiari dagokionez, egunkariak oker jasotako berria omen zen. Ziurrenik ministroak atzera egin behar izan zuen, goitik jasotako agindu baten aurrean. Ondorioz, ministerioak ohar bat banatu zuen prentsa-irratira, baita Hernaniko Udalera ere, zorionak eskertu arren, bertan hartutako erabakia zuzendu nahian:

En la transmisión telegráfica del discurso pronunciado por el ministro de Educación Nacional en el Instituto de Bilbao, algunos periódicos han tergiversado las palabras que dijo sobre el estudio del idioma vasco. Lo que exactamente dijo fue que esperaba que en

¹¹⁶ HUA: Hernaniko Udalaren batzar agiria, 1938-11-25. *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistaz ari ziren, *Diario de Navarra* ez baitzuen ministroaren hitzaldia jaso. Urriaren 25ean ekitaldiaren berri eman zuen, argazkiekin, baina edukia azaldu gabe, Donostiako *La Voz de España* edota Sevillako *ABC*ek bezalaxe.

¹¹⁷ «Ley de la Jefatura del Estado español de 20 septiembre de 1938 sobre reforma de la Enseñanza Media». In: *BOE*, 1938-09-23.

breve el Instituto de España dedicaría una de sus Comisiones científicas al estudio de la investigación superior de la Filología vasca (Escribano Hernández 2011: 188).¹¹⁸

Jakina, horrek linboan zegoen Euskaltzaindiari eragiten zion, euskararen ardura izandako goi mailako erakunde zen neurrian. Bilbon hitzaldia eman eta bi egunera, ministroak R. M. Azkueri esker oneko gutuna idatzi zion: «Muy agradecido a su amable felicitación por la Ley de reforma de la segunda enseñanza».¹¹⁹ Esan dugunez, euskaltzainburuak eta ministroak harreman zuzena zuten RAEko batzarretan. Urriaren 31n beste batzar bat egin zuten GPDko jauregian hurrengoek: P. Sainz Rodríguez, M. Asín, diruzaina, markesa, E. d'Ors, liburuzaina, R. M. Azkue, M. Machado, idazkaria eta Juan Moneva laguntzailea.

Gai nagusia Ameriketako akademiak politikoki erakartzeko bideak izan ziren. Bereziki haiek IdeE-ren egituran txertatzeko nahia agertu zuen E. d'Orsek, baita Ameriketako akademiko laguntzaile eskuindarrak izendatzeko beharra ere. Gainerako kideek, zuhurtziaz, erabakiak geroratu nahi izan zituzten. Azkenik, diruzainak egoera ekonomikoaz eta *Epítome de gramática de la lengua española* (1938) ikasliburuaren banaketaz jardun zuen, diru sarrera garrantzitsua izan zitekeelako.¹²⁰

1938ko abenduaren 19an Donostian batzartu ziren hurrengo kideak: M. Asín mahaiburu, diruzaina, liburuzaina, markesa, E. d'Ors, M. Machado eta idazkaria. Diruzainak Banco de España-ko akzioen berri eman zuen eta IdeE-ko idazkariak Coimbrako Unibertsitateak honoris causa doktore izendatu zuela adierazi zuen.¹²¹ 1939ko otsailaren 24an ministroa, burua, M. Asín, markesa, diruzaina, liburuzaina, R. M. Azkue, E. d'Ors, M. Machado eta idazkaria bildu ziren Donostian. Batzar guztiak, ikusi dugunez EGZak eragindako salbuespen egoeran egin ziren, baina egun horretako agiriak argiago islatu zuen militar matxinoekiko lotura:

El Sr. Director D. José María Pemán leyó a continuación un escrito en el que el Sr. Coronel D. Francisco Franco Salgado-Araujo, Secretario Militar y Particular de S. E. el Jefe del

¹¹⁸ Ministerioaren oharraren berri Hernaniko udal batzarrean ere eman zuten (HUA: Hernaniko Udalaren batzar agiria, 1938-12-09).

¹¹⁹ ABA-RMA: P. Sainz Rodríguez-en gutuna R. M. Azkueri, 1938-10-24.

¹²⁰ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-10-31.

¹²¹ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-12-19.

Estado y Generalísimo del Ejército Nacional le hacía presente la gratitud de S. E. a la Real Academia Española por la felicitación elevada con motivo de la ocupación de Barcelona, por nuestro glorioso Ejército.¹²²

Batzarrean nabari zen armada frankista Madrileren sartzearen zegoela eta RAEren ondasunak berreskuratzeaz hitz egin zuten. Bestalde, IdeE-ko idazkariak, errege akademietako kide oso eta laguntzaileen kopurua murrizteko asmoa aipatu zuen, errepublikazaleak depuratzeko asmoarekin, noski. Hain zuzen, 1939ko martxoaren 20an, Madril errepublikanoa erortzearen zela, R. M. Azkuek Hezkuntza Nazionaleko ministroarengana jo zuen Gasteiza laguntza eske. Elebidun liburuak argitaratu eta Euskaltzaindia berrabiatu nahi zuen. Diktadura primorriveristan erabili zuen jokabideari jarraituta, euskaltzainburua gobernadore zibilentzat zentsore lanak egiteko prest zegoen, «la durmiente Academia» esnatzearen, baina ez zuen P. Sainz Rodríguez aurkitu eta ohar bat utzi zion Gasteizen:

Acabo de llegar de Bilbao con el objeto exclusivo de tener con V. una cordial entrevista. Su objeto era conocer sus disposiciones acerca del patrocinio (digámoslo así) de la lengua vasca y además pedirle el favor de poder dirigirme a los gobernadores civiles de las tres provincias vascas y de Navarra con un escrito firmado por usted para que autoricen la publicación de escritos vascos dirigidos al pueblo poco culto, acompañados de traducción castellana.

Esta solicitud obedece a que algunas Cajas de ahorros han pedido esto mismo pero la autoridad se lo ha negado.

¡Cuánto gusto hubiera tenido en mi proyectada entrevista! En ella me hubiera atrevido y ahora me atrevo a pedirle con todo empeño la reapertura de la Academia de la lengua vasca.

Si los gobernadores civiles necesitaran de alguien que juzgase los textos vascos, tendría yo sumo agrado en ponerme a sus órdenes.¹²³

Euskaltzainburuak unea iritsita zegoela uste bide zuen, baina ministroak ez zion erantzun ofizialik eman. Badirudi 1938ko urrian Bilbon egindako hitzaldiak eragindako iskanbilak gaia baztertzera eramane zuela. Nolanahi den, Gasteizen oharra utzi eta astebetetera, martxoaren 27an, elkar ikusi zuten RAEk Donostian egindako batzarrean. Gainerako kideak M. Asín, diruzaina, markesa, E. d'Ors, M. Machado eta idazkaria izan

¹²² KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1939-02-24.

¹²³ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna P. Sainz Rodríguezi, 1939-03-20.

ziren. Hala ere, batzarretan ez zen inoiz Espainiako herri hizkuntzen gaia aztertu. Are gutxiago, Ameriketara hedatzen zen kultur politika inperialista IdeE-ren helburu nabarmena zenean. Madrilen zeuden RAEko kide eta langileentzako laguntza prestatzen ari ziren, hiriburua okupatu osterako. IdeE-ko idazkariak errege akademien egitura nahieran erabili nahi zuen. Alde batetik, akademiko laguntzaileen izendapenekin eta, bestetik, Ameriketako akademiak IdeE-ren barrura erakarriz.¹²⁴

Diruzainak adierazi zuen *Epítome de gramática de la lengua española* (1938) agortu egingo zela, eta eskerrak eman zizkioten ministroari ikasliburu ofizial izendatu zuelako. 100.000 ale inprimatu ziren, baina, testu ofiziala izan arren, Hezkuntza Nazionaleko ministerioak azkenean ez zuen edizio hori nahitaezkoztat agindu. Salmentak uste baino urriagoak izanda, RAEren egoera ekonomikoa kaltetu egin zuen. P. Sainz Rodríguezek, gainera, iritzi txarra zuen gramatika horren balio pedagogikoaz. Estatu Berriak beste eskuliburu batzuk ere onartu zituen eta konkurrentzia pribatua baimendu. Ondorioz, IdeE-ren argitalpen politikak porrot egin zuen neurri handi batean (Alted Vigil 1984: 221-229).¹²⁵

1939ko apirilaren 29an batzartu ziren berriz Donostian: M. Asín mahaiburu, markesa, G. Maura, diruzaina, idazkaria eta J. Moneva. Ameriketako akademiez hartu beharreko erabakiak, Madrilerantz itzuli arte geroratu ziren. Bestalde, diruzainak Madrilgo egoitzaren nahiz Casa Lope de Vega museoaren egoeraren berri emateaz gain, bertako langileen jokabidea «durante la dominación marxista» azaldu zuen. 1936an banatu gabe geratu zen *Diccionario de la lengua españolaren* ediziorako azalak aldatu eta akademikoen zerrenda kentzearen beharra aipatu zen, depurazio politikoaren zantzu nabarmenak. Bestalde, *Diccionario histórico de la lengua española* (1933-1936) egitasmoarekin jarraitzeko aukeraz aritu ziren. Azkenik, bankuetako kontuen egoeraz eta Parisen zegoen R. Menéndez Pidalen prestutasuna argitu beharraz mintzatu ziren.¹²⁶ RAEren hiztegi arruntaren edukiak 1936koak ziren, baina azal berriak eta J. M. Pemánnek idatzita dirudien atarikoak diktadurarekiko menpekotasuna adierazi zuten:

¹²⁴ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1939-03-27.

¹²⁵ IdeE-k zazpi testuliburu argitaratu zituen 1938-1939 artean: *Antología de la literatura española* (bi liburuki), *Manual de aritmética*, *Higiene elemental*, *Manual de historia* (bi liburuki) eta *Análisis lógico gramatical* (Rodríguez Brioso 2012).

¹²⁶ KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1939-04-29.

Perseguidas con diabólica saña bajo la tiranía marxista cuantas instituciones encarnaban el verdadero espíritu de nuestro pueblo, no se podía esperar que la vesania de los usurpadores del poder respetase la vida de la Academia. Fue disuelta, en efecto, de un plumazo; y aunque no tardó en renacer en las tierras privilegiadas de nuestra patria que conocieron las primeras el alborear de la reconquista, la casa solariega de la Corporación, su patrimonio y sus publicaciones quedaron secuestrados en la capital de la nación hasta el día felicísimo de su liberación total (RAE 1939).

4.10 Esperimentu monarkikoaren bukaera Madrilen

EGZa bukatuta militar matxinoen garaipenarekin, RAEk ohiko batzarrak berreskuratu zituen Madrilen. Euskaltzainak bertaratu ez arren, maiatzaren 31n Madril «liberatuan» bizi ziren kideak batzartu ziren Felipe IV.a kaleko egoitzan: J. M. Pemán, F. Rodríguez Marín, Ricardo León, J. Alvarez Quintero, V. García de Diego, apezpikua, diruzaina, A. Cotarelo, M. Artigas, ministroa, M. Machado eta J. Casares. Hurrengo egunean, Julio Casares idazkari ohiak, batzar agiriaren hurrengo zatia kopiatu zuen J. Urquijori bidaltzeko:

Invitado al efecto por el Sr. Director, el Sr. Amezúa hizo un circunstanciado relato de la vida de la Corporación desde su restablecimiento en la zona primeramente liberada hasta el momento actual.

Todos los presentes se mostraron muy complacidos del celo y del acierto con que los escasos académicos reunidos en dicha zona habían logrado mantener la actividad propia de la Corporación y defender sus prerrogativas, así como sus intereses materiales, y acordaron expresar su agradecimiento a dichos señores, y muy especialmente a quienes hasta ahora han venido desempeñando con carácter accidental los cargos de la Junta de Gobierno.¹²⁷

Hain zuzen, J. Urquijok egun berean idatzi zion gutuna J. Casaresi, EGZean gertatutakoaren eta RAEko bere idazkaritzaren balorazio pertsonala egiteko:

[H]ace tiempo deseaba escribir a V. para felicitarle por su liberación: pero lo he ido dejando de día en día, porque me dijeron que iba V. a pasar unos días en San Sebastián, en casa de unos parientes. Me hago cargo, por propia experiencia, de los sufrimientos y sinsabores que habrán ocasionado a V. los rojos durante estos tres últimos años. Estas provincias no estuvieron bajo el yugo marxista más que durante pocos meses, y sin

¹²⁷ KMK-JU/RAE-JU: J. Casaresen ofizioa J. Urquijori, 1939-06-01.

embargo, mi familia fue una de las más castigadas. Murieron asesinados mi hermano José María, consejero y principal colaborador de La Gaceta del Norte y tres sobrinos carnales míos, y pasa de cuarenta el número de otros parientes más o menos cercanos que corrieron la misma suerte.

En ausencia de V. tuve que actuar por orden de la superioridad, de secretario de la Real Academia Española, labor para la que me sentía muy poco preparado. Bien es verdad que la actividad de nuestra Corporación tuvo que ser muy pequeña por razones que V. comprenderá. Estoy deseando que cuanto antes se reintegre oficialmente a su cargo.

Azkenean J. Casaresen ekainaren leko ofizioa zuzenean bidali ordeztu, RAEko buruaren gutun pertsonalarekin batera bidali zioten J. Urquijori Donostiara. 1939ko ekainaren 4a zen eta J. M. Pemán Burgosen zegoen, Consejo Nacional-ean parte hartzeko. Maiatzaren 31ko batzarrean RAEko idazkari eta liburuzain karguak gerra aurreko jabeengana itzuli zituztela jakinarazi zion; J. Casares-F. Rodríguez Marin, hurrenez hurren. RAEko behin-behineko buruaren asmoa zen bi horiek eta gainerako kide «liberatuek» IdeE-ren zina egitea Donostian etorkizunean. J. Urquijori bidaltzeaz gain, hurrengo eskaria egin zion gutunean RAEren buruak:

Como la de Madrid fue una reunión particular, yo estimo (de esto quería haber hablado con Vd.) que acaso, sería conveniente que en el acta de la última reunión celebrada ahí hace pocos días, se añadiera el acuerdo de trasladar las sesiones de nuestra Real Academia a Madrid, cerrando así el libro de actas de San Sebastián, para empezar ahora, en los jueves que quedan de junio, el nuevo libro de Madrid. Como los asistentes a esa reunión última de ahí fueron muy pocos, creo que no sería difícil que Vd. les consulte y si les parece bien figure ese acuerdo en el acta de ahí.¹²⁸

Diccionario ideológico de la lengua española prestazen ari zen J. Casaresek ere gutuna bidali zion Madrildik, pertsonalki eskerrak eman eta RAEren erabakiak azaltzeko.¹²⁹ Maiatzaren 31ko batzarra azkenean ez zen J. M. Pemánek adierazi bezala bilera pribatua izan; RAEren agiri liburuan jaso baitzen. Batzarraren zilegitasuna zalantzan zegoen, bertaratutako gehienek ez zutelako IdeE-ren zin ofiziala egin. Administrazio batzordea osatzeaz gain, Movimiento Nacional-ari atxikimendua adierazi zioten. Diruzainak EGZeko batzarren berri eman ondoren, hurrengo erabakia hartu zuten: «dar un voto de gracias a la Diputación de Guipúzcoa por la protección y atenciones que

¹²⁸ KMK-JU: J. M. Pemánen gutuna J. Urquijori, 1939-06-04.

¹²⁹ KMK-JU/RAE-JU: J. Casaresen gutuna J. Urquijori, 1939-06-05.

ha dispensado a la Academia durante su funcionamiento en San Sebastián». ¹³⁰ RAEren bibliotekak publikoari itxita jarraitzea erabaki zuten, lexikografia historikoaren lanekin erosoago jarraitu ahal izateko, eta ostegun arratsalderoko batzarrei eustea.

1939ko urrian, J. Urquijori batzar agiri guztiak bildu eta Madrilgo egoitzara bidaltzea eskatu zion RAEko idazkariak, dossier akademikoak bete eta agiri liburua osatzeko. ¹³¹ Agiriak eta RAErekin lotutako beste hainbat dokumentu Madrilera eramateko prozesua abendura arte luzatu zen, J. Urquijok osasun arazoengatik ez zuelako hara joan nahi, eta ez zutelako bitartekari egokia aurkitzen. ¹³² J. Casaresek 1940ko urtarrilaren 31n egindako inbentarioaren arabera, RAEren azken batzarra Donostian 1939ko maiatzaren 29an egin zen, nahiz eta ez dudan agiri horren kopia J. Urquijoren artxiboan aurkitu. ¹³³ Donostiako prentsaren arabera, batzar hori hurrengo egunean egin zen, baina ez zuten bestelako informaziorik eman (*La Voz de España* 1939-05-30; 1939-05-31). Dena dela, RAEk azkenean erabaki zuen EGZean Donostian egindako batzar arruntei ofizialtasuna ez ematea, batzar agirien liburuak salto egiten duelako 1936ko ekainaren 25eko batzarretik 1939ko maiatzaren 31ko batzarrera, tartean bestelako oharrik erantsi gabe. ¹³⁴

1939ko urrian euskaltzainburuak protesta egin behar izan zion José Rogerio Sánchez García institutu katedradun eskuindarrari, *Síntesis de historia de la literatura española* (1939) eskuliburuan *Euskal-Izkindea = Gramática eúskararen atariko hitzak*, R. M. Azkue alderdi integrista foruzaleko kide zenekoak, aipatzen zituelako eskarmentu gisa: «España guraso-izenaz guraso-ordea ta areriorik esker bagekoena biurtu iaku = España con título de madre se nos ha convertido en madrastra y enemiga la más ingrata» (Azkue 1891: V). J. R. Sánchezek agindu zion aipua kendu egingo zuela hurrengo edizioetan. ¹³⁵ Dena dela, bi euskaltzainak edozein susmo politikotik nahiko libre geratu ziren, RAE-IdeE-ko kide gisa. E. d'Ors idazkariak «voto de servicio y fidelidad hispánicos y católicos» eman izanaren ziurtagaria bidali zien Madrildik. ¹³⁶ IdeE-ko txartel ofizialak, adibidez, nortasun agirirako eta pasaporterako balioko zien. ¹³⁷

¹³⁰ RAE-XLVI: RAEren batzar agiriak, 1939-05-31.

¹³¹ KMK-JU/RAE-JU: J. Casaresen gutuna J. Urquijori, 1939-10-21.

¹³² KMK-JU/RAE-JU: J. Casares-J. Urquijo arteko gutunak, 1939-11-08/1939-12-28.

¹³³ KMK-JU/RAE-JU: J. Casaresen gutuna J. Urquijori, 1940-02-09.

¹³⁴ RAE-XLVI: RAEren batzar agiriak, 1936-06-25 & 1939-05-31.

¹³⁵ ABA-RMA: R. M. Azkue-J. R. Sánchezek arteko gutunak, 1939-10-09 & 1939-10-17.

¹³⁶ RAE-JU eta RAE-RMA: E. d'Orsen ofizioak J. Urquijo-R. M. Azkueri, 1940-02-07.

¹³⁷ KMK-JU: IdeE-ko idazkariaren gutuna J. Urquijori, 1942.

RAEren hurrengo batzarretan dekretuz ezarritako zina egin beharraz aritu ziren Madrilen, baina EGZa amaituta ez zen lehentasunezkoztat jotzen, nahiz eta ministerioaren aginduek horretaratu. Hiztegi historikoarekin jarraitzeko bibliografia eskuratzeaz edota gramatika lanez ere jardun zuten. Dena dela, EGZak eragindako salbuespen egoerari nola eman normaltasun itxura izan zen arazo nagusia. Uztailean, R. Menéndez Pidal erbestetik itzuli zen eta akademikoek frankismoari lotutako zuzendari baten egokitasuna jakinarazi zioten. 1925etik RAEren buru izandako filologo ospetsuak, nahigabetuta, bere burua baztertu egin zuen kargutik. 1939ko abenduaren 7an behin betiko zuzendaritza berria hautatu zuten: J. M. Pemán (buru), L. Eijo (zentsore), A. González de Amezúa (diruzain), R. León (kide laguntzaile) eta J. Casares (idazkari). Abenduaren 20an J. M. Pemánek arauzko sarrera hitzaldia egin zuen RAEren egoitzan, F. Franco diktadorea bertan zela (Zamora Vicente 1999: 463-464; García de la Concha 2014: 291-293).

1940ko otsailaren 1ean R. M. Azkue RAEren Madrilgo batzarrean egon zen, hurrengo kideekin batera: burua, liburuzaina, R. León, M. Asín, J. Alvarez Quintero, V. García de Diego, apezpikua, diruzaina, L. Fullana, A. Cotarelo, L. Riber, M. Artigas, Marqués de Lema, M. Machado, E. Marquina, idazkaria eta C. M. Ocantos laguntzailea. «Biblioteca de Autores Españoles» bildumako eskubideen dohaintzaren berri emateaz gain, EGZean hildako sei akademikoren hutsarteak aho batez bete zituzten ezpal politiko nabarmeneko hainbat kiderekin: R. Sánchez Mazas, Eugenio Montes, Duque de Alba, I. Gomá kardinala, A. González Palencia eta F. García Sanchiz. Azkenik, zenbait hitz zerrenda aztertu zituzten.¹³⁸

Hain zuzen, 1940ko ekainaren 5ean euskaltzainburuak J. Casaresi idatzi zion zenbait ekarpen egiteko RAEren lexikografiari. Ekarpinak ez ziren munta filologiko handikoak, baina R. M. Azkueren elkarlanerako prestutasunaren erakusgarri zen, Euskaltzaindia nola berpiztu ez zekienarenen adeitasunezko ahalegina. Gainera, E. Mola jeneralaren idazkari ohia hartu zuen erreferentzia bibliografiko gisa:

Llevado de mis aficiones folklóricas he leído estos días una obra curiosísima Retablo de Curiosidades, cuyo autor se llama José María Iribarren y es hijo de Tudela.

Cuando estuve ahí con motivo de la elección del Cardenal Gomá y otros seis señores, al final de la Junta me acerqué a la presidencia para citar dos vocablos navarros muy

¹³⁸ RAE-XLVI: RAEren batzar agiria, 1940-02-01.

curiosos —cuatrena y ochena— que no figuran en el Diccionario de la Academia.

Mi caro e ilustre amigo, el Sr. Obispo me indicó, la idea de enviar estas palabras (y otras de que tuviera noticias) a la Comisión encargada de tales asuntos. Y al cabo de uno o dos meses se las envié a Usted.

Ahora pong[o] en sus manos un centenar de vocablos extraídos de la antes citada obra.

Muchas otras palabras procedentes de la misma no figuran entre las que envío, por haber visto que constan ya en el Diccionario de nuestra Corporación. Hay sí varias como Mida, Alcorce, Gardacho y Sargantesa que llevan la indicación Ar. y podrían también llevar la de N, pues son tan navarras como aragonesas.

Tenga la Bondad de dar afectuosos recuerdos míos a los compañeros con quienes más he tratado y todos ténganme como afectísimo servidor y capellán.¹³⁹

Madrilgo idazkariak eskerrak eman eta zegokion batzordeari aurkeztu zion hitz zerrenda.¹⁴⁰ R. M. Azkuek aipatzen zuen akademiko erlijiosoa, Galizian jaiotako Leopoldo Eijo Garay (1878-1963) zen, oso ongi ezagutzen zuena Gasteizko apezpikua izan zelako 1917-1922 artean. Ondoren Madril-Alcaláko apezpikua zen izan zen eta RAEko kide 1927tik. Ondorioz, RAEren batzarretan sarriago parte hartu zuen.¹⁴¹ R. M. Azkuek sarrera ekitaldiko erantzuna apezpikuak ematea nahi izan zuen, eta honek euskaltzainburuaren aldeko botoa izan zuen RAEko hautagaiak aukeratzean.¹⁴² L. Eijok EBERi begirunea erakutsi arren, militar matxinoen alde egin zuen, bereziki Madrilen gertatu zen jazarpen erlijiosoaren eraginagatik. F. Francoren adiskide, Falange-ren kritiko eta Opus Dei-ren euskarri izan zen (Mata 2012). Ikusi dugunez, RAEren EGZeko batzarretan elkarrekin aritu ziren eta Madril okupatu ondoren postazko harremanarekin jarraitu zuten.¹⁴³ Uste izatekoa da R. M. Azkuek beso luzeko apezpikuaren babesa ziurtatu nahi izan zuela, baina euskaltzainen RAErekiko harremana hutsala izan zen handik aurrera. 1940ko abenduan J. Casares idazkariak jakinarazi zien R. M. Azkue-J. Urquijo izendatu zituztela RAEko ordezkari Donostiako Udalak antolatutako zarzuela-sainete lehiaketa baterako.¹⁴⁴

¹³⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Casaresi, 1940-06-05.

¹⁴⁰ RAE-RMA: J. Casaresen gutuna R. M. Azkueri, 1940-06-19.

¹⁴¹ 1936ko urtarrilean RAEko diruzainak aurkeztutako zerrendaren arabera, L. Eijok ordura arte 307 batzarretan parte hartu zuen (RAE-XLVI: RAEren batzar agiria, 1936-01-02).

¹⁴² ABA-RMA: R. M. Azkue-L. Eijo arteko gutunak, 1918-1935.

¹⁴³ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutunak L. Eijori, 1940-06-17 & 1940-07-03.

¹⁴⁴ RAE-RMA eta RAE-JU: J. Casaresen ofizioak R. M. Azkue-J. Urquijori, 1940-12-23. 1946an, RAEren hiztegi arruntaren edizio berrirako, J. Casaresek datu pertsonalak eskatu zizkionean, euskaltzainburuak ez zekien zehazki nortzuk osatzen zuten RAE: «Tendré gran satisfacción de conocer los nombres de nuestros compañeros de la Real Academia Española» (ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Casaresi, 1946-10-

BMG hastear zela, diktaturak ezaugarri falangistak areagotu egin zituen eta arazoak sortu ziren baita mundu akademiko ustez odolgabearen ere. P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionaleko ministeriotik kendu egin zuen F. Francok 1939ko apirilaren 28ko dekretuz, eta ministerioaren ardura behin-behinean Conde de Rodezno Justizia ministroari eman zion.¹⁴⁵ Arrazoiak es daude argi, baina badirudi Falange-R. Serrano ministroaren eraginak, abuztuko Gobernu berrian nabarmenduko zena, kargugabetzean zerikusi handia izan zuela.¹⁴⁶ P. Sainz Rodríguez monarkiko setati eta geldigaitza, pertsona deserosoa bilakatu zen. Madrilen berrezarpen monarkikoaren aldeko bilerak antolatzen aritu zen, besteak beste, J. M. Areilzarekin. Falange-ren zerbitzu sekretuetatik ihesi, 1942ko ekainean Portugalera erbesteratu zen, Juan de Borbón errege-nahiaren aholkulari gisa (Alted Vigil 1984: 38-39; Escribano Hernández 1998: 309-315).

Gainera, 1940ko uztailaren 23an, Hezkuntza Nazionaleko ministerioak J. M. Pemán kendu zuen RAEko zuzendaritzatik eta haren ordez F. Rodríguez Marín adindua jarri.¹⁴⁷ Badirudi hitzaldi batean falangismoari egindako kritika monarkikoak eragin zuela kargugabetzea. Diktaturak ez zuen desadostasun txikiena onartzen, ezta eskuindar aliatu nabarmenen aldetik ere. 1941eko ekainean Hezkuntza Nazionaleko ministerioak erbesteko sei akademiko errepublikazale RAEtik kanporatzea agindu zuen: I. Bolívar, N. Alcalá Zamora, T. Navarro, E. Diez-Canedo, S. Madariaga eta B. Cabrera. RAEk, ordea, ez zituen sei postu horiek bete akademikoak bizi izan ziren artean. F. Rodríguez Marín hil ondoren, berriz izendatu zuten J. M. Pemán RAEko buru 1944ko urrian, R. Menéndez Pidalek zuzendaritza 1947ko abenduan berreskuratu zuen arte (Zamora Vicente 1999: 463-467; García de la Concha 2014: 291-297).

Espainiako kultur aniztasunarekiko esperimenduak, Falange-ren nagusitasunarekin amaitu egin ziren. E. d'Ors estilista katalanak, adibidez, frankismoaren politikagintzan eragin eskasa izan zuen. Artearen, museoen eta nazioarteko propagandaren esparrura mugatu ziren haren emaitzak.¹⁴⁸ Falange-ren militar itxurako

07).

¹⁴⁵ «Decreto encargando interinamente del Ministerio de Educación Nacional al Excelentísimo Sr. Tomás Domínguez Arévalo, Ministro de Justicia». In: *BOE*, 1939-04-29. P. Barojaren ilobaren arabera, J. Urquijok Espainiako aginteko gorabeheren berri izan zuen Nafarroako ministro karlistaren bidez (Caro Baroja 1972b: 347).

¹⁴⁶ Beste arrazoi ugari aipatu dira: Eliza katolikoak ez zuela onetsi Espainia-Alemania arteko kultur hitzarmena edota F. Francok masoitzat jotzen zuela (Ucelay-Da Cal 2012: 169).

¹⁴⁷ «Orden por la que se dispone el cese de don José María Pemán en la Dirección de la Real Academia Española». In: *BOE*, 1940-07-24.

¹⁴⁸ Esaterako, Italia faxistako Biennale d'arte di Venezia-ko hispaniar artearen erakusketa (1938) edota

soinekoz jantzita, ia esperpentikoa zen haren irudi lodia. Mendeku antikatalanistaz, Aragoiko Koroaren Artxiboa saiatu omen zen Madrilera eramaten, baina geldiarazi egin zuten. Gerraondoko Estatu Berrian homogeneousazio espainolista ezarri nahi zen, kultur arloko salbuespen oso gutxirekin. Beldurrak eta salaketa giroak, errepublikanismoaren ezaugarri guztiak bortxaz jazartzeaz gain, hegoak moztu zizkien zenbait frankisten egitasmo kultural eleaniztunei ere (Ucelay-Da Cal 2012: 166-172).

Hezkuntza Nazionaleko ministerioaz jabetu zen ondorengoak, José Ibáñez Martínek, besteak beste, IdeE-ren izaera desagiteari ekin zion. 1939ko azaroan «Consejo Superior de Investigaciones Científicas» delakoa sortu zuen, IdeE ahalmenez gabetu eta neurri handi batean ordezkatzeko zuena. CSIC ikerketa zientifikorako erakunde ofizial bakarra izateko asmoarekin sortu zen. J. Ibáñez Martín CSICeko buru izan zen 1967 arte, baina benetako zuzendaria J. M. Albareda Opus Dei-ko kide nabarmena izan zen. Hezkuntza Nazionaleko ministerioak, 1941ko abenduan, IdeE-ren zuzendaritza berri zuten ortodoxia katolikoaren bidetik: L. Eijo apezpikua buru eta M. Asín-J. García Siñeriz buruorde izendatu zituen.¹⁴⁹ 1942ko otsailean egindako batzarrean, E. d'Orsek dimisioa aurkeztu zion zuzendaritza berriari, bere egitasmoa guztiz baliogabetuta zegoelako. A. Cotarelok ordezkatu zuen idazkaritzan (González González 2010: 10, 20-21).¹⁵⁰

R. M. Azkuek 1940ko maiatzean gutun bat jaso zuen Henry Heras (1888-1955) katalan jesuitarengandik, Bartzelonan Instituto Ibérico-Oriental izeneko erakundea sortzeko laguntza eske. Aspalditik Bombayn bizi zen H. Herasen ustez euskara, Mediterraneoko hizkuntza guztiak bezala, hizkuntza dravidarra zen, protoindikoa. Alemania naziak sanskritoarekin egindako ikerketen parekoa abiatu nahi zuen hizkuntza dravidarrekin, Italia faxistarekin konkurrentzian. Hizkuntza iberikoaren katedra bat sortzeko euskaltzainburuaren laguntza nahi zuen, Diputazioen 300.000 ptako diru laguntzak lortu eta katedradun egokia aurkitzeko. Euskaltzaindia berriz abiatzeko izugarritzko nekeak jasaten ari zen R. M. Azkuek gozakaitz erantzun zion. Espainiako Gobernuaren euskararen aurkako jarrera salatu zion, eta abertzaleen euskararekiko ardura

Gasteizko Exposición Internacional de Arte Sacro (1939) nabarmentzen dira (Alted Vigil 1984: 127-129).

¹⁴⁹ «Decreto por el que se procede a la renovación de la Mesa del Instituto de España». In: *BOE*, 1942-01-12.

¹⁵⁰ E. d'Ors-ek, adibidez, bonba atomikoaren aurkako Stockholm-eko manifestua sinatu zuen. Komunismoak bultzatutako manifestua zenez, eraso gogorrak jaso zituen (cf. *La Gaceta del Norte* 1950-09-23).

zintzoa aitortu.¹⁵¹ H. Heras, militar matxinoen alde egiteaz gain, 1939tik ari zen aipatutako institutua sortu nahian Martín Almagro-L. Pericot arkeologoaren laguntzarekin. 1940ko abuztuan Euskal Herrian izan zen, M. Almagro falangistarekin. Besteak beste, Bilbon biltzekoak ziren euskaltzainburuarekin, iberiar idazkun batzuk deszifratzeko asmoarekin. Dena dela, egitasmoak ez zuen jesuiten nahiz ministerioaren nahiz CSICen babesla lortu, eta porrot egin zuen 1941eko martxorako (Kintana Goiriena 2008: 372; García-Ventura & Vidal 2012).

4.11 Euskaltzainen ahaleginak euskal agintari frankistekin

EGZa amaituta, kultur erakundeak ez ezik, Gobernuaren eta ministerioen egoitzak Madrilera itzuli zirenean, Estatu Berriaren kulturgintzaren lehen lerroarekiko periferian geratu ziren R. M. Azkue-J. Urquijo. Hezkuntza Nazionaleko ministerioak, IdeE-k eta RAEk Gasteiz-Donostiatik alde egin zuten, euskaltzainek ALV berriz abiatzeko baimena lortu gabe, nahiz eta P. Sainz Rodríguez-J. M. Pemánekin urte eta erdiz harreman zuzenak izan. Horregatik, euskaltzainburuaren hurrengo ahaleginak tokiko aginte mailan burutu ziren. Garaiko agintariek zuten harreman onaren beste froga bat da J. F. Lequericak, artean Bilboko alkate zela, 1939ko otsailean bidalitako gonbidapena, Léon Bérard Frantziako ministro ohiarekin bazkari ofizialean parte hartzeko.¹⁵² Pirinio Behereetan jaiotako akademikoa, Burgosko Gobernura bidean zihoan, Kanpo Arazoetako ministroarekin Espainia frankistaren ezagutza eta bion arteko neutraltasuna negoziatzeko. Testuinguru horretan, Ph. Pétain marexala enbaxadore izendatuko zuten Espainian (Larronde 1997: 93-95).

Nolanahi den, R. M. Azkuek 1939ko apirilaren 4an gutun ezinago esanguratsua idatzi zion Bizkaiko CAPEko zuzendaritzari, diru laguntza eske:

Esta Academia de la Lengua Vasca que surgió a la vida por iniciativa de las Corporaciones populares de todo el País Vasco-Navarro y que ha vivido al amparo de todas sus instituciones con las que ha mantenido cordialísimas relaciones, se dirige con todo respeto a ese digno Consejo en estos primeros días del año de la Victoria para prepararse a actuar cuando las autoridades lo demanden, inspirando toda su labor dentro de los marcos característicos de esta era triunfal de nuestra querida Patria Única, España.

¹⁵¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna H. Heras-i, 1940-05-29.

¹⁵² ABA-RMA: Bilboko alkatearen gonbita R. M. Azkueri, 1939-02-02.

La Caja de Ahorros Vizcaína compartió, con las demás Corporaciones en sufragar los gastos de esta Academia.

Iniciada la revolución quedó enmudecida esta entidad y no se cerraron sus oficinas por no saber dónde depositar su copiosísima librería.

En reciprocidad a la subvención anual de mil pesetas que las cajas de ahorros le concedían, se prestaba esta Academia a los trabajos que tuvieran a bien encargar a la misma. En diversas ocasiones fue requerida para hacer algunas traducciones de vocablos y escritos que habían de ser dirigidos en forma bilingüe a zonas en las que la lengua corriente es el vascuence.

El Excmo. Ministro de Educación Nacional se expresó en términos que señalan esta nueva orientación en el elocuente y trascendental discurso que pronunció en esta villa con ocasión de la solemne apertura de curso del Instituto de 2ª Enseñanza y en conversaciones particulares que han sostenido con el que suscribe.

[Con] este motivo me animé a acercarme a las Cajas de ahorros de Bilbao y Sansebastián [sic] para que con su ayuda pudieran seguir abiertas estas oficinas.

Pasan de cuatro mil las pesetas anuales que al efecto se necesitan entre el alquiler del local (2.500), teléfono, limpieza, recadista taquígrafo, agua y luz.

Dos de los miembros de número de esta Academia, D. Julio de Urquijo y el firmante han colaborado, y actualmente lo hacen, con la Real Academia de la Lengua Española desde que aquel gran español que se llamó Miguel Primo de Rivera (Q.E.G.E.) dio prestancia a las lenguas regionales al incorporarlas a dicha Real Academia.

Por todo lo expuesto se suplica con todo respeto el restablecimiento de la subvención, con efectos retroactivos (año 1938 y 1939), ofreciéndose en reciprocidad a todo lo que requieran.¹⁵³

Bizkaiko CAPak apirilaren 21ean jakinarazi zion euskaltzainburuari 2.000 ptako diru laguntza ematea onartu zutela, hau da, mila pta 1938rako eta beste mila 1939rako.¹⁵⁴ Euskaltzainburuak maiatzaren 4an bidalitako beste gutun baten ondorioz, ekainaren 12an Gipuzkoako CAPak erantzun zuen, 1.000 ptako diru laguntza emango zutela, baina behin bakarrik eta etorkizunerako konpromisorik hartu gabe.¹⁵⁵ Gipuzkoako CAParen diru laguntza lortzeko, R. M. Azkuek Joaquín Churruca diputatu eskuindarrarengana jo zuen, Gipuzkoan EBEn aurkako estatu kolpea prestatu zutenetako (Luengo Teixidor 1990: 88). Euskaltzainburuak 1939ko uztailaren 3an gutuna idatzi zion, P. Sainz Rodríguezek

¹⁵³ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bizkaiko CAPeko zuzendaritzari, 1939-04-04.

¹⁵⁴ ABA-EUS: Bizkaiko CAPeko zuzendariaren gutuna R. M. Azkueri, 1939-04-21.

¹⁵⁵ ABA-EUS: Gipuzkoako CAPeko zuzendariaren gutuna R. M. Azkueri, 1939-06-12.

Bilbon emandako hitzaldiaren edukiari eusten ziona:

Tres veces (en mis cortas estancias ahí de fines de Marzo, Abril y Mayo) he intentado verme con usted. La primera con motivo de la herida que, según me dijo Julio Urquijo, recibió su ya difunto sobrino. La segunda y tercera para pedirle el favor de intervenir en que la Caja de ahorros provincial de su ciudad continuara dando las mil pesetas anuales (que daba a la Academia de la lengua vasca) a esta su oficina que con su intransladable librería debe seguir abierta para cuando nuevamente empiece a funcionar, incorporada al Instituto de España, según proyecto del que fue Ministro de Educación Nacional...

Las tres veces estuvo V. en junta con sus compañeros de Diputación. No recuerdo si la primera estaba V. ausente. Y no pude ir al Hotel Excelsior por tener que salir para Bilbao. Quedé sorprendido al recibir a mediados del mes pasado una comunicación de la citada Caja que ofrecía «un donativo de 1.000 pesetas por una sola vez y sin compromiso para años sucesivos».

Me extraña sobremanera que Guipuzcoa, que tan generosa fue con la interrumpida Academia, cierre su Caja de ahorros en este asunto, para el cual tiene Vizcaya abiertas sus dos cajas municipal y provincial.

Como me veo obligado en conciencia a seguir aquí trabajando, lo hago mañana y tarde sin más interrupción que los días de fiesta y la temporada de mes y medio que espero descansar en Lequeitio.

Si mis posibilidades económicas bastaran para sostener abierto este centro lingüístico, no molestaría a nadie para ello.

Así que espero me perdonen que a fin de año vuelva yo a molestar a V. y al Sr. Presidente de la Diputación con el mismo objeto.¹⁵⁶

1939ko otsailaren 14rako egina zuen ahalegin bat Donostiako Udalean eta GPDan «para asuntos de la Academia de que soy o fui presidente».¹⁵⁷ Hain zuzen, R. M. Azkuek Donostiara egin zuen bidaia bat, 1939ko urriaren 2an, Euskaltzaindiaren diruzaintzatik ordaindu zitzaion.¹⁵⁸ Han, besteak beste, I. Lasquibar Buen Pastor elizako erretore karlistaren etxean egon zen bazkaltzen, ikusiko dugunez GPDko jauregian batzarrak egin ahal izateko baimena lortzeko giltzarri izango zen laguna.¹⁵⁹

¹⁵⁶ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Churrucari, 1939-07-03.

¹⁵⁷ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. B. Kolbi, 1939-02-15.

¹⁵⁸ ABA-EUS: Euskaltzaindiko dieten eta osteren likidazioa, 1939.

¹⁵⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibarri, 1939-11-02. Altzako auzoan jaiotako Ignacio Lasquibar, argitu gabeko arrazoiengatik, frankistek Donostia okupatu ondoren atxilotu egin zuten 1936ko azaroan, baina kontrako agindu baten ondorioz askatu egin zuten. Haren anaia, José Antonio Lasquibar jesuita, ordea, Nikaraguako erbestean hil zen (Euzko Apaiz Talde 1981: 175).

Gutunen beste hartzaile bat Zacarías Vizcarra (1880-1963) Bizkaiko apaiz integrista izan zen, Acción Católica-ren buruzagietako bat. Z. Vizcarra ezaguna zen batez ere R. Maeztuk *Defensa de la hispanidad* (1934) mugarran egin zion bidegile aitortzagatik. Gutxiago aipatzen da R. M. Azkueri oharkabean igaro ez zitzaiona, hots, Z. Vizcarrak *Vasconia españolísima* (1939) diatriba antiseparatistan, euskal elebitasunaren abantailak aldarrikatu zituela:

He leído de cabo a rabo, en menos de dos días, su hermosa obra Vasconia españolísima, que seguramente tendrá gran influencia en el desarrollo de la política española. Mil enhorabuenas.

[...]

Y ahora otra cosa. Querría V. Empezar a trabajar para conseguir que el Estado autorice la reapertura de la Academia de la lengua vasca, en cuyas oficinas escribo estos renglones? Podría V. tener una entrevista con el ex-ministro D. Pedro Sainz Rodríguez, a quien tres o más veces le oí decir (una de ellas en el discurso que pronunció en el Paraninfo del Instituto de 2ª enseñanza, de Bilbao) que habría que dar vida al vascuence. Y dele afectuoso recuerdos míos.

Repitiéndole mi más cordial enhorabuena y con afectuosos Goraintzis para su hermano soy de Usted affmo cordialmente en el Señor.¹⁶⁰

Z. Vizcarrak, hain zuzen, euskaldunen espainiartasuna frogatzea xede zuen. Euskal nazional-katolizismoaren gailur den 1939ko liburuan, frankismoaren ildo politiko nagusitik aldendu zen, euskal elebitasun unibertatsala aldarrikatzeko.¹⁶¹ Euskaltzainburuak aginte mota guztietara jo zuen, ALV berriz abiatzeko halabeharrezko saioan. P. Sainz Rodríguez baztertua izatearen ondorioz, F. Francoren sostengua zutenenengana zuzendu zituen laguntza eskaerak. 1940ko martxoan, R. M. Azkuek 1939ko abuztutik Justizia ministro zen E. Bilbao «adiskide zahar eta preziatua»ri idatzi zion, finantziazio bila gerraondoko egoera larrian:

¹⁶⁰ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna Z. Vizcarrari, 1940-02-24.

¹⁶¹ «A todos los vascos les conviene saber el castellano. Los padres que, pudiendo enseñar el castellano a sus hijos, no procuran que lo aprendan, los dejan, de regla ordinaria, en estado de inferioridad para ganarse la vida y desenvolverse en la sociedad actual. Pero esto no quiere decir que se haya de abandonar el uso del vascuence. Todo lo contrario: el interés de España, lo mismo que el de Vasconia, pide que el vascuence se conserve, se perfeccione y se difunda por todo el territorio vasco. Todos los vascos debieran ser bilingües, usando simultáneamente el *castellano*, la lengua imperial de las veinte naciones de ambos mundos que integran la Hispanidad, y el *vascuence*, lengua de la prosapia indígena de España, lengua de la tradición y del corazón, lengua que conserva el eco prehistórico de la raíz más honda de España, lengua que perpetúa la fisonomía paterna de los hijos de España. La lengua vasca, si bien se considera, no es ningún peligro para el espíritu español; sino, al contrario, una razón más para no dejarse aventajar por nadie en españolismo» (Vizcarra y Arana 1939: 229).

Para cuando empiece de nuevo a funcionar la Academia de la lengua vasca (tarde ello más o menos) tiene que estar abierta esta oficina (Ribera 5, entresuelo) en que trabajo a diario mañana y tarde. Dónde, si no, podría yo depositar la enorme cantidad de libros que tiene su Biblioteca y la mía particular?

Quisiera, para eso, que la Caja de ahorros vizcayna diese, como el pasado año, también en el presente, la cantidad de mil pesetas y que otro tanto haga el Ayuntamiento de San Sebastián.

Antonio Paguaga, a quien me dirigí el mes de noviembre, por mediación de nuestro amigo Julián Elorza, accedió a ello; pero a mi solicitud de hace ya tres semanas o más no contesta. Otro tanto hace aquí José Luis Gaytán de Ayala respecto a la Caja de ahorros.

Una cartita de V. les movería seguramente a uno y otro a remediar las necesidades de esta Oficina.

Y esta duplicada cartita se la pido yo, como amigo, biotz biotzetik.¹⁶²

Justizia ministroak berehala erantzun zion: «Acabo de recibir su atenta carta de 13 de los corrientes y con mucho gusto hago las gestiones que me pide».¹⁶³ E. Bilbaok motz erantzun arren, konfiantza handiegirik eman gabe, ez zuen erreparorik jarri Euskaltzaindia berriz abiatzeko diru laguntzak bideratzeari. Euskal frankismoaren ideologo nagusiak, gobernu mailatik tazituki ALVren jarraipena onartzen zuen. Esteban Bilbao (1879-1970) euskaltzainburuaren ikasle izan zen Bilboko institutuan; aspaldiko harremana zuten. Hain zuzen, BPDko presidente gisa, badirudi bitartekaritza lana egin zuela diktadura primorrivistak EI-SEV (eta agian Euskaltzaindia bera) debekatu ez zezan. Tradizionalismoaren zuzendaritzatik EBEren aurkako ekintzetan parte hartu zuen. F. Francorekin goi kargu garrantzitsuak izan zituen, bereziki Justizia ministro (1939-1943) eta Gorteetako presidente (1943-1965). «Ley de Sucesión en la Jefatura del Estado»ren (1947) egilea izan zen eta lege horrek sortutako Consejo del Reino-ren burua. Karlista-falangistek bat egitearen aldezle erabatekoa, diktadorearen konfidantza osoko gizona izan zen (Estornés Zubizarreta 1990; Agirreazkuenaga et al. 2007; Kintana Goiriena 2008; Urrutia Badiola 2013b).¹⁶⁴

J. Urquijok ahalegin guzti horien berri izan behar zuen nahitaez eta agian berak

¹⁶² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna E. Bilbaori, 1940-03-13.

¹⁶³ ABA-RMA: E. Bilbaoren gutuna R. M. Azkueri, 1940-03-15.

¹⁶⁴ E. Bilbaoren artxibo pertsonala gaur egun Bilboko Sabino Arana Fundazioan dago, baina oraindik ezin da kontsultatu. Funttsaren katalogazioa amaitzen dutenean, uste izatekoa da informazio argigarria agertu daitekeela Euskaltzaindiaren historiaz.

ere egin zuen saioaren bat Euskaltzaindiaren auzia bideratzeko.¹⁶⁵ A. Irigaray EI-SEVeko idazkariorde ohiak ere hainbat aipamen egin zizkion Iruñetik arazoaz. 1940ko martxorako zer edo zer bazekien ALV edota *RIEV* berpizteko egiten ari ziren gestioez, J. Urquijori adierazi zionez:

Estuve hace algún tiempo con Piarres Garmendia y le recordamos, añorando la oportunidad de conseguir iniciar la labor de la Academia, como filial de la Española, ó la Revista, aunque para esto último le vi la última vez poco animado.¹⁶⁶

RAE-IdeE-ren itzalpean ALV abiatzea ez zegoen baztertuta, eta Iruñean gertutik jarraitu zuten gaia: «Aquí varios me preguntan con el mismo interés sobre proyectos de la Academia; es una pena que no se vea más horizonte».¹⁶⁷ Handik urtebetera, Euskaltzaindia gerraondoko lehen batzarra egitear zegoela bazekien Nafarroako urgazleak. Hura gertatu baino sei egun lehenago, xehetasunak eskatu zizkion J. Urquijori. Baina ez hori bakarrik. Abagune politikoa erabili nahi zuen 1920ko arau ortografikoak aldatzeko:

Le agradeceré me tenga al corriente de las posibles actividades en la Academia; el interés es natural tratándose de un correspondiente.

Pero, divagando un poco, es que además se me antoja una ocasión para iniciar una ortografía ecléctica que satisfaría a sus correligionarios y a no pocos de los demás y lectores en general.

Incluso, sus efectos como aproximación espiritual, no me parecen despreciables para el mismo Régimen.

No digo se haga un decreto de la Academia; al contrario, no imponer nuevas ortografías, ni empezar en discusiones; simplemente aprobar que se escriba de esa forma.¹⁶⁸

Bestetik, Donostian omen zegoen Enrique Zubiri (1867-1943) Iruñeko Escuela de Artes y Oficios-eko irakasle ohia proposatu zuen Nafarroako aulkiren bat betetzeko:

Hablando de vacantes de la Academia, se me ocurre recordarle a D. Enrique Zubiri, que ha escrito cuentos muy bien, con el seudónimo de «Manezaundi»; es desde el 1er día

¹⁶⁵ J. Urquijok ere Justizia ministroarengana jo zuen garai horretan, baina ez ALVz jarduteko, baizik eta atxilotutako Alberto Assa Turkiako brigadista aurkitzen saiatzeko (KMK-JU: E. Bilbaoren gutunak J. Urquijori, 1940-03-16 & 1940-03-29).

¹⁶⁶ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1940-03-26.

¹⁶⁷ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1940-04-03.

¹⁶⁸ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

afecto al Movimiento nacional; en ortografía es un poco rebelde pues sigue a la Baja Navarra; tiene un hermano en esa, y él creo q. también está ahí.¹⁶⁹

Amaitzeko, J. Urquijori idatzitako gutunean, EI-SEVek 1920an Bilbon antolatutako hitzaldietan R. Menéndez Pidak literatur euskararen auziaz esandakoak goraiatu zituen: «La opinión del antes citado, en esa conferencia, sobre la unificación literaria, es lo más racional que he leído en todo estos años que se discute».¹⁷⁰ Hitzaldia nabarmena izan zen, A. Campión-P. Broussainen 1920ko txostenak iradokitzen zuen ALVren jarrera proaktiboa, euskara estandarra eta neologismoak sortzearekiko, ukatzen zuelako.¹⁷¹ Hala ere, literatur euskararako R. Menéndez Pidak gipuzkerari aitortzen zion nagusitasunaren orde, A. Irigarayk beti nafar-lapurteraren alde egin zuen, eta bide horretatik zihoan, halaber, Nafarroako Luzaiden sortutako «Manezaundi»ren hautagaitza. Esanak esan, E. Zubiri, A. Irigaray bezala, abertzale ezaguna zen, Iruñeko euzko etxearen sortzaileetakoa eta *La Voz de Navarraren* lankidea (Chueca Intxusta 1999: 435). Medikua hura proposatzean, EBEko ahaleginei eusten zien berriz nolabait. E. Zubirik Frantziako dialektoan idazten zuen, «puritanismos modernos» gabe, «es decir, siguiendo la prudente norma de *Eskualduna*, de Bayona».¹⁷² *RIE*en «Piarrechen izialdura (Benabarreko eskuaraz)» idazlana argitaratu zuten, zeharka A. Irigaray-J. Urquijoren estandarerako joera ere erakusten zuena (Zubiri 1934).

¹⁶⁹ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

¹⁷⁰ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

¹⁷¹ «Fomentar con energía la producción de los dialectos es cosa que está perfectamente en las manos de una Academia. También a ella es fácil guiar el gusto y favorecer con preferencias al dialecto que muestre más iniciativas y más espíritu expansivo; éste será el que tenga más genio literario, y por tenerlo, podrá sacar de sí mismo y de la comunicación con los demás dialectos el máximo de recursos de que es capaz la lengua vasca, en su natural evolución, y no en las solitarias lucubraciones de sus gramáticos. La producción literaria será también la que espontáneamente engendre los neologismos necesarios, y esos vivirán y no los que elaboren los doctos. La producción del dialecto preponderante será la que, atrayéndose por su mérito la adhesión de todos, apoque la vida de los otros dialectos, sin ser verdugo que los ajusticie. Dejad que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza» (Menéndez Pidal 1921: 32-33).

¹⁷² KMK-JU: E. Zubiriren gutuna J. Urquijori, 1934-03-24.

5 EUSKALTZAINDIA 1941-1949: NAHI ETA EZIN

5.1 Bizkaiko Probintzia Diputazioaren «Junta de Cultura de Vizcaya»

«Junta de Cultura Vasca» BPDak sortu zuen 1917ko urrian, jeltzaleak probintzia hauteskundeetan nagusitu ondoren eta norabide euskaltzaleari eutsi zion 1920 arte. Hura sortzeko mozioa diputatu abertzaleek aurkeztua zuten ekainean, R. de la Sota presidentea buru zutela. Batzordearen helburua Euskal Herriaren berezko kultura antolatu eta garatzea zen hizkuntzaren, historiaren, zuzenbidearen edota arte ederren arloetan. BPDko Comisión de Fomento-k hurrengo talde ideologikoki anitza izendatu zuen Junta de Cultura Vasca osatzeko: J. Urquijo, J. C. Gortázar, B. Belausteguigoitia, E. Landeta, A. Ortueta, J. Mugartegui, F. de la Quadra Salcedo, A. Gortázar, M. M. Smith, O. Rochelt, G. Ybarra, E. Bustinza eta J. J. Sautu. 1918ko ekainean beste kide batzuk gehitu zitzaizkien.

Monarkiko espainolisten eragina BPDan handitzen joan ahala, ordea, Junta de Cultura Vasca-ren izaera aldatu egin zen. Diktadura primorriveristan norabide aldaketa areagotu egin zen. Euskal kultura sustatzeko batzordearen urteko aurrekontua, esaterako, 862.000 ptatik 272.425era jaitsi zen 1920-1930 artean. EBEn ere gutxienerako horren inguruan geratu zen. Junta de Cultura Vasca-ko euskararen atalari dagokionez, hurrengoek osatu zuten: R. M. Rotaeché-C. Elguezabal diputatuak, F. Belausteguigoitia, J. M. Arroita Jauregui eta A. Ortueta. Besteak beste, BPD-ALV arteko harremanaz arduratu ziren. 1920an R. M. Azkue euskaltzainburua bera Junta de Cultura Vasca-ko aholkulari izendatu zuten, baina esandako bilakaera politikoaren ondorioz, BPDak Euskaltzaindiari eman zion urteko diru laguntza 30.000 ptatik 5.000 ptara behetu zen 1920-1930 artean. Junta de Cultura Vasca-k, ALVren bitartez, euskarazko aldizkari eta argitalpenak sustatzeko ematen zuen 10.000 ptako saria ere bertan behera geratu zen 1922an (Arrien 1989b; Kintana Goiriena 2008).

LMGko loraldi autonomistan, EI-SEV eta Euskaltzaindia sortu aurreko hilabeteetan, hitzaldi sorta mugarría antolatu zuen Junta de Cultura Vasca-k. Bilboko Sociedad Filarmónica-ren egoitzan 1918ko urtarril-martxoan, ideologia ezberdinetako hainbat adituk hitzaldiak eman zituzten gero Junta de Cultura Vasca-k argitaratuko zituenak: A. Apraizen *Universidad vasca*, C. Echegarayren *La tradición artística del Pueblo Vasco*, M. Arriandiagaren *El verbo vasco familiar y dialogado*, L. Eleizalderen *La*

lucha por el idioma propio, R. M. Azkueren *La música popular vasca*, A. Campiónen *Apuntes para la historia del Pueblo Vasco* edota T. Aranzadiren *Tipo y raza en los vascos*. Hain zuzen, euskaltzainburu izango zenaren hitzaldia, musikari eskaini arren, bere burua sabindar ortodoxoen erasoetatik defendatzeko erabili zuen. Izan ere, hitzaldiaren egun berean agertu zen E. Bustinzak zuzentzen zuen *Euzkadi* egunkariko euskal atalean, C. Jemeinen artikulu bat R. M. Azkue bezalako euskaltzale ez abertzaleen aurka: «Zetako gura dozu ba Euzkerea, zeure aberrija España bada?» (apud Kintana Goiriena 2008: 73).

Gerraondoan, aldiz, BPD frankistan plutokrata monarkiko erradikalizatuak berriz ere nagusi ziren, presidente zen J. L. Goyoagatik hasita. José Luis Goyoaga (1883-1968) industrialari eta politikari ezaguna zen, Liga de Acción Monárquica antiabertzalearen buruzagietako bat izan zelako. Gainera, Bilboko abokatu ospetsuenetakoa zen. EJ-GEk preso izan zuen eta 1939ko apirilean izendatu zuten BPDko presidente, L. Llaguno karlistaren ordeiz. Gerraondoko egoera ekonomiko larriak, kontzertu ekonomikoaren ezabatzeak eta administrazioaren depurazio politikoak asko murriztu zuten BPDaren ahalmena (Agirreazkuenaga et al. 2007: 1297-1304; Alonso Olea 2014: 529-531). Hala ere, BPD frankistak kulturaren arloan zenbait ekimen sustatu zituen. 1940ko apirilaren 11n «Junta de Cultura de Vizcaya» delakoa sortu zuen, José Luis Gaytán de Ayala diputatuaren ekimenez.¹⁷³ Mozioaren atarikoak, BPDan jeltzaleak nagusi ziren garaian sortutako Junta de Cultura Vasca izen beretik politikoki depuratu eta ordezkatzeko nahia adierazi zuen:

El Movimiento Nacional acaudillado por el invicto Caudillo Franco, cristalizado en la Gloriosa Cruzada Española, cuyo recuerdo ha de quedar perenne en todos los corazones que sienten la Patria, lleva consigo una transformación política y social en el Estado, creando en torno a su constitución interna modalidades hasta ahora desconocidas que sirven de directrices a la vida cultural de la España renaciente.

En esta obra de reconstrucción patriótica, que abarca elementos tan complejos, es necesario coadyuvar todos los organismos que integran la actividad pública, sea cual fuere el cometido que desempeñen dentro de la vida nacional.

La Diputación de Vizcaya que por tradición nunca interrumpida vino preocupándose de

¹⁷³ J. L. Gaytán de Ayala izan zen, adibidez, Florencio Amador Gernikako Batzar Etxeko artxibozainaren *Ensayo bibliográfico de las obras y folletos publicados con motivo del movimiento nacional* (1940) liburuari hitzaurrea jarri ziona.

cuantos problemas afectaron a la vida provincial, hoy más que nunca está obligada a atender las nuevas orientaciones culturales surgidas con el Movimiento Salvador, encauzando en este orden las actividades científicas y literarias de los vizcaínos que poseídos de este espíritu renovador, se sientan con entusiasmo para colaborar en la difícil tarea que en los momentos actuales se emprende.

Para nadie son desconocidas las actividades culturales, que mediante las Instituciones y Juntas patronales, llevó a efecto la Diputación de Vizcaya, sobresaliendo en ellas un espíritu de recta administración, que constituye ejemplo digno de imitación para todos los españoles.

En su aspecto político, sin embargo, hemos de confesar con tristeza, que no siempre respondió a un sentido altamente patriótico el trabajo realizado por sus componentes.

Ello no es razón para sus supresión como organismos públicos, antes al contrario, para que de ellos se extraiga y recoja lo bueno lo bueno [sic] que tuvieran y previa una rigurosa depuración, se modifiquen y encaucen por sanos derroteros las actuaciones de los que hayan de sustituirles.

A recoger, pues, todo el elemento cultural de Vizcaya, a encauzarlo dentro de las directrices del nuevo Estado, a obtener el máximo rendimiento del estudio constante de los problemas nacientes y con particular preferencia de cuantos afecten a la vida económica, histórica, científica y literaria de nuestra provincia, ha de tender la creación de la Junta de Cultura de Vizcaya, cuyo cometido esencial ha de ser velar por la conservación, aumento y difusión de la cultura en todos sus aspectos y cuya sede ha de establecerse de momento en la Biblioteca provincial.

Para el mejor desenvolvimiento en el ejercicio de sus funciones, además de las representaciones oficiales designadas por la Excma. Diputación de Vizcaya entrarán a formar parte de la referida Junta el Sr. Alcalde de Bilbao y treinta vecinos designados por la Diputación, quedando facultada para dotarse de un Reglamento que rija su vida interna.¹⁷⁴

JCV talde handi batek osatu zuen, ohorezko izendapenak zituzten E. Bilbao-J. F. Lequerica-A. Iturmendi-F. Castiella politikari frankista ezagunek barne. Hala ere, erabakiak betearazteko batzorde iraunkorra hurrengo herritar eta diputatuek osatu zuten hasieran: J. M. Areilza, J. L. Gaytán de Ayala, Jaime Jáuregui, Francisco Ygartua, Javier Olazábal, J. B. Marco Gardoqui, Joaquín Zuazagoitia, J. B. Merino, F. Echegaray, J. Irigoyen, J. Zayas Lafarga, J. M. Urrutia Llano eta L. Hurtado de Saracho. CSICen

¹⁷⁴ BFAH-EC: «Moción del diputado D. José Luis Gaytán de Ayala proponiendo la Creación de la Junta de Cultura de Vizcaya», [1940ko apirila], Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

probintziako ordezkaria izan zen JCV 1944tik aurrera. Dena dela, JCV osatu zutenen artean, beste kide bat nabarmendu behar dugu, Euskaltzaindiarekin zuen harremanagatik: G. Maidagan. J. L. Goyoaga presidenteari maiatzaren 3an zuzendutako gutunean onartu zuen izendapena:

Honrado inmerecidamente con el nombramiento de vocal para la Junta de Cultura, creada, con acierto, por esa Excma. Diputación de su muy digna presidencia, me es grato ponerme a sus órdenes para aportar mi insignificante cooperación a tan altos fines que trata de crear o encauzar.

Al mismo tiempo hago constar mi sincero agradecimiento por tan alto honor.

Dios salve a España y guarde a V. E. muchos años.¹⁷⁵

Gregorio Maidagan Múgica (1891-1961) Gipuzkoako Aretxabaletan jaio zen. Apaiztu ondoren, R. M. Azkuek Bilbora deitu zuen 1916an idazkari pribatu gisa. 1919an Euskaltzaindia eratu zenean, besteak beste, R. M. Azkue euskaltzainburu eta G. Maidagan ALVren idazkariorde izendatu zituzten. ALVren eguneroko administrazioaren ardura isila eramateaz gain, euskaltzainburuaren eskuineko eskua eta ia familiakoa izan zen hura hil arte.¹⁷⁶ JCVko kide izendatu zutenean, Bilboko Santiago-ren basilikan ari zen lanean. R. M. Azkueren itzalean bizi zen elizgizon ezezaguna zen. Haren izendapena euskaltzainburuaren ordezkotza besterik ez zen, nire ustez. R. M. Azkuek tokiko agintari frankistekin eta bereziki J. M. Areilzarekin hitz egin ondoren, uko egin ziokeen izendapenari, RAEn eta berehala Euskaltzaindian izango zituen arduren aitzakian, eta bere idazkari pribatua eskaini zuen «testaferro» gisa.

Faxismora lerratutako beste monarkiko batek, J. M. Areilza proteikoak, esku hartu zuen Euskaltzaindiaren inguruko erabaki horretan.¹⁷⁷ J. M. Areilzarekiko tratuak

¹⁷⁵BFAH-EC: G. Maidaganen gutuna BPDko presidenteari, 1940-05-03, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

¹⁷⁶1920ko hamarkadan Euskaltzaindiak antolatutako galdeketa (*Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario*) parte hartu zuen. R. M. Azkueri, halaber, *EY-LPPV* (1935-1947) folklore bildumako euskal testuak gaztelaniara itzultzen lagundu zion. M. Fenollera Valentziako apaizak Bilbon sortutako Colegio El Ave María-ko mojen eta Jesusen Mirabeen kapilau izan zen (Maidagan 1957; ALV 1961a; Aguirregabiria 1978).

¹⁷⁷F. Krutwigen arabera, J. M. Areilza-R. M. Azkueren arteko harremanak Euskaltzaindiarekiko 1939an hasi ziren (Iztueta & Iztueta 2006: 875) Oso deigarri da F. Krutwigek JCVko kideez hitz egitean J. M. Areilzaz egin zuen epai barkabera: «Erregimenaren gizonak ziren batzuk zein besteak, faxistak eta oso eskuindarrak. Hala ere, ez nuke errango Areilza izpirituz faxista zenik» (Murua Uria 1997: 68). F. Krutwigen ustez, J. M. Areilzak ez zuen komisariorik ALVn sartu nahi, agian barnealdeko euskaltzainen ideologiaz zalantzarik ez zuelako.

ahozkoak izan zirenez, ez dute utzi testigantza idatzirik.¹⁷⁸ José M^a Areilza (1909-1998) Bizkaiko Portugaleten jaio zen. Renovación Española-ko eskuindar monarkikoen Bizkaiko buru gisa, EBEn aurkako konspirazioetan parte hartu zuen. Falange-JONS alderdiak bateratzen lagundu zuen. 1936ko estatu kolpe saioan, E. Mola jeneralaren artekaria izan zen Bilbon. EGZe, Bilbotik ihes egin eta FET-JONS alderdi bateratuaren sortzean parte hartu zuen. Matxinoek Bilbo okupatu ondorengo lehen alkate izendatu zuten. P. Sainz Rodríguez en garaian Hezkuntza Nazionalerako ministerioan ardurak izateko aukera izan arren, Bilbon zegoen Industria ministerioa hautatu zuen. Memoretan Euskaltzaindiaren gaia zeharo baztertu zuen eta ez dugu haren ikuspeirik (cf. Areilza 1974; 1992).¹⁷⁹

Nolanahi den, J. L. Gaytán de Ayala diputatua buru zuen Cultura e Instrucción-eko batzorde txostengileak JCVren araudia aurkeztu zion BPDko presidenteari 1940ko maiatzaren 15ean. Atariko azalpenak euskaltasunaren kultur depurazioan indar gehiago egiten zuten:

Es propósito de la Junta de Cultura de Vizcaya recoger y difundir todas las actividades científicas, históricas, literarias y artísticas en nuestra Provincia.

En tiempos anteriores, existió creada por la Excm. Diputación, una Junta «de Cultura Vasca» disuelta a raíz de la liberación de la capital vizcaína por el Ejército Nacional.

La Junta de Cultura creada en el momento actual por la Diputación, se denominará «Junta de Cultura Vizcaya» en oposición a la de «Cultura Vasca» anterior, porque no acepta ni siquiera en hipótesis, la existencia de una cultura vasca, procedente de un hecho diferencial y menos aún en abierta oposición con la cultura nacional, sino que por el contrario, parte del principio incontrovertible de reflejar en los momentos culturales vizcaínos y vascongados el espíritu de la cultura española, de signo universal y ecuménico, afirmando la necesidad de exaltar los valores espirituales de esta tierra, enlazados siempre con el pasado glorioso español, como una muestra viviente del

¹⁷⁸ Bestalde, J. Urquijori garaian Getxotik, Madrildik edota Buenos Aiestik idatzi zizkion gutun urrietan, halaber, ez zuen inoiz ALV aipatu, nahiz eta kultur arazoez jardun (KMK-JU: J. M. Areilzaren gutunak J. Urquijori, 1940-01-17, 1947-02-02 & 1948-11-23).

¹⁷⁹ 1937-1941 artean, diktaduraren erakunde garrantzitsuetako kide izan zen: Consejo Nacional de FET-JONS, Jefe del Servicio Nacional de Enseñanza Profesional y Técnica, Jefe del Servicio Nacional de Industria, Junta Política de FET-JONS, Comisión Permanente del Consejo Nacional de Economía edota Consejo de la Hispanidad Dena dela, J. M. Areilza Bilboaldetik urruti ibiliko zen eta haren eragina ez zen iraunkorra izan Euskaltzaindiaren gorabeheretan. Esaterako, 1944-1947 artean Madrilgo Unibertsitateko Zientzia Ekonomiko eta Politikoen Fakultatean eskolak eman zituen. BMGk eragindako porroten ondorioz, Falange-tik aldeni eta Juan de Borbón-en ingurura hurbildu zen. Seguru asko horregatik, Espainiako botere lehiatik aldentzearen, Argentinako enbaxadore izendatu zuten 1947an (Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 110-118).

brillante renacimiento cultural del nuevo Estado, producto del esfuerzo y de la sangre de una juventud valerosa y ardiente dirigida por la victoriosa espada del Invicto Caudillo.¹⁸⁰

JCVren egitekoa, beraz, Bizkaiko kultura jaso, landu eta zabaltzea zen, baina soilik espainolismoaren isla zen neurrian. Horretarako, erakunde koordinatzailetzat jotzen zuen bere burua:

La misión fundamental de la Junta de Cultura de Vizcaya es la de coordinar las diversas actividades culturales, logrando la máxima compenetración y armonía entre las Juntas de Patronato e Instituciones culturales de Vizcaya, a las que sugerirá iniciativas en los ramos de su cometido propio, fomentará sus actividades y procurará la mayor conexión de las mismas en una obra cultural conjunta, sin intromisión en las funciones de régimen interno de las Juntas de Patronato que las rijan.¹⁸¹

Dena dela, araudi handinahiak ezartzen zuen JCVren egitura konplexua ez zen guztiz beteko. 30 herritarrez eta 6 diputatuz osatutako JCVren osoko batzarra ez zen hilero bilduko. 12 inguru kidez osatutako batzorde iraunkorrak zeraman pisu guztia. Nominalki JCVren burua BPDko presidentea zen eta buruordea Bilboko alkatea, baina hasierako uretan Bilboko Udalak ez zuen parte hartuko. Araudiak ezarritako JCVren hiru batzordeak (historiko-literarioa, artistikoa eta ikerketa sozioekonomikoena) ere ez zuten bizitarik izango. Nolanahi den, zeregin nagusia Estatu Berriaren «gurutzada» egitasmoekin Bizkaitik bat egitea zen. Horretarako batez ere ikastaroak, hitzaldiak, lehiaketak, argitalpenak edota ikerketak sustatuko ziren.

5.2 «Junta de Cultura de Vizcaya»ren inposizioa

Euskaltzaindiari

Euskaltzaindiarekiko erabaki ofiziala, JCVk 1941eko otsailaren 10ean hartu zuen. Francisco Ygartua idazkariaren bidez, 1941eko otsailaren 21ean eman zioten baimen ofiziala eta diru laguntzaren bermea euskaltzainburuari, ALV berriz abiatzeko:

La Junta de Cultura de Vizcaya, en reunión celebrada el día 10 de los corrientes, manifestó

¹⁸⁰ BFAH-EC: «Bases de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1940-05-15, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

¹⁸¹ BFAH-EC: «Bases de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1940-05-15, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

su deseo unánime de que el estudio y mantenimiento del Vascuence continúe con toda intensidad, y para llevar a cabo esa idea, ha estimado de gran interés que dentro de estas iniciativas quede integrada la Organización de esa Academia de Lengua Vasca, con la que quiere mantener una estrecha relación y espera conseguirlo.

Para poner en práctica con rapidez los deseos de la Junta se han tomado varios acuerdos que me honro transmitir a Vd. y son los siguientes:

1º. Designar para formar parte de esa Academia al miembro de esta Junta D. Juan Irigoyen.

2º. Que a partir del 1º. de este año se subvencione a esa Academia con Cinco Mil Pesetas (5.000) al año pagaderas por trimestres naturales.

3º. Significar a la Academia que estima conveniente la continuación de los trabajos que tiene emprendidos, tales como la publicación de su Revista, la preparación del Diccionario Castellano Vasco, y las demás publicaciones que sean de interés para el Vascuence y cuando se vayan a editar, estudiará las subvenciones que proceda.

4º. Que esa Academia se sirva dar cuenta de su nueva constitución y de los trabajos que vaya emprendiendo (apud Torrealdai & Murua Uria 2009: 54).¹⁸²

Estatu frankistaren egitura hierarkikoan, Euskaltzaindiari JCVk emandako bermeak nahitaez zuen eduki politikoa. Hezkuntza Nazionaleko ministroa jadanik J. Ibáñez Martín zen, CSIC sortu eta goi mailako hezkuntza Opus Dei-ko kideen eskuetan utzi zuena. «Orban» jeltzalez depuratutako ALV beste tresna bat gehiago izan zitekeen, Euskal Herria espainolismoaren bidetik zuzentzeko. Baina aldi berean, Bizkaiko egitura frankista berrian agintzen zuen elite monarkikoak nolabaiteko autonomia fiskala aldarrikatzen zuen Gobernu zentralarekiko, hots, kontzertu ekonomikoaren berrezarpena. Historikoki oso emankorra zen euskararen apologia eta nolabaiteko autonomia politikoa uztartzen zituen ideologia foruzalea. Are gerraondo frankistan, euskara ezaugarri simbolikoa izan zitekeen Bizkaiko zenbait agintariren diskurtsoan, kontzertu ekonomikoaren berreskurapena historikoki legitimatzeko (cf. Madariaga Orbea 2006).

Dena dela, JCVren otsailaren 21eko ofizioa, idatzizko jakinarazpen ofiziala zen. Euskaltzainburuak 1941eko otsailaren 6rako adostuta zuituen JCVren ordezkariarekin ahozko berme guztiak. Donostiako J. Urquijori, pozez beterik idatzi zizkion prozesuaren xehetasunak egun horretan:

Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han

¹⁸² ABA-EUS: JCVren ofizioa Euskaltzaindiari, 1941-02-21.

estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura de esta Diputación: los señores Areilza, Merino Urrutia e Ygartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales; No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura de esa Diputación? Ahora voy a exponerte (a Inzagaray podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que se me ocurre.

- 1.º Reunirnos cada dos meses, un mes aquí y otro ahí, exceptuando los de verano.
 - 2.º Elegir como sucesor de Campión al P. Iraizoz, residente en Lecaroz; y a Nazario Oleaga, residente en Bilbao, como sucesor de Eguzkiza.
 - 3.º Elegir como sustituto de Altube a Zamarripa de Bermeo.
 - 4.º ¿Quiénes podrían ser nombrados como sustitutos de Olabide, Intza y Echegaray?
 - 5.º Dedicarnos a terminar el Diccionario en preparación y a publicar nuestra Revista
- A los señores de que antes hablo les pregunté si podrían como antes formar parte en nuestras reuniones los tres académicos vasco franceses. Y me dijeron que por lo menos por ahora no (apud Arana Martija 1990: 23).¹⁸³

Beraz, JCVko batzorde iraunkorreko hiru kide (J. M. Areilza-F. Ygartua-J. B. Merino) Euskaltzaindiaren Ribera kaleko egoitzan egon ziren 1941eko hasieran, R. M. Azkueri ALV berriz abiatzeko baimen-baldintzak jakinarazteko. J. M. Areilza zen batzorde iraunkorreko burua eta kargu frankista nagusia, J. B. Merino JCVko diruzaina zen, eta F. Ygartua idazkaria. Diruzainak hirugarren bisita bat egin zion, diru laguntzaren kopuru zehatza jakinarazteko.¹⁸⁴

1920ko araudiaren arabera, Euskaltzaindia EI-SEVEN filiala zen, baina erakunde hori EGZe an desagertu zen. 1941eko ofizioaren arabera, bazirudien ALV JCVren filial antzekoa bilakatu zela, baina Euskaltzaindiaren nortasun juridikoak argitu gabe jarraituko zuen diktadura osoan. Agintari frankisten erabakietan gertatu ohi zenez, baldintza politiko gogorrenak ahoz baino ez zizkioten jakinarazi euskaltzainburuari. JCVren otsaileko ofizioak idatziz aipatzen zuen baldintza politiko bakarra hurrengoa zen: Juan Irigoyen

¹⁸³KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1941-02-06.

¹⁸⁴Juan Bautista Merino Urrutia (1886-1982) Logroñoko probintzian jaio zen. EBEn Getxoko zinegotzi monarkikoa izan zen, J. A. Aguirre jeltzalea alkate zela. Kultur arloan, jaioterriko euskal onomastika izan zuen ikergai nagusia. Euskaltzaindiaren 1935eko martxoko batzarrean bere toponimia lan bat aurkeztu zen. JCVko kide izateaz gain, Logroñoko Probintzia Diputazioaren monumentuen batzordean eta RSVAPen aritu zen (Arana Martija 1982; ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiri ez onartua, 1935-03-07/08).

nahitaez euskaltzain izendatzea.¹⁸⁵ JCVren arautegiak ezartzen zuen Bizkaiko kultur erakundeen kontrolerako, Euskaltzaindian komisario politiko bat izendatu zen, alegia. Bi aste igarota, JCVren ofizioa idatzi zen egun berean, euskaltzainburuak Bilboko CAMaren zuzendaritzara jo zuen diru eske. Gutunean, JCVk Euskaltzaindiari ahoz ezarri zizkion baldintzen berri gordina eman zuen. Frantziako eta erbesteko euskaltzainak ordeztu egin behar ziren kide espainolistekin. Hau dateke ALVren menpekotasun politikoa argien adierazten duen idatzia:

Por iniciativa de la Junta de Cultura de Vizcaya y muy particularmente por la de su dignísimo Presidente, ilustre miembro del Consejo Político Nacional, D. José María de Areilza, se trata de que surja nuevamente a la vida pública esta Academia de la Lengua Vasca.

Compenetrada esta Academia con el espíritu que informa a la Junta de Cultura con cuyos miembros está en íntima relación ha merecido su entusiasta aprobación respecto a su nueva orientación.

En la nueva etapa de actuación se prescindirá en absoluto de los miembros que representaban a la región vasco-francesa y también de los que con ocasión de nuestra Santa Cruzada huyeron de nuestra Patria. Los nuevos miembros que sustituyan a unos y otros, al igual que aquellos que han de ocupar las vacantes producidas por fallecimientos, serán de la región vasco-española y de raigambre española.¹⁸⁶

Bestalde, diktaturaren hizkuntz politikaren aurkako salaketak, indargabetu nahi ziren operazio kosmetiko batekin. Euskaltzaindiaren jarduera baimentzen zuen erregimenak herri hizkuntzen babesle gisa aurkeztu nahi zuen bere burua, maila publikoan eta ofizialean bestelako erabakirik hartu behar gabe. ALVren berpiztea baimentzeaz den bezainbatean, argi dago J. M. Areilza, JCVren batzorde iraunkorreko burua izan zela sustatzaile nagusia. R. M. Azkuek 1941eko otsailaren 23an J. Elorzari idatzitako gutunak ere hori nabarmendu zuen:

Aprovecho esta ocasión para darle la grata noticia de que pronto empezará a funcionar esta corporación académica por iniciativa de un Consejero Nacional, José María Areilza, que es también presidente de la Junta de Cultura de esta Diputación.

Para la plaza que dejó vacante Campión espero diri[g]irme hoy mismo (de acuerdo con mis dos colegas Urquijo e Inzagaray) a nuestro amigo D. Juan Carlos el mondragonés.¹⁸⁷

¹⁸⁵ F. Krutwigen 1951ko hitzetan: «Asimismo le nombraron un mie[m]bro *responsable*» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 460).

¹⁸⁶ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bilboko CAMeko zuzendaritzari, 1941-02-21.

¹⁸⁷ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Elorzari, 1941-02-23. Julián Elorza (1879-1964) GPDko

Nabari da R. M. Azkueren asmo nagusia ALV kosta ahala kosta berriz abiatzea zela, horretarako diktaduraren baldintza politikoak onartu zituen arren. Joko arriskutsu horretan, hartzailearen arabeko mezuak prestatu zituen. Agintari frankisten aurrean, lotsa barik onetsi zuen espainolismo harroa. Euskaltzainei zuzentzean, ordea, ALVren jarduna ahal zen neurrian normalizatzeari arduratu zen nagusiki, norabide politikoak alde batera utzita. R. M. Azkuek J. Urquijori idatzitako gaztelaniazko gutunean bereizi egin zituen euskaltzain hilen ondokoak («sucesor») eta erbesteratuko euskaltzainen ordezkioak («sustituto») (Arana Martija 1990: 23). Lehenengoak korporazioaren zaharberritze naturalaren ondorio ziren, baina bigarrenak diktadurak ezarritako salbuespen egoeragatik sartuko ziren Euskaltzaindian. Horrek ziurgabetasuna, zalantzak eta susmoak eragingo zituen ALVren osakeraz den bezainbatean. Gutunean agertzen denez, A. Campiónen hutsunea P. de Iraizozek (OFMCap) bete zezala nahi zuen R. M. Azkuek.¹⁸⁸ Euskaltzainburuak, Lekarozko Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo-ko irakasleari idatzi zion, egoera zehatzaren berri emateko 1941ko apirilaren 14an:

Tengo mucho gusto en participarle la agradable noticia de que esta Academia empieza ya a revivir por iniciativa de la Junta de Cultura de esta nuestra Diputación.

Como no quedamos aquí mas que tres miembros de ella (dos, residentes en San Sebastián, Urquijo e Inzagaray, y este servidor) fui allá hace algunos días con objeto de preparar la reconstitución de esta nuestra Corporación.

Por ahora, según indicación de la Junta de Cultura, no figuraran entre nosotros los vasco-franceses; y los nueve, que a esta nuestra región corresponden, serán en adelante, además de los tres citados, D. Juan Carlos de Guerra, D. Nazario Oleaga, D. Juan Irigoyen, usted, y Pablo Zamarripa y otro que todavía no está elegido.

Si, como es de suponer, acepta V. este nombramiento, hagámelo saber prontito (apud Ondarra 1997: 74).¹⁸⁹

R. M. Azkueren ausardia, ordea, zeharo arduragabetzat jo zezakeen errepresio frankistaren jomugan egondako edozein pertsonak nahiz kolektibok. Nafarroako

presidente eta EI-SEVeko buru gisa, oso gertutik jarraitu zuen Euskaltzaindiaren sorrera. Ideologiaz karlista izan arren, J. F. Lequericak «el más peligroso de los vascongados actuales» deitu zuen 1923an Hain zuzen, EBEn autonomia estatuaren eragile garrantzitsua izan zen. 1937an atxilotu egin zuten, Falange-rekin bateratzea onartu ez zuten beste buruzagi karlista batzuk bezala. Gerraostean, isildutako ahotsa izan zen. (Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Aizpuru 2012: 60; Martorell 2010: 174-175; Chacón Delgado 2015).

¹⁸⁸ Policarpo de Iraizoz (1897-1980) kaputxinoa urgazle zen 1930etik. Euskaltzaindiaren diru laguntzarekin, 1920ko hamarkadan filologia erromanikoa ikasten aritu zen Zuricheko Unibertsitatean eta ondoren ALVren lankide izan zen (Ondarra 1997).

¹⁸⁹ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna P. de Iraizoz, 1941-04-14.

ikastetxea euskaltzaletasunaren gune ospetsua bilakatu zen XX. mendean eta kaputxino ugari urgazle izendatuta saritu zituen Euskaltzaindiak. Baina abertzaletasunak tirabira gogorrak eragin zituen kaputxinoen probintzian, eta EGZak politikoki susmopean utzi zituen horietako asko (Echeverría 2007). P. de Iraizozek zuhurtzia handiz ezezkoarekin erantzun zion Bilbora apirilaren 19an:

Su carta del 14 me ha sorprendido con la grata noticia de que la Academia de la Lengua Vasca, que usted preside, comienza a revivir y va a reanudar sus actividades, interrumpidas estos últimos años. Conociendo mi grande amor a nuestra pobre lengua, comprenderá usted lo mucho que me ha alegrado esa noticia. Debo agradecerle también el honor que me ha hecho al nombrarme para formar parte de la Academia; no creo haber adquirido tantos méritos como para aspirar a esa distinción; quedo pues muy agradecido. En cuanto a aceptar ese cargo que me ofrecen, eso ya es otra cuestión; no me parece prudente aceptar el nombramiento. Ante todo, como no soy independiente sino que soy hijo de obediencia, no podría dar ese paso sin contar con el permiso de mis Superiores. Ahora bien, aunque no he tenido tiempo para consultarles sobre el particular, creo interpretar su voluntad al no aceptar su ofrecimiento. Pertenezco a una Orden Religiosa, que ha tenido que sufrir mucho, porque algunos de sus miembros se han dedicado al estudio de nuestra lengua, historia, folklore etc. Recuerde usted, por no citar más, el caso de su antiguo colega nuestro buenísimo P. Inza... Con una experiencia tan reciente y tan desagradable comprenderá usted que no haya ganas de repetirla; y por lo mismo comprenderá usted también que nuestros Superiores no sean partidarios de que sus Religiosos tomen parte en esas actividades que en sí, claro está, no tienen nada que sea impropio de un Religioso. Y tampoco le extrañará que yo personalmente tenga pocos ánimos para trabajar en ese sentido.

Espero pues que se dará usted cuenta de nuestra situación y que no llevará a mal mi negativa a aceptar el nombramiento que han hecho en mi favor.

[..]

Y nada más, sino felicitarle a usted de todo corazón porque a pesar de sus años aún sigue usted con tantos arrestos para trabajar por nuestras cosas. Yo le admiro a usted. Que Dios le conserve aun muchos años la vida y esas energías de joven (apud Ondarra 1997: 74-75).¹⁹⁰

Muga politikoak oso nabarmenak ziren. Egun berean, apirilaren 14an, bidalitako gutunari, P. Zamarripa Bizkaiko elizgizon karlistak pozez beterik erantzun zion

¹⁹⁰ABA-EUS: P. de Iraizozen gutuna R. M. Azkueri, 1941-04-19.

Bermeotik. Esanguratsuki, Euskaltzaindiari ordez, JCVri eman zizkion eskerrak izendapenagatik. Halaber, R. M. Azkuek euskaltzainburu izaten jarraitzen ote zuen galdetzen zion bere buruari. Azkenik, gerraondoko lehen batzarra apirilaren 30ean ez izatea eskatu zuen, «por tratarse de fecha aniversaria de la liberación de este pueblo por los soldados del Generalísimo Franco».¹⁹¹

5.3 Gerraondoko Euskaltzaindiaren lehen batzarra (Bilbo, 1941-04-28)

Azkenean, 1941eko apirilaren 28an, gerraosteko lehen batzarrean, Bilboko egoitzara bildu ziren hurrengo lagunak: R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, J. Irigoyen, J. C. Guerra eta N. Oleaga. Bost urte igaroak ziren 1936ko ekainean azken batzarra Lekeition egin zenetik. R. Inzagarayk, EGZean falangistekin arazoak izan ondoren, ez zuen Donostiako segurtasuna utziko, eta soilik jaioterriko batzarretara agertuko zen, inolako ekarpenik egin gabe. Frantziako hiru euskaltzainak (P. Lhande-G. Lacombe-J. Elissalde) inkomunikatuta zeuden. Erbestetatuta, beste lau: R. Olabide, S. Altube, D. de Inza eta B. Echegaray. Hilak ziren A. Campi3n-J. B. Egusquiza, eta bion aldeko otoitza egin zuten batzarrean. Bizirik zeuden 10 euskaltzainetatik, bi besterik ez ziren ALV berrabiatzeko batzar garrantzitsura agertu, beraz.¹⁹²

Azkue jaunak, batzar onen zioa ta elburua adierazoten ditu. Diño, igaroko jazoerak, euskaltzain biren eriotzeak eta beste batzuren erbestetzeak izan dirala-ta, Euskaltzaindiaren batzarrak eta lanak eragotzita egon direala ia bost urte oneitan, noiz ta zelan barriz birrasi zitekeazan ikusten etzala. Baina «Junta de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya»-k adierazo dautsala egoki litekeala Euskaltzaindia barriztu ta bere lanetan ekitea, orretarako berak be diruz, urtean bost mila peseta emonaz, lagunduko leukeala-ta. Orregaitik eta orretarako deitu dautsie bizi direan ta bertan dagozan lenagoko euskaltzainai eta beste batzar onetara etorri direan jaunai, eurokaz ta izentau leikezan beste batzukaz Euskaltzaindia barriztu leitekela uste izanik.

Batuta dagozanok, aintzakotzat artzen dabez Azkue jaunaren esanak eta pozik agertzen

¹⁹¹ ABA-EUS: P. Zamarriparen gutuna R. M. Azkueri, 1941-04-17.

¹⁹² Horrek 1920an onartutako *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* hausten zuen. Barne erregelen arabera, gutxienez sei euskaltzain bildu behar ziren batzar ofiziala osatzeko, eta gutxienez sei euskaltzainek aldeko botoa eman behar zuten erabaki bat loteslea izateko (ALV 1920b: 6).

dabe gertu dagozala bakoitzari dagokonean betetako.

Beraz, erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoz, Euskaltzaindia jaun oneikaz eratua izan dedila: lengoak, Azkue, Urkijo ta Intzagarai jaunak; barriak Gerra, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga jaunak; baste euskaltzainen izentatzea geroagorako utzirik (ALV 1956: 317).

Bost euskaltzain berri izendatu zituzten, barnealdeko hirukoari gehituta, zortzi euskaltzainez osatuta zegoen gerraondoko Euskaltzaindi berritua. Urgentziazko berrantolatzean, ALVko kide berriak aukeratzeko 1920ko prozedurak ez ziren jarraitu, eta, esaterako, horietako inork ere ez zuen sarrera hitzaldirik egingo. Bestalde, urgazle izatearen ohiko baldintza ez zuten guztiek betetzen: N. Oleaga-P. Zamarripa Bizkaiko karlistak 1919ko sorreratik ziren urgazle, eta J. C. Guerra Gipuzkoako heraldista zaharra, 1925etik. E. Esparza-J. Irigoyen, aldiz, diktadurak sortutako salbuespeneko egoeraren adibide garbienak, ez zuten baldintza hori betetzen.

Nolanahi den, zuzendaritzako karguak bozkatu ondoren, R. M. Azkuek euskaltzainburu izaten jarraitu zuen, baina N. Oleagak ordeztu egin zuen R. Inzagaray ALVren idazkaritzan. G. Maidagan, halaber, urgazle eta behin-behineko diruzain izendatu zuten. Diruzaintzan, erbesteko S. Altube ordeztu zuen, nahiz eta izendapena behin-behinekoa izan. Gerraondoko baldintzetan, ALVren egitura eta eginkizunak kamustuta ageri ziren. JCVren ofizioak horrelakorik aipatzen ez zuenez, 1941ko berriztatzean desagertu egin ziren Ikerle-Yagoleen sailak, baita bibliotekariaren postua ere. 1932 urriko azken bozketaren arabera, A. Campión zen Ikerleen sailburu, D. de Inza Yagoleen sailburu eta G. Lacombe bibliotekari. Lehenengoa 1937an hila, bigarrena kaputxinoek Txilera destinatua eta hirugarrena Frantzian inkomunikatuta; gerraondoko Euskaltzaindiaren egoera ahula irudikatzen zuten. Euskaltzaindiaren ahalmena oso mugatuta agertzen zen ikerketa erakunde nahiz gizarte sustatzaile gisa.

Salbuespen egoerako baldintzengatik, EGZ aurreko ALVko 12 aulkien jarraipena ez da batere garbia, baina, adibidez, P. de Iraizozek ezezkoa eman ondoren, A. Campiónen tokia J. C. Guerrari eskaini zion R. M. Azkuek.¹⁹³ Dena dela, izendapen berrien zilegitasun akademikoa ez zuen aulkien ustezko genealogiak ematen, baizik eta agiriek

¹⁹³ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. C. Guerrari, 1941-02-28. Gerora jarraitasun hori berregiteko ahaleginak egin dira, baina a posteriori egindako berreraiketak dira, diktadura frankistan ALVren egiturak jasandako arbitrariotasunak nolabait «konpondu» nahi izan zutenak Baina F. Krutwigek adierazi zuen legez, 1940eko hamarkadatik aurrera sartu ziren euskaltzainak joko zelai berri batean sartu ziren, diktadura frankistak ezarritako baldintzek behartuta, eta ez iraganeko Euskaltzaindiaren ohiko egitura eta prozeduraren arabera (cf. Arana Martija 1990; Krutwig 1991: 127-139).

jasotzen zituzten ALVren batzarretan hartutako erabakiek, nahiz eta erabaki horiek EGZ aurreko estatutu eta erregelak bere osotasunean ez bete. EGZak eta errepresioak sortutako egoera tamalgarrian, Euskaltzaindia kideak gutxieneko normaltasunez hautatzeko aukerarik gabe geratu zen. Euskaltzaleak izanagatik, lehendabizi frankismoaren galbahe geografiko-ideologikoa igaro behar zuten: «de la región vasco-española y de raigambre españolista», euskaltzainburuaren beraren hitzetan.¹⁹⁴

Eskuindar, tradizionalista edota elizgizonek bete zituzten lehendabiziko aulkiko hutsak edo hustuak. Frankismoak ezarritako baldintzek sortu zuten distortsio maila nolabait kuantifikatzeko, artean bizirik zirauten urgazleen kasua aipatuko dugu, euskaltzain bilakatzeko hautagai naturalak, alegia. ALVk, 1941eko apirilean jarduna berriz abiatu zuenean, automatikoki euskaltzain izateko aukerarik gabe uzten zituen urgazleen kopurua oso handia zen:

- Frantziako herritarrak zirelako, hamar urgazle ezin ziren aukeratu: J. Moulrier, A. Constantin, J. Larrasquet, J. Saint-Pierre, P. Lafitte, L. Dassance, J. B. Daranatz, P. Eyheramendy, D. Irigoyen eta Ch. Orabe.
- Abertzaleak zirelako, deserrian, zigortuta edo politikoki ezgaituta zeuden hurrengo urgazleak: O. Apraiz, F. Belausteguigoitia, A. Urriolabeitia, T. Alzaga, I. López Mendizábal, J. Cincunegui, N. Ormaechea, F. Irigaray, A. Irigaray, J. Aguerre, J. M. Errazti, L. González de Echávarri eta C. Elguezabal.¹⁹⁵
- Diktaduraren izaera nazional-katolikoa kontuan hartuta, Espainiako herritarrak ziren elizgizon urgazleen kasua, ia guztiak abertzaleak, are lazgarriagoa zen: J. C. Ibarguchi, G. Manterola, M. Lecuona, T. Arburua, M. Arriandiaga klaretarra, B. de Oyeregui (OFMCap), P. de Iraizoz (OFMCap), P. Soloeta-Dima (OFMCap), J. M. Barandiaran, M. Inchaurre, J. Gorostiaga, J. A. de Donostia (OFMCap) eta E. de Echalar (OFMCap).¹⁹⁶

Urgazleen artean, euskaltzain izateko hautagai bakarrak ziren N. Oleaga, P.

¹⁹⁴ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bilboko CAMEko zuzendaritzari, 1941-02-21.

¹⁹⁵ Egia esan, ALVtik aspaldi aldeniak zeuden A. Urriolabeitia, J. M. Errazti, L. González de Echávarri edota C. Elguezabal, sabindar eskolari erakutsi zioten leialtasunagatik. Gauza bera gertatzen zen M. Arriandiaga edota P. Soloeta-Dima elizgizonekin (cf. Kintana Goiriena 2008: passim).

¹⁹⁶ Frankismoak errepresaliatutako euskal elizgizonen zerrenda zehatzerako: Euzko Apaiz Talde 1981.

Zamarripa eta J. C. Guerra. Hau da, 1941eko galbahe politiko estua iragan zezaketenak, urgazleen %8 besterik ez ziren. Beste era batera esanda, diktadurak urgazleen %92ari betoa ezarri zion zuzenean edo zeharka.¹⁹⁷ E. Esparzaren izendapena Nafarroako agintari frankistak gogobetetzeko erabaki hutsa zen, NFDko diru laguntzak bideratzeko erraztasunak eman zitzakeena, Conde de Rodezno presidentearen sokako eskuindarra zen neurrian. E. Esparza ez zen apirileko batzarrean egon, eta biharamunean gutunez jakinarazi zion euskaltzainburuak: «Nos hacen falta dos académicos navarros. A propuesta mía fue elegido por unanimidad y gran satisfacción como uno de ellos. Y acordamos además pedir a V. el nombre del segundo».¹⁹⁸

Nafarroako bigarren euskaltzain hori, A. Irigaray izango zen. Ikusi dugunez, A. Irigaray, J. Urquijorekin zuen adiskidetasunaz baliatuta, gerraondoko ALVn eragiten saiatu zen. Dena dela, A. Irigaray bera hautatu nahi izan zutenean, bera oso uzkur agertu zen izendapenarekiko, ez zuelako bere espediente politikoa gehiago korapilatu nahi, eta nahiago zuelako itzaletik eragin. Aitzitik, bera zen, Nafarroako agintarien bidez, bermerik erakuts zezakeen abertzale gutxienetako bat. P. de Iraizozen izendapen saioak huts egin ondoren, R. M. Azkuek euskaltzain izendatu nahi zuen, baina hasieran uko egin zion beldurragatik. 1941eko maiatzean R. M. Azkuek gutuna idatzi zion izendapena onar zezan, zegoen arazo politikoa ongi islatzen duena:

Como nos hacían falta dos navarros en nuestra Corporación me fijé yo en Vd. y Eladio Esparza. Y al citar sus nombres delante de un compañero me dijo este que V. está tildado de nacionalista vasco. Hasta que hoy hablando por teléfono con Esparza al exponerle lo que de V. me dijeron me ha respondido él que nada hay de cierto en esa afirmación.¹⁹⁹

Gutunean zioenez, E. Esparzak euskaltzainburuari agindu zion A. Irigarayrekin batera agertuko zela ALVren hurrengo batzarrera, baina medikuak ezezkoarekin erantzun zion berehala: «en vista de que hay alguien que insinúa esa especie respecto de mí, he de declinar con sentimiento mi aceptación».²⁰⁰ 1941eko maiatzean Donostiako San Telmo

¹⁹⁷ Ez ditugu zenbatu atzerrikotzat jo zitezkeen urgazleak, hots, estatutuen arabera euskaltzain ezin izan zitezkeenak: R. Menéndez Pidal, Américo Castro, Albert Léon, H. Gavel, R. Lafon, Rudolf J. Slaby, William Rollo, Jakob Jud eta G. Bähr (cf. Torrealdei & Murua Uria 2009: 161-165). Ikusiko dugunez, estatutuek ezarritako baldintza hori hautsi egingo zuten R. Lafonekin 1949an.

¹⁹⁸ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna E. Esparzari, 1941-04-29. 1941ean Iruñera deserritu zuten L. Aquesolo Bizkaiko apaiz abertzaleak ere Nafarroako agintarien babesa lortzeko pausotzat jo zuen E. Esparzaren izendapena. *Diario de Navarra* kazetariak ez omen zion aitortzen bere buruari euskaltzain izateko meritu berezirik (Akesolo 1985: 46).

¹⁹⁹ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna A. Irigarayri, 1941-05-12.

²⁰⁰ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna R. M. Azkueri, 1941-05-17.

Museoan egin zen batzarrera ez agertu arren, Nafarroako bi kideen izendapena izan zen gai nagusia:

Azkue jaunak adierazoten dau, lenago erabagi zanez, Eladio Esparza jaunari jakin erazo dautsola euskaltzaintzarako aukeratua izan dala, ta bere erantzuna, kisa ori beregain pozik artzen dabela, izan dala, bide batez, bere eritziz, bigarren naparro euskaltzaina Angel Irigarai jauna izan daitekela, esanaz. Ganera, Azkue jaunak dino jaun oneri kisa ori eskini dautsola, baña, bere eskarrak agertuaz, oraingoz eztabela artzen erantzun dabela. Aitzaki barik artu dagiala eskatuz, barriro eskini dakiola erabagi da (ALV 1956: 318).

Egoera nahasia hainbat hilabetez luzatu zen, A. Irigarayk 1941eko urrian berriz ere J. Urquijorengana jo behar izan baitzuen argitasun bila: «El día pasado me dijo Eladio Esparza que le tenía q. acompañar a una sesión de la Academia; me extrañó pues no he tenido ninguna noticia de ésta directamente».²⁰¹ Azkenean, 1941eko urriaren 30ean Bilbon egin zen batzarrera A. Irigaray bera agertu zen izendapena onartzera. Agiriak, ordea, ez du E. Esparzarik aipatzen. Pozik entzun zioten R. M. Azkue, P. Zamarripa, J. Irigoyen eta N. Oleagak (ALV 1956: 319).

JCVren ahozko aginduz, erbesteratutak eta Frantziako euskaltzainak ALVtik kanpo geratzearen ondorioz, 1920ko araudiak ezarritako 12 euskaltzaineko kopurua bederatzira mugatuta geratu zen une horretan. Euskaltzainak hautatzeko irizpide politikoagoen erakusgarri elizgizonen presentzia 1936ko %58,33tik %33,33ra igaro zen: R. M. Azkue, P. Zamarripa eta R. Inzagaray diozesiar apaizak. Jeltzale bakarra, izendapena kostata onartu zuen A. Irigaray izan zen. Lurraldetasunari begiratuta, guztiak Espainiakoak izateaz gain, Bizkaiak indar gehiago hartu zuen, probintziako agintariek ALV berrituan zuten eragin politiko-ekonomikoaren ondorioz. 1936an bezala, Gipuzkoak hiru kide zituen (J. C. Guerra-R. Inzagaray-J. Irigoyen) eta Nafarroak bi (E. Esparza-A. Irigaray); baina Bizkaikoak hirutik laura igaro ziren (R. M. Azkue-J. Urquijo-P. Zamarripa-N. Oleaga) eta Araba ordezkariarik gabe geratu zen. Hau zen bederlatzi euskaltzainen zerrenda 1941ean:

1. Resurrección M^a Azkue
2. Julio Urquijo
3. Juan Carlos Guerra

²⁰¹ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-10-25.

4. Pablo Zamarripa
5. Ramón Inzagaray
6. Eladio Esparza
7. Nazario Oleaga
8. Angel Irigaray
9. Juan Irigoyen²⁰²

Are J. Urquijo bezalako karlista, etsita agertu zen Euskaltzaindiak, kultur erakunde gisa, egin zezakeenarekiko BMGk areagotutako giro itogarrian. Miretsita zegoen R. M. Azkuek erakusten zuen adorearekiko, Donostiatik 1941ko maiatzean idatzi zionez:

Querido D. R[esurrección]: mucho celebro se halle V. en buena salud, trabajando impertérrito, en medio de estos tiempos apocalípticos. Yo confieso que, a pesar de mi aparente tranquilidad, siento mis nervios bastante destemplados. De que servirán nuestras investigaciones ante un caos como el que presenta actualmente el mundo? Admiro la flema (que yo creía más británica que alemana) con la que tanto [Gerhard] Bähr como [Karl] Bouda siguen sus habituales estudios. Y eso, ¡en Berlín!²⁰³

5.4 Gerraondoko euskaltzain berriak

Juan Irigoyen

Juan Irigoyen Guericabeitia (1884-1964) Gipuzkoako Bergaran jaio zen. Espainiako Artxibozain, Bibliotekari eta Arkeologoen profesional taldeko kide zen. Bilbora etorrira, Bizkaiko Probintzia Artxibo Historikoaren zuzendaria izan zen. Kazetaritzaz den bezainbatean, *Excelsior* (1924-1931) kirol egunkariko erredaktoreburu izan zen. 1932tik aurrera, EAJ-PNVrekiko urruntasunaren erakusgarri, *La Gaceta del Norte* egunkari neokatolikoan aritu zen hil arte. EI-SEVen hainbat egitasmotan parte hartu zuen, bereziki euskal artearekin lotutakoak. EJ-GEren agintepeko eremutik ihes eginda, 1937ko apirilaren 29an Gipuzkoako Gobernu Zibilean aurkeztu zuen bere burua. Militar matxinoek Bilbo okupatu ondoren, Burgosko Gobernuarentzat egin zuen lan, ondare

²⁰² Euskaltzaindiko bibliotekaren zuzendari zenaren arabera, erbesteko eta Frantziako euskaltzainak une horretan ALVko kide izaten jarraitzen zuten, baina nire ustez Euskaltzaindiaren historia politikoki leuntzeko nahiak eramane zuten horretara (cf. Arana Martija 1990: 24-25).

²⁰³ ABA-RMA: J. Urquijoren gutuna R. M. Azkueri, 1941-05-14.

artistiko eta bibliografikoa berreskuratzeko zerbitzuan. Berak idatzi zuen, esate baterako, EGZean Bizkaiko artxibo-liburutegietan gertatutakoaren txostena Hezkuntza Nazionaleko ministerioarentzat 1938ko apirilaren 12an. Frankismoari zion adhesioagatik, besteak beste, bere *El Cho de Carmengo Ama* (1929) itsas eleberria berrargitaratzea lortu zuen 1940ko hamarkadan. Gerraondoan, Bizkaiko Probintzia Artxibo Historikoaren zuzendaritzan jarraitzeaz gain, JCVko kide oso aktiboa izan zen, batez ere artearen eta arkeologiaren arloan (*La Gaceta del Norte* 1964-05-14; Estornés Zubizarreta 1983: 86, 131, 158, 162; Alted Vigil 1984: 46-47; Charritton 1997a: 419; Torreal dai 1999: 27).²⁰⁴

Nazario Oleaga

Nazario Oleaga Muguruza (1884-1961) Bilbon jaio zen. Hiriburuan lan egin zuen abokatu gisa Esteban Bilbao buruzagi tradizionalistarekin. Urgazle gisa, Euskaltzaindia toponimia batzordeko kide edota *Eusker*a agerkariaren arduradun izan zen. Bizkaiera purista erabiltzen zuen, neologismoak barne, adibidez, hurrei zuzendutako G. Múgicaren *Zurtasun-gogoa* [*El espíritu de economía*] (1923) itzuli zuenean. Euskara administrazio-hezkuntzan bultzatzeko hainbat elkarte eta egitasmotan parte hartu zuen. Diktadura primorriveristan, euskaltzainburuarekin batera, euskal testuak baimentzea eskatu zion Bizkaiko gobernadore zibilar. Politikagintzan euskal autonomismo eskuindarraren alde egin zuen EBEn, Bizkaiko karlismoaren izenean. 1918an EI-SEVen sortzaileetakoa eta Zuzenbide saileko kide izan zen. Hain zuzen, EI-SEVen Estatutuaren justizia atalaz arduratu zen. Mallabiako Udalaren ordezkari gisa, Lizarrako Estatutua onartu zuen euskal udalen batzarrean parte hartu zuen. 1936ko udan, Bizkaiko agintari errepublikanoek baimena eman zioten Burgosen bi preso ospetsuren arteko trukea burutzeko: E. Bilbao eskuindar kolpezalea eta E. Ercoreca Bilboko alkate errepublikanoa (Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Oleaga 2002; Urrutia 2004a; Kintana Goiriena 2008).

Euskaltzaindiko idazkari gisa, R. M. Azkue 1951n hil zen arte, euskaltzainburuaren lankide gertukoena izan zen hamar urtez. ALVren ekintza guztien koordinazioaz arduratu zen eta gerraondoan garrantzi handiko kidea izan zen. N. Oleaga jaimista euskaltzalea zen, J. Elorza-J. Urquijoren ildokoa. L. Michelenak, adibidez, N.

²⁰⁴ Lerchundi Sirolich anaiek, R. M. Azkue-J. Urquijori bezala, erretratua egin zioten 1950 inguruan «Galeria de celebridades vizcaínas» sailerako eta Bilboko Euskal Museoan gordetzen da (Álvarez & Garay Urresti 2013: 15).

Oleaga hil ondoren, frankista zitekeen ukatu egin zuen: «Don Nazario karlista zen beharbada, baina frankista? Frankista, bisitari-gelako hormak Gernika deseginaren airetikako argazkiz blei zeuzkana?» (Michelena 2011e: 272). F. Krutwigek zioenez, klandestinitateko jeltzaleekin harremana izan zuen Euskaltzaindiaren egoitzan bertan. ALVren autonomia ziurtatzeko egin zuen ahalegin pertsonalaren aitortza dago esaldi honetan: «Oleaga no sólo era el Secretario de Euskaltzaindia, sino que actuaba también como secretario del grupo» (Krutwig 1991: 85).

Pablo Zamarripa

Pablo Zamarripa Uruga (1877-1950) Santander probintziako Laredon jaio zen, baina haurtzaroan eraman zuten gurasoen Bizkaiko Sondikara. Gasteizko elizabarrutiaren seminarioan ikasi ondoren, 1906an apaiztu egin zen. Araba-Bizkaiko hainbat herritan egin zuen lan 1906-1926 artean. Bermeoko zoroetxean jardun zuen 1926-1940 artean, eta 1940tik aurrera, egoitza horretaz arduratzen ziren Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl-en kapilau izan zen. Ideologiaz karlista zen eta J. M. Urquijok sortutako *La Gaceta del Norte* egunkari neokatolikoren euskal atalaz arduratu zen. Prentsan idatzitako poesiekin eta narrazio komikoekin hainbat bilduma argitaratu zituen, kalitate estetiko eskasekoak: *Zaparradak eta* (1926), *Gora begira* (1927), *Kili-kili* (1930) eta *Firi-firi* (1935) (Arejita 2012).²⁰⁵

R. M. Azkue-P. Zamarripa artean ika-mika bat egon zela dirudi, seguru asko 1920an D. Aguirre euskaltzain tradizionalistaren heriotzak utzitako postua lortu ez izanaren frustrazioak eraginda.²⁰⁶ P. Zamarripak 1926ko liburuko ipuin batean, R. M. Azkueren *DVEF* ospetsua aipatu zuen. Txorierriko hitz gehienak berarengandik jasotakoak izanik, euskaltzainburuak nolabait esker txarreko jokatu omen zuen, bera euskaltzain ez izendatuta (Zamarripa 1926: 12).

N. Ormaecheak euskaltzainburuari egindako eraso salatatu egin zuen *RIE* Ven, eta P.

²⁰⁵ F. Krutwigen arabera, P. Zamarripa gaitasun intelektual urrikoa zen eta euskaltzainburuak ez zuen asko estimatzen (Krutwig 1991: 82-83; Murua Uria 1997: 69-70).

²⁰⁶ D. Aguirrek honela idatzi zion 1907an R. M. Azkueri, azken horrek jeltzaleen kritikak jaso zituenean, euskal hiztegia zela-eta: «Siento que tú no tengas toda la protección que te mereces. No me cabe duda que la posteridad te hará justicia, pero es posible que, por ahora, tengas que pasar aún por algunas amarguras. ¡Hay tanto envidioso! Sábetelo, querido, que no hay un solo carlista que no te ensalce, pero en cambio, los *bizkaitarras*... Mucho ¡Gora Euzkadi! y luego a reventar a los que más hacen en favor del País. El grito ¡gora Euzkadi!, en último término, no es otra cosa que un ¡viva yo! en boca de todos los que lo profieren» (Aguirre 2008: 101).

Zamarridak, zurikeria dirudienaz, J. Urquijori idatzi behar izan zion hori ukatzeko.²⁰⁷

Esperantoa, latina, gaztelania eta batez ere euskara zekizkien, baina ez zen gauza ikerketa filologiko sakonetan murgiltzeko.²⁰⁸ Hala ere, ikasliburu interesgarriak idatzi zituen, hala nola, *Manual del vascófilo* (1913). Edizioa L. Lezama-Leguizamón karlistak ordaindu zuen eta hari eskaini zion liburua (Zamarrida 2011: 5-16). Ideologikoki diktadura frankistarekin ez zuen arazorik izan, eta 1947an *Gramática vasca* (6. edizioa) eta *Vocabulario vasco-castellano* (3. edizioa) berrargitaratu ahal izan zituen.²⁰⁹ P. Zamarridaren gramatika-hiztegiak jatorrizko edizioan bezalaxe agertu ziren; Euskaltzaindiak araututako euskal ortografiarekin («f», «tx»), eta «gotzain» bezalako neologismo jeltzaleekin (Zamarrida y Uruga 1947a; 1947b).

Juan Carlos Guerra

Juan Carlos Guerra Barrena (1860-1941) Donostian jaio eta abokatu gisa jardun zuen Arrasaten. Bere garaiko euskal heraldista eta genealogista garrantzitsua izan zen, eta Real Academia de la Historia-ko kide laguntzaile izendatu zuten 1887an. Eskualzaleen Biltzarrean edota EI-SEVEN ere parte hartu zuen. Berari zor zaio, adibidez, EI-SEVEN «asmoz ta jakitez» goiburua berreskuratzea. Literatur lanak argitaratu zituen, baita *Los cantares antiguos del euskera* (1924) bilduma ezaguna ere. Urte horretan Unión Patriótica alderdi primorreristako kide izendatu zuten, baina berak uko egin zion 60 urte beteak zituelako.²¹⁰ 1925ean urgazle izendatu zuten. Historia lanetan agertzen zuenez, monarkismo katoliko eta foruzaleari lotuta zegoen (Estornés Zubizarreta 1983; Esparza Leibar 2005: 312-313).

Jaime de Borbón errege-nahi karlista 1931n hil zenean, Arrasateko Círculo Tradicionalista-k haren arimaren aldeko mezara gonbidatu zuen.²¹¹ EGZe militar matxinoen aldeko taldean zegoen. Bere artxiboan, besteak beste, Arrasateko FET-JONSEk edota Arrasateko Udalak egin zizkioten eskaera ekonomikoak gordetzen dira.²¹²

²⁰⁷ KMK-JU: P. Zamarridaren gutuna J. Urquijori, 1927-06-10.

²⁰⁸ ABA-ATO: P. Zamarridaren gutuna A. Tovarri, 1948-04-30.

²⁰⁹ ABA-ATO: P. Zamarridaren gutuna A. Tovarri, 1948-02-10.

²¹⁰ ABA-JCG: Unión Patriótica-J. C. Guerra arteko gutunak, 1924-10-14 & 1924-10-18.

²¹¹ ABA-JCG: Arrasateko Círculo Tradicionalista-ren gutuna J. C. Guerrari, 1931-10-04 .

²¹² ABA-JCG: Arrasateko alkatearen eta FET-JONS Arrasateko milizien eskaerak J. C. Guerrari, 1937-07-23 & 1938-07-27.

A. Paguaga Donostiako alkatearekin harreman onetan zegoen eta uste izatekoa da Gipuzkoako agintarien diru laguntza bideratzeko ere izendatu zutela euskaltzain.²¹³ Baina ordurako 80 urte beteak zituen, eta hiru batzarretara baino ez zen agertu, 1941eko urriaren 2an hil baitzen (*El Diario Vasco* 1941-10-03). Hil horretako batzarrean heriotzaren berri eman eta otoitz egin zuten. A. Irigarayk J. Urquijori idatzitako gutunean nekrologia akademikoaren antzekoa idatzi zuen, aldi berean BMGko giroak areagotutako ezinegona erakusten zuten interpolazioekin:

Con gran sentimiento oigo decir q. ha muerto D. Juan Carlos Guerra y no quiero dejar de comunicarlo a la Academia del vascuence por mediación de U. No merece menos y sin duda no faltará su adecuado panegirista, que recuerda el infatigable recopilador de las viejas leyendas vascongadas de Mondragón, con su labor tan fuerte, no exento de encanto para el aficionado a la Historia de aquellos años un tanto sangrientos (y otro tanto parecidos a los actuales en que nuevamente se exaltan los valores individuales y el arrojo y el desprecio de la vida, demasiado oscurecidos hasta hoy por otros sentimiento de vida muelle y comfortable)... y nos desviamos del llorado folk-lorista mondragonés; sin olvidar al ameno comentarista de antiguos documentos de la Historia de nuestro País, y vulgarizador de las bellas leyendas suletinas del siglo XV, amén del consagrado heraldista q. todos consultan.²¹⁴

Eladio Esparza (eta «Príncipe de Viana» aldizkaria)

Eladio Esparza Aguinaga (1888-1961) Lesakan jaio zen, Nafarroako eremu euskaldunean. *La Voz de Navarra* egunkari jeltzaleko zuzendari izan zen 1923-1925 artean, Lesakako Udaleko idazkari izendatu zuten arte. Ondoren, jeltzaleengandik aldentuta, *Diario de Navarra* eskuindarreko zuzendariorde lanetan aritu zen. Nafarroako eskuindar politikagintza antiabertzalearen eta autonomia estatutuaren aurkako ideologo nagusietakoa bilakatu zen. EBEn aurkako konspirazio lanetan aritu zen egunkariko hainbat arduradunekin. EGZean karlisten prentsa eta propaganda arduradun izan zen, diskurtso oso gogorra erabilita. Karlista-falangistak bateratzearen alde egin zuen. Hain zuzen, F. Yzardiaga apaiz falangistaren bidez, FETeko Jefe Provincial de Prensa izatera iritsi zen 1936an eta talde horretako idazleekin harremana izan zuen. Hurrengo urteko irailetik 1938ko abuztura arte Arabako gobernadore zibil izan zen. Errepresio-depurazio

²¹³ ABA-JCG: A. Paguagaren gonbita J. C. Guerrari, 1939-10-09.

²¹⁴ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-10-25.

lanetan buru-belarri aritu zen, probintziako tradizionalismoari alderdi bateratuaren «politika berria» erantsiz. Nafarroako foruzaletasuna V. Praderaren *Estado nuevo* (1935) eta *Acción Española* aldizkariaren bide autoritario kontrairaultzaitetik ulertu zuen Hala ere, euskararen aldeko nolabaiteko jarrera izan zuen, diktadura frankistari zion leialtasuna erabatekoa izanagatik.²¹⁵ (Oses Larumbe 1988: 417; García-Sanz Marcotegui et al. 1998: 219, 327; Cantabrana Morras 2004; Mikelarena Peña 2013).

Conde Rodezno presidente zuen NFDak 1940ko abuztuaren 21ean sortu zuen Institución Príncipe de Viana. CSICen Nafarroako ordezkaria izan zen, eta probintziako kultur gaiak ikuspegi frankistatik landu zituen gaztelaniaz. Erresuma zaharreko ondare artistikoa zaintzea, ikerketa sustatzea eta kulturaren dibulгатzea ziren IPVren egitasmoak. Estatutuetan, Nafarroak estatu kolpean izandako zeregina gorai patzen zen (Institución Príncipe de Viana 1940). E. Esparza *Príncipe de Viana* aldizkariko zuzendaria ere IPVko kide zen. Aldizkaria, Francisco Javier santuaren egunean argitaratu zen lehen aldiz, 1940ko abenduaren 3an. CSICek *Hispania* aldizkariarekin ezarritako norabidea jarraitzen zuen tokiko lehen aldizkaria izan zen. Estatu Berriko herritarrari espainiar kontzientziaren oinarri zientifikoa eskaintzea zen helburu nagusia (Donézar Díez de Ulzurrun 1993: 622).

E. Esparza 1955 arte izan zen aldizkariaren zuzendaria.²¹⁶ Euskaraz den

²¹⁵ Iruñeko egunkari primorriveristan idatzi zituen hitz hauek monarkiaren azken aldia «El vascuence requiere ser hablado. Eso es todo. La Diputación de Barcelona celebrará sus sesiones en catalán. La ley le autoriza. Los diputados saben su lengua. Y la hablan. Cuando nosotros lleguemos a eso, podremos compararnos, en ese punto, con Cataluña» (apud *El Día* 1930-06-15). Zenbaiten arabera, Arabako gobernadore zibil kargutik kendu zuten Aramaion euskarazko hitzaldia emateagatik (García-Sanz Marcotegui et al. 2002: 80).

²¹⁶ Nafarroako A. Irigarayk edota J. Aguerre urgazleak ez zuten *Príncipe de Viana* artikulurik argitaratuko E. Esparzak zuzendaritza utzi arte. Erbesteko D. de Inzak, inoiz ez. 1940ko hamarkadan lankidetzatza izan zuen euskaltzain bakarra, J. Caro urgazlea izan zen: «La significación de algunas danzas vasco-navarras» (1945); «Representaciones y nombres de meses» (1946); «Arte e historia social y económica» (1948). Zuzendariak historia eta literatura gai laburrak landu zituen aldizkarian: «Elige Ignacio a Francisco para la India (1940); «La fruta del cercado ajeno» (1940); «Notas sobre el antecedente histórico de la ley de 1841» (1941); «El príncipe de los poetas hebraico-españoles era navarro» (1942); «Sobre el espíritu clásico del Greco» (1942); «San Juan de la Cruz (1542-1591)» (1943); «Un Códice Sanjuanista en Pamplona» (1943); «Juan Osés Mayanz» (1943); «El vascuence en el Libro del Buen Amor» (1943); «Nuevas investigaciones sobre Lengua Vasca» (1943); «A fuerza y remo» (1943); «Tres noticias curiosas (1944); «El Tratado de la Virginitad de María, de San Ildefonso, en Navarra» (1944); «La familia de Fray Diego de Estella» (1944); «Sobre la representación, en Lesaca, en 1566, de la *Pasión Trovada* de Diego de San Pedro» (1945); «Doña Juana Enriquez, madre del Rey Católico» (1945); «El Concilio de Trento y los arciprestazgos de la Diócesis de Bayona» (1946); «Una ilustre figura navarra sale del injusto olvido» (1946); «Lo que dijo Tiers de la toma de la Ciudadela de Pamplona, en 1808» (1947); «Notas sobre la Guerra de la Independencia en Navarra» (1947); «Breves noticias históricas» (1948); «Galantería y obsequiosidades municipales del siglo XVIII» (1948); «Los sistemas electorales en Navarra y un caso curioso de *natural del Reino*» (1949), «El P. Moret y la toma de Toledo por Alfonso VI» (1949) eta «Sobre el soneto, *no me mueve, mi Dios*» (1950) (cf. Mariezkurrena Iturmendi 2009).

bezainbatean, 1943ko «El vascuence en el Libro del Buen Amor» iruzkinean, R. Menéndez Pidal-R. Lapesaren lanetan oinarritu zen, euskarak gaztelanian izandako eragin lexikoa azaltzeko. Urte bereko «Nuevas investigaciones sobre Lengua Vasca» berri laburrean, CSICeko *Emerita* aldizkarian P. Fouchék argitaratutako «A propos de l'origine du Basque» artikulua ondoioak azaldu zituen. Euskarak, historiaurreko hizkuntza autoktonoarekin nahastutako hiru osagai zituen: kaukasiarra, kamitikoa eta altaikoa. Euskaldunen eskusibotasun etnikorik ez zegoen, historiaurretik izan ziren nahastuak eta garaituak. Tesiaren presentismo politiko antiseparatista nekez igaro zitezkeen oharkabeen: «Los Iberos debieron absorber gran cantidad de elementos magdalenenses y altaicos que no los poseía su lengua, en su contacto con los grupos pirinaicos que sometieron» (Esparza 1943b: 234).

Angel Irigaray

Angel Irigaray Irigaray (1899-1983) Nafarroako Beran jaio zen. Fermín Irigaray «Larreko»ren (1869-1949) semea zen, Iruñeko probintzia ospitaleko burua. Aita urgazle zen ALVren sorreratik eta semea 1929an izendatu zuten urgazle. F. Irigaray mende hasieran Nafarroako integrismoaren buruetako bat izan arren, 1913an EAJ-PNVren hautagaia izan zen probintzia hauteskundeetan, baina ez zuen diputatu izatea lortu. Aita-semeak Iruñeko jeltzaleen elkarte eta prentsan elkarrekin aritu ziren, bereziki EBEn (Chueca Intxusta 1999: 428).

Atzeguardiako errepresio bortitza hasi zenean, A. Irigarayren izena agertu zen salaketen zerrendan. Ikaratuta, Frantziako Sarara ihes egin zuen, emazte ezkonberria Iruñean utzita. Orduan, NFDko presidente mauristak, Juan Pedro Arraizak, aitari deitu zion adierazteko semeak arrisku gehiago zuela iheslari gisa agertuz gero. F. Irigarayri pasaporte berezia eman zioten 1936ko abuztuaren 2an semearen bila joan zedin. A. Irigaray ez zen fidatzen, baina aitak J. P. Arraizaren bermea zuenez, itzuli egin zen Iruñera. Aitaren beraren alde, bestalde, M. Olaechea Iruñeko apezpikua mintzatu zen. EGZean erretiroa hartzea egokitzen zitzaion arren, Iruñeko ospitaleko buru izaten jarrai zezala eskatu zioten, eta hala egin zuen 1943 arte. F. Irigarayk egutegi bat idatzi zuen 1936-1940 artean, Iruñeko izu giroa eta abertzale kontserbadore baten ezinegona islatzen zituena. F. Irigarayk errespetatzen zuen E. Esparzak euskararen alde zuen jarrera eta adi jarraitu zituen *Diario de Navarra*n esaten zituenak (Irigaray 1993; Bidador 2003).

Esan bezala, EBEn A. Irigarayren etorkizunak Nafarroako abertzaletasunean oparoa zirudien. EI-SEVen idazkariorde izendatu zuten, ELA-STVn izena eman, eta jeltzaleek Irlandara egindako bidaian parte hartu zuen. Dena dela, Bizkaiko EAJ-PNVren aurrean, ikuspegi moderatuago eta kulturalista zuen.²¹⁷ Lanpostua utzi egin zuelako, 1937ko maiatzaren 18an Iruñeko Udalak mediku karguaz gabetu zuen. Mediku lanpostu berria ez zuen 1942 arte aurkituko, Hondarribian, eta hurrengo urtean Gipuzkoan ezarri zuen bizitokia familiarekin (Irigaray 1985; Agirreazkuenaga 1998). Dena dela, gogoz kontra onartutako izan zen euskaltzain izendapena, eta A. Irigarayren susmo txarrak ez ziren uxatu. 1942ko apirilean, Iruñetik hurrengo gutuna idatzi zion Bilboko idazkariari:

La última vez que me escribió Vd. citándome a la reunión de la Academia, estuvo detenida la carta, por equivocación del cartero, varios días en casa de mi vecino. Mucho le agradeceré que cuando me escriba, téngame la atención de hacerlo en sobre sin membrete de la Academia, así como también al dar a la Prensa la nota de los reunidos en las sesiones, silencie mi nombre.²¹⁸

Ignacio M^a Echaide

Euskaltzaindiak zailtasun asko zituen frankismoak ezarritako baldintza pertsonalak betetzeko, euskaltzale sutsuenak abertzaleak zirelako, erbesteratuak edota zigortuak. 1942ko martxoaren 26an, Donostian batzartu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, A. Irigaray eta N. Oleaga. Hildako J. C. Guerraren ordezkari, I. M. Echaide hautatu zuten, lehenago urgazle izan ez zen beste salbuespen politiko bat (ALV 1956: 320).

Ignacio M^a Echaide Lizasoain (1884-1962) Donostian jaio zen. Industria ingeniaria zen eta 1907an hasi zen lanean GPDan. Probintziako telefono sarearen zuzendari izendatu zuten eta Donostialdeako telefonia automatizatzean aitzindari izan zen 1926an. Besteak beste, euskararen ezagutza meritu gisa sustatu zuen zenbait lanposturako. 1949 arte izan zen Gipuzkoako telefoniaren arduraduna, probintziak eskumen hori galdu zuen arte. Politikaz den bezainbatean, uste osoko integrista zorrotza zen. Besteak beste, *Programa integrista explicado* (1925) liburuan, R. Nocedal-Félix Sardá-M. Menéndez Pelayoren ideiak sutsuki aldeztu zituen, nazionalismo espainola eta

²¹⁷ Adibidez, J. Urquijoren alde agertu zen *Euzkadi* egunkarian, euskaltzain tradizionalistak erasoak jaso zituenean 1935eko giro liskartsuan (KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1935-03-12).

²¹⁸ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1942-04-18.

ortodoxia katolikoa uztartuta. Euskalaritzan batez ere aditzaren azterketan nabarmendu zen. Gipuzkoako integristen artean euskara eskolak ematen eta euskal antzerkiak antolatzen aritu zen, R. Inzagaray-M. Lecuona apaizen laguntzarekin. Uste izatekoa da R. Inzagaray euskaltzainak begi onez ikusi zuela haren izendapena. EBEn Lizarrako Estatutuaren alde egin zuen. Dena dela, politikagintza ez zen izan bere lehentasuna, eta alderdi integristatik kanporatua izan zen bere moral katoliko zorrotzak alderdien posibilismoari lekurik uzten ez ziolako.

GPDko lankideen artean zuen ospeagatik, EGZean Gipuzkoako errepublikazaleek ez zuten bere aurka egin, eta berak ere hainbat lagun babestu zituen gerraondoko errepresiotik. Lehenago diktadura primorrivistarekin gertatu bezala, erregimen frankista behar-beharrezko ikusi zuen. Halaber, Donostiako CAMeko eta Gipuzkoako Alfa enpresen administrazio kontseiluetako kide zen. Probintziako agintari frankistekiko zubi lana egin zuen, eta oso kontuan hartu zuten hori euskaltzain izendatu zutenean. Are Euskaltzaindiaren batzarrak I. M. Echaideren GPDko bulegoan egiten hasiko ziren une batetik aurrera. R. M. Azkue hil ondoren, berak hartuko zuen Euskaltzaindiaren zuzendaritza. 1947an M^a Dolores Itarte emaztea galdu eta bere kargu geratu ziren 9 seme-alabak. Oso gizon zorrotza zen eta harreman zaila izan zuen J. Echaide seme eta idazle abertzalearekin (Anduaga Egaña 2008: 127-130; Etxaide-Itharte 1985; 1986).

5.5 Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa eta diru laguntza ofizialak

Euskaltzaindia berrabiatzeko baimen politikoa lortuta, berehalako arazo nagusia aurrekontuarena zen. ALV^k hasieratik izan zituen baliabide estutasunak, baina gerraondoko depresio ekonomikoan bizirauteko gutxieneko jarduera zalantzakoa zen. JCV^k urtero 5.000 ptako diru laguntza agindu bezain laster, F. Castañeda Gipuzkoako diputatuari idatzi zion R. M. Azkuek laguntza eske:

La Junta de Cultura de la Diputación vizcaína se empeña en que esta Academia de la Lengua Vasca siga funcionando como antes y al efecto pondrá en sus manos la cantidad de cinco mil pesetas anuales. ¿No podrían Ustedes conseguir que hiciera otro tanto la Junta de Cultura de esa Ex[c]ma Diputación? Haga V. un esfuerzo, y procure V. conseguir que la Caja de ahorros municipal de San Sebastián dé, como dan las dos cajas de ahorros

de aquí, mil pesetas anuales con idéntico objeto.²¹⁹

Bestalde, gestio horien konnotazio politikoak begi bistakoak ziren. Euskaltzainburuak 1941eko irailean I. Lasquibar Donostiako artzapezari idatzi zion, GPDaren diru laguntza ziurtatzeko:

Creo haberte dicho alguna vez que esta Academia funciona de nuevo, aunque modestamente. El jueves próximo, como último del mes, nos reuniremos ahí de once a trece, en San Telmo. Otra reunión (esta será de una entidad especial, formada de la Junta de Cultura de esta Diputación y algunos otros elementos) tendrá lugar de tres a cinco de la tarde, probablemente en la Diputación. Entre otras cosas se tratará de acercarnos a algunos señores Diputados para conseguir que esa Corporación contribuya como esta de aquí, al sostenimiento de la Academia.

Seguramente gozarás tú de no poca influencia cerca de varios Diputados. Y te ruego que haga uso de ella, ya desde ahora o bien después de nuestra junta del jueves, como te parezca. Antes de salir de ahí te daré noticias de lo acordado y tú me darás, espero, noticias, que aquí no tenemos, de traslados y nombramientos de Monseñores.²²⁰

1941eko irailaren 25eko batzarrean, hain zuzen, ohi baino euskaltzain gehiago bildu ziren Donostian, gutunean adierazitako gaiak eztabaidatzeko: R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, P. Zamarripa, J. Irigoyen, J. C. Guerra eta N. Oleaga (ALV 1956: 318-319). 1942ko martxoan, Bilboko CAMak 1.000 ptako diru laguntza eman zuela adierazi zuen ALVren batzarrak. 1943ko otsailean, berriz, euskaltzainburuak GPDak urtero 3.000 pta ematea erabaki zuela jakinarazi zuen. Bilbon batzartuta zeuden J. Irigoyen, I. M. Echaide, P. Zamarripa, N. Oleaga euskaltzainek eta F. Krutwig urgazleak, pozik entzuten zuten berri hura (ALV 1956: 321-322). Bizkai-Gipuzkoako diputazioen 8.000 pta horiek osatuko zuten ALVren urteroko aurrekontua 1940ko hamarkadan, gastuak berdintzeko aski ez zena.²²¹ Diru laguntza pribaturik ez zen inoiz jaso. Ezagutza

²¹⁹ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna F. Castañedari, 1941-02-06. Fernando Castañeda, orobat, Donostiako alkateorde eta San Telmo Museoko batzordekide izan zen (Sánchez Erauskin 1994: 223). San Telmo Museoko batzordea, 1938ko abenduaren batzarrean kexu zen IdeE-k ez zituelako inoiz gonbidatu, ekitaldi publikoak museoan egin arren (STM: San Telmo Museoaren Akta Liburua, 1938-12-02).

²²⁰ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibarrari, 1941-09-22. Donostian jaiotako Ignacio Lasquibar (1866-1952) prestigio handiko elizgizona izan zen, teologia sakratuan eta zuzenbide kanonikoan doktorea. R. M. Azkue adiskideak bezala, Gasteiz-Salamancan ikasi zuen. 1923tik izan zen Buen Pastor elizako erretoare eta 1931tik Donostiako artzapeza. 1952ko otsailean Donostiako katedraleko dean izendatu zuten eta 1953ko martxoan hil zen (Jose Angel Garro Donostiako Elizbarrutiko Artxibo eta Bibliotekako zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2016-01-14; Antía Munduate 1999).

²²¹ Konparazioa, 1920-1930eko hamarkadetan, Euskaltzaindiaren aurrekontua 26.000 pta ingurukoa izan

eta diru laguntza ofizialik ez zuen IECEk, esaterako, 170.000 pta jaso zituen urtero 1940eko hamarkadan, mezenas eskuindarrez osatutako Benéfica Minerva elkartetik (Balcells, Izquierdo & Pujol 2007: 22-35).

8.000 ptako aurrekontuarekin ezinezkoa zen JCVk ALVri agindutako egitasmoak betetzea, batez ere argitalpenen arloan. 1942ko urrian R. M. Azkueren eskuetara iritsi zen RAGEk gerraondoan argitaratutako buletinaren lehen zenbakia, urte horretako urtarrilekoa. Asaldatuta geratu zen han irakurritakoarekin: «En la actualidad el Ministerio concede a la Academia 4.500 pesetas anuales y ha satisfecho un año de atrasos el de 1939 confiándose en percibir los restantes» (Barreiro Noya 1942: 316). Berehala, A. Tovar Salamancako Unibertsitateko katedradun berriari antzeko diru laguntza bideratzea eskatu zion.²²² IPVk Nafarroan, RSVAPek Gipuzkoan edota JCVk Bizkaian bideratu ahal izan zuten argitalpen plangintzarekin erkatuta, ALVren ekintzak mugatzeko asmoa igartzen da tokiko erakunde frankisten diru laguntzen politikan.

Erkatu ditzagun JCV-ALVren garai bereko aurrekontuak. Euskaltzaindiaren 1947ko diru sarrerak 8.387,47 ptakoak izan ziren eta gastuak, ordea, 10.192,30 ptakoak. Diru iturriak hauek ziren: JCV (5.000 pta), GPD (2.994,75 pta) eta aurrezki kutxetako etekinak gehi liburuen salmentak (391,72 pta). Gastuak, aldiz, honela banatu ziren: egoitzaren alokairua eta mantentzea (2.560,10 pta), langileen soldatak (3.220 pta), lexikografia batzordea (3.040 pta) eta batzarretako dietak (1.372,20 pta). Urteko defizita, 1.804,83 ptakoa, aurreko urteetan metatutako 6.953,85 ptako superabitari esker kitatu ahal izan zuten. 1948ko saldo positiboa 5.149,02 ptakoa izan zen, beraz.²²³

Kontuan hartu behar da BPD-GPDak gutxieneko autonomia fiskala eta gastu ahalmena galdu zituztela kontzertu ekonomikoaren ezabatzearekin. Hala ere, JCVren 1946ko diru sarrerak 85.471,40 ptakoak izan ziren eta gastuak, aldiz, 84.524,60 ptakoak. 1947ko saldo positiboa 946,80 ptakoa izan zen, beraz.²²⁴ J. B. Merino JCVren diruzain eta behin-behineko idazkariak 1947rako 102.500 ptako aurrekontua aurreikusi zuen, honela banatuta: indusketak (5.000 pta), hitzaldiak (15.000 pta), argitalpenak (35.000 pta), idazkaritza eta gastu orokorrak (20.000 pta), Euskaltzaindiari diru laguntza (5.000

zen urtero. JCVk ematen zituen 5.000 ptak, diktadura primorriveristan BPDan nagusi ziren monarkiko antiabertzaleek ezarritako gutxieneko kopuru bera zen (Kintana Goiriena 2008: 593-596).

²²² ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1942-10-07.

²²³ ABA-EUS: G. Maidagan diruzainaren 1947 urteko kontu errendapena. Errendapen hori ALVren 1948ko apirilaren 2ko batzarrean aurkeztu zuten, R. M. Azkue-J. Urquijo-N. Oleaga besterik ez zeudela (ALV 1956: 329).

²²⁴ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-01-23, Junta de Cultura C-62.

pta), monumentu artistikoen zaharberritzea (18.000 pta) eta ustekabeko gastuak (4.500 pta).²²⁵ Ikusi berri dugun Euskaltzaindiaren urte bereko gastuak baino hamar aldiz gehiago, alegia. JCVk bere urteko gastuen %4,87 eskaintzen zion Euskaltzaindiari. 1940ko hamarkadan JCVk BPDtik jasotzen zuen urteko 50.000 ptako aurrekontu nagusia, baina argitalpen eta bestelako egitasmo zehatzetarako aparteko diru laguntzak ematen zizkion. 1947ko urtean, esaterako, JCVk guztira 167.178,11 pta mobilizatu zituen, baina hala ere 1.010,08 ptako soberakina izan zuen.²²⁶

Gainera, CSICen Patronato José M^a Quadrado de Estudios e Investigacionaes Locales-etik urtero diru laguntzak jasotzen hasi zen: 1947an 5.000 pta, 1948an 10.000 pta eta 1949an 15.000 pta.²²⁷ JCVren aurrekontuak bultzada handi bat jasoko zuen 1951tik aurrera, Bilboko Udala bere egituran integratu eta udalak beste 50.000 pta ekarri zizkionean.²²⁸ Bestalde, 1947tik aurrera, Euskaltzaindiari eskainitako kopuru finkoaz gain, «Asociación de Artistas Vizcaínos» delakoari ere 2.000 pta hasi zen ematen.²²⁹

Donostian 1947ko martxoko batzarrean, I. M. Echaideren ekimenez, aurrezki kutxei diru laguntzak eskatzea erabaki zuen ALVk. Berariaz prestatutako idazki luzean, euskararen espainiartasuna, Alfonso XIII.aren herri hizkuntzaren aldeko hitzak, R. M. Azkue-J. Urquijoren RAEko izendapen primorrivistak edota euskal erakundearen izaera zientifiko eta apolitikoa nabarmendu zituen euskaltzainburuak. Diru laguntza gehiago behar zituzten batzarrak sarriago egiteko, biblioteca osatzeko eta agerkari-idazlanak argitaratzeko.²³⁰

Arrazoibide bera oinarri hartuta, 1949ko urtarrilean euskaltzainburuak JCVri diru laguntza handitzea eskatu zion.²³¹ E. Calle Iturrino JCVko idazkariak 1949ko otsaileko batzarrean eman zuen eskariaren berri, baina geroratu egin zuten erabakia: «Se dio cuenta de una comunicación de la Academia de la Lengua Vasca, solicitando aumento de la subvención y se acordó esperar a conocer el resultado de las actividades editoriales para

²²⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1946-09-13, Junta de Cultura C-62.

²²⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-12-30, Junta de Cultura C-62.

²²⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-10-02, 1948-10-07 & 1949-10-13, Junta de Cultura C-62.

²²⁸ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62.

²²⁹ FAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-12-30, Junta de Cultura C-62.

²³⁰ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna aurrezki kutxetako zuzendaritzeari, 1947-04-17.

²³¹ BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna JCVri, 1949-01-27, Junta de Cultura C-40 -01-.

decidir lo precedente».²³² Euskaltzainburuak ez zuen etsi eta apirilean berriz jo zuen J. Ybarra BPDko presidentearengana:

Como dije a V. días pasados; la ayuda que recibimos de esa Diputación (que tan dignamente preside Vsted) de cinco mil pesetas anuales, es insuficiente para que pueda decorosamente vivir esta Academia.

Antes tenía dos sesiones en cada mes, ahora una sola cada dos meses. Y la comisión, que diariamente trabaja en elaborar la traducción del Diccionario español al vascuence, no ha percibido ni un céntimo siquiera desde hace más de un año.

Por lo cual le ruego encarecidamente que de cinco suba a Diez mil pesetas anuales la cantidad que recibimos de la Diputación.

Con esta ayuda podremos tener en adelante el mismo número de sesiones que antes teníamos.²³³

Erantzun positiborik izan ez zuenez, Euskaltzaindiak berriz erabakiko zuen diru laguntza ofizial gehiagoren bila joatea, 1949ko iraileko batzarrean (ALV 1982: 7). Euskaltzaindiak ekonomikoki ondo jo zuen eta ez zen gerra aurreko mailara hurbilduko 1950eko hamarkadaren erdialdea pasa arte. 1940eko hamarkadan urtero 10.000 pta inguruko gastuak zituen eta, aipatu berri dugun 1947ko kasuan bezala, diru sarrera ofizialekin ez zen iristen kontuak berdintzera, ezta aurrezkirik metatzera (ALV 1956: 329). 1950eko martxoan R. M. Azkuek NFDari diru laguntza eskatu zion. Maiatzean, urtero ALVri 5.000 ptaz laguntzea erabaki zuen NFDak (Jimeno Jurío 1996: 514-515). Urte horretan, gainera, Gipuzkoako CAPak 2.000 pta eman zituen eta Bilboko Udalak, 1.000 pta. Urte horretako diru laguntzak guztira 16.000 ptakoak izan ziren. Bazirudien ALVa ekonomikoki lasaiago egongo zela, baina, ikusiko dugunez, berehala arazoak sortu ziren diru laguntzak ematen zituzten erakundeekin.²³⁴

Diru laguntzen eskasak, zeharkako zentsura azken finean, geldiarazi egin zituen ALVren argitalpenak 1940ko hamarkadan. 1942ko martxoan, Víctor Gaubeca (1894-1979) editoreak aurkeztutako idazkiaren berri eman zen. *Eusker*a agerkariaren 1936-1937ko azken bi zenbaki monografikoak zor zizkioten.²³⁵ ALVk ez zuen erabakirik hartu, alde batetik, dirurik ez zuelako zorra ordaintzeko, eta bestetik, ez zelako garai egokia

²³² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62.

²³³ BFAH-EC: R. M Azkueren gutuna J. Ybarrari, 1949-04-06, Junta de Cultura C-40 -01-.

²³⁴ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941-1950.

²³⁵ ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1942-03-10.

argitalpenei berriz ekiteko (ALV 1956: 320). Bi urte igaro ondoren, haserre, Bermeoko editore jeltzaleak eskaria berritu zuen.²³⁶ 1944ko apirilean horren berri eman zuen ALVren batzarrak, eta azkenean 2.108 ptako zorra urrian ordaindu zioten.²³⁷ Garai hobeen zain, 1936-1937ko *Euskeraren* azken bi zenbaki monografikoek (S. Altube-J. A. Moguelen lanekin) banatu gabe jarraitu zuten.²³⁸ 1949an, orobat, SLP ospetsuak 1945-1949 arteko kotizazioak erreklamatu zizkion: 2.300 franko guztira.²³⁹ Horregatik, Euskaltzaindia batzarrak egin eta txostenak irakurtzera mugatu zen, buletin berriemailerik ezean, erudituen bilera pribatuak zirenak.

Hala ere, besteren argitalpenak onetsi zituzten, artean erlijioara estuki mugatzen zirenak. P. J. Amuchategui Galdakaoko erretorearen 1945eko bederatzaurrena, adibidez, euskaltzainburuak zuzendu egin zuen.²⁴⁰ J. Echeandía Nabarnizko erretorearen 1947ko katiximak eta I. Valdés Goicoecheak bizkaieraz egokitutako *Vitoria-Eleizbarrutirako kristiñau-ikasbideak* (1949), halaber, ALVren onespina jaso zuten, 1920ko ortografia arautua jarraitzen zutelako (ALV 1956: 327; 1982: 8).²⁴¹ Hain zuzen, Euskaltzaindiaren editore izandako V. Gaubecak bizkaierazko liburuxka erlijioso gutxi batzuk argitaratzeko baimena lortu zuen 1940ko hamarkadan, hasieran gaztelaniaren grafiarekin: *Ereño-co San Miguel Eleiza Nagosico umechuen dotriñeraco cristiñau gustiac jaquin bear dabezan jaquin-garriric bear-bearrecoenac* (1943?), *Larrauri-co Andra-Mari Eleizaco umechuen dotriñeraco cristiñau gustiac jaquin bear dabezan jaquin-garriric bear-bearrecoenac* (1943?) edota aipatutako P. J. Amuchateguiren *Andra Marija Sortzez Garbiari bederatzaurrena* (1945) nahiz J. Echeandiaren *Kristiñau-Ikaskizuna* (1947).²⁴² Bestalde, Euskaltzaindiaren bibliotekarako egindako erosketa apurren artean, Gasteizko *Vida Vasca* aldizkariaren zenbaki batzuk agertzen dira.²⁴³

²³⁶ ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1944-03-04.

²³⁷ ABA-EUS: V. Gaubecaren ordainagiria, 1944-10-11.

²³⁸ ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1944-06-20.

²³⁹ ABA-EUS: SLPen txartela R. M. Azkueri, 1949-10-18. Euskaltzaindia SLPeko kide zen 1921etik.

²⁴⁰ ABA-RMA: P. J. Amuchateguiren gutuna R. M. Azkueri, 1945-07-04.

²⁴¹ Espainian 1940ko hamarkadan, euskarazko (berr)argitalpen gutxi batzuk baino ez ziren baimendu, euskarazko irakurketa ikasbide eta praktika katolikora mugatzen zutenak: *Vitoria'co Eliz-barrutiraco cristau-dotriña* (1940?), *Ama Birgiña Guadalupekoa'ren bederatzaurrena ta kondaira* (1943), B. Vizcarraren *Urquiola'ko bederatzaurrena* (1943), A. Amundarainen *Antiguako Gure Ama maiteari bederatzaurrena* (1948), J. M. Zamoraren *Berriotxoat'ar Balentin zoriontzuari bederatzaurrena* (1949) eta antzeko liburuxkak (ABK).

²⁴² Uste izatekoa da Bermeoko editoreari Galo Gaubeca anaia elizgizonak lagundu ziola baimenak lortzen. Busturiko koadjutorea 1942ko otsailaren 28an hil zen, 62 urterekin (*BOOV* 1942-03-16).

²⁴³ ABA-EUS: *Vida Vasca* aldizkariaren ordainagiria, 1945.

5.6 Euskaltzaindiaren «Diccionario español-vasco» egitasmoa

JCVren 1941eko aginduaren arabera, Euskaltzaindiaren argitalpen nagusia *Diccionario español-vasco* delakoak izan behar zuen, aspalditik zetorren egitasmoa. Euskara estandarra arauturik gabe zegoen neurrian, garrantzi handiko urratsa zitekeen Euskaltzaindiak gaztelania-euskara hiztegi normatibo bat argitaratzea, artean 1920ko ortografia baitzen ALVk zehaztutako arau bakarra. Euskaltzainburua bera hasi zen *DVEF* (1905-1906) alderantzikatzen ALV sortu aurretik. 1916an *Diccionario español-vasco* delakoaren bost liburuki argitaratu zituen «a-borceguinería» arteko hitzekin. 1905-1906koan ez bezala, neologismoak eta glosak onartu zituen, literatur hiztegi normatibo bat sortzeko nahia erakusten zuena. Baina urte berean R. de Bera-I. López Mendizábalen *Diccionario castellano-euzkera = Euzkel-erdel-iztegia* argitaratu zuten arrakasta handiarekin, R. M. Azkueren egitasmoa zapuztuta. Euskaltzainburuak I. López Mendizábali ez zion inoiz barkatuko *DVEF*i ustez egileak berak baino etekin handiagoa atera izana.

Euskaltzaindia sortu ondoren, EI-SEVen 1922ko biltzarrean ALVren gaztelania-euskara hiztegi handiari ekitea erabaki zuten. Diktadura primorrivistak sortutako ezinegona baretu zenean, berriz heldu zitzaion egitasmoari. Euskal lexikoa ortografikoki eguneratuta, RAEn hiztegi arruntaren sarrera guztiei euskal ordainak eman nahi zitzaizkien, esan bezala, neologismoak onartuta. Zeinahi alorreko euskal idazleek horrelako hiztegi normatiboa erabiliz gero, literatur hizkuntz baturako bidean oso urrats garrantzitsua izan zitekeen. Zoritxarrez, estandar arauturik ez izateak eta garaiko purismo lexikal unibertsalak, lan amaigabea bilakatu zuten lexikografia akademikoa. S. Altubek, esaterako, erdal jatorrizko mailegu erabilienak hiztegian sartzeko proposamena egin zuenean, euskaltzainburuak baztertu egin zuen 1932an. Euskarazko ordainik ez zuten milaka hitzendako, alemanaren eredu neologista jarraitu nahi zuen euskaltzainburuak, mailegu ia guztiak baztertuz (Sarasola 2004: 617-627; Kintana Goirieta 2008: 253-265).

Bestalde, ALVn ez zegoen talde lanerako dinamikarik. D. de Inzari 1927an bidalitako gutunaren arabera, R. M. Azkue neurri sendoak hartu eta eginkizun akademikoetan parte hartzen ez zuten euskaltzainak kanporatzeko prest zegoen.²⁴⁴ EBEn, autonomia estatutuak eta nolabaiteko elebitasun ofizialak eskuragarri ziruditenean, P. Fabraren *Diccionari general de la llengua catalana* (1932) begien bistako eredu atzeman

²⁴⁴ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna D. de Inzari, 1927-06-08.

ezina bilakatu zen. Adieradun hiztegi elebakar eta normatiboa, alegia. P. Fabrak garai berean abiatu zuen lana, baina Euskaltzaindiarena ez bezalako azpiegituraz baliatuta. Alde batetik, Lliga Regionalista-ko F. Cambók diruz lagundu zuen egitasmoa eta bestetik, IECren bulego lexikografikoak 1912tik ari ziren lanean katalanaren hiztegi historikoan. Bestalde, Euskaltzaindiak ez bezala, P. Fabrak irizpide garbia izan zuen literatur hizkuntza kodetzeko orduan. Filologikoki interesgarriak izan zitezkeen hitz arkaiko eta dialektalak baztertu egin zituen, eta nazioarteko termino tekniko itxuraz grekolatinoak, ordea, sartu. Helburua, idazleei lexiko katalan estandarra eskaintzea zen (Fabra 1932: VI-VII).

Maila xumeagoan, Euskaltzaindiak ezohiko baliabideak bideratu zituen EGZ aurreko egitasmo nagusira. R. M. Azkue-J. B. Egusquiza-R. Olabide euskaltzainek lexikografia batzordea osatu zuten. Osoko batzarretan hiztegi aztabaidatu eta iturri askotariko materialak biltzeaz gain, N. Ormaechea-J. Gorostiaga urgazleak aritu ziren lexikografian kontratupean. 1935ean hiztegia aurreratuta zegoen, eta Donostiako Librería Internacional argitaletxeko M. Conde Lópezekin negoziatzen ari ziren 2.000 aleko *Diccionario español-vasco* delakoaren edizioa. Bi orrialdeko proba ere inprimatu zuten «a-abadejo» arteko hitzekin.²⁴⁵ Baina Euskaltzaindia eta M. Conde Lópezen arteko kontratua zehazten hasi zirenean, argitaratzaileak hiztegiaren jatorrizko kopia mekanografiatu osoa eskatu zuen baldintza gisa. Orduan euskaltzainburuak aitortu zion behin betiko bertsiorik ez zutela, ezta amaiera epe zehatzik ere.²⁴⁶ Gordetzen diren ALVren 1936ko agiri zirriborroen arabera, urtarril-otsaileko batzarrak, lexikografian buru-belarri zebiltzan artean. S. Altubek, adibidez, gaztelaniazko «de» preposizioaren euskarazko itzulpenez txosten luzea aurkeztu zuen hiztegirako.²⁴⁷

G. Lacomberen ustez, ordea, Euskaltzaindiaren hiztegia amaituta zegoen 1936an, eta EGZa lehertu izan ez balitz, bi urteren buruan argitaratuta egon zitekeen.²⁴⁸ Bestalde, N. Ormaecheak hitzaurre bat prestatu zuen hiztegiaren argitalpenerako, A. M. Labayenen bidez, 1966an ezagutzera eman zena. Horren arabera, R. M. Azkue-R. Olabide-N. Ormaecheak osatutako batzordea zen hiztegiaren arduraduna, ez Euskaltzaindia bere

²⁴⁵ ABA-EUS: M. López Conderen gutuna G. Maidagani, hiztegiaren inprenta proba eta azalaren zirriborroa, 1935-01-09.

²⁴⁶ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna M. López Conderi, 1935-03-12.

²⁴⁷ ABA-EUS: R. Inzagayren batzar agiri zirriborroa, 1936-01-28.

²⁴⁸ ABA-LAC: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-06-29.

osoan, bi euskaltzainek egitasmoaren aurka bozkatu zutelako (J. Urquijo-G. Lacombe?). Eredu nagusi gisa, gaztelaniazko hiztegi bi (RAErena eta Espasa-Calpe entziklopedia) eta gaztelania-aleman hiztegi bi (Th. Stromer-R. J. Slaby) erabili zituzten.²⁴⁹ Hitzak dialektoen arabera sailkatu zituzten eta bi neologismo mota bereizi zituzten: izartxo batekin idazle onek erabiliak, eta bi izartxorekin, gutxien erabiliak. Hiztegia ez argitaratzeko arrazoi nagusietako bat kritikari zioten beldurra izan zitekeen (Orixe 1966).

Dena dela gerraondoan berriz ekin zioten 1936an bukatu samar omen zegoena aztertzeari, letraz letra eta hitzez hitz. Azterketa filologiko sakonagoa beharko litzateke ondo kokatzeko Euskaltzaindiaren artxiboan dauden askotariko material lexikografikoak, baina hiru corpus nagusi bereiz daitezke. Horietako bi 1928-1936 artekoak dirudite, bata «a-z» arteko hitzak hartzen ditu eta besteak «ch-z» artekoak. Letrarik falta ez duen lehen corpusak 930 orrialde inguru ditu eta bigarrenak 765 orrialde. Bigarrenak, eskuzko ohar edota zuzenketak izan arren, argitaratzaileak eskatzen zuen behin betiko kopia mekanografiatuaren hurbileko kopiatzat jo daiteke.²⁵⁰ Bestalde R. M. Azkuek erabilitako RAEren eta N. Fernández Cuestaren hiztegien aleak gordetzen dira, oharrez josita.²⁵¹

Hirugarren corpus nagusia 1941-1951 arteko zerrenda da, baina soilik «a-h» arteko hitzak hartzen dituena. Tamaina aldetik, 1.401 orrialde ditu, baina orrialdeko ia hiru aldiz hitz gutxiago sartzten ditu batez besteko (28/11).²⁵² Gaingiroki erkatuta, gerra aurreko eta ondoko materialak, oso antzekoak dira. Dialektoak ezberdinu eta neologismoak erabiltzen dira hiru corpusetan. Adibidez, «diputación = aldundi» agertzen da hiruretan. Gerra ondoan kontuzkoagoa izan zitekeen terminologia politikoan aurkitu ditugu aldeak. EGZ aurrekoan «dictadura» hitzak, adibidez, bi adiera besterik ez ditu: «cargo = nagusitzargo» eta «época = nagositzar-aldi». 1941etik aurrerakoan, ordea, hirugarren adiera bat agertzen da: «gobierno ilegal = legez atzetiko agintaritzia».²⁵³ Badirudi lehenengo bi adieren konnotazio negatiboa ezabatu eta legezko diktadura bati leku egiten zitzaiola Espainia frankistan argitaratu nahi zen ALVren hiztegian. Dena dela, gerraondoko lexikografiaren moteltasuna eta azken porrota, ezin du lexikoaren depurazio

²⁴⁹ Th. Stromer-en *Nuevo diccionario español-alemán* (1897-1900) eta R. J. Salby-R. Grossman-en *Diccionario de las lenguas española y alemana* (1932).

²⁵⁰ ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusak, [1928-1936].

²⁵¹ ABA-EUS: N. Fernández Cuestaren *Diccionario de las lenguas española y francesa comparadas* (1885-1886) eta RAEren *Diccionario de la lengua castellana* (1899).

²⁵² ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusa, [1941-1951].

²⁵³ ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusak, [1928-1936 & 1941-1951].

politiko soilak azaldu.

R. M. Azkueren hasierako ardura J. Gorostiagak erbestera eramandako lexikografiako zenbait dokumentu berreskuratzea izan zen. Hala ere, bion arteko harremana konfiantza handikoa zen. 1940an bertan, Euskaltzaindia berrabiatzeke, J. Gorostiagak *DVEF*en ale bat erosi zion Angeluko erbestetik.²⁵⁴ EJ-GEren funtzionario ohiak, BMGren eraginez, Kubara alde egin behar izan zuen, baina R. M. Azkuek Euskaltzaindiaren berrabiatzea eta jarduera xeheki azaldu zizkion gutunez. Gaztelania-euskara hiztegiko dokumentuen truke, orobat, deduzko izendatuko zutela agindu zion euskaltzainburuak: «Con que, Juanito tercero, colabora conmigo y dejaremos para otros lo de *urgazle* o *murgazle* (que dijo aquel Eleissalde de Azkain) y te haremos con Schuchardt y Uhlenbeck académico de honor».²⁵⁵

Hiztegiak gaztelaniari ematen zion lehentasuna, diktadura primorriveristan bezala, agintari frankisten aurrean errazago zen zuritzen ALVren eginkizun nagusi gisa, JCVk berak 1941eko baimen ofizialean ageri zuenez. Lexikografia batzorderako R. M. Azkue-N. Oleaga-J. Irigoyen izendatu zituzten 1941ko lehen batzarrean bertan. J. Irigoyenek, esan dugunez, 1943ko otsailetik aurrera ALVren batzarretara joateari utzi zion. Bergarako artxibozaina Bizkaiko ondasun historiko-artistikoaz, pinturaz edota musikaz arduratu zen, JCVko batzar agiriek erakusten dutenez, baina Euskaltzaindiaren zeregin filologikoetarako ez zegoen prestatua eta ahal bezain laster utzi zituen.²⁵⁶ Hain zuzen, euskaltzainburuaren ustez lexikografiaren lan erritmoa motelegia zen, J. Gorostiagari adierazi zionez:

Aquí nos reunimos tres veces por semana Oleaga y Eketa [R. M. Azkue] para la formación del futuro Diccionario Español-Vasco; pues tu homónimo, aunque fue nombrado miembro de esta comisión, solo ha venido cuatro o cinco veces por sus muchas ocupaciones.²⁵⁷

Esku artean zituzten baliabide eskasen erakusgarri, 1941eko urriko batzarrean JCVri P. Lhanderen *Dictionnaire basque-français* (1926-1938) ale bat lortzeko

²⁵⁴ ABA-RMA: J. Gorostiagaren gutuna R. M. Azkueri, 1940-02-26.

²⁵⁵ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1941-07-07. J. Gorostiagari «Juanito tercero» eta J. Irigoyeni «Juanito segundo» deitzen zien euskaltzainburuak.

²⁵⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1941-1958, Junta de Cultura C-62.

²⁵⁷ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1941-07-07.

eskatzea erabaki zuten (ALV 1956: 319). A. Irigarayk bere ohiko diskrezioari jarraituta, itzalpetik eragin nahi izan zuen. Neologismoren aurkako bere iritzia kontu handiarekin adierazi zion lexikografia batzordeko N. Oleagari:

Supongo seguirán «ekin eta ekin» en la versión del magnífico dic. de Azcue; me voy a permitir un ruego: como hay muchísimas personas cuyo único guía y consejero es el diccionario de nuestro querido presidente por tener él absoluta garantía en cuanto a la búsqueda de vocablos, se me ocurre que sería muy agradecido por los euskarófilos, que la tan necesaria versión cast. vasc. íntegra y literal del Azcue fuera aparte, de las adiciones y complementos que vds. crean oportuno hacer a él; sin que por eso dejen de hacerlas éstas si vds. creen oportuno.²⁵⁸

Lexikografia batzordeak bere lanen berri ematen zuen batzarretan. 1945ko irailean, «a» letra amaitua zutela adierazi zuten, baina euskal ordainik ez zuten zenbait hitzen arazoa eztabaidatu zen. Batzordeko kideek eta I. M. Echaidek hiztegi normatiboa egin nahi zuten, behar adina neologismo sortuta. A. Irigaray-J. Urquijok, ordea, hiztegi deskribatzaile hutsaren alde egin zuten, batez ere neologismoek Frantziako euskalgintzan izan zezaketen harrera txarraren beldur zirelako. Eztabaida hauek gerra aurrekoak berritu baino ez zituzten egin, J. Urquijoren nekrologian gogoratuko zutenez:

Il fit décider, avec l'appui de Lacombe et non sans quelque peine, paraît-il, que dans le dictionnaire en préparation les néologismes seraient marqués dun astérisque, au lieu d'être confondus purement et simplement, comme d'autres l'auraient voulu, avec les véritables vocables basques. Personnellement il était, comme on peut le supposer, hostile aux néologismes, et de parti-pris il s'abstenait de prendre part aux discussions et aux votes les concernant (Gavel 1950b: 259).

R. M. Azkue, halaber, EGZ aurreko lexikografiako zenbait lankiderekin harremana berreskuratzen saiatu zen, hala nola, M. M. Zubiaga Gipuzkoako jesuitarekin.²⁵⁹ BMG amaituta, nazioarteko harremanak berreskuratzeke aukera ikusi zenean, A. Irigarayk, orobat, Euskaltzaindia Frantziako kidez osotu arte itxarotea beharrezko ikusten zuen. Gero ikusiko dugunez, A. Irigarayk posta harremana berreskuratu zuenean 1947an P. Lafitterekin, lexikografiako koordinazioa izango zuen kezka nagusietakoa.²⁶⁰ Bestalde, R. M. Azkueren *DVEF* berrargitaratzeko asmoa agertu

²⁵⁸ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1942-04-18.

²⁵⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. M. Zubiagari, 1943-06-02.

²⁶⁰ G. Lacombek ardura hori bera erakutsi zuen EBEn, P. Lafitte *Dictionnaire français-basque* eta

zuten A. Tovarrek, RSVAPen bidez, eta Euskaltzaindiak berak 1948ko maiatzean, baina ez zuten oihartzun publikorik izan (Tovar 1947; ALV 1956: 329; Andiazabal et al. 2005).

Dena dela, puristez osatutako lexikografia batzordeak (R. M. Azkue-N. Oleaga) lanean jarraitu zuen 1940ko hamarkadan. Bilboko idazkariaren gerraondoko batzar agirietan, esaterako, «zadorlari» (idazkari), «ekauta» (diputazio) edota «ijeki» (ale) bezalako neologismoak erabiltzen ziren. Hura izan zen gerraondoko zeregin akademiko nagusia, hala denbora nola gastu aldetik. Dena dela, 1949ko iraila iritsi zenerako, «f» letraraino baino ez zuten osatu zerrenda (ALV 1956: 325).²⁶¹ 1949ko iraileko batzar horretan lexikografia behin-behinean gelditzea erabaki zuten, diru laguntza gehiago ziurtatu arte. G. Maidagan diruzainaren Liburu Nagusiak adierazten duenez, 1951ko urtarrilaren 25ean, ALVk bere egoera ekonomikoa hobetu ondoren, kobratu zituzten R. M. Azkue-N. Oleagak 1948-1949ko lexikografia bileretako dieta atzeratuak.²⁶²

Badirudi lanean jarraitu zutela, «g» letra ere osatu arte, baina euskaltzainburuaren 1951ko heriotzak ezinezko bilakatu zuen egitasmoa amaitzea. ALVren artxiboan gordetzen den lexikografia corpuseko azken sarrerak «halógeno = gatz-sofarazle» eta «haloideo = gatz-antzeko» izan ziren.²⁶³ Dena dela, Euskaltzaindiaren hiztegi handiaren bideragarritasun komertziala zalantzan jarrita zegoen ordurako. 1948an, R. de Bera-I. López Mendizábalen *Diccionario castellano-euzkera = Euzkel-erdel-iztegia* arrakastatsua 3. edizioa argitaratzeko baimena lortu zuen Zarauzko Itxaropena argitaletxeak. R. M. Azkuek zion amorrua kontuan hartuta, kolpe latza izan behar zuen. Adibidez, Buenos Airesko Ekinen argitaratutako I. López Mendizábalen *La lengua vasca* (1943) gramatika-hiztegiak 3.000 ale saldu zituen 1947rako.²⁶⁴ Hala ere, Euzkadiko fiskal nagusi izandako I. Gurruchagak *Diccionario español-vasco* Ameriketara arrakasta izan zezakeela ziurtatu zion J. Urquijori:

Un libro de éxito en la venta sería el diccionario que hace años estaban Vds. preparando.

Como aquí, como en todas partes, pero en América más que en otras partes, hay que

Euskaltzaindia *Diccionario español-vasco* lantzen ari zirenean (ABA-LAC: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1935-12-26).

²⁶¹ F. Krutwigek ere lagundu zuen lexikografian, baina ez zegoen ados euskaltzainburuaren irizpidearekin (Krutwig 1991: 127-128).

²⁶² ABA-EUS: R. M. Azkue-N. Oleagaren lexikografiako esleipenak eta G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1951-01-25.

²⁶³ ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusa, [1941-1951].

²⁶⁴ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-11-19.

cuidar mucho del renombre y de la propaganda y de los títulos, tendría que aparecer como obra de la Academia de la Lengua y como el primer diccionario vasco hecho por dicha entidad. ¿Por qué no se animan a terminarlo y publicarlo? No haría falta que tuviera los neologismos, que más tarde podrían publicarse como apéndice.²⁶⁵

Gero ikusiko dugunez, gaztelania-hiztegiarekin jarraitzeko asmoa egon zen, baina 1954tik aurrera Euskaltzaindiaren lexikografiak beste bide bat hartuko zuen L. Michelenaren zuzendaritzapean. Nolanahi den, Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara corpus horiek berrerabili egingo ziren P. Múgicaren *Diccionario castellano-vascorako* (1965) eta *Diccionario Auñamendi* (1965-1982) hiztegi amaigaberako, zazpi liburukitan «a-c» letrak baino hartu ez zituen. Esan bezala, ezterketa lexikografiko baten zain daude R. M. Azkue euskaltzainburuak hil arte zuzendu zituen materialak (Sarasola 2004: 625; 2006: 897-901, 906-911).

5.7 Euskaltzaindiaren batzarren egitura 1940ko hamarkadan

ALVren jardueraren berri emateko, Euskaltzaindiak agerkari ofiziala izan zuen 1920-1936 artean. EGZak, ordea, eten egin zuen *Eusker*a buletinaren agerpena, eta ALVk ez zuen lortuko aldizkaria normaltasunez plazaratzea 1956 arte. Tartean, zenbaki bakarra agertu zen, 1953ko urrikoa, baina edukiz oso mugatuta. Aztertzen ari naizen urteetako batzar agirien argitalpena, beraz, ez zen bere garaian egin. *Eusker*a agerkarian, bi zatitan (1956an eta 1982an) argitaratutako ziren. Horregatik, kontuan hartu behar da 1940ko hamarkadako batzarren eduki eta erabakiak ez zirela publikora zabaldu eta oso eragin mugatua izan zutela korporazioko zirkulu txikitik kanpo. Zenbait euskaltzalerekin eta erakunde ofizialekin harreman puntualak bideratu ziren, baina artxiboan ia ez dago kanpo harremanen dokumentaziorik, eta barne gutuneria hamarkada horretan ere oso urria da. R. M. Azkue-N. Oleagak sinatutako 1940-1951 arteko batzar agirien kopia mekanografiatu ofizialak gordetzen dira, gehienak elebidunak, euskaraz eta gaztelaniaz. Euskarazko bertsioak, *Eusker*aren esandako 1956-1982ko zenbakietan argitaratuta daude. Gaztelaniazkoak oro har argitaragabeak dira, askotan argigarriak izan arren, euskarazko esanahiak finkatzeko. Kopia mekanografiatuez gain, eskuzko N. Oleagaren zenbait zirriborro ere badaude Euskaltzaindiaren artxiboan. Azkenik, G. Maidagan behin-behineko diruzainaren kontabilitate liburuak ere, urtero egindako batzar dieten berri

²⁶⁵ KMK-JU: I. Gurruchagaren gutuna J. Urquijori, 1947-01-08.

ematen du. Hor ageri denez, ALVk hainbat batzar egin zituen agiri mekanografiatu ofizialik ez dutenak.²⁶⁶ Idazkariaren zirriborroetan nahiz diruzainaren liburuan ezberdintasun nabarmenik aurkitu dudanean, berariaz aztertu dut arazoa ondoko orrialdeetan.²⁶⁷

1941-1948 arteko euskarazko batzar agiriak dira 1956ko *Euskeran* argitaratu zirenak, artean N. Oleaga bizi zela. Alde horretatik, bere onarpena duten neurrian, nahiko fidagarriak direlakoan nago. 1949-1964 arteko batzar agiriak, ordea, ez ziren 1982 arte argitaratu, N. Oleaga hil ondoren, eta ezin izan zuen bere ardurapean 1961 arte idatzitako agirien argitalpenean parte hartu. Hala ere, Euskaltzaindiaren artxiboan bigarren epealdi horretako kopia mekanografiatuak ere gordetzen dira, oro har euskaraz, eta batzuk gaztelaniaz ere bai.²⁶⁸ R. M. Azkue 1951n hil ondoren, N. Oleaga idazkariarekin batera, I. M. Echaide buruordeak sinatu behar zituen kopia mekanografiatuak, baina ez zuen beti egin. Batzuetan A. Irigarayk egin zuen mahaiburu eta sinatzaile lana. Esan bezala, Bilboko idazkariaren eskuzko zirriborro batzuk ere gordetzen dira, batzar agiri ofizialetan islarik ez dutenak. Aitzitik, idazkariak artxiboan gordeta utzi izanak, nire ustez lekukotasunezko balio oso garrantzitsua ematen die.

1940ko hamarkada, ALVren jarduera ofizialaz den bezainbatean, estutasunez jositako ilunaldia izan zen. Batzar bikoitzak desagertu egin ziren. 1941eko apirilaren 28tik 1949ko azaroaren 25era arte, biak barne, 49 batzar egin ziren, urteko 5,44 batzar, alegia. Lehen bi urteetan gogotsu ekin zioten, zazpina batzar egin zituzten 1941-1942an, baina 1943an, BMG aliatuek irabaziko zutela nabarmendu zenean, diktadurapeko ALVk bost batzar egin zituen. Hamarkada horretan lau zapabost euskaltzain baino ez ziren biltzen batzarretan. Ohiko partaideak R. M. Azkue-N. Oleaga nekaezinak eta beste bizpahiru kide izaten ziren: J. Urquijo, P. Zamarripa edota I. M. Echaide. 1948tik aurrera F. Krutwig-A. Irigaray ere gehiago agertuko ziren. 1941-1949 artean soilik bederatzi aldiz lortu zuten 1920ko barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea biltzea. Hamarkada horretako batzarren %18,36n baino ez zuten 1920ko estatutuek eskatutako kopurua bete, beraz.

Euskaltzainburuak eta idazkari berriak ez zuten inoiz batzarretara huts egin. J. Urquijok soilik 10 aldiz, osasun txarraren ondorioz, bere korrespondentzia ugarian behin

²⁶⁶ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941-1949.

²⁶⁷ Komeniko litzateke euskarazko eta gaztelaniazko batzar agiri historiko guztien edizio berria egitea, agiri zirriborroen informazioa ere nolabait emanda.

²⁶⁸ ABA-EUS: Euskaltzaindiko batzar agirien kopia mekanografiatuak, 1941-1964.

eta berriz agertzen denez. Adibidez, 1948ko irailean eroriko larri bat izan zuen eta horregatik huts egin zuen hurrengo bi batzarretara.²⁶⁹ 1949ko udaberrian kalean erori eta hanka hautsi zuen, eta horregatik ez zen ekainean Bilboko batzarrera joan.²⁷⁰ P. Zamarripa, orobat, 24 aldiz agertu zen, Bilboko bileretara huts egin gabe. Donostiako nukleoa ez zen hain egonkorra, J. Urquijo karlista ospetsua zen babes politikoa ematen zuena eta itzal horren ingurura noizbehinka biltzen ziren R. Inzagaray (6 aldiz baino ez, 1947an hil arte) edota A. Irigaray (11 aldiz), errepresioak sortutako izuaren menpeago zeudenak. A. Irigarayk kargua onartu ondoren, 1942an Donostian egindako batzarretara joan zen Iruñetik, baina gero utzi egin zion, seguru asko BMGren amaierak sortutako ezinegonagatik. 1944ko urrian, Donostiako Ategorrietan bizi zela, idazkariari adierazi zion ezin zuela batzarretara joan mediku lanagatik.²⁷¹ 1945-1947an batzar banatarra agertu ondoren, 1948tik aurrera baino ez zen hasi sarriago agertzen. I. M. Echaide GPDko ingeniari integrista, ordea, susmopean egoteko arrisku gutxiagorekin, bi aldiz gehiago (22) agertu zen tarte horretan.²⁷²

1940ko hamarkadan N. Oleagaren batzar agiri zirriborro bakarra dago, agiri mekanografiatu ofizialetan islarik ez duena. Horren arabera, Donostian 1943ko irailaren 24an bildu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga. I. M. Echaidek F. Krutwig urgazle berriaren «Unificación literaria de los dialectos vascos» txostena irakurri zuen. Euskaltzainburuak, aldiz, 1925ean *Euskeran* agertutako lan bat: «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt». Azkenik, A. Tovar Salamancako katedradunaren idazki bat irakurri zuten, *Euskeran* agerkariari berriz ekiteko aukeraz. Seguru asko porrot egin zuen egitasmo arantzatsu hori da agiri horri ofizialtasunik ez ematearen arrazoi nagusia.²⁷³ Bestalde, G. Maidagan diruzainaren batzar dieten ordainketak erakusten dutenez, beste hiru batzar izan ziren ez agiri mekanografiaturik ez agiri zirriborrorik dutenak: 1941eko azaroan, 1943ko apirilean eta 1947ko maiatzean.²⁷⁴ Batzar horien partaideak eta tokia

²⁶⁹ KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1948-09-20 eta R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1948-10-04.

²⁷⁰ KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Gárateri, 1949-04-06.

²⁷¹ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1944-10-01.

²⁷² Honela banatzen dira zehazki 1941-1949 arteko partaidetzak: R. M. Azkue (48), N. Oleaga (48), J. Urquijo (38), P. Zamarripa (24), I. M. Echaide (22), A. Irigaray (11), F. Krutwig (9), J. Irigoyen (8), R. Inzagaray (6), J. C. Guerra (3), J. M. Seminario (2), J. Elissalde (2), B. Echegaray (1), P. Lhande (1), P. Lafitte (1), L. Dassance (1), F. Belausteguigoitia (1) eta A. Tovar (1).

²⁷³ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1943-09-24.

²⁷⁴ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzarretako dieta eta osteren likidazioa, 1941-1949.

baino ez ditugu ezagutzen. Azkenik, diruzainaren liburu nagusiak beste batzar ezezagun bat adierazten du 1948ko irailean, baina ez dago inolako dietaren agiririk, eta ondorioz ez ditugu ez partaideak ez tokia ezagutzen. Aipatu dugunez, J. Urquijok eroriko bat izan zuen 1948ko irailean eta agian horrekin lotuta dago gabezia hori.²⁷⁵

Euskaltzaindiaren hiru hankako mahaia, beraz, R. M. Azkue-N. Oleaga-J. Urquijok osatu zuten gerraondoko lehen hamarkadan. ALVren jardun eskasa ikusita, 1947ko irailean Donostian bildutakoek (R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide, A. Irigaray eta N. Oleaga) ondoko oharra egin behar izan zuten: «Batzarretara uts barik etorri daitezala euskaltzainai eskatutea erabagi da gero» (ALV 1956: 328). 1940ko hamarkadan, batzarrak salomonikoki erdibana egin zituzten Bilbo-Donostian, txandaka oro har. Bilbon, Ribera kaleko betiko egoitzan izan ziren ia beti. Salbuespen gisa, BPDaren jauregiko JCVren gelan bildu ziren 1942ko otsailean, eta J. M. Seminarioren 1949ko sarrera ekitaldia ere bertan izan zen. Donostian ezin ziren EI-SEV desagertuaren egoitzan batzartu, gerra aurrean bezala. Ondorioz, GPDra jo zuten laguntza bila. Hasieran, San Telmo Museoan bildu ziren, J. C. Guerrak baimena eskatuta. Horren heriotzaren ondoren, Donostiako batzarrak GPDko jauregian egin ziren. R. M. Azkuek eskatuta, eta I. Lasquibar Buen Pastor elizako erretorearen laguntzari esker, F. Aramburu presidente karlistak ALVri baimena eman zion GPDko bibliotekan batzarrak egiteko 1942ko urtarrilean.²⁷⁶ Argitaratutako agirietan ez da zehazten jauregiko gela zehatzik, baina 1942ko gaztelaniazko batzar agiri batean bibliotekan izan zela adierazten da.²⁷⁷ Une zehaztugabe batetik aurrera, Donostiako batzarrak I. M. Echaide funtzionarioaren bulegoan egin ziren, solemnitaterik gabe, ahal zen diskrezio handienarekin. Aro berri bati ateak zabaldu nahiz, Baiona-Iruñean batzar bana egin zituzten 1950eko udan, euskaltzain berrien sarrera ekitaldiak ospatzeko, baina horrek ez zuen iraungo, ikusiko dugunez.

1920ko barne erregeletan ezarrita zegoenez, euskaltzainburuak otoitzarekin hasten zituen batzarrak: «Aita ta Seme ta Gogo guren Jainkoaren izenean, bere Ama Andre Mariaren magalpean eta Euskaleñiaren onerako as dezagun esertaldi hau = En nombre de Dios Padre, Hijo y Espíritu Santo; bajo el amparo de su Madre María Santísima y en servicio de Euskaleña, queda abierta la sesión» (ALV 1920b: 6). Azkenik, euskaltzainburuak batzarrari amaiera ematen zion «Gloria Patri» otoitzarekin, eta

²⁷⁵ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941-1949.

²⁷⁶ ABA-RMA: F. Arambururen gutuna I. Lasquibarri, 1942-01-24.

²⁷⁷ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiria gaztelaniazko kopia, 1942-02-27.

gainerako kideek erantzuna ematen zioten zutik. ALVren konfesionaltasunaren erakusgarri, erakunde gisa dohaintza egin zuen V. Berrio-Ochoa kanonizatzearen alde 1949an.²⁷⁸ Euskaltzain hilberrien alde ere (A. Campión, J. B. Egusquiza, J. C. Guerra edota R. Inzagaray) otoitz egin zuten. Fededun zintzoez osatutako batzarrean, salbuespenak F. Krutwig eta lehenago G. Lacombe izan ziren. G. Lacombe agnostikoaren heriotzaren berri eman zenean 1947an, batzarrak ez zuen otoitzik egin (ALV 1956: 328; cf. Murua Uria 1997: 73).

Aurreko batzar agiria irakurri eta onartu ondoren, nagusiki txostenak irakurtzen ziren. Euskaltzainburu nekaezinak ia hutsik egin gabe aurkeztu zuen txosten laburren bat batzar guztietan. Alde batetik, *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949) liburu bilakatuko ziren zatiak aurkeztu eta eztabaidatu zituen. Bestetik, bere *Morfología vasca* (1925) liburuari egindako gehigarri edo ohar modukoak. Batzar agirien arabera, hauek izan ziren euskaltzainburuak aurkeztutako txostenak: «Diferencias más notables entre el vascuence y las lenguas cultas» (1941-04-28, 1941-05-29, 1941-06-26, 1941-09-25, 1941-10-30, 1941-12-20, 1942-01-30, 1942-02-27, 1942-10-29, 1942-12-18, 1943-02-26);²⁷⁹ G. Bähr-en «Das Baskische» artikulua itzulpena (1942-03-26); txostena haur hizkuntzaz (1942-04-24); I. M. Echaideren sarrera hitzaldiari erantzuna (1942-07-24); W. Schmidt-en *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde* liburuaren iruzkina (1943-06-25, 1944-03-31, 1944-09-29); «Cuestiones de semántica» (1943-11-26); «Sufijos vascos que equivalen a los de otras lenguas» (1944-01-28); «Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del Tratado de Morfología Vasca» (1944-05-26, 1945-01-26, 1945-05-25, 1945-09-28, 1945-11-30, 1946-01-25, 1946-03-29, 1946-05-31, 1946-09-27, 1947-11-29)²⁸⁰; «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas» (1946-11-28, 1947-01-31, 1947-03-28, 1947-09-26, 1948-04-02);²⁸¹ eta «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca de Berlín de los manuscritos de Guillermo Humboldt a 5 de agosto de 1922» (1943-09-24, 1949-01-28). Azken hori

²⁷⁸ ABA-EUS: «Secretariado de Propaganda Pro Canonización del Bto. Valentín de Berrio-Ochoa» delakoaren ordainagiria, 1949-01-07.

²⁷⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren «Estudio de las diferencias más notables y curiosas coincidencias entre el vascuence y algunas otras lenguas», [1941-1943].

²⁸⁰ ABA-RMA: R. M. Azkueren «Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del tratado de Morfología Vasca», [1944-05-26]; «Dos casos de excepción raros y curiosos. Grupos articulados», [1945-05-25]; «Algunas curiosidades lingüísticas», [1945-09-28]; «Un caso curioso de epéntesis en nuestra numeración. Algunas geminaciones que antes no se expusieron», [1945-11-30], «Curiosidades lingüísticas», [1946-01-25]; «Nuevas curiosidades lingüísticas», [1946-03-29].

²⁸¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas», [1941-1948].

1925ean *Euskera* agerkarian argitaratutako idazlana izan arren, R. M. Azkue zaharraren lanerako gaitasuna gerraondoan harrigarria zen, batzarretatik kanpo *EY-LPPV*ren (1942-1947) liburuki berriak prestatu eta *Latsibi* eleberria berridazten jarraitzen baitzuen (Kintana Goirieta 2008: 305).

P. Zamarridak ere hainbat txosten aurkeztu zituen, oro har morfologiaz, euskaltzainburuari jarraituta, baina baita bertsoen batzuk ere. «Conjugación familiar masculina y femenina» (1943-06-25); «La conjugación familiar o dialogada» (1943-11-26); «Los vocablos *urte, aste, ile, ordu*, etc. en dos distintos casos», «El participio en *iko* o *tako*» eta «El sufijo distributivo *na*» (1945-05-25); «Pro-preposiciones» eta «Bertsoberriak» (1945-11-30); «Conjunción *ta* con significación causal» eta «Conjunción *ta* significando y compañía» (1946-03-29); «El artículo determinado sin valor traductivo», «Particularidades de *beste*» eta «Jesus on-ona» izeneko bertsoak (1946-09-27); «*Bete* reemplazando a *bat*» (1947-01-31) eta «Vocablos monosílabos vizcaínos» (1949-01-28). 1946ko irailean irakurri zituen biak, garrantzi gutxiko gramatika oharrak izan arren, *BRSVAP*en argitaratu ziren (Zamarridak y Uruga 1947c; 1948).

I. M. Echaidek, halaber, gogotsu ekin zion txostengintzari 1942-1943 artean, baina gero utzi egin zion lanak aurkezteari: «Jatorrizko euskeraren asterpenaldia» sarrera hitzaldia (1942-07-24) eta «Elementos de las flexiones verbales con significación propia» (1943-02-26). Azken txosten horren jatorria 1942ko abenduaren 18ko batzarrean izandako eztabaida izan zen. Lehenengo gutunez bidali zion J. Urqujori, aditz flexioek berezko esanahia zutenaren aurkako iritziarekin.²⁸² Gero, sarrera hitzaldiarekin batera, bere *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* liburuari erantsi zion, gerraondoko ALVren lehen emaitza argitaratutzat jo daitezkeenak (Echaide 1944: 507-518). Bestalde, I. M. Echaidek F. Krutwigen «Unificación de los dialectos vascos» txostenaren azterketa egin zuen (1943-09-24, 1943-11-26, 1944-01-28). A. Irigarayk, ordea, ez zuen txostenik aurkeztu, soilik euskarazko ikasliburu bat prestatzen ari zela adierazi zuen batzar batean (1948-11-26). Handik bost urtera, A. Ibinagabeitia *Euskera irudi-bidez = Nuevo método de euskera básico* (1953) argitaratzeaz zegoenean, Nafarroako medikuak azaldu zizkion bere ikasliburuaz zenbait xehetasun: «Badakit euskara metodo bat egiten ari zareala; nik aspaldi ene aurrekin erabilitako bat asmatu nuen; baiñan ez nintzan ausartu argitara

²⁸² KMK-JU: I. M. Echaideren gutuna J. Urqujori, 1942-12-22.

ematea; oraindik yendea minberaegi da, erdaratikako hitzekin...».²⁸³

J. Urquijok txosten bakarra aurkeztu zuen, iberiar idazkunez (1945-03-23). Hala ere, Espainia-Frantzian egiten ziren ikerlanen berri ematen saiatu zen. Hurrengo ikerlanak izan zituen hizpide batzarretan: F. Castro Guisasaolaren *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* eta *Léxico etimológico del euskera* idazlanak (1944-05-26, 1944-11-24, 1946-03-29); R. Lafonen *Le système du verbe basque au XVIIe siècle* tesia (1946-03-29, 1946-05-31) edota R. Lafon-G. Lacomberen «Indo-européen, basque et ibère» (1936) eta G. Lacomberen «Structure de la langue basque» (1938) artikuluak (1946-05-31). Lan horiek bere harreman sareari esker lortu zituen, egileek bidalita edota, A. Tovarren bidez, Biblioteca Nacional de España-ko alearen fotokopiak eskuratuta.²⁸⁴ Dena dela, gerraondoko Euskaltzaindia, ez zuen gauza ikusten ikerketa lerroan aurrera egiteko, A. Tovarri aitortu zionez: «En reserva, diré a V. que, durante mi estancia en Bilbao, Azkue me declaró que la verdad era que él no entendía mi artículo sobre la inscripción de Liria».²⁸⁵ Gauza bera gertatu zitzaion H. Schuchardt-en «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco» idazlana (G. Bähr-ek gaztelaniara itzulita) irakurtzen hasi zenean: «Yo empecé a leerlo en una sesión de nuestra pequeña Academia, pero sus miembros me declararon que no lo entendían».²⁸⁶

ALVren buletin ofizialik ezean, txosten horietako gutxi batzuk, egokituta eta Euskaltzaindian irakurritakoak zirenik aipatu gabe, *BRSVAP*en agertu ziren. J. Urquijorenak, «La famosa inscripción ibero-vasca de un vaso de Liria» (1945) eta «Una tesis doctoral de lingüística vasca del Dr. René Lafon, publicada por la Universidad de Burdeos» (1946). J. Urquijok, R. Lafonen tesiaren iruzkina baliatu zuen, halaber, euskal aditzaren pasibotasuna eztabaidatzeko. Bestalde, Valentzian agertutako iberiar idazkunari P. Beltránek emandako euskarazko interpretazioa (berak «gudua deisdea» irakurri zuen) ukatu eta J. Caroren ikerlan antieuskoiberista goraiatu zuen.²⁸⁷ Hizkuntzalaritzaren erabilera tesi separatistak nahiz antiseparatistak bultzatzeko, Euskal Herriaren historia politikoan guztiz errotuta zegoen. C. C. Uhlenbeck-en autoritatearen itzalpean, J. Arteche agertuko zen Donostiako egunkarian euskoiberismoaren aurka: «[L]os antepasados de los actuales vascos habitaban el país, cuando los iberos, viniendo como conquistadores,

²⁸³ ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-05-08.

²⁸⁴ ABA-ATO: J. Urquijoren gutunak A. Tovarri, 1945-02-11, 1945-10-07 & 1946-03-07.

²⁸⁵ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-11-16.

²⁸⁶ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-12-30.

²⁸⁷ KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1945-04-03.

probablemente del África del Norte, inundaron la Península Ibérica» (*La Voz de España* 1948-02-26). Egunkariko aipamen hutsak ezinegon eragin zion J. Urquijori, irakurketa politikoak begien bistakoak zirelako diputatu tradizionalista ohiarentzat (cf. Yrizar 2001: 44-45).²⁸⁸

F. Krutwig urgazle gaztea 1948 arte bi aldiz baino ez zen agertu batzarretara agirien arabera: 1943ko otsailean eta 1944ko martxoan. Ordura arte urgazle soil izateak, merkataritza ikasketek eta soldadutzak eragotzi zioten parte gehiago hartzea. Dena dela, txosten ugari bidali zituen batzarretan irakurriak izan zitezen: «Retrosceso del vascuence y remedios» (1943-02-26), «Unificación de los dialectos vascos» (1943-09-24, 1943-11-26), «Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana» (1944-01-28), «Introducción a una heráldica vasca. Del léxico. Primera parte» (1944-11-24) eta «Para una vascolología científica» (1945-03-23). 1947ko azaroan euskaltzain izendatu zuten eta hurrengo batzarrean ez zen egon, baina beste kide batek irakurri zuen haren «De la índole estática y dinámica de los conceptos y de la forma interna de las lenguas» (1948-01-30) txostena. Ordutik aurrera, ordea, batzar guztietara agertu eta Euskaltzaindiaren motorra bilakatu zen. Batzar agiriek diotenez, hurrengo txostenak irakurri zituen: «Del parentesco de la lengua vasca con otras lenguas asiáticas» (1948-05-28), txosten luze izengabea (1948-11-26), «Mística, magia y lingüística» (1949-01-28), «Estudios vascos de filología comparada» (1949-03-25), J. M. Seminariori erantzun hitzaldia (1949-06-25), ALVren erreforma txostena (1949-09-30) eta «Antzundu philologia» (1949-11-25).

Komisario politikoez den bezainbatean, garrantzi gutxikotzat jo zituzten Euskaltzaindiko eginkizunak. J. Irigoyen JCVren gizonari, Espainaiako Gobernuak babes osoa erakutsi zion 1941eko urriaren 4an, «Gran Cruz de Alfonso X el Sabio» delakoa emanda.²⁸⁹ R. M. Azkue-N. Oleagarekin batera, lexikografia batzordeko kide izendatu zuten 1941ko lehen batzarrean, seguru asko JCV inplikatzeko asmoarekin. Hala ere, zortzi batzarretan baino ez zuen parte hartu. 1941-1942an JCVk antolatutako ikastaroen eta CSICen asmoen berri eman zuen. 1942an bi aldiz eta 1943an behin bakarrik agertu zen, eta gero utzi egin zion joateari. 1949ko ekainean jakinarazi zuten, J. Irigoyenek

²⁸⁸ Euskoiberisten artean, R. Menéndez Pidal RAEko zuzendaria nabarmendu behar da. Filologo ospetsuenek ere eztabaida politikoan parte hartu zuten, bereziki LMGko nahiz EBeko erreibindikazio autonomistei aurre egiteko, baina diktadura frankistan ere jarrera berari eutsi zioten (García Isasti 2004).

²⁸⁹ «Ordenes de 15 de septiembre y 3 y 4 de octubre de 1941 por las que se concede a los señores que se mencionan el ingreso en la Orden civil de Alfonso X el Sabio, con la categoría de Gran Cruz». In: *BOE*, 1941-10-13.

kargua utzi zuela eta, ondorioz, Euskaltzaindiak JCVko beste ordezkari bat izendatu behar zuela. J. M. Seminario falangista izango zen lagun hori (ALV 1982: 5). E. Esparza, bestalde, ez zen inoiz ere agertu. Nabarmenki, ez zuen Euskaltzaindiaren berri eman hiru hilabete oro *Príncipe de Viana* aldizkarian idazten zuen «Los trabajos y los días» izeneko kultur kronikan. Aitzitik, ez zuen erraztasunik izan, 1940ko hamarkadan Iruñean batzarrik egin ez baitzen. Soilik M. Lecuonaren Iruñeko sarrera ekitaldira agertuko zen 1950ean, baina ordurako uko egin zion euskaltzain izateari. Gorabehera horien ondorioz, Euskaltzaindia berehala impasse batean sartu zen, agintari frankisten kontrolaz den bezainbatean.²⁹⁰

Batzarretan, liburu berriak iruzkindu edo JCVk antolatutako ekitaldien berri eman zituzten. JCVren 1941eko jakinarazpen ofizialak aipatzen zuen zeregin akademikoetako bat, *Euskera* buletina berriz argitaratzea, 1953 arte izoztuta geratuko zen. ALVren egoera ez normalizatuaren erakusgarri, euskaltzain berriek oro har ez zuten sarrera hitzaldirik egingo. Salbuespen bakarra I. M. Echaide izan zen, euskaltzainburuak erantzun zuen «Jatorrizko euskeraren azterpenaldia» izeneko hitzaldiarekin.²⁹¹ Batzarrera, 1942ko ekainaren 24an, barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea bildu zen: R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, A. Irigaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga. Hala ere, GPDaren jauregikoa barne ekitaldia izan zen, publikorik gabea. I. M. Echaidek *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* (1944) liburuan erantsi zuen Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia, agerkari ofiziala etenda baitzegoen. Oker ez banago, hori da gerraondoko Euskaltzaindia erakunde bizitzat jotzen duen lehen aipamen inprimatua. Hala ere, liburuko gehigarri hutsa zen, sarrera hitzaldia noiz eta non egin zen zehazten ez zuena, testuari 1942ko ekaineko data emanagatik: «Discurso de ingreso del autor en la Academia de la Lengua Vasca» (Echaide 1944: 507). «Jatorrizko Euskeraren azterpenaldia = Ensayo sobre el primitivo Euskera» gaztelaniazko sarrera hitzaldian

²⁹⁰ E. Esparzak ALVn parte ez hartzeko arrazoen artean, J. Urquijorekiko etsaitasuna sumatu uste dut. RAEko sarrera hitzaldia egin zuenean, E. Esparzak euskaltzain karlistari eraso egiteko baliatu zuen aukera: «De lingüística vasca no saben más que aquellos para quienes el euskera es un cuento chino» (*Diario de Navarra* 1929-11-29). Eskuindarren arteko tirabiretan, agian jeltzaleekiko hurbiltasuna leporatu zion E. Esparza sektarioak. Ezinikusia berriz askatu zuen J. Urquijok 1932an *RIE*Vn argitaratutako idazlan kritiko bateko ondorioak barregarri utzi nahi izan zituen *Príncipe de Viana*n. J. Urquijorentzat, antza, «todo hallazgo ha de participar, para ser interesante, del sensacionalismo del de la bomba atómica» (Esparza 1945: 487). Gerraondoan, agian Conde de Rodezno-k irudikatzen zuen tradizionalismo frankistarekin publikoki bat ez egitea zen barkatzen ez ziona. E. Esparzak, halaber, huts egin zuen RSVAPen Azkoitiko omenaldian eta ez zion aipurik eskaini bere «Mi Gacetilla» atalean (cf. *Diario de Navarra* 1949-06-24).

²⁹¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren «Contestación al escrito de entrada en la Academia de la Lengua Vasca, de D. Ignacio Maria Echaide», 1942-06-19.

protoeuskararen aditza berreraikitzen saiatu zen, Bibliaren monogenismoa eta hizkuntzalaritza historikoa uztartu nahian:

Profésase, como la más abonada, la opinión de que todas las lenguas que pueblan el Universo proceden de un cierto número de troncos, entre sí irreductibles, ¿Porqué han de ser irreductibles y porqué han de tener, a su vez, un origen común como la especie humana? En este problema, como en todos los fundamentales para la Humanidad, la Santa Biblia (Gen. Cap. XI) aporta la explicación que no ha podido ser rebatida por ninguna investigación científica fundada (Echaide 1944: 507).

Hurrengo batzarrean, 1942ko urrian, F. Krutwig gaztea izendatu zuten urgazle; Bizkaiko gizarte frankistako beste kide bat (ALV 1956: 321). Hori da ALVren jarduera eskasa gerraondoko lehen urteetan. Biziera estu horren erakusgarri, 1944ko martxoan, euskaltzainburuaren irakurraldia poliziak eten egin zuen Ribera kaleko egoitzan: «Onetan daragoiola, Ertzain bi agertzen dira, Euskaltzaindia'ren zertzeladak jakin gurean. Egin dabezan itaunari egoki erantzunik, eskaturiko agerbideak emon jakoz» (ALV 1956: 323). Badirudi poliziak uste zuela ALVren batzarrak legez kanpoko euskara eskolekin zerikusia zuela. Batzartutakoak R. M. Azkue, J. Urquijo, N. Oleaga eta F. Krutwig ziren.

Euskaltzaindiaren batzarretako salbuespen politiko nabarmena F. Belausteguigoitia urgazlearena izan zen, 1942ko urrian. Frankismoak adineko erbesteratuei eskainitako amnistiarekin, bere familiak nekez lortu zuen baimena, baina azkenean 1941ko uztailean itzuli zen Getxora Tanger-etik. Alabak zioenez, bere aita ez ezik, M. Arruza-J. Solaun jeltzaleak ere bildu ziren garai horretan Ribera kaleko egoitzara. Baina 1943tik aurrera F. Belausteguigoitia makaldu eta 1947ko uztailean hil egin zen (Belaustegigoitia 1989: 38-41).

Euskaltzainez den bezainbatean, 1947ko uztailean hil zen G. Lacombe, eta 1947ko azaroan R. Inzagaray. ALVk bien heriotzaren berri eman eta familiei doluminak ematea erabaki zuen. Euskaltzaindiak buletinik argitaratzen ez zuenez, ordea, beste erakunde batzuen esku geratu zaien haiei gorazarre egitea. Erbesteko *Eusko-Jakintzan* G. Lacomberen nekrologia eta euskal bibliografia argitaratu zuten. Gipuzkoako *BRSVAP*, ordea, mutu geratu zen; EJ-GEren *Euzko Deyak* artikuluak eskaintzen zizkion bitartean (Gavel 1947; Bilbao 1947; Larronde 1997: 223). R. Inzagarayren heriotzaren berri, bestalde, Donostiako prentsak eman zuen. F. Arocenak ez zuen nekrologiaren aukera galdu purismo inplizituki abertzalearen aurka egiteko: «su prosa, huidora de neologismos

que han sido lepra de nuestro idioma» (*El Diario Vasco* 1947-11-30).²⁹²

5.8 Bigarren Mundu Gerra ondoko izendapen berriak

1947-1948 artean ALVren bigarren giza berritzeari ekin zioten, 1941-1942an jarduera barnealdean berreskuratu zenetik. BMG bukatuta eta Falange-ren eragina gutxituta, Euskaltzaindia aktiboago agertzeko aukerak somatzen ziren. Hala ere, zorrozki bete ziren diktaduraren baldintza politikoak. Horren froga da R. M. Azkuek aholku bila jotzea I. Lasquibar Donostiako Buen Pastor-eko erretorearengana 1947ko abuztuan:

El viernes próximo tendré ocasión de saludarte y de oír de tus labios curiosas noticias del palacio de Ayete y de los ilustres personajes que se han hospedado en él.

Como tratamos de dar más vida a nuestra Academia, quisiera que tú me dieras a conocer un par de competentes euskerólogos guipuzcoanos y a algún navarro.²⁹³

«Orban» jeltzalerik gabeko bost urgazle berri izendatu zituzten. Alde batetik, Madrilen bizi ziren bi funtzionario: J. Caro Baroja-P. Yrizar. Bestetik, hiru unibertsitate irakasle: A. Tovar-J. Vallejo-A. Bausani. Bost urgazleen izendapenak koiunturazkoak izan ziren, inor ez baitzen euskaltzain izatera iritsi, nahiz eta batzuk ekarpen garrantzitsuak egin ikerketaren arloan. Hain zuzen, J. Urquijo oso pozik zegoen, guzti horien lanek euskal ikasketak lehen planora ekarriko zituztelakoan. Bitxia da, baina P. Yrizar-J. Caro urgazle 1947ko martxoan izendatu zituzten arren, ez zuten horren berri jakingo urtebete igaro arte; beste hirurak ere 1948ko urtarrilean urgazle izendatu zituzten arte, alegia (ALV 1956: 327-329).²⁹⁴

Atzerapen horren zergatia nire ustez J. M. Barandiaranen 1947ko gutuna eta J. Bilbaoren bisita izan ziren, J. Urquijori erbesteko kulturgintzaren berri zuzena eman zizkiotenak.²⁹⁵ Frantziako sare intelektualarekiko bakartuta geratzeko arriskuaren aurrean, Euskaltzaindiak urgazleak izendatu zituen Madrilen, Salamancan eta Erroman. J. Urquijok ahal zuen neurrian isilpean gorde zuen Euskaltzaindiaren gerraondoko jarduna, abertzaleengandik jaso zitzakeen eraso beldurrez. 1948ko otsailean J. Bilbaok

²⁹² cf. *La Voz de España* 1947-11-30.

²⁹³ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibari, 1947-08-23. Urte horretako uztailean ospatu zituzten Buen Pastor-eko elizaren urrezko ezteiak eta bazkari ofizialeko gonbidatuen artean R. M. Azkue egon zen, G. Cicognani nuntzioarekin edota J. Zaragüetarekin batera (Antía Munduate 1999: 136-137).

²⁹⁴ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agirien kopia mekanografiatuak, 1947-03-28 & 1948-01-30.

²⁹⁵ KMK-JU: J. M. Barandiaranen gutuna J. Urquijori, 1947-07-01.

Saratik gutunez jakinarazi zion J. Urquijori, EIL-SIEB sortu zutela ezagun zahar eta abertzalez osatutako zuzendaritzarekin.²⁹⁶ Azkenean, 1948ko apirilean bidali zituzten jakinarazpen ofizialak Bilboko egoitzatik.²⁹⁷ ALVren artxiboan guztien esker oneko erantzun adeitsuak gordetzen dira, Italiako A. Bausanirena izan ezik.²⁹⁸ Euskaltzaindiak izendapen horiekin, nolabaiteko babesa edo laguntza bilatzen zuen erakunde zientifikoetan. Baina alde horretatik ez zuen ondoriorik izan, eta ALVk Bizkai-Gipuzkoara mugatutako bere jardun motelarekin jarraitu zuen.

Pedro Yrizar eta Julio Caro Baroja

Pedro Yrizar Barnoya (1910-2004) Gipuzkoako Azkoitian jaio zen, familia eskuindar batean, eta karlistekin egin zuen EGZa. Joaquín Yrizar (1893-1979) anaia nagusia GPDko presidenteorde izatera iritsi zen 1940ko hamarkadan eta J. Urquijoren hurbileko lankidea izan zen RSVAPen. P. Yrizar poliglota Instituto Geográfico Nacional-eko ingeniaria zen eta dialektologo hasiberria. Euskaltzainburuarekiko harremana 1944an hasi zuen, hainbat liburu eta aldizkari erosi zizkionean, eta Madrilen familia arteko zenbait arazo ekonomiko ere bideratu zizkion R. M. Azkueri.²⁹⁹ Beste askok bezala, bere burua J. Urquijoren dizipulutzat izan zuen. Euskaltzain zaharrak paternalismoz deskribatu zuen: «Es muchacho listo y bastante preparado».³⁰⁰ P. Yrizarrek 1948ko otsailean ahoz izan zuen urgazle izendapenaren berri, bere anaiaren bidez. Horren arabera, ez zuten 1947an izendatu, baizik eta 1948ko lehen batzarrean, J. Urquijoren ekimenez.³⁰¹ Donostiako euskaltzainari eskerrak emateaz gain, CSICen Patronato José M^a Quadrado de Estudios e Investigaciones Locales sortu berriko ohorezko kontseilari izendatu zutela jakinarazi zion, Madrilgo *Ya* egunkarian irakurritakoaren arabera.³⁰²

P. Yrizarren ustez, J. Urquijoren ospea eta *BRSVAP* aldizkaria izan ziren euskalarientzat babes eta aterpe nagusia diktadura frankistan. 1949tik aurrera P. Yrizar

²⁹⁶ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-02-13.

²⁹⁷ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren gutunak J. Vallejo-J. Caro-A. Tovar-P. Yrizar-A. Bausaniri, 1948-04-02.

²⁹⁸ ABA-EUS: J. Caroren (1948-04-07), A. Tovarren (1948-04-07), P. Yrizarren (1948-04-15) eta J. Vallejoren (1948-05-14) gutunak Euskaltzaindiari.

²⁹⁹ ABA-RMA: R. M. Azkue-P. Yrizar arteko gutunak, 1944-1945.

³⁰⁰ KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Gárateri, 1949-06-09.

³⁰¹ KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1948-02-14.

³⁰² KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1948-05-21.

RSVAPen Madrilgo ordezkari ofiziala izan zen, bereziki CSICekiko harremanetan.³⁰³ Bera izango zen Euskal Herriko hizkuntz atlasa abiatzeko egitasmoaren sustatzaile nagusia, nahiz eta bere kasa hasi behar izan zuen L. L. Bonaparteren lana eguneratzen. Hamarkada horretan, *BRSVAPen* «Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco» (1947-1948) eta «Sobre los nombres de hermano y hermana» (1949) argitaratu zituen, baita «Los dialectos y variedades del vascuence» (1949) ere RSVAPen omenaldiko liburuan. P. Yrizarren memorietan oso argi azaltzen da gerraondoan J. Urquijoren inguruan gauzatu zen nazioarteko sarea. Adibidez berak jarri zuen C. C. Uhlenbeck-ekin harremanetan, eta Herbeheretako hizkuntzalari ospetsua 1951n hil zenean, P. Yrizarrek idatzi zuen nekrologia *BRSVAPen* (Yrizar 2001: 31-68).

Julio Caro Baroja (1914-1995) Madrilen jaio zen. 1938ko abuztuan idatzi zion euskaltzainburuari, *DVEF* eta *EY-LPPV* idazlanen ale bana erosi nahi zituelako.³⁰⁴ R. M. Azkuek adeitsuki erantzun zion, Pío Baroja osabak berataz hitz egin ziola IdeE-ko ekitaldian.³⁰⁵ J. Urquijorekiko harremana ere 1938an berreskuratu zuen. Nafarroako Beratik Donostiara joan ohi zen J. Urquijorekin egotera. Osabaren goraintziak eman eta euskal ikasketez aritzen ziren, baita RAEko edo ministerioetako gorabehera politikoez ere (Caro Baroja 1972b: 333, 337, 346-347).

1940an SEAEPko idazkariorde izendatu zuten, eta hurrengo urteko maiatzean historiako doktoregoa eskuratu zuen Madrilen. 1941ean J. Urquijo bera izendatu zuten SEAEPko kide.³⁰⁶ Kontuan hartu behar da BMGko urte horietan Espainiako arkeologiaren burua J. Martínez Santa-Olalla filonazia zela. J. Carok gutunez adierazi zionez, horrek ere *RIEV* Madrilen berpizteko asmoa izan zuen.³⁰⁷ Barojatarra hizkuntza paleohispanikoak ikertzen ari zen, baina ez zetorren bat inperialismo arraziologiko ofizialarekin.³⁰⁸

Hain zuzen, euskararen gaia Madrilen agerrarazteko, J. Martínez Santa-Olallak zuzentzen zuen SEAEPko *Atlantis* aldizkarian «Retrosceso del vascuence» artikulua

³⁰³ KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1949-05-17.

³⁰⁴ ABA-RMA: J. Caroren gutuna R. M. Azkueri, 1938-08-20.

³⁰⁵ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Carori, 1938-08-26. Badaezpada, J. Carok ez bezala, gutuna baliatu zuen, militar matxinoen aldeko adierazpena egiteko: «Del Diccionario V-E-F quedan aún algunos ejemplares en las oficinas de Ribera, 5 en Bilbao. Había también varios del libro de literatura popular; pero ya no queda ni uno, pues todos desaparecieron antes de la entrada de los nuestros en la villa»

³⁰⁶ KMK-JU. J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1935-1941.

³⁰⁷ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1943-03-29.

³⁰⁸ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, [1942?]. Erbesteko J. M. Barandiaranengan difusionismoak (L. Frobenius) izandako eragina ere kritikatu zuen

argitaratu zuen.³⁰⁹ Artikulu eruditua zen, euskararen muga historiko suprapolitikoak zehazten zituen mapa eta guzti. Euskoiberismoaren aurka egin arren, inposatutako muga ideologikoei men egin zien: «*Euzkadi es una estúpida invención*» (Caro Baroja 1941: 35). Dena dela, CSICeko zuzendaritzak, BMGko porrot faxistaren ondorioz, ez zuen SEAEP babestuko eta J. Martínez Santa-Olalla bera baztertua geratuko zen (Sánchez Gómez 1990).

CSICen itzalpean, *RIEV* berpiztu eta euskara katedra edo irakurleko bat betetzeko ahaleginean parte hartu zuen J. Carok 1941-1943 artean, baina ezerezean geratu zen.³¹⁰ Unibertsitatean aurrera egiteko biderik ezin aurkituta, W. Starkiek zuzentzen zuen British Institute-rako itzultzaile lanak egin zituen. BMGko testuinguruan, A. Tovarren bidez jakin zuenez, «vendido a las potencia extranjeras» zegoenaren zurrumurrua zabaldu zen. Horrek eta familiaren izenak oztopatu omen zion unibertsitatean postu esanguratsurik lortzea.³¹¹

Azkenean, J. Ferrandis-Marqués de Lozoyaren bidez, 1944an Museo del Pueblo Español-eko zuzendari izendatu zuten. 1944ko martxoan, JCVk antolatutako hitzaldia eman zuen Bilbon eta J. Urquijok Euskaltzaindiaren Ribera kaleko egoitzako batzarrera gonbidatu zuen (ALV 1956: 323; Caro Baroja 1972a: 170).³¹² Minduta zegoen T. Aranzadi (1860-1945) antropologo aitzindariaren heriotza oharkabean igaro zelako Espainian.³¹³ Frankistek ezkutuko jeltzaletzat omen zuten eta abertzaleek, ordea, falangistatzat. Halaber, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) liburuak zituen ondorio politikoez jabetzen zen:

No sé qué producirá, pero me temo que a los nacionalistas no les gustará mucho porque se insiste demasiado en influencias latinas, y a los españolistas tampoco, porque se habla de relaciones con las Galias, así es que tendré dos clases de gentes hostiles.³¹⁴

Hain zuzen, A. Irigarayk *BRSVAP*en agertutako iruzkinak asko mindu zuen, liburuko euskararen muga historikoak eta toponimoen etimologiak zuzendu zizkiolako

³⁰⁹ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1942-01-09.

³¹⁰ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1943-05-04.

³¹¹ ABA-ATO: J. Caroren gutuna A. Tovarri, 1944-08-20.

³¹² KMK-JU. J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1944-02-26 & 1944-11-07.

³¹³ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1945-04-03. *BRSVAP*ek T. Aranzadiren nekrologia argitaratuko zuen, P. Garmendiak sinatuta (cf. Ybarra y Bergé 1950: 99).

³¹⁴ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1947-02-17.

(Yrigaray 1947). Oso haserre idatzi zion J. Urquijori 1947ko neguan, erantzuteko eskubidea gauzatuko zuela adierazteko.³¹⁵ Ez zen horrelakorik gertatu, ordea, eta 1948ko udaberriko hurrengo gutunean eskerrak eman zizkion izendapenagatik.³¹⁶ J. Caro harrিতuta zegoen Euskaltzaindiaren jakinarazpenak zituen neologismo ulergaitzengatik. Euskal Herrian jaiotakoa ez zenez, urgazle baino ez zela suposatu zuen. Gutun berean adierazi zion J. M. Barandiaran-R. Lafonekin harremana berreskuratu zuela. RSVAPen omenaldiko liburuan «Cuestiones ibéricas» (1949) argitaratu arren, badirudi J. Urquijorekiko tratua hoztu egin zela, erbesteko ikertzaileekin harremana berreskuratzearekin bat.³¹⁷

Antonio Tovar, José Vallejo eta Alessandro Bausani

Antonio Tovar Llorente (1911-1985), Valladoliden jaioa, EGZa hasi zenean Berlinen zegoen JAEko beka batekin. Falange-n eman zuen izena eta konbertituaren fedearekin eutsi zion ideologia faxistari, Eliza katolikoaren eragina ere mugatu nahiz. Radio Nacional de España-ko buru izan zen Burgosen. P. Sainz Rodríguez ministroak, 1938an hezkuntzako erreforman lankidetzat eskatu zion latinaren irakaskuntzan. Gerraondoan, Enseñanza Técnica y Profesional-eko zuzendari eta Prensa y Propaganda-ko idazkariorde izan zen (Ramos Ruiz 2009: 49-51; Escribano Hernández 2011: 178-179, 182, 486-487; Álvaro Ocariz 2012: 58-59).

Politikagintza aktiboa baztertuta, 1942tik Salamancako Unibertsitateko latin katedraduna zen. Donostiako Círculo Cultural Guipuzcoano ateneoan 1947ko irailean emandako hitzaldian bere euskal ikasketen programa azaldu zuen, aldi berean jeltzaleekiko muga politikoak adierazita:

Quería terminar indicando algunas de las tareas más urgentes y prometedoras en el campo de los estudios vascos, que siquiera de una manera tímida y con carácter voluntario, han entrado por primera vez en España en los planes universitarios.

No se trata, desde un punto de vista científico, de hacer del vascuence una lengua moderna como las demás, ni de rompernos la cabeza para discurrir como diremos en vascuence

³¹⁵ KMK-JU. J. Caroren gutuna J. Urquijori, [1947ko azaroa].

³¹⁶ Badirudi gorabehera horiek ere atzeratu egin zutela Euskaltzaindiak 1947ko martxoko batzarrean egindako izendapenaren jakinarazpena (ALV 1956: 328).

³¹⁷ KMK-JU. J. Caroren gutunak J. Urquijori, [1948ko apirila] & 1949-05-07.

billete de banco o parlamento sin acudir a erderismos. Otras y más científicas son las tareas que deben interesarnos (Tovar 1948: 29).

Hain zuzen, *RIEV* berpizteko saioak huts egin ondoren, Salamancako Unibertsitatean argitaratu zituen J. Caroren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) eta H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947), A. Irigarayk itzulita, J. Urquijorekin hitzaurrearekin.³¹⁸ Baina A. Tovar ez zegoen eroso Eliza katolikoaren eta Opus Dei-ren eskuetan zegoen Espainiako hezkuntza sisteman. 1947ko irailean Buenos Airesko Unibertsitatean hizkuntza pelehispantikoez hitzaldiak eman zituen. Aldi berean, erbesteko abertzaleekin adeitasunezko harremanetan egon zen: I. López Mendizábal, J. Gárate edota I. Gurruchaga. Euskal hiztegi etimologiko bat abiatzeko asmoa agertu zuen, ikasturte horretan euskal filologiako eskolak ematen hasi zelako Salamancan.³¹⁹

1948ko urtarrilean urgazle izendatu zuten eta otsailean eskerrak eman zizkion J. Urquijori izendapenagatik.³²⁰ J. Urquijoren ustez A. Tovar zen, hizkuntzalaritzan zuen heziketagatik, euskal ikasketak Espainian zuzentzeko pertsona egokiena.³²¹ Euskaltzaindiaren Donostiako batzarrean parte hartu zuen 1948ko maiatzean, R. M. Azkue, J. Urquijo, F. Krutwig eta N. Oleagarekin batera: «Azkenez Tovar euskal-urgazle jaunak dino Salamanka'ko Irakastegi Nagosian aurtengo neguan euskal-gaizko irakaskuntzea erabilli dabela. Poz-pozik entzun da barri atsegingarri au» (ALV 1956: 329).³²²

Maiatzean, halaber, Gorteetako prokuradore kargua hartu zuen eta ekainean F. Francok audientzian hartu zuen, baina uztailean Buenos Airesko Unibertsitatara alde egin zuen 1949ko abendura arte, ezinegona aditzera ematen zuena. A. Tovarrek, ideologia faxistari uko egin gabe, gerraondoan euskararekiko estimua agertu zuen, are literatur euskara baten beharra ikusteraino (Tovar 1950: 21, 73-74, 80; Álvaro Ocariz 2012: 83, 99-100).

Sevillan jaiotako José Vallejo Sánchez (1896-1959) Madrilgo Unibertsitate

³¹⁸ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1946-02-10.

³¹⁹ KMK-JU: A. Tovarren gutunak J. Urquijori, 1947-11-14 & 1947-12-20.

³²⁰ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1948-02-12.

³²¹ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-02-11.

³²² ABA-EUS: A. Tovarren agurra Euskaltzaindiari, [1948-05-18].

Zentraleko latin katedraduna zen. A. Tovarrekin batera izendatu zuten urgazle, biak etorkizunean L. Michelenaren mesedegile, nahiz eta elkarrekin ongi ez konpondu (Michelena 2011e: 10). J. Vallejok, esaterako, J. Urquijori 1947an oparitu egin zion Nicolas Esandiren *Vascuence y etrusco* (1946) liburua. Argentinako apezpiku eta IAEVeko buruaren ameskeria filologiko zaharkituak erdeinuz hartu zituen: «Ahí estará mejor entre sus congéneres, y aunque el repertorio de V. de estas obras jocosas es notabilísimo, yo espero que ese Esandi hará un brillante papel».³²³ Dena dela, Sevillako katedradunak ez zuen ekarpenik egin euskalaritzan eta J. Carok, esaterako, garrazki kritikatu zituen haren ikerketak: «Ahora Vallejo ha publicado unas notitas sobre ibérico con algunas alusiones a mis trabajos que no revelan demasiada buena intención en casos y en otros que se entera a medias de las cosas. Esto es muy corriente entre profesores».³²⁴

Alessandro Bausani (1921-1988) Erroman jaio eta bertako unibertsitateko pertsiera irakurlea zen. Oso gaztea izan arren, poliglota eta erlijioen historian aditua zen. Alejandro Esteban Lator (SI) isalmistaren bidez ikasi zuen euskara eta horrek Bilbotik bidalitako gutunean aurkeztu zion J. Urquijori 1947ko apirilean. Halaber, A. Bausanik egindako F. Castroren liburuaren kritika ere bidali zion *BRSVAP*en argitaratzeko asmoarekin.³²⁵ Italiako irakasleak, orobat, «Note sul purismo basco» idazlana bidali zion, Donostiako aldizkarian argitaratuko ez zutena, seguru asko abertzaleak mindu zitzakeen tonu polemikoagatik. Bere ustez euskal purismoak ondorio negatiboak baino ez zituen: «da una parte l'inaridirai progressivo di una lingua artificiale, dall'altra il tradimento della lingua materna e il suo abbandono da parte di uomini geniali come Unamuno».³²⁶ J. Urquijok urgazlerako proposatu zuen eta esker onez erantzun zion Erromatik. A. Bausani euskaraz oso ongi idazteko gauza zen eta 1948ko irailean EIL-SIEBen biltzarrean parte hartu zuen Biarritzen.³²⁷

Federico Krutwig

Federico Krutwig Sagredo (1921-1998) Bizkaiko Getxon jaio zen. Friedrich Krutwig (1892-1970) aita, LMGN Bilbora etorritako Alemaniako industrialaria zen.³²⁸

³²³ KMK-JU: J. Vallejoren gutuna J. Urquijori, 1947-12-23.

³²⁴ KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1947-09-30.

³²⁵ KMK-JU: A. E. Latorren gutunak J. Urquijori, 1947-04-20/1947-06-25.

³²⁶ KMK-JU: A. Bausaniren «Note sul purismo basco», [1947].

³²⁷ KMK-JU: A. Bausaniren gutunak J. Urquijori, 1947-06-30/1948-10-03.

³²⁸ EJM-PZ: Ministerio de Justicia, Registro Civil de Portugalete, tomo 38, folio 277, Sección 3ª.

Isidra Sagredo Mateo (1893-1966) ama, Getxon jaiotako Burgosko etorkinen alaba zen, baita Prudencio Melo (1860-1945) Valentziako artzapezpikuaren iloba ere.³²⁹ Batxilergoa Bilboko Deutsche Schule-n ikasi zuen eta EGZak iraun artean Alemania-Portugalera erbestera zen militar matxinoen aldeko familiarekin. Bilbora itzulita, Deustuko Unibertsitatean abiatu zituen ekonomia ikasketak, baina bertan behera utzi eta Escuela de Comercio-ko ikasketak burutu zituen 1942-1949 artean. Aitak markatutako industrialari bidea baztertu eta euskalgintzan murgildu zen. Familiaren estatus ekonomikoari esker, lanik egiten ez zuen jauntxo gaztea bilakatu zen euskal kulturaren mundu txikian. Poliglota, bere kasa ikasi zuen euskara, eta alemanezko poesia lanak itzuli zituen, Euzkeltzale-Bazkunaren eta P. Zamarriparen metodoez lagunduta. Soldadutzan abantailak lortzeko asmoarekin, hizkuntz gaitasun agiri bila zebilela, aitak N. Oleaga abokatuarekin harremanetan jarri zuen. Uste izatekoa da R. M. Azkue germanofiloak, Bilboko goi burgesia tradizioz erdaltzale eta espainolistan eragiteko aukera ikusi zuela F. Krutwigengan. Itxura germanikoa zuen; ilegorri eta begi argiduna. Jatorri eta formazio ezohikoa erabili zituen, iraganarekiko tabula rasa egin eta euskararen hizkuntza-gizarte arazoei irtenbide berriak proposatzeko (Ugarte Muñoz 2010-2011).

R. M. Azkuek, euskaltzainburu gisa, saritu egin zuen Bizkaiko burgesia frankistan hazitako gazte haren euskaltzaletasuna, 1942ko urriaren 29an urgazle izendatu zutenean. Handik bost urtera, 1947ko azaroaren 29an, R. M. Azkue-J. Urquijo-P. Zamarripa-N. Oleagak, Bilbon batzartuta, F. Krutwig euskaltzain hautatu zuten. JCVk ezarritako baldintza ideologikoak betetzen zituzten kideak aurkitzeko zailtasunekin jarraitzen zuen Euskaltzaindiak. Horren froga da 26 urteko euskaltzain berriaren ezohiko gaztetetasuna, egoera normalean desegokitza jo zitekeena.³³⁰ R. M. Azkue-F. Krutwig arteko harremana estua izan zen, 50 urtetik gorako adin tartea eduki arren. F. Krutwigek aitortu egin zuen euskaltzainburu zaharraren eragina. Orduan ezagutu zituztenek bien arteko harreman bitxia nabarmendu zuten. R. M. Azkuek hainbat agiri baliotsu oparitu zizkion F. Krutwigi: adibidez, J. A. Moguelen *Peru Abarka* idazlanaren 1899ko edizioa egiteko erabili zuen jatorrizko eskuizkribua. Bestalde, F. Krutwigen bidez lortu zuen Ciriaco Párraga pintoreak R. M. Azkueri erretratua egitea hil baino lehenago, 1950eko maiatzean (ALV

³²⁹ Nire 2010-2011ko artikuluan F. Krutwigen aiton-amonak Bureba eskualdekoak zirela oker jaso nuen. Amaren jaiotze agiriak dienez, Montes de Oca-koak ziren (EJM-GZ: Ministerio de Justicia, Registro Civil de Getxo, tomo 9, página 406, sección 1ª).

³³⁰ ALVren lehen 90 urteetan, izendatu zituzten unean, euskaltzainen batez besteko adina 50,5 urtekoa izan zen (Torrealdai & Murua Uria 2009: 141).

1956: 321, 328; Krutwig 1991: 79, 109; Alvarez Enparantza 1995: 129; Yrizar 2001: 69; Michelena 2011d: 562).³³¹

5.9 Federico Krutwigen txostenak Euskaltzaindiaren

batzarretan

Euskaltzaindiaren artxiboaren (ABA-EUS) katalogoaren arabera, 2013ko urtarrilaren 11n, Bilboko Irala liburudendan F. Krutwigen 12 txosten mekanografiatu aurkitu eta eskuratu ziren. Horietako gehienak izengabeak izan arren, F. Krutwigen 1943-1950 arteko ALVren batzarretan aurkeztutakoak dirudite, nahiz eta ordura arte galdua egon:

1. «Similitudes entre las lenguas vasca i húngara [sic]. Similitudes y diferencias entre las lenguas vasca, hungara y finlandesa» (3 orrialde)
2. «Proyecto de unificación de los dialectos de la lengua vasca. Lengua literaria» (5 orrialde).
3. «Plan seguido de la unificación de la ortografía y de la fonética» (5 orrialde)
4. «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía» (11 orrialde, I. M. Echaideren oharrak barne)
5. «Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana. El japonés y el vascuence» (2 orrialde)
6. «De la pintura y los pintores vascos» (1946-06-12, 3 orrialde)
7. «El problema lingüístico y racial de los vascos. El problema de la lengua vasca» (5 orrialde)
8. «Del parentesco de la lengua vasca [con otras lenguas asiáticas] » (2 orrialde)
9. «Hizkuntza Zaharren Ikhertzearen Ansia. Totemizmuaren eta Mystikaren eta Magiaren problematak hulerrtzekotz [sic]» (6 orrialde)
10. «De ortografía vasca. Primera parte: De las letras provistas de signos diacríticos. Segunda parte: De los términos técnicos procedentes del griego y del latín. Tercera parte: De la ortografía de las letras J, I, Y. Cuarta parte: De los sonidos palatales. Quinta parte: De los términos técnicos procedentes del griego y del latín» (12 orrialde)

³³¹ R. M. Azkueren garai bereko beste erretratu bat Lerchundi Sirotych anaiek egin zuten «Galería de celebridades vizcaínas» sailerako eta Bilboko Euskal Museoan gordetzen da (Álvarez & Garay Urresti 2013: 64).

11. «Sobre la ortografía vasca y el vascuence escrito» (14 orrialde)
12. «Sobre los lingüistas» (3 orrialde)

Esate baterako, 1943-1944 artean F. Krutwigek besteren ahoz aurkeztutakoak izan behar dute «Proyecto de unificación de los dialectos de la lengua vasca» edota «Plan seguido de la unificación de la ortografía y de la fonética» agiriek. Bertan alfabeto-ahoskera estandarra proposatu zituen Euskal Herri osorako, seguru asko lehen aldiz EGZa hasi zenetik. Batzar agirien arabera, 1943ko otsailean F. Krutwigen «Retoces del vascuence y remedios» txostena irakurri zen.³³² Bilboko idazkariaren eskuzko zirriborroaren arabera, 1943ko iraileko batzarrean, F. Krutwigen txostenaz arduratu zen I. M. Echaide.³³³ Azaroko batzarrean txostena aztertzen jarraitu zuten: «Echaide jaunak diño orain-arte ezin gertu izan dabela, Krutwig jaunaren *Unificación de los dialectos vascos* deritxon lanaren-gazko txostena, eta lan ori irakurten daragoyo».³³⁴ Azkenik, 1944ko urtarrilean, I. M. Echaidek bere azterketa aurkeztu zuen, eta J. Urquijok, astiroago irakurtzeko, eskatu egin zion (ALV 1956: 322).³³⁵

Nolanahi den, Euskaltzaindiaren artxiboko «Proyecto de unificación de los dialectos de la lengua vasca» idazkian, besteak bestea, hurrengo adierazi zuen: «La letra *h* se usará con la misma amplitud que hoy se hace en Labort».³³⁶ Literatur lapurtera proposatzea, Espainiako frankismo gorrian eta Frantzia okupatuari begira, gaztetasunaren ausardiatzat jo zuketzen adineko euskaltzain eskuindarrek. Hala ere, entzule zituen tradizionalista katolikoei adeitasunez zuzendu zitzaien: «Espero que tengan buena acogida estas cuartillas y que la buena voluntad, coronen Dios mediante, estos esfuerzos pro euskera».³³⁷

F. Krutwigen marka darama, adibidez, lapurteraren ahoskera India-Pakistango hizkuntzekin (urdu-hindia) parekatzeak.³³⁸ Garai berekoa dirudien «Plan seguido en la

³³² Bilboko egoitzan euskaltzain hauek bildu ziren: R. M. Azkue, J. Irigoyen, I. M. Echaide, P. Zamarripa eta N. Oleaga.

³³³ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1943-09-24. Kide hauek bildu ziren: R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga.

³³⁴ Bilbon kide hauek bildu ziren: R. M. Azkue, P. Zamarripa, I. M. Echaide eta N. Oleaga.

³³⁵ Donostian kide hauek bildu ziren: R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide eta N. Oleaga.

³³⁶ ABA-EUS: F. Krutwigen «Proyecto de unificación de los dialectos de la lengua vasca. Lengua literaria» [1943-1944]

³³⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía», [1943-1944]

³³⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen «Proyecto de unificación de los dialectos de la lengua vasca. Lengua literaria» [1943-1944]

unificación de la ortografía y de la fonética» izeneko lanean, ordea, S. Aranek *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* (1896) liburuan ezarritakoa ontzat eman zen, baina euskara estandar bakarrerako. EAJ-PNVren sortzaileak batasuna ortografia-fonetikara mugatu zuen, sei literatur dialekto ezberdinekin, federalismo politikoaren isla. S. Aranaren helburu nagusia erdal interferentzia guztiak ezabatzea zen, batez ere lexikoak.³³⁹ Hain zuzen, Euskaltzaindia hasi berriak 1920an, EAJ-PNVren Bizkaiko gorakada politikoaren presiopean, ortografia hori onartu egin zuen.³⁴⁰ Era berean, Euskaltzaindiaren galdeketa dialektologikoaren materialak eta A. Campión-P. Broussain euskaltzainen *Informe sobre la unificación del euskera* (1920) erabili zituen F. Krutwigek zenbait proposamen egiteko: adibidez, zubererako hotsen ahoskera estandarra.³⁴¹

Euskaltzainburuaren aurrean irakurtzeko egindako txostenak zirenez, nabarmena da nola ez zuen R. M. Azkueren *Gipuzkera osotua* (1935) idazlana zuzenean aztertu. F. Krutwigen arabera, euskaltzainburu zaharrak paternalismoz onartu zuen urgazle gaztearen iritzia (Murua Uria 1997: 72). Izan ere, F. Krutwigen egitasmoa Aro Modernoko literaturan oinarritu zen, eta «h» grafema erabiltzea aldeztu zuen «porque los mejores escritores vascos la han usado».³⁴² Txostenak, esan dugunez, erantzuna jaso zuen I. M. Echaideregandik 1943-1944ko batzarretan:

Esta opinión como todas las humanas es discutible; quienes se han inclinado por una base bizcaina; quienes por una guipuzcoana. Pero el suscripto no halla en la elección del Sr. Krutwig ninguna razón para rechazar en conjunto el proyecto. Hay argumentos poderosos que apoyan dicha elección; los expresa el Sr. Krutwig en su introducción («Plan general») y juzgo ocioso el repetirlos. Mi misión, como he dicho no es mostrar los aciertos o equivocaciones, a menos que éstas últimas sean tan graves que hagan desechable el proyecto sin ulterior examen. La adopción del labortano antiguo como base del euskera literario es una opinión que tiene fuertes razones en su apoyo.³⁴³

³³⁹ F. Krutwigek zerabilen beste erreferentzia bat José Ignacio Arana jesuita da, S. Aranaren irakasle ohia eta ortografia berdintsuaren aldekoa.

³⁴⁰ ALV euskara estandarren proiektuari ekin ez bazion, beldurragatik izan zen, euskaltzainburuak P. Broussaini 1920ko martxoan onartu zionez: «Nik goitzo deritzayot *langue unifiée* ortaz gure lanak asteari. Bizkaiko *bolchevique abertzale* onen bildurrez obe dala uste dot geroxeagorako uztea» (apud Kintana Goiriena 2008: 577).

³⁴¹ 1920ko hamarkadako *Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionariok* (fonetika, morfologia eta lexikoa), dialektoen mapa osatzeaz gain, bereziki euskara estandarra egiteko oinarri izan behar zuen (Echaide 1984: 29-32).

³⁴² ABA-EUS: F. Krutwigen «Plan seguido de la unificación de la ortografía y de la fonética», [1943-1944]

³⁴³ apud ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08. I. M. Echaideren erantzunaren aipua tartekatu zuen F. Krutwigek zazpi urte ondoren idatzitako gutunean (cf. ALV 1956: 322).

Aurreko bi idazlanen jarraipena dirudi «Gramática del euskera literario» izeneko agiriak. Hala ere, badira alde batzuk. Bizkaierari leku gehiago egin zion ahoskeran, fonetikoki aberatsena zelakoan. Bestalde, S. Aranaren 1896ko lanari euskaltzainen erreferentzia berriagoak erantsi zizkion, R. M. Azkueren *Morfología vasca* (1925) eta S. Altuberen *La vida del euskera* (1934). Azken idazlan horrekin miretsita zegoen: «acertadísima y pequeña obra, aunque de incalculable valor, quizá la más acertada en cuanto se trata de la manera de resurgir al vascuence».³⁴⁴ S. Altuberen ardura soziolinguistikoari jarraituta, F. Krutwigen helburua «salvar al vascuence de su muerte» zen. Bestalde, hiztegi ortografiko eta entziklopediko bana egiteko asmo handinahia agertu zuen. Aditz joko estandarrerako zenbait irtenbide ere azaletik aipatu zituen. R. M. Azkue-S. Altube gipuzkera erabiltzearen aldekoak ziren, baina F. Krutwig harroak nolabaiteko gainditu egin zituela uste zuen:

¿Qué tiene pues de extraño que si el día de mañana se enseñase vascuence como esperamos, en las escuelas al tratar de gramática vasca por ejemplo en un pueblo guipuzcoano en que están acostumbrados a decir «dakařzkit» por «los traigo» se les enseñe que esto también se puede decir en vascuence además de dakařzkit con infijo zki, dakařdaz con sufijo z? ¿Es esto acaso un mal? [¡]No! Ni tampoco es falta de unidad. De esta manera y enseñando todo lo que sea conveniente de nuestra lengua se llegará al fin que nos proponemos. Por eso el eusk[e]ra que aquí proponemos no es ningún producto de nuestra invención, sino un euskera puro y hablado que si quisieramos designarle con algún nombre, harí[a]moslo con alguno parecido al que lleva como título un libro de un famoso escritor vasco: «Euskera Osotua» o mejor todavía «Euskera osotua ta osoa».³⁴⁵

Izan ere, euskaltzainburuaren ereduak ez zuen garatzeko biderik izan. ALVk ez zuen sekula hura arauzkotzat emateko adostasunik edota astirik izan. Hilak edo erbestean ziren gipuzkeraren zentraltasuna aitortzen zuten euskaltzainak: A. Campión, R. Olabide edota S. Altube. Debekatuak zeuden eredu hori zabaldu zezaketen Donostiako *Argia*

³⁴⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía [1943-1944]. Hain zuzen, agiri horretako orrialdeetan, kortxetez josita, I. M. Echaidek egindako oharra agertzen dira. I. M. Echaidek ordurako lan mardulak eginak zituen euskal aditzaz. Oharretan behin eta berriz aipatu zuen bere *El verbo vascongado* (1923) liburua, eta berehala argitaratu zuen 500 orrialdeko jarraipena: *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* (1944). Hala ere, F. Krutwigek Donostiako ingeniariaren lan «robótico»ak harrokeriaz gaitzetsi zituen (Krutwig 1991: 85-86).

³⁴⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía», [1943-1944]

bezalako prentsa organoak. Euskaltzainburuak berak ez zuen euskarazko idazlanak argitaratzeko biderik. Diktadura frankistak eten egin zuen prozesua. Frantzia ez zuten gipuzkera onartu eta beraien literatur dialektoa erabiltzen jarraitu zuten, P. Lafittek deskribatutako nafar-lapurtera. Salbuespen gisa, Gipuzkoa bizkaierafoanoan, gipuzkerak izandako eliz erabilera aipatu behar da (Altube 1949: 202-204).

F. Krutwigen literatur lapurtera alternatiba bat zen R. M. Azkuerekiko. Zentraltasuna beste dialekto bati emateaz gain, literatur tradizioa lehen mailan jarri zuen, ahozkotasanaren orde. Estandar idatzi baterako bidea erraztu zuen, dialekto bizien aldakuntza fonetiko eta bestelakoei itzuri eginez. Fonetika-ortografia atalean, euskararen 60 hots eta letrako euskal alfabetoa aurkeztu zuen. Gaur egun erabiltzen duguna baino hiru aldiz gehiago, alegia. I. M. Echaidek «h» grafemaren alde egin arren, alfabetoa 25-30 letrara mugatzea eskatu zion: «Pretender fijar y representar un sonido es tan imposible como reducir una cinta cinematográfica a una sola fotografía».³⁴⁶

Le parecerá a Vd. duro mi juicio, pero debo prevenirle que estas cuestiones ortográficas, son las que más tempestades levantan en las Academias y no vacilo en predecirle una ruda oposición por buena parte de sus miembros. Es más: creo que esta cuestión ortográfica debe tratarse previamente, porque si fracasara, era inútil seguir adelante. Prefiero pintarle las cosas tal y como yo las veo y no que se llame Vd. luego a engaño.³⁴⁷

F. Krutwigen «Sobre los lingüistas» izeneko agiriak agian 1945eko martxoaren batzarrean irakurritako «Para una vascolología científica» txostenarekin harremana du.³⁴⁸ Espainia alde batera utzi, eta Europako hizkuntzalaritzari begiratzea eskatu zuen. Antiespainolismoaz gain, F. Krutwigen marka daramate hinduismoari eta «Sturm und Drang» literaturari egindako erreferentziek:

¡Hay que hacer una verdadera lingüística vasca! - ¡Hay que prescindir de los charlatanes, y hay que intentar acomodar a la ciencia e inteligencia vasca a la Europea! No hagamos caso de lo que hablan los castellanos, que Castilla todavía es una parte de las tinieblas medievales! - La ciencia siempre fue europea, y no africana. Es ya hora d[e] que los vascos diri[j]an sus miradas a Europa Central y Occidental, inclusive a Rusia! Si los vasco[s] se esfuerzan en no salir de la Edad Media, cosa tan contraria al verdadero espíritu

³⁴⁶ ABA-EUS: F. Krutwigen «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía», [1943-1944]

³⁴⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen «Gramática del euskera literario: Verbo. I. Parte: Fonética y ortografía», [1943-1944].

³⁴⁸ Egun horretan, Donostian batzartu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo eta N. Oleaga.

del Vasco, habrá que maldecir a tales recalitrantes borregos! Tengan tales seres en cuenta que la rueda de la Historia no se puede retener, que la dharma cumple sus tare[a]s y forma su destino, según esta Ley que está sobre todo. «Nach ewigen, ehernen Groszen Gesetzen - Müssen wir alle - Unseres Daseins - Kreise vollenden» (Goethe. «Das Göttliche»).³⁴⁹

Bi motako hizkuntzalariak bereizi zituen idazkian: deskribatzaileak eta teorilariak. S. Aranaren 1896ko lana goratu arren, S. Arana eta haren jarraitzaileak gogor kritikatu zituen:

Uno de los mejores trabajos de lingüística vasca razonada es sin duda el opúsculo de Arana-Goiri titulado «Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino». Esta obra descuella entre lo poco que de verdader[a] gramática vasca se ha escrito. Los llamados sabinianos suelen con gran frecuencia aludir a esta obra, pero habrá que advertir que tales pseudo-lingüistas solo resaltan la parte menos admisible de esta preciosa obr[it]a. En esta o[b]ra que es la base de la actual ortografía vasca, no se expresan manifiestas tonterías como suele ocurrir en otras obras de Arana-Goiri, de las que [t]an enamorados están los «euzkerea-zales». Aunque muchas de las leyes allí sentadas no sean admis[i]bles, por varias razones, como la que es la de la evolución de las ideas siguiendo al tiempo. Dado que Sabino de Arana-Goiri escribió a fines del siglo XIX y los adelantos del siglo XX han hecho que muchas de las apreciaciones allí admitidas sean hoy absurdas. Otros motivos son, el que se indica en el título, que la obra está escrita solo para el dialecto vizcaíno, sin tener en cuenta a los demás dialectos, ni la unida[d] literar[i]a necesaria entre ellos. Sabino Arana, enemigo de la unidad vasca, solo admitía la necesidad de hacer una unidad lingüística por estado, lo que es un absurdo, pues si por ejemplo Arana Goiri rechaza la unida[d] del dialecto vasco a base del guipuzcoano, por la simple razón de que el idioma hablado entonces por un vizcaíno podría ser tenido por rudo, debería haber tenido en cuenta que siguiendo su rara teoría, también será rudo el idioma (vascuence vizcaíno) que hablan los habitantes del río Deba, pues para ellos deberá ser el dialecto literario el guipuzcoano (y no el vizcaíno) si[e]ndo que ellos no hablan tal dialecto. Además parece que Sa[b]ino Arana no se daba cuenta de las distancias, pues de otra manera no se comprende como pudiese creer en la posible supervivencia de cuatro o seis dialectos anémicos de un idioma que de por su propia extensión es pequeño y no cultivado. A pesar de lo que aquí se expone contra la teoría de Sabino Arana, [l]a menciona[da] obra suya es una de las mejores que sobre gramática vas[ca] se han escrito, y la fundamental para todo

³⁴⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen «Sobre los lingüistas», [1945] .

a[quel] que quiera discutir algo sobre ortografía vasca.³⁵⁰

F. Krutwigek adibidetzat hartu zituen hizkuntzen ugaritasuna harrigarria da: gaztelania, frantsesa, katalana, greziera (moderno nahiz klasikoa), alemana, armeniera, errusiera, armeniera, arabiera, hizkuntza zeltikoak, hungariera, italiara, ingelesa, persiera, urdua, india, portugesa edota esperantoa. R. M. Azkuek, hain zuzen, F. Krutwigi eskatu zion euskara eta hainbat hizkuntzaren erkaketa egitea, euskaltzainburuak batzarretan irakurtzen zituen txostenen bidetik.³⁵¹ 1944ko urtarrilaren batzarrean irakurritako txostena dirudi F. Krutwigen «Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana» agiriak (ALV 1956: 322).³⁵² Japoniera-koreeraren hotsak latin alfabetoan transkribatzeko arauak adierazi zituen, hizkuntza biotan txineraren eragina baztertuta. Euskara eta Asiako bi hizkuntzen arteko antzekotasunak atzeman zituen azentuan, syntaxian edota postposizioetan.³⁵³ Euskara eta Ekialdeko beste hainbat hizkuntza azaletik erkatu zituen: japoniera, koreera, sanskritoa, turkiera, persiera, india, arabiera, hebreera, urdua edota Kaukasoko hizkuntzak. Besteak beste, gramatika ezaugarriak konparatu zituen: syntaxia, generoa, postposizioak, artikulua, galdegileak, zenbakiak, bihurkariak eta pluralizatzaileak.³⁵⁴

F. Krutwigek euskara eta hizkuntza ez indoeuroparren arteko erkaketan sakondu zuen «Similitudes entre las lenguas vasca y húngara»³⁵⁵ eta «Similitudes entre las lenguas vasca i húngara» agiriekin. Euskara-hungariera arteko antzekotasun morfoloiko-lexiko batzuk adierazi zituen.³⁵⁶ «Similitudes y diferencias entre las lenguas vasca, húngara y finlandesa» izeneko agirian, orobat, euskara eta uraldar hizkuntzak erkatu zituen. Euskara-hungariera-finlandiera arteko fonetika-gramatika antzekotasunak eta ezberdintasunak aipatu zituen.³⁵⁷ Hizkuntz tipologia hutsaz harago, F. Krutwigentzat

³⁵⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen «Sobre los lingüistas», [1945].

³⁵¹ Euskaltzainburuak *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949) liburuan, F. Krutwigen laguntza aitortu zuen hungariera-arabieraz den bezainbatean (Azkue 2004: 724, 728). JLA-FK: GARCÍA GÓMEZ, Emilio (1944): *Antología árabe para principiantes: textos árabes sin vocalizar*. Madrid: Espasa Calpe.

³⁵² Egun horretan Donostian batzartu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide eta N. Oleaga.

³⁵³ ABA-EUS: F. Krutwigen «Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana. El japonés y el vascuence», [1944]. JLA-FK: ECKARDT, Andreas (1923): *Koreanische Konversations-Grammatik mit Lesestücken und Gesprächen*. Heidelberg: Groos.

³⁵⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen «Del parentesco de la lengua vasca [con otras lenguas asiáticas]» [1948].

³⁵⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen «Similitudes entre las lenguas vasca y húngara», 1943.

³⁵⁶ ABA-EUS: F. Krutwigen «Similitudes entre las lenguas vasca i húngara. Similitudes y diferencias entre las lenguas vasca, hungara y finlandesa», [1943].

³⁵⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen «Similitudes entre las lenguas vasca i húngara. Similitudes y diferencias entre las lenguas vasca, hungara y finlandesa», [1943].

garai horretan hungariera (Europako beste uharte ez indoeuroparra) bereziki interesgarria zen literaturan lortutako estatusagatik, euskararentzat bide erakusle zitekeelako.³⁵⁸ «Del parentesco de la lengua vasca» izeneko agiria, bestalde, ALVren 1948ko maiatzaren batzarrean irakurritako txostena dateke (ALV 1956: 329).³⁵⁹

«De la pintura y los pintores vascos» (1946-06-12) testuak, izenburuak dioen legez, ez zuen ALVrekin zerikusirik. *Bulletin of Spanish Studies* aldizkariaren «Cartas de España» sailean agertu zen artikulua 1947ko uztailean.³⁶⁰ Euskaltzaindiaren artxiboko «El problema lingüístico y racial de los vascos» agiria, agian F. Krutwigek 1948ko abenduan irakurri zuen txosten izengabearen zatia da (ALV 1956: 329).³⁶¹ Agirian euskaldunen jatorriaren bost alderdi aztertu zituen: hizkuntza, arraza, etnia, kultura eta «glotologia». Azken hori, filosofia-psikologia-hizkuntzalaritza batzeko saioa zen, «Sapir-Whorf» hipotesiaren ildoko erlatibismo linguistikoan: «Por lo tanto aquí [se intenta] indicar la radical diferencia que divide por ejemplo al modo de pensar de un vasco y la manera de conectar las diferentes ideas de un francés o castellano».³⁶² Batez ere, arraza-nazio-estatu kontzeptuak bereizteko ahalegina egin zuen, alemanezko terminoak erabiliz, gaztelaniazkoak nahasgarriak zirelakoan. Bereizketa hori errazago egitearren, orobat, Europako adibideetara jo zuen:

La Etnografía y Etnología no tratan, a no ser indirectamente de razas, sino de pueblos y naciones. Aquí quisiera aclarar algunos conceptos que se confunden, o se quieren confundir con buena o mala voluntad, pero en cualquier de los casos con falta de espíritu científico. Pueblo o nación es lo que los alemanes llaman «Volk» y «Nation», que viene a ser lo mismo. Estado es en alemán «Staat» y no tiene que ver nada con «Nation». En castellano se suele llamar «nacionalidad» al concepto expresado por «Staat[s]angehörigkeit», lo que es una falta máxima. Nacionalidad debería significar correspondencia a tal o cual pueblo o nación y nunca correspondencia a tal o cual Estado.

³⁵⁸ JLA-FK: KONT, J. (1909): *Ungarische Chrestomathie Eine Blumenlese aus den Schriftstellern vom Ende des achtzehnten Jahrhunderts bis auf die Gegenwart*. Heidelberg: Groos; BALASSA, József (1917): *Langenscheidts Taschenwörterbuch der ungarischen und deutschen Sprache*. Berlin-Schöneberg: Langenscheidtsche Verlbh.

³⁵⁹ Egun horretan Donostian batzartu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, F. Krutwig eta N. Oleaga.

³⁶⁰ Aldizkaria Edgar A. Peers (1891-1952) hispanistak zuzentzen zuen Liverpoolgo Unibertsitatean 1923tik. E. A. Peerssek, ohi baino ikuspegi objektiboagoa gorde arren, EBeren gabeziei egotzi zien EGZaren errua: antikerikalismoa, ordena publikorik eza eta eragin komunista. Militar matxinoen aldekotzat jo daitezke garai horretan idatzi zituen *The Spanish tragedy* (1936) edota *Catalonia infelix* (1937) liburuak (Alted Vigil 1984: 139-140).

³⁶¹ Egun horretan, Donostian bildu ziren R. M. Azkue, A. Irigaray, F. Krutwig eta N. Oleaga.

³⁶² ABA-EUS: F. Krutwig «El problema lingüístico y racial de los vascos. El problema de la lengua vasca», [1948]

El Estado es un concepto de orden jurídico y una institución jurídica y nunca una institución de orden racial o etnológico. Dentro de un mismo Estado pueden haber varias nacionalidades como por ejemplo la antigua monarquía Austro-Húngara, o los estados modernos de Checoslovaquia. En este último los alemanes eran tan checoslovacos (es decir súbditos del Estado checoslovaco), como los checos, ahora bien de diferente Nacionalidad («Nationalität»). La nacionalidad está condicionada al idioma y convicción de ser un pueblo diferente. La «Staatsangehörigkeit» (empleo la palabra alemana, porque el castellano carece de un término inequívoco) está subordinada al pasaporte.³⁶³

Alemaniano hezkuntzaren eragina somatzen da, orobat, giza arrazak sailkatu zituenean. F. Krutwigek aipatutako Europako sei arrazak, Hans F. K. Günther antropologo arrazistatik hartuta daudela dirudi.³⁶⁴ H. F. K. Günther-ek bezala, behin eta berriz adierazi zuen arraza-hizkuntzen sailkapenak ez datozela bat:

Con el problema lingüístico se ha entrelazado el racial de los vascos. Esto es sin duda debido a ignorancia, pues sabido es que el parentesco lingüístico y el racial no se equivalen. Además al tratar del problema racial se confunde lo que es puramente racial con lo que es nacional y etnológico. Los problemas raciales corresponden a la Biología y Zoología y solo tienen que ver indirectamente con los problemas etnológicos y etnográficos. Los vascos como raza (es decir lo que los alemanes llaman «Rasse») son de las mismas razas que los demás pueblos europeos. Raza es un conjunto de características somáticas y psíquicas que distinguen a ciertos individuos de otros. Actualmente en Europa ya no se puede hablar de razas «puras» (si es que alguna vez las hubo) y solo cabrá indicar en el individuo cierta preponderancia de características de una u otra raza. Estas razas europeas (o tipos individuales) que son las llamadas mediterránea, oriental, nórdica, dálica, dinaria, báltica. La correspondencia a cierta raza se debe además hacer por individuos y no por pueblos, en este último caso solo cabe hablar de la preponderancia de individuos de tal o cual tipo racial.³⁶⁵

Euskaltzaindiaren artxiboan dagoen «Hizkuntza zaharren ikhertzearen ansia' totemizmuaren eta mystikaren eta magiaren problematak hulerretzekotz» izeneko agiriak,

³⁶³ ABA-EUS: F. Krutwigen «El problema lingüístico y racial de los vascos. El problema de la lengua vasca», [1948]

³⁶⁴ H. F. K. Günther (1891-1968) arrakasta handiko egilea izan zen mundu gerren arteko Alemanian. Bilboko Deutsche Schule-n arrazen teoria azaltzeko erabilitako iturrietako bat zatekeen. Nordikoa moralki gailena zen, eta arrazen nahastetik babestu beharrekoa. Arraza mediterranea, aldiz, beherena zen. 1963ko *Vasconian* sailkapen hierarkiko horri eutsiko zion. Era berean, nazi garaiko eugenesiak oihartzuna izango zuen F. Krutwigen ibilbidean (Hutton 2005: 35-63; Krutwig 2006: 311).

³⁶⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen «El problema lingüístico y racial de los vascos. El problema de la lengua vasca», [1948]

F. Krutwigek 1949ko urtarrilean ALVren batzarrean irakurritako txostena dirudi.³⁶⁶ F. Krutwigen esoterismoa agerian uzteaz gain, berak euskaraz idatzitako txosten zaharrena dateke. Literatur lapurtera eta terminologia grekolatinoa uztartuz, gai jasoez herri hizkuntzan aritu zen. Subjektibismo filosofikoa azaldu zuen, iturri aleman eta klasikoak erabiliz:

Jakintzaren legeak eztira Natur objektivuaren legeak' geure buruek Naturaren eventiak xehakatzeko egitten dittuten legeak baizik; halakotz subjektuaren legeak dira; honek empeiriaren khaosen aurka buruzagittekotz egitten ditu. Lege haurk' gauzetan, objektuetan eztagoz' gizonaren pentsamenduan baizik; honek lekoreko mundua' subsumitzeko ta ordenatzeko dadukan kondiziñoa dira. Lekoreko munduko (lekoreko mundurik baldin balego) eventuen aditzeko ahalmena' adimena («Verstand», «intellectus») da. Ahalmen haur gizonek eta abereek dadukate. Empeiriko khaosen ordenatzeko ta kontzeptuen egitteko ahalmena' Arrazoia («Vernunft», λογικόν, «ratio») da. Ahalmen haur gizonaren berezgoa da. Empeiria aditzen dittugularik' izpirittuan dadukagun ideaz egitten den kontzeptua erazten denean' sentiduen munduak jaresten du bere ikhurra edo erran-naia.³⁶⁷

I. Kant-A. Schopenhauer-Platon filosofoen lanetan oinarrituz, herri primitiboak (dinamikoak) eta zibilizatuak (logikoak) ezberdindu zituen. Antropologia artean berriak eskaintzen zuen erlatibismoaz (Austriako R. Thurnwald) baliatu zen herri primitiboen adimena aldarrikatzeko: «Bertzelako den ohidura gure burura ekharri beharr dugu nahi-ta-ez. Bere hizkuntzak daduzkan elkhartzeko moldeak baizik eztagozela uste duena' okherr dago. Logiko izeneztatzen dugun moldea baizik eztagoenik ezin erran dezakegu. Dynamikoki oldozten dutenek arhezki ere oldozten bai-tute».³⁶⁸ Dinamiko-logiko dikotomia F. Nietzscheren «Dioniso-Apolo» bikotearen parekoa zen:

Apollinikoak' gauza guztiak (ametsak ere) ezpairik gabeko logikaren kanonez jakin eta ikhusi nai littuke. Sentimendu dionysiakoak' gauzak diren bezala hartzen ditu; lekoreko mundua hoillatzat, lilluratzat on hartzen du, Hindutarren philosophiaren Mâyâko estalkia bai-litzan. Mundu apollinikoa neurria da, μηδὲν ἄγαν Delphosko templuko engraphea zan. Mundu dionysiakoa neurrigabekoa da, titanikoa da, eztazagu arrazoinik, beraur

³⁶⁶ Egun horretan, Bilbon batzartu ziren R. M. Azkue, P. Zamarripa, F. Krutwig eta N. Oleaga. Agiriaren arabera, getxoztarrak «Mística, magia y lingüística» izeneko txostena irakurri zuen (ALV 1982: 3).

³⁶⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen «Hizkuntza Zaharren Ikhertzearen Ansia. Totemizmuaren eta Mystikaren eta Magiaren problematak hulerrtzekotz», [1949].

³⁶⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen «Hizkuntza Zaharren Ikhertzearen Ansia. Totemizmuaren eta Mystikaren eta Magiaren problematak hulerrtzekotz», [1949].

baitan kosmosko jeta itsua da.³⁶⁹

Txostenean, halaber, Alemaniako M. Schneider-en *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas* (1947) liburua zuen hizpide.³⁷⁰ F. Krutwigek etnomusikologo katolikoaren zenbait ideia P. P. Astarloa apologistarekin parekatu zituen. Agiriaren azken orrian, liburuko zodiakoa kopiatu zuen, animalia sinbolikoen euskal izenekin: «ziraun», «zezen», «zakhurr», «zaldi», «zamari», «zap», «sai», «sathorr», «suge» edota «sagu». Grafikoan oinarrituta, Mikeldiko eskultura zoomorfoaren interpretazioan saiatu zen:

Bizkaiko Durangon aurkithu zen Mikeldi eidola zer den zeazkiro eztakigu. Nire aburuz zezen bat da ta bere isterren arthean dadukan gurpilla ezta iguzkiaren oboa baizik. Baldin haur egia ba litz, Mikeldi eidola Xp. b.l. 30000 grr. urthekoa izan ahal ditteke. Bere erran naia iguzkia zezenagan izan ahal ditteke, orduan aiquinotzia zezenagan zegoan eta.³⁷¹

«De ortografía vasca» eta «Sobre la ortografía vasca y el vascuence escrito» agiriak idazlan bera dira, F. Krutwigek ALVren 1950eko martxoaren batzarrean aurkeztutakoa. Kopia lehengatik ezagunak ziren eta 1950eko hamarkada hizpide dugunean berriaz aztertuko dugu F. Krutwigen hizkuntza proposamena borobiltzen duen txosten hori (ALV 1982: 10).

³⁶⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen «Hizkuntza Zaharren Ikherretzearen Ansia. Totemizmuaren eta Mystikaren eta Magiaren problematak hulerretzekotz», [1949].

³⁷⁰ M. Schneider-ek BMGn parte hartu arren, Berlingo Humboldt Unibertsitatean betoa jarri zioten. 1944ean CSICen Bartzelonako Instituto Español de Musicología-n lanean hasi zen. Institutuaren zuzendaria H. Anglès apaiza zen, IECekiko zubilana egiten zuena. Kultur eremuen («Kulturkreis») etnologia difusionistaren eskolako kide zen. J. A. de Donostia lankidearen bidez eskuratu zituen euskal erreferentziak. Historiaurreko kultura megalitikoaren totemismoak bizirik zirauela erakutsi nahi zuen: Afrikako herri indigenetan, antzinateko zibilizazio klasikoetan, Erdi Aroko arte erromanikoan edota Espainiako folklore bizian Soinuen, animalien, musika tresnen eta elementuen arteko harreman mistikoak aztertu zituen, irudi ugari apaindutako liburuan. Harrigarria da ikustea halako liburu esoterikoa CSICek argitaratua (Schneider 1998; Balcells, Izquierdo & Pujol 2007; Bleibinger 2009; Gembero Ustároz 2011).

³⁷¹ ABA-EUS: F. Krutwigen «Hizkuntza Zaharren Ikherretzearen Ansia. Totemizmuaren eta Mystikaren eta Magiaren problematak hulerretzekotz», [1949].

6 EUSKALTZAINDIA AUZITAN: BARNEALDEA

6.1 Euskararen jazarpena Espainia frankistan

Nazionalismo espainolak ez zituen herri hizkuntzak gaztelaniaren nagusitasunaren benetako mehatxu gisa ikusi XX. mendera arte. Katalanismoak, herri hizkuntzaren modernizazioa bultzatzeaz gain, auzi linguistikoa eremu politikora eraman zuen, autonomismoa eta katalanaren ofizialtasuna uztartuz. Horren ondorioz, Estatuaren legegintza esplizitatu egin zen gaztelaniaren erabilera hegemonikoaz den bezainbatean, administrazioan, hezkuntzan eta bizitza publikoan oro har. Nazionalismo politikoaren asmoak, argumentu ustez zientifikoak jantzi zituzten R. M. Menéndez Pidal bezalako filologoen eta RAE bezalako erakundeek. Gaztelaniaren gailentasuna beste herri hizkuntzekiko sendotu egin zuen diktadura primorriveristak legegintza errepresiboaren bidez, batez ere hezkuntzan. EBEn hizkuntzen estatusa gai gatazkatsua izan zen Konstituzioaren nahiz autonomia estatutuen eztabaidan, baina aurrerapauso nabarmenak ekarri zituen, bereziki katalanaren kasuan.

Frankismoaren bernazionalizazio politika antiseparatistak, ordea, ezabatu egin zituen aurrerapauso horiek guztiak eta genozidio kulturala burura eramateko asmoa agertu zuen hasieran. Herri hizkuntzak folklorera eta bizitza pribatura murriztu ziren. Tokiko zenbait agintari frankistek egindako herri hizkuntzen laudorioak erretorikoak ziren, erabilera publikoan ondorio positiboz gabetuta. Gauza bera esan daiteke frankismoak hizkuntzalaritzan edota etnografian bultzatu edota baimendutako egitasmo zientifiko eta akademikoez. Herri hizkuntzen eta dialektoen bizia nekazaritza eremu premodernotara mugatu behar zen. BMGren ondotik, frankismoak bere irudia garbitu behar izan zuenean nazioartean, hizkuntza politika lasaitu egin zen, liburugintzan, adibidez, isla erlatiboki nabarmena izan zuena. Horrek, besteak beste, herri hizkuntzen literatur estandarizazioaren arazoa ekarriko zuen eztabaidara, frankismoak beti saihestu nahi izan zuena. Hala ere, bazterketa administratiboak, hezkuntza elebakarrak, gaztelaniazko komunikabideen indarrak eta barne migrazioak hizkuntza periferikoen asimilazioa nahitaez ekarriko zuela uste zen, nahiz eta EGZaren ondoren publikoki ez adierazi (Núñez Seixas 2013).

Euskara abertzaletasunarekin identifikatu zen neurrian, diktadura frankistak

asimilazio nahia areagotu zuen. Conde de Rodezno Justizia ministro tradizionalistak, esaterako, 1938ko maiatzaren 18ko aginduz, santu izendegi jeltzalea debekatu zuen.³⁷² Nahiz eta euskaraz hitz egiteko debeku orokor ofizialik ez egon, tokian tokikorik gertatu zen eta batez ere eremu publikoan (egoera zibileko erregistroa, hezkuntza, hedabideak) desagertu egin zen, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera. Neurri txikian Eliza katolikoaren eremuan baino ez zuen babesik aurkitu herri euskaldunetako predikazioarekin eta argitalpen urriekin. Ondorioz, euskarak familia giroan gordeta eta, besterik ezean, nekazari eremu euskaldunean iraun zuen bizirik. Hiriburu erdaldunak eta herri elebidunak, aldiz, erasan egin zituen euskararen jazartze publikoak. Euskararen erabilera jasoaz arduratzen zen euskalgintzaren zati handi bat, abertzaletasunarekin estuki lotuta, erbesteratuta zegoen (Torrealdai 1998; 2000; Pablo 2007; Irujo & Urrutia 2009).

Euskararen erabilera abertzalearen aurkako jarrera horrek diktadura frankistako hizkuntz politika osoa markatu zuen. Euskal erakunde, elkarte, aldizkari edota argitaletxe gehienak desagertu egin ziren: EI-SEV, *RIEV*, *Argia*, prentsa abertzale osoa, egunkarietako euskal atal guztiak, euskarazko aldizkari guztiak erlijiosoak barne, I. López Mendizábalen argitaletxea, Jaungoiko-Zale Bazkuna edota Euskaltzaleak. Euskaltzaindiarena, ikusi dugunez, nekez lortutako salbuespena baino ez zen. Galera handiena, dena dela, eskolaren alorrean eman zen, gerra aurrean gaztelania nagusi izan arren, udal autonomiari esker euskararen ahozko erabilerak lekua izan zuen herri euskaldunetan eta auzo eskoletan. EBEn, gainera, Euzko Ikastola Batza-Federación de Escuelas Vascas abertzalean antolatutako ikastolek euskarazko haur hezkuntza pribatua eta euskal testuliburuaren ekoizpena sustatu zuten. Euskal literatur lehiaketetan, adibidez, Donostiako eskola ia guztiek hartzen zuten parte. Hori guztia diktadura frankistak irentsi egin zuen. Errepresioak sortutako izu giroak eta antiabertzaletasun beligeranteak, euskararen aurkako legedia orokorrik ez promulgatzea ahalbidetu zuen. Gerra aurreko euskalgintza indarrez isilarazi egin zuten (Bilbao 2004: 848-849; Anaut 2013: 111-175).

Aipatu dugunez, F. J. Lauzurica Gasteizko elizbarrutiko administratzaile apostoliko frankistak berak, arazo larriak izan zituen 1938an euskararen erabilera pastoralara arautzeko herri euskaldunetan. Elizbarrutiko seminarioan bertan, euskara katedra eta apaizak formatzeko euskarazko eskolak ezabatu egin zituen F. J. Lauzuricak berak. «Agur Jesus'en Ama» kanta tradizionala ere seminarioko ospakizunetatik

³⁷² «Orden señalando normas para la inscripción de nombres en el Registro Civil». In: *BOE*, 1938-05-21.

desagertu egin zen (Bilbao 2004: 852). Estatu Berriaren kontrolpeko eskola publikoetako ikuskatzaileen eta gobernu zibilen bidez, jazarpen hau arreta handiarekin egin zen. Euskarak eskoletan ez zuen lekurik, eta Bizkaiko auzo eskoletan egin ziren ahaleginez beste, irakasle erdaldunak bidali ziren herri euskaldunetara, gaztelaniaren erabilera hegemonikoa ziurtatzeko. Ikuskatze prozesuak elizgizonak ere erasan zituen. Hain zuzen, Barne Arazoetako ministerioak 1940ko martxoan konfidentzialki zabalduetako zirkularraren arabera, herri euskaldunetako euskarazko ikasbidea behin-behineko egoeratzat baino ezin zen onartu, eskola bidez gaztelania ikasi arte. Arau horren desbideratzeak salatzea gobernadore zibilen esku zegoen (Intxausti 2014b: 221-223). Adibidez, Gipuzkoako gobernadore zibilak Elgetako parrokoari eta koadjutoreari kargu hartu zien 1943an, herriko haurrek kristau ikasbidea euskaraz jasotzen zutelako (Bilbao 2004: 850).³⁷³

BMG amaituta, diktadura frankistak Alemania-Italia Ardatz garaituarekin identifikazioa saihestu nahi izan zuenean, horrek argitalpenetan isla mugatua ere izan zuen. Gaiak ez ezik, egile-argitaratzaileak ere frankismoak toleratutakoak izan behar zuten. Horrela plazaratu ziren R. M. Azkueren *EY-LPPV*ren azken hiru liburukiak (1942-1947), I. M. Echaideren *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* (1944), J. Caroren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946), A. Irigarayk itzultitako H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947) edota P. Zamarriparen *Gramática vascaren* 6. edizioa (1947). Liburu horiek Espasa Calpe-k edota Salamancako Unibertsitateak argitaratu zituzten, baina Euskaltzaindiak berak hori egiteko gaitasunik gabe jarraitu zuen.

Tolerantzia hori azalekoa edo koiunturazkoa zen. Nazioarteko iritzi publikoaren aurrean keinu sinbolikoak egiten ziren bitartean, debekuak eta oztopoak ezartzen ziren euskararen aldeko ekintzei. *BRSVAP*en urte horietan, esaterako, euskal hizkuntzaren presentzia oso mugatua izan zen, gehienetan iraganeko testu berreskuratutakoak: J. Urquijoren «El texto en vascuence de Rabelais» (1945), F. Arocenaren «Los cuatrocientos años del *Linguae Vasconum Primitiae* de Dechepare» (1945), R. Galdosen «Curiosidades euskéricas de un libro inglés de 1848» (1947), A. Irigarayren «Traducción al vascuence de un capítulo de *El Quijote*» (1947) eta «A los bersolaris que han destacado en los últimos concursos celebrados» (1948), G. Arrueren «La versión guipuzcoana del *Perú*

³⁷³ SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4

Abarca de Moguel» (1948-1950), I. Omaechevarriaren «El vascuence de Fray Juan de Zumárraga» (1948) eta C. Aguirresaroberen «Devocionarios en vascuence» (1949) (cf. Elósegui Irazusta 1970: 120-122).

Hori bai, euskararen atzerakadaz ohar kezkarri batzuk argitaratu ziren, betiere ikuspegi ez abertzale batetik. Lehen aipatu dudana J. Caroren artikulutik bi urtera, J. M. Azaola demokristauak «Cervantes y nosotros» artikulua argitaratu zuen. Don Quijotek herri hizkuntzen literaturaren alde egindako aldarria aitzakiatzat hartuta, euskararen historia kontrafaktual interesgarria aurkeztu zuen. Zer gerta zitekeen Aro Modernoko euskaldunek euskara literatur hizkuntza eta kultur tresna bilakatu izan balute? Besteak beste, gaztelaniak ez zukeen euskara hainbat eremutan ordeztu eta Euskal Herria indartsu sartu zitekeen zibilizazioaren historian. Tamalez ez zuten halakorik egin eta euskara XX. mendean hilzorian zekusan: «el vascuence se va; se va sin remedio; para salvarlo no bastaría un Quijote, ni dos, ni media docena» (Azaola 1947: 506).

Hedabide ofizialistetatik jaulkitako hitz zuhurren atzean, diktaduraren makinariak bere horretan jarraitzen zuen euskara baztertzen. J. Berruezo *El Diario Vascoko* zuzendariak 1947ko urte horretan, egunkarian euskal atal bat sortzeko ardura eman zion J. Echaideri, I. M. Echaideren seme abertzalea. Hezkuntza Nazionaleko ministerioak, ordea, berehala debekatu egin zuen egitasmoa.³⁷⁴ Diktadura, noski, debeku hauek ahoz jakinarazten saiatu izan zen beti probintziako delegazioen bitartez. Dena dela, EJ-GEK 1947ko maiatzean *OPE* informazio orria sortu zuen Parisen, diktaturako errepresioa salatzeaz arduratu zena. Horri esker ezagutu ahal izan ziren kasu zehatz ugari 1940ko hamarkadan: euskaraz egiteagatik lanpostua kendu zioten Erandioko udaltzaina, karmeldar baten poesi liburuaren debekua, Leioako bertso saio baten aurkako falangisten eraso, euskal izenen eta grafiaren debekua bataioetan edota egunkariko eskela-iragarkietan, antzerki eta dantza talde katolikoaren edota Eguberrietako Olentzeroren debekua (Anaut 2013: 150-154).

Idatziz jasota geratu ziren euskararen erabileraren aurkako debekuen artean, 1947 apirillean Prentsako Zuzendaritza Nagusiak bidali eta L. Dotres Gipuzkoako delegatuak sinaturik, *Boletín de Acción Católica de la Mujer*, *Luises Obreros*, *El Santísimo Rosario*, *Aránzazu*, *San Antonio*, *Misiones Franciscanas*, *Redención* edota *La Voz de la Madre*

³⁷⁴ SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4

aldizkari erlijiosoek jaso zuten hura dago: «De orden la Superioridad, queda terminantemente prohibido el uso del vascuence en esa publicación de su digna dirección» (apud Torrealdai 2000: 87). Debeku horiek, kasu batzuetan tokiko agintari frankistek emandako bermeak ukatzera zetozen, esaterako, Bilboko domingotarrek J. Ybarra BPDko presidentearengandik jasotakoa (Bilbao 2004: 851).³⁷⁵

Idatziz eta batez ere ahoz emandako debeku bihurrien helburua nekea eta estipena sortzea zen, ekimen gehiago sortzeko gogoia ezabatzeko. Adibidez, Donostiako CAMEk 1947ko Santo Tomas egunerako antolatu zuen jaialdiko programan «Arantza» euskarazko antzerki baten emanaldia zegoen. Testu elebiduna aurkeztuta, «Subsecretaría de Educación Popular» delakoak baimena eman zuen idatziz, baina jaialdirako egun gutxi geratzen zirenean, telefonoz euskarazko emanaldia debekatu egin zuen, antzerki lan hura erregistratu gabe zegoelako. Donostiako CAMEko zuzendaria bera elkarrizketatu zen probintziako delegatuarekin eta antzerkiaren emanaldi bakarerrako baimena eskuratu zuen, programatutako beste biak baztertuta. Euskal emanaldi bakar hura Gipuzkoako poliziaren ordezkari ugariaren aurrean egin zen, bestelako arazorik sortu gabe. Hala ere, gauean aurrezki kutzak afari bat antolatu zuen antzerki taldearekin eta horregatik gobernadore zibilak J. Echaide-E. Agoteri 2.000 ptako isunak ezarri zizkien (Bilbao 2004: 851).³⁷⁶

Donostiako *La Voz de España* eta *El Diario Vasco* egunkarietan euskarazko lerro batzuk agertzen hasi ziren astero, gaztelaniazko itzulpenarekin. Lehenengoan, I. Eizmendiren «Mi atalaya montañera» atalean, eta bigarrenean, F. Artolaren «Nere bordatik» atalean. Baina euskarazko testu solteak plazaratzeko zentsura behin eta berriz paiaratu zuten, J. Arteche kazetariak edota Radio San Sebastián-en baserritarrentzako saioak bezala.³⁷⁷

Barnealdean, frankismoaren kontrolpean, makal baina zutik, jarraitu ahal izan zuen euskararen aldeko erakunde nagusia Euskaltzaindia zen, beraz. BPD-JCVk ematen zioten laguntzak goragoko mailan ere isla izan behar zuen. Lehen aipatu dugunez, E. Bilbao Gorte frankistetako burua JCVren ohorezko buruetako bat zen, erakundea 1940an sortu zenetik. 1947ko irailaren 28an omenaldia egin zioten Bilbon. Ekitaldira, J. A. Girón

³⁷⁵ SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4

³⁷⁶ SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4

³⁷⁷ SAF-AA: [J. Bilbaoren?] txosten izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4.

ministraoa, J. Zuazagoitia alkatea eta J. Ybarra BPDko presidentez gain, tokiko agintari frankista ugari bildu ziren: Bizkaiko gobernadore zibila eta militarra, Gasteizko apezpikua, Z. Vizcarra apezpikua, D. Abona artzapeza edota J. F. Lequerica enbaxadorea. Hain zuzen, E. Bilbaok BPDaren jauregian eman zuen hitzaldian euskal kultura zaintzeaz aritu zen:

Hacéis bien en mantener el culto de nuestras tradiciones. La lengua milenaria, idioma de una raza primitiva que conoció los primeros días de la Historia. Nuestro arte y nuestros cantos peculiares, viriles unas veces como el espíritu indomable de aquellos guerreros que se atrevían a disputar a Roma los límites de su imperio; tiernos otras como el amor de las madres euskaldunas. Nuestro folklore, la honesta danza que congregaba en la plaza del pueblo a todas las clases sociales fundidas en el abrazo de la más pura democracia. Nuestras costumbres ejemplares, maltrechas hoy por un siglo de corrompido materialismo. El estudio objetivo de la Historia, pero depurada de falsos prejuicios y de torcidas falsificaciones, el acomodamiento de la vida provincial a nuestras especiales características. Todo eso que según decía el mismo Cánovas del Castillo, «como las cosas que engendra la Historia, si aprovechan a los que las disfrutan, a ninguno dañan». Todo eso digo que en siendo patriótico y honrado, nadie os lo puede negar, porque sería negar la vida en su más pura espontaneidad y amputar en el mismo ser nacional una de sus más nobles y fecundas características (*La Gaceta del Norte* 1947-09-30).³⁷⁸

6.2 «*Revista Internacional de Estudios Vascos*»

Gerraondoan *RIEV* berpizteko asmoak berehala agertu ziren. Ikusi dugunez, A. Irigarayk 1940ko martxoan J. Urquijori idatzitako gutunean aipatzen zion P. Garmendia EI-SEVeko idazkari ohiarekin hitz egin zuela arazoaz eta bazuela J. Urquijoren jarrera uzcurraren berri.³⁷⁹ Euskaltzaindia berpizteko saioa mamitzen zen aldi berean, Nafarroako medikuak, itxaropenez hartzen zuen Espainia frankistan euskal ikasketen aldizkari bat argitaratzeko aukera: «Así que Vds. lograsen la publicación de una revista de Folklore o Historia, no tendríamos más remedio que levantarles una estatua. Tengo entendido que en Galicia se hace algo así».³⁸⁰

³⁷⁸ J. Zuazagoitiak zuzentzen zuen egunkariak, ordea, ez zuen hitzaldiaren eduki horren berri eman (*CE-PV* 1947-09-30).

³⁷⁹ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1940-03-26.

³⁸⁰ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

JCVk inposatutako J. Irigoyen euskaltzainaz den bezainbatean, A. Tovar hizkuntzalariarekiko harreman ofiziala sortzen saiatu zen, euskal filologiazko ikerketak Estatu Berriaren ildoan erakundetzeko saioan. A. Tovar CSICen Instituto Antonio de Nebrija de Filología Clásica-ko idazkaria zen Madrilen, R. Menéndez Pidal buruaren ondokoa. CSIC, garaiko baliabide ekonomiko eskasak bereganatuta erregimenaren estrategia nazionalista eta autarkikoan kokatzen zen bete-betean. Egitasmo orokor horren barruan IANFC gisako humanitateen alorreko institutuek diktadura frankistak lehenesten zuen bernazionalizatze ideologikoaren tresna ziren.

CSICen buru nominala Hezkuntza Nazionaleko ministroa zen, baina erakundearen kontrola J. M. Albareda idazkari nagusi eta Opus Dei-ko kidearen eskuetan zegoen. A. Tovar, R. Serrano ministro falangista boteretsuaren taldekoa izanagatik, 1941n filologia klasikoko doktoregoa eskuratu eta alde batera utzi nahi izan zituen eginkizun politikoak, baina Eliza katolikoaren ortodoxia integristak susmo txarrez ikusten zuen haren ideologia (Ramos Ruiz 2009: 49-51). BMG beteko *El imperio de España* (1941) liburuan, falangismo eleanitza aldarrikatu zuen:

Ya para dentro de España, creemos que la sola conciencia de los deberes del Imperio será bastante para mantener la idea de la unidad de destino. No podemos creer que ante la grandeza de la tarea común pueda haber rencores que se nieguen a tomarla sobre sus hombros. Esperemos que los resentidos sabrán ensanchar sus corazones a los aires imperiales. Cataluña y Vasconia y Galicia, darán su voz también en el Imperio. Y entonces, lenguas, costumbres, historias, encontrarán su libertad justa, bajo el signo — flecha y yugo— del Imperio (Tovar 1941: 15-16).

Nolanahi den, uste izatekoa da Euskaltzaindia-CSIC elkarlana ez zela J. Irigoyenen asmo pertsonala, baizik eta J. M. Areilza buru JCVren batzorde iraunkorrarena.³⁸¹ 1941eko ekainaren 17ko gutunean A. Tovarrek oso pozik erantzun zion J. Irigoyeni, eta gerra aurreko *RIE*Vekin lotu nahi izan zuen egitasmoa:

Reunidos el amigo Subiñas y yo, hemos pensado escribir a V. para darle cuenta de que estamos conformes y muy entusiasmados con su plan de reorganizar los estudios del vascuence en España. Hay que comenzar antes de que nos quiten el mando en esto los franceses o cualquier otro. Sinceramente creo que en vez de fundar algo nuevo, lo mejor

³⁸¹ Hala ere, JCVren 1941eko batzar agiriek ez dute egitasmo horren berri ematen (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», Junta de Cultura C-62).

sería reanimar de nuevo la Rev. Internacional de Estudios Vascos. ¿No podríamos para esto aunar los esfuerzos de las Diputaciones de Bilbao y San Sebastián, con los de nuestro Instituto de Filología? Hable V. de esto con Don Resurrección y dígame que podríamos reunirnos sobre el asunto con él y con Don Julio de Urquijo ahí en Bilbao o en San Sebastián. Yo creo que el Consejo de Investigaciones a través de nuestro Instituto de Filología «Nebrija» apoyará la cosa. Subiñas y yo hablaríamos aquí con Areilza, y este mismo verano podría salir la revista. Habría modo de crear en Madrid una sección vasca en nuestro Instituto y el ideal sería llegar a una reunión mensual alternando Madrid, Bilbao y San Sebastián (apud Kintana Goiriena 2008: 373-374).³⁸²

J. Irigoyenek IANFCeko kidearen gutuna irakurri zuen Euskaltzaindiaren ekainaren 26ko batzarrean. Batzarrak erabaki zuen harekin gaiaz hitz egiteko hurrengoak elkartuko zirela: J. Irigoyen, J. Urquijo eta R. M. Azkue (ALV 1956: 318). Hain zuzen, A. Tovarren euskal solaskide nagusia ez zen J. Irigoyen izango, baizik eta J. Urquijo *RIE*Ven zuzendari ohia. Politikari falangistak euskararekiko zuen interesak ezinegonaz sortzen zuen, baina A. Tovarrek ikerketa filologikoa omen zuen helburu nagusi.³⁸³ Euskaltzaindian zuzenean eragin baino, nahiago zuen *RIE*V berpiztu, euskal ikasketen plataforma nagusia izan zedin Espainiako Gobernuaren babespean.

Donostian elkarrizketa izan ostean, A. Tovarrek, J. Urquijori idatzi zion. *RIE*V berpiztea elkarlanaren ondorio izan zitekeela uste zuen. Bera Madrilen saia zitekeen IANFCren bidez, eta J. Irigoyen prest zegoen BPDa inplikatzeko. Bileretan JCVko Antonio Gonzálezek ere parte hartu zuen. GPDA inplikatzeari, aldiz, J. Urquijo arduratzea nahi zuten. Halaber, euskaltzainburua eta ALV erakarri nahi zituen egitasmora.³⁸⁴

1941eko ekainaren 23an, ALVren batzarra baino hiru egun lehenago, erantzun zion J. Urquijok. Hizkuntzalaritza eta politika BMGn nabarmen nahasten ari ziren. W. Ziesemer antropologoaren *Das Land der Basken* (1934) liburuak hasitako bidetik, euskaldunek interesa pizten zuten nazien artean. Euskara eta hizkuntza kamitosemitikoak genetikoki uztartzeko gerra aurreko joera apalduz zihoan, eta Alemanian euskaldunak ariotzat jotzen zirela adierazi zion. EGZak eta adinak eragindako nekearekin, kezkatuta zegoen *RIE*V argitaratzen jarraitzea eskatzen ziotelako:

³⁸² ABA-EUS: A. Tovarren gutuna J. Irigoyeni, 1941-06-17.

³⁸³ Kontuan hartu behar da hizkuntzalaria garaiko intelektual ezaguna zela, eta prentsan adierazpen antidemokratiko oso dogmatikoak egiten zituela (cf. *La Voz de España* 1941-10-03).

³⁸⁴ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, [1941-06-17?].

Lo único que me causa cierta zozobra en su proyecto es el que Vds. deseen que yo siga al frente de la revista; pues por haber cumplido 70 años y sentirme muy cansado, había decidido, según dije a V., no volver a publicar la R.I.E.V.

Esto no quiere decir, claro está, que no esté dispuesto a colaborar con Vds. en la medida de mis fuerzas, y a ponerles en relación con los especialistas a quienes trato desde hace ya muchos años.

El apoyo de la Diputación de Vizcaya me parece fácil de obtener, a juzgar por conversaciones que antes de ahora he tenido con Areilza y otros elementos vizcainos. Más complicado está lo relativo a Guipúzcoa.³⁸⁵

Izan ere, bi kazetariren ekimenez GPDak sortutako «Institututo Esteban de Garibay» delakoak ere, historia arloko buletin bat izateko asmoa zuen. GPDak deitutako bilera batean parte hartu zuen J. Urquijok, baina J. Zaragüetaren eta M. Asínen iritziaren berri zain egotea erabaki zuten ezer egin aurretik. GPDko presidente jaimista eta EI-SEVeko buru izandako J. Elorzak, halaber, ezinezko ikusten zuen elkartearen berpiztea, baina aldizkaria berriz argitaratzearen aldekoa omen zen.³⁸⁶ A. Tovarrek erantzun zion, J. Urquijoren susmo txarrak uxatu nahian, aldeko jarrera zutela J. Ibáñez Martín ministroak berak eta IANFCeko filologoek: R. Menéndez Pidal, D. Alonso nahiz J. M. Pabón.³⁸⁷ 1941eko abuztuan euskaltzainekin bildu zenean Bilbon, A. Tovar oso optimista ageri zen egitasmoarekiko.³⁸⁸

Badirudi Madrilen euskal irakurle lanpostu bat sortu nahi zutela, egitasmoaren koordinatzaile lanak egin zitzaizkion. J. Urquijok eskatuta, A. Irigarayk hautagai zerrenda prestatu zuen, egokiena zela uste zuen J. Caro Barojatik hasita. J. Caro antropologo gisa ezaguna zuen, *RIEV*en haren artikulua baten iruzkin positiboa argitaratu zuenetik (Urquijo 1934b). Hala ere, gerraondoren nabarmendu zen *Algunos mitos españoles* (1941) liburuarekin edota Falange-ren menpeko *Atlantis-Escorial* aldizkarietako artikuluekin:

Conforme me indicó, he pensado y consultado sobre la persona que representase a la revivida RIEV y me parece que la más indicada sería D. Julio Caro, versado en Historia y en Folklore vascongado muy especialmente, como Vd. ya lo sabe. Él vive en Vera de Bidasoa, y para el invierno en Madrid; muy afecto además a la RIEV y colaborador.

En su defecto se me ocurren P. Eusebio de Echalar (Lecaroz) vascólogo de mayor o menor

³⁸⁵ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1941-06-23.

³⁸⁶ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1941-06-23.

³⁸⁷ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1941-07-20.

³⁸⁸ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1941-09-23.

mérito, P. Policarpo de Yraizoz (Lecaroz), escritor vascongado muy estimable, y versado en lenguas especialmente, D. Jesús Etayo, de Pamplona, periodista, que conoce la historia del País, aunque no el vascuence.

D. Enrique Zubiri, de quien le hablé, es navarro, y ahora desde poco ha, vive en S[a]n. S[esbastiá]n.³⁸⁹

A. Irigaray Iruñean bildu zen P. Garmendiarekin, eta oztopoak ikusita, *RIEV* ez beste izen batekin agertzea proposatu zuen, urtekari edo seihilabetekari gisa.³⁹⁰ A. Tovarrek, urrian, J. M. Albareda CSICeko idazkari orokorrak idatzitako gutunaren kopia bidali zion J. Urquijori. CSICeko buruorde zen M. Asínekin *RIEV* berriz argitaratzeko egiten ari zen gestioen berri eman zion.³⁹¹ Adeitasunak gorabehera, CSICekoek J. Urquijoren esku utzi zuten ardura nagusia, eta Madrilen A. Tovar zen egitasmoan sinesten zuen bakarra. 1941eko abenduan, CSICek euskara irakurletza lanpostua sortu zuen Madrilen, A. Tovarren planari jarraituta.³⁹² IANFCen proposamenez, irakurleak hiru ardura nagusi izango zituen CSICen: euskal biblioteka zaindu, euskara eskolak eman eta *RIEV*ekiko harremana bideratu.³⁹³ CSICen zuzendaritzaren abenduaren 11ko batzarrean, IANFCen baldintzak onartu eta irakurle postua sortu zuten.³⁹⁴

J. Urquijok eskerrak eman zizkion A. Tovarri lortutako emaitzengatik. Euskaltzainak, halaber, A. Tovarren eragina erabili zuen Alemaniako Enbaxadatik mesedeak eskuratzeko. Alde batetik, Sigmund Feist hizkuntzalari juduaren argitalpenak eta, bestetik, K. Boudarekiko harremana berreskuratzea, baina horrek ez zuen BMGn Espainiara etortzeko baimenik lortu.³⁹⁵ J. Urquijok, A. Tovarregandik ez ezik, CSICeko gorabeheren berri zuen M. Asínen bidez, aspaldiko ezaguna baitzuen RAEn.³⁹⁶ Elizgizon arabistak, J. Urquijoren esku utzi zuen irakurle lanposturako hautagaia izendatzea.³⁹⁷

A. Tovarrek, bestalde, *RIEV* berriaren erredakzio batzordea osatu nahi zuen hurrengo erakundeen ordezkariekin: BPD-GPD, Euskaltzaindia, CSIC eta Valladolideko

³⁸⁹ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-08-01.

³⁹⁰ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-10-25.

³⁹¹ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1941-10-08, eta J. M. Albaredaren gutunaren kopia A. Tovarri, [1941].

³⁹² KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1941-12-16.

³⁹³ KMK-JU: IANFCren ofizioaren kopia CSICeri, 1941-11-01.

³⁹⁴ KMK-JU: CSICen ofizioaren kopia IANFCeri, 1941-12-11.

³⁹⁵ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1941-12-25.

³⁹⁶ KMK-JU: M. Asínen gutuna J. Urquijori, 1930-02-01.

³⁹⁷ KMK-JU: M. Asínen gutunak J. Urquijori, 1941-10-20 & 1941-12-12.

Unibertsitatea. Halaber, Euskaltzaindiak irakurle posturako hautagairen bat proposatzea nahi zuen³⁹⁸ Hain zuzen, J. Irigoyenek A. Tovarren gutun bat irakurri zuen Euskaltzaindiaren 1942ko urtarrileko batzarrean, seguru asko horren berri emateko (ALV 1956: 319-320).

A. Tovar, aldi berean, katedrarako oposizioak prestatzen ari zen, baina oztopoak aurkitzen ari zen Hezkuntza Nazionaleko ministerioan eta CSICen. Madrilgo Unibertsitate Zentraleko greziera katedrara aurkeztu zenean 1941ean, postua hutsik geratu zen, hautagai bakarra gazteegia omen zelako. Azkenean, Salamancako Unibertsitateko latin katedradun izendatu zutenean 1942ko martxoan, A. Tovarren ustez, bera Madrildik urruntzeko amarrua izan zen hura. Opus Dei-ko integrismoaren eskuetan geratzen ari zen goi mailako hezkuntza nahiz ikerketa. 1942an, R. Menéndez Pidalen ordeztu, Pascual Galindo apaiza izendatu zuten IANFCko buru. Izan ere, Espainiako filologia eskolaren burua, katoliko ortodoxoen jomugan zegoen, errepublikazale laikoa zelako. P. Galindok, halaber, aurre egin zion A. Tovarren asmoei, falangista izateaz gain, EBEko Centro de Estudios Históricos-ekiko jarraipen haria zelako. Helburua Eliza katolikoaren ortodoxia ideologikoa ziurtatzea zen eta ez zientzia egitea, *RIEV* bezalako egitasmoekin (Ramos Ruiz 2009: 49-50; Pedrazuela Fuentes 2010: 157-165).³⁹⁹

Betoa A. Tovarri ez ezik, J. Carori ere jarri ziotela dirudi, barojatarren liberal ospeagatik eta katoliko integristen taldetik urruti zegoelako. A. Irigarayk, esaterako, Nafarroako beste hautagai bat proposatu zion J. Urquijori 1942ko martxoan: «Dije a José Aguerre lo de la cátedra de vasc. en Madrid, y en principio le agradó; pidiéndome detalles de las obligaciones que tendría».⁴⁰⁰ Blokeo zantzuen aurrean, irakurletzaren auzia JCVra ere eraman zuten, 1942ko maiatzeko aktak adierazten duenez. Auzia korapilatzen ari zen eta erakundeek elkarri egozten zioten erantzukizuna:

Como el «Instituto Nebrija» del Consejo Superior de Investigaciones Científicas, creara un Lectorado de Vasconia, recibió la Junta el encargo de hacerlo público; cumplida esta misión, hallamos que no se ha presentado ningún solicitante. En vista de ello, acuerda la Junta dirigirse a D. Antonio Tovar, en demanda de que sean las Universidades Españolas y en particular las de Valladolid y Madrid, quienes tomen por su cuenta el dar publicidad

³⁹⁸ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1942-01-27.

³⁹⁹ Testuinguru horretan kokatu behar da, orobat, Eliza katolikoaren eta Opus Dei-ren nagusitasuna sendotzen zuen «Ley de Ordenación Universitaria» (1943) onartu zenean, A. Tovarrek Gorte frankistak aldi baterako uztea (Álvaro Ocariz 2012: 247-252, 259).

⁴⁰⁰ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1942-03-08.

al establecimiento de ese Lectorado.⁴⁰¹

Aldi berean, JCV «Seminario de Estudios Vascongados» delakoa antolatzen ari zen Bilbon. N. Oleaga-J. Irigoyen euskaltzainak, euskarazko eskolez eta artxibistika-paleografia ikastaroez arduratzen ziren, hurrenez hurren. JCVren ekaineko batzarrak zorionak eman zizkien izandako arrakastagatik, eta ondoren euskararen arloan zituen asmoen berri eman zuten. J. Zuazagoitia Bilboko alkateak hartu zuen hitza. Ondoren, JCVko kideek *RIE* Ven egitasmoa izan zuten hizpide:

Con respecto al Seminario de Estudios Vascongados, expone el Sr. Zuazagoitia la conveniencia que en la presente situación habría de tener una incrementación de los estudios relativos al vascuence. A este propósito es de interés estudiar el texto de las lecciones dadas por el Sr. Oleaga. E. Sr. Marco Gardoqui considera necesaria la aparición de una «Bibliografía de estudios referentes al vascuence». El Sr. [Antonio] González da cuenta de las gestiones que se llevaron a efecto con el Sr. Urquijo, para ver de lograr que se reanude la publicación de la *Revista de Estudios Vascos*. A este fin, la Comisión decide escribir al señor Tovar.⁴⁰²

Bizkaiko egoeraz landa, J. Urquijok ongi ezagutzen zuen Gipuzkoan gertatzen ari zena. GPDak, Instituto Esteban de Garibay-ren buru hautatu zuen 1941ean, historia ikerketak sustatzeko asmoarekin, eta 1942an Junta Provincial de Archivos y Bibliotecas-eko kide, besteak beste, J. Zaragüetarekin (Arrieta & Barandiaran 2003: 176-180). 1941ean F. Sanz Orrio falangista zen gobernadore zibila eta depurazio gogorra abiatu zuen, are tradizionalistak erasan zituena. Urte horretatik GPDko presidentea F. Aramburu karlista gaztea zen. R. M. Azkueren adiskide zen I. Lasquibar Buen Pastor elizako erretorearen bitartekaritzari esker, presidenteak GPDko bibliotekan batzarrak egiteko baimena eman zion ALVri 1942ko hasieran.⁴⁰³ Baina presidente karlistak 1942ko apirillean J. L. Arrese ministro-idazkari falangistari idazki bat bidali zion, Bizkai-Gipuzkoarako kontzertu ekonomikoa berreskuratzea eskatzen zuena. Urtea bukatu baino lehenago gobernadore zibilak F. Aramburu kargutik kendu egin zuen, FET-JONS alderdi

⁴⁰¹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1942-05-04, Junta de Cultura C-62. . Batzartuak J. Zuazagoitia, A. González, J. B. Merino, J. M. Urrutia, F. Ygartua, F. Echegaray, J. B. Marco Gardoqui eta L. Hurtado de Saracho izan ziren.

⁴⁰² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1942-06-02, Junta de Cultura C-62. Batzartuak A. González, J. M. Urrutia, J. Zuazagoitia, J. B. Merino, F. Ygartua, J. Zayas eta J. B. Marco Gardoqui ziren.

⁴⁰³ ABA-RMA: F. Arambururen gutuna I. Lasquibari, 1942-01-24.

bateratua utzi egin zuelako. Hurrengo presidentea A. Brunet katoliko independentea izan zen 1949 arte, eskuindar alderdien arteko borroka saihesteko izendatua. Gipuzkoako erakunde frankistetan gertatzen ari zen tentsioa oso gogorra zen (Luengo Teixidor 1990).

RIEV eta are gutxiago EI-SEV berpizten laguntzeko aukerarik ez zegoen giro horretan. Horren orde, RSVAP, separatismo kutsuz depuratuta, berriz abiatu zen Donostian, euskaltzain zaharra buru zela eta elkarte horren buletina izango zen *RIEV* barnealdean ordezkaturiko zuena. Uste izatekoa da Instituto Esteban de Garibay ere RSVAPek ordezkatu zuela, ez baitzuen jardun ezagunik izango. BMGko aro beligerantea zerbait apaldu zenean, *BRSVAP* hasi ziren argitaratzen 1945etik aurrera, CSICen Gipuzkoako ordezkari gisa (Aycart Orbegozo 2005: 533-552). Karlista-falangistak baztertuak izan ziren agintetik, dinastikoen faboretan. J. Urquijo bera, beti karlismoari leial agertu arren, alfonsotar monarkikoekin harremanetan zegoen. J. Urquijok egunero Donostiako Club Cantábrico-n lagunarteko berriketa egiten omen zuen hainbat oktogenario erregezale ospetsuekin: D. Berenguer jenerala, A. Padilla Bell enbaxadorea edota J. Pérez Caballero ministro ohia (J.M.P. 1949: 13).

A. Tovarri dagokionez, 1942an Salamancan bizitokia ezarri, Gasteizko Consuelo Larruzearekin ezkondu eta abuztuan R. M. Azkuerekin egon zen Lekeition euskara ikasten.⁴⁰⁴ Hala ere, 1943rako egitasmoaren arazoak agerikoak ziren. J. Urquijok adierazi zion ez zegoela baldintza egokirik *RIEV* gutxieneko maila zientifikoarekin berpizteko.

Respecto a la Revista, no sé qué decir a V. La verdad es que mis temores respecto a las dificultades con que habíamos de tropezar se confirman, por lo menos, en lo relativo a la posibilidad de mantener correspondencia frecuente con nuestros antiguos colaboradores extranjeros.⁴⁰⁵

Alde batetik, zailtasunak zituen Alemaniako K. Bouda-G. Bähr-ekin harremanetan jartzeko eta, bestetik, H. Gavelek jakinarazi zion Frantziako lankide ohiek bazutela *RIEV* Espainian berpizteko asmoaren berri. Gainera, J. Ybarrak adierazi zionez, JCVk *Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya* berpiztea nahi zuen:

En estas circunstancias y puesto que existen ya tres o cuatro publicaciones que aceptan trabajos acerca de problemas vascos, yo creo sería preferible apoyar por el momento a estas y esperar para la reanudación de la R.I.E.V. a que se normalice la situación del

⁴⁰⁴ KMK-JU: A. Tovarren gutunak J. Urquijori, 1942-07-18 & 1942-08-28.

⁴⁰⁵ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1943-01-13.

mundo. Así podría ésta salir, el día que se publique, con una colaboración, por lo menos tan importante, como la de la primera época.⁴⁰⁶

Espainia BMGn isolatuta zegoen, eta Alemania-Italiako hizkuntzalariekin soilik elkarlanean aritzea, adibidez, zentzugabekeria zen. Bestetik, CSICek ez zuen J. Caro euskal irakurle posturako izendatu.⁴⁰⁷ Alternatiba gisa, A. Tovarrek J. Caro Salamancako Unibertsitatera erakarri nahi izan zuen antzinaroko katedradun gisa eta berarekin elkarlanean aldizkaria argitaratu.⁴⁰⁸ *Lingüística y filología clásica* liburuan azaldu zuen bere egitasmoa euskal ikasketekiko: «Sin exageraciones, sin creer que en el vascuence vayamos a tener la clave de la lengua ibérica ni una explicación para todos los misterios de España antigua, algo podemos sacar del enigma vasco» (Tovar 1944a: 120).

Une horretan, oso gutxi aipatzen den Hezkuntza Nazionaleko ministroaren 1944ko uztailleko dekretu batek, herri hizkuntzei lekua eman zien unibertsitateko filologia erromanikoaren sailean. Galizierak toki oso nabarmena zuen, literatura «galaikoportuges» gisa, eta bosgarren mailako lehen lauhilabetekoan filologia katalaneko eskolak astean hiru orduz emateaz gain, curriculumez kanpoko euskara nahiz proventzera ikastaro berezien aukera ezarri zuen: «Como cursos especiales, voluntarios para el alumno habrá en la Sección de Filología románica enseñanzas de provenzal antiguo y vasco».⁴⁰⁹

Dena dela, 1944ko abenduan A. Tovarrek onartzen zuen Madrilen ez zegoela inolako interesik aldizkaria argitaratzeko. Aukera bakarra Salamancako Unibertsitateak egitea zitekeen, baina J. Carok bertaratzea nahi ez zuenez, ez zuen bere burua horretarako gauza ikusten.⁴¹⁰ Erdibide gisa, alde batetik, artikuluak idazten hasiko zen J. Urquijok zuzentzen zuen *BRSVAP* (1945) berrirako eta, bestetik, Salamancako Unibertsitateak argitaratuko zuen J. Caroren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) aitzindaria. Agintari frankistek begi onez ikusi zuten, Euskal Herriaren erromanizazio goiztiarra eta euskara-latina arteko harremanak aztertzen

⁴⁰⁶ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1943-01-13.

⁴⁰⁷ KMK-JU: A. Tovarren gutunak J. Urquijori, 1943-01-09 & 1943-02-28.

⁴⁰⁸ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1943-07-21.

⁴⁰⁹ «Decreto de 7 de julio de 1944 sobre la Ordenación de la Facultad de Filosofía y Letras». In: *BOE*, 1944-08-04.

⁴¹⁰ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1944-12-24.

zituelako.⁴¹¹

RIEV berriz argitaratzeko asmotan zebiltzanean, A. Irigarayk zenbait edizio proposatu zizkion J. Urquijori: S. Pouvreauren XVII. mendeko euskal hiztegia argitaratzea edota H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1923) gaztelaniara itzultzea.⁴¹² Era berean, NFDaren artxiboa arakatzen jardun zuen eskuizkribu interesgarrien bila.⁴¹³ Aldizkariaren egitasmoak huts egin ondoren, J. Urquijok argitalpena A. Tovarren bidez bideratu eta hitzaurre bat prestatu zuen itzulpenarako.⁴¹⁴ A. Irigarayk 1942an ekin zion H. Schuchardt itzutzeari, baina jatorrizkoaren zailtasunagatik asko luzatu zen prozesua. A. Tovar pertsonalki inplikatu zen zuzenketan, A. Irigarayk beti begi onez ikusi ez zuena.⁴¹⁵ Salamancako Unibertsitateak eta CSICek argitaratuko zuten H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947). J. Leizarragaren Itun Berriko seme iriolearen parabola baliatzen zuen, euskararen aurkezpen filologiko orokorra egiteko. Hala ere, A. Irigarayk ez zuen aukera alferrik galdu, ortografia egokituarekin, berak estandarretarako proposatzen zuen nafar-lapurtera aurkezteko:

Para los que además de un estudio arqueológico del idioma vasco desean conocer también el actual, insertamos a continuación del trabajo de Schuchardt el mismo capítulo del Evangelio de San Lucas, en la versión Haraneder-Harriet, que pasa por uno de los mejores textos del idioma literario moderno, aunque la traducción data ya de 1855 (apud Schuchardt 1947: 86).

Esanguratsuki, azalean J. Urquijo RAEko kide eta A. Irigaray «de la Academia Vasca» gisa agertzen ziren. Dena dela, J. Urquijok hitzaurrea baliatu zuen Austriako euskalariarekin izandako harremanaz xehetasunak eman eta *RIEVe*ko lankideez hitz egiteko (Schuchardt 1947: 9-23). H. Schuchardt, G. Bähr, E. Hübner, M. Gómez Moreno, J. Caro edota A. Tovarren ikerketak eskuragarri utzi nahi zituen, euskoiberismoaren auzia gutxieneko mailarekin azter zedin.⁴¹⁶ Euskal ikasketen jarraitutasuna nolabait ziurtatzea

⁴¹¹ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1945-03-13

⁴¹² KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-12-27.

⁴¹³ KMK-JU: A. Irigarayren gutunak J. Urquijori, 1942-01-19, 1942-02-03 & 1942-03-08. Halaber, Nafarroako euskararen egoeraz 1935ean bildutako datuak eskaini zituen, 20 urte ondoren argitaratuko zirenak, *Eusker*a buletina baimendu zutenean (Yrigaray 1956)

⁴¹⁴ KMK-JU: J. Urquijoren gutun-hitzaurrea A. Irigarayri, 1945.

⁴¹⁵ ABA-ATO: A. Irigarayren gutuna A. Tovarri, 1945-12-26. A. Tovarrek 1968an jatorrizko bertsiio alemana berriz argitaratuko zuen Tübingen-go Unibertsitatean, berak idatzitako hitzaurre eta bibliografiarekin. Ordurako nabarmenak ziren H. Schuchardt-ek euskalaritza diakronikoan egindako hutsegiteak (Michelena 2011c: 187-189).

⁴¹⁶ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-12-30.

izan zen euskaltzain zaharraren kezka nagusia gerraondoan, A. Tovarri azaldu zionez:

A mi juicio, los estudios vascos están en un impasse que sólo podría romperse mediante nuevas y difíciles investigaciones, que solo podrían realizarse por los lingüistas de la nueva generación, con tal de que supieran librarse de pasiones y prejuicios.⁴¹⁷

6.3 Euskaltzainburuaren ikerketak eta «Euskera» agerkaria

Euskaltzaintzat, A. Tovar, Madrilen eragiten saiatzeko tresna politiko indartsua izan zen. 1942an R. M. Azkuek laguntza eskatu zion *Euskaleriaren yakintza = Literatura popular del País Vasco* bildumaren bigarren liburukia argitaratzeko, 1936ko ekainetik probak zuzenduta eta prest zegoena.⁴¹⁸ Liburukiko euskal hitzaurrea, J. Ariztimuñok zuzentzen zuen Donostiako *Yakintza* aldizkariak argitaratu zuen EGZ aurreko bere azken zenbakian (Azkue 1936). Hiztegi-gramatikaren eta musika-kantutegiaren arloetan egin zituen lanen ondoan, folklore bilketarena izan zen R. M. Azkueren beste lan ildo nagusia, mende erdiz landu zuena Espasa Calpe-k *EY-LPPV*ren lehen liburukia 1935ean argitaratua zuen arte (Kintana Goiriena 2008; 2015).

Tropa frankistek Madril okupatu bezain laster, bigarren liburukia argitaratzeko prest agertzen zen argitaletxea.⁴¹⁹ Baina Prensa y Propaganda-ko zentsurara bidali zutenean 1939an eskuizkribua, baimena ukatu egin zioten, seguru asko gai nagusitzat Euskal Herriko berezko kultura zuen testu elebiduna zelako: «Sentimos mucho tenerle que manifestar que por ahora no nos es posible publicar su obra, por no ser autorizada. Por lo tanto, nos vemos obligados a demorarla para más adelante en que acaso se modifique este criterio».⁴²⁰ Euskaltzainburuak gestioaren bat egin zuen 1940an L. Ortiz Muñoz «Subsecretario de Educación Popular» delakoarekin, baina debekuak bere horretan iraun zuen.⁴²¹ F. Castro Almeriako institutu katedradunak adierazi zion R. M. Azkueri zein izan zitekeen liburua ez argitaratzeko arrazoi politikoa 1941n:

Hago votos, para que se publique y veamos pronto su Euskalerrriaren Yakintza, y no dudo

⁴¹⁷ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-11-16.

⁴¹⁸ ABA-ATO: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1942-02-02.

⁴¹⁹ ABA-RMA: A. Díaz Mathieu kudeatzailearen gutuna R. M. Azkueri, 1939-05-16.

⁴²⁰ ABA-RMA: A. Díaz Mathieu kudeatzailearen gutuna R. M. Azkueri, 1939-12-07.

⁴²¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Díaz Mathieuri, 1940-03-14.

que logrará el permiso fácilmente, si como creo y deseo ha desaparecido ya el peligro de que al socaire del noble y santo amor a la Patria chica retoñe el criminal e insensato odio a la Patria grande.⁴²²

Hain zuzen, F. Castrok aipatu zion A. Tovar Prensa y Propaganda-ko idazkariordearen euskararekiko interesa euskaltzainburuari. R. M. Azkuek postazko harremana izan zuen A. Tovarrekin, seguru asko euskal bibliografiaren harira, eta harremana berreskuratu nahi zuen, haren bidez baimenak lortzeko.⁴²³ A. Tovarrek 1942ko otsailean Espasa Calpe-ko arduradunarekin hitz egin zuen. Zentsura ofizialarena konponduta omen zegoen, baina arazoa materiala zen, paper faltarena.⁴²⁴ Euskaltzainburuak esker onez 1942ko udan Lekeitiora gonbidatu zuen A. Tovar, berarekin euskara ikas zezan.⁴²⁵

Dena dela, benetako arazoak ez ziren materialak. Azkenean 1942an argitaratzea lortuko zuten, baina egileak azalean aurkezten zituen bi titulazio ezabatuta: «Sacerdote de la Unión Apostólica» eta «Director de la Academia de la Lengua Vasca». Beste bi hauek baino ezin izan zituen jarri: «Doctor en Sagrada Escritura» eta «Miembro de número de la Real Academia Española» (Torrealdei 2000: 80). Euskaltzainburu izendapena 1945ko hirugarren liburukian berreskuratzea lortuko zuen, hots, BMG amaitzean (cf. Azkue 1935-1947).

Halaber, *EY-LPPV*ren hirugarren liburukia 1945ean agertu baino lehenago, berriz jo behar izan zuen agintarien laguntza eske. Argitalpena atzeratzen ari zenez, arrazoiez galdetu behar izan zion A. Tovarri: «¿Será por disposición de algún personaje del Gobierno? Si es por esto, ruego a V. cordialmente intervenga en este asunto».⁴²⁶ Ondoren, E. Bilbao Gorteetako presidentearengana jo zuen.⁴²⁷ Azkenean, Papelera Española-ko buru zen Conde de Aresti ere inplikatu zuen arazoan.⁴²⁸

R. M. Azkuek, orobat, A. Tovarren laguntza eskatu zuen ALVren batzarretan aurkezten ari zen txostena (*Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*) JCVren bidez liburu gisa argitaratzeko. Euskaltzainburuak 147 orrialdeko

422 ABA-RMA: F. Castoren gutuna F. Castrori, 1941-01-22.

423 ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna F. Castrori, 1941-01-13.

424 ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1942-02-16.

425 ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1942-10-02.

426 ABA-ATO/ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1945-04-02.

427 ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna E. Bilbaori, 1945-04-16.

428 ABA-RMA: Espasa-calpe-ko kudeatzailearen gutuna R. M. Azkueri, 1945-06-30.

eskuizkribuaren lehen idazketa 1942ko urrian bukatu zuen eta hurrengo eskaintza ezarri zuen azalean: «A la Junta de Cultura de nuestra Excma Diputación dedica esta obrita su autor agradecido por su patrocinio y especialmente por la nueva vida que ha suministrado a la Academia de la Lengua Vasca».⁴²⁹ Euskaltzainburuak egoki aukeratutako gaia zirudien, RAEko bere sarrera hitzaldiari erreferentzia zuzena egiten ziolako: *Algunos rasgos característicos del vascuence comparados con los de otras antiguas lenguas* (1928). Liburua argitaratzeko eliz baimena arazorik gabe lortu zuen Gasteizko elizbarrutiaren idazkaritzatik, baina JCVk jarriko zizikion ergaozpenak edukiarri.⁴³⁰

JCVk euskal kulturaren arloan egiten zuen depurazioa 1942ko ekaineko batzarrean ageri zen. Madrilgo liburu denda batetik, Junta de Cultura Vasca-k 1933an argitaratutako J. Gárateren *G. de Humboldt* liburua eskatu zuten. J. Gárate EAE-ANVko kidea zen, bere ikerketa lanak estremismo jeltzale eta monarkikoen arteko erdibide kritikotzat jotzen zituen. J. Zuazagoitiak ale bat igortzearen aldeko iritzia eman zuen, «puesto que la obra en cuestión puede considerarse como inocua desde el punto de vista ideológico».⁴³¹ Ideologia gorabehera, J. Zuazagoitia-J. Gáratek adiskide harremana izan zuten gerra aurreko Junta de Cultura Vasca-n.⁴³² Hala ere, Argentinako erbestetik J. Gáratek JCVri idatzi zionean, erakundearen argitalpenez galdetzeko, ez zuen inolako erantzunik jaso.⁴³³

Gerraondoko argitalpenen kasuan aniztasun ideologikoa ezabatu egin zen, eta jatorrizko testuen edukia goitik behera aztertzen zen. Hori gertatu zitzaion, hain zuzen, R. M. Azkueri, JCVren 1943ko lehen batzarrean. Batzar garrantzitsua izan zen, bertaratutako kideen zerrendan ageri denez: J. L. Goyoaga BPDko presidentea, J. Zuazagoitia, J. M. Areilza, J. B. Marco Gardoqui, J. Irigoyen, L. Hurtado de Saracho, J. Olazábal, J. Ybarra, J. B. Merino, F. Ygartua eta J. M. Urrutia. Besteak beste, hurrengoa erabaki zuten:

⁴²⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas», [1942ko urria].

⁴³⁰ ABA-RMA: L. Urteagaren ofizioa R. M. Azkueri, 1943-01-08.

⁴³¹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1942-06-02, Junta de Cultura C-62. Batzartuak A. González, J. M. Urrutia, J. Zuazagoitia, J. B. Merino, F. Ygartua, J. Zayas eta J. B. Marco Gardoqui ziren. Junta de Cultura Vasca-k 1917-1936 artean, BPDan nagusi ziren indar politikoen harira, argitaratutako egileen artean, J. Zuazagoitia bera egon zen. 1920ko *Algunos escritores vascongados desde 1874* liburuan, A. Campiónen atzerakoikeria edota L. Eleizalderen panfletismoa gaitzetsi zituen.

⁴³² KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-02-02. Kasualitatez, Euskaltzaindiaren bibliotekan dagoen aleetako bat, 1990ean Madrilen erosita, egileak J. Zuazagoitari 1933ko azaroaren 22an eskainitakoa da: «A mi culto y querido amigo Joaquín Zuazagoitia». GARATE, Justo (1933): *G. de Humboldt: estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya (ABK).

⁴³³ KMK-JU: J. Gárateren gutunak J. Urquijori, 1947-04-05 & 1947-07-28.

En cuanto a la obra del Sr. Azcue «Estudio comparativo del Vascuence con varias lenguas cultas» se acordó dirigirse a los Srs. Irigoyen y Merino para que tengan una entrevista con dicho autor a fin de llegar a un acuerdo sobre determinados extremos del libro en cuestión.⁴³⁴

Euskal Herria hizpide zuten idazlanek zentsura ideologiko zorrotza jasotzen zuten. BPDko agintari frankista antiabertzaleentzat, ez zegoen A. Tovar baino zentsore egokiagorik, hizkuntzalaritzako formazioa eta ortodoxia falangista uztartzen zituelako. Berari esleitu zioten eginkizun hori.⁴³⁵ R. M. Azkuek testuaren bi kopia bidali zizkion A. Tovarri, zuzenketak eta oharrak egin, eta Madrilen beharrezko baimena lor zezan. Euskaltzainburuak, halaber, *Eusker*a ALVren agerkari ofiziala berpizteko laguntza eskatu zion.⁴³⁶

R. M. Azkuek eskerrak eman eta 1943ko maiatzean JCVko batzorde iraunkorren parte hartuko zuela adierazi zion, Madriletik etorritako J. M. Areilza mahaiburu zutela. A. Tovarrekin elkarlanean landutako Euskaltzaindiaren buletin ofizialaren argitaratzeko egitasmoa aurkeztu nahi zuen. Batzordean, orobat, A. Tovarrek ikuskatutako euskaltzainburuaren txostena aurkeztu nahi zuen, BPDak argitaratu zezan.⁴³⁷

Baina ez zen halakorik gertatu. JCVren hurrengo batzarra ekainean izan zen eta agiriaren arabera, bertan ez ziren J. M. Areilza-R. M. Azkue egon. D. Areitio, J. Adán edota G. Balparda zenaren argitalpenak bideratzea erabaki zuten, baina euskaltzainburuarenak geroratu egin zuten: «Quedó sobre la mesa para un estudio más completo la publicación de D. R. M. de Azcue *Estudio Comparativo del Vascuence, con Varias Lenguas cultas*».⁴³⁸

Euskaltzainburuaren liburuak arazoak sortzen zituen, seguru asko euskararen berezitasunak nabarmentzen zirelako, agintari frankistentzat separatismo kutsua zuena, eta argitaratzea sei urte egon zen geldí.

R. M. Azkuek, 1943ko apirilean, E. Bilbaori, Justizia ministerioa utzi berrian,

⁴³⁴ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1943-01-09, Junta de Cultura C-62.

⁴³⁵ ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1943-03-30.

⁴³⁶ ABA-ATO/ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1943-04-01.

⁴³⁷ ABA-ATO/ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1943-05-08.

⁴³⁸ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1943-06-22, Junta de Cultura C-62. Beste hauek batzartu ziren: J. B. Marco Gardoqui, M. Souto Vilas, F. Echeagaray, J. B. Merino, L. Hurtado de Saracho, J. M. Arteché Olabarri, Antonio Elias, J. Ybarra, J. M. Urrutia eta P. Garmendia idazkaria.

gutuna idatzi zion JCVren argitalpenerako baimena lor zezan Madrilén.⁴³⁹ R. M. Azkueren zurikeria gorabehera, bistan da BPD-JCVk eragozpenak jartzen zizkiotela liburuaren edukiari. R. M. Azkue Madrilgo agintarien bidez ahalegintzen ari zen kosta ahala kosta zentsura saihestu eta euskalaritzako idazlanak argitaratzeko. Gorte frankista berrietako presidenteak maiatzean adeitsuki erantzun zion. A. Tovarren eskuetan zegoen euskaltzainburuaren idazlana: «Me propongo mediar con este último y celebraré muy de veras que mi intervención sea plenamente eficaz».⁴⁴⁰

Aldi berean, A. Tovarrek *Euskera* argitaratzeko asmoari eutsi zion hasieran eta artikulu bat prestatu zuen euskara-iberiera arteko harreman genetikoaz: «¿Qué hay de la revista de la Academia Vasca? Dígame si yo puedo hacer algo, si hubiera en Madrid alguna dificultad».⁴⁴¹ R. M. Azkuek itxaropen izugarriarekin hartu zuen Salamancako katedradunaren eskaintza.⁴⁴² Horren berri eman zuen ALVren 1943ko irailaren 24ko batzarrean Donostian, baina gainerako euskaltzainek egitasmoa begi onez ikusi arren, orduko baldintzetan ezinezkotzat jo zuten: «Respecto a su idea de la reaparición de nuestra Revista Euskera fue aceptada con gusto, aunque (decían mis compañeros) parece que hoy no podrá conseguirse».⁴⁴³ Mekanografiatutako kopia ofizialetan ez dago batzar horretako agiririk, baina gordetzen da N. Oleagak eskuz idatzitako agiri zirriborroa. Horren arabera, R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga bildu ziren. Besteak beste, A. Tovarren idazkia aipatu zuten *Euskera* agerkaria berriz argitaratzeko aukeraz, baina erabakia geroratu egin zuten.⁴⁴⁴

1944ean A. Tovar katedradunak euskal ikasketak erakundetzeko bere asmoei eusten zien, baina nabari ziren goi mailako agintari frankistekiko etsipen zantzuak. Esan bezala, J. Caro erakarri nahi zuen Salamancako Unibertsitatera, elkarrekin euskal ikasketen gun bat sortzeko, baina Hezkuntzako Nazionalako ministerioak ez zuen erraztasunik ematen.⁴⁴⁵ Opus Dei-ko integrista katolikoek betoa oso nabarmena zen, aldi berean Barne Arazoetako ministerio falangistatik mesede politikoak lortzen zituelako. R. M. Azkuek eskatuta, Alejandro de la Sota familia jeltzale ospetsuko kidea erbestetik

⁴³⁹ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna E. Bilbaori, 1943-04-26.

⁴⁴⁰ ABA-RMA: E. Bilbaoren gutuna R. M. Azkueri, 1943-05-11.

⁴⁴¹ ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, [1943]-08-25.

⁴⁴² ABA-ATO: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1943-08-28.

⁴⁴³ ABA-ATO: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1943-10-02.

⁴⁴⁴ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1943-09-24.

⁴⁴⁵ ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1944-02-08 & 1944-02-17.

itzultzeko baimena lortu zuen.⁴⁴⁶ B. Pérez González ministroak berak erantzun zion A. Tovarri arazoa bideratuko zuela.⁴⁴⁷ *Eusker*a agerkariari dagokionez, R. M. Azkueri adierazten zion BPDak bere gain hartuz gero, ez zutela zentsurarekin arazorik izango. Bera Madrilen eragiteko prest agertzen zen.⁴⁴⁸

1944. urteko amaieran, CSICen Bizkaiko ordezkariak JCVk hartu zuen, alde batetik, J. M. Areilzak J. M. Albaredarekin Madrilen eta, bestetik, A. Elíasek J. L. Goyoaga BPDko presidentearekin negoziatu ondoren.⁴⁴⁹ Era horretara, CSICen diru laguntzak ere jasotzen hasiko zen, baina bere argitalpen politikaren berri ere eman beharko zion JCVk Madrilgo erakundeari.⁴⁵⁰ J. L. Goyoaga, J. M. Areilza, L. Hurtado de Saracho, J. Ybarra, F. Ygartua, J. B. Merino, M. Souto Vilas eta P. Garmendiak osatutako batzarrak baztertu egin zuen euskaltzainburuaren liburua CSICi aurkeztutako argitalpen plangintzatik.⁴⁵¹

Madrilgo Espasa Calpe argitaletxea 1935ean abiatutako *EY-LPPV*ren gainerako liburukiak plazaratzen joan zen 1942-1947 artean. Kontuan hartu behar da euskarazko R. M. Azkue «aitona loriatsuaren» liburu etnografiko horiek (gaztelaniazko itzulpenarekin betiere) liburudendetan agertzeak nolako zirrara eragiten zuen diktadura frankistaren zentsura bortitzera ohitutako euskaltzaleen artean, J. Artechek Donsotiako egunkarian eskaini zion artikulua geri denez:

No hace muchos días que vimos al insigne sacerdote vizcaino. Caminaba encorvado, con el paso menudo y vacilante de los ancianos; sus ojos azules, un poquito ensombrecidos, cargados de penetrante inteligencia. Pocas vidas mejor consumidas en holocausto de la cultura de nuestro país que la de don Resurrección María de Azkue, director de la Academia de la Lengua Vasca y miembro de número de de la Real Academia Española, figura que la reciente publicación del cuarto tomo de «Euskalerrriaren Yakintza» — Literatura del País Vasco—, coloca en plano preferente de la actualidad (*La Voz de España* 1948-02-06)

Euskaltzainburuaren *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*, ordea, geldiarazita zegoen. 1948rako aldaketak nabari ziren JCVren batzorde

⁴⁴⁶ ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1944-05-04.

⁴⁴⁷ ABA-RMA: B. Pérez González gutuna A. Tovarri, 1944-02-12.

⁴⁴⁸ ABA-RMA: A. Tovarren gutuna R. M. Azkueri, 1944-05-04.

⁴⁴⁹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1944-10-18, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵⁰ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1944-11-15, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵¹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1945-01-15, Junta de Cultura C-62.

iraunkorreen. J. Ybarra BPDko presidente berria zen buru, kide berrien artean Ignacio Urquijo zegoen, eta E. Calle Iturrino zen idazkaria, hildako P. Garmendiaren orde. Urte horretako otsaileko batzarrean euskaltzainburuaren eskari berri bat aurkeztu zen, azken sei urtetan ezer gertatu ez balitz bezala: «Se dio cuenta de una proposición de don Resurrección María de Azkue para que la Junta edite una obra del mismo titulada *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*; lo que se pasó a informe del suscrito secretario».⁴⁵² Azkenean, euskaltzainburuaren liburua urte horretako argitalpen plangintzan txertatu zuten: sei liburuz osatutako zerrendan bosgarrena.⁴⁵³ JCVk 1948ko uztailan El Noticiero Bilbaíno argitaletxeari aurrekontua eskatu zion. 1.250 ale argitaratzeak 10.400 pta balio zituen.⁴⁵⁴

Aldi berean, agian JCV presionatzeko helburuarekin, euskaltzainburuak idazlan hori komunikazio gisa bidali zuen EIL-SIEBek 1948ko irailean Biarritzen egin zuen biltzarrerara (Larronde 2004a: X). JCVk bat-batean lehentasun erabatekoa eman zion argitalpenari, P. Garmendiaren antologiaren eta V. Berrio-Ochoaren biografiaren gainetik.⁴⁵⁵ Azaroan E. Calle Iturrinok liburua argitaratzen hasteko agindua eman zuen Algecirastik.⁴⁵⁶ 1949ko lehen batzarrean, E. Calle idazkariak *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949) liburuaren argitaratzearen berri eman zien batzartutako JCVko kideei: J. Ybarra, F. Echegaray, N. Zorrilla, L. Hurtado de Saracho, J. L. Gaytán de Ayala eta J. Irigoyen.⁴⁵⁷

Azkenean, erbesteko abertzaleei aurrea hartuta, 1949ko martxoan Bilbon argitaratu zen sei urtez geldiarazita egondako liburua.⁴⁵⁸ Liburuaren barne azalean, R. M. Azkueren ohiko izendapen erlijioso-akademikoak agertu ziren, baina azalean soilik RAEkoa ageri zen, Euskaltzaindikoa baztertuta: «miembro de número de la Real Academia Española» (Azkue 1949). Liburuan, besteak beste, L. Hervás apologistaren aipuak erabili ziren euskararen espainiartasuna nabarmentzeko. Bestalde, R. M. Azkuek, JCVk argitaratutako liburuan, agerkari ofiziala ezin argitaratzearen kexu antzekoa

⁴⁵² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1948-02-23, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵³ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1948-04-30, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵⁴ BFAH-EC: El Noticiero Bilbaíno-ren aurrekontua JCVrentzat, [1948-07-15], Junta de Cultura C-6 — 16-.

⁴⁵⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1948-10-07, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵⁶ BFAH-EC: JCVren gutuna El Noticiero Bilbaíno-ri, 1948-11-25, Junta de Cultura C-6 — 16-.

⁴⁵⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-01-11, Junta de Cultura C-62.

⁴⁵⁸ BFAH-EC: El Noticiero Bilbaíno-ren emate agiria JCVrentzat, 1949-03-24, Junta de Cultura C-6 — 16-.

tartekatu zuen, ohi zuen diplomaziarekin: «El mismo Moguel, en el autógrafo de su *Peru Abarca* tiene un prólogo inédito [...] que saldrá algún día en nuestra Revista *Euskera*» (Azkue 1949: 44; 2003: 714).

Ez zuen euskaltzainburuak bizi artean horrelakorik ikusiko. RAGk, ordea, bere buletina berriz argitaratzeari ekin zion 1942tik. Are frankismoarekin aitortza legalik ez zuen IECEk, , diru laguntza pribatuei esker, R. Aramon idazkariaren zuzendaritzapeko *Estudis Romànics* aldizkaria argitaratzen hasi zen 1949an, elkartearen barne bizitzaren berri ematen ez zuena, baina maila handiko filologia lanak hedatu zituen nazioartera (Balcells, Izquierdo & Pujol 2007: 128-131).

6.4 Florentino Castroren «El enigma del vascuence ante las lenguas indeuropeas»

Diktadura frankistak eta bereziki CSICEk euskararen arloan sustatzen zuten ikuspegiaren adibide garbiena da Florentino Castro Guisasola (1893-1945) latin katedradunaren idazlana. M. Asínek, J. Urquijori laguntza eskatu zion CSICen «Francisco Franco» ikerketa sarietara aurkeztutako F. Castroren *El enigma del vascuence* epaitzeko. Idazlanaren tesia zen euskara indoeuropar hizkuntza zela, eta J. Urquijoren ustez sari nagusia hari eman zuten gero, nazioarteko hizkuntzalarien CSICen ospea zalantzan geratuko zen. Horregatik bigarren mailako sari txikietako bat eman zioten, baina era berean F. Castroren lana *RIE* Ven bidez argitaratzeko eskatu zion M. Asínek, nahiz eta hitzaurrean tesiarekiko erreserbak adieraz zitzaiken.⁴⁵⁹

Izan ere, J. Urquijok, tesiarekin bat ez egin arren, argitaratzea gomendatu zuen, eztabaida zientifikoa sustatzeko, A. Tovarri edota G. Bähr-i gutunez adierazi zien bezala (Jauregi 2005: 312).⁴⁶⁰ J. Urquijo korrespondentzia pribatuan saiatu zen F. Castroren oker zientifikoak zuzentzen garaiko bibliografia onena bidaliz eta bereziki aditzaren auzia azter zezala eskatuz.⁴⁶¹ Izan ere, Almeriako institutu katedradunak lexikoan jarri zuen arreta nagusia, baina ez zituen ongi bereizten euskarazko hitz zaharrak, mailegu erromanikoak edota sabindar neologismoak.⁴⁶² Euskararen eta Europako hizkuntzen

⁴⁵⁹ KMK-JU: M. Asinen gutunak J. Urquijori, 1941-10-20 & 1941-12-12.

⁴⁶⁰ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1941-12-25.

⁴⁶¹ KMK-JU: F. Castroren gutunak J. Urquijori, 1941.

⁴⁶² KMK-JU: F. Castroren gutunak J. Urquijori, 1942-01-24 & 1942-02-06.

arteko ustezko antzekotasun lexiko eta morfologikoak luze azalduta, euskara indoeuroparraren «anaia» zela frogatu nahi zuen.

CSICek F. Castroren *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* (1944) argitaratzea erabaki zuen, baina bi urte luzatu zen prozesua. F. Castro kexu zen CSICen moteltasunagatik. Berak nahi zuen J. Urquijok inprenta proba guztiak zuzendu eta hitzaurrea idaztea liburuari.⁴⁶³ Baina argitaratzea gorabeheratsua izan zen eta F. Castro ez zen gai nazioarteko hizkuntzalarien mailan aritzeko. J. Urquijoren ohar gutxi batzuk onartu eta batez ere bibliografia atala eguneratu zuen, baina aldaketa kosmetikoak ziren.⁴⁶⁴ Liburua ezustean argitaratu zuten 1944ko amaieran, egileak probak guztiz zuzendu gabe eta bereziki J. Urquijoren hitzaurrerik gabe.⁴⁶⁵ Dean dela, J. Urquijok *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* hizpide izan zuen Euskaltzaindiaren 1944ko apirilaren eta azaroko batzarretan (ALV 1956: 323-324).

BMGko testuinguruan, 1942an inprimatzen hasitako liburuko tesi zientifikoaren korrelatu politikoa aski nabarmena ez balitz, editoreek «Revolución Nacional Sindicalista» delakoa goratzen amaitu zuten liburua (Castro Guisasola 1944: 289). CSIC erakunde ustez zientifikoak argitaratutako hizkuntzalaritza liburua propagandarako tresnatzat erabili zuten eskaintza menéndezpeyalistan:

A La Ciencia Española a quien la orden de nuestro eximio Caudillo —reiterando el divino Surge et ambula— impele hacia deslumbrantes derroteros de triunfos y de luz, se rinde este modestísimo tributo, escrito en acendrado amor a nuestra adorada patria, España, libre, grande y Una, católica e inmortal (Castro Guisasola 1944: 1).

Liburua IANFCko *Revista de Filología Española*ren gehigarri gisa agertu zen, baina nabari da A. Tovarrek ez zuela zerikusirik izan. A. Tovarrek idazlanaren oinarri zientifiko eskasa gogor kritikatu zuen CSICen *Emerita* aldizkarian, batez ere fonetika historikoan eta euskararen gramatikan agertzen zuen ezjakintasunagatik. Hobe euskararen latinezko maileguak aztertzer mugatu izan balitz, liburuaren gainerako erkaketa guztiak fantasia hutsa baitziren (Tovar 1944b). J. Urquijok kritika hura irakurri ondoren, A. Tovarren hizkuntzalari gaitasunaz guztiz jabetu zen.⁴⁶⁶

⁴⁶³ KMK-JU: F. Castroren gutunak J. Urquijori, 1942-11-07 & 1942-02-06.

⁴⁶⁴ KMK-JU: F. Castroren gutuna J. Urquijori, 1943-09-02.

⁴⁶⁵ KMK-JU: F. Castroren gutuna J. Urquijori, 1944-09-23.

⁴⁶⁶ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-02-11.

J. Urquijok, *BRSVAP*en lehenengo zenbakian, Nafarroako euskaltzainak *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeasi* egindako kritika zuhurra argitaratu zuen (Yrigaray 1945). Hala ere, F. Castrok kritikak onartu eta *BRSVAP*en artikulu labur batzuk argitaratu zituen, J. Urquijoren esku bakegilea erakusten zuena.⁴⁶⁷ Oviedon jaiotako baina amaren aldetik jatorri euskalduna zuen F. Castro, 1945eko abenduaren 8an hil zen Almerian. J. Urquijori jakinarazi zionez, euskara-latina arteko mailegu eta korrespondentzia zerrenda prestatzen ari zen.⁴⁶⁸

Alargunak *Léxico etimológico del euskera. Primer intento de sistematización del vocabulario vasco* izeneko eskuizkribua saldu nahi izan zion Euskaltzaindiari, baina diruz urri zeudelako, ezezkoa ematea erabaki zuten 1946ko martxoaren batzarrean (ALV 1956: 326). F. Castro hil eta BMGko lerro beligerantea baretu ondoren, *BRSVAP*en Italiako A. Bausaniren kritika sendoagoa argitaratuko zuten (Bausani 1947). J. Urquijok euskal filologiaren gutxieneko maila zaintzen jarraitzen zuen, baina orain diktadurak eskaintzen zizkion plataformetatik.

6.5 Gerhard Bähr-en «Baskisch und Iberisch»

Oinarri zientifiko eskaseko baina baldintza politikoek sustatutako erdipurdiko euskalaritza lanen aurrean, J. Urquijo, besteak beste, Alemaniako G. Bähr hizkuntzalariarekiko harremanari eusten saiatu zen BMGn. Argitaratutako korrespondentziari esker, nahiko ongi ezagutu daiteke G. Bähr-en biografia eta Euskaltzaindian izan zuen parte hartzea (Jauregi 2005).

Gerhard Bähr (1900-1945) Gipuzkoako Legazpin jaio zen, bere aita 1891tik bertako meategiaren zuzendaria zelako. 1912an batxilergoa ikastera Alemaniara bidali zuten, baina LMGren ondoren Euskal Herriarekiko harremana berreskuratu eta euskara sakonki aztertzeari ekin zion. Euskaltzaindiaren 1920ko batzar batean parte hartu zuen Iruñean eta gipuzkerazko aditzaz egindako azterketa aurkeztu zion euskaltzainei. Atzerriko gaztearen gaitasunaz jabetuta, idazlana *Euskeran* argitaratu eta urgazle izendatzea erabaki zuten 1921ean.

Oso gertutik jarraitu zituen Euskal Herriko gorabehera politiko-kulturalak. Berak gipuzkeran oinarritutako estandar bat sortzeko beharra ikusten zuen. Oso kritiko agertzen

⁴⁶⁷ KMK-JU: F. Castroren gutunak J. Urquijori, 1945-03-01 & 1945-03-11, 1945-04-23.

⁴⁶⁸ KMK-JU: F. Castroren gutuna J. Urquijori, 1945-10-21.

zen sabindar eskolako hizkuntzalari jeltzaleekin, nahiz eta politikoki haien joera ulertu. Abertzaletasunagatik ez balitz, uste zuen euskara mende erdiren buruan desagertuko zela. R. M. Azkue-J. Urquijorekin harreman estua izan zuen eta berehala hainbat lan agindu zizkioten: H. Schuchardt-en ikerlanak gaztelaniara itzuli, R. M. Azkueren *Latsibi* eleberria gipuzkerara moldatu, *Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionarioko* galdeketa dialektologikoak egin edota *RIE*Verako artikuluak idatzi. G. Bähr-ek Göttingen-go Unibertsitatean kimika eta filologia ikasketak burutu zituen aldi berean, Euskaltzaindiak diruz lagundu zuen, etorkizunean haren lankidetzaz ziurtatzeko asmoarekin.

C. Echegaray historialari maurista 1925ean hil ondoren, hark Euskaltzaindian utzitako aulkirako I. López Mendizábal abertzalea aurkeztu nahi izan zutenean, R. M. Azkuek betoa ezarri zion *DVEF*en edukiak baimenik gabe erabili zituelako. I. López Mendizábalen ordez, G. Bähr aurkeztu nahi izan zuen euskaltzainburuak, aldi berean abertzale neologisten taldeari oposizio indartsuagoa egin ahal izateko. G. Bähr-ek bere hautagaitza erretiratzea eskatu zuen, eta I. López Mendizábal-E. Bustinza-N. Ormaechea hautagai egokiagoak zirela adierazi zuen, jeltzaleen eta ALVren arteko harreman gorabeheratsuak bideratzeko. Dena dela, erdibide gisa, B. Echegaray, Carmeloren anaia, hautatu zuten euskaltzain 1926an.

Nolanahi den, G. Bähr-en ustez, J. Urquijo-G. Lacombe ziren ALVn gutxieneko maila zientifikoa zuten bakarrak. Besteak beste, R. M. Azkue-J. Urquijo RAEko kide izendatu zituztenean diktadura primorriveristan, zoriondu egin zituen, Espainiako Gobernuaren euskararekiko jarrera aldatu zitekeenaren itzaropenarekin. J. Urquijori berriz zorionak eman zizkion, autonomia estatutuaren aldeko katoliko-foruzaleekin bat eginez, euskaltzaina EBeko diputatu hautatu zutenean. Hala ere, bere ideologia eskuindar eta nazionalistari jarraituta, EGZean Espainiako militar matxinoen alde egin zuen, euskaltzainburuari adierazi zionez: «En particular anhelamos todos la victoria del Generalísimo Franco, que creemos próxima. Cada día seguimos el curso de las operaciones en España y nos alegramos mucho del progreso continuo de los nacionales» (apud Jauregi 2005: 171)

BMGn mobilizatuta egon arren, orobat, astia izan zuen Göttingen-go Unibertsitatean 1940ko martxoan *Baskisch und Iberisch* tesia aurkezteko. Tesian, artean eztabaidan zegoen M. Gómez Moreno arkeologoak proposatutako iberierazko idazkunen irakurketa onartu zuen. Baina aldi berean euskara-iberiera arteko harreman genetikoak

ukatu zuen, nazionalismo espainolak eta tradizionalismoak hain gogoko zuten teoriaren aurka: euskara hizkuntza isolatutzat jo zuen. Bestalde, Iberiar penintsulako eleaniztasuna edota akitanieraren izaera nahasia (euskara/zeltera) defendatu zituen. 1939-1940ko gutunetan oso xeheki aurkeztu zizkion tesiaren eduki eta ondorio nagusiak J. Urquijori, baina BMGk oztopatu egin zuen berehalako argitalpena. Hain zuzen, euskaldunak ariotzat jotzen zituztela adierazi ziotenean soldadu naziek J. Urquijori Donibane Lohizunen nahiz Donostian, horren berri eman zion G. Bähr-i. Politikaren menpeko baldintza horietan, G. Bähr-en elkarlana ziurtatu nahi izan zuen 1942an, CSICen itzalpean *RIEV* berpizteko egitasmoak maila zientifikoari euts ziezaion.

Bestalde, euskaltzainburuak ALVko batzarretan iruzkindutako idazlanean artean, G. Bähr-ek 1941ean *Weltverkehrs-Sprachen* aldizkarian argitaratutako «Das Baskische» artikulua nabarmendu behar da. R. M. Azkuek postaz jaso zuen artikulua eta hainbeste gustatu zitzaion, itzuli eta ALVren 1942ko martxoaren batzarrean irakurri zuela (ALV 1956: 320). J. Urquijok, orobat, R. M. Azkueren gaztelaniazko itzulpena argitaratzeko asmoa izan zuen, baina ez zen gauzatu. Nolanahi den, G. Bähr-ek artikuluan euskararen ezaugarri tipologikoak aurkezteaz gain, ohar soziopolitikoak egin zituen, abertzaleak ez ezik, diktadura frankistaren utzikeraia ere kritikatzeko zituen. Uste dut barnealdeko euskaltzain zaharren posizioa islatzen zuela:

Lo más fatal a la larga resultó la mezcla de la lingüística con tendencias y pretensiones políticas. El ser vascófilo era tenido comúnmente, aunque muchas veces sin motivo, como sinónimo de separatista. A consecuencia de las decisiones políticas de los últimos años se ha suspendido por completo la protección del idioma. Y si las cosas siguieran el mismo camino que hasta ahora, el vascuence, que a través del periodo de miles de años se ha mantenido con fuerza asombrosa y admirable de resistencia frente a lenguas extrañas, dentro de pocos años sería una lengua condenada a extinguirse, cosa que yo sentiría (apud Jauregi 2006: 555).

Hain zuzen, ikerlanak baztertuta, G. Bähr-ek, gaztelaniazko interprete gisa, 22 hilabete egin zituen Errusiako frontean División Azul-eko soldaduekin mobilizatuta. Aliatuek 1943an Hannover bonbardatu zutenean, etxea eta euskal biblioteka galdu zituen. R. M. Azkue-J. Urquijori azken aldiz 1944ko martxo-apirilean idatzi zion Alemaniari. J. Urquijo asko larritu zen haren berri ez zuelako eta laguntza eskatu zion A. Tovarri, Espainian jaiotako urgazlearen kasua Madrilen azter zedin. BMG amaituta, hura

aurkitzeko saioak egingo zituzten, 1945ean Berlinen hil zela jakin gabe.⁴⁶⁹ Honela erantzun zion A. Tovarrek, artean Consejo Nacional del Movimiento-ko kide zela:

Hablaré en Madrid del caso de Bähr, y si se le llega a localizar se podría lograr una intervención oficial del Ministerio con los americanos o quien correspondiera. Espero me tenga V. al corriente si tiene alguna noticia. Pero lo primero que se necesita es saber dónde está, en cuál de las zonas en que se han repartido a la pobre Alemania.⁴⁷⁰

A. Tovar prest agertu zen G. Bähr-i lanpostu bat Salamancako Unibertsitatean eskaintzeko. Bestalde, Suitzan zegoen J. Pokorny hizkuntzalari juduaren bidez, G. Bähr-en tesia berreskuratu eta Espainian argitaratu nahi izan zuten.⁴⁷¹ Horregatik kexu agertuko zen 1948an, G. Bähr-en *Baskisch und Iberisch* tesia J. M. Barandiaranek erbestean zuzendutako *Eusko-Jakintzan* argitaratu zutelako, eta ez Espainian. Hala ere, hurrengo aitortu zion A. Tovarri: «pero lo esencial es que no se pierda y que aparezca lo antes posible».⁴⁷² Guztiaren berri J. Bilbaok eman zion, J. Urquijorekin 1947ko udan Donostian bildu ostean. K. Boudak lortu zuen G. Bähr-en alargunarekin hitz egin eta tesiaren eskuizkribua erostea. K. Boudak eskuizkribua zuzendu, kopiatu eta sarrera bat gehitu zion 1948ko urtarrilaren 15eko datarekin. Bertsio hori J. M. Barandiaranek jaso eta EIL-SIEBen *Eusko-Jakintzan* argitaratzea erabaki zuten.⁴⁷³ Erbeste abertzaleak barnealde frankistari irabazitako lorpen zientifikoa izan zen hura (Bähr 1948).

6.6 «*Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*»

Euskaltzaindia ez zen izan EGZaren ondoren bizirik iraun zuen euskal kultur elkarte bakarra. ALVk 1941eko apirilean gerraondoko batzarra egin eta hilabete batzuetara, azaroaren 28an, RSVAPek ere batzarra egin zuen Donostian hurrengo kideekin: Francisco Urcola buru, Conde de Peñaflorida, Fernando del Valle, J. Urquijo, J. Muñoz Baroja eta S. Gómez Izaguirre. Euskaltzaindiak ez bezala, gerra aurreko azken batzar agiria, 1936ko otsailarena, onartu zuten, non, besteak beste, Víctor Pradera ohorezko kide izendatu baitzuten. 1942ko maiatzean eta ekainean beste bi batzar egin

⁴⁶⁹ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-1948.

⁴⁷⁰ KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1945-12-27.

⁴⁷¹ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1947-06-04.

⁴⁷² ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1948-03-06.

⁴⁷³ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-02-13.

zituzten Donostiako San Telmo Museoa. F. Urcola arkitektoa 1943an hil ondoren, berregituratze prozesu bat hasi zen eta kide berriak izendatu zituzten, hala nola, M. Ciriquiain GPDko idazkaria.

F. del Valle historialari monarkikoa behin-behineko buru izan ondoren, 1943ko apirilaren batzarrean, zuzendaritzak aho batez J. Urquijo buru hautatu zuen, horrek adinagatik uko egin nahi izan zion arren. J. Urquijo ikertzaile ospetsua zen, besteak beste, RSVAPen XVIII. mendeko sortzaileak heterodoxotzat salatu zituztenen aurka egin zuelako. Zuzendaritza berria Gipuzkoako eskuindar ospetsuek osatu zuten: Conde de Peñafiorida (Joaquín Mendizábal) ohorezko buru, J. Urquijo buru, F. del Valle buruorde, Amadeo Delaunet idazkari, J. Muñoz Baroja diruzain, eta A. del Valle kontulari. Zuzendaritzako kide laguntzaileak J. Yrizar, J. Múgica eta V. Lafitte ziren, hala nola, sustapen arloko diputatu eta zinegotzi bana.

Artean Gipuzkoara mugatzen zen elkartearen zuzendaritza monarkikoz osatuta zegoen eta, ondorioz, gerraondoko berrabiatzea ez zen ALVrena bezain traumatikoa izan. Hala ere, Gipuzkoako gobernadore zibilaren aginduz, S. Gómez Izaguirre arte kritikari agiri idazkari kargua kendu egin zioten, baina elkarteko langile izaten jarraitu zuen. 1943ko ekainetik 1944ko ekainera jarduera normalizatzen joan zen eta 13 batzar egin zituzten. Berregituratze prozesua jarraituta, Bizkai-Arabako kideak erakarri eta estatutu berriak idatzi zituen M. Ciriquiainek (Aycart Orbezo 2005: 533-557).

J. M. Areilzak Mutrikun antolatutako batzarrean onartu zituzten estatutu berriak, baina Gipuzkoako gobernadore zibilak hainbat aldaketa eskatu zituen ondoren. Bizkaiko taldeak ere estatutuak aurkeztu zizkion probintziako gobernadore zibilari. 1944ko ekainean, Azkoitiko batzarrean, egitura berria eta probintziako batzordeak onartu ziren. Conde de Peñafiorida zen RSVAPen ohorezko zuzendaria eta hurrengoek osatzen zituzten probintzia batzordeak:

- Araban: J. M. Díaz de Mendivil, G. Altube (S. Altube euskaltzainaren lehengusua), J. Galíndez, Gortázar anaiak, G. Manso de Zúñiga, J. B. Merino eta Conde de Villafuente.
- Bizkaian: J. M. Areilza, P. Garmendia, A. Gaytán de Ayala, L. Hurtado de Saracho, F. Ygartua, Conde de Superunda, I. Urquijo eta J. Ybarra.⁴⁷⁴

⁴⁷⁴ JCVko kidez osatutako taldea izateaz gain, J. Urquijo euskaltzainaren ilobak ziren Ignacio Urquijo eta Javier Ybarra. Aita santuak lehenengoari «Conde de Urquijo» titulua eman zion (*La Gaceta del Norte* 1949-

- Gipuzkoan: J. Urquijo, M. Ciriquiain, A. Delaunet, J. Múgica, J. Muñoz Baroja, Valle Lersundi anaiak eta J. Yrizar.

Hurrengo urratsa elkartearen buletin ofiziala argitaratzea izan zen, eta Euskaltzaindiak ez bezala, 1944ko abenduan lortu zuten baimena «Vicesecretaría de Educación Popular» delakotik. Erakunde hori Falange-ren menpeko propaganda ministerio antzekoa zen. 1945eko urtarrilean J. M. Albareda CSICeko idazkari nagusiarekin bildu zen M. Ciriquiain Madrilen, buletinaren berehalako argitaratzeaz eta CSICen Gipuzkoako ordezkariak RSVAPek hartzeaz hitz egiteko. Ordezkariak horri esker, hain zuzen, aldizkariaren edukia ez zuten zentsurara bidali beharrik izango. Aldizkariaren makinaria M. Ciriquiainek eta G. Manso de Zúñiga falangistak bultzatu zuten. Gipuzkoako gobernadore zibilak oztoporik ez ezartzeko, A. Tovarren eragin politikoa ere erabili zuten (Torrealdai 2000: 77-78; Aycart Orbegozo 2006).

GPDko zenbait funtzionariok probintziako kultur gintza toleratuaren gune nagusia eta EI-SEVen jarraipen hari xumea osatu zuten. F. Arocena GPDko artxibozain eta EI-SEVeko idazkariorde ohiak, M. Ciriquiain GPDko idazkariarekin batera, zuzendari lanak egin zituen.⁴⁷⁵ Donostiako liburutegi-artxiboan biltzen ziren, hainbat kultur gizon hizketara: J. Arteche liburuzaina, J. Urquijo-A. Irigaray euskaltzainak, Conde de Peñafiorida, J. Yrizar arkitektoa edota J. Berruezo *El Diario Vasco*ko zuzendaria. Biblioteka J. F. Aizquivelen XIX. mendeko bilduman oinarritzen zen eta 1943tik egunero zabaltzen zizkion ateak publikoari GPDko jauregiaren hirugarren solairuan (*La Gaceta del Norte* 1950-11-05; Estornés Zubizarreta 1983; Agirreazkuenaga 1998; Arrieta & Barandiaran 2003: 178-180).

Martxorako agertu zen RSVAPeko buletinaren lehen zenbakiko idazlan nagusien egileak hurrengoak izan ziren: J. Urquijo, Conde de Peñafiorida, A. Tovar, J. M. Areilza, J. M. Díaz de Mendivil eta Conde de Superunda. Atzerritarrik ez. J. Urquijoren «M. de la Chabeaussiere, junior, Amigo del País y de los vascos» edota A. Tovarren «Notas sobre el vasco y el celta» artikulua ez ziren, beraz, *RIEV* edo *Euskera* berpiztuetan agertu, *BRSVAP*en baizik. A. Tovarrek «Etimología de vascos» (1946), «Observaciones del Prof. J. Pokorny sobre el vasco y el celta» (1947), «Estado actual de los estudios de filología

10-05).

⁴⁷⁵ Bera arduratu zen gerraondan Euskaltzaindiko *RIEV* bilduma osatzeaz edota R. M. Azkueren *DVEF*eko ale solteak saltzeaz (ABA-RMA: R. M. Azkue-F. Arocena arteko gutunak, 1944-1950).

euskérica» (1948), «Sobre el género en vasco» (1948) edota «Los nombres de hermano y hermana en vasco» (1949) argitaratu zituen *BRSVAP*en. Hizkuntzalaritzaz eta batez ere tipologia genetikoaz ziharduten lanak ziren garrantzitsuenak, tesi politikoak indartzen ala ahultzen zituztelako, ondorioen arabera. A. Tovarrek ikerketa zientifiko hutsaren aldarria egin arren, J. Gáratek horixe bera salatu zion J. Urquijori: «Cuando ve uno enfrente los arañazos de Castro Guisasola [...] y el celtismo de Tovar, no puede menos de sentirse más europeo que estepario y que... aranista».⁴⁷⁶ Hain zuzen, lehen zenbakiko hitzurre izengabea, J. M. Areilzarenak diruditen hitzekin, elkartearen helburu lerrokatua azaldu zuten:

Ante un mundo en ruinas espirituales y materiales, destrozado por una guerra sin precedentes, vigila España para que no le mellen o arrebaten sus específico patrimonio, que es el de la verdad católica que informa en su ser y su existencia. Y al amparo de la paz ganada con la sangre renace una nueva vida cultural y científica rica en matices y en ambiciones, que sueña con recuperar la enorme distancia perdida (RSVAP 1945: 5).

R. M. Menéndez Pidalek aldizkari berria jaso zuenean, EI-SEVekiko jarraitutasuna nabarmendu zion J. Urquijori: «Y veo por fin que se anima Vd a reanudar la Revista, que será continuar la tan hermosa labor de ilustración de las cosas vascas. Pronto, es de esperar, se normalizarán las comunicaciones y la vida en esta destrozada Europa y la Revista recobrará su vida ordinaria».⁴⁷⁷ Hala ere, RSVAP iraganera begira jarritako elkartea izango zen askotan. Gizarte zientzialarien lekuan, noblezia tituluz apaindutako oligarkia agertzen zen sarri. EI-SEV estatuaren zabarkeriaren eta euskal unibertsitatearen gabeziaren ondorioz sortu bazen 1918an, RSVAPek Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren esku utzi zituen ardua guztiak. Elkartearen nostalgia anakronikoa, adibidez, I. Gortázarrek adierazi zuen buletinaren lehen zenbakian:

Las reuniones de los Amigos del País constituyen esos remansos deliciosos en los que se encuentran hombres de idénticas aficiones que, en esos días, olvidan sus habituales y prosaicas preocupaciones, paran el odioso reloj, con el fin de vivir unas horas mirando hacia atrás y hacia arriba, dejando en plena libertad al corazón para sentir a sus anchas, y al espíritu para sonar a su antojo (Conde de Superunda 1945: 75).

BPDan antzeko ahalegin bat egin zen *Boletín de la Comisión de Monumentos de*

⁴⁷⁶ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-03-30.

⁴⁷⁷ KMK-JU: R. Menéndez Pidalen gutuna J. Urquijori, 1945eko maiatza.

Vizcaya (1909-1918) delakoa berpizteko, JCVren aldizkari gisa, J. Ybarra diputatuaren bidez.⁴⁷⁸ Baina aurreko zenbakien aurkibide orokorra argitaratzea baino ez zuten lortu 1944ean, seguru asko gobernadore zibilak baimenik eman ez zuelako. 1946ko otsailean beste ahalegin pertsonal bat egingo zuen J. Ybarrak Bizkaian agerkari bat argitaratzeko, RSVAPen Gipuzkoako batzordeak begi onez ikusi ez zuena (Aycart Orbegozo 2006: 185).

Euskarak, orobat, eztabaidagarri izaten jarraitzen zuen diktadura frankistan. M. Ciriquiainek 1945eko irailean euskarazko artikuluak argitaratzeko beharra agertu zuen, RSVAPen helburua eta izena kontuan hartuta. Aho batez onartu zuen egitasmoa batzarrak. «Vicesecretaría de Educación Popular» delakoak, ordea, 1947an komunikatu bat bidali zuen euskara debekatzen zuena agerkarietan. RSVAPen batzarrean, ordea, debekuak egunkariei eragiten ziela adierazi zuten. CSICeko probintzia ordezkariaren buletina zenez, *BRSVAP*ek zentsuratik kanpo jarrai zezakeen. Hala ere, J. M. Albaredari gutuna zuzendu zioten, Falange-ren propaganda erakundearekin auzia argitu zezan (Aycart Orbegozo 2006: 189-190). Hurrengo urtean, *Egan* literatur hutseko gehigarria ere argitaratzen hasiko ziren, gaztelaniaz eta euskaraz, baina baldintza ideologiko berdinekin:

Egan, suplemento literario del *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, no persigue un propósito trascendental. Somos los primeros en reconocer el vuelo que dan a las empresas, las metas difíciles y lejanas, pero tenemos especial simpatía por las cosas que están al alcance de la mano. Y no es pereza ni comodidad sino recelo a las actividades profundas y los gestos profesoriales. Lo decimos desde ahora para que nadie se llame a engaño: no vamos a inventar nada ni a desentrañar misterios; haremos literatura simplemente, lo mismo que podíamos hacer música en una tertulia amable o pasear por el campo en una tarde de primavera (Egan 1948: 1).⁴⁷⁹

Dena dela, *BRSVAP*en mailak, urteak igaro ahala, gora egin zuen. 1945eko harpidedun zerrendan barnealdeko euskaltzain guztiak aurkitzen ziren; A. Irigaray izan ezik. 1947tik aurrera A. Irigaray eta 1949 urtetik, F. Krutwig ere harpidedun izango ziren. Hala ere, 1940ko hamarkadan ez zuen inoiz Euskaltzaindiaren berririk eman, akademia agerian ez uzteko erabaki guztiz kontzientea dirudiena, batez ere J. Urquijoren aldetik.

⁴⁷⁸ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1943-01-13.

⁴⁷⁹ Horrela *Egan*en lehen urteetan gaztelaniazko eta euskarazko literatur idazleak tartetaku ziren, batez ere poetak: Bilbao Aristegui anaiak, L. Castresana, B. Otero, S. Michelena, J. Bengoechea, M. Ariztia, E. Arrese, E. Calle, E. Zubiri, J. M. Azaola, Santamaría Ansa anaiak, G. Celaya, J. Delclaux, M. Ciriquiain edota C. Sagarzazu. Euskaltzainen artean, M. Lecuona («Jesus aurra-ren bizitza»), F. Krutwig («Bihotza!», «Zergattik?») eta J. Aguerre («Egutegian», «Jentillen emakumeak») nabarmendu behar dira.

Euskaltzainen artean, urte horietan soilik J. Urquijo-P. Zamarripa-A. Irigarayk argitaratu zituzten artikuluak. J. Urquijoren «La famosa inscripción ibero-vasca de un vaso de Liria» (1945) edota P. Zamarriparen «El artículo determinado sin valor traductivo» (1947) eta «Particularidades de beste, *otro*, y naikoa, *bastante*» (1948), ALVn irakurritako txostenak ziren, baina ez zuten berariaz horrelakorik adierazi. Bizkaiko euskaltzainek baino presentzia handiagoa izan zuten 1947-1948 artean izendatutako urgazleek: J. Caro, P. Yrizar, A. Tovar, A. Bausani eta J. Vallejo. J. Urquijo hil ondoren, ordea, euskaltzain-urgazle askoren artikuluak agertuko ziren *BRSVAP*en orrialdeetan.

A. Irigarayk sarri idatzi zuen *BRSVAP*en, baina liburu iruzkinetan nabarmendu zen: F. Castroren *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* (1945); J. Caroren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1947); R. M. Azkueren *EY-LPPV* (1948) edota S. Michelenaren *Arantzazu* (1949). Bestalde, etnologiazko ikerlanak, berri laburrak edota itzulpenak argitaratu zituen buletinean: J. Carorekin elkarlanean «Datos para el estudio de la mentalidad del campesino vasco» (1946) eta «Fiestas de *mayas*» (1946); «Acotaciones al *Bosquejo de una Sintaxis* de E. Lewy» (1947); «Traducción al vascuence de un capítulo de *El Quijote*» (1947); «A los bersolaris que han destacado en los últimos concursos celebrados» (1948); «Etnología e Historia del Alto Aragón (1948) eta «Glosas a nuevo cancionero vasco» (1949) (cf. Elósegui Irazusta 1993).

J. Urquijoren azken urteetako produkzioa ere bertan aurkituko dugu. Ur soziopolitikoetan sartu gabe, erudiziozko zenbait lan argitaratzera eta gustuko zituen ikerleen lanak iruzkintzera mugatu zen: «M. de la Chabeaussiere, junior, Amigo del País y de los vascos» (1945); «La famosa inscripción ibero-vasca de un vaso de Liria» (1945); «Vergara en el último tercio del siglo XVIII, según un mineralogo sueco» (1945); «Una tesis doctoral de lingüística vasca del Dr. René Lafon, publicada por la Universidad de Burdeos» (1946); J. Caroren *Sobre el vocabulario de las inscripciones ibéricas* liburuaren iruzkina (1946) eta «Apostilla a un trabajo de Alessandro Bausani» (1947). J. Caro Barojak, ordea, euskararen egoera soziolinguistikoaren berri mamitsuagoa eman zuen «Observaciones generales sobre el estudio del País Vasco desde los puntos de vista lingüístico, etnográfico y antropológico (1945)» artikuluan. Euskararen atzerakadaren arrazoi politikoak ez ziren ukatzen eta are erbesteko abertzaleen ahalegina aitortu zuen.⁴⁸⁰

⁴⁸⁰ «Naturalmente, lo que el observador nota que se descompone con mayor claridad, es la unidad lingüística, clave de la extraña variedad humana, que es la vascongada. Hasta no hace aún mucho el

1948ko irailaren 15etik 24ra, «Seminario de Lenguas Prerromanas» delakoa antolatu zuen RSVAPak Donostian. EIL-SIEBek, erbesteko EJ-GEren diru laguntzarekin, une horretan Biarritzen antolatzen ari zen biltzarrari emandako lehen erantzun frankista zen (Ciriquiain-Gaiztarro 1949a).⁴⁸¹ EAJ-PNVren EBBak bildutako txosten izengabe batean (seguru asko J. Bilbaorena) euskararekin lotutako lanak bi taldetan banatzen ziren, frankismoak mintegi hori bezalako ekimenekin euskararen bizitza oztopatzen jarraitzen zuela salatzeko:

- Trabajos en que aquél es considerado como lengua muerta de mero interés histórico, y considerado por tanto con un criterio que pudiéramos definir como exclusivamente arqueológico.
- Trabajos que tienen como base la consideración del euskera como lengua viva y habitual modo de expresión de la comunidad vasca.⁴⁸²

castellano como lengua había hecho progresos sobre el vasco por un movimiento de ondas. En el XVI hallamos la onda castellana en longitudes y latitudes determinadas. En el XVII apenas se modifica. Pero a partir de fines del XVIII y durante el XIX el territorio ceñido por ondas semejantes se va haciendo menor. Mas he aquí que a la par que este movimiento envolvente del castellano que hoy continúa, efectuándose en zonas típicamente agrícolas, existe otro que puede compararse con un proceso granular, dentro de aquel territorio ceñido. Cada foco de industria es un foco de castellano. Dentro de unos años el mapa de los pueblos que hablan vasco, para dar impresión de exactitud, tendrá que hacerse en gran escala y mediante una serie de manchas y puntos. Por otra parte la existencia dentro del territorio vasco de una frontera entre dos naciones contribuye asimismo, ahora mucho más que antes, a la pérdida de la vieja lengua ya que en la vigilancia de esta frontera participan gentes de origen diverso. Por si esto fuera poco añadamos la labor que pueden llevar a cabo los que todos los años van de diversas zonas de España a pasar una temporada a las grandes estaciones veraniegas, como San Sebastián, y a muchos pueblos de la costa y del interior de vida muy rural, y la de los naturales del país que emigran y luego vuelven, bien sean los *indianos*, bien sean las criadas de servir, obreros, etc., con cierto despego por su lengua materna.

Esto que se dice observando el país vasco-español es aplicable también al vasco-francés, donde el idioma desaparecerá en breve. Es más, los que han contribuido de mayor forma a que en la zona francesa se mantenga el vasco frente a una política hostil a él y a un sistema de educación muy elaborado, han sido desertores guipuzcoanos, vizcainos y navarros de las tres guerras civiles, que se han venido estableciendo en numerosos caseríos fronterizos de cien años y pico a esta fecha.

Es verdaderamente curioso advertir la fuerza actual de expansión del castellano como lengua obrera en oposición a la debilidad que antes manifestaba como lengua oficial en Guipuzcoa, Vizcaya y N. de Navarra. En realidad aquí está la causa de determinadas luchas políticas que han surgido en el país desde el pasado siglo. Muchos de los tradicionalistas primero, los fueristas y nacionalistas de tendencias conservadoras después, no vieron en el castellano sino el agente de la propaganda revolucionaria, liberal, republicana o socialista. El gobierno central vio, en cambio, en el cultivo de la lengua vasca un germen de ideas contrarias a la unidad nacional. Las cosas llegaron, a término tal que la política en torno al problema se hallaba hundida en una gigantesca confusión» (Caro Baroja 1945: 225-227).

⁴⁸¹ EIL-SIEBen biltzarrak barnealdean izandako eraginaz aritu zen J. M. Barandiaran bere egutegiaren 1949ko urtarrileko sarreraren: «Gaur bazkaitten izan degu Sansinenea (Juan Miguel) jauna. Berak esan dit Gipuzkoa'ko Gobernadoreak 3.000.000 peseta agindu dituela bertan ikaslanetako elkargo bat antola dedin. Guk Miarriz'en egin degun Batzar-Nagusia'k zerbait astindu emen ditu ango agintariak. Gobernadore orren deiez Donostia'n billera bat egin emen dute Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais, Aranzadi eta beste elkargoen izeneko batzuek. Batik-bait Mendizábal jauna (Conde de Peñaflorida) mintza ementzan eta nik ara jua bear nukela esan emen zuen» (Barandiaran 2009: 744).

⁴⁸² SAF-AA: [J. Bilbaoren?] txosten izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4.

Hain zuzen, K. Bouda-A. Bausanik ezin izan zuten RSVAPen mintegian parte hartu, bisarekin arazoak izan zituztelako. Donostiako ikastaroak, ondorioz, J. Vallejo-J. Caro-J. Zaragüetak baino ez zituzten zuzendu. Euskaltzaindiak, behartuta edo bere burua gai ikusten ez zuelako, uko egiten zion goi mailako hizkuntzalaritza biltzarretan parte hartzeari. Barnealdean zokoratuta eta erbestean gaindituta geratzeko arriskuak oso nabarmena zirudien. Esan bezala, nazioarteko ikerketarekiko dependentzia erabatekoa eten nahi zuten A. Tovar-J. Urquijo bezalakoek (Seminario de Lenguas Prerromanas 1950). Mintegi horretatik abiatuta, Espainiako ikerlarien elkarlana sustatu nahi zen, hainbat egitasmo aurkeztu zituzten, erbestearekiko konkurrentzian:

- Erdi Aroko euskal onomastika biltzeko J. Caroren programa.
- A. Trombettiren *Le origini della lingua basca* (1925) liburuaren itzulpena. Liburu horretan, hizkuntz monogenesiaren alde egiteaz gain, sistematikoki aztertzen zen euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen harremana (Tagliavani 2004).
- Euskararen, Kaukasoko hizkuntzen eta iberieraren arteko erkaketa genetikoa, nazioarteko adituen ekarpenekin: R. Lafon, K. Bouda, J. Caro, G. Bähr edota N. M. Holmer.
- Protoeuskararen berreraiketa, euskal fonetika historikoaren bidez. Hau izango zen ildo arrakastatsuen, L. Michelena hizkuntzalariak erakutsitako gaitasunari esker, *Fonética histórica vasca* (1961) tesi mugarrria bilakatuko zena. RSVAPeko kideen babesarekin, lehen emaitzak 1950-1951ko *BRSVAP*en aurkeztu zituen (Michelena 2011a: 3-46).
- Euskararen atlas dialektologikoari ekitea CSICekin elkarlanean. Hemen ere, Espainiako erakunde ofizialen egitasmoek huts egin zutela ikusita, P. Yrizarren ekimen pertsonalez gauzatu ziren lehen ekarpenak, aditz morfologian oinarritutako galdeketarekin (Yrizar 1981; 2001: 185-186, 404; Michelena 2011a: 461-484).

RSVAPek, halaber, CSICen Instituto de Estudios Pirenaicos-eko lehen «Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos» delakoa antolatzen lagundu zuen Donostian 1950eko irailean. Espainia-Frantziako unibertsitate irakasleez gain, Hezkuntza Nazionaleko ministerioko eta Gipuzkoako gobernu ordezkariak izan ziren biltzarreko mahaiburuak. Besteak beste, J. Caro-H. Gavel-A. Tovarrek parte hartu zuten biltzarrean. R. Lafon euskaltzain berriak «Remarques et projets de recherches sur le vocabulaire pyrénéen» hitzaldia eman zuen. L. Michelena «Introducción fonética a la onomástica

vasca» irakurri zuen. Gainera, ohorezko batzordeko kide J. Urquijo izan zen, baina ordurako gaixorik eta ezinduta zegoen. Filologia sailaren ondorio nagusia Pirinioetako hizkuntz atlasa abiatu beharrarena izan zen, euskara barne. Biltzar ondoko Filologia batzordeko kide R. Lafon-A. Tovar izendatu arren, batzordearen gaitasun zientifikoa zalantzan jarri zen A. Grieraren buru hautatuta.⁴⁸³ Erbesteko partaideei dagokienez, Ikuskako J. Bilbao bertan egon zen, barnealdeko egoeraz informazioa biltzen. Hain zuzen, *Eusko-Jakintzako* orrialdeetan salatu zuten Donostiako biltzarra J. M. Barandiaranen parte hartzerik gabe antolatu zutela, nahiz eta azkenean haren txosten bat argitaratu (Ikuska 1950b; cf. Consejo Superior de Investigaciones Científicas 1952).

Hain zuzen, RSVAPen nahiz Euskaltzaindiaren mendekotasun politikoa salatu zioten pribatuki J. M. Barandiarani 1949ko irailean:

Caro Baroja'k dionez, Donostia'n «Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais» zuzentzen edo darabiltenek eta Bilbao'n «Euskaltzaindia» edo «Academia de la Lengua Vasca» eraentzen dutenak ez dute ez euskaldunik ez euskerarik maite; beren nausitza eta politika baiño. Orregaitik ez da arritzeko, oraingo euskaltzaindiko diren batzuek euskeraz ez jakitea, ez eta «Sociedad V. de los A. del Pais» darabiltenak ere (Ciriquiain-Gaiztarro'k, alegia) (Barandiaran 2009: 761).

6.7 Julio Urquijoren euskal biblioteka eta omenaldi ofizialak

Euskaltzainen artean, kide ospetsuena J. Urquijo zen zalantzarik gabe, Bizkaiko ekonomia eta politika bi mendez gidatu zuten familietako kidea. Besteak beste, erakunde frankistekin izan zituen harremanek eta bizi zela egin zizkieten omenaldiek erakusten dute hori. Euskal ikasketen alorrean sinbolo bilakatu zen, bere baliabide ekonomikoak bideratu zituelako *RIEV* sortzeari edota euskal biblioteka berezia osatzeari. RSVAPek 1947ko azaroaren 25ean erabaki zuen J. Urquijori omenaldia antolatzea, EGZak zapuztu baitzuen *RIEV* aldizkariak egin behar ziona:

Los «Amigos» hemos acordado en reciente sesión celebrada en San Sebastián, rendir

⁴⁸³ A. Grieraren espainolismo setatiak, euskara hizkuntza erromanikotzat jotzera eraman zuen, esaterako, berak zuzentzen zuen *Boletín de Dialectología Española*-ren lehen zenbakian (Griera 1941).

homenaje de admiración al patriarca de los estudios vascongados D. Julio de Urquijo. Hacía tiempo que veníamos acariciando esta idea que no ha nacido ahora pues en el año 1936 pensó en ella, también, la «Revista Internacional de Estudios Vascos» con ocasión del treinta aniversario de su fundación y hubo de desistir del empeño al encenderse la guerra en nuestra patria; después cuando en el año 1945 volvimos a levantar la bandera de la Vascongada, con la publicación del «Boletín», el primer propósito que tuvimos, fue el recoger aquel legado incumplido, pero el deseo de que el homenaje fuera digno del maestro nos hizo aplazar su ejecución hasta que robustecidos por una obra propia, pudiéramos apadrinarlo con autoridad (RSVAP 1947: 539).

EI-SEV sortu zutenetik mende erdira, RSVAPek adierazi zuen nazioarteko lankide zerrenda luzeak parte hartuko zuela omenezko argitalpenean. Zerrendari erreparatuta, espero zitezkeen frankista ezagunez gain, erbesteko abertzaleen parte hartzea eta Bizkaiko euskaltzainen gabezia nabarmentzen ziren: F. del Valle, A. Delaunet, J. Ybarra, M. Ciriquiain, F. Arocena, J. Bilbao, J. M. Lacarra, A. Tovar, R. Galdós, G. Schurhammer, I. Gurruchaga, N. Ormaechea, J. B. Merino, J. M. Barandiaran, M. Ruiz de Gaona, J. Elósegui, P. Lafitte, J. Vallejo, A. Pérez Goyena, L. Lopetegui, Conde de Peñaflores, E. Lewy, V. Larrañaga, J. A. de Donostia, H. Gavel, P. Dop, D. Dufau, I. Arzamendi, Ph. Veyrin, F. Amador, S. Altube, P. Lhande, P. Yrizar, C. C. Uhlenbeck, J. Berruezo, J. Caro, R. Lafon, G. Altube, B. Echegaray, J. Zaragüeta, L. de Hoyos, A. Apraiz, A. Irigaray, J. Arteche, J. Gárate, J. Ruiz de Larrinaga, J. Yrizar, I. López Mendizábal, P. Anasagasti, F. Mendoza edota A. M. Labayen (RSVAP 1948).

RSVAP euskal diputazioekin harremanetan jarri zen, J. Urquijoren omenaldirako atxikimendu ofiziala ziurtatzeko asmoarekin. A. Brunet (J. Urquijoren ikaskide ohia Deustuko Unibertsitatean) presidente zuen GPDak omenaldiarekiko erabateko atxikimendua agertu zuen. F. Sagarzazu Hondarribiko alkate eta diputatuaren ekimenez, GPDak J. Urquijo «Hijo Adoptivo de la Provincia de Guipúzcoa» izendatu zuen 1948ko otsailaren 8an.⁴⁸⁴ Barnealdeko erregimenaren eta erbeste abertzalearen artean ez ezik, J. Urquijoren ondarearekiko lehia probintziako erakunde frankisten artean ere gauzatu zen. J. Urquijo jaiotzez Bizkaikoa zen, baina LMGTik Donostian bizi zen, Gipuzkoako familia ospetsu bateko emaztearekin, eta geroztik bertan gauzatu zituen bere zeregin nagusiak, kultur nahiz politika arlokoak.⁴⁸⁵

⁴⁸⁴ KMK-JU: GPDko presidentearen ofizioa J. Urquijori, 1948-02-14.

⁴⁸⁵ Urtebeteko atzerapenarekin, Gipuzkoako izendapenagatik zoriondu zutenen artean, Conde de Rodezno, kargua uztear zegoen NFDko presidentea, nabarmendu daiteke (KMK-JU: Conde de Rodezno-ren gutuna

Hain zuzen, bere adina eta osasun ahula 1940eko hamarkadaren bukaeran kezkarriak bilakatu zirenean, J. Urquijoren ondarearen etorkizuna ere eztabaidagai bilakatu zen. BPDko batzorde iraunkorrak 1948ko maiatzaren 7an onartu zuen J. Ybarra presidentearen egitasmoa, J. Urquijoren euskal biblioteka erosteko negoziazioa abiatzeko. Horretarako, F. Echegaray diputatua eta D. Areitio BPDko artxibozaina izendatu zituzten, J. Urquijorekin elkarlanean bibliotekaren balioztatzea burutzeko.⁴⁸⁶ Lehenago J. Ybarrak bere osabarekin hitz egin zuen gaiaz, eta J. Urquijok hurrengoa erantzun zion:

Recibí tu cariñosa carta a la que por el estado de mi salud, hoy mejorado, no he podido contestar antes. Como te dije ya, yo no pensaba deshacerme de mi biblioteca en vida.

Desde luego siempre he deseado, que después de mi muerte, mis libros, única ocupación de mi vida, se conservaran en Vizcaya, lugar de mi nacimiento y de nuestra familia, también opino que deben conservarse en conjunto, pues hay que procurar, en lo posible, evitar su dispersión. Recuerda que hace pocos años todavía de la pérdida en esta forma de la biblioteca de Vinson, una de las colecciones de libros vascos más importantes que jamás ha existido.

Con estos antecedentes comprenderás que tu proyecto me sea simpático. Lo que dices de la tasación me parece indispensable y mucho más en esta ocasión en la que se trataría de evaluar, entre otros libros vascos, algunos de los cuales son muy raros y otros desconocidos, manuscritos, correspondencia autógrafa de vascólogos célebres etc etc.

Tengo el catálogo hecho en gran parte y ahora me ocupo de terminarlo.⁴⁸⁷

J. Ybarra-F. Echegaray-D. Areitio 1948ko udan Donostian bildu ziren J. Urquijorekin gaia aztertzeke.⁴⁸⁸ J. Urquijok adierazi zuen bera pertsonalki ari zela katalogoa egiten, eta bukatu ondoren egin zitekeela bibliotekaren balioztatzea, baina euskaltzainaren osasun txarragatik katalogazioak ez zuen aurrera egin urtebetez.⁴⁸⁹ Bitartean, 1948ko abenduaren 16an, GPDarekiko atzerapen handiarekin, BPDak

J. Urquijori, 1949-02-18).

⁴⁸⁶ BFAH-EC: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1948-05-07, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 - EXP-7.

⁴⁸⁷ BFAH-EC: J. Urquijoren gutuna J. Ybarrari, 1948-05-01, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 - EXP-7.

⁴⁸⁸ BFAH-EC: D. Areitioaren ordainagiria BPDari, 1948-07-20, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁴⁸⁹ BFAH-EC: BPDko artxibozain-liburuzainaren txostena, 1951-06-14, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

RSVAPen eskariari erantzun eta omenaldiari atxikitzea erabaki zuen.⁴⁹⁰ Era berean, RSVAPeko jarduneko buru zen F. del Valle eta A. Delaunet idazkariaren eskariari erantzunda, omenezko liburuaren argitalpena 3.000 ptarekin laguntzea erabaki zuen BPDak 1949ko apirilean.⁴⁹¹ GPDaren ohorezko izendapenari nolabait erantzunda, F. Echegaray diputatuak aurkeztutako mozioaren ondorioz, BPDak euskaltzaina «Hijo Benemérito de Vizcaya» izendatu zuen 1949ko martxoaren 5ean.⁴⁹² Diputatuak, filologo-historialari lanak ez ezik, J. Urquijoren militantzia politikoa eta karlismoak Movimiento Nacional-arekin izandako lotura goratu zituen mozioan.⁴⁹³ Azkenik, RSVAPen omenaldiak eragiten zuen uzkurtasunaren erakusgarri, AFDak 1948ko abenduaren 29an eta NFDak 1949ko otsailaren 24an baino ez zuten erabaki babes ofiziala ematea (RSVAP 1951a).

Gerraondoko RSVAPek ekainean egiten zuen urteko batzarra Gipuzkoako Azkoitian, hiru probintzietako kideak elkartuta. J. Urquijok, gaixotasunagatik, azken urteetan huts egin arren, 1949ko ekainaren 23an bertan izan zen omenaldi handi bat egin ziotelako 100 inguru lagunek. P. Rocamora Propaganda-ko zuzendari nagusiaren, Barón de Benasque gobernadore zibilaren eta CSICen baimenari esker antolatu zuten. Hain zuzen, ekainaren 10ean CSICen Patronato José M^a Quadrado de Estudios e Investigacionaes Locales erakundeko ohorezko aholkulari izendatu zuten J. Urquijo (Yrizar 2001: 63-64).

Dena dela, ikusgarriena izan zen Araba-Bizkai-Gipuzkoa-Nafarroako diputazioek parte hartu zutela Azkoitiko ekitaldian. Inpaktu handia izan zuen hurrengo eguneko prentsaren azaletan agertu zen J. Urquijoren argazkiak, diputazioetako ordezkari banarekin: Lorenzo de Cura-Javier Ybarra-Avelino Elorriaga presidenteak eta Amadeo Marco diputatua (*El Diario Vasco* 1949-06-24; *Diario de Navarra* 1949-06-24).⁴⁹⁴ Lau diputazioek sortutako EI-SEVen eta erreibindikazio autonomisten «mamua» edonork ikus zezakeen. J. L. Banús Donostiako egunkariko zuzendariordeak, berria erabili zuen EI-SEV berpiztea eskatzeko: «por una atonía realmente inexplicable se encuentra paralizada y cuya puesta en marcha de nuevo sería ciertamente el mejor homenaje a Urquijo» (*La*

⁴⁹⁰ BFAH-EC: BPDaren ofizioa RSVAPi, 1948-12-23, Educación, Deportes y Turismo 145, C-1006 BIS. 60 -EXP-6.

⁴⁹¹ BFAH-EC: BPDaren ofizioa RSVAPi, 1949-04-23, Educación, Deportes y Turismo 145, C-1006 BIS. 60 -EXP-6.

⁴⁹² KMK-JU: BPDko presidentearen ofizioa J. Urquijori, 1949-03-14.

⁴⁹³ BFAH-GAE: F. Echegaray diputatuaren mozioa, 1949-03-04, AJ02412/003.

⁴⁹⁴ KMK-JU: J. Gárate-J. Urquijo arteko gutunak, 1949-07-20 & 1949-07-26.

Voz de España 1949-06-24).

Agian horregatik, L. de Cura AFDko presidentearen ordez, G. Altube RSVAPen Arabako kideak hartu zuen hitza omenaldian. J. M. Arellano NFDko presidentearen ordez ere, A. Marco diputatu karlofrankista bidali zuten Azkoitira. Nafarroako IPVtik I. Baleztena-J. E. Uranga bertaratu ziren, baina E. Esparzak huts egin zuen. J. Ybarra BPDko presidentek ekitaldi publikoetan aldarriak egiteko ohiturari jarraituz, hori bera nabarmendu zuen Azkoitiko hitzaldian, Nafarroak ere RSVAPen parte hartzeko eskatu zuenean:

A tal extremo, que puede decirse que en el acto de hoy hemos superado los mejores afanes de la Real Sociedad Vascongada, ya que su lema, «Irrac-bat» —tres en uno—, debido a la presencia aquí de un Diputado Foral de Navarra, acaba de ser sustituido por el «Laurac-bat» —cuatro en uno—, cuya adopción definitiva sugiero al estudio de los Amigos del País.

No es extraño, por tanto, el que ninguna de las cuatro provincias se hubiera decidido antes de ahora a dedicar su homenaje a Urquijo, porque era insuficiente el de una sola provincia y había de llegar el día de hoy en que se lo testimoniáramos unidos en el «Laurac-bat» (Ybarra y Bergé 1951: 478).

Ekitaldi horretan Bizkai-Gipuzkoako ohorezko izendapenak jakinarazteaz gain, *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra* (1949-1951) bildumaren 500 aleko lehen liburukia aurkeztu zuten. Ekitaldiko hizlarien artean hurrengoak izan ziren: Azkoitiko alkatea, Marqués de Aycinena (Vatikanoko enbaxadore ohia), G. Altube, A. Marco, J. Ybarra, A. Barriola eta ordurako oso makalduta zegoen J. Urquijo bera.⁴⁹⁵ Txistulariek «Agur Jaunak» jo zuten eta euskal dantzak ere izan ziren. RSVAPen omenaldiko lehen liburukiko hasierako artikuluetan J. Urquijoren curriculum, leinua, biblioteca, *RIE*veko zuzendaritza eta bibliografia goratu zituzten arloz arlo (Valle & Delaunet 1949; Ybarra y Bergé 1949; Ciriquiain-Gaiztarro 1949b; Arocena 1949; Bilbao 1949). Egitasmoa erakunde eta giro kultural frankistatik etorri arren, J. Urquijoren lanaren garrantzia aitortu zioten abertzaleek. Tokiko unibertsitate publikorik ezean, euskal filologiaren maila zientifikoa eta gutxieneko erakundetzea lortu zituen *RIE*V eta EI-SEVen bidez. Are EJ-

⁴⁹⁵ R. Arambarri alkate zuen Azkoitiko Udalak, *Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* (1925) liburuagatik esker onez, 1949ko ekainaren 30ean «hijo adoptivo» izendatu zuen eta haren izena jarri zion Iru-iturri zubitik Insausti jauregirainoko kaleari (KMK-JU: Azkoitiko Udalaren ofizioa J. Urquijori, 1949-08-09).

GERen berripaperak omenaldiaren berri eman zuen, haren lanari errespetuz «gran labor científica» deituta (*OPE* 1949-06-27).

Hiru liburukietako gainerako artikuluetan, J. Urquijoren nahia beteta, barnealdeko, erbesteko eta nazioarteko ia 100 egilek parte hartu zuten. Hizkuntzalaritza-filologia-literaturaz hurrengoek idatzi zuten: A. Tovar, I. Gurruchaga, N. Ormaechea, J. B. Merino, P. Lafitte, E. Lewy, H. Gavel, S. Altube, P. Lhande, P. Yrizar, R. Lafon, B. Echegaray, C. C. Uhlenbeck, J. Zaragüeta, J. Caro, A. Irigaray, I. Omaechevarría, I. López Mendizábal, M. Aranzabe, L. Michelena, M. Alvar, I. M. Echaide, K. Bouda, C. Tagliavini, M. Agud, O. Apraiz, R. Menéndez Pidal, Ph. Veyrin, A. M. Labayen, M. Lecuona eta F. Irigaray (RSVAP 1949-1951). Azken biek, gainera, euskara hutsezko lanak argitaratu zituzten. M. Lecuonaren «Gerrateko Kantak», indar sinboliko hunkigarriarekin, abertzaletasunak EGZeant pairatutako jazarpenaren testigantza ziren (Lekuona 1949: 429).

Erbestean egondako B. Echegaray euskaltzainak «La voz *sicera* en la Guía del peregrino del *Codex Calixtinus*» artikulua idatzi zuen omenaldirako. Hala ere, idazteko enkargua jaso zuenean beste gai batzuk izan zituen esku artean, eta J. Urquijori 1948an idatzi zion gutunean argi agertzen dira euskal ikasketek eragiten zituzten errezelo politikoak:

Y me encuentro al presente con que no dispongo de otro fruto de mis investigaciones que el de aquellas que he realizado en el País vasco-francés: unas, referentes a ritos funerarios, y las restantes, a nombres de casas. No me parece prudente valerse de las primeras, porque creo que todavía no están las cosas en sazón para que libremente y sin despertar suspicacias se pueda tratar de temas que trasciendan a toda la Vasconia. Pero presumo que, en cambio, puedo aprovechar lo que tengo averiguado acerca de la toponimia doméstica para hacer algo que hasta sea grato para los recelosos y escamones. Y es lo siguiente: «Huellas de la lengua castellana en los nombres de casas del País Vasco-francés».⁴⁹⁶N. Ormaecheak, halaber, «Ser, estar, haber. Alcance de dos afirmaciones» artikulua eskaini zion. 1948ko uztailaren 26an idatzi zion J. Urquijori Donibane Lohizuneko etxera, J. Bilbaoren bitartekaritzari esker. P. Yrizarrek *BRSVAP*en argitaratutako lanari kritika egiteaz gain, omenaldirako bere lana bidali eta adeitsu agertzen zen euskaltzain karlistarekiko: «Que Dios nos conserve la vida hasta el año que viene, para vernos por ahí. Desearía yo ir para

⁴⁹⁶ KMK-JU: B. Echegarayren gutuna J. Urquijori, 1948-05-06.

el invierno».⁴⁹⁷ Ikuskako J. M. Barandiaran-J. Bilbaok, hain zuzen, «Contribucion al estudio de los cromlechs pirenaicos» eta «Bibliografía de don Julio de Urquijo» argitaratu zituzten omenaldiko lehen liburukian (1949).⁴⁹⁸ J. Bilbaok J. Urquijorekin batera hizkuntzalaritza aldizkari bat Donostian argitaratzeko asmoari eusten zion.⁴⁹⁹ Euskaltzaina hil izan ez balitz, Donostiara aldatu eta harekin euskal bibliografian lan egiteko asmoa zuen (Yrizar 2001: 223).

J. Urquijok erbesterekin izan zuen harreman estuena agian Argentinako J. Gáratekikoa izan zen. Gipuzkoako medikua Tandil nekazari eremuan bizi zen eta diru asko irabaztea lortu zuen. Helbidea A. Irigarayk eskuratu zion J. Urquijori.⁵⁰⁰ Bereziki BMG ondoren informazio eta argitalpen ugari trukatu zituzten postaz. Medikuak bere burua J. Urquijoren dizipulutzat zuen eta hura IAEVeko ohorezko kide izendatzen nahiz bere lanak Buenos Airesko Ekinen berrargitaratzen saiatu zen alferrik.⁵⁰¹ Bestalde, J. Urquijoren bitartekaritzari esker, J. Gáratek J. M. Areilza Argentinako enbaxadoreari (nahiz eta bion arteko errezelo politikoa agerikoa izan) eskuratu zizkion Enrique Areilzak T. Aranzadiri bidalitako gutunak.⁵⁰² Konfiantza handia zuten, J. Gáratek prentsa abertzaleko zatiak bidaltzen zizkion, baita Ekineko liburuak Espainian non eros zitezkeen adierazi.⁵⁰³ Euskal ikasketen harira, diktadura frankistaren totalitarismoa kritikatzeko aukera ere baliatzen zuen Tandilgo medikuak:

Celebro que se anime el estudio de nuestras cosas ahí, pues de castellanizarse toda España, el resultado va a ser la desaparición de los más ricos fermentos de todo el Estado. Yo soy católico, pero esos entierros y desentierros y las Vírgenes armadas y paseantes, dan una impresión de crisis mental muy fuerte.⁵⁰⁴

GPDko artxibozainaren sektarismoaz ere, EBEn abertzaletasunetik gertu egondakoa, gogor idatzi zion: «algunas expresiones de Arocena que me recuerdan el furor de los conversos o el fanatismo de la fe vacilante de que escribía Bernanos».⁵⁰⁵ J. Urquijok

⁴⁹⁷ KMK-JU: N. Ormaechearen gutuna J. Urquijori, 1948-07-26. Gutun hori argitaragabea da, cf. Iztueta & Iztueta 2006.

⁴⁹⁸ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-07-04.

⁴⁹⁹ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1949-05-06.

⁵⁰⁰ KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

⁵⁰¹ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-03-12 & 1948-06-06.

⁵⁰² KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-03-12, 1948-09-20 & 1948-11-22.

⁵⁰³ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-03-19.

⁵⁰⁴ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1947-09-30.

⁵⁰⁵ KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-08-06.

*BRSVAP*en idaztera gonbidatu zuen eta horrela agertu ziren «La muerte del patrón y las abejas» (1947) eta «Sexta contribución al Diccionario Vasco» (1949), bere *RIE*veko sailaren jarraipena (cf. Elósegui Irazusta 1970). Hala ere, arazoak zituzten zentsura frankistarekin eta *RSVAP*en omenaldirako idazlana J. M. Areilzaren bidez bidali behar izan zuen.⁵⁰⁶ J. Gáratek bere «La Baronesa d'Aulnoy en Vasconia y Castilla» artikuluan honela adierazi zuen:

Alguna vez he escrito que don Julio de Urquijo es quien realmente ha introducido y hecho arraigar entre nosotros, la Vascológia científica, mérito extraordinario para un país sin Universidad. Le llevo a ello su seguro buen juicio sobre las materias y las personas y fueron prendas esenciales para el éxito su sensatez, amenidad y donosura de estilo que son como la gracia, la seguridad y la armonía en la marcha de las personas. No se trata de rapidez poco sentada, ni de profundidad algo aburrida, y por ello es mucho más eficaz. Únase a ello su generosidad, pues sus grandes desembolsos financieros para formar y enriquecer su biblioteca, han sido utilizados, no solo por él, sino por todos los estudiosos interesados en su manejo. Y aparte de ello, otros datos, consejos y orientaciones fluían de su amena conversación y de su incansable máquina de escribir.

La formación de ese espíritu público y la asociación con los estudiosos de otros países, superan con mucho, lo que don Julio pudo habernos dado de más en publicaciones propias, pues en este caso los lectores hubieran sido más escasos y él hubo de cuidar a la par de aumentarlos. Convenía que alguien hiciera notar que ha sido un experto Decano de una libre Facultad de Letras y que ha hecho trabajar a todos sus miembros en armonía (Garate 1950: 249).

Hala ere, oso nabarmena da Euskaltzaindiak erakunde gisa ez zuela parte hartu omenaldian, nahiz eta zuzendaritzak telegrama bat bidali zuen *ALV*ren atxikimendua erakusteko.⁵⁰⁷ Are Donostiako I. M. Echaidek huts egin zuen Azkoitiko omenaldira, eta gutun bat idatzi zion egunkarian berria irakurri bezain laster. *GPD*ko funtzionarioa hain gaizki informatuta egotea ez da oso sinesgarria, eta agian gero aztertuko dugun Euskaltzaindiaren berregituratze asmoek sortutako ezinegonaren ondorio dira omisioak. Hala ere, I. M. Echaidek agindu zion idazlan bat prestatuko zuela bigarren liburukirako.⁵⁰⁸ Hain zuzen, Bizkaiko euskaltzainek ez zuten parte hartuko hiru urtez luzatuko zen *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra* (1949-1951) bilduman. Harpidedun zerrenda

⁵⁰⁶ KMK-JU: J. M. Areilzaren gutuna J. Urquijori, 1948-11-23.

⁵⁰⁷ ABA-EUS: J. Urquijoren omenaldirako telegramaren ordainagiria, [1949-06-23].

⁵⁰⁸ KMK-JU: I. M. Echaideren gutuna J. Urquijori, 1949-06-24.

luzean agertu ziren; baina ez egile gisa. Gipuzkoa-Nafarroa-Frantziako euskaltzainen idazlanen ondoan, batez ere euskaltzainburuaren hutsunea oso nabarmena zen. Are erbesteko S. Altubek idazlan bat eskaini zion.⁵⁰⁹

Azkoitiko omenaldiaren ondoren, J. Urquijoren osasunagatik bibliotekaren katalogazioa gelditu zegoenez, J. Ybarra BPDko presidentek erabaki zuen D. Areitio Donostiara bidaltzea gastu guztiak ordainduta.⁵¹⁰ D. Areitioaren lana oso nekeza izan zen, J. Urquijo adinduak katalogazioa ez ezik, liburu guztien manipulazioa ere gainbegiratu nahi zuelako.⁵¹¹ Urte horretako abuztuan, BPDak beste omenaldi bat antolatzea erabaki zuen, «Hijo Benemérito de Vizcaya» izendapenaren oroitarri bat emateko. Oroitarria eman ondoren, bazkaria egingo zuten BPDko jauregian, J. Urquijoren familiako kideekin eta Bizkaiko diputatu eta emazteekin. Antolaketa Pedro Zufia funtzionarioaren esku utzi zuten.⁵¹² Nire ustez Bizkaiko agintariek bibliotekarekiko egitasmoa indarberritu nahi zuten, sumatzen baitzuten RSVAP-GPD aurrea hartzen ari zirela, euskaltzainaren ondarearekiko. Ekitaldiko gastuek ere hori adierazten dute.⁵¹³ Bilboko egunkariak argitaratutako argazkietan ageri denez, J. Urquijoren osasuna oso txarra zen. Azkoitikoarekin erkatuta, lagunarteko ekitaldia izan zen, familiako kidez eta J. Ybarra iloba buru zuten diputatuz osatua (*CE-PV* 1949-08-18; *La Gaceta del Norte* 1949-08-18).

Euskal kulturarekiko norgehiagokan, frankismoko euskaltzaletasun orbangabearen ikur bihurtuta, ez zen izan hura egun horretan euskaltzain zaharrak jaso zuen ohore bakarra. Izan ere, 1949ko abuztuaren 17an, F. Franco mahaiburu zuen Espainiako Gobernuaren ministro kontseilua bildu zen Donostiako Ayete jauregian. J. Urquijori «Gran Cruz de Alfonso X el Sabio» delakoa ematen zion Hezkuntza

⁵⁰⁹ Ezin izan dut arrazoia konfirmatu, baina nire ustez J. Ybarra-G. Riestra arteko tirabirek, alde batetik, eta Euskaltzaindia-JCV arteko arazoek, bestetik, eragotzi egin zuten presentzia hori. Gainera, ikusiko dugunez, BPDak J. Urquijoren biblioteka erosteko zuen egitasmoak huts egin zuen eta horrek ere ez zuen lagunduko. Hutsegite horiei J. Saint-Pierre apezpikuarena gehitu behar zaie, harpidedun gisa ere agertzen ez zena. Omisioen arrazoi politikoaren hipotesia kontuan hartzekoa da, nire ustez.

⁵¹⁰ BFAH-EC: BPDko presidentearen dekretua, 1949-07-07, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7. Artxibozaina Donostian izan zen 1949ko uztailaren 12-14an, abuztuaren 1-6an, urriaren 20an eta azaroaren 21-22an (BFAH-EC: D. Areitioaren ordainagiria, 1949-12-09, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7).

⁵¹¹ BFAH-EC: BPDko artxibozain-liburuzainaren txostena, 1951-06-14, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵¹² BFAH-EC: BPDko presidentearen dekretua, 1949-08-08, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵¹³ BPDko jauregiko ekitaldian 14.000 ptako zilarrezko diptiko bat eman zioten, urquijotarren eta Bizkai-Nafarroa-Gipuzkoa-Arabako armariarekin. Hotel Carlton-en 8.575 ptako bazkaria antolatu zuten eta 1.550 pta gastatu zituzten apaingarrietan (BFAH-EC: BPDko kontularitzako ordainagiriak, 1949-10-24, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7).

Nazionaleko ministerioaren dekretua onartu zuen ministro kontseiluak.⁵¹⁴ RSVAPen omenaldiak izan zezakeen izaera «autonomista» Espainia mailako sariarekin orekatzea beharrezko ikusi zuten agintari frankistek. Donostiako prentsak berria eman zuenean hori nabarmendu zuen:

Como españoles y vascongados, las dos egregias condiciones que don Julio exhibió siempre con noble orgullo a lo largo de su fecunda vida, aplaudimos la honrosa distinción hecha a quien tanto prestigio y tanta gloria dio a la investigación nacional (*El Diario Vasco* 1949-08-18).⁵¹⁵

J. Urquijoren euskal biblioteka XVI-XX. mende arteko 14.000 inguru dokumentuz osatua zegoen, horietako asko oso bitxiak. 1936ko abuztuaren 2an eta irailaren 3an GPDak eta Fronte Popularraren probintziako ordezkariak, hurrenez hurren, konfiskatu egin zuten, eta horrela EGZean ez zuen kalte larririk jaso, jabearen ideologia gorabehera.⁵¹⁶ Euskal liburuei dagokienez, ale baliotsuak bildu zituen: L. L. Bonapartek agindutako itzulpenak, J. Leizarraga, P. Axular, Conde de Peñafiorida, J. Ochoa de Arin, E. Materre, M. Arzadun, J. Beriayn, S. Mendiburu edota Arambillaga apaiza. Bestalde, Conde de Peñafiorida-J. Manterola-J. Urquijoren XVIII-XX. mende arteko korrespondentzia aberatsa zegoen (Ciriquiain-Gaiztarro 1949b; Bilbao et al. 1991).

BPDaren 1949ko abuztuko omenaldia eta gero, beste impasse bat sortu zen J. Urquijorekiko harremanean. J. Ybarrak arazoaren berri eman zuen BPDaren gobernu batzordeak 1950eko martxoaren egin zuen batzarrean. J. Urquijoren nahari jarraituta, biblioteka erosteko gestioak bertan behera utzita zeuden. Bestalde, J. Ybarrak bere burua balioztatze prozesutik bereizi nahi zuen, interesatuarekin zuen lotura familiarragatik, eta eginkizun hori teknikarien ardura zelako.⁵¹⁷ Arazo nagusietako bat, argi dago, bibliotekaren prezioarena zen, eta J. Ybarrak ez zuen horretan parte hartu nahi, J. Urquijoren iloba zelako. Uste izatekoa da J. Ybarra bildumagatik prezio oso altua ordaintzeko prest zegoela, baina ez zuela zilegitasunik erabaki hori hartzeko, BPDko presidentea izan arren. Gainera, ordurako bere posizioa BPDan oso ahula zen, 1950eko

⁵¹⁴ «Decreto de 17 de agosto de 1949 por las que se concede la Gran Cruz de la Orden Civil de Alfonso X el Sabio a don Julio de Urquijo e Ybarra». In: *BOE*, 1949-08-26.

⁵¹⁵ cf. *La Voz de España* 1949-08-18; *La Gaceta del Norte* 1949-08-18.

⁵¹⁶ J. Urquijok J. Etayo Nafarroako artxibozain karlistari 1936ko irailean adierazi zionez, liburuak nahastu egin zituzten zaindarien (Chacón Delgado 2015: 568).

⁵¹⁷ BFAH-EC: BPDko idazkariaren izapidea, 1950-03-04, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937-EXP-7.

azaroan kargugabetuko baitzuten. Horregatik, BPDaren gobernu batzordeak talde bat izendatu zuen arazoa konpontzen saiatzeko: H. Bilbao presidentordea (E. Bilbaoren anaia), B. Bureba diputatua eta D. Areitio artxibozaina.⁵¹⁸

BPDak eskatuta, 1950eko ekainean D. Areitiok txosten bat aurkeztu zuen katalogazio-balioztatzearen egoera azaltzeko.⁵¹⁹ Ikusi dugunez, hasieran J. Urquijok berak katalogatu nahi izan zuen bilduma, baina behin eta berriz eskatu ondoren, lortu zuten ordura arte egindako fitxak BPDari uztea, kopiak egiten joateko. Era berean, D. Areitiok Donostiako 15 egunetan bibliotekako liburu bitxien katalogazio azkarra burutu zuen. BPDko artxibozainak 2.000 dokumenturen zerrenda aurkeztu zuen. Besteak beste, hurrengo egile eta liburuak nabarmendu zituen: P. Axular, J. Leizarraga, A. Oihenart, A. Cardaberaz, J. B. Archu, *Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berezien errelacionea* (1766), L. Ariostoren *Orlando furioso* (1583) gaztelaniaz, M. Arambururen *Manifiesto sobre el punto de elecciones que celebró la santa provincia de Cantabria* (1748), Arambillaga apaizaren *Jesu-Christoren imitacionea* (1684), edota J. A. Armonaren *Apuntaciones históricas y geográficas de la antigüedad, nombre y privilegios de la ciudad de Orduña* (1789). D. Areitioren arabera, euskal kulturaren alorrean tokiko biblioteka garrantzitsuena zen, historiaren eta bereziki filologiaren ikuspegitik. Euskalariez den bezainbatean, zenbait egileren eskuizkribuak aipatu zituen txostenean: H. Schuchardt, W. Meyer-Lübke, R. M. Azkue, G. Lacombe edota C. Echegaray.⁵²⁰

Arazo nagusia, beraz, prezioarena zen. Txostengileak zioenez, J. Urquijok berak uko egin zion hala prezio bat ezartzeari nola BPDarekin batera tasatzaileak izendatzeari. Teknikariak, bibliotekaren balioagatik eta J. Urquijoren bizi osoko lana aitortzeagatik, bilduma erostea aholkatu zion BPDari. Asmoa BPDaren bibliotekako atal bati J. Urquijoren izena eman eta haren erretratu bat jartzea zen.⁵²¹ Liburuz liburuko balioztatzea egin beharrean, aleko 60 pta ordaindu behar zirela uste zuen. Hau da, bilduma

⁵¹⁸ BFAH-EC: BPDko idazkariaren izapidea, 1950-05-06, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 - EXP-7.

⁵¹⁹ BFAH-EC: BPDko artxibozain-liburuzainaren txostena, 1950-06-14, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵²⁰ Dena dela, D. Areitio historialari-legegizona bere espezialitatetik kanpo zebilen filologia-hizkuntzalaritzan, eta aipatzen dituen egile batzuk akatsak dirudite. Nor dira txosteneko «Karl Bonola», «Ardiveain» edota «Marqués d'Arcayer»?

⁵²¹ Garai horretan erretratuak egin zizkieten Angeluko José González de la Peña pintoreak eta Bilboko Lerchundi Sirotych anaiek. Erretratuak Baionako eta Bilboko Euskal Museoetan gordetzen dira, hurrenez hurren (KMK-JU: J. A. Lerchundi-J. González de la Peñaren gutunak J. Urquijori, 1949-09-03 & 1950-02-08).

espezializatueta ohikoak ziren 45 pta, gehi beste 15 pta, bildumaren bitxitasunagatik. Bibliotekak 14.000 liburuki zituela kontuan hartuta, prezioa 770.000 ptakoa zen eta horri beste 100.000 pta eranstea proposatu zuen, jabeak bere bildumari zion maitasunagatik. Guztira, 870.000 pta.⁵²²

H. Bilbao-B. Bureba-D. Areitio harremanetan jarri ziren Ignacio Urquijorekin ekainaren bukaeran, salmentaren baldintzak zehazten saiatzeko. Izan ere, J. Urquijok bere iloba izendatu zuen ordezkari. BPDaren eskaintzak ez zuen gogobetetzen euskaltzainaren nahia. Guztira 1.300.000 pta eskatu zituen bildumagatik. H. Bilbaori gutunez jakinarazi zizkion I. Urquijok osabaren baldintza zehatzak 1950eko uztailaren hasieran:

1. La biblioteca se entregará a la Excma. Diputación a la muerte de Dn. Julio.
2. En el momento de la firma del contrato, se entregará la suma de un millón de pesetas, abonándose trescientas mil pesetas más en anualidades de cincuenta mil pesetas.
3. Todos los gastos, serán por cuenta de la Excma. Diputación.
4. No se incluye en la biblioteca la colección Espasa.⁵²³

BPDaren gobernu batzordeak 1950eko uztailaren 8an J. Urquijoren baldintzak onartu eta biblioteka eroste erabaki zuen. Erabakiaren unean, J. Ybarra eta Agustín Chávarri diputatuak gelatik atera ziren, J. Urquijoren familiakoak zirelako.⁵²⁴ Baina erabakia BPDaren batzar arruntera eramane zutenean uztailaren 26an, eztabaida sortu zen erosketaren prezioagatik. Arazoa eztabaidatzeko J. Ybarra berriz ere gelatik irten zen. H. Bilbao, Juan Llasera, J. M. Llaneza, Eduardo Lastagaray eta J. J. Zabala Mintegui aritu ziren eztabaidan. Txosten teknikoak adierazitako prezioan oinarrituta, euskaltzainaren gainerako baldintzak onartu baina 1.000.000 pta eskaintzea erabaki zuten (eskatutakoa baino 300.000 pta gutxiago).⁵²⁵ Erabakiaren berri ofiziala BPDko presidentek I. Urquijori eman zion Markinara abuztuan bidalitako ofizioan.⁵²⁶ Negoziazioa une horretan eten egin zen, Donostiatik erantzunik jaso ez zutelako, baina argi dago eskaintzak ez zuela

⁵²² BFAH-EC: BPDko artxibozain-liburuzainaren txostena, 1950-06-14, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵²³ BFAH-EC: I. Urquijoren gutuna H. Bilbaori, 1950-07-02, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵²⁴ BFAH-EC: BPDko idazkariaren izapidea, 1950-07-08, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵²⁵ BFAH-EC: BPDko idazkariaren izapidea, 1950-07-26, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵²⁶ BFAH-EC: BPDko presidentearen ofizioa I. Urquijori, 1950-08-05, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

eskari ekonomikoa betetzen.

J. Ybarra BPDko presidente izan zen bitartean, negoziazioarekin jarraitzeko asmoa egon zen.⁵²⁷ Baina 1950eko urriaren 28an J. Urquijo hil zenean, bibliotekaren erosketak etenda jarraitzen zuen. Blokeo egoera gainditzeko asmoarekin, 1950eko azaroaren hasieran H. Bilbao presidenteordeak mozio bat aurkeztu zion BPDari omenaldi berri bat antolatzeko. 1949ko abuztuan «Hijo Benemérito de Vizcaya» izendapenaren oroitarrria eman ziotenetik BPDarekiko harremanak okerrera egin zuen. H. Bilbaoren mozioak, urquijotarren ospea kulturgintzan, politikan eta erlijioan goratu ondoren, hurrengo proposamenak aurkeztu zituen:

1. Que se encargue un retrato al óleo del Excmo. Sr. Don Julio de Urquijo, Conde de Urquijo, cuyo retrato se colocará en sitio de honor en la Biblioteca de S. E., juntamente con otro de su hermano, el Excmo. Sr. Don Adolfo de Urquijo, Conde de Urquijo.
2. Organizar una velada necrológica para exaltar la memoria suya.
3. Publicar las obras de Don Julio de Urquijo, referentes a Vizcaya.⁵²⁸

B. Bureba buru zuen BPDko Educación, Deportes y Turismo sailak H. Bilbaoren mozioa onetsi, baina omenduaren kultur garrantziagatik, eginkizuna JCVren esku uztea proposatu zuen.⁵²⁹ BPDko gobernu batzordeak azaroaren 23ko H. Bilbaoren mozioa nahiz Educación, Deportes y Turismo sailaren txostena onartu zituen. Era berean, JCVri omenaldiaren programa zehaztu eta antolatzen hastea agindu zion.⁵³⁰ E. Calle JCVko idazkaria, alde batetik, tokiko artisten artean aurrekontuak eskatzen hasi zen erretratua egiteko, eta bestetik, D. Areitio proposatu zuen J. Urquijoren antologiaz txostena egiteko.⁵³¹ JCVn, noski, aipatzen ari garen prozesua gertutik jarraitu zuten. Esaterako, 1949ko udan BPDak antolatu zuen omenaldiari atxiki eta Fernando Echegaray JCVko buruordea ordezkari gisa bidaltzea erabaki zuten.⁵³² Garai horretan, bestalde, Carmelo

⁵²⁷ Artxibozainari ez zioten gastuen soberakina itzultzeko eskatu. 4.000 pta eman zizkioten 1949ko uztaillean katalogazio lanen gastuetarako eta 1950 arte soilik 2.790,05 pta gastatu zituen (BFAH-EC: D. Areitioaren gastu agiria BPDari, 1950-12-09, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7).

⁵²⁸ BFAH-EC: H. Bilbao diputatuaren mozioa, 1950-11-03, Junta de Cultura C-7 —08-.

⁵²⁹ BFAH-EC: BPDko Educación, Deportes y Turismo sailaren txostena, 1950-11-16, Junta de Cultura C-7 —08-.

⁵³⁰ BFAH-EC: BPDko idazkariaren izapidea, 1950-11-23, Junta de Cultura C-7 —08-.

⁵³¹ BFAH-EC: E. Calleren ofizioa J. Ybarrari, 1950-11-23, Junta de Cultura C-7 —08-.

⁵³² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-05-31, Junta de Cultura C-62.

Echegarayri (F. Echegarayren aita) omenaldi bat prestatzen ari ziren JCVn.⁵³³ Azaroaren 4an E. Sánchez Reyesek hitzaldia eman zuen BPDko bibliotekan, historialari mauristak M. Menéndez Pelayorekin izandako harremana nabarmentzeko, ortodoxia ideologiko frankistarekin guztiz bat zetorrena (*La Gaceta del Norte* 1950-11-05).

JCVren 1950eko azaroaren 23ko batzarrean hurrengo kideak bildu ziren: J. Ybarra buru, I. Urquijo, J. M. Urrutia, J. B. Merino, J. Irigoyen eta E. Calle idazkaria. BPDaren erabakiaren berri eman zuten. I. Urquijok, alde batetik, osabaren erretratua artista ospetsu batek egitea eskatu zuen, eta bestetik, ekitaldi nekrologikorako RAEko R. Menéndez Pidal-J. Casares gonbidatzea. Euskaltzaindia baztertuta zegoen, erakundeon arteko harremana txarra zelako. Azkenik, E. Calleri jarraituta, antologiarako idazlanen aukeraketa D. Areitiok egitea proposatu zuten.⁵³⁴ Baina biharamunean bertan, azaroaren 24an, J. Ybarra kargugabetu egin zuten BPDko presidentetzatik. Espainiako Gobernuak ez zuen begi onez ikusten J. Ybarrak presidente gisa erakutsitako intsumisioa zentralismo frankistarekiko, kontzertu ekonomikoa berrezartzeko eskatu zuenean edota Bilboko elizbarruti sortu berriari seminariorako lurrak eta eraikuntzak dohaintzan eman zizkionean (*La Gaceta del Norte* 1950-11-28; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 351; Alonso Olea 2014: 533-535).

JCV berriz batzartu zenean, 1950eko abenduaren 29an, mahaiburua BPDko presidente berria zen: J. M. Ruiz Salas. Dena dela, J. Ybarra ere bertan izan zen, F. Echegaray, J. B. Merino, I. Urquijo, J. Irigoyen, J. L. Gaytán de Ayala, S. Sotomayor eta E. Calle idazkariarekin batera. J. Ybarrak hitza hartu zuen bera presidente zela J. Urquijoren omenaldiaz hartutako erabakiak gogorarazteko, J. M. Ruiz Salasi egindako ohartzat har daitekeena. Artean C. Echegaray-J. Urquijoren antologia bana 1951n argitaratzeko asmoa zuen JCVk.⁵³⁵ Baina J. Ybarraren kargugabetzearekin egitasmo horiek ahaztu egingo ziren, eta J. Ybarrak ez zuen JCVren batzorde iraunkorraren batzarretara parte hartuko. JCVren 1951eko maiatzeko batzarrean J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, F. Ygartua eta E. Calle bildu ziren. BPDko presidenteak R. Menéndez Pidalen hitzaldi bat Sociedad Bilbaína-rekin batera antolatzeaz hitz egin zuen, baina ez zuten J. Urquijoren omenaldirik gehiago aipatu. Argitalpenez den bezainbatean, RAEko M. Gómez Morenok Bizkaiko epigrafiaz idatzitako lanak argitaratzeko asmoa

⁵³³ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-10-25, Junta de Cultura C-62.

⁵³⁴ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-11-23, Junta de Cultura C-62.

⁵³⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-12-29, Junta de Cultura C-62.

agertu zuten, baina J. Urquijoren antologia ahaztuta zegoen.⁵³⁶ 1951ko ekainaren 8an Bilboko *EC-PV*k eta Donostiako *El Diario Vasco*k, biak ybarratarren menpekoak, ezusteko berria eman zuten:

La biblioteca de don Julio de Urquijo ha sido adquirida por la Diputación de Guipúzcoa. Consta de 14.000 volúmenes y se la disputaban la Diputación de Vizcaya, el Consejo Superior de Investigaciones Científicas y otras entidades [...] La Diputación de Vizcaya, en alguna ocasión, entabló negociaciones con don Julio Urquijo para que pasara aquella biblioteca a ser propiedad de la provincia hermana. El archivero provincial de dicha Diputación, don Darío Areitio, visitó detenidamente la biblioteca, haciendo una tasación de la misma para ofrecer al señor Urquijo una importantísima cantidad por su venta. El ilustre académico de la Real de la Lengua, que tanto amor y entusiasmo había puesto en la colección de la hermosísima biblioteca, no quiso aceptar el ofrecimiento ni entrar en las negociaciones que la Diputación de Guipúzcoa, con celo ejemplar, quiso iniciar para que no saliera de nuestra provincia una joya bibliográfica de tan alta estimación y valor (*El Diario Vasco* 1951-06-08).⁵³⁷

Berriaren arabera, BPDak ezik, Bilboko liburu denda batek eta CSICEk interesa agertu zuten J. Urquijoren biblioteca eskuratzeko, baina GPDak J. Yrizar diputatu ohiari eta M. CiriQuiain idazkariari mandatu eman zien V. Olazábal alarguna eta J. R. Urquijo ilobarekin (I. Urquijoren anaia) negoziazioa burutzeko. 1951ko ekainean J. Urquijoren biblioteca ospetsua saldu zion familiak Gipuzkoako CAPari. GPDak bere gain hartu zituen funts baliotsuak eta F. Arocena artxibozaina katalogazio lanetan hasi zen (Arrieta & Barandiaran 2003: 176-177). Buenos Airesko IAEVek, esaterako, pozez hartu zuen berria, funtsak ikertzaileen esku jarriko zirelakoan.⁵³⁸ BPDak, ordea, ezin zuen pozik agertu. 1948ko maiatzean abiatutako negoziazio luzeak porrot egin zuen, probintzia arteko lehiari galtzaile agertuta. Argi dago J. Urquijok ez zuela BPDaren eskaintza ekonomikoa onetsi, handik gutxira J. Ybarra ilobaren kargugabetzeak familiaren ezinegona areagotu zuela, eta seguru asko J. Ybarra kontseilari nagusi zuen prentsak mendekuaren pozarekin eman zuela GPDaren «garaipen»aren berri (cf. Agirreazkuenaga eta Urquijo 2008: 346).

⁵³⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62.

⁵³⁷ cf. *CE-PV* 1951-06-08.

⁵³⁸ Halaber, Gernikako ehegaraytarren eta Getxoko lezama-leguizamóndarren liburutegien EGZeko galerak salatu zituen (IAEV 1951c).

Berria zabaldu ondoren, D. Areitio BPDko artxibozain-liburuzainak bidaia azkar-azkarra egin zuen Donostiara egoeraz behar bezala jabetzeko.⁵³⁹ J. M. Ruiz Salas BPDko presidentearen aginduz eta H. Bilbao diputatuaren onarpenarekin, D. Areitio txosten bat aurkeztu zuen 1948tik J. Urquijoren biblioteka erosteko egindako gestioez. Orain arte aipatu ditudan xehetasunak laburtzeaz gain, Donostian jakindakoaren berri eman zuen. A. Elorriaga presidente zuen GPDak 1951ko ekainaren 2an onartu zuen hezkuntza sailaren txostena J. Urquijoren biblioteka erosteaz. Ordaindutako prezioa 1.500.000 ptakoa izan omen zen, ustez Bilboko Librería Arturo-ren eskaintza berdintzen zuena. D. Areitio txostenean nabarmendu zuen GPDak inolako txosten teknikorik gabe egin zuela erosketa, eta gertatutakoak J. Urquijok J. Ybarrari gutunez adierazitako nahia ukatzen zuela, biblioteka Bizkaiko jaioterrian geratzearena, alegia. Batzorde teknikoaren izenean, H. Bilbao presidenteordeak argi utzi nahi izan zuen urquijotarrei ahoz egindako 1.000.000 ptako eskaintzak ez zuela erantzunik jaso.⁵⁴⁰

B. Bureba buru zuen BPDko Educación, Deportes y Turismo sailak beste txosten bat prestatu zuen ekainaren 28an nahigabea adierazi eta zenbait xehetasun nabarmentzeko. Alde batetik, 1.000.000 ptako eskaintza idatziz ere jakinarazi zitzaioela I. Urquijori 1950eko abuztuan eta, bestetik, BPDak erakutsitako interesa gorabehera, urquijotarrek ez zutela inolako erantzunik eman inoiz.⁵⁴¹ Dena dela, Bizkaiko agintariek ezin zuten ukatu GPDaren eskaintza %50 handiagoa zela BPDarena baino, nahiz eta zenbait iturrik prezioa 1.400.000 ptako izan zela adierazi (Arana Martija 1992: 16; Agirreazkuenaga et al. 2007: 2330). Nolanahi den, BPDaren gestioen porrota erabatekoa izan zen eta uste izatekoa da, horrek ez zuela hobetu, besteak beste, Euskaltzaindia-BPD arteko harremana. Azkenik, Educación, Deportes y Turismo-ren proposamenez, J. M. Ruiz Salas presidente zuen BPDak hurrengo akordioa hartu zuen 1951ko uztailaren 26:

Lamentar que, por circunstancias que no son del caso enunciar, no se haya podido llegar a un resultado positivo en relación con los deseos de la Corporación provincial de adquirir la Biblioteca del benemérito vizcaino Excmo. Sr. D. Julio de Urquijo y agradecer a los Sres. D. Hilario Bilbao, Vicepresidente de la Excma. Y D. Dario Areitio, la intervención que han tenido en el presente asunto, toda vez que sobre ellos recayó la realización de

⁵³⁹ BFAH-EC: D. Areitioaren gastu agiria BPDari, 1951-06-13, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵⁴⁰ BFAH-EC: D. Areitio eta H. Bilbaoren txostena BPDari, 1951-06-14, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

⁵⁴¹ BFAH-EC: Educación, Deportes y Turismo sailaren proposamena BPDari, 1951-06-28, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

cuantas gestiones en ese sentido se llevaron a cabo en el aspecto personal.⁵⁴²

⁵⁴² BFAH-EC: BPDko presidentearen ofizioa H. Bilabori, 1951-08-02, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-7.

7 EUSKALTZAINDIA AUZITAN: ERBESTEA

7.1 Frantziako hiru euskaltzainak

Pierre Lhande (SI)

Pierre Lhande (1877-1957) Baionan jaio arren, Zalgizen (Pirinio Behereak) hazi zuten. Jesuitekin ikasketak burutu eta apaiztu egin zen. Ondoren, Gipuzkoan aritu zen irakasle LMGra arte. Maila intelektual handiko idazlea izan zen, batez ere frantsesez arrakasta izan zuena bere garaian. Eliza katolikoaren gizarte doktrina zabaltzearren, saiakerak, biografiak edota eleberriak idatzi zituen. Euskarara moldatu zuen *Yolanda* (1921) eleberrian gipuzkera erabili zuen literatur hizkuntzatzat. Hala ere, sabindar eskolako idazleak gaitzetsi egin zituen *Gure Herria* aldizkarian.

1919an ALV sortu zenean euskaltzain izendatu zuten, eta *Euskera* agerkariaren lehen arduraduna izan zen. 1921ean Espainiako Gobernuak muga zeharkatzea galarazi zion *Notre soeur latine, l'Espagne* (1919) saiakeran abertzaletasunaren alde egin omen zuelako. Frantziako Tolosan irakasle izan ondoren jesuiten Parisko *Études* aldizkari ospetsuko literatur kritikaz arduratu zen. Parisen auzo behartsuetako misioen arduradun izendatu zuten agintari erlijiosoek, komunismo ateoaren eraginari langileen artean aurka egiteko. Irratian hedatzen zituen predikuek oso ezagun bilakatu zuten Frantzian. 1934an odol isuria izan zuenetik, erretiratuta zegoen, oso makal eta ezinduta. Hizkuntzalaritzan egindako lanik garrantzitsuena *Dictionnaire basque-français* (1926-1938) izan zen, berak hasi eta P. Lafitte-P. Aranartek amaitua.

EGZean frankismoaren aurkako jarrera izan zuen. Frantziako jesuiten uzkurutasuna eta erregezaleen filokarlismoa ere salatu zituen. Hala ere, J. M. Leizaolak berak aitortu zuenez, zaila egin zitzaion EAJ-PNVren ezkerrearekiko elkarlana ulertzea (*Euzko Deya* 1957-05-01). Ez dago argi Euskaltzaindia berrituaz zer zekien zehazki P. Lhandek. 1946ko urrian hurrengo idatzi zion Pauetik EJ-GEko F. J. Landábururi:

Ha sido mi deseo de regalar esa pequeña biblioteca a la Academia de la Lengua Vasca de Bilbao, cuya sede provisional se encuentra en estos momentos en el Gobierno de Euzkadi (11, Av. Marceau, Paris, 16e) hasta que, deshaciéndose las trabas del momento esa Academia esté en condiciones de hacerse dueña de dichos libros. Mientras tanto queda todo el depósito a la disposición del Gobierno de Euzkadi y de todos los euskalzales que

quisieran ocuparse de cosas de asunto vasco.⁵⁴³

Liburutegi hori funtsean *RIEV* aldizkariaren bilduma osoa zen eta J. Bilbaok Ikuskaren Sarako egoitzara eraman nahi izan zuen 1947ko azaroan.⁵⁴⁴ EIL-SIEBen 1948ko biltzarrean P. Lhandek aurkeztu zuen komunikazioan ikus daitekeenez, ardura zaharrei eutsi zien. Ameriketarako euskal emigrazio masiboak euskal katolikotasunari eta bereziki emakumeen moralari eragiten zizkion kalteak salatu zituen saminki (Lhande 2004). Seguru asko P. Lafittek egin zuen ahalegin gehien hura 1949an Donostiako Euskaltzaindiaren batzarrera eramateko, baina BMG ondoko korrespondentzian ez da ageri jesuitaren ALVrekiko interesik.⁵⁴⁵ Azkenerako, ez zituen ezagutzen bisitan joaten zitzaizkion lagunak ere (Monier 1992; Larronde 1994; Urkizu 1998; Hernández Mata 2007; Kintana Goiriena 2008; Barandiaran 2009: 535-536).

Georges Lacombe (eta bere biblioteca)

Georges Lacombe (1879-1947) Orthezen (Pirinio Behereak) jaio zen. Aitaren familia ospetsua Agen-ekoa (Lot-eta-Garona) zen eta amaren aldetik Saint-Jayme familia aristokratikoaren kide zen. LMGn beso bat galdu zuen. Agnostiko liberala zen, ezohikoa garaiko ALVn. Filosofian lizentziaduna zen, eta gehien miresten zuen filosofoa H. Bergson zen; hizkuntzalaritzan H. Schuchardt-ekin gertatu zitzaion bezala.⁵⁴⁶

Baliabide paregabeak izanagatik, ikerketa filologiko sakonik ez zuelako egin, diletante eta alfer ospea izan zuen. R. M. Azkuek, adibidez, «[l]a personificación más completa que conozco de Guero Guero» deitu zuen.⁵⁴⁷ Aldudeko dialektoaz ehunka ohar bildu arren, ez zuen tesi baten mailako lanik burutu.⁵⁴⁸ Zubereraren garapen historikoa eta artxiiboak aztertzen ere aritu zen. Artikulu ugari argitaratu arren, amaitu gabe utzi zuen H. Gavelekin batera idatzitako liburu garrantzitsua: *Grammaire basque* (1929-1937) (Gavel 1947; Lafitte 1979; Altonaga 2006; Larronde 1997; Hernández Mata

⁵⁴³ SAF-AA: P. Lhanderen gutuna F. J. Landábururi, 1946-10-24, LIAV-0004-01.

⁵⁴⁴ F. J. Landáburuk eskariari emandako erantzunaren arabera, badirudi berarentzat ere Euskaltzaindrik ez zegoela: «Este Sr. ha dejado en depósito la biblioteca a la Delegación de París hasta tanto se pueda reconstituir la Academia de la Lengua Vasca, que será en definitiva la beneficiaria de esos libros» (SAF-AA: J. Bilbao-F. J. Landáburu arteko gutunak, 1947-11-20 & 1947-12-13, LIAV-0012-06.)

⁵⁴⁵ ABA-LAF: P. Lhanderen gutuna P. Lafitterri, 1951-05-01.

⁵⁴⁶ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitterri, 1943-11-27.

⁵⁴⁷ KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1930-09-15.

⁵⁴⁸ ODS-LAC: G. Lacomberen «Le parler basque des Aldudes», [1911-1937].

2007).

J. Urquijoren lankide estuenetakoa izan zen *RIEV* aldizkariaren idazkari gisa. Harrokeriaz 1919an uko egin zion urgazle soil izateari. 1920an euskaltzain izendatu zuten, arbaso euskaldunak ez izanagatik, estatutuek agintzen zutenaren kontra. Dena dela, ALVko bibliotekaria eta kide aktiboa izan zen.⁵⁴⁹ J. Urquijok bezala, familia aberatseko euskaltzalea izanda, euskal liburutegi eta artxibo garrantzitsua osatu zuen bildumazalearen pasioarekin. BMGn ondatuko zenaren beldurrez bizi izan zen.⁵⁵⁰

EGZaren ondorioz, EJ-GEren aldeko jarrera hartu zuen eta horrek J. Urquijorekiko harremana hoztu egin zuen. LIABeko kide gisa, Paristik prentsaren bidez jarraitzen zituen Euskal Herriko gorabeherak. J. A. Aguirre lehendakariak, esaterako, AEBra joan aurreko gala afarira gonbidatu zuen. Horren harira, P. Lafitteri adierazi zion bere ikuspegia: «Je me tarde que l'on flanque Franco à la porte, et que les études euskariennes reprennent en Espagne».⁵⁵¹ *Gure Herrian* argitaratu zituen lanak BMG hasi arte: «Grammaire basque» (1936, H. Gavelekin), «Les deux prospectus de l'abbé d'Iharce de Bidassouet» (1937), «Sur l'origine du nom des Aldudes» (1938, H. Gavelekin) edota «Un mot encore sur Bidassouet» (1939) (cf. Bilbao 1947).⁵⁵²

EGZak euskal ikasketei eragindako kaltea honela deskribatzen zuen: «Les études basques ne battent que d'une aile, mais cela vaut mieux que la léthargie».⁵⁵³ Parisen «Société Paléo-Méditerranéenne» delakoa sortu zuen P. Fouché-rekin, euskal ikasketekin jarraitzeko asmoarekin.⁵⁵⁴ Horrek ere ez zuen aurrera egingo, baina 1939ko martxoan J. Gorostiaga SLPeko kide izendatua izateko aurkeztu zuen (SLP 1938-1939).

Euskaraz jakin arren, nagusiki erdaraz aritzen zen eta P. Lafittek estandarizatu nahi zuen nafar-lapurterari eragozpenak jarri zizkion: «Ce qui me frappe dans ce dialecte artificiel, syncrétique et mal fixé, c'est que chaque écrivain ou orateur emploie un basque à lui, en dépit d'une tendance très réelle à la unification».⁵⁵⁵ Bere burua hizkuntzalari euskaltzaleztat zuen, baina biak ez nahastearen aldekoa zen.⁵⁵⁶ Hain zuzen, Aintzinak P.

⁵⁴⁹ ODS-LAC: G. Lacomberen «Projet de règlement de la Bibliothèque de l'Académie de Langue Basque», [1921].

⁵⁵⁰ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1946-08-21.

⁵⁵¹ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1945-06-09.

⁵⁵² ABA-LAF: G. Lacomberen gutunak P. Lafitteri, 1938-10-19 & 1943-06-29.

⁵⁵³ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-09-30.

⁵⁵⁴ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1937-03-26.

⁵⁵⁵ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-06-29.

⁵⁵⁶ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-10-11.

Charritonon *Eskualdunak* (1943) argitaratu zuenean, liburua atsegin arren, grina abertzalean urrutiegi joan izana salatu zuen.⁵⁵⁷

Hizkuntzalaritzan, Frantziako eskola soziologikoaren jarraitzailea izan zen. Hain zuzen, J. Vendryes irakasleak egin zuen haren nekrologia (SLP 1947-1948). A. Meillet-M. Cohenek zuzendutako *Les langues du monde* liburu entziklopedikoaren 2. edizioaren agertu zen G. Lacomberen azken artikulua. Objektibotasunarekin deskribatu zituen euskararen ezaugarriak. Jeltzaleen hizkuntz irizpideekin bat egin ez arren, abertzaletasunak prestigiorik gabe geratzen ari zen euskarari emandako indarra eta diktadura frankistak ezarritako debekua aitortu zituen:

Depuis [1545] la littérature basque se compose principalement de traductions d'ouvrages religieux. Cependant on peut y joindre, en tres petit nombre, quelques ouvrages originaux. Mais a partir de 1880 environ, ces derniers devinrent plus nombreux que les traductions. Vers cette époque, une véritable renaissance, plus ou moins liée a des théories politiques, s'est produite un peu partout en Euskarie, et une véritable littérature (romans, poésies, théâtre) s'est constituée. Des journaux se sont fondés. Et cela s'est continué jusqu'aujourd'hui en deçà des Pyrénées, tandis qu'au-delà la guerre civile d'Espagne a tout arrêté (Lacombe 1952: 262).

G. Lacombe 1947ko uztailean hil ondoren, barnealde-erbestearen arteko norgehiagoka berriz agertu zen, haren euskal liburutegi baliotsuaren inguruan. H. Gavelek heriotzaren eta familiak biblioteka saltzeko zuen asmoaren berri eman zien J. Urquijo-J. M. Barandiarani. T. Monzón EGLZ-DCEko buruak eta EBBak, M. Eguileor idazkariaren bidez, hura erosten saiatzeko agindua eman zioten F. J. Landábururi.⁵⁵⁸

J. Bilbaok ere J. A. Aguirre lehendakariari idatzi zion auziaren garrantzia nabarmentzeko. H. Gavelen bidez jakinarazi zion G. Lacombe zenak milaka euskal liburu eta eskuizkribu ugari zituela. Chicagoko L. L. Bonaparteren bibliotekarekin eta Donostiako J. Urquijorenarekin baino ezin zen parekatu. Hain zuzen, J. Urquijok adierazi zionez, Gipuzkoan biblioteka eskuratzeko nahia zegoen eta J. Urquijok berak G. Lacomberen korrespondentzia erosi nahi zuen. Honela amaitu zuen lehendakariari bidalitako gutuna: «La Biblioteca de Lacombe, con la de Urquijo (si un día es posible),

⁵⁵⁷ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-11-27.

⁵⁵⁸ SAF-AA: T. Monzónen eta M. Eguileorren gutunak F. J. Landábururi, 1947, LIAV-0012-06

puede ser la base de una verdadera biblioteca vasca al servicio de todos». ⁵⁵⁹

F. J. Landáburu, LIAB eta EJ-GEren ordezkari gisa, G. Lacomberen arrebarekin harremanetan jarri zen 1947ko azaroan. Bibliotekak, filosofia saila ere bazuen, baina euskal filologiako atalak erakartzen zuen interesa. Bestalde, badirudi euskaltzainak ez zuela harreman oso ona familiarekin, bakardadean hil baitzen. H. Bouret de Cordeix («née» Lacombe) arrebak berehala anaiaren apartamentua itxi eta biblioteca ahalik eta prezio onenean saldu nahi zuen. 1948ko otsailean T. Monzónnek pertsonalki bereganatu zuen (ez EJ-GEk ezta EAJ-PNVk ere) euskal biblioteca 560.000 frankotan. ⁵⁶⁰

G. Lacomberen euskal bibliotekaren katalogoak guztira 1.930 sarrera ditu (liburu eta liburuxkak), horietatik 853 euskaraz, eta horietatik 74 Aro Modernokoak. Artxiiboari dagokionez, Europako euskalari nagusien eskuizkribuak daude: L. L. Bonaparte, C. C. Uhlenbeck, W. J. van Eys, E. S. Dodgson edota J. Vinson (ABK; Arana Martija 1997). Katalogazioaren arduradun zen J. Bilbaok, erosketaren berri (600.000 franko aipatzen zituen) eman zion J. Urquijori. T. Monzónen asmoa biblioteca Bergarako etxean publikoari zabalik egotea omen zen. G. Lacomberen korrespondentzia argitaratzeko asmoa azaldu zion, gauzatuko ez zena. ⁵⁶¹

M. de la Sotak, bestalde, G. Lacomberen 250 inguru liburuko sorta erosi zion Parisko saltzaile bati, baina horiek filosofiazkoak ziren. J. Urquijok bereziki F. Elissalderen *Apezendako dotrina christiana uscaras* (1735) bitxia berriz argitaratzea gomendatu zien, baina edizio hori, J. Gorostiagak prestatu behar zuen *Refranes y sentencias* (1596) bezalaxe, ez zuten burutuko. ⁵⁶² G. Lacomberen eskuizkribuei dagokionez, H. Gavel-ek «Notes sur le basque des Aldudes» (1952) argitaratuko zuen *Eusko-Jakintzan*, uste baino lan azalekoagoa gertatu zena.

Jean Elissalde

Jean Elissalde «Zerbitzari» (1883-1961) Azkainen (Pirinio Behereak) jaio zen. LMGN mobilizatu egin zuten. Elizgizona izanda, erizaintzan aritu zen, baina erakutsitako

⁵⁵⁹ SAF-AA: J. Bilbaoren gutuna J. A. Aguirreri, 1947-11-03, LIAV-0012-06. J. Bilbao bere eusko bibliografiarako datuak biltzen ibili zen Bilbo-Donostia-Iruñean 1947ko hasieran. Udan J. Urquijorekin bildu zen bibliografia lanerako (Yrizar 2001: 40-43, 223).

⁵⁶⁰ SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna T. Monzóni, 1948-02-16, LIAV-0012-06.

⁵⁶¹ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-02-13.

⁵⁶² KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-04-05.

adoreagatik hainbat aipamen eta domina jaso zituen. Liginagako erretore izendatu zuten, berak «Ziberia deithu desterru»tzat jotzen zuena, eta gero Lekornera destinatatu zuten.⁵⁶³ Baionako *Eskualduna-Gure Herria* aldizkarietan nahiz Eskualzaleen Biltzarreko idazkaritzan (1922-1935) oso aktibo agertu zen. Urgazle 1920an izendatu zuten, eta euskaltzain, 1930ean. Euskaraz oso ongi idazten zuen, lapurtera garbian, baina kezka intelektual gutxiarekin. Hizkuntza estandarra sortzeko prozesuan, Frantziako euskaltzaleen eragin urria eta sabindar eskolak Espainian zuen indarra oztupo nagusiak zirela uste zuen.

Elizgizon oso kontserbadorea zen, Action Française-en ildokoa, eta Nafarroako karlisten halako hurbiltasun bat izan zuen EGZean. Gerrak areagotutako frantses nazionalismoa eta euskaltzaletasuna kontradikziorik gabe bizi izan zituen. 1940-1942 arteko alemanen okupazioan, nazien aurkako gerlari ohien jarrera izan zuen. Aldi berean, Frantziako buruzagi radikal-sozialistei eta Fronte Popularrari egotzi zien BMGren errua (Larronde 1994; Murua Uria 1996; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007; Barandiaran 2009; Kalzakorta 2012; Bidegain 2013). Bertso askea zen, bere burua politikoki erdibidean ikusten zuena, P. Lafitteri *Herriaren* gaullismoaz adierazi zionez: «vous avez votre politique, et je sais que *quelques* membres du Comité d'Administration en ont un autre». Gutun berean, kexu zen eskuindarrei zuzendutako «energuménes» iraina argitaratu zuelako astekariak.⁵⁶⁴

7.2 *Erbeste abertzalearen jarrera Euskaltzaindiarekiko*

Militar matxinoek Euzkadiko hiriburua 1937ko udan okupatu ondoren, EAJ-PNVk erbestean EI-SEV eta are ALV berriz antolatzeke asmoa izan zuen. Isaac López Mendizábal (1879-1977) Donibane Lohizunen erbesteratuta zegoen, 1934-1935 artean EBBeko buru izatera iritsi ondoren. Era berean, 1919ko sorreratik urgazlea zen, baita editorea eta euskal lexikografoa ere. 1938an, J. M. Barandiaran-A. Apraizekin bildu zen EI-SEV berriz antolatzeke asmoarekin. Laguntza bila, M. Irujo-F. J. Landábururen bitartez, Parisen bizi zen G. Lacombe euskaltzainarengana ere jo zuten. Une horretan, G. Lacombe, laster hilko zen bere osaba F. de Saint-Jayme zaintzen zegoen Donapaleun.⁵⁶⁵

⁵⁶³ ABA-LAF: J. Elissalderen gutuna P. Lafitteri, [192?].

⁵⁶⁴ ABA-LAF: J. Elissalderen gutuna P. Lafitteri, [194?].

⁵⁶⁵ SAF-AA: I. López Mendizábal-G. Lacombe arteko gutunak, 1938-05-17/1938-07-04, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1. I. López de Mendizábal eta F. de Saint-Jayme, Iholdiko kantonamenduko

Hainbat urgazlerekin ere harremana izan zuen. Uztaritzeko P. Lafitteri, Tolosako jeltzaleak liburuak argitaratzeko alderdiaren baliabideak eskaini zizkion, eta R. Olabide euskaltzain erbesteratuaren Itun Zaharraren itzulpenerako laguntza lexikoa eskatu.⁵⁶⁶ Bordeleko R. Lafonekin harremanetan jarri zen. Zenbait egileren artikulu zientifikoak argitaratu nahi zituen *RIEVEN* gisako formatuan: J. M. Barandiaran antropologiaz, J. Gorostiaga historia-literaturaz edota R. Lafon bera hizkuntzalaritzaz.⁵⁶⁷

EGZ amaitu gabe, I. López Mendizábalen asmoa, EI-SEV ez ezik Euskaltzaindia ere erbestean abiatzea zen, erbesteratutako eta Frantziako kideekin. G. Lacomberekin Baionan bildu, eta horrela jakinarazi zien Juan Abando Bilboko zinegotzi ohiari eta EJEko F. J. Landábururi.⁵⁶⁸ Azken hori J. M. Barandiaran-A. Apraizekin bildu zen EI-SEVez hitz egiteko:

Estimaba el señor Apraiz que por su cargo de Secretario y que por razón de que no todos los socios están aquí, daría lugar a disgustos tomar el nombre de Eusko-Ikaskuntza para una labor que al otro lado pudiera creerse política.⁵⁶⁹

Beste biek ezetz erantzun zioten. EI-SEVeko kide ohiak indibidualki bilduko ziren euskal ikerketak lantzeko eta emaitzak aldizkari zientifiko batean argitaratuko zituzten, baina ez *RIEV* izenarekin. Txosten bat idatziko zuten eta Rockefeller fundazioari aurkeztu, diru laguntza eskuratzeko. Bartzelonatik J. A. Aguirre lehendakaria bera ados agertzen omen zen asmoarekiko, baina lehentasuna EI-SEV zen, eta ez Euskaltzaindia. EI-SEVeko Hizkuntza eta Literatura saila berrantolatu nahi zuten I. López Mendizábal, S. Altube edota A. M. Labayen jeltzaleekin, eta alor horietan ere ikasketa plangintza bat gauzatu. Abertzaleekiko inoiz baino hurbilago, G. Lacombe euskaltzain eta LIABeko kidea ere bat omen zetorren.⁵⁷⁰

kontseilari orokor ohia, lagun zaharrak ziren, LMGko urteetatik. F. de Saint-Jayme-k, bere ilobak bezala, anbigutasunez erantzun zion abertzaletasunaren gorakadari eta EI-SEV bezalako erakundeen sorrerari. Elkartea euskaltzaleetako kideak izan arren, euskararen heriotza etsipen ia jostalariak onartzen zuten. Gainera, J. Urquijo germanofilo agertu izanak Espainiako euskalaritza kritikatzeko aukera paregabea eskaini zien (Charritton & Ouret 2003: 986-999).

⁵⁶⁶ SAF-AA: I. López Mendizábal-P. Lafitte arteko gutunak, 1938-05-27 & 1938-06-10, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1.

⁵⁶⁷ SAF-AA: I. López Mendizábalen gutuna R. Lafoni, 1938-10-08, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1.

⁵⁶⁸ SAF-AA: I. López Mendizábalen gutuna F. J. Landábururi, 1938-04-15, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1.

⁵⁶⁹ SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna I. López Mendizábali, 1938-04-16, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1.

⁵⁷⁰ SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna I. López Mendizábali, 1938-05-16, PNV_NAC_EBB,K.00365,C.1.

1938ko uztailean, A. Onaindia apaiz abertzaleak deituta, bilera bat egin zuten Kanbon, erbesteratuz eta Frantziako euskaldunez osatutako elkarte zientifiko bat sortzeko asmoarekin. Nazioarteko batzorde bat ere izendatu zuten egitasmoa antolatzeko: J. M. Barandiaran-G. Lacombe (buruak) eta A. M. Labayen-E. Goyheneche (idazkariak) (Barandiaran 2009: 569).

Asmo guzti horiek BMGk zapuztu zituen. Besteak beste, I. López Mendizábalek Argentinara alde egin zuen. 1943an, EJ-GEren kultur politikari lotutako gizonak, Buenos Airesen «Instituto Americano de Estudios Vascos» delakoa sortu zuten.⁵⁷¹ Kulturgintza abertzale horretako hedapen tresna oso garrantzitsua Buenos Airesko Ekin argitaletxea izan zen, A. Campiónen *El genio de Nabarra* (1942) liburuarekin abiatu zena. 1954rako 70 liburu argitaratu zituzten, 1.500 ale inguruko tiradekin.⁵⁷² I. López Mendizábalen *La lengua vasca* gramatika-hiztegiak bi edizio izan zituen (1943, 1949), guztira 5.000 aleko tiradarekin. Arrakasta gehien izandako liburua, dena dela, J. A. Aguirreren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* (1944) kronika izan zen, hiru edizioekin, eta guztira 23.000 aleko tiradarekin (Irujo 2004; Irujo Ametzaga 2007; 2009).⁵⁷³

1940ko urrian, J. A. de Donostiaren aholkuz, J. M. Barandiaran J. Urquijorekin biltzen saiatu zen Donibane Lohizunen, baina euskaltzaina Donostiara alde eginda zegoen. 1941eko irailean elizgizonari ohar bat bidali zioten Hendaiara. Horren arabera, V. Galarza Barne Arazoetako ministroak, Marqués de Lozoya Arte Ederretako zuzendariak eta J. Urquijok berak Espainian katedra bat eskaini zioten ikerketa etnografikoekin jarrai zezan. Zuhurki muzin egin zion gonbitari (Barandiaran 2009: 626, 640-641).

Abertzaleek oso goiz izan zuten frankismopeko Euskaltzaindiaren berri, baina oro har ez ikusiarena egin zioten, aurkako jarrera aktiborik hartu gabe. Ikusi dugunez, 1942ko

⁵⁷¹ Institutuak 1950etik aurrera *BIAEV* aldizkaria argitaratuko zuen, Euskal Herriko berriak oso gertutik jarraituko zituena, Euskaltzaindiarenak barne.

⁵⁷² Argitaletxeak plazaratu zuen katalogo interesgarriaren erakusgarri, JCV frankistak Buenos Airestik zetorren proposamena onartu eta argitalpen trukea abiatzea erabaki zuen 1951ko martxoan (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-03-01, Junta de Cultura C-62). Borroka diplomatikoaren ondorioz, ordea, BPDak uko egingo zion Ekinen bilduma bere liburutegirako erosteari (*Alderdi* 1954-02).

⁵⁷³ R. M. Azkuek lehendakariaren liburua irakurri zuen, bere artxiboan 57., 348. eta 424. orrialdeetatik hartutako aipuez osatutako agiria godetzen baita. Besteak beste, zati hau kopiatu zuen: «Teníamos el ejemplo de Guipúzcoa, con los cientos de fusilados y asesinados, sin que se hubiesen librado de la furia franquista quince ejemplares sacerdotes vascos, de quienes dijo el Obispo vasco doctor Mújica en documento dirigido a Pío XII, que *el General Franco no era digno de besar la correa de sus sandalias*» (ABA-RMA: R. M. Azkueren agiri izengabea, [1944?]).

urrian F. Belausteguigoitia EGLZ-DCEko kide ohia agertu zen ALVren batzarrera. A. Ibinagabeitiak, halaber, EJ-GEk antolatutako informazio zerbitzuetan lan egin zuen 1943-1947 artean. 1944an R. M. Azkuek *RIE* Ven hainbat ale bikoiztu GPDko liburutegira eramateko mandatua eman zion.⁵⁷⁴ Errespetuz hitz egin zuen euskaltzainburuak zeraman lan baldintzatuaz, hura hil ondoren: «Azkue jaunaren ilberr[ia]k guziz samindu nindun. Adiskide aundi ta mami nizun. Makiñabat aldiz ikusi nuen bere bakartade negargarri artan, Ribera kalean, 1940 ezgeroztiko urte latz aietan».⁵⁷⁵

Ikusi dugunez, R. M. Azkuek gutunez ALVren berrantolatzearen berri zehatza eman zion J. Gorostiagari 1941eko uztailean, eta hura deduzko izendatuko zutela agindu.⁵⁷⁶ Froga testualik aurkitu ez dugun arren, uste izatekoa da EJ-GERi jakinarazi ziola. J. Gorostiga 1943an, F. Batistak gobernatzen zuen Kubatik Mexikora aldatu eta Queretaro estatuan kokatu zen apaiz lanetan. Tequisquiapan izeneko herrian, ordea, ez zegoen erabat isolatuta, eta EJ-GEko J. Jáuregui-T. Monzón erbesteratuekin harremanetan jarraitu zuen. 1946an azken biak Euskal Herrira itzuli zirenean, T. Monzón EGLZ-DCEko buru izateko, uste izatekoa da Euskaltzaindiaren berri bazutela.⁵⁷⁷

Euskaltzaindiak ez zuen agerkaririk bere buruaren berri emateko, eta prentsak edota *BRSVAP* bezalako buletinek ere ez zuten batzarren berri ematen. Euskaltzainek eurek, zuhurtziaz, estali egin zuten ALVren jarduna. J. Urquijok, esaterako, P. Lafitterekin postazko harremana izan zuen. 1946 otsailaren 15ean muga zeharkatu eta, besteak beste, haren *Grammaire basque* (1944) erosi eta irakurri zuen. Donibane Lohizunetik Uztaritzera idatzitako gutunean, J. Urquijok EGZ hasi zenetik Frantzia argitaratutako euskal idazlanen berri eskatu zion. Ph. Veyrinek, adibidez, ahoz eman zion *Axular* (1943) omenaldi liburuaren berri.⁵⁷⁸ Nolanahi den, J. Urquijok *BRSVAP* ez hitz egin zion P. Lafitteri, baina Euskaltzaindiaz ez zion ezer adierazi. Oso nabarmena da J. Urquijoren hutsegitea, 1928tik urgazle zenak, erosi berri zuen gramatikaren hitzaurrean, Euskaltzaindiari «la défunte Académie basque» deitu baitzion (Lafitte 1944: 6).⁵⁷⁹ G.

⁵⁷⁴ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna F. Arocenari, 1944-02-18.

⁵⁷⁵ ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna T. Monzóni, 1951-12-22. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibiñagabeitia 2000.

⁵⁷⁶ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1941-07-07.

⁵⁷⁷ SAF-AA: J. Jáuregui-J. Gorostiaga arteko gutunak, 1944, PNV_NAC_EBB,K.00050,C.2.

⁵⁷⁸ ABA-LAF: J. Urquijoren gutuna P. Lafitteri, 1946-02-22. Aintzina elkarteak argitaratutako liburuxkan, *Gueroren hirugarren mendeurrena* ospatu zuten hainbat egilek: J. Diharce, J. Elissalde, G. Lacombe, J. Saint-Pierre, L. Léon eta P. Lafitte (Aintzina 1943).

⁵⁷⁹ Nolanahi den, *Herria* astekariaren zuzendariak zerrenda zehatza egin zion hainbat egilerekin: D. Soubelet, L. Léon, J. Elissalde, J. Moulrier edota P. Lafitte bera (KMK-JU: P. Lafitteren gutuna J. Urquijori,

Lacombe euskaltzainari berehala jakinarazi zion J. Urquijorekin izandako tratua.⁵⁸⁰

Hark ere orduan berreskuratu zuen euskaltzain karlistarekin harremana Espainia-Frantziako muga itxi zenetik, baina Euskaltzaindia, antza, ez zen existitzen.⁵⁸¹ G. Lacombe, Bigorratik eta Paristik, J. Urquijori bidali zizkion txartel banatan hutsune bera dago. Lortu zuten, adibidez, RSVAPen berri izatea, batez ere buletinaren argitalpenarekin. Euskaltzaindiaren jarduna, ordea, Frantziako euskaltzainei ere ukatu egin zitzairen badaezpada, JCVk ahoz emandako aginduaren ondorioz.⁵⁸² Tolosako Unibertsitateko H. Gavel deduzkoarekin izandako korrespondentzian ere ez zuten Euskaltzaindia inoiz aipatuko. Bai, ordea, bestelakoak: *RIEV* berrargitaratzeko saioa, *BRSVAP*, G. Lacomberen heriotza eta horren euskal biblioteka, Bordeleko Unibertsitateko euskara katedra edota EIL-SIEBen biltzarra.⁵⁸³ Gauza bera gertatzen da R. M. Azkue-J. Urquijok 1944 arte G. Bähr urgazlearekin izan zuten korrespondentziarekin (cf. Jauregi 2005).

Bestalde, J. Urquijok 1946an R. Lafonekin berreskuratu zuen harremana. Bordeleko Unibertsitateko irakasleak bere ikerketen berri zehatza eman zion. Euskara eta Kaukasoko hizkuntzak genetikoki erkatzen ari zen. Hizkuntzalaritzako emaitza horiek ezeztatu egiten omen zituzten antropologian J. M. Barandiaran-T. Aranzadik egindako lanaren ondorioak. Euskaltzaindiaren gaia, ordea, estalita geratu zen.⁵⁸⁴

Hain zuzen, J. Urquijok berehala jakinarazi zion euskaltzainburuari R. Lafonek bere doktore tesiaren ale bat eskaini ziola.⁵⁸⁵ R. M. Azkueri bidalitako gutunean barnealdeko euskaltzainek bizi zuten beldurrezko giroaren frogaren froga dago. M. García Veneroren *Historia del nacionalismo vasco* (1945) liburuari prentsan egindako iruzkina zen. Abertzaletasunaren 1793-1936 arteko historia horretan, EI-SEVen sorrera azaltzean, idazle falangistak hurrengo adierazi zuten:

Los inspiradores fueron nacionalistas: Resurrección María de Azcue, Julián Elorza y Arturo Campión. Una de las primeras tareas de la Sociedad fue ser consecuente con la

[1946]).

⁵⁸⁰ ODS-LAC: P. Lafitteren gutuna G. Lacomberi, [1946].

⁵⁸¹ ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1946-08-21.

⁵⁸² KMK-JU: G. Lacomberen txartelak J. Urquijori, 1943-07-26 & 1945-10-06. Zoritzarrez, G. Lacomberen artxiboan ez dira gordetzen J. Urquijok garaian bidali zizkion mezuak (ODS-LAC). Agian J. Urquijok berak erosi eta desegin zituen.

⁵⁸³ KMK-JU: H. Gavelen gutunak J. Urquijori, 1942-1950.

⁵⁸⁴ KMK-JU: R. Lafonen gutuna J. Urquijori, 1946-02-19.

⁵⁸⁵ ABA-RMA: J. Urquijoren gutuna R. M. Azkueri, 1946-03-07.

influencia europeísta, y lanzó la Revista Internacional de Estudios Vascos, mediante la cual se puso en relación con las Universidades, filólogos e historiadores del mundo (García Venero 1945: 403).

Horrelako salaketen aurrean, ulergarria da J. Urquijo oso uzkur agertzea *RIEV* berriz argitaratzearekiko edota Euskaltzaindiaren berri nazioartean ematearekiko. ALVren gaia oso erraz bilakatu zitekeen propagandarako tresna erbesteko prentsa abertzalean. Nolanahi den, R. M. Azkueri bidalitako Donostiako prentsa zatian, M. García Veneroren liburuari kritika egiten zion egile izengabeak:

Así los capítulos finales son lisa y llanamente una cadena de gacetillas en la que numerosos datos se apuntan sin exactitud. Por ejemplo, contrariamente a lo que el libro dice, ni don Resurrección María de Azcue ni don Julián Elorza, inspiradores de la Sociedad de Estudios Vascos, fueron nacionalistas. Al primero no se le puede atribuir filiación política alguna, y del segundo todo el mundo sabe en Guipúzcoa que ha sido siempre militante del carlismo. Tampoco la Revista Internacional de Estudios Vascos fue creada por la citada Sociedad, puesto que existía once o doce años antes de constituirse ésta y fue su fundador don Julio Urquijo (*La Voz de España* 1946-03-06).

Badirudi iruzkinaren egileak abertzaletzat jotzen zuela A. Campión, edota hildakoa defendatzeko arrazoirik ez ikustea. Zein izan zitekeen egilea? J. Arteche? J. L. Banús? Dena dela, R. M. Azkuek harrিতuta hurrengo erantzun zion:

He leído con curiosidad lo que dicen de la obra del Sr. García Venero. Hace no mucho alguien me dijo que se ha publicado una obra en que figuro yo como nacionalista vasco. Veremos lo que sale de esto. ¿Quién será ese S. I. que nos defiende a Elorza y a mí?⁵⁸⁶

7.3 Euzko-Gaztediren «Euzko-Ikaskuntza Astea» (Baiona, 1946ko iraila)

Esan bezala, oso erraza izan zitekeen polemika piztea ALVren auziaz. Donibane Lohizuneko *Azkatasuna* erbesteko Euzko-Gaztediren aldizkariak, adibidez, asmo gaiztokotzat jo zituen diktadura frankistak euskarari zabaltzen zizkion zirrikituak 1946an. Koiuntura politikoak behartutako keinu hutsalak ziren. Barnealdeko egunkariak gerraondoan galdutako euskal atalez gabetuta jarraitzen zuten, Euzko-Gaztedik salatu

⁵⁸⁶ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1946-03-11.

zuenez:

Otra cosa es que actualmente, ellos sabrán los motivos, se trate de evolucionar en este aspecto y que en radios y manifestaciones religiosas se haga ver que el euzkera es hablado con toda libertad. Eso hemos de reconocerlo es verdad. Pero no es también verdad que esto todavía no lo ha hecho la prensa? De que lo hará estamos completamente seguros. En esta época de «evolucionismos» todo lo que se vea es poco (*Azkatasuna* 1946-07-01).
587

Erbesteko Euzko-Gaztedi gizarte gaietan EAJ-PNVren ezkerreko adarra izan arren, sabindar ortodoxian kokatzen zen euskal hizkuntzaz den bezainbatean. Aldizkariaren hizkuntza nagusia gaztelania izan arren, lelo kontraesankorrez josita agertzen zen: «Eskualdunekin erderaz ari zeran orrek jakin ezazu: nai ba'dezu edo ez'badezu, Franco ta bere jarraitzalleen lankide zera» (*Azkatasuna* 1946-10-01). Batez ere formakuntzaz arduratzen zen Euzko-Gaztedik 1946ko irailean Euzko-Ikaskuntza Astea («Semana de Estudios Vascos») antolatu zuen Baionan. Hasierako hitzaldia D. Ciaurriz EBBeko buruak eman zuen, eta amaierakoa, J. A. Aguirre lehendakariak. Euskal hizkuntzaz, historiaz edota gizarte auziaz aritu ziren N. Ormaechea, T. Monzón, J. Eizaguirre, M. Irujo, M. Eguileor, J. M. Leizaola, F. J. Landáburu edota J. M. Barandiaran.

Literatur euskara estandar bat sortzeko arazoa gai nagusietako bat izan zen. Programaren arabera, J. Cincuneguik eman zion hasiera, P. Lafittek *Grammaire basque* (1944) liburuan esandakoak aztertu zituzten ondoren, eta euskalarien iritziak biltzen jarraitu zuten gero (*Azkatasuna* 1946-09-01). Behin ikastaroa amaituta, euskara hezkuntzan sartzeko eta euskara estandarraren arazoari irtenbide praktikoa emateko batzorde bat sortu zen hurrengo kideekin: T. Monzón EGLZ-DCEko buru berria, J. Cincunegui, N. Ormaechea eta C. Jemein (*Azkatasuna* 1946-10-01).

Programan izena agertu ez arren, irailaren 17an P. Lafitteren gramatika hizpide izan zuena S. Altube euskaltzaina izan zen. Batzordeak prestatutako ondorioak bidali zizkiotenean, gutun bat idatzi zion C. Jemeini, desadostasuna agertzeko. Ez zen ALVrekikorik aipatzen. S. Altuberaren ustez, euskara, historikoki jasandako higaduragatik, desagertzeko arrisku bizioan zegoen, eta batzordeak ez zuen errealitate hori ikusi nahi.

⁵⁸⁷ Donostiako *El Diario Vasco*ri, hain zuzen, urte horretan ukatu egin zitzaion euskarazko orria emateko baimena (Torrealdei 2000: 86-88).

Dialektoek bazterreko gunetan zuten indarra zenbait urtez luzatuko zen, baina hizkuntza egoera terminalean zegoen:

El euskera, si queremos evitarle ese estado de colapso que le amenaza, necesita de medios radicales y hasta heroicos; si no se los administramos ahora, aprovechando la psicosis favorable que ha podido crear entre todos los vascos el cruento martirio de tantos amantes de la Patria y del idioma vascos, creo que habremos perdido la última ocasión que para ello se nos ofrece.⁵⁸⁸

Larrialdi egoerako bi sendabide baino ez zituen onartzen. Alde batetik, abertzaleek solemnitarekin familian erdaraz hitz egiteari uko egitea. Etsipenez eta amorruz beterik S. Altubek erdarari «asesino del idioma de la raza» deitzen zion. Bigarren sendabidea literatur eredu batua sortzea zen, hizkuntzari balioa edota prestigioa emateko bide bakarra. Azken puntu horretan, P. Lafittek adierazitako irizpideekin bat egin zuen. Fragmentazioa gainditzea, literatur euskara bat gauzatuz, gramatika normatibo batekin ongi finkatuta. Baina Baionako elizbarrutiko nafar-lapurtera ordeztuz, gipuzkera hautatu zuen S. Altubek. Hain zuzen, Gasteizko elizbarrutiak pastoraltzan, are Gipuzkoako herri bizkaierafoñoetan, erabiltzen zuen gipuzkera jaso.

Baina literatur dialekto ezberdinak sortzearen alde zeuden zenbait jeltzale, batez ere C. Jemein bezalako Bizkaiko sabindar ortodoxoak. Euzko-Gaztedik Baionan antolatutako hitzaldian S. Altubek gipuzkeraren alde egindako aldarria gaizki hartu zuen zenbaitek. Hala adierazi zion C. Jemeinek berak. Mesfidantzak desagitearren, S. Altube damu zen «dialecto central» terminoa erabili ez izanaz. Nolanahi den, hizkuntz auziak paraleloa zuen etorkizuneko Euzkadi independentearen egitura politikoan. Probintzia-estatu bakoitzak bere literatur dialektoa garatu behar zuen lehenengo, erdal interferentzia guztiez depuratuta. Hain zuzen, M. Eguileorrek Euzko-Gaztediren aldizkarian artikulua idatzi zuen «Urreztegu» ezizenarekin, S. Aranaren ikuspegi konfederalari eusteko: «Confederación voluntaria de todos los estados históricos de la raza. Igualdad de deberes y derechos dentro de la confederación. Libertad para separarse» (*Azkatasuna* 1946-10-01).⁵⁸⁹ S. Altube moderatuak beste protesta gutun bat bidali zion C. Jemeini, M. Eguileorren «individualismo anarkikoa» EAJ-PNV bitan zatitua zegoen garaira itzultzea zelako. L. Eleizalde euskaltzainak horren harira Aberri ildokoengatik (tartean C. Jemein

⁵⁸⁸ SAF-AA: S. Altuberen gutuna C. Jemeini, [1948], PNV_NAC_EBB,K.00285,C.3.

⁵⁸⁹ Ezizenen berri C. Jemeinek ematen du gutunetan. C. Jemein berarenak dira «Kepa de Abando», «Abandotarra», «Amandarro» edota «Jadarka».

bera) jasandako erasoak gogoratu zizkion, abertzaletasunaz ia uko egitera eramán omen ziotenak.⁵⁹⁰

Handik hiru urtera, EBBak C. Jemeini eskatu zion S. Altuberen Baionako hitzaldiaren kopia argitaratu nahi zutelako.⁵⁹¹ Gero astiroago aztertuko dugu S. Altuberen artikuluaaren edukia, baina C. Jemeinek, eraso antisabindar bat zelakoan, 1946an gertatukoa azaltzeko baliatu zuen abagunea:

En aquel Congreso de Euzko-Gaztedi se leyeron dos conferencias favorables a la unificación revolucionaria del euzkera, a base del euzkelgi gipuzkoano, de los señores Altube y Cincunegui (G.B.). Y dos partidarias de la unificación evolucionista, del padre Ufútia y mía. En el curso de los debates, «Orixe» se mostró contrario a la revolucionaria, pero, de hacerlo, que era más científico a base del manex nabarro.

En la sesión final que tuvimos, después de la clausura, especialmente dedicada al euzkera, por la importancia que sobre nuestra lengua tuvieron los debates, un chico de Euzko-Gaztedi dijo que observaba que todos «arrimaban el ascua a su sardina», pero que, a su juicio, lo que procedía es hacer libros de texto para niños, a cada uno en su dialecto maternal. Leizaola y Monzón se sumaron a esta proposición, que yo había apoyado de antemano. Y así se acordó, nombrando una Comisión presidida por Monzón, que, por cierto, no ha hecho nada. Como siempre, se nos va la fuerza por la boca y solo nos dedicamos a llenarla hablando de unificación.⁵⁹²

Euskararen batasuna arazoa zen jeltzaleentzat, baina ez zuten irizpide ofizialik, batez ere alderdiko euskaltzaleen artean sortzen zituen eztabaidak ikusita. S. Altube, N. Ormaechea edota C. Jemein ezin ziren ados jarri. M. Eguileorrek honela azaldu zuen Euzko-Gaztediren 1946ko biltzarrean sortutako batzordearen porrota:

Bayona'n euzkereatzaz erabilitako auzi ta erabagijak, neuk be eztazaudaz; bana auzi andija ta erabagi bapez egon zala uste dot. Euzkel-arazuak, erabilten jarduteko, Batzorde bat ixentau leben; eta euretarikuen bat Jemein eguan. Bana aspertu egin zan eztabaidaetan (Orixe'gatik batez be, dinonez) eta at egin leban.⁵⁹³

BMG bukatuta, J. A. Aguirre lehendakaria Parisera itzuli eta 1946ko abuztuan EJ-GE berrantolatu zuen. Alderdien arteko indar korrelazioari eutsi zitzaion, Euzkadira laster

⁵⁹⁰ SAF-AA: S. Altuberen gutuna C. Jemeini, [1948], PNV_NAC_EBB,K.00285,C.3.

⁵⁹¹ SAF-AA: I. Unzetaren gutuna C. Jemeini, 1949-10-13, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁵⁹² SAF-AA: C. Jemeinen gutuna I. Unzetari, 1949-10-15, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁵⁹³ SAF-AA: M. Eguileorren gutuna A. Urrutiarri, 1947-03-10, PNV-0361-03.

itzultzeko itzaropenarekin. Lehentasuna nazioartean frankismoa salatu eta EBerekiko elkarlana ziren. Euskararen inguruan eztabaida bat sortzea, sabindar ortodoxoei bozgorailu bat emateko arriskuarekin, EJ-GEk saihestu egin nahi zuen.

7.4 «Gernika» eta «Eusko-Jakintza» aldizkariak

«Gernika Instituto Vasco de Extensión Cultural» delakoa 1945eko apirilean sortu zen Donibane Lohizunen, BMG amaituta. Bonbardatutako herria bakearen eta anaitasun unibertsalaren sinbolo eginda, mundu osoko euskaldunen elkargune izan nahi zuen taldeak, ideologia politikoen gainetik, espiritualitatean eta kulturaren oinarrituta. Elkarteko buru R. Picabea, eta idazkari T. Hernandorena, izendatu zituzten. Gernika-k Parisen argitaratutako izen bereko aldizkariaren zenbaki bakarra 1945eko urrian agertu zen. Ezein alderdi politikorekin harremanik ez zuela adierazi arren, abertzaleak nagusi ziren aldizkari elebidunean. Baionako Musée Basque-n, besteak beste, J. A. Aguirre lehendakariaren hitzaldiak edota J. Cincuneguiaren euskara eskolak antolatu zituzten. R. Picabea 1946ko uztailean hil ondoren, Julio Huici Nafarroako sozialista izendatu zuten zuzendari, aniztasun ideologikoa zainduta. 1947ko urtarrilean Jose Eizaguirrek (1881-1949) hartu zuen zuzendaritza, EAJ-PNVko parlamentari eta Euzkadiko Auzitegi Militarreko buru ohiak (Agirreazkuenaga et al. 2007: 1017-1028).

R. Picabea hil ondoren, J. M. Barandiarani eskaini zioten aldizkari zientifiko baten zuzendaritza, EJ-GEko T. Monzónek bermatutako soldatarekin: hilean 10.000 franko. Horri esker lortu zuen J. M. Barandiaranek prestigiozko lankide taldea bildu eta *Gernika Eusko-Jakintza* (hirugarren zenbakitik aurrera, *Eusko-Jakintza* izen despolitizatuarekin) argitaratzea. Hura argitaratzeaz EAJ-PNVren menpeko Gernika elkarte arduratu zen (Larronde 2004b: 19-22; Manterola & Arregi 2003: 270-272).⁵⁹⁴

*Gernika Eusko-Jakintza*ren lehen zenbakiak 1947an argitaratu ziren Baionan. J. M. Barandiaran zen zuzendaria eta Jon Bilbao idazkaria. Aldizkariaren aholku batzordera aditu talde zabala bildu zuten, euskaltzain-urgazle-deduzkoak barne: S. Altube, J. Elissalde, G. Lacombe, P. Lhande, L. Dassance, J. Gorostiaga, P. Lafitte, R. Lafon, A.

⁵⁹⁴ J. M. Barandiaran-J. Bilbaok, halaber, EJ-GEren diru laguntza izango zuten Sarako *Ikuska* (1946-1951) etnografia aldizkaria argitaratzeko. Ikuska ikerketa institutuak J. M. Barandiaranek Gasteizko elizbarrutiaren seminarioan abiatutako Sociedad de Eusko-Folklore-ri eman zion jarraipena. Pirinio Behereetako hainbat herriren monografia etnografikoak eta azterketa prehistorikoak argitaratzeaz gain, J. M. Barandiaranek hizkuntzalaritza (R. Lafon, P. Lafitte), geografia (P. Lamare, J. Descheemaeker), historia (E. Goyhenetche) edota bibliografiako (J. Bilbao, M. de la Sota) adituak erakarri zituen Ikuskak antolatzen zituen mintegietara.

Léon, N. Ormaechea, H. Gavel eta C. C. Uhlenbeck. Zerrenda nominala zen eta J. M. Barandiaranek zeraman edukiaren ardura, baina barnealdeko Euskaltzaindia urduri jarri zitekeen akademiko zerrenda hura ikusita, bereziki *Euskera* buletina argitaratzeko gauza ez zenean. Hain zuzen, J. Urquijok guztiaren berri zuzena izan zuen, G. Lacombe edota J. Bilbaoren bidez.⁵⁹⁵ 1947ko uztailen J. Bilbao Donostian bildu zen euskaltzainarekin, J. M. Barandiaranek sinatutako aurkezpen gutuna zeramala:

El portador de esta carta, D. John Bilbao, profesor de Columbia University, le entregará a Vd. un ejemplar de cada uno de los dos números de la revista «G.-Eusko-Jakintza» (Revista de Estudios Vascos). Por los artículos publicados en ellos y por la lista de sus primeros colaboradores, podrá Vd. formarse idea de la índole de esta publicación. Ya hace años que varios amigos me habían hablado de la conveniencia de publicar una revista que estableciese contactos entre los vascólogos del mundo entero. Yo no me sentía con fuerzas para acometer una tal empresa. Además, el Sr. Bähr, que por entonces estaba en comunicación con Vd., me anunció en varias ocasiones la próxima reaparición de la Revista Internacional de Estudios Vascos. Lo mismo me habían dicho de palabra los señores Bouda y Lacombe. De entonces acá han transcurrido varios años, y la necesidad de un lazo de unión entre los vascólogos era cada vez más apremiante, como lo he podido observar personalmente en varios congresos internacionales a los que he asistido en estos últimos tiempos. Por eso hemos empezado a publicar esta nueva revista de los estudios vascos que habrá de ir desarrollando su programa hasta que reanude el suyo la auténtica Revista Internacional de Estudios Vascos bajo la dirección de Vd. La finalidad de nuestra publicación es, pues, realizar, siquiera sea parcialmente, la labor de estudios de la que V. fue entre nosotros el principal promotor y artífice.

Yo deseo que Vd. colabore en ella, publicando de vez en cuando algún artículo. Mucho le agradeceré que me diga Vd. si le es posible acceder o no a mis deseos.⁵⁹⁶

J. M. Barandiaranek Frantziako Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren babespean egiten zituen etnografia lanen berri ere eman zion. Zuhurki EJ-GERen edota EAJ-PNVren parte hartzerik ez zuen aipatu, baina ezta *BRSVAP*ik ere. J. Urquijok ez zion erantzun, eta ez zuen artikulurik argitaratuko Baionako aldizkarian.⁵⁹⁷ Hala ere, *Eusko-Jakintzako*

⁵⁹⁵ J. Urquijok erreferentziak eskatu zituenean J. Bilbaoz, J. Gáratek honela deskribatu zuen: «tiene el saber presentar de los yanquis [...] pero tiene poco juicio, al menos filológico» (KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-10-23).

⁵⁹⁶ KMK-JU: J. M. Barandiaranen gutuna J. Urquijori, 1947-07-01.

⁵⁹⁷ KMK-JU: J. M. Barandiaranen gutuna J. Urquijori, 1948-07-02.

zenbait lankide erakarri nahi zituen *BRSVAP*era. R. Lafonen «L'état actuel du problème des origines de la langue basque» edota C. C. Uhlenbeck-en «Affinités prouvées et présumées de la langue basque» inbidiaz irakurri zituen. Halaber, minduta zegoen G. Lacombek L. L. Bonaparte dialektologoaren euskal lankide bat, J. Urquijoren familiaren hurbileko J. A. Uriarte frantziskotarra, «carliste forcené» deitu zuelako (Yrizar 2001: 46-56).

Aldizkariaren lehen zenbakiko editorialean, EGZak eragindako giza sarraskia eta horrek euskal ikasketetan izandako ondorio lazgarria deitoratu ziren:

Después de un colapso de diez años, durante los cuales el odio sembró de huesos la tierra, los estudios euskéricos vuelven a la vida.

El pueblo vasco, el más viejo del occidente europeo emerge una vez más de las ruinas que el huracán revolucionario acumulara en su suelo después del fatídico día 18 de Julio de 1936.

Las escuelas, los círculos de estudios, la sociedad Eusko-Ikaskuntza, los periódicos y revistas que eran vehículos de la cultura vasca y órganos de expresión de los estudios e investigaciones vascas fueron condenados a morir. No pocos de sus artífices y animadores murieron también. Y una gran parte de los que sobrevivieron a la catástrofe fueron dispersados por el mundo, lejos de su patria (Eusko-Jakintza 1947: 7).

J. M. Barandiaranek P. Lafitteri hurrengo artikulua eskatu zion aldizkarirako: «gerla-aroan (azkenekoan alegia) zer ikaskuntza euskeraren buruz egin eta argitaratu diren erakutsi zaiguzu».⁵⁹⁸ Diktadura frankistaren hizkuntza politika salatzean, Euskaltzaindiari ezarritako baldintza politikoak aipatu zituen. Hau da urte horietan publikoki ALVri egiten zaion erreferentzia bakarrenetakoa:

En Pays Basque péninsulaire, la conjoncture politique a été des plus funestes. Depuis 1936, le basque y a été persécuté avec une véritable rage : il a été interdit dans la presse, à l'école, à l'église et jusque dans la rue. C'est à peine si quelque relâche s'est fait sentir face à la résistance populaire. On nous a signalé que M. de Azkue a pu faire paraître les tomes II y III de son *Euskalerraren Yakintza* (Literatura popular del Pais Vasco). On lui a même proposé de reouvrir l'Académie Basque pourvu qu'on n'y admette pas les basques continentaux. La T. S. F. de San Sebastian de-ci, de-là, radiodiffuse quelques

⁵⁹⁸ ABA-LAF: J. M. Barandiaranen gutuna P. Lafitteri, 1946-12-17.

chansons euskariennes, et nous avons été heureux d'entendre *Ieronimo* avec son texte populaire, alors que trop longtemps on avait affublé la mélodie d'une ridicule adaptation espagnole. Il nous faut applaudir aussi à la résurrection du bersolarisme à Villabona en 1946. Mais la situation reste pénible (Lafitte 1947: 11).

J. M. Barandiaranek *RIEV* bezalako aldizkari zientifiko bat zuzentzeko asmoari eutsi nahi zion eta berak eskatuta esanahi politikoz betetako «Gernika» hitza kenduko zuten aldizkariaren nahiz elkartearen izenetik. Horren aurrean, Gernika-ko buru izandako J. Eizaguirre jeltzaleak protesta gutuna idatzi zion T. Hernandorenari.⁵⁹⁹ *Eusko-Jakintzak* 1947-1952 artean sei liburuki argitaratu zituen frantsesezko, gaztelaniazko, euskarazko eta alemanezko artikuluekin.⁶⁰⁰ Berak lortu zuen nazioartekotasunari ongien eustea, bereziki Espainia diplomatikoki bakartuen zegoen unean, IPV-RSVAPeko buletinekin erkatuta.

Orain arte aipatutako lankideez gain, beste hauek ere aurkituko ditugu orrialdeotan: V. Alford, P. Arne, G. Bähr, P. Bosch Gimpera, K. Bouda, J. Descheemaeker, P. Dop, D. Dufau, M. Elso, M. Etcheverry, J. Etcheverry-Ainchart, R. Erze, J. Galíndez, R. Gallop, J. Gárate, G. Garriga, I. Gurruchaga, J. Jaureguiberry, G. Lerchundi, L. J. Navascues, M. Nussy Saint-Saëns, J. Ruiz de Oyaga, P. Veyrin edota A. Zatarain. Nazioarteko helburu horri eutsita, Europa-Ameriketako aldizkariekin izan zuen trukezko harremana. Hala ere, erbestean argitaratutako aldizkari legez, Espainian ez zuen zabaltzeko erraztasunik. Adibidez, *BRSVAPek* ez zuen inoiz haren berri eman bere «Revista de revistas» sailean (Larronde 2004b: 22-24; Manterola & Arregi 2003: 272-274).

Erbesteko egitasmo zientifikoaren atzean helburu antifrankista nabarmena egon arren, Alemaniako partaideek susmoak eragin zituzten. Hain zuzen, K. Boudak *Eusko-Jakintzan* parte hartu izana salatu zuen Parisko *Les Lettres Françaises* aldizkari komunistak 1947an.⁶⁰¹ K. Bouda hizkuntzalaria 1941ean Alemania naziaren ordezkari izan zen E. Goyhenetxeren bidez EAJ-PNVrekin izandako elkarrizketetan (Jiménez de Aberasturi Corta 1997: 73).

⁵⁹⁹ SAF-AA: J. Thalamásen eta J. Eizaguirreren gutunak T. Hernandorenari, 1947-10-17 & 1948-05-21, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.3.

⁶⁰⁰ 1957an argitaratu zen zazpigarren eta azken liburukia; J. M. Barandiaran erbestetik itzuli ondoren, alegia.

⁶⁰¹ SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna J. M. Barandiarani, LIAV-0003-01.

EAJ-PNVren mendetik bereizi zen taldeak, bestalde, «Agrupación Popular Gernika» delakoa sortu zuten Donibane Lohizunen. Abiazio naziak bonbardatutako herriaren irudi sinbolikoaz jabetzeko lehia agerikoa zen erakunde eta argitalpen ezberdinen izenetan. 1947ko urrian J. Thalamásek gutun oso gogorra idatzi zion T. Hernandorenari beste taldearen alderdikeria salatzeke:

El Instituto Gernika no puede ir emparejado a ningún partido político. Si pierde su independencia espiritual, adopta el servilismo que los valores morales presentan en los países totalitarios y fomenta en Euzkadi un estado de cosas que coinciden de lleno con los procedimientos más auténticamente franquistas.⁶⁰²

1948an argitaratu zuten *Guernika* (gero *Gernika*) aldizkari «humanista»ren bigarren zenbakia, 1945ean agertutakoaren jarraipena izan nahi zuena. Arduradun nagusiak Juan Thalamás (1906-1981) Irungo apaiza eta Isidoro Fagoaga (1893-1976) Berako tenorea izan ziren. 1948ko urtarrileko data zeraman atarikoan euskaltasun unibertsal, tolerante eta liberala aldarrikatu zuten, nazionalismo arrazistaren aurkakoa. BMGko nazismoa ez ezik, jeltzaleen alderdikeria kritikatzeko ziren hitz erdika.

Hain zuzen, ildo horretatik aldentzen zelako, P. Lafitteren *Herria* (1944) astekaria goraiatu zuten. Uztaritzeko seminarioko euskara irakasleak, adibidez, *Eusko-Jakintzaren* lehen zenbakian gogor kritikatu zuen erbesteko aldizkari abertzaleek erabiltzen zuten euskara eredu purista:

Les Basques péninsulaires, dans la demi-liberté de l'exil, ont créé des périodiques, comme *Eu[z]ko Deya*, *Euzkadi*, *Tierra Vasca*, *Azkatasuna*, mais ils sont presque entièrement rédigés en français ou en espagnol : le peu de basque qu'on y publie est trop souvent un jargon fait des néologismes prétentieux juxtaposés dans une syntaxe qui n'a rien à voir avec le vrai basque ; c'est une torture de lire de parilles productions, et malheureusement la pensée qui se cache sous ces énigmes ne vaut pas toujours l'effort nécessaire pour les résoudre[.] Ces textes n'aident pas à la renaissance de l'eskuara, ils en dégoûtent le lecteur (Lafitte 1947: 14).

Gainerako elkarteek EJ-GETik jasotzen zituzten diru laguntzak eta horrek zekarren menpekotasun ideologikoa deitoratu zituzten. 1948-1953 artean argitaratutako 25 zenbakietan sarri agertuko ziren hitz erdikako salaketak. J. Thalamás erbesteko

⁶⁰² SAF-AA: J. Thalamásen gutuna T. Hernandorenari, 1947-10-17, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.3.

elizgizonen *Anayak* (1939) aldizkari antifrakista aritua zen J. M. Barandiaranekin edota J. Gorostiagarekin. Hala ere, 1946tik EAJ-PNVk ezarri zion betoa salatzen jarraitu zuen, eta erabat etsaituta zegoen beste taldeko arduradunekin. I. Fagoaga, ordea, beste kasu batzuetan bezala, bakegileago agertu zen (Barandiaran 2009: 583, 653, 745, 760, 762). J. Bilbaok, noski, mesprexuz hitz egin zion J. Urquijori *Gernikan* argitaratzen ziren artikuluez:

A mí no me parece mal que se publiquen cosas de este tipo pues de esa manera se satisfacen euforias literarias, políticas o «morales» de muchos individuos quienes en su inactividad forzosa buscan forma de dar salida a sus inquietudes. En tiempos normales estas euforias tienen cabida en las ediciones dominicales de los diarios locales, al faltar estos aquí lo más que estas gentes pueden hacer es publicar revistas que no pasan de los primeros números si hay dinero para ello o leerse los trabajos unos a otros si faltan fondos. De ahí pues que hemos tenido que librar varias batallas tanto con vascos emigrados como con vascos locales para poder mantener *E[usko-]J[akintza]* en un nivel científico y no hacer de ella un nuevo *Gure Herria* o una mera revista local. Esto naturalmente crea resentimientos como el del mencionado *Thalamas* o de otros como *Oxobi* que tiene muy poco respeto a lo que *Uhlenbeck* nos pueda decir. En parte no les falta razón y sería de desear la publicación de una revista de tipo creativo, literario, artístico y crítico, en la que colaboraran no solo vascos que se encuentren en el país vasco [sic] de uno y otro lado sino vascos o descendientes de vascos que se encuentran en América.⁶⁰³

7.5 Euzko-Alderdi Jeltzaliaren kultur plangintza

Esan bezala, EAJ-PNVren zuzendaritza zeramaten EBBko kideek ardua politiko berehalakoagoak zituzten, euskara baino. Euskararekiko aipu solteak aurki daitezke haien korrespondentzian, baina arreta gutxirekin egindakoak. Jarrera horren erakusgarri 1947ko hurrengo aipu izengabea ekartzen dut. Urte horretan, Jaungoiko-Zale Bazkunako C. Arzubiaga-G. Manterolak Erresuma Batutik Frantziara aldatzeko laguntza eskatu zioten EJ-GERi. M. Irujo izan zitekeenak umore handiz idatzi zion T. Monzón EGLZ-DCEko buruari bi elizgizonek egin zezaketenez:

La cuestión es que vengan y que se encuentren en disposición de trabajar a gusto. Y harán una labor formidable. A lo mejor unifican el euzkera; a lo mejor inventan un par de

⁶⁰³ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-04-05.

dialectos más; a lo mejor descubren que el euzkera no salió expulsado del Paraíso con Adán y Eva, como cree nuestro invicto Belautegi, sino que les esperaba fuera porque era el idioma de la raza pre-Adámica...⁶⁰⁴

EAJ-PNVren menpeko Gernika elkarteak Donibane Lohizunen 1947ko urtarrilean egindako batzarretan hurrengo kideak biltzen ziren: J. Eizaguirre (buru), J. Azcue (idazkari), J. Camiña, M. de la Sota, A. Larrañaga, T. Hernandorena edota A. Peña. Besteak beste, Gernika-k P. Lafitte-P. Etchemendyren *Kantuz* (1946) bilduma argitaratzeko diru laguntza eskuratu zuen EJ-GĒtik. J. Eizaguirrek euskararen batasunaz inkesta bat zabaltzea proposatu zuen adituen artean, berriz ere Euskaltzaindiaren autoritatea eztabaidagai zuena:

¿Cree Vd. que es necesario o por lo menos conveniente la unificación del idioma?

¿Qué alcance debe tener a su juicio esta unificación y a qué aspecto de la lengua debe referirse, ha de ser el euzkera escrito o solo al escrito para el público o a la totalidad de sus aspectos?

¿Qué medidas deben adoptarse prácticamente sobre la propia lengua para conseguir la unificación?

¿Quién debe tener la iniciativa de la aplicación de estas medidas conducentes a la unificación?

¿Debe implantarse por decreto de la Academia de la Lengua u otra entidad, o por acuerdo de los euzkeristas y escritores euzkaldunes o una vez definida como una aspiración, debe dejarse que se vaya implantando por el uso?⁶⁰⁵

J. Eizaguirrek «euskera batua edo berdindua» deitu zion auziari. Galdetegia lagun ugari jaso zuten: T. Monzón, J. Cincunegui, J. de Lezo (OFMCap), J. Elissalde, P. Lafitte, J. Moulier edota G. Lacombe. Espainiako idazle abertzaleek baino ez zuten erantzun: N. Ormaechea, M. Oyarzábal, C. Jemein, A. Alberdi, E. P. de Neguri, A. Urrutia, J. Vilallonga eta F. Belaustegui apaiza. S. Altube, bestalde, Euzko-Gaztediren 1946ko biltzarrean irakurritakoa berrestera mugatu zen.⁶⁰⁶ Gehienek euskararen batasuna maila formalean nahi arren, ez zetozen bat hori lortzeko bidean, ezta ALVri zor zitzaion eginkizunean:

⁶⁰⁴ SAF-AA: EAJ-PNVko EBBaren gutuna T. Monzóni, 1947-02-05, DP-1374-10.

⁶⁰⁵ SAF-AA: «Gernika Instituto de Extensión Cultural»aren batzar agiria, 1947-01-16, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.4.

⁶⁰⁶ SAF-AA: S. Altuberen gutuna J. Eizaguirreri, 1947-02-11, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.3.

Laugarren gaiez batek uste du Euskalzaindia'ren eginkizuna dala au; bertzeak [E]uskalzaindia'ri begira ba gaude euskera galduko dala eta bakoitza bere aldetik lanean astea onena dal[a] dio; beste batek Ikastoletan asko egin litekela eta Eusko [J]aurlaritzak gauz ortan asko dezakela esaten du; eta urrengoak euskaldunak alkarri amore eman eta Irakastolako ateak iriki euskelgi-aberastasunei eta irakastolatik sortuko dala euskera bakarra.⁶⁰⁷

J. Eizaguirre beraren iritziaz den bezainbatean, euskara batua idatzirako proposatu zuen, Gipuzkoa-Nafarroa arteko dialektoetan oinarritua. Idazleen ahalegina zen oinarritzkoena berarentzat, eta *La Divina Commediaren* mailako lan bat noiz agertuko zegoen, gainerako idazleek Dante Alighieri berri horri jarraitzeko. Ikusiko dugunez, N. Ormaechea eta bere *Euskaldunak* (1950) izango ziren kategoria hori lortzeko hautagaiak, baina ordurako J. Eizaguirre hila zen. ALVri, ordea, ez zion esku handirik aitortzen:

Euskalzaindiatzaz ez det itxaropen geiegi jartzen, baño alde ortara bere erabaki bat oinarri bezela ongi izango litzakela nago. Euskaldunak ez gera besteren aginduaren mendean errez jartzen geranak, orrengatik uste det [...] Euskalzaindiarena ez duela agindu bat izan bear, bere iritxi bat besterik ez. Orduan guk idazleek, gogo zuzenez, zenbat eta lan geiago egin aguroago batutze ori etorriko da.⁶⁰⁸

Bestalde, EAJ-PNVren «Comisión de Estudios Culturales» delakoa sortzeko, Baionako ordezkartzan 1947ko ekainaren 6an, hurrengo kideak bildu ziren: P. Larrañaga, F. García Larrache, J. Cincunegui, C. Jemein, EBBeko E. Echeverría eta M. Eguileor. Sarako J. M. Barandiarani eta Paueko S. Altuberi ere deitu zieten, baina ezin izan zuten etorri.⁶⁰⁹ Batzordearen helburua balizko Euzkadi autonomoaren hezkuntzarako programaren oinarri teorikoak ezartzea zen.

Horretarako, C. Jemeinek baino ez zuen txosten bat prestatu lehen hezkuntzaz, euskararen eskusibotasuna eta konfesionaltasun kristaua aldarrikatzeko. Gainera, C. Jemeine ustez bide bakarria alderdiaren erabateko kontrola zen: «La enseñanza en Euzkadi, como todas las demás manifestaciones de la vida vasca, debe ser controlada y dirigida por el Partido Nacionalista Vasco».⁶¹⁰ S. Altubek, gutunez, txostenarekiko

⁶⁰⁷ SAF-AA: J. Eizaguirreren «Euskeraren batutzea», 1948-08-10, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.3. Emaizak komunikazio gisa aurkeztuko zituen J. Eizaguirrek EIL-SIEBen 1948ko biltzarrean.

⁶⁰⁸ SAF-AA: J. Eizaguirreren «Euskeraren batutzea», 1948-08-10, PNV_NAC_EBB,K.00157,C.3.

⁶⁰⁹ SAF-AA: EAJ-PNVren Comisión de Estudios Culturales-en batzar agiria, 1947-06-06, PNV_NAC_EBB,K.00309,K.1.

⁶¹⁰ SAF-AA: C. Jemeinen «Lo que debe ser la primera enseñanza en Euzkadi», 1948, 234

adostasuna erakutsi zuen, azken puntu horretan izan ezik: «Zori-txañeko *totalitarioen Partido Uniko* [sic] delakoaren sunde pixka bat badu oñek». ⁶¹¹

EJ-GE osatzen zuten gainerako alderdiak, nahiz eta bigarren mailakoak izan, ezin ziren ikuspegi horrekin bat etorri. Izquierda Republicana de Euzkadi-k, adibidez, «La enseñanza en Euzkadi» izeneko txostena prestatu zuen. Konfesionaltasunaren aurka egin ez ezik, Euzkadiko hezkuntza elebidunean gaztelaniaren nagusitasuna aldarrikatu zuen: «respondamos sin vacilar que para todos la enseñanza del castellano es de todo punto indispensable, incluso como instrumento de unidad nacional». ⁶¹²

Euskaltzaindia alternatibo bat sortzeko aukera ez zen agertzen EAJ-PNVren garaiko kultur egitasmoetan. A. Ibinagabeitia polizia frankistatik ihesi erbesteratu eta berehala, EGLZ-DCEko buruarekin elkarrizketatu zen ALVren arazoaz. 1947ko irailean J. Zaitegui adiskideari azaldu zion gutunez T. Monzónekin izandako elkarrizketa:

Euskaltzaindia berriro bear genukela, euskara oinarritzat arturik. Euskeltzain-gaien eta euskeltzain izandakoen izenak ere eramán nizekion, bide ortatik zerbait egiteko arrenaz eskaturik. Sail aundiak urratu gabe ditugu oraindik, irakáspen-sailak len eta bigarren mailakoaz batez ere. Lan ori euskaltzaindi berriak bere-lepo ar dezakela ta (apud Iztueta & Diaz 2007: 68).

Baina gutun berean adierazten zionez, ez zuen uste T. Monzónek horrelako erakunde bat aurrera eramateko gaitasuna ezta interesa zituenik. A. Ibinagabeitiak, EJ-GERen hizkuntz politikarekiko oso kritikoa izan arren, informazio zerbitzuetarako lanean eta aldizkarietan euskaraz idazten jarraitu zuen Paristik.

EJ-GEk eskatuta, 1947ko azaroan J. M. Barandiaran-J. Bilbaok «Bases para un plan de cultura vasca» izeneko txosten bana prestatu zuten Saran. Egitasmoaren bizkarrezurra EI-SEV erbesteran berpiztea zen. 1948ko urtarrilean F. J. Landáburuk idatziz bidali zizkion T. Monzón EGLZ-DCEko buruari. S. Altuberen patetismora iritsi gabe, euskara barnealdean galtzeko zorian zegoela adierazi zion, beste bion txostenetan oinarrituta:

Todos estamos de acuerdo porque el hecho es, desgraciadamente, demasiado evidente en

PNV_NAC_EBB,K.00309,K.1.

⁶¹¹ SAF-AA: S. Altuberen gutuna M. Eguileorri, 1947-07-31, PNV_NAC_EBB,K.00309,K.1.

⁶¹² SAF-AA: Izquierda Republicana de Euzkadi-ren «La enseñanza en Euzkadi», 1946-01-13, PNV_NAC_EBB,K.00309,K.1.

que nuestro país sufre un fenómeno de desvasquización y que de este lamentable proceso el síntoma más grave es lo que Jon Bilbao llama con justeza la deseuskización. El idioma retrocede todos los días, disminuye en extensión geográfica y disminuye en lo que pudiéramos llamar intensidad: se habla cada vez en menos terreno y se habla cada vez menos en los sitios en que todavía se habla. Las causas del retroceso son varias y algunas de ellas, clásicas. Hay otros motivos circunstanciales, políticos pero que aun siendo transitorios, van siendo lo suficientemente estables para dañar el uso del idioma. Esto aconseja no cruzarse de brazos hasta que tengamos en nuestras manos todos los instrumentos de reconstrucción. Ese fenómeno ha de ser combatido desde ahora, aunque sea imperfecta, unilateralmente. La falta de apoyo oficial e incluso la enemiga de lo que es oficial actualmente dentro de casa no son razones bastantes para continuar la inacción.⁶¹³

Ez zen ALV berririk sortzea proposatu, baizik euskara ikasteko eta erabiltzeko bideak erraztea, ikasbideak eta testu praktikoak klandestinoki argitaratuz eta banatuz. Gasteizko F. J. Landáburuk, eskarmentu pertsonalean oinarrituta, literatur estandarraren beharra nabarmendu arren, J. M. Barandiaran-J. Bilbaok dialekto ezberdinetara egokitutako idazlanak aldeztu zituzten. Frankismoak toleratutako euskal kultur erakundeei zagokienez, elkarlana proposatu zuen F. J. Landáburuk, diktadurarekiko inolako atxikimendurik erakutsi gabe, baina haien tresnak eta hedabideak erabiliz euskal kulturazko gaiak zabaltzeko. J. M. Barandiaranek elkarte horiek izendatu egin zituen, nabarmenki Euskaltzaindia baztertuta:

Inquietudes análogas van tomando también su expresión en el país vasco peninsular a pesar de las dificultades del ambiente oficial de aquella zona. Y así varias instituciones, tales la nueva Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, la Institución Príncipe de Viana y la últimamente Sociedad Divulgadora de Ciencias Naturales «Aranzadi», laboran allí por la cultura, si bien en dependencia y a ratos al servicio de los organismos centrales del actual Estado totalitario español.⁶¹⁴

J. Bilbaok, orobat, bere txostenean, erbesteko EI-SEV berpiztutik (EIL-SIEB izango zena, alegia) elkarte horiek nahiz Euskaltzaindia bezalakoak presionatzearen beharra nabarmendu zuen:

El secretariado del Instituto mantendrá relación con todas las instituciones vascas, incluso

⁶¹³ SAF-AA: F. J. Landábururen «Bases para un plan de cultura vasca», 1948-01-05, LIAV-0004-01.

⁶¹⁴ SAF-AA: J. M. Barandiaranen «Bases para un plan de cultura vasca», 1947-11-08, LIAV-0004-01.

con las que se encuentran en territorio franquista a las que deberá dirigirse constantemente en correspondencia privada, aún cuando ésta no sea contestada, haciéndoles ver lo que deben hacer si no lo hacen o incitándoles a que tomen actitudes beneficiosas para el país.⁶¹⁵

Bi txostenak aztertu eta beste idazki bat prestatu zuen Elías Echeverría «Eduardo» EBBko eta Consejo de Estudios Culturales-eko kideak. Bere ustez ez zioten erantzun praktikorik ematen euskararen egoeraren arazoari. T. Monzón EGLZ-DCEko buruari, besteak beste, hiru proposamen egin zizkion:

1. Euskal pedagogok eta itzultzaileak formatu.
2. Unibertsitate ikasle onenak atzerrira bidaltzeko bekak eskaini.
3. *Ikuska* eta *Eusko-Jakintza* aldizkariak argitaratzeko diru laguntzak ziurtatu.

Berehalako irtenbide praktiko bakarra EAJ-PNVren herriz herriko ordezkartzen bidez euskarazko eskolak antolatzea zen, haurrentzat nahiz helduentzat. E. Echeverriaren txostenak, bestalde, euskararen batasunaz aritzean, Euskaltzaindiaren autoritatea eta jarduera aintzat hartu zituen. E. Echeverriaren iritziz, literatur dialekto ezberdinetatik abiatzea nahitaezko zen, testu beraren bertsio ezberdinak prestatuz, bat-bateko euskara akademiko bakarra sortu gabe. Estandar desiraturia poliki-poliki lortuko zen, baina berehalako batasuna komeni zen bi ezaugarritan: ortografia eta neologismoak. Hain zuzen, neologismoak onartzea zen ALVren zeregin nagusia:

Claro está que habrá que regular esta cuestión desde el primer momento, evitando que resulte una cosa anárquica; y para ello se debiera convenir, por todos, en no aceptar más neologismos que los que Euskaltzaindi determinara, debiendo esta Academia, desde luego, admitir con antelación todas las propuestas de otras entidades o de particulares que quisieran aportar su opinión a tales fines.⁶¹⁶

J. M. Barandiaranek bere «Bases para un plan de cultura» delakoa, EIL-SIEBen 1948ko biltzarrera aurkeztuko zuen, baina barnealdeko erakundeei egindako aipamenez zuhurki gabetuta. Elizgizonaren gerraondoko egunkarian, bestalde, ez dago

⁶¹⁵ SAF-AA: J. Bilbaoren «Labor que debe desarrollar el secretariado del Instituto *Gernika*», 1947-11-08, LIAV-0004-01.

⁶¹⁶ SAF-AA: E. Echeverriaren «Informe de Eduardo sobre los proyectos de cultura enviados», 1947-12-28, PNV_NAC_EBB,K.00309,K.1.

euskaltzainburuaren inolako aipamenik, baina uste izatekoa da goiz izan zuela ALVren berri (Barandiaran 2004; 2009).

Mesfidantza politikoak gorabehera, barnealdeko euskaltzain zaharrekiko errespetua nabari zen. S. Altubek, adibidez, EBBeko D. Ciaurrizi bi artikulu bidali, zizkion barnealdeko orri klandestinoetan argitaratzeko asmoarekin.⁶¹⁷ Espainiako 1948ko azaroko udal hauteskunde antidemokratikoak eta euskal frankisten oportunistoa salatzen idatzitako «Arittoak» idazlanean, hurrengo pasartea tartekatu zuen:

Komeri ortan, zigortzen zituan Azkuek, euskaldun ustelak, kanpotarren alde diñarduenak, kanpotarren eskuetatik aginpidia artu ta euskaldunon kontra ekiten eutsenak. Onako euskaldun ustelok, Madrilleko agintarija nor, ta aren adixkide egiten ziran eta egiten dira. Baltzak agintari, nobera be baltz; zurijak agintari, nobera be zuri; palankistak agintari, nobera be... palanka. Orreik ziran ba ta dira, Azkue jaunaren komeritako zerok: «Eguskia nora, zapiak ara»ka dabiltzan sats-euskaldunok.⁶¹⁸

Aipatzen ari garen euskal ikasketak gidatzeko lehiaren beste adibide bat unibertsitate mailan eman zen. BMGren ondoren, J. Etcheverry-Ainchart abertzalea Pirinio Behereetako diputatu hautatu zutenean hainbat egitasmo sustatu zituen. Besteak beste, Bordeleko Unibertsitatean euskara katedra bat ezartzeko eskatu zion Frantziako Hezkuntza Nazionaleko ministerioari. Hasieran ezezkoa jaso arren, azkenean R. Lafon irakasleak, J. Etcheverry-Ainchartekin gerran preso egondakoak, bete zuen euskal hizkuntza eta literaturako katedra hori.

R. Lafonek 1948ko abenduaren 7an eman zuen Bordeleko Unibertsitateko Letra Fakultatean euskal hizkuntza eta literaturako katedraren irekitze hitzaldia (Larronde 2004b: 41). Katedraren inaugurazioa ekitaldi jendetsua izan zen eta erbesteko EJ-GEK nolabait bereganatu egin zuen mugarri hura, diktadura frankistak ezartzen zuen errepresioaren aurrean. EJ-GEren inguruan antolatzen ari ziren erakunde eta elkarteetako ordezkari ugari egon ziren Bordeleko ekitaldian: EGLZ-DCE, LIAB, EIL-SIEB, Eskualzaleen Biltzarra, *Herria*, Ikuska edota Oldarra (*Alderdi* 1949-01).⁶¹⁹

⁶¹⁷ SAF-AA: D. Ciaurrizen gutuna S. Altuberi, 1948-10-19, PNV_NAC_EBB,K.00144,C.5.

⁶¹⁸ SAF-AA: S. Altuberen «Arittoak», [1948], PNV_NAC_EBB,K.00285,C.3.

⁶¹⁹ J. M. Barandiaranek, ordea, uko egin zion joateari, jeltzaleek EIL-SIEBeko ordezkarietatik baztertu zutelako. EIL-SIEBen izenean, J. Saint-Pierre, P. Lafitte eta M. de la Sota egon ziren Bordelen. M. de la Sota jeltzaleak ez omen zuen J. M. Barandiaranen zuzendaritza apolitikoa onartzen eta *Eusko-Jakintza* aldizkaria ere bertan behera utzi nahi zuen (Barandiaran 2009: 737-738).

Nolanahi den, R. Lafonek euskalaritzaren gidaritza EIL-SIEBi eta SLPi esleitu zien, Espainiako ahaleginak gutxietsita:

Si les études basques, et plus précisément celles que concernent la langue, ont pu prendre une telle ampleur et atteindre un tel niveau, elles le doivent aussi pour une bonne part aux sociétés qui se sont efforcées de coordonner, de guider et de discipliner les efforts des chercheurs, et tout particulièrement à la Société des Etudes basques, dont l'activité fut tragiquement interrompue en 1936, et qui vient de être reconstituée, et à la Société de Linguistique de Paris. La *Revue internationale des Etudes basques* et la nouvelle revue *Eusko-Jakintza* sont des instruments de travail nécessaires à tout chercheur, ou même à tout esprit cultivé qui veut se documenter sur les choses basques. Quant à la Société de Linguistique de Paris, elle a montré de bien des manières l'intérêt qu'elle portait aux études basques, et elle apella notre ami Georges Lacombe à la présidence de ses séances, honneur dont il fut légitimement fier pour la langue basque autant qu'à titre personnel (Lafon 1949: 21).

1949ko urtarrilean EAJ-PNVk kontsultarako biltzarra antolatu zuen Baionan. Gerra Hotzeko etsipen zantzuen testuinguruan alderdiaren norabidea eztabaidatzeaz gain, euskararen auzia ere hizpide izan zuten. T. Monzón EGLZ-DCEko buruak, kulturgingintza jasoaren eta nazioarteko eraginaren erakusgarri, Ikuska, EIL-SIEB edota Biarrizko biltzarra aurkeztu zituen. Elkarre horiek argitalpenak, hitzaldiak eta ikastaroak gauzatzen jarraitu zuten Baiona inguruan. C. Jemeinen lerroko Euzkeltzale-Bazkuna berpiztea baztertuta geratu zen. «Euzkeraren Eguna», dantza taldeak, pastoralak edota bertsolari txapelketak gizartean hizkuntzaren aldeko giroa sortzera zuzendu ziren.

Baina frankismoaren jazarpena salatzeaz gain, ez zen hizkuntzaren atzerakada geldiarazteko bide zehatzik proposatu. Euzkel-Batzorde izeneko bat ere sortu zuten eta apirilean bildu zen euskararen arazo orokorra aztertzeke, baina ez dirudi jarraipena izan zuenik. EBBeko J. Rezolak, adibidez, Euzkadiren industrializazioa eta berreuskalduntzea uztartu beharraz gogoeta egin zuen EAJ-PNVren buletinean, baina oro har militantziaren borondatearen eta familiaren esku utzi zen euskara lantzea. «Bingen» izenaz sinatutako artikulu batek esaterako, K. Vossler erromanistaren aipu hau itzuli zuen: «Mintzoera bat iltzen da [...] itz egillearen gogo ardurak artatik alde egiten dutelako; ez beste mintzoera etsaiek azpiratzen dutelako, ezta ere lur bazter batean estutzen dutelako» (*Alderdi* 1949-02; 1949-06; 1949-07; 1949-09).

7.6 Eusko-Ikaskuntzen Lagunartearen biltzarra (Biarritz, 1948ko iraila)

EAJ-PNVren eta EJ-GEren buruzagitza onartu zuen taldeak, «Gernika Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea = Société Internationale d'Etudes Basques» sortu zuen 1948ko otsailean. Zuzendaritza hurrengoek osatu zuten: J. Saint-Pierre apezpikua (ohorezko buru); J. M. Barandiaran (buru); L. Dassance, T. Monzón eta P. Lafitte (buruordeak); M. de la Sota (idazkari); P. Oihanburu eta J. Bilbao (idazkariordeak); eta A. Lasarte (diruzain). J. Bilbaok Gernika elkartean sortutako zatiketaren eta EIL-SIEBen sorreraren berri eman zion gutunez J. Urquijori.⁶²⁰

Baionako suprefeturak elkarte onartu ondoren, J. Saint-Pierre buru eta P. Charriton idazkariorde berri izendatuko zituzten 1949ko maiatzean. Elizgizonen presentzia nabarmena eta emakumeen ikusezintasunak kezka sortu zituen arren, EI-SEV zena ordezkatzeko ahalegin indartsuena izan zen. EIL-SIEBek 1948ko irailaren 12tik 18ra Biarritzen antolatutako nazioarteko biltzarrak inpaktu handia izan zuen, baita barnealdeko Euskaltzaindian ere. EI-SEVen biltzarrekiko jarraitutasuna nabarmendu zen hura zazpigarrentzat jota. Izan ere, EI-SEVen zazpigarren biltzarra 1936ko irailean Lizarran ospatu behar zen, baina EGZak galarazi zuen (Estornés Zubizarreta 1983: 82).

Bi gerren ondoko euskaltzaletasunaren aldarrria izan zen Biarritzkoa, erbesteko EJ-GEren diru laguntzarekin antolatuta. J. A. Aguirre lehendakaria bera eta sailburuak pertsonalki inplikatzear gain, prentsa eta propaganda zerbitzua jarri zuten biltzarrari nazioarteko oihartzuna ematera. Hala ere, biltzarraren asmo politikoa estaltzeko, lehendakaria formalki deslotu egin zen antolakuntzatik. Bere ordeztan, ohorezko batzordean Frantziako pertsonalitateak baino ez ziren ageri: E. Herriot Asanblea Nazionaleko presidentea, Y. Delbos Hezkuntza Nazionaleko ministroa, J. Sarrailh Académie de Paris-eko errektorea edota F. Mauriac Académie française-ko kidea (Larronde 2004b: 26).

Biltzarrak arrakasta kultural, zientifiko eta artistikoa izan zuen. 300 inguru kidek parte hartu zuten astebeteko programan. Horregatik, agintari frankistek Frantziako Gobernuak presionatu zuten biltzarra separatistatzat jo eta debeka zezan. Espainiako

⁶²⁰ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-04-05.

konsulak, esaterako, biltzarreko hitzaldiak salatu zizkion Pirinio Behereetako prefetari, J. M. Barandiaranek bere egunkarian jaso zuenez:

Eusko-Ikaskuntzen-Biltzar Nausiak izan ditu bere etsayak: bat Madrazo jauna España'ko Consul Bayona'n dagona. Jaun ori Viceprefectoarekin zerbait egingo ote duen ibili da Biltzarra galerazteko, au «separatista» dela ta. Viceprefectoak esan zion ezin dezakela aurrez debekatu; baña bai asi ezker, baldin legeen kontra zerbait egiten bada biltzarrean. Madrazo, Biltzarra amaitu ondoren, berriz juan zaio Vicep[re]f[er]e[nt]e[ri] eta esan dio: «Ara nik esana nola gerta dan Eusko-Ikaskuntzen-Biltzarrean Saint-Pierre jaun apezpikuak esan du: «le basque ne peut vivre que dans un climat de liberte»; eta Garat jaunak berriz esan du: «Euskalerria demokrazia ezen da, eta ortatik ba dute zer ikasi inguruko beste erriak ere». Ara or separatisme: oriek ez dire content ez España'kin ez Prantzia'kin (Barandiaran 2009: 733).

Euskaltzaindian nahitaez ezinegon sortu zuen biltzarrak, J. Saint-Pierrek eta P. Lafittek zuzendu zuten Hizkuntz ataletik hizkuntz akademia alternatibo bat sortzea, E-J-GEren diru laguntzarekin eta diktadura frankistaren menpekotasunetik askea, zentzuzko aukera baitzen. Hala ere, biltzarrari eman nahi zitzaion izaera batez ere zientifikoari jarraituta, Hizkuntz ataleko hitzaldi eta txostenak, arlo soziolinguistiko eta normatiboa bigarren mailan utzita, hizkuntzalaritzaren eta filologiaren bidetik joan ziren. Biltzarra prestatzeko galdetegian fonetika, lexikoa, gramatika, dialektoak, harreman genetikoak edota literatura nabarmendu zituzten. Era berean, gaixotasunagatik biltzarrean parte hartu ez zuen C. C. Uhlenbeck euskalarien dekanuari gorazarre egin zitzaion.⁶²¹

Biltzarreko Hizkuntza atalean komunikazio asko aurkeztu ziren: R. Lafon, K. Bouda, W. Giese, M. Lecuona, H. Gavel, P. Eyheramendy, A. Gondra, T. Uthurry, J. Caro, R. M. Azkue, A. Bausani, C. Jemein, C. Tagliavani, S. Arotçarena, P. Oihanburu, I. López Mendizábal, A. Lascurain edota A. Zatarain. J. Saint-Pierrek, adibidez, «Le fonds aquitaine et ses sources», «Problèmes vasco-aquitains et sources asianiques» edota «Les influences méditerranéennes» txostenak aurkeztu zituen. P. Lafittek, aldiz, «Réflexions sur l'origine des préfixes pronominaux dans le verbe basque» eta «La proposition exclamative en navarro-labourdin». Ildo beretik joan ziren txosten gehienak eta eztabaidak moderatzen R. Lafon, H. Gavel edota C. Tagliavani unibertsitate irakasleak aritu ziren. 40 inguru txostenen artean, bi salbuespen egon ziren: C. Jemeinen

⁶²¹ ABA-LAF: P. Lafitteren EIL-SIEBen Hizkuntza ataleko agiri eta erabakiak [1948].

«Unification du basque» eta J. Eizaguirreren «Vers l'unification de la langue basque» (Larronde 2004a: XXII-XXIII, XLII, LIX).

Baina euskara estandarraren gaiak sortzen zituen eztabaidak ikusita, ez zitzaien argirik emango *Eusko-Jakintza* edota *Gure Herria* aldizkarietan. J. Eizaguirre Gernika elkarteko buru ohiak prestatutako txostena hizpide izan dugu lehenago. C. Jemeinez den bezainbatean, M. Eguileorrek hainbat komunikazio idatz zitzala eskatu zion, sabindar hizkuntz doktrinari eutsi eta euskara batuaren asmoei kontra egiteko, besteak beste, E. Gandiaren *Orígenes prearios del pueblo vasco* (1943) liburuan oinarrituta:

Creo que podrás prepararles varios trabajos cortos, como te acordarás nos dijo que prefieren: uno de contraunificación; uno sobre neologismos (para el que te recomiendo recuerdes el trabajo del P. Eñentaria «Estudio genético y evolución del euzkera» publicado en la revista *Euzkadi*); si te parece, como me dijiste, uno sobre «Euzko», comentando las opiniones recogidas por E. de Gandía en su libro.⁶²²

Espainian izoztuta zegoen EI-SEV berpizteko saioa, besteak beste, J. Urquijoren jarrera uzkurragatik. 1948ko biltzarrak indarrez hartu zuen EI-SEVen segida. Hizkuntz atalak hurrengo erabakiak hartu zituen:

1. Le Congrès remercie M. le Ministre de l'Education Nationale d'avoir inscrit la création d'une chaire de Basque à l'Université de Bordeaux dans le projet de budget 1948, et souhaite que cette création puisse être réalisée pour le debut de l'annee universitaire 1948-194[9];
2. Le Congrès demande á M. le Ministre de l'Education Nationale l'admission du Basque comme langue d'option au baccalaureat en l'ajoutant aux 28 langues déjà admises par le décret d'avril 1948;
3. Le Congrès souhaite que l'on tienne à jour dans Eusko-Yakintza [sic], les références aux articles publiés par les bascologues dans les diverses revues du monde;
4. Le Congrès souhaite que l'on se mette d'urgence à la rédaction d'un lexique qui servira de repertoire français-basque au dictionnaire basque français du R.P Lhande;
5. le Congrès demande la rédaction d'un petit Atlas linguistique du Pays Basque : le travail pourrait être confié à une équipe dirigée par M. Jon Bilbao qui resterait en

⁶²² SAF-AA: M. Eguileorren gutuna C. Jemeini, 1948-05-14, PNV_NAC_EBB,K.00046,C.4. C. Jemeinek aurkeztutako bigarren txostena, «Eusko, ala euzko?» Guatemalako *Euzko-Gogoan* agertuko zen 1951n (Jemein 2004).

liaison avec le Professeur Tagliavini de l'Université de Padua.⁶²³

Hezkuntza atalaren erabakiek ere euskararen sarrera izan zuten ardura nagusi maila guztietan, udako unibertsitate bat sortzea barne (Larronde 2004b: 32). *Le Courier de Bayonne*k adierazi zuen R. M. Azkue-J. Urquijo biltzarrean izan zirela, baina asmakeria izan zen (Larronde 2004a: LXI-LXIII). P. Lafitten artxiboko zerrenda luzearen arabera, barnealdeko hurrengo euskaltzain eta urgazleek jaso zuten biltzarrean parte hartzeko gonbita: R. M. Azkue, A. Irigaray, P. Zamarripa, R. Menéndez Pidal eta P. Yrizar. Erbesteratuei dagokienez, S. Altube-J. Gorostiaga-N. Ormaecheak.⁶²⁴

Izan ere, mesfidantza politikoak nabarmen agertu ziren. J. Bilbaok 1948ko udaberrian biltzarrerako iradokizunak eskatu zizkion J. Urquijori. F. Arocena-J. Carorekin harremanetan jartzeko asmoa zuen. Biltzarraren programa azaldu zion, asmo politiko ezkuturik ez zuela frogatzeko asmoarekin.⁶²⁵ F. Arocena EI-SEVeko idazkariorde ohiaren apirileko erantzuna, bestalde, hau izan zen: «si bien en el aspecto puramente científico y personal me hallo dispuesto a colaborar con cualquiera, no quiero tomar parte en ese Congreso que se anuncia ni en ningún trabajo de su preparación» (apud Barandiaran 2009: 717).

Hain zuzen, J. M. Barandiaranek 1948ko uztailaren 2an biltzarrean parte hartu edota komunikazio bat bidaltzeko eskatu zionean, J. Urquijok entzungor egin zion.⁶²⁶ Uztailaren 10ean Sarako elizgizonak P. Yrizarri idatzi zion. Izututa, Joaquín Yrizar anaiarengana jo zuen aholku eske. J. Urquijo-F. Arocena-M. Ciriquiain-J. Artecherekin hitz egin ondoren, ez erantzutea erabaki zuten (Yrizar 2001: 82, 136-137). A. Irigarayk, halaber, biltzarrean parte hartzeko zituzten arazoak adierazi zizkion P. Lafitte adiskideari gutunez:

Banuke zenbeit gauza or argitaratzeco, ala nola ipuinak, Manezaundi batenak; behar bada ezagutuco dituzu; bañan uste dut elirazkela batere gaizki; nik ere nahi izanen nuke zerbait bidali, ala nola Miarritz-co biltzarrera nahi izan nuen; baño badakizu zer erreshtasunak ditugun... Gogotik jakin dut biltzar orren arrakasta; badakikezu gogoan or nintzala, nahiz

⁶²³ ABA-LAF: P. Lafitteren EIL-SIEBen Hizkuntza ataleko agiri eta erabakiak [1948]. Badirudi bigarren puntua azkenean ezabatu egin zutela, agian EJ-GEK ez zuelako Frantziako Gobernua presionatu nahi (cf. Larronde 2004b: 32).

⁶²⁴ ABA-LAF: P. Lafitteren «Personnes á inviter pour la section *Langue basque*», [1948].

⁶²⁵ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-04-05.

⁶²⁶ KMK-JU: J. M. Barandiaranen gutuna J. Urquijori, 1948-07-02.

ishil; ar zazue nere zoriona (apud Andiazabal et al. 2005: 221).⁶²⁷

Espainiako R. Menéndez Pidal, A. Tovar eta J. Caro Biarritzera joatekoak ziren, baina bisa ukatu zieten. Bestalde, Biarritzko biltzarraren egunetan, Italiako C. Tagliavani-A. Bausani RSVAPeko zuzendariekin biltzen saiatu zen J. Bilbao, baina ezin izan zuten muga zeharkatu.⁶²⁸

Nazioarteko biltzarrean hitzaldiak irakurri edo komunikazioak bidali zituztenen artean aurkituko ditugu S. Arotçarena, P. Charriton, G. Eppherre, H. Gavel, R. Lafon, P. Larzabal, M. Lecuona, J. Caro, I. López Mendizábal edota P. Lhande; ordurako euskaltzain edo urgazle ez baziren, laster izendatuko zituztenak. Konfrontazioa saihesteko bide egokiena izango zen, hain zuzen, ALVren ateak zabaltzen joatea. Euskaltzaindiak bere horretan ez zuen biltzarrarekin bat egin, baina oso adi zegoen. Ohi zuen jarrera adoretuaren erakusgarri, R. M. Azkuek komunikazioa bidali zuen, gero JCVk 1949an liburu gisa argitaratuko zuena (Azkue 2004).⁶²⁹

7.7 «Euzkeraren Eguna»

1949 bukatzerako EIL-SIEBen biltzarrari oihartzun handiagoa emateko aukera apalduta zegoen. Aurkeztutako 260 inguru komunikazioak liburu batean argitaratzeko beste dirurik ez zen bildu, eta udako unibertsitatea bezalako asmo handinahia bazterrean utzita zegoen. Era berean, EJ-GEk, herritarren atxikimendua biltzeko ekimen sinboliko eta populistagoei bide eman zien handik aurrera. Diktaduraren lehen urteetako isiltasun erabatekoarekin erkatuta, zenbait kultur adierazpen eskuratzen ari zen herri hizkuntza, baserrietatik harago, hirietan ere oihartzuna zutenak.

Donibane Lohizunen bizi zen T. Monzón EGLZ-DCEko buruaren ardurapean, N. Ormaechearen liburuak, dantza-antzerki emanaldiak edota bertsolari txapelketak bideratzen ari ziren.⁶³⁰ Euskal kulturgintzan bezain beste, irabazi ekonomikoan indarra egiten zuten ikusgarri turistikoek kontraesanak zituzten. Baionako A. Tournier idazleak, adibidez, *Eusko-Jakintzan* nabarmendu zituenak: «La plupart de ces jeunes danseurs ou

⁶²⁷ ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1948-12-20.

⁶²⁸ KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, [1948-09-15].

⁶²⁹ F. Krutwigen paper zaharren artean oraindik gordetzen da 1948ko biltzarraren programa mekanografiatua (JLA-FK).

⁶³⁰ SAF-AA: T. Monzónen gutuna F. J. Landábururi, 1948ko martxoa, LIAV-0012-06.

chanteurs sont à peu près nuls en basque, ce dont ils devraient rougir et ce qui, leur costume aidant, leur donne l'air de basques d'opéra-comique» (Tournier 1950: 100).⁶³¹

1949ko azaroaren 20an Urruñan antolatu zuten Euskal Herri mailako bertsolari txapelketa nagusia EJ-GEk eta Eskualzaleen Biltzarrak. Gipuzkoako I. Eizmendik irabazi zuen txapelketa. Epaileak, T. Monzónez gain, L. Dassance-J. Elissalde-A. Constantin-J. Moulier izan ziren. Erbestean euskararen alde egiten ziren urrats nagusiek, erantzun edo emulazio antzekoa zuten frankismoaren aldetik. Mugaz bestaldeko ekitaldia salatu ordez, Donostiako *La Voz de España* egunkariak, I. Eizmendi «Basarri» lankideak irabazitako txapelketaren aitzakian, euskararen aldeko testua argitaratu zuen, tokiko frankismoaren jarrera zuria ongi adierazten zuena:

Quiero proclamar mi parecer de que el vascuence hay que conservarlo por encima de todo. Cueste lo que cueste. Es preciso ver el problema de este idioma en toda su realidad, que no solo depende de los hombres, sino también, y acaso más, de las circunstancias del mundo moderno. Quienes de verdad lo aman, deben procurar por todos los medios que no lo trituren las dos muelas del molino de los separatistas y de los separadores. Puesto que se halla por encima de unos y otros, con categoría, en España, de gran monumento histórico nacional, y con categoría internacional de estupendo enigma filológico. Y digo, no ya que debe ser tolerado, sino que debe ser protegido y amparado como una reliquia maravillosa. Y que no debe consentirse más le hagan sospechoso, mezclándole en las disputas de las banderías políticas... Ya es hora de salvar el vascuence, cosa de no sé cuantos siglos, afectiva, entrañable, buena, digna de conservación. Y en ello debemos esforzarnos. Y para ello es imprescindible sacrificarse a fin de llevarle por un camino en donde no le salpiquen ni le perturben ni lo dañen las violencias y combinaciones de los políticos. Pues estos son pasajeros y aquel es permanente, en el sentido humano de la palabra. Permaneció siglos, y debe permanecer aun. He aquí una obra para hombres de buena voluntad (apud *Euzko Deya* 1949-12-15).

Frankismoaren prentsa ofizialistatik hedatzen ziren mezu nahasgarrien aurrean, erbesteko euskalgintzak, askatasun gehiagorekin, euskararen aldeko ekitaldiak antolatzeari ekin zion. 1949ko urrian M. eta R. de la Sota anaia jeltzaleek hainbat lagun bildu zituzten Biarrizko etxe dotorean «Euzkeraren Eguna» delakoa nazioartean ospatzeko. J. Saint-Pierre EIL-SIEBeko buruak hitza hartu zuen euskararen atzerakada demografiko kezkarria salatzeo. Araba-Nafarroan galera handia zen, eta Pirinio

⁶³¹ Oldarra dantza taldeko zuzendari P. Oihanburuk protesta egin zuen kritika horregatik (Oihanburu 1951).

Behereetako egoera oso arriskutsua, immigrazioagatik eta gazteen ezaxolagatik. Gutxiagotasun konplexuaren erruz, erdaren aurrean herri hizkuntza prestigiorik gabe geratzeko bidean zegoen. Bestetik, L. Dassance Eskualzaleen Biltzarreko buruak 1901ean sortutako bere elkartearen dekanotza nabarmendu zuen. XX. mendearen hasieran hizkuntzalarien auzia izan zena, bi gerren ondorioz gizartearen existentzia arazo larria bilakatu zen. Hizkuntzaren izaerak baino areago, hizkuntzaren biziak arduratzen zituen. EJ-GEk ez ezik, Baionako suprefetak edota L. Inchauspe Pirinio Behereetako Kontseilu Orokorreko presidentek ere lagundu zuten. Herritarren hizkuntzarekiko atxikimendua sustatzeko antolatu zen «Euzkeraren Eguna» lehen aldiz 1949ko abenduaren 3an (Francisco Javier santuaren eguna), 4an eta 18an. Pirinio Behereetan, Parisen eta Ameriketara antolatu ziren jaialdiak (*Euzko Deya* 1949-12-01; 1949-12-15; Larronde 2004b: 42).

EJ-GEk propagandarako mobilizazio handi bat sustatu nahi izan zuen, horrela Espainian euskararekiko jokabide zekena agerian geratuko zelakoan. Besteak beste, EIL-SIEBek, Eskualzaleen Biltzarrak eta *Herria* astekariak elkarrekin literatur lehiaketa bat antolatu zuten. Guztira 150.000 frankoko sariak iragarri zituzten hurrengo idazlanetarako: antzerkia, historia-geografia, saiakera, poesia, folklorea eta euskarazko ikasbideak.⁶³²

EIL-SIEB I. Eizmendi-F. Artolarekin harremanetan jarri zen, «Euzkeraren Eguna» Donostiako egunkarietan iragartzeko, baina kazetariak ezinezkotzat jo zuten.⁶³³ RSVAPeko F. Arocenarekin ere harremanetan jarri ziren, J. Bilbaoren plangintzari jarraituta, barnealdeko euskal erakundeei presio egiteko. «Euzkeraren Eguna»ren harira prestatutako agiriak, diktadura frankista aipatu gabe, aldarri agonikoa egiten zuen: «Eriotza gero ta urrerago dabilkiola il-zorian dagoan euskera salbatu naiez egiten degun deia dezu au» (*Alderdi* 1949-11). Agiria argitaratu edo gutxienez ekitaldiaren berri *BRSVAP*en eman nahi zuten, baina ezezkoa borobila izan zen: «Ninguna de amabas cosas era posible, en opinión del Sr. Arocena, por la indudable oposición de algunos miembros de la *Vascongada* primero y, en todo caso, por las represalias que de parte de las autoridades sobrevendrían inexorablemente».⁶³⁴ Hain zuzen, T. Monzón EGLZ-DCEko buruak ekitaldia baliatu zuen Espainiako jazarpen egoera salatzeko: «Zoritzarrez, Bidaso-

⁶³² SAF-AA: EAJ-PNVren EBBak bildutako «Jeux Floraux en langue basque orria», 1949, PNV_NAC_EBB, K. 00084, C. 4.

⁶³³ SAF-AA: [J. Bilbaoren?] txosten izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB, K.00227, C.4.

⁶³⁴ SAF-AA: [J. Bilbaoren?] txosten izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB, K.00227, C.4.

mugatik aruntz bizi diran euskaldunak ezingo dute leenbiziko Euskera-Egun au bear bezala aipu ta ospatu. Arrotzaren ankazpian kataiatuak bizi baitzaizkigu» (*Euzko Deya* 1949-12-01).

«Euzkeraren Eguna» urtero ospatuko zuten erbesteko abertzaleek European nahiz Ameriketan, baina A. Ibinagabeitia bezalako abertzale konprometituak oso kritiko agertuko ziren propaganda keinu huts horiekin, J. Zaiteguiri adierazi zionez 1951ko abenduan: «Igaro igandean Euskeraren eguna ospatu genuen. Jai txepela, eta gainera jende gutxi. Ez dakit Euskaltzaleen Biltzarrekoek, kopetik ere nola duten orlako jai txatxarrak aurkezteko» (apud Iztueta & Diaz 2007: 279).

8 BILBOKO BOTERE FRANKISTA

8.1 Eladio Esparzaren dimisioa eta Bonifacio Echegarayren berrartzea

1949ko urtarrilean euskaltzainburuak gutun luze bat zuzendu zion JCVri. Zortzi urte igaroak ziren Euskaltzaindia berriz abiatu zenetik erakunde horren baimenarekin. Eraitza eskasak ikusita, argi zegoen diru laguntzak areagotu ezean, ALVk ez zuela gutxieneko jarduerarik burutu ahal izango. R. M. Azkuerena ez zen eskari hutsa, tonu patetikoan egindako erregua baizik:

Una feliz sugerencia de esa dignísima Junta de Cultura, avalorada con el ofrecimiento de generoso auxilio económico dio pie para que esta Academia de la Lengua Vasca reanudara en el año 1.941 su actividad en torno al idioma vascongado que desde su creación el [año] 1.918 había venido desarrollando hasta que la anormalidad creada por la todavía reciente guerra civil impuso forzada interrupción.

El muy reducido fondo propio de esta Academia, unido a la aludida generosa subvención de esa Junta, y a otras muy [modestas] ayudas análogas de la Excma. Diputación de Guipúzcoa y del Ayuntamiento de Bilbao, han permitido que en esta su segunda etapa de vida, pudiera proseguir siquiera fuese en muy estrechos límites y con grandes dificultades en el cumplimiento de sus científicos y culturales fines.

[E]l total agotamiento de aquel fondo y lo reducido de las subvenciones aludidas, sin haber logrado hasta ahora, no obstante haberlas solicitado, nuevas asistencias, han creado a esta Academia difícilísima y angustiosísima situación económica, con la que no le es posible intentar la reanudación del Boletín o Revista en que anteriormente venían publicándose sus interesantes trabajos, siempre buscados con afán y gratamente acogidos por los Centros científicos nacionales y extranjeros, como tampoco la edición de obras de algunos de sus miembros y ni aun la adquisición de obras filológicas y literarias apropiadas a su misión, habiéndose visto precisada ante los gastos cada día crecientes que originan los desplazamientos de sus miembros, a disminuir considerablemente el número de sesiones académicas, con la perspectiva de tener que suspenderlas casi en absoluto, con práctica anulación en tal supuesto de la eficacia de la labor que le corresponde por su naturaleza y constitución.

En atención a estas circunstancias y consideraciones, el suscrito en nombre y representación de esta Academia [ha] de dirigirse a esa respetable Junta con la encarecida suplica de que se digne aumentar en el máximo posible la subvención que le viene

concediendo.⁶³⁵

E. Calle idazkariak euskaltzainburuaren erregearen berri eman zuen JCVren otsaileko batzarrean, baina geroratu egin zuten erabakia, urte horretako argitalpen gastuak zeintzuk izango ziren ikusi arte.⁶³⁶ 1949ko martxoaren 25ean Donostian batzartu zen ohi baino euskaltzain talde handiagoa: R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig eta N. Oleaga. 1920ko barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea osatu zuten. GPDko jauregian egindako batzar hori garrantzitsua izan zen. F. Krutwigek «Estudios vascos de filología comparada» txostena irakurtzeaz gain, Euskaltzaindiaren osaerari eragiten zioten erabakiak hartu zituztelako (ALV 1982: 4).

Alde batetik, Eladio Esparzaren dimisioaren berri eman zuen A. Irigarayk, lanpetuegi zegoelako ALVren zereginetarako. 1941ean euskaltzain izendatu zutenetik, frankista amorratua ez zen inoiz batzarretara agertu. Batzarrak dimisioa onartu eta handik aurrera E. Esparza urgazle izatea erabaki zuen. E. Esparzaren hutsunea betetzeko, J. M. Seminario Nafarroako kazetari eskuindarra izendatu zuten. Era berean, Gipuzkoako Bergaran jaiotako Pedro Zabala (1889-1956) eta Nafarroako Leitzan jaiotako Vicente Saralegui (1907-1966) urgazle izendatu zituzten.⁶³⁷ V. Saralegui arkitektoak 1946-1947 artean zenbait hitz zerrenda bidali zizkion Doneztebetik R. M. Azkueri, eta uste izatekoa da lexikografiarako lankide posible gisa izendatu zutela (Etxebarria 1986b).⁶³⁸ P. Zabala abokatuak Gasteiztik hainbat toponimia zerrenda bidali zizkion L. Michelenari, gero *BRSVAP*en argitaratzen joango zirenak. Euskaltzaindiarekiko elkarlana, ordea, ezerezean geratu zen: «Soy, como sabe Vd., *urgazle* de la Academia de la Lengua Vasca. Pero para que un *urgazle* pueda *ayudar*, es preciso que se le pida ayuda. Pasan los años y todavía no he escuchado ningún S.O.S. de petición de socorro».⁶³⁹

Euskaltzain berriaren izendapenak, berriz ere, ez zituen 1920ko araudiak ezarritako baldintzak jarraitu, eta Euskaltzaindiaren artxiboan ez dago J. M. Seminarioren hautagaitzaren aurkezpen agiririk, ustez hiru euskaltzainek sinatu behar zutena (cf. ALV 1920b: 8-9). F. Krutwigek, bere burua politikoki zuritzearren, gero adieraziko zuen J. M.

⁶³⁵ BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna JCVri, 1949-01-27, Junta de Cultura C-40 -01-.

⁶³⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62. Hurrengo kideak bildu ziren: J. Ybarra, N. Zorrilla, J. L. Gaytán de Ayala, F. Ygartua, F. Crooke, I. Urquijo eta E. Calle.

⁶³⁷ ABA-EUS: P. Zabalaren esker oneko gutuna Euskaltzaindiari, 1949-07-30.

⁶³⁸ ABA-RMA: V. Saralegui-R. M. Azkue arteko gutunak, 1946-09-07/1947-02-18.

⁶³⁹ KMK: P. Zabalaren gutuna L. Michelenari, [195?].

Seminario A. Irigarayk proposatu zuela, baina ondoren ikusiko dugun gutunaren arabera, proposamena Bilbotik zetorren eta F. Krutwig izan zen Euskaltzaindiaren ordezkaria J. M. Seminariorekin harremanetan jartzeko (cf. Iztueta & Iztueta 2006: 460; Krutwig 1986b: 15-16).

Izan ere, A. Irigarayk 1949ko urtarrilean eman zion E. Esparzaren dimisio asmoaren berri zuzendaritzari. ALVren aginduz, E. Esparzarekin jarri zen harremanetan egoera argitzeko, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariko zuzendari J. Berruezoren bidez. Esan bezala, E. Esparzak uko egin zion euskaltzain izaten jarraitzeari, baina ALV Nafarroan babesik gabe gera ez zedin, prest zegoen Iruñean Euskaltzaindiaren ordezkari bat antolatzen. Ordezkari hori osatzeko, A. Irigarayk kide batzuk iradoki zituen. Asmoa, E. Esparzaren bidez, NFDtik diru laguntza lortzea zen ordezkariarako. Zerrendan, gune euskaltzale egonkorra sortzeko asmoarekin, 1925ean sortutako Euskeraren Adiskideak talde apolitikoan ibilitakoak, elizgizonak, frankista dirudunak eta jeltzaleak nahasten ziren.⁶⁴⁰ A. Irigaray, orobat, ados agertzen zen V. Saralegui urgazle eta, E. Esparzaren ordezkari, J. M. Seminario euskaltzain izendatzearekin.⁶⁴¹ Ordezkariarik ez zen zabalduko, baina NFDak laster emango zituen hainbat erraztasun, ikusiko dugunez.

1949ko martxoko batzarrean, bestetik, B. Echegaray legelariak euskaltzain postua berreskura zezala ebatzi zuten. Ikusi dugunez, B. Echegaray erbesteratuta egon zen hainbat urtez. EJ-GEren justizia eta kultur alorretako kide nabarmena izateaz gain, EBEn Tribunal Supremo-ko funtzionario gisa epaiketa militarra egin zioten. Ameriketara joateko asmoa izan zuen, baina BMGn bere erantzukizun politikoen auzia konpontzea lortu eta Tribunal Supremo-ko idazkaritza lanpostura itzuli zen. Jeltzalea ez izan arren, agintari frankistek bere iragana ukatzera behartu zuten nahitaez. Hizkuntzaren eta hezkuntzaren ageriko alorrak baztertuta, Madrilen bizi zen, fede katolikoan babestuta eta oso goibel, EBEn alde gerra egindako J. M. Echegaray semea hil zitzaioelako auto istripuan, alarguna eta hiru seme-alaba utzita. 1944ko irailean R. M. Azkueri idatzi zion bere burua zuritu eta egoeraren berri emateko:

Se alegrará mucho V. de saber que mi situación está perfectamente arreglada con una

⁶⁴⁰ B. Fagoaga, M. P. Ciganda, F. Astiz, M. Esparza, J. Aguerre eta J. Ezquieta aipatu zituen Nafarroako medikuak. Era berean, aurrekari garbia zuen EI-SEVek Iruñean 1935ko maiatzean sortutako ordezkarietan, A. Irigarayk, J. Aguerrek edota E. Esparzak berak osatu zutena (Estornés Zubizarreta 1983: 43).

⁶⁴¹ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10.

resolución de la Autoridad militar que proclama mi inculpabilidad mediante el reconocimiento de que actué por mi condición de funcionario público y de que lejos de causar daño a nadie, procuré hacer todo el bien que pude a los enemigos del bando en que yo hube de prestar mis servicios.⁶⁴²

Euskaltzaindiak 1949ko ekainean bidali zion erabakiaren berri Madrilerara: «Euskaltzaindiak erabagi dau zuri eskatutea euskaltzaintzeari eragon dakiozula, kisa oferi dagokiozan lanetan befasirik eta batzařetara eldurik».⁶⁴³ Baina semeak erantzun behar izan zion, B. Echegaray lur jota zegoelako egun berean hil zitzaizkiolako Ricarda Irabien emaztea eta M^a Dolores Echegaray alaba. Zorigaitz horien ondorioz, B. Echegarayren garaiko korrespondentzia guztia dolu paperean idatzita dago. Euskaltzaindiaren hiru batzarretara baino ez zen agertuko: 1949ko irailean Donostiara eta 1951ko apirilaren 28-29an Bilbora (Arana Martija 2004: 9, 14-15).⁶⁴⁴ 1941ean agintari frankistek Euskaltzaindiari ahoz ezarritako baldintzak lasaitzen hasi ziren, beraz. Erbestean egondako kide batek euskaltzain postua berreskuratzen zuen. Atzerrian jarraitzen zuten S. Altube-D. de Inzak.⁶⁴⁵

Lexikografiaz den bezainbatean, 1949ko martxoaren batzar horretan adierazi zuten gaztelania-euskara hiztegiko «f» letraraino iritsi zirela. Gainera, erakundeak bizi zuen isolamendu egoeraren eta oihartzun eskasaren erakusgarri, batzar horretan uko egin zioten ordezkari bat bidaltzeari Bruselan antolatutako ICOS biltzarrerara, nahiz eta atxikimendua bidali zieten J. Herbillon-H. J. de Wijer zuzendariei.⁶⁴⁶

8.2 Juan Miguel Seminario

E. Esparza ordezkatzeko hautagaia zen J. M. Seminarioz A. Irigarayri iritzia galdetu zioten arren, proposamena Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzatik atera zen. Nire

⁶⁴² ABA-RMA: B. Echegarayren gutuna R. M. Azkueri, 1944-09-01.

⁶⁴³ ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Echegarayri, 1949-06-20.

⁶⁴⁴ ABA-EUS: Ricardo Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1949-09-19.

⁶⁴⁵ Ez ziren kide arruntak, zuzendaritzako kide baizik. EGZa hasi zenean S. Altube diruzain eta D. de Inza Yagoleen sailburu ziren. Ikerleen sailburua 1937an hildako A. Campión zen (Torrealdai & Murua Uria 2009: 136).

⁶⁴⁶ J. M. Barandiaran-J. Carok, ordea, komunikazio bana irakurri zuten Bruselako biltzarrean. J. Carok, CSICen ordezkari gisa, euskal toponimiaren geruzak eta hizkuntzen arteko harremanak izan zituen hizpide. Hura zen BMG aurreko nazioarteko biltzar zientifikoaren tradizioa berreskuratzen zuen lehendabizikoa. Bertan topo egin zuten, adibidez, A. Grierak frankistak eta P. Bosch Gimpera errepublikazaleak istilu larririk sortu gabe. A. Grierak euskararen jatorria latinean zegoela frogatzeko ahaleginetan jarraitzen zuen (Eusko-Jakintza 1950; Grierak 1963: 316-317; Barandiaran 2009: 754-756).

ustez, hautagaitzak harreman zuzena zuen ALVren aurrekontu arazoak konpontzeko BPDko agintariengandik espero zen laguntzarekin. Izan ere, J. M. Seminario, Nafarroan jaiotakoa izan arren, Bilboko *CE-PV*ko zuzendariordea eta egunkariko kontseiluko J. Ybarraren adiskidea zen. Uste izatekoa BPDko presidentearen iradokizunez edota hari atsegin emateko izendatu zutela J. M. Seminario euskaltzain ALVren martxoko batzarrean. R. M. Azkuek apirilean J. Ybarrari idatzitako gutunean ageri denez, berarekin bildu zen egun batzuk lehenago berriz ere Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko larriaz hitz egiteko.⁶⁴⁷

Juan Miguel Seminario de Rojas (1904-1968) Nafarroako Beran jaio zen. Esteribarren jaiotako Pedro Seminario Artola aita, Berako siderurgia fabrikaren zuzendaria zen. Amelia de Rojas ama, teniente koronel baten alaba, Kuban hazitakoa zen. Zuzenbidean lizentziatu arren Madrilgo Unibertsitatean, Raimundo García *Diario de Navarra*ko zuzendariak bultzatuta, kazetaritza ere ikasi zuen. EBEn, CEDAren ildoko *El Debate* egunkarian, informazio politikoaz arduratu zen. 1936ko udan, Falange-ren *¡Arriba España!* egunkaria Iruñean sortu zutenen taldekoa izan zen, F. Yzurdiagaren zuzendaritzapean. Bilbo 1937ko udan okupatu ostean, Movimiento-aren *El Correo Español* egunkari berrian aritu zen erredaktoreburu. Gero, 1939-1940 artean, Badajozko *Hoy* egunkaria zuzendu zuen. *CE-PV* baterarazi ondoren, zuzendariorde eta erredaktoreburu izan zen 1940-1951 artean, J. Zuazagoitia Bilboko alkatea egunkariaren zuzendari zela. Zuzendariorde izan ahal izateko, FET-JONSeko txartela aurkeztu behar izan zuen: 83.558 zenbakiduna.⁶⁴⁸

J. M. Seminariok Euskaltzaindian beste komisario politikoek baino eginkizun sonatuagoak bete zituen arren, nabari da ez ziola ALVri garrantzirik eman. 1949ko ekainean sarrera hitzaldi publikoa egin zuen, eta 1950ean M. Lecuonari erantzuna emateaz arduratuko zen. Dena dela, bi ekitaldi horietara joateaz gain, soilik beste bi batzarrerara agertu zen: 1949ko irailean, F. Krutwigen txosten aurkezpena, eta 1952ko ekainean, L. Villasanteren sarrera ekitaldiak sortutako istiluaren harira. Buruko gaitzak jota zegoen eta ohitura xeble samarrekoa omen zen. 1943tik «Eutrapelicus» izengoitia erabiltzen zuen egunkariko azken orrialdean, ustezko etimologiez-eta idazteko. Denbora pasako sail hori oso ezagun bilakatu zen irakurleen artean. J. Zuazagoitiarekin eta E. Callerekin batera, egunkariaren lerro editorialaz arduratu zen, BMGtik aurrera

⁶⁴⁷ BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna J. Ybarrari, 1949-04-06.

⁶⁴⁸ *Diario de Navarra* 1949-01-19; 1968-04-14; *CE-PV* 1968-04-14; *ABC* 1968-04-16.

falangismo zurruna leutzen joango zena. J. M. Seminario euskaltzain izendatzeak, Bilboko botere frankistarekin elkarlanean aritzeko asmo garbia erakusten zuen. JCVn, Bilboko Udalean edota prentsa monarkiko ohian, falangismo ofizialarekiko autonomia gehiagorekin jarduteko aukera ikusten zuten agian Euskaltzaindian. Dena dela, 1951n Iruñeko txokolate fabrika jarauntsi eta Bilboko egunkariko kargua utzi egin zuen. Ordurako buruko gaitzak agerikoak ziren eta irabazitako dirua xahutu egin omen zuen (ALV 1982: 4-11; Ybarra 1985: 79-80; Sánchez-Taberner 1989: 208-214).

Euskaltzainburuak batzar egunean bertan gutunez jakinarazi zion izendapena J. M. Seminariori.⁶⁴⁹ *CE-PV*k, jakina, azalean eman zuen berria. Euskalaritzan inolako eskarmenturik ezean, zuzendariordeak euskal gaiak dibulgatzeko egindako ahalegina goraiatu zuten, frankismoaren hizkuntza politika zuritu nahian (*CE-PV* 1949-03-27). ALVren gaineko kontrol politikoaren eragin urria partez euskaltzainburuaren irmotasunari zor zitzaion arren, agintari frankistek hautatu zituzten ordezkariak gaitasun eskaseko akademikoak izan ziren. Militantzia frankista eta euskararekiko ardurak gaizki ezkontzen ziren.⁶⁵⁰ Hala ere, F. Krutwig gazteak J. M. Seminario erabiltzen saiatzeko aukera ikusi zuen N. Ormaecheari 1951n adierazi zionez:

Con el nombramiento del Seminario de Rojas (hecho a propuesta de Irigaray), decidí pues yo, que venía combatiendo las condiciones impuestas, valerme justamente de este nombramiento de ese Sr., quien, al estar convencido de que ha entrado con el pie izquierdo, quiso buscar apoyo moral en alguien dentro de la Academia (apud Iztueta & Iztueta 2006: 460).

8.3 Bizkaiko Probintzia Diputazioaren presidentea

Nire hipotesiaren arabera, J. M. Seminarioren izendapena BPDko presidente, enpresari eta *CE-PV* egunkariaren kudeatzaile nagusiak eragin zuen: Javier Ybarra Bergé (1913-1977) bilbotarrak. J. Ybarra euskaltasuna eta frankismoa uztartzeko saioen oso adibide nabarmena izan zen. Bizkaiko murrasiar monarkikoen ordezkaria zen, baina aldi berean Euskal Herriko historiaren eta kulturaren maitalea. Hierarkia frankistak begi onez

⁶⁴⁹ ABA-EUS: R. M. Azkueren jakinarazpena J. M. Seminariori, 1949-03-25.

⁶⁵⁰ J. M. Seminario bera, diogunez, buruko gaixotasun batek jota zegoen: «Era de Vera de Bidasoa, y como supe más tarde hijo de una familia en la que fueran frecuentes los casos de esquizofrenia, lo que hacía comprensible algunas de sus actitudes» (Krutwig 1991: 95, 100, 132).

ikusi zuen J. Ybarraren *Política nacional en Vizcaya* (1947) liburuko antiabertzetasun iraingarria.⁶⁵¹

Gobernadore zibilak J. Ybarra BPDko presidente izendatu zuen 1947ko maiatzean. 1939tik presidente izandako J. L. Goyoaga kargutik kendu zuten, estatuburuzagitza Juan de Borbóni zegokiola adierazi zuelako zuzenketa bidez, Gorte frankistetan «Ley de Sucesión» delakoa eztabaidatu zenean 1947ko apirilean.⁶⁵² Dena dela, presidente berria, ideologia eta gizarte jatorri berekoa zen. J. Ybarra gerrako elbarria zen, *Mi diario de la guerra de España* (1941) liburuaren egilea. Ordurako eskarmentu handia zuen hala zinegotzi nola diputatu gisa. Eskuindar espainolista porrokatua izan arren, kontzertu ekonomikoa berreskuratzeko egin zituen ahaleginek kargurik gabe utziko zuten. 1947ko abuztuaren 21ean egin zuen lehen adierazpen publiko deserosoa, E. Bilbao Gorte frankistetako presidentearen eta eta lau ministroen aurrean.⁶⁵³ Tokiko agintarien artean, Bizkaiko gobernadore zibil eta militarra, Bilboko alkatea edota J. F. Lequerica zeuden. Ez zuen etsiko eta 1949an berriro zituen adierazpen publikoak eta 1950eko azaroan kargutik kenduko zuten (*La Gaceta del Norte* 1947-08-22; Agirreazkuenaga et al. 2007: 1297-1304; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 341-349; Alonso Olea 2014: 533-535; Chacón Delgado 2015).

J. Ybarra, bestalde, historialaria eta J. Urquijo euskaltzainaren iloba zen. Bizkaiko diputatu gisa, JCVko kide izendatu zuten 1940an. J. Urquijorekin 1941-1947 artean izandako korrespondentzian kultur gintzaz sarri aritu ziren, baina inoiz ez Euskaltzaindiaz. Osabaren eraginari esker, J. Ybarra Real Academia de la Historia-ko kide laguntzaile izendatu zuten 1942an.⁶⁵⁴ Ondoren, JCVrekin elkarlanean, *Boletín de la Comisión de*

⁶⁵¹ Adibidez: «[M]ientras los vencidos no contaron con cabezas privilegiadas que prestaran decoro y dignidad a sus aspiraciones –lo que en frase feliz definió un ilustre vizcaíno diciendo que sólo los bobos estaban con los bizcaitarras-, en cambio al culto a la Patria española se sumaron las mentes más lúcidas de Vizcaya, las que formaron la intelectualidad de Bilbao, que tanto influyó, andando los años en el renacer patrio que se debe al Caudillo Franco que lo dirigió inspirado por la Gracia Divina. Estas gentes vizcaínas de mentes privilegiadas no pudieron sumarse a la causa secesionista porque, como dijo en cierta ocasión en el Congreso de los Diputados uno de los que pertenecían a la referida élite, don José Félix de Lequerica, se lo impedía un cinturón de castidad intelectual» (Ybarra y Bergé 1947: 574).

⁶⁵² Euskaltzaindian oso adi jarraitu zituzten BPDko gorabeherak. R. M. Azkueren artxiboan, adibidez, agiri bat gordetzen da 1946ko urtarrilean izendatutako hogeit hamar diputatu zerrendarekin: J. L. Goyoaga, G. Laiseca, R. Urquieta, M. Olaso, R. Real de Asúa, J. Serrano, J. A. Renedo, F. Echeagaray, R. Goicoechea, M. Souto, F. Oleaga, M. Loredó, J. Orbegozo, R. Angulo, F. Igartua, G. Chávarri, J. Uribarrena, V. Rojo, A. Agustino eta S. Sotomayor (ABA-RMA: R. M. Azkueren «Nuestros diputados provinciales en 1946», [1946]).

⁶⁵³ J. A. Suances (Industria eta Merkataritza), R. Fernández Cuesta (Justizia), E. González Gallarza (Abiazioa) eta C. Rein Segura (Nekazaritza).

⁶⁵⁴ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1942-05-09.

Monumentos de Vizcaya berpiztu nahi izan zuen, D. Areitiok zuzenduta. Areago, J. Urquijori euskal diputazioek Bilbon 1942an egindako batzar baten harira, EI-SEV berpizteko aukeraren berri eman zion:

Este cambio de impresiones dio lugar a que los representantes de las Diputaciones manifestaran unánimemente su interés de que la Sociedad de Estudios Vascos reanudara sus actividades. Yo les hice saber como tú perseguías el propósito de dar nueva vida a la Revista, pero que en cambio de la Sociedad creía haberte oído hablar en términos que me dieron a entender que no veías fácil volviera a resurgir. De todas formas ya sabes que el ambiente en las Diputaciones es favorable, por si crees oportuno el iniciar alguna gestión.⁶⁵⁵

1943an, BPDko kultur aldizkaria JCVren buletin gisa agertuko zela adierazi zion, eta J. Urquijoren gomendioari jarraituta, D. Areitioren ordeztu, P. Garmendia izango zela zuzendari.⁶⁵⁶ 1943ko apirilean, J. Ybarra mahaiburu izan zuen JCVren batzarrak, P. Garmendia J. Urquijoren lankide ohia izendatu zuen JCVko idazkari nagusi eta buletineko zuzendari.⁶⁵⁷ J. Ybarrak berariaz ez aipatu arren, EI-SEV berpizteko saioak porrot egiten zuela ikusita, 1918an diputazioek sortutako erakundearen arabera moldatu nahi zuen JCV.

Hortik aurrerako gutunetan, ordea, ez ziren gehiago JCVko eta buletineko konturik gehiago aipatu. J. Ybarrak ez zuen arazorik esplizituki aipatu, baina datari erreparatuta, oztupo nagusia 1944ko urrian izendatutako Bizkaiko gobernadore zibil berria izan zela uste dut. Genaro Riestrak (1905-1957) bere kargutik probintziaren kontrol estua abiatu zuen. Jaiotzez Asturiaskoa, gazterik Kubara emigratu eta handik Burgosko gobernu matxinoari laguntzen aritu zen. Habanako kontsula izan ondoren, Bilbora etorri eta gobernadore zibila izan zen 1957an hil arte. Falangista sutsua, antiabertzale erabatekoa izateaz gain, gainerako eskuindarrekin ere talka egin zuen ideologikoki (Alonso Olea 2014: 532).

J. Ybarra BPDko presidente berriak, kontzertu ekonomikoaren gabezia leuntzeko egin zituen gestioen artean, Bizkaiko «Escuelas Nacionales de Barriada» direlakoak babesteko patronatu bat sortu zuen. Ahaleginak lehenagotik zetozen, J. L. Goyoaga

⁶⁵⁵ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1942-07-13.

⁶⁵⁶ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1943-01-12.

⁶⁵⁷ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1943-04-04.

presidente zen garaitik. 1942an Hezkuntza Nazionaleko ministerioari komunikatu luze bat aurkeztu zitzaion, 1937tik auzo eskolek izandako gainbehera materiala salatzeaz gain, pedagogia elebiduna ez erabiltzeak zekarren porrota adierazten zuena. Estatuarengandik zenbait baliabide berreskuratuta, 1948tik aurrera, *BOPV*k argitaratutako irakasle lanpostu deialdietan, euskara jakitea meritu izan zen (Ybarra y Bergé 1974: XIII; Arrien 1986: 638-640).⁶⁵⁸

8.4 Eusko-Ikaskuntzaren ondare tragikoa

Pedro Garmendia (1890-1945) Saran (Pirinio Behereak) jaio eta Frantzia bizi izan zen Renée Garmendia emaztearekin 1932 arte. *Gure Herria* aldizkariaren eta Baionako Musée Basque-ren lankide garrantzitsua izan zen, idazle-marraskilari eta artxibozain gisa. EBeko autonomismoarekin bat eginda, berak itzuli zuen frantsesera Lizarrako Estatutua *Gure Herrian*: «La mise en vigueur du présent Statut unifierait les rapports de l'Etat Basque avec l'Espagne et ne ferait sûrement qu'augmenter la prospérité des quatre provinces qui sont déjà en tête de l'Espagne à tous les points de vue» (Garmendia 1931: 526).

EI-SEVek ikusi zuenean A. Apraiz idazkari nagusiak zailtasunak zituela koordintzaile lanak burutzeko, P. Garmendia idazkari kudeatzaile izendatu zuen 1932an. 1935ean 10.000 ptako soldata izan zuen, erakundeko altuena, A. Apraizen gainetik. Donostiara bizitzera aldatu zen emaztearekin, EGZaren ondorioz 1936ko irailean Sarara ihes egin zuen arte. Besteak beste, J. M. Barandiaran erbesteratuarekin eta Alduden zegoen G. Lacomberekin egon zen harremanetan. Bizkaiko erresistentziak Bilboren suntsitzea ekarriko zuela uste zuen (Barandiaran 2009: 494, 497, 533). Saratik hainbat gutun idatzi zizkion J. Urquijori, EGZaren errua abertzaleei egotzi eta Donostiara itzultzeko baimena lortzeko asmoarekin.⁶⁵⁹ Badirudi J. M. Arellano gobernadore zibilak, purga politikoetan buru-belarri sartuta, «sektarismoz» ukatu egin ziola baimena, P. Garmendiaren emazteak salatu zuenez.⁶⁶⁰ Bere ordeztu, A. Urbina monarkikoak hartu zuenean kargua, muga zeharkatu eta Gipuzkoako CAPen EI-SEVek zuen kontutik

⁶⁵⁸ EAJ-PNVren buletina salatu zuenez, ordea, Bizkaiko auzo eskola askok atarian zituzten euskarazko idazkunak ezabatu egin zituzten eta Ascension Liaño lehen hezkuntzako ikuskari falangistak debekatu egin zien Bizkaiko auzo eskoletako irakasleei euskaraz egitea ikasleei (*Alderdi* 1950-09).

⁶⁵⁹ KMK-JU: P. Garmendiaren gutunak J. Urquijori, 1936-1937.

⁶⁶⁰ KMK-JU: R. Garmendiaren gutuna J. Urquijori, [1937ko urria] (cf. Luengo Teixidor 1990: 84-89).

atzeratutako soldatak hartzeko baimena eman zion, bide batez erakundearen jarraitasunari leiho bat irekitzen ziona:

Visto el escrito elevado por Don Pedro Garmendia Goyetche en su calidad de Secretario de la Sociedad de Estudios Vascos en solicitud de mi expresa autorización para que, con cargo a los fondos que dicha Sociedad tiene en la Caja de Ahorros provincial puedan librarse cantidades que permitan el abono de los haberes atrasados y vigentes de dicho Sr como tal Secretario, ya que no existe otra medida de incautación de dichos bienes ni tampoco prohibición que la orden de clausura de los locales de dicha Sociedad dada por mi antecesor Don José María Arellano y vistos los informes emitidos por la Delegación provincial de F.E.T y de las J.O.N.S. sobre el carácter eminentemente apolítico de la Sociedad de Estudios Vascos que únicamente persigue estudios de lingüística y folklore del país vasco: así como los informes personales del Sr Garmendia, afecto al Glorioso Movimiento Nacional:

He acordado acceder a los deseos de dicho Sr Don Pedro Garmendia Goyetche para que, con cargo a los fondos que la Sociedad de Estudios Vascos tiene depositados en la Caja de Ahorros provincial de Guipúzcoa, pueda percibir los haberes que devengados tiene y los que devengue en lo sucesivo como tal Secretario.⁶⁶¹

Hala ere, P. Garmendia Bizkaira urrundu egin zuten. J. Urquijoren eta J. M. Oriol alkatearen aldeko txostenei esker, 1940an lanpostua lortu zuten Bilboko Udalean.⁶⁶² 1941ean F. Arocenaren bidez, debeku formalik ezean, EI-SEV berpizteko itzaropenari eusten zioten, baina erakundeak hibernazioan jarraituko zuten. Urte horretatik aurrera T. Pero-Sanz eta haren ondoko J. Zuazagoitia alkateen idazkari pertsonal izendatu zuten.⁶⁶³ J. Ybarraren eskuineko esku gisa, Bilboko Udaleko artxibozaina izateaz gain, hainbat idazkaritza eraman zituen: BPDko Comisión de Monumentos de Vizcaya, JCV edota Bizkaiko RSVAP. J. Urquijorengana jo zuten P. Garmendia ere Real Academia de la Historia-ko laguntzaile izenda zezaten (Agirreazkuenaga 1998: 122-123).⁶⁶⁴

1944ko irailean J. Ybarra-P. Garmendiak elkarrekin idatzitako *Torres de Vizcaya* (1946) liburuarendako hitzaurrea eskatu zioten J. Urquijori.⁶⁶⁵ Besteak beste, *CE-PI*ko

⁶⁶¹ KMK-JU: Gipuzkoako gobernadore zibilaren ofizioa P. Garmendiari, 1937-10-08.

⁶⁶² KMK-JU: P. Garmendiaren gutuna J. Urquijori, 1940-07-28.

⁶⁶³ KMK-JU: P. Garmendiaren gutunak J. Urquijori, 1941-1942.

⁶⁶⁴ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori eta P. Garmendiaren curriculum, 1943-08-25.

⁶⁶⁵ KMK-JU: J. Ybarraren gutuna J. Urquijori, 1943-09-18.

«Sección Vascongada y Cultural» delakoa sortu eta idatzi zuen 1944ko urtarriletik, baina ezustean hilko zen 1945ko azaroaren 29an. J. Ybarrak egilekidearen omenez idatzitako hitzaurrean, J. M. Seminariok idatzitako nekrologia jaso zuen, P. Garmendiaren nafar-lapurtera «gozoa» goresten zuena, euskarazko pasarte batzuekin (*CE-PV* 1945-12-02; Ybarra y Bergé & Garmendia 1946: 9-13).⁶⁶⁶

Uste izatekoa da P. Garmendia hil izan ez balitz, bera izan zitekeela J. M. Seminario baino hautagai egokiagoa E. Esparzak utzitako aulkia betetzeko. Bestek beste, EI-SEVeko euskarazko gaitasun agirien aztertzaile izan zen 1934an. Nolanahi den, adiskidearen heriotzak asko hunkitu zuen BPDko presidentea. *La obra de Pedro de Garmendia* (1950) antologia prestatu eta JCVren bidez argitaratu zuen. Hitzaurrean, omenduaren espainoltasuna aldarrikatzearen, ukatu egin zuen Frantzian jaiotakoa zenik, eta Ph. Veyrinek 1931n *Bulletin du Musée Basquen* P. Garmendiaz idatzitako zenbait pasarte zentsuratu zituen, politikoki zuzenak ez zirelako. P. Garmendiak aita Nafarroakoa eta ama Frantziakoa zituen, eta J. Ybarrak jatorri bikoitz hori baliatu zuen euskaltasun frankista eta antiseparatistari bide emateko:

De todos es conocida la personalidad de Pedro de Garmendia, al menos de todos los que amamos al país vasco y hemos acusado afanes artísticos o de erudición relacionados con la tierra en que nacimos, que es la de nuestros mayores; aquí en Vizcaya, lo mismo que en las restantes provincias vasco-españolas, un pedazo del gran hogar que es para nosotros nuestra patria, España; y en la vertiente contraria del Pirineo, en la zona vasco francesa, un pedazo de la caballerosa Francia, más caballerosa para nosotros en estos momentos porque la vemos postrada, motivo en el que debemos hallar la explicación de que haya allí gentes que eleven su voz contra la paz y la relativa felicidad que la postguerra permite, en la renacida España (Ybarra y Bergé 1950: 5).

8.5 Bizkaiko «Zumárraga» aldizkaria

«Delegación Provincial de Educación de FET-JONS de Vizcaya» delakoaren izenean agertu zen *Zumárraga* aldizkaria 1948ko ekainaren 10ean, bereziki institutu irakasleei zuzenduta. Hasieran orrialde gutxiko buletin oso xumea izan zen. Lehen aro horretan bost zenbaki agertu ziren: 1948ko ekainean, 1949ko urtarril-otsailean, 1949ko abenduan, 1950eko apirilean eta 1950eko uztailean. 1952-1956 artean, ordea, urtekari

⁶⁶⁶ KMK-JU: R. Garmendia alargunaren gutuna J. Urquijori eta J. M. Seminarioren *CE-PV*ko artikulua, [1945-12-02].

gisa *RIEV* ordezkatzeko izan ziren anbizio gehiagoko kultur aldizkarien artean kokatu zen. J. Ybarra presidente zuen BPDak diruz lagundu zuen *Zumárraga* aldizkariaren sorrera (Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 351).

JCVren jardueraz informazio ugari eman zuen aldizkariak lehen aroan. *Zumárragaren* 1948ko lehen zenbakia J. Ibáñez Martín Hezkuntza Nazionaleko ministroaren aipurekin abiatu zen. Aldizkariari izena eman zion Juan Zumárraga (O.F.M.) Mexikoko lehen artzapezpikuaren «konkista espiritual» goratu zuen, euskal espainolen eredu gisa. Ondoren, J. Ybarrak JCVk hainbat pertsonaia historikoren inguruan antolatutako ekitaldiak aipatu zituen: J. Zumárraga bera, V. Berrio-Ochoa edota M. Cervantes (Zumárraga 1948). E. Esparza euskaltzainak, halaber, Z. Vizcarra-R. Maezturen «Hispanitate» kontzeptuak Arrazaren Eguna ordezkatzea eskatu zuen, Espainia frankistaren inperialismoa hobeto ezaugarritzen zuelakoan:

¿Por qué, pues, ni a qué denominar este día de la Raza? En todo caso, el día del final de las razas: porque ese día empiezan a perder la dureza de sus contornos etnográficos y las costras fisiológicas que las separan, para integrarse en una inmensa comunidad espiritual regida por el Evangelio y dentro de un Imperio del que han de recibir una civilización. Gentes diversas en piel, color, lenguaje; pueblos distintos y separados por tierras diferentes son los que se incorporan a España, que con ellos realiza lo que el gran Cardenal Gomá dice su «obra clásica» (Esparza 1948: 6)

Zumárragaren 1949ko bigarren zenbakian, G. Riestra gobernadore zibilari diru laguntza eskertzeaz gain, JCVk antolatutako hitzaldien berri eman zuten, «especialmente sobre aquellas materias que traten de la aportación vascongada a la obra común de la nación española». Bilboaldeko frankisten ideologia ongi adierazten zuten hizlariak: Banco de Bilbao-ko M. Eizaga, L. Serrano-J. Pérez de Urbel beneditarrak, Cámara de Comercio-ko F. Ygartua edota J. L. Goyoaga-J. Ybarra diputatuak (Zumárraga 1949: 3).

F. Ygartuaren *La tradición y el progreso vizcaínos al servicio de la unidad nacional*, adibidez, kontzertu ekonomikoa berreskuratzeko BPDak egindako ahaleginen artean kokatu zen. F. Hayek Austriako ekonomistaren *The road to serfdom* (1944) liburu «neoliberal» izan zuen oinarri teoriko. Bizkaiko ogasun ministroek Espainiaren historian izandako garrantziaz hitz egin zuen. Monarkiaren Berrezarpenaren aroa goratu eta autonomismoa salatu egin zuen. JCVko kidearen ustez, EGZa ezinbestekoa izan zen

separatismo «antihistorikoa» ezabatzeko (Ygartua y Landecho 1947: 26).⁶⁶⁷

Euskararen alorrean J. Caro Barojaren «La lengua y la etnología vasca y los problemas lingüísticos y etnológicos de la prehistoria europea» (1944-03-31) gisako hitzaldiak antolatzeaz gain, Euskaltzaindiari emandako diru laguntza nabarmedu zuten: «Todos los años, la Academia de la Lengua Vasca, para restablecer los Estudios del vascuence, es subvencionada con 5.000 pesetas». Ildo berean agertu ziren, 1941eko «Estudios Vascongados» ikastaroa, BPDko Comisión de Monumentos de Vizcaya-rekiko elkarlana, eta bereziki CSICek 1944ko urrian JCV probintzia ordezkari izendatu izana. Hain zuzen, L. Pericot CSICeko buruordearen hitzaldia antolatu zuten, Bizkaiko arkeologiaz eta Pirinioetako historiaurreaz 1949an (Zumárraga 1949: 3-5; 1950b: 19).

1949ko *Zumárragaren* hirugarren zenbakian, besteak beste, J. Urquijoren omenez idatzitako artikulua zetorren. JCVk gonbidatuta, bestalde, J. M. Pemán RAEko buru ohiak hitzaldia eman zuen Bilboko Arriaga antzokian 1949an (Zumárraga 1950b: 18). J. M. Seminario euskaltzainak «El mito de *Aitor*» artikuluan izen mitologiko hori barregarri utzi zuen, J. A. Chahok asmatu eta N. Villosladak hedatutako «faltsukeria» zelako. Abertzaleen ezjakintasuna eta fede txarra salatu zituen:

Pero el separatismo de Chaho es muy original. Quiere el separatismo para España, pero no para su país, acerca del cual, aunque acendradamente vasco, se pronuncia por un centralismo supernapoléonico. En esto no es más que uno de tantos exponentes de la política de las grandes potencias decimonónicas, tan dadas a cimentar su medro propio y su sólida unidad sobre el ficcionamiento y la ruina de los pueblos débiles o debilitados (Seminario de Rojas 1949: 15).

Falangismo belizista eta inperialista anakronikoaren erakusgarri zen J. M. Seminarioren «Pisar fuerte y mirar de frente» artikulua, 1950eko *Zumárragan* agertua. Gerra Hotzaren testuinguruan, Aro Modernoko erregimentu hispano-germanikoen fanatismoa ohoratu zuen, AEBeko pragmatismo materialista mespretxatzearen

⁶⁶⁷ JCVak antolatutako beste hitzaldi asko argitaratu ziren 1940ko hamarkadan: L. Serranoren *Orígenes del Señorío de Vizcaya en época anterior al siglo XIII*, J. Ybarraren *Datos relativos a Simón Bernardo de Zamácola y la Zamacolada*, J. L. Goyoagaren *D. Francisco de Quevedo y su significación en la literatura española*, M. Eizagaren *Un proceso en el Libro del Buen Amor*, R. Pinedoren *La Cruz de Durango*, M. Ciriquiainen *Monografía histórica de la Noble Villa y puerto de Portugalete*, A. Ferrerren *Monografía de las cavernas y simas de la provincia de Vizcaya* edota D. Areitioren *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya*. Bizkaiko Foru Berriaz gain, 1950 arte beste egile ideologikoki orbangabe askoren lanak argitaratu zituzten: J. E. Delmas, I. Núñez, B. Taracena, A. Rodríguez Herrero, T. García Barberena, J. Simón, C. Figuerido, E. Guinea, J. M. Zuloaga, R. M. Azkue, P. Garmendia, J. M. Areilza edota Marqués de Lozoya.

(Seminario de Rojas 1950: 7). JCVk 1949an beste zenbait hitzlari gonbidatu zituen: J. Landazabal Nuestra Señora de Begoña-ko erretore antiabertzalea, Marqués de Lozoya Arte Ederretako zuzendaria edota J. Urquijok gonbidatutako Austriako W. Reinhart. Fernando Echegaray legegizon eta JCVko zuzendaritzako kideak aurkeztu zituen W. Reinhardt-en «Misión histórica de los visigodos en España», J. M. Azaolaren edota J. Caroren hitzaldiak. Hura C. Echegarayren seme eta B. Echegaray euskaltzainaren iloba zen (Zumárraga 1950a: 14; 1950b: 17-19).⁶⁶⁸

1952an hasitako *Zumárragaren* bigarren aroaren zuzendaria Fermín García Ezpeleta (1899-1975) izan zen, Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren Bizkaiko delegatua. Iruñeko eskola irakasle zela, *Geografía de Navarra* (1934) testuliburu kontserbadorea argitaratu zuen. Liburuaren 1944ko edizioan frankismoaren zama ideologikoak lekua hartu arren, euskararen aldeko jarrerari eutsi zion: «El vascuence o euskera, que va perdiendo terreno con el tiempo, es una de las lenguas más antiguas que se conocen. Su cultivo que en nada implica aversión al castellano debiera hacerse con cariño por ser preciosa herencia de nuestros antepasados» (García Ezpeleta 1944: 29). Nafarroatik Bilbora aldatu eta *CE-PV* egunkariaren erredaktore izateaz gain, 1945-1948 artean udaleko zinegotzi ere izan zen, J. Zuazagoitia alkatearekin (Soto Alfaro 2006; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 252-254).

Zumárragan, besteak beste, Centro de Estudios Vascos de FET y las JONS-ek antolatutako hitzaldiak argitaratu zituzten: A. Tovar («La cátedra Larramendi de la Universidad de Salamanca»), J. Gorostiaga («Topomimia de Vizcaya»), J. Zuazagoitia («Pintura vasca»), I. Urquijo («La nobleza vizcaína a través de los Fueros»), M. Grande («Problemas y métodos de la lingüística vasca») eta J. Ortega («Orígenes y naturaleza de Vizcaya»). G. Riestra Bizkaiko gobernadore zibilak ez zuen aukera galdu falangismoa goratuz errealitatea ukatzeko:

La Falange vizcaína ha encauzado en su justo marco la preocupación por el idioma. El Centro de Estudios Vascos de la Falange —a quien desde aquí quiero rendir público homenaje por su labor— ha colocado el vascuence, tesoro español, y los estudios en torno

⁶⁶⁸ Fernando Echegaray Echegarayk (1898-1964) administrazioan bete zituen eginkizunen artean, udal funtzionarioen depurazio politikoa nabarmentzen da. J. M. Areilza Bizkaitik aldendu ondoren, JCVren buru efektiboa izan zen. F. Echegaray diputatu izendatu zuten 1946-1948an eta, bestalde, N. Oleaga euskaltzainarekin harremana izan zuen, Bizkaiko foru zuzenbidea bildu eta Espainiako Kode Zibileraren egokitzeko prozesuan (Agirreazkuenaga & Urquijo 2008; Urrutia Badiola 2013b; Alonso Olea 2014; Ipiña Bidaurreaga 2014).

a la lengua, a una altura que jamás tuvieron antes (Riestra 1954: 9).

8.6 Juan Miguel Seminarioren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1949-06-25)

Euskal kultura eta hizkuntza bereziak, historikoki, diskurtso foruzalearen osagai oso garrantzitsuak izan ziren. EGZak eragindako traumen ondoren ere, Bizkaiko zenbait monarkiko frankistek ez zioten uko egiten, maila erretorikoan izanagatik, euskal kultura eta hizkuntzari, kontzertu ekonomikoari uko egiten ez zioten bezalaxe. Euskal kultura eta hizkuntza espainolismorako berreskuratzea, J. Urquijo-R. M. Azkueren itzalean, tokiko zenbait agintari frankisten gogoan zegoen. Egitasmo horretan, Frantzia-Nafarroako dialektoek jeltzaleen bizkaitarrismoak kutsatu gabeko eremuak ziruditen. J. M. Seminario euskaltzain izendatzeak, J. Ybarrak ez ezik, E. Esparzak edota Bizkaiko gobernadore zibilak begi onez ikus zezaketen.⁶⁶⁹ Izendapenari eman nahi zitzaion oihartzunaren erakusgarri, J. M. Seminariorena izango zen gerraondoko lehen sarrera ekitaldi publikoa. 1949ko maiatzean euskaltzainburuari idatzi zion, sarrera hitzaldiaren gaia aurkezteko:

Hablar sin erderismos —ni sintáctico ni léxicos— de temas de lo que un poco pedantescamente pudiéramos llamar «alta cultura», y al mismo tiempo hacerlo con un léxico perfectamente inteligible por todos. No solamente por los académicos sino por cualquier euskeldun de cepa. Claro es que como representante del Alto Navarro, mi discurso será en ese dialecto y, que, naturalmente, de propio intento, he empleado algunos modismos característicos.⁶⁷⁰

Gutunean adierazi zuenez, bizimodu desordenatua zeraman Nafarroako kazetariak. Eguerdiko ordu bietan esnatu eta goizeko bostetan oheratzen zen, egunkariko lanak azken unera arte atzeratuta. Halaber, Ph. Veyrinen *Les basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre* (1942) itzultzen eta euskal literaturaren historia bat idazten ari omen zen. Badirudi euskaltzainak arduratuta zeudela J. M. Seminarioren luzamenduekin. Nolanahi den, pozik onartu zuen F. Krutwigek erantzuna ematea, baina bi hizlarien deitura erdaldunak izan zezakeen efektu negatiboak arduratzen zuen:

⁶⁶⁹ F. Krutwig euskaltzain gaztearengan ere, Bizkaiko oligarkiaren elitismo kulturalaren oihartzuna sumatzen zen: «¡Cuando Bilbao era Atenas!» errepikatzen zuen J. Ybarrak behin eta berriz *Política nacional en Vizcaya* (1947) liburuan, eskuin muturreko intelektualak goratzeko.

⁶⁷⁰ ABA-RMA: J. M. Seminarioren gutuna R. M. Azkueri, 1949-05-17.

Me parece muy bien la confirmación del encargo de contestarme en la persona del señor Krutwing [sic]. Nadie más adecuado que él, pues quien estableció contacto conmigo desde el primer momento. Una sola duda tenía —duda que le expuse al interesado desde el primer momento— y era la del contraste de los ap[er]llidos de ambos con el nombre y la finalidad de la Institución. No me negará usted que se presta al humorismo... Pero, desechado esto —creo que era un deber mío el hacer esta observación— desde todos los restantes puntos de vista, me parece perfecto.⁶⁷¹

J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiarekin, beraz, hamarkada osoan izandako soslaia pribatuari amaiera eman nahi zitzaion, Euskaltzaindiari agerikotasuna emanaz. Horrek, noski, aginte politikoaren kontrola ere modu nabarmenagoan erakustea zekarren. Euskaltzainburuak maiatzaren 31n baimena eskatu zion JCVri, sarrera ekitaldia BPDaren jauregian egin ahal izateko.⁶⁷² JCVk bideratu zuen ekitaldia egin ahal izateko baimenaren eskea. Hezkuntza Nazionalako ministerioaren «Subsecretaría de Educación Popular» delakoaren Bizkaiko delegatuak (Bernardo Bureba) ekainaren 23an baimenaren berri jakinarazi zion JCVko idazkariari.⁶⁷³ Idazkaria E. Calle idazle espainolista zen, gobernadore zibilaren gertukoa, eta Euskaltzaindia kontrolatzeko saioak gogortuko zituen. P. Garmendia hil ondoren, JCVko idazkari izendatu zuten 1947ko maiatzaren 13an.⁶⁷⁴

Ekainaren 20an E. Callek ekitaldian parte hartzeko gonbita bidali zien J. Ybarra BPDko presidenteari eta beste hamabost agintariri.⁶⁷⁵ Ezin etorria adierazi zutenen artean zeuden Delegado Provincial de Trabajo de Vizcaya zena, edota Bizkaiko gobernadore militarra.⁶⁷⁶ Bilboko prentsak ere ekitaldia iragarri zuen (*Hierro* 1949-06-22; *CE-PV* 1949-06-25). N. Oleaga idazkariak euskaltzainei bidali zien batzar deian, halaber,

⁶⁷¹ ABA-RMA: J. M. Seminarioren gutuna R. M. Azkueri, 1949-05-17. Kontuan hartu behar da adinagatik J. M. Seminario zela F. Krutwigi gehien hurbiltzen zitzaion euskaltzaina. Beste guztiak XIX. mendean jaiotakoak ziren.

⁶⁷² BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna JCVri, 1949-05-31, Junta de Cultura C-40 -01-.

⁶⁷³ ABA-EUS/ BFAH-EC: Espainiako Hezkuntzako Nazionalako ministerioaren ofizioa JCVri, 1949-06-23, Junta de Cultura C-40 -01-.

⁶⁷⁴ BFAH-EC: BPDko presidenteari ofizioa JCVri, 1947-05-19, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12. Esteban Calle Iturrino (1892-1977) Bizkaiko PCEren sortzaileetakoa izan arren, diktadura primorriveristan Unión Patriótica-ra igaro eta Bilboko Udaleko zinegotzi kontrairaultzailea izan zen EBEn eta EGZe (Krutwig 1991: 131-132, 134; Amézaga 1993; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 119, 149-151).

⁶⁷⁵ BFAH-EC: E. Calleren gutunaren kopia, 1949-06-20, Junta de Cultura C-40 -01-.

⁶⁷⁶ BFAH-EC: L. Nozal Lopezen eta R. Rodríguez Llamasen gutunak JCVri, 1949-06-25 & 1949-06-22, Junta de Cultura C-40 -01-.

ekitaldiaren garrantzia nabarmendu zuen: «Batzar ofetan aundikiro ospatuko da Joan Migel Seminario de Rojas euskaltzain bañi jaunaren sañera, ta beste ardura aundiko arazo batzuk bere erabiliko dira. Etofi, bada, ¡otoi!, uts gabe». ⁶⁷⁷ BPDko jauregian JCVk zuen gelan J. M. Seminarioren ageriko sarrera ekitaldia egin zuten 1949ko ekainaren 25ean. Jendaurreko hitzaldien aurretik Bizkaiko akademikoak baino ez ziren bildu: R. M. Azkue, P. Zamarripa, F. Krutwig, N. Oleaga eta J. M. Seminario. ⁶⁷⁸ Batzar agiriak dioenez, F. Krutwigek ALVren jardun motela gaitzetsi zuen:

Krutwig jaunak dino bere eritziz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkeru, euskerearentzat onura gitxi datorrela-ta. Onezaz adierazoten dauz zertzelada batzuk. Aintzakotzat artu da Krutwig[en] asmo ori ta urrengo batzañerako gai onezaz txosten bat ekarri dagiala erabagi da (ALV 1982: 5).

F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951n gutunez adierazi zion batzar horretan euskaltzain guztiek bi puntu onartzea lortu zuela, nahiz eta agirian ez zen islatu. Alde batetik, erbesteratutako euskaltzainek aulkiak berreskuratu zituzten eta, bestetik, berriz deituko zituzten batzarretara erbesteko abertzaleak nahiz frantses herritarrak (Iztueta & Iztueta 2006: 461). Batzar agiriak jasotzen duenez, JCVren ALVko ordezkari itza ordutik aurrera J. M. Seminariok eramango zuen, J. Irigoyenen orde. ⁶⁷⁹

Osoko batzarraren ondoren, ekitaldi irekiari hasiera eman eta gelako atea zabaldu zitzaizkien tokiko agintari frankistei: G. Riestra gobernadore zibila, J. Ybarra BPDko presidentea eta J. Zuazagoitia Bilboko alkatea. N. Oleaga idazkariak, ezin etorriak jakinarazi zituen: A. Irigaray, ⁶⁸⁰ I. M. Echaide ⁶⁸¹ eta B. Echeagaray euskaltzainak, J. M. Arellano NFDko presidente berria, ⁶⁸² Berako alkatea, ⁶⁸³ Bilboko Frantses Eskolen zuzendaria ⁶⁸⁴ edota Erresuma Batuko kontsula. ⁶⁸⁵ J. M. Seminariok «Itz-barri sortea izkuntzetan eta batez bere euskerean» izan zuen hizpide hitzaldian, eta erantzuna F.

⁶⁷⁷ ABA-EUS: N. Oleaga idazkariaren batzar deia, 1949-06-22.

⁶⁷⁸ RSVAPEk J. Urquijori Azkoitian egindako omenaldia bi egun lehenago izan zen. Gainera, Bilboraino joatea kostazen zitzaion, hanka hautsiaren ondorioak jasaten zituelako (KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Carori, 1949-06-15).

⁶⁷⁹ Ikusi dugunez, 1943tik J. Irigoyenek ez zuen batzarretan parte hartu, eta ALVk aurrerantzean ez zuen euskaltzaintzat hartuko. 1950Eko hamarkadan argitaratu ziren euskaltzainen zerrendetan, adibidez, J. M. Seminario edota E. Esparza agertuko ziren, baina ez J. Irigoyen (cf. ALV 1953; 1958).

⁶⁸⁰ ABA-EUS: A. Irigarayren telegrama R. M. Azkueri, 1949-06-25.

⁶⁸¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren telegrama R. M. Azkueri, 1949-06-24.

⁶⁸² ABA-EUS: J. M. Arellanoren idazkariaren telegrama J. Ybarrari, 1949-06-25.

⁶⁸³ ABA-EUS: Berako alkateraen gutuna R. M. Azkueri, 1949-06-24.

⁶⁸⁴ ABA-EUS: J. Hazera-ren txartela R. M. Azkueri, 1949-06-20.

⁶⁸⁵ ABA-EUS: H. McErlean-en txartela R. M. Azkueri, 1949-06-21.

Krutwigek eman zion.

Hurrengo egunetan prentsa frankistak Euskaltzaindiaren ekitaldiaren berri eman zuen.⁶⁸⁶ *CE-PV* egunkariak, noski, azalean eman zuen berria, bi argazkirekin. Entzuleen artean, orain arte aipatutakoez eta JCVko kideez gain, Berako alkateordea, Joaquín Caruncho Bizkaiko polizia burua, itsas komandantziaren ordezkariak eta beste agintari frankista batzuk zeuden. Ekitaldiak soslai politiko nabarmena izan zuen, are gehiago Nafarroako J. M. Seminariok ematen zion «laurac-bat»iar kutsuarekin. Euskaltasuna eta espainolismoa uztartzeko propaganda saio garbia zen egunkariko berria bera:

Seminario es un vasco perfecto. Toda su persona rezuma vascongadismo. Cuando para este chapelaundi del Bidasoa, parece una realidad y un símbolo. Si lo encontráramos en Calcuta y no le conociéramos, no tendríamos inconveniente en dirigirnos a él en vascuence, seguros de no equivocarnos. Su esqueleto, su manera de andar, de meter las manos en los bolsillos, de recoger el mentón contra el pecho, de mirar tímidamente... todo delata al vasco de cepa. Sus reacciones vitales son también ejemplares. Su manera de comer, de hablar, de dar la mano, todo en él es vasco. Y como lo es de verdad, sin falsedades, sin pseudosentimentalismos, ni telarañas mentales. Seminario es un español cabal. Con qué justo y humano equilibrio conjugó ayer lo vasco, lo español y lo universal. Con qué sencillez elegante se movió en el resbaladizo campo de la filología. Con qué seguridad utilizó las ideas generales. Ayer, en la paz española, pudimos sentirnos orgullosos de nuestra raza y nuestra lengua, sin equívocos, sin torcidas y mezquinas interpretaciones. Y por ello nos sentimos seguros españoles. Españoles plenos que no renuncian a ningún valor de nuestro suelo ni de nuestra historia. De ahí que amemos el vascuence en la integridad de nuestro sentido español. ¡Qué bien sonó en nuestros oídos el vascuence vizcaíno de don Nazario Oleaga, el alto navarro de Seminario y el laburdano del señor Krutwing [sic]! ¡Con qué gozo sin reservas y sin resentimientos se nos inundó el alma del soplo ancestral de nuestro milenarismo idioma. Y todo porque un vasco cabal ingresó en la Academia del vascuence, con la misma naturalidad que en una casa de Vera (*CE-PV* 1949-06-26).

J. M. Seminariok sarrera hitzaldia lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eman zuen, hizkuntza bakoitzari salomonikoki ordu erdina eskainita. Izenik aipatu gabe, sabindar neologismo puristen aurka egin zuen: «Por ese camino se puede llegar a extremos verdaderamente demenciales, con grave daño, por diversos conceptos, para el

⁶⁸⁶ *La Gaceta del Norte* 1949-06-26; *La Voz de España* 1949-06-26; *Hierro* 1949-06-27.

vascuence» (*CE-PV* 1949-06-26). Euskaraz hitz egin eta herri literatura idatzi behar zen, hizkuntza hil ez zedin, baina kultura jasoa, erlijioa eta zientzia, ordea, erdararen eremu eskusiboak ziren:

La literatura científica requiere los grandes idiomas. Los idiomas hablados por muchos millones de personas, como el español, nuestro gran idioma nacional, representante y vehículo de una de la media docena de más grandes culturas de la Historia Universal. No es que en vascuence sea imposible tratar acerca de estas materias, es que sería un trabajo inútil. Inútil y hasta perjudicial, porque sería tanto como oponer obstáculos a la difusión de la cultura. Inútil, ya que con sólo un núcleo de medio millón de poseedores del idioma no se cuenta ni con las minorías cultas de la densidad necesaria para acometer dicha empresa e inútil en fin porque como consecuencia de todo lo dicho, desde el punto de vista económico, no serían posibles las ediciones de obras de alta ciencia y de alta cultura escritas en vascuence (*CE-PV* 1949-06-26)

Euskaltzaindiaren plataforma erabiltzea euskararen diglosia egoerari gorazarre mediatikoa egiteko, guztiz ezezaguna zen historian, eta oso nabarmen utzi zuen ALVren dependentzia politikoa. Hala ere, F. Krutwigek oso argi omen zuen *CE-PV*ren zuzendariordeak bete zezakeen eginkizuna erregimenaren aitzinean, euskararen presentzia publikoari zegokionez.⁶⁸⁷ F. Krutwigi Bizkaiko ekitaldiak gobernadore zibilarekiko ezagutza egiteko balio izan zion: «Posterior a la recepción me saludaba por la calle con Riestra, pero el que actuaba de enlace con el gobernador era Rojas» (Ibarzabal 1979: 54). Aginte frankistaren erakundetzean gobernadore zibilek bete zuten funtsezko eginkizuna kontuan hartuta, G. Riestra aurka ez izatea oso garrantzitsua izan zitekeen ALVrentzat. Zentsuraz, prentsa-propagandaz, herri ordenaz eta Movimiento-aren probintzia buruzagitzaz arduratzen ziren neurrian, tokiko agintari nagusiak ziren. Hala ere, 1948tik aurrera botere hori apur bat leundu zen, «Ley de Bases del Régimen Local» delakoarekin, eta aipatu dudanez G. Riestrak tirabirak izan zituen BPDko presidenteekin.

Erregimen barneko Euskaltzaindiaren eta bereziki F. Krutwigen jarrera posibilista kritikatu zuten erbesteko abertzaleek eta kolaborazionismo faxistatzat jo zuten. Frantziako erbestetik, N. Ormaecheak artikulua idatzi zuen *Gernika* aldizkarian F. Krutwig-J. M. Seminarioren aurka: «Cabe preguntarse por qué hay tantos académicos de estirpe germánica y falangista, dejando de lado a distinguidos hijos del País más

⁶⁸⁷ «[L]ogré abrir brecha en el frente de los enemigos del euskara. No fui acaso yo quien organizó la primera recepción en la Diputación con la entrada de Seminario. Cuando jamás se había celebrado en la Diputación una reunión de Sociedad del euskara» (EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

merecedores de esa elección» (Orixe 1949: 19).

J. M. Seminariori, esan bezala, erantzuna F. Krutwigek eman zion, baina Euskaltzaindiak buletinik ez zuenez, hitzaldia ezezaguna izan zen 1952an Guatemalako *Euzko-Gogoak* argitaratu zuen arte. F. Krutwigek era dramatikoan eman zion agurra, gustuko zuen sinbologia erabiliz, ALV ia ezkutuko elkarte bat balitz bezala. Euskararen etsai izengabeak lausoki aipatu zituen; berdin balio zezakeen abertzaleentzat edo frankistentzat. Jarraian F. Krutwigek agintarien aurrean, baina gutxik ulertu zuketan lapurtera klasikoan, euskarak zituen arazo larrienak izendatu zituen: «Lehenbizikoa: Litteratur-hizkuntza eztugu. Bigarrena: Euskaldun guztiontzako litteratur hizkuntza haur irakatsi beharr zuten eskolak' euskararentzat hersirik dagoz» (Krutwig 1952d: 29).⁶⁸⁸

Hitzaldian, ez zuen euskararen arazo horien irakurketa politikoa egin, baizik eta mende hasierako Frantziako protosoziolinguistikan oinarritu zen: Ch. Bally-ren *Le langage et la vie* (1913) edota A. Dauzat-en *La vie du langage* (1910):

Hunexegatik latinari buruz Dauzat Albertek dio; «Supprimez par hypothèse l'unité régulatrice de l'école, et, au bout d'un siècle ou deux les dialectes se seront formés dans le sein du français; on aura peine à se comprendre d'une province à l'autre. Dès que le maître d'école eut disparu dans la Gaule romaine avec les invasions des Barbares, le latin livré à lui même, provigna à l'infini et donna naissance à la multiplicité des patois actuels» (Krutwig 1952d: 30).⁶⁸⁹

F. Krutwigen diskurtsoan oihartzuna izan zuten A. Dauzaten beste argudio batzuk, adibidez, nazioarteko terminologiaz, literatur hizkuntzaren arauaz edota hizkuntz aldaketaz. Alemaniako «kultur hizkuntza»ren kontzeptua hezkuntzaz naturala baldin bazitzaion F. Krutwigi, Espainia-Frantziako testuinguruan operatiboagoa zen Frantziako «langue de civilisation» delakoa. Izan ere, LMGko euskaltzaleen adierazpenak

⁶⁸⁸ Jatorrizko testu mekanografiatuaren kopia bat, L. Villasanterena, Euskaltzaindiaren artxiboan gordetzen da. *Euzko-Gogoak* argitaratu zuen bertsioan, zenbait zuzenketa ortografiko-morfologiko egin zituzten, baina edukia bera da. ABA-EUS: F. Krutwigen erantzun hitzaldia J. M. Seminariori, [1949-06-25].

⁶⁸⁹ JLA-FK: BALLY, Charles (1926): *Le langage et la vie: linguistique générale et stylistique, mécanisme de l'expressivité linguistique, langage transmis et langage acquis: l'enseignement de la langue maternelle et la formation de l'esprit*. Paris: Payot. Egile horiek, seguru asko euskaltzainburuaren bidez eskuratu zituen (cf. Kintana Goiriena 2008: 267-269). F. Krutwigen liburutegi pertsonalean, oraindik R. M. Azkueren zigilua daramaten liburuak aurkituko ditugu. JLA-FK: FINCK, Franz Nikolaus (1910): *Die Haupttypen des Sprachbaus*. Leipzig: B. G.; LOEWE, Richard (1918): *Germanische Sprachwissenschaft*. Berlin: de Gruyter.

testuinguru kontradiktorioan kokatzen ziren. Frantziako eskola soziolinguistikoa antiwilsoniano-antigermanikoa zen erabat. Zibilizazio adiera hori aleman hizkuntzalaritzaren ikuspegiari kontrajarri nahi izan zioten (Cohen 1978: 121). «Zibilizazio hizkuntza» nazio politikoki beregainarekin aski lotutako hizkuntza zen, beraz. Eta zibilizazioa, berriz, modernitatearen egitasmoa: eurozentrismoa, nazio-estatua, kapitalismoa, industrializazioa.

Ikuspegi hori orekatzeko eragin germanikoa, bestalde, W. Schmidt-en *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde* (1926) liburuan aurkitu dezakegu.⁶⁹⁰ F. Krutwigek Vienako eskola historiko-kulturalaren difusionismoa jaso eta nolabait historiaurretik historiara egokitu zuen erantzun hitzaldian: «Gathalanarak eta latin berriek eztitute latin zaharr eta gerkaratik hitzak hartzen hoien semeak diralatakotz [sic], ez, Okzidenteko kultur sphairan bizi direlakotz baizik» (1952d: 31). Difusionismoak F. Krutwigen eurozentrismoa justifikatzen zuen: «European bizi baikara, ezpaikara Aequator-Apriketan bizi izaiten» (1952d: 30).⁶⁹¹

⁶⁹⁰ JLA-FK: SCHMIDT, Wilhelm (1926): *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde*. Hamburg: Buske. R. M. Azkuek 1943-1944 arteko batzarretan luze aztertutako liburu horretan, Austriako apaizak garatutako kultur eremuen («Kulturkreislehre») teoria difusionista azaltzen zen (ALV 1956: 322-323).

⁶⁹¹ Difusionismoak, halaber, eragin handia izan zuen J. M. Barandiaran-J. Carorengan. Barojatarra gaintzen hasia zen difusionismo zurruna, bereziki funtzionalismoaren bidez. F. Krutwigek, orobat, R. Thurnwald edota O. Spengler-en *Der Untergang des Abendlandes* (1918-1923) azertu zituen garai horretan. Alemaniako filosofoak zuen historiaren ikusmolde morfologistak, Vienako Eskolarekin lotua, zortzi kultura garai seinalatzen zituen, azkena mendebaldarra (Krutwig 1979a: 109, 113; Azurmendi 2007: 283-287).

9 EUSKALTZAINDIAREN ERREFORMA

9.1 Erreforma prestatzeko Federico Krutwigen

korrespondentzia

Ikusi dugunez, J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiko batzarrean, F. Krutwigen ekimenez, Euskaltzaindiak 1941ean JCVko arduradunek ahoz ezarritako bi baldintzei jaramon ez egitea erabaki omen zuten. Alde batetik, erbesteko euskaltzainek euren aulkiak berreskuratu zituzten, inolako ordezkapenik gabe. Bestetik, aurrerantzean Frantziako eta erbesteko euskaltzainak batzarretara deituko zituzten.

Horren ondorioz, 1920ko estatutuek ezarritako 12 euskaltzainen orde, 13 zeuden. Espainian: R. M. Azkue, J. Urquijo, N. Oleaga, P. Zamarripa, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. M. Seminario eta B. Echegaray. Frantzian: P. Lhande, J. Elissalde eta S. Altube. Eta Txilen zegoen D. de Inza. Azkenik, G. Lacomberen heriotzak utzitako hutsunea bete gabe zegoen. Barnealdean bizi ez ziren euskaltzainei eragiten zieten erabaki horiek, ordea, ez ziren batzar agirian jaso; F. Krutwigek prestatu beharreko txostenari egin zitzaion erreferentzia soilik (ALV 1982: 5-6; Iztueta & Iztueta 2006: 461).

A. Irigarayren bidez jarriko zen F. Krutwig harremanetan P. Lafitterekin. Nafarroako Auritzen jaiotako F. Irigaray aitak bezala, Frantziako euskaltzaleen ezagutza ohi baino handiagoa baitzuen. Adin bertukoak ziren A. Irigaray-P. Lafitte, 1928-1929an urgazle izendatuak, urteetan, estutu zuten ezagutza. A. Irigarayk irrika handiarekin jarraitzen zituen Baionako euskal aldizkariak. *Eskualduna* eta nafar-lapurtera, Gipuzkoa-Nafarroan zabaltzea nahi zuen, baina horretarako D. Soubeletek zuzentzen zuen astekariak lerro politikoa leundu behar zuen. *Eskualduna* elizkoi, eskuindar eta frantses nazionalista baitzen. Aldi berean, kexu zen EAJ-PNVren politikagintzak ez ziolako euskararen erabilerari behar adinako tokirik ematen. Amets zuen Espainia-Frantzia arteko euskal naziogintza biguna baina azken finean eraginkorragoa. Hona 1936ko hasieran idatzi ziona P. Lafitteri:

Berdin bozkario eta atsegin aundirekin segitzen dugu emen zuen *Aintzina* zuhurra; gauza funtsezkoak errateko eta egiteko ezta bear arrabotsa eta arroit. Emen aintzek ez dugu ontsa ikusten gure P.'ko agintariak deramaten bidea; naiago, eskualdungoaren azkartzea,

axolatu gabe geyegi Espāñako koloreaz estalia dagonez; berdin Frantziāz. Mintzairan ere arras akort gaude zuekin, emengo asko, eta emengo zenbeitak derabilaten eskuara irriegingarri zaigu, ezpalitz nigarregingarri. Segi ol-ola: bide zuzenean zoazte, ezta dudarik (apud Andiazabal et al. 2004: 981).⁶⁹²

Gerraondoan, Nafarroako medikuak, Ainhoako Martin Elsoren posta mugalaritzari esker, P. Lafittek zuzendutako *Herria* (1944) astekaria jasotzen zuen eta 1947ko hasieran berreskuratu zuen Donostia-Uztaritze arteko harremana. Hala ere, A. Irigaray zuhurrak gutunetan ez zion hasieran Euskaltzaindiaren berririk eman, nahiz eta lexikografian mugaz bestaldekoekin elkarlanean aritu beharraz mintzo, artean ALVren gerraondoko zeregin nagusia zena.⁶⁹³ Baina gutunean isildutakoa, bestela jakin zuen. Ikusi dugunez, *Eusko-Jakintza*ren lehen zenbakian «La langue basque de 1939 à 1947» artikulua argitaratu zuenean, ALV politikoki baldintzatuaz ere jardun zuen:

On nous a signalé que M. de Azkue a pu faire paraître les tomes II y III de son *Euskalerrriaren Yakintza* (Literatura popular del País Vasco). On lui a même proposé de reouvrir l'Académie Basque pourvu qu'on n'y admette pas les basques continentaux (Lafitte 1947: 11).

Nolanahi den, P. Lafitteren lana bereziki goraiatzen zuen Nafarroako medikuak: «Jarraik ola aitzina ere; emen ezin dugu alakorik; tinkiegi atxikitzetik eskuara ta politika kalte bertzerik ez dugu bildu emen; ezginake gaizki oraico politica aldecoak eskualzale balire» (apud Andiazabal et al. 2005: 218).⁶⁹⁴ A. Irigarayk, horrela, Baionan argitaratzen ziren *Herria*, *Eusko-Jakintza* edota *Ikuska* jarraitzen zituen, baita lankideek (adibidez, J. Elissalde euskaltzainak) bertan esaten zituztenak eta zeintzuk ziren euskaraz idazten zutenen hizkuntz hautuak. Barnealde-erbesteko lehian, halere, kritikatu egin zuen *Eusko-Jakintza* soilik erdaraz agertzea. Hiru ereduren arteko bidegurutzean harrapatuta bezala agertzen zen A. Irigaray: isilpean gordetzen zuen ALVren jardunarena, miraz jarraitzen zuen Baionako prentsa, eta jeltzaleen euskara purista:

Idazteco maneran eracusten duzun zuhurtzia nai ta naiezcoa da; emen egin dira ainbertze bidegabekeri, ezen orai icusten dugu, hainitz jende eskaldun garbiek uzten dutela

⁶⁹² ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1936-01-02.

⁶⁹³ ABA-LAF: A. Irigarayren gutunak P. Lafitteri, [1947] & 1947-07-25. F. Irigaray aitak ere 1947ko martxoan bidali zion gutuna Iruñetik (Andiazabal et al. 2005: 217, 267, 271).

⁶⁹⁴ ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1948-06-09.

bazterrerat euskarazco dotrina edo catishima eta Elizaraco liburua, erdarazcoak usatuz, erraiten dutela: «eztugu comprenitzen batere euskera zerratu ori». Behaztopa arri handiena neologismoak eta graphia hertsia ori; gure lagun batzuek ezdute au ikusi nai, naiz iguzkia bezain argi den. Orai erran dezakegu emen euskaldunek erdara bakarrik irakurtzen dutela salbu bakar, agitz bakar batzuk (apud Andiazabal et al. 2005: 219).⁶⁹⁵

Horrela bada, F. Krutwigek artean ezezaguna zitzaion P. Lafittez galdetu zion A. Irigarayri eta erantzun hau jaso zuen: «Desde luego Pierre Lafitte, capacidad extraordinaria; antes de decirle yo otros nombres, quiero pedir una indicación a Elissalde y Lafitte sin que eso nos comprometa; yo me encargo de hacerlo» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 461). A. Irigarayk 1949ko maiatzean jadanik idatzi zion Uztaritzera ALVren berregituratze asmoaren berri zehatza emateko. Horren arabera, izendapen berri gehienak A. Irigarayren iradokizunari zor zitzaizkion:

Emengo Akademia edo Euskaltzaindiakoek nahi ginuke zerbait egin, abia, pitz. Frantziako eskualdunek ere batzartu behar lirazke gurekin: utziko? Emen uste dute baietz. Nola Elissalde gure adiskide jauna da orko bakarra, nik eskatu dut 4 toki merezi dutela bederen Iparraldecoek; eta oyetan lehena zu, jauna; baietz ere erran didate.

Gavel jaunarekin (erabakitzen badute izen au autatzea nik eskatu bezala) 4 dire, A. Lhande gai baldin badago. Orai zuk erran ontzat artzen duzun, eta berdin besteek; emengo batzarretara etortzeko. Beste izen bat edo bi erradazu othoi, egokiak euskal idazleen artecoak, gerta bai liteke, beste toki geyago bat ere bethetzea Iparraldecoekin; au dena oraiño belarrira erratea...

Nahi litake or argitaraztea orri shume bat bizi erakusgarri, eta erabakiak jakinarazteko. Sosak gutti, shautzeak aunitz... trabak ez guti (apud Andiazabal et al. 2005: 223).⁶⁹⁶

Euskaltzaindiak 1949ko ekainaren 25ean Bilbon egin zuen batzar horretan ez zen egon J. Urquijo, seguru asko bi egun lehenago RSVAPek Azkoitian egin zion omenaldi jendetsuak eragindako nekeagatik. F. Krutwig gazteak, beraz, gutuna idatzi zion uztailaren 6an Bilbotik Donostiara, Euskaltzaindia eraberritzeko txostena idazteko ardura hartu zuela azaltzeko:

En la última reunión celebrada por la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao, se me encargó presentase un informe para la reunión que ha de tener lugar a fines de Septiembre próximo sobre ciertos cambios para infundir nueva vida a nuestra Academia. A este efecto

⁶⁹⁵ ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1948-06-09.

⁶⁹⁶ ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1949-05-29

y para poder cometer tal encargo lo mejor posible, quisiera escribirles a los Srs. Altube, Elissalde y Lhande, cuyas señas desconozco y de las que si Vd. las supiese le rogaría tuviese la bondad de comunicármelas.

Asimismo quisiera unir a dicha ponencia un párrafo en el que quisiera indicar los nombres de los vascólogos más destacados del País Vasco-francés, para las eventuales plazas que en dicho informe se piden. Como le creo a Vd. la persona mejor enterada en España sobre la valía de nuestros colegas al otro lado de la frontera, me tomo la libertad de rogarle tenga a bien darme noticia sobre los siguientes puntos:

- ¿Sabe Vd. si los Srs. Gavel y Lafon son vascos? pues que según los estatutos de Euskaltzaindi deben ser los miembros de ella «jajotzez ta izkuntzaz» vascos.
- Entre los miembros correspondientes de nuestra Academia figuraba el entonces presidente de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Conde de Marien (¿?). ¿Podría Vd. darme alguna noticia sobre él?
- Entre los miembros correspondientes de Euskaltzaindia en 1936 figuraban los siguientes señores: Dr. Dourisboure, M. Louis Dassance, Dr. Constantin, M. l'Abbé Moulier, Dr. Souberville [sic], M. G. de St. Jayme y M. l'Abbé Urruztoy. Quisiera saber de éstos quién de ellos llena los requisitos de ser «jaiotzez ta izkuntzaz» vasco y en caso afirmativo quiénes cree Vd. los más capacitados y si sabe Vd. algo sobre su obra ⁶⁹⁷

ALVk 1949ko udan, Europako gerraoste latzean, etenda zuen harremana erbesteratuekiko nahiz Frantziako euskaltzainekiko. BMG bukatuta, Espainia frankistak arazo diplomatiko larriak izan zituen. NBEak formalki gaitzetsi zuen eta Frantziak muga itxi zuen 1946-1948 artean. Informazio eza bi norabidekoa izan zen. F. Krutwigek zioenez: «Yo saqué a la Academia de la nada, pues ni Altube sabía que aun existía». ⁶⁹⁸ Gipuzkoako euskaltzainak *Eusko-Jakintzan* argitaratutako artikuluan, EI-SEV ez ezik, Euskaltzaindia desagertutzat jo zuen: «si es que algún día resucitan» (Altube 1949: 204). Informazio ezaren eta egoera nahasiaren erakusgarri, F. Krutwigek gutunean aipatzen zituen zenbait urgazle hilak ziren aspaldi. ⁶⁹⁹ J. Urquijo-A. Irigarayk baino ez zuten mugaz

⁶⁹⁷ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-07-06. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charritton 1997a.

⁶⁹⁸ EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21.

⁶⁹⁹ C.-M.-A. de Hoym de Marien (1855-1936), S. Urruztoy (1861-1936), F. de Saint-Jayme (1862-1938), A. Dourisboure (1863-1931), M. Souberbielle (1872-1939), A. Constantin (1873-1957), J. Moulier «Oxobi» (1888-1958) eta L. Dassance (1888-1976) (cf. San Martín & Xarritton 1983). Bestalde, Frantziako armadako komandantea zen C.-M.-A. de Hoym de Marien, F. Krutwigek kondetzat jo arren, «cmt.» laburdurak nahastuta (cf. Daranatz 1937).

haraindiko informazio fidagarria. J. Urquijo 1946ko otsailean itzuli ahal izan zen Donibane Lohizuneko bere etxera, eta Frantziako euskalariekin posta harremana berreskuratu zuen.⁷⁰⁰ F. Krutwigen bibliotekan oraindik gordetzen da ALVren *Euskera* buletinaren 1931ko lehen zenbakiaren ale bat, non euskaltzain-urgazleen zerrendari hainbat ikur erantsi baitzizkion, haien berri jakin ahala.⁷⁰¹ Honela azaldu zion prozesua N. Ormaechea urgazle erbesteratuari 1951ko apirilean:

No tuve otros datos que los que pude reunir, y estos no fueron de los más copioso. Para la reorganización del equipo de correspondientes la última lista que editó el Euskaltzaindi era de 1931. Posteriormente he tenido que leer todas las actas que la Academia publicó desde su fundación hasta 1936. Buscar las no publicadas en los archivos, preguntar y escribir. Enterarme si estaban vivos o muertos todos los correspondientes (apud Iztueta & Iztueta 2006: 463).

Euskaltzaindiak ez baitzuen buletinik argitaratzen, eta ondorioz ez zegoen ALVko kideen zerrenda edo aurkitegi eguneraturik. Gerra aurreko zerrenda ofizial horretaz baliatuta, korporazioaren berregituratze bat diseinatu zuen, berak faboratzen zuen lapurteratik hurbilen zeuden Frantziako kidez osatua. Era berean, artean urgazleen gehiengo osatzen zuten kide abertzaleek agintari frankisten aurrean sor zezaketen arazoa saihesten zuen modu aski traketsen Hala ere, Pirinio Behereetako idazleez zuen ezagutza oso eskasa zen, eta informatzaile bila hasi behar izan zuen berehala.

J. Urquijok, hain zuzen, oso uzkur erantzun zion Bilbotik iritsitako gutunari, F. Krutwigen ustez, «con un miedo que no venía al caso» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 461). ALVren eraberritzeak izan zezakeen ondorio politikoak eragindako beldurra, noski. Urtetan isilpean gordetako gerraondoko ALVren jarduna euskaltzain gazteak lau haizetara zabaldu nahi zuen, baina J. Urquijo zuhurrak ez zuen begi onez ikusi:

Su carta no deja de sorprenderme, pues no tenía noticia de que las cosas estuvieran lo suficientemente adelantadas para reorganizar la Academia. ¿Ha habido alguna decisión publicada por la autoridad permitiendo que se nombren académicos franceses, porque, por lo menos hasta ahora esa disposición no existía. ¿El señor Altube está ya en España o se propone venir a ella? [...] Por lo demás, el señor Gavel no es vasco, como tampoco lo es el S. Lafon, aunque ambos sean muy competentes (apud Iztueta & Iztueta 2006:

⁷⁰⁰ ABA-ATO: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1946-03-07.

⁷⁰¹ JLA-FK: *Euskera*.- 12. urtea, 1. zenb., 1931, ilbeltza-epailla, 84-86.

461).⁷⁰²

Kontuan hartu behar da XIX. mendearen azken herenean jaiotako belaunaldi garrantzitsua desagertzen ari zela. Haiek izan ziren euskal kulturaren maila jaso zutenak XX. mendearen lehen herenean hainbat elkarteren bidez. Galera natural hori, EGZaren ta BMGren traumak areagotu egin zuen. Artean J. Urquijok (1871-1950) eta R. M. Azkuek (1864-1951) aktiboan jarraitzen bazuten ere, adinaren ajeak larriak ziren ordurako.⁷⁰³ Adibidez, 1949ko apirilean euskaltzainburuak eroriko bat izan zuen eta F. Krutwigek, idazkari zeregina bereganatuta, J. Urquijori eman zion horren berri:

Le escribo esta carta para darle cuenta de un accidente que le ha ocurrido al Sr. Azkue. Esta tarde a las 5 h. se ha caído por la escalera de la Academia desde una altura de 6 peldaños, habiéndose fracturado una o dos costillas. Dio con la cabeza contra el suelo y quedó sin conocimiento. El muchacho de la Academia ayudado por otro joven lo subieron y llamaron a un médico quien apreció dicha fractura. A continuación me llamaron a mí, y con ayuda del Sr. Maidagán lo trasladamos a su domicilio, donde el Sr. Dr. Salaberri lo vendó y apreció asimismo la fractura. Me dijo que si bien esta ruptura no significaba nada en un joven en un Sr. de la avanzada edad de Don Resurrección era sumamente grave, habiéndose de temer se le pueda complicar muy fácilmente con una pulmonía. Ha ordenado se le administre penicilina para precaver una infección (apud Charritton 1997a: 417-418).⁷⁰⁴

Handik bi egunera berriz idatzi zion R. M. Azkueren osasunak onera egin zuela adierazteko, baina euskaltzainburuak ez omen zuen gogoratzen istripua.⁷⁰⁵ F. Krutwigek gutun luzeagoa idatzi zion J. Urquijori, data gabea baina 1949ko uztailera dirudiena, ekain-iraileko batzarren artekoa betiere. Bertan adierazi zion R. M. Azkuek urtebete lehenago agindu ziola «dar nueva vida a Euskaltzaindi», pribatuan lehenengo eta ofizialki ondoren. Horretarako hainbat auzi argitu behar izan zituela, eta hau zela ALVren egoera une horretan:

1. Que la Academia se reorganizó a propuesta de la Junta de Cultura de Vizcaya y que una vez hecho así se lo comunicó a dicha Junta en carta del 14 de VI de 1941.

⁷⁰² J. Urquijoren aipu hori, F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951n bidalitako gutun batetik jaso da.

⁷⁰³ «Veo que no pierde Vd. la memoria lo cual no ocurre a D. Resurrección (tiene ya 84 años) y está completamente desmemoriado. Confieso que si estuviera yo en su estado no sería capaz de escribir un libro» (KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Gárateri, 1949-04-06).

⁷⁰⁴ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-05-19.

⁷⁰⁵ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-05-21.

2. Que las condiciones que la Junta de Cultura puso a Euskaltzaindi en su reorganizacion nunca fueron dadas por escrito sino meramente de palabra.
3. La principal de dichas condiciones era la de tener dicha Junta un representante en Euskaltzaindi a cuyo efecto nombraron al Sr. Irigoyen. Existían otras como las de no convocar a los vasco-franceses y de preveer las vacantes de los exiliados. Desde dicha fecha algunas cuantas condiciones han cambiado un tanto. El Sr. Echegaray volvió a España y fue restituido en su puesto, hubiera sido un gran absurdo que Euskaltzaindi hubiese sido mas papista que el papa; y de aquí que recuperase su puesto en Euskaltzaindi (apud Charritton 1997a: 419).⁷⁰⁶

Argudio guztiak J. Urquijoren zalantzak deuseztatzera zuzendu zituen F. Krutwigek. EJ-GVko aholkularia izandako B. Echegarayk postua berreskuratzea, ez ote zen ezarrirako baldintza politikoak lasaitzen ari zirenaren seinale? Gainera, BPDko presidenteak eta JCVk baimen ez-ofiziala eman omen zieten gerraondoko marra gorriak zeharkatzeko:

Cuando el Sr. Seminario fue nombrado miembro de la Academia, fueron los Srs. Azkue y Oleaga a hablar con su sobrino el Sr. Ybarra y con los Srs. de la Junta de Cultura, para tratar de la cesión de la Sala de Actos de la Junta de Cultura al mismo tiempo les dijeron que en adelante se pensaba convocar a los académicos vasco-franceses y dichos srs. no tuvieron nada que objetar. Una decisión escrita o publicada no existe que autorice la convocatoria de dichos señores, pero según me dijeron los Srs. Azkue y Oleaga, tampoco existe ninguna orden escrita ni publicada que prohíba dicha convocatoria y toda la reorganización se hizo por indicaciones de palabra en su tiempo (apud Charritton 1997a: 420).⁷⁰⁷

F. Krutwig handinahiaren ustez, JCVk ordurako ez omen zuen inolako kontrolrik ALVren gainean:

Cuando el Sr. Seminario fue nombrado académico, la Junta de Cultura acordó en un principio que la representación que ella había de ostentar en Euskaltzaindi la tuviera en adelante el Sr. Seminario en lugar del Sr. Irigoyen, quien así dejaba de ser miembro de nuestra Academia, según convinieron dichos Srs. de la Junta de Cultura con los Srs.

⁷⁰⁶ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]. Lehen puntuan F. Krutwigek aipatzen zuen 1941eko ekaineko data akatsa da, ALVren gerraondoko lehen batzarra 1941eko apirilean («IV») izan baitzen. Bestalde, JCVtik euskaltzainburuak 1941eko otsailean jaso zuen idatzizko baimenak J. Irigoyenen izendapena agindu egiten zuen. Beste bi baldintzak, ordea, ikusi dugunez agintariek ahoz markatutako marra gorriak ziren, baina debekuaen idatzizko frogarik utzi gabe.

⁷⁰⁷ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

Azkue y Oleaga. Ahora bien posteriormente y según me parece a mí por trabajo personal del Sr. Seminario, se llegó al siguiente acuerdo con la Junta de Cultura de la Diputación de Vizcaya: Que en adelante en vez de nombrar la Junta de Cultura un representante suyo en Euskaltzaindi, fuese la Academia de la Lengua Vasca la que nombrase un representante suyo en dicha Junta de Cultura, con lo cual la Academia ha quedado libre de la tutela o intervención que en algún tiempo pudiera haber habido (apud Charritton 1997a: 420).⁷⁰⁸

1941ean izendatutako J. Irigoyenek euskaltzain izateari utzi zion, beraz, eta J. M. Seminario komisario politikoa ados omen zegoen F. Krutwigen asmo guztiekin. JCVren batzar agirietara joez gero, ordea, ez dago erabaki garrantzitsu horien inolako aipamenik. 1949 urteari dagokionez, soilik R. M. Azkuek ALVren izenean egindako diru laguntza eskaeraren berri eman zen otsailean.⁷⁰⁹ Euskaltzain gaztea ausarkeriaz ari zen ALVri bultzada berria eman nahian, R. M. Azkueren adinak eragindako botere hutsunea eta J. M. Seminarioren babes politikoa erabiliz. J. Urquijok, ordea, Argentinako J. Gárateri adierazi zionez, ez zuen auzia F. Krutwigek bezain erraz ikusten: «Por aquí se habla de que los académicos franceses vuelvan a la Academia Vasca o sean nombrados otros nuevos. No sé si la cuestión de pase de Fronteras se arreglará tan fácilmente como algunos creen[,] de todas maneras tendré a Vd. al corriente de lo que pase.»⁷¹⁰

F. Krutwigen arabera, erbesteratuak ezin ordeztu zitekeenez, ohiko 12 akademikoak 18 izatera igaro beharko ziren. Kide berriak Frantziakoak izan behar zuten, hizkuntzalaritzan Espainiakoak baino jantziagoak zirelako. Azken puntuari dagokionez, A. Irigaray ere iritzi berekoa omen zen. Erbesteratuez den bezainbatean, B. Echegarayk postua berreskuratu zuen legez, S. Altube-D. de Inzak, aurkako salaketa kriminalik ez zutenez, euskaltzain izaten jarraitzen zuten. Horrela erabaki omen zuen Euskaltzaindiaren batzarrak 1949ko ekainean, J. Urquijo bertan ez zela.⁷¹¹ Batzar horretan J. M. Seminariok berak Paueko jeltzalearen alde egin omen zuen: «defendió muy en especial al Sr. Altube y se opuso a algunas objeciones (un tanto pueblerinas) que sobre actuaciones políticas del Sr. Altube dijera el Sr. Zamarripa» (apud Charritton 1997a: 421).⁷¹² Gogoan hartu 1941eko R. M. Azkueren plagintzaren arabera, P. Zamarripak ordezkatu zuela S. Altube.

⁷⁰⁸ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

⁷⁰⁹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62.

⁷¹⁰ KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Gárateri, 1949-07-26.

⁷¹¹ P. Charritonek 1997an argitaratutako transkripzioetan akatsak daude, eta komenigarri da jatorrizko gutunera jotzea (KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]).

⁷¹² KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

Gainera, aulki horren lehenengo jabea D. Aguirre elizgizon karlista izan zen, P. Zamarridak beretzat nahi izan zuena.

Dena dela, J. Urqujoren osasunak, euskaltzainburuarenak bezala, okerrera egin zuen garai horretan. 1949ko abuztuaren 13an gauza izan zen Ph. Veyrinen erakusketa bat ikustera joateko, J. Arteche-J. Yrizar-A. M. Labayenekin batera. Baina GPDko liburuzainak 1949ko irailaren 17an bisita egin zionean, erabat hondatuta aurkitu zuen: «Visita a la biblioteca de don Julio de Urquijo juntamente con los asistentes del cursillo de lenguas prerómanicas celebrado en la ciudad ¡Qué tristeza ver a don Julio, hecho una ruina física, incapaz de meter en los estantes libros, como él decía, adquiridos *con locura*!» (apud Urkia Etxabe 2006: 271).

Azkenik, J. Urquijori bidalitako gutunean, ALVren estatutuen arabera euskaltzain izateko bete behar zuten baldintzaz aritu zen: «La Sociedad consta de doce socios numerarios y ocho correspondientes, todos vascos de naturaleza e idioma, y de un número variable de socios honorarios y correspondientes, aun extraños al País» (ALV 1920a: 4).⁷¹³

Es para mí evidente que quiere decir que hable vascuence y haya nacido en el País Vasco. De aquí que el Sr. Lacombe cumpliera todos los requisitos. El Sr. Campión también los cumplía aun cuando su apellido fuese italiano. El que escribe estas líneas es natural de Guecho pero por parte paterna es de origen polaco, alemán y francés y aun cuando mi madre naciese en el mismo Guecho remontando ascendencias es de origen italiano. A pesar de ellos cumplo con el «jaiotzez ta hizkuntzaz», el Sr. Seminario que es natural de Vera, tiene dos apellidos como: Seminario y de Rojas, ambos no-vascos. Cuando le preguntaba por el «jaiotzez ta hizkuntzaz» de los señores Gavel y Lafon preguntaba si eran naturales de los Bajos Pirineos. Esto de las nacionalidades (no se refiere a ciudadanías) es un hecho bastante complicado y en centro Europa se procedía por el llamado sentido psicológico de las nacionalidades. Yo he conocido a un súbdito yugo-eslavo que se consideraba (y por lo tanto en su pasaporte yugo-eslavo figuraba) como de nacionalidad húngara, y luego supe que su apellido Krigár, era debido a que sus padres eran los dos alemanes de los que poblaban la región entre el lago Balatón y Budapest, que son una minorías germánicas en el mismo corazón de Hungría. Uno de los mejores escritores húngaros Hertzeg [sic] no supo hasta los veinte y tantos años hablar su idioma

⁷¹³ Euskarazko bertsioa: «Amabi euskaltzain ta zortzi urgazle bederen, beti izan bea' dira, yayotzez ta izkuntzaz euskaldunak oro. Baña urgazle kopuruari beste lagun batzu ere, erdaldunak izan a'ren, geitu datzazkioke, dedurako ala lanerako egokiak izatekotan» (ALV 1920a: 4).

siendo asimismo miembro de una minoría nacional; por esto pregunté por el «hizkuntza» y «jaiotzez» de los mencionados señores bajo tal aspecto, si ellos se consideraban vascos, por ser tal vez de Baiona o del Bearne (apud Charritton 1997a: 422).⁷¹⁴

Euskal Herritik kanpo jaiok ziren, H. Gavel (Saint-Pol-sur-Ternoise, Pas-de-Calais) eta R. Lafon (Merignac, Gironda) ez ezik, G. Lacombe (Ortheze, Pirinio Behereak) edota P. Zamarripa (Laredo, Santander) euskaltzainak. Euskaltzaindiak ordurako malgutasunez aplikatua zuen jatorriaren irizpidea. F. Krutwigek nazionalitatearen irizpidez gogoeta interesgarria egin zuen. Gutunean aipatzen zuen «sentido psicológico de las nacionalidades» hura, ez dirudi Alemaniako etnopsikologiaz (W. Wundt) ari zenik, Euskal Herrian jarraitzaile asko izan arren (cf. Azkue 2004: 724; Azurmendi 2007: 199-207).

Nire ustez, austromarxistek garatutako kontzeptuari egindako erreferentzia politikoki desagokia zen, diktadura frankistako egoeraz den bezainbatean, eta horregatik ez zuen argiago izendatu. XX. mendearen hasierako Austria-Hungariako Inperio plurinazionalean, O. Bauer-K. Renner-M. Adler-ek langileriaren egoeraz ez ezik, herrien arteko bizikidetzaz ere gogoeta teorikoa landu zuten. Sozialdemokrata horien ustez, inperioko proletariotza gutxiengo nazionalak osatzen zuten, eta burges kapitalistak aleman hiztunak eta hungariarrak ziren. Klase borroka horiek saihesteko, inperioa komunitate nazionaletan bereiztea proposatu zuten, ogasun-hezkuntzak kudeatzeko autonomia kulturalarekin. Maila indibidualean, herritar bakoitzak bere komunitate nazionala aukeratzeko askatasuna izango zuen. Inperioaren Parlamentua arduratuko zen kanpo arazoez, armadaz edota ekonomiaz, baita gutxiengo nazionalak babesteaz ere. Alemana ez zen izango estatuaren hizkuntza ofiziala, baizik eta «Vermittlungssprache» edo hizkuntza komuna. Kultur federalismo hori Austria-Hungarian gauzatu ez bazen, Espainia frankistari aplikatzea ameskeria hutsa zen. Dena dela, hori zen nire ustez F. Krutwigen «sentido psicológico de las nacionalidades»en iturria (cf. Johnston 2009: 267-294).

Sozialdemokraziaren susmoa ezabatzeko, J. Urquijo tradizionalistari Ferenc Herczeg (1863-1954) idazle eskuindar eta nazionalista hungariarraren kasua aipatu zion.

⁷¹⁴ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]. Kontuan hartuta amaren aldeko aitona amonak Burgosko Montes de Oca eskualdean jaiotako jornalariak zirela, ez da sinesgarria F. Krutwigek bere Italiako jatorriaz dioena.

Gurasoak Danubioko suabiarrak ziren (hots, aleman hiztunak; bere jatorrizko izena «Franz Herzog» zen), baina berak, hezkuntzaren bidezko magiarizazioaren ondorioz, hungarieraz baino ez zuen idatzi adin batetik aurrera. István Tisza Hungariako lehen ministroaren jarraitzaile amorratua izan zen, eta austrohungariar konpromisoaren aldekoa, beraz. LMGren osteko bake ituna errebisatzearen aldeko ligaren burua izan zen, baita Nobel Sarirako hautagaia ere. Miklós Horthy-ren erregeordealdian (1920-1944) faxismora lerratu zen. Hungariako idazle ezagunena izan ondoren, BMGren osteko erregimen komunistan guztiz baztertua zegoen (Bence & Németh 2015: 37-38).

A. Irigarayren bidez helbidea lortuta, F. Krutwigek 1949ko uztailaren 28an, P. Lafitteri idatzi zion Uztaritzera. Seminario txikiko irakaslea euskaltzain izatea nahi zuten, G. Lacomberen aulkia betetzeko, baina A. Irigarayri adierazi zionez, P. Lafittek ezin zuen batzarretara joan. Horregatik, F. Krutwigek beste bost hautagairen izenak eskatu zizkion. Halaber, lurraldetasunaren auzia izan zuen hizpide gutunean, H. Gavel-R. Lafonen izendapena konpontzeko beste osagai bat:

Si l'Académie peut recevoir dans son sein un alavais ou un navarrais de la Ribera erdaldun, par la simple raison qu'on puisse considérer les natifs de cette partie du Pays Basque comme des basques, je crois que de la même façon elle pour[r]ait recevoir dans son sein un natif de Béarn, Bigorre, Armagnac, Foix, Nebuzan ou de quelque autre part de l'ancien royaume de Navarre, qui ne sont ni plus ni moins basque qu'un originaire de Rioja, ou Ribera. Je voudrais connaître votre opinion a ce propos.⁷¹⁵

Gutunean, orobat, adierazi zion irailleako batzarrean aurkeztu behar zuen berregituratze proposameneko hainbat xehetasun. Txostenaren arabera, erbesteko nahiz Frantziako euskaltzain zaharrak berriz onartuak ziren, lau euskaltzain berri izendatuko ziren, guztiak Frantziakoak, eta, erdibidean zegoelako, batzarrak aurrerantzean Donostian egingo ziren. Bestalde, ALVren hizkuntza arautuaz den bezainbatean, asmo berritzaileak adierazi zizkion:

- changer son orthographe de façon qu'on change les í, t', ð, l' et ñ par rr, tt, dd, ll et nn dont l'usage est plus répandu et la facilité pour les imprimeries est plus grande.
- adopter l'ancien labourdin comme langue littéraire, avec les apports lexicaux des autres dialectes et l'expurgation de tous les régionalismes, comme ezen, ezik, zeren

⁷¹⁵ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-07-28. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charriton & Andiazabal 2006.

etc.

- adopter les termes culturels de toutes les langues occidentales. Dans ce point vous, les basques de France, avez montré toujours une position plus logique et libre de tout chauvinisme ou extravagance que nous.⁷¹⁶

Pozez beterik erantzun zion P. Lafittek, Baionako elizbarrutiko arduradunek batzarretara joatea eragozten ez ziotelako:

Ez dautzut erraiten ahal zoin gogotik irakurtu ditudan uztailaren 28ko zure berri onak. Ikusten dugu bakea eta sentzu ona ere nausitzerat dotzila. Nola ez zautan atsegin eginen zure hitz maitagarriak. Eskerrik beraz eta zorionak ere bihotz-bihotzetik.

Irigaray neure adichkideri erran bainion ez nintzela jarraikitzen ahalko zuen bilkureri, hunan non orai neure buruzagiek onhartzan duten neure lan-egunen antolatzea, zuen ganat ethortzeko gisa. Beraz huna ni zuen eskuko, Lacombe zenaren jargia nahi badautazue berri eskaini.⁷¹⁷

P. Lafittek 1949ko abuztuaren 4an «Bonnes nouvelles de l'Académie Basque» artikulua argitaratu zuen *Herriaren* azalean, F. Krutwigen izenik aipatu gabe. Getxotarraren asmo pertsonalak eta ALVren erabaki ofizialak nahastu zituen arduragabeki:

Depuis 1936 l'Académie Basque, dont le siège était à Bilbao, se tient absolument muette. Beaucoup la croyaient morte, et l'auteur de cet article a longtemps partagé cette opinion pessimiste.

Nous venons d'apprendre que cette institution vit encore, mais des circonstances indépendantes de sa volonté l'ont jusqu'ici condamnée à une inactivité totale.

L'heure a sonné pour elle d'un réveil, si non d'une résurrection glorieuse.

Nous sommes hereux des circonstances qui entourent cet événement.

D'abord, aucun des premiers académiciens n'est écarté, car les points de vue extra-linguistiques sont regardés comme étrangers à cette institution.

Secondement, le nombre des sièges va être augmenté, et la place élargie en faveur des Basques continentaux. C'est à cause des Labourdins, Bas-Navarrais et Souletins que les séances se tiendront d'ordinaire à Saint-Sébastien.

Troisièmement, une véritable révolution se produira dans l'orientation de l'Académie

⁷¹⁶ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-07-28. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charritton & Andiazabal 2006.

⁷¹⁷ apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04.

basque. Jusqu'ici elle avait centré sa langue littéraire sur le guipuzcoan, quitte à le compléter par des éléments empruntés aux autres dialectes. On se souvient du grand travail d'Azkue intitulé précisément : «Gipuzkera osatua».

Désormais c'est le navarro-labourdin littéraire qui servira de base à l'œuvre de l'unification : nous ne cacherons pas la joie que nous cause cette décision. Depuis fort longtemps nous défendions cette solution comme la plus sage dans l'état actuel des choses et notre grammaire basque voulait être un pas dans ce sens.

Quatrièmement: l'ortographe elle même va se rapprocher de la nôtre: il n'y a que la question de «ch» qui soit encore discutée. Les «l», «r», «t», et autres lettres tildées seront représentées par «ll», «rr», «tt», etc.

Cinquième point: on renonce au purisme destructeur, et l'on accepte les mots de civilisation actuelle tels que le labourdin littéraire les a pris sagement autour de lui: «treina», «telefona», «minichtroa», etc.

Ainsi l'Académie veut s'orienter vers une langue qui a trois siècles de tradition: elle y a grand mérite, car elle renonce de la sorte à des positions qui semblaient définitives.

Nous lui en sommes très reconnaissants.

Nous ignorons encore comment et avec qui va être remise sur pied l'œuvre des «Eskualzain». Le plus tôt sera le mieux.

Nous tiendrons nos lecteurs au courant de cette affaire si importante; le bon sens finit par prévaloir (*Herria* 1949-08-04).

F. Krutwigek 1949ko abuztuaren 21ean berriz idatzi zion P. Lafitteri. Azkenean Uztaritzeko seminarioko irakasleak onartu egin zuen izendapena, batzarrak Donostian egingo zirelakoan. Frantziako zenbait urgazlez galdetu zion, gehienak ordurako hilak (Charritton & Andiazabal 2006: 210).⁷¹⁸ Berriz idatzi zion abuztuaren 28an. S. Altube-P. Lhande ere P. Lafitteren hautagaitzaren alde zeuden, beraz aldeko boto nahikoak zituen, eta sarrera hitzaldia prestatzen has zitekeen. Bestalde, P. Lafittek aurreko gutun batean proposatutako hautagaiez zenbait argibide eman zizkion. Seguru asko R. Lafon-J. Saint-Pierre euskaltzain izendatuko zituzten, baina H. Gavel, jatorri euskaldunik ez zuelako, deduzko supernumerario. Beste bi hautagai (L. Dassance-D. Dufau) zalantzazkoak ziren. Horregatik, informazio gehiago eskatu zion D. Dufau notarioak egindako idazlanez.⁷¹⁹ Bistan denez, F. Krutwigen ezjakintasuna Pirinio Beherretako idazleez ia erabatekoa zen, nahiz eta gero izendapen berrien meritua bereganatu.

⁷¹⁸ C.-M.-A. de Hoym de Marien (1855-1936), A. Dourisboure (1863-1931), F. Larrieu (1863-1941) eta A. Léon (1883-1953) (cf. San Martín & Xarritton 1983).

⁷¹⁹ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-08-28.

1949ko irailean J. Urquijori eta 1951n N. Ormaecheari bidali zizkien gutunei esker, Frantziako euskaltzainen abuztuko erantzunen berri ere ikusi dezakegu, zati luzeen aipamenak egin baitzituen F. Krutwigek.⁷²⁰ S. Altuberen helbidea J. M. Barandiaranen bidez eskuratu zuten, horri P. Lafittek eskatu baitzion.⁷²¹ S. Altubek hurrengo mezua bidali zion abuztuaren 21ean Pautetik:

Desde luego a mí me parecen bien las medidas que V. propone para que el Euskaltzaindi alcance cada vez mayor prestigio en nuestra tierra y fuera de ella.

Sobre todo entiendo sería valiosísima la incorporación de los tres señores que especialmente cita V., o sea los Srs. P. Lafitte, H. Gavel y R. Lafon. Siempre he creído que los euskaltzales de esta parte de los Pirineos están, en general, mejor preparados en Lingüística, y claro está, para comprender bien los problemas del idioma vasco (como de cualquier otro) es preciso saber primero lo que es el idioma en sí, el idioma «tout court» como dirían aquí.

En cuanto a los demás euskaltzales continentales que indica el Sr. Lafitte, sé de la mayoría de ellos, que se expresan y escriben con soltura en euskera, pero creo que, en la apreciación de sus respectivos méritos, debe prevalecer la opinión del propio proponente Sr. Lafitte y de los viejos académicos P. Lhande y Elissalde.

Queda así cumplimentado el ruego de Vd. de que exprese yo mi opinión acerca de todos los candidatos mencionados, y queda Vd. facultado para que, como también su deseo, dé a conocer tal opinión en la próxima reunión de Donostia.

Lo que dice V., sobre la «nacionalidad vasca», es una verdad tan clara que «quema los ojos». Pero... V. mismo añade, algunos, por motivos un tanto mezquinos, no quieren ver juntas las palabras nacionalidad y vasca. Para terminar. Puede Vs. contar con mi modesto concurso, en servicio al euskera y del Euskaltzaindi, siempre que éste, claro está, pueda, como V. lo cree, actuar en su propia esfera, sin ingerencias de elementos o poderes extraños (apud Iztueta & Iztueta 2006: 462-463).⁷²²

S. Altuberen erantzuna bereziki garrantzitsua zen, erbesteko jeltzale zigortuen zilegitasuna ematen ziolako barnealdeko asmoari. Dena dela, irailaren 18ko gutunean S. Altubek M. Lecuona deserritua euskaltzain izendatzea proposatu zuen. Ikusiko dugunez,

⁷²⁰ F. Krutwigi bidalitako jatorrizko gutunak seguru asko familiak desegin zituen, hura erbesteratu ondoren.

⁷²¹ ABA-LAF: J. M. Barandiaranen gutuna P. Lafitteri, 1949-08-08.

⁷²² J. Urquijori, ordea, S. Altuberen aipuaren lehendabiziko bi paragrafoak besterik ez zizkion jakinarazi, seguru asko euskaltzain zaharra urduri jarri zitekeelako (KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charritton 1997a).

ordurako F. Krutwigek txostena idatzia zuen, baina onartu egin zuen zuzenketa, batez ere S. Altuberi frogatzeko ALVn bere autonomia gorde zezakeela (Iztueta & Iztueta 2006: 463).

P. Lhande zaharrak, halaber, abuztuaren 23an baiezkoarekin erantzun zuen, eta ziur zen Frantziako Gobernuak ez zuela oztoporik jarriko:

Je me rejouis très vivement de votre tentative de reconstituer dans sa primitive ordonnance notre vieille Euskaltzaindi et j'applaudis à vos effort pour améliorer sa composition.

Voici les suggestions auxquelles je me rallie pleinement:

- J'approuve que le nombre de ses membres soit porté de 12 à 18 inscrits: il faudra compter en effet sur un certain nombre de membres qui surtout dans le Pays Basque français, seront assez souvent empêchés d'assister aux séances ordinaires.
- J'approuve non moins hautement qu'on nomme M. l'abbé Pierre Lafitte comme successeur de M. Lacombe.
- J'approuve également que l'on porte au chiffre de 4 les Basques du Pays Basque français appelés à siéger dans les nouveaux fauteuils à cause, précisément, comme vous le dites très bien, de la compréhension que ceux-ci ont toujours montrée

[..] Quant à MM. Gavel et René Lafon, mariés à des Basques ou fils de basques n'ont ils pas, outre leur compétence personnelle un certain droit à entre[r] dans notre Euskaltzaindi? M. Gavel, en particulier est appelé à nous rendre d'immenses services pour sa compétence dans les langues romanes et ses attaches au basque.

Quant aux obstacles qui pourraient nous venir de la part de notre Gouvernement, ils sont inexistantes.⁷²³

Azkenik, J. Elissalde ere bat egiten zuen ALVren berregituratze asmoarekin:

Atsegin handiarekin irakurtu dut Agorrillaren hamaseiko zure eskutitza eta hartan ikasi bethi bizi dela hila uste nuen Euskaltzaindia. Jainkoak nahi badu —eta nihundik ahal badut— Donostian hurrengo biltzarrean izanen naiz [...] Arras ongi zait Lafitte jaun apheza hartzea Euskaltzaindian Lacombe ze[n]aren ordain: ez dut uste gure eskualdean baden bertze hein hortako eskualzalerik ez eta jakintsunik [...] Lau Euskaltzain berri behar gintuzke orduan. Mgr. Saint Pierre jaun Aphezpikua ez ditake bazterrerat utz: gure arteko jaunen jauna da gisa guztietarat [...] Gavel eta Lafon jaunak arras beren tokian litzaizket hamazazpigarren eta he[me]retzigarren bezela. Ez dut Lafon jauna omenez

⁷²³ apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charriton 1997a. P. Lhanderen gutunaren data, N. Ormaecheari 1951n idatzitakoan ageri da (Iztueta & Iztueta 2006: 462)

baizik ezagutzen, bainan bihotzez Eskualduna da: Gavel jauna ere ba[i] eta Eskualduna batekin ezkondua gainerat.⁷²⁴

9.2 *Erreforma txostenaren aurkezpena (Donostia, 1949-09-30)*

1949ko irailaren 30ean Donostian batzartu ziren 11 euskaltzain, EGZetik izan zen quorum zabalena alde handiaz. Alde batetik, R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. M. Seminario eta N. Oleaga. Bestetik, gerraondotik lehen aldiz agertu ziren B. Echegaray, P. Lhande eta J. Elissalde (ALV 1982: 7). Batzar agiriak jaso zuenez, F. Krutwigek bertan aurkeztu zuen agindu zitzaion txostena Euskaltzaindiaren eraberritzeaz. Arretaz entzun ondoren, F. Krutwigen asmoak aztertu eta aho batez hiru erabaki hartu zituzten:

- Aurrerantzean, Euskaltzainak amazortzi izan daitezala.
- Kopuru au betetako euskaltzaintzat urrengo jaun onek artzea: Pierre Lafitte, René Lafon, Jean Saint Pierre, Louis Dassance ta Manuel Lekuona.
- Henri Gabel [sic] deduzko euskaltzaintzat artzea, ta beste euskaltzainak bezala batzarretara deitzea (ALV 1982: 7).⁷²⁵

Euskaltzain gazteari eskerrak eman zizkioten lanagatik, baina txosteneko beste asmo batzuk geroratu egin zituzten. Onartutako aldaketak handiak ziren, 1920ko estatutuak aldatzera eraman zezaketenak, euskaltzainen kopuruaz edota deduzkoen eskubideez den bezainbatean. Era berean erabaki zuten, alde batetik, diru laguntza gehiago eskatu eta, bitartean, batzar saririk ez ordaintzea.⁷²⁶ ALVren diruzaintzak ezin zion aurre egin 18 kideren dieta eta bidaiei, lehenago diru iturri gehiago ziurtatu gabe. Bestetik, R. M. Azkue-N. Oleagak osatzen zuten lexikografia batzordea geldiaraztea erabaki zuten. Horrek beste gastu bat aurrezte zekarren, baina aditzera ematen zuen ere

⁷²⁴ apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charriton 1997a.

⁷²⁵ Zoritxarrez, batzar agiri horren kopia mekanografiatua soilik euskaraz dago, eta ezin dugu gaztelaniazko bertsiorik erabili terminologia zehazteko, esaterako, H. Gavelen izendapenean (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiriaren kopia mekanografiatua, 1949-09-30).

⁷²⁶ Gipuzkoako CAPEko zuzendariak abenduan erantzun zuen 1.000 ptako dohaintza egitea erabaki zuela (ABA-EUS: Gipuzkoako CAPEko zuzendariaren gutuna, 1949-12-26).

hizkuntz ereduaren gaia berriz eztabaidagai zena. Bestalde, P. Lafitte batzarraren egon ez arren, egunean bertan txostengileak idatzi zion gertatukoaren berri emateko. H. Gavel deduzko supernumario izendatzea amarru formal bat zen, euskal jatorririk ez izan arren, euskaltzainen eskubide berak izan zitzaizkion.⁷²⁷

F. Krutwigen txostenak irailaren 1eko data zeraman. J. Urquijori, adibidez, Bilbotik irailaren 4an bidali zion kopia bat. Donostiako I. M. Echaide-A. Irigarayk ere xehetasun guztien berri omen zuten. Lekeitioko oporralditik itzultitako R. M. Azkueri ere irailaren 4an aurkeztu zion txostena, eta J. M. Seminario bezalaxe, erabat ados omen zegoen edukiarekin.⁷²⁸ Baina F. Krutwigen proposamenak zazpi puntu zituen, eta soilik lehenengoa onartu zuten batzarrean:

1. Euskaltzainen kopurua 12tik 18ra gehitzea.
2. Euskaltzain izateko, merituak hartzea aintzat, eta ez dialektoen ordezkaritza.
3. Batzarrak beti Donostian egitea, erdigune geografikoa zelako.
4. *Eusker*a agerkaria berriz argitaratzea, orri gisa baino ez bazen ere, eta hedabideetan batzarren berri ematea.
5. Ikerle-Yagoleen sailak berriz abiatzea eta ALVren zuzendaritza berrosatzea.
6. Egoitza berria eskatzea edota Bilbotik Donostiara aldatzea.
7. Batzarrak gutxienez hilean behin egitea (Torrealdai & Murua Uria 2009: 56).⁷²⁹

Txostenak zeraman eranskinean, bestalde, hautagaien izenak aurreratu zituen. Euskaltzaindiak txosteneko euskaltzain izateko postu guztiak onartu zituen bat izan ezik; M. Lecuonarena. F. Krutwigek, irailaren 1eko txostenean, postu hori betetzeko Frantziako beste lau hautagai ipini zituen aukeran: D. Dufau notarioa eta J. Moulier-S. Arotçarena-

⁷²⁷ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-09-30. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charritton & Andiazabal 2006.

⁷²⁸ KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. Gutun hori argitaragabea da, cf. Charritton 1997a. S. Altube ALVn berriz onartua izan zedin J. M. Seminarioren aurrean honelako argudioak erabili ziren: «Y recuerdo muy bien cómo le alabé la persona del S. Altube, valiéndome para ello de un truco que hoy parecerá infantil, pero que en aquella época en que había una *ortografía* y una *vascología aranistas*, tenía su importancia. Es decir que el S. Altube no era un *purista*, lo que en aquellos momentos se hacía equivaler con *separatista*, puesto que Altube escribía con palabras populares, mayormente claro está, le recalaba, tomadas del castellano» (Krutwig 1991: 134-135).

⁷²⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen erreforma txostena, 1949-09-01.

G. Eppherre apaizak. Baina, ikusi dugunez, irailaren 18an S. Altubek eskatu zuen M. Lecuona izendatzea, eta onartu egin zen zuzenketa. Buenos Airesko kultur aldizkari abertzaleak argitaratutako prentsa oharraren arabera, S. Altubek bere ordezkotzat hautatu zuen M. Lecuona (IAEV 1950a).

F. Krutwigek memorietan itxuragabetu edota ukatu egin zuen gainerako euskaltzainek emandako laguntza, kide berriak proposatzeko, informazioa osatzeko edota helbideak lortzeko garaian.⁷³⁰ Nolanahi den, argi dago F. Krutwig zela eraberritzearen arduradun nagusia eta txostenaren sinatzaile bakarra.⁷³¹ F. Krutwigek zeharo itzulipurdikatu nahi zuen ALVren oreka geolinguistikoa berak hobesten zuen euskara estandarretik hurbilago zeuden kideekin. Gero esango zuen euskaltzain izateko hautagaiak onartu zituztela lapurteraren aldeko joera artean ALVn nagusi zelako. Ez da sinesgarri, baina egia da batzarrak aho batez izendatutako bostetik lau Frantziakoak zirena. Hizkuntz irizpideak baino gehiago, zama politikoak eragina izan zuen. Halaxe aitortu zion F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951ko apirileko gutunean:

También creo le será fácil comprender que tenía que andar con cautela pues se trataba de hacer revivir el Euskalzaindi, salir adelante lo más posible, pero con cuidado de que un paso falso no acarrease una orden gubernamental que tirase por tierra todos nuestros planes. Bastante fue al principio abolir el control, declarar que los exiliados nunca dejaron de corresponder y confirmarles en sus sillas y no sólo convocar en adelante a los vasco-franceses, sino nombrar a varios más. Así, pues, tuve que andar con cautela de no nombrar a ninguno que siendo súbdito español estuviese exiliado. Pues al principio nuestra situación no estaba tan segura y todos, el mismo Irigaray estaba convencido que me estaba excediendo y que mis proposiciones no iban a tener fruto. Él mismo creía que ante todo deberíamos obtener permiso para que dejasen pasar por la frontera a Lhande y Elissalde (apud Iztueta & Iztueta 2006: 463-464).

Frantziako herritarrak izendatuta, frankismoak 1941ean ahoz ezarritako muga geopolitikoa gainditzen zen, antza denez BPDko presidentearen baimenarekin, baina

⁷³⁰ EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori (1961-02-20/21): «No fui yo asimismo, que en mi plan para la defensa del euskara, propuse se nombrara Académico a Don Manuel de Lecuona, apenas había vuelto éste del exilio». Omisioak bereziki nabarmenak dira A. Irigarayren eta begitan hartua zuen P. Lafitteren kasuan, biak ordurako hilak baitziren (cf. Krutwig 1991: 95, 100, 129, 133, 135).

⁷³¹ Hain zuzen, Euskaltzaindiak 1949ko urrian 44,50 pta ordaindu zizkion posta gastuengatik. Besteak beste, Frantziara bidalitako sei gutunen eta agintari politikoei J. M. Seminarioren sarrera ekitaldira egindako gonbidapenen gastuak ziren (ABA-EUS: F. Krutwigen ordainagiria, 1949-10-03).

muga ideologikoak, jeltzaleak ez izendatzearena, nabarmena izaten jarraitzen zuen. Salbuespen bakarra Calahorran deserritutako M. Lecuona izan zen, erbestetik S. Altubek eskatu zuelako. Ez da harritzekoa, beraz, izendapenak jakinarazi zirenean, M. Lecuonak adeitasun hutsezko erantzunak alde batera utzita, Calahorratik zurikeriarik gabe euskararen egoera larria salatu baldin bazion euskaltzainburuari:

Egun txarretan bizi gera: Euskerarentzako egun txarretan. Euskera zaitzea Euskerari bizi izaten laguntzea da batez ere. Bizi izaten laguntzea. Eta egun oetan Euskera moteltxo bizi degu. Elizan oxta-oxta. Eliz askotan illik dago, len bizi zan Eliz askotan illik. Irarkolan ia ez da bat ere bizi. Ez liburu, ez eguneroko, ez asteroko, ez illeroko. Eskoletan itzik ere ez. Teatroan zer esanik ez. Dana olaxe. Eta ola ola gure izkuntza itotzen ari zaigu. Egun txarretan bizi degu benetan gure Euskera gaxoa.⁷³²

Muga politiko horri esker, F. Krutwigek libreago ikusi zuen bere euskara estandarra inposatzeko bidea. Ideologia gorabehera, izendapenekin normaltasun puntu bat berreskuratzen zen, hautatutakoak euskaltzainak, urgazle zirelako aspalditik: J. Saint-Pierre (1919), M. Lecuona (1919), H. Gavel (1919, deduzko 1933an), P. Lafitte (1928), L. Dassance (1930) eta R. Lafon (1935). Estatutuen arabera, H. Gavel euskaltzain ezin izan zitekeenez, kategoria bitxi bat sortu zuten ad hoc. Dena dela, EJ-GEk erbestean zeraman kulturgintzari zeharka egindako aitortza gisa ere ulertu behar ziren izendapenak. Ikusi dugunez, J. Saint-Pierre, P. Lafitte eta L. Dassance EIL-SIEBeko zuzendaritzako kideak ziren. R. Lafon-H. Gavel hizkuntzalariak ere, ALVri prestigio zientifikoa emateaz gain, erbesteko sare horretan engaiatutako kideak ziren.

F. Krutwigek txostenean, orobat, urgazletza eskatu zuen Pirinio Behereetako beste 10 lagunentzat. Baionako elizbarrutiko zortzi apaiz eta mediku bi ziren: S. Arotçarena, D. Soubelet, L. Léon, G. Eppherre, P. Narvaitz, P. Larzabal, P. Guilsou, P. Charriton, M. Labeguerie eta J. Jauréguiberry. Guztiak Frantziako nazionalismo kontserbadorean hazitakoak izanagatik, gehienek uko egin zioten *Eskualduna* astekariaren zuzendari izandako D. Soubelet-S. Arotçarena bikotearen faxismoari.⁷³³ Izan ere, BMGko testuinguru alditsuan, salbuespen izan zen E. Vansteenberghen Baionako apezpikuaren gisako erresistentzia ia heroikoa. Jarrera ustez kontraesankorrak ageri ziren nonahi,

⁷³² ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-11-05.

⁷³³ Alde ideologikoak gorabehera, gutxieneko adeitasuna gorde zuten P. Lafitterekiko EGZ-BMGren urte latzetan. (ABA-LAF: S. Arotçarenaren gutunak P. Lafitteri, 1937-05-29 & 1944-07-12). D. Soubeletek ere *Herria* artikulua idazten jarraitu zuen, adibidez, D. M. Bergey Girondako elizgizon, diputatu eta pétainzale ohiari hil baino lehenago egin zion bisita polemikoaz (*Herria* 1951-01-11).

adibidez, C. Mathieu Akizeko apezpikuak D. Soubeleten *Pétain Marechala* (1941) hagiografiaren hitzaurrea idatzi zuenean (cf. Goyhenetche Etxamendi 1997; Charritton 1997b; Hernández Mata 2007: 61-64, 246-27; Barandiaran 2009: 658-661).

P. Lafittek zuzendutako erregionalismo filojeltzaleak ere kontraesan horiek bizi izan zituen, Frantziako hauteskunde orokorretan hautagai eskuindarren aldeko botoa esakatu zuenean 1936ko udaberrian, Fronte Popularrari aurre egitearren. EGZ lehertu zenenean, EAJ-PNVk ezkertiarrekin bat egiten zutela ikusita, *Aintzina* aldizkariak irudikatzen zuen erregionalismoak jarrera anbiguoari eutsi zion, nahiz eta zalantzarik gabe iheslariei laguntza eman. BMG bukatuta, zauriak osatu samar, ia guztiek hartu zuten parte EIL-SIEBek 1948ko irailean Biarritzen antolatutako nazioarteko biltzarrean edota *Herria* astekari gaullistan. Hain zuzen, Uztaritzeko seminarioko irakasleari baino ezin zaio zor txosteneko urgazlegaien zerrenda. Hala uste zuen P. Charritonek, adibidez. Izan ere, F. Krutwigen haserrerako, P. Lafittek *Herrian* (1949-10-20) adierazi zuen urgazle onartu zituztela horietako gehienak, formalki 1950eko urrira arte gertatzen hasiko ez zena (Larronde 1994; Iztueta & Iztueta 2006: 468; Hernández Mata 2007; Charritton 2009: 170).⁷³⁴

9.3 Euzko-Alderdi Jeltzaliaren jarrera

EJ-GEren Parisko *Euzko Deyaren* gehigarri informatibo gisa, *Oficina Prensa Euzkadi* argitaratzen zen 1947tik. *OPE* zuzentzen zuen J. M. Lasartek, Pauen bizi zen C. Jemeini galdetu behar izan zion Euskaltzaindiarekiko harremanaz. Ez zuen barnealdeko informaziorik, ezta S. Altuberena ere. S. Altubek F. Krutwigi idatzitako gutunaren berri eman zion C. Jemeinek.⁷³⁵ 1949ko irailaren 8an, «Reanudación de actividades de la Academia Vasca» izeneko berria eman zuten, P. Lafitte «eminente euzkerálogo»ak *Herrian* abuztuan argitaratutakoa gaztelaniara itzultzen zuena besterik gabe. Azken ohar gisa, hurrengo gaineratzen zuten: «Ignoramos todavía cómo y con quién va a ponerse nuevamente en pie la obra de los *eskualzain*. Cuanto antes mejor» (*OPE* 1949-09-08). Errespetuzko jarrera horrek sutu egin zuen C. Jemein. *OPE*ren zuzendariari eta EBBko

⁷³⁴ Uneak zuen garrantziaren erakusgarri, 1950eko urtarrilaren 5etik aurrera, *Herria* astekaria itxura eta numerazio berriarekin argitaratuko zen.

⁷³⁵ SAF-AA: J. M. Lasarte-C. Jemein arteko gutunak, 1949-09-26 & 1949-09-29, PNV_NAC_EBB, K. 00159, C. 4.

kideei protesta gutuna bidali zien Uztaritzetik. P. Lafitteren gaitasuna zalantzan jartzeaz gain, ALVren aginpidea ere ukatu zuen, erbesteko euskaltzainen ordeztu, J. M. Seminario «camarada responsable»a eta F. Krutwig, «un alemán a quien nadie conoce», frankismoak izendatu zituelako:

Había que hacer constar, sin entrar en la discusión de fondo, que esos acuerdos no son válidos mientras los verdaderos académicos están ausentes y la Academia Vasca no puede desenvolverse libremente, en su propio ambiente y sin ingerencias extrañas.⁷³⁶

C. Jemeinen idazkiaren puntu askorekin abertzaleak oro har ados egon arren, sabindar ortodoxo baten ikuspegi zorrotzetik idatzita zegoen. EAJ-PNVren barneko joeratzat onartu arren, alderdiak ez zuen lerro hori ofizial egingo eta ez zioten C. Jemeinen idazkiari zabalpenik emango, ez *OPE*n ez beste inon. Buruzagien jarrera itxarotea zen, ALVri eta euskara estandarren asmoari oposizioa ez egin, baina ezta garrantzirik eman ere. Zer bide hartzen zuen ikusi nahi zuten, diktaduraren kontraesanak agerian jartzeko tresna bilakatu zitekeen ala haren hizkuntz politika estaltzeko apaingarri hutsa ote zen. Dena dela, arazo larriagoak zituzten, diktadura frankista nazioartean lortzen ari zen egonkortasuna ikusita, BMG ondoko itxaropenak zapuzten ari baitziren EBBko I. Unzetak idazkiaren kopia bidali zionean Baionatik, bere iritzia adierazi zion T. Monzón EGLZ-DCEko buruari:

Mi opinión particular es, siendo partidario de la [A]cademia, que bajo un régimen como el franquista es casi imposible poder tomar un acuerdo de esta envergadura y que pudiera ser mantenido en una situación normal. Creo que aunque todos los que pertenecen a la Academia pudieran emitir libremente su opinión, hay muchos otros que por circunstancias del régimen no han podido incorporarse, siendo por sus méritos acreedores de ello. Por contra, hay seguramente otros elementos que pertenecen a la Academia por favoritismos del régimen.

En estas condiciones no creo tendría autoridad el acuerdo que se tomase y no haría más que envenenar esta cuestión de por sí bastante vidriosa.

Me gustaría un acuerdo sobre la materia, pero tomado con toda clase de garantías, cosa que no se puede dar mientras dure este régimen por muy buena voluntad que pusiérmaos en ello.⁷³⁷

⁷³⁶ SAF-AA: C. Jemeinen gutuna *OPE*ren zuzendariari, 1949-09-13, PNV_NAC_EBB,K.00010,C.27.

⁷³⁷ SAF-AA: I. Unzetaren gutuna T. Monzóni, 1949-09-19, PNV_NAC_EBB,K.00307,K.12

Euskaltzaindia berrituak erbesteko prentsan izan zuen oihartzunaren ondorioz, azken batzarra arreta handiz jarraitu zuten zenbait jeltzalek. Paueko C. Jemeinek, seguru asko M. Eguileorren bidez barnealdetik jasotzen zuen informazioan oinarrituta, «Academia fantasma» deitu zion, eta gerraondoko akademiko berriak (A. Irigaray izan ezik) abertzaleak ez izatea salatu zuen. Marka guztiak, ordea, J. M. Seminario komisario falangistaren izendapenak hausten zituen, euskalaritzan erabat ezjakina zelako. Dena dela, C. Jemeini esker, iraileko batzar agiriak jasotzen ez dituen zenbait xehetasun jakin ditzakegu. F. Krutwigek ALVren agerkaria Frantzian argitaratzea proposatu zuen, oztopoak ekonomikoak baino politikoagoak zirela argi erakusten duena. Era berean, Pirinio Behereetako kideak izendatzeko beste arrazoi bat izan zitekeen. Baina frankismoaren errepresioaren menpeago zeuden euskaltzainek, geldiarazi egin zuten:

Al tratarse de la sugerencia del señor Krutwig de estudiar la posibilidad de reeditar la revista «Euskera», el señor Irigaray, vio dificultades para ello «pues aparte de otros problemas —dijo— no se autoriza aquí ni la impresión de cierto libro de oraciones en vascuence».

En vista de esto, el señor Krutwig propuso se editase en Francia; pero el señor Echegaray «indicó la actual situación peninsular, con la condición de ciertas personas a quienes los dedos se les hacen huéspedes». No se tomó, como es natural, ningún acuerdo.⁷³⁸

EAJ-PNVren EBBak bildutako txosten izengabea (agian J. Bilbaok prestatuta) Euskaltzaindiaren une horretako egoera deskribatzen zen haren ezintasuna nabarmenduta:

La Academia de la Lengua Vasca, resucitada en 1949, no pasa de ser una entelequia, ya que no sólo carece de órgano propio de publicidad, que poseía antes de 1936, sino que ni siquiera sus reuniones mensuales son anunciadas ni los asuntos tratados publicados por la prensa, en cumplimiento de las severas órdenes restrictivas a que repetidamente nos hemos referido. Sus trabajos carecen, por tanto, de toda clase de difusión y efectividad. Permitida su reconstitución por razones de prestigio exterior del régimen, éste no ha permitido que pase de ser una reunión meramente privada. Tanto es así que, tras la reunión celebrada en S. Sebastián el último viernes de Noviembre de 1949, y a la que asistieron los Sres. Azkue, Dassance, Lhande, Elissalde, Lafitte, Echaide, Lekuona, Krutwig, Oleaga e Yrigaray, éste hubo de manifestar repetidamente a sus compañeros que no existía posibilidad alguna de labor efectiva mientras no se suavizara la actitud de régimen

⁷³⁸ SAF-AA: C. Jemeinen gutuna L. Zarrabeitiari, 1949-10-08, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

respecto del euskera.⁷³⁹

Agerkari ofiziala ez zen berehalakoan argitaratuko, baina F. Krutwigek txostenean idatzitako nahiari jarraituta, batzarren berri prentsara zabaltzen hasi ziren. P. Lafittek *Herrian* (1949-10-13) batzarraren berri eman zuen, noski, baina prentsa frankistara ere zabaldu zen batzar agiriaren edukia: izendapen berriak eta F. Krutwigen ekarpena. EJ-GEren *OPE*k Donostiako prentsa zatia bere horretan jaso eta, P. Lafitteren artikulua berrargitaratu zuenean ez bezala, ALVri zilegitasuna kendu egin zion ohar baten bidez:

Como ya hemos indicado anteriormente las autoridades franquistas han comenzado a «tolerar» durante estos últimos tiempos las actividades y reuniones de la Academia de la Lengua Vasca que prácticamente hicieron desaparecer, por «separatista» al ocupar Euzkadi las tropas de Franco, hace doce años.

Estas actividades, claro está, están sujetas al control riguroso de las autoridades del régimen y dentro del marco del mismo, es decir sin la independencia con que la Academia se desarrolló en tiempos anteriores a la guerra civil. Hemos de señalar que varios euskérologos eminentes, miembros de la Academia, viven hoy en el exilio (*OPE* 1949-10-07).

Izan ere, burua altxatzen ari zen Euskaltzaindiak erreakzio bortitzak eragin zituen erbestean. Sututa, C. Jemeinek «Los acuerdos de una Academia fantasma» (Paue, 1949ko urria) idazki beligerantea prestatu zuen eta, besteak beste, EBBeko kideei bidali. EAJ-PNVri eskatzen zion Euskaltzaindiari eraso egitea:

Como patriotas y como euzkeltzales no podemos reconocer [I]a autoridad intrusa de una academia formada a espaldas del pueblo vasco y sin su consentimiento, y regentada por el franquismo invasor. La rechazamos de plano como entidad nacional vasca, tanto si sus acuerdos son buenos, como si son malos. Negamos a esa Academia todo derecho sobre nuestra lengua nacional, y no reconoceremos ninguna otra que no sea representativa de nuestro pueblo, libre, y sin ingerencias de extraño poder. Porque esa academia es intrusa y su designio hacer desaparecer el euzkera como lengua nacional de los vascos.⁷⁴⁰

J. Gortázar edota A. Irala bezalako jeltzale ortodoxoak idazkiaren alde agertu

⁷³⁹ SAF-AA: [J. Bilbaoren?] txosten izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4. Txostenak 1949ko azaroko data aipatu arren, badirudi iraileko batzarraz ari zela.

⁷⁴⁰ SAF-AA: C. Jemeinen «Los acuerdos de una Academia fantasma», 1949, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8

ziren.⁷⁴¹ EBBak, C. Jemeinek eskatuta, idazkia H. Gavel, R. Lafon eta Italiako bi euskalariri bidali zien.⁷⁴² C. Jemeinek eskuratutako informazioarekin *OPE*k artikulu berri bat argitaratu zuen, sabindarraren tonu erasokorra apur bat arinduta. ALVren egoeraren berri ez oso zehatza ematen zen. Agintari frankistek Euskaltzaindia «separatista» debekatu egin zutela zioten, eta J. M. Seminario falangistaren izendapenarekin frankismoan berpiztu zutela. Hain zuzen, gerraondoan izendatuko akademiko guztien zilegitasuna zalantzan jartzen zuten. Euskaltzaindiak ezin zuen frankismoan bere zeregina bete, hizkuntzaz kanpoko baldintzek mugatu egiten zutelako nahitaez behar zuen askatasuna. Baionako *Sud-Ouest* egunkari berriak ere artikulu bat argitaratu zuen urriaren 17an Euskaltzaindiaz. ALV berpizteko egon zitezkeen baldintza politiko nahasiak alde batera utzita, horrenbeste euskaltzain berri izendatzeko bi arrazoi nagusi eta bateragarri zeuden Baionako egunkariaren arabera: alde batetik, ALVren eragina Pirinio Behereetan hedatzea eta, bestetik, euskara estandarerako nafar-lapurterarantz jotzea (*OPE* 1949-10-14; 1949-10-20).

P. Lafitte euskaltzainaren artxiboan, gutun bat gordetzen da data gabea eta nori zuzenduta dagoen zehazten duena. Hala ere, edukiagatik, sabindar jeltzale bati (agian C. Jemeini) 1949an bidalitakoa dela ematen du. Oso ongi azaltzen du zein zen P. Lafitteren eta berak lideratzen zuen taldearen jarrera ALVrekiko:

Utz nazazu erran diezazudan xedetzat amesten duzularik, nahi dutela eskuara ezeztatu edo suntsitu. Laido handi hori, Azkue eta bertze langile zintzo guzientzat.

Frankotarrek ez dute Euskaltzaindia maitez utzi pizterat, bainan politikaz: hortan zure aburuko naiz. Frantzian berdintsu da: gobernuek ez gaituzte laguntzen: doi-doi bizitzera uzten gure eskuara-lanetan. Bainan «oro ala deus»-ka artzeak ez dut uste atherako duen eskuara lerra-bidetik. Ahal den neurrian zerbaiten egitea, guti bada guti, nola diokezu hain gaizki dela? Agirre berriz Bilbon jarririk ikusi artean, zertako uts eskuara urtzerat eta hiltzerat, nehork deus ere egin gabetarik? Erhokeria hutsa laiteke.

[...]

Eskualzaindiak bertzela erran baleza ere, ez da eskuara menduko haren legeri: harek beharko eskuararen araueri jarraiki. Horra egia. Sabintiarrek ez dukete guk baino indar gehiago aldamen hoietan, ikastetcheak eskutan ez dituzteno Eskual-herri guzian.⁷⁴³

⁷⁴¹ SAF-AA: C. Jemeinen gutuna J. M. Lasarteri, 1949-10-09, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁷⁴² SAF-AA: EBBaren gutun izengabea C. Jemeini, 1949-10-19, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁷⁴³ ABA-LAF: P. Lafitteren gutuna [C. Jemeini?], [1949?].

Dena dela, EAJ-PNVren buruzagitzak ez zuen C. Jemeinen estrategiarekin bat egin. Urriaren 13an EBBeko I. Unzetak jakinarazi zion S. Altubek Euzko-Gaztediren 1946ko biltzarrean irakurritako idazlana argitaratu nahi zuela EIL-SIEBek. S. Altubek berak kopiarik ez zuenez, C. Jemeini berari eskatu zioten, berehala bidal zezan.⁷⁴⁴ Erabakiak asko mindu zuen C. Jemein, berak eta A. Urrutiak hizkuntza estandar bakarra ezartzearen aurka prestatutako txostenak ez zituztelako aintzat hartu.⁷⁴⁵ Euzkeltzale-Bazkuna sabindar esentziaren zaindaritzat jo eta Euskaltzaindia estandar bat aurrera ateratzeko gauza izan ez zela gogoratzen zuen. P. Lafitte-F. Krutwig «pseudo académico y pseudo vasco» baino ez ziren, eta euskaltzainburua bera «antisabiniano desde la uñas de los pies hasta las puntas de los dedos». I. Unzetari bidalitako gutunean mehatxu egin zion: «Si el artículo de Altube se publica y no se publican los demás, me obligarán a armar un lío».⁷⁴⁶

I. Unzetak, C. Jemein lasaitzeko asmoarekin, lehenago T. Monzóni emandako iritzia berretsi zion. Diktadurapeko ALV ez zela nor euskara estandarraz erabakiak bere aldetik hartzeko, alegia. S. Altuberena, bestalde, jeltzale euskalari baten iritzia pertsonala zen, ez besterik.⁷⁴⁷ Izan ere, C. Jemein eskola zaharreko jeltzalea zen, alderdiaren zuzendaritzak ikur historikotzat zuena, baina eragin praktikorik gabea eguneroko jardunean. EAJ-PNVren *Alderdi* buletinean artikulu doktrinarioak idaztera eta S. Aranaren ondarea zaintzera bideratu zituzten haren indarrak. Eztabaidaren harira, EBBeko buru D. Ciaurrirek barnealdeko J. Ajuriaguerrari informazioa eskatu zion ALVren gorabeherez.⁷⁴⁸ Klandestinitatearen arrisku etengabea murgilduta zegoen J. Ajuriaguerra «Ochoa»k emandako erantzunak, argi erakusten du buruzagi politikoei ALVri ematen zioten arreta eskasa:

No hemos dado importancia a las actividades de esta entidad mientras las designaciones no sean libres, los acuerdos y discusiones sean publicados y, sobre todo, el cultivo literario del euzkera esté prácticamente prohibido es de nulo valor todo lo que hagan.⁷⁴⁹

⁷⁴⁴ SAF-AA: I. Unzetaren gutuna C. Jemeini, 1949-10-13, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁷⁴⁵ Angel Urrutia (1890-1975) klaretar jeltzale hiperpurista Londresen erbesteratuta zegoen. Besteak beste, EJ-GVren Euzkadi irratian saioak ematen zituen euskaraz (Urkiri 1979).

⁷⁴⁶ SAF-AA: C. Jemeinen gutuna I. Unzetari, 1949-10-15, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8

⁷⁴⁷ SAF-AA: I. Unzetaren gutuna C. Jemeini, 1949-10-20, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

⁷⁴⁸ SAF-AA: D. Ciaurriren gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-08, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09.

⁷⁴⁹ SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna D. Ciaurri, 1949-10-16, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09. J. Ajuriaguerra bera 1949ko otsailan Baionan bildu zenean T. Monzón-M. de la Sota-J. M. Barandiaranekin, EIL-SEIB eta bereziki *Eusko-Jakintza* indartu beharra aipatu zuen, barnealdean ezin zelako ezer egin euskararen alde (Barandiaran 2009: 745-746).

J. Ajuriaguerrak zuzenean Frantziako euskaltzainei galdetzea gomendatu zion erbesteko EBBari.⁷⁵⁰ Ikusi dugunez, jeltzaleen jarrera ALVri aitorpenik ez egitearena zen, eta barnealde-erbesteko korrespondentzia irakurrita, nabari da, F. Krutwigek sumatu bezala, EAJ-PNVk Euskaltzaindia ez zuela aintzat hartzen, ezin zuelako bertan eragin, erbesteko EIL-SIEBen egiten zuen bezala. EAJ-PNVren ikuspegitik, N. Ormaechearen *Euskaldunak* argitaratzea, NBEren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala euskaratzea eta are Gasteizko elizbarrutiaren kristau ikasbidea euskaraz agertzea, askoz garrantzitsuagoa zen, barnealdeko ALVk har zezakeen edozein erabaki baino.⁷⁵¹

Alderdiaren posizio ofiziala ez izan ez arren, nabarmena da S. Altuberen 1946ko hitzaldia argitaratzeko egin zuten ahalegina EBBetik. C. Jemeinek protesta egiten jarraitu zuen eta J. M. Barandiaranen aurkako gutunak ere idatzi zituen. Beste artikulu batekin erantzuteko eskubidea emango ziotela ziurtatu arren, S. Altuberen «La unificación del euskera literario» izan zen gai horretaz *Eusko-Jakintzan* agertu zen artikulu bakarra. Nominalki udako zenbakian agertu arren, C. Jemein-EBB arteko eztabaidaren hariari jarraituta ikus dezakegu urtearen amaieran agertu zela. Euskaltzain jeltzale baten iritzia autorizatua zen inondik inora, C. Jemeinek ez bezalako begirunea lortu zuena.⁷⁵²

S. Altubek 1946ko hitzaldian literatur euskara baturik ez izateak Euskal Herriari erakarri zion zoritxarra salatu zuen. J. Vendryes irakaslearen *Le langage* (1921) liburuari jarraituta, literatur hizkuntza Estatuaren hiriburuko dialektoan oinarritu behar zela uste zuen. Kexu zen, orobat, Espainiako hizkuntzalaritzaren maila apalaz, eta horrek euskalgintzan zuen ondorio negatiboaz. Baina Euskal Herriko egoera soziopolitikoari erreparatuta, gipuzkera proposatu zuen estandar gisa, geografikoki erdigunean dagoelako, italiarekin gertatutakoaren bidetik. Hala ere, P. Lafirrek bere 1944ko gramatikan proposatutako hainbat irizpidetara gerturatzea komeni zela uste zuen, adibidez, ortografia

⁷⁵⁰ SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna D. Ciaurrizi, 1949-10-16, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09.

⁷⁵¹ SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioak, 1949-1950, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09 eta PNV_NAC_EBB,K.00300,C.10. EBBek zuen jarrera ikusita, hobeto ulertzen da Euskaltzaindiak eta barnealdeko jeltzaleek izan zuten harremanen izaera. F. Krutwigek memorieta kontatzen zuenez, J. Solaunek eman zion N. Ormaechearen lehen berria, *Euskaldunak* argitaratzeaz zegoelako, lan hura F. Mistral-Homeroren pare jarrita. Ohi zuen harrokeriaz gaitzetsi zuen J. Solaunen maila intelektuala, baina uste dut klandestinitateko EAJ-PNVrekin izandako harreman hauek, F. Krutwig bultzatu egin zutela Euskaltzaindia eta bera nor zirela frogatzera. Eleberri gisako autobiografian, R. M. Azkueren babesaz eta M. Arruzak lagunduta, Bilboko egoitzan jeltzaleekin izandako bilera aipatzen zuen, tartean M. Eguileor-J. Solaun («Sorguren») zebiltzala (Krutwig 1979a: 95-101; 1991: 89-90).

⁷⁵² SAF-AA: I. Unzeta-C. Jemein arteko gutunak, 1949-11-17 & 1949-11-28, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

konbentzionalagoaz edota lexiko ez hain puristaz den bezainbatean.

Euskararen aldeko administrazioerik nahiz hezkuntza publikorik ezean, Eliza katolikoari esleitu zion literatur euskara zabaltzea ahoz zein idatziz, bereziki gerraosteko egoera politiko larrian. Xede hori erdiesteko lau apaiz izendatu zituen, irakasle gisa izan zituzten ardurengatik: Frantziako P. Lafitte, Gipuzkoako M. Lecuona, Nafarroako D. de Inza eta Bizkaiko Jaungoiko-Zale Bazkunako kideren bat. Eliza katolikoak, jakina, EISEV-Euskaltzaindiaren eta Eskualzaleen Biltzarraren laguntza izan beharko zukeen, lehen biak inoiz suspertuz gero. Programa hori ez zen batere errealista, kontuan hartuta euskal elizgizon asko atzerriratu egin zituztela, hain zuzen, euskaltzaletasunak erakarri zien errepresio politikoengatik. ALVren menpekotasun frankistari zeharka egindako salaketatzat ulertu daiteke, beraz (Altube 1949).

9.4 Pierre Lafitteren sarrera ekitaldia (Donostia, 1949-11-25)

1949ko azaroaren 25ean Donostian batzartu ziren bederatzi euskaltzain: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, P. Zamarripa, A. Irigaray, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance eta N. Oleaga (ALV 1982: 8). R. Lafon ezin zen etorri, Bordeleko Unibertsitatean eskolak ematen zituelako.⁷⁵³ P. Lafitten sarrera barne ekitaldia izan zen, J. M. Seminarioren sarrera publikoa ez bezala. Hitzaldia bere aurreko euskaltzainaz egin zuen, G. Lacomberen bizitza eta lanaz, *Herrian* argitaratuko zena 1949ko abenduan hiru zatitan, baita separata gisa ere. Bertan 1944ko gramatikan Euskaltzaindia hiltzat jo zuelako damua agertu zuen, baina estali egin zuen 1947ko *Eusko-Jakintzan* politikoki baldintzatutako akademia hizpide izan zuela. Aldi berean, bere autonomia gordeko zuela ohartarazi zituen gainerako euskaltzainak: «orai artio ez nitzaizue biziki urrundik baizik jarraiki, eta orok badakite ez omen naizela aise-aise jartzen deusen ez nehoren meneko» (Lafitte 1949: 02).

Pertsonalki ezagutu zuen G. Lacombez adeitasunezko hitzak izan zituen. Agnostiko liberalaren eta apaiz katolikoaren arteko arrazoien distantzia nabari zen arren, interes komunak izan zituzten filosofian nahiz hizkuntzalaritzan. Ikuspegi ezberdinetatik, biek nahi izan zuten euskara autonomoagoa, erdaren ez horren menpekoa. Zera esaten omen zion G. Lacombe: «Othoi ez izan ez paria, ez zimino!» (Lafitte 1949: 10). Euskarari buruz zuten jarrera ezberdina zen, ordea. G. Lacombe euskara kanpotik

⁷⁵³ ABA-EUS: R. Lafonen gutuna N. Oleagari, 1949-11-21.

begiratzen zuen ikertzailea zen, eta P. Lafitte gizartean txertatutako ekintzailea:

Lacombe-k sineste handia zuen mintzaira-ikertzaletan, eta maiz erraiten zuen : «Eskuara jakintsun-faltan ari da hondatzen!» : ene iduriko, mintzatzale eta izkiriataile faltan galduko da, galtzekotz, eta horra zertako atsegabe handi batekin behar dudan hemen ezarri Lacombe-k ez duela biziki guti baizik erabili eskuara. Hortan segurik ez gitzaizko jarraitzen ahal (Lafitte 1949: 10).

Nolanahi den, sarrera hitzaldia baino garrantzitsuagoa izan zen S. Altuberen eskaria. Gutun bidez, Gernikako hilarrietatik euskarazko idazkunak kentzeko erregimenaren aginduaren aurrean Euskaltzaindiak zer edo zer egin zezala eskatu zuen. N. Oleaga-J. M. Seminario arduratuko zirela erabaki zuen batzarrak. Hain zuzen, 1949ko urriaren 27ko ofizioz Bizkaiko gobernadore zibilak agindu zuen ken zitzatela probintziako hilarrietako euskarazko idazkunak (hots, santu izendegi jeltzalea) eta horien ordeztu gaztelaniazkoak jartzeko. Gernikako alkateak azaroaren 2an jakinarazi zien herritarrei G. Riestraren agindua. Besteak beste, S. Altuberen emazte Gregoria Gangoitiren ahizpak jaso zuen:

Obra en poder de esta Alcaldía, atta. comunicación, N° 2486, del negociado 4º, del Excmo. Gobierno Civil de esta Provincia, fecha 27 del mes de Octubre p.pdo y una de cuyas partes, copiada literalmente, dice: «...se requiera a los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las losas y sustituidas las citadas inscripciones por otras en castellano.» Y siendo V. uno de los propietarios de panteón, en el cual aparece inscriptos con nombres en vascuence, requiero a V. para que con la debida urgencia sea retirada dicha placa y sustituida por otra en castellano.⁷⁵⁴

G. Riestraren aginduak, diktadura frankistak izendegi jeltzaleari jarritako debekuaren atzeraeraginezko ondorio ankerra zen. Seguru asko arazo horrekin lotuta, irailaren 22ko datarekin, Euskaltzaindiko idazkariak, hartzaile jakinik gabeko agiri bat ere prestatu zuen, santu izendegi jeltzaleko «Eli», «Bingen» eta «Joseba» euskal izen arruntak zirela ziurtatzeko, nahiz eta ALVk izendegi ofizialik ez izan.⁷⁵⁵ Azaroko

⁷⁵⁴ SAF-AA: V. Rojoren ofizioa R. Gangoitiri, 1949-11-02, PNV_NAC_EBB,K.00285,C.2.

⁷⁵⁵ ABA-EUS: N. Oleaga idazkariaren ziurtagiria, 1949-09-22. EBeko arautze saioak, R. M. Azkue-S. Altubek burutu zutena, huts egin zuen, Bizkaiko EAJ-PNVren presioagatik (Kintana Goiriena 2008: 599-607).

batzarrerako deialdia zabaldu zenean, Pauetik ezin etorria adierazi zuen S. Altubek, baina ALVren zilegitasuna frogan jarri zuen, Bizkaia frankistan euskararen aurka hartutako neurria salatuz:

Idatzagindu onek, nere pamilyaren eskubideen kontra lukeanagaitik enuke, laguntasun bila, Euskaltzaindiarengana jotzerik; baiña euskaldun eta euskaltzain naizelako ematen didan atsekabea, ezin ixildu nezake.

Nik eztakit, ortaz, Euskaltzaindiak, zer erabaki artu nai edo aal dezakean, baiña dezakeana-dezakeala, nik, neroren alde, nere atsekabea, gertakari-liburuan ezafirrik agertu dedila nai nuke.⁷⁵⁶

Gutunaren kopia EBBko kideei edota C. Jemeini ere bidali zien.⁷⁵⁷ Erbesteko EJ-GEk gorabehera guzti horien berri zuen. 1949ko abenduan, Parisko *Euzko Deyak* bere posizioaren berri eman zuen artikulua baten bidez. Ez zen Euskaltzaindia berrituaren aurka agertu, baina argi utzi nahi zuen euskararekiko tolerantzia zenbait eremutan ez zela frankismoaren liberalizazio zantzua, baizik eta euskal gizarteak, erbestekoak barne, eragindako presioaren garaipen mugatua. Gerraosteko jazarpen faxistaren eta 10 urte ondoko euskararen egoera, funtsean ezberdinak ote ziren galdetzen zion bere buruari artikulugileak:

La misma, dirán muchos, la misma; porque las escuelas siguen clausuradas y el gobernador de Vizcaya ha ordenado bien recientemente que se retiren de los cementerios todas las inscripciones en euzkera. La misma; porque las autoridades franquistas han prohibido el uso del euzkera en ocho publicaciones religiosas editadas por diversas Comunidades y organizaciones eclesiásticas. La misma; porque hasta en unas inocentes evocaciones donostiarras de don Vicente Machimbarrena, la censura tachó recientemente... la letra del «Iriyarena».

Pero esta información no es completa, alegarán algunos. La situación es hoy algo distinta, porque ya se reeditan diccionarios, gramáticas y diversos libros en euzkera, mientras en la prensa diaria y en las publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País aparecen frecuentes trabajos en euzkera, si bien, acompañados generalmente de su traducción castellana. La situación es ya distinta, porque, de algún tiempo a esta parte, los certámenes de bertsolaris han logrado tolerancia y difusión; es distinta, porque incluso la Academia de la Lengua Vasca ha reanudado sus actividades y completado su cuadro

⁷⁵⁶ ABA-EUS: S. Altuberen gutuna N. Oleagari, 1949-11-19.

⁷⁵⁷ SAF-AA: S. Altuberen gutuna C. Jemeini, [1949], PNV_NAC_EBB,K.00285,C.3.

con académicos cispirenaicos. Y nada de esto hubiera sido posible hace doce años sin peligro de cárcel y aun de fusilamiento.

Conforme, replicarán otros. Pero se trata de actividades suscitadas o toleradas por el régimen con propósito de propaganda política y, por lo tanto, estrechamente controladas. El Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y su suplemento «Egan» no son publicaciones libres, desde el momento en que dicha entidad es delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas. En cuanto a la Academia de la Lengua Vasca, su hipoteca es manifiesta, ya que acaba de dar entrada en su seno al falangista Seminario de Rojas.

Muy bien, insistirán los demás: pero a pesar de todo, a pesar de las conocidas intenciones del franquismo, parece indudable que hoy empieza a haber en el país, mayores posibilidades de una acción a favor del euzkera (*Euzko Deya* 1949-12-15).

Bestalde, F. Krutwigek, ALVren 1949ko azaroko batzarrean, euskaraz idatzitako «Antzundu philologia» (hizkuntzalaritza konparatzailea) izeneko lana irakurri zuen.⁷⁵⁸ Bertan, euskaltzainburuak eskatutako bidetik, euskara hainbat hizkuntzekin erkatu zituen, ahaidetasunak aurkitu nahian: indoeuroparrak, semitikoak edota uraliar-altaitarrak.⁷⁵⁹ Gramatika iruzkin batzuk ere gehitu zituen euskal aditzaz; grekoaren, latinaren eta erromantzeen ohiko ereduaren eragin ustez nahasgarritik askatu nahian. Esan beharra dago Nikolai I. Marr (1863-1934) georgiar hizkuntzalaria aipatu zuela. N. I. Marr izan zen teoria jafetikoaren sortzailea; Kaukasoko hizkuntzak, etruskoa eta euskara lotzen zituen, alegia. N. I. Marr Sobietar Batasuneko hizkuntzalaritza ofizialaren buruzagia zen eta euskalari nagusien jakin mina piztu zuen. N. I. Marr-ek zituen asmo politikoen beldur, J. Urquijo beraren bermearekin baino ez zioten Espainiara sartzen utzi 1923an. Nolanahi den, *RIE*veko zuzendariak gaitzetsi egin zuen haren teoria, A. Meilleten lanean oinarrituta (Urquijo 1934a; Hurch & Kerejeta 1997).⁷⁶⁰

⁷⁵⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen « Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

⁷⁵⁹ JLA-FK: «Institut jafetidologičeskij izyskanij Rossijskoj akademii nauk» delakoak argitaratutako *Recueil japhétique* aldizkariaren lehen liburukia dago (1922).

⁷⁶⁰ Teoria jafetikoa 1950ean R. Lafoni emandako erantzun hitzaldian berriz aipatuko zuen (Krutwig 1952c: 52). F. Krutwigen diletantismoaren beste froga bat da ez zuela artikulua bat bera ere argitaratu *BRSVAP*en; J. Urquijok haren gaitasunaz izan zezakeen iritzia aditzera ematen duena (cf. Lakarra 2011: 239).

9.5 Nicolás Ormaechea «Orixe»ren oposizioa

Gernika aldizkariaren 1949ko abenduko zenbakian beste artikulu bat agertu zen Euskaltzaindiaren aurka. N. Ormaechea urgazle eta idazle ospetsuak idatzitakoa zenez, aginpide bereziz jantzita zetorren. Nicolás Ormaechea «Orixe» (1888-1961) Gipuzkoako Orexan jaio zen, baina Nafarroako Uitzin hazi zuten. Jesuitekin eliz ikasketak egin zituen, baina ordena utziarazi egin zioten. 1919an Euskaltzaindia eratu zutenean urgazle izendatu zuten. ALVko lankideekin batera, 1920-1930eko hamarkadetan, langile kontratatu gisa, Euskaltzaindia barrutik ezagutzeko aukera izan zuen: inkesta dialektologikoak egiten, gaztelania-euskara lexikografian eta batzarretan parte hartzen aritu zen. *Euzkadi* egunkari jeltzaleko euskal ataletik, sabindar ortodoxoen eta ALVren artean bakegile lanetan aritu zen, euskal izendegi ofizialaren egitasmoaren inguruan istiluak sortu zirenean. Euskal idazle ezagunena bilakatuta, EBEn Bilbo utzi egin zuen, Euskaltzaleak elkartearen enkarguz *Euskaldunak* «poema nazionala» idazteko. EGZean preso egon zen Iruñean lau hilabetez. Berriz atxilotua izateko arrisku bizian, Frantziara erbesteratu zen 1938ko maiatzean. 1950ean Ameriketara alde egin zuen eta ez zen Gipuzkoara itzuliko 1954 arte (Iztueta 1991; Ruiz Arzalluz 2003; 2009; Ruiz Arzalluz & San Juan Manso 2011; Kintana 2015).⁷⁶¹

Ukatu egin zuen minduta zegoenik bera euskaltzain izendatu ez zutelako, baina gogor kritikatu zuen ALV berritua. Badirudi ez zela EAJ-PNVrekin adostutako ateraldia, J. Thalamás-I. Fagoagaren aldizkarian agertzeaz gain, S. Altuberekiko errezeloa ere igartzen zelako: «Por otra parte, conviene hablar de dialectos y regiones, y creo que el señor Altube no querrá abordar el asunto» (Orixe 1949: 18). Nolanahi den, N. Ormaechearen jomuga P. Lafitte zen; ideiak inposatzeko tresnatzat ALV erabiltzen ari zela salatu zuen. EGZ aurreko Euskaltzaindiarekin izan zuen lankidetzaren estuak ematen zion zilegitasunetik, puntuz puntu ukatu zituen ALV berrituaren eskubide eta asmoak. Euskaltzaindia frankismoarekiko menpekota eta alderdikieriaz izendatutako kidez osatuta zegoen. Bestalde, euskararen batasuna lortzeko iragartzen ziren neurriak, literatur ereduan, ortografian edota neologismoetan, linguistikoki eztabaidagarriak ez ezik, politikoki zeharo bidegabeak ziren, diktadura frankistak indarrez sortutako eten kultural eta historiko batetik zetozelako: «Cabe preguntarse por qué hay tantos académicos de

761 N. Ormaechearen eta gerraondoko ALVren arteko eztabaidaren azterketa sakon baterako, nahitaezkoa da Paulo Iztueta soziologoaren monografia monumentalera jotzea (Iztueta 1991).

estirpe germánica y falangista, dejando de lado a distinguidos hijos del País más merecedores de esa elección» (Orixe 1949: 19). A. Irigarayk ohar bat bidali behar izan zion, P. Lafitteri, anonimo bezala *Herrian* argitaratu eta giroa bare zezan:

Akademia orrekin adiskidantzan bai nago, badakit gauzak ez direla «Herria»ren buruzagiak erraten duen bezalache gertatu.

Banago ere, on baiño kalte geyago ez duenez egin artikulu orrek zombait buru minberetan. Berandu izanen dea orai gauza zaharren churitzen astea?

Dena den, irakurleak jakin dezan, errain dut Euskaltzaindian erreboluzionerik ez dela gertatuko «langue littéraire» orreri buruz; euskalari geyenek uste bai dute ez dela orai tenorea, Gipuzko-eskuara eta lapurtarra zimikoka as daizten. Ez orai ez nehoiz ere. Oraiko eskualzaleen nai gurea, eskuaraz mintzatzen (apud Andiazabal et al. 2005: 268).

Gernika aldizkariaren hurrengo zenbakietan, eztabaidarekin jarraitu zuten N. Ormaechea-P. Lafittek. Gerraondoko testuinguruan, erabaki ortografiko xumeek konnotazio politiko saihestezina zuten, eta hori aurpegiratuko zien N. Ormaecheak akademikoei, 1920an onartutakoa ez errespetatzeagatik (Orixe 1950d). Hizkuntzaren inguruan egiten ziren gogoeta interesgarrien atzean, ezinikusi pertsonal oso nabarmena zegoen. Deskalifikazioen tonuak berak, eztabaidaren maila beheratu egin zuen. *Herriako* zuzendariak ezin izan zion eutsi sarkasmoari: «Monsieur et cher bienfaiteur, que Dieu vous conserve longtemps comme gardien vigilant de notre humilité et comme collaborateur efficace d'un humanisme d'union» (Lafitte 1950: 20).

Bestalde, N. Ormaecheak Euskaltzaindia berrituari egin zion erasoan, Nafarroa-Frantziako euskaltzain gehiegi zeudela salatu zuen, demolinguistikoki ez ezik, ekonomikoki zentzurik ez zuena, Frantziako administrazioek ez baitzuten diru laguntzarik ematen:

Afirmaciones aventuradas, en verdad, M. Lafitte, ya que no ignora Vd. que nuestros dialectos, el de Vd. y el mío, están demasiado bien representados en comparación al guipuzcoana y al vizcaino. El navarro-labortano cuenta desde un principio con Broussain, Landerreche [sic], Lacombe, Campión, Intza (cinco) y el P. Lhande, suletino: es decir, la mitad del número total. Creo, con toda sinceridad que no tenemos derecho, nosotros navarro-labortanos, a ampliar nuestro número con perjuicio del vizcaino y guipuzcoano. A pesar de tanta población no vasca, eran muchos miles más las personas que en Bilbao sabían y hablaban euskera que en Bayona, Biarritz, San Juan de Luz, Mauléon y

Pamplona. ¿Dónde hay en la zona continental del País Vasco poblaciones de la densidad de Bermeo, Gernika, Marquina, Durango, Galdacano, etc., etc., sin contar las villas guipuzcoanas de Eibar, Mondragón, Oñate que utilizan también el dialecto vizcaino? La injusticia es grande contra los vizcainos, y lo mismo cabe decir respecto a Guipúzcoa. Sólo en la capital guipuzcoana se habla más euskera que en Bayona, Biarritz y Mauléon juntos. ¿Dónde hay en los Bajos Pirineos o en Navarra poblaciones de la importancia de Azpeitia, Azkoitia, Deva, Vergara, Tolosa, Hernani que conocen y utilizan el euskera? Reconozca Vd., M. Lafitte, que la primera Academia no fué injusta sino muy generosa con nosotros (Orixe 1949: 20).⁷⁶²

9.6 *Izendapen berriak*

N. Ormaecheak bere kalkuluetan garai ezberdinetako euskaltzainak nahastu arren (P. Broussainen ordeztatu zen G. Lacombe), funtsean zuzen zegoen. Ikusi dugunez, 1936an honela banatzen ziren 12 euskaltzainak: hiruna Bizkai-Gipuzkoa-Frantziakoak, bi Nafarroakoak eta bakarra Arabakoa. 1949ko erreformaren ondoren, hauek ziren 18 euskaltzainak:

1. Resurrección M^a Azkue
2. Bonifacio Echegaray
3. Julio Urquijo
4. Ignacio M^a Echaide
5. Severo Altube
6. Pablo Zamarripa
7. Pierre Lafitte
8. Jean Elissalde
9. Manuel Lecuona
10. Dámaso de Inza (OFM^{Cap})

⁷⁶² Demolinguistikoki, Euskal Herriko hiztunen batez bestekoak ez ziren zehazki begiratzen ALVren ordezkarietan. C. Jemeinek 1936 inguruko probintziaz probintziako hiztunen datuak eman zituen EAJ-PNVren buletinean: Araban 8.000, Bizkaian 250.000, Gipuzkoan 200.000, Nafarroan 60.000, Nafarroa Beherean 39.000, Lapurdin 60.000 eta Zuberoan 23.000. Guztira 640.000 euskaldun. Konparaziorako, J. M. Azaolak honela banatu zituen Espainiako milioi erdi euskaldunak 1950 inguruan: 250.000 Gipuzkoan, 200.000 Bizkaian, 50.000 Nafarroan eta gutxi batzuk Araban. G. Lacombe, ordea, 1938-1940 inguruan 600.000 euskaldun zenbatu zituen Espainian eta 100.000 Frantzian. G. Bähr-ek 500.000 euskaldunen kopurua ematen zuen guztira 1941ean (*Alderdi* 1950-02; Azaola 1951: 123; Lacombe 1952: 260; Jauregi 2006: 550).

11. Juan Miguel Seminario
12. Nazario Oleaga
13. Angel Irigaray
14. Pierre Lhande (SI)
15. Federico Krutwig
16. René Lafon
17. Jean Saint-Pierre
18. Louis Dassance (Arana Martija 1990: 26).

Hots, 12 Espainiakoak eta 6 Frantziakoak: P. Lafitte-J. Elissalde-P. Lhande-R. Lafon-J. Saint-Pierre-L. Dassance. Bizkaiko 5 (R. M. Azkue-J. Urquijo-P. Zamarripa-N. Oleaga-F. Krutwig), 4 Gipuzkoako (B. Echegaray-I. M. Echaide-S. Altube-M. Lecuona), eta 3 Nafarroako (D. de Inza-J. M. Seminario-A. Irigaray). Ondorioz, 1936an %25na izatetik, Bizkai-Gipuzkoa-Frantziako ordezkariak, hurrenez hurren, %27,77, %22,22 eta %33,33 izatera igaro ziren. Frantziako euskaltzainen ordezkariak laurdenetik herenera handitu zen, alegia. R. Olabide 1942an hil zenetik, Arabako ordezkariak ez zegoen, eta Nafarroako ordezkariak ALV handituaren %16,66 ziren, 1936an bezalaxe. 1949ko diru laguntza ofiziala JCVren 5.000 ptak eta GPDaren 3.000 ptak osatzen zutela kontuan hartuta, desoreka geolinguistikoa oso nabarmena zen. Frantzia-Nafarroako erakundeek ez zuten ezer ematen.⁷⁶³

Bestalde, elizgizonak zortzi ziren: R. M. Azkue-P. Zamarripa-M. Lecuona-D. de Inza-P. Lafitte-J. Elissalde-P. Lhande-J. Saint-Pierre. 1936an %58,33 izatetik 1949an %44,44 izatera igaro ziren, beraz. Hala ere, batez besteko altua zen, Eliza katolikoaren presentzia horrekin bestelako borroka ideologikoak saihestu nahi zirela nabari baitzen. Izan ere, jeltzaleak, 1936an bezalaxe, hiru besterik ez ziren nire ustez: S. Altube-M. Lecuona-A. Irigaray. Hots, %25 izatetik %16,66 izatera igaro ziren. Dena dela, ikusi dugunez, Frantziako zenbait euskaltzain, BMG ondoko testuinguruan, filojeltzaletzat jo zitezkeen. Bestalde, ALVren historian lehen aldiz euskaltzain komunista bat (R. Lafon) onartu zen oharkabean.

⁷⁶³ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1949.

Pierre Lafitte

Pierre Lafitte (1901-1985) Luhuson (Pirinio Behereak) jaio zen. Baionako elizbarrutiko seminarioan ikasi eta 1923an apaiztu zen. J. Saint-Pierre seminarioko irakasleak bultzatuta, ahaztutako euskara lantzeari ekin zion. Jesuiten Tolosako Institutu Katolikoan letrak ikasi zituen eta bertan P. Lhande euskaltzainarekin harremanetan egon zen. Horrek *Dictionnaire basque-française* (1926-1938) amaitzea agindu zion, eta 1928an urgazle izendatu zuten. 1926an hasita, hainbat ikasgairen irakasle izan zen Uztaritzeko seminarioan, filosofia-erlijioa nagusiki, baita euskal hizkuntza-literaturak ere. Pentsalari katoliko pertsonalisten jarraitzailea izan zen, ikuspegi sozial eta federalista batetik bere ikasleen artean zabaldu zuena. Espainiako abertzaletasunaren eraginpeko mugimendu erregionalista sustatzen saiatu zen 1930eko hamarkadan.

BMGn alemaniarren aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Horrela, *Eskualduna* astekari kolaborazionista debekatu zutenean, gauza izan zen bi orrialdeko astekari gaullista bat sortu eta zuzentzeko 1944tik, *Herria* izenarekin. Hain zuzen, erbesteko EAJ-PNV izan zen astekariaren laguntzaile ekonomiko nagusia. 1947ko abenduan T. Monzón buru zuen batzarrak urtean 200.000 frankorekin laguntzea erabaki zuen, ordutik aurrera lau orrialde izan zitzan (Barandiaran 2009: 711). Alderdi politikoen nahiz Baionako apezpikuaren eragina gorabehera, *Herria* aldizkari autonomoa izan zen (Monier 1992; Larronde 1994; Arbelbide 1997; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007).

Hizkuntza estandarizatzeko P. Lafittek zuen plangintza *Grammaire basque* (1944) delakoan formulatu zuen zehazki. Euskaltzaindia hiltzat jotzeaz gain, ALVren eragin eskasa salatu eta R. M. Azkueren *Gipuzkera osotua* (1935) funtsean desegokitzat jo zuen. Baionako elizbarrutiko prentsaren inguruan, XX. mendean sortutako literatur nafar-lapurtera proposatu zuen horren ordez:

Il existe chez nous un mouvement naturel vers un basque meilleur que le basque dialectal : il se révèle surtout dans la langue écrite et la prédication. L'idéal, dans les arrondissements de Bayonne et de Mauléon, exception faite de la Soule, c'est d'avoir une morphologie d'allure labourdine et non contracte, des constructions claires, concises, qui ne sentent pas le français; c'est d'être assez maître du verbe pour s'en passer, quand c'est possible, ou n'en mettre en oeuvre que les formes nominales, quitte à ne pas escamoter, si elle est utile, une forme personnelle même très complexe : pour ce qui est du vocabulaire, le bon styliste est abondant, mais évite avec autant de soin les néologismes vulgaires empruntés

aux langues romanes que les néologismes compliqués de certains puristes immodérés.

[...]

Mais d'une façon plus ou moins inconsciente, les nouveaux écrivains ont, depuis soixante ans, dans le cadre d'une morphologie à peu près labourdine, introduit de nombreux éléments navarrais et même des vestiges de souletin. Aussi la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des oeuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apestéguy, etc., révèle-t-elle la naissance d'une langue littéraire commune à presque tout le Pays Basque continental et que l'on pourrait appeler «néo-labourdine», ou plus précisément «navarro-labourdine» (Lafitte 1944: 6-7).

Jean Saint-Pierre

Jean Saint-Pierre (1884-1951) Milanfrangan (Pirinio Behereak) jaio eta teologian doktorea zen. Frantses nazionalismoa areagotu zuen LMG egindakoa zen, germanofobo erabatekoa, baina euskaltasunarekin uztartu nahi izan zuen identitate hori. Garai horretatik zegoen harremanetan Espainiako abertzaletasunarekin. Euskal idazle gisa, J. Hiriart-Urrutyren kazetaritza eskolakoa zen. 1920ko hamarkadan *Gure Herriaren* zuzendari eta *Eskualdunaren* erredaktoreburu izan zen, Frantziako Gobernu ezkertiarren neurri laizistei aurre egiteko.

Jatorri xumekoa zenez, Eliza katolikoari begiratu zion beti, hari esker baino ezin izan zuelakoan gora egin. 1930ean A. Lemaître Kartagoko artzapezpikuaren laguntzaile izendatu zuten. Gordus-eko elizbarruti birtualeko buru izanagatik, inoiz ez zuen maila horretatik gora egin. Hierarkiarekin izandako arazoez betirako markatu zuten. 1937an, Tunisiako mugimendu nazionalistaren indarkeria areagotzen ari zenean, Euskal Herrira erretiratu eta baldintza ekonomiko eskasetan bizi izan zen. BMG ondoren EJ-GEk antolatutako kulturgintzan parte hartu zuen. Besteak beste, EIL-SIEBen 1948ko biltzarreko itxiera hitzaldian totalitarismoak salatu zituen, diktadura frankistari zuzendutako gezia:

Et maintenant, un dernier vœu, un dernier souhait: c'est que nous nous accrochions de plus en plus à notre culture si originale; il faut la garder à tout prix au milieu de tous ces efforts totalitaires qui veulent modeler le monde d'une seule manière. La Providence, le Bon Dieu, nos ancêtres, nous ont fait ce que nous sommes; ils nous ont donné un héritage spirituel magnifique, un capital moral splendide, ne le gaspillons pas: au contraire,

gardons-le, cherchons dans ce capital, nos raisons de vivre; nourrissons-nous de ce capital et donnons toujours au monde l'exemple d'un peuple qui veut vivre ce qu'il est et qui veut donner au monde l'exemple, le spectacle de la permanence. Je sais bien, c'est précisément cette permanence du tempérament bas que, cette permanence du droit coutumier des Basques, qui fait que d'autres nous regardent avec étonnement, avec stupeur, pourquoi ne pas le dire: quelques-uns avec peur (apud Larronde 2004b: 32-33).

Tunisiako protektoratu frantsesean egon zenetik, euskarak eta Mediterraneoko hizkuntza zaharrek harreman genetikoak zituztela uste zuen, N. Lahovaryren *Les peuples européens* (1946) liburuaren bidetik. Azken finean, ikuspegi katoliko batetik, hizkuntzen monogenesian sinesten zuen. K. Bouda hizkuntzalariak oso gogor kritikatu zituen euskararen jatorriaz 1948ko biltzarrean aurkeztu edota *Eusko-Jakintzan* argitaratu zituen lanak (Lafitte 1952a; Monier 1992: 488-491; Charritton 2003a; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007; Bidegain 2013).

Manuel Lecuona

Manuel Lecuona Echabeguren (1894-1987) Gipuzkoako Oiartzunen jaio zen. Gasteizko elizbarrutiko seminarioko euskara katedra eskuratu zuen 1915ean eta urgazle izendatu zuten 1919an. EBEn, EI-SEVen ez ezik, Euskaltzaindiaren Laguntzalleak taldearekin aritu zen euskararen gizarte sustapenean. R. M. Azkuek omenaldia jaso zuenean 1936ko ekainean Lekeition, M. Lecuonak epika saria irabazi zuen. EGZa hastean, M. Lecuonaren bi anaia fusilatu egin zituzten eskuindarrek. Seminariotik ihes egin eta lau urte egon zen Lasarteko brigitarren kapilauaren etxean ezkutatuta, komentuko artxiboan tokiko eliz historia ikertzen. 1941ean Gipuzkoako ezkutalekutik atera eta Calahorrako elizbarrutira destinatatu zuten (Lecuona 1995; Torrealdei 2000: 80-82; Kintana Goiriena 2008: 347-348).

1944ean, C. Ballester Gasteizko apezpikuak deserriko zenbait apaiz itzultzeko baimena eskatu zion Barne Arazoetako ministerioari. Ministerioak hurrengo informazioa bildu zuen M. Lecuonaz:

Respecto a si procede o no su regreso a los destinos que desempeñaba anteriormente, se ha podido informar por dignísimos sacerdotes, españoles ejemplares, que aun cuando el informado era bastante nacionalista, dada su elevada cultura y ejemplaridad de su sacerdocio, creen que no existe inconveniente por estar convencidos de que no se

mezclará en ninguna actividad política (apud Ferreiro Currás 2013: 465).

Besteak beste J. C. Ibarguchi urgazleari gertatu bezala, ukatu egin zioten baimena; 1955 arte jarraitu behar izan zuen Calahorran. Eliz historiaren ikerketan jarraitzeaz gain, euskarazko zenbait poema eta eliz kanta argitaratu zituen, baita *Gazteiz-ko Eliz-barrutirako kristau-ikasbidea* (1949) ere.⁷⁶⁴ Euskaltzain izendatu zutenean, urrats garrantzitsua izan zen haren errehabilitazio politikoan. M. Lecuonak, hain zuzen, 1949ko irailaren 15ean salatu zion J. M. Barandarian lankide ohiari Espainiako Eliza katolikoaren egoera larria:

Galde diet ongi al diren España'ko nausien mende; ezetz erantzun diate: alde guzietan gosea, autamenaren bideak itxirik, elizgizonak (goienekoak beintzat) nausiakin bat egiñik, Eleiza gaizki ikusia, denak erlijioagandik aldentzen; ala ere España'ko elizgizon asko edo geienak indarrez erria bereganatzeko itxaropenean (Barandiaran 2009: 762-763).

Louis Dassance (eta «Gure Herria» aldizkaria)

Louis Dassance (1888-1976) Uztaritzen (Pirinio Behereak) jaiotako ingeniari agronomoa zen. Eskuin muturreko ikuspegi batetik, nekazarien aldeko lanetan parte hartu zuen. Uztaritzeko auzapezorde (1919-1939) eta auzapez (1939-1959) izan zen. 1926tik Eskualzaleen Biltzarreko buru izan zen, eta urgazle izendatu zuten 1930ean. Eskualzaleen Biltzarraren elitismo nostalgikoa ezin izan zuen behar adina eguneratu, bereziki EGZ-BMGk agerian jarritako ezintasunen aurrean. 1950ean Eskualzaleen Biltzarreko zuzendaritza hurrengoek osatzen zuten: L. Dassance buru, J. Elissalde idazkari eta A. Constantin diruzain (*Alderdi* 1950-10).⁷⁶⁵ Elkartearen lorpen nagusia haurren artean euskal literatura lehiaketak antolatu eta sariak banatzea izan zen (Charritton 2003b). EJ-GEk bultzatutako EIL-SIEBeko zuzendaritzako kide gisa, 1948ko nazioarteko biltzarrean «La Forêt au Pays Basque français» hitzaldia eman zuen.

⁷⁶⁴ ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-11-05. Gipuzkerazko doktrina hori lehen aldiz 1921ean moldatu zuen, L. Eijo apezpikuak aginduta eta Euskaltzaindiaren onarpenarekin. 1936 arte edizio ugari izan zituen, bizkaierazko bertsioaz arduratu zen J. B. Egusquizarrenak bezala. Gerraondoko giroaren erakusgarri, kristau doktrina lehen aldiz 1940 inguruan berrargitaratu zutenean, gaztelaniazko grafiaz ezarri, eta ikur abertzaletzat jo zitezkeen euskal toponimo nahiz neologismoak kendu egin zituzten: *Vitoria'co Eliz-barrutiraco cristau-dotriña* (ABK).

⁷⁶⁵ Hurrengo urtean D. Dufau notarioak hartu zuen diruzaintza (*Herria* 1951-09-27).

1921ean sortutako *Gure Herria* aldizkariaren diruzain eta arduradun nagusia zen EGZa lehertu zenean. Aldizkariak jarrera bakegilea izan zuen, Gasteiz-Iruñea-Santanderko euskal apezpikuen alde egiteaz gain, bi alderdien arteko negoziazioan konprometitu zen. Kontuan hartu behar da Baionako prentsa ia guztia frankisten aldekoa zela. Espainiako 90 harpidedunak gerraren ondorioz galdua, *Gure Herriaren* 1936ko azken zenbakia bertan behera uztea erabaki zuten. Hala ere, erredaktoreek argi zuten, Frantzia mailako erregionalismoaren muga gainditu gabe, Euskal Herriko kultur aldizkari nagusia zirela une horretan.⁷⁶⁶ C. Mathieu apezpikua (buru), E. Souberbielle eta J. Jauréguiberry (buruordeak), P. Lafitte (idazkari) eta L. Dassancen (diruzain) zuzendaritzapean, *RIE*Ven hutsunea bete zuten, maila apalagoan, 1937-1939 artean. Oinarrizko jarrera katoliko eskuindarretik, aldizkariko arduradunak «euskal oasia»ren aldera lerratu eta EGZeko erbesteratuak laguntzen aritu ziren. *Gure Herriako* orrialdeetatik ukatu egin behar izan zuen autonomista-separatistak zirenik. Biratze hau ez zen erraza izan, soziologikoki J. Ybarnegaray diputatuak irudikatzen zuen eskuin muturreko frantses nazionalismoan hazitakoak zirelako arduradun gehienak (*Gure Herria* 1936a; 1936b; 1937; 1938; 1939; Monier 1992: 329; Murua Uria 1997; Hernández Mata 2007; Itzaina 2008; Haritschelhar Duhalde 2009; Barandiaran 2009).

BMGk eten egin zuen Baionako aldizkaria eta 1950 arte ezin izan zuten berpiztu, diktadura frankistapeko ALVn buletinik gabe jarraitzen zuen aldi berean. L. Dassancek hartu zuen kultur aldizkariaren administrazio kontseilua osatzeko ardura: J. Saint-Pierre (buru), A. Constantin eta L. Léon (buruordeak), P. Lafitte (idazkari nagusi), P. Charriton (idazkariorde) eta L. Dassance (diruzain). Aholkulari izendatu zituzten: J. Elissalde, J. Moulher, D. Dufau, J. Jauréguiberry, G. Eppherre, T. Monzón, M. de la Sota edota M. Inchauspe. Zalantzazkoen artean zegoen J. Etcheverry-Ainchart diputatu ohia.⁷⁶⁷ *Gure Herriak* nagusiki frantsesez landu zituen kultur gaiak, baina Pirinio Behereetan euskal kulturaren aldeko ekintzek zuten bizitasunaren beste ezaugarri bat zen, euskal diputatuek

⁷⁶⁶ Euskal kulturaren beste ordezkaria *Bulletin du Musée Basque* izan zen, 1944-1963 artean etenda egongo zena. W. Boissel museoaren zuzendariak 1937ko abuztuan Parisen emandako hitzaldian EGZarekiko antzeko ikuspegia, neutrala baina bakegilea, eman zuen: «Cette guerre nous mêla à une autre forme de vie, tragique et douloureuse. Elle sépara en deux camps les Basques d'Espagne; elle ne supprima pas les amitiés que nous avions, que nous conservons des deux côtés. Depuis longtemps nous suivions, sans y prendre part, la lutte d'idées qui opposait les royalistes, carlistes ou non, aux républicains, les séparatistes irréductibles aux partisans des *fueros*. Le Musée Basque représentait un excellent observatoire. Nous y restions, cela va sans dire, Français, bons Français, uniquement Français, mais nous donnions audience à toutes les opinions, même à celles qui nous rattachaient tantôt à un duché de Vasconie, tantôt à une république euskarienne dont la carte, allant de l'Ebre à l'Adour, est depuis longtemps dressé» (Boissel 1937: 46-47).

⁷⁶⁷ ABA-LAF: L. Dassancen gutuna P. Lafitteri, 1950-02-17.

Parisen lortutako emaitza politikoak bezala: Deixonne Legea izango zena eta horren ondoko diru laguntza ofizialak euskara, modu prekarioan izan arren, hezkuntzan sartzeko (Gure Herria 1950a). Aldizkariaren zuzendariak, bestalde, lehen zenbakiaren hitzaurrean, ez zuen aukera galdu diktadura frankistaren zentsura salatzen: «La carence actuelle des manifestations de la pensée basque chez nos voisins des Provinces, nous oblige a un nouvel effort» (Saint-Pierre 1950a: 2).

ALVrekiko harreman hotzaren erakusgarri, *Gure Herriak* Euskaltzaindiaren batzarren berri labur eta motz eman zuen beti (cf. Gure Herria 1950a; 1950b; 1950c). Besteak beste, *Gure Herriak* EIL-SIEBen biltzarreko hainbat komunikazio argitaratu zituen 1950-1951n: S. Arotçarenaren «Le problème de la traduction», Th. Uthurryren «Monsieur le chanoine Emmanuel Inchauspe», C. Tagliavaniren «Alfredo Trombetti et ses études sur l'origine du basque» edota P. Oihanburuen «Sur le néologisme». Azken artikulu horrek Euskaltzaindiaren erreformaren alde egin zuen, euskararen estandarizazioaren arazoari heltzeko. Begi onez ikusten zuen Frantziako euskaltzainen eta batez ere P. Lafitteren eragina auzi horretan. Baionako aldizkariak, urrutira gabe, *Euzko-Gogoaren* lehen zenbakia jaso zuenean hizkuntza hermetikoegia zerabilela adierazi zuen (Gure Herria 1950b).⁷⁶⁸

René Lafon

René Lafon (1899-1974) Mérignac-en (Gironde) jaio zen. Euskal jatorririk ez zuenez, 1920ko estatutuen arabera ezin zitekeen euskaltzain izan.⁷⁶⁹ Lizeoko filosofia irakasle izan zen, baina A. Meillet-F. Saussureren lanak irakurri zituenetik, hizkuntzalaritzara jo zuen. 1920ko hamarkadan Parisko hizkuntzalariek euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura ikertzera bideratu zuten, N. I. Marr-en teoria

⁷⁶⁸ P. Oihanburuk neologismo jeltzaleen gehiegikeriak gogor kritikatu zituen eta hizkuntzaren atzerakada eragozteko neurri kaltegarriak hartu izana leporatu zien: «Et actuellement, on voit une débasquisation des provinces péninsulaires que la persécution officielle seule ne suffit pas à expliquer» (Oihanburu 2003: 798). Ondoren, A. Tournierrek beste artikulu bat idatzi zuen ildo beretik, S. Arana ezjakintzat utzita. Bi orrialdeko protesta zuzendu zioten hainbat jeltzale nabarmenek aldizkariaren zuzendariari: S. Altube, J. M. Leizaola, C. Jemein, T. Monzón eta D. Ciauriz. A. Tournierrek, azkenik, jeltzaleen ortodoxia eta abertzaletasun inposatzailea kritikatu zuen, Pirinio Behereetako hizkuntz egoera eta tradizioa begiratzen ez zuelako (Tournier 1951).

⁷⁶⁹ F. Krutwigek oker adierazi zuenez, *RIE*veko artikulu batean ama Nafarroa Beherekoa zuela idatzi zuen, baina aipu hori G. Lacomberri zegoen (cf. Lafon 1936: 68; KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-07-04).

jafetikoa aztertzeko. Euskara ongi ikasita, *RIE* Ven inguruko euskalariekin harremanetan hasi zen eta urgazle izendatu zuten 1935ean (Haritschelhar 1975; Lafon 1999: 7-10).

G. Lacomberekin izandako korrespondentzian ageri da euskal ikasketak egonkortzeko zeuden zailtasunak, EGZak areagotu zituenak. Besteak beste, R. M. Azkue-J. Urquijoz galdetzen zion euskaltzainari. Bordeleko lizeoko irakasle zela, zalantzan zegoen tesiaren gaitzat euskara hartu ala ez. Euskara katedrarik edota ikerketa gunerik ezean, uste zuen bere ibilbide profesionalaren kalterako izan zitekeela.⁷⁷⁰ 1936an bertan, Bordeleko Unibertsitatean euskal filologiako katedra bat sor zitekeenaren zurrumurrua zabaldu zen, eta hautagai nagusiak H. Gavel-R. Lafon zirela. Fronte Popularra gobernuan zegoenez, eragin politikoak salatu zituzten unibertsitatean, R. Lafon komunista zelako.⁷⁷¹ Bestalde, J. Vendryesek tesiaren gaitzat euskal aditza hartzera animatu zuen.⁷⁷²

Tesia 1939an amaitzear zegoen, baina BMG lehertu ondoren, preso egon zen 1941ko abuztura arte. 1942tik aurrera korrespondentzia berreskuratu zuen G. Lacombe-H. Gavel-K. Boudarekin. Azken horrek Kaukasora eraman nahi izan zuen espedizio zientifiko batera.⁷⁷³ Tesiaren defentsa 1944 arte atzeratu zen, baina orduan Bordeleko Unibertsitatean euskara ikastaroa abiatu eta R. Lafoni eman zioten ardura hori. Gramatika eta euskal testuak (A. Oihenart-J. B. Elissamburu) irakasten zizkien 20 bat ikasleri. Aldi berean, Arcachongo lizeoan ematen zituen eskolak.⁷⁷⁴ Tesia Parisen defendatu zuen maiatzean eta bi liburukiko argitalpena hasi zen banatzen euskalarien artean, baita Espainian ere, G. Lacomberen bidez.⁷⁷⁵

Besteak beste, 1947-1950 artean artikulu ugari argitaratu zituen *Eusko-Jakintzan* euskararen jatorriaz, Kaukasoko hizkuntzekiko harreman genetikoez, etimologiaz, fonologiaz edota gramatikaz. Bordeleko katedraduna une horretan euskaltzainen arteko hizkuntzalari puntakoena zen. 1950etik aurrera R. Lafon filologia lanak argitaratzen hasiko zen *BRSVAP* en. Arcachon-en bizi eta Bordelen eskolak ematen zituenenez, ez zuen ALVren garaiko batzarretan parte hartu, sarrera ekitaldiaz landa. H. Gavel baino 20 urte gazteagoa zen, baina bere ekarpena ALVren gerraondoko bizitzari harena bezain mugatua

⁷⁷⁰ ODS-LAC: R. Lafonen gutunak G. Lacomberi, 1936-09-21 & 1936-10-04.

⁷⁷¹ ODS-LAC: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1936-10-31. Militantzia politiko komunista hori estali behar izan zuten diktadura frankistako Euskaltzaindian, noski (Krutwig 1991: 136).

⁷⁷² ODS-LAC: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1937-01-10.

⁷⁷³ ODS-LAC: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1943-01-28.

⁷⁷⁴ ODS-LAC: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1944-01-01.

⁷⁷⁵ ODS-LAC: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1944-05-22.

izan zen. Hala ere, Frantziako hizkuntzalariek euskararekiko erakusten zuten erdeinuarekin bat ez zetorren, literatur estatusera iristen ez zen bigarren mailako hizkuntzatzat baitzuten (cf. Lafon 1953a).

Henri Gavel

Euskaltzaindiaren artxiboan gordetzen da euskaltzain berriei euskaltzainburuak 1949ko urriaren 8an bidali zien izendapenaren jakinarazpena, baita guztien esker oneko erantzunak.⁷⁷⁶ H. Gaveli bidalitako jakinarazpenik, ordea, ez dago, ezta Tolosako Unibertsitateko irakasle izandakoaren erantzunik ere. H. Gavelen deduzko supernumerario izendapen bitxia ALVren historiako bakarra izan zen. R. Lafon Akitaniako erregioan jaioa zelako, etnikoki euskalduntzat onartu zuten, baina Frantzia-Belgikako mugan jaiotako H. Gavel, ordea, ez. Euskaltzainen eskubide berak emateko sortu zen deduzko kategoria berri hura.

Henri Gavel (1880-1959) erromanista Saint-Pol-sur-Ternoise-n (Nord-Pas-de-Calais) jaio zen. Euskaltzaindiarekin aspaldiko harremanak zituen; 1919tik urgazle eta 1933tik deduzko kide zen. J. Urquijok *Éléments de phonétique basque* tesia argitaratu zion RIEVen 1921eko zenbaki monografikoan, garaiko lanik aurreratuenetakoa zelako. 1930ean *Eskualduna-Gure Herria* aldizkariaren izenean ALVri eskatu zion ortografia arautuan egokitzapenak egitea, baina euskaltzainburuak baztertu egin behar izan zuen egitasmoa, ados egon arren, jeltzale ortodoxoen erasoen beldur zirelako. Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarian, arau ortografikoak aldatu eta Frantziako euskal kazetaritzaren erabilera arruntera urbidu beharraz aritu zen berriz ere, N. Ormaechea-M. Labayenekin eztabaidan (Gavel 1949; 1950a; Kintana Goiriena 2008: 598-599).

H. Gavelek emazte euskalduna zuen eta Angelun egonaldi luzeak egiten zituen, batez ere erretiroa hartu zuenetik, baina adinak eraginda, ikusmena galtzen hasi zen, eta horrek oso motel lan egitera behartzen zuen.⁷⁷⁷ Hala ere, J. Urquijorekin postazko harremanetan jarraitu zuen, EIL-SIEBen biltzarretan parte hartzen edota artikuluak idazten Frantziako aldizkarietan.⁷⁷⁸

⁷⁷⁶ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna (1949-10-08), eta P. Lafitteren (1949-10-14), R. Lafonen (1949-10-16), L. Dassancen (1949-10-16), J. Saint-Pierren (1949-10-16) eta M. Lecuonaren (1949-11-05) erantzunak.

⁷⁷⁷ KMK-KM: P. Yrizarren gutuna L. Michelenari, 1951-08-10.

⁷⁷⁸ KMK-JU: H. Gavelen gutunak J. Urquijori, 1948-02-10, 1949-01-29 & 1950-01-07.

10 EUSKALTZAINDI ZAHARRAREN GAINBEHERA: 1950-1951

10.1 Espainian euskaraz argitaratzeko zailtasunak

1950eko urtarrilaren 27an batzartu ziren Donostian bederatzi euskaltzain: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance, M. Lecuona eta N. Oleaga. M. Lecuonak sarrera hitzaldi antzekoa egin zuen, zeharka ALVren posizionamendua eskatzen zuena. Erbestean zegoen N. Ormaechea «Orixe» idazle ospetsuaren *Euskaldunak* poema epikoa argitaratzeko baimena lortzeko laguntza eskatu zion batzarrari (ALV 1982: 9). Testua 1949ko abenduaren 12an bidali zion euskaltzainburuari Calahorratik: «Euskaltzaindia, bere izenak berak dionez, Euskera zaitzeko sortua degu. Euskera zaitu. Etsairen batengandik babestu, alegia. Zaitzeak beti etsairen bat nai du. Ez litzake artzai bearrik, otsorik ez balego».⁷⁷⁹ Diktadura frankistak eragozten zituen idatzizko ekoizpen jasoez gabetuta, euskarak ez zuen etorkizunik: «Eta ala berean esan dezakegu, baita, Literaturarik gabe gelditzera dijoan Izkuntza, zuzen-zuzen ez izatera, iltzera dijoala ere».⁷⁸⁰

R. M. Azkue aitzindariaren *EY-LPPV*ri (1942-1947) jarraituta, euskarazko argitalpen gutxi batzuk, diktaduraren lehen urteetan baino gehiago, argia ikusten ari ziren, batez ere erlijioaren alorrean. Frantziskotarrek, esaterako, euskaraz argitaratzea lortu zuten *El maestro de los Terciarios* (1944), *Arantzazuko Andre Mariaren egutegia* (1947) edota S. Michelenaren *Arantzazu* (1949) poema liburua. Zatitzeaz zegoen Gasteizko elizbarrutiak, orobat, doktrina kristaua gipuzkera-bizkaieraz argitaratu berri zuen. Gipuzkoako CAP ere, berriak euskaraz ematen hasia zen, baserritarrei zuzendutako mezuetan. M. Lecuonak euskal kultur erakundeen gerra aurreko sustapen lana berreskuratu nahi zuen.⁷⁸¹ EGZak etendako babes lanari berriz ekitea eskatzen zion euskaltzainburuari gutunean:

Bañan, —ez orain-orain egiña— or daukagu argitara-zai, lan bat, ain xuxen nik orain

⁷⁷⁹ ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.

⁷⁸⁰ ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.

⁷⁸¹ M. Lecuonak, EI-SEVen izenean, eta R. M. Azkuek, ALVrenean, sinatuta zuten N. Ormaechearen idazlanaren aldeko txostena EBEn, diputazioen laguntza eskatzeko (EI-SEV & ALV 1935).

dakarkidana zuen artera nere egun onetako «besoetako» bezela. Nikolas Ormaetxea Jaunaren Poema «Euskaldunak». Oraintxe argitara nai luke —ba'da ordu ere ta—. Eta ez digu diruzko laguntzarik eskatzen. Ba'du, bere gain artu nai duan Argitaldari. Argitaratzeko baimena, ez du besterik nai gugandik. Gure baimena. Eta guk Madrid'etik ekarri dezaiokegun eta ekarri bear diogun baimena...⁷⁸²

Aho batez onartu zuen batzarrak eskaria eta M. Lecuonaren gain utzi zuen prozedura bideratzea. Bide beretik, T. Aguirrek bere *Uztaro* (1937) eleberria berrargitaratzeko laguntza eskatu zuela adierazi zuen N. Oleaga idazkariak. Idazle jeltzaleak Sevillatik idatzi zion euskaltzainburuari 1949ko abenduaren 17an: «ruego a Vd encarecidamente tengan a bien decirme si se encargaría esa Academia de su dirección de efectuar las gestiones oportunas para conseguir el permiso correspondiente de la Jefatura de Prensa y Propaganda».⁷⁸³ Ez da kasualitate hutsa abertzaleek eskari hauek batera egitea, ALV publikoki nabarmentzen hasi orduko. Nolanahi den, batzarrak aho batez erabaki zuen eskari hori ere bideratzea (ALV 1982: 9). Tomás Aguirre EGLB-CCEko kide ohiaren *Uztaro* 1950ean berrargitaratuko zen Bilbon. Martxoan, euskaltzainburuak aldeko txostena idatzi zuen. Eleberriaren literatur gipuzkera eta ortografia arautua onesteaz gain, edukiaren izaera katoliko bezain apolitikoa nabarmendu zuen:

El contenido de la obra, cuyo título significa en castellano «Época de la Mies-Novela», es, cual lo indica dicho título, una novela de costumbre del País, en torno al desarrollo de los amores de dos muchachos, culminados en su matrimonio. Dado su carácter folklórico y como puede apreciarse con su detenida y atenta lectura, la obra no contiene el menor asomo de sentimiento ni idea política en ningún sentido, ni por tanto puede inspirar recelo ni motivar rechazo en tal aspecto dentro del sentimiento patriótico español y del régimen actual.⁷⁸⁴

Euskarazko liburuak argitaratzea zinezko sufrikarioa zen argitaletxeentzat. Itxaropenak, adibidez, G. Múgicaren *Pernando Amezketarra* liburuaren datarik gabeko edizioa egin zuen, gerra aurrekotzat saltzeko asmoarekin. Baina A. M. Labayenen *Escenas papeleras* (1947) baimenik gabe argitaratzeagatik, edizioa erretiratu, eta 25.000 pta galdu zituen Itxaropenak. Beste iturrien arabera, I. López Mendizábal jeltzalearen

⁷⁸² ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.

⁷⁸³ ABA-EUS: T. Aguirreren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-17.

⁷⁸⁴ ABA-EUS: R. M. Azkueren txostena *Uztaro* eleberriaz, 1950-03-15.

aipamenak eragin zuen edizioa bahitzea (Torrealdai 1999: 27). Horregatik, ediziorako baimena eskatzea erabaki zuen F. Unzurrunzaga editoreak. 1947ko apirilean ezezko borobila jaso zuten Madrilgo Servicio Nacional de Propaganda-tik. Urtebete igarota, 1948ko martxoan, editoreak A. Pagoagarengana jo zuen, Donostiako alkate tradizionalista ohia eta Gorte frankistetako lehen idazkaria. Honek arazoa P. Rocamoren eskuetan utzi eta 1948ko ekainean sinatu zuten ediziorako baimena. Hala ere, hilabeteak igaro eta baimenik ez zen heltzen Itxaropenara. Azkenean J. Artechek jo behar izan zuen Luis Dotresengana, Gipuzkoako delegatua. P. Rocamora-L. Dotresen adostasunarekin, abuztuan iritsi zitzaion *Pernando Amezketarra* (1948) argitaratzeko baimena. Argibide ofizialaren arabera, lehendabiziko baimena Zaragozara bidali zuten, Zarautzera orde. Euskarazko argitalpenak oztopatzeko fede txarra nabarmena zen. Dena dela, liburua oso ondo saldu zen, 800 ale hamabost egunetan, eta beste edizio bat prestatu zuten.⁷⁸⁵

EAJ-PNVren EBBak bildutako 1950eko txosten izengabeak jaso zuenez, EIL-SIEBen 1948ko nazioarteko biltzarrak eragin handia izan zuen barnealdeko zentsuraren biguntzean. EJ-GEren diru laguntzarekin Biarritzen antolatutako biltzar jendetsuak oihartzun handia izan zuen, eta bertan euskara, ikergai ez ezik, diktadura frankistak jazarritako hizkuntza bizia zela adierazi zen (Bilbao 2004).⁷⁸⁶ 1947ko irailean, J. Artech eta Itxaropenako F. Unzurrunzaga P. Rocamora Propaganda-ko zuzendari nagusiarekin bildu ziren Zarautzen. EJ-GVren Euzkadi irratiak salatu egin zuen bilera, baina horrela eskuratu omen zen hiru euskal liburu argitaratzeko baimena: N. Ormaechearen *Euskaldunak* epopeia, I. López Mendizábal-R. de Beraren hiztegia eta S. Michelenaren poesia liburua (Urkia Etxabe 2006: 265-266; Torrealdai 2000: 75-76). N. Ormaecheak 12.000 bersetez osatutako poema bukatuta zuen 1935ean, baina EGZak eragotzi egin zuen argitalpena. 1949ko datarekin ezarri zion oharrean, ezintasun horien zeharkako aipamena egin zuen erbestetik: «Poema au neregatik galdua ziteken. Amabi urte ontan gure jendeak zenbat ibillera egin ditun onen atzetik, aditzera eman didate» (Orixe 1950a: 11).⁷⁸⁷

⁷⁸⁵ SAF-AA: EAJ-PNVren EBBak bildutako «Datos sobre la edición de Pernando Amezketarra», 1948, PNV_NAC_EBB, K. 00084, C. 4.

⁷⁸⁶ SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB, K.00227, C.4

⁷⁸⁷ Salaketa horiei nolabait erantzunda, euskarazko hainbat liburu argitaratu ziren, gehienak Itxaropenaren eskutik: *Euskal Erriko kanta zarrak* bilduma (1947-1950), M. Lecuonaren *Iesu aurra'ren bizitza* (1948), *Diccionario castellano-euzkera = Euzkel-erdel-iztegiaren* 3. edizioa (1948), I. M. Mancisidor karlistaren *Otoitz-bidea* (1948), G. Múgicaren *Pernando Amezketarraren* 3. edizioa (1948), S. Michelenaren *Arantzazu* (1949) edota I. Eizmendiren *Atano III* (1949). 1950etik aurrera A. Zugasti, J. Echaide, N. Echániz edota N. Ormaechearen lanak gehitu zitzaizkien (ABK).

J. Ibáñez Martínen ministerioak zenbait idazlani bidea zabaldu zien, gaiak politikoki kaltegabekotzat jo eta gaztelaniaren nagusitasuna ezbaian jartzen ez zen heinean. Esaterako, gaztelaniazko idazlanak euskarara ezin ziren itzuli, erdararen ezinbestekotasuna zalantzan jartzea litzatekeelako. BMG bukatu ondoren, informazio eta zentsuraren eskumena Vicesecretaría de Educación Popular falangistatik Hezkuntza Nazionaleko ministerioko katolikoengana igaro zen. Gerra Hotzaren testuinguruan, diktadura frankistari itxura liberalagoa eman nahi ziotelako, euskaraz argitaratzeko aukerak erlatiboki areagotu ziren, baina prozesu arriskutsu eta neketsua izaten jarraitu zuen. Pedro Rocamora Valls (1912-1994) legelari, irakasle eta kazetaria, hain zuzen, sektore horretako kide nabarmena zen. Opus Dei-ko kide goiztiarra, Hezkuntza Nazionaleko ministerioan lan egin zuen 1940tik. Propaganda-ko zuzendari nagusi gisa, Madrilgo Ateneoaren burua zen, eta Gipuzkoan igarotzen zituen udak. Donostiako egunkarian egin zioten elkarrizketan azaldu zuen baimenaren irizpidea:

Obro en esto, como en todo, según criterios que recibo de la Superioridad. Y es que no puede desconocerse la existencia de las lenguas vernáculas, en orden a la creación artística por lo que a mí compete. Comencé por autorizar la publicación en vasco de algunos libros religiosos, considerando que habría más de una anciana que no podría rezar su novena si no la hacía en la lengua nativa. Luego vinieron la lírica y la creación, y fueron autorizadas todas aquellas manifestaciones del espíritu que no hay razón alguna para que no sean conocidas o aparezcan en castellano. Se trata, sencillamente de no deformar la vida. ¿Qué razón podría haber para que el poema «Euskaldunak» no se publicase en euskaros [sic]? Ninguna. En cambio, sería deformar la vida autorizar una edición del «Quijote» en vasco (*La Voz de España* 1950-08-01).⁷⁸⁸

Zarauzko argitaletxeak 1949ko abenduaren 27an zuzendu zion gutuna Euskaltzaindiko idazkariari. M. Lecuonaren bitartez, Euskaltzaindiari liburuaren aldeko txostena eta baimen eskaeraren kudeaketa eskatu zizkion.⁷⁸⁹ Gutunean oinarrituta, M. Lecuonak 1950eko martxoan txostenaren edukia zirriboratu zuen euskaltzainburuak bere egin zezan. Funtsean testu bera zen:

Como puede desprenderse de este su carácter folklórico y como lo hemos podido apreciar en una detenida y atenta lectura, la obra no contiene el menor asomo de sentimiento ni

⁷⁸⁸ Hain zuzen, A. Irigarayk 1947an argitaratu zuen *El Quijoter*en kapitulu baten itzulpena *BRSVAP*en.

⁷⁸⁹ ABA-EUS: Itxaropena argitaletxearen gutuna N. Oleagari, 1949-12-27.

idea política en ningún sentido. Y para mayor garantía de ello cabe destacar que las escenas del Poema ocurren en la zona del País más alejada de las luchas políticas, como es ordinariamente la montaña en contraposición a las zonas urbanas más permeables a las corrientes de agitación política.⁷⁹⁰

1950eko urtarrileko ALVren batzarrak, orobat, NBEak euskaraz argitaratutako «Gizonaren Eskubidegai Guzietaz Aitorkizuna» delakoaren berri eman zuen, besterik gehitu gabe. NBEak, artean Espainia frankista aitortzen ez zuena, 1948ko abenduan onartu zuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Akordioak, halaber, adierazpena hizkuntza ofizialetan ez ezik, ahalik eta hizkuntza gehienetan zabaltzea agindu zuen. Erabaki horretaz baliatuta, EAJ-PNVk, batez ere J. Galíndez-F. J. Landábururen bidez, NBEren idazkaritzari eskatu zion euskarazko bertsioa ematea.⁷⁹¹ EAJ-PNVk bere aldetik N. Ormaecheari eman zion testua itzultzeko eginkizuna, eta EIL-SIEBek itzulpenaren zuzentasuna egiaztatu zuen. NBEak itzulpena onartu, argitaratu eta Espainiako administrazioetara bidali zituen aleak. EAJ-PNVk ere ale ugari bildu eta banatu zituen. Diktadura frankista salatze oso tresna egokia zen, edukiaren garrantziaz beste, NBEak argitaratzen zuelako euskarazko testu ofizial bat, Espainian ezinezkoa zena (*Alderdi* 1949-12).

EAJ-PNVk, itzultzailearen izenik aitortu gabe, bere buletinean informazioa emateaz gain, kontu handiz aukeratu zituen barnealdeko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hartzaileak: apezpikuak, diputazioak, udalak, egunkariak, baita euskaltzainak ere.⁷⁹² Euskaltzaindiaz den bezainbatean, helburua argia zen. ALVren aurkako kanpainarik ez abiatu, baina haren kontraesanak horrelako ekintzen bidez agerian utzi. EBBeko buru D. Ciaurizek, hain zuzen, barnealdeko J. Ajuriaguerrari eskatu zizkion euskaltzainen helbideak. Helbide zerrenda J. Echaidek eskuratu behar zuen, I. M. Echaide euskaltzainaren seme abertzalea.⁷⁹³ Horrela iritsi zen gaia ALVren 1950eko lehen batzarrera, eta honek jaso izanaren adierazpena egitera mugatu zen:

Azkenez adierazo da «United Nations»-en zabalkunde zaingoak euskeraz argitaratu dabela «Gizona'ren eskubidegai guzietez aitorkizuna», 1948'garrengo Gabonila'ren 10'garrean, Erri Batzartuen Batzarre osoak ontzat artu zun eta zabaldu zun bezela (ALV

⁷⁹⁰ ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna N. Oleagari, 1950-03-10.

⁷⁹¹ SAF-AA: D. Ciauriz-J. Jáureguiaren gutunak F. J. Landábururi, 1949-01-11 & 1949-06-02, PNV_NAC_EBB,K.00307,K.8

⁷⁹² SAF-AA: D. Ciaurizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-18, DP_0933_03.

⁷⁹³ SAF-AA: D. Ciaurizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-12-23, DP_0933_03.

1982: 9).

Horrelako testu garrantzitsua euskarara itzultzeak, juridiko-teknikoki zehatza, eta nazioartean ofizialki zabaltzeak, barnealdeko ALVren hizkuntz aginpidea zalantzan jartzen zuen. Erbesteko EIL-SIEB izan zen, ez Euskaltzaindia, itzulpenaren egiazkotasun-zuzentasunaz fede eman zuena. Itzulpenari oniritzia, besteak beste, A. Irala-A. Arzelusek ere eman zioten.⁷⁹⁴ N. Ormaecheak berak, P. Lafitterekin eztabaida sutuan hasi zenean, itzulpena goratu zuen, berea zela onartu gabe (Orixe 1950c). EAJ-PNVren buletinak nabarmendu zuenez, jeltzaleek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala euskaraz ematea lortzen zuten bitartean, Bizkaiko gobernadore zibilak hilarrietako euskal izenak ezabatzea agintzen zuen (*Alderdi* 1949-12). Euskaltzaindiak ezin zion ez ikusiarena egin, gutxieneko zilegitasuna gorde nahi bazuen abertzaleen aurrean.

10.2 Euskararen idatzi (eta klase) hizkuntza

1950eko urtarrileko batzarrean, beste hiru txosten aurkeztu ziren: I. M. Echaidek irakurritako P. Zabala urgazle berriaren lana euskal toponimiaz, P. Zamarriparen «El acento prosódico en las palabras vascas» eta F. Krutwigen «Euskararen idatzi hizkuntza».⁷⁹⁵ F. Krutwigen txostenari dagokionez, garaiko testuetan bezala, euskara estandarrekiko hiru ildo nagusi landu zituen, nolabaiteko aitzindaritza aitortzen diotenak:

- Aro Modernoko literatur tradizioarekiko lotura.
- Kultur funtzioetarako hizkuntza.
- Euskal Herri osorako estandarra (Zuazo Zelaieta 1988: 360).⁷⁹⁶

Txostenean, Euskaltzaindiak 1919an sortu zenetik literatur hizkuntza bat sortzeko

⁷⁹⁴ SAF-AA: D. Ciaurizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-21, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.9.

⁷⁹⁵ Gaiak eragin zezakeen susmoen beldurrez-edo, batzarraren edukiaren berri prentsara zabaldu zenean, F. Krutwigek beste txosten bat irakurri zuela adierazi zen: «La importancia de la investigación de las lenguas antiguas para comprensión del totemismo, la mística y la magia» (*CE-PV* 1950-01-30). Beste idazlan hori nire ustez 1949ko urtarrileko batzarrean irakurritakoa zen (*ALV* 1982: 3).

⁷⁹⁶ ABA-EUS: F. Krutwigen «Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

zuen nahitaezko ardura gogorarazten zuen, bereziki P. Broussain zenaren hitzak aipatzen zituela.⁷⁹⁷ Jarraitu beharreko eredutzat lapurtera zaharra proposatzen zuen, J. Ithurryk bere *Grammaire basquen* (1895-1920) deskribatutakoa. Lehen aldiz, Aro Modernoko idazleetatik gramatika garaikideetara igaro zen.⁷⁹⁸ J. Ithurryren idazlan klasikoa ez ezik, H. Gavelen *Grammaire basque* (1929-1937) edota P. Lafitteren *Grammaire basque* (1944) zeuden. Bestalde, argitaratzeaz zegoen, S. Arotçarenaren *Grammaire basque* (1951).⁷⁹⁹ Modu horretara, bere proposamenak ez zuen hain arkaikoa ematen, baina aldi berean bazterrean utzi zuen P. Lafitteren gramatika berria. F. Krutwigen ezaxolakeria nabarmena da, batzarrean entzule zituelako P. Lafitte, J. Elissalde eta L. Dassance.⁸⁰⁰ Gramatika horrek arrakasta handia izan zuen, 1.200 harpidedun eta 2.000 aleko argitaraldia izan zituelako. Erbestean eztabaida sortu arren, bere eraginean ez zuen lortu Espainiako muga politiko-kulturala zeharkatzea (Monier 1992: 454-456).

Herriaren zuzendaria euskaltzain hautatu zutenean, aldizkariak hedabide gisa zuen garrantziaz jabetuta zeuden ALVn. 1944an *Eskualduna* itxita zegoen, BMGn Alemaniako okupatzaileekin kolaboratzeagatik, eta *Herriak* hartu zuen haren lekukoa, milaka ale banatzen zituela astekariak erbesteko EJ-GEren laguntzarekin.⁸⁰¹ Hala ere, F. Krutwigez ez zuen amore emateko eta indarrak biltzeko inolako gaitasunik, P. Lafitteren nafar-lapurtera bizia erabat gaitzetsi baitzuen.⁸⁰² Txostenean, J. M. Seminariori egindako erantzun hitzaldian aipatutako Ch. Ballyren liburuko iritzia zekarren berriz:

La langue littéraire est une forme d'expression devenue traditionnelle; c'est un résiduel,

⁷⁹⁷ Pierre Broussain (1859-1920) euskaltzainaren arabera, euskarak etorkizunean bi aukera zituen. Ala arrantzale-nekazarien «patois» eta atzerriko hizkuntzalarien ikergai izaten jarraitu, hainbat menderen buruan erdarek ordezkatu arte. Ala ALVn sortutako eta eskolak irakatsitako euskara estandarra nazio hizkuntza bilakatu, azkenean dialektoak desagertu arte. F. Krutwig zeharo bat zetorren (Charritton 1997a; 2007).

⁷⁹⁸ Jean Ithurry (1845-1896) elizgizonaren gramatikak bereziki aditza azaltzen zuen, eta zatika argitaratu zuten *Eskualduna* astekarian. Hain zuzen, 10.000 ale banatzera iritsi zen aldizkariarekin, Baionako elizbarrutiaren inguruan literatur eskola antzeko bat sortu zen, jeltzaleen hizkuntz eraginik gabea. Politikoki eskuindarra eta frantses nazionalista izanagatik, nafar-lapurterazko literatur eredu bat sortu zuen, euskara idatziaren garapena eta irakurleen arteko nolabaiteko prestigioa ziurtatu zituen (Charritton 2007: 59, 166-167).

⁷⁹⁹ Saio hauen balorazio baterako, ikus J. Ithurryren berrargitalpenari egin zion hitzaurrea (Krutwig 1979b).

⁸⁰⁰ J. Elissalde ez omen zuen maite P. Lafitteren gramatika, baina seguru asko edozein gramatika ustez nornatiboren aurkakoa zen (Krutwig 1991: 106).

⁸⁰¹ Bi astekarion arteko jarraitutasunaren errakusgarri, F. Krutwigen erreforma txostenean hautazko euskaltzain gisa proposatu zen *Eskualdunaren* azken zuzendaria, S. Arotçarena, Baionako elizbarrutiko artxibozaina, eta Vichyzale izateagatik preso egondakoa.

⁸⁰² Adibidez, 1951an N. Ormaecheari idatzitako gutunean: «Pero el kabilismo de Lafitte y su círculo nos viene a destruir o querer destruir el dialecto que teníamos como base para la creación de una lengua literaria para ambos lados de la frontera» (Iztueta & Iztueta 2006: 455).

une résultante de tout les styles accumulés a travers les générations succesives, c'est l'ensemble des éléments littéraires digérés par la communauté linguistique, et qui font partie du fond commun tout en restant distinct de la langue spontanée... vivant dans le passé, elle est naturellement archaïsante. Elle ne peut donc se confondre avec la langue usuelle.⁸⁰³

P. Broussain-A. Campiónek Euskaltzaindiaren 1920ko apirileko batzarrean aurkeztutako txostenean J. Leizarragaren XVI. mendeko Itun Berriaren eredua linguistikoki gailentzat jo zuten, aditzaren joritasunagatik bereziki. Baina estandar gisa bazter batean utzi beharrekoa zela uste zuten, lexikoaren erdal eraginagatik eta, batez ere, XX. mendeko euskaldunek nekez ulertzen zutelako. F. Krutwigentzat, ordea, Ch. Ballyren bidetik, Aro Modernoko euskararen arkaismoa mesedegarri zitzaion batasunari, goi klaseek euskara arruntari zioten erdeinua saihesteko modua izan zitekeelakoan.

EGZ aurreko Euskaltzaindian, N. Ormaecheak gogorarazten zuenez, literatur euskara gisa lapurtera erabiltzearen aldekoak baziren: «dentro de la Academia [...] nos hallábamos don Julio Urquijo y yo para defender la posición labortanista (D. Julio por convicción y yo por tendencia natural)» (Orixe 1949: 21). ALVk euskara estandarra ezartzearen aurka agertu zen J. Urquijo, zeregin hori idazleen eta diputazioen esku utzita, eta ikerketa filologikoan jarraitu zuen (Villasante 1971). Ohartzeko da, era berean, garaiko testuetan F. Krutwigek ez zuela inoiz J. Urquijo aipatu bere irizpidea indartzeko. J. Urquijo 1950ean hil ondoren hasiko zen bion arteko kidetasuna nabarmentzen (Krutwig 1991: 111-113). Kontuan har bedi, adibidez, F. Krutwigek ez zuela ezer argitaratu J. Urquijo buru zuen RSVAPen aldizkarian.

Aro Modernoko literaturak nahiz Erdi Aroko Nafarroako Erresumak, jakina, Euskal Herria soziolinguistikoki osatuago, erdal interferentziatik libreago, zegoen urrezko aro bat asmatzeko balio zuten. Aldi berean, XX. mendeko errealitate agonikoa eta abertzaletasunak egoera horri emandako erantzun utopiko-purista baztertzen ziren. Dena dela, ezin da ahaztu F. Krutwig filologian autodidakta zela, eta azken mendeetako literaturaren bazterketak ezjakintasunetik asko zuela.

Euskararen irautean burgesiak eta intelektualek zuten eredu funtzioa, P. Broussainen idatzietan zuen gogaidetasuna behin eta berriz aipatu zuen F. Krutwigek

⁸⁰³ ABA-EUS: F. Krutwigen «Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

1950eko txostenean. Baina arazo hau begien bistako zen XX. mendearen hasieratik euskararen atzerakadaz kezkatu ziren euskaltzale guztientzat. Oso aipatua ez den adibide bat jartzearen, A. Irigarayren aitak, antzerako gogoetak plazaratu zituen. F. Irigaray hil zenean hori bera gogoratu zuen EAJ-PNVren buletineko berriemaileak:

«Letradunak» —ola esaten baitzuen berak— nola bildu elearen maitatzera zen aren ametsa. Etzuen ulertzen nola egon ditezken alde. Zenbat eta zenbat aldiz entzunda gitzayo auxen eta ez bertzerik zela euzkeraren suntsitzeko aria (*Alderdi* 1949-10).

EGZak eta diktadurak sortutako eten soziokulturalak, eta F. Krutwigen harrokeriak, ikuspegi hori zena baino berriagotzat jotzera eraman zuten. P. Lafitterekin hitz egin zuenean, euskal burgesiaren arazoa Frantzian nola konpondu zuten galdetu omen zion:

Creo que Lafitte hasta me miró con compasión, diciéndome que ellos no tenían tal problema, puesto que ellos eran un pueblo unido... y que la burguesía era francesa. Mi espanto fue enorme, puesto que me di cuenta que su situación era mucho peor que la nuestra, ya que los vasco-franceses se hallaban como una casta social y culturalmente inferior (Krutwig 1991: 107).

Merezi du nabarmentzea E. Prat de la Ribaren *La nacionalitat catalanari* (1906) egindako erreferentzia, gutxiagotutako hizkuntzen bizitzan goi klaseen lidergoa nabarmentzeko: «El que avança i trionfa és el que domina en els cims, en els centres d'impulsió, en els cercles propulsors de la vida nacional [sic]». ⁸⁰⁴ Erreformaren osteko Euskaltzaindiaren lehen batzarrean Lliga Regionalista-ren buruzagi zena hizpidera ekarri zuen, beraz. Euskaltzaindiaren gehiengo ziren tradizionalista-elizgizonek, frankismoaren begiradapean, onar zezaketen euskaltzaletasun posibilistaren mugak marrazten zituen. Katalanista eskuindarrek EBeko urteetan zuten hizkuntz politika ageri da, adibidez, F. Cambók J. Urquijori idatzi zion gutunean, garaiko euskaltzaleentzat ameskeria hutsa zena: «El estudio de la lengua vasca y el restablecimiento de su empleo para todos los usos, desde los más modestos a los más excelsos, será la obra más solida y eficaz que puedan realizar Vdes.» ⁸⁰⁵ Baina Lliga-ren buruzagiek, EAJ-PNVek ez bezala, Burgosko

⁸⁰⁴ F. Krutwigen aipua akats ugari ditu jatorrizkoarekiko eta esaldi bat falta zaio hasieran: «La que arriba a la massa és la corrent que mor» (Prat de la Riba 2007: 15-16).

⁸⁰⁵ KMK-JU: F. Cambóren gutuna J. Urquijori, 1934-04-03.

gobernu matxinoaren alde egin zuten EGZean (Borja de Riquer 1997).⁸⁰⁶

Azkenik, 1950eko txostenean euskara estandarerako ortografia berria proposatu zuen. Irakurgai zuen Frantziako hizkuntzalaritza soziologikoan aski nabarmenduta zegoen ortografia finkatzearen ezinbestea. Izan ere, ikur diakritikoez zaildu egiten zuten euskal testuen argitalpena, sarri tipografia berezi hori ez zegoelako moldiztegiatan. Gainera, Frantziako idazleek ez zuten sabindar ortografia erabiltzen eta bitasun hori oztopen batasunerako.⁸⁰⁷ F. Krutwigek bi ortografia onartzea proposatu zuen, 1920koa eta ikur diakritikorik gabea:

- Azken molde horretan ikur diakritikoak ziztuzten letrak bikoiztu egingo ziren («r» = «rr»).
- Pirinio Behereetako idazleek, berriz, «ch» eta «tch» ordez, «x» eta «tx» idatzi beharko zuten, batasuna helburu.⁸⁰⁸
- Era berean, Espainiako euskaldunek ahoskatzen ez duten «h» letra idatzi beharko zuten beti, lapurterazko ohituran.⁸⁰⁹
- Palatalizazioak («tt», etc.), orobat, beti idatzi behar ziren.⁸¹⁰
- Ortografia ez ezik, fonetika ere arautu nahi zuen: «h» nahiz «j» letren ahoskera, esaterako.
- Purismoaren aurka, kultur termino grekolatinoak behar adina mailegatzea.

Modernizazio proposamen horrek, S. Aranaren jarraitzaileei ez ezik, Espainiako XX. mendeko euskal literatur tradizio osoari egiten zion kritika. Jeltzaleen neologismoen aurka egin arren, purismoa ia unibertsala zen artean. Nazioarteko kultur terminologia euskararen ondare lexikoarekin nahastea, munstrokeria besterik ez zen haientzat.⁸¹¹ Salbuespen deigarria, F. Krutwig ohartu zenez, S. Altube izan zen, baina N. Ormaecheak

⁸⁰⁶ F. Krutwigek, jeltzaletasunarekiko alternatiba bat sortzeko teman, Kataluniako eredu jarri zuen ispilu aurrean, baina ezagutza hori teorikoa eta aski idealizatua zen (Krutwig 1951a: 10).

⁸⁰⁷ H. Gavelek 1930ean Euskaltzaindiaren eta Baionako *Eskualduna-Gure Herria* aldizkariaren ortografia adosteko saioa egin zuen, baina jeltzaleen aurkako jarrerak uzurtu egin zuen ALV (Kintana Goirieta 2008: 598).

⁸⁰⁸ Frantziako tradizioan «x» gaur egungo «ts»en ordez erabiltzen zen. Adibidez, «Axular» edo «Oxobi» forma ihartuen ordez, «Atsular» eta «Otsobi» izan beharko liriteke forma arautuak, eta horrela idazten zituen F. Krutwigek (cf. Andiazabal et al. 2006: 213).

⁸⁰⁹ F. Krutwigek ordurako ahoskera hori erabiltzen zuen euskarazko hizketan (Alvarez Enparantza 1995: 129).

⁸¹⁰ Dena dela, alde batera utziko zituen palatalizazioak gero (Ibarzabal 1979: 56).

⁸¹¹ F. Krutwigi sinetsi behar badiogu, euskaltzainburua bat zetorren kultur termino grekolatinoetan jatorrizko ortografia gordetzean (Krutwig 1991: 113-114).

maltzurki salatu bezala, ekarpen teorikoezia zen, idazlanetan praktikara eramane gabe. Hain zuzen, N. Ormaecheak itzulitako NBEko «Gizonaren Eskubidegai Guzietaz Aitorkizuna» testuan jarraitutako ereduaren aurkako txostena zen hura (*Alderdi* 1949-12). Horretan A. Irigaray bat zetorren euskaltzain gaztearekin, J. Urquijoren omenenaldirako idatzitako artikuluan adierazi zuenez:

A este respecto queremos citar un trabajo reciente sobre «El euskera y la cultura» de Federico Carlos Krutwig, que defiende la aceptación de vocablos de origen greco-latino en el vasc. (técnicos, científicos, etc.), lo mismo que ocurre en las lenguas y en alemán y en húngaro (que se tiene por idioma super-purista), calificando de defecto capital el hecho de que el vasc. carezca de extranjerismos, técnicos y culturales. Este tema que el señor Krutwig desarrolla con amplitud tiene interés aunque ya antes trató de él el señor Altube, con su habitual acierto (Yrigaray 1950: 122)

Ikusiko dugunez, ikur diakritikoen ordez letrak bikoiztuak erabiltzeko aukera ez ezik, nazioarteko terminologian nahiz exonomastikan jatorrizko ortografia erabiltzea onartuko zuen ALVk 1951ko apirileko batzarrean. Horretarako, F. Krutwigek arrotz hitzak transkribatzeko zenbait lege proposatu zituen. Nolanahi den, kultur hitzok ez ziren herri xeheak erabiltzeko, baizik eta F. Krutwigek beti xede zituen goi klaseak kulturgintzan euskaraz jardun zitezen.

«Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito»

1950eko martxoaren 31n zortzi kide batzartu ziren GPDko jauregian: R. M. Azkue, J. Urquijo, J. Elissalde, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig, M. Lecuona eta N. Oleaga. J. M. Seminarioren sarrerarekin hasitako bidetik, hiru euskaltzain berriren sarrera ekitaldi solemneak egitea erabaki zuten. Katakombatan zegoen ALVk publikora agertzeko asmoa sendoa agertu zuen. Gerraondotik Bilbo-Donostiara mugatutako batzarren ordez, kultur lurraldetasun zabalago bat irudikatzen ausartu ziren. Badirudi euskaltzain berrien jatorria aitortzeaz gain, ALVren menpekotasun politikoa salatzen zutenei egindako erakustaldia ere izan nahi zuela:

- Lekuona jaunarena, Iruñan Garagarril edo Errearoaren ogeita zortzian. Seminario jaunak erantzun dekiu.
- Dassance jaunarena, Donostian, Uztailaren amalauan, Elissalde jaunak erantzunik.

- Lafon jaunarena, Baionan, Uztaillaren amabostean, Krutwig jaunaren erantzumenaz (ALV 1982: 10).

Hala ere, deigarria da J. Saint-Pierre apezpikuaren sarrera ekitaldiaz ez zutela ezer erabaki. Ikusi dugunez, EIL-SIEBeko ohorezko buru gisa EJ-GEren diru laguntzarekin erbestean antolatuko kulturgintzan oso aktibo agertzen zen, adibidez, 1949ko abenduko «Euzkeraren Eguna». Bere burua nabarmendua zuen Biarrizko biltzarrean 1948an, eta Espainiako kontsulak salatu egin zuen haren hitzaldi separatista. F. Krutwigen arabera, J. M. Seminariok ez zion M. Lecuonari eman nahi erantzuna, baizik eta J. Saint-Pierreri (Krutwig 1991: 99-100). Apezpikuaren sarrera ekitaldia frankismoaren, abertzaletasunaren eta Eliza katolikoaren arteko gatazka publikoa bilakatu zitekeen oso erraz. Dena dela, erantzun hitzaldien ardura zutela ikusita, nabari da J. M. Seminario-F. Krutwig bikoteak hartu zuen garrantzia. J. M. Seminario baimenak lortzeko edo errazteko tresna politikoa zen, eta haren gaitasun eskasa behin eta berriz utzi zuen agerian erbesteko prentsak.

Euskaltzain gaztea, aldiz, batzarretako teorilari nagusi agertzen zen: «Krutwig jaunak irakurten dau *Comentarios sobre la ortografía del Euskera* deritxon lan bat. Beronezaz oarrak eta eztabaidak sortu dira» (ALV 1982: 10). Nire ustez lan hori «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» izenekoa da, besteak beste, J. Urquijoren artxiboan gordetzen dena. Bertan, ortografiari dagokionez, jadanik aipatu ditudan puntuak garatu eta erabakiak hartzea proposatu zion ALVri. Dena dela, harago joan zen, eta horrek piztu zuen eztabaida batzarrean. Izan ere, literatur euskara estandarrerako, lapurtera klasikoa («labortano arcaico» deitzen zuen) onartzea proposatu zuen: «La Academia acepta como canon del bien escribir en euskara, y recomienda como modelo literario al vascuence de los escritores Leizarraga, Atsular y Etcheverry».⁸¹² Txostenean, dialektoen literatur erabileraren eta baserritarrei zuzendutako literaturaren aurka egin zuen. Izenik aipatu gabe, argi dago P. Lafitten ereduaren aurka zegoela eta ez ziola tokirik eman nahi *Herriako* nafar-lapurterari ordurako nahiko bereganatuta zuen kultur plataforman. Sabindar ortografiari eta neologismoei biek zieten aurkaritzan bat egin beharrean, F. Krutwig abilezia gutxirekin saiatu zen P. Lafitte konbentzitzen *Gure Herriak* edota *Eusko-Jakintzak* euskarazko artikuluetan bere eredu ortografiko-literarioa in toto erabil zezaten. Lapurtera zaharraren kanonari S. Pouvreau-E. Materre erantsi zien.

⁸¹² KMK-JU: F. Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito», [1950-03-31].

Bestalde, pozik agertu zen ALVk onartu egin zuelako, buletin ofizialik ezean, batzarren erresonantzia kaxa gisa prentsa erabiltzea.⁸¹³

Ortografiaz den bezainbatean, F. Krutwigek grafia etimologikoa sustatu zuen kultur terminologian, J. Leizarragaren Itun Berrian (1571), bezala. Adibidez, euskaraz «orthographia» idazten zuen beti. Hala ere, grafia tradizionala gorde zuen ondarezko lexikoan: «berba, eliza, bakhe, borondate...».⁸¹⁴ Euskararen corpuserako, jeltzale ortodoxoen purismoa baztertu zuen, baina ez erabilera naturalago baten izenean, baizik eta euskara idatziak mendebaldeko hizkuntza nagusien joera har zezan: frantsesa, ingelesa eta alemana aipatzen zituen ia beti. Euskarak, genetikoki hizkuntza isolatua izanda, ezin zitekeen inolaz ere «dialekto erromaniko» batekin nahastu, eta beraz arriskurik gabe gerturatu zitekeen mendebaldeko hizkuntzen lexikora. Hala ere, corpus plangintza ziurtatzeko, literatur tradizioari eutsi nahi izan zion beti, berak klasikotzat jotzen zuen literaturan oinarrituz.

F. Krutwigek, beraz, azken 300 urteko literatura baztertuz, Aro Modernoko lapurtera erabili nahi izan zuen estandar gisa. J. Leizarragaren eredu kulturalistak eta P. Axularren prosa landuak F. Krutwigengan oihartzun handia izan zuten, maila jaso eta prestigioduna ezar zezaketelakoan. Hala ere, F. Krutwigen egitasmoak bazituen zenbait berritasun. Espainia-Frantzia arteko muga politikoa gainditzen zuen, diktadura frankistak ezarritako marra gorria zeharkatuz. Euskal dialektoen arteko eztabaidetan sakondu beharrean, maila formalean erdararen funtzioak ordezkatu nahi zituen:

Pero para que el día de mañana pueda aspirar a ser la lengua oficial común de todo este pueblo vasco deberemos tener el vascuence de Atsular, Leizarraga y Etcheverry. Esta lengua deben ser aprendido en las escuelas, al igual que han de ser aprendidas la castellana y la francesa hoy en día. Este vascuence será el que han de emplear nuestros universitarios y este vascuence será el que se ha de enseñar a esos buenos vascos que hoy hacen el noble esfuerzo de aprender su idioma nacional, vascos estos que corresponden casi siempre a las clases acomodadas de la población.⁸¹⁵

Bestalde, purismoak erakutsitako ezintasunak, neologismoak sortzen etengabe ibili beharrak, nazioarteko terminologiarekin bete zituen. Euskal literaturen historia

⁸¹³ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1950-06-28.

⁸¹⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-28.

⁸¹⁵ KMK-JU: F. Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito», [1950-03-31].

balioetsi zuen, adanismoaren gurpil zoroari uko eginda. Eta bereziki, euskara hiritar eta kulturaduna aldarrikatu zuen, abarkadun konplexurik gabe. Guzti horrek bereizten zuen F. Krutwigen lapurtera klasikoa, hain urruti egon beharrik ez zuen P. Lafitteren nafar-lapurteratik. Hori XX. mendeko Pirinio Behereetako dialektuetan oinarritzen zen, sozioekonomikoki indar gutxiko eskualdea, Bizkai-Gipuzkoaren aldean. *Grammaire basque* (1944) bezalako jaiotza agiria izan arren, nafar-lapurtera baserritar eredia zen, dialektoen fragmentazioa eta frantsesarekiko diglosia islatzen zuena (Zuazo Zelaieta 1988: 343-345).

A. Irigarayk, ordea, elkarlanerako tartea ikusi zuen. Batzarrean egon ez zen P. Lafitteri gutuna idatzi zion apirilaren 4an. F. Krutwigen txostena oso interesgarritzat jo zuen, batez ere mahai gainean jartzen zuelako eredu batuarena. A. Irigarayk euskal ortografia eta oinarritzko onomastika isilpean hitzartu nahi zituen *Herriako* zuzendariarekin; kazetaritzan, literatur lanetan edota egutegi erlijiosoetan erabiltzeko. Erbesteko prentsan eta bereziki N. Ormaechearekin sortutako istiluen ondoren, Euskaltzaindiak erabaki ofizial bat hartuz gero, aurka egingo ziotela uste zuen. ALVk egin behar zuen lehenengo gauza, A. Irigarayren ustez, lehen hezkuntza mailako erdararekiko hiztegi txiki bat sortzea zen, «de mots sur la vie urbaine, et techniques» (apud Andiazabal et al. 2005: 224).⁸¹⁶ R. M. Azkue-N. Oleagak gerraondan landutako *Diccionario español-vasco* handiari ez zion bideragarritasunik ikusten.⁸¹⁷

A. Irigarayk, Uztaritzeko seminarioan ematen zituen euskara eskolez ere galdetu zion (Andiazabal et al. 2005: 224). Izan ere, Frantziako Parlamentuan herri hizkuntzen hezkuntzarako estatutu berria eztabaidatzen ari ziren, «Loi Deixonne» izango zena. P. Lafittek berak *Le Courrier de Bayonne* egunkarian azaldu zuenez, J. Errecart MRP demokristaueko diputatuak parte hartze garrantzitsua izan zuen eztabaidan, nahiz eta zentralismo jakobinoak egitasmo erregionalista ahuldu egin zuen (*OPE* 1950-01-10).⁸¹⁸ P. Lafitte pertsonalki inplikatu zen eztabaidan eta, besteak beste, M. Deixonne diputatuari gutuna idatzi zion, *Herriako* zuzendari gisa, Senatuak murriztutako lege egitasmoa

⁸¹⁶ ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1950-04-04.

⁸¹⁷ P. Lafitte izan zen, P. Aranartekin batera, P. Lhanderen *Dictionnaire basque-français* (1926-1936) amaitu zuena. Ondoren *Vocabulaire français basque* (1941) laburra argitaratu zuten, baina BMGtik aurrera, P. Lhanderen hiztegiaren frantses-euskara bertsioaren lanetan hasi ziren (ABA-LAF: P. Lhanderen gutunak P. Lafitteri, 1945-06-29, 1945-07-19 & 1945-07-31).

⁸¹⁸ Jean Errecart (1909-1971) diputatuak euskal laborari katoliko eskuindarren interesak ordezkatzen zituen, BMGren testuinguru alditsuan, arazo ideologiko handirik gabe igaro zirenak pétainzale izatetik gaullista izatera (cf. Charriton 1997b: 210-211).

puntuz puntu aztertze: «nos Senateurs traitent les Provinces comme des Pays dont il faut se méfier et qui auraient juré l'anéantissement du français. C'est inadmissible».⁸¹⁹

Gernikan Euskaltzaindia berriaren aurka N. Ormaecheak egindako erasoaren ondoren, F. Krutwigek berak «Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca» izeneko gutun irekia zuzendu zion aldizkariaren zuzendariari, Bilbon apirilean sinatuta. Bertan euskaltzaleen arteko adiskidetze eta elkarlanerako deia egin zuen:

Le envío este escrito, señor director de «Gernika», con ánimo de quitar posibles causas de discordia y rencillas que puedan crear enemistad entre vascófilos, enemistad esta que en una época como la que atravesamos sería fatal para los intereses del euskera, máxime si tenemos presente que los enemigos de nuestra lengua nacional tienen a su alcance todos los medios y los amantes apenas alguno para defenderla (Krutwig 1950a: 44).

Gernika aldizkaria, ikusi dugunez, humanismo ez-nazionalista baten ordezkari izan nahi zuen, EAJ-PNVrekiko erabat independentea ez ezik, alderdiarekiko kritikoa ere bai, J. Thalamásen kasuan. ALVren buletinik ezean, plataforma egokiena zen F. Krutwigen ideiak plazaratzeko. 29 urteko euskaltzainak ALVn hartua zuen garrantziaren beste froga bat da. Aldi berean, bere burua agerian uzten ari zen diktaturaren errepresioak ekarri zezakeen zigorraren aurrean. Izenorderik erabili gabe, euskarari «nuestra lengua nacional» deitu zion.⁸²⁰

Gainera, N. Ormaechearen kritika gogorrenak artean P. Lafitteri zuzenduta zeuden, eta F. Krutwigek artekari agertzeko aukera baliatu zuen gutun irekian. Euskaltzain gaztearen jarrera bakegilea pozez ikusi zuen aldizkaria Donibane Lohizunetik zuzentzen zuen I. Fagoaga erbesteratuak. Nafarroako tenoreak N. Ormaechea idazlea miretsi egiten zuen eta F. Krutwigek gutun irekian hark euskaltzain izan beharko lukeela aditzera eman zuen. Guzti horren berri eman zion I. Fagoagak jadanik Guatemalan zegoen N. Ormaecheari maiatzean. F. Krutwig ALVren zilegitasuna zuritu nahian ari zen erbesteko kritiken aurrean. *Gernikako* arduradunei «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» txostena bidaltzeaz gain, R. Lafonen Baionako sarrera ekitaldia baliatu nahi zuen beraiekin biltzeko. ALVk, halaber, J. Saint-Pierren sarrera ekitaldia 1950eko irailean egiteko asmoa omen zuen Donibane Lohizunen (Iztueta &

⁸¹⁹ ABA-LAF: P. Lafitteri gutuna [M. Deixonne] diputatuari, [1950].

⁸²⁰ Eskuindar familia bateko kide zelako, lañoki uste zuen agintari frankistek ez zutela salatuko. «A ese le importa la lingüística. Ese, como es hijo de Krutwig, no puede ser separatista» uste zuen esango zutela (Murua Uribe 1997: 76).

Iztueta 2006: 427).

Martxoko batzarrean, bestalde, Euskaltzaindiari ohi ez bezalako hizkuntza aginpidea aitortu zitzaion, erakunde publikoen aldetik. Bilboko Udal Epaitegiak, Tolosatik zetorren auzi bati jarraituta, «ondazilegui» hitzaren esanahiaz eta zentzu juridikoaz galdetu zion ALVri.⁸²¹ R. M. Azkueren *DVEF*en hitz hori jaso ez arren, euskaltzainburuak idazki bat prestatu zuen hitzaren esanahia zehazki azaldu baina ondorio juridikoak saihesteko:

El compuesto «onda-zil'egi» formado con la unión de ambas voces, se usa en algunas comarcas de habla vasca, especialmente en la Alta Navarra y Guipuzcoa con el significado de «terreno comunal en el que existe arbolado perteneciente al vecino plantador» y también el propio arbolado plantado por un particular y para su propio beneficio o aprovechamiento en terreno comunal.

El sentido jurídico de dicho concepto es materia extraña a los fines y función, exclusivamente lingüísticos de esta Academia y escapa a la competencia del suscrito Director informante.⁸²²

ALVren agerikotasun berrituak erreakzioak sortu zituen, baita erakunde frankisten artean ere. Horrela, Sindicato Provincial de Actividades Diversas delakotik informazio eskaera jaso zuen Euskaltzaindiak, enpresa eta produktoreen hautesle errolda osatzeko. Hurrengo datuak eskatu zituzten: enpresaren izen soziala, jabearen-kudeatzailearen izenak, enpresaren jarduera-egoitza eta langileen identifikazioa. Euskaltzaindiaren erantzunik gorde ez den arren, argi dago Bizkaiko agintari falangistek zalantzan jartzen zutela erakundearen izaera akademikoa eta ez zutela JCVrekiko harremana ezagutzen.⁸²³ Euskararen erabilerak diktadura frankistan sortzen zituen susmoen eta izuen beste adibide oso argia da «Academia José M.^a Larrea»tik jaso zuten baimen eskaria, euskara eskolak eman ahal izateko:

Funcionando esta Academia con las necesarias autorizaciones docentes del Rectorado de Valladolid e Inspección de Primera Enseñanza Provincial, al tener oportunidad de dar cabida en ella a unas clases de vascuence se ha suscitado la duda de si para esta enseñanza es precisa la autorización especial de ese organismo o algún otro, duda que desearía fuese

⁸²¹ ABA-EUS: Bilboko Udal Epaitegiaren gutuna R. M. Azkueri, 1950-03-27.

⁸²² ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bilboko Udal Epaitegiari, 1950-03-27.

⁸²³ ABA-EUS: Sindicato Provincial de Actividades Diversas-en gutuna Euskaltzaindiari, 1950-04-14.

aclarada para verificar en su caso los trámites precisos a saber si la continuidad es legal y no pudiera dar lugar, extremando la suspicacia, a que tuvieran cierto carácter subrepticias e irregulares en su funcionamiento.⁸²⁴

10.3 Manuel Lecuonaren sarrera ekitaldia (Iruñea, 1950-06-24)

Garai horretan J. M. Arellano presidente zuen NFD euskararen aldeko neurri batzuk hartzen hasi zen, L. Valero gobernadore zibilaren iritziaren aurka. J. A. Zubiaur kultur diputatu berriaren ekimenez, NFDak euskara eskolak abiatzea onartu zuen 1949ko abenduaren 12an:

Teniendo en cuenta lo que es y ha significado en Navarra la lengua vasca, dentro de la más fervorosa concepción españolista, se acordó:

Primero. Establecer la enseñanza de lengua vasca para todas las personas que voluntariamente deseen asistir, reservándose esta Diputación el momento de la implantación de la enseñanza citada, lugar, condicionado y nombramiento de profesor.

Segundo. El profesor de la enseñanza mencionada percibirá la gratificación anual de 6.000 pesetas, sin derecho a pagas extraordinarias, con cargo a los fondos de Navarra, consignándose la cantidad referida en el Cap. 7o, Art. 7o, Partida 52, párr. 4o del presupuesto de gastos para el año 1950 (apud Jimeno Jurío 1996: 511).

NFDak eskatuta, J. A. Zubiaurrek Francisco Tirapu hautatu zuen irakasle, Bernardino Tirapu mediku ezagunaren semea. Hala ere, erabakia geldu zen urtebetez, eta Iruñeko Cámara de Comptos-eko eskolak ez ziren hasi 1951ko urtarrilera arte, IPVri atxikita. Nafarroako gobernadore zibilak erabakia eragotzi nahi izan zuen, baina diputatu karlistak ez zuen atzera egin.⁸²⁵

1950eko martxoaren 20an R. M. Azkuek gutuna idatzi zion NFDari, ALVren jardun apolitikoa («enteramente al margen de la política») diruz lagundu zezan eskatzeko. Idazkian, Nafarroako euskaltzainen artean, A. Irigaray-E. Esparza-J. M. Seminario ez

⁸²⁴ ABA-EUS: J. Charterinaren gutuna Euskaltzaindiari, 1951-11-21.

⁸²⁵ J. A. Zubiaurrek, gobernadore zibil falangista kritikatzeko, *El fuerista* aldizkari satirikoa argitaratu zuen isilpean. Azkenean, M. Gortari diputatuak F. Francoren aurrean 1955ean egindako zuzemenak, erabakigarri izan bide ziren L. Valero kargutik kentzeko. Miguel Gortari (1887-1968) EI-SEVeko kide ohi eta Iruñeko alkate berria, izango zen ALVrekin harremana gorde zuen Nafarroako agintari frankista nagusia. Kontuan hartu behar da M. Gortarik EBEn, CEDAren ildoko ideologiatik, autonomia estatutu bateratuaren alde egin zuela, eta horregatik V. Pradera-E. Esparzaren erasoak jaso zituela (García-Sanz Marcotegui et al. 1998; Mikelarena Peña 2013).

ezik, Txilera destinatutako D. de Inza (OFMCap) ere zerrendatu zuen. IPVko idazkari J. E. Urangak eskaeraren aldeko txostena sinatu zuen martxoaren 22an:

No se le ocultará a V. E. la importancia grande que en la actualidad tienen los estudios lingüísticos, destacándose en España como los de más transcendencia los relativos al estudio del Vascuence, vieja reliquia de lengua antiquísima, que aún se conserva en España como un vestigio remoto de pasadas civilizaciones.

El Vascuence ha atraído y atrae actualmente el interés de investigadores y eruditos, y podrá dar cuenta de su importancia el que, según los modernos estudios, tal vez esté en él la clave para descifrar el idioma de los iberos, con lo que se daría un paso gigantesco en el conocimiento de la historia antigua de nuestro pueblo.

Por otra parte, urge su estudio y conservación, pues no cabe duda que la vida moderna, con su nivel unificador, va contribuyendo a la desaparición de esta vieja reliquia que es necesario conservemos y cuidemos como un tesoro, puesto que representa uno de los idiomas más antiguos que se habló en España (apud Jimeno Jurío 1996: 514-515).

Urtero ALVri 5.000 ptaz laguntzea erabaki zuen korporazioak maiatzaren 27an. Ekainaren 10ean, halaber, NFDak baiezkota eman zion M. Lecuonaren sarrera ekitaldia babesteko euskaltzainburuak egindako eskaerari. Eskaerak IPVaren aldeko txostena izan zuen berriz, eta uste izatekoa da E. Esparza urgazlearen laguntza ere bai.⁸²⁶ Iruñeko egunkariak ekitaldi publikoaren iragarkia lehen orrian argitaratu eta ongi etorri egin zion Euskaltzaindiari:

La sesión, patrocinada por nuestra Diputación Foral y la Institución «Príncipe de Viana», su instrumento de cultura, tendrá caracteres de solemnidad y es ciertamente loable que la Diputación haya acogido tan efectiva y efectivamente la realización de los vivos deseos de la Academia. Navarra, al fin, es el territorio donde más se habla el vascuence (*Diario de Navarra* 1950-06-23).⁸²⁷

Gerraondoan Iruñean egin zen lehenengo batzarrean R. M. Azkue, F. Krutwig, J.

⁸²⁶ ABA-EUS: NFDko idazkariaren ofizioa R. M. Azkueri, 1949-06-17.

⁸²⁷ Egunkariko idazlearen (seguru asko E. Esparza) arinkeria euskararen demografiaz harrigarria da. Inkestarik ezean, EAJ-PNVren buletinak 1936rako emandako datuen arabera, Nafarroakoak ziren euskaldunen %9,37. Gainerako iturriek ere antzeko batez bestekoak eman zituzten. J. M. Azaolaren gerraondoko datuen arabera, Nafarroakoak ziren Espainiako euskaldunen %10. J. M. Azaolaren milioi erdiko euskaldun kopuruari, G. Lacombe ematen zituen Frantziako 100.000 euskaldunak gehitzen baldin baditugu, Nafarroakoak ziren Euskal Herriko euskaldunen %8,33 besterik ez. Datu horiek bat datoz ondoren egin diren estimazioekin (*Alderdi* 1950-02; Azaola 1951; Lacombe 1952; Erize Etxegarai 1997).

M. Seminario, M. Lecuona eta N. Oleaga euskaltzainak bildu ziren. I. M. Echaide-B. Echegarayk zorion mezuak bidali zituzten, baita Lekarozko Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo-ko buruak ere. Ekitaldi irekian Nafarroako agintari frankistak egon ziren: J. M. Arellano presidentea, J. A. Zubiaur diputatua, J. E. Uranga IPVren idazkaria, M. Gortari Iruñeko alkatea eta E. Esparza *Príncipe de Vianaren* zuzendaria (ALV 1982: 11).⁸²⁸

Biharamunean *Diario de Navarrak* lehen orrian eman zuen ekitaldiaren berri, argazki eta guzti. E. Esparzak kronika berbera egin zuen *Príncipe de Viana* aldizkarian. M. Lecuonak «Gorozika'tik gurutzeaga'ra edo gurutzearen izena gure toki-izendegian» sarrera hitzaldia egin zuen euskaraz, gaztelaniazko laburpenarekin. Diktaturak begi onez ikus zezakeen gai kaltegabea zen, euskal toponimia eta historia erlijiosoak nahasten zituena. Euskaltzaindiaren urtarrileko batzarrean egindako hitzaldiak zuen kritizismoa baztertu egin behar izan zuen, noski. Adeitasunezko aitzinsolasean, Gipuzkoa-Nafarroa arteko kultur harremanak nabarmendu zituen. J. M. Seminario, Lesaka-Bera arteko «Eskolamendi» toponimoaren etimologiaz aritu zen erantzun hitzaldian. Euskaltzaindiak agerkari ofizialik ez zuenez, *BRSVAP*en agertuko zen hitzaldia bi urte eta gorabehera askoren ondoren (Lekuona ta Etxabeguren 1952). Dena dela, ekitaldiko ezaugarri deigarriena NFDaren babesa zen. Mahaiburu J. M. Arellano legegizon monarkikoa zegoen, EGZean euskararen aurkako neurri politikoak hartutakoa.⁸²⁹ Kronika egileak NFDko presidentearen amaierako hitzak jaso zituen:

Este acto tiene una honda significación, que es la de deshacer cualquier equívoco. En Navarra cuando se habla de vascuence se habla de algo que es nuestro, porque el primer rey español que hizo la unidad, que fue Sancho IV, se apoyó en los Pirineos. Y tal vez no por motivos raciales ni por motivos políticos, sino por designios religiosos hizo la unidad

⁸²⁸ F. Krutwigek ekitaldiaren meritua bereganatu nahiko zuen gero: «No fui yo acaso quien organizó en Navarra la recepción de Lekuona con Seminario por contestante [...] justamente para hacer revivir el euskara en Navarra. De aquella recepción que organicé en Navarra, salió la primera subvención a la Academia... y el que en Navarra se tomase interés por el euskara, como en un discurso que después de Lekuona y Seminario, echara Gortari. Y si propuse a Lekuona, fue porque éste es de dialecto navarro y porque Seminario era persona grata al régimen» (EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

⁸²⁹ José M^a Arellano (1885-1963) antiabertzalearengandik ezin zen Euskaltzaindiarekiko hurbiltasun handirik espero. EBEn uko egin zion Huelvako gobernadore zibil karguari eta Falange-ko buruzagien defentsaz arduratu zen auzitegietan. EGZean, Bizkai-Gipuzkoako gobernadore zibila izan zen. 1936ko abenduan, euskarazko idazkun publikoak ezabatzea agintzeaz gain, euskal lexiko modernoan «k», «tx» edota «b» grafemak erabiltzea debekatu zuen, gaztelania iraintzen zutelakoan. NFDko presidente izan zen 1949-1952 artean, gobernadore zibilaren eta Barne Arazoetako ministerioaren hautagai gisa, eta probintziako karlista-falangisten arteko istiluetan nahastu zen (García-Sanz Marcotegui et al. 1998: 42, 310-314).

española auténtica, aun cuando la malbarató más tarde con su testamento. Y es característica de Navarra el sentir todo lo que puedan sentir todos los vascongados y armonizarlo con todo lo que puedan sentir los demás españoles, porque formamos una unidad predestinada por Dios y fundada en muchas cruzadas, entre ellas en la última, en la que nació el 18 de Julio de 1936. Si no hubiera otros motivos de fusión con las demás regiones españolas, bastaría esa fecha para que nosotros, inspirados en unos principios que nos son comunes, permaneciésemos leales a nuestra ideología, a nuestros sentimientos, a nuestro españolismo y a nuestro espíritu vascongado y navarro (*Diario de Navarra* 1950-06-25; Príncipe de Viana 1950: 182-183).⁸³⁰

Euskaltzaindiaren urriko batzarrean (sarrera ekitaldietan emandako laguntzagatik, Baionako Musée Basque-ri eta NFDari eskerrak ematea erabakitzeaz gain) NFDak urtero 5.000 ptako diru laguntza emango zuela adierazi zuten, baita Bilboko Udalak ere 1.000 ptakoa urte horretarako (ALV 1982: 14).

10.4 Louis Dassancen eta René Lafonen sarrera ekitaldiak (Baiona, 1950-07-15)

Donostiako udaletxean batzartu ziren 1950eko uztailaren 14an hurrengo sei euskaltzainak: R. M. Azkue, J. Elissalde, I. M. Echaide, F. Krutwig, L. Dassance eta P. Lafitte. Ikusi dugunez, L. Dassancen sarrera ekitaldia ospatzea zen asmoa, «[e]zin baña, batzarra egiteko bear dan baimena lortu ez talako» (ALV 1982: 12). ALV egiten ari zen ekitaldi publikoak ez ziren oharkabean igaro, eta agintari frankistak oztopoak jartzen hasi ziren. Gipuzkoako gobernadore zibil integristak ekitaldia debekatu ez ezik, J. Saint-Pierreri Espainiarako bisa ukatu egin zioten Baionako kontsuletxean. Seguru asko beldur ziren ez ote zen ekitaldia euskararen errepresioaren salaketarako bozgorailu bihurtuko, EIL-SIEBeko biltzarrean gertatu zenez.⁸³¹ Gobernadore zibilaren debekua azken unekoa izan zen, Euskaltzaindiak, M. Lecuonaren ekitaldiarekin egin bezala, gonbidapen txartel dotoreak bidali zituen. Donostiako Udala, noski, gonbidatuta zegoen, eta Iruñeko alkateak

⁸³⁰ F. Krutwigek J. M. Arellanoren hitzak itxuragabetu zituen memorietan: «Si alguien se atreviere a atacar al vascuence en Navarra, que a nadie le quepa duda, que Navarra entera se levantará, una vez más, en armas, para defender a su lengua» (apud Krutwig 1991: 99-100).

⁸³¹ Hain zuzen, EIL-SIEBen zuzendaritzak batzarra egin zuen Baionan uztailaren 8an, «Euzkeraren Eguna» prestatzeko: L. Dassance, M. de la Sota, P. Lafitte, T. Monzón, A. Constantin, J. M. Lasarte, M. Intxausti, P. Narvaitz edota J. M. Barandiaran bildu ziren (Barandiaran 2009: 733, 774).

edota M. Lecuonak ezin etorria adierazi zuten telegramaz.⁸³² F. Krutwigen asmoari jarraituta, prentsa batzarren berri ematen hasi zen, barnealdean nahiz erbestean. Horregatik, ekitaldiaren debekua ere berehala jaso zen EJ-GEren berripaperean, agerian jartzen zuelako diktaduraren errepresioa:

La Academia que es «tolerada» por las autoridades franquistas con las limitaciones a que ya nos hemos referido anteriormente había solicitado de la Diputación de Guipuzcoa, que dicho acto tuviera lugar en el Palacio de la Diputación, a lo que los gestores franquistas se negaron alegando el torpe pretexto de que se estaban realizando algunas obras. A causa de esta negativa, la Academia solicitó y obtuvo del Municipio donostiarra la autorización correspondiente para que el acto de recepción del señor Dassance tuviera lugar en la Casa Consistorial y la reunión fue anunciada en la prensa local para el viernes a las siete de la tarde. Pero no pudo celebrarse por nuevos obstáculos de las autoridades franquistas, dispuestas a impedirlo a todo trance.

El segundo incidente se produjo en Irún cuando la Policía franquista impidió al Obispo Monseñor Saint Pierre, Presidente de la Sociedad Internacional de Estudios Vascos «Gernika» la autorización necesaria para presentarse en San Sebastián, autorización que fue acordada a los académicos señores Dassance, Elissalde y Laffite, pero tanto el viaje de estos, como el de otros que se presentaron en la capital donostiarra para tomar parte o presenciar la reunión de la Academia, resultó completamente inútil, porque el Gobernador Civil de Guipuzcoa, Barón de Benasque prohibió el acto. En vista de ello, la recepción del Académico Sr. Dassance, así como la de otro académico, el profesor de la Universidad de Burdeos, el Sr. René Lafon, se celebró en Bayona el pasado sábado. Todavía la policía franquista hizo lo que pudo para dificultar esta reunión, dando órdenes a la censura para retener todas las invitaciones enviadas desde San Sebastián a las personalidades residentes en el Estado francés, para que asistieran a la reunión de Bayona (*OPE* 1950-07-18; cf. *Alderdi* 1950-08-01).

Erbestean berri horiek bozkarioz hartu ziren, euskal frankisten kontraesanak agerian jartzen zituztelako. I. Fagoagak Frantziatik honela idatzi zion N. Ormaecheari Guatemalara 1950eko uztailean: «Puede usted imaginarse de qué humor están estos jerifaltes vascos que hasta ahora juraban por Franco y sus compinches. Así aprenderán...» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 430). Hori zela eta, hurrengo egunean, uztailaren 15ean, Baionako Musée Basque-n L. Dassance-R. Lafonen sarrera ekitaldiak batera ospatzea

⁸³² ABA-EUS: L. Dassanceren sarrera ekitaldirako Euskaltzaindiaren gonbita eta M. Gortariren nahiz M. Lecuonaren telegramak Euskaltzaindiari, [1950-07-14].

erabaki zuen Euskaltzaindiak. Hurrengo zortzi kideak bildu ziren: I. M. Echaide, J. Elissalde, F. Krutwig, P. Lafitte, J. Saint-Pierre, L. Dassance, R. Lafon eta N. Oleaga. Gerraondoan lehen aldiz huts egin zuen R. M. Azkuek batzarrera, baina ez dago argi zergatik. Nolanahi den, I. M. Echaidek lehen aldiz hartu zuen mahaiburu izateko ardura. Eskuinean J. Saint Pierre eta ezkerrean N. Oleaga idazkaria izan zituen (*Herria* 1950-07-20).

M. Lecuona-M. Gortari-S. Altubek, bestalde, ezin etorria adierazi zuten (ALV 1982: 13). S. Altubek telefonoz jakinarazi zuen ez zela Pauetik Baionara joango. Deialdia berandu jaso zuela adierazi zuen, baina Gernikako hilarrien istiluaz geroztik berriz ere aldunduta agertzen zen ALVrekiko.⁸³³ Hura izan zen J. Saint-Pierre apezpikua kide izan zuen batzar bakarra. Baionan egindako ekitaldi publiko hura sinbolikoa izan zen, lehen aldiz erbestera gerturatu ahal izan zirelako ALVren batzarrera. Baina hotz hartu zuten, eta abertzaleen boikot antzekoa nabari zen, I. Fagoagaren testigantza araberak: «Como concurrencia fue un fracaso. En total éramos 18 personas» (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

Entzule gutxi horien artean erbesteko kide esanguratsuak egon ziren, hala nola, J. M. Barandiaran (Barandiaran 2009: 775). ALVk ezin zuen agerkaririk argitaratu, baina batzarraren edukia erbesteko kultur aldizkarietan agertu zen: *Herria*, *Gernika*, *Eusko-Jakintza* edota *BIAEV*. Nazioarteko oihartzun horren aurrean, badirudi Donostiako *BRSVAP* Euskaltzaindiaren jardueraren berri ematera ausartu zela lehen aldiz, Gipuzkoako gobernadore zibilaren debekurik aipatu gabe, jakina (RSVAP 1950). F. Krutwigek I. Fagoagaren Donibane Lohizuneko etxera joateko baliatu zuen ekitaldia, eta euskaltzainburuaren heriotzak sor zezakeen hutsunea N. Ormaechearekin betetzen saiatzea hitzartu zuten (Iztueta & Iztueta 2006: 430, 466).

Izan ere, Euskaltzaindia gerraondoko plaza publikora atera zenetik, haren zilegitasuna zalantzaz beterik zegoen. Guatemalan J. Zaiteguik 1950ean sortutako *Euzko-Gogoa* euskara hutsezko kultur aldizkari berriaren ondoan, esaterako, lotsagarri agertzen zuen Euskaltzaindiaren jardun motela. J. Jáuregui Baionan zuzentzen zuen EAJ-PNVren buletinean hainbat kronika eta artikulua agertu ziren gaiak.⁸³⁴ J. M. Seminariok Bilboko egunkarian argitaratzen zituen idazlanen maila barregarri uzteaz gain, haren ordezkari

⁸³³ ABA-EUS: R. Lafonen sarrera ekitaldirako Euskaltzaindiaren gonbita, M. Gortariren telegrama eta S. Altuberen oharra Euskaltzaindiari, [1950-07-15].

⁸³⁴ Kontuan har bedi *Alderdik* hilero 1.300 ale banatzen zituela, Ameriketako barne (SAF-AA: [D. Ciaurizen?] gutuna E. Echeverriari, 1951-08-18, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11).

politikoa agerian uzten zuten. «El *Vascuence* de falange [sic] española» deitzen zioten hark euskal lexikoaz egindako proposamenei (*Alderdi* 1950-02). Gainera, Euskaltzaindiak J. M. Seminarioren bidez G. Riestrarekin zuen harremana iraingarria zen. Bizkaiko hilarrietatik euskarazko idazkunak ezabatzeko gobernadore zibilak emandako agindua nazioarteko eskandalua bilakatu zen EAJ-PNVren lanari esker.

Sam Pope Brewer *New York Times* egunkariaren Espainiako korrespontsal ezerosoak, otsailaren 28an artikulua argitaratu zuen horren berri ematen, eta EJ-GEren berripaperak itzuli egin zuen: «La mencionada orden del Gobernador de Vizcaya, en sí misma, tiene poca importancia pero demuestra que continúa[n] los esfuerzos para hacer desaparecer las características diferenciales de los vascos» (*OPE* 1950-03-03). Frankismoaren izaera antidemokratiko eta krudela agerian zegoen. Diktadura nazioartean legitimatzea helburu nagusi zuen A. Martín Artajoren Kanpo Arazoetako ministerioak presaka ohar bat argitaratu behar izan zuen AEBko aldizkariaren informazioa gezurtatzeko. EAJ-PNVren buletinak «La persecución contra la lengua vasca» artikulua eta euskararen erabileraren aurkako hainbat debeku frankista argitaratu zituen. Hala ere, jeltzaleek euskararekiko estrategia bateratu bat adosteko zituzten ezintasunak ere begi bistakoak ziren. Buletinaren zenbaki horietan C. Jemein-S. Altubek publikoki eztabaidatzen jarraitu zuten sabindar ereduaren ukiezintasunaz edo eguneratu beharraz (*Alderdi* 1950-04; 1950-06; 1950-08; 1950-09; 1950-11; 1950-12).⁸³⁵

Nolanahi den, L. Dassancek Eskualzaleen Biltzarraren historiak jardun zuen sarrera ekitaldian. J. Elissalde eman zion protokolozko erantzuna. I. Fagoaga entzulearen arabera, hitzaldi hutsalak izan ziren: «Los discursos de Dassance y Elissalde fueron dos perfectas nulidades» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 430).⁸³⁶ 1951ko irailean Hendaian egingo zen Eskualzaleen Biltzarraren urteroko jaialdian ere, elkarte nola eratu zen 1901-1902 artean azaldu zuen oso laburki (*Herria* 1951-09-27). *Gure Herria*

⁸³⁵ Azkenean, S. Altubek uko egingo zion *Alderdi* buletinean euskalaritzaz idazteari, jeltzaleen arteko eztabaida ez betikotzearen (SAF-AA: S. Altuberen gutuna D. Ciaurrizi, 1951-04-28, PNV_NAC_EBB,K.00144,C.5). Lehenago C. Jemein-S. Altubek bat egin zuten M. Mendiolaren «El euskera debe vivir su vida propia» artikuluari *Alderdi* betoa jarri ziotenean, preskribatutako neurriak nahasgarriak zirelakoan (SAF-AA: «Expediente informativo formado por el EBB del PNV sobre un trabajo filológico de Manuel Mendiola, generado en base a las opiniones aportadas por Ceferino de Jemein y otros filólogos a petición del Consejo Nacional», 1949-1950, PNV_NAC_EBB,K.00159,C.4). Jeltzale guztiek bat egiten zuten euskararen gizarte egoera deitoratzean, baina hizkuntza bera zuten arreta nagusi, mota bateko edo besteko purismoaren bidez «lehengoratu» nahi zutena. Gainera, gaien interes gehien zutenak, ez ziren bat etortzen jarraitu beharreko metodologian.

⁸³⁶ F. Krutwigentzat ere, euskaltzain berria idazle txarra zen: «Dassance Eskualzaleen Biltzarreko presidentearekin tronpatu nintzen, ez baitzuen ongi izkiriitzen» (Murua Uri 1997: 76).

berpiztuan argitaratutako idazlanaren oinarria izango ziren ikerketa xume horiek: «Eskualzaleen Biltzarraren sortze eta hastapenak» (Dassance 1952).

Frantziako euskaltzainei bertaratzea erraztea zen batzarrak Donostian egiteko arrazoi nagusietakoa, F. Krutwigen txostenaren arabera. Frantziako kideekin harremanak berreskuratu eta izendapen berriak egin ondoren, ALVk hamahiru batzar egin zituen 1950-1951 artean. 1950ean, bere kasago zebilen J. Elissalde sei aldiz agertu zen, Uztaritzeko tandem (P. Lafitte-L. Dassance) eta J. Saint-Pierre behin besterik ez. P. Lhande zaharra, Pauen gaixorik bizi zenez, ez zen gehiago batzarretara agertu.⁸³⁷ Ezta H. Gavel deduzko supernumerario zaharragoa ere, Angelun bizi arren. 1951n, ez zen Frantziako ordezkari bat ere agertuko batzarretara. Espainia-Frantziako muga zeharkatzea nekeza zen, baimenak garaiz eskatu behar zirelako eta garraioa motela zelako. F. Krutwigen asmoak gorabehera, haien garaiko ekarpena ALVri ez zen esanguratsua izan.⁸³⁸ P. Lafittek, N. Ormaechearekin sortutako istiluaren ondorioz, ez zuen bere literatur euskara Espainian hedatzeko tresna gisa ALV erabiltzeko asmorik erakutsi. Arcachonen bizi zen R. Lafon soilik bere sarrera ekitaldira agertu zen.⁸³⁹

Frantziako euskaltzainek, izan ere, egoitza Espainia frankistan zuen ALV baino plataforma askoz egokiagoak zituzten eskura euskararen alde aritzeko. BMG ondoko eztabaida politikoaren ondorioz, 1951ko urtarrilaren 11ko Deixonne Legeak bretoiera, katalana, okzitania eta euskara sartu zituen Frantziako hezkuntza sisteman lehen aldiz.⁸⁴⁰ Herri hizkuntzen irakaskuntza hautazkoa zen, astean ordubete edo bikoia, eta frantsesa hobeto ikastera bideratuta, bereziki lehen hezkuntzan. Dena dela, euskararen irakaskuntza bigarren hezkuntza eta unibertsitate mailako irakasle eskoletara iritsi zela kontuan hartuta, diktadura frankistan ez bezalako aukerak sortu zituen (Irujo & Urrutia 2009: 239-242). 1951ko otsailean hamabi eskolatan beste horrenbeste irakasle ari ziren 500 haurri astean bi aldiz euskara eskolak ematen. EJ-GEk egitasmo horiek lagundu zituen eta S. Arotçarenaren *Grammaire basque* 1951ko urte amaieran argitaratzea horren

⁸³⁷ ABA-EUS: P. Lhanderen gutuna N. Oleagari, 1951-07-17.

⁸³⁸ ABA-EUS: L. Dassancen gutunak N. Oleagari, 1950-01-25 & 1950-05-27.

⁸³⁹ ABA-EUS: R. Lafonen gutunak N. Oleagari, 1950-06-17 & 1950-10-20. Oporrak baliatzen zituen Espainian egonaldiak egin eta RSVAPeko kideekin edota A. Tovarrekin biltzeko. Euskaltzaindiak, ordea, ez zion bere ikerketa lanei ia ezer eskaintzen. 1951ko irailean Donostia-Santander-Madrilen egindako egonaldiaren emaitza izango zen, esaterako, *Études basques et caucasiqes* liburua (Lafon 1952: 6).

⁸⁴⁰ «Loi n°51-46 du 11 janvier 1951 relative à l'enseignement des langues et dialectes locaux». In: *JORF*, 1951-01-13.

ondorio izan zen.⁸⁴¹

ALVren agerkari ofizialik ezean, R. Lafonen sarrera hitzaldia, halaber, erbesteko aldizkari batean argitaratu zen 1950ean bertan: Donibane Lohizuneko *Gernikan*. R. Lafonek Akitaniaren euskaltasuna nabarmendu nahi izan zuen, 1920ko araudiak agintzen zuten euskal jatorria agerian utzi nahian. Berak ALVri egin ziezaiokeen ekarpen nagusia hizkuntzalariarena zela adierazi zuen, batez ere euskararen harreman genetikoak aztertzearena. Alderdi soziologikoari lotu zitzaionean, J. Vendryesen *Le langage* (1921) izan zuen gidari bakarra:

Bere liburu onen azkenean, gai au aztertzen du: «le progrès du langage» mintzaeraren aurrerapena. Utzi nazazute lerroren bat aitatzera: «Il y a entre l'évolution linguistique et les conditions sociales où évolue la langue un rapport évident. Le développement de la société entraîne le langage dans une voie déterminée» «La portée d'une langue tient au nombre et au degré d'éducation de ceux qui la pratiquent» (Lafon 1950: 3).

Nolanahi den, sarrera hitzaldian berak ez zuen alor horretan sakontzeko asmorik agertu, baizik eta Euskal Herriko atlas linguistikoa eta literatura klasikoaren edizio filologikoak abiatzeko nahia. Kaukasoko hizkuntzak eta euskararen arteko erkaketa modan zegoen, eta horretan ari ziren R. Lafon-K. Bouda-A. Tovar, nahiz eta harreman genetikoaren froga positiborik ez den inoiz agertu.⁸⁴² I. Fagoaga entzulearentzat, sarrera hitzaldia oso ona izan zen, baina erantzuna ez: «Muy bueno y admirablemente dicho el de Lafon. Excesivamente erudito y leído con sobrada precipitación el de Krutwig» (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

F. Krutwigek, Frantziako hizkuntzalaritza soziologikoari jarraituta, hizkuntzen hierarkia bat egin zuen, goitik behera: zibilizazio hizkuntza, kultur hizkuntza eta literatur hizkuntza. Horren azpitik zalantzazkoa zen hizkuntzaren izaera: «patois», «parler» edo «dialecte» soilak ziren. Bere betiko leloari jarraituta, ALVren zeregin nagusia hizkuntzaren prestigio soziala areagotzea zela adierazi zuen (Krutwig 1952c: 53).⁸⁴³ Antifrankismoarentzat, ordea, Espainiako euskararen egoera agonikoaren aurrean, ekintza politikoa zen konponbide berehalako bakarra. Barnealdeko erakunde

⁸⁴¹ ABA-AIB: T. Monzónen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-02-20.

⁸⁴² F. Krutwigek memorieta R. Lafon bezalako hizkuntzalariak kritikatu zituen, euskara laborategiko objektu huts bezala hartzen zutelako, ALVren gizarte zeregina baztertuta (Krutwig 1991: 102-103).

⁸⁴³ Erantzun hitzaldia Guatemalako *Euzko-Gogoaren* 1952ko zenbakian argitaratuko zen.

sasiofizialetik, aldiz, gizarte ikuspegiaren naziogintza bigunari eusten zitzaion.⁸⁴⁴

Euskal lurraldetasuna

F. Krutwigek erantzun hitzaldia abertzaletasunaren ohiko lurraldetasuna aldatu edo hedatzen saiatzeko baliatu zuen. S. Aranek zazpi (edo sei) euskal probintziak estatu berezizat jo zituen foru erregimenaren krisialdia arte, bata bestetik independenteak eta etorkizunean konfederatu beharrekoak: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa (Garaia eta Beherea), Lapurdi eta Zuberoa.⁸⁴⁵

Frantzia-Espanian, ordea, Nafarroako Erresumarenak izandako beste hainbat lurralde historiko zeuden. Erresuma zaharraren aldarrikatzaile nagusia EGZera arte A. Campión izan zen, baina NFDko agintari frankistek jarrera anbigua izan zuten euskaltzain sortzailearekiko. Haren ekarpen historiografikoa baztertu egin zuten, espainolismoarentzat ezerosoak ziren kultur eta lurralde erreferentziak zituelako. Baina NFDak, haren ondasun dokumentalaren jabe zenez, zenbait keinu sinboliko egin behar izan zituen, hala nola, J. Ziga pintore jeltzaleak egin zion erretratua erosi eta A. Campiónen biblioteka gordetzeko gelan eskegi. Giro horretan antolatu zen M. Lecuonaren sarrera ekitaldia Iruñean (*Alderdi* 1950-01; cf. Majuelo 2011).

1951 inguruan F. Krutwigek ezkutuko bilerak antolatu zituen Ribera kaleko egoitzan, besteak beste, J. L. Alvarez-M. Eguileor-M. Roblesekin. Beste abertzale zahar batzuekin bezala, A. Ortuetarekin ere harremanetan jarri ziren gazte haiek (Alvarez Enparantza 1995: 183; *Berría* 2012-01-15). EAE-ANVko A. Ortuetak Bartzelonan argitaratutako bi historia lanak, ordura arteko euskal historiografiatik aldentzen ziren: *Nabarra y la unidad política vasca* (1931) eta *Vasconia y el imperio de Toledo* (1935). Euskal probintzia eta foruetan oinarritutako historiografia nagusia gogor kritikatu zuen, Nafarroako Erresumarekiko lotura baztertu edo ukatzen zuelako (Ortueta Azkuenaga

⁸⁴⁴ Horregatik, F. Krutwigek bere burua irizpide horren eragile nagusi gisa ikusi zuen beti: «A este respecto he de contarle que no es nueva en mí la idea de que hay que conquistar la cabeza cultural, económica, industrial etc del País Vasco para el vascuence y que el día que lo logremos habremos ganado la batalla definitiva en favor de la lengua vasca. Hace 15 años que vengo predicándolo, hace 12 años que ya lo dije en el Museo de Bayona, cuando entró Lafon en la Academia» (EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

⁸⁴⁵ Nafarroako kaputxino abertzaleek edota Euzkeltzale-Bazkunako kideek S. Aranaren bidea jarraitu zuten. JLA-FK: BERNARDINO DE ESTELLA, Padre (1931): *Historia vasca*. Bilbao: Emeterio Verdes Achirica. F. Krutwigen bibliotekan ez dago ia liburu abertzale zaharrik, 1952an erbestera joan behar izan zuenean, familiak desagerrarazi zituelako.

2002: 106-107).

Hizkuntzaren gizarte egoerarekin gertatu bezala, idealizatzen errazagoa zen Erdi Aroa, XIX.-XX. mendeko historia baino. Era berean, abertzaletasun klasikoaren erreferentziak eta eztabaida politikoagoak saihesteko modu aski lañoa zen. Frantziako euskal literaturan eta historiografian zegoen irredentismoaren beste iturri nabarmena. «Euskal Herria» izen gisa lehen aldiz inprimatuta agertzen zen argitalpen horietan. Gaztelak 1512an konkistatu aurreko Nafarroaren lurraldetasuna berreskuratu zuen R. Lafoni emandako erantzunean:

Aragoi ta Gaztelako errege Pernanek' gezurrez, maltzurkeriaz eta zimarrkuez Naparroa menpetu zuenean' eusko erresuma hunen zathiak' Naparroa Garaia, Naparroa Beherea, Biarnoa, Bigorri, Marsan-Gabardone, Armañaga, Foix, Nebuzan, Domezain eta Labrit ziran (Krutwig 1952c: 51).

Historialariei dagokienez, probintzia bakoitzaren kontaketa izan da arruntena, baina Aro Modernoan A. Oihenartek akitaniar-iberiar lurraldetasun bereganatu zuen: *Notitia utriusque Vasconiae* (1643). F. Krutwigek, A. Oihenarti jarraituta, gaskoi-euskaldunen jatorria bateratu zuen, R. Lafonen euskaltasuna nabarmentzeko:

Hizkuntza' nazionalitate baten ezagupide nagusia izana gatik' edozein nazionalitatek bertze ezagupide batzuk ba daduzka (arrazen distribuizinoa, historia, bizitzaren baldintzak, spirituko interesseak eta bertze batzuk) eta ezagupide hauk Aquitaniak eta Euskalherriak batera daduzkate. Ba dagoz Euskal-herrian' euskara galdu duten eskualdeak eta ber-hain Euskalherriarenak dira; horrtakotz, neure aburuz behintzat, aquitarrak' euskotarr latindunak direla erran dezakegu. Aquitania' Nabetako, zelhaietako Euskalherria, Euzkadia euskaraz izenezta genezake ta Vasconia Mendietako Euskalherria lizateke (Krutwig 1952c: 51).

EJ-GEk Parisen 1956an antolatutako Euskel-Batzar Orokarra-ra («Congreso Mundial Vasco») F. Krutwigek bidali zuen txosten politikoan, posibilismo kulturalista alde batera utziko zuen. Biolentzia antifrankista aldarrikatzeaz gain, Nafarroako Erresuma zenaren lurralde batzuk Euskal Estatuak bereganatu beharrekoak zirela adierazi zuen. M. Irujo aipatu ez arren, Nafarroako jeltzalearen estrategiari lotu zitzaion, Frantziako muga zehatz-mehatz begiraturaz: Logroño, Soria, Aragoi, Burgos edota

Santanderreko eremu batzuk eskatu zituen.⁸⁴⁶

10.5 Pablo Zamarriparen heriotza eta «Euzko-Gogoa»ren

erronka

Hurrengo batzarrean, 1950eko urriaren 27an, bost kide bildu ziren GPDaren jauregian: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, F. Krutwig eta N. Oleaga. L. Dassance-P. Lhanderen ezin etorriaz gain, P. Zamarripa abuztuaren 17an hil zela adierazi zuten. Bizkaiko apaizaren anai-arrebei doluminak ematea erabaki zuten.⁸⁴⁷ Nolanahi den, J. Urquijoren gaixoaldi luze eta larria kezka gehiagoz aipatu zuten akademikoek. Martxotik ez zen Euskaltzaindiaren batzarretara agertzen (ALV 1982: 14-15).

Hildako euskaltzainaren hutsunea betetzeko, N. Ormaechearen hautagaitza aurkeztu zuten R. M. Azkue-M. Lecuona-F. Krutwigek, baina batzarrak arazo hori geroratzea erabaki zuen. Lapurtera klasikoz idatzitako aurkezpena irakurritz gero, argi dago F. Krutwig izan zela egitasmoaren arduraduna. N. Ormaecheak egindako poesia, itzulpen eta gramatika lanak goraiatu zituzten, baita Euskaltzaindikoko lankide gisa egindako dialektologia galdeketak (*Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario*).⁸⁴⁸ 1950eko uztailen F. Krutwigek gutuna bidali zion I. Fagoagari Donibane Lohizunera, artekari lana egin zezan, N. Ormaechea urgazleak P. Zamarripa zenaren aulkia onartzeko (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

N. Ormaechea «Orixe»rekin sortutako gatazka leuntzeko bide ziurrena zirudien hura euskaltzain izendatzea, baina hasieran ez zuen onartu I. Fagoagaren bidez iritsitako proposamena. Donibane Lohizunetik Guatemalarako abuztuko gutunean berriz eskatu zion, eta euskaltzainek egingo zioten abegi onaren erakusgarri, M. Lecuonak Calahorratik F. Krutwigi bidalitako gutunaren aipua egin zion:

Biziro nere gustokoa ta gogokoa izango da Orixe gure Euskaltzainkidetarako. Asko daki,

⁸⁴⁶ SAF-AA: F. Krutwigen txosten politikoa, 1956, DP-01036-06.

⁸⁴⁷ ALVren berri prentsan emateko erabakiaren ondorioz, egoera bitxiak sortu ziren. Baionako *Gure Herriak* edota Buenos Airesko *BIAEV*ek kortesiazko nekrologiak argitaratu zituzten, baina Espainiako egunkariak ez zioten jaramonik egin Bermeoko sendategiko kapilauaren heriotzari (IAEV 1950b; Ithurralde 1950).

⁸⁴⁸ ABA-EUS: R. M. Azkue-M. Lecuona- F. Krutwigen idazkia Euskaltzaindiari, 1950-09-12.

ta lan asko egin du, ta baita egingo ere, burua lengo lepotik ba-dauka. Euskalzain izan naiko duan... orran dago dana. Beraz besteren batzuek bultzatu bearko diote ortara. Eta oietako zenbaiti guk esan bearko, mesede ori egin daigute (apud Iztueta & Iztueta 2006: 433).

F. Krutwig-I. Fagoaga artean prestatu zuten hautagaitza. Uztailaren 8tik urriaren 2ra bost gutun bidali zizkion Bilbotik Donibane Lohizunera. ALVren batzarraren ondoren, urriaren 29an, beste gutun bat bidali zion jakinarazteko «Orixe»ren hautagaitza geldi zegoela, estatutuek agintzen zuten epea bete arte. Arauei jaramon gutxi egiten zion gerraondoko ALVren jardunari erreparatuta, ez da oso sinesgarria. P. Lafitte euskaltzain berriarekin publikoki izandako eztabaida garratzak oztopo handiagoa izan behar zuen nahitaez. Hain zuzen, hautagaitzak hartuko zuen bide okerraren ondorioz, F. Krutwigek gordinago azalduko zuen urriko batzarrean gertatutakoa. Agiriak halakorik ez adierazi arren, F. Krutwigen arabera, A. Irigaray Donostiako batzar horretan egon zen eta berak jarri zion betoa izendapenari:

Se presentó la petición que hacíamos Azkue, Lekuona y yo. El Sr Oleaga estaba bien dispuesto. Además se hallaban presentes, Elissalde, Echaide e Irigaray. (Lekuona apoyaba en pleno por carta). Elissalde no dijo nada. El Sr. Irigaray hizo saber que Orixe se encontraba en América (lo que también sabía yo) y que no volvería por ahora ni por un rato, que por lo tanto su nombramiento no contribuiría a levantar la Academia, y que además, y esto me lo dijo dirigiéndose particularmente (en voz baja) que después de los jaleos levantados por éste, si la Academia aceptaba la candidatura de Orixe, esto parecería como una claudicación de esta corporación, que no ha de hacerlo, pues de fuerza tiene prestigio para aguantar las injurias que pueda proferir cualquier malhumorado. En vista de tal actitud y de que no había presente nadie que podría haber secundado en aquel momento la propuesta mía, el Sr. Oleaga propuso, para salvar la candidatura de Orixe, que ésta quedase sobre la mesa de la secretaría (apud Iztueta & Iztueta 2006: 446-447).⁸⁴⁹

Nafarroako medikuak zuzen zioenez, ordurako N. Ormaechea Ameriketan zegoen, *Euzko-Gogoa* zuzentzen zuen J. Zaiteguik erakarrita. Handik eraso bortitzak zuzendu zizkion Euskaltzaindiari. F. Krutwigek *Gernikan* agertutako «Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca» bakegileari, oso gogor erantzun zion Guatemalako aldizkarian. F. Krutwig bezalako euskaltzain gazte ezezaguna ALV

⁸⁴⁹ F. Krutwigen manipulaziorako joera kontuan hartuta, zalantzarria da A. Irigarayk batzar horretan parte hartu zuenik.

defendatzera irten beharra, eskarmentu gehiagoko euskaltzainak isilik zirautenean, lotsagarria iruditzen zitzaion. Euskaltzaindi berrituaren osaera eta erabakiez gain, ustezko neutraltasun politikoa ere ukatu zuen argi eta garbi: «Zu etzaude zere esku, Krutwig yauna, bear bezain garbi itzegiteko, ta zure euskaltzain lagunak ezago. Euskotarrak ez dira ezer E. Z. berri ontan orainaldi beltzean» (Orixe 1950b). Euskaltzaindiarekiko jarreraz, T. Monzón EGLZ-DCEko buruari idatzi zion 1950eko urriaren 10ean: «Ez gera yañiko Ikaskuntza sail oñen buruzki, ez ta Buru ere: bañan elkafi laguntzen ez ba'diogu, neke alper asko egiteko gaude, ta, bear bada, lanerako gogoetatik aterako gera» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 203).

Euzko-Gogoa kultur aldizkari jaso zen, euskara hutsez, gutxiengo eskolatuari zuzendutakoa. T. Monzónen populismotik aldentuta zegoen, abertzaletasuna lerro ideologiko bakarra izanagatik. J. Zaiteguik berak finantzatu zuen eta EAJ-PNVrekiko autonomia izan zen, alderdiari leiala izan arren. Joaquín Zaitegui (1906-1979) EJ-GEren zubi gizona izan zen Guatemalako gobernu liberalekiko. Era berean, harreman ona izan zuen M. Rosell artzapezpiku antikomunistarekin. Bertako gizartean ongi kokatuta, unibertsitate nahiz institutu katedradun izateaz gain, Liceo Landibar ikastetxe pribatua sortu zuen. Horrela, baliabide ekonomikoak bideratu ahal izan zituen euskarazko aldizkariaren egitaspora, N. Ormaechea idazle gisa liberatzera edota A. Ibinagabeitia Ameriketara erakartzera (Diaz Egurbide 2013).

Hala ere, *Euzko-Gogoako* triunbiratu jesuitikoa kritikoa izan zen EJ-GEren kultur politikagintzarekiko. EIL-SIEBi edota P. Lafitteren *Herriari* lehentasuna ematea ez zuten begi onez ikusi, eta *Gure Herria* nagusiki frantsesez argitaratzea barkaezina iruditzen zitzaion. J. A. Aguirre lehendakariak berak T. Monzón sailburuari agindu omen zionez, Guatemalako aldizkariaren aleak erostera mugatu zen EJ-GEren laguntza. EGLZ-DCEren lehentasunak beste batzuk ziren: Deixonne Legeak Frantziako hezkuntzan zabaldutako aukerak baliatu eta herri antzerki-dantzak sustatzea.⁸⁵⁰

Euzko-Gogoa euskal idazleentzat sona handiko plataforma izan arren, egitasmo kixoteskoa izan zen abertzaletasunaren politikagintzan eragiteko orduan, J. Zaiteguik 1951ko uztailan idatzitako gutunean ageri denez: «Zenbat gera, ordea, asmo ortan? Iru edo lau zoro, besterik ez, ta gure erri osoari txertatu bear diogu zoro-aldi ori, oñarritzat euskera artuta» (apud Iztueta & Diez 2007: 148). N. Ormaechea, gainera, izaera zaileko

⁸⁵⁰ ABA-AIB: T. Monzónen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-02-20.

gizona zen, mistikoa eta zakarra aldi berean, bere ego erraldoiari ezin eutsita, arerio politikoeekin ez ezik, abertzaleekin istiluak izateko joera zuena.⁸⁵¹ ALV berria publikoki auzitan jartzeaz gain, S. Altuberen hizkuntz irizpideak behin eta berriz eraso zituen (Iztueta & Iztueta 2006: 203).

Euskaltzain berririk hautatu ez arren, 22 urgazleko zerrenda luzea onartu zen urriko Donostiako batzarrean: M. Arruza, B. M. Garro, A. M. Labayen, J. Zaitegui, B. Fagoaga, J. Thalamás, I. Larramendi, D. Dufau, P. Guilsou, S. Arotçarena, P. Narvaitz, D. Soubelet, L. Léon, P. Charriton, J. Jauréguiberry, G. Eppherre, J. Chabagno, J. Ithurriague, K. Bouda, L. Michelena eta J. Azcárate (ALV 1982: 14). Argitaratutako agirian agertu ez arren, kopia mekanografiatuan P. Larzabal ere agertzen da zerrendan.⁸⁵² Zuzendaritzak abenduaren 30ean bidali zizkien jakinarazpenak, batzarretara etorri edo gutxienez txostenak bidaltzeko eskatuta. Erantzunen artean P. Larzabalena agertzen da.⁸⁵³ Kopuru aldetik, Euskaltzaindiaren 1919ko sorreratik ez zen halakorik gertatzen. F. Krutwigen 1949ko iraileko txostenari jarraituta, erdiak Frantziakoak ziren, oreka demolinguistikoaren ikuspegitik gehiegikeria zena. Izendapen horietan, bereziki P. Lafitteren eskua ikusten da. Baionako elizbarrutiko gizonen ordezkari zabalak, eskuindarrak, demokristauak eta abertzaleak barne hartzen zituen. Buenos Airesko *BIAE*Vek gutxieneko informazioa bildu zuen urgazle berrien ibilbide literarioaz:

El señor Arotzarena es autor de una reciente Gramática vasca. Miguel de Arrutza es bizkaino. Publicó en Bilbao, año 1923, una Gramática euskérica, según el método Massé-Dixon, vertió «El Judas de la casa», de Antonio de Trueba, con el nombre de Etxe-kalte, y colaboraba en «La Gaceta del Norte» con artículos euskéricos. Seudónimo. Arrugain. José de Azkarate, persuasivo orador euskeldun, baztanés. El Padre Charriton, autor de un jugoso compendio de «Historia Eclesiástica Vasca». El Padre Chabagno es catedrático, residente en París, y colaborador del mensual «Elgar». Domingo Dufau, de Sempere, Laburdi, redactor euskérico y erdérico de revistas vascas, como «Eusko-Yakintza», «Gernika». Eppherre es un joven presbítero suletino. El Padre Blas Fagoaga, catedrático de idioma vasco en el Seminario de Iruña (Pamplona). Bernardo Garro, bizkaino, traductor euskérico del Bertoldo ya antes de 1935 con el seudónimo de Otxolua.

⁸⁵¹ 1943an idatzitako testu autobiografikoan, esaterako, hitz bihozgabe hauekin amaitu zuen J. Ariztimuñorekin izandako tirabiren azalpena: «Esas y otras pequeñeces humanas las pagó bien al fin de su vida» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 525).

⁸⁵² ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiriaren kopia, 1950-10-27.

⁸⁵³ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren jakinarazpena urgazleei, 1950-12-29, eta P. Larzabalen erantzuna, 1951-01-30.

Presbítero Gilsou, residente no lejos de Bayona. El Dr. Jaureguiberry, médico zuberoano, autor de «Le basque moyen», en 1929, y de «Considerations sur la race basque» en 1947. Iratedzer [sic], seudónimo del benedictino Padre Diharce, donibandarra, residente en el monasterio de Belloc, insigne poeta y dramaturgo euskérico. Ithurriague, profesor residente en París, cooperador en publicaciones vascas. Antonio de Labayen, comediógrafo euskérico desde antes de 1930, usó alguna vez el seudónimo Ayanbe, conferencista en lengua vasca, Ignacio de Larramendi, navarro, delicado poeta en el idioma de su apellido, El canónigo Narbaitz, de la catedral de Bayona, autor de un devocionario vasco para la Misa. El también canónigo Soubelet, antiguo director de «Eskualduna», y que desde 1942 al 46 ha sacado a luz tres buenos volúmenes sobre la Virgen de Lourdes, de Fátima y el Sagrado Corazón de Jesús. El Padre Juan Thalamás Labandibar, autor de diversos libros erdéricos, anteriores a 1938 y director de la revista trimestral «Gernika». El Pro. Jokin de Zaitegi y Plazaola, insigne poeta vasco, traductor de tragedias de Sófocles y obras de eminentes vates modernos, director de la gran revista paneuskérica bimestral, de Guatemala, «Euzko Gogoa» (IAEV 1951c).

Dena dela, Argentinako aldizkariak zenbait izendapen ez zituen aipatu, hala nola, Alemaniako K. Boudarena, agian arrazoi politikoengatik. Oso ongi idazten zuen euskaraz eta aspaldiko harremana zuen R. M. Azkue-J. Urquijorekin. BMGn Euskal Herrira mobilizatu zuten eta 1941eko udan hainbat ikerlerekin bildu zen: H. Gavel, G. Lacombe, R. Lafon, J. B. Daranatz, J. A. de Donostia edota J. M. Barandiaran. 1941n AEBen administraziopean geratuko zen Erlangen-era Berlingetik aldatu eta bertako unibertsitatean hizkuntzalaritza konparatiboko katedraduna izan zen.⁸⁵⁴ BMGren ondoren baldintza material eskasetan bizi zen eta J. Gáratek Argentinara erakarri nahi izan zuen alferrik, G. Bähr lokalizatzen saiatu ziren aldi berean.⁸⁵⁵ K. Boudak uste zuen euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura genetikoa frogatu zuela. Ildo horretako artikulua argitaratu zituen *Eusko-Jakintzan*. Ikusi dugunez, Frantziako komunistek protesta egin zuten K. Boudaren izena aldizkarian agertu zenean.

Erbestetik egindako kritiken eraginez, abertzale ugari izendatu ziren, ALVren osaera politiko baldintzatua nolabait orekatu nahian. M. Arruza-B. M. Garro, adibidez, F. Krutwigen Bilboko literatur taldearen ingurura bildutako idazle jeltzaleak ziren (Iztueta & Iztueta 2006: 456-457). F. Krutwigek bere eragina ALVn areagotzeko asmoa

⁸⁵⁴ KMK-JU: K. Boudaren gutunak J. Urquijori, 1941-08-18, 1941-11-18 & 1949-03-13.

⁸⁵⁵ KMK-JU: J. Gárateren gutunak J. Urquijori, 1947-09-11 & 1947-12-27.

nabarmena zen urgazle horien izendapenarekin. Hain zuzen, M. Arruzak izendapenari emandako erantzunean, lapurtera klasikoz idatzi zituen «igoñiren derauzkitzuet» bezalako aditz formak.⁸⁵⁶ Abertzaleak ziren, orobat, Gipuzkoako L. Michelena eta Nafarroako J. Azcárate.⁸⁵⁷ Bestalde, Gipuzkoako A. M. Labayen-J. Zaitegui jeltzaleak (seguru asko J. Thalamás eta besteren batekin batera) I. Fagoagak proposatutako hautagaiak ziren. *Gernikako zuzendariak*, hain zuzen, N. Ormaecheari azaldu zion izendapenen atzean zegoen asmoa abuztuko gutunean:

Con su ingreso en el Euskaltzaindi y con el nombramiento de la media docena de miembros correspondientes no solo equilibraremos la influencia nefasta que actualmente domina en aquella institución, sino que se logrará que la Academia vuelva a su recto camino, imprimiéndole el prestigio y la autoridad que nunca debió perder (apud Iztueta & Iztueta 2006: 34).

Euskaltzaindiaren jakinarazpenari emandako erantzun mamitsuena, hain zuzen, J. Zaiteguiena izan zen. Guatemalatik idatzitako gutunean, izendapena onartu eta R. M. Azkuek euskararen alde egindako lana goratzeaz gain, erbesteko euskal idazleak euskaltzain jeltzaleen ondorengoak zirela adierazi zuen: «Beraz, zuk, Eguzkitzak, Olabidek eta abar uratutako bideak barna ibilli gabiltz».⁸⁵⁸ Preso egondako edota erbestean hildako kideak aipatzean, euskaltzainburuak erraz uler zezakeen posizio politikoa adierazi zuen.⁸⁵⁹

Guatemalako aldizkariaren lehen zenbakian, S. Altubek erbesteratuei baino ez zien onartu zilegitasun morala, barnealdeko Euskaltzaindiari zeharka zuzendutako beste abisu bat: «Gure Aberria, Euskalerra maitea, etsaiaren erpe zorrotz peian, oiñazez intzirika agertzen zaigun garai goibel ontan, aren semeak, ludiaren lau bazterretan, Ama estualdi ortatik atera naiezko lanetan, gogor, zintzo ta pijo ari zaizkigu» (Altube 1950). Nolanahi den, J. Zaitegui *Euzko-Gogoa* aldizkariaren zenbakiak postaz bidali zituen

⁸⁵⁶ ABA-EUS: M. Arruzaren gutuna Euskaltzaindiari, 1951-01-20. Dena dela, urgazle gehienek ekarpena urria izango zen M. Arruzak, eskarmentu handiko euskara irakaslea, txosten bat bidali zuen Euskaltzaindira. Pertsona izenordain berriak sortu nahi zituen, gaztelaniazko parekideak izateko, baina batzar agiriei erreparatuta, ALVk ez zuen aintzat hartu: «Ene eritxi haur on hartzen baldin baduzue *xu* erdarazko *tu* eta *xuik* erdarazko *vosotros* izanzen lirake» (ABA-EUS: M. Arruzaren txosten izengabea, 1951-10-09).

⁸⁵⁷ José Azcárate (1878-1957) NBBeko kide eta Baztango zinegotzi izan zen EBEn (Chueca 1999: 402).

⁸⁵⁸ ABA-EUS: J. Zaiteguiaren gutuna R. M. Azkueri, 1951-04-03. Gutun hori argitaragabea da, cf. Zaitegi 2007.

⁸⁵⁹ Gipuzkoan bazegoen euskal idazleen nukleo bat (M. Lecuona, A. M. Labayen, N. Echániz, J. Echaide edota J. M. Mocoroa) Ameriketako *Euzko-Gogoarekin* koordinatuta lan egiten saiatzen zena, eta gertutik behatu zuena izendapen berrien prozesua (Iztueta & Iztueta 2006: 436, 439).

Euskaltzaindira eta artikuluren bat idaztea eskatu zien R. M. Azkue-N. Oleagari. Auzi politikoak alde batera utziko zituztela agindu zuen: «Euskera irauneraztea besterik ez dugu gogo; beraz, ez gera ari alderdikeritan».⁸⁶⁰

10.6 Bilboko eta Donostiako elizbarruti berriak

Urriko batzarrean, C. Morcillo Bilboko apezpiku izendatu berriari atsegin ona erakustea erabaki zuten. Izan ere, 1861etik zetorren egoera aldatuta, Pio XII.aren 1949ko azaroaren 2ko bularen bidez, Gasteizko elizbarrutia hirutan zatitu zen: Bilbo-Donostia-Gasteiz. Lehenago Gasteizkoa bezala, hiru elizbarrutiak Burgosko artzapezpiku barrutian kokatu ziren. Dena dela, 1950eko maiatzera arte G. Cognani nuntzioak ez zuen erabakiaren berri eman. Gainera, Vatikanoko Espainia arteko 1941eko hitzarmenaren ondorioz, apezpikuak izendatzeko prozesuan Gobernu frankistak hautagaiak aurkeztu zizkion Pio XII.ari (*Boletín Oficial del Obispado de Vitoria* 1950-05-24). Gasteizko elizbarrutia zatitzeko helburu politikoa agerikoa zen eta jeltzaleek protesta egin zuten apezpiku berriak maiatzaren 15ean izendatu zituztenean, ohiturari jarraituta euskaldunak ez zirelako:

- Gasteizen: Zaragozako José M^a Bueno Monreal.
- Bilbon: Madrilgo Casimiro Morcillo González.
- Donostian: Kataluniako Jaime Font Andreu (*Alderdi* 1950-07).

J. Font-C. Morcillok 1950eko irailaren hasieran egin zuten sarrera solemnea Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren. Elizbarrutiaz jabetzearen ekitaldia oso antzekoa izan arren, ezberdintasun nabarmena egon zen, apezpiku berrien herri hizkuntzen erabileran. Bilboko katedralean aita santuaren bula latinez eta gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere irakurri zen (*Boletín Oficial del Obispado de Vitoria* 1950-10-01). Gainera, C. Morcilloren izendapen agiria eta haren lehen gutun pastoralala euskaraz argitaratu ziren elizbarruti berriaren buletinean. Izendapen agiriaren euskaratzailea, N. Oleaga euskaltzaina izan zen eta horregatik eskerrak eman zion apezpikuak urriaren 3an. Izan ere, Bilboko apezpikuaren sarrera ekitaldian, palioari eutsi zioten kideen artean, N.

⁸⁶⁰ ABA-EUS: J. Zaitegiaren gutuna N. Oleagari, 1951-04-03. Gutun hori argitaragabea da, cf. Zaitegi 2007. Aitzitik, Euskaltzaindiaren zuzendaritzako kideek ez zuten Guatemalako kultur aldizkarian ezer argitaratuko. Barnealdeko jarrera epelari presio egiteko tresna izan zen *Euzko-Gogoa*.

Oleaga egon zen. Izendapen agiriaren euskarazko bertsioan, 1920ko ortografia arautua ez ezik, terminologia purista («gotzain», «deun», «laterri») ere erabili zuen ALVko idazkariak, inolako arazorik sortu gabe (Urrutia 2004b).

Euskaltzaindiak eta bereziki R. M. Azkuek ahalegin handiak egin zituzten euskararen eliz erabilera ofiziala sustatzeko. 1923-1935 arteko *Boletín Oficial del Obispado de Vitorian* ikus daitekeenez, apezpikuaren pastoralak eta bestelako zenbait agiri gipuzkera-bizkaieraz itzulita agertu ziren. Aipatu dugunez, euskarazko katedrak eta kristau ikasbideak ere sustatu ziren, baina gaztelaniazko erabileraren parekorik lortu gabe (Gallastegi 2008; Intxausti 2014c; Kintana 2015). Zacarías Martínez apezpikuak abiatutako erabilera elebidun horri eutsi zion M. Múgica apezpiku integristak karguari uko egin behar izan zion, frankismoarekin bat ez egiteagatik. Garaiko testuinguru politikoan lorpen ikaragarria izan zen euskara Bilboko elizbarrutiaren buletinean agertzea, beraz. C. Morcilloren agintaldian (1950-1954) eta ondoren ere, apezpikuaren agiri batzuk, bereziki zirkular informatiboak, euskarara itzulita agertu ziren *Boletín Oficial del Obispado de Bilbaon*. Froga dokumentalik ez izan arren, euskaltzainburuaren eta idazkariaren esku pragmatikoak nabari dira erabakiaren atzean.

Euskaltzaindiak, urriko batzar horretan, Donostiako apezpikuari, Bilbokoari bezala, euskararen eliz erabileraren alde egitea eskatu eta laguntasuna eskaintzea erabaki zuen. Urte amaierara arte itxaron zuten, baina J. Font apezpiku katalanak ez zuenez Bilboko apezpikuaren pareko jarrerarik erakutsi, bi idazki ezberdin bidali behar izan zituzten. Honela zioen C. Morcillori bidalitakoak:

[Q]ue la favorable acogida prestada así por V. S. I. al idioma vernáculo de parte muy considerable de [los fieles diocesanos] se mantenga y si cabe acreciente en lo sucesivo, para lo que, así como para cuanto pueda redundar en pro del más acertado desempeño de su alta misión espiritual, se ofrece esta Academia con suma reverencia.⁸⁶¹

J. Font Donostiako apezpikuari bidalitakoa, ordea, euskaltzainburuak beste era honetara moldatu behar izan zuen:

[Q]ue en el ejercicio de alta misión pastoral encuentre en V. S. I. favorable acogida y adecuado y creciente empleo el idioma vasco vernáculo de la casi totalidad de sus fieles diocesanos, para lo que, así como para cuanto pueda redundar en pro del más acertado

⁸⁶¹ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna C. Morcillori, 1950-12-30.

desempeño de aquélla, se ofrece esta Academia con suma reverencia.⁸⁶²

Espainia frankistan euskararen gutxieneko erabilera formala ziurtatzeko eremu bakarra zen Eliza katolikoarena. Ikusi dugunez, R. M. Azkuek 1938an bertan galdetu zion auziaz Gasteizko elizbarrutiko administratzaile apostolikoari. ALVk gerraondoan, halaber, laguntasuna eskaini zuen bizkaierazko hainbat kristau ikasbideren argitalpenean. Barnealdeko basamortu editorialean, euskal katixima xume horiek poz handiarekin hartu zituzten, baita erbestean ere. R. M. Azkue elizgizonak eta N. Oleaga tradizionalistak Eliza katolikoaren itzala bilatu zuten, euskararen aldeko ekintzak gutxieneko berme politikoarekin burutu ahal izateko diktadura frankistan.⁸⁶³

Bilboko apezpikuaren euskararekiko jarrera ohi baino positiboagoa zen, beraz. 1951ko urtarrilean, C. Morcillok eskatuta, R. M. Azkuek Euskaltzaindiaren 1920ko arau ortografikoak bidali zizkion, zalantzarik gabe buletin ofizialeko euskal itzulpenetan erabiltzeko.⁸⁶⁴ C. Morcillo-R. M. Azkueren arteko harremana ona izan zela dirudi, euskaltzainburua hiltzean «Un sacerdote ilustre» izeneko nekrologia eskaini baitzion elizbarrutiaren buletinak (*Boletín Oficial del Obispado de Bilbao* 1951-12). J. Fonti dagokionez, F. J. Lauzuricaren jokabideari eutsi zion, frankismoari estuki lotuta, baina Donostiako elizbarrutiaren autonomia gordez herri hizkuntzaren ahozko erabilera pastoralaz den bezainbatean. Horrela azaldu zion euskaltzainburuari bidalitako erantzunean:

Para satisfacción de esa Academia cúmpleme significarle que en esta Diócesis, los señores sacerdotes gozan de entera libertad para predicar la divina palabra bien sea en vascuence bien en castellano, según lo exija el bien espiritual de los feligreses, norma suprema de su actuación sacerdotal. En cuanto a mis documentos pastorales insertos en el Boletín Oficial del Obispado y escritos todos ellos en castellano, pueden los mismos sacerdotes, sin traba alguna, dar cuenta de ellos en lengua vasca acomodándose al hacerlo a las distintas variantes que ofrece el euskera en las varias comarcas de Guipuzcoa, lo

⁸⁶² ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Fonti, 1950-12-30. Euskaltzainburuak apezpikuen gogoa sustatzeko, Bizkai-Gipuzkoako euskararen egoera demografikoa puztu egin zuen. Inkestarik ezean, J. M. Azaolaren gerraondoko datuen arabera, 1950 urtean, euskal hiztunak ziren Gipuzkoako 374.040 herritarren %66,83 (250.000) eta Bizkaiko 569.188 herritarren %35,13 (200.000). EAJ-PNVren buletinak EGZ aurreko egoeraz adierazitakoa kontuan hartuz gero, 1930eko hamarkadan, euskal hiztunak ziren Gipuzkoako 302.320 herritarren %66,15 (200.000) eta Bizkaiko 485.205 herritarren %51,52 (250.000) (cf. *Alderdi* 1950-02; Azaola 1951: 123; Instituto Nacional de Estadística).

⁸⁶³ 1940ko martxoan Espainiako Gobernuak eliz hierarkiarekin adostu zuen gaztelaniaren nagusitasuna, baina baita hizkuntzekiko malgutasuna ere herri txikietan (Intxausti 2014b: 221-223).

⁸⁶⁴ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna C. Morcillori, 1951-01-12.

cual facilita indudablemente su más recta inteligencia.⁸⁶⁵

Bilbo-Donostiako apezpikuek ALVri emandako erantzun adeitsuen berri 1951ko lehen batzarrean emango zuten (ALV 1982: 17). *Boletín Oficial del Obispado de San Sebastián*ek, seguru asko M. Lecuonaren eskutik, 1954ko hasieran itzuliko zituen Pio XII.aren bi otoitz euskaraz, baina berehalakoan jarraipenik izan ez zutenak (*Boletín Oficial del Obispado de San Sebastián* 1954-01-01). Euskararen erabilera erlijioso eztabaidagai izan zen, halaber, JCVn 1950ko azaroko batzarrean, Bilboko elizbarrutia sortu bezain laster:

El vocal don Ignacio Urquijo propuso que se estudiara la edición de unos libros de rezos en vascuence que no existen actualmente en la provincia por haberse agotado las ediciones conocidas hasta ahora, pues de dicho libros, se apreciaba verdadera necesidad entre los naturales del país. Se acordó estudiar la posibilidad de una edición popular.⁸⁶⁶

JCVko abenduko batzarreko mahaiburua BPDko presidente berria izan zen: J. M. Ruiz Salas. Bizkaiko nekazarientzat otoitz liburuak argitaratzeko egitasmoaz, León M^a Martínez Bilboko bikarioarekin hitz egingo zuela adierazi zuen.⁸⁶⁷ JCVko kultura gizon frankistek, euskarazko otoitz liburuekiko zuten interesa elizbarruti berriak baldintzatua izateaz gain, ez zuten Euskaltzaindia inplikatzeko inolako asmorik agertu. 1951ko lehen batzarrean erabaki zuten egitasmoa geroratzea, «hasta conocer lo que en la actualidad existe sobre esta clase de ediciones y hasta conocer la opinión de las autoridades eclesiásticas».⁸⁶⁸ Agintari politikoek jarrera agerian geratu zen erbestetik itzultako C. Arzubiagak, Jaungoiko-Zale Bazkunako arduradun ohiak, *Umien laguna* otoitz liburu berrargitaratzeko laguntza eskatu zuenean. Haurrei zuzendutako otoitz liburu J. B. Egusquiza zenak itzuli zuen bizkaierara eta bi edizio izan zituen EBEn (1931, 1934). Seguru asko I. Urquijoren azaroko lehen proposamena C. Arzubiagarekin adostutakoa izan zen, ordurako inprimatuta baitzituen 5.000 ale. Hala ere, arrazoi politikoengatik, JCVren batzarrak ezezkoa ematea erabaki zuen, eskaria JCVren otoitz liburuekiko irizpideekin bat omen ez zetorrelako.⁸⁶⁹ Aitzitik, *Umien lagunaren* 3. edizioa C. Arzubiagak «Verdes Atxirika'ren irarkolan» argitaratuko zuen (Eguzkitza 1950).

⁸⁶⁵ ABA-EUS: J. Fonten gutuna R. M. Azkueri, 1951-01-14.

⁸⁶⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-11-23, Junta de Cultura C-62.

⁸⁶⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-12-29, Junta de Cultura C-62.

⁸⁶⁸ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-01-17, Junta de Cultura C-62.

⁸⁶⁹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-03-01, Junta de Cultura C-62.

10.7 Donostiako ordezkariak: Julio Urquijoren heriotza

Euskaltzaindiak azkartutako jardunaren erakusgarri, 1950. urtea zazpigarren batzar batekin itxi zuten. GPDaren jauregian, abenduaren 29an, zazpi kide batzartu ziren: J. Elissalde mahaiburu, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance eta N. Oleaga. Betiko otoitza egin ondoren, aurreko lau batzarren agiriak onartu zituzten. B. Echegarayk ezin etorria adierazi zuen gutunez eta esku artean zuen lanaren berri eman zuen: Espainiako harginen jargoian zeuden euskal jatorrizko hitzen azterketa (ALV 1982: 16). B. Echegarayk Madrilen jarraitzen zuen Tribunal Supremo-ko idazkari lanetan. Urruntasun geografikoak, familian izandako heriotzek, gaixotasunek eta iragan politikoa estali beharrak, zeharo deuseztatu zuten haren ekarpena ALVri. Postaz jaso zituen idazkariaren deialdiak eta interesarekin irakurri zituen F. Krutwigen txostenak, baina soilik 1951n egingo zen batzar bikoitzera agertuko zen.⁸⁷⁰

Bihotzeko gaixoaldi luzearen ondoren, J. Urquijo urriaren 28an hil zela jakinarazi eta alargunari doluminak ematea erabaki zuten. P. Zamarriparen Sondikako anai-arrebei, atzerapen handiz, eta Vicenta Olazábal doluminak egun berean bidali zizkieten.⁸⁷¹ Euskaltzaindiaren zutabe eta gerraondoko berpizkudearen eragile izandakoak desagertzen ari ziren. R. M. Azkue bera ez zen batzarrera agertu eta mahaiburua J. Elissalde izan zen. Euskaltzainburu zaharraren heriotza ere laster gertatu zitekeela begibistakoa zen eta, ondorioz, batzarrean I. M. Echaide integrista euskaltzainburuorde izendatu zuten. Hain zuzen, abenduko agiriaren kopia mekanografiatua lehen aldiz agertzen da R. M. Azkueren sinadura barik. Horren ordezkari, «Euskaltzainburu-ordea» agertzen da N. Oleagak eskuz idatzita, baina sinadura gabe. Agiriaren kopia hori, 1951ko hurrengo bost batzarren kopia mekanografiatuak bezala, euskaraz baino ez dago.⁸⁷² Badirudi J. Urquijoren heriotzarekin eta hizkuntza gaitasunarekin lotuta dagoela.⁸⁷³

79 urteko J. Urquijoren heriotzak, Donostiako Plaza del Centenario-ko etxean, agerian utzi zuen adin nagusiko kidez osaturiko ALVren egoera hauskorra. 86 urteko R.

⁸⁷⁰ ABA-EUS: B. Echegarayren gutunak N. Oleagari, 1950-06-17 & 1950-12-26.

⁸⁷¹ ABA-RMA: R. M. Azkueren dolumin gutunak Zamarripa anai-arrebei eta V. Olazábal, 1950-12-30.

⁸⁷² ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agirien kopiak, 1950-12-29, 1951-02-23, 1951-04-28, 1951-04-29, 1951-09-25 & 1951-10-30.

⁸⁷³ Osoko batzarrak gaztelaniaz egin ohi ziren, eta F. Krutwigen ekimena izan omen zen hori aldatzea: «Urkiño hil zenean proposatu nuen. Urkiñok ez zekien euskaraz mintzatzen eta bizi zelarik ez nuen proposatu» (Murua Uria 1997: 70).

M. Azkue burua galtzen hasia zen eta jokabide nahasgarriak zituen.⁸⁷⁴ Urriaren 27ko batzarraren ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten R. M. Azkue-J. Elissalde-N. Oleaga-F. Krutwigek. Ondoren, euskaltzainburua I. Lasquibar eta J. Urquijo bisitatzera joan bide zen. N. Oleaga-F. Krutwig elkarrekin joan ziren J. Urquijoren etxera, eta bere ilobak esan zien oso larri zegoela. Hirurok trenean Bilbora itzultzeko asmoa izan arren, R. M. Azkue aurreratu egin zitzairen. Biharamun eguerdian, J. Urquijoren familiaren telegrama jaso zuen euskaltzainburuak, heriotzaren berriarekin, baina R. M. Azkue ez zien gainerako euskaltzainei ezer esan. N. Oleagak prentsan irakurri behar izan zuen, urriaren 29an. Hiletarako berandu zebilenez, R. M. Azkue-I. M. Echaiderekin harremanetan jartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Besterik ezean, alargunari telegrama bat bidali zion zuzendaritzaren izenean.⁸⁷⁵ I. M. Echaide ere aztoratuta zegoen, Euskaltzaindiak duintasunez jokatu ez zuelakoan. Urriaren 29an alargunaren anaiari (Ramón Olazábal) doluminak eman zizkion, baina hurrengo eguerdian Buen Pastor-eko hiletara abiatu zenean, R. M. Azkue ikusi zuen tren geltokirako bidean. Hileta hastear egon arren, euskaltzainburuak geltokirantz jarraitu zuen Bilbora joateko. A. Irigarayren arrastorik ere ez zuen izan egunotan.⁸⁷⁶

J. Urquijoren osparen erakusgarri, haren heriotza tokiko prentsa frankistak azaleko orrian jaso zuen argazkiekin. Bilboko prentsak jasotakoaren arabera, hilotza Buen Pastor-era eraman zutenean, R. M. Azkue segizioko buruan zihoan, J. Urquijoren iloba batekin eta M. M. Zubiaga zuzendari espiritualarekin.⁸⁷⁷ Hiletan ordezkari politiko-kultural ugari egon ziren: GPDko presidente-diputatuak, Donostiako alkate-zinegotziak, BPDko presidenteordea, D. Areitio, Conde de Peñafiorida, M. CiriQuiain edota G. Manso de Zúñiga. Euskaltzaindia, ordea, bigarren mailako elkarte absentea izan zen prentsari dagokionez.⁸⁷⁸ Gainera, Vicenta Olazábal alargunak ez zion Euskaltzaindiaren telegramari erantzun 1951eko martxora arte, Portugalen zegoela, R. Olazábal anaiaren heriotzagatik.⁸⁷⁹

⁸⁷⁴ Euskaltzainburuari aguretasunak sortzen zizkion oroimenaren galeraz eta ezintasun fisikoez, zenbait pasadizo tamalgarri kontatu zituen F. Krutwigek enpatia gutxirekin (Krutwig 1991: 83, 109-111).

⁸⁷⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1950-11-04.

⁸⁷⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1950-11-02.

⁸⁷⁷ Miguel M^a Zubiaga (1903-1992) Gipuzkoako Seguran jaiotako jesuita, frankistek Donostian fusilatutakoei emandako zerbitzu erlijiosoagatik nabarmendu zen. Sermoi baten ondorioz, 1946an Kanarietara deserritu zuten. Frankismoaren aurkako jarrera erresistenteari eutsi zion gero ere (Aizpuru et al. 2007: 138-139).

⁸⁷⁸ *El Diario Vasco* 1950-10-29; 1950-10-31; *La Gaceta del Norte* 1950-10-29; 1950-10-31; *La Voz de España* 1950-10-29; 1950-10-31; *ABC* 1950-10-29.

⁸⁷⁹ ABA-EUS: V. Olázabalen gutuna R. M. Azkueri, [1951ko martxoa].

J. Urquijo zen Euskaltzaindiko kide ospetsuena. Hil zenean, besteak beste, RAEko kide eta RSVAPeko nahiz Comisión Provincial de Monumentos Históricos y Artísticos de Guipúzcoa-ko buru zen. Bere itzalak babesa eman zion Euskaltzaindiaren jardunari eta agintari frankistek sari eta ohore ugari eskaini zizkioten hil baino lehenago. Alargunak eskerrak eman zizkion RAEri doluminengatik eta hildakoaren alde 50 meza agindu zituztelako.⁸⁸⁰ RAEko liburuzainak idatzitako nekrologian J. Urquijoren neutraltasun zientifikoa goraiatu zuen, aldi berean abertzaleen autokonplazentziazko ezjakintasuna salatzeke. Ezinezkoa iruditu zitzaion hildakoak euskal filologiaren arloan utzitako hutsunea betetzea (García de Diego 1950). Erbesteko prentsak ere aitortza egin zion eta ez zuen kolaborazionismo salaketarik aireratu. Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarian, A. M. Labayen jeltzalea, ezizenpean, tradizionalismoaz hurrengo balorazioa egitera mugatu zen: «Alare esan bearrean gaude karlista izeneko geienak gutxi lagundu ziotela Urkijo'ri euskal jakintza, izate ta eskubideak zaintzen, orain besterik agertu nahi badute ere» (Labayen 1951a).⁸⁸¹ L. Michelena CSICen *Emeritan* idatzi zuen nekrologian J. Urquijoren leialtasuna nabarmendu zuen, baina eskaintza hunkituagoa egin zion *BRSVAP*en euskal fonetikaz 1950ean argitaratutako artikuluan:

A la memoria de D. Julio de Urquijo (q.e.p.d.), a quien tanto tenemos que agradecer los vascos y los investigadores, y yo más que ninguno. Ojalá podamos continuar su obra, en la medida de nuestras fuerzas, con el mismo espíritu de objetividad y de amor a la verdad (Michelena 2011a: 3).

1949ko iraileko txostenean F. Krutwigek proposatu bezala, ALVren erdigunea ekialderantz higitzen ari zen, baina arazo askorekin. 1950. urteko zazpi batzarretatik, bost Donostian izan ziren, bana Iruñean nahiz Baionan, eta bat ere ez Bilbon. J. Urquijoren heriotzak hutsune handia utzi arren hiriko euskaltzainen artean, Donostiako I. M. Echaide aukeratu zuten buruorde.⁸⁸² GPDko agintari frankisten itzalean, I. M. Echaide-A. Irigaray bikotearen inguruan, eta L. Michelena-A. M. Labayen urgazleekin batera, indargune berri bat osatzen hasiko zen Gipuzkoan. Hala ere, L. Dassancen sarrera ekitaldia Donostiako udaletxean ospatzeko gobernadore zibilaren debekua uztailean jaso ondoren, guztia zalantzan geratu zen. I. M. Echaidek, urriko batzarrerako deialdia jaso bezain laster, bi

⁸⁸⁰ RAE-JU: V. Olázabalen gutuna J. Casaresi, 1950-11-24.

⁸⁸¹ Bestalde, H. Gavelek *Gure Herriako* nekrologian, EGZe berrogei ahaide galdu zituela adierazi zuenean, J. Gáratek protesta egin zuen, kopuruaren gehiegikeriagatik (Gavel 1950b; Gárate 1951).

⁸⁸² A. Irigaray, halaber, BMG amaitu zenean Hondarribitik Donostiara aldatuta zen (Irigaray 1985: 22)

telegrama bidali zizkion Bilboko idazkariari. Lehenengoan, izututa, GPDko jauregian batzarrak egitea ezinezko zela adierazi zion. Hurrengoan, baimena Madrilen eskatzea nahitaezkoa zelako, berriz ere ezinezkotzat jo zuen batzarra Donostian egitea.⁸⁸³

Uztaileko debekuaren ondoren, I. M. Echaidek gutun luze bat idatzi zion F. Krutwigi adierazteko Donostiako batzarrak handik aurrera beste nonbait egin beharko zirela. I. M. Echaidek aditzera ematen zuen ez zegoela konforme F. Krutwigen jokabidearekin. Izan ere, GPDko jauregiko batzarrak I. M. Echaideren bulegoan egiten ziren, ez berariaz utzitako gelaren batean. 1942an F. Aramburu presidente karlistak emandako baimena ez zen berritu, eta ALVren Donostiako batzarrak bilera klandestinoztat jotzeko arriskua zegoen. Gobernadore zibilaren debekuaren ondoren, I. M. Echaidek bere burua arriskuan ikusi zuen bulegoaren erabilera ez-ofizialagatik. A. Elorriaga GPDko presidente berriari zuzenean baimena eskatzera ere ez zen ausartu, erantzuna ezezkoa izango zelakoan. Batzar toki bat lortzeko, hiru aukera bururatzen zitzaizkion: F. Arocenari San Telmo Museoa gela bat eskatu, I. Lasquibar Buen Pastoreko erretorearengana jo edo I. M. Echaideren Ategorrietako etxean batzarrak egin. Etsita, batzarrak Hendaian egin zitezkeela ere iradoki zion idazkariari.⁸⁸⁴ N. Oleaga izutu egin zen I. M. Echaideren mezuekin, baina F. Arocena artxibozainarengana jo bezain laster, horrek ziurtatu zion batzarrak GPDko jauregian egiteko arazorik egongo ez zela.⁸⁸⁵

Donostiako ALVren ordezkariak eta I. M. Echaide buruordeak har zezaketen erreleboa prestatzen ari ziren. Probintziako agintariekiko harremanean, I. M. Echaide integrista orbangabeak bidea erraz zezakeen: GPDko goi funtzionarioa eta zenbait enpresa kontseiluko kide zen. Abenduko batzarrean, Gipuzkoako CAPEk emandako 1.000 ptako diru laguntzaren berri eman zuten. Areago, A. Irigarayk adierazi zuen GPDari behar bezalako gela bat eskatu behar zitzaiola batzarrak egin eta ALVren ordezkariak izateko (ALV 1982: 16). Bizkaikoak baino abegitsuagoak izan zitezkeen Gipuzkoako erakunde ofizialetara hurbiltzeko saioa ere bazen. Hala iradokitzen du N. Oleaga idazkariak eskuz jaso zuen batzar agiriaren zirriborroak. Zirriborroaren arabera, A. Irigarayk ALVren argitalpenak eta *BRSVAP* aipatu zituen. ALVren agerkari ofiziala argitaratzeko baimenik ezean, RSVAPen bidez egitea proposatu zuela uler dezakegu. Horixe izan zen, hain zuzen, onartutako batzar agiri ofizialak jaso ez zuen idazkariaren

⁸⁸³ ABA-EUS: I. M. Echaideren telegramak N. Oleagari, [1950eko urria].

⁸⁸⁴ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1950-10-18.

⁸⁸⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1950-10-25.

ohar bakarra.⁸⁸⁶

P. Zamarriparen hutsunea N. Ormaechearekin betetzeko ahaleginak porrot egin ondoren, urteko azken batzarrean beste idazki bat aurkeztu zuten R. M. Azkue-F. Krutwig-J. M. Seminario-M. Lecuonak sinatuta, aulki hori J. Gorostiaga urgazleak bete zezan.⁸⁸⁷ N. Ormaechearekin erabilitako 1920ko araudiko epeen aitzakiarik aipatu gabe, zazpi kidez osatutako batzarrak izendapena onartu egin zuen (ALV 1982: 16). Bata baztertzeko eta bestea onartzeko irizpide nagusia zein izan zen? Ikusi dugunez, J. Gorostiaga elizgizon abertzale engaiatua izan zen.⁸⁸⁸ Lapurtera klasikoak F. Krutwigek prestatutako hautagaiaren aurkezpenak ez zuen, noski, EGZeko konturik aipatu. Erromako Biblia Institutu Pontifikalean egindako ikasketak, Euskaltzaindiko lexikografia edota SLPeko kidetza nabarmendu zituen. Baita ere Mexikoko unibertsitateetan ustez betetako historia, literatura nahiz hizkuntzalaritza katedrak.⁸⁸⁹ Espainian egonaldiak egin zituen eta uste izatekoa da, B. Echegarayren kasuan bezala, bere iragan abertzalea nolabait estalita baino ez zuela lortu Bizkaira itzuli eta euskaltzain izateko baimena. Ondoko urteetan, erbeste-barnealdea bitasunari eutsita, *Gernikan* edota *Helmántican* argitaratuko zituen artikuluak toponimia-etimologiaz (Arana Martija 1990: 17-18). N. Ormaechearekiko antzekotasunak nabarmenak ziren, biak izan baitziren EBeko urgazle aktiboenak nahiz Euskaltzaindiko langileak; baina J. Gorostiagak ez zuen bestearen izaera zaila eta polemikarako joera eutsiezina. N. Ormaechea, bestalde, literato gisa nabarmentzen zen, eta euskaltzain berria euskararen jatorriaren ikerketan murgilduta zegoen. Izendapenaren jakinarazpena Getxoko jaioterrira bidali zioten biharamunean.⁸⁹⁰

⁸⁸⁶ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiriaren zirriborroa, 1950-12-29. Kontuan har bedi 1950ean *BRSVAP*en artikulua edo iruzkinak argitaratu zituzten euskaltzain-urgazleen zerrenda luzea: M. Lecuona, R. Lafon, I. M. Echaide, A. Tovar, L. Michelena, J. A. de Donostia, K. Bouda eta P. Yrizar (cf. Elósegui Irazusta 1970). Gainera, «Monografías vascongadas» izeneko sail berria abiatu zuten: J. Caroren *Los vascos* (1949), A. Tovarren *La lengua vasca* (1950), B. Echegarayren *Derecho foral privado* (1950) edota J. A. de Donostiaren *Música y músicos en el País Vasco* (1951).

⁸⁸⁷ ABA-EUS: R. M. Azkue-M. Lecuona-J. M. Seminario-F. Krutwigen idazkia Euskaltzaindiari, 1950-09-12.

⁸⁸⁸ Euzkadiko EEES-SLLko buru gisa, erbestera jo behar izan zuen 1937an. Hala ere, euskaltzainburuarekin postazko harremana izan zuen eta horrek deduzko euskaltzain izendatuko zutela agindu zion 1941ean. J. Gorostiaga 1943tik Mexikon bizi zen eta erbesteko jeltzaleekin harremanetan jarraitu zuen. Gernika Bazkunaren *Eusko-Jakintzako* aholku batzordeko kide zen eta aldizkarian argitaratu zituen «*La semana vasca, el sistema y los nombres de los días*» (1947) edota «*Los nombres vasco-ibéricos de metales*» (1951) artikulua (cf. Elósegui Irazusta 1978).

⁸⁸⁹ Kontuan hartuta Mexikon jornalari indigenekin lanean ibili zela Queretaro estatuko nekazari eremu gaizki komunikatuetan, hiriburutik 200 km-ra, ez dirudi egia osoa zitekeenik (SAF-AA: J. Jáuregui-J. Gorostiaga arteko gutunak, 1944, PNV_NAC_EBB,K.00050,C.2).

⁸⁹⁰ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1950-12-30.

F. Krutwigek I. Fagoagari idatzi zionez, izendapenarekin, N. Ormaecheak J. Urquijoren hutsunea betetzeko bidea erraztu nahi zuten (Iztueta & Iztueta 2006: 446).

Euskaltzainen postuak abertzalez betetzeko eta ALVren irudia erbesteko kritiken aurrean zurrizko nahi horretan, F. Krutwigek proposatu zuen Txileko D. de Inzaren (OFMCA) aulkia J. Aguerre urgazleak hartzea.⁸⁹¹ Lehen ikusi dugunez, A. Irigarayk 1949an Iruñean ALVren ordezkari bat antolatzen E. Esparzari aipatu zizkion lagunaren artean egon arren, egitasmo hori hutsean geratu zen.⁸⁹² J. Aguerrekeriko harremana nolabait berreskuratuta, hurrengo urteko lehen batzarrera idazki bat bidali zuen Iruñeko euskarari buruz, baina gero berriz aldendu egingo zen (ALV 1982: 17).⁸⁹³

10.8 «Orixe»ri betoa eta erbesteko Euskal Akademiaren

mehatxua

1951ko otsailaren 23an GPDko jauregian batzartu ziren hurrengo zazpi euskaltzainak: R. M. Azkue, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga eta N. Oleaga. Ezin etorria jakinarazi zuen L. Dassancek eta hainbat urgazle berrik esker ona adierazi zuten gutunez izendapenagatik.⁸⁹⁴ Batzarrean, orobat, A. H. Kelso de Montigny antropologoak AEBtik bidalitako gutunaren berri eman zuten. Euskara-protoindoeuroperaren gramatika-hiztegi konparatzaileak gaztelania-ingelesaz argitaratzeko laguntza eskatu zion ALVri. Haren teoriaren arabera, «benetako» hizkuntza guztiak Europako arraza zuriek sortu zituzten eta Kristo aurreko 5000. urtetik aurrera hedatu ziren mundu guztira. Hori frogatzeko, besteak beste, euskal lexikoa erabiltzen

⁸⁹¹ Nafarroako José Aguerrearen (1889-1962) kasua berezia zen ALVren historian. 1919an hautatutako lehen 12 euskaltzainetako bat izan zen, R. M. Azkuek itxaropen handia jarri zuelako 30 urteko kazetari abertzalearengan. 1920an bertan, ordea, kargua uztera behartu zuten, enpresak Sevillako ordezkari izateko lan egitera aldatu zuelako. Hain zuzen, D. de Inzak hartuko zuen haren aulkia. Sevillatik 1931n itzuli ondoren, 1934an urgazle soil izendatu zuten. Besteak beste, *La Voz de Navarra* egunkariaren zuzendari eta NBBeko buru izan zen 1935-1936 artean. Aparatuko gizona zen, eta horregatik izendatu zuten EAJ-PNVren zuzendaritza karguetarako. Publikoki euskal poesiak eta kazeta artikulatuak idaztera mugatu arren, hainbat aldiz atxilotu zuten diktadura frankistan. J. Ajuriaguerreren konfiantzazko pertsona zen eta Nafarroako jeltzaleak antolatzen saiatu zen (Chueca 1989; Bidador 2000; Kintana Goiriarena 2008).

⁸⁹² ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10.

⁸⁹³ Barnealde-erbesteko EBBaren arteko korrespondentzian, J. Aguerre «Oyanbe» ezizenarekin agertzen da, eta M. Irujok, A. Campiónen oinordekotzat jota, 1953an galdetzen zion artean Euskaltzaindiko kide ote zen (SAF-AA: M. Irujoren gutuna J. Aguerreari, 1953-06-09, PNV_NAC_EBB,K.00377,C.1)

⁸⁹⁴ K. Bouda, B. Fagoaga, J. Azcárate, A. M. Labayen, D. Dufau, P. Larzabal, P. Guilsou eta M. Arruza (ALV 1982: 17)

zuen.⁸⁹⁵ Euskaltzaindia, nazioarteko biltzar zientifikoetatik baztertuta, horrelako eskaera bitxiak jasotzera mugatzen zen.⁸⁹⁶

Era berean, beste bi urgazle berri izendatu zituzten: L. Villasante eta M^a Paz Ciganda. Azken hori da Euskaltzaindiak historian akademiko (laguntzaile baino ez) hautatu zuen lehendabiziko emakumea, Nafarroan izan zezakeen gizarte eraginagatik A. Irigarayk iradokia.⁸⁹⁷ L. Villasante (OFM) teologian doktorea eta Arantzazuko santutegiko irakaslea, F. Krutwigek bere eraginpeko kideak izendatzeko ahaleginaren beste adibide bat zen. Lapurtera klasiko idatzitako hautagaitzaren aurkezpena, euskaltzain bati zegokion formalitatearekin, R. M. Azkue-F. Krutwig-J. Gorostiaga-M. Arruza-B. M. Garrok sinatu zuten.⁸⁹⁸ Euskaltzainburuak jakinarazpena martxoaren 6an bidali zion Oñatira.⁸⁹⁹ Aste Santua igarota, apirilaren 3an, erantzun zion L. Villasantek lapurtera klasiko: «Beraz, Jainko lagun, gure hizkuntza maitearen alde ahal dudan lan guzia egiten saiaturen naizela aithortu ta agindu beharrean aurkhitzen naiz».⁹⁰⁰ F. Krutwigek, «Eusko Philologia. Euskararen Gramatikako ofia» izeneko txostena irakurri ez ezik, Ameriketako N. Ormaechearen hautagaitzaren auzia ere eraman zuen batzarrerara, baina geroratzeko erabakiari eutsi zitzaion:

Krutwig jaunak gogoratzen dau Nikolas Ormaetxea (Orixe), euskaltzaintzat eskiñita dagoala, ta itauntzen dau beronezaz ezer erabagiko dan. Jaun ori kanpotik dagoala ta arazo au bego bein (ALV 1982: 17).

N. Ormaecheari jarritako betoak *Euzko-Gogoaren* erantzuna jaso zuen 1951ko lehen zenbakian, Euskaltzaindiaren aurka egindako eraso betearekin. Editorial moduko artikuluan, Guatemalako aldizkariak Euskaltzaindia alternatibo bat sortzea proposatu zien erbesteko euskal idazleei, *Euzko-Gogoa* agerkari ofizialtzat hartuta. Egoitza Bilbon zuen ALVren menpekotasun politiko frankista salatu zuten, eta horrekin lotu, adibidez, arau ortografikoen auzia. Barnealdeko ALVtik, soilik R. M. Azkue-M. Lecuona onartzen

⁸⁹⁵ *Word* aldizkari ospetsura artikulua bidali zuenean atzera bota zioten eta bere kasa argitaratu behar izan zuen, liburuxkan azaldu zuenez: *How did language originate?* (1949).

⁸⁹⁶ Havanako Unibertsitatean irakasle zen A. H. Kelso de Montigny-k P. Lafitteren bidez lortu zuen Bilboko egoitzaren helbidea, eta R. M. Azkueren *DVEF*en ale bat lortzeko interes handia zuen bere ikerketekin jarraitzeko (ABA-EUS: A. H. Kelso de Montignyren gutuna R. M. Azkueri, 1951-01-08).

⁸⁹⁷ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10.

⁸⁹⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen aurkezpena Euskaltzaindiari, 1951-02-10.

⁸⁹⁹ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna L. Villasanteri, 1951-03-06.

⁹⁰⁰ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna R. M. Azkueri, 1951-04-03.

zituzten: «Beste gaiñeroako oiek ba ba-doazke etorri diran bidetik» (Euzko-Gogoa 1951). Gerraondoan izendutakoen ukazio erabatekoan, hainbat abertzale proposatu zituzten euskaltzain izateko, gehienak erbestekoak: J. C. Ibarguchi, G. Manterola, A. Urrutia, I. López Mendizábal, D. de Inza, J. Aguerre eta J. Moulhier. 1950eko urrian izendatutako urgazle zerrenda luzeari ez ikusiarena egin, eta beste urgazle batzuk ere proposatu zituzten, ALVren omisioak agerian utzi nahian.⁹⁰¹ Norgehiagoka horren aurrean, ulergarria da euskaltzainak oso minduta agertu eta N. Ormaechearen izendapena ez onartzea. F. Krutwigek I. Fagoagari idatzi zionaren arabera, A. Irigaray otsaileko batzarrean isilik egon zen, eta I. M. Echaide izan zen eragozpena berritu zuena (Iztueta & Iztueta 2006: 447).

Editorialean, Pauen erbesteratuta zegoen S. Altube euskaltzaina ez zuten aipatu ere egin, N. Ormaecheak J. M. Mocoarari 1951ko martxoan idatzi zionez, S. Altube Euskaltzainditik «atera» egin zelako (Iztueta & Iztueta 2006: 225). Euskaltzainari, ordea, omisioak min handia eman eta eztabaidan parte hartzeari uko egin zion, J. Zaitegiari iraileko gutunean adieraziko zionez:

¿«Euzko-Gogoa»k ezterizkiola euskaltzainditarako duin naizenik? Horren kontra ez naiz kejtzen: ola uste badu, ongi egin du jakin araztea.

¿Ordea, ni euskaltzain zaarra nintzala «aztu» egin zaiola? Ori neretzat mingarriago litzake. Eta «Euzko-Gogoa»rentzat lotsagarriago, zeren-eta Euskaltzaindiaz itz egiteko eskubide aundirik ezpailuke, baldin, mundu guziak (txarrerako edo onerako) edo-noiz ago-miñetan darabilen euskal-zain apal onen izena, orren errez eta iñoizkorik gutxien bear zukean garaian ola aztutzen balizaio.

Guzi orixe bururatu zitzaidan «Euzko-Gogoa»ren zer ori irakurtzean. Baiña zure karta maitagarria ikusita, autu orrezaz zuk zerorrek eztukezula erru aundirik iruditzen zait: idazleren batek igorri dizu, noski, idazlan ura, eta zuk, arreta geiegiko gabe, argitaratu dezu.

Dana-dala, enuke nai, ez autu ortaz, ez eta Euskaltzaindi-aldatze orreri dagokion ezertzaz, nere izenik ezetarako ere «Euzko-Gogoa»n aitatzerik. Baldin idazleren batek bial dizaizun izenen artean, nere izen ori aurki badezazu ere borratu mesedez, onelako arazoetan gauzai iraiñago ta txarrago izan oi baita (apud Iztueta & Diaz 2007: 261-262)

Gernikako zuzendariaren bidez, F. Krutwigek N. Ormaecheari hautagaitzak

⁹⁰¹ M. Arruza, A. Ibinagabeitia, C. Jemein, A. Zatarain, J. Echaide, M. Gallastegui «Ereño», J. Diharce «Iratzeder», E. Argarate, T. Monzón, Txekoslovakiako N. Tauer eta Poloniako J. Z. Mish.

izandako oztopoen berri eman eta ez etsitzeko eskatu zion. N. Ormaecheak 1951ko apirilaren 7an erantzun zion uko egiten ziola euskaltzain izateari, baina bere ordeaz J. Zaitegui proposatu zuen. Era horretan ALV eta *Euzko-Gogoa* arteko istilua baretuko zuten: «Este nombramiento obligaría moralmente a nuestro Director a estar en buena armonía con ustedes, y ustedes evitarían a su vez el quedar posiblemente en un plano inferior al que les corresponde» (Iztueta & Iztueta 2006: 233). F. Krutwig egundoko ahaleginak egiten ari zen bere irudia zaindu eta erbestekoen aurrean etorkizun oparoko euskaltzain kementsu gisa agertzeko. I. Fagoagak honela deskribatu zion L. Villasanteri 1951ko otsailean: «En verdad, el amigo Krutwig es nuestro Ángel guardián. Cuánta abnegación, cuánta actividad y qué admirable espíritu proselitista!». ⁹⁰² F. Krutwigen bidez, esaterako, Euskaltzaindiak 1951n abiatu zituen Baionako *Gure Herria* eta Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkariaren harpidetzak. ⁹⁰³ I. Fagoagari 1950eko azaroan idatzitako gutunean, F. Krutwigek berak bere posizio politiko antitotalitario orbangabea deskribatu nahi izan zion, nazionalismoen gaineko ustezko talaiatik idatzia:

Sigo creyendo que su revista sigue teniendo gran público aquí. Los politiqueros, sean del bando que sean son jentucilla intratable, y los politiqueros falangistas son estúpidamente fanáticos, y en este punto de cortedad y ceguedad no se diferencian nada de los comunistas; son comunistas azules, tan intolerantes y obcecados los unos como los otros. El chauvinismo castellanizante que inspira a los cabe[c]jillas y jefecillos falangistas es de una ridiculez tan extrema como su hermana la caricatura comunista. Simplemente el hecho de llamarse su revista «Gernika», ciudad que como todo el mundo lo sabe fue destruida por la aviación nazi, les haría inadmisibile el que publicasen aquí... No se paran a pensar si su revista tiende a apaciguar los ánimos y es un órgano de humanismo y convivencia (apud Iztueta & Iztueta 2006: 446).

N. Ormaecheak 1951ko otsailaren 24an idazlan oso gogorra idatzi zuen, *Gernikan* argitaratzeko asmoarekin. Bertan F. Krutwig eta bere sokakoei «ustedes los hermanitos fascistas» deitzen zien (apud Iztueta & Iztueta 2006: 539). Artikulua ez argitaratzea I. Fagoaga zuzendariari zor zaio, artean F. Krutwigen zintzotasunean guztiz sinisten zuelako. Nafarroako tenoreak N. Ormaecheari apirilean idatzi zion artikulua zentsuratzeko arrazoiak azaldu eta euskaltzain gaztearen defentsa egiteko:

⁹⁰² ABA-EUS: I. Fagoagaren gutuna L. Villasanteri, 1951-02-13.

⁹⁰³ ABA-EUS: I. Fagoagaren, F. Krutwigen eta M. Bernaolaren ordainagiriak, [1951], 1951-02-03 & 1951-11-20.

¡Es tan joven, dinámico y confiado! Ya se le pasará este sarampión que no le deja resollar a medida que pase el tiempo y le caigan los estacazos. Y a propósito de juventud, ¿cómo pudo usted suponer que fuera falangista? Al estallido de la guerra civil no era más que un mozalbete y más tarde, que yo sepa, nunca se ha ocupado de política. Esa ha sido otra calumnia. Sabe usted que, nada más que en Bilbao, nos ha conseguido 100 suscriptores? ¿Y que va a la caza de los 200? Me refiero a nuestra revista (apud Iztueta & Iztueta 2006: 451).

I. Fagoaga bitartekari zela, Bilbo-El Salvador artean hainbat gutun gurutzatu zituzten 1951ko apiril-ekainean F. Krutwig-N. Ormaecheak, ALVren gerraondoko berrantolatzea xeheki azaldu eta euskaltzain izateko hautagaitza prestatzen saiatzeko. Baina N. Ormaechearen ezezkoa atzeraezinezkoa zen, eta F. Krutwigek onartu behar izan zuen hura kentzea. F. Krutwigek *Gernikan* 1951n argitaratu zituen artikuluak nazkagarriak iruditu zitzaizkion N. Ormaecheari. Alde batetik, erabiltzen zuen hizkuntz eredu arrotz eta artifizialagatik, baina batez ere hedatzen zuen ideologia antinazionalista eta liberalismo ateoagatik. Abertzaleak modu iraingarrian atzerakoi ezjakinekin parekatu zituenean, A. M. Labayen edota N. Ormaechea sutu egin ziren. Bestalde, P. Lafitte-A. Irigarayrekiko N. Ormaechearen ezinikusia, betoa jarri omen ziotelako, erabatekoa zen:

En cuanto a mi candidatura, no hace falta que me nombren de Número, pues mientras no me dé de baja como Correspondiente —y me tendré que dar si se funda otra [Academia], para ser neutral—, y si sigo colaborando cuando reviva el Boletín «Euskera» u otro similar, cumplo igualmente. Ni entraría yo nunca al salón de sesiones, porque sería un espantapájaros para esos pájaros. Además, como la Academia disidente aludida querrá fundarse alrededor de mi persona y siendo yo Presidente, puedo esgrimir como argumento fuerte para no serlo, el haber rechazado la entrada en esa. Yo fundaré mi Academia a la cual perteneceré yo solito (Iztueta & Iztueta 2006: 243).

Ez zuen inolaz ere horrelako kideak zituen korporazio bateko kide izan nahi. Lehenago J. Zaitegui bezala, J. M. Mocoroa apaiza ere iruditzen zitzaion ordezkoko egokia, baina horrek ere ez zuen ezer jakin nahi Euskaltzaindi berrituaz. N. Ormaecheak begirunea soilik erakusten zien R. M. Azkue-N. Oleagari, azken horrek hautagaitza babestu omen zuelako. Are S. Altube barregarri uzten zuen, nagusiki gaztelaniaz idazten zuelako. Gainera, erbesteko idazleekin akademia alternatibo bat sortzearekin mehatxu egiten zuten, *Euzko-Gogoaren* inguruan, Frantzia-Ameriketako euskal idazleekin. J. Zaitegui 1951ko maiatzean esaten zionez: «Gure Aldizkari au asko ari da irabazten, eta

berelaxe, besterik egin gabe, itzaliaziko dugu Akademi berripurdi ori» (apud Iztueta & Diaz 2007: 230). Destainaz eman zion amaiera F. Krutwigekiko harremanari 1951ko ekainean: «Si alguna vez advierte V. que el orbe terráqueo va a desquiciarse y cree que yo puedo evitarlo escribame corriendo y haré lo que pueda» (Iztueta & Iztueta 2006: 251). F. Krutwig harroak ez zion inoiz erdeinua barkatuko.⁹⁰⁴ A. M. Labayen urgazleak bakegile lanak egin behar izan zituen 1951ko abuztuan, *Euzko Gogoako* zuzendariak konfrontazio asmoak bazter zituan:

Ontaz iritzia galdetzen dida[z]un ezkerro, egi-egitan, zuen azken asmo ori gaizki derizkiotela esan bear dizut. Nere ustez garrantzi geiegi eman diozute Eusk, Z. dalako berritzeari. Zoritxarrez elkarte ori utsarren urrengo, ez du ez diru, ez kemen ez baimen ezer egiteko. Euskaltzein berriak ez dabiltz fede txarrez. Norbaitek Kr[utwig] J. esate baterako asmo okerren batzuek agertu ba'ditu on da erantzutea. Orixe'k egin dio —nik ere bai—; baiñan ortika[n] aurrera asarretzeak ez du balio. Bego bada Euskaltzaindi ta izan gaitean biotz zabal ez alperrik astintzeko. Emen euskaltasuna erdi ilik dagonean edo etsaiez eta zabarkeriz itota ez dago ondo gure artean eztabaida zitalez bazterrak nastutzea. Elkarri amore eman ta jarrai zagun lan egiñez bakoitzak al dugun giñoan. Iñoiz gauzak zuzentzen diranean, ezpairik gabe ez dizute iñork ukatuko garaipena. Au da biotz biotzez egiten dizudan aitormena. E. G. irukoa: alegia: Orixe, Andima ta Zu izango garaile nabarmenak (apud Iztueta & Diaz 2007: 255).

Paperezko gerrak ziren horiek, *Euzko-Gogoa*, Guatemalatik, ez zen mundu mailako euskal idazleen akademia alternatibo bat koordinatzeko gauza. N. Echániz apaizak ere, Euskaltzaindiari aurka ez egitea aholkatu zion J. Zaiteguiri 1951ko irailean, eta, akademia paralelo baten ordez, idazle elkarte bat sortzea zitekeela egokiena, euskararen erabilerak berak ematen zuelako nagusitasun morala hizkuntzaren gizarte auzian. Hain zuzen, barnealdeko euskalgintzari egindako presio politikoarekin jarraituta, *Euzko-Gogoak* 1951ko uztailean PEN Euskal Bilkura delakoa Parisen sortu izanaren berri eman zuen.⁹⁰⁵ Baina erbesteko beste egitasmo batzuekin gertatu bezala, zuzendaritza

⁹⁰⁴ «Y respecto a Ormaetxea autor de *Euskaldunak*, he dicho una vez que este individuo es un mamarracho y cuanto más se me cuenta sobre él tan sólo sirve para afianzar mi opinión. Vayan pues hay unas pruebas del vasquismo de Orixe: El Sr. Ormaetxea que vivió en Bidarray donde solamente se habla vascuence, hablaba con los aldeanos de esta población... no en euskara, ni siquiera en francés, que nunca llegó a saber, sino en castellano [...] Ahora bien lo que pasa, es que en ambientes vasquistas, se hizo tanta propaganda por el *Euskaldunak* que cuando salió a luz hubo que seguir con el mito, y ahora nadie se atreve a decir la verdad, que es un tomo de versolarismo» (EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21)

⁹⁰⁵ Taldeko kideen artean, besteak beste, hurrengoak nabarmentzen ziren: S. Altube, H. Gavel, I. López

nominala zen, propagandarako tresna. Elkartearen ardura osoa A. Ibinagabeitiak zeraman eta, PEN Euskal Bilkuraren bidez, euskal argitalpenen berri frantsesez ematera mugatu zen (Iztueta eta Díaz 2007: 253, 265-266, 279-280). Zenbaki berean, EGZeant frantziskotarrek *Aránzazu* aldizkarian militar matxinoen alde idatzitako gehiegikeriak salatu zituzten (Orixe 1951a: 44).⁹⁰⁶

Dena dela, F. Krutwigen asmoei oposizioa erbestetik ez ezik, barnealdetik ere egin zitzaion. A. M. Labayen urgazlea, ezizenpean, Donostiako *Egan* aldizkarian, gipuzkera osotuaren alde eta Bilboko euskaltzainaren aurka agertu zen: «Euskeraren batasuna aitzeki artuaz sasi-izkera mordollo, itsusi ta antzu bat kaska-ezurretik erdira digu. Eta ori ezin genezake inñolaz ontzat eman, ez aintzakotzat artu» (Labayen 1951b: 9-10). Hain zuzen, A. M. Labayen jeltzaleak, L. Michelenak literatur aldizkariko aurreko zenbakian agertutako «Euskal-literaturaren etorkizuna» artikulua goraiatu zuen, euskaltasuna kontzientzia modernoarekin sinkronizatzen zuelako, hizkera artifizial batera jo beharrik gabe:

Eta euskera biziko baldin ba'da —ta gure aurrekoena ez-baña geure izaera benetan azalduko baldin ba'dugu—, gure errietako biziera naasia euskeraz jarri bear nai-ta-ez: gaurko eziñegona, bizi-bearra ta ezin-bizia, aundinaia, diru-gosea, maitasun-gorrotoak, gaurko gizonen ametsak, zuur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —iltzeko sortua—, nondik datorren ta zertarako den ez dakienak daraman uskeriazko ibillera galdua ta bera baño goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera beartzen duen indar ezkutua (Michelena 1951: 20).⁹⁰⁷

Bi idazlanok berritasun handiak ziren RSVAPen *Eganen* ordura arteko historian, literatur hutsa alde batera utzi, eta euskararen gizarte egoera hizpide zutelako. Zeharka, EBETik literatur abertzaleak izandako loraldia ukatzea leporatzen zioten F. Krutwigi. «Lizardi-Orixe»ren oinordeko agertzen zen L. Michelena, baina aldi berean existentzialismo berritu baten iragarle gisa, ordura arte literaturan nagusi izandako moralismoa baztertuta. Gainera, erabiltzen zuen nafar-gipuzkera landua, etorkizunean

Mendizábal, P. Lafitte, N. Ormaechea edota J. Zaitegui. EAJ-PNVrekin zuen identifikazioa argiago geratuko zen Euskal Pen Club-aren 1951ko abenduko batzar agirian hurrengo kideak ere agertu zirenean: J. F. Landáburu, M. Irujo eta M. de la Sota (Ibinagabeitia 1951; 1952b).

⁹⁰⁶ J. M. Barandiaranek zuzentzen zuen *Eusko-Jakintzaren* jarrera, adibidez, ez zen hain liskartsua izan, eta pozik onartu zituzten Arantzazutik bidaltzen zitzaizkien argitalpenak (ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutunak L. Villasanteri, 1951-09-17 & 1951-10-01).

⁹⁰⁷ Kontuz ibili behar da, euskararen estandarizazioaren historia egitean, L. Michelenaren euskal idazlanak morfologiko-ortografikoki eguneratu egin direlako hurrengo edizioetan (cf. Michelena 2011e: 79).

gauzatuko zen estandarren oinarri dialektala izango zen.⁹⁰⁸ Hizkuntza ereduaz beste, bi ikuspegi soziolinguistikok egiten zuten talka argi eta garbi. F. Krutwigi, bere maximoen programa idealistan, gizarte euskaldunaren egoera erreala eta abertzaletasunaren ekarpen historikoa aintzat ez hartzea leporatzen zioten. Posibilismoari esker, besterik ezean, azken bi urteetan Gipuzkoan hainbat egile abertzalaren euskal liburuak argitaratzea lortzen ari ziren Itxaropenaren edota frantziskotarren bidez.

Ikerketa zientifikoari dagokionez ere, L. Michelena etorkizun oparoko hizkuntzalaritzat jotzen zuten. 1951ko abenduaren 17-18an, Madrilgo CSICen egoitzan izan zen Euskal Herriko hizkuntz atlasaren egitasmoa eztabaidatzeko. Bertan izan ziren R. Balbín, M. Agud, J. Gorostiaga, P. Yrizar, A. Tovar eta J. Vallejo. Rafael Balbín CSICeko idazkariorde eta Opus Dei-ko kideak euskal atlasa ALPIren barruan kokatu nahi zuen; 1930eko hamarkadan RAEko T. Navaroren zuzendaritzapean abiatutako egitasmoan, alegia.⁹⁰⁹ P. Yrizarrek hartu zuen galdeketa bera zehaztu eta herriak hautatzeko ardura. Hasieran, J. Gorostiaga euskaltzaina izendatu zuten Bizkaiko atalaren arduradun, baina berehala uko egin zion. L. Michelena Ikuskako kideekin atlasaren egitasmoa antolatzen saiatu zen, baina elkarlan horrek ere ez zuen aurrera egingo.⁹¹⁰ P. Yrizarren proposamenak *BRSVAP*en argitaratuko ziren 1955-1956an. R. Lafon-A. Irigaray-H. Gavelek hainbat ohar egin zizkioten, baina funtsean egitasmo ofizialak huts egin zuen, P. Yrizarren bizi osoko ikerlan bilakatuta. P. Yrizar hizkuntzalaritzan autodidakta zen, eta galdeketa aditz morfologiara mugatu zuen, XIX. mendeko L. L. Bonaparte protodialektologia hartzen zuelako eredutzat. Gainera, L. Michelenak prestatutako galdeketa fonetiko alboratuta geratu zen. Hala ere, 1952ko irailean landa lanak egin zituen, Aranzadi elkarteko kideekin, desagertzen ari zen Nafarroako erronkaria jasotzeko, eta emaitzak 1953ko *BRSVAP*en argitaratu zituzten (Etxebarria 1986a: 378-379; Yrizar 2001: 185-186; Heap 2008; Michelena 2011a: 461-484, 571-610).⁹¹¹

⁹⁰⁸ Hala ere, F. Krutwigek aldeztu zuen lapurtera arkaistak, ortografia estandarrean izango zuen eraginik (Michelena 2011c: 16-18).

⁹⁰⁹ Orduan ere egon zen euskal atlas ALPI n sartzeko asmoa, baina azkenean eremu erromaniko zabalaz baino ez ziren arduratu (KMK-JU: R. Menéndez Pidalen gutuna J. Urquijori, 1932-12-06).

⁹¹⁰ KMK-KM: J. M. Barandiaranen gutunak L. Michelenari, 1952-04-01 & 1954-03-06.

⁹¹¹ Antza denez, 1952ko udan A. M. Labayen urgazleak bi lagun entzun zituen euskaraz hizketan Uztarrotzen, eta berehala horren berri eman zion L. Michelenari (2011a: 572).

10.9 Juan Gorostiagaren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1951-04-

28/29)

ALVren jardunari gizartean agerikotasuna emateko saioekin jarraituta, J. Gorostiaga euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia ospatzea zen hurrengo urratsa. L. Dassancen sarrera Donostiako udaletxean egiteko azken unean jasotako debekuaren ondoren, kontu handiz ibili behar zuten. Apirilaren 14an N. Oleaga idazkariak baimena eskatu zion Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren Bizkaiko delegazioari, ekitaldia Bilboko udaletxean egiteko. Bernardo Bureba ministerioaren delegatu, diputatu eta *Hierro* egunkariko zuzendariak baiezkoa eman zuen.⁹¹² Data berean, Bizkaiko polizia buruari idatzi zion idazkariak, xehetasuna guztiak eman, ekitaldirako baimena eskatu eta gonbita luzatzeko.⁹¹³ J. Caruncho polizia buruak ere baiezkoa eman zuen.⁹¹⁴

Bilboko udaletxean, R. M. Azkue, B. Echegaray, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga euskaltzainak batzartu ziren apirilaren 28an. Kostata, baina zazpi kideko kopuru duina biltzea lortu zuten ekitaldi publikorako, Frantziakorik gerturatu ez arren. I. M. Echaide buruordeak idazkariari telegramaz eta gutunez jakinarazi zizkion Donostiatik garaiz iristeko zailtasunak, baina N. Oleagak ALVren irudia zaintzeko beharra gogorarazi zion:

Me hago perfecto cargo de dichos motivos y sería muy de lamentar su ausencia, al igual que la de otros académicos de esa y aún más lejanas zonas, por cuanto que si, como es de temer, se va a celebrar dicha sesión con la sola presencia de los Srs. Azcue, Krutwig y yo, que somos los únicos hoy estantes en Bilbao, habrá de resultar muy deslucida y desairada, en primer lugar para el recipiendario y en último término incluso también para la misma Academia, que ante el público y representaciones que asistan aparecerá moribunda y sin preocupaciones por sus propios fines.⁹¹⁵

Ahalegin handia eginda, Madrildik etorri zen B. Echegaray, EGLZ-DCEko zereginetan lankide izandako euskaltzain berriari sostengua emateko. Harremana berreskuratuta, besteak beste, *BRSVAP*era artikulua bidaltzen hasi zen.⁹¹⁶ Gainera, G.

⁹¹² ABA-EUS: B. Burebaren ofizioa N. Oleagari, 1951-04-16.

⁹¹³ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna J. Carunchori, 1951-04-14.

⁹¹⁴ ABA-EUS: J. Carunchoren ofizioa N. Oleagari, 1951-04-18.

⁹¹⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1951-04-24.

⁹¹⁶ KMK: B. Echegarayren gutuna L. Michelenari, 1951-12-30. Gutun horrekin euskarazko idazlan bat

Manterola, M. Arruza, B. M. Garro eta L. Villasante urgazleak bertaratu ziren, lehenengo hirurak EGLZ-DCEn aritutakoak ere. Ezin etorria adierazi zuten M. Lecuona euskaltzainak, Suitzako J. Jud eta Paueko J. Larrasquet ugazleek eta M. Gortari Iruñeko alkateak (ALV 1982: 18). Batzar agiriak ez adierazi arren, Frantziako kontsulak ere ezin etorria adierazi zuen.⁹¹⁷

J. Gorostiagak «Bizkaiko edestia toki-izenen bidez» izeneko sarrera hitzaldia irakurri zuen. Kasu honetan ere, sarrera hitzaldia ez zen ALVren agerkari ofizialean argitaratuko, baizik eta Guatemalako *Euzko-Gogoan* «Bizkai zaharreko izenak» izenburuarekin. J. Gorostiaga toponimiaren bidez Bizkaiko historia ikertzen ari zen. Euskarazko, zelterazko eta latinezko leku izenak sailkatu eta kronologikoki azaldu zituen.⁹¹⁸ Euskal Herriko toponimia ere beste gudu zelai politiko bat zen. J. Gorostiaga abertzaleen arteko salbuespena zen, indoeuropar eraginari ematen zion garrantziagatik. J. Carok ere latinaren eragina nabarmendu zuen 1940eko hamarkadako lanetan. Nafarroako ikerlariaren ikuspegi orekatua, aldiz, muturrera eramán zuten gaitasun gutxiagoko beste ikertzaile batzuek, hala nola, M^a Luisa Guazak, Bilboko Udalak argitaratutako *La toponimia Romana en Vizcaya* (1952) doktorego tesian. J. Gorostiagak hitzaldia bizkaieraz eman zuen, baina F. Krutwigen eraginpean, lapurtera klasikoaz prestatu zuten argitaratzeko bertsioa (Gorostiaga 1952a).⁹¹⁹ Guatemalako aldizkariaren 1952ko maiatzeko zenbakian agertu arren, J. Zaitegui lanez gainezka zegoelako, zenbaki hori ez zen 1953 arte argitaratu, gero ikusiko dugunez.⁹²⁰

N. Oleagaren erantzun hitzaldia interesgarriagoa da, erreklamazio tonu nabarmena izan zuelako. Bi hizlariak Bizkaiko gune erdaldunduetan jaioak izan arren, euskaldun jantziak izatera iritsi ziren. Euskaltzaindiaren historia eta euskaltzain berriaren ezaugarriak aipatu zituen idazkariak, kasu bietan EGZeko gai ezerosoenak saihestuta. J. Gorostiagaren ikerketa filologikorako gaitasuna gorabehera, ALVri dagokionez, EGZren ondorioz galdutako Yagoleen saila berreskuratzeaz jardun zuen idazkariak. Bilbon ez ezik, Bizkaiko herri guztietan euskarak zeraman atzerakada nabarmenak kezkatzen zuen.

ere bidali zuen, baina badirudi ez zela argitaratu.

⁹¹⁷ ABA-EUS: R. Chauleten gutuna N. Oleagari, 1951-04-27.

⁹¹⁸ J. Urquijo zenak «Urtzi, Dios» (1934) artikulua argitaratu zion *RIE*Ven, eta J. Gáratek zioenez honela deskribatu zuen haren hizkuntzalari gaitasuna: «tenía erudición romana, pero poca elaboración personal» (KMK-JU: J. Gárateren gutuna J. Urquijori, 1948-10-23).

⁹¹⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.

⁹²⁰ Gainera, Bizkaiko FET-JONSen *Zumárraga* urtekarian agertuko zen sarrera hitzaldiaren gaztelaniazko adaptaziotzat jo daitekeen «Toponimia de Vizcaya» (1954) artikulua.

Bide horretatik jarraituta, hizkuntzarik gabeko akademia bihurtzeko arriskuan zegoen Euskaltzaindia:

Ořegaitik, geroago, Euskaltzaindia sortuta bear zanez atondu zanean, bere Araudian egoki-egoki igafi eban asmo au, bere elburua «izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea», zala, lenengo arauan esanaz, eta bigafen arauan, ofetarako sail bitan bereizturik euskaltzainak euren arloan iñardu bear ebela ebatzirik: bata, iker-saila, euskera yakituri bidez aztertzeke, euskal itzen aotz, ikur, ogutz, tankera ta alkar yokera ikusiz, eliztiaren arauak arakatuz, euskal itz oro bildu, soildu eta ikur aldegotz moltzoturik; bestea, yagole saila, euskerea edozelako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzean ta euskal idazkuntza agerbide orotan bizkortzearen arduraz ekiteke.

Egia esatean, aitaturiko araudizko sail bi ofetatik lenengoak bere arloari azkar eta ederto ekin dautso. Ezin esan lei, benetan, beste ofenbeste bigafen sailari buruz.

Eta baleiteke (obeto esan lei badala) bigafen sailaren ardurea, gařantzi aundiagokoa, premia estuagokoa dala, lenengoarena baño.

Ederto dau, euskerea yakituri bidez aztertzea; euskerea non, noz, zelan sortu zan, bere yatorria beste berbakuntzaren baten eta baietzean zeinetan dagoan, zeintzuk direan eta zelakoak munduko beste berbakuntza guztiekaz ta bakoitzagaz euskereak daukazan antz edo bardintasun ala bardin getasunak, gizalditik gizaldira izan dabezan aldakuntzak, zeintzuk eta zergaitik izan direan, aldakuntza ofeik egokiak ala ganorabakoak ete direan, onetan, ofetan ala aretan oker dagoela ta onelan ofelan edo alan arteztu bear litekela ta abar ta abar, guzti ofeik yakitea, benetan onuratsu ta obarigařizkoa da. Baña artean, euskerea geldi-geldika, arin-arinka ezpada, ba-yoaku, ta bildur izan gaitekez geu konturatu orduko arean barik aurkituko ez ete-garean.

Deustuara zara, Gorostiaga euskaltzainkide maite ori, ta zeure yayoteři oferi begiratuaz soil-soilik, ikusi zengike egi-egia dala au. Deustun, zure auřetikoak euskeraz berba egiten eben. Zure aldikoak, zeulango banakoren bat izan ezik, iñok bere ez. Eta ori ez bakarık ibařean, goyefin bertan be beste ofenbeste dakusgu-ta.

Eta Deustun lez, Algorta zure oraingo bizitokian eta Gaminizen, eta Mungian, eta Mundakan, eta Gernikan, eta Zofontzan, eta Durangon, eta Billaron eta Udařiagan eta Orozkon.

Eta Bizkaian lez, Gipuzkoan, eta Araban, eta Napařoan eta Bidasoz ta Auñamendiz arantzako efi asko ta askotan...

Ařese-Beitia, Otxandioko bersolari azkafak, orain irurogeta amar urte dirala, euskerea galduaz yoiala ikusirik, Elizondoko euskalyaietan sortutako bertso edefetan, biotz-minduz, «Ama euskereari azken agufak!» itun-itun egiten baetzazan ¿zeintzuk izango

zirean bere negařak gaurko egun erostagafi oneetan?

¿Zertarako, ba izango yaku gure euskera yakituri guztia, Euskaleřia euskera barik, au da, bere izen bage, geratuten ba-yaku? Euskerearen aztarna, arau, ta zertzeladak ezagutzea, arakatzea, erkatzea ta zeaztutea bařo obea ¿ez ete litzakegu Euskaleři guztian ta guztiok euskeraz, euskera mordoloz bařo ezpada be, ekitea?

Dakiogun bada, elburu oneri, euskera-yakintzea itxi barik bada be, bařa dakiogun sutsu, bizkor, eta batez bere arin, leia andiko arazoa da-ta. ¿Zelan? Ezta eřeza itaun oneri erantzutea. Ganera, eztira une ta toki onexek berau aztertu ta azaltzeko egokienak. Beioa ba, arazo ori, Euskaltzaindiaren lepora, berak, euskaltzaleen laguntasunagaz, dagokon ondorea emango dautso-ta.⁹²¹

La Gaceta del Norte egunean bertan iragarri zuen sarrera ekitaldia eta biharamunean Bilboko prentsak ekitaldiaren berri laburra eman zuen, edukietan sakondu gabe.⁹²² B. Bureba zuzendari zuen Movimiento-aren *Hierro*ko berria izan zen luzeena, J. Gorostiagaren argazki eta guzti. J. M. Seminariok 1949ko ekainean Bilbon egindako sarrera ekitaldiarekin erkatuta, nabarmena zen tokiko agintari politiko eta militar nagusien absentsia.⁹²³ Baina JCVko zenbait kide bertan izan ziren eta esandakoek ondorio negatiboak izan zituzten. ALVren agerikotasuna istiluak sortzen ari zen, eta Euskaltzaindia babes ofizialik gabe geratzen ari zen. Hain zuzen, agintari frankisten ordezkari lana egin behar zuen J. M. Seminario ezinduta zegoen, ALVren bizitzatik aldentuta. Idazkariak I. M. Echaideri adierazi zionez, 1951ko apirilean *CE-PV*ren zuzendariordea Donostiako klinika psikiatriko batean zegoen, haren osasunak okerrera egin zuenaren froga nabarmena.⁹²⁴ Bestalde, JCVren maiatzeko batzarrean J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, F. Ygartua eta E. Calle bildu zirenean, gogor kritikatu zuten Euskaltzaindiaren funtzionamendua. ALVren azken ekitaldiak eta bereziki N. Oleagaren hitzaldiak izan zuen erreibindikazio kutsua gaitzetsi zuten:

El Sr. Ygartua hace algunas observaciones sobre la forma en que funciona la Academia Vasca y pide que ya que la Junta subvenciona a dicha Entidad, se le conceda a ésta una mayor intervención en el funcionamiento de la Academia para evitar que se la lleve por

⁹²¹ ABA-EUS: N. Oleagaren erantzun hitzaldi izengabea, 1951-04-28.

⁹²² *La Gaceta del Norte* 1951-04-28; 1951-04-29; *CE-PV* 1951-04-29; *Hierro* 1951-04-29.

⁹²³ F. Krutwigek N. Ormaecheari idatzi zionez, 150 pertsona inguruk bete zuten udaletxeko ekitaldia, baina prentsako berriak irakurrita ez dirudi horrenbeste jende bildu zenik (Iztueta & Iztueta 2006: 473).

⁹²⁴ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1951-04-24.

derroteros que no pueden estimarse convenientes.

El Sr. Merino dio cuenta de la forma en que se desarrolló la última reunión de la Academia en el Ayuntamiento de Bilbao para dar posesión a un nuevo académico y abunda en los mismos razonamientos del Sr. Ygartua.

Se acordó realizar las gestiones necesarias a tal fin.⁹²⁵

Euskaltzaindiak, diktaturako ordezkarien presioa ez ezik, erbesteko prentsa abertzalearena jasotzen zuen. ALVri ez zioten barkatzen mendekotasun politikoa, J. M. Seminario kazetariaren izendapen arbitrarioak ongien irudikatzen zuena. EAJ-PNVren buletinean Bizkaiko berriemaileak hizkuntza politika frankistaren zurikeria salatu zuen:

La persecución oficial tolera el f[u]ncionamiento de la Academia de la Lengua Vasca, la publicación de libros y tratados en euzkera o para aprenderlo, etc. Sabe bien que eso casi para nada sirve, mientras puedan ellos atacar en su raíz y en todos los sectores de la vida social. La prensa, por ejemplo. «El Correo español» publica una amplia y frecuente sección de corresponsalía de pueblos. De los pueblos más «euzkeldunes» de Bizcaya, aparecen continuamente crónicas escritas siempre en español. Aunque el subdirector de ese periódico es académico de la Lengua Vasca, es evidente que tal campaña —alevosamente premeditada— contribuye eficazmente a la deseuzkeldunización de la «Euzkalerría» bizkaina (*Alderdi* 1951-04)

Nolanahi den, sarrera ekitaldiaren biharamunean, Euskaltzaindiak batzar arrunta egin zuen, gerra aurreko bilkura bikoitzen ohitura berreskuratuta. Ribera kaleko egoitzan bildu ziren R. M. Azkue, B. Echeagaray, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig eta N. Oleaga. Ordukoan ere M. Arruza-B. M. Garro-L. Villasante urgazleak bertaratu ziren. Ezin etorria adierazi zuten Calahorrako M. Lecuonak eta Uztaritzeko L. Dassancek.⁹²⁶ Sarrera ekitaldia udaletxean egiteko emandako laguntzagatik, J. Zuazagoitia alkateari eskerrak ematea erabaki zuten.⁹²⁷ Halaber, J. Urquijoren alargunak Euskaltzaindiaren dolumin telegramari Portugaletik emandako erantzunaren berri eman zen.⁹²⁸ Dena dela, batzarreko erabaki garrantzitsuena, gerraondoan emandako lehen hizkuntz arauarena izan

⁹²⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62.

⁹²⁶ Aipatu dudandez, Frantziako euskaltzainak ALVren zereginetara erakartzeko saioa huts egiten ari zen. Bi estatuen arteko muga zeharkatzea Donostiara joateko nekeza bazen, are gehiago Bilboraino iristea.

⁹²⁷ ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Zuazagoitiari, 1951-05-10. Kontuan hartu behar da une horretan Bilboko Udala JCVren egituran integratzen ari zirela, araudi eta kide sorta berriarekin, eta beraz Euskaltzaindiarekiko nolabaiteko lotura estuagoa ere sortu zen (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62).

⁹²⁸ ABA-EUS: V. Olázabalen gutuna R. M. Azkueri, [1951ko martxoa].

zen:

Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz aztertuturik eta eztabaida luze ta bizien ekinik, auxe ebatzi da: 1) Euskaltzaindiak, idazkerea dala-ta, orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezala. Baina irarkoletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R, ta T gangardunen ordez DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitekezala. 2) atzerrietako gizata erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela (ALV 1982: 19).

F. Krutwig batez ere 1950eko hasieratik txosten akademikoen bidez bultzatzen ari zen erreforma normatiboaren lehen onarpen mugatua zen. Agiriak dioen legez, eztabaida bizi eta luzea sortu zuen auziak. Osoko batzarrak ez zuen onetsi 1920ko arau ortografikoak aldatzea, are gutxiago Bilboko apezpikuari zuela gutxi eskuratu zizkiotenean. Aitzitik, zenbait zeinu diakritiko berezik sortzen zituzten eragozpenak aintzat hartu ziren, eta horien alternatiba digrafikoak ofizialki arautu zituzten. Dena dela, erabaki hori errealitatearen onarpena zen. Euskarazko testuak argitaratzen zituzten Europa-Ameriketako aldizkari gehienek, EAJ-PNVrenak izan ezik, zeinu digrafikoak («dd», «ll», «rr», «tt») erabiltzen zituzten, tipografia arruntarekin lan egiten zutelako. Arrakasta gehiago izan zuen F. Krutwigek nazioarteko terminologia kultuaren grafia, literatur euskaran onartua izatearen erabakian. F. Krutwigekin batera, A. Irigaray agertu zen erabakiaren sustatzaile. Ikusi dugunez Espainia-Frantzia arteko hezkuntzarako lexikografia normatibo bateratua abiatu nahi zuen P. Lafitterekin, eta ortografia-terminologian bidea erraztu zuen horrela. Dena dela, Euskaltzaindiak Aro Modernoko literatur lapurtera ofizialki euskara estandartzat hautatzea, F. Krutwigek nahi zuen bezala, eztabaida akademikotik kanpoko gehiegikeria zen. Arazo praktiko berehalakoa, erabaki hauen berri agerkari ofizialaren bidez ezin ematearena zen. Hain zuzen, arau horrek, moldatuta eta zehaztuta, urteak beharko zituen *Euskeran* agertzeko (Zuazo Zelaieta 1988: 383-385).

10.10 Sarrera ekitaldi baten fiaskoa eta «Junta de Cultura de Vizcaya»ren kontrola

1951ko urteko batzarren arrastoei jarraitzeak zenbait arazo sortzen ditu. Ekainean

eta irailean batzar bana egin zen, baina ez dago agiri mekanografiatu ofizialik, baizik eta N. Oleaga idazkariaren eskuzko zirriborro soilak. Euskaltzainburuak eta idazkariak sinatutako agiririk ez dagoenez, batzar horiek ez dira ofizialak. Dena dela, ezinbestekoa da zirriborro horien edukia aztertzea Euskaltzaindiaren historia egiteko. Batzar horietan hartutako erabakiek (izendapenak, adibidez) ondorio ofizialak izan zituzten, eta nabari da idazkariak zirriborro horiek ALVren artxiboan gordetzeko nahia izan zuela, badaezpada ere.

N. Oleagaren zirriborroaren arabera, ekainaren 28an lau kide batzartu ziren Donostian: R. M. Azkue, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga.⁹²⁹ Estatutuek agindutako seikotera ez iristeaz gain, guztiak Bizkaikoak ziren, batzarra Gipuzkoako hiriburuan egin arren. Hain zuzen, A. Irigarayren ezin etorria jakinarazi zuten. Medikuak idazkariari idatzi zion egun horretan kontsulta izango zuela.⁹³⁰ I. M. Echaidez ez omen zuten ezer aipatu, baina arazo larri bat zuen esku artean. Maiatzaren 18an J. Echaide seme abertzalea espetxeratu egin zuten, hilabete eta erdiz, 5.000 ptako isuna ezarrita. Poliziak etxean atzeman zizkion Gipuzkoan banatzen zituen *Gernika* eta *Euzko-Gogoa* erbesteko aldizkarien aleak. Aita zuen integrista zorrotzarentzat kolpe gogorra izan behar zuen nahitaez (Iztueta & Diaz 2007: 249-250, 354-355).

Halaber, L. Dassancen idazki bat irakurri zuten J. Saint-Pierren sarrera ekitaldiaz. Eskualzaleen Biltzarreko buruak aurretik jakinarazi zuen ezingo zela Donostiako batzarrera joan eta J. Saint-Pierre zuela gutxi itzuli zela Paristik. F. Krutwigi gutunez jakinarazi zionez, bere asmoa apezpikuarekin Baionako sarrera ekitaldiaren antolaketa adostea zen.⁹³¹ Bi urte igarota, 1949ko irailean izendatutako bost euskaltzain berrien artean, J. Saint-Pierre zen sarrera hitzaldirik irakurri ez zuen bakarra. J. Gorostiaga, halaber, A. Tovar Salamancatik bultzatzen ari zen euskal hiztegi etimologiko baten egitasmoaz aritu zen. Bilboko Nuevo Ateneo-A. Irigarayz beste zerbait adierazi ondoren, F. Krutwigekek ekaineko batzarrean txosten bat irakurri zuen ijito edo motxaileez.⁹³²

Idazkariaren zirriborroaren arabera, hurrengo batzarra ere Donostian egin zuten, irailaren 28an, bost euskaltzainek: R. M. Azkue, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga

⁹²⁹ ABA-EUS: N. Oleagaren agiri zirriborroa, 1951-06-28.

⁹³⁰ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1951-06-21.

⁹³¹ ABA-EUS: L. Dassancen gutuna N. Oleagari, 1951-06-24.

⁹³² Hain zuzen, F. Krutwigekek 1952an, *Euzko-Gogoan* argitaratzeko asmoarekin, J. Zaiteguiri bidaliko zizkion idazlanen artean, «Euskalherriko motzaileak» izenekoa dago (ABA-ZAI: F. Krutwigen «Euskalherriko motzaileak», [1951-06-28]).

eta N. Oleaga.⁹³³ Irailean batzarra egon zenaren froga ukaezina da prentsak ere jaso zuela eta berriaren edukia guztiz bat datorrela agiri zirriborroarekin. Bilboko prentsari eta erbesteko aldizkariari esker dakigu, A. M. Labayen urgazlea batzarrean egon zela eta Frantziako euskaltzainek ezin etorria adierazi zutela: P. Lafitte, L. Dassance eta J. Elissalde.⁹³⁴ Batzarrean L. Villasanteren sarrera ekitaldiko erantzuna F. Krutwigek ematea ere erabaki zen. F. Krutwigez den bezainbatean, Bilboko Nuevo Ateneo-n euskaltzainburu zaharrari omenaldia egiteko asmoa agertu zuen, berak zuzentzen zuen IICJU sailean (*La Gaceta del Norte* 1951-09-29; Gernika 1951: 63; IAEV 1951c: 240).⁹³⁵ Idazkariaren zirriborroak I. M. Echaideren «aitzakia» eta L. Dassancen idazkia aipatzen ditu. Hain zuzen, euskaltzainburordeak idazkariari idatzi zion jakinarazteko familiako ezkontza izango zuela egun berean, baina lasai jo zezaketela GPDko jauregiko bulegora.⁹³⁶

L. Dassancen idazkiari dagokionez, larriagoa zen aditzera ematen zuen egoera. Egund bat lehenago, irailaren 27an, idatzi zuen adierazteko Frantziako euskaltzainak ezingo zirela Donostiako batzarrera joan. Okerrago zena, irailaren 27 horretan Baionako Musée Basque-n J. Saint-Pierren sarrera ekitaldia egitekoak ziren, baina bertan behera utzi behar izan zuten azken unean, ALVren zuzendaritzak horren berririk ez zuelako. Uztaritzeko alkateak birritan idatzi zion F. Krutwigi ekitaldiaren antolaketaz eta uste zuen guztia konponduta zegoela.⁹³⁷ ALVren egoera tamalgarria ematen zuen aditzera ekitaldiaren porrotak. P. Lafittek zuzentzen zuen aldizkariak astebete lehenago iragarri zuen J. Saint-Pierren sarrera ekitaldia (*Herria* 1951-09-20). Badirudi zenbait euskaltzain beldur zirela ALVren ekitaldi publikoa ez ote zen erbesteko abertzaleen aldarri antifrankista bilakatuko. L. Dassancek gutunean adierazi zuenez, I. M. Echaide-J. Saint-

⁹³³ ABA-EUS: N. Oleagaren agiri zirriborroa, 1951-09-28.

⁹³⁴ Bitxia da, baina A. M. Labayenek zioenez, 1936ko ekainean Lekeition egin zioten omenaldian ikusi zuen azken aldiz euskaltzainburua. Agian adinak eragindako memoriaren hutsegitea zen. Izan ere, R. M. Azkue 1951n hil zenean erbestean jarraitzen zuela ere adierazi zuen, ordurako sei urte Gipuzkoan eginagatik (cf. Labayen 1984).

⁹³⁵ Kontuak are gehiago nahasteko, batzarren kopia mekanografiatuak Euskaltzaindiak 1982an argitaratu zituenean, batzar agiri luze bat argitaratu zen gaztelaniaz 1951ko irailaren 25eko eta urriaren 30eko data bikoitz okerrarekin. Agirien testuak aztertuz gero, argi dago bi urte geroko, 1953ko irailaren 25eko eta urriaren 30eko, batzar agirien edukia dela, prentsa ohar gisa moldatuta. Horren erruz, adibidez, J. Gorostiaga bibliotekari 1951n (eta ez 1953n) izendatu zutela zabaldu da (cf. ALV 1982: 20-21, 30-32; Arana Martija 1992: 658).

⁹³⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1951-09-21. Bere mendeko J. A. Esnoz integristak egingo zien harrera (cf. Etxaide-Itharte: 1985: 357; 1986: 168-169)

⁹³⁷ F. Krutwigek, esaterako, L. Villasanteri uztailan adierazi zion sarrera ekitaldia Baionan egingo zutela irail bukaeran (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-07-15).

Pierre arteko harremanak huts egin zuen ekitaldia antolatzeko orduan.⁹³⁸ EJ-GEren berripaperak ere, ekitaldi geroratu EIL-SIEBen bilkuratzat jo zuen ia:

La recepción del Obispo de Gordus, Monseñor Saint-Pierre en la Academia Vasca (Eskualzaindia) que había de tener lugar en la sala de conferencias del Museo Vasco, se ha aplazado. Oportunamente se señalará la fecha de celebración de tan importante acto al que asistirán todos los miembros de la Sociedad Internacional de Estudios Vascos y otros muchos euzkeltzales (*OPE* 1951-10-01).

Azaroaren 3an A. M. Labayen Donostian elkartu zen euskaltzainburuordearekin apezpikuaren sarrera ekitaldia urtea amaitu baino lehenago antolatzen saiatzeko.⁹³⁹ A. M. Labayen Tolosako alkate jeltzalea izan zen EBEn, eta 1945eko ekainean baino ez zen itzuli Donibane Lohizunetik Donostiara.⁹⁴⁰ Bere bidez jasotzen ari ziren informazioa erbesteko egoeraz. Baionan 1950eko uztailean egindako batzarrean adostu omen zuten J. Saint-Pierren sarrera hitzaldiari erantzuna I. M. Echaidek emango ziola. Baina urte eta erdi igarota, apezpikuak ez zion sarrera hitzaldiko testurik bidali, horrek zegokion erantzuna presta zezan. Euskaltzainburuordeak L. Dassanceri eskatu behar izan zion sarrera ekitaldiaren arazoa bideratzea.⁹⁴¹ Azaroaren 9an Uztaritzeko alkatea apezpikuarekin bildu zen eta horrek esan zion oso makalduta zegoela, ez zuela sarrera hitzaldirik prestatu, eta nahiago zuela ekitaldia hurrengo urterako geroratu.⁹⁴² Ez da sinesgarria sarrera ekitaldia irailaren 27an egitear izan zirenean, hitzaldiaren testua idatzi gabe egotea. Frantziako apezpikuaren eta Espainiako integristaren arteko ezinikusitako ideologikoa nabarmena zen. Aipatu dugunez, EIL-SIEBeko buruari Donostiara igarotzeko bisa ukatua zioten 1950eko uztailean eta seguru asko beldur ziren agintari frankistek ez ote zituzten eragozpen gehiago sortuko. Gainera, apezpikuak bere burua ez zuen autozentsuratu nahi izango.⁹⁴³

⁹³⁸ ABA-EUS: L. Dassancen gutuna N. Oleagari, 1951-09-27.

⁹³⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1951-11-05.

⁹⁴⁰ SAF-AA: A. M. Labayenen gutuna F. J. Landábururi, 1945-06-07, LIAV-0005-01.

⁹⁴¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Dassanceri, 1951-11-04.

⁹⁴² ABA-EUS: L. Dassancen gutuna I. M. Echaideri, 1951-11-09.

⁹⁴³ Esaterako, P. Charriton apaizgai abertzalearen *Petit histoire religieuse du Pays Basque* (1946) liburuari ezarri zion hitzaurrea ez zuten onartuko agintari frankistek: «L'histoire, en effet, fait corps avec les événements politiques. Or ces derniers ont écartelé le pays basque depuis des siècles, et condamné notre histoire à perdre son centre de gravité. La géographie, l'esprit d'indépendance, l'appétit des gros voisins ont entravé le rassemblement politique des Basques. Mais la flamme patriotique a suppléé chez M. Charriton à la carence des soudures politiques : l'amour a retrouvé le lien sur le plan supérieur et indestructible de la Nation» (apud Charriton 2013: 22).

Donostiako iraileko batzarrean, C. C. Uhlenbeck (1866-1951) deduzkoaren heriotzaren berri eman zen. Herbehereetako hizkuntzalaria nazioarteko euskalarien dekanoa zen, aspaldi hilak baitziren H. Schuchardt edota J. Vinson. Suitzatik abuztuan bidalitako txartelaren bidez jakinarazi zion alargunak ALVri.⁹⁴⁴ J. Gorostiaga batzarrean Bizkaiko herri literatura zaharraz aritu zen, gero *Épica y lírica vizcaína antigua* (1952) bilakatuko zen azterketa. J. Gorostiagak, halaber, euskal gramatika historiko konparatzailea aipatu zuen. Nolanahi den, batzarreko erabaki garrantzitsuen L. Villasante euskaltzain izendatzea izan zen. Frantziskotarra izendatzeko prozesuak lastertasun marka guztiak hautsi zituen. Otsailean urgazle eta irailean euskaltzain izendatu zuten, baina ofizialki onartu gabeko batzar batean. N. Ormaechea euskaltzain izendatzeko saioak porrot erabatekoa egin ondoren, L. Villasante aurkeztu zuten J. Urquijoren hutsunea betetzeko. Hautagaitzarako uztaileko aurkezpena berriz ere F. Krutwigek idatzi zuen, J. Gorostiaga-N. Oleagarekin sinatuta. Frantziskotarraren goi mailako formazioa nabarmentzeaz gain, esku artean zituen lanak aipatu zituen, gauzatu gabeko beste egitasmo bat: «Euskaraz iratzirik hiztegi bat argitaratzeko du. Hiztegi huntan' artikulu eta azalben guztiak euskaraz izkiriaturik dagoz eta zein ere kultur hizkuntzatan egiten den araura' euskarari buruz euskaraz traktatzen da».⁹⁴⁵

Bestalde, Euskaltzaindiaren batzarrean JCVk bidalitako gutun baten berri eman zen eta horretaz N. Oleaga arduratzea erabaki zuten. BPDak JCVren araudi berria onartu ondoren, bere egituran Bilboko Udala formalki integratu zuen. J. Zuazagoitia alkatearekin adostutako batzordearen osaera berria 1951ko uztailean dekretatu zuten. Bilboko Udalak, halaber, beste 50.000 pta ekarri zizkion JCVren aurrekontuari.⁹⁴⁶ Zuzendaritza honela geratu zen: BPDko presidentea-Bilboko alkatea ziren buru-buruorde nominalak, baina F. Echegaray-I. Urquijo ziren buru-buruorde efektiboak.⁹⁴⁷ JCVren abuztuko batzarrean J. Zuazagoitia, F. Echegaray, I. Urquijo, F. Ygartua, J. Ybarra, R. Zumárraga, Conde de

⁹⁴⁴ ABA-EUS: W. M. Uhlenbeck-Melchior-en txartela Euskaltzaindiari, 1951-08-15.

⁹⁴⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen aurkezpena Euskaltzaindiari, 1951-07-28.

⁹⁴⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62. BPDko presidente-Bilboko alkateaz gain, hurrengo diputatu-zinegotzi-herritarrek osatu zuten batzordea: H. Bilbao, B. Bureba, A. Gómez, A. Agustino, X. Domínguez eta J. M. Castiella. Bestalde, BPDak hurrengo herritarrek hautatu zituen: J. M. Areilza, J. B. Merino, J. Ybarra, J. Irigoyen, J. M. Urrutia, F. Ygartua, I. Urquijo, J. L. Gaytán de Ayala, A. Churruca, Conde de Superunda, N. Zorrilla, D. Areitio, J. Aznar, A. Menchaca, S. Sotomayor eta F. Amador. Bilboko Udalak, halaber, hurrengoak hautatu zituen: F. Echegaray, L. Hurtado de Saracho, A. González, C. Lastera, G. Ybarra, A. Bilbao, R. Zumárraga eta R. Basterrechea (BFAH-EC: BPDko presidentearen dekretua, 1951-07-04, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12).

⁹⁴⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-08-09, Junta de Cultura C-62.

Superunda eta E. Calle bildu ziren. Komisio iraunkorrak J. B. Merinok Euskaltzaindiaz egindako proposamena onartu eta hurrengo erabakia hartu zuen: «interesar de la Academia de la Lengua Vasca que se halle en ella representada la Junta de Cultura por uno o dos de los vocales de su Comisión Permanente, ya que recibe de la Junta una subvención anual que se procurará aumentar para ejercicios futuros».⁹⁴⁸

Hain zuzen, irailaren 24ko gutunean JCVko idazkari E. Calle Iturrinok euskaltzainburuari jakinarazi zion azken batzarrean erabakitakoa. Helburua, korporazio arteko harreman iraunkor eta estuagoak izatea omen zen, eta Euskaltzaindiari erabakiren bat ahalik eta azkarren hartzera eskatu zion.⁹⁴⁹ ALVk bere autonomiaren aurkako erasotzat hartu eta N. Oleaga idazkaria hautatu zuen arazoa JCVrekin bideratzeko.⁹⁵⁰ Ikusi dugunez, ALVren kontrol politikoa ziurtatzeko ahaleginek huts egin zuten ordura arte. J. Irigoyen 1941ean izendatutako JCVren ordezkariak 1943an utzi egin zion ALVren batzarretara joateari, nahiz eta JCVko kide aktiboa izaten jarraitu. E. Esparzak 1949an euskaltzain izateari uko egin ondoren izendatutako J. M. Seminario ere, hiru batzarretara baino ez zen agertuko 1949-1952 artean. Gainera, erbesteko prentsa abertzaleak barregarri utzi zuen izendapen politiko hori. Bestalde, BPDko presidentetzan ere aldaketak egon berri ziren, J. Ybarra gobernadore zibilak bat-batean kargugabetu zuenean 1950eko azaroaren 24an, ustez BPDaren administrazio autonomiarekin tematzeagatik (*La Gaceta del Norte* 1950-11-28).

J. M. Ruiz Salas BPDko presidente berriak J. Ybarra historialariaren pareko kezka kulturalik ez zuen. J. Urquijoren iloba zena kargugabetu zutenean, Euskaltzaindia bera ere babesgabeago geratu zen JCVren eta G. Riestra gobernadore zibilaren aurrean. J. M. Ruiz Salas afiliatorik gabeko eskuindarra zen, udal ogasuneko burua eta legegizona. J. Ybarra bezala, EGZean borroka egindakoa, baina Bilboaldeko burgesia aberatseko kide ez zenez, hierarkia frankistarekiko mendekoagoa zen nahitaez. 1958 arte iraun zuen karguan, hain zuzen, arrazoi ekonomikoengatik legegizon lanetara itzultzeko. Presidente

⁹⁴⁸ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-08-09, Junta de Cultura C-62.

⁹⁴⁹ ABA-EUS: E. Calleren ofizioa R. M. Azkueri, 1951-09-24.

⁹⁵⁰ F. Krutwigen arabera, BPDtik baino areago gobernu zibiletik zetorren kontrol nahia, eta E. Calle Iturrinok berak, kazetari eta gaztelaniazko idazle emankorra, euskaltzain izatea nahi zuen: «Pretendía como condición previa para que la Diputación de Vizcaya diese una subvención, que se le nombrase académico a él mismo. Pero Calle Iturrino no sabía nada de euskara (como se puede decir no sabía nada de nada), por lo que resultaba imposible esta desfachatez. No era nada nuevo una tal actitud en este caradura ignorante en sumo grado, pero pretencioso. Este proceder, según tuve entendido, y creo recordarlo, era tanto para mostrar su máxima fidelidad (la del tal fante Calle Iturrino) ante su amo el Gobernador Civil, como al mismo tiempo para hacerse nombrar Académico del euskara» (Krutwig 1991: 131-132)

gisa, besteak beste, Bizkaiko foru zuzenbidea bildu eta Espainiako Kode Zibilera egokitzeko prozesuan parte hartu zuen (Urrutia Badiola 2013b: 83, 236; Alonso Olea 2014: 535). ALVrekiko kontrol politikoa estutzeko nahiaren froga gisa, 1951ko irailean, P. Rocamora Espainiako buru zuen «Sociedad Internacional Francisco Suárez» delakoaren zuzenbide biltzarra Bilbon antolatu zuen batzordeko kide agertu zen Euskaltzaindia, JCV-BPDarekin batera.⁹⁵¹

10.11 Umezurtz: Resurrección M^a Azkueren heriotza

Hain zuzen, ekain-iraileko batzar hauek zergatik ez ziren ofizialki onartu azaltzeko, R. M. Azkuek izan zuen istripu larrira eta berehalako heriotzara jo behar da. Euskaltzainburua urriaren 22an, gauero bezala, Ribera kaleko egoitza Campo de Volantín pasealekuko etxera abiatu zen oinez. Arriaga antzokiaren atzealdean behaztopa egin eta Nerbioi ibaira erori zen. F. Voz Peña izeneko gizonak ibaira salto egin eta 87 urteko euskaltzainburua atera zuen uretatik. Bitartean, sorosleari diru zorroa ostu zioten 400 ptarekin. *CE-PV*k azalean jaso zuen istripuaren berri. Hurrengo egunetan sendatuta zirudien eta lanean hasi zen berriro, baina Bilboalde industrialeko ibaiak oso kutsatuta egonagatik, medikuek ez zioten urdail garbiketarik egin, eta azaroaren 9an hil zen anteritisak jota (Arana Martija 1983a: 29, 35-36; Yrizar 2001: 77-78).⁹⁵²

Hil zen unean F. Krutwig euskaltzaina eta bi apaiz (J. Villa Cobian-E. Ocano) omen zeuden euskaltzainburuarekin.⁹⁵³ Tokiko prentsak azalean eman zuen euskal ikasketen patriarkaren heriotzaren berri. R. M. Azkueren hileta azaroaren 10ean izan zen San Nicolás de Bari elizan, parrokia horretara adskribatuta baitzegoen. Segizioak, J. Urquijorenaren mailakoa ez izanagatik, bi buru izan zituen. Alde batetik, elizgizonen kongregazioarena, León M^a Martínez Bilboko bikario jeneralarekin, C. Morcillo apezpikua Ameriketara zegoelako. Beste aldetik, zibila, N. Oleaga-F. Krutwig-J.

⁹⁵¹ ABA-EUS: J. M. Ruiz Salasen ofizioa R. M. Azkueri eta Asamblea de la Sociedad Internacional Francisco Suárez-en programa, 1951-08-21.

⁹⁵² Euskaltzainburuaren istripu eta heriotzaren ondorioz, ALVk ez zuen astirik izan azken bi batzarron agirien kopia mekanografiatuak prestatu eta R. M. Azkuek sinatzeko. Gainera, bi batzar horietan I. M. Echaide buruordea ez zen egon, eta horregatik ezin zituen berak ordezkotza gisa sinatu. Zirriborroen edukari erreparatuta, JCVrekiko tirabirak agiriok baztertzeko beste arrazoi bat eman zion ALVri.

⁹⁵³ Jorge Villa Cobian, gero ikusiko dugunez, R. M. Azkueren testamentuaren oinordekoa izan zen G. Maidaganekin batera. Bilboko Santos Juanes elizako organista, Mexikon jaioa, Sorian deserrituta egon zen (Euzko Apaiz Taldea 1981: 207).

Gorostiaga euskaltzainak eta J. Zuazagoitia alkatearekin. Bilboko prentsak ez aipatu arren, elizbarrutiak prestatutako nekrologia bereziaren arabera, H. Bilbao BPDko presidenteordea ere hiletan egon zen (*Boletín Oficial del Obispado de Bilbao* 1951-12). Lekeitioko basilikan, azaroaren 14an ospatu zen hileta.⁹⁵⁴

N. Oleaga eriondo zegoenez, F. Krutwig arduratu zen RAEri R. M. Azkueren erretratu bat eta akademiko domina bidaltzeaz.⁹⁵⁵ RAEko bibliotekariak idatzi zuen nekrologian, R. M. Azkueren izaera erakargarria eta euskararen biziarekiko zuen kezka azaldu zituen. Hala ere, J. Urquijorekin egin ez bezala, euskaltzainburuaren euskararekiko maitasuna gehiegizkotzat jo zuen, zentsura politikoa ere bazena. RAEko erantzun hitzaldian adierazitakoaren bidetik, R. M. Azkueren purismo lexikala gaitzetsi eta haren hiztegia mailegu tradizionalekin osatzea eskatu zuen (García de Diego 1951).

Egunkarietan agertu ziren nekrologia eta aldizkarietako omenaldien artean, L. Michelenak 1951ko *BRSVAP*en ohi baino hitz mingotsagoei bide eman zien. Agian RAEko V. García de Diegorena bezalako kritikei erantzun nahian, euskal kulturarekiko utzikeria ofiziala aditzera eman zuen, euskaltzainburu zaharraren irudi bakartia hizpide:

En una época y un ambiente apegados más bien a los bienes materiales, se dedicó a atesorar aquello que el orín y la polilla no consumen, pero que la desidia y el abandono humanos dejan disiparse irremediamente: el patrimonio espiritual de un pueblo (Michelena 2011c: 209).

J. Urquijorekin gertatu bezala, R. M. Azkuek EGZaren ondoko urteetan izandako jarrera baloratzea saihestu egin zuten erbesteko prentsa abertzalean. EAJ-PNVren buletinak heriotzaren berri eman zuenean, EJ-GEko J. M. Leizaolak «El abrazo de Sabino y de don Resurrección» izenburu esanguratsua jarri zion bere artikuluari, nolabait R. M. Azkueren aurkako eraso abertzaleak uxatzeko (*Alderdi* 1951-12). *Euzko-Gogoak* errespetuz baina labur eman zuen heriotzaren berri, N. Ormaechearen bihotzeko nekrologiarekin: «Atsedean beza pakean gure Azkue aundiak. Gure eroimenetik ez da beñere galduko aren izena euskera bizi daño. Ark atera du gaixoa bere zapilletatik eta soñe apañez iantzirik ikusi» (Orixe 1951b).

Gernika aldizkariak, ordea, omenezko sail oparoagoa eskaini zion hurrengo

⁹⁵⁴ *CE-PV* 1951-10-23; 1951-11-10; 1951-11-11; *La Gaceta del Norte* 1951-10-23; 1951-11-10; 1951-11-13; *ABC* 1951-10-24; *El Diario Vasco* 1951-11-10; *La Voz de España* 1951-11-11; *Diario de Navarra* 1951-11-13.

⁹⁵⁵ RAE-RMA: F. Krutwigen gutunak J. Casaresi, 1951-11-21 & 1952-01-19.

egileen bidez: J. A. de Donostia, J. Gárate, H. Gavel, J. Thalamás, I. Fagoaga eta S. Altube. Euskaltzainak, gerraondoko ALVk eragiten zion errezeloa bazter batean utzi eta hunkituta goratu zuen euskaltzainburu zena: «¡Jaungoikoak saritu beza, zeru altuetan, Euskalerriari ainbeste mezedo egin dion, eta guk mezedo ori bear bezela sekula eskertuko eztiogun Azkue jaun beneragarri ta maitea!» (Altube 1952: 21). Soilik EAE-ANVko kideak egin zion kritika politiko txikia, I. López Mendizábal jeltzaleari jarritako betoa gogorarazi zuenean: «Etzegoan ain ongi Azkue zana, zionean Bera eta López Mendizabal'ek egindago iztegi txiki polita, plagio edo lapurketa zala. Gutxik onestuko zuten iritzi mingor ori eta asko erabilli ditunak, dako [sic] ongi ori. Au esateko ordua zan eta pozik esaten det» (Gárate 1952: 5).

1951. urteko azken batzarra azaroaren 30ean egin zuten GPDko jauregian hurrengo euskaltzainak: I. M. Echaide mahaiburu, A. Irigaray, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga. J. A. de Donostia (OFMCap) urgazlea ere bertaratu zen. Erbestetik itzulita, CSICen Bartzelonako Instituto Español de Musicología-n lanean ari zen eta *Música y músicos en el País Vasco* (1951) argitaratu berri zuen RSVAPen bidez. Ezin etorria adierazi zuten Uztaritzeko L. Dassancek eta Oñatiko L. Villasantek (ALV 1982: 23).

Euskaltzainburuaren heriotzak sortutako nahigabearen erakusgarri, erakunde eta pertsona ugari bidalitako dolumin mezuen berri eman zuen batzarrak: J. Casares RAEko idazkaria, JCV, E. Bilbao Gorteetako presidentea, A. Elorriaga GPDko presidentea, Conde de Peñaflores, RSVAP, B. Echegaray-A. Irigaray euskaltzainak, P. Yrizar-A. M. Labayen-J. M. Barandiaran urgazleak, J. Azpiazu jeltzalea, C. Aguirresarobe baritonoa, N. Otaño (SI) edota Lekarozko Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo-ko zuzendaria.⁹⁵⁶

JCVren kasuan, ALVrekin zuen gatazka, nabarmena zen ordurako. Betiereko euskaltzainburu izandakoaren heriotza zela-eta, JCVren proposamenez, omenaldi bateratua antolatzea onartu zuen Euskaltzaindiaren batzarrak. Izan ere, JCVren azaroaren 22ko batzarrean. R. M. Azkueren heriotzagatik senideei eta Euskaltzaindiari doluminak emateaz gain, omenaldi bat ALVrekin antolatzea erabaki zuten. Dena dela, ekitaldia «filologo nazional» batek zuzentzea baldintza gisa ezarri zuten, Euskaltzaindiarekiko

⁹⁵⁶ ABA-EUS/RAE-RMA: J. Azpiazuren (1951-11-11) eta J. Casaresen (1951-11-16) gutunak N. Oleagari; A. Elorriaga, J. Yrizar [P. Yrizar anaiarekin nahastu zuten], B. Echegaray, A. Irigaray, A. M. Labayen, C. Aguirresarobe, N. Otaño eta J. A. de Donostiaren telegramak Euskaltzaindiari, [1951-11-10]. Batzar agiriaren kopia mekanografiatua, J. M. Barandiaran-JCV zerrendan eskuz erantsita daude (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzar agiriaren kopia mekanografiatua, 1951-11-30).

mesfidantza eta balio kentzea ageri zen erabakian⁹⁵⁷ ALVri bidalitako ofizioak horren berri eman zuen:

Al mismo tiempo se acordó también que expresasen este sentimiento, siendo portadores del acuerdo de la Junta, su Presidente efectivo Fernando de Echegaray y el Vocal, don Juan Bautista Merino, a quienes se encomendó la gestión cerca de la Academia de organizar conjuntamente ambas Entidades una velada necrológica en memoria del inolvidable don Resurrección María de Azkue, con la participación en ella de un filólogo nacional y según la organización que bajo sus auspicios se proyecte.⁹⁵⁸

Ikusi dugunez, J. Urquijoren euskal biblioteka erosteko BPDaren saioak huts egin ondoren, euskaltzain karlistaren omenezko ekitaldi nekrologikoa ezerezean geratu zen. Euskaltzainburu zenaren omenezko ekitaldia aurreko porrota nolabait arintzeko balio zezakeen. Dena dela, J. Urquijok EGZaren ondoren jasotako ohore eta omenaldi ofizial ugariekin erkatuta, R. M. Azkuek bizi artean diktadura frankistako erakundeetatik jasotakoak hutsalak izan ziren. R. M. Azkue elizgizona, hizkuntz akademia frustratu baten buru gisa agertzen zen. JCVk ez zion babes berezirik eskaini ALVri, ekonomikoki oso baldintzatuta zegoen, eta ez zuen agerkari ofizialik edota bestelako argitalpenik plazaratzeko biderik izan. 1949ko irailean F. Krutwigek sustatutako erreformaren ondoren, bi korporazioen arteko harremanak okerrera egin zuen. Euskaltzaindiaren autonomia gordeta, zuzendaritzak reforma horri eta ondoko jardun agerikoari emandako babesak, Bizkaiko agintari frankistekiko harremana gaiztotu egin zuen.

B. Echegarayk (JCVko buru efektiboaren osabak) N. Oleaga idazkariari Madrildik idatzitako gutunean, egoera horren zantzuak ageri dira. Castro Urdialesen izandako erorikoagatik, ezin izan zuen R. M. Azkueren hiletara joan. Hegazkinez itzuli behar izan zuen Madrilera eta ohean zegoen ezinduta. Euskal Herriko korporazio ofizialek ordaindutako (baina Euskaltzaindiak antolatutako) omenaldi baten beharra ezinbestekotzat jo zuen:

No tengo en este momento la cabeza para pensar o mejor dicho para hacer algo que se pueda hacer en recuerdo del trabajador formidable e infatigable que fue Don Resurrección, quien durante largos años, y con tanta constancia y afán, trabajó por nuestro

⁹⁵⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-11-22, Junta de Cultura C-62. Hurrengo kideak bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. Zuazagoitia, F. Echegaray, J. B. Merino, C. Lasterra, J. M. Urrutia, I. Urquijo, R. Zumárraga, A. Bilbao eta E. Calle.

⁹⁵⁸ ABA-EUS: JCVren ofizioa Euskaltzaindiari, 1951-11-26.

milenario idioma, sin que en su vida hubiera recibido ningún homenaje, sobre todo al llegar a su ancianidad, que mereció por su gigantesca labor. Justo es pues que lo que antes no se hizo se haga ahora y que sea la Academia, la que tome la iniciativa, en la forma que acordéis, que sea la más adecuada y mejor; bien una aportación de trabajos de diversos autores dedicados a las especialidades que cultivó el finado, consagrados a su memoria, o bien la publicación de materiales que él haya dejado incompletos. Eso lo veréis vosotros.⁹⁵⁹

Hain zuzen, R. M. Azkueren idazlan filologiko-literario guztiak berrargitaratzeko asmoa adierazi zuten ALVren azaroko batzarrean. Berrargitalpen nagusia *DVEF* (1905-1906) izan behar zen.⁹⁶⁰ Bilboko prentsak, ALVren azaroko batzarraren berri emateaz gain, titulu nabarmendu zuen egitasmoa: «Serán reeditadas las obras de don Resurrección María de Azkue y su Diccionario Vasco-Español-Francés» (*La Gaceta del Norte* 1951-12-01).⁹⁶¹ Lehen ediziotik igarotako urte luzeetan, R. M. Azkue bere hiztegiari oharra gehitzen aritu zen, eta asmoa gehigarri hori ere argitaratzea zen. Bestalde, ALVren egitasmo nagusi eta jarraituena izandako *Diccionario español-vasco* handia, ezinezko bihurtuko zuen euskaltzainburuaren heriotzak.⁹⁶²

F. Krutwigek, halaber, jakinarazi zuen Bilboko Nuevo Ateneo-n ere euskaltzainburu zenaren omenezko ekitaldia prestatzen jarraitzen zutela. Nuevo Ateneo oso aktibo agertzen zen hitzaldiak antolatzeke orduan. Prentsan agertutako programaren arabera, hauek izango ziren euskaltzainburuaren omenezko hitzaldiak: F. Krutwigek «Azkue in memoriam» eta J. Gorostiagaren «Azkue lingüista» (abenduak 10), J. A. de Donostiaren «Fauna y flora en la canción popular vasca» (abenduak 12) eta J. Domingo Begoñako Carmelo elizako organistaren «Azkue y el folklore musical vasco» (abenduak 13) (*La Gaceta del Norte* 1951-12-09). Euskaltzain gazteak bere burua euskaltzainburuaren oinordeko edo premu gisa ikusten zuen ordurako, gero lotsa gabe onartuko zuenez:

Cuando Azkue ya veía que estaba cerca su fin, no por su caí[d]a, sino porque él siendo

⁹⁵⁹ ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1951-11-24.

⁹⁶⁰ ABA-EUS: N. Oleagaren agiri zirriborroa, 1951-11-30.

⁹⁶¹ Erbesteko kultur aldizkariak ere batzarraren edukiaren berri eman zuten (IAEV 1952a).

⁹⁶² Bestelako argitalpenei dagokionez, batzar agiriak horrelakorik ez aipatu arren, F. Krutwigek garai horretan adierazi zuen JCVk gerraondoko sarrera hitzaldiak liburuki batean argitaratzeko asmoa zuela (ABA-EUS: F. Krutwigek gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27).

como decía «muthil urthetsu» sabía que con sus 80 y pico años no podía vivir aún muchos más me llamó un día, y tomando la medalla que como Académico recibiera me entregó a mí la suya y me dijo «toma esta es mi medalla, ella tiene que ser para ti» y me entregó la que lleva el numero 2, que yo poseo. Como Vd. sabe en un principio la Academia de la lengua Vasca entregaba a sus miembros unas medallas, que a la muerte de los académicos pasaban de unos a otros.⁹⁶³

F. Krutwigen egozentrismo ia megalomaniakoa gorabehera, egia da bera zela euskaltzain kementsuena une horretan. ALVko batzarretan etenik gabe txostenak irakurri eta hautagaitzak aurkezteaz gain, Nuevo Ateneo-*Gernikaren* bidez, eragin sareak ehuntzen ziharduen. L. Michelenak, posizio ezberdinak markatuta, euskaltzain gazteak gerraondoko ALVn eta euskararen norabidean eragin zuen aldaketa aitortu zion:

Este nuevo sesgo lo toma a partir, sobre todo, de la incorporación de Federico Krutwig, propiciada o al menos autorizada, cosa que ahora se quiere olvidar, por don Resurrección M.^a de Azcue, don Nazario de Oleaga, etc., etc. Puedo hablar de esto con toda libertad, ya que ni yo tenía entonces nada que ver con la Academia ni formé parte de la cohorte de los seguidores de Krutwig, algunos de cuyos miembros prefieren ahora el silencio a las declaraciones. Pero, por lo mismo que entonces tuve una actitud más bien crítica para con él así como también, y posiblemente sin razón, para con Zaitegui y Euzko-Gogoa, no veo que en conciencia pueda callar sin decir lo que pienso: que, en el terreno mismo de la lengua, el impulso decisivo, que representó un giro radical, al menos en apariencia, procede de Krutwig, más que de ningún otro (Michelena 2011c: 517).

Nolanahi den, prentsan Nuevo Ateneo-ko hitzaldiak iragarri zirenean, BPDko presidenteak berak kargu hartu zion N. Oleaga idazkariari. F. Krutwig agintari frankisten jomugan zegoen ordurako:

Al ver en la prensa de ayer el anuncio de que el Instituto Julio de Urquijo ha organizado un ciclo de conferencias como homenaje póstumo a Dn. Resurrección M.^a de Azcue con actos que se inician hoy mismo y en los que intervienen los miembros de esa Academia Sres. Krutwig y Gorostiaga, hemos cambiado impresiones varios miembros de la Junta de Cultura de Vizcaya, creyéndonos obligados a participar a Vd. como Presidente en funciones de la de la lengua vasca, nuestra sorpresa y desagrado porque miembros de la Academia hayan organizado y colaborado en esos actos, cuando habíamos establecido previamente entre esa Academia y esta Junta que el homenaje a la figura de Dn.

⁹⁶³ EIA-MI: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21.

Resurrección se haría en acto organizado con la colaboración de ambas Entidades.⁹⁶⁴

JCVrekin batera antolatu beharreko omenaldiaz den bezainbatean, 1952ko urtarrilaren 4an egingo zen San Vicente de Mártir de Abando-ko parrokiak zuen zinema gelan.⁹⁶⁵ BPDak gonbidatu zuen Espainiako filologoa ezinbestean A. Tovar izan zen, euskalaritza frankista orbangabearen ordezkari ofiziala. Gainera, A. Tovar bere ibilbide akademikoaren une gorenean zegoen. J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministro berriak Salamancako Unibertsitateko errektore izendatu berria zuen 1951ko irailean.⁹⁶⁶ A. Tovarrek 1951ko abenduaren hasieran eman zion baiezkua BPDko presidenteari, eta Bilborako bidaia baliatu nahi zuen 1940eko hamarkadan porrot egindako elkarlan zientifikoari berriz ekiteko:

Celebraré mucho hacer este viaje también para poder hablar a personas muy interesadas en los estudios vascos, con el fin de aunar en lo posible los esfuerzos y evitar nos dividamos en grupos y capillas, cada uno con su publicación, en detrimento de la eficacia.⁹⁶⁷

Ekitaldiaren berri prentsan emateko, baina baita ezustekorik ez izateko ere, JCVk hitzaldiaren programa edo gidoia eskatu zion Salamancako Unibertsitateko errektoreari.⁹⁶⁸ JCVren abenduko batzarrean bildutakoek ekitaldiari baiezkua eman zioten.⁹⁶⁹ Informazio eta Turismo ministerio sortu berriaren Bizkaiko delegazioak abenduaren amaieran eman zuen ekitaldirako baimena eta berehala iragarri zuten prentsan (*La Gaceta del Norte* 1951-12-29; *CE-PV* 1952-01-01).⁹⁷⁰

Kanpotik ALVri behartu nahi zitzaizkion eskaeren artean, R. Lafuente Galindorena nabarmendu behar da. Espainiako Tribunal Supremo-ko idazkaria zen eta, beraz, B. Echegarayren lankidea. Euskaltzainburua hil ondoren, bi gutun idatzi zituen

⁹⁶⁴ ABA-EUS: J. M. Ruiz Salasen ofizioa N. Oleagari, 1951-12-10.

⁹⁶⁵ Bilboko Gran Vía-ko zinema areto dotoreagoa lortzen saiatu ziren lehenengo Bizkaiko CAParen bidez, baina saioak huts egin zuen (BFAH-EC: E. Calleren gutuna F. Greñori, 1951-12-07, Junta de Cultura C-7 -07-).

⁹⁶⁶ «Decreto de 28 de septiembre de 1951 por el que se nombra para el cargo de Rector Magnífico de la Universidad de Salamanca a don Antonio Tovar Llorente». In: *BOE*, 1951-10-12.

⁹⁶⁷ BFAH-EC: A. Tovarren gutuna J. M. Ruiz Salasi, 1951-12-04, Junta de Cultura C-7 -07-.

⁹⁶⁸ BFAH-EC: A. Tovarren gutuna E. Calleri, 1951-12-14, Junta de Cultura C-7 -07-.

⁹⁶⁹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-12-27, Junta de Cultura C-62. J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, I. Urquijo, Conde de Superunda, C. Lasterra, J. M. Urrutia, A. Bilbao, R. Zumárraga, L. Hurtado de Saracho eta E. Calle bildu ziren.

⁹⁷⁰ BFAH-EC: L. Segura Marcosen ofizioa E. Calleri, 1951-12-29, Junta de Cultura C-7 -07-.

Madrialdik buru berriak urgazle izenda zezan, R. M. Azkuek berak agindu omen zion bezala.⁹⁷¹ N. Oleaga idazkaria ospitalizatuta zegoenez, F. Krutwigek erantzun bear izan zion, euskaraz, hartzaileak ulertzen ez zuen hizkuntzan. Euskarazko mezu ulertezinaren helburua R. Lafuenteri umiltasun lezioa ematea zen, baina Tribunal Supremo-ko idazkari zela kontuan hartuta, F. Krutwigek garesti ordainduko zituen arduragabekeriaren adibidetzat jo daiteke:

Zure izentatzeari buruz neuk ofizialki ezer ere ezdiezatzuket erran, bainan zure kandidaturaren aurkeztekotz nahiz buruzagi berriak nahiz bertze batek zure merezimenduak jakin beharr lituke. Euskaltzaindian akademikoen izendatzeak' Biltzarr hunen bilkuretan egiten bai tira eta nehork ere, ez Euskaltzainburuak ez berzte nehork ex officio nahiz khide titularerik nahiz urgazlerik izenta ezpai litzake.⁹⁷²

Abenduan N. Oleagari idatzi zion A. Tovarrek, jakinarazteko parte hartuko zuela urtarrilaren 4ko omenaldian. A. Irigarayren bidez zekien agerkari ofiziala argitaratzeko asmoari eusten ziola Euskaltzaindiak.⁹⁷³ Salamancako Unibertsitateko errektoreak horretaz hitz egiteko baliatu nahi zuen Bilboko bisita. Gainera, Salamancan euskara katedra bat abiatzeko aukera ikusten zuen eta horretaz ere jardun nahi zuen euskaltzainekin.⁹⁷⁴ N. Oleagaren seme batek erantzun zion A. Tovarri. Aita aldi baterako ezinduta zegoen ebakuntza baten ondorioz, eta ezingo zuen urtarrileko omenaldian parte hartu, ezta A. Tovarrekin hitzordurik izan, baina aurrerago agerkariaren gaiari heltzeko nahia adierazi zion.⁹⁷⁵ JCVren dokumentazioan gordetzen den curriculum labur baten arabera, ordurako A. Tovar euskal hiztegi etimologiko bat lantzen ari zen M. Grande Bilboko Institutuko frantses katedradunarekin batera.⁹⁷⁶ Hain zuzen, E. Erquiagak Bilbotik 1952ko urteberrian L. Villasante euskaltzain berriari lapurtera klasikoz idatzitako gutunean ageri da babes ofizialaren beharra:

Noiz izango dugu zure Aulki-hartze egun handia? Gauzak okhertu egin dira eta egunak ioan doaz. Eta gure Elkhargo ospetsuaren gorabeherak ere, eztira makalak. Agintari-

⁹⁷¹ ABA-EUS: R. Lafuente Galindoren gutunak Euskaltzaindiari, 1951-12-06 & 1951-12-16.

⁹⁷² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna R. Lafuente Galindori, 1951-12-17.

⁹⁷³ Kontuan hartu behar da 1951n, I. M. Echaide-A. Irigarayk GPDarekin zuten harremanari esker, *BRSVAP* izan zela euskaltzain-urgazleen lan gehien argiratu zuen aldizkaria: R. Lafon, M. Lecuona, A. Irigaray, J. A. de Donostia, P. de Iraizoz, A. M. Labayen, I. López Mendizábal, L. Michelena, A. Tovar, J. Vallejo, P. Yrizar eta P. Zabala (cf. Elósegui Irazusta 1970).

⁹⁷⁴ ABA-EUS: A. Tovarren gutuna N. Oleagari, 1951-12-14.

⁹⁷⁵ ABA-EUS: J. Oleagaren gutuna A. Tovarri, 1951-12-24.

⁹⁷⁶ BFAH-EC: A. Tovarren curriculum laburra, [1952], Junta de Cultura C-7 -07-.

usaineko edo oficial-kutsudun zerbait sortarzatea lortu-badagigu, orduan, gurenda arnasaz eta deduz betheko gara[.] Eta onura zerbait ihardesteko bide baxharra izanen dugu, nire aburuz. Hau diotzut, Krutwig iaunak erran berri derautanaren ondorio bezala. Mario Grandesek [sic] gurekin antola nahi duela, eta Tovar iaunaren esku duela emen zerbaiten egiten hasteko. Bai eder lizakigula Salamancako Maisu eder horren itzalpea!⁹⁷⁷

10.12 *Eskuin posibilista: José Miguel Azaolaren*

«*Vasconia*»

F. Krutwig, Euskaltzaindiaren 1951ko azaroaren 30eko batzarraren ondoren, J. M. Azaola-M. Agudekin bildu zen Donostian. Bilboko Nuevo Ateneo-rekin nolabaiteko elkarlana abiatu nahi zuten, baina hizkuntzalaritzaren bidetik zihoan Donostiako taldea. Madrilgo CSICekin hizkuntz atlasaz hitz egin ondoren berriz biltzekoak ziren, baina F. Krutwigek ez zuen elkarlanerako aukera handirik ikusten: «lo que necesitamos en euskara no es tanto hablar *del* vascuence como escribir *en* vascuence».⁹⁷⁸

Aitzitik, José Miguel Azaolaren (1917-2007) presentziak frogatzen zuen Donostiako taldearen interesa ez zela soilik linguistikoa. Bilbon jaiotako idazlea, Europako federalismoarekin engaiatuta zegoen, Frantziako ez-konformisten edo pertsonalisten bidetik.⁹⁷⁹ Aldi berean, C. Santamariak 1947tik zuzentzen zuen Donostiako Conversaciones Católicas Internacionales demokristau joerakoak antolatzen zebilen. EAJ-PNVko kideek gertutik jarraitu zituzten ekitaldiak, baina oso kritikoak ziren horien anbiguotasun nahiz eraginkortasun politikoarekiko.⁹⁸⁰ Ildo horretako Europako hainbat aldizkaritan agertu zen J. M. Azaolaren izena edota ezizena: Bruselako *La Revue Nouvelle*, Parisko *La Vie Intellectuelle* edota Alemaniako *Dokumente*. 1950-1951 artean J. M. Azaola-F. Krutwigek hainbat gutun idatzi zizkioten elkarri. Adibidez, J. M. Azaolak testu bat alemanera itzultzea eskatu zion:

⁹⁷⁷ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1952-01-01.

⁹⁷⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-12-18.

⁹⁷⁹ Aldeak alde, P. Lafitterengan ez ezik F. Krutwigen ere eragina izan zuena (JLA-FK: ARON, Robert & MARC, Alexandre (1948): *Principes du fédéralisme*. Paris: Le Portulan).

⁹⁸⁰ SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1951-10-01, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11. J. M. Azaolak berak ere kritikatu zuen 1948an EI-SIEBek Biarritzen antolatutako biltzarrak izan zuen eragin politiko abertzalea, J. M. Barandiarani idatzitako gutunean (Larronde 2004b: 37).

Adjunto te remito el texto que te anuncié, para su traducción. Como verás en cuanto lo leas, se trata de una cosa atrevidísima (en relación con las circunstancias políticas actuales, no en otro sentido) que no puede salir de nuestra más estricta intimidad. Por eso, creo que el único traductor adecuado eres tú.⁹⁸¹

Seguru asko 1951n Koloniako *Dokumenten* agertutako «Das ist Eure Aufgabe» artikulua ari ziren. Aldizkari katoliko horrek Alemania-Frantzia arteko BMG ondoko adiskidetzeari sustatzen zuen. Artikuluan, J. M. Azaolak nazismoaren aurkako erresistentziaren memoria desnazionalizatzea eskatu zuen, nazionalismoek Europa batuaren ametsari eraso egiten ziotelakoan (Delori 2007). Barnealdeko europar mugimendu federalista ahulean bat egin zuten F. Krutwig-J. M. Azaolak 1950eko hamarkadaren hasieran. Hala ere, euskaltzaina harritu egin zen bestearen euskararekiko interesaren berri izan zuenean, L. Villasanteren bidez:

A Michel Azaola lo conozco hace algún tiempo, ignoraba que ahora se interesase por cosas de la lengua como tal. Estaba antes muy interesado por política y «europeísmo». Que yo sepa no es euskaldun. Conmigo siempre ha hablado en castellano. Su artículo de «arbor» ya lo leí.⁹⁸²

J. M. Azaolak CSICen *Arbor* aldizkarian agertutako «Carta de las regiones: Vasconia» (1951) artikulua ari zen. Opus Dei-ko R. Calvo Serer filosofia katedradunaren inguruan zebiltzan pentsalariak biltzen zituen kultur aldizkarian agertutakoaz, alegia. Orrialde gutxitan euskal kulturaren ikuspegi orokor eta kritikoa eman zuen. Sarrera historiko baten ondotik azaldu zituen Euskal Herriaren gizarte egitura, hizkuntza, lokalismoa, batez besteko kultur maila, urritasunak, euskal ikerketen egoera eta, oroz gain, unibertsitatearen behar gorria. EI-SEVEN galera, orobat, gaitzetsi zuen heraberik gabe. Gizarte jatorrian eta anbizio intelektualean zituzten antzekotasunak gorabehera, F. Krutwigen saiakeren ondoan, J. M. Azaolaren ikuspegia gardenagoa eta artikulatuagoa zen. Gainera, erregimen frankistaren zenbait sektore katolikotan nolabaiteko oihartzuna izan zezakeen, F. Krutwigenak ez bezala (Díaz Hernández 2008).

Euskararen egoeraren argazki errealista ematen ere saiatu zen *Arbor* aldizkariako artikuluan. Hizkuntzaren atzerakadaren berri eman zuen, hiriburuetako erabilerak erkatzen zituela. F. Francoren Espainian bizi ziren euskaldun-elebidunen eta erdalduen

⁹⁸¹ SSF-JMA: J. M. Azaolaren gutuna F. Krutwigi, 1951-03-25.

⁹⁸² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

hutsen kopuruak ematera ausartu zen: 500.000 eta 850.000, hurrenez hurren. Baita probintziaka ere: 200.000 euskaldun Bizkaian, 50.000 Nafarroan, gutxi batzuk Araban, eta 250.000 Gipuzkoan. Landa eremuetan zuen indarra gorabehera, hiri-herrietan euskara bizitzen ari zen belaunez belauneko galeraz ohartu zen. Horren erru nagusia gaztelaniazko eskola elebakarrarena zela salatu, eta hezkuntza arazoari behar bezala aurre egitea eskatu zuen. Bestela, euskara, Euskal Herriko altxorrik baliozkoena J. M. Azaolaren ustez, bospasei belaunalditan hil zitekeen (Azaola 1951).

J. M. Azaolak eskatuta, J. Arteche artikulua berri *La Voz de España*an ematen saiatu zenean, Donostiako egunkariaren ezezkoa jaso zuen 1951ko azaroan. Madrilen zituen kontaktuen erakusgarri, J. M. Azaolak berak Informazio eta Turismo ministroa deitu zuen telefonoz GPDko liburutegitik, baimena eskatzeko. J. Arteche 1948tik GPDko liburuzaina zen, baina EAJ-PNVren GBBeko kide ohi gisa, prentsako zentsurarekin arazoak izatera oso ohituta zegoen. Bazekien CSICen *Arbor* aldizkariaren zereginetako bat, propagandista katolikoen bidetik, frankismoaren kanpo irudia liberalismo kutsuarekin apaintzea zela. Kostata, hurrengo urteko hasieran agertu zen egunkariko artikulua (*La Voz de España* 1952-01-05; Urkia Etxabe 2006: 287-288). L. Villasanterentzat, adibidez, *Arboreko* artikulua eredugarria izan zen, seguru asko abertzaletasunarekin identifikatzen ez zen liberalismo eskuindar batetik egiten zelako euskararen alde.⁹⁸³ EJ-GEren Parisko buletinak, ordea, J. M. Azaolak frankismoaren politika zurriz zuela salatu zuen (*Euzko Deya* 1952-09-01).⁹⁸⁴

10.13 *Jean Saint-Pierre apezpikuaren heriotza*

J. Saint-Pierren sarrera ekitaldiak eragindako arazoa ezerezean geratu zen apezpikua abenduaren 18an hil zenean. Euskaltzain izendatua izan arren, soilik L. Dassance-R. Lafonen sarrera ekitaldietan parte hartu zuen Baionan 1950ko uztailean. Espainiako prentsa eta aldizkariak ez zuten ezer adierazi heriotzaz. Ameriketako aldizkariak begirune gehiago erakutsi zioten EIL-SIEBeko buruari. 1950eko irailetik aurrera Argentina-Uruguai-Txilen egon zen, euskaldun jatorriko etorkinak bisitatzen eta Baionako elizbarrutirako dirua biltzen. 1951ko irailaren 20ko Eskualzaleen Biltzarrean

⁹⁸³ ABA-EUS: L. Villasanteri gutuna J. M. Mocoari, 1952-05-25.

⁹⁸⁴ Izan ere, J. M. Azaola posizioa delikatua zen. 1948an RSVAPen *Egan* literatur aldizkari elebidunaren sorreran parte hartu ondoren, bera arduratu zen gaztelaniazko atalaz, 1951-1952an agintariak B. de Otero adiskidearen poema kritiko bat argitaratzea debekatu zioten arte (Azaola 1980: 103-105).

meza eman eta J. Hiriart-Urruty elizgizonaren nahiz J. Etchepare medikuaren idazle dohainak goraiatu zituen Hendaian (*Herria* 1951-09-27). Herri harpidetza bat abiatu zen Milafrangako jaioterrian mausoleo bat egiteko, eta P. Lafittek haren idazlanen hautaketa hasi zuen. Hura hil ondoren, orobat, C. Mathieu Akizeko apezpikua izendatu zuten EIL-SIEBeko buru (IAEV 1950b; 1952a; 1952b; *Herria* 1951-12-20; Lafitte 1952b: 318).

ALVko sarrera ekitaldirik ez egin arren, hizlari-idazle dohaina bazuen. Berpiztutako *Gure Herria* aldizkaria zuzentzeaz gain, *Le Courier de Bayonne* egunkarian ere idatzi zuen 1947-1950 artean. *Gure Herrian* frantsesez 1950-1951 artean argitaratu zituen artikuluak ikusita, zalantzarik ez dago idazle gaitasunari eutsi ziola: «Ignace ou Inigo?», «L'antique ceinture des basques», «Chronique des Etudes Basques», «Le duel de Bayonne et du Labourd au XIVe siècle», «Trois mois avec les basques d'Amérique», «Le basque dans les actes publiques», «Chirmi-charma pues» eta «Le destin du peuple basque». Hizkuntzalaritzako artikuluetan, K. Boudarekin eztabaida etimologikoan jarraitu zuen. Tunisiako egonaldian aztertukoari eutsiz, Akitaniako protoeuskararen eta Mesopotamiako hurrieraren arteko parekotasun genetikoa frogatutzat jotzen zuen (Saint-Pierre 1950b)⁹⁸⁵

Hain zuzen, hil eta berehala *Gure Herriak* J. Saint-Pierren «Le destin du Peuple Basque» artikulua argitaratu zuen, haren testamentu gisakoa zela adierazita. Baionako Musée Basque-n apezpikuak 1951ko bukaeran eman behar zuen hitzaldia omen zen, azkenean P. Narvaitzek irakurri zuena, bestearen eritasunagatik. Nire ustez Euskaltzaindiaren sarrera hitzaldirako prestatu behar zuen testutik oso gertu zegoen, edukiaz den bezainbatean. Nafarroako Erresuma nahiz foru erregimena politikoki goratu ondoren, hurrengo interpretazioa eman zuen EGZaz: «La dernière guerre civile au pays basque se place dans la ligne des guer[r]es carlistes : c'est-à-dire dans la ligne historique de la lutte contre le courant centralisateur» (Saint-Pierre 1951: 331-332). Hendaia Euskualzaleen Biltzarraren hitzaldiaren ildotik, euskararen atzerakadak kezkatu arren, literatur euskararen garapenak itxaropenez betetzen zuen, bereziki horrek izan zezakeen korrelatu moralagatik:

La langue elle-même, si elle accuse un lent recul géographique qui lui a fait perdre la

⁹⁸⁵ Hala ere, K. Bouda izan zen artikulu horiek aztertzeko lana hartu zuen bakarra. Adibidez, L. Michelena 1950ean IANFCko *Emerita* aldizkarian etimologistei egindako kritika kaustikoetan, begirunezko isiltasunarekin hartu zituen J. Saint-Pierren saioak, beste batzuenak ez bezala (Michelena 2011b: 645-658, 675-683).

plaine de Navarre au sud de Pampelune, si la frange maritime est attaquée par la marée touristique, elle prend sa revanche par la perfection littéraire qu'elle a atteinte, et qui lui permet d'aborder tous les genres, en une gamme allant du populaire au raffiné. A aucune époque, elle n'a été soumise par une pléiade d'écrivains à cette trituration qui en a fait un instrument tout à la fois souple et savoureux.

C'est donc par un témoignage d'optimisme que je veux terminer cette causerie. Tel qu'il se présente, le petit Pays basque apporte au monde un message précieux, une leçon de vouloir vivre à une heure de pessimisme où règne le désarroi, un spectacle de stabilité dans une époque vouée au tourbillon, et le frais jaillissement d'une vie originale en plein siècle d'absorption par les totalitarismes niveleurs. Il ne s'agit pas seulement ici d'esthétique provinciale à sauvegarder pour les touristes ou amateurs de musée ; certes, nous n'avons pas reçu de la nature cette admirable mosaïque dont les pierres forment un tableau harmonieux, pour la laisser se perdre dans la grisaille terne de l'uniformité nationale (Saint-Pierre 1951: 343-344).

Baionako katedralean 1951ko abenduaren 20an egindako hileta jendetsuan agintari erlijioso-politikoak bildu ziren. Alde batetik, J. Saliege kardinala eta hiru apezpiku: L. Terrier (Baiona), P. M. Theas (Tarbe) eta C. Mathieu (Akize). Hazparnen jaiotako Clément Mathieu (1882-1963) apezpikua EGZ-BMGan euskal errefuxiatuak laguntzen aritu zen LIABeko arduradun gisa. Agian horregatik, hiletako otoitzean, J. Saint-Pierren separatismoa ukatzera behartu zuen bere burua:

D'où venait son enthousiasme pour tout ce qui touchait à notre langue et à notre pays? Aimait-il le Pays Basque contre la France? Non, nul ne peut soupçonner Mgr Saint-Pierre de n'avoir pas aimé la France. Il lui a donné le témoignage de son sang, le témoignage d'une captivité à laquelle, grâce au Saint-Siège, il a su donner un caractère apostolique. Il a eu en effet l'honneur et le bonheur de pouvoir dans un stalag de Séminaristes prisonniers donner des leçons de Théologie aux aspirants au sacerdoce.

Mais l'amour de la grande patrie ne l'a pas empêché d'aimer passionnément la petite patrie, son cher Pays Basque dont le passé, le présent, l'avenir étaient l'intérêt suprême de la vie. J'ai dit: passionnément, mais sa passion n'était pas aveugle, elle était lucide. Son régionalisme était pur, sans nul mélange de séparatisme. Il lui semblait simplement qu'un Basque doit être Français : non Français à la façon d'un Auvergnat ou d'un Breton, mais Français à la manière d'un Basque (Mathieu 1951: 323).

Ordezkarri politikoei zegokienez, agintari ugari bildu ziren hiletara: G. Delaunay

Pirinio Behereetako prefeta, M. Delay Baionako auzapeza, J. Ybarnegaray ministro faxista ohia edota L. Inchauspe Pirinio Behereetako Kontseilu Orokorreko presidentea. P. Lafittek zuzentzen zuen astekarian egindako kronikan, ordea, ez zuen Euskaltzaindia berariaz aipatu, nahiz eta bera edota L. Dassance bertan egon ziren. Baionako *Gure Herriak*, bestalde, 1952ko lehen zenbaki monografikoa eskaini zion hurrengo egileen idazlanekin: L. Terrier apezpikua, Xalbador bertsolaria, G. Bernoville filokarlista, T. Monzón sailburua, A. Constantin, J. Diharce, P. Lafitte edota J. Moulier. P. Lafittek, orobat, apezpikuaren idazlan hautatuak bildu zituen: *Les meilleures pages de monseigneur Jean Saint-Pierre* (1952) (*Herria* 1951-12-27).

10.14 *Bilboko «Nuevo Ateneo»*

F. Krutwigek idazlan askotan aipatu zuen elkarte horren garrantzia eta aitzindaritza, baina garaiko agiri eta berriekin erkatuz gero, autokonplazentziaz beterik agertzen da euskaltzainaren kontraera (Krutwig 1986a; 1986b: 13-15; 1986c: 12; 1991: 63-77; Murua Uria 1997: 78-81). Bilboko Nuevo Ateneo 1950eko irailaren 19an sortu zen, Hezkuntza Nazionalerako ministeriotik baimena lortu ondoren. 1914an sortutako Bilboko Ateneoari egiten zion erreferentzia, hiriburu industrialaren XX. mende hasierako berpizkunde kulturalaren sinbolo izan zena, Asociación de Artistas Vascos-ekin, Junta de Cultura Vasca-rekin edota Euskaltzaindia berarekin batera (Agirreazkuenaga et al. 2002: 20-29). Nuevo Ateneo-ko burua Antonio Menchaca (1921-2002) Bilboaldeko plutokrazia monarkikoaren semea zen, F. Krutwigen adin berekoa eta antagonista. A. Menchaca Itsas Eskola militarrean lizentziatu zen, baina armadatik kanporatu zuten 1947ko «Ley de Sucesión»en aurkako agiria sinatzeagatik. Familiaren ontzi enpresaz arduratzeaz gain, humanitateak Oxford-eko Unibertsitatean eta zuzenbidea Madrilgo Unibertsitatean ikasi zituen (*ABC* 2002-07-02).

Prentsan iragarri zuten Nuevo Ateneo-ren sail zerrenda, hiriburuko edozein kultur elkarteren baliabide pertsonal eta materialak zeharo gainditzen zituen. F. Krutwigen ameskerien eskua igartzen da zerrenda amaigabea: Filosofia eta Zientzia Teorikoak, Espirituaren Zientziak, Zuzenbidea, Letrak, Arte Plastikoak, Antzertia, Zinema eta Musika. Zientzia Teorikoan barnean hurrengo azpisailak zeuden: Filologia eta Etnologia, Epistemologia, Historia, Erligioen Zientzia eta Mitologia, Arkeologia, eta Artearen Zientzia eta Filosofia. Asmoa hizkuntza katedrak sortu, hitzaldiak antolatu eta buletin bat

argitaratzea zen. Hasierako hitzaldia, adibidez, J. Zuazagoitia Bilboko alkateak eman zuen. F. Krutwigen bidez, elkartearen sorreraren berri eman zuten erbesteko *Eusko-Jakintza*, *Gernika* edota *BIAEV* aldizkariak (J. M. C. 1950; Gernika 1950; IAEV 1951a).

Nuevo Ateneo-ren lehen ekitaldi publikoa, Santimamiñe leizera egindako bisita izan zen. Artean BPDko presidente zen J. Ybarrak hitzaldia eman zuen bertan. Ondoren Gernikako sinbolo politikoak bisitatu zituzten: Batzar Etxea eta Haritza. A. Menchacak hartu zuen hitza eta J. Ybarrak erantzun zion, «quien, entre otras cosas, instó a los dirigentes de la nueva institución a trabajar en pro de la cultura vasca, por la conservación de todos aquellos valores que caracterizan nuestro pueblo y, en especial, p[or] el cultivo y propagación del euskera» (Gernika 1950: 52). Seguru asko F. Krutwig berriemaileak puztutako hitzak ziren, baina egia da BPDko presidentek babeska eskaini ziola Nuevo Ateneo-ri hasieratik. JCVren iraileko batzarrean, erakundeon arteko harremana estutzeko, Nuevo Ateneo-ko burua JCVko kide izendatzea proposatu zuen eta komisioak onartu egin zuen.⁹⁸⁶ A. Menchacak ez zuen JCVn zuzenean parte hartu, baina zenbait proposamen aurkeztu zituen E. Calle idazkariaren bidez, hala nola, Bizkaiko turismo bulego bat sortzea edota Nuevo Ateneo-ren hitzaldietarako diru laguntzak eskatzea.⁹⁸⁷ Hala ere, 1951ko urte bukaeran A. Menchaca kexu zen, JCVko kide izan arren komisio iraunkorreko batzarretan parte hartu ezin zuelako, eta JCV-Nuevo Ateneo artean elkarlanik ez zegoelako.⁹⁸⁸

F. Krutwigen arabera, Nuevo Ateneo jatorri ezberdineko taldeak sortu zuten. Alde batetik, Bizkaiko oligarkiaren semeak eta zenbait intelektual eskuindar zeuden: A. Menchaca bera, A. Careaga, J. Sotomayor, A. de la Iglesia edota «Biancamano» kazetaria. Adolfo Careaga (1921-2009) Deustuko Unibertsitatean zuzenbidean lizentziaduna, Adolfo González de Careaga Bilboko azken alkate monarkikoa (1930-1931) izandakoaren semea zen, EJ-GEren presondegian 1937an fusilatua (González Sáez 2014: 201-202). José Sotomayor, familia falangista ezagun bateko kide zen. Enrique Sotomayor anaia BMGn hil zen Errusian División Azul-arekin. Beste anaia bat, Sebastián Sotomayor, Bilboko zinegotzi-diputatua izan zen 1940ko hamarkadan (Alonso Olea

⁹⁸⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1950-09-29, Junta de Cultura C-62.

⁹⁸⁷ BFAH-EC: A. Menchacaren gutunak E. Calleri, 1951-12-12 & 1951-12-24, Junta de Cultura C-23 — 09-.

⁹⁸⁸ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-08-09 & 1951-12-27, Junta de Cultura C-62.

2014: 533-534). S. Sotomayor, 1951ko uztailean JCVko kideztat konfirmatu zuten, A. Menchacarekin batera, J. M. Ruiz Salasen BPDak begi onez ikusten zituenaren froga.⁹⁸⁹ A. Careaga-F. Krutwig adin berekoak ziren, Nuevo Ateneo-n elkar ezagutu eta adiskidetu ziren. 2008an egin nion elkarrizketaren arabera, A. Menchaca burua zen, baina J. Sotomayorrek zeraman kudeaketa nagusia. Biltzen zirenean batez ere politikaz hitz egiten zuten: «Aquellas reuniones tenían un aire pues un poco contrario al sistema en que se vivía. Éramos liberales. Alguna vez intervino la policía para ver qué era lo que hacíamos».⁹⁹⁰ Ikuspegi kritiko hori, noski, ez zen antifrankismo klandestinoa, baizik eta sistema frankistatik atera gabeko belaunaldi gaztearen kezka intelektualen emaitza.⁹⁹¹ A. Careagak honela definitzen zuen adiskidea: «Fede Krutwig era un genio. Ahora, era un genio, que muchas veces era tremendamente locoide, tremendamente duro, tremendamente nietzscheano».⁹⁹²

Bestetik, Alea kultur elkarteko kideak zeuden, J. M. Azaola 1942an Donostiara aldatu zenetik, poliki-poliki desegin zena: J. Bengoechea, L. M. Barandiarán, B. de Otero edota A. Bilbao. Azkenik, F. Krutwig beraren taldea omen zegoen, Asociación Artística Vizcaína-ren inguruko zenbait pintorek edota J. Oteizak osatua. Asociación Artística Vizcaína-n, besteak beste, 1951ko urrian F. Krutwigek emango zuen «El simbolismo en la plástica» hitzaldia (Arostegui Barbier 1972: 90-92, 204; Krutwig 1986a; 1991: 63-77).

F. Krutwigek L. Villasante frantziskotarrari 1950-1951 artean idatzitako gutunerian aurkitzen dira elkartearen inguruko xehetasun mamitsuenak. Nuevo Ateneoko kide izateko hilero 10 ptako kuota ordaindu behar zen, gerraondoko ekonomian gutxi batzuen esku baino ez zegoena. Gainera, sailkide izateko ustez gaian aditua izan behar zen, diletanteak baztertuta, «euskaltzaletasun humanista» sortzeko helburuarekin. L. Villasantek I. Berriatua (OFM) gomendatu zion Filologia sailerako, Foruko komentuan irakasle zena, eta F. Krutwigek onartu egin zuen lankidetzarako.⁹⁹³

Nuevo Ateneo-ko katedran urriaren 31n emango zuen hitzaldira gonbidatu zituen frantziskotarrak: «Relación entre las teorías sobre el origen del vascuence, las lenguas

⁹⁸⁹ BFAH-EC: BPDko presidentearen dekretua, 1951-07-04, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

⁹⁹⁰ A. Careagaren komunikazio pertsonala, 2008-06-03.

⁹⁹¹ A. Careagaren osaba, J. M. González de Careaga enpresari eta J. Urquijoren iloba, Bilboko alkate izan zen 1938an, E. Calle Iturrino zinegotzi zela (Agirreazkuenaga 2002: 309-323; Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 147-167).

⁹⁹² A. Careagaren komunikazio pertsonala, 2008-06-03.

⁹⁹³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-09-22 & 1950-10-25.

caucásicas y la cultura mediterránea». ⁹⁹⁴ Nuevo Ateneo-ren hasierako egoitza Cinturería kalean zegoen, baina 1951ko urriaren 27an Buenos Aires kaleko egoitza zabaldu zuten. ⁹⁹⁵ Halaber, I. Berriatuarekin harremanetan zegoela adierazi zion. Esan bezala, F. Krutwigek hitzaldia eman zuen euskararen jatorriaz 1950eko urriaren 31n. Mahaiburu R. M. Azkue zegoen, ekitaldiari Euskaltzaindiaren nolabaiteko onespena ematen. Ondoa A. Careaga-L. M. Barandiarán ateneokideak izan zituzten. Hasteko N. I. Marr sobietarraren teoria jafetikoa azaldu zuen, euskara Kaukasoko hizkuntzekin eta hizkuntza semitikoekin lotzen zituen. Ondoren zenbait euskal hitzen etimologiak aztertu zituen, Pertsiar Inperioko elamitarekin parekatuz. Beste hainbeste egin zuen Mediterraneoko zenbait hizkuntzekin (*CE-PV* 1950-11-01).

Etimologisten gehiegikeriekin kritiko agertu arren, F. Krutwig ez zen diletantismotik libratzen, autodidakta baitzen hizkuntzalaritza-filologian, eta fantasiarako joera eutsiezina zuelako. Hala ere, kontuan hartu behar da euskararen «Kaukasoko jatorriaren» hipotesia soka luzekoa zela zenbait antzekotasun tipologikoren eraginez (batez ere, ergatiboa), eta ildo horretan ari zirela lanean K. Bouda-A. Tovar-R. Lafon hizkuntzalariak. L. Michelenak 1950eko hamarkadan burututako euskararen historia fonologikoak gaur arte iraun duen mugarría ezarri eta hutsean utziko zituen ahalegin guzti horiek (Trask 1997: 392-398; Lakarra 2011: 239). ⁹⁹⁶ F. Krutwigek hitzaldian Nuevo Ateneo sakabanatutako indarren bilgunetzat jotzen zuen. EI-SEVEN aniztasun politikoari egindako zeharkakoa aipamena zen. Hain zuzen, E. Bilbao tradizionalistak Oñatiko 1918ko biltzarraren amaieran Euskal Unibertsitatearen alde esandakoak ekarri zituen gogora, seguru asko ordurako Gorte frankistetako presidenteak berak anakronikotzat edo desegokitzat jotzen zituenak: «Y así resulta, señores, que separados todos los esfuerzos y disueltas todas las iniciativas se pierden las más provechosas capacidades para la obra de la restauración cultural vasca» (Bilbao 1919-1920: 957). ⁹⁹⁷

F. Krutwigek Nuevo Ateneo-ko Filologia eta Etnologia sailetan euskara ezarri

⁹⁹⁴ Idazlan argitaragabe hau Aldolfo Careagaren adeitasunari esker kontsultatu ahal izan nuen 2008ko ekainean. ACA: F. Krutwigen «Relación entre las teorías sobre el origen del vascuence, las lenguas caucásicas y la cultura mediterránea», 1950-10-31.

⁹⁹⁵ BFAH-GAE: A. Menchacaren gonbitak BPDko presidenteari, 1951-04-26, 1951-10-02 & 1951-11-22, AJ02244/132, AJ02244/063 eta AJ02244/030.

⁹⁹⁶ Dena dela, hura zen garaiko euskalaritzaren egoera hauskorra, eta mahaiburu zegoen R. M. Azkue beneragarria ere behin eta berriz kritikatu zuten horregatik G. Bärh-J. Urquijok (Krutwig 1991: 81; Jauregi 2005: 243).

⁹⁹⁷ ACA: F. Krutwigen «Relación entre las teorías sobre el origen del vascuence, las lenguas caucásicas y la cultura mediterránea», 1950-10-31.

omen zuen lan hizkuntza ofizialtzat. Euskaltzaindiaren abiadura motela gaintu eta bere hizkuntz irizpideen eragina hedatzeko nahia garbia zen. J. Urquijo hil ondoren, «Instituto de Investigaciones Científicas Julio de Urquijo» izena eman zion sailari, euskaltzain karlistaren ospea eta agian J. Ybarra ilobaren babesa baliatzeko. Sailera hainbat euskal idazle erakarri zituen: J. Gorostiaga, M. Arruza, B. M. Garro, E. Erquiaga, L. Villasante, I. Berriatua edota L. Aquesolo. Hauetariko gehienak ez ziren gazte hasiberriak, zaildutako idazle jeltzale helduak baizik. J. Gorostiaga-M. Arruza-B. M. Garrok, adibidez, EGLZ-DCEko ekintzetan parte hartu zuten (Sebastián García 1994; Alonso Carballés 1998: 207-209). Erbesteko kritikei aurre egiteko, bide egokia zen Bizkaiko idazle taldea lapurtera klasikoz idazten jartzea, baina zein neurritan zekien F. Krutwigek bere taldeko kideen iraganaren berri ez dago oso argi. Zioenez, M. Arruzarekin batera, jeltzale talde batekin bildu zen Euskaltzaindiaren egoitzan Nuevo Ateneo-ren egitasmoa azaltzeko (Murua Uri 1997: 80). J. Gorostiaga-E. Erquiaga-L. Aquesolo-L. Villasantek idazlanak argitaratuko zituzten lapurtera klasikoz *Gernika* edota *Euzko-Gogoa* aldizkarietan. Diktadura frankistak ezarritako baldintza gogorretan onartu egin zuten Euskaltzaindian nor zen gazte ausartaren gidaritzza, eta guztiak ALVko kidezarekin sarituak izango ziren, maila batean edo bestean (Urrutia 2001; Iztueta & Iztueta 2006: 456-457, 471-472).

1951ko hasieran Nuevo Ateneo-ren arazoak agerikoak ziren. F. Krutwigek otsailean idatzi zuen gutunaren arabera, Filologia saila RSVAPen menpekoa zen, eta Nuevo Ateneo-tik kanpo zegoen.⁹⁹⁸ N. Ormaecheari ere apirilean adierazi zionez, IICJU erakundetik atera eta J. M. Areilza buru zuen RSVAPen txertatu nahi zuten. Institutuaren helburu nagusia, Bizkaiko goi burgesia monarkikoan, euskararen ikaskuntza eta erabilera, lapurtera klasikoaren bidez, sustatzea zen. Oligarkiaren axolagabetasuna eta euskaltzain gaztearen porrota begien bistakoa zen, kontuan hartuta taldera bildu zituen idazle gehienak uste osoko abertzaleak zirena (Iztueta & Iztueta 2006: 456-457, 471-472). Nuevo Ateneo-ren zuzendaritzak ez zuen begi onez ikusten F. Krutwigen sailaren norabidea. A. Menchacak artean P. Sainz Rodríguez-J. M. Pemán edota Bizkaiko agintari politikoen murrasiar monarkismoa ordezkatzan zuen.⁹⁹⁹ Hala ere, A. Menchacak polemika sortu zuen Bilboko abuztuko jaietan hitzaldia eman zuenean euskal pirateriaz.

⁹⁹⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

⁹⁹⁹ Esaterako, E. Vegas Latapie BPDko bibliotekan hitzaldia ematera gonbidatu zuten 1951ko apirilean. Ildo liberalago batean, B. Kelly Bilboko British Institute-ko zuzendariak O. Spengler- A. Toynebe historialariaren erkaketa egin zuen, bigarrenaren alde eginda, urte bereko azaroan (*La Gaceta del Norte* 1951-04-28; 1951-11-11).

Amaieran, EJ-GEko ontzien eta Canarias korazatu matxinoaren arteko 1937ko itsas batailaz mintzatu zen. Biharamunean *CE-PV*n J. Rodríguez Ramos kazetariak hitzaldia jaso zuen, zeharo espainolista, baina bakezko hitzekin galtzaileei adorea aitortzen ziena. Agintari frankistek ez zuten onartu, eta abisua jaso omen zuten Nuevo Ateneo-ko buruak nahiz kazetariak (*Alderdi* 1951-11).

1951ko maiatzean idatzitako gutunetan, IICJU ordez, F. Krutwig Instituto Doxaz (grezierazko «δόξα») mintzo zen, eta Nuevo Ateneo-ko atal autonomotzat jotzen zuen. Nuevo Ateneo-ra itzuli ziren, zuzendaritzak ustez egitura federalago bat onartzen zuelako, sailen autonomia gordeta. Institutuaren zuzendaritzak hauek osatzen zuten: F. Krutwig (presidente eta Filosofia sailburu), L. M. Barandiarán (presidenteorde), V. Urigüen (idazkari), G. Caballero (diruzain), I. Berriatua (Filologia sailburu), F. Lezama-Leguizamón (Paleologia sailburu), J. Gorostiaga (Etnologia sailburu) eta A. Bilbao Arístegui (Arte sailburu).¹⁰⁰⁰

L. Villasante taldera erakartzearen, Teologia sailburu izendatu zuten. F. Krutwigek bere posizioa indartu nahi zuen ALVren inguruan zeuden hizkuntz irizpide ezberdinen artean, Bizkaiko hainbat euskaltzale literatur lapurteraren bidera ekarriz. Nuevo Ateneo-k eta Euskaltzaindiak agerkaririk ez zuten, I. Fagoagak zuzentzen zuen *Gernika* aldizkarian ari ziren idazlanak argitaratzen. Barnealdeko ALVk erbesteko jeltzaleengan eragiten zituen susmoak kontuan hartuta, ez da harritzekoa F. Krutwigek Donibane Lohizuneko aldizkaria, EAJ-PNVrekin gorabeherak zituena, tresna egokitzat jo izana zenbait mezu zabaltzeko. F. Krutwigek, poesiaz beste, hainbat artikuluko kritiko idatzi zituen bertan 1950-1951 artean: «Sobre la reorganización de la Academia de la lengua vasca», «Euskara' Euskalerraren kultur-bidea ledin izan», «Gernikako Arbolaren fruktuak» eta «Humanismu, gizabidea» (Sudupe 2011a: 168-174). Erbestea eta zigorrak jasotako abertzaleentzat iraingarriak ziren kritika hauek, are gehiago frankismoak toleratutako erakunde bateko kide batenak zirelako. 1951ko apirilean F. Krutwigek N. Ormaecheari idatzi zion gutun bakegilean, alferrik azaldu zion bere ustezko unibertsaltasun apolitikoa, euskaltzaletasun ez-nazionalista aldarrikatzen zuena:

En mi artículo del n. 14 de *Gernika* en la pag. 10 segundo párrafo digo yo en efecto: «Eta geroz behar ba da gaitzena, karramarroen izpirituaz, xauvinistek kaskilas landan

¹⁰⁰⁰ ABA-EUS: F. Krutwig gutuna L. Villasanteri, 1951-05-28.

mundurik eztadukate». Este párrafo con los dos anteriores trata de un problema de la Historia (y Cultura) europea, y tal afirmación por lo tanto no ha de ser tomada como insinuada contra el Nacionalismo Vasco (o para no confundir al nacionalismo vasco, que es el amor al País Vasco y el cultivo de lo vasco, con la política, con el partido, lo llamaré vasquismo), pues se refiere a una corriente histórica llamada el Nacionalismo, que debe ser considerada como consecuencia del despertar de las Nacionalidades con la Revolución Francesa, aunque aquí se puedan ya encontrar las raíces quizá en la época de Luis XIV de Francia. Son para mí pues tan provistos de alma de crustáceo los patrioterros de un bando como los de otro (apud Iztueta & Iztueta 2006: 452-453).

Antolatzen ziren hitzaldi publikoez harago, eta F. Krutwigek ematen zion handitasun itxura gorabehera, amateur taldeen hileroko bilera pribatuak ziren. Bost lagunez osatutako Filosofia saila F. Krutwigen Rodríguez Arias kaleko etxean biltzen zen. Paleologia saila Lezama-Leguizamón familia karlistaren jauregian biltzen zen.¹⁰⁰¹ F. Krutwig-J. Gorostiaga agertzen ziren haien Getxoko etxera, liburuak aztertzeraz. Ekialdeko hizkuntz askoren gramatika laburrak euskaraz argitaratzeko asmoa omen zuten (Gernika 1951: 63; Krutwig 1991: 75-77; Murua Uria 1997: 89). Arte saila zen jendetsuena, 18 kiderekin, eta Nuevo Ateneo-ren egoitzan biltzen zen. Instituto Doxa-ren zuzendaritza eta I. Berriatua (OFM) buru zuen Filologia saila Euskaltzaindiaren egoitzan biltzen ziren, baina argi zegoen zinezko arduraduna F. Krutwig bera zela. 1951ko maiatzean M. Arruza, BPDko itzultzaile eta euskara katedradun ohia, lapurtera klasikozko eskolak ematen hasi zen Cinturería kalean (Gallastegi 2005).¹⁰⁰² EAJ-PNVren buletinak berriz ere distantzia markatu nahi izan zuen, alderdikideari kalterik egin gabe:

En el denominado Nuevo Ateneo de Bilbao, han comenzado a darse clases de euzkera, acudiendo una treintena de alumnos. Lo extraño de esta clase es que haya sido elegido, para enseñanza de los alumnos, el dialecto laburdino. Dirige las clases el conocido profesor y escritor don Miguel de Arruza; pero la elección de aquel dialecto se debe sin duda a imposición del criterio sustentado por el académico de Euskaltzaindi, señor Krwing [sic], que es también un destacado miembro del Nuevo Ateneo (*Alderdi* 1951-06).

F. Krutwig egozentrikoaren bertsio interesatua orekatzeko, I. Berriatua Instituto

¹⁰⁰¹ Patriarka karlistak onartu zuenez, EGZe euskal liburuak depuratu zituzten Bizkaian: «cuando la guerra se destruy[ó], debido a gran ignorancia, mucho de lo referente a cosas vascas» (KMK-JU: L. Lezama-Leguizamónen gutuna J. Urquijori, 1948-03-25).

¹⁰⁰² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-05-28.

Doxa-ko Filologia sailburuak 1951ko ekainean L. Villasanteri idatzitako gutunean aurki dezakegu Nuevo Ateneo-ko sailaren gorabeheren testigantza xehe-xehea:

En primer lugar le felicito por su magnífico artículo de Cantabria Franciscana. Muy bien, muy bien. En cambio aquí en Bilbao, a mi juicio, andamos muy mal. Incluso ayer hablamos de posible fracaso de nuestro movimiento. El que así hablaba no era desde luego Krutwig, que es un hombre muy alejado de la triste realidad por que pasa el euskera. Cuando tratábamos de publicar una revista, yo le propuse que nos diesen a nosotros los curas y religiosos determinado número de páginas. Nos dieron 30. Pero luego me dijo que nuestra sección de religión tendría que funcionar aparte, y que nos arreglásemos nosotros como podíamos, porque ellos, los del Instituto Doxa, no querían admitir la censura eclesiástica en la revista. Ayer insistí en la conveniencia de que entrásemos de alguna manera en la revista, por razones económicas, pues el clero no tiene fondos para publicar una revista. Todo quedó al aire. En la revista que proyectan, la sección de filosofía, de la cual es presidente el mismo Krutwig, piensa publicar un artículo sobre Kant, en el que se le considera como el culmen de los filósofos, y sus pruebas de la existencia de Dios como las únicas que valen. Usted comprenderá que en una revista nosotros no podemos colaborar con esa clase de gente. Antes le presenté la revista bilingüe que tenemos nosotros los franciscanos del Canadá, considerada como una de las mejores de aquel dominio; en ella colaboran seculares y eclesiásticos sobre asuntos religiosos y profanos. Parece que hay bastante espíritu anticlerical. No sé si será posible de alguna manera, en unión con ellos o en publicación aparte, que nos ayuden económicamente a publicar la revista. y aún en ese caso no sé si los curas y frailes aceptarían la tendencia labortanista arcaica. Porque el labortano que propugna Krutwig no es el de ahora, como usted sabe. En cambio, se habló ayer de la posibilidad de un guipuzcoano osotua con [h]aches y todo. El Sr. Urigüen, uno de los que asisten, dijo que él sabía de bastante gente seglar de Bilbao que no está por el labortanismo y sí por el guipuzcoanismo. Krutwig tiene también la habilidad de pintar las cosas de color de rosa y decirnos que la cosa está hecha y que ya dentro de poco nuestro movimiento va a ser aceptado por todos. Recuerdo que en cierta ocasión nos dijo que Manuel Lekuona estaba dispuesto a unírseos y que iba a empezar a escribir en la revista GERNIKA en labortano. Al poco tiempo me entero de que el mismo Lekuona negaba tales cosas. Dije luego yo que un guipuzcoano amplio con haches y todo sería una cosa magnífica. Krutwig añade que eso ya no sería guipuzcoano sino labortano. Tanto mejor. Tal vez esa fórmula sería la mejor. Y los guipuzcoanos creo que se avendrían. Por lo menos mucho más fácilmente que al labortano antiguo. A usted no le he escrito hasta ahora de la proyectada colaboración del clero, porque estaba esperando en qué

acababa todo esto. En un principio le propuse a Krutwig que fuese usted nombrado presidente, pero, pensándolo mejor luego, le dije que convendría darle ese puesto a un cura (y le propuse a Manterola, el presidente de Yaungoikozale [sic]) y nombrar de secretario a un Carmelita. Usted sabe que uno de los que asisten a la sesión de los martes es un carmelita de Begoña, el P. Lino Akesolo. Todo esto después de hablar con el dicho P. Lino, que estaba también conforme. Pero luego vino lo de la censura, etc. Hablé de este asunto también con el Párroco de Rigoitia, D. Juan Añíbarro, discípulo aprovechado de Manuel Lekuona, que hace años hasta había traducido gran parte del misal al euskera. Me dijo que veía bien lo de la revista. Bueno, basta ya de revistas. Yo me he movido en este sentido, porque he creído que era mi deber. Mi obligación de no perder una oportunidad que se nos presentaba para poder trabajar por el euskera a los pocos hombres que estamos mejor preparados para ello y que sentimos tanta necesidad en beneficio de nuestra religión. Tal vez sea posible todavía. Me dijo Krutwig que usted iba a publicar en Cantabria Franciscana un segundo artículo sobre la unidad del euskera a base del labortano antiguo. Yo después de lo que he visto en Bilbao, no lo escribiría. Este es un problema muy difícil, difícilísimo. Y el Sr. Krutwig es muy exagerado. Por ejemplo: su fonética de los nombres extraños. Escribir Grammatika para pronunciar Gramatika. Le pongo este caso, no porque yo quiera enjuiciarlo, sino para exponerle la opinión de dos de los pocos que asistimos todas las semanas a Bilbao. Arruza y Urigüen me dijeron ayer que ellos no están conformes con esas teorías de Krutwig. Pero lo que pasa es que nadie se atreve a decirle nada. Como ayer le eché por tierra un trabajo que él estaba llevando adelante, después de la sesión, en corrillo aparte, Urigüen se me abrió y me dijo que teníamos que hablarle claro a Krutwig. Ya le dije a usted que aquí la gente no hace más que decir amén amén a todo lo que él dice, aunque no se esté convencido. Además el método que llevamos no es científico, metódico, minucioso, sino rápido, a la buena de Dios. Así no puede ser. El trabajo que tenemos ahora entre manos es la publicación de un diccionario castellano-vasco. En una sesión, la primera sobre este asunto, a la que no pude asistir, Krutwig les leyó páginas y páginas de vocabulario. Seguía este método: una palabra castellana y a continuación otra vasca, una sola, sin decir de qué región. Vi que así no podía ser. Que para eso bastaba el diccionario de Mendizábal, que trae más de un vocablo. El diccionario de Krutwig a quién iba a servir? A nadie, absolutamente a nadie. Yo les dije que en ese diccionario tenían que estar representadas las cuatro regiones [sic] principales: Laburdi (toda Francia), Guipúzcoa, Bizcaya, y Navarra. Las palabras serían las mejores, las más comunes en cada región. A[continación algún modismo. De esa manera el diccionario podría servir para el fin que se propone el Instituto de formar un lenguaje literario utilizando el léxico de todo el País y al mismo [tiempo] para poder escribir y hablar dialectalmente. Yo creo que este trabajo del diccionario es capital. Cabe

sin duda un criterio más perfecto de lo que yo propuse. A mí me parece que nosotros, los de Aránzazu y Olite, podríamos publicar ese diccionario. Haríamos un gran bien al euskera. Yo pienso proponerle a Krutwig esto. No nos costaría gran cosa. Tal vez solamente lo relativo al dialecto guipuzcoano, vizcaíno y altonavarro. Sería más práctico y fácil un buen diccionario para las tres regiones. Diccionario de bolsillo completo, con todas las palabras castellanas. Para que podamos escribir y hablar con toda seguridad. Con todas las palabras extrañas que sean necesarias. A base de los diccionarios de Azkue y Pierre Lhande. Si usted quiere, contésteme antes del martes, para que yo pueda dar su opinión sobre la posible colaboración franciscana.¹⁰⁰³

1951ko azaroan F. Krutwigek berriz ere IICJU deitzen zion elkarteari, eta Nuevo Ateneo Espainiako Gobernutik 100.000 ptako diru laguntza jasotzeaz zela adierazi zuen, garaiko testuinguru ekonomikoan ameskeria hutsa zena.¹⁰⁰⁴ Bestalde, L. Villasanterekin P. Axular-J. Etcheberriren edizio berriak egiteko aukera aztertzen ari zen. Idazlan horiek argitaratzeko JCVra jo zezaketela uste zuen.¹⁰⁰⁵ I. Berriatua-V. Urigüen abertzaleek eragozpenak jarri arren bultzatzen zuen hizkuntz ereduari, literatur lapurteraren gramatika normatiboa eta hainbat idazlan klasikoren euskal itzulpenak prestatu nahi zituzten. Oro har ezerezean geratuko ziren asmo guztiak, baina E. Erquiagak, esaterako, Platonen *Parmenidesen* euskal bertsiua egin zuen gaztelaniazko itzulpenetik, mende erdi igaro arte argitaratuko ez zena (Urrutia 2001: 25-26, 38).

1951ko abenduan R. M. Azkueren omenezko hitzaldiak antolatu zirenerako ezinegona oso nabarmena zen. Abenduaren 10ean, A. Menchacak hitzaldien aurkezpenean, agintari frankisten separatismoarekiko susmoak uxatu nahian, euskaltzainburu zenaren maila nazionala, Euskal Herriaren mugak gainditzen zituena, eta euskararen izaera espainola nabarmendu zituen. F. Krutwigek euskaltzainburuaren nekrologia egin zuen, haren lanak goratuta baina gerraondokorik aipatu gabe. Halaber, goi klaseko ideologia ezberdinekin izan zituen harremanak nabarmendu zituen: Lekeition atzerriratutako Austria-Hungariako errege familia edota R. de la Sota abertzalea. Hitzaldia *Euzko-Gogoak* argitaratuko zuen «Azkue iaunaren in memoriam» izenarekin, baina atzerapen handiarekin (Krutwig 1952b). J. Gorostiagak euskaltzainburuaren hizkuntzalaritza aztertu zuen bere hitzaldian. Amaieran J. Gorostiagak euskararen aldeko

¹⁰⁰³ ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri, 1951-06-28.

¹⁰⁰⁴ ABA-EUS: F. Krutwigek gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

¹⁰⁰⁵ ABA-EUS: F. Krutwigek gutuna L. Villasanteri, 1951-12-27.

aldarri sutsua egin omen zuen. Bizkaiko gobernadore zibilak agindutako hilarrietako euskal izenen ezabaketari egin omen zion erreferentzia. E. Calle Iturrinoren taldeak gobernadore zibilari hitzaldia salatu zion, baina F. Krutwigek M. Grande institutu katedraduna konbentzitu omen zuen G. Riestraren aurrean hitzaldiaren edukia zuritzeko (cf. *CE-PV* 1951-12-11; *Alderdi* 1952-01; Krutwig 1986a).

Abenduaren 12an, J. A. de Donostiak euskal kantutegiaz hitzaldia eman aurretik, Nuevo Ateneo-ko buruak aurkezpen espainolista egin ez ezik, Espainiako bandera jarri zuten mahaian. F. Krutwigek isilarazi egin nahi izan zituen arazo hauek, esaterako, P. Lafitteri horien berri gutunez eman zionean, baina egoerak esku artetik ihes egingo zion (Andiazabal et al. 2006: 211-212). Gobernadore zibilaren aginduz, aste horretan Nuevo Ateneo-ren zuzendaritza bildu zen, IICJUren eta Seminario de Estudios Españoles falangistaren autonomia mugatzeko. EAJ-PNVren buletinak zabalduko informazioaren arabera, A. Menchaca bera ez zegoen ados aginduarekin, baina bere jarrera ustez liberala epeldu behar izan zuen, *CE-PV*n argitaratzen zituen artikulu profrankisten bidez (*Alderdi* 1952-01). EBBak bildutako informazioaren arabera, A. Menchacaren hitzak isiltasun erabatekoarekin hartu ziren, entzuleen %90 abertzaleak zirelako, eta oso nabarmena zelako agintari frankisten edota J. Ybarra bezalako pertsona ospetsuen absentsia.¹⁰⁰⁶

F. Krutwigek 1952ko otsailean idatzitako gutunean Nuevo Ateneo-ren bilakaera azaldu zuen. Esan bezala, 1950eko irailean sortu ondoren, urtea bukatu baino lehenago IICJUk RSVAPera jo zuen, bere sailaren kontrol osoa nahi zuelako, kide berriak aukeratzetik hasita.¹⁰⁰⁷ Egoera bideratzeko, Nuevo Ateneo-ko bi ordezkari (A. Menchaca-A. Careaga) eta orain Instituto Doxa izena zuen elkarteko beste bik (F. Krutwig-G. Caballero) 1951ko apirilaren 26an bildu ziren institutua Nuevo Ateneo-n integratzeko. Arazoak, ikusi dugunez, berriz sortu ziren abenduan zuzendaritzak izan zuen bileran. Berriz ere IICJU deitzen zen elkartetik Filosofia sailburua eta idazkaria (F. Krutwig-J. E. Iranzo) agertu ziren. J. Sotomayorren taldeak Nuevo Ateneo-ko sailak zentralizatzea proposatu eta bozketa bidez lortu egin zuen. Hala ere, A. Menchacak berak aurka bozkatu eta ondoren dimisioa aurkeztu zuen. Horrek Nuevo Ateneo egoera zailean uzten zuen, batez ere ekonomikoki. Buenos Aires kaleko egoitza berria zabaltzeko, A.

¹⁰⁰⁶ ASF-AA: «Conferencias en homenaje a Don Resurrección María de Azkue», 1951-12-20, PNV_NAC_EBB, K.00084, C.4.

¹⁰⁰⁷ Kontuan har bedi J. Urquijo hil ondoren, Argentinan enbaxadore egotetik itzultitako J. M. Areilza, zela RSVAPeko buru berria, F. Krutwigek artean begirunez ikusten zuena (Agirreazkuenaga & Urquijo 2008: 118).

Menchacaren izenean maileguak eskatu zituzten eta artean Madrilgo diru laguntzarik gabe jarraitzen zuten.¹⁰⁰⁸ Nuevo Ateneo-ko kideak egoera bideratzen saiatu ziren berriz ere IICJU erakarriz beste proposamen batekin. F. Krutwigek 1952ko urtarrilaren 2an bere taldearen ezezkoa jakinarazi zion Nuevo Ateneo-ri. Errepresalia modura, IICJUk RSVAPekin zuen harremana apurtzen saiatu omen ziren, I. Urquijo RSVAP-JCVko kidearen bidez.¹⁰⁰⁹

1952ko urtarrilaren 17an eta 20an beste bi batzar egin zituen Nuevo Ateneo-ko zuzendaritzak, F. Krutwigi indarra kendu eta beraren oposizioa ezeztatzeko. L. M. Barandiarán Altos Hornos de Vizcaya-ko ingeniaria eta A. Menchaca, berriz ere Nuevo Ateneo-ko buru agertzen zena, saiatu ziren F. Krutwigekin hitz egiten, baina horrek ezezkoari eutsi zionez, neurri politikoak hartzearekin mehatxu egin zioten. Izan ere, L. M. Barandiaránek inoiz leporatu zionez, politikagintza separatista egiteko baliatzen ari ziren institutua (cf. Krutwig 1991: 68-69). Gainera, F. Krutwigen jarrera salatzekeo gutuna bidali zien Nuevo Ateneo-ko zuzendaritzak kide guztiei. Azaroaren 20ko batzarrean, F. Krutwig ez, baina IICJUko hainbat kide egon ziren, Nuevo Ateneo-ra ez itzultzeko asmoari eutsi ziotenak: G. Caballero, F. Sesmero edota J. E. Iranzo. Bestalde, F. Krutwigen idazle taldeko kideek ez zuten zuzenean parte hartu gorabehera hauetan, Nuevo Ateneo-ko kide ez zirelako.

Beraren irudiaren aurkako kanpaina arriskutsua ikusita, F. Krutwigek hainbat lagunengana (A. E. Mañaricúa, F. Lezama-Leguizamón) eta batez ere RSVAPera jo zuen babes bila. Urtarrilaren 25ean F. Krutwig-J. E. Iranzo Donostiara joan ziren M. Ciriquiainekin biltzeko. Horrek ziurtatu zien RSVAPek ez zuela ezer IICJUren aurka eta ateak zabalik zituztela *BRSVAP*en lanak argitaratzeko. Dena dela, institutua inoiz RSVAPen integratuta egon izana F. Krutwigen asmazio hutsa zen. J. E. Iranzok *BRSVAP*en argitaratu zuen «Algo sobre el espíritu literario y poético en los países vascongados» (1952) artikulua, baina harremana ez zen harago joan.¹⁰¹⁰

1952ko otsailaren hasieran, «Juan de Hernani» kazetariak F. Sesmero historialariarekin egindako elkarrizketa argitaratu zuen. JCVko J. Irigoyenen zuzendaritzapean, tesia aurkeztear zen, *El arte del renacimiento en Vizcaya* (1954) liburua

¹⁰⁰⁸ Egoitzaren egokitzapena E. M. Aguinaga BPDko arkitektoak egin zuen (BIUA: E. M. Aguinagaren proiektua Nuevo Ateneo-ren egoitza berrirako, 1951-1952).

¹⁰⁰⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

¹⁰¹⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

izango zena.¹⁰¹¹ F. Sesmeroren arabera, kultur talde berri bat sortuko zen Bilbon:

En colaboración con don Andrés Mañaricúa pensamos otros amigos y yo publicar unas bibliografías generales sobre arte, historia, etcétera, de las Provincias Vascongadas; una especie de Corpus Historicum como lo que hizo Allendesalazar a principios de siglo. Pero después han variado mucho los métodos y han aparecido nuevas fuentes. Vamos a constituir en seguida un grupo de estudiosos, que se dediquen de una manera sistematizada a la investigación en todas las facetas del saber y siempre en relación, claro está, con el País Vasco: filosofía, filología, arte, historia, economía, sociología, en una palabra, todo lo que se refiere a la cultura de nuestras provincias, pero especialmente a la de Vizcaya (*CE-PV* 1952-02-08).¹⁰¹²

A. Menchacak, J. Sotomayor-X. Domínguez Marroquín falangistekin bat eginda, traidoretzat jo zituen F. Krutwigen alde egindako guztiak. Euskaltzain gazteak L. Villasante eta beste lagun batzuen aurrean egin zituen keinuak gorabehera, Bilboko gizarte frankistan euskaltzaletasun apolitikoa sustatzeko ahaleginaren porrota begien bistakoa zen. Istilu hauen ondorioz, F. Krutwig politikoki susmopean eta egoera ahulean geratu zen Bizkaiko agintari frankisten aurrean.¹⁰¹³ Horren froga da A. Menchacak J. M. Ruiz Salas BPDko presidenteari otsailaren 6an bidali zion gutuna:

Te comunico lo siguiente. Ayer la Junta Directiva del Nuevo Ateneo de Bilbao, reunida según recomiendan los Estatutos, disolvió el Instituto de Investigaciones Científicas «Docsa» [sic] también llamado «Julio de Urquijo».

Asimismo creó una nueva Sección, la de Estudios Vascos con el nombre de D. Julio de Urquijo, para cuya organización se ha nombrado una Comisión que preside Fernando Lezama Leguizamón, insigne vascófilo.

Sin perjuicio de que en su día se dirija a la Junta de Cultura oficialmente para comunicarle tal disolución a los efectos que estime oportunos o recomendables, ahora he querido participarte la noticia extraoficialmente o mejor, particularmente de amigo a amigo, pues suponía te alegraría conocerla y comentarla con nuestros comunes amigos Genaro Riestra, Ignacio Urquijo, Merino, Caruncho, etc.¹⁰¹⁴

¹⁰¹¹ Tesiaren ponentzia A. Apraizek egin zuen, eta otsailaren 15ean aurkeztu zen Madrilgo Unibertsitate Zentralean (Sesmero Pérez 1954). Bilboko Udal Bibliotekan gordetzen den alea, hain zuzen, egileak J. Irigoyeni eskainitakoa da.

¹⁰¹² Memorietan, F. Sesmeroren menpekotasuna agerian utzi nahi izan zuen. A. Menchacak agindutako IICJU berrantolatzeaz arduratzeaz gain, idazlanetarako dokumentazioa eskuratu zion diruaren truke (Krutwig 1991: 71-73).

¹⁰¹³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

¹⁰¹⁴ BFAH-EC: A. Menchacaren gutuna J. M. Ruiz Salasi, 1952-02-06, Junta de Cultura C-23 -09-. JCVko

A. Menchacaren gutun horren berri JCVren otsailaren 27ko batzarrean bildutakoei jakinarazi zitzaion: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, N. Zorrilla, H. Bilbao, J. M. Maiz Zulueta, R. Zumárraga eta E. Calle. Bi elkarrean arteko harremana zehazteko erabakia geroratu egin zuten.¹⁰¹⁵ Bestalde, Nuevo Ateneo-rekin lotura zuten lagunek antzeko gutuna jaso zuten zuzendaritza. L. Villasante euskaltzain berriak, arduratuta, E. Erquiagarengana jo zuen argibide eske 1952ko otsailean, lapurtera klasiko idatzitako gutunean:

Atzo guthun luze bat jaso nuen Bilboko Atheneu Berriak igorrita, Urkixo Elkhargoa ezereztu eta hilarazteko erabakia hartu dutela dio eta haren ordeztu berte berri baten sorrarazteko. Ephai horren kausak bezala hoik aiphatzen ditu: zuzendariak bide okherretik zeramatela elkhargoa, membra zirenei berri eman gabe aunitz arau hartu zirela eta nahaspil hura kendu ezik Elkhargoaren bizitza bera ere arriskuan omen zegoan. Heurak sortu Elkhargo berriaren zuzendarien izenak emaiten derautate gainera: Lezama-Leguizamon, zuzendari, Gorostiaga, Mañaricua, Antonio Bilbao, Luis Barandiaran, Adolfo Careaga, Jose Caballero (vokalak). Ezterauet erantzun ezta egingo ere, argitasun gehiago gai huni buruz izan arteino.¹⁰¹⁶

Banco de Vizcaya-ko langileak Nuevo Ateneo-ko erabakiaren izaera politikoa konfirmatu zion Arantzazuko frantziskotarrari, baina F. Krutwig, haren gizarte jatorriatik, separatista susmotik libreago ageri zela adierazi zion. Hots, elizgizonak eta idazle abertzaleak zirela benetako arriskuan zeudenak. Nahigabetuta, lapurtera klasikoa baztertzeko ari zen, gutunean ageri denez:

Atheneuazko korapilloa? Au, zelan edo alan, amaitu da. Gu aiekin aspertu giñan, aiek ere bai gurekin. Baiña, eztute garbi iokatu. Erabat esan, Urkixo Elkhargoa il zan. Aien karta luze ortan agertzen diran zazpi izenaterik bost, eztira konforme Elkhargo berri orren egitekotz. Beraz, karta orrek egirik diñoan eztakit, baiña gezur asko bai. Guk batek ere eztiogu erantzun, eta egingo ere, ez. Baiña, gauza bat bai iakin egizu: naste ortatik gure izen onarentzat zerbait kalte sortu dala: gu —gure buruzagia izan ezik—, beste guztiok «au» garelara eta «ori» garelara: betiko leloa, badakizu.¹⁰¹⁷

kideen aurrean ez ezik, Bizkaiko gobernadore zibilarren eta polizia buruaren aurrean ere salatzen zuen F. Krutwigen taldea.

¹⁰¹⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-02-27, Junta de Cultura C-62.

¹⁰¹⁶ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna E. Erquiagari, 1952-02-17.

¹⁰¹⁷ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1952-02-20.

10.15 «Cantabria» frantziskotar probintzia

Bultzatu nahi zuen programarekiko erabilgarriak ziren neurrian, Euskaltzaindian zuen eragina baliatuko zuen F. Krutwigek hainbat lagun urgazle izendatzeko. Ikusi dugunez, 1951ko otsailaren 23an GPDaren jauregian egindako batzarrean, besteak beste, urgazle izendatu zuten L. Villasante frantziskotarra (ALV 1982: 17). Erabakiaren berri eman zion hurrengo egunean idatzitako gutunean.¹⁰¹⁸ F. Krutwigek adierazi zuenez, izendapena frantziskotarren ordenari egiten zitzaion aitortpena zen, euskararen alde egiten zuten lan apolitikoaren esker onez. Era berean, beste ordena izengabeak gaitzetsi zituen. F. Krutwigen anbiguotasun kalkulatzaila nabarmena zen.¹⁰¹⁹

Euskarari dagokionez, 1943an «Cantabria» frantziskotar probintziako kapitulua egin zen Arantzazuko santutegian, J. Eguiluz aukeratu zuten buru berriz ere, baina F. Aldegunde urte hartako bisitari jeneralak teologia-filosofiako ikasleei beren artean euskaraz hitz egitea debekatu zien. Era berean, 1921ean sortutako *Aránzazu* aldizkari elebiduna 1938-1945 arteko giro errepresiboan erdara hutsean argitaratu zen. BMG bukatzeaz zela, ordea, berriz lortu zuten baimena euskarazko atala argitaratzeko. Bide beretik, 1946an E. Aguirreche, «Bai» taldeko kideak, *Arantzazu'ko Ama Birjiñaren bederatzi-urrena* liburuxka argitaratzea lortu zuen eta hurrengo urtean, hasi ziren Arantzazuko egutegia zabaltzen (Agirrebaltzategi 2003).

Cantabria frantziskotar probintziako 1949ko kapituluan, Gipuzkoako Eskoriatzan jaiotako Pablo Letek ordezkatu zuen aurreko hirurteko B. Madariagaren buruzagitza. J. Eguiluz-B. Madariaga probintzialek ez zuten frankismo beligerantearekin bat egin, baina Arantzazuko fraideak ez ziren abertzaletasunean nabarmendu. Kubatik itzulitako P. Lete probintzial berriarekin, garai liberalago bati eman zitzaion hasiera. Hizkuntzaz den bezainbatean, gaztelaniaren hegemonia zalantzan jarri gabe, garaian itxaropentsuak ziruditen euskarazko ekintzak kateatu ziren.

Arantzazuko Andre Mariaren eguneko sermoi sonatua berriz ere bi hizkuntzatan egin zen 1949an, probintzial berriaren aginduz. Ekinaldi berekoak izan ziren S. Michelenaren 1949-1952 arteko liburuak, euskarazko *Anaitasuna* aldizkaria (1950) edota

¹⁰¹⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

¹⁰¹⁹ Elizgizonek erbestean prestatutako zerrendetan, adibidez, kaputxinoen, karmeldarren eta jesuiten artean faxistek 1937an zigortutako lagun gehiago aurkitzen ziren, eta pasiotarrak ere frantziskotarren pare zeuden. Hain zuzen, erregimenarekiko identifikazio politikoak ahalbidetuko zion ordenari euskararen idatzizko erabilera xumea (Clero Vasco 1966: 193-195).

L. Villasanteren idazle ibilbidearen erabateko hasiera. Dena dela, Arantzazuko basilika berriaren eraikuntza gorabeheratsuak ongien irudikatuko zuen P. Leteren itzalean abiatutako aro berria, atal tragikoa izango zuena 1952ko abenduaren 6an, probintziala hil zuen hegazkin istripuagatik (Arana Martija 1992: 37; Pagola 2003: 132-143; Muñoz 2006: 116-119).

F. Krutwigek lehen eskuko informazio zuen indarra hartzen zihoan kulturgune erlijiosoaz. L. Villasantek euskaltzain gaztearen ideiak bereganatzen zituela ikusita, urgazletzarekin saritu zuen. Gainera, eragin hori frantziskotarren ordenan zabaltzeko aukera ikusten zuen (Krutwig 1986b: 17-18).¹⁰²⁰ Frantziskotarra oso pozik zegoen izendapenarekin, martxoaren 2ko gutunean adierazi zionez, baina zenbait zalantza zituen horrek zekarren eskubide eta betebeharez. Euskaltzainak adierazi zionez, urgazleek batzarretan hitza bazuten, baina botorik ez. Gainera, dietarik ez zitzaien ordaintzen. L. Villasante beldur zen izendapenak bere erlijioso zereginetan eragin zitzakeen oztopoez, eta onartu aurretik P. Leterekin adostu behar zuen erabakia.¹⁰²¹ Probintzialak baimena eman zion izendapena onartzeko, bere asmoekin bat zetorrelako, baina zenbait ohar egin zizkion irakasle ardurak baztertu ez zitzaizkan:

Me apresuro a manifestarle mi satisfacción por la honra que a la Orden se hace en su persona al nombrarle académico de la lengua vasca. Reciba por ello mi cordial felicitación. Sin duda debe aceptar el nombramiento y hacer lo que pueda en ese campo. Mi gusto sería que la contribución de la Orden en este campo de actividades culturales de nuestro pueblo fuera de primera línea.

Pero otros trabajos de orden preferente impedirán por el momento hacer todo lo que se desearía en eso.

Le digo porque ya comprenderá que no quisiera que ningún trabajo de esta clase, por muy laudables que sean, les distrajera de su atención a la cátedra y a la formación cultural de los coristas.¹⁰²²

¹⁰²⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

¹⁰²¹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-03-11. Euskaltzaindiaren estatutueta adierazten zenez: «Urgazleak Euskaltzaindiari aŕunteko naiz bereziko oaŕ, txosten ta ikeŕlanak bidali bear dizkiote; ta, buruzagiaren bayetzaz, batzaŕetan esku aŕtu dezakete, iritzia azaltzen autarkirik gabe = Los correspondientes estan obligados a enviar a la Sociedad observaciones, datos y estudios de caracter general o monografico; y previa autorizacion del Director, podran intervenir con voz pero sin voto, en las Juntas, para asuntos meramente literarios» (ALV 1920a: 4).

¹⁰²² ABA-EUS: P. Leteren gutuna L. Villasanteri, 1951-02-28.

Luis Villasante (OFM) eta Imanol Berriatua (OFM)

F. Krutwig-L. Villasante arteko harremana bitxia izan zen, bi mundu aski ezberdinetako kide baitziren. Hala ere, adin berekoak ziren eta bion artean lotura bat gauzatuko zen. Frantziskotarrak berak kontatu zuenez, bere *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu, concepcionista franciscana (1873-1921)* bi liburukitako tesiaren argitalpena Bilbon prestatzen ari zela elkar ezagutu zuten. *La Gaceta del Norte* egunkarian irakurri zuen F. Krutwigen berri eta telefonoz deitu zion. Euskaltzain gazteak etxera gonbidatu zuen eta haren ideiek jakin mina piztu zioten (Villasante 1997: 361-362).¹⁰²³

Luis Villasante Cortabitarte (1920-2000) Bizkaiko Gernikan jaio zen. Amaz umezurtza zen txikitatik eta aitaren aholkuz joan zen frantziskotarren Arantzazuko seminariora 1931n. Ikasle oso ona izan zen, EGZe an urtebetez Burgosen soldaduskan egindako aldiaz beste, fraidegaien ohiko komentuetan egin zituen ikasketak: Arantzazu (Oñati), Forua, Zarautz eta Erriberri. Jaiotzez euskalduna izan arren, ikaskideek erdarazaleztat hartu eta baztertu egin zuten hasieran. Nafarroako gerraondoko urteetan, ordea, abertzale-espainolisten arteko erdibidean kokatu nahi izan zuen.¹⁰²⁴ Hala ere, L. Villasantek bertako bibliotekan irakurri ahal izan zituen S. Altube, R. M. Azkue edota P. Axular. Arantzazura itzulita profesioa egitera, giro politiko zatitua aurkitu zuen, eta Bai izeneko talde euskaltzalearekin bat egin zuen, S. Michelena abertzaleak gidatzen zuena.¹⁰²⁵ Teologiako lizentzia eta doktorego ikasketak egin zituen 1944-1947 artean Comillasko Unibertsitatean, eta tarte horretan apaiztu zen. Ondoren, sona handiko apaiz gazte gisa, Arantzazuko santutegira itzuli zen teologia irakasle izateko eta tesia prestatzera. Teologiaz den bezainbatean, irakasle zurrunezi eta tradizionalistaren fama zuen, baina euskarazko eskolak ere ematen zituen, eta hor askeago agertzen zen (Zurutuza 2003: 490-494).

Ordurako kulturgintzan eta nahitaez politikagintzan kezkatuta zegoenaren froga da I. Berriatua Bizkaiko ikaskide abertzaleak 1947ko ekainean Kubako erbestetik bidali

¹⁰²³ L. Villasantek zioen 1947an izan zuela F. Krutwigen berri, orduan izendatu zutelako euskaltzain, baina ez dirudi oso probalea. ALV 1949ko ekainean hasi zen oihartzun publikoa izaten, J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiarekin. Era berean, L. Villasanteren funts dokumentalean gordetzen den F. Krutwigen lehen gutuna 1950eko apirilkoa da. Nire ustez 1949-1950ekoa da bion arteko ezagutza.

¹⁰²⁴ Nafarroako Erriberrin irakasleek giro euskaltzalea sortu zuten EBEn, baina horregatik salatu egin zituzten EGZe an (Clero Vasco 1966: 193-194).

¹⁰²⁵ Hain zuzen, ordukoa da L. Villasanteren lehen argitalpen izengabea, euskarazko «Artzai ta Santu», Tolosako *El maestro de los Terciarios* (1944) aldizkari zaharberrian (Arana Martija 1992: 37).

zion gutuna. Imanol Berriatua (1914-1981) Bizkaiko Elantxoben jaio zen. Donibane Lohizuneko Gernika Bazkunatik jasotako galdetegiaren berri eman zion, euskara estandarra sortzearen auzia hizpide zuena. I. Berriatua Habanan euskal frantziskotarren bilera apolitikoa antolatzen saiatu zen galdetegiari erantzun bateratua emateko, baina P. Lete komisarioak ez zion baimenik eman. Gernika Bazkunaren galdetegia bidali zion, Arantzazun antzeko bilera egiten saia zedin, euskal ikasketen batzorde bat sortzeko asmoarekin. I. Berriatua R. M. Azkueren gipuzkera osotuaren alde agertzen zen euskara estandarrerako.

Euskal Herrian eta Cantabria frantziskotar probintzian zegoen zatiketa politikoa («separatista/federalista» bere hitzetan) gainditzeko, politikagintza guztiz baztertea beharrezko ikusten zuen I. Berriatuak. Alde batetik, probintziaren elebitasun-kulturbitasuna aitortzea eta, bestetik, frankismo-espainolismoaren aurka berariaz ez egitea: «Todos somos hermanos, todos somos de la Provincia, todos pertenecemos al Franciscanismo Español. Esto no tiene vuelta de hoja».¹⁰²⁶ Hala ere, Espainiako eta inoiz Portugalgo frantziskotarren artean euskara ez ezik, katalana-galaikoportugesa lantzea beharrezko ikusten zuen, kulturaren bidez egitura federalista etorkizunean indartzeko asmoarekin. Eginkizun horretan, Cantabria beste frantziskotar probintzia guztien gidari ikusten zuen.

Dena dela, nazioarteko frantziskotarrekin korrespondentzian egon arren, berehala apaldu egin behar izan zuen bere asmo handinahia eta euskal lexikografia xumera mugatu.¹⁰²⁷ 1949an etsipen puntuarekin adierazi zionez, euskal apaizgaiak euskaraz formatzea zen bere kezka nagusia eta, 12 urteren ondoren, Euskal Herrira itzultzeaz zen, Bibliaren itzulpenean laguntzeko. S. Altuberen bidetik, purismo lexikoa eta neologismoak deitoratzen zituen, baina baita Baionako *Herria* astekariko sintaxi ustez erdaldundua. Probintzian elebidun hezkuntza sendoa abiatzeko, euskal testugintza nahitaezkoa zen, baina lehenago euskara estandarraren auzia konpondu behar zen. Besteak beste, EIL-SIEBekin harremanetan jarri nahi zuen.¹⁰²⁸

¹⁰²⁶ ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri eta Gernika Bazkunaren galdetegia, 1947-06-10.

¹⁰²⁷ ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri, 1947-11-15.

¹⁰²⁸ ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri, 1949-05-06.

10.16 Federico Krutwigen gutunak Luis Villasanteri

1950eko apirilaren 20an F. Krutwigekek idatzi zion lehen gutunean, gaztelaniaz eskerrak eman zizkion Cantabria frantziskotar probintziak argitaratzen zituen aldizkariak (*Aránzazu* eta *Anaitasuna*) eta *Arantzazuko Andre Mariaren egutegia* bidali zizkiolako.¹⁰²⁹ F. Krutwigekek, frantziskotarren ahalegina txalotu arren, «baserritarrei» zuzenduta zegoen neurrian, beste gizarte jomugak zituen buruan. Literatur euskaratzat jotzen zuena (J. Leizarraga-P. Axular-J. Etcheberri) gomendatu zion L. Villasanteri, kultura jasoan, zientziaren jendarteratzean edota teologian erabiltzeko. Hori garaiko egoerari zegokionez: «El día de mañana que nuestra lengua nacional se enseñe en las escuelas y colegios, su empleo podrá ser mayor».¹⁰³⁰

Literatur euskara hedatuko zukeen eskolarik ezean, frantziskotar aldizkariak egiten zuten dialektoen erabilera begi onez zekusan, baina soilik herri xeheari zuzenduta zegoen heinean. Horregatik, gaitzetsi egiten zuen erbesteko kultur aldizkariak jokabidea, lapurtera klasikoa erabiltzen ez zutelako. L. Villasanteren *Aránzazu* hilabetekariko euskarazko artikulua bat lapurteraz moldatu zuen eta gutunez bidali. F. Krutwigekek, orobat, eskerrak eman zizkion S. Michelenaren *Arantzazu* (1949) poema liburuaren ale bat oparitu ziotelako. Biak bat zetozen S. Altubek (J. Urquijo-R. M. Azkuerekin batera) euskalaritzan zuen maila apartekoarekin.¹⁰³¹ *Euskerak* agerkaria berriz argitaratzeko zituzten arazo batez ere ekonomikoak aipatu zizkion, diru laguntza ofizialak aski ez zirelako.¹⁰³²

1950eko ekainean M. Lecuonaren Iruñeko sarrera ekitaldira gonbidatu zuen. I. Berriatua frantziskotarra ere egun batzuk lehenago ezagutu zuen Ribera kaleko egoitzan. S. Michelenaren poema liburuari egindako kritika bidali zion eta N. Ormaechearen *Euskaldunak*, argitaratu baino lehenago, irakurria zuela adierazi.¹⁰³³ Ekainaren 28an euskaraz idatzi zion berriz Arantzazuko santutegira. Badirudi frantziskotarrak F.

¹⁰²⁹ Kontuan hartu behar da garaian euskarazko testu arruntak agertzen zituzten salbuespenezko kasuak zirela, Eliza katolikoaren babesari esker. Arantzazuko Andre Mariaren egutegia 1947tik argitaratzen zen eta 25.000 ale inguru banatzen zituen Gipuzkoan bereziki (Intxausti 2014a: 188-190).

¹⁰³⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-04-20. Zoritzarrez F. Krutwigekek idatzitakoak baino ez dira gordetzen, L. Villasantek idatzi zizkionak seguru asko desegin egiten zituzten hura 1952an erbestera zenean.

¹⁰³¹ JLA-FK: MITXELENA'k, A. S. (1949): *Arantzazu: euskal-sinismenaren poema*. Oñate: Arantzazu.

¹⁰³² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-05-05.

¹⁰³³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-05.

Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» (1950-03-31) irakurri eta zenbait ohar egin zizkiola. Helburua, inoiz beteko ez zuena, gramatika normatibo bat idaztea zen.¹⁰³⁴ 1950eko urrian beste gutun bat idatzi zion euskaraz. Postaz argazki bat bidali zion, S. Michelenaren liburuaren iruzkin positiboarekin batera, *Aránzazuren* azaroko zenbakian agertuko zena.¹⁰³⁵ L. Villasantek, apaltasunezko mirespenez, iruzkingilea eta haren asmoak aurkezten zituen aldizkariko hitzaurretxoan (Krutwig 1950b).¹⁰³⁶

1951ko otsailaren 1ean beste gutun bat idatzi zion L. Villasanteri. Nuevo Ateneoko Filologia saileko kideei bezala, Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarian kolaboratzea eskatu zion. F. Krutwigen ustez aldizkariak ohiko akatsa zuen, interes gutxien zituzten artikulua euskarazkoak izatea.¹⁰³⁷ Gutunean, halaber, nabarmendu zion Jon Mirande artean ezezagunak *Gernikaren* 1950eko azken zenbakian agertutako idazkia. Oso erasokorra zen eta aldizkariko zuzendaritzarekin eztabaida sortu zuen, baina F. Krutwig hunkituta zegoen haren ikuspegi apurtzailearekin: «En efecto, tiene razón que hay que escribir en vascuence algo más que cuentos de viejas o poesías o versos chabacanos».¹⁰³⁸ J. Mirandek eraso egiten zien Europako demokraziei eta haien morroitzat zituen jeltzaleei. Aldizkariaren zuzendaritzak, ulertzekoa denez, gaitzetsi egin zuen jarrera hura, baina J. Miranderen gutuneko azken paragrafoak argitaratu zituen:

Il aurait été également plus fécond de créer une véritable culture basque, et tout d'abord, de se forger une langue littéraire. Alors on n'assisterait pas à ce scandale d'une nation sans idiome propre, d'un président basque qui commence ses discours en euskera pour le poursuivre dans la langue de l'étranger (Gernika 1950: 55).

J. Miranderen alde egiteko, Bilbotik gutuna bidali zuen 1951ko urtarrilaren 15ean, eta aldizkariaren urteko lehen zenbakian argitaratu zen «F. K. S.» siglapean. Politikagintza estatalista kritikatzeko, egiazko nazionalismoak kulturala eta

¹⁰³⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-28.

¹⁰³⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-10-25. Liburua mugari izan zen gerraondoko basamortuan, euskaltasunari, erlijiotik aldendu gabe, adierazpen poetikoa eman ziolako. Abertzale baten oihu existentziala zen, garaiko diktaduran oihartzun agerikoak zituena (Agirrebaltzategi 2003: 334-335).

¹⁰³⁶ Hitzaurrea aldizkarian izengabea zen, baina F. Krutwigen 1950eko azaroaren 3ko gutunean agertzen da egilea L. Villasante zela. Jaiotzez Getxokoa, baina jatorriz aleman bezain frantsesa zela jakinarazi zion (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-11-03).

¹⁰³⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

¹⁰³⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

apolitikoa izan behar zuela argudiatuz. Erbesteko baldintza zailak artean ezagutzen ez zituen burgeskume baten ikuspuntua zen. Era berean, ALVren paraofizialtasun frankista zuritu nahi zuen, balizko estatu plurinazional baten izenean (Krutwig 1951b). Gramatika normatiborik ezean, F. Krutwig lapurtera klasikoaren aditz forma erabilienak eta «h»z idatzitako hitzak biltzen ari zen, L. Villasantek eta Nuevo Ateneo-koek erabil zituzten.¹⁰³⁹ F. Krutwigen kontrol nahiak ez zuen mugarik, eta artikuluak berari bidaltzea eskatu zion frantziskotarrari, *Gernikan* argitaratu baino lehenago zuzentzeko.¹⁰⁴⁰

Handik bi egunera, 1951ko otsailaren 3an, berriz idatzi zion gaztelaniaz, Euskaltzaindiaren idazpurudun gutuna, «h» letra daramaten hitz arrunten zerrendarekin eta aditz forma erabilienekin.¹⁰⁴¹ Gramatikaz den bezainbatean, Bizkai-Gipuzkoan egindako ahaleginak gutxietsi egiten zituen, baina lapurteraren arloan aurrekariak zeuden, bereziki Baionako elizbarrutitik sortutako lanei esker. P. Lafitteren 1944ko gramatikak ez omen zuen balio F. Krutwigen 1951ko helburua betetzeko, literatur euskara estandar bat sortzea, alegia. Aurreiritzi hori okerra eta bidegabea zen, Uztaritzeko seminarioko irakaslearen asmoa, hain zuzen, nafar-lapurtera literarioa deskribatzea baitzen, bereziki Baionako *Eskualduna* (1887-1944) astekariaren kazetaritza praktika luzean, Euskal Herrian parekorik ez zuena, oinarrituta (Lafitte 1944: 6-7).

Nolanahi den, L. Villasante animatu zuen teologiako tesiaz Donibane Lohizuneko aldizkarian idaztera.¹⁰⁴² Hori dateke, hain zuzen, F. Krutwigen eraginaren ekarpen handiena, kultura gai jasoak euskaraz lantzerantz bultzatzearena, horregatik testuaren maila beheratu gabe. Hala ere, maila formalaren lehenestea gabezia baten beste aurpegia zen, euskararen erabilera naturala ziurtatu gabe zegoen guneetatik baitzeturten. F. Krutwig jaiotzez erdalduna, hiriburu nagusiki gaztelaniadunean bizi zen, nahiz eta ALVren inguruan lor zezakeen euskaraz jardun. L. Villasante, bestalde, Arantzazu auzo euskaldunean bizi arren, erdaraz funtzionatzen zuen erakunde erlijioso bateko kide zen. Nola erdietsi zitezkeen zientziaren, artearen, literaturaren edota unibertsitatearen gorengo mailak, eguneroko erabilera oinarritzekoan huts eginda?¹⁰⁴³ Erabilera formalerako, prosa

¹⁰³⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

¹⁰⁴⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

¹⁰⁴¹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03. Zoritxarrez, gutunari erantsita bidali zizkion hiztegia eta aditz paradigma galdu egin dira. Kontuan hartu behar da R. M. Azkueren *DVEF*en (1905-1906) baztertu egin zela «h» letra. P. Lhanderen *Dictionnaire basque-français*en (1926-1938) jaso zen, baina batez ere Frantziar zabaldu zen, eta Euskaltzaindiak berak ez zuen ale osorik, 1941ko batzarrean adierazi zenez (ALV 1956: 319).

¹⁰⁴² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

¹⁰⁴³ F. Krutwigek begiz jota zuen beste idazle bat, Belokeko monasterioko J. Diharce «Iratzeder»

zen lehentasunez landu beharrekoa, euskara estandar bat finkatu nahi baldin bazen, eta hori behin eta berriz adierai zion L. Villasanteri gutunetan, erretorikoki arrakasta izango zuen Grezia klasikoarekin paralelismoa eginez.¹⁰⁴⁴

1951ko otsailaren 24an berriz idatzi zion gaztelaniaz. Eskerrak eman zizkion doktorego tesiaren lehen liburukia eta S. Michelenaren liburuko azalak jaso zituelako. F. Krutwigek, bere aldetik, kultismo hiztegiaren lehen zatia erantsi zio gutunari, 20.000 hitz arte luzatu nahi zuena.¹⁰⁴⁵ Ohi zuenaren aurka, egitasmoaren iturria aipatzen zuen, Alemaniako *Duden* hiztegi ezaguna.¹⁰⁴⁶ F. Krutwigek erantsitako zerrenda kasu honetan gorde da, folio tamainako bost orrialde dira, «a», «b» eta «d» letraz hasitako 500 hitzetik gora hartzen dituen, molde etimologista grekolatinoan: «abbreviazino», «adjunktu», «affirmativu», «adquiritu», «aktivu», etc. Zerrendak erakusten zuen ideologiaz den bezainbatean, batez ere teologo bati zuzenduta, euskal prosari eman nahi zion ikuspegi liberal modernoa nabari zen: «akatholiko», «bisexual», «bolxewik», «Dadaismu», «darwinismu», etc.¹⁰⁴⁷

F. Krutwigen ildoan egindako lehendabiziko lana, Pio XII.aren 1950eko azaroko «Munificentissimus Deus» bula dogmatikoaren itzulpena izan zen, *Aránzazu* aldizkarian (Villasante 1951a). Bilboko elizbarrutiak euskarara itzultzen zituen apezpikuaren zirkularrak baino jasoagoa, beraz. Ondoren, F. Krutwigen egitasmoa frantziskotarrei aurkezteko, *Cantabria Franciscana* barne aldizkarian «En torno al problema del vascuence» argitaratu zuen, P. Lete probintzialak begi onez ikusi zuena.¹⁰⁴⁸ Euskararen politizazioa, prestigiorik eza, eta goi klaseen (elizgizonak barne) kultur bizitza erdalduna salatu zituen. Arazo soziopolitikoetan sakondu gabe, kultur terminologiaren gaia lantzen

beneditarra zen, bion belaunaldikoa, eta salatzen zuen euskal literaturaren maila apaletik gorako poesia idazten zuena (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03).

¹⁰⁴⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

¹⁰⁴⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

¹⁰⁴⁶ JLA-FK: *Duden* hiztegiaren zenbait liburuki daude. Alde batetik, irakasle nazionalsozialisten elkarteak argitaratutako hiztegi txiki puristagoa, krutwigtarrek eskolan erabili zutena: BASLER, Otto & MÜHLNER, Waldemar (1934): *Der kleine Duden: Reichsschulwörterb. d. dt. Rechtschreibg; Für d. Volksschule*. Leipzig: Bibliogr. Inst. Bestetik, Alemaniako Errepublika Demokratikoa sortzear argitaratutako maileguzko hitzen hiztegia: KLIEN, Horst (1949): *Duden: Rechtschreibg d. dt. Sprache u. d. Fremdwörter*. Leipzig: Bibliographisches Inst.; Dresden: Buch u. Kunst. Konrad Duden-ek lehen aldiz 1880an argitaratutako hiztegiak edizio ugari izan ditu gaur arte eta hizkuntza estandarraren arlo guztiak deskribatzen ditu: ortografia, etimologia, maileguak edota ahoskera. Estatu germanofonoek geroztik *Duden* hiztegiako ortografia onartu zuten oro har.

¹⁰⁴⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

¹⁰⁴⁸ «He leído su trabajo para *Cantabria Franciscana*. Creo que no hay nada en el mismo que razonablemente pueda objetarse. Estimo que es muy útil tratar estas cuestiones en nuestra Revista interna» (ABA-EUS: P. Leteren gutuna L. Villasanteri, 1951-02-28).

zuen batez ere, purismorik gabeko literatur estandar berri bat sortzeko bidean. Lexiko hori Mendebaldeko ondaretik mailegatzeko arauak eman zituen, ustez Bilboko Nuevo Ateneo-n ere erabiltzen zirenak. Bestalde, neologismo jeltzaleak gaitzesteaz gain, J. M. Mocoeroak *Genio y lengua* (1935) saiakeran egiten zuen herri literaturaren defentsa gutxietsi zuen euskararen biziraupenerako.¹⁰⁴⁹

Ignacio Omaechevarriak (OFM) barne aldizkariaren hurrengo zenbakian erantzun zion «¿Esperanto o vascuence?»rekin. Funtsean, J. M. Mocoeroaren alde egin zuen. Euskararen bizitza herri mailan zegoen eta terminologia tekniko artifizialak ez zuen arazorik konpontzen. Euskaltzain baten aginpidean idatzitako lana zenez, L. Villasanteren hizkuntz proposamenek izan zezaketen onarpen ofizialarekiko errezeloak nabarmenak ziren. P. Lafitte euskaltzainak berak *Eusko-Jakintzan* idazlana kritikatu zuen, herri literaturaren bidetik. Purismoaren aurkako jarrera txalotu arren, F. Krutwigekiko menpekotasuna eta kulturaren ikusmolde faltsua barregarri utzi zituen (Villasante 1949-1951; Omaechevarría 1951; Lafitte 1951). I. Berriatua Foruko irakaskideak zoriondu egin zuen *Cantabria Franciscanako* artikuluaगतिक, baina berak ere gaitzetsi egin zuen F. Krutwigen bide diktatoriala, eta etsita ageri zen:

Padre Villasante, la cosa es muy difícil. Todo esto descorazona. A mí me parece que, en lo que se refiere a los valores naturales, nacionales, no hay en el mundo pueblo más desgraciado que el nuestro: incomprensión, desunión, desprecio, indiferencia. Pero no hay que echar[se] para atrás.

Esta dificultad la encuentro también en las clases de euskera. Esto de los dialectos me tiene frito. Cuánto mejor no sería que todos aprendiesen el guipuzkera osotua hasta la teología, y entonces, después de conocer profundamente el euskera, todo el euskera, se dedicasen a conocer con más detalle los dialectos para predicar y escribir para el pueblo.¹⁰⁵⁰

Ikusi dugunez, 1951ko maiatzean F. Krutwigek Nuevo Ateneo-ko Instituto Doxaren gorabeherak azaldu zizkion eta Teologia sailburu izatea eskaini zion.¹⁰⁵¹ Frantziskotarrak uko egin zion, Arantzazuko eskolekin lanpetuta zegoelako, baina bere doktorego tesiaren bigarren liburukia eta frantziskotar aldizkariak bidali zizkion.¹⁰⁵² L.

¹⁰⁴⁹ Kontuan har bedi J. M. Mocoeroa, jeltzaleen ildotik asko aldentzen zela, P. Axular eta bereziki 1887an Baionan sortutako *Eskualduna* astekaria eredutzat hartzen zituelako.

¹⁰⁵⁰ ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri, 1951-06-28.

¹⁰⁵¹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-05-28.

¹⁰⁵² F. Krutwigen gomendioz, L. Villasantek *Cantabria Franciscanako* bere idazlanaren separatak bidali zituen garaiko kultur aldizkarietara: *Eusko-Jakintza*, *BRSVAP*, *BIAEV*, *Euzko-Gogoa* eta *Gure Herria*. Uste

Villasantek jasotako kritiken aurrean, F. Krutwigek argudioz jositako gutun eta txostenak bidali zizkion, Nuevo Ateneo-ko sailkideei ere aurkezten zizkienak. Gaztelaniaren antzeko ortografia fonetiko erraza baztergarria zen, kultur maila apalaren isla zelako, frantses-ingeles-alemanarekin erkatuta.¹⁰⁵³ A. Campi3n-P. Broussainen *Informe sobre la unificaci3n del euskera* (1920) ere baliogabetu zuen, J. Leizarragaren literatur euskarari jarritako eragozpenak funsgabeak zirelakoan.¹⁰⁵⁴ Kontuan hartu behar da, bestalde, euskal literatura klasiko hori ez zela erraz eskuratzen eta oso ezezaguna zela, baita euskaltzaleentzat ere.¹⁰⁵⁵

Gernikaren 1951ko uztailleko zenbakian argitaratuko zen L. Villasanteren «Angeles Sorazu edo emakume goitarr baten berri laburra» artikulua. Atzera begiratuta, F. Krutwigen lapurtera klasikoaren bertsio bigunago hau, euskara estandarraren urrats garrantzitsu gisa agertzen da, ortografia etimologista gorabehera, gipuzkera-lapurtera arteko erdibidea bilatu eta nazioarteko terminologia bereganatzeko saioa zen neurrian. Lapurtera klasikoa hedatzeko tresna gaituena izan zen L. Villasante. Bereziki 1970etik aurrera, euskaltzainburu gisa, frogatuko zuen prosalari dohaina nabari zen ordurako. Hizkuntzaren corpusaz den bezainbatean, F. Krutwigen aukera onartzeaz gain, diskurtso mailan ere hitzez hitz euskaltzain gaztearen dizipulu gisa agertzen zen teologia irakaslea (Villasante 1951b).

F. Krutwigek, frantziskotarraren leialtasunaz konbentziturik, J. Gorostiagaren laguntzarekin euskaltzain izateko aurkeztea eskaini zion uztailaren 15ean. N. Ormaechearekiko harremana gaiztotu eta haren hautagaitzak porrot egin ondoren, Bizkaikoek J. Urquijoren aulkirako beste norbait aurkeztea erabaki omen zuten ALVren ekainaren 28ko batzarrean. F. Krutwigen asmoa frantziskotarraren hautagaitza iraileko batzarrean aurkeztea zen, J. Saint-Pierren Baionako sarrera ekitaldian, hain zuzen. Ikusi dugunez, F. Krutwig-J. Gorostiaga-N. Oleagak sinatutako aurkezpenak uztailaren 28ko

izatekoa da *Gernikara* F. Krutwigek berak bidali zuela. Era berean, hurrengo euskaltzainei bidaltzea eskatu zion: S. Altube, R. Lafon, N. Ormaechea eta A. Irigaray (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-06-13).

¹⁰⁵³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri eta «Refutaci3n a las objeciones puestas a la grafia culta de los t3rminos cultos en euskara», [1951-07-04].

¹⁰⁵⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-07-10.

¹⁰⁵⁵ J. Leizarragaren *Itun Berria* (1571) lortzeko, adibidez, L. Villasantek, F. Krutwigen aholkuz, Begoñako Carmelo-ko liburuzainarengana jo zuen. L. Aquesolok kontaktu zizkion Londresko The Trinitarian Bible Society elkarte protestanteak XX. mende hasieran egindako edizioak ere nekez eskuratu ahal zirela (ABA-EUS: L. Aquesoloren gutuna L. Villasanteri, 1951-07-31).

data zuen, baina Bilboko idazkariari abuztuaren 3an eman omen zion F. Krutwigek.¹⁰⁵⁶ Esplizitatu gabeko arazoengatik J. Saint-Pierren sarrera ekitaldirik ez zen egin, baina Donostian 1951ko irailaren 28an egindako batzarrean L. Villasante euskaltzain izendatu zuten, aurrekaririk gabeko azkartasunarekin. F. Krutwigek izendapenaren berri eman eta sarrera hitzaldia prestatzen joateko esan zion, bera aukeratu baitzuten erantzuna emateko.¹⁰⁵⁷ Are P. Lete probintzialak, izendapenaren urgentziaren erakusgarri, prentsaren bidez jakin zuen:

Ayer por una nota del periódico local me enteré con gran alegría de que ha sido S. R. nombrado académico de nuestra lengua. Le felicito con toda efusión y me alegraré que, como espero, obtenga mucho éxitos en[]este campo de actividades. Es esta una gloria para la Provincia y estoy seguro de que le hará honor.¹⁰⁵⁸

Ohiz kanpoko azkartasunarekin, sarrera ekitaldia urtea amaitu baino lehenago egin nahi zuten. N. Oleaga idazkariaren iritziz, L. Villasanteren jaioterrian egin behar zen, eta horretarako Gernikako alkatearekin hitz egiteko prest zegoen. Baina berriz ere F. Krutwigen asmoa gailendu zen, BPDko jauregian egitearena, Bilbok komunikabide hobeak zituelako eta ekitaldi publikoari publizitate gehiago emateko.¹⁰⁵⁹ Frantziskotarraren zalantzak uxatzearen, J. Urquijo hil ondoren, Euskaltzaindian zeuden iritzi ezberdinak azaldu zizkion alderdikeriaz. R. M. Azkue-S. Altube ziren gipuzkeraren alde argi eta garbi zeuden bakarrak. Frantziako kideez beste, A. Irigaray-I. M. Echaide-B. Echegaray ez omen ziren lapurteraren aurkakoak. J. Gorostiaga euskaltzain berria ere lapurterazaleen taldera erakartzen ziharduen. Azkenik, ez omen zuen M. Lecuonaren iritziaren berri zehatza. Gipuzkeraren hautua F. Krutwigek ez zuen inondik inora onartzen, Espainia-Frantzian estandar bana sortzeko arriskua ikusten zuelako.¹⁰⁶⁰ Beraz, sarrera eta erantzun hitzaldia bi-biak lapurtera klasikoak egitea nahi zuen, bere eragina ALVn sendotzeko.¹⁰⁶¹ Egia da garai horretan R. Lafonek gutunez estandarerako literatur lapurteraren alde egin ziola L. Villasanteri, sarrera hitzaldian autoritatezko iritzi gisa txertatu zuen aipuan. Baina Bordeleko Unibertsitateko irakaslearen lehentasuna filologia-hizkuntzalaritza zen, Euskaltzainditik kanpo egiten zuen ikerketa lana, eta ez euskararen

¹⁰⁵⁶ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-08-03.

¹⁰⁵⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, [1951ko urria].

¹⁰⁵⁸ ABA-EUS: P. Leteren gutuna L. Villasanteri, 1951-10-01.

¹⁰⁵⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.

¹⁰⁶⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri [1951ko urria].

¹⁰⁶¹ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.

gizarte sustapena:

Parlons d'abord de la constitution d'une langue littéraire. Je crois comme vous que le labourdin littéraire est ce qui peut le mieux servir de base. Et vous avez raison de penser avant tout à Axular et à Etcheberri. Mais je pense qu'il ne faudrait pas négliger certains écrivains du XIXe siècle, comme Elissamburu.¹⁰⁶²

R. M. Azkue euskaltzainburua 1951ko azaroaren 9an hil ondoren, ALVn ziurgabetasuna areagotu egin zen. F. Krutwigek L. Villasante animatu zuen hilaren 30ean I. M. Echaideren Donostiako bulegoan egingo zen batzarrera joatera.¹⁰⁶³ Hala ere, frantziskotarrari deialdia bidaltzea ahaztu omen zuen N. Oleaga idazkariak, eta ez zen bertaratu. F. Krutwigek abenduaren 21ean egin asmo zuten batzarrera deitu zuen. Euskaltzain berria bertan egotea oso garrantzitsua zen zuzendaritza berriko karguak bozkatuko zirelakoan. Inplizituki bere burua zuzendaritzakotzat aurkezten zuen F. Krutwigek:

Que se elija un presidente activo con un buen secretario y el Euskalzaindi revivirá, pero si por cualquier motivo cayese la elección en alguna persona inadecuada, la vida del Euskalzaindi entrará en grave peligro.¹⁰⁶⁴

N. Ormaecheak, R. M. Azkueren heriotzaren berri jakin zuenean, haren lekua P. Lafittek edota F. Krutwigek hartuko zutela uste izan zuen etsipenez (Iztueta & Iztueta 2006: 265). Ondoren N. Oleaga izan zen ezinduta geratu zena, prostata ebakuntza bategatik, eta abenduko batzarra bertan behera utzi behar izan zuten. L. Villasantek Gabonetako oporrak zituen sarrera hitzaldia prestatzeko, ekitaldia 1952ko urtarrilaren amaieran egingo zutelakoan.¹⁰⁶⁵ Baina Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra nahiz L. Villasanteren sarrera ekitaldia ez ziren 1952ko maiatzera arte egingo.

¹⁰⁶² ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.

¹⁰⁶³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

¹⁰⁶⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-12-04.

¹⁰⁶⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

11 EUSKALTZAINDI BURUGABEA: 1952KO KRISIA

11.1 «Que nos salven la lengua aunque sean los fascistas»

1952. urtea, beraz, JCV-Euskaltzaindiak R. M. Azkueren omenez antolatutako ekitaldi nekrologikoarekin hasi zen. Urtarrilaren 4an izan zen San Vicente Mártir de Abando-ko parrokiaren zinema aretoan. JCVk gonbidatutako hizlari nagusia A. Tovar hizkuntzalaria izan zen, Bilboko egunkariak iragarri bezala Egun berean Salamancako Unibertsitateko errektoreari egindako elkarrizketa argitaratu zuten. A. Tovarrek R. M. Azkueren *DVEF* bere horretan berrargitaratzea eskatu zuen, euskaltzainburuaren lana jarraitzerik ez zegoelako, dizipulu ezagatik (*CE-PV* 1952-01-03; 1952-01-04; *La Gaceta del Norte* 1952-01-04). JCVren aldetik ordezkari ugari bildu ziren aurkezpen mahaira: BPDko presidentea, Bilboko alkatea, F. Echegaray, I. Urquijo, H. Bilbao, J. B. Merino, J. Irigoyen, F. Ygartua, Conde de Superunda, B. Bureba eta X. Domínguez Marroquín. Euskaltzaindiak, idazkaria eriondo zegoenez, soilik J. M. Seminario-F. Krutwig-J. Gorostiagak osatutako ordezkari izan zuen mahaian. Ekitaldiari eman nahi izan zitzaion garrantziaren erakusgarri, C. Morcillo apezpikua eta G. Riestra gobernadore zibila ere bertaratu ziren.

BPDko presidenteak, N. Oleagaren ezin etorriaren oharra irakurtzeaz gain, I. Urquijo-A. Tovar hizlarien aurkezpena egin zuen.¹⁰⁶⁶ I. Urquijo eskuindar monarkikoa zen, J. Urquijo zenaren iloba eta JCVko buruorde efektiboa. A. Tovar falangista, 1940ko hamarkadan izandako gorabeherak igarota, Espainia Berriko intelektual handietako agertzen zen. Consejo Nacional del Movimiento-ko kide, Gorte frankistetako prokuradore eta Salamancako Unibertsitateko errektore berria zen (Junta de Cultura de Vizcaya 1952: 7-8).

Euskaltzainburuaren omenezko Nuevo Ateneo-ko hitzaldiek sortutako istiluen ondoren, ALV lekuko mutu izatera mugatu zuten ekitaldian. Gainera, J. M. Seminario falangistaren presentzia politikoki esanguratsua berreskuratu zuten. I. Urquijok R. M. Azkueren nekrologia xumea egin zuen baina bizkaieraz, seguru asko BPDaren erakunde bateko kide batek ekitaldi publiko batean euskaraz egindako lehen saioa EGZaren

¹⁰⁶⁶ ABA-EUS: N. Oleagaren oharra JCVri, 1952-01-04.

ondoren (cf. *CE-PV* 1952-01-05; *La Gaceta del Norte* 1952-01-05). JCVk erabateko lehentasuna eman zion ekitaldiaren argitalpenari, urtarrilaren 24an batzartu zenean.¹⁰⁶⁷ JCVk, halaber, laguntza eskatu zion N. Oleagari argitalpena biografia labur batez osatzeko. Liburuxka udarako prest egon zen, ohi ez bezalako azkartasunarekin, nahiz eta ordurako beste krisi batek egin zuen eztanda gero ikusiko dugunez.¹⁰⁶⁸

A. Tovarrek Bilboko bisita baliatu nahi izan zuen N. Oleagarekin biltzeko, baina ez zuen astirik izan.¹⁰⁶⁹ Arrazoi politikoengatik aukeratu bazuten hitzaldia emateko, apaltasunez eta errespetuz hitz egin zuen 32 urtez euskaltzainburu izan zenaz. Laburra izanagatik, segurua asko garaian egin zen azterketa onena da, gaur egun ere erabilgarria. R. M. Azkuek bere idazlan nagusietan folkloreakiko maitasuna eta akademizismo normatiboa nola uztartu zituen aztertu zuen (cf. Kintana Goiriena 2008: 166-167). N. Oleagaren erantzun hitzaldiaren bidetik, euskararen etorkizun beltza aitortu zuen hipokresiarik gabe, eta N. Ormaechearen *Euskaldunak* poema goraiatu zuen, literatur estandarraren sortzaile izan zitekeelakoan. Dena dela, J. Urquijo-R. M. Azkueren hutsune erraldoiak betetzeko jarraitzailerik ez zegoela adierazi zuen. Euskaltzainei, eta bereziki lapurtera klasikoa zarata handiarekin hedatu nahian zebilen F. Krutwigi, zuzendutako ohar zentzagarritzat har zitekeen. Abertzaleei, orobat, langa politikoa ezarri nahi izan zien:

¿Quiénes son sus continuadores y discípulos? Forzoso será si hacemos un detenido examen de conciencia que confesemos que nadie. Las generaciones siguientes, más débiles, más infortunadas, han sido devoradas por la política. El amor a la lengua, a la tradición, al pasado auténtico de estas montañas, se ha enredado en peligrosas aventuras, y ahí está la prueba bien visible de tal peligro. La lengua y la tradición vascas han perdido a sus dos mejores guardianes sin que se vea quien puede dignamente heredarlos. Podemos sentirnos, por lo que respecta a tales estudios en verdadera orfandad. Hasta su último día, D. Resurrección ha acudido a la Academia de la Lengua Vasca casi solo, sin estar rodeado, como merecía, de algunos discípulos celosos y modestos, capaces de aprender de él el amor al pasado y el respeto a la milenaria lengua.

Ahora vemos cómo está comprometida la herencia de de don Resurrección. Esta

¹⁰⁶⁷ F. Echegaray, J. B. Merino, F. Ygartua, I. Urquijo, Conde de Superunda, H. Bilbao, J. Irigoyen, C. Lastera eta E. Calle batzartu ziren (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-01-24, Junta de Cultura C-62).

¹⁰⁶⁸ ABA-EUS: E. Calleren gutuna N. Oleagari, 1952-01-21, eta JCVren ofizioa Esukaltzaindiari, 1952-08-14.

¹⁰⁶⁹ ABA-EUS: A. Tovarren gutuna J. Oleaga semeari, 1952-01-09.

maravillosa reliquia que vive en los labios de los caseros del país, se halla por todas partes amenazada. Amenazada por el progreso y por la industrialización, amenazada por la política entre la incomprensión y la creación de neologismos, amenazada en su autenticidad por los intentos de unificación artificial... Sigamos, contra todas estas corrientes, la ruta iniciada por D. Resurrección: estudiemos la auténtica tradición y el que tenga por nativa la lengua euskérica, y la elija para en ella crear literatura, que en ella se inserte con el respeto que para el dialecto nativo tuvieron los más grandes escritores del pasado (apud Junta de Cultura de Vizcaya 1952: 38-39).

F. Krutwigi arazoak modu kezkarrian pilatzen ari zitzaizkion. J. M. Ruiz Salasek kexua adierazi zion Euskaltzaindiari 1951ko abenduan R. M. Azkueren omenez antolatutako hitzaldiengatik. Baina Nuevo Ateneo-ren barruan ere istilu larriak zituen; F. Krutwig separatistatzat salatzen ari baitziren zuzendaritzatik. Hori guztia gutxi balitz, *Gernika* aldizkariaren arduradunekin hautsi egin zuen oso modu txarrean. 1951ko abenduan gutun bortitza bidali zion I. Fagoagari (Iztueta & Iztueta 2006: 266). F. Krutwigen bertsioaren arabera, ordurako Buenos Airesen zegoen I. Fagoagak aldizkariaren euskarazko atala murriztu nahi zuen, eta erabaki horregatik adierazi zion ez zuela *Gernikan* gehiago idatziko eta berak lortutako lankideei jakinaraziko zuela.¹⁰⁷⁰ *Gernikako* zuzendariak N. Ormaecheari kontatu zion bertsioak, ordea, euskaltzain gaztearen aurpegi ilun eta manipulatzailea erakusten zuen:

Le decía en mi precedente que Krutwig, por sus excesivas pretensiones y despotismos, me había creado un conflicto, pues se permitía, no sólo enmendar la plana a los Villasante Kortabitarte, Erkiaga, Arruza y demás, sino que pretendía que los Dufau, Mirande y demás escribiesen conforme a su ortografía, mandándole modelos sobre artículos ya publicados de cómo debían ser escritos. A tal punto llegó su despotismo que me conminó a enviarle el texto castellano del Editorial que anualmente consagro en euskera a la destrucción de Gernika, para que él lo vertiera al euskara. Ya usted ha visto cómo he reaccionado: escribiendo yo mismo y directamente en mi euskera bidasotarra el referido texto, por cuya aprobación le doy a usted las gracias. Todo esto lo soliviantó de tal modo que me escribió la carta más injusta y grosera que imaginarse puede, amenazándome con retirar su colaboración y la de cuantos él me presentó que son casi todos bilbainos colaboradores. Más aún: me amenazó con influir cerca de los suscriptores para que se dieran de baja. A este atropello contesté con los actos; es decir, retirando sus trabajos, ya compuestos, de *Gernika* y anunciándole por terceras personas (Thalamas y la Sta.

¹⁰⁷⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

Eguidazu) que le contestaría, poniendo las cosas en su punto, en una carta abierta en *Gernika*. Esto lo sacó, si cabe, más de sus casillas y enseñando su entraña teutónica, amenazó a la pobre Mertxe [Eguidazu] con que si se publicaba dicha carta denunciaría la entrada de la revista (clandestina) en España (apud Iztueta & Iztueta 2006: 476).

Artean F. Krutwigen zintzotasunaz konbentzituta, N. Ormaecheak 1951ko otsailean haren aurka idatzitako artikulua zentzuratu bazuen, oraingoan ez zen horrelakorik gertatuko. *Gernikaren* 1952ko urtarrileko zenbakian, R. M. Azkueren omenezko artikulua sailaz gain, N. Ormaechearen «Ciencia y práctica de nuestro idioma» artikulua agertu zen. H. Gavel-S. Altuberekin hizkuntzalaritzaz polemizatu ondoren, F. Krutwig-L. Villasante tandem berria iraindu zuen oso gogor:

El señor Krutwig tiene un discípulo y seguidor. Veremos si hace escuela. El «tolle-tolle» que le han levantado, más en privado que en público, según cartas que recibo, es verdaderamente épico. Digamos ante todo que de lo que no se hace, no queda. Que nos salven la lengua aunque sean los fascistas (Orixe 1952a: 26).

Artikulu horrek etsipen handia sortu zuen F. Krutwigen inguruan biltzen zirenen artean; bereziki *Gernikako* zenbaki berean «Euskararen hel-oihua» artikulua lapurtera klasikoz idatzi zuen E. Erquiagarengan. Nuevo Ateneo-ko kide izandako J. E. Iranzok ere beraren alde egin zuen zenbaki bereko «Unamuno y el vascuence»n. Are F. Krutwigen lan labur bat agertu zen «Euskal-Erria» eta «Euzkadi» hitzen arteko ezberdintasun semantikoaz (Erkiagarre 1952a; Iranzo 1952; Krutwig 1952a). E. Erquiagak sarrera hitzaldia irakurtzear zegoen L. Villasanteri idatzitako gutunean, F. Krutwigen bidetik baztertzeko nahia agertu zuen. Euskaltzaindian bertan lapurtera klasikoak ez zuen harrerarik, eta erbesteko euskaltzaleak ez ezik, are GPDko liburuzaina aurka agertzen zen:

Zuri au esateko eskubiderik ez tute, ziñez, egun auetan beintzat, baiña egia agertzea beti ere, zerbait egoki da. Gure laphurdiara zaletasun onek ez tute batere giro egoki edo ambienterik. Bear ba da, nik baino leenagotik zenekian, baiña nik oraintxe ikusi dut argi argi. Euskaltzale ez tirenei bost ardura zaie, iakiña ba! Eta euskaltzaleen artean, ioan dan urte bete inguru ontan, bat ez bat ez tute aurkitu gure bide zaar-berri oien aldezkorik. Akademiku guztietatik asi, eta ez tiran azkenetaraiño, batxu bat aurkitu ez...!

Ni, Atsularrez gustaturik, pozik asi nintzan bide aratz, baiña orain zalantzaz bete naiz, eta etsi-agiñean naukazu. Ain zuzen ere, aste ontan berton, beste gauza bi iaso zaizkit:

Altuberen La Vida del Euskera irakurten diardut, eta amaitu baiño leen, gure bide oiek egokiak ez tirela izango ulertu dut, aintziña Euzkeltzale Bazkunakoenak izan etziran bezala; eta bestetik, Artetxetar Joxe-k, eskutitz baten, «basterrak nasten asiko ote garen ortografi berri» oitaz. Gizon au, zentzun aundikotzat daukat. Bion esanak, bada, barnean zirrara sakon egin didate. Zer egin bearuko?

Eta azkenez, azkenez gaurko, «Gernika»-ko oiekin ere eztaikit nola gagozan, Krutwig iaunaren karta bat dela bide. Oso asarre dira, eta egun gutiren buruan azalpenen bat iaso ezpadezate, errebistaren orrietan asarre sumina agertuko omen dute aren aurka. Are geiago: Fagoagaren karta bat eta 18-garren zenbakia artu ditut. Emen, «Orixe», zure aurka ari da irriz eta isekaz, eta orobat Krutwigen aurka, berriz ere. Eta ori, ez unek ez zuk ere eztuzuela merezi uste dut, —iñoren irrigarri izaterik,— zintzo iokatu duzuela uste baitut gure euskera gaixoaren alde. Pentsa daigun bada ondo: euska[ra]ren alde ezer egokirik ez egitekotan, ez nuke nai, ene Aita xalo ori, rridikulu kutsurik artu dezazuen, ez ark ez zuk. Orra nire batbateko biozkadak.¹⁰⁷¹

F. Krutwigek berehala L. Villasanteri idatzi behar izan zion, hura lasaitzeko. Oso baldarki, N. Ormaechea politikoki integristatzat jo zuen, eta M. Eguileor jeltzaleak ere hari jaramonik ez egiteko adierazi omen zion.¹⁰⁷² Barnealdean separatistatzat eta erbestean faxistatzat salatua, euskaltzain gaztea maniobrarako espaziorik gabe geratzen ari zen. N. Ormaechearen artikuluekiko errepresalia modura, poliziara izen-abizenekin jotzeko mehatxua berritu zion *Gernikako* J. Thalamási, bera politikoki erasotzen jarraitzen bazuten. Joko zikin horren bidez *Gernikako* mehatxuak neutralizatu zituen (Iztueta & Iztueta 2006: 476-477). Esaterako, A. M. Labayen urgazleak F. Krutwigen artikuluen aurka idatzitako erantzuna ez zuen argitaratu nahi izan I. Fagoagak. Tolosako abertzaleak, dena dela, ez zin zituen ahaztu J. Thalamás-F. Krutwigek EAJ-PNVri *Gernikan* egindako kritikak, eta pozik jakin zuen bion arteko hausturaren berri.¹⁰⁷³ *Gernikako* arduradunek ez zituzten F. Krutwigen aurkako eraso zuzenak argitaratuko, baina giroa zerbait baretu ondoren, A. Ibinagabeitiaren diplomazia handiko artikulua plazaratuko zuten 1952ko urrian. Parisko erbesteratuak lapurterazaleen planteamenduen okerrak nabarmendu zituen, eta bide batez, gipuzkerazaleek *Eganen* agertutako idatzien alde agertu zen. Era berean, bera Bizkaiko izateak ematen zion autoritate moralarekin, Gipuzkoako idazleei eskatu zion dialektalismoak ahal zen neurrian baztertzea,

¹⁰⁷¹ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1952-02-20.

¹⁰⁷² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

¹⁰⁷³ ABA-AIB: A. M. Labayen -A. Ibinagabeitia arteko gutunak, 1952-02-25, 1952-02-27, 1952-03-06 & 1952-05-22.

euskaltzainburu zenak *Gipuzkera osotua* (1935) egitasmoan adierazi zuen bezalaxe (Ibinagabeitia 1952c).

F. Krutwig, ondorioz, bere ideiak hedatzeko tresna izandako plataformarik gabe geratu zen. *BRSVAP*en artikulua argitaratzeko aukera ere ez zen gauzatuko.¹⁰⁷⁴ RSVAPen aldizkarian ez ziren argitaratzen euskarazko saiakera soziolinguistikoak. Gainera, elkarte frankistatzat jotzen zen RSVAP. Paradoxikoki, Guatemalako *Euzko-Gogoa* zen geratzen zitzaion aukera bakarrenetakoa, gerraondoko Euskaltzaindiarekiko oso kritikoa. J. Zaitegi zuzendariak, R. Olabide puristaren jarraitzailea, honela deskribatu zituen euskaltzain gaztearen saioak 1951ko uztailean: «Or datorkigu, ordea, Krutwig lengo auzi zarrak berritzen, urteotan batasunaren alde egin ezpaikenun: gaberdiko mozolo ederra, benetan» (Zaitegi 2007: 148). Martxo inguruan J. Zaitegui gutun «araitsu» bat idatzi zion aldizkarirako kolaborazioak eskatzeko.¹⁰⁷⁵ Hain zuzen, F. Krutwigek martxoaren 15ean erantzun zion. N. Ormaechearekin izandako istiluak alde batera utzita, aurreko urtetik irakurtzen zuen Guatemalako aldizkaria goraiatu zion, kultura jasoa hedatzeko tresna zelako, baserritarrei zuzendutako Frantziako prentsa ez bezala. Izan ere, kultur elitismoan bat egin zezakeen eskola jesuitikoarekin, A. M. Labayen eta abarrekin ez bezala.¹⁰⁷⁶ Nolanahi den, *Euzko-Gogoarako* hainbat idazlan bidaliko zizkiola agindu zion.¹⁰⁷⁷

N. Ormaechea-I. Fagoagarekin izandako arazoak bideratuta edo gutxienez estalita ziruditen. Kontuan hartu behar da J. Zaitegui gorabehera guzti horien berri bazuela, baina zurikeriaz jokatzea erabaki zuen, aldizkarien arteko lehia iradokitzen duena (Iztueta & Diaz 2007: 283, 295). Hain zuzen, martxoaren 30ean berriz idatzi zion F. Krutwigek, eta *Gernikakoen* euskararekiko jarrerara salatu zion. Guatemalako aldizkariarentzat harpidedunak bilatzeko prest agertzen zen.¹⁰⁷⁸ Gutunarekin batera, J. M. Seminario-R. Lafonen sarrera ekitaldietako erantzunak eta R. M. Azkueren omenezko hitzaldia bidali zizkion, *Euzko-Gogoaren* 1952ko zenbakietan argitaratuko zirenak, urtebeteko

¹⁰⁷⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

¹⁰⁷⁵ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-03-18.

¹⁰⁷⁶ Ildo horretan, J. Zaitegui Sofokles itzultzeko ahaleginen pare jartzen zituen IICJUko kideak egiten ari omen ziren itzulpenak: E. Erquiaga (Platon), B. M. Garro (G. W. Leibniz), M. Arruza (R. Descartes) eta F. Krutwig bera (A. Schopenhauer). Itzulpen plangintza hori I. Berriatuarekin (OFM) asmatutakoa omen zen, idazlearen sormen maila oso apala zelako (Krutwig 1986b: 14-15).

¹⁰⁷⁷ ABA-ZAI: F. Krutwigen gutuna J. Zaitegui, 1952-03-15. Gutunaren zati bat *Euzko-Gogoan* argitaratu zen 1952ko azken zenbakian (Euzko-Gogoa 1952).

¹⁰⁷⁸ Lehenago, *Gure Herriarako* eta *Gernikarako* 30 eta 70 harpidedun lortu omen zituen, hurrenez hurren.

atzerapenarekin, J. Zaiteguik ezin ziolako aurre egin esku hartean zituen eginkizun guztiei (Krutwig 1952b; 1952c; 1952d; cf. Ibiñagabeitia 2000: passim).

J. M. Seminario-J. Gorostiaga-N. Oleagaren hitzaldiak ere bidaltzen saiatuko zela agindu zion, modu horretara *Euzko-Gogoa* bilakatu nahi zuela ALVren agerkari paraofiziala, *BRSVAP*ekin konkurrentzia arriskutsuan. J. Gorostiagaren «Bizkai zaharreko izenak» F. Krutwigek apirilean bidali zion eta 1952ko maiatzeko zenbakian agertuko zen.¹⁰⁷⁹ Ez ordea beste bienak, seguru asko arrazoi politikoengatik: «Seminario iauna guztiz faxista baita goganbehar̄tsua da, eta orain niri baietz erranagatik' beharr bada geroz ezetz er̄an diroke».¹⁰⁸⁰ Dena dela, kontuan hartu behar da Guatemalako aldizkaria nekez argitaratu eta atzerapen handiarekin iristen zela Espainia frankistara. Era berean, F. Krutwigek «h» letradun hitzen zerrenda eta Euskaltzaindiaren batzarrean irakurritako «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» txostena bidali zion, bere estandarrerako proposamenak azaltzeko. Hain zuzen, L. Villasanteren sarrera hitzaldiak gai hori landuko zuela aurreratu zion: «Lan handi ta sakona egin du (85 orrialde folio); problema haur sakonkiro traktatzen du eta lan haur' orai-arte egin diren ikherrpen errotikoena dela uste dut».¹⁰⁸¹

L. Villasantek «En torno al problema del vascuence» artikuluekin sortutako eztabaidak bizirik jarraitzen zuen. J. M. Mocoeroak 1952ko apirilaren 13an Madrildik «Carta semi-abierta al R. P. Luis Villasante Kortabitarte» idazlan luzea bidali zion, eskolapioaren *Genio y lengua* (1935) saiakerari egindako kritikak puntuz puntu ukatzeko.¹⁰⁸² Frantziskotarrak ez zion zuzenean erantzun, baina *Cantabria Franciscanan* argitaratutako «Aclaraciones a ¿*Esperanto o vascuence?*» bidali zion, F. Krutwigen aipu luze batekin amaitzen zena. Erabat sututa erantzun zion eskolapioak, frankismoak toleratutako erakundearen babesa erabiltzen zutelako zilegitasun politikorik gabe aberrazio zentzugabeak inposatzeko:

Son tan garrafales los errores filológicos que en él se destacan, que aun mirando por el buen nombre de los estudios vascos —bastante acreditados entre nosotros hasta 1936, en que la fuerza bruta paralizó su desarrollo normal— sería recomendable que depusiesen Vds. todo aire de suficiencia y tono doctoral al discurrir y dar opinión sobre estos temas.

¹⁰⁷⁹ ABA-ZAI: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-04-19.

¹⁰⁸⁰ ABA-ZAI: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-03-30.

¹⁰⁸¹ ABA-ZAI: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-03-30.

¹⁰⁸² ABA-AIB: J. M. Mocoeroaren gutuna L. Villasanteri, 1952-04-17, eta J. M. Mocoeroaren «Carta semi-abierta al R. P. Luis Villasante Kortabitarte», 1952-04-13.

Al decir Vds., me refiero a los dos coautores del escrito, que, además de arrogarse algo así como la representación cultural y el dominio de la Lingüística, dan la impresión de querer amenazarnos con la guillotina académico-convencional... de sus decretos leyes. No nos tuvieron acostumbrados a esas formas —tan a[j]enas a la ciencia como a la idiosincrasia de nuestro pueblo— aquellos tan modestos como eminentes varones que fundaron Euskaltzaindia y consiguieron ganar a la institución el respeto y la confianza de la generalidad de los vascos.¹⁰⁸³

Belaunaldi zaharreko euskaltzaleak oso minduta zeuden F. Krutwigen jarrerarekin. Azken bi urteetan Gipuzkoan neke askorekin argitaratutako N. Ormaechea, A. Sorarrain (OFM), P. Múgica (SI), N. Echániz edota S. Michelenaren (OFM) liburuen ondoan, Bilboko Nuevo Ateneo-ren asmo bete gabeak edo F. Krutwigen artikulu handinahiak, huskeriak ziren, euskal kulturaren agerikotasun publikoaz den bezainbatean. *Euzko-Gogoaren* 1952ko lehen zenbakian, uztailean arte Europan zabaldu ez zena, F. Krutwigen «Nibbana» poema hinduista argitaratu zen, baina baita A. M. Labayenen «Euskera'ren batasuna» artikulua, ezizenpean, berriz ere gipuzkera osotuaren tradizioa aldarrikatu eta euskaltzain lapurterazalearen asmoen aurka eginda (Labayen 1952).¹⁰⁸⁴ Urgazle jeltzalearen oposizioa F. Krutwigen asmoekiko erabatekoa zen, 1952ko apirilean J. Zaiteguri adierazi zionez: «Eroa ezik arroputza gañera. [...] Euskaltzaindi'n izan bearrean *maniconiumean* bear lukena» (apud Iztueta & Diaz 2007: 303). Hain zuzen, A. M. Labayenek ezin zuen ulertu nola izan zitekeen L. Villasante bezalako buru argia haren gogaide. Gutunez zuzendu zitzaion frantziskotarrari, horrek *Cantabria Franciscanan* idatzitako artikulua zela-eta:

Oker bat bakarra arkitzen dut bertan: alegia euskera prantzesa ala espainiera-ren malla berdiñean jarri nai izatea: gure izkera era berean neurtzea. Ortatik jakiña, ondorengo okerrak ateratzen zaizkigu.

Zoritxarrez, oraingoz ez daukagu gurea aiekin aldeatzerik. Aiek aundi ta altsu, gurea berriz, txiki ta urri bait dugu (jendez beintzat). Goi-kultura gaietan aiengana jo bear nai ta nai ez. Beraz ez dugu ene ustez Euskal Universitate bat izateko presa aundirik; ikaskizun oro euskeraz emango diran Ikastetxe Nagusia beinik bein. Geiegi eskatzea litzake. Gauden era apalean [...] «programa minimo» batekin = Kristau-Ikasbide, Histori

¹⁰⁸³ ABA-AIB: J. M. Mocoaroren gutuna L. Villasanteri, 1952-05-21.

¹⁰⁸⁴ ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna A. M. Labayeni, 1952-07-23. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibiñagabeitia 2000.

deuna, Literatura errikoia: ipui abesti, antzerkitxo eta abar. Sciencia Natural edo Izadiaren gauza jakingarriari buruz, lenengo mallako «hatsapenak». Bi izkera diran lekuan, indartsuenak aulena jaten duna ba dakit: aberatsak txiroa. Onen aurka, —euskaldunok «diruzalekeria» sartua bait dugu beste griña nagusiak bezala— ez dugu «abertzaletasun» birtutearen indarra baizik. Eiretar, flamendar, eslovakotar eta abarri geiago komeni zaie, ingles, prantzes ala alemanera mintzatzea, baña abertzaletasunez bereari eusten die. Ez al da orrela? Guretzat ere ori bera bedi eutsigarri. Geiegi eskatzea kaltegarri.

Orregatik Bilbao'ko Ateneuan Plato, Descartes, Leibnitz eta Schopenhauer euskeratzen ari dirala entzutean nire baitan diot: kaskotik ondo al gaude? Ez ote da ori egiazko problematik iges egitea? Nire iritzi motzean bear ditugunak: *Goretti, Ama-Semeak Arantzazu-kondairan*, Etxaniz'en *Nola idatzi euskeraz-Kanta kantari, Noni eta Mani* eta antzeko idazlanak dira.

Orain galdera bat konpianza osoan: zuk ondotxo ezagutzen dezun Krutwig jaun ori burutik ondo dagona dala al derizkiotzu? aren lan batzuek irakurri ditut Gernika aldizkarian eta benetan ez dut sekulan irakurri ain sasi-euskera egoskaitzik... Ori ez da ez lapurtar ez ezer, ijito-izkera baizik. Bertsoetan berriz ez oin, ez mutur! ez neurri ta ez belarri. «Erlkoenig-Schicksalslied-Deo Ignoto» (Jainko ezjakiña!) baldarkeri utsak! Eta jaun orrek Schopenhauer itzuli nai al du? Nora goaz bide ortatik? Sortu duan «sistema» da gauza bat: ondo euskeraz egitea bestea.¹⁰⁸⁵

11.2 Euskaltzaindiaren zuzendaritza berrosatzeko saioa

Izan ere, Euskaltzaindia inplikutzen zuten arazo guzti hauek areagotu egin zituen J. Urquijo-R. M. Azkuek utzitako autoritatearen hutsuneak. Euskaltzainburuaren heriotzak, N. Oleaga idazkariaren eriondoak eta ALVk bizitza normala berreskuratzeko zituen arazoan ondorioz, Euskaltzaindiak ez zuen batzarrik egin bost hilabete luzez. 1951ko azaroaren 30ean egindakoaren hurrengoa, 1952ko maiatzaren 9koa izan zen. Nire ustez, tarte horretan Euskaltzaindia desagertzeko arriskuan egon zen. Idazkariak batzarraren garrantzia gartzigatu zien euskaltzainei, hurrengo gaiak erabakitzeke asmoa baitzuten: «Euskaltzaindiaren befikuntzea, Euskaltzaingo utsak betetzea, Euskaltzainburugoa ornitzea ta abar».¹⁰⁸⁶ Donostian batzartu ziren hurrengo sei kideak: A. Irigaray, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga, N. Oleaga eta L. Villasante. Euskaltzain horiei, erbestetik itzultitako J. Cincunegui urgazlea gehitu zitzaizen, EAJ-

¹⁰⁸⁵ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-04-27.

¹⁰⁸⁶ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia, 1952-04-26.

PNVko kide eta seguru asko EBBari informazioa emateaz arduratu zena.¹⁰⁸⁷ Batzar honen agiriaren kopia mekanografiatu sinaturik ez dago, eta beraz ez zen ofizialki onartu. Gordetzen dena N. Oleaga idazkariak egindako agiri zirriborroa da.¹⁰⁸⁸

Hilabete ugari igaro zirelako azken batzarretik, gaiak pilatu egin zitzaizkien. A. Irigarayk, mahaiburu gisa, zenbait azalpen eman zituen. Seguru asko I. M. Echaide buruordearen ezin etorriaz aritu zen, euskaltzainburu berria izendatzeko asmoa zegoela ikusita, hutsune nabarmenegia baitzen. Erbesteko presioak bere horretan jarraitzen zuen, N. Ormaecheak zuzendaritza I. López Mendizábal jeltzaleari zegokiola adierazi baitzuen: «Auzi ori dala bide, gure Ixaka zintzoa, lenbizitik barnean egon bear zukena, ez zan beñere sartu Euskalzaindian. Gaur etxean ba'geunde, alkidun ez ezen, Buru egin bear genuke. Oinbeste lan eta ain ongi egin dulako, zor zaio, naski» (Orixe 1952b: 270).

Nolanahi den, Bizkai-Gipuzkoa arteko harremanak ez ziren oso arinak. Donostian bi euskaltzain besterik ez egoteak mugatu egiten zuen bikotearen jarduna. A. Irigarayk, 1951ko irailean M^a Rosa Imaz emaztea galdu zuen eta bere kargu geratu ziren lau seme-alabak. Secundino Esnaola kaleko kontsulta ondoko etxera aldatu zuen bizitokia, eta oso lanpetuta zebilen (Irigaray 1985: 22). N. Oleaga eri egon bitartean, I. M. Echaide F. Krutwigen bidez konpontzen saiatu zen, baina euskaltzain gaztea bere tirabiretan murgilduta zebilen. 1952ko lehen hiruhilekoan, hiru aldiz galdetu zion gutunez idazkariaren egoeraz, baina F. Krutwigek ez zion erantzun. Gogaituta, J. Gorostiagarengana jo behar izan zuen Bilboko berrien eske.¹⁰⁸⁹

Euskaltzaindiaren egoera ahula diru laguntza ofizialen murrizketan ere ageri zen. I. M. Echaide, besteak beste, GPDaren 1951ko 3.000 ptak Bilbora bidaltzeaz (1952-01-09) arduratu zen eta 1952rako diru laguntzarik emango ez zutela jakinarazi zuen. Hain zuzen, GPD-NFDaren diru laguntzen berritzea argitu gabe zegoen.¹⁰⁹⁰ 1950ean, aurreko urteetako aurrekontuaren halako bi (16.000 pta) biltzeak sortutako itxaropenaren ondoren, 1951ko aurrekontua berriz ere itzuli zen ohiko 8.000 inguru ptara, seguruenez ALVn sortzen ari ziren arazoak diputazioetako agintariengana iritsi zirelako. Gainera, 1951ko greba orokorrak diktadura frankistaren jarrera gogortu egin zuen. 1950ko aurrekontu bikoitzarekin, aurre egin ahal izan zitzaion 18 euskaltzainez osatutako batzar

¹⁰⁸⁷ SAF-AA: E. Echeverriaren gutuna [D. Ciaurrizi?], 1951-08-27, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

¹⁰⁸⁸ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1952-05-09.

¹⁰⁸⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. Gorostiagari, 1952-03-25.

¹⁰⁹⁰ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1952-04-02.

dieten eta sarrera ekitaldien gastuei. Baina NFDak 1950ean 5.000 pta eman ondoren, 1951-1952an ez zuen diru laguntzarik eman. EAJ-PNVren buletinak GPDak diru laguntzarik emango ez zuela jakin bezain laster, ez zuen aukera galdu: «Ori egin baidu orain Gipuzkoar Aldundi zipotz onek: Euskaltzaindiari ematen zion limosna ori kendu» (*Alderdi* 1952-09). Azkenik, Bizkaiko agintariekin izandako istiluen ondorioz, JCVk 1951ko azken hiruhilabetekotik ez zuen Euskaltzaindiaren kontuan dirurik sartzen. 1951ko aurrekontuan, Bilboko Udalaren 1.000 ptak berdindu zuten JCVren hutsegitea. Zorionez, R. M. Azkue zenaren liburu ugari salduta 2.515,45 ptako diru sarrera izan zuen ALVk 1951n. Hala ere, urteko gastuak (11.780 pta) berriz ere izan ziren diru sarrerak baino handiagoak. Ohiko egoitzaren, langileen eta batzar dietez gain, aldizkarien harpidetzak eta euskaltzain berrien sarrera ekitaldien prestaketak gastu gehiago sortu zituzten. 1952an Euskaltzaindia inolako diru laguntzarik gabe agertzen zen. Urte amaieran soilik Gipuzkoako CAPak emango zituen 1.000 pta, eta Euskaltzaindiak urriaren 29an R. M. Azkueren pianoa salduta baino ez zuen lortuko 4.000 pta eskuratzea, berriz ere urteko 8.5000 pta inguruko gastuen azpitik geratuta.¹⁰⁹¹

Maiatzeko batzarraz den bezainbatean, L. Dassance-B. Echegarayk ezin etorria adierazi zuten gutun bidez. Uztaritzeko alkateak egun horretan L. Terrier Baionako apezpikuaren bisita zuen haurren konfirmazio erlijiosorako. Era berean, idazkariari jakinarazi zion J. Elissalde, P. Lafitte eta hirurek J. Moulier «Oxobi» Arrangoitzeko erretorea lehenesten zutela J. Saint-Pierre apezpiku zenaren aulkia betetzeko.¹⁰⁹² B. Echegaray jakitun zen batzarrean hartu beharreko erabakien garrantziaz, baina gaixo jarraitzen zuen Madrilen, erorikoen eta biriketako kongestioen ondorioz.¹⁰⁹³

R. M. Azkue zenaren omenez JCVk eta Nuevo Ateneo-k egindako ekitaldien berri eman zen. Atzerapen handiarekin, J. M. Barandiaranek eta NFDak bidalitako dolumin mezuak jakinarazi zituzten. J. M. Arellano presidente zuen NFDak 1951ko azaroaren 30eko batzarrean erabaki zuen doluminak ematea eta abenduaren 7an jakinarazi zion ALVri.¹⁰⁹⁴ P. Lafitteren bidez, H. Gavelek ere doluminak eman zituen. J. M. Barandiaranek, Ikuskaren eta *Eusko-Jakintza* aldizkariaren izenean, abenduaren 15era arte ez zion I. M. Echaideri idatzi gutuna.¹⁰⁹⁵ EIL-SIEBen aldizkarian eskaini zion

¹⁰⁹¹ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1950-1952.

¹⁰⁹² ABA-EUS: L. Dassancen gutuna N. Oleagari, 1952-05-02.

¹⁰⁹³ ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-05-06.

¹⁰⁹⁴ ABA-EUS: NFDaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1951-12-07.

¹⁰⁹⁵ ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutuna I. M. Echaideri, 1951-12-15.

nekrologian zuzen baina hotz goraiatu zuen euskaltzainburuaren lana: «*Magnum opus fecit* esan zidan London'en egun batez (1946ko Jorraillaren 16n) W. Schmidt jakintsuak, Azkue eta bere iztegia izentatuaz» (Barandiaran 1951).

Era berean, atzerapen handiarekin, J. Saint-Pierren abenduko heriotzaren berri eman zuten batzarrean. Apezpikuaren idazlanak argitaratzeko asmoa zuen P. Lafittek: *Les meilleures pages de monseigneur Jean Saint-Pierre* (1952) bilduma izango zena. ALVrekiko tirabiren frogagarri, P. Lafittek prestatutako bildumaren harpidedunen zerrenda amaigabeen ere ez da Euskaltzaindia erakunde gisa edota Espainiako euskaltzainik agertuko. Bai, ordea, Frantziako 18 euskaltzain-urgazle eta erbesteko jeltzale esanguratsuak.¹⁰⁹⁶ A. Ibinagabeitiak ere berariazko ahalegina egin zuen *Euzko-Gogoa* zerrendan ager zedin. Salbuespen gisa, J. Aguerre-J. A. de Donostia urgazleak agertzen ziren Nafarroatik (Lafitte 1952b; Iztueta & Diaz 2007: 295).

Maiatzaren 9ko batzarrean hainbat gai geroratu egin ziren, erabaki gabe. Alde batetik, E. Erquiagaren urgazlerako proposamena zegoen, F. Krutwig-J. Gorostiaga-N. Oleagak idatziz aspaldi aurkeztua, 1952ko urtarrilaren 1ean. L. Villasante euskaltzain berriak urgazle gisa utzitako hutsunea betetzeko aurkezten zuten, izendapenari gehiegizko formalidadea emanda. Argi zegoen F. Krutwigek bere jarraitzaileekin bete nahi zuela ALV. Lapurtera klasikoz idatzitako agirian, E. Erquiagaren EGZ aurreko idazlanak nabarmentzeaz gain, une horretan IICJUren Filologia saileko idazkaria zela adierazten zen.¹⁰⁹⁷

Bestetik, L. Michelena soldatapeko idazkari izendatzea nahi zuten Donostiako ordezkarietarako. Errenteriako hizkuntzalariaren egoera ekonomikoa eskasa izanagatik, ospe intelektuala biltzen hasia zen. Are R. Lafon Frantziako euskaltzainak, ALVrekin baino harreman gehiago zuen CSIC-RSVAPekin, hizkuntza atlasaren egitasmoa edota *BRSVAP*eko artikuluak zirela-eta. Euskaltzaindiaren batzarretara ez zen inoiz agertzen, baina oporraldiak Donostiara joateko baliatzen zituen.¹⁰⁹⁸ L. Michelena ordezkarietako idazkari izendatuta, GPDaren esku zeuden J. F. Aizquivel-J. Urquijoren biblioteketan oinarrituta, ikergune bat sortu zitekeen Donostian, RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» delakoaren garapen gisa. Dena dela, Euskaltzaindiaren batzarrak

¹⁰⁹⁶ J. A. Aguirre, T. Monzón, M. Irujo, F. J. Landáburu, M. de la Sota, T. Hernandorena edota A. Zatarain.

¹⁰⁹⁷ ABA-EUS: F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleagaren idazkia Euskaltzaindiari, 1952-01-01.

¹⁰⁹⁸ ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.

Gipuzkoako ordezkartzaren erabakia geroratzea erabaki zuen.

Gerraondoko Euskaltzaindia, beraz, erbesteko euskal ekoizpenaren eta kritiken aurrean ez ezik, barnealdeko egitasmu ofizialekiko lotsagarri geratzeko arriskuan zegoen. Aipatu dudan CSIC-RSVAPen euskararekiko asmoei beste batzuk gehitu behar zitzaizkien, gainera falangismoaren itzal mehatxariaz jantzitakoak. Alde batetik, A. Tovar errektore berriak aspaldiko nahia bete zuen, euskal ikasketak Espainia frankistan erakundetzeaz den bezainbatean. Hezkuntza Nazionaleko ministroaren 1952ko otsailaren 21eko aginduz «Manuel de Larramendi» katedra sortu zen Salamancako Unibertsitatean.¹⁰⁹⁹ RSVAPek txalotu egin zuen A. Tovar lankideak sortutako katedra, baina aldi berean Gipuzkoan euskararen ikergune bat sortu beharra aldarrikatu zuen, besteak beste, Euskaltzaindiaren laguntzarekin:

Bien está, muy bien, que se estudie el vascuence en Salamanca, pero donde debe estudiarse principalmente es en el país en que es medio de expresión y lengua viva, donde las peñas, los montes, los arroyos y los caseríos están diciendo constantemente su lección con la fuerza expresiva de sus topónimos, donde la biblioteca de don Julio de Urquijo había de ser pieza viva, fundamental para cualquier estudio importante que quiera hacerse sobre la lengua; donde los oídos, habituados a la lengua desde niños, por haber sentido sus arrullos en la cuna, saben apreciar y distinguir los matices fonéticos más finos, y, donde los hombres tienen hecha la acción a las flexiones intrincadas de su verbo. Hacía largo tiempo que sentíamos muy honda esta preocupación y confiábamos, y confiamos esperanzados, que nuestras Diputaciones— mejor la guipuzcoana que la vizcaína por la mayor densidad lingüística en su jurisdicción —, consiguieran de la Universidad de Valladolid, a cuya demarcación territorial pertenecen, la creación de una cátedra de Vascuence en el País, de rango universitario, bajo la dependencia de un Patronato que presidiera el propio Rector o el Decano de la Facultad correspondiente, en su caso, con la cooperación ineludible, en esencia y potencia, de la Academia de la Lengua Vasca y dotada convenientemente por los presupuestos de las Diputaciones. Ahora que la «Manuel de Larramendi» ha abierto el camino —y es un motivo más de agradecimiento—, se nos hace llama viva y fulgurante esta preocupación de tan hondas raíces. Todos, Diputaciones, Academia, vascólogos, «Amigos», hemos de poner el mayor empeño en ver logrado el propósito, pues de otro modo, corremos el peligro de que la lengua vasca, único testimonio vivo de la España prerromana, como hemos dicho muchas veces, pase a ser, después de tantos siglos de existencia palpitante, una pieza muerta de dolorosa

¹⁰⁹⁹ «Orden de 21 de febrero de 1952 por la que se crea en la Universidad de Salamanca la cátedra *Manuel de Larramendi*». In: *BOE*, 1952-03-14.

arqueología (RSVAP 1951b).

Salamanca katedraren sorrerak oihartzun handia izan zuen prentsa frankistan, euskalaritza zientifiko eta politikoki orbangabearen gailurra izango zelakoan (cf. *Diario de Navarra* 1952-03-25; 1952-03-26). Kontuan hartu behar da Bizkaian, EGZ aurretik, BPDak nahiz Bilboko Udalak antolatutako euskara katedrak zeudela, baita euskaraz eskolak ematen zituzten auzo eskolak ere. EAJ-PNVren buletinak, esaterako, editorial oso gogorra argitaratu zuen diktaduraren euskararekiko asmoak salatuzko:

Una vez que los Gobernadores civiles hispanos puedan cumplir la misión del franco-falangismo de matar la lengua vasca, cosa que jamás lo conseguirán porque no podrán matar a las familias vascas de donde brota y se renueva sin cesar el verbo nacional de Euzkadi, podrán ofrecer a la Universidad de Salamanca su cadáver, para que en las aulas de la Cátedra de la lengua vasca, lo disequen con sus bisturís manos enemigas, encargadas de antemano por el Estado español, de falsear los orígenes, la naturaleza, la estructura y las relaciones de esa «venerable antigüedad hispánica» (*Alderdi* 1952-04; cf. 1953-02)

JCVren batzarrak, orobat, J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministroa zorientzea erabaki zuen.¹¹⁰⁰ J. M. Ruiz Salasek apirilaren 4an idatzi zion ministroari: «testimoniar a V. E. su profund[a] gratitud, por esta feliz iniciativa de tanta trascendencia cultural y filológica y que tan grata impresión ha causado en la región vascongada».¹¹⁰¹ Katedrak euskararen ikergune bihurtu nahi zuen, irakasleak gonbidatu, ikaslea bekadunak erakarri eta hiztegi etimologikoaren nahiz hizkuntza atlasaren egitasmoetan parte hartuz (IAEV 1952b). Baina Salamancaraino joan gabe, Bizkaian bertan ere ildo bereko egitasmo bat gauzatzen ari zen, susmopean zegoen Euskaltzaindiarekin lehiazera zetorrena, ortodoxia ideologiko frankistatik. Hain zuzen, JCVren maiatzaren 1eko batzarrean eman zitzaizen horren berri bildutakoei:

Al darse cuenta de una comunicación de la Jefatura de FET y de las JONS sobre la creación del Centro de Estudios Vascos se acordó designar a don Fernando de Echegaray, para que represente a la Junta en la nueva organización, cuya actividad tanto interesa a

¹¹⁰⁰ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-03-27, Junta de Cultura C-62. Hauek bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. Zuazagoitia, I. Urquijo, J. B. Merino, F. Ygartua, J. Irigoyen, C. Lasterra, Conde de Superunda, R. Zumárraga eta E. Calle.

¹¹⁰¹ BFAH-EC: JCVko presidentearen ofizioa Hezkuntza Nazionaleko ministroari, 1952-04-04, Junta de Cultura C-40 -01-.

esta Institución Cultural.¹¹⁰²

«Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»

Maiatzaren 9ko batzarrean, F. Krutwigen esku egon zen txosten nagusia, Euskaltzaindiaren egoera hauskorrari erantzun nahi ziona. ALV berriztatzea proposatu zuen, 1949ko irailean aurkeztutakoaren bidetik. Baina oraingoan, Yagoleen saila berpiztean egin zuen indar gehien. Kontuan hartu behar da JCVk 1941ean Euskaltzaindia berrabiatzeko baimena eman zuenean, Ikerle-Yagoleen sailak desagertu egin zirela. N. Oleagak ere J. Gorostiagaren sarrera ekitaldian adierazi zuenez, ALVren zeregin nagusia hizkuntza gizartean sustatzea zen. Ikerketa zientifikoaren arloa, bestelako erakundeen esku utz zitekeen.

R. M. Azkueren heriotza aitzakia hartuta, ALV osatzen zuten kideen utzikeria salatu zuen saminki F. Krutwigek. Euskaltzaindia ez zela hizkuntzalaritza egiteko sortu eta euskararen bizia bera izan behar zutela ardura nagusi. Izenik aipatu gabe, zenbait euskaltzainen koldarkeria nabarmendu zuen, azken aldian pairatzen ari zen presioaren eta istiluen adierazle. Halaber, arazo nagusia diru laguntzena zenik ukatu zuen. 1951ko hiru batzarretan, Gipuzkoako lantegi bateko zuzendariaren izenean, F. Krutwigek berak dirua eskaini omen zion ALVri. Agirietan ez dago horren arrastorik, baina antza denez uko egin zitzaion eskaintzari. Nolanahi den, proposamen zehatzak aurkeztu zituen txosten mekanografiatuan:

- 1) 1920ko araudiak agintzen zuen Yagoleen saila berrezarri. Horri lotuta, Euskaltzaindiaren Laguntzalleak berpiztu eta «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» sortzea, ALVren babespean euskararen aldeko ekintzak abiatzeko.
- 2) *Eusker*a buletina berriz argitaratzea eta horretarako batzorde bat sortzea Bilbon.
- 3) Batzarrak hilero egitea, abuztuan izan ezik, honela antolatuta, tokian tokiko euskaltzain eta urgazleak erakartzeko: hiru Bilbon (irailetik azarora), hiru Donostian (abendutik otsailera), bi Iruñean (martxotik apirilera) eta hiru Baionan (maiatzetik uztaileta).

¹¹⁰² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-01, Junta de Cultura C-62.

- 4) Ekitaldi irekiak antolatu euskaltzainen sarrerak edota jaialdiak ospatzeko.
- 5) 1949ko iraileko txostenari jarraituta, Gipuzkoa-Bizkai-Lapurdikoko literatur dialektoek bina ordezkari izan behar zuten. J. Saint-Pierren hutsunea betetzeko, J. Diharce Belokeko monasterioko beneditarra aurkezten zuen, *Gernikan* argitaratutako poemekin F. Krutwig liluratu zuena.¹¹⁰³
- 6) Urgazle berriak izendatzea: L. Aquesolo Begoñako Carmelo komentuko liburuzaina; E. Erquiaga Banco de Vizcaya-ko langilea; eta S. Michelena (OFM).
- 7) Erbestean zeuden S. Altube-D. de Inzaren (OFM Cap) ordezeko, hurrenez hurren, L. Michelena-J. Aguerre urgazleak batzarretara deitzea. Behin-behineko ordezkariak ziren, ezin etorrien hutsuneak betetzeko.
- 8) Euskal Kultur Elkargoaren bidez haurrentzat literatur sariak banatzea, Eskualzaleen Biltzarrak Frantzian egiten zuen bezala.
- 9) R. M. Azkueren hutsunea betetzeko, Bizkaiko ordezkari gisa, P. Múgica (SI) izendatzea. Bederatzigarren puntu hori eskuz idatzita zegoen, hurrengo bezala, baina ez zuen zentzurik. P. Múgica Gipuzkoakoa zen jaiotzez nahiz dialektoz (Urnieta).
- 10) ALVren zuzendaritzako karguak hautatzea.¹¹⁰⁴

Argi dago F. Krutwigek bere eragina indartzea nahi zuela, Yagoleen saila ezarri eta bere ildoko kideak izendatuta. «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»k, azken finean, Nuevo Ateneo-tik egotzitako IICJU zirudien, izen berriarekin. Txostenean, IICJUko L. Aquesolo-E. Erquiaga «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»ren Itzultzaile batzordeko buru eta idazkari gisa agertzen ziren, hurrenez hurren. F. Krutwigek bere burua zuzendaritzako kide ikusten zuen ordurako. R. M. Azkue hilez geroztik, I. M. Echaide zen buruorde, N. Oleaga idazkari eta G. Maidagan diruzain, baina azken horrek ez zuen parte hartzen jarduera akademikoan. F. Krutwigen txostenak izan zitzakeen ondorioak ikusita, euskaltzain guztiei jakinarazi artean, egitasmoa gerarazi eta hurrengo batzarrerako utzi zuen A. Irigaray mahaiburu zuen batzarrak.¹¹⁰⁵

F. Krutwigek txostenean aipatzen zituen eranskinen artean «Euskal kulturaren

¹¹⁰³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

¹¹⁰⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen txostena Euskaltzaindia berriztatzeaz, [1952-05-09].

¹¹⁰⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1952-05-09.

araudia» izenekoa gorde da, «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»ren estatutuen zirriborroa, alegia. F. Krutwigek berak aipatu bezala, elkargo berria EBEn aritutako Euskaltzaindiaren Laguntzalleak taldearen bidetik zihoan.¹¹⁰⁶ 22 puntuz osatutako F. Krutwigen araudiaren arabera, «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» izaera juridikorik gabe Bilbon ezarritako Euskaltzaindiaren filiala zen, eta bost helburu nagusi zituen:

- a) «Euskara kultur-hizkuntza bat bilhaka dadin ekhintzea»
- b) «Euskaraz kultur baten kreatzea»
- c) «Euskalherriaren buruzko kulturaren hedatzea»
- d) «Euskararen kultur-prestijea goititzea»
- e) «Euskaltzaindiari edolako ekhintzetan laguntzea»¹¹⁰⁷

Gainerako puntuetan, Euskaltzaindiaren beraren egitura jarraitzen zuen, gerraondoko ALVren egoera ahula kontuan hartuta, praktikan hura ordezkatzeko arriskua zuena. Elkargoak, orobat, EI-SEV antzeko bat izan nahi zuen, IICJUko hainbat sail bereganatzen zituela: Itzultzaileen saila, Filosofia, Historia, Kulturaren Jakintza eta Ekonomia. Elkargoaren zuzendaritzaren eta sailen azpian, bost batzorde zeuden:

- a) «Euskararen gizarteko prestijea zaintzeko kommissinoa»
- b) «Euskararen erabiltze ta hedatzearen ekhintzeko kommissinoa»
- c) «Euskararen eskubideak zaintzeko kommissinoa»
- d) «Euskal-argitaraldiaren kommissinoa»
- e) «Dirua ta Sorosbideen kommissinoa»¹¹⁰⁸

Euskaltzaindiaren artxiboan paper zati solte bat gordetzen da, nire ustez F. Krutwigen 1952ko maiatzeko txostenari dagokiona. Bertan «kommissinoak» osatzeko Bizkaiko hainbat abertzale zerrendatzen dira: I. Berriatua-C. Arzubiaga-F. Cortabitarte elizgizonak, eta F. Zabala-M. Eguileor-J. M. Caballero Aldama-C. Billalabeitia politikariak.¹¹⁰⁹ Argi dago F. Krutwigek EAJ-PNVrekin elkarlana abiatu nahi zuela euskara gizartean sustatzeko.

F. Krutwigek emana zion bere asmoaren berri P. Lafitteri apirilaren 21ean.

¹¹⁰⁶ EGZe militar matxinoek fusilatutako Martín Lecuona (Manuel Lecuonaren anaia) buru zuen talde horrek euskararen gizarte erabilera indartu nahi izan zuen, ALVko Yagoleen sailaren magalean, separatismo susmoetatik babestuta (Lecuona 1991).

¹¹⁰⁷ ABA-EUS: F. Krutwigen «Euskal kulturaren araudia», [1952-05-09].

¹¹⁰⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen «Euskal kulturaren araudia», [1952-05-09].

¹¹⁰⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen eranskin izengabea, [1952-05-09].

Gutunean kexu zen Frantziako euskaltzainak batzarretara agertzen ez zirelako, nahiz eta 1951ko sei batzarretatik lau Donostian egin. Era berean, adierazi zion L. Dassancek ez zuela berak bidalitako gutunik erantzun. «Euskal-Kulturaren Elkharrago»rako unibertsitate irakasle batzuekin ari omen zen hizketan.¹¹¹⁰ EAJ-PNVk jasotako informazioaren arabera, jesuitek euskal kultura Deustuko Unibertsitatean nolabait lantzeko asmoa zuten, J. B. Janssens (SI) ordenako nagusiaren onespenearekin. Euskal Herriko historia landu eta ikasle euskaldunak alfabetatzea aipatzen zuen EBBaren komunikazioak.¹¹¹¹ Erbesteko EJ-GErekiko elkarlana abiatu nahi zuen F. Krutwigek. Horretarako, M. Eguileor eta barnealdeko beste jeltzale batzuekin hizketan ari zen. F. Krutwigek, beraz, kolaborazionismo salaketa gainetik kendu nahi zuen behin betiko. P. Lafitteri eskatu zion T. Monzónekin bilera bat presta zezala, «Euskalherrian'albait-handien izan daiteken kultur-berphiztearen fomentatzekotz» (apud Andiazabal et al. 2006: 214).

Industrializazioak, migrazioak edota mass mediaren hedatzeak, arriskuaren kontzientzia areagotu zuen abertzaleen artean. 1952ko martxoaren 9an ospatu zuten «Euzkeraren Eguna» Biarritzen, mahaiburu Ph. Oihanburu-L. Dassance-M. de la Sota-P. Guilsou-T. Monzón zirela. Donibane Lohizunen bizi zen T. Monzón garrantzia galtzen ari zen EJ-GEen, eta 1951ko uztailean izandako bileran dimisioa aurkezteko asmoa agertu zuen.¹¹¹² EGLZ-DCEko buru nominalak Biarritzen emandako hitzaldian euskararen egoera azaldu zuen. Inoiz ez bezalako literatur garapenak ezin zuen hizkuntzaren eten demografikoa saihestu:

Ez gabiltz beraz jokoan ez-eta denbora-pasan, Gure Erria bizirik iraun arazi naiean gabiltz : zaarra berritu naiean, leenaren indarrez geroa eraiki nahiz. Oñak illerrietan baditugu ere, seaskan lo dagon aurrari so baititugu begiak. Gure lanerako ez dugu ez aulik ez motelik bear. Gazte kementsuenak betozkigutela jarrai.

Sortzen ari zaigun Mundu ta Europa berri baten atari aurrean gaude guziok. Euskeldunek ere artu bearra dugu mundu berri ortan bizi-leku. Baña bizi-lekua nola ta nori ta zertako eskatuko, orduko ilak ba'gaude? Ilak aski dute, ustel lekutzat, lur-azpia (*Alderdi* 1952-03).

¹¹¹⁰ Uste izatekoa da Bilboko Nuevo Ateneo-rekin harremana izandako Andrés E. Mañaricúa historilariak edota gero aipatuko dugun José Urrutia(SI) ikasketa prefektuak zerikusia zutela egitasmo horrekin.

¹¹¹¹ SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-07-04, EBB-0377-1.

¹¹¹² SAF-AA: EBBaren «Reunión con los tres Consejeros Sres. Leizaola, Lasarte y Monzon en el Gobierno de Euzkadi» txostena, 1951ko uztaila, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

F. Krutwigen txosteneko gainerako hautagaien proposamena (S. Michelena, L. Michelena, J. Aguerre, P. Múgica) bereziki abertzaleak asetzeko egokiak ziruditen. Izan ere, Euskaltzaindiak 1951ko azaroan azken batzarra egin zuenetik zenbait gertaera izan ziren Gipuzkoan. Sindikatu frankistako Educación y Descanso sailak euskal folklore eta literatura lehiaketa bat antolatu zuen 1951ko San Tomas jairako. Horretarako, zenbait abertzalez osatutako epaimahaiaren eta Txepetxa antzerki taldearen parte hartzea behar izan zuten. J. Echaidek (euskaltzainburuordearen semeak) guztiaren berri eman zion T. Monzóni. Lehiaketa erbesteko prentsan ere iragarri zuten eta EJ-GEko sailburuak baiezkoa eman zion parte hartzeari: «Hágase el milagro... [y hágalo el diablo]». ¹¹¹³ Bistan da frankismoak ere ordura arte baztertutako euskal kulturaren zenbait ikur bereganatu nahi zituela, alde batetik, barnealdean euskal gizartearen atxikimendua indartzeko eta, bestetik, erbesteko salaketei aurre egiteko.

A. Arrue karlista buru zuen literatur epaimahaia hurrengoek osatu zuten: R. Mendiola diputatu integrista, M. Lecuona euskaltzaina, J. Carrasquedo antzerkilaria, J. Echaide idazlea eta J. Arteche GPDko liburuzaina. Sarituen artean, besteak beste, E. Erquiaga eta J. M. Lecuona (euskaltzainaren iloba) egon ziren. E. Erquiagak lapurtera klasikoz idatzitako antzerkiaren zati bat RSVAPen *Egan* aldizkarian argitaratuko zuten (Erkiagarre 1952b). Prentsa frankistak ez adierazi arren, sari banatzean tentsio uneak izan ziren. Seguru asko J. Echaidek idatzitako txostenaren arabera, agintari frankistek Espainiako banderaz bete zuten antzokia eta A. Arrueri hitzaldia gaztelaniaz ematea agindu zioten. Buruzagi falcondistak, ordea, euskaraz hitz egin zuen, euskara legez babestearen eta euskal unibertsitatearen alde, entzuleek asko txalotu zutena, agintarien atsekaberako. ¹¹¹⁴ Dena dela, J. Echaidek Gipuzkoako buruzagi tradizionalistarekiko erakusten zuen begikotasuna, seguru asko ez zuen EAJ-PNVko zuzendaritzak begi onez ikusten. EBBeko kideek mesfidantzaz ikusten zituzten euskaltzainburuordearen semearen «arinkeriak», baita horrek Gasteizen hilabete eta erdi preso eman ondoren ere. ¹¹¹⁵

M. Lecuonak, bestalde, euskal kulturaren arloko hainbat berri eman zituen ALVren 1952ko lehen batzarrean. F. I. Lardizábalen (1806-1855) heriotzaren mendeurrena prestatzeko asmotan ari zen Zaldibiako Udala. Besteak beste, haren

¹¹¹³ ABA-AIB: T. Monzónen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-11-16.

¹¹¹⁴ SAF-AA: [J. Echaideren?] txostena EBBari, [1951ko abendua?], PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4. (cf. *La Voz de España* 1951-11-22; *Alderdi* 1951-11; 1952-01; Urkia Etxabe 2006: 287-288)

¹¹¹⁵ SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna E. Echeverriari, 1951-08-18, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

Testamentu Zarreco eta Berrico condaira (1855) berrargitaratu nahi zuten.¹¹¹⁶ M. Lecuonaren ustez, Euskaltzaindia horrelako ekintzetan konprometitu behar zen. Hizlari egokiak nahitaezkoak zituen publikoaren aurrean jarduteko. Horretarako, S. Michelena sermolari ospetsu eta *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (1951) liburuaren egilea proposatu zuen, euskaltzain izateko ez balitz, gutxienez urgazlerako. Bestalde, Zarauzko Itxaropenak abiatutako «Kuliska» liburu sortaren berri eman zuen. Lehen zenbakia P. Múgicak (SI) itzultitako J. S. Svensson-en *Noni ta Mani* (1952) haur liburua zen.¹¹¹⁷ Loiolako santutegiko irakaslea, halaber, R. M. Azkueren bidetik, gaztelania-euskara hiztegi handia prestatzen ari zela jakinarazi zuen.¹¹¹⁸ Argitaratzeaz zeuden E. Larrañagaren *Kristo'ren antz-bidea* (1953) itzulpenaren eta N. Echánizen *Izoko aberatsa/Irulearen negarra* (1952) antzerkien berri ere eman zuen Calahorrako elizbarrutiko artxibozainak.¹¹¹⁹

Maiatzaren 9ko batzarrean eztabaidatutako gaien artean beste batzuk ere egon ziren. 1952ko abuztuan Suediako Uppsalan egingo zen ICOS biltzarrean parte hartzeko gonbita jaso zuen Euskaltzaindiak, baina beti bezala uko egin behar izan zion nazioarteko mailan jarduteari. Biltzarraren Frantziako ordezkaria A. Dauzat zen eta Espainiakoa, A. Griera frankista, noski.¹¹²⁰ Azkenik, C. Morcillo Bilboko apezpikuaren gonbita aipatu zuten, Derioko seminario berriko obren inaugurazioan parte hartzeko.¹¹²¹

11.3 Luis Villasanteren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1952-05-23)

F. Krutwig pozik egon zitekeen bere hizkuntza eskolara erakarrirako frantziskotarrarekin. L. Villasante gaitasun handiko euskal prosalari eta literatur historialaria zela ageri zen, postaz bidaltzen zizkion sarrera hitzaldiaren zatietan.

¹¹¹⁶ Euskaltzaindiak 1957an berrargitaratutako F. I. Lardizábalen *Testamentu Berriko kondaira edo historia*.

¹¹¹⁷ A. Ibinagabeitiak, P. Múgicaren liburua zela-eta, *Euzko-Gogoan* oso gogor egin zuen agintari jesuiten EGZeko jokabidearen aurka: «Yakiña, euskera yesulagunen artean debekatua izan zan. Argitaratzen zuten aldizkari bakarra *Jesus'en Biotza'ren Deya* suntsitua, euskal idazle geienak erbestetuak. Euskera ez-zezik Euzkadi ere zatitu ta lauskitu dute, *oyal batez yantzitako lau aizpak* elkarrengandik bakandurik, *Castellana Orientalis*, *Castella Occidentalis* ezizen lotsagarripean laurak estalirik, gure erriaren izenik aipatu ere ez dedin; *nec nominetur inter vos* Paul bidaliak pekatu satsuz zion bezela» (Ibinagabeitia 1952a: 29).

¹¹¹⁸ Agian horregatik nahastu zen F. Krutwig eta txostenean Bizkaiko hautagaitzarako proposatu zuen.

¹¹¹⁹ ABA-EUS: M. Lecuonaren idazkia Euskaltzaindiari, [1952-05-09].

¹¹²⁰ ABA-EUS: J. Sahlgren-en gutuna Euskaltzaindiari, 1952-01-18.

¹¹²¹ ABA-EUS: C. Morcilloren gutuna euskaltzainburuari, 1952-01-22.

Erantzuna F. Krutwigek eman behar zionez, horrek ere bere hitzaldiaren edukia aurreratu zion 1952ko urtarrilean, Eliza katolikoaren euskararekiko jarrera aztertu ez ezik, salatu ere egin nahi zuen. Ohi zuen bezala, baldintza historiko-politikoek behar adina erreparatu gabe, Euskal Herriko eta Erdialdeko Europako egoerak erkatu nahi zituen, euskal hierarkia erlijiosoaren utzikeria salatzen. Aginte politiko frankistari zuzenean eraso egitea baino egingarriagoa iruditzen zitzaion Eliza katolikoa jomugan jartzea. Era berean, erbesteko abertzaletasunetik iristen ziren kolaborazionismo salaketak gezurtatzeko bidea izan zitekeen:

Respecto a su discurso, cada vez que lo leo de nuevo, cada vez que me gusta más. Es una obra magistral y monumental. Y para la literatura vasca será el ejemplo de una clara, correcta y brillante oratoria científica.

Yo pienso contestar a Vd. tomando como partida su discurso desarrollar [sic] el punto de «la legislación eclesiástica respecto a la enseñanza de las lenguas vernáculas» así pues de esta forma seguir el hilo de su discurso pidiendo a las órdenes que sean ellas quien[es] cumplan con las exhor[ta]ciones papales sobre la enseñanza en lengua vernácula y quienes sean también las salvatrices del euskara.

A este respecto quisiera preguntarle algún pormenor sobre la enseñanza del euskara entre Vds. los franciscanos, pues al darle a Vd. el saludo voy a decir que es al mismo tiempo un tributo que en su persona se quiere rendir a la orden franciscana. Quisiera que me dijese Vd. en qué consisten sus clases euskaras.

- a) si solo se enseña al vascuence como un objeto a aprender o
- b) si se emplea asimismo el vascuence como vehículo a través del cual se estudian las disciplinas
- c) si alcanza a todos los frailes que toman parte en esa orden el estudio del euskara, o solamente a los euskaldunes.

Porque a este respecto me encuentro con que la legislación papal obliga a emplear no solo la lengua vernácula como objeto de estudio, sino como vehículo. Es decir que no se cumple[n] las prescripciones papales si solamente se enseña el euskara, sino que es necesario servirse del euskara para enseñar. De aquí que la política que siguió el Seminario de Vitoria es doblemente anatema, pues no cumple con el requisito de enseñar «a todos» los que van a ejercer su magisterio la lengua vasca entre vascos (sean o no vascos de origen) pues aparte de esto debía haber preparado al clero euskaldun «en euskara».

Tengo un libro escrito en Alemania sobre esto que voy a comentarlo, en el que se traen las opiniones de l[o]s obispos, arzobispos y doctores de la iglesia [sic] sobre estos puntos,

y en los que además se trae[n] los casos concretos como en Polonia y Alemania Oriental, en el antiguo imperio Austro-Húngaro etc. que que [sic] virilmente la Iglesia se opuso a las pretensiones del Estado.¹¹²²

Sarrera ekitaldia ahalik eta arrakastatsuen izan zedin, Donostian antolatzeke aukera eztabaidatu zuen F. Krutwigek Bilboko idazkariarekin otsailean. Euskara estandarerako gipuzkeraren alde zegoen iritzi zabalduari aurre egiteko tokirik egokiena izan zitekeen beraren ustez:

Yo he estado hablando el otro día con Oleaga de la conveniencia de hacer, quizá su recepción en S. Sebastián, donde tendríamos más público euskaldun y además sería conveniente que los guipuzcoanos escuchasen las poderosas razones que recomiendan la aceptación del labortano clásico; pues que los guipuzcoanos prejuzgan el tema con la fácil razón: «o guipuzcoano o nada». No van en busca del euskara que más conviene al pueblo vasco, dan por sentado de antemano que es el de ellos y luego buscarán razones para apoyar lo que ya han prejuzgado. Quizá solamente los vizcaínos, quienes por no ser el dialecto de ellos el que se va a aceptar están en condiciones de decidir.¹¹²³

Kontuan hartu behar da F. Krutwigek 1949ko irailean aurkeztu zuen txostenaren bidetik, Euskaltzaindiaren batzar gehienak Donostian egin zirela azken bi urtetan. 1950-1951 artean 13 batzar egin ziren: bederatzi Donostian, bi Bilbon, eta bana Iruñea-Baionan. Horrek, ordea, ez zuen Frantziako euskaltzainen partaidetzan uste bezain beste eragin, nekeza baitzen muga igarotzea. Bilboko euskaltzainek (R. M. Azkue-N. Oleaga-F. Krutwig) jarraitu zuten izaten hamarkada hasierako nukleoa, baina Donostia bilgune nagusi bilakatuta lortu zuten I. M. Echaide-A. Irigarayk parte gehiago hartzea.

Dena dela, L. Villasantek sarrera hitzaldiaren azken zatiak bidaltzearekin batera, ekitaldia Bilbon egitea nahiago zuela adierazi zuen. Era berean, I. Berriatuaren bidez jakinarazi zuen ez zuela idatzitako testu luzea osorik irakurtzeko asmorik. Dena dela, F. Krutwig oso pozik zegoen frantziskotarraren testu erudituekin, lapurtera klasikoaren aldeko argumentuz josita zegoelako. Gainera, R. Lafonek frantziskotarrari idatzitako gutunean, hura ere literatur lapurteraren alde agertzen zen estandarerako.¹¹²⁴ Euskaltzain berriak, era berean, lapurtera klasikoaren bideak eragiten zuen erabateko oposizioaren

¹¹²² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.

¹¹²³ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

¹¹²⁴ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-03-18.

jakitun zen. A. M. Labayenek, ikusi dugunez, oso argi adierazi zion F. Krutwigez uste zuena: «Orren eskuan Euskaltzaindia'ren etorkizuna uztea ondamera litzake».¹¹²⁵

Euskaltzaindiko idazkariak JCVri maiatzaren 17an baimena eskatu zion, sarrera ekitaldia hilaren 23an ospatzeko BPDko jauregian JCVk zuen aretoan.¹¹²⁶ Bilboko prentsan berehala iragarri zen sarrera ekitaldia (*La Gaceta del Norte* 1952-05-18). Maiatzaren 20an JCVko batzarrean F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao eta E. Calle baino ez ziren bildu. Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) apologistaren mendeurrena Durangoko Udalarekin ospatzeko erabakiaz beste, Euskaltzaindia izan zuten hizpide. Kontuan hartu behar da aurreko urtetik harremanak erabat gaiztotuta zeudela, eta JCVk ez ziola diru laguntzarik ematen ALVri. Hain zuzen, 1951n Bilbon egindako J. Gorostiagaren sarrera ekitaldian esandakoek JCVko kideen ezinegona eragin zuten. F. Echegaray-J. B. Merinok N. Oleagari egindako bisita baten eta sarrera ekitaldiaren berri eman zuten batzarrean, gehiago zehaztu gabe.¹¹²⁷ Maiatzaren 20ko datarekin, E. Calle idazkariak N. Oleagaren eskaerari baiezkoa eman zion JCVren izenean.¹¹²⁸

Eragozpenak eragozpen, baimen eskaerei baiezkoa eman zieten, halaber, Euskaltzaindiko istiluen berri bazuten Informazio eta Turismo ministerioaren Bizkaiko delegatuak eta Bizkaiko polizia buruak.¹¹²⁹ Horrela, ohiko gonbitak eta txartel elebidunak bidali zituen Euskaltzaindiak, besteak beste, Gernikako alkateari, L. Villasante bertan jaioa baitzen.¹¹³⁰ Ezin etorria adierazi zuten, ordea, J. Caruncho Bizkaiko polizia buruak eta M. Gortari NFDko presidente berriak.¹¹³¹ Deustuko Unibertsitateko A. E. Mañaricúak ere ezin etorria adierazi zion frantziskotarrari.¹¹³² Zoritxarrez, sarrera ekitaldiak eragin zituen arazoan ondorioz, ez dago maiatzaren 23ko ALVren batzar agiri edo zirriborrorik. Biharamunean prentsak adierazi zuenez, hurrengo bost euskaltzainak bildu ziren: M. Lecuona, N. Oleaga, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta L. Villasante. Prentsaren arabera, JCVren aretoa bete egin zen eta ekitaldiko mahaiburuak izan ziren M. Lecuona apaiza, H. Bilbao BPDko presidenteordea eta F. Echegaray JCVko buru efektiboa (*CE-PV* 1952-05-24). Entzuleen artean hurrengoak ere izan ziren: I. Urquijo, E. Erquiaga, P. Lete (OFM), P. Aranguren (OFM) eta euskaltzain berriaren familiako Josefina Ibarrola.

¹¹²⁵ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-05-14.

¹¹²⁶ BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa JCVri, 1952-05-17, Junta de Cultura C-40 -01-.

¹¹²⁷ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-20, Junta de Cultura C-62.

¹¹²⁸ BFAH-EC/ABA-EUS: E. Calleren ofizioa N. Oleagari, 1952-05-20, Junta de Cultura C-40 -01-.

¹¹²⁹ ABA-EUS: B. Burebaren eta J. Carunchoren ofizioak N. Oleagari, 1952-05-19 & 1952-05-20.

¹¹³⁰ ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa Gernikako alkateari, 1952-05-17.

¹¹³¹ ABA-EUS: J. Carunchoren gutuna eta M. Gortariren telegrama Euskaltzaindiari, [1952-05-28].

¹¹³² ABA-EUS: A. E. Mañaricúaren gutuna L. Villasanteri, 1952-05-26.

1954ean Euskaltzaindiko langile bilakatuko zen A. Irigoyen ere bertan izan zen (Arana Martija 1992: 27-28; Sudupe 2011a: 234).

Sarrera hitzaldiak «Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratua» zuen izena eta urtea amaitu baino lehenago argitaratuko zen *BRSVAP*en. F. Krutwigen irizpidearen aldeko programa sendo eta jantziena aurkeztu zuen (Sudupe 2011a: 38-53). Eskolaren sortzailearen beraren hutsuneak bete nahiz, hitzaldian bat egin zuten, alde batetik, EGZ aurreko belaundaldiak (N. Ormaechea, H. Gavel, J. Urquijo, J. M. Moco-roa) nahiz euskal literaturaren historiak, eta beste aldetik, Frantziako hizkuntzalaritza soziologikoak. Hain zuzen, A. Dauzat hizpide hartuta, euskararen arrakala sozialagatik, estandarra arautzea hil ala biziko arazotzat jo zuen, hizkuntzen arteko norgehiagoka betean:

[B]i hizkuntza aitzinez-aitzin jartzen direnean, baldin bi hoietatik bat landua bada ta bere litteratur-batasuna sendo lorturik ba daduka, bertzea berriz dialektutan puskaturik eta basati itxuran agiri bada, berehala gerthatzen da denok ikhusten dugun hau: litteratur-batasun hori eginik dadukana bertzeari nagositzea, alegia (Villasante 1952: 96).

Euskara estandarren auzian, hiru bide nagusiren artean hautatu behar zela uste zuen. Lehendabizi, gizpuzkerak ALVn izandako itzalaren pisua onartu zuen. Aldeak alde, A. Campión, R. Olabide, R. M. Azkue edota S. Altube gipuzkeraren alde agertu ziren, bereziki dialekto horren zentraltasun geografikoagatik. Bigarren bidea, Baionako elizbarrutian XX. mendean garatu eta P. Lafitteren 1944ko gramatikak deskribatutako nafar-lapurtera zen. Espainia-Frantziako muga estatalak onartuta, bi joera horiek inoiz, ALVtik agindurik eman gabe, bat egitearen itxaropena agertzen zuten S. Altube-P. Lafittek. Betirako luzatu zitekeen egoera horren aurrean, F. Krutwigen bide berri eta zaratatsua ageri zen. L. Villasante ongi ohartzen zenez, beste bi aukerak dialektoen ahozkotasan bizian oinarritzen ziren, eta F. Krutwigek, aldiz, literatur tradizio historikoa baino ez zuen onartzen estandarerrako. Beraz, euskararen muga soziopolitikoak ez ezik, literatur tradizioaren eten historikoa ustez gainditzen zuelako, aukera gailentzat zuten lapurtera klasikoarena (Villasante 1952).

L. Villasanteren hitzaldiak aipatzen zituen gaiek ondorio politiko labainak izan arren, ezerezean geratu ziren F. Krutwigek erantzun hitzaldiarekin sortu zuen istiluaren

ondorioz.¹¹³³ Hitzaldiak izan zuen oihartzunagatik, kopia ugari gorde dira, jatorrizko euskal bertsioan nahiz gaztelaniazko itzulpenean, hainbat erakunde eta pertsonaren artxibotan: Euskaltzaindia, JCV, EAJ-PNV, A. Ibinagabeitia edota J. Zaitegi, besteak beste. Esaterako, *Euzko-Gogoaren* zuzendariari F. Krutwigek maiatzaren 20an bidali zion erantzun hitzaldiaren kopia.¹¹³⁴ Gutunean, orobat, «Nazionalitatearen psikologia» izeneko testua bidali zion Guatemalako aldizkarian argitaratzeko asmoarekin. Abertzaletasun jeltzalearen determinismo arraziologikoari, borondatean oinarritutako nazionalismo linguistikoa jartzen zion parez pare:

Beraz nazinoen kontzeptu berrian eztago soilik hizkuntzaren faktorea, gure nazinoaren hizkuntza erabilten ez tutenak' gure nazionalitatearen konszientza galdu dutenean ez tira gure nazinoaren khideak.

Berhain, herri baten hizkuntza maitatzen eztenetan edo bere erabiltzea gutitzen den guztietan' hunela egiten duen herriak' bere persuntarzunaren konszientza galtzen ari dela erran dezakegu. Hizkuntza' sentimendu nazionalearen thermometera da. Halakotz bere personalitatearen konszientza indarrrtsua duten nazinoek' beren hizkuntza edonoiz erabilten dute eta hizkuntza huntaz kultur bat kreatzen dute.¹¹³⁵

Ikuspegi horren ildotik, Europako hizkuntza gutxiengoaren eskubideen alde elizgizon katolikoek argitaratutako testuak biltzen saiatu zen erantzun hitzaldian. Alemaniako Theodor Grentrup-en (1878-1967) *Religion und Muttersprache* (1932) liburuan oinarrituta, tokian tokiko herri hizkuntzak erabiltzeko Eliza katolikoaren betebeharra aldarrikatu zuen. Era berean, alemanaren inposizioaren aurrean, polonieraren alde agertutako elizgizonak aipatu zituen: M. H. Ledóchowski (1822-1902), P. W. Nieborowski (1873-1948) edota «Makkabaeus» ezizenarekin sinatu zuten J. Czempiel (1883-1942) eta E. Szramek (1887-1942).¹¹³⁶

Entzuleen arteko agintari politikoak asetzeko asmoarekin, M. Barrès bezalako

¹¹³³ Erantzun hitzaldiaren testua lehen aldiz egileak berak argitaratu zuen, gaztelaniara itzulita, *Vasconia* liburuko gehigarrien artean, eta ondoren jatorrizko euskal bertsio zuzendua *Egan* aldizkarian (Krutwig 1986b).

¹¹³⁴ ABA-ZAI: F. Krutwigen gutuna J. Zaitegiari, 1952-05-20.

¹¹³⁵ ABA-ZAI: F. Krutwigen «Nazionalitatearen psikologia», 1952-05-05.

¹¹³⁶ Erreferentzia horiek bere hezkuntza alemanari esker eskuratu bazituen ere, ez ziren guztiz ezezagunak garaiko elizgizon abertzaleen artean. T. Grentrupen lanak oihartzuna izan zuen, adibidez, Jaungoikozale Bazkunako kideen EBeko lanetan (Manterola 1934: 327). Era berean, jesuiten nagusi izandako W. Ledóchowski-k (1866-1943), M. H. Ledóchowski-ren iloba zenak, R. Olabide euskaltzainaren lanaren berri omen zuen: «Me han dicho que cultiva usted un vascuence académico. Siga por ahí, porque andando el tiempo eso se leerá y apreciará, como ha pasado en Polonia, mi pueblo» (apud Iztueta & Iztueta 2006: 206).

eskuindar profotaxistaren «hizkuntza nazionala»ren aldeko aipua erabili nahi izan zuen euskararen alde, tokiko frankistentzat hizkuntza nazional bakarria gaztelania ez balitz bezala. Bestalde, LMG-BMG ondoko Erdialdeko Europa zinez multikulturalean gertatutako aldaketa politiko-linguistikoak, Espainia frankistarako eredutzat jartzea, F. Krutwigen errealitatearekiko itsukeriaren froga baino ez zen (cf. Kamusella 2012).¹¹³⁷ Hain zuzen, M. Lecuona Gasteizko elizbarrutiaren seminarioko euskara katedradun deserriua mahaiburu zuen ekitaldian, F. Krutwigek euskal hierarkia erlijiosoari egin zion erasoak, harrituta utzi zituen entzule guztiak.¹¹³⁸ Euskaltzain ateoak euskararen aurkako hizkuntza politika eta Eliza katolikoaren Estatuarekiko menpekotasuna salatzen zituen:

Eta Hierarkhia Euskalherrian zergatik XI Piusen sententzei iarraitzen etzaie. Ez othe zuen Pappa hunek Estatuaren irakaskintza-monopolaren kontra ephaikatu? Ez othe zuen XI Piusen erran 'Estatuaren bethebeharra handi-handia izana gatik' bethebeharr haur bethi gurasoen nahiaren araura egin beharr zenik? Zergatik etzaie euskaldunei euskaraz irakasten bertze lekhetako legez, adibidez egun Gathaluñan egiten den araura? Ez othe ditu gure herriak zergak pagatzen? Ahantzi othe du Zeruko Iainko Iauak euskaraz? Ez othe dira euskaldunok zerurako deithuak? Non dago euskara Donostiako dioikesian, haur huts-hutsik euskalduna izana gatik? Elizaren registruetan' zein hizkuntzaz egiten dira inskripzioak? Zergatik eztira gure herriaren vernakulaz egiten, Kroatian, Bacskan [sic], Banaten eta Errumanian bezala? Zergatik gure herrian dagoen Hierarkhiak Erromako agintza generalei ez-entzun egiten deraue? Expressatuki autorizaturik dagoza? Orduan ahalkegarria lizateke Hierarkhiaren mundutiarr interesen aldeko ekhintza. Zergatik ezkagoz hemen bertze herrietan bezala? Adibidez lithuanara irakastekotz Koenigsbergen seminarioetan kathedrak zegozen, eta Ekhialdeko Prussian, herririk askotan lituanarren proporzinoa %5 baizik izan ezarren, lithuanaraz predikatzen zan. Bilbaon eta euskaldunik asko bizi diren hirietan ezta euskaraz predikatzen. Ez othe dute euskaldunek lithuanarren eskubideak? [E]do ta Elizak lehenbiziko, bigarreneko eta hirugarreneko menpekoak al ditu, eta hauietan euskaldunak parvak othe dira? Elizarentzat euskaldunok zein kastatakoak dira? Vatikanuk erran biezaku, erran beharr derauku ta. Zeintzuk eskubide zaindu beharr ditu Hierarkhiak? [I]azarritakoaren ostikatu eskubidea, ala iazarrten

¹¹³⁷ Eliza katolikoaren hizkuntza politikari egindako erreferentzia historikoak ez ziren hain eguneratuak. Calahorrako elizbarrutiaren XVII. mendeko sinodo arauak aipatzen zituen, baina ez, ordea, Gasteiz-Iruñeko elizbarrutien XIX. mendetik aurrerako araudia, frankismora arte iritsi zena (cf. Intxausti 2014c: 119-137).

¹¹³⁸ F. Krutwigen itsukeria garaiko egoera politikoarekiko harrigarria zen. 1951ko abuztuan lehenengo eta 1952ko martxoan berriz, Bilbo-Donostia-Gasteizko apezpikuek batera gaitzetsi zuten erbesteko euskal apaizen *Egiz* aldizkaria, hain zuzen, hierarkia erlijiosoaren frankismoa salatzen zuelako (*Alderdi* 1952-05; *Euzko Deya* 1952-11-01).

duenaren bortxaren eskubidea, indarartsuenaren legea othe? Zergatik ezta orain euskaraz predikatzen orain hogeit hamar urte duela predikatzen zen herri guztietan? Nola dago Elizaren zuzentarzuna hizkuntzazko muga-herrietan, eta euskaldun askoren minoriak dagoen lekuetan, adibidez: Gorlitzan, Plentzian, Sopelanan, Berangon, Algortan, Derion, Sondikan, Erandion, Zaratamon, Basaurin eta a.? Ongi da euskaldunetan bizi diren erdaldunentzat, erdaraz predikatzea, bainan zergatik eztitute erdaldunen artean bizi diren euskaldunak eskubide berdinak? Baldin euskaldun herri hutsetan bartz karabiñeru ba dagoz, nahiz eta hauk mezataria ioan-ezik, hauiek ioan nahi luketelako hypothesisaz erdaraz predikatzen da, bainan Bilbaon bizi diren euskaldunentzat ezta euskaraz predikatzen nahiz eta hogeit hamar mila egona-gatik. Nondik eta zergatik iniquitate hauk?¹¹³⁹

Esan bezala, abertzaleen aurrean bere izen ona berreskuratzeko balio zezakeen ekitaldi publikoan egindako Espainia frankistako hizkuntza politikaren salaketak. Baita ere, adibidez, J. M. Azaola batek CSICen *Arbor* aldizkarian agertutako posibilismoaren ondoan ausartago («viril» esango zukeen berak) agertzeko. Nolanahi den, ordurako Bizkaiko agintari politikoen jomugan zegoen euskaltzainarendako, atzera bueltarik gabeko urratsa zen hura. L. Villasantek J. M. Mocoari gutunez adierazi zionez, entzule askok txalotu egin zuten erantzun hitzaldia (Sudupe 2011a: 234).¹¹⁴⁰

Ekitaldian zeuden agintari politikoek berehala hitzaldiaren gaztelaniazko itzulpena eskatu zuten, euskara hura ongi ez ulertu arren, delitu zantzuak zeudelako entzundakoan, txalo zaparradak konfirmatu besterik egin ez zuena. L. Villasanteren testigantza araberan, H. Bilbao diputatu tradizionalistak hurrengo adierazpena egin zuen uneren batean: «Ese judío polaco nos va a enseñar lo que tenemos que hacer!» (apud Arana Martija 1992: 28). Erbesteko prentsa abertzaleak interes handiarekin jarraitu zuen Euskaltzaindiak barnealdean eragindako istilu politikoa, noski. Baionan argitaratzen zen aldizkari jeltzalearen Bizkaiko berriemaile anonimoa izan zen informazioa xeheagoa zabaldu zuena:

El discurso del nuevo académico versó sobre la necesidad de un euzkera único literario para fines de cultura. Defendió la opinión de adoptar a tal fin el dialecto laburdino, y en este sentido presentó sus conclusiones.

La contestación estuvo a cargo del académico señor Krutwig. Ambos leyeron sus discursos en dialecto laburdino, comenzando sin duda a poner en práctica sus preferencias

¹¹³⁹ ABA-EUS: F. Krutwigen erantzun hitzaldiaren jatorrizko euskal bertsoa, [1952-05-23].

¹¹⁴⁰ ABA-AIB: L. Villasanteren gutuna J. M. Mocoari, 1942-05-25.

dialectales. Conocida es la tendencia innovadora de ambos escritores y las estupendas licencias de léxico —antieuzkericas a juicio del cronistas [sic]— que en sus escritos suelen permitirse.

El tema desarrollado por el señor Krutwig fue el de los derechos del Euzkera ante la Iglesia. Disertación maciza y contundente, documentada y valentísima que el auditorio siguió con enorme interés. A su término, el público que llenaba totalmente el salón, otorgó al señor Krutwing [sic] una ovación estruendosa y prolongada.

La presidencia del acto estuvo inadecuadamente ocupada por don Hilario Bilbao, quien según parece quedó poco satisfecho del acto. Pidió al señor Krutwing [sic] sus cuartillas, y parece que manifestó seguidamente: — ya veremos en qué va a parar esto.

Con las cuartillas se fue al Gobierno Civil, donde entre él, Riestra y probablemente Seminario de Rojas, habrán hecho la traducción. Riestra ha pedido a la Academia que le envíen una copia de los Estatutos por que se rige, y las lista de académicos, y no se qué cosas más... (*Alderdi* 1952-06)

Sarrera ekitaldian egondako jeltzale izengabeak, agian *Alderdi*ko berriemaileak, modu informal eta gordinagoan azaldu zion gertatutakoa EAJ-PNVko EBBari. Testua maiatzaren 28an idatzi zen eta ekainaren 23an jaso zuen erbesteko EBBak:

Mucha gente. No era el salón demasiado grande, pero se llenó, y colmó la medida y la rebasó.

Presidió, como Académico, D. Manuel Lecuona; como Diputado D. Hilario Bilbao, hermano de D. Esteban.

Nada hay que decir del P. Villasante; leyó parte de su trabajo, con rapidez y facilidad. Nada nuevo, ni el euskera, ni el fondo, ni la forma ni nada para los que le han leído.

Krutwig se encargó de responder al nuevo Académico. El tiempo había corrido ya un poco; y él, según se vio, no quiso dejar nada en el tintero.

A toda marcha, con durísima pronunciación y para mí extraña acentuación, dio el mitin en francés, alemán, español, griego y latín y, naturalmente, en su argot, con h aspiradas y todo, pero con energía, con entusiasmo, con atrevimiento, con travesura, con ironía y con salero. Qué no dijo de la Jerarquía eclesiástica, de los párrocos, de las Órdenes religiosas, de los Colegios de religiosos, del derecho natural... A vueltas de premiar a los PP. Franciscanos su labor por el pueblo vasco, qué diatribas a diestro y siniestro, caiga quien caiga, aunque sin rozar al Estado, dirigiéndose casi exclusivamente a la Iglesia.

Fue emocionante. Una ovación cerrada coronó la peroración de Krutwig.¹¹⁴¹

¹¹⁴¹ SAF-AA: EAJ-PNVko EBBaren txostena F. Krutwigen hitzaldiaz, 1952-05-28, 440

11.4 Federico Krutwigen aurkako auzia

Euskaltzaindiko idazkariak maiatzaren 17an egin zuen hilaren 30erako batzar deia.¹¹⁴² 1952ko lehen lau hilabeteetan batzarrik ez egin ondoren, maiatzean hiru batzar egin zituen ALVk, beraz. Aurreko bi batzarrekin gertatu ez bezala, maiatzaren 30eko agiri ofiziala gordetzen da. GPDko jauregian, A. Irigarai mahaiburuaz gain, J. Gorostiaga, L. Villasante eta N. Oleaga euskaltzainak eta L. Michelena urgazlea bildu ziren. Bileraren garrantziagatik, F. Krutwigen eta I. M. Echaide euskaltzainburordearen hutsuneak nabarmentzen ziren. Sarrera ekitaldian mahaiburu izandako M. Lecuona ere ez zen agertu. Gai nagusia, noski, erantzun hitzaldiak sortutako arazoa izan zen:

Urrengo adierazo da, Villasante euskaltzain jaunaren sarrera ospatzeko, Bizkaiko Ekautaren jauregian, Jakintza-Batzordearen gelan, Orrila onen ogetairuan egindako batzar nagosian aitaturako Euskaltzain barriari erantzunik Krutwig euskaltzainak irakur eban itzaldia dala-ta, batzar orretara etorri ziren agintari batzuk naigabe ta aserrea erakutsi dabela, ta euren eritziz Euskaltzaindiak egoki deritxona erabagi bear leukela eskatu dabela. Zer erabagi leiteken ondo ebazteko aitaturiko itzaldia entzun ez eben euskaltzainak ezagutu ta guztiok ondo aztertutea bear izango leitekela-ta, ijeki bat Oleaga jaunak eskatu ta urrengo batzarrerako ekarri dagiala ebatzi da (ALV 1982: 24).¹¹⁴³

Bestalde, Durangoko alkateak P. P. Astarloaren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko Euskaltzaindiari eskatutako laguntzaren berri eman zen. Horretarako J. Gorostiagak ekainean egingo zen ekitaldian hitzaldia ematea erabaki zuten. Halaber, R. M. Azkueren eta J. Saint-Pierren hutsuneak betetzeko bina hautagai aurkeztu zituzten: L. Michelena-P. Múgica, alde batetik, eta J. Moulier-J. Diharce, bestetik. Hura zen, bestalde, L. Michelena partaide zuen Euskaltzaindiaren lehen batzarra (Ibarzabal 2001: 158-159). Idazkariak eta F. Krutwigek azken aldian egindako eskaerei erantzunda, euskara sustatzeko, «Jausaila edo jagola-batzordea» (EGZean desagertutako Yagoleen saila) berriz abiatzea erabaki zuten hurrengo euskaltzainekin: J. Gorostiaga, N. Oleaga, L. Villasante, P. Lafitte eta L. Dassance. Yagoleen azken sailburu izandako D. de Inzak Txileko erbestean jarraitzen zuen artean. Erabaki garrantzitsua izan zitekeen, 1920ko estatutuen arabera, besteak beste, «yagokideen» esku baitzegoen literatur euskararen

PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4.

¹¹⁴² ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia, 1952-05-17.

¹¹⁴³ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri mekanografiatua euskara hutsean dago, A. Irigarayk, jarduneko euskaltzainburorde gisa, eta idazkariak sinatuta, 1952-05-30.

finkatzea, baina izendatutako batzordea ez zen operatiboa izango (ALV 1982: 24).

Bilboko idazkariaren zirriborroan, agiri ofizialean aipatu gabeko gai bakarra aurkitu dut: 1952ko irailean Londresen ospatuko zen Hizkuntzalarien Nazioarteko VII. Biltzarrean parte hartzeko ALVk jasotako gonbita, Ralph L. Turner buruarengandik.¹¹⁴⁴ Uste izatekoa da Euskaltzaindiak, ohi zuenez, ezezkoarekin erantzun zuela, erantzunik eman bazuen. Argentinako *BIAEV*ek, bestalde, 30eko batzarrean hartutako beste erabaki bat aipatu zuen, garaiko gainerako iturrietan agertzen ez dena:

Con respecto a la imposición de nombres vascos causó penosa impresión entre los señores académicos la conducta del colega Seminario Rojas, quien no obstante esta circunstancia, había publicado en «El Correo Español», del que es subdirector, algunos artículos en apoyo de los antieuskeristas. En la reunión de Donostia, la Euskaltzaindi reprobó por unanimidad el proceder de su consocio, siendo entregado este acuerdo al señor Seminario, personalmente, por el también académico bilbaíno D. Nazario Oleaga (IAEV 1952c: 178-179).

Esan bezala, Euskaltzaindiaren batzar agiriak ez dute J. M. Seminariorekikoa aipatzen. Arazoa otsailetik zetorren, G. Riestrak Sestaoko zazpi laguni bandalismo zigorrak ezarri zizkienean, parrokia orri batean «Miren», «Eduerne», «Andone» edota «Koldobika» izenak erabili zituztelako. Zigorrak oihartzun handia izan zuen, izendegi jeltzalea hilarrietatik ezabatzeko Bizkaiko gobernadore zibilaren agindua gogorarazten zuelako. *CE-PV* egunkarian «Biuurri» ezizeneko batek bost artikulua idatzi zituen S. Aranaren izendegiko neologismoak lotsagarri uzteko asmoarekin. EAJ-PNVren buletinak behin eta berriz salatu zuen *CE-PV*ko artikuluen egilea J. M. Seminario euskaltzaina zela (*Alderdi* 1952-03; 1952-04; 1952-05).

Barnealdeko prentsa frankistak oro har isilarazi egin zuen L. Villasanteren sarrera ekitaldiak sortutako istilu larria. Ekainaren 19an Donostiako *La Voz de España*n «La bomba H de nuestro alfabeto» umorezko artikulua argitaratu zuen A. Gazteluk, gaztelaniaren ortografia fonetikoki arautzeko aukeraz. Artikulua amaieran, tonua aldatuta, V. García de Diegori hurrengo galdera egin zioten:

— ¿No considera conveniente la creación de una Academia de la Lengua Vasca que corre

¹¹⁴⁴ ABA-EUS: «Seventh International Congress of Linguists» delakoaren zirkularra eta N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, [1952-05-30].

peligro de desaparecer?

— Desde luego y puede que la cátedra recientemente creada en Salamanca se ocupe de esto. Multitud de filólogos de todo el mundo han estudiado a fondo esa lengua y los españoles no podemos dejar que se pierda (*La Voz de España* 1952-06-19).¹¹⁴⁵

RAEko bibliotekaria izan zen, hain zuzen, J. Urquijo-R. M. Azkue akademikoen nekrologiak idatzi zituen eta ez zen sinesgarria Euskaltzaindia gerraondoan bizi zenik ez jakitea (cf. García de Diego 1950; 1951). Nolanahi den, egunkariko erredaktoreak ohar bat ezarri behar izan zuen:

N. de la R.- Aunque en Bilbao existe una «Academia de la Lengua Vasca», con domicilio en Ribera 1 [sic], hemos dejado la pregunta y, sobre todo, la respuesta porque ambas indican que su funcionamiento tiene tan poca resonancia que ni el reporter ni —lo que es más importante— el docto miembro de la Real Academia de la Lengua tienen noticia de ella; prácticamente es como si no existiera, y ello es claro indicio de cómo las instituciones científicas vascongadas se desenvuelven en un clima de atonía, indiferencia e ineficacia que no hacen sino confirmar lo que recientemente afirmaba José Miguel de Azaola en su famosa «Carta de Vasconia» publicada en la revista «Arbor» (*La Voz de España* 1952-06-19).

EAJ-PNVren buletinak adierazi bezala, frankismoaren zigor makineria ordurako abian zen. BPDko presidentek ekainaren 9an hurrengo mezua idatzi zion Bizkaiko gobernadore zibilarri ALVren ekitaldi irekian gertatutakoa azaldu eta, bide batez, BPD-JCVren erantzukizuna zurrizeko:

Aceptada la sugerencia de la Academia, el día señalado al efecto y bajo la presidencia del Vice-presidente de la Diputación Provincial D. Hilario Bilbao, que actuaba como Presidente de la misma por hallarse en Madrid en viaje oficial el Presidente efectivo que ahora suscribe, se celebró la sesión prevista y en ella, el nuevo académico leyó su discurso de ingreso, de contenido completamente normal en un acto de ese tipo.

Esta era la única actuación prevista en el programa (se incluye una de las invitaciones que al efecto se circularon), pero la Academia, siguiendo la costumbre, designó a uno de sus miembros, Dn. Federico Krutwig, español, hijo de alemán y española, leyéndose entonces por aquél un discurso a cuyo término y por considerar que al parecer contenía graves afirmaciones, el Sr. Bilbao Eguía reclamó airadamente su texto original, obteniendo por

¹¹⁴⁵ Kontuan har bedi V. García de Diego izan zela R. M. Azkueren nahiz J. Urquijoren RAEko sarrera hitzaldiei erantzuna emateaz arduratu zena diktadura primorriveristan (KMK-JU: V. García de Diegoren gutunak J. Urquijori, 1929-1931).

sorpreza del Sr. Krutwig la entrega de las páginas del discurso que acababa de leer, levantándose ya la sesión sin incidente alguno.

Pasado el discurso al estudio de persona que posee los más profundos conocimientos del vascuence y de patriotismo sin tacha, resulta que el texto leído por el Sr. Krutwig está redactado en la variante que se denomina laburtano [sic], característica de la vasconia [sic] francesa, con estilo arcaico, en suma, una pedantería que probablemente no pudo ser comprendida por ninguno o casi ninguno de los asistentes al acto, máxime cuando, según oímos, la pronunciación del conferenciante, con vocalización muy imperfecta, acusaba aspiraciones y otras características nunca halladas en el vascuence.

En lo que afecta a su contenido, la presunción inicial sobre su gravedad queda plenamente confirmada una vez conocido el texto de la traducción, por lo que remito a V. E. el original recogido del conferenciante y la traducción del mismo, para que con su superior criterio y Autoridad disponga lo que considere oportuno.

Sí debo anticipar a V. E. que por acuerdo adoptado por la JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA, en lo sucesivo y antes de acoger acto alguno de la Academia de la Lengua Vasca, se exigirá el conocimiento completo de los discursos que vayan a pronunciarse, con su texto en vascuence y en castellano; y también debe conocer V.E. que según se me ha informado, la Academia de la Lengua Vasca espera conocer el texto íntegro del discurso para deliberar sobre si debe adoptar alguna medida con respecto al Sr. Krutwig.¹¹⁴⁶

BPDko presidentek izenik ez eman arren, itzulpenaren egilea J. M. Seminario zen. Emandako laguntzaren sari gisa, JCVren izenean, J. M. Ruiz Salasek liburuki garestiak oparituko zizkion euskaltzainari: Revista de Occidente-ren *Diccionario de Historia de España* (1952) eta J. A. Spencer-en (1816-1898) *Historia de los Estados Unidos*.¹¹⁴⁷ J. Irigoyen-E. Esparzak batzarretan parte hartzeari uko egin ziotenetik, agente frankistaren Euskaltzaindiko ordezkaria J. M. Seminario zen, baina hura ere M. Lecuonaren 1950eko ekaineko sarrera ekitalditik ez zen batzarretara agertzen. Aitzitik, JCVk Euskaltzaindiarekin 1952ko urtarrilean antolatutako R. M. Azkueren omenaldian egon zen Bilbon. J. M. Seminariok Iruñetik idatzi zion N. Oleagari ekainaren 17an arazoaz bere ikuspegia azaltzeko, baina ezkutatu egin zizkion Bizkaiko agintari frankistak hartzen ari ziren neurriak. Tonu bakegile eta ulerkorra gorabehera, gaitzetsi egin zuen

¹¹⁴⁶ BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen ofizioa G. Riestrari, 1952-06-09, Junta de Cultura C-40 -01-.

¹¹⁴⁷ BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen gutuna J. M. Seminariori, 1952-07-23, eta Librería-Papelería Villar-en 1.179,47 ptako faktura, 1952-07-22, Junta de Cultura C-40 -01-.

hitzaldi abertzalea, eta Euskaltzaindiaren (eta idazkariaren beraren) istiluarekiko erantzukizunaz aritu zen:

Sigo creyendo que el asunto es de verdadera importancia. Toda la primera mitad del discurso es una invectiva política por el conocido procedimiento de «a ti te lo digo, Juan, para que me entienda Pedro». La segunda parte es francamente injuriosa para la autoridad eclesiástica.

Tengamos presente, por otra parte, que durante el acto en que fue leído el discurso, nuestra Corporación era una invitada de la Diputación, a través de la Junta de Cultura, cuyo presidente nato es el de la Diputación. El efecto, pues, no pudo ser más lamentable.

No ya desde el punto de vista político sino hasta desde el de la más elemental buena educación, aquello no se podía decir. Mejor dicho, muchas cosas se podían y se debían decir, pero no en aquel tono mordaz e incisivo, «echando de comer a la fiera» y conquistando ciertos aplausos fáciles y bien poco gratos para quien como yo, antepone a todos sus afectos en este orden de cosas su calidad de español.

Por otra parte, como usted, que es hombre de experiencia sabe muy bien, los efectos que con esas cosas se producen son contrarios a los que se persiguen. Qué ganamos cosechando antipatías? Y, esto, precisamente ahora, cuando las cosas comenzaban a entrar por cauces más normales. Por otra parte, cosas así no son materia propia de una Academia de la Lengua sino de una entidad dedicada a las Ciencias Morales y políticas [sic]. Esto, sin olvidar que es más eficaz pero más penoso y oscuro, decir muchas de estas cosas — lo que hay de verdad en el discurso, sin hipérboles ni frases molestas— es más eficaz, repito, pero más oscuro y trabajoso, repetir esas cosas en privado ante quien puede remediarlas, llevando a su convencimiento el criterio ajustado a la resolución de nuestros problemas.

No olvide usted tampoco —y no quiero molestarle sino que, sencillamente, creo cumplir un deber diciendo las cosas como son— que si bien en el terreno amistoso el hecho de que usted no conociera el discurso es una explicación humana y perfectamente aceptable, en el terreno oficial no lo es. Todos los discursos académicos se leen antes del acto. Sucede aquí exactamente igual que en la Dirección de un periódico. Todos sabemos, en efecto, que el director no lee todo el periódico, pero eso no se puede alegar en los tribunales ni ante las autoridades. Oficialmente tiene obligación de haberlo leído y es responsable de cuanto se publique.

Creo que debía usted ponerse al habla con Don Hilario Bilbao para arreglar esto lo mejor posible, en bien de la Corporación a que pertenecemos y de sus finalidades específicas.¹¹⁴⁸

¹¹⁴⁸ ABA-EUS: J. M. Seminarioren gutuna N. Oleagari, 1952-06-17.

Eskuz erantsitako oharrean, G. Riestra-J. M. Ruiz Salasekin hitz egin ondoren, Euskaltzaindiak arazoarekiko adierazpen ofizial bat erabaki behar zuela adierazi zion:

Creo que, antes de la reunión debiera usted ponerse en contacto también con las máximas autoridades de la plaza Elíptica y de la Gran Vía. El Sr Bilbao podría ser un excelente para [sic] suavizar asperezas.

En cuanto a nosotros, creo imprescindible adoptemos una decisión seria para liquidar este lamentable episodio y quedar dignamente.¹¹⁴⁹

Legez kontrako propaganda

N. Oleaga idazkariak ekainaren 18an bidali zien euskaltzainei hilaren 27an Donostian egingo zen batzarrerako deia. Batzar deiarekin batera, gai ordena zehazten zuen orria gordetzen da artxiboan:

- Lehendabizi estatutuen berritzea aipatzen zen. Argi zegoen gerraondoko ALVk ezin zituela bete 1920ko araudiak ezartzen zituen baldintzak. Bestek beste, diru eta giza baliabidez urrituta zegoen ALVren batzarrak eta kargu aldaketak nola egin berriz arautu behar zen. Halaber, batzarretara joaten ez ziren eta lanik aurkezten ez zuten euskaltzainek kargua galdu beharko luketen ala ez erabaki behar zen.
- R. M. Azkueren eta J. Saint-Pierren aulkiek bete gabe jarraitzen zuten. Hautagaiak, esan bezala, L. Michelena-P. Múgica eta J. Moulrier-J. Diharce ziren.
- Era berean, E. Erquiaga eta S. Michelena urgazle izendatu ala ez erabaki behar zen.
- Gai zerrendan azkena, F. Krutwigen hitzaldiak sortutako arazoa zegoen.¹¹⁵⁰

Araudiaren eguneratzea beharrezkoa zen, baina horretarako Euskaltzaindiaren egoera juridikoa argitu behar zen. Karguak galtzeari dagokionez, J. Aguerri gertatu zitzaion hori 1920an, Sevillara bizitokia aldatu eta ALVren zereginetan parte hartzen ez zuelako; baina salbuespen bakarra izan zen EGZera arte. Gerraondoko testuinguru

¹¹⁴⁹ ABA-EUS: J. M. Seminarioren gutuna N. Oleagari, 1952-06-17.

¹¹⁵⁰ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia eta gai ordena, 1952-06-18.

politikoan, ordea, askoz gehiago ziren kargua gal zezaketenak. Uste izatekoa da erbestean zeuden S. Altube-D. de Inzaren aulkiak babesteko proposatu zituela F. Krutwigek horien ordezkari gisa L. Michelena-J. Aguerre. Bestalde, Euskal Herritik kanpo bizi zirelako batzarretara ia agertzen ez ziren R. Lafon, P. Lhande edota B. Echegaray. Hala ere, ALVrekin nolabaiteko harremana bazuten, ezin etorriak justifikatu eta egiten zituzten lanen berri emateko. Kargugabetzeak, ondorioz, seguru asko J. M. Seminario euskaltzain inposatuari eragingo ziokeen batez ere, batzarretara joan ez eta euskaltzain gehienak aurka zituelako. Dena dela, agian J. M. Seminario bera batzarrean egon zelako, badirudi araudiarena ez zela eztabaidatu.

Beste batzar garrantzitsu batzuekin gertatu bezala, ez dago agiri mekanografiatu ofizialik, baina N. Oleagak idatzitako eskuzko zirriborroa gordetzen da. Horren arabera, zortzi euskaltzain bildu ziren Donostian ekainaren 27an: A. Irigaray mahaiburua, J. M. Seminario, P. Lafitte, M. Lecuona, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante eta N. Oleaga. Batzar agiriak ez adierazi arren, P. Lafittek bere astekarian jakinarazi zuen L. Michelena urgazlea ere bertan izan zela (*Herria* 1952-07-03). Idazkariak I. M. Echaide-B. Echegarayren ezin etorria adierazi zuen. Euskaltzainburuordea Madrilen zegoen, gaixorik, eta horregatik ez zen agertzen batzarretara.¹¹⁵¹ L. Dassancengandik maiatzean jasotako ezin etorria ere bidali zion idazkariari.¹¹⁵² B. Echegarayk ekainaren 22an idatzi zion Madrildik idazkariari, negu-udaberrian gaixorik egon ondoren, lanez gainezka zegoela Tribunal Supremo-ko idazkaritzan eta ezin zuela Euskaltzaindiaren batzarrean parte hartu. Euskaltzain berriak izendatzeko, J. Moulier-L. Michelenaren aldeko botoa delegatu nahi zuen. Gipuzkoako hizkuntzalariaren aparteko balioaz hasieratik jabetu zen horietakoa zen: «Desde hace años conozco su valor extraordinario y no dudo en vaticinar que su nombre figurará como glorioso entre los euskerólogos eminentes».¹¹⁵³ B. Echegarayk lan jargoiaren ikerketarekin jarraitzen zuen eta udazkenean Euskaltzaindiari aurkezteko asmoa zuen.

Hain zuzen, batzarreko gai nagusia F. Krutwigen maiatzeko hitzaldiak BPD-JCVko agintariengan eragindako protestari korporazioaren erantzun ofiziala ematea zen, J. M. Seminariok gutunez adierazitakoaren bidetik. Euskaltzaindiaren ekitaldi publiko batean euskaltzain batek egindako salaketarekiko posizio bateratua agertu behar zuen

¹¹⁵¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren txartela N. Oleagari, 1952-06-23.

¹¹⁵² ABA-EUS: L. Dassancen gutuna I. M. Echaideri, 1952-05-29.

¹¹⁵³ ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-06-22.

ALV^k, batez ere JCV^rekin azken urtean izandako gorabeherak, diru laguntzen etena eragin zutenak, kontuan hartuta. N. Oleaga idazkariaren eskuzko zirriborroan, batzarrak hartutako erabakia ezabatutako hitzez eta esaldiz ageri da, iritziak bateratzea erraza izan ez zela frogatzen duena:

Haber visto con profundo desagrado la actuación del Sr. Kr[utwig] que la Academia estima inoportuna, ~~inconveniente~~ y ~~por~~ los términos empleados, el tono ~~empleado~~ y de exposición, y la ocasión y aun el mismo tema, altamente censurable y ~~comprometedor~~ para la Academia, ~~siquiera esta resulte ser ajena a dicha actuación de la que es el Sr. K[rutwig] quien debe responder a quien corresponda~~, y demandar de K[rutwig] que ~~explique~~ [posteriormente?] ante la Academia su actuación para las resoluciones procedentes.¹¹⁵⁴

Zirriborroan ezabatuta agertzen den oharren arabera, Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra uztailaren 29an egitea erabaki zuten, baina ez zen halakorik gertatuko.¹¹⁵⁵ EAJ-PNVren buletinak, orobat, ALV^k GPDaren jauregian egin zuen batzarraren berri eman zuen, ohi ez bezalako partaidetza izan zuela nabarmenduta. Euskaltzain berri bi izendatu zituztela adierazteaz gain, zirriborroan ageri ez den JCV^k ordezkariaren esku hartzea aipatu zuen:

Seminario Rojas jaunak (danok dakitenez Bizkai'ko Alundiaren diru-laguntza kokkor baten trukean onartu bear izan zuten napa-falangiste au Euskaltzaindia'ren barruan) Bizkai'ko Gobernadorearen izenean esan zun jaun onek atsegiñez ikusiko lukela Krutwig jauna Euskaltzaindi'tik bota balezate. Itzez-itzez «el Gobernador de Bizkaya vería con sumo agrado la expulsión del Sr. Krutwig de la Academia de la Lengua Vasca».

Euskaltzaindiak ordea ezezko borobilla bota' dio Gobernadorearen aurkezleari, Euskaltzaindiak ezpaitu ñoiz Gobernadore ta politikoen agindurik aintzakotzat artu eta ez artuko ere (*Alderdi* 1952-07).

Bizkaiko agintari frankista gorenak academia presionatzen ari zen F. Krutwig egotzi zezaten, baina batzarrak euskaltzainaren hitzaldia gaitzetsi arren, ez omen zuen onartu gobernadore zibilaren interbentzionismoa. Hain zuzen, N. Oleagaren batzar zirriborroan ez agertu arren, L. Michelenak gero adierazi zuen bera batzarrean izan zela eta *Alderdik* emandako informazioa konfirmatu zuen, agian bera (edo M. Lecuona) izan

¹¹⁵⁴ ABA-EUS: N. Oleagaren agiri zirriborroa, 1952-06-27.

¹¹⁵⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren agiri zirriborroa, 1952-06-27.

zelako buletinaren iturria:

Asistí también a la reunión en que Genaro Riestra [...] propuso a la Academia por medio de Seminario que expulsara a Federico Krutwig.

Esta proposición no fue aceptada; varios académicos, entre ellos D. Manuel Lekuona, mantuvieron la tesis de que si había algún delito que sancionar lo hiciera el código correspondiente, pero que la Academia no entraba ni salía en la cuestión (apud Ibarzabal 2001: 159)

Dena dela, Euskaltzaindiaren berehalako eginkizuna, P. P. Astarloa (1752-1806) euskal apologistaren omenaldian parte hartzea izan zen.¹¹⁵⁶ JCVk maiatzaren 15ean jakinarazi zion Euskaltzaindiari Durangoko Udalak zuen asmoaren berri, L. Villasanteren sarrera ekitaldia baino lehenago. Durangoko ekitaldia ekainaren 28-29an izango zen, eta A. Tovar errektoreak eta euskaltzainen batek hitzaldi bana ematea nahi zuten.¹¹⁵⁷ Biharamunean Durangoko Udalak berak berritu zion eskaera Euskaltzaindiari.¹¹⁵⁸ JCVk maiatzaren 20ko batzarrean hainbat erabaki hartu zituen: 1) J. J. Zabala alkatearen gonbita eskertzea, 2) JCVko ordezkariak batek parte hartzea ekitaldian, eta 3) lehiaketa bat antolatzea Bilbo-Donostia-Gasteizko prentsan, P. P. Astarloaz idatzitako artikulu onenak saritzeko.¹¹⁵⁹ A. Tovarrek maiatzaren 31n JCVko idazkariari idatzitako gutunean onartu zuen ekitaldian parte hartzea.¹¹⁶⁰

Esan bezala, F. Krutwigek sortutako istiluaren ondoren, Euskaltzaindiaren maiatzaren 30eko batzarrean, erabaki zuten ALVren ordezkari J. Gorostiaga izendatzea eta hala jakinarazi zioten JCVri nahiz Durangoko Udalari ekainaren 6an.¹¹⁶¹ Egun bereko JCVren batzarrean, agiriaren arabera, ez zuten Euskaltzaindiko ekitaldiaren arazoa aipatu, baina P. P. Astarloaren omenaldirako ordezkari F. Echegaray izendatzeaz gain, J. Gorostiaga euskaltzainak Durangon irakurri behar zuen hitzaldiaren kopia eskatzea erabaki zuten, edukia zentsuratu eta istilurik ez izateko.¹¹⁶² Ekainaren 25ean JCVko F.

¹¹⁵⁶ Jaietako programaren A. Tovarren alea gordetzen da Euskaltzaindiaren bibliotekan: AYUNTAMIENTO DE DURANGO (1952): *Fiestas de San Antonio y centenario de Pablo Pedro de Astarloa 1952*. Durango: Ayuntamiento de Durango (Imp. y Lib. Dolar).

¹¹⁵⁷ ABA-EUS: E. Calleren gutuna Euskaltzaindiari, 1952-05-15.

¹¹⁵⁸ ABA-EUS: Durangoko alkatearen gutuna Euskaltzaindiari, 1952-05-16.

¹¹⁵⁹ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-20, Junta de Cultura C-62.

¹¹⁶⁰ BFAH-EC: A. Tovarren gutuna E. Calleri, 1952-05-31, Junta de Cultura C-7 -09-.

¹¹⁶¹ BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak JCVko buruari eta Durangoko alkateari, 1952-06-06, Junta de Cultura C-7 -09-.

¹¹⁶² BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-06-06, Junta de Cultura C-62. Hurrengoak bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao, A. Bilbao, C. Lasterra, F. Ygartua, Conde de Superunda, J. M. Maiz eta E. Calle.

Echegarayk hurrengo artikulua saritzea erabaki zuen: J. Ortega Galindo Bilboko institutu katedradunak Gasteizko *Pensamiento Alavés* egunkarian argitaratutako «Vida y obras de Pedro Pablo Astarloa» [sic].¹¹⁶³ Artikuluan erregimen foraleko hizkuntza eztabaiden testuinguru politikoa azaltzeaz gain, Salamancako Unibertsitateko euskara katedra ustez orbangabea goratu zuen:

El segundo centenario que celebramos en el presente año de 1952 coincide con el final del nefasto sistema tendencioso del siglo XIX en que la investigación de lo vascongado se asemejaba a un enconado pleito curialesco. Hoy el idioma vascongado ocupa el lugar que le corresponde en la Universidad española. Se le estudia con amor y toda tendencia preconcebida ha sido relegada. Este año de 1952 nos ha llenado de júbilo a todos los amantes del idioma al ser creada, en la prestigiosa Universidad de Salamanca, la cátedra de Vascuence. Hoy comienza una nueva era. La paz de los claustros de Salamanca llama a todos los hombres de buena voluntad. Para entrar en ellos se ha de abandonar el antiguo orgullo que nos lanzó con una violencia tal por nuestro propio parecer, que se nos escapó el sentido de lo universal. Hemos de dejar la necia irritación, que rechaza las críticas y se aferra al error. Quitados esos obstáculos, siguiendo el camino que Astarloa nos iniciara el maravilloso idioma vascongado alcanzará su propio destino (*Pensamiento Alavés* 1952-05-31).

Sarrera ekitaldiak sortutako arazoa larria zela argi geratu zen F. Krutwigek muga zeharkatu eta Frantziara ihes egitea erabaki zuenean. Ikusi dugunez, ez zuen Euskaltzaindiaren maiatzaren 30eko eta ekainaren 27ko batzarretan parte hartu. Bizkaiko berriemaileak F. Krutwig auzipetua zegoela zabaldu zuen uztaileko EAJ-PNVren buletinean:

[H]ubo un prolongado lapso de silencio, contrastando con la rapidez y hasta precipitación que al señor Riestra suele caracterizar en sus decisiones. Se dijo que al camarada no [e] agradaba el paquete y que se lo había trasladado a su superior jerárquico Don Blas Pérez, Ministro de la Gobernación. Y también se dijo que la trinidad camaradística local (Gobierno, Diputación, Ayuntamiento, o sea, Riestra, Ruiz de Salas, Zuazagoitia) opinaban al unísono que lo mejor era no dar ninguna importancia al asunto.

Pero a los pocos días —última decena de junio— un policía del Juzgado nº 3 de Bilbao se presentaba en casa de los señores Krutwig, con orden de detener al académico. No se hallaba en casa, pues se había ausentado días antes con objeto de solucionar algún asunto

¹¹⁶³ BFAH-EC: JCVko F. Echegarayren ofizioa, 1952-06-25, Junta de Cultura C-7 -09-.

personal más interesante, que hacía tiempo tenía pendiente. Por lo tanto, no pudo efectuarse la detención, a Dios Gracias (*Alderdi* 1952-07).

Frankismoaren aurka egin eta nazioartean salatzea eginkizun nagusitzat zuen EAJ-PNVrentzat istilu hura ezin zen oharkabean igaro, noski. EBBaren artxiboan F. Krutwigen jatorrizko testua eta gaztelaniazko itzulpena gordetzen dira. Itzulpenak «R.»k sinatutako ohar luze bat du Bilboko epailearen sumarioaz. Horren arabera, fiskalak ekainaren 16an aurkeztu zion epaileari F. Krutwigen aurkako ofizioa:

Se acompaña al presente escrito un oficio del Fiscal de la Audiencia de Bilbao al Juez de Instrucción del Juzgado número tres en el que poco más o menos dice así:

... Que el día 24 de mayo [sic] ppdo. tuvo lugar una reunión en la Academia de la Lengua Vasca en la que se trató de la difusión de la lengua vasca, y durante la cual el Sr. Dn. Federico Krudwig (?) en vez de disertar sobre el asunto de que se trataba, pronunció una alocución que más pareció un mitin de matiz netamente político y de inclinación netamente también nacionalista y durante el cual usó de palabras injuriosas tanto para las Autoridades civiles como para las jerarquías eclesiásticas, por lo que se estima que dicho Sr. ha incurrido en dos delitos, tales como el de PROPAGANDA ILEGAL y el de DESACATO A LA AUTORIDAD, con el agravante como queda dicho de usar palabras altamente injuriosas para la Iglesia y sus jerarquías.

En consecuencia se dicta auto de procesamiento y se ordena la detención inmediata del acusado.

Se acompaña con el presente oficio el texto íntegro de la disertación del Sr. Krudwig [sic] en vascuence y su traducción al castellano, y es en ésta donde el Fiscal ha subrayado los párrafos que cree más ofensivos e injuriosos en los que se basa la orden de procesamiento y detención.

La numeración que va entre paréntesis figura en el escrito del Sr. Krudwig [sic]. Lleva fecha del 16 de Junio ppdo. el oficio que se cita.

Se acompaña también al Sumario un oficio de la Dirección General de Seguridad — Jefatura Superior de Policía de Vizcaya— en el que se dice el no haberse podido proceder a la detención de D. Federico Krudwig [sic] por no hallarse en su domicilio y sí en San Juan de Luz —Francia— a donde sus familiares dicen haberse trasladado a pasar una temporada con una hermana que allí vive.

Posteriormente se ha cursado de nuevo un oficio del Juez del Juzgado de Instrucción número tres en el que se encarga a la Policía trate de averiguar la fecha del regreso del Sr. Krudwig [sic].

Según referencias del Juzgado donde se instruye este sumario, la denuncia ha partido del

Gobernador Civil de Vizcaya.¹¹⁶⁴

J. M. Barandiaranen egunkariari esker dakigu, ekainaren 10erako F. Krutwig Frantzian zegoena. Lehen aldiz Baionan elkar ezagutu zuten 1950eko uztailean, R. Lafon-L. Dassancen sarrera ekitaldian. F. Krutwigek eskatuta, 1952ko ekainaren 10ean Donibane Lohizunen bildu ziren:

Dela zenbait egun Bilbaon, itzaldi batean esan emen zian, Eliza'k eta Estatuak euskerari kalte handia egin diotela. Orregatik —beldur bait uan Bilbao'ko agintariak baituko ote zuten—, Prantzia'ra etorri emen dek illabete bat edo bi emen igartzeko asmoan. Esan zeâk, euskerazko aldizkari bat nai luketela argitarazi, eta neri nere iritzia galdetu zeâk. Ontzat artu zoât asmo au (Barandiaran 2009: 809).

F. Krutwigen inkontzientziaren froga da Bilbon giroa hilabete parean baretuko zela uste izatea, azkenean erbestean geratu beharko baitzuen. *Eusko-Jakintzako* zuzendariariaren Sarako etxean berriz bildu ziren ekainaren 13an:

Euskalzale benetakoa zirudik gizon gazte orrek. Euskerari bizierazi nai badiogu, gogolandu eta argiko lagunak bear diate euskeraz mintza, batez ere ikasgai eta ikaskuntzari buruz. Nik beintzat iritzi ori azaldu zoât eta berak ontzat artu zeâk (Barandiaran 2009: 809).

Bilboko hitzaldiaren arazoak zuen izaera politiko-judizialarekiko arduragabetasuna ageri da, halaber, P. Lafitte euskaltzainari ekainaren 25ean Donibane Lohizuneko Hôtel Eskualduna-tik idatzi zion gutunean. Ez zion azaldu zergatik zeraman aste batzuk Frantzian. Soilik aldizkari bat argitaratu nahi zuela Pirinio Behereetan, Espainia frankistako zentsurarekin arazoak zituztelako. Aldizkaria Bilbon finantzatuko zuten, baina lapurtera klasikoz argitaratu, eta horretarako Frantziako lankideak ere nahi zituzten, Euskal Herri osoa hartzeko asmoarekin. Literatur lanak alde batera utzita, jakintza orokorreko euskal aldizkaria egin asmo zuten. Fisika, teknika, historia edota filosofia hizpide izateaz gain, munduko berri nagusiak zabaldu nahi zituzten, UNESCOrekin harremanetan jarri eta Bilboko itzultzaile talde baten bidez. Bilboko taldea, 1952ko maiatzeko txostenean agertutako «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» baino

¹¹⁶⁴ SAF-AA: EBBaren txostenak F. Krutwigen hitzaldiaz, PNV_NAC_EBB,K.00308,K.10 eta PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4. Testu hori Euskaltzaindiko A. Ibinagabeitiaren funtsean ere gordetzen da (cf. Sudupe 2011a: 232-234).

ezin zitekeen izan. Nolanahi den, F. Krutwigek hurrengo gaiak debekatu nahi zituen aldizkarian: politika (nahitaez alderdikoia zelakoan), filologia (bereziki euskal filologia) eta literatura (kritika izan ezik). Aldizkariak, batez ere, hizkuntzaren etnologia eta jakintzaren dibulgazioa egingo zuen. 1952ko apirilean P. Lafitteri idatzi zion gutunarekin erkatuta, nabarmena da ez Euskaltzaindiarik ez EAJ-PNVrekiko elkarlanik aipatzea, bere hitzaldiak sortutako arazoari ez ikusiarena egin nahian (cf. Andiazabal et al. 2006: 213-214).¹¹⁶⁵ Gerra Hotzaren testuinguruan, itzaropena hutsalak ziren. AEB Espainia frankistaren alde egiten ari zen nazioartean, 1950ko azaroan NBEk gobernu frankistaren aurka zuen ebazpena indargabetzea lortuta. Ondorioz, Espainia NBEko zenbait erakundetan parte hartzen hasi zen, eta UNESCOn 1952ko azaroaren 19an onartuko zuten, EAJ-PNVk salatu zuenez (*Alderdi* 1952-11).

Bizkaiko agintari frankisten presioen aurrean Euskaltzaindiaren duintasuna eta autonomia babesteko ardura guztia hartu zuena N. Oleaga idazkaria izan zen. Euskaltzain sortzaileak hilak ziren eta I. M. Echaide buruordea 1951ko azarotik ez zen batzarretara agertzen, osasunez makal zebilelako. N. Oleaga eskarmentu handiko abokatua zen. Gainera, diktadurako goi karguen aldetik nolabaiteko begirunea espero zezakeen. Izan ere, E. Bilbaoren lankidea izan zen eta EGZean, Bizkaiko abokatuen elkargoko buru gisa, E. Bilbao-E. Ercoreca arteko trukaketan esku hartu zuen (Oleaga 2002). Kontuan har bedi Gorte frankistetako presidentearen anaia, H. Bilbao BPDko presidenteordea zela, hain zuzen, F. Krutwigen hitzaldia salatu zuen lehen agintaria Euskaltzaindiaren maiatzeko ekitaldi irekian.

I. M. Echaide buruordeak uztailaren 13an sei orrialdeko gutun luzea idatzi zion Donostiatik. Gaixotasunagatik ez zuen artean ALVren 1952ko zereginetan parterik hartu, baina A. Irigarayk bisita egin eta gorabehera guztien berri emateaz gain, F. Krutwigen hitzaldiaren kopia eskuratu zion. I. M. Echaide bezalako uste osoko integrista batentzat, Eliza katolikoaren aurkako hitzaldi hura oso iraingarria zen. Osorik gaztelaniara itzuli eta lerroz lerro aztertu zituen F. Krutwigen erasoak. Erlijioa alde batera utzita, bereziki deitoratzen zuen Euskaltzaindia erabili izana politikagintzarako, hain zuzen, R. M. Azkuek beti saihestu zuena. Euskaltzainburuordeak uste zuen ALVk erabaki ofizial bat hartu behar zuela arazoarekiko, baina presaka ibili gabe. Erruki zen F. Krutwigez, bere senean ez zegoelakoan, eta damutzeko aukera eman nahi zion:

¹¹⁶⁵ ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1952-06-25.

Tenía que contestar al señor Villasante y no le ha contestado; se ha limitado a aprovechar la ocasión que el honor de contestar le brindaba, para lanzar un furioso discurso, político desde el principio hasta el fin; se ha parapetado tras los enormes prestigios de la Academia de la Lengua Vasca para lanzar tiros contra instituciones que no le son gratas. Y esto no es correcto. Todo lo que dijo en la recepción del Sr. Villasante, podía haberlo dicho por su exclusiva cuenta y riesgo desde cualquier tribuna pública, sin poner en gravísimo riesgo —como lo ha puesto— la vida de la Academia, que, si ha gozado hasta hoy de tan altos prestigios, ha sido debido a prescindir en absoluto de toda clase de política, sabia conducta que aprendió de su nunca bastante llorado primer Presidente y maestro de todos los vascos, el inmor[t]al Dn. Resurrección María de Azcue, de nombre universalmente respetado en todos los ámbitos del país vasco, de España y del mundo, por su ciencia, por su virtud y por su alejamiento de las luchas políticas.

Y no solo ha quedado desairada y comprometida la Academia, sino el mismo recipiendario señor Villasante, cuyo estupor juzgo que no tendría límites al escuchar aquella contestación tan «sui generis».

Ante todo parece lógico y necesario oír al encartado; debe remitírsele un pliego de cargos y en términos corteses rogarle que alegue cuanto estime necesario en su defensa. Es cierto que el Sr. Krutwig no puede destruir los hechos; ahí está su discurso que lo oyeron todos los asistentes a la recepción y que, escrito por él mismo, lo hemos leído muchos. No obstante, a nadie se puede condenar, sin oírle previamente...

Como atenuantes siempre pesarán en favor del Sr. Krutwig su juventud, su absoluta inexperiencia, su temperamento tan exaltado que sobrepasa los límites normales y quizás una falta de esa profunda formación religiosa que por la misericordia de Dios y sin mérito alguno nuestro hemos recibido los demás.

Si el Sr. Krutwig se mostrase pesaroso de lo ocurrido, reconociese humildemente su falta y diese plenas garantías de que nada semejante va a volver a ocurrir en lo sucesivo, yo me inclinaría por la máxima benevolencia; tal vez en esta manera de pensar influya el mucho cariño que profeso al Sr. Krutwig y la profunda compasión que me inspira el estado de su alma no iluminada por la antorcha de la fe. Pero es claro que, por grande que sea en todos este sentimiento de cariño, ante todo y sobre todo debe prevalecer el interés supremo de la Academia.¹¹⁶⁶

Bere gutunaren berri J. M. Seminario-J. Gorostiagari ematea eskatu zion

¹¹⁶⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari eta F. Krutwigen hitzaldiaren gaztelaniazko itzulpena, 1952-07-13.

idazkariari. Bere aldetik gutunaren kopia bana bidali zien A. Irigaray-L. Villasanteri.¹¹⁶⁷ Agian euskaltzainburuordearen jarrera zuhurraren ondorioz, ekainaren 27ko batzar agiri ofizialik ez egitea erabaki zuten, bestelako gertakarien zain. I. M. Echaide kezkatuta zegoen istiluak frantziskotarrarengan izan zezakeen eraginagatik. Bilboko ekitaldian egon zen P. Lete probintzialak atsekabetuta egon behar zuen nahitaez. Hain zuzen, L. Villasantek, euskaltzainburuordearen gutunaren kopia irakurri eta gero, bere burua eskaini zuen F. Krutwigen arazoa bideratzen saiatzeko, seguru asko P. Leterekin adostuta. Oñatitik bizkaieraz idatzi zion idazkariari uztailaren 21ean udako oporrak, aurreko urtean bezala, Frantzia igaroko zituela gogorarazteko. Bordeleko frantziskotarren komentuko egonaldia baliatu nahi zuen R. Lafonen laguntzarekin P. Axularren *Gueroren* filologia azterketa abiatzeko. Bestalde, I. M. Echaiderekin hitz egin ondoren, F. Krutwig adiskidearekin bildu nahi zuen eraginako arazoa konpontzen saiatzeko:

Etxaide jaunak bere idazkiaren bukaeran diñona kontuan artuta, eragingo deusat Euskaltzaindiari agiri bat egin dagion bere damutasuna agertuaz ta auferantzean olakorik geiago gertatuko ez tala itza emanaz. Eta ia onenbestegaz gauzak aztuten direan eta asunto gogaikari oni luña emoten yakon betiko.¹¹⁶⁸

Bitartean, frankismoaren instantzia ofizialetatik zenbait keinu egin ziren euskal kulturarekiko. 1952ko udan Donostiako *El Diario Vasco* egunkariak antolatu zuen «Semana Vasca» delakoa eta Euskal Herri osoko folklore taldeek, Frantziakoek barne, parte hartu zuten erakustaldian. RSVAPek, orobat, hitzaldi sorta antolatu zuen: A. Arrue, J. M. Areilza, A. Tovar, L. Pericot prehistorialaria, Conde de Peñaflorida eta A. Iturmendi ministroa aritu ziren. A. Arruek euskarazko hitzaldia eman zuen udaletxeko plazan, ekitaldi publiko batean guztiz harrigarria zena, garaiko testuinguruan. Gipuzkoako buruzagi karlistaren lehen eguneko hitzaldiaz gain, Conde de Peñaflorida RSVAPen ohorezko buruaren azken eguneko hitzaldia nabarmendu zen. A. Iturmendi Justizia ministro karlistaren aurrean, euskara gaietan ALVren autoritatea onartuta, GPDari euskal filologiako mintegi bat sortzea eskatu zion, «Universidad Vasco-Navarra»ren lehen urratsa izan zitekeena.¹¹⁶⁹ Hala ere, gainerako hitzaldietan aginte frankistaren goi mailetako irizpide uniformista gailendu zen.¹¹⁷⁰ EAJ-PNV asmo horretaz jabetu arren,

¹¹⁶⁷ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak A. Irigarayri eta L. Villasanteri, 1952-07-13.

¹¹⁶⁸ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-07-21.

¹¹⁶⁹ J. M. Azaolaren arabera, J. Mendizábal (1886-1954) diktaduraren morroi otzana izan ez zen euskal oligarkiaren ordezkari bakanetakoa izan zen. GPDko presidente izatea eskaini zioten, baina uko egin omen zion probintziak «concierto económico»z gabetuta egon artean (Azaola 1985: 266).

¹¹⁷⁰ *El Diario Vasco* 1952-07-27; 1952-07-29; 1952-07-30; 1952-07-31; 1952-08-02; 1952-08-03; 1952-

bere politikagintza posibilistari jarraituta, lankidetzaz eskaini zuen T. Monzónen bitartez Pirinio Behereetako ordezkariak ere parte har zezaten, bereziki euskal antzerkien emanaldietan, horrelako jaialdiek etsipen giroari aurka egiten laguntzen zutelakoan.¹¹⁷¹ Beste jarrera batzuk, ordea, I. Eizmendi «Basarri»rena, adibidez, deitoratu egin zituzten, *La Voz de España* argitaratzen zituen artikulua errazegi makurtzen zirelakoan frankismoaren irizpideetara.¹¹⁷²

Diktaduraren helburua zen ortodoxia espainolistaren esku uztea euskararen sustapen mugatua nahiz ikerketa. Alde batetik, abertzaletasunaren eremu bilakatu zena kontrolatzearen eta, bestetik, erbestetik egiten ziren salaketei aurre egiteko, hizkuntza politikaz den bezainbatean. 1941etik saiatu ziren hori egiten JCV-Euskaltzaindiaren bidez. 1952an beste mugarri bat ezarri zuten, A. Tovar falangistak Salamancako Unibertsitatean abiatutako euskara katedraren eskutik. J. M. Areilzak uztailearen 26an Donostian eman zuen pregoian, agian Euskaltzaindian sortutako istilua gogoan zuela, zinikoki egin zuen abertzaletasun armaz garaituak egiten zuen kulturaren erabilera politikoaren aurka:

Porque hubo un tiempo, no tan lejano para que corramos sobre él un demasiado tupido velo, en que esta clase de fiestas —espontánea manifestación de la vida popular vasca— eran triste motivo de explotación política bajo el signo del odio y de la discordia. Se pretendía encubrir bajo el manto sagrado de lo vascongado una estúpida tesis secesionista que hiciera de nuestra lengua éuskara, reliquia gloriosa de la primitiva cultura céltica de la Península, clarín de ruptura de la unidad lingüística española; de cada elemento de nuestro rico patrimonio vernáculo, arma de disgregación, y de los festivales vascos argumentos dialécticos de rencor político y de proselitismo partidista (Areilza 1952: 33).¹¹⁷³

Nolanahi den, L. Villasantek arreta handiz prestatu zuen oportetako egonaldia erbesteko hainbat euskaltzainekin egoteko, baina ez zuen esperotako etekinik atera. J. M.

08-05; cf. IAEV 1952d.

¹¹⁷¹ SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-06-01 & 1952-08-04, EBB-0377-1.

¹¹⁷² SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-07-05, EBB-0377-1. Bestalde, «Semana Vasca»ren harira, A. M. Labayen buru zuten barnealdeko idazle abertzaleek ere bilera xume bat egin zuten Donostian, eta lekukotasunezko agurra bidali zioten erbesteko A. Ibinagabeitiari (ABA-AIB: A. M. Labayen, J. Garmendia «Zeleta», L. Michelena, J. C. Elguezua, N. Echániz eta A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-07-28).

¹¹⁷³ J. Artecheren arabera, *El Diario Vasco* argitaratutako bertsioak epeldu egin zuen J. M. Areilzak ahoz erabilitako beligerantzia (Urkia Etxabe 2006: 296-297).

Barandiaranekin bildu nahi izan zuen, baina EIL-SIEBeko kidearen egunkari zehatzaren arabera, S. Michelena (OFM) baino ez zen agertu irailaren 6ko bisitara (Barandiaran 2009: 814).¹¹⁷⁴ R. Lafonekin ere oso labur hitz egin ahal izan zuen L. Villasantek, eta irailean Donostian berriz elkartzeko geratu ziren, hizkuntzalaria Madrilera abiatu aurretik.¹¹⁷⁵ EGZ aurreko euskaltzain jeltzale gisa zuen ospeagatik, bereziki garrantzitsua zen Pauen erbesteratuta zegoen S. Altuberekin ados jartzea.

S. Altubek Euskaltzaindiaren ekitaldi irekian sortutako istiluaren berri jakin bezain laster F. Krutwigi gutun bat bidali zion ALVko idazkaritzara.¹¹⁷⁶ F. Krutwigek 1951ko abenduaren 30ean idatzitakoari egindako erantzuna zen, eta uste izatekoa da Bilboko gutuna jaso zuenean ez ziola garrantzirik eman, ALVrekin etsita zegoelako. Baina prentsa jeltzalean hitzaldiaren berri jakin ondoren, erantzun egin zion. Nuevo Ateneo-n egindako lanagatik zoriontzeaz gain, R. M. Azkueren *Morfología vascaren* ale bat Pauera bidaltzea eskatu zion. Liburua I. M. Echaideren Donostiako bulegoan omen zegoen geldi, errezeloren bat aditzera ematen zuena. Dena dela, S. Altubek ez zuen ALVn parte hartzeko asmorik agertzen. Iradokizunen bat egitera mugatu zen: euskaltzain berriei *Euskeraren* bilduma osoa eman beharko litzaiekeela, EGZ aurreko erabakien jarraitasuna ziurtatzeko.¹¹⁷⁷ Gutunean ez zuen erantzun hitzaldiaren arazoa aipatu, baina L. Villasantek irailean Pauen gorabehera guztiak azaldu zizkion.¹¹⁷⁸ Frantziatik itzuli ondoren, honela azaldu zion frantziskotarrak idazkariari S. Altuberen iritzia, azken finean Euskaltzaindiari eta bereziki euskaltzainburuordeari jarrera erresistenteagoa eskatzen ziona diktadura frankistaren aurrean:

Exaide Jaunak [F. Krutwigen] hitzaldiari buruz egindako txosten hura utzi neraukon irakurtzeko. Etzitzaion bat ere gustatu, gogorregi zerizkion. Euskaltzain bat, euskararen eskubideen alde aurpegia athera duelako eta egizkoak ta jakinak diren erru ta obenak salatu dituelako, nork eta bertze euskaltzain batek era horretara joko du ba (zion)? Krutwigren [sic] gehiegikeri bat[z]u ontzat ez hartuarren, hain errukigabeko idazti hori berak ezin omen du onetsi. Zer erranen lukete (zion) kanpoaldean dabiltzen euskaldunek, paper hori beren eskuetan eroriko balitz eta zer pentsatuko lu[ke]te [sic] gure Akademiak? Bere ethorkia ukhatu duela, hilik dagoela, alegia eta gehiago itzalik merezi ezduela. Hauxe zan bere iritzi edo aburua, eta gizon zuur batena denaz gero, zuk jakitea konbeni

¹¹⁷⁴ ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutuna L. Villasanteri, 1952-08-20.

¹¹⁷⁵ ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-09-03.

¹¹⁷⁶ ABA-EUS: S. Altuberen gutuna L. Villasanteri, 1952-08-20.

¹¹⁷⁷ ABA-EUS: S. Altuberen gutuna F. Krutwigi, 1952-07-01.

¹¹⁷⁸ ABA-EUS: S. Altuberen gutuna L. Villasanteri, 1952-09-24.

dela gogoratu zait eta hala, hark erran bezala, jaulki derautzut.¹¹⁷⁹

S. Altubek artean harreman testimoniala zuen ALVrekin. 1952ko abenduan bere *Erderismos* (1930) liburuaren ale bat Bilbotik J. Zaiteguiri bidaltzea eskatu zion idazkariari.¹¹⁸⁰ N. Oleagak ale bat bidali zuen Guatemalara eta adeitsuki hurrengoa galdetu zion: «¿Noz ikusiko zaitugu gure artean? Egoki-egoki litzateke».¹¹⁸¹ Baina S. Altubek mutu jarraitu zuen, eta J. Zaiteguik berak idatzi zuen esker oneko gutuna 1953ko martxoan, bide batez *Euzko-Gogoarako* lankide euskaltzainak eskatuta.¹¹⁸²

L. Villasantek, Bordeletik, orobat, J. Zaiteguiri idatzi zion, *Euzko-Gogoari* ekonomikoki komentuetako harpidetzen bidez laguntzeko asmoarekin. Era berean, protesta egin zuen N. Ormaecheak «Quito'n arrebarekin» idazlanean Arantzazuko frantziskotarren EGZeko jarrera salatu zuelako (Izueta & Díaz 2007: 325-326; cf. Orixe 1951a).¹¹⁸³ Guatemalatik adeitsu erantzun zion, baina N. Ormaechearen salaketari eutsita. Aldizkarian joera guztietako idazleek parte hartzen zuten (S. Altube, C. Jemein, J. Mirande, N. Ormaechea edota F. Krutwig) eta L. Villasanteren sarrera hitzaldia bera nahiz *Gueroren* azterketa argitaratzeko prest zeuden.¹¹⁸⁴ Zuhurki ez bata ez besteak zuten aipatu F. Krutwigen hitzaldiaren arazoa, baina *Euzko-Gogoako* zuzendariak bazuen horren berri. A. Ibinagabeitia uztailan Pirinio Behereetan bildu zen, besteak beste, J. Diharce-S. Michelenarekin, azken hori lapurtera klasikoaren bidearekin oso kritiko ageri zena. Gainera, Parisen F. Krutwig berarekin egoteko aukera izan zuen, eta honela jakinarazi zion J. Zaiteguiri uztailaren 23an:

Krutwig ere ikusi dut. Emen dago orain, Parisen, eta ostatua bila ta beste zenbait gauzetan lagundu diot. Iz-aspertu luzeak eginak gaituzu. Bere ta Villasanteren itzaldiak ere utzi dizkit irakurtzeko. Badakit zuk ere irakurri dituzula. Krutwig'en euskerari buruz, ondo dakizu nere aburua. Itzaldiaren mamiari nagokila irakurri lanetan ernegarrienetarik irudi zait. Bekoz-beko ta bildur gabe euskeraren benetako auzia arakutzen dizu eta Hierarkhia ere bidez ta bear bezala astintzen. Bete-betea naukazu jaun orrekin «euskerak ikas-objektu barik irakats bide bear dula izan» dionean. Bilbaoko gotzaiak irakurri omen du

¹¹⁷⁹ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-09-27.

¹¹⁸⁰ ABA-EUS: S. Altuberaren gutuna N. Oleagari, 1952-12-07.

¹¹⁸¹ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna S. Altuberi, 1952-12-13.

¹¹⁸² ABA-EUS: J. Zaiteguiaren gutuna G. Maidagani, 1953-03-11. Gutun hori argitaragabea da, cf. Zaitegi 2007.

¹¹⁸³ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna J. Zaiteguiri, 1952-08-19.

¹¹⁸⁴ ABA-EUS: J. Zaiteguiaren gutuna L. Villasanteri, 1952-08-23. Gutun hori argitaragabea da, cf. Zaitegi 2007.

itzaldia baita aren baranoko apaizek ere. Eder iritxi omen die ta gainera bidezko. Or ikusiko dugu irakatsi aien arioratuko dituten beren eginak ere. Oraingoz ez du Zeru- Inperioan sartzerik, Parisen bertan zenbait ilabetez egongo da oraindik (apud Iztueta & Diaz 2007: 318).¹¹⁸⁵

F. Krutwigek hitzaldian landutako gaia bereziki minbera zen jeltzale katolikoentzat. A. M. Labayenek bere ikuspegia, genozidio kulturala hizpide, azalduko zion euskaltzain gaztearekin harremanetan zegoen A. Ibinagabeitiari:

Askotan ausnarka aritzen naiz artzai txarren eskutik euskera nolatan azkatu genezaken. Erri agintari ta artzaiak bat eginik baitdaude gu itotzearren, genozidio orren kaltean edozein gauza zillegi. Gure artean protestantismo eliz-batzar bat bilduko ba litzake orduan beldurrez bear bada apezpikuok bestela jokatuko lukete. Krutwig'ek reformista bokazioa duen ezker euskera «izorratzen» ibilli bearrean, —barkatu itza— uste dut erreligio aldaketa'ra, au da! ots! «Kristau Eliza Euskaldun» Toledotik azkatua sortzen leiako balitz, asmo onen inguruan beinik bein zarata aterako ba'lu «Leizarraga»tzaz oroituaz eta abar eta abar... Agian beste ollar batek egingo liguke kukurruku! Zer esan nai dudan antzematen diozu... Eliza katolikoak jipoia ta zigorra bear ditu garbi Ebangeri ta Jesukristoren arabera iraun dezan. Erroma'k ikusiko balu euskaldun protestantismo ori indartzen ari dala ez ginuzke ostikoka ibilliko eta gutxiago bidaliko orain ditugun bezelako «sasi» artzaiak.¹¹⁸⁶

Dena dela, frantziskotarraren udako hitzordu garrantzitsuenak huts egin zuen. Bordelera idatzi zion gutunaren arabera, F. Krutwigek uztailaren 25ean Donibane Lohizunetik Parisera alde egin zuen.¹¹⁸⁷ Bion hitzaldiak hainbat laguni eman zizkion irakurtzeko, besteak beste, EAJ-PNVren informazio zerbitzuetako A. Ibinagabeitiari. Parisen S. Michelenarekin elkartzeko asmoa zuen. L. Villasantek uste zezakeenaren kontra, ez zuen damurik egindakoaz. Bere erantzun hitzaldiaren kopia bat Vatikanora bidean omen zihoan. Sarrera ekitaldiko balentriak Euskaltzaindia kaltetu baino areago, gainditu egin zuela uste zuen:

Beharēkoa zan euskararen alde zerbait egitea eta neuk uste dut' zure abegiaren egunean zuk eta biok euskararen eta euskal kulturaren alde asko, anhitz egin dugula. Euskararen

¹¹⁸⁵ ABA-ZAI: A. Ibinagabeitiaren gutuna J. Zaiteguiri, 1952-07-23. Horren arabera, C. Morcillo Bilboko apezpikua hitzaldiaren edukiarekin bat zetorren, sinesgarria ez dena, *Egiz* aldizkariarekin izandako jarrera ikusita.

¹¹⁸⁶ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-09-03.

¹¹⁸⁷ A. Ibinagabeitiaren arabera, ordea, F. Krutwig uztailaren 23rako Parisen zegoen (Iztueta & Diaz 2007: 318).

salbatzekotz lan egin dugu eta orain euskalzain ephelen belduñagatik' aitzinatu gara uste dut.¹¹⁸⁸

L. Villasanteri hasitako bidean ez etsitzeko eskatu zion, euskararen etorkizuna ziurtatzeko bide bakarra zelakoan. Parisen bi hitzaldiak argitaratzeko asmoa agertzen zion. Frantziskotarrak bidalitako beste gutun bati erantzuteko, Paristik idatzi zion berriz ere irailaren 2an. Seguru asko L. Villasantek xeheago azaldu zion euskaltzainburuordearen konponbiderako proposamena, baina F. Krutwigek bere posizioari eutsi zion. Erbestean geratzea erabakita zuen, A. Ibinagabeitia eta EJ-GEko zenbait kiderekin hitz egin ondoren, Bizkaira itzultzea arriskutsuegia zelako. Erabat sinetsita zegoen bere teoriak onartzen hasiak zirela A. Ibinagabeitia, T. Monzón edota J. Mirande.¹¹⁸⁹ 31 urteko euskaltzainak erbesteko bizimodu gogorrari aurre egin behar zion, baina uste izatekoa da aita industrialariaren diru laguntza jasotzen zuela. Bestalde, L. Villasanteri Sorbonako Unibertsitatean euskara katedra bat lortzeko aukera aipatu zuen, ameskeria hutsa zena unibertsitate lizentziarik ere ez zuela kontuan hartuta. EJ-GEko kideek, halaber, sarrera ekitaldiko bi hitzaldiak argitaratzeko asmoa omen zuten. Espainian lapurtera klasikoaren bidean ez etsitzea nahi zuen; berak erbesteko eta Frantziako idazleen artean eragingo zuen. Hitzaldiaz den bezainbatean, ez zuen atzera egiteko asmorik eta Euskaltzaindiarengan uzten zuen horri erantzuteko ardurua guztia.¹¹⁹⁰ F. Krutwigen mezua ALVri jakinarazi zion L. Villasantek idazkariari irailaren 27an Oñatitik lapurtera klasikoaz idatzitako gutunean:

Huna hemen hitzez hitz bere guthunetik aldatua: «Erran iezezu Euskaltzaindikoei, beldur izan eztaitezen, zure eta nire hitzaldiez orain Euskaltzaindiak nehoiz baino handiago bere prestijea duela; bertzenaz orain uzta egin dituen ereñotzak galduren dituela. Zure eta nire bitartez Euskaltzaindiak euskararen interesseak zaindu nahi dituela erakhutsi du; bainan han dagozen euskaltzainak bildurtzen badira, laisterr ALVk bere prestija galt dezake». Nik hark agindua zuri jakin erazi bertzerik ez tut egiten. Baita batzarretarako lanen batzuk igortzeko asmo zuela ere erran zerautan.¹¹⁹¹

¹¹⁸⁸ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri [1952ko abuztua?].

¹¹⁸⁹ Hain zuzen, oso pozik zegoen EGLZ-DCEko buruak EAJ-PNVren buletinean F. Krutwigen teoriak azaldu eta hurrengo zenbakian L. Villasanteren sarrera hitzaldi «ederra» aztertuko zuelako. Euskaltzaina oker informatuta zegoen edo frantziskotarra manipulatu nahian ari zen. «Elentxea» ezizenarekin «Buru-lan, kultur-lan» artikulua sailatzen zuena ez baitzen T. Monzón sailburua, baizik eta A. Ibinagabeitia (*Alderdi* 1952-07; 1952-08; 1952-09; cf. ABA-EUS/ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna L. Villasanteri, 1952-10-01. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibinagabeitia 2000).

¹¹⁹⁰ ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri 1952-09-02

¹¹⁹¹ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-09-27.

Frantziskotarrak, gehiegizkotzat jo zuelako, ez zuen F. Krutwigen aipuko azken esaldia kopiatu: «Euskaltzainek euskararen onura nahi baldin badute, gure bidean barna iarraik bitez».¹¹⁹² Frankismoaren zigor judiziala baieztatu egin zuen *BOPV*k, F. Krutwigen aurkako errequisitoria argitaratu zuenean irailaren 3ko zenbakian:

Juzgado de instrucción número 3 de Bilbao

REQUISITORIA

Federico Kruceig [sic] Sagredo, de 31 años, hijo de Federico y de Isidra, de estado soltero, natural de Guecho, partido de Bilbao, provincia de Vizcaya, domiciliado últimamente en Bilbao, Rodríguez Arias, 1, 3º derecha y cuyo actual paradero se ignora, comparecerá en término de diez días en el Juzgado de instrucción número 3 de Bilbao, con el fin de constituirse en prisión, según lo acordado por auto dictado en causa número 279 de 1952, por el delito de propaganda ilegal, apercibiéndole que de no comparecer, será declarado rebelde y le parará el perjuicio a que haya lugar.

Bilbao, 29 de agosto de 1952.- El juez de instrucción, Félix Sánchez (Núm. 2928)¹¹⁹³

Hiru hilabete igaroak ziren BPDko presidenteak gobernadore zibilari F. Krutwigen hitzaldia salatu eta horrek Frantziara ihes egitea erabaki zuenetik. Ikusi dugunez, hasieran hilabete batzuen buruan itzultzeko itzaropena zuen. Erbesteko EAJ-PNVko kideen bidez ez ezik, familiaren bidez hitzaldiak eragindako gorabeheren berri izan behar zuen. A. Careaga adiskide eta Nuevo Ateneo-ko kide ohiari galdetu nionean Bilbon egindako gestioez, F. Krutwigen aitak laguntza eske berarengana jo zuela erantzun zidan:

Bueno, también conocí a su padre, un alemán. Decían que era judío, pero yo no lo sé, no me fío mucho de la gente. Lo que sí era un hombre muy cordial, muy simpático, gran defensor de su hijo. Claro, cuando su hijo se exilió, yo me acuerdo que su padre me vino a ver para que Fede pudiera volver aquí. [...] Pues yo me acuerdo de que me vino a ver, como yo estaba más o menos bien situado con la gente de la situación, para que interviniera con el Gobernador Civil, que era aquel Genaro Riestra. Fui a verlo para interceder por Fede, para pedirle que lo dejaran volver y tal. Me dijo: «¡De Krutwig no me hable usted! ¡Estoy harto de oír hablar de ese tema!»¹¹⁹⁴

¹¹⁹² ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri 1952-09-02

¹¹⁹³ In: *BOPV*, 1952-09-03. Archivo Histórico Provincial de Vizcaya-ko artxibozain adeitsuaren komunikazio pertsonalaren arabera, ez dago F. Krutwigen hitzaldiaren inguruko espedienterik Bizkaiko Gobernu Zibilaren dokumentazioan (2014-01-22). Ondoren, Tribunal Superior de Justicia del País Vasco-ra idatzi nuen, Audiencia Provincial de Vizcaya-ren erregistro liburuan auziaz informaziorik zegoen jakiteko, baina ez nuen erantzunik jaso.

¹¹⁹⁴ A. Caregaren komunikazio pertsonala, 2008-06-03.

Erbestean geratzea erabaki eta *BOPV*k errequisitoria argitaratu ondoren, EJ-GEk Parisko berripaper ofizialeko lehen orrian salatu zuen F. Krutwigen egoera: «La justice franquiste recherche un membre de l'Académie de la langue basque» (*Euzko Deya* 1952-10-01). Auzipetuarekin berarekin adostutako informazioa izan behar zuen, Euskaltzaindiaren gerraondoko egoera azaltzeaz gain, erantzun hitzaldiaren edukia zabal aipatzen zuelako frantsesera itzulita. Informazioaren arabera, F. Krutwigen karrari sor zitaion neurri handian ALVren gerraondoko jarduera, baina era berean J. M. Seminario euskaltzain falangistaren inposizio politikoa salatzen zuen. Erantzun hitzaldia gaztelaniara itzuli ondoren, G. Riestraren aginduz, F. Krutwig ALVtik kanporatzen alferrik saiatu zela adierazi zuten. Erantzun hitzaldiaren zati luzeak kopiatu ondoren, egozten zitzaion delituagatik izan zezakeen zigorra jakinarazi zuten:

La police le recherche comme responsable de deux délits: propagande illégale et insulte aux autorités. Pour le premier délit, le Code Pénal prévoit des peines allant de six mois et un jour à six ans de prison, plus une amende de 10.003 [sic] à un demi-million de pesetas. Pour le second délit, le Code stipule une peine d'emprisonnement allant d'un mois et un jour à six mois, plus une amende de 1.000 à 10.000 pesetas (*Euzko Deya* 1952-10-01).

Urriaren 2an I. M. Echaidek idazkariari idatzi zion ALVren hurrengo batzarra prestatzen joateko. Madrilera zihoan laster eta batzarra azaroan egitea proposatzen zuen, bera egon ahal izateko. Frantziatik itzuli ondoren, bigarren aldiz bildu zen L. Villasanterekin eta miretsita zegoen euskaltzain berriaren gaitasunarekin. F. Krutwigen gutunak erakutsi zizkion, eta argi zegoen balentriatzat zuela egindakoa eta ez zuela berehala iritiz aldatuko. Auzia epaituta omen zegoenez, arazoa amaitutzat jo eta bestelako lanari, bereziki literatur euskararen arautzeari, ekitea nahi zuen:

En esta segunda visita me informó el P. Villasante de un hecho que me dejó consternado y asombrado; a saber, que habían condenado a Krutwig a 25 años de prisión como consecuencia de su discurso ya citado. Consternado, pues, juzgo el dolor del pobre Krutwig al verse así separado de su familia y de sus amigos; asombrado, porque nunca pensé que pudiera recaer sobre él una sentencia tan dura.

Reflexionando sobre el particular, he pensado si ello será debido a haber sido juzgado en rebeldía, no pudiendo, por tanto, designar un defensor; creo que si hubiera mediado un abogado hábil, hubiese salido absuelto o con una penalidad insignificante. Pero el defensor habría sido nombrado de oficio y sería probablemente un abogado joven sin

conocimiento ni interés alguno por el asunto y que no se habría molestado en estudiarlo, porque nada le iba a producir. Yo espero confiadamente que Krutwig podrá acogerse en lo futuro a algún indulto; pero es de temer, por bien que vayan las cosas, que pasen varios años sin que pueda regresar a Bilbao.

Ello hace, por desgracia, inútil el que en la Academia nos ocupemos más de su discurso. Cuanto ahora pudiéramos acordar resultaría extemporáneo dentro de tres, cinco o diez años; y el propio Sr. Krutwig, transcurrido ese tiempo y con lo mucho que se aprende en el exilio, habrá modificado mucho sus puntos de vista actuales. Creo, pues, que este asunto debe archivarse.

Pero hay otro asunto que plantea, no el discurso de contestación, sino el de ingreso. El P. Villasante habla de la creación del Euskera literario y este asunto no puede ser extraño a la Academia. Creo que debiéramos cambiar impresiones sobre el mismo en nuestra próxima reunión.¹¹⁹⁵

11.5 Izendapen berriak

Ekaineko batzar zirriborroaren arabera, L. Michelena-J. Moulíer euskaltzain eta E. Erquiaga-S. Michelena urgazle izendatu zituzten. Batzar agiri ofizialik ez egon arren, egun berean idazkariak lau kide berriei izendapenaren jakinarazpenak bidali zizkien.¹¹⁹⁶ Horrelako izendapenetan nabari da, agiri ofizialik ez egon arren, batzar horietan hartutako erabakiek ondorio efektiboak izan zituztela bizitza akademikoan. *Herria-BIAE*Vek, halaber, batzarreko gainerako edukietan sartu gabe, lau izendapenon berri eman zuten.¹¹⁹⁷ P. Lafittek ezin izan zion kexu bat adierazteko tentazioari eutsi: «Heldu den aldian, diotenaz, erabaki handiak hartuko dituzte. Alabainan ordu litake, elheak elhe utzirik, lanak ere norapait ager ditezten : gauden beha» (*Herria* 1952-07-03).

Luis Michelena

Luis Michelena Elissalt (1915-1987) Gipuzkoako Erreterian jaio zen. EJ-GEko armadaren soldadu gisa, Santoñan atxilotu egin zuten 1937ko abuztuan. Heriotza zigorra, lehenengo, eta 30 urteko presoaldia, ondoren, ezarri zizkioten. Zigorra 14 urtera mugatu ondoren, azkenean 1943an presondegitik irten eta Madrilén hasi zen lanean. 1946an

¹¹⁹⁵ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1952-10-02.

¹¹⁹⁶ ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak L. Michelena-J. Moulíer-E. Erquiaga-S. Michelénari, 1952-06-27.

¹¹⁹⁷ Argentinako aldizkariak batzarra abuztuan izan zela adierazi zuen (IAEV 1952d).

berriaz atxilotu zuten ekintza antifrankistengatik, eta beste bi urtez egon zen preso, 1948ko apirilera arte. Ondoren J. Ajuriaguerraren idazkaritza lanetan aritu zen ezkutuan, baina 1951ko grebaren ondorioz EBBeko kidea erbesteratu ondoren, kulturgintza posibilitatean murgildu zen, EAJ-PNVren garaiko ikuspegiarekin bat zetorrena. L. Michelenaren hitzetan ikus dezakegu, adibidez, nolako antza hartzen zioten abertzaleek orduko F. Krutwigi: «Procedía de un medio absolutamente extraño. No era nacionalista y era mirado como sospechoso, pero no de marxista-leninista, sino de franquista» (apud Ibarzabal 2001: 158).

Presondegian R. Menéndez Pidalek gaztelaniarekin egindako gramatika historikoa euskarari aplikatzeko nahia sortu zitzaion. Madrilgo Unibertsitate Zentralean filologia klasikoko lizentzia bere kabuz hasi eta 1951ko urrian amaitu zuen, sari bereziarekin. Donostiako 1950eko Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos-en ezagutu zituen R. Lafon-A. Tovar. Aurrekari penalen zamarekin, besteak beste, Irungo akademia pribatu batean eskolak ematen hasi zen, baldintza ekonomiko zailetan. Egin behar izan zituen ehunka zereginen erakusgarri, J. Bilbao Kubara joan zenean, *Eusko Bibliografiaren* egitasmoaz ere arduratu zen aldi batez.¹¹⁹⁸

RSVAPen aldizkarian eta CSICEko *Emeritan* argitaratu zituen lehen lanak historiako euskalari handiena izango zenak. Gipuzkoako agintari frankistak haren gaitasunaz jabetuta, 1950eko abendurako *BRSVAPen* probak zuzentzen ari zen.¹¹⁹⁹ Lizentziako sari berezia eskuratu ondoren, RSVAPen 1951ko abenduaren 9ko batzarrean, zorianak ematea erabakitzeaz gain, M. Ciriquainek proposatu zuen L. Michelena formalki izendatzea *BRSVAPen* erredakzioko idazkari, hilean 250 ptako lansariarekin, eta batzarrak aho batez onartu zuen.¹²⁰⁰ Hala ere, ardura politikoen zamaren erakusgarri, ez zuten aldizkariaren erredakzio batzordeko kide izendatuko 1956ra arte.¹²⁰¹ F. Arocena GPDko artxibozainari esker, *Egan* literatur aldizkariaren erredakzioan ere gero eta esku gehiago hartzen joan zen.¹²⁰² Ordura arte, aldizkari elebidunaren euskal atalaz GPDko liburuzaina arduratu zen eta, bigarren mailan, A. Irigaray. J. Arteche lanpetuegi zebilelako, *Eganen* 1953ko zenbaki bakarra, L. Michelenaren eskutik aterako zen

¹¹⁹⁸ ABA-ODA: L. Michelenaren gutuna O. Apraizi, 1951-10-31.

¹¹⁹⁹ KMK-KM: L. Michelenaren gutuna J. Gárateri, 1950-12-21.

¹²⁰⁰ KMK: RSVAPeko buruaren ofizioak L. Michelenari, 1951-12-14.

¹²⁰¹ KMK: RSVAPeko buruaren ofizioa L. Michelenari, 1956-01-14.

¹²⁰² ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-03-06.

(Ibarzabal 2001: 142-148; Michelena 2011e: 271-277).¹²⁰³

Euskaltzaindiari dagokionez, A. Irigarayk proposatu zuen L. Michelena urgazlerako eta 1951ko otsailean egin zuen lehen aldiz bisita ALVren Bilboko egoitzara. Ribera kaleko bibliotekan hainbat idazlan eskuratu ahal izan zituen.¹²⁰⁴ Donostiako euskaltzainek eta Gipuzkoako zenbait agintari frankistek izendapena babestu zuten, L. Michelenak ohi ez bezalako gaitasuna erakusten zuelako. J. Arteche GPDko liburuzainak Donostiako egunkarian L. Michelena euskaltzain berriari gorazarre egin zion eta Errenteriako Udalarari eskatu zion sarrera ekitaldia antolatzea, baina L. Villasanterenak eragindako traumaren ondoren, Euskaltzaindiaren historian berebiziko arrastoa utziko zuen L. Michelenak ez zuen sarrera hitzaldirik egingo 1961 arte (*La Voz de España* 1953-07-09).¹²⁰⁵

Jules Moulier «Oxobi»

Jules Moulier «Oxobi» (1888-1958) Bidarrain (Pirinio Behereak) jaio zen. Arrangoitzeko erretoreak 64 urte zituen euskaltzain iznedatu zutenean. J. Saint-Pierre-L. Dassancen belaunaldikoa zenez, ez da harritzekoa Frantziako euskaltzainek *Eskualduna-Gure Herriako* lankidearen alde egin izana. Idazle gisa, poesian eta alegietan nabarmentzen zen. Euskal elizgizonen artean ezohikoa zen, hasieratik izan baitzen J. Ybarnegaray diputatu eskuindarraren aurkakoa. P. Lafitteren mugimendu erregionalista eta *Herria* astekaria lagundu zituen (Charritton 1990; Larronde 1994: 43; Murua Uribe 1997). *Gure Herriaren* 1938ko zenbakian, EGZ betean, bere jarrera ustez apolitikoa azaldu behar izan zuen:

Eskualzaleen Biltzarrak ez du politika deitzen duten saltsatik jastatu ere nahi... Ez gira, erdaldun eta, entzuna dutanaz, eskualdun zenbeitetik girela derasatena: Autonomistes-Separatistes. Hein batean, gure chokhoan behaitzgorik gabe, Gureak Gure nahi ditugu, bertzerik ez (apud Hernández Mata 2007: 74).

¹²⁰³Euskara hutsean agertutako lehendabiziko zenbakia izan zen, hurrengo edukiekin: A. Irigarayren hitzaldia, N. Echánizaren poemak eta A. M. Labayenek aurkitutako «Lizardi»ren antzerkia Dena dela, zenbaki hori 1954ko apirilera arte ez zen zabalduko (ABA-EUS: L. Michelenaren gutuna L. Villasanteri, 1954-04-04).

¹²⁰⁴F. Krutwigek, orobat, K. Boudaren «Die tibetisch-kaukasische Sprachwissenschaft» (1950) artikulua eramane zion Euskaltzaindiak otsailaren 23an Donostian egin zuen batzarrerara (KMK-KM: F. Krutwigen gutuna L. Michelenari, 1951-02-26).

¹²⁰⁵«Euskal-iztegiak XVII-XVIII'garren mendeetan» izeneko sarrera hitzaldia eman zuen Errenteriako udaletxean 1961eko urtarrilaren 22an (Michelena 2011d: 505-522).

«Oxobi»k ez zuen 1920ko araudiak ezarritako sarrera hitzaldirik egingo. 1930 ingurutik urgazle izan arren, Euskaltzaindiaren zeregin akademikoetatik urrun zegoen, hartzaile bakar Baionako elizbarrutiko irakurle arruntak baitzituen.¹²⁰⁶ P. Lafittek, 1949ko irailean euskaltzain izendatua izan ondoren, *Herria* astekaria itxuraz eta edukiz berritu zuenean, J. Moulierrek haren anbizio intelektualari iseka egin zion: «Il ne faut pas se placer devant le miroir du *Monde*, du *Sud-Ouest*, ou de *l'Humanité*, ou de l'Académie Basque mais devant le lecteur moyen de la Basse Navarre et du Labourd».¹²⁰⁷

Urgazleak eta baztertutako hautagaiak

F. Krutwigek maiatzean aurkeztutako txostenean L. Aquesolo karmeldarra ere proposatu zuen urgazlerako, baina hautagai hori kanpoan geratu zen. Bizkaiko Lekeition jaiotako Eusebio Erquiaga (1912-1993) urgazle berria Banco de Vizcaya-n lan egiten zuen eta, besteak beste, EGZearen EJ-GVko *Eguna* egunkariko erredaktore izan zen (Altzibar Aretxabaleta 2015). Uste osoko abertzalea zen beste urgazle berria ere: Gipuzkoako Zarautzen jaiotako Salvador Michelena (1919-1965). Frantziskotarren loraldiko euskal sermoigile eta idazle nagusia zen: 1949ko *Arantzazu* liburu suspertzailearen ondoren argitaratu zituen 1951ko *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* eta 1952ko *Ogei kanta Arantzazuko* (Agirrebaltzategi 2003: 328). Ikusi dugunez, M. Lecuonak ere frantziskotar hautagaiaren alde egin zuen maiatzeko batzarrean. Garaiko ezinegonaren erakusgarri, E. Erquiagak ez zuen erantzun 1953ko otsailera arte.¹²⁰⁸ L. Villasanteri adierazi zionez, berandu iritsi zitzaion ALVren jakinarazpena.¹²⁰⁹

Jean Diharce «Iratzeder» (1920-2008) beneditarra Donibane Lohizunen (Pirinio Behereak) jaio zen. J. Saint-Pierre apezpikuaren aulkia betetzeko beste hautagaia, lapurteraduna ez ezik, 32 urteko gaztea zen, F. Krutwig-L. Villasanteren belaunaldikoa. Belokeko monasterioa BMGko erresistentzia gune eta EGZeko erbesteratuen laguntzaile izan zen, agian barnealdeko Euskaltzaindian ezinegona eragiten zuena (cf. Diharce 1997). Era berean, Beloken euskararen alde ari ziren lanean, Arantzazuko santutegiaren antzera. Ezkila argitaletxearen bidez euskal liturgiari edota Deixonne legeak irekitako bideari

¹²⁰⁶ J. Moulierren urgazle izendapenaren arrastorik ez dago, ez batzar agirietan, ezta artxiboko jakinarazpenetan ere. Aitzitik, 1930eko *Euskeran* argitaratutako urgazleen zerrendan ageri da (ALV 1930b).

¹²⁰⁷ ABA-LAF: P. Lafitte-J. Moulier arteko gutunak, [1949-12-15].

¹²⁰⁸ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-10.

¹²⁰⁹ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-04-02.

ekarpen garrantzitsuak egin zizkioten. Testuinguru horretan kokatu ziren G. Lerchundiren *Kantikak* (1948) edota J. B. Harymbat-B. Pons-en *Méthode basque pour débutants* (1951), azken hori Bordeleko Unibertsitateko katedran ere erabiltzen zena.¹²¹⁰

F. Krutwigek maiatzeko txostenean R. M. Azkueren aulkirako P. Múgicaren alde egin izana, L. Michelena bezalako lehiakide akademiko indartsu bati jarritako eragozpena ere izan zitekeen.¹²¹¹ Plácido Múgica Berrondo (1906-1982) jesuita Gipuzkoako Urnietan jaio zen eta M. Lecuonak maiatzean adierazi zuenez, gaztelania-euskara hiztegi handirako 200.000 fitxa bilduta zituen.¹²¹² Loiolako santutegiko irakasleak hasieranaszetika hiztegia egin nahi izan zuen, R. Olabidek egindako Bibliaren itzulpenetik abiatuta. Baina ondoren hiztegi orokorra egitera ausartu zen, garaian argitaratutako corpus nagusiez lagunduta: R. M. Azkue-P. Lhande-I. López Mendizábalen hiztegiak, R. Olabide-N. Ormaechearen itzulpenak edota euskaltzainburu zenaren gramatika lanak.¹²¹³ 1952ko Gabonetan N. Oleagarekin bildu ondoren, R. M. Azkuek abiatutako *Diccionario español y vascoren* (1916) lehen bi liburukiak eskuratu zituen.¹²¹⁴ Bilboko idazkariak, halaber, R. M. Azkueren beste gaztelania-euskara hiztegi amaitu gabe bat utzi zion, liburuki bakarrez osatua.¹²¹⁵ Helburua, M. Larramendik XVIII. mendean abiatutako bidetik, RAEren hiztegi arrunteko sarrera guztiei euskal ordaina ematea zen. Lan nekeza izan zen, eta 1958an ordenako agintariak liberatu egingo zuten hiztegia bukatu ahal izateko. Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara corpusak ere erabili omen zituen. Jesuitek argitaratutako zuten 2.000 inguru orrialdeko *Diccionario castellano-vasco* (1965), ALVren gaztelania-euskara hiztegi normatiboa nolabait ordezkatu zuena (Sarasola 2006: 906-911).

11.6 Euskaltzaindiaren erresilentzia

Euskaltzainburuordearen eskaerari jarraituta, azaroaren 27an GPDko jauregian

¹²¹⁰ SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1951-12-15, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

¹²¹¹ ABA-EUS: F. Krutwigen txostena Euskaltzaindia berriztatzeaz, [1952-05-09].

¹²¹² ABA-EUS: M. Lecuonaren idazkia Euskaltzaindiari, [1952-05-09].

¹²¹³ KMK-KM: P. Múgicaren gutuna L. Michelinari, 1953-11-17. Data horretan 250.000 fitxa inguru zituen bilduta.

¹²¹⁴ Hirugarrena Loiolako santutegian zuten, eta azken bi liburukiak GPDko J. Urquijoren bibliotekan eskuratu zituen (ABA-EUS: P. Múgicaren gutunak N. Oleagari eta G. Maidagani, 1953-03-14).

¹²¹⁵ ABA-EUS: N. Oleaga-P. Múgica arteko gutunak, 1953-03-24 & 1953-03-27. «A-Almibarado» arteko hitzak jasotzen dituen R. M. Azkueren *Diccionario español-vasco = Dictionnaire espagnol-basque* [S.l.: s.n.] bide da.

bildu ziren hurrengo euskaltzainak: I. M. Echaide, A. Irigaray, L. Villasante, N. Oleaga eta A. M. Labayen urgazlea. B. Echegaray-R. Lafonen ezin etorria adierazi zen. B. Echegarayk berriz ere Tribunal Supremo-ko idazkaritza lanagatik Madrilen geratu behar izan zuen. Galiziako jargoietako euskal hitzak ikertzen jarraitzen zuen, eta euskaltzainburu kargurako I. M. Echaideren aldeko botoa eman nahi zuen.¹²¹⁶ R. Lafonek ere ezin izan zuen etorri, Bordeleko Unibertsitatean eskolak ematen zituelako. Postaz bere bi idazlan bidali zituen ALVra: *Word* aldizkari ospetsuan argitaratutako «Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiques» (1951, 1952) eta *BRSVAPen* argitaratzen ari zen B. Dechepareren frantsesezko itzulpen kritikoa (Lafon 1999: 729-794).¹²¹⁷

Nazioarteko artikuluek ikusgarritasuna ematen zioten euskarari eta euskaltzainburuordeak, esker onez, AEBko aldizkarian argitaratutako artikuluen iruzkin luzea egingo zuen *BRSVAPen*, harreman genetikoak guztiz baieztatu gabe, R. Lafonen gaitasuna goratuta. J. Urqujo hil ondoren, hasieran I. M. Echaide saiatu zen *RSVAPen* buletinean hizkuntzalaritza arloko zentsore lana egiten, haren maila erdietsi gabe (Echaide 1952; 1953). Gainera, idazlan horiek nazioarteko euskaltzainen harreman sareari nolabait eusteko balio izan zuten: R. Lafon, H. Gavel edota Txileko D. de Inza.¹²¹⁸ Euskaltzainburuordearen separatak izan ziren, hain zuzen, D. de Inzari (OFMCap) Euskal Herritik iritsi zitzaizkion euskararen inguruko lehen berriak.¹²¹⁹

Kasu honetan batzar agiri ofiziala gordetzen da, soilik euskaraz egina, eta horren arabera, euskaltzainburuordeak esan bezala F. Krutwigen auzia epaituta egon arren, JCVrekiko arazoak konpondu gabe jarraitzen zuen, nahiz eta ALVko idazkaria JCVko buruarekin harremanetan egon:

Oleaga jaunak azaltzen dauz lenaurreko batzarrean artu zan Krutwig jaunaren gaizko erabagia beterik Bizkai'ko Junta de Cultura'ren lendakariagaz erabili dabezan autuen gora-berak. Onetsiak izan dira ete bar[r]iro ezartzen dako arazo oneri ekin dagiola. Euskaltzaindiaren onerako elburua lortu arte (ALV 1982: 25).

Euskaltzaindiaren batzar agiria nahiko iluna izan arren, JCVko agiri liburuari

¹²¹⁶ ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-11-25.

¹²¹⁷ ABA-EUS: R. Lafonen gutuna N. Oleagari, 1952-11-24.

¹²¹⁸ ABA-EUS: H. Gavelen gutunak I. M. Echaideri, [1952?] & 1953-06-17.

¹²¹⁹ ABA-EUS: D. de Inzaren gutuna I. M. Echaideri, 1953-08-24.

esker jakin dezakegu argiago zein zen bi erakundeon arteko tirabira. Euskaltzaindiaren ekitaldi publikoan sortutako arazoa Bizkaiko gobernadore zibilaren eskuetan utzi zuenetik ekainaren hasieran, JCVk ez zuen arazoa hizpide izan, batzar agirien arabera. CSICek urteko diru laguntza 3.000 ptan handituko zuela (18.000 pta) adierazi eta J. Irigoyenek Zumetxaga ermitan nahiz Ondarroako elizan zaharberritze lanak proposatu ondoren, ALVrekiko harremanaren egoera azaldu zuten:

El Sr. Presidente informa ampliamente a los Sres. Vocales de lo ocurrido con motivo del lamentable incidente a que dio lugar la intervención del Sr. Kru[t]wig en una reunión de la Academia de la Lengua Vasca celebrada en los locales de la Junta, y de como a pesar de haber acordado la directiva de dicha Academia en el mes de Julio dar una explicación a esta Junta, que neutralizase el desagradable efecto que causó la intervención del Sr. Kru[t]wig, dicha explicación no ha llegado, habiendo expuesto personalmente el Sr. Oleaga al informante que no creía procedente dar dicha explicación mientras estuviese pendiente de acuerdo el seguir concediendo a la Academia la subvención que le otorgaba la Junta, por si se interpretaba dicha gestión de la Directiva de la Academia, cerca de la Junta de Cultura, como una humillación mendigante para obtener dicha subvención.

Los reunidos coincidieron con el Sr. Presidente con que el efecto que a todos hacía esta suspicacia del Sr. Oleaga, era contraproducente y por lo tanto continuaría en suspenso el acuerdo de otorgamiento de la subvención en espera de la explicación acordada por la Academia en el mes de Julio, y que no se ha dado todavía.¹²²⁰

Horri esker dakigu Euskaltzaindiak erabaki zuela F. Krutwigen hitzaldiaren inguruko azalpenik ez ematea, JCVk 1951ko bukaeratik etenda zuen diru laguntza eman arte. Bestalde, nabari da N. Oleaga idazkariaren jarrera adoretua, R. M. Azkue zenaren laguntzarik gabe eta I. M. Echaidek Bizkaian zuen eragin ezarekin, berak hartu behar baitzuen erantzukizun guztia BPD-JCVko agintarien aurrean. Seguru asko gorabehera horiekin lotuta, Euskaltzaindiaren egoitza hondatua konpontzeko ardura eman zitzaion idazkariari azaroko batzarrean, agiri zirriborroaren arabera.¹²²¹

Ikusi dugunez, ekainaren 27ko batzarrean, ALVk F. Krutwigen hitzaldia gaitzesteko erabakia hartu zuela dirudi, baina ez dago argi nolako adostasunarekin. J. M. Seminario bertan izan zen eta uste izatekoa da JCV-Gobernu Zibilari jakinarazi ziela

¹²²⁰ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-12-01, Junta de Cultura C-62. Batzar horretan hurrengoak bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. B. Merino, J. Irigoyen, H. Bilbao, A. Bilbao, F. Ygartua, N. Zorrilla, C. Lasterra, B. Bureba eta E. Calle. Idazkariak batzar agiriko zerrendan bi aldiz aipatu zuen Antonio Bilbao, eta uste dut Hilario Bilbaorekin nahastu zuela horietako bat.

¹²²¹ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1952-11-27.

estraofizialki bertan eztabaidatutakoa. Euskaltzainburuordea, ordea, ez zen bertan egon, eta hitzaldia aztertu ondoren, damutzeko aukera eman nahi izan zion F. Krutwigi. Uztailean, L. Villasantek bere burua eskaini zuen Frantzian harekin bildu eta euskaltzainburuordearen mezua helarazteko. Horregatik, ekaineko agiri zirriborroak aipatzen zuen uztailaren 29ko batzarrak ez zen egin eta JCVri ez zitzaion azalpen ofizialik eman, ihes egindako euskaltzainaren berri jakin arte.¹²²²

F. Krutwigek, ordea, eskaintzari uko egin zion eta ez zuen atzera egin nahi izan. Irailean bere aurkako errequisitoria argitaratu ondoren, auziari ihes egiteagatik epaituta zegoen. BPDko presidenteak zor zitzaion azalpena ahoz eskatu zionean Bilboko idazkariari, horrek ALVren duintasunaren aurkakotzat jo zuen azalpenik ematea, JCVk diru laguntzak etenda zituen bitartean. ALVren azaroko batzarrak babestu egin zuen N. Oleagaren jarrera. Bestalde, agiri ofizialak ez esan arren, L. Villasanteren bidez iritsitako S. Altuberen mezua ere eztabaidatu zen, baina ALV politikoki ezbaian jartzen zuelako ez zen ofizialki aipatu.¹²²³ Hain zuzen, EJ-GEren buletineko euskal orriaren ardura zuen A. Ibinagabeitiak istilu hura euskaltzainen aurka egiteko baliatu zuen:

Ez dira pozgarriak, ez orixe, Euskaltzaindia dala-ta Bilbaotik datozkigun berriak. Azkue jauna il ezker, ez omen dago Euskal-Akademian autsa, zitza ta alperkeria baizik. Negargarria omen Ribera kaleko etxearen itxura. Zertan zerate euskaltzainok? Ez da aski Akademiku tituluaren jabe izatea: titulu orren jabe danak euskal arloan lan egin bear du eta beste euskaldun guziak baino gogozago. Edota zuen izenak «de l'Academie Basque» esakuntxoaz apaintzeko baizik ez ote zerate Euskaltzaindiratu? Beude apainkeriak eta betoz langileak. Ori, ori bear dugu. Ai berrogei urte lenagoko Azkue sortuko ba'litz! Ederki akulatuko zinduzkee. Bai orixe (*Euzko Deya* 1952-11-01).¹²²⁴

Nolabait F. Krutwigen lekukoa hartuta, L. Villasantek batzarreko txosten nagusia aurkeztu zuen: «Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bidez Euskaltzaindiari». Txostenak ekainaren 27ko data darama eta uste izatekoa da egun horretako batzarrerako prest zegoela, baina F. Krutwigen arazoak hartu zuen garrantzia ikusita, geroratu egin zuela aurkezpena. Donostiako *La Voz de Españak* ekainaren 19ko artikuluan Euskaltzaindia hiltzat jo izanak eragindako txostena zen. ALVk, bizi zela frogatzeko,

¹²²² ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1952-07-29.

¹²²³ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1952-07-29.

¹²²⁴ 1952ko urrian hartu zuen A. Ibinagabeitiak *Euzko Deyaren* euskal orriaren zuzendaritza (Iztueta & Diaz 2007: 332)

nahitaezkoa zuen idazlanak argitaratu eta banatzea. *Euskera* agerkaria berriz plazaratzea ordura arte ezinezkoa izan zenez, liburu bilduma bat argitaratzea proposatu zuen. Horrek zituen eragozpen ekonomiko-juridikoak argitzeko, J. M. Gogeochea editorearekin harremanetan zegoen. Bilboko Desclée De Brouwer argitaletxearen sortzailearekin hitz egin ondoren, hauek ziren proposamenaren urratsak:

1. Euskaltzaindiaren egoera juridikoa argitu behar zen nahitaez. Horretarako ALVren ordezkariak Espainiako Gobernura jo behar zuten gestioak egiteko. Aldi berean, Euskaltzaindiaren programa bat zehaztu behar zen Madrilera aurkezteko. Nabarmena da BPD-JCVrekiko lotura hondatua saihestu eta zuzenean Hezkuntza Nazionaleko ministerioarekin hitz egiteko asmoa ageri zela.
2. Argitalpen programa bat zehaztu: klasikoen edizioak, euskaltzainen nahiz bestelako egileen idazlan berriak, literatura, ikerketa, didaktika, dibulgazioa, etc.
3. Bilboko egoitzan bulego bat antolatu, argitalpen programa hori aurrera eraman eta iragarki-harpidedunez ardura zedin. Gerora bulego berriak zabal zitezkeen gainerako hirietan.
4. Oinarri ekonomikoa harpidetza sistema baten bidez ziurtatu. 1.000 inguru harpidedun behar ziren (25 pta/hiruhilekoko) urtean 4 liburu argitaratzeko.
5. Liburuak saltzeko, banaketa zirkuitu bat antolatu, liburu denda eta saltzaileen bidez.¹²²⁵

Agiri ofizialean ez agertu arren, idazkariaren zirriborroaren arabera, frantziskotarraren txosteneko lehen puntuaren ardura I. M. Echaide-A. Irigarayren esku utzi zuten. Une horretan BPDarekiko harremana erretzat jotzen zen, eta Donostiako ordezkarien ardura izango zen gestioak egitea, seguru asko GPD-RSVAPen bidez. Frantziskotarraren txostenak liburu bilduma hizpide izan arren, egitasmoa Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala berreskuratzea bideratu zuten berehala. A. M. Labayen urgazlearen familia paper fabrika eta argitaletxearen jabe zen Tolosan. Berak idatzi zion abenduaren hasieran L. Villasanteri, *Euskera* agerkari berrituaren gorabeherak zehazteko. Frantziskotarrak agerkariaren lehen aroko aurkibidea osatu behar zuen,

¹²²⁵ ABA-EUS: L. Villasanteren «Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bidez Euskaltzaindiari», 1952-06-27.

zenbaki berriko lan nagusia izango zena. Tolosako jeltzalearen ustez, honela banatu behar zen zenbaki berriko edukia:

- 1) «Ekin eta Jarrai (asierako artikulutxo)»
- 2) «GORA-BERAK. Ildako euskaltzainen ilberri eta nekrologi laburra»»
- 3) «Euskaltzain berrien izendabizen»
- 4) «EUSKERA lanen arkibidea (1920-1936)»
- 5) «Etorkizunerako gure asmoak»¹²²⁶

ALVren hurrengo batzarrerako gaiak gertu izan nahi zituen, euskaltzainek ontzat eman eta aurrera egiteko. Gehiegizko optimismoarekin, uste zuen agintari frankistek ez zutela eragozpenik jarriko, besteak beste, Frantziako euskaltzainek argitaratzearekin mehatxu egin zezaketelako. 40-48 orrialdeko liburuki xumea izango zenez, arazoa ez zen ekonomikoa izango, baizik eta euskaltzainen borondate falta edo alferkeria. A. Irigaray-L. Michelena bat zetozen egitasmoarekin eta «gazteen» parte hartzea ere nahi zuten agerkaria antolatu eta 1953ko lehen hiruhilekoan argitaratzeko.¹²²⁷

L. Villasante Arantzazuko bibliotekan ari zen osatzen *Euskera* agerkariaren lehen aroko aurkibidea, eta laguntza eskatu zion A. M. Labayeni zenbait xehetasun argitzeko.¹²²⁸ Oñatiko santutegian giro bizia zegoen, basilika berria eraikitze lanetan ari zirelako.¹²²⁹ N. Echániz apaizak, adibidez, Arantzazun euskal idazleen biltzar bat antolatzea eskatu zuen eta ideiak oihartzuna izan zuen EJ-GEren buletinean (*Euzko Deya* 1952-11-01; cf. Iztueta & Diaz 2007: 294). Zoritzarrez, egitasmo erlijiosoaren abiadurak kolpe latza jaso zuen, P. Lete probintziala hegazkin istripuan hil zenenean abenduaren 6an, J. Lizarralderekin batera, Kubara bidean zihoanean finantzazio bila.¹²³⁰ Idazleen biltzarra egiteko baimenik ere ez zen lortu azkenean, AEBko *Time* aldizkarian agertutako artikulu batek eragindako istiluagatik.¹²³¹ Piero Baporitti Espainiako korrespontsalak berri sensazionalista argitaratu zuen irailaren 22an, aditzera ematen zuena Arantzazuko

¹²²⁶ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-12-02.

¹²²⁷ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-12-02.

¹²²⁸ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna A. M. Labayeni, 1952-12-17. Gutun hau nabarmena da, halaber, erabiltzen duen hizkuntzagatik, gipuzkera-lapurtera arteko bat, «h»dun ortografiarekin, gaur egungo euskara batutik oso gertu dagoena.

¹²²⁹ Besteak beste, euskararen aldeko lana Bizkaira ere hedatzen hasi ziren, baina ez lapurtera klasikoaren bidetik, noski. Bizkaiera erabiltzen hasi ziren, lehenengo Arantzazuko Andra Mariaren egutegian (1952) eta gero I. Berriatuak zuzendutako *Anaitasuna* (1953) gehigarrian (Intxausti 2014a: 190-191, 342-343).

¹²³⁰ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1953-01-02.

¹²³¹ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-12-20.

frantziskotarrak guardia zibilak setiatuta bizi zirela, kristau dotrina euskaraz irakasten zutelako eta euskal ohiturak hizpide izaten zituztelako predikuetan. Berriak Frantziako prentsan ere oihartzuna izan zuen. Ondorioz, A. Martín-Artajo Kanpo Arazoetako ministroak esplikazioak eskatu zizkien santutegiko agintariei eta *Timeko* kazetariari (Álvarez Gila 1992).

Nolanahi den, agerkari ofizialarena funtsezko auzia zen Euskaltzaindiaren jardueraren berri eman eta hartutako erabakiak plazaratzeko. Tresna hori gabe, ezin zitzaion aurre egin askok salatzen zuten ALVren gelditasun edo hutsaltasunari. Ikusi dugunez, F. Krutwigek, *Gernikako* arduradunekin hautsi eta gero, saiatu zen *Euzko-Gogoa* erabiltzen Euskaltzaindiaren berriemaile gisa.¹²³² Nolanahi den, F. Krutwigek, aurrerako ihesaldian zubiak erre ahala, hartutako alde bakarreko erabakiak ziren. Izan ere, aurreko bi urteetako ohiturari jarraituta, 1952an *BRSVAP* izan zen euskaltzain-urgazleen lanak plazaratzeko tresna nagusia: I. M. Echaide, B. Echegaray, R. Lafon, M. Lecuona, L. Villasante, A. Irigaray, L. Michelena, I. López Mendizábal, A. Tovar eta P. Zabalak idatzi zituzten artikuluak edota iruzkinak (cf. Elósegui Irazusta 1970).

Baina 1952an urrats berri bat eman zen bide horretan. Ordura arte euskaltzain-urgazleek norberaren izenean eta erdaraz argitaratzen zituzten artikuluak *BRSVAP*en, ez akademiko gisa, ezta euskaraz ere.¹²³³ Baina L. Villasanteren sarrera hitzaldia irakurri ondoren, A. Irigarayk ALVk literatur euskararen auzia plazaratzeko aukera paregabea ikusi zuen. Ekainaren hasieran gutuna idatzi zion L. Villasanteri. Funtsean bat zetorren hitzaldiko ikuspegiarekin, eta uste zuen idazlan hori mugarri bat izango zela euskararen historian. Berak N. Ormaecheari hitzez antzeko asmoak adierazi zizkion EGZ aurretik, eta Arantzazuko frantziskotar batena zelako, uste zuen Gipuzkoan harrera ona izango zuela.

Bide beretik, P. Axularren *Guero* berrargitaratzea, ezinbesteko ikusten zuen, eredu

¹²³² 1952-1953 artean, Guatemalan argitaratzeko zituzten arazoek luzatuta, hainbat poemaz beste, J. M. Seminariori (1949) eta R. Lafoni (1950) emandako erantzun hitzaldiak plazaratu ziren. Era berean, J. M. Seminariorena (1949) ez, baina J. Gorostiagaren sarrera hitzaldia (1951) argitaratzea lortu zuen Guatemalako aldizkarian. L. Villasanteri emandako erantzun hitzaldia (1952) ere bidali zion J. Zaiteguiri, baina horrek ez zuen argitaratu, hitzaldian Eliza katolikoari egiten zitzaion kritika gogorregia omen zelako (Krutwig 1986b: 11-12). *Euzko-Gogoan* euskal elizgizon eta ordena erlijiosoan EGZeko jarrera zein gogor kritikatu zen ikusita, uste dut F. Krutwigen epaia okerra zela (cf. Orixe 1951a; Ibinagabeitia 1952a).

¹²³³ Gainera, *BRSVAP*ek ez zuen Euskaltzaindiaren jardunak aipatzen, Baionan egin zen R. Lafon-L. Dassancen sarrera ekitaldiaren salbuespen bakarrarekin. Gipuzkoako gobernadore zibilak aurreko eguneko ekitaldia Donostian debekatu izanak agian bultzatu zituen RSVAPeko arduradunak horretara (cf. RSVAP 1950).

estilistiko gisa ALV^k gomendatzeko, araugintza zorrotzago baten lehen urrats antzera. Gainera ortografia sinplifikatua nahi zuen, kontsonante ondoko «h»rik gabe, batez ere. Aldi berean, halako liburua Euskaltzaindiaren izenean irtenez gero, ALV^k 1920an onartutako sabindar ortografia ere bazter batean utz zezakeen. Horrela, 1951ko apirilean hartutako erabakiaren bidetik —«*ř*», «*ř*», «*đ*» eta «*t*» ez ezik, «*rr*», «*ll*», «*dd*» eta «*tt*» onartzea— urrats gehiago eman ahalko ziren (ALV 1982: 19).

Berehala erakutsi nahi izan zien sarrera hitzaldia A. M. Labayen-L. Michelenari. Egileak nahi izanez gero, A. Irigaray idazlaneko errakuntzak zuzendu eta *BRSVAP*en argitaratzen saiatuko zen. Dialekto bizien arteko norgehiagoka saihesteko, Aro Modernoko literaturaren ezaugarri kronologikoa nabarmendu nahi zuen, eta P. Axular-J. Etcheberri klasiko eredugarri gisa aurkeztu, F. Krutwigek nahi izan zuen bezala, baina malgutasun askoz gehiagorekin. Hortik abiatuta, ALV^k poliki-poliki oinarritzko hiztegi arautua (maileguak barne) eta ondoren gramatika arau xumeak eman zitzaizkeen. Bilboko E. Erquiaga-M. Arruzarekin ere harremanetan zegoen, eta F. Krutwigek bultzatutako filosofia tratatuak alde batera utzi eta lan irakurterazagoak itzultzera jarri nahi zituen: geografia-historia eskuliburuak edota polizia nobelak, adibidez.¹²³⁴

Bistan da A. Irigarayk, sortutako arazo politikoa gorabehera, ez zuela literatur lapurteraren bidea amaitutzat jotzen, eta F. Krutwigek berak L. Villasanteri sarrera hitzaldia erbestean argitaratzea proposatu baino lehenago, prest zegoela idazlana *BRSVAP*en plazaratzeko, euskararen estandarizazio akademikoaren lehen urrats modura. Are Bilbon umezurtz geratutako IICJUko kide ohiak baliatu nahi zituen lapurteraren aldeko giroari eusteko.¹²³⁵ Nabarmenak dira A. Irigarayk GPD-RSVAPeko kideekin zuen tratua, eta erbesteko abertzaleek salatzen zuten ALVren hutsaltasuna gainditzeko nahia. Frantziskotarraren idazlana gatazkatsua izan zitekeen, euskara estandarren auziak hizkuntzaren estatusarekin zuen lotura zuzenagatik, eta euskaraz idatzitako prosa lan jasoa zelako, diktadura frankistan ordura arte baimendutako literatur lanak ez bezala. Hala ere, kontuan hartu behar da BPDko presidenteak G. Riestrari F. Krutwigen hitzaldia salatu zionean, L. Villasanterenaren edukiak ez zuela inolako eragozpenik adierazi ziola.¹²³⁶

¹²³⁴ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna L. Villasanteri, 1952-12-02.

¹²³⁵ F. Krutwigek, Frantziara ihes egin zuenetik, seguru asko ez zekien A. Irigarayren asmoen berri, baina hura hil ondoren agerian jarri nahi izan zuen Nafarroako medikuaren jarrera ustez koldarra (cf. Krutwig 1986b: 16; 1991: 95).

¹²³⁶ BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen ofizioa G. Riestrari, 1952-06-09, Junta de Cultura C-40 -01-.

Horrela, R. Lafonek egindako B. Decheperaren itzulpenarekin, P. Zabalaren toponimia lanarekin, A. Tovarren euskal fonologiazko artikuluekin eta M. Lecuonaren arkeologia ikerketarekin batera, L. Villasanteren «Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratuaren» lehen zatia argitaratu zen *BRSVAP*en 1952ko lehen zenbakian.¹²³⁷ Euskaraz idatzitako bakarra izateaz gain, A. Irigarayk egindako aurkezpena zeraman aurrean, gerraondoko ALVren lehen argitalpen ofizialtzat jo daitekeena.¹²³⁸ Kasu honetan, RSVAPen baimenari esker, aldizkarian sail berezi bat abiatzen zen euskaltzainen lanak plazaratzeko: «Trabajos de la Academia = Euskaltzaindiaren lanak» goiburuarekin. A. Irigarayk argi utzi zuen Euskaltzaindiak ez zuela euskara estandarraz erabaki ofizialik, baina ALVren itzala baliatuz, bere aspaldiko asmoak agertu zituen aurkezpenean, gipuzkeraren aldeko eta erbesteko idazleei keinu adeitsuak eginda:

1. La necesidad de iniciar el aprendizaje de un estilo de lengua literaria uniforme, que bien pudiera ser el de Axular, adaptado a actuales exigencias en algún punto.
2. Este estilo o idioma literario se refiere exclusivamente a lo escrito.
3. Este estilo literario no pretende, ni debe ser obstáculo a que se sigan cultivando como hasta ahora los dialectos vascos, y sobre todo el llamado «gipuzkera osotua» (pues uno no puede escribir sino en el euskara que sabe el cual no ha sido extraño a la influencia, de ese lenguaje de los escritores axularianos, desde Lizardi, Ormaechea, Ibinaga, etc. Al propio tiempo que se sigue escribiendo en los dialectos vivos (y si se sigue haciendo con éxito, será señal de que el idioma vive en la calle, problema este que no se debe desdeñar), muy loable parece el intento de dedicarse los que escriben a leer y a aprender en esos escritores olvidados, lamentablemente desconocidos. Sin que haya ninguna incompatibilidad en que un escritor cultive el «gipuzkera» por ej. y a la vez aprenda el estilo de Axular, para escribirlo cuando lo domine.
4. No parece factible el poder infundir el estilo de Axular a los escritores, por arte de unas reglas y una gramática. Parece muy difícil escribir en el estilo que lo hace el Padre Villasante, y sin duda este escritor ha pasado muchas veladas leyendo a esos autores; y aun así otros no logran servir al lector el manjar bien

¹²³⁷ Kontuan hartu behar da *BRSVAP* ere atzerapen handiarekin plazaratzen zela eta L. Villasanteren hitzaldi osoa (bi zatitan) urte amaieran zabaldu zela. *BRSVAP*en 1952ko hirugarren eta azken zenbakia, adibidez, 1953ko otsailean banatu zen (ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-02-24).

¹²³⁸ Ordura arte, sarrera hitzaldiak norberaren izenean plazaratu ziren askotariko argitalpenetan: I. M. Echaideren 1944ko liburuan, eta *Herria*, *Gernika* edota *Euzko-Gogoa* aldizkarietan.

condimentado. ¿No será mejor, pues, que mientras lo lleguen a dominar, escriban en el estilo que saben?

5. Lo primero que es preciso, pues, es tirar algunas copias del Guero sin correcciones claro está, aunque en grafía actual. Y lo mismo respecto a trozos selectos, cuando menos, de otros autores Axularianos.
6. Después sería conveniente acordar unas normas entre lexicógrafos, respecto a la forma de adaptación en el diccionario vasco de esas voces cultas greco-latinas, de los sufijos de derivación, etc, elaborando un pequeño lexicón, restringido a las voces que usa el vulgo letrado (dejando de lado las voces especializadas) y oyendo el consejo de lexicógrafos vasco-franceses igualmente (Yrigaray 1952: 88).

Erantzun hitzaldiarekin sortutako arazo politikoaren ondoan, literatur estandarraren gaia asimilagarriagoa zen, besteak beste, abertzaleen joera puristen aurka egiten zelako. Sarrera hitzaldia *BRSVAP*en argitaratuta, halaber, erbesteko zentsura salaketei aurre egiten zioten barnealdeko kultur gizon frankistek. Euskaltzainburuordea bera ez zen L. Villasanteren maiatzeko sarrera ekitaldian egon, gaixorik zegoelako, baina *BRSVAP*ek irail inguruan argitaratu zuenean, frantziskotarrari idatzi zion zorianak emateko:

Ederra baita. Euskera jatorra, garbiya ta errexá; aixago erakurtzen dira, benetan, neologismo gutxi dituzten idazkiak. Itz grekak ta latiñezkoak orok esaunak ditugu; neologismoak, berriz, idazle bakoitzak beriak. Igartzen oyek, alperrik beta galdu.

Sakona dala esan det. Egitan, asko ta asko darakus. Batasunaz itz egin diozu Euskalzandiari zure sarreran. Ezin obeki. Euskalzandiak ezpadu zerbait egiten arazo ortan; zeñek lezakean?

Nere aburuz, zer edo zer egin bear degu. Datorren Batzarrean berba egingo degu onatz, beste euskalzaiñak ontzat artzen badute.¹²³⁹

L. Villasanteren sarrera hitzaldiari harrera abegitsua egin zien, halaber, A. Ibinagabeitiak EAJ-PNVren buletinean. F. Krutwig euskaltzaina erbesteratuta egoteak nolabaiteko zilegitasun morala ematen zion lapurtera klasikoaren proposamenari.¹²⁴⁰

¹²³⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Villasanteri, 1952-09-29. Hamar urte igaroak ziren, I. M. Echaidek lapurteraren aldeko F. Krutwig urgazlearen 1943ko txostena irakurri zuenetik. 1952ko azaroaren batzar agiriaren nahiz eskuzko zirriborroaren arabera, ordea, ez zuten literatur estandarraren gaia eztabaidatu.

¹²⁴⁰ C. Jemein sabindar ortodoxiaren zaindaria, buletin berean, gogor egin zuen nork bere dialektoan idaztearen eta neologismo puristen alde (*Alderdi* 1952-08; 1952-09; 1952-10)

Euskarazko kultur maila jasotzeko ahalegina txalotu arren, funtsean bat zetorren gipuzkera osotuaren aldeko idazleek jarritako eragozpenekin:

Gainera «gipuzkera osotua»k ere badizu bere tradizinoak, berria nai ba duzute, baina sakontasun eta zabaltasunez, orainarteko gure tradizino guzien betekoa, bai idazle kopuruz, baita bikaintasunez. Lizardi, Orixe, Labaien, Zaitegi, Olabide Aundia, Azkue garai, Mitxelena Salvatore, Lekuona, Monzon, Etxaniz, Mirande'tar Jon eta abar. Izkera ortan euskal lanik aundienak burutu dira eta zati baten beintzat burutuko ere dira. Sail ortako idazleak Axularrena gaurkotu besterik ez dute egin eta saratar aundi bien urratsetan ibiliz euskerarik berebizikoena mamitu dute, partidismu eta targoak aldebat utzirik. Beraz zer dala eta bat bateko yauzi ori Axular'en izkera zâarrera? (*Alderdi* 1952-09).

11.7 Parisko diaspora

F. Krutwigek ez zuen berak nahi adinako babesik jaso jeltzaleen ingurutik, beraz.¹²⁴¹ Hain zuzen, J. Zaiteguiaren artxiboan F. Krutwigen lan argitaragabe ugari daude, zalantzarik gabe garai horretan Guatemalara bidalitakoak.¹²⁴² Izan ere, arazo ugari pilatu ziren une horretan. A. Ibinagabeitia-J. Zaitegi aldizkarian harrera egin arren, eragozpenak zituzten euskaltzainaren irizpideekiko. Gainera, *Euzko-Gogoako* arduradunak uste osoko jeltzaleak izanagatik, kritikoak ziren EJ-GEren hizkuntza politikarekiko, eta horien bidez ezin zitekeen EAJ-PNVren buruzagiengan eragin. Aldizkariaren zuzendariak, «Artzai» ezizenarekin, garai horretan dei egin zion alderdiari lehentasunak aldatzera:

Alare, gure erriko semeek, naiz ta abertzale izan, euskera bertan bera utzi ta erderaz egiten dute. Gurasoek, bear bada abertzale, ta semeek euskerarik eztute entzun etxean. Nondik datorkigu izurrite ori? Nondik datorkigu erdal-yoera ori? Gaitz orren erroa, dana dala, moztu bearra dugu. «Euzko-alderdi Jeltzaleak» zer uste du gaitz oni buruz? Nolatan sendatu lezake erdal-yoera ori bere alderdi-lagunen artean? (*Zaitegi* 1952: 33-34)

Hori gutxi balitz, Guatemalako aldizkariaren 1952ko zenbaki gehienak urtebeteko atzerapenarekin argitaratu ziren, J. Zaitegi lanez gainezka zegoelako. A. Ibinagabeitia

¹²⁴¹ J. M. Seminariori erantzun hitzaldia (1949) *Euzko-Gogoaren* 1952 uztailako zenbakian argitaratu geroztik, ez zuen ezer gehiago plazaratu luzaroan. Zenbaki hori urtebeteko atzerapenarekin argitaratu eta 1953ko urria arte ez zen zabaldu Europan (Ibinagabeitia 2000: 146).

¹²⁴² ABA-ZAI: F. Krutwigen «Bakhearen bilha», «Goethen Prometheus», «Euskalherriko motzaileak», «Gizarteko gaiak. Nazionalitatearen psikologia» edota «Euskarazko pronomina ofizialeak eta kolektivuak» ineditoak, besteak beste. A. Ibinagabeitiaren artxiboan, orobat, F. Krutwigen bi poema argitaragabe gordetzen dira: «Maitasuna ta bizia» eta «Namo Buddhaya» (ABA-AIB).

erakarri behar izan zuen 1954ko martxoan Guatemalara, lizeoko irakasle eta aldizkariaren arduradun izan zedin.¹²⁴³ Hain zuzen, 1952ko urrian jaso zuen Parisen A. Ibinagabeitiak *Euzko-Gogoaren* martxoko zenbakia: «Dakustanez Krutwig-ek zati aundi bat jan digu. Aren lanak lendik ezagun nituen berak irakurtzeko emanda» (apud Iztueta & Diaz 2007: 332). 1952ko abenduan, A. Ibinagabeitiak hainbat idazlan bidali zizkion J. Zaiteguiari. Horietako asko argitaratzen joango ziren, ez ordea besteekin batera igorritako F. Krutwigen «Euskarazko pronomina ofizialeak eta kolektiboak» idazlana (Iztueta & Diaz 2007: 324, 332, 346-347).¹²⁴⁴ Elitismo jesuitikoan izan zezaketen antzekotasunak gorabehera, J. Zaiteguiari euskaltzainaren irizpideak kaltegarriak iruditzen zitzaizkion, 1953ko apirilean A. Ibinagabeitiari adierazi zionez:

Krutwig'en bidea geroago ta okerrago deritzat, neuk behintzat. Olabide zana bizirik ba'genu... Aren *Giza-soiña* lekuko dugu ta yarraibide aren burubidea. Eleizalde'k zionez argi diozu: naiz ta euskera mordoiloan egin, euskaraz egin dezatela, beintzat. Baiña ez dezagun ântzi: ori euskera mordoiloa da, auntz-euskera. Beraz, ori onartzean, bi gaitzetatik bat bearrean, txikiena onartzen dugu: besterik ez (Zaitegi 2007: 167).¹²⁴⁵

A. Ibinagabeitia liberalagoa zen eta jarrera zabalagoa erakusten zuen, baina J. Mirande ez bezala, F. Krutwigen bidera gerturatu gabe. Garai horretan, hain zuzen, ari zen itzultzen Ovidioren *Ars amatoria*, eta berak zuzentzen zuen *Euzko Deyako* euskal orrian, edozein gai (pornografia barne) landu beharraren inguruko eztabaida piztu zuen. J. Zaitegui, kontrara, *Bidalien egiñak* exegesi biblikoa idazten ari zen.¹²⁴⁶ N. Ormaechea, halaber, Agustin santuaren *Confessiones* itzultzen ari zen eta ez zuen ezer jakin nahi moral kristauaz kanpoko idazlanez. *Gernika* aldizkarian oldartu egin zitzaion A. Ibinagabeitiari, euskaltzain gazteen ideiekin ulerkor agertzen zelako (Orixe 1953b: 82).

N. Ormaecheari, hizkuntzagatik ez ezik, erakusten zuten ateismoagatik,

¹²⁴³ «Dakizunez, gure aldizkaria gibelatu xamar zebillen, ala ere aurreak artzen saiatu gera. Argitara dugu 1952'gko azken banakoa, eta 1953'gko. urtea aldebat utzirik, oraingoz, 1954'koan erabat sartu gera». (ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna L. Villasanteri, 1952-09-29. Gutun hori argitaragabea da; cf. Ibinagabeitia 2000).

¹²⁴⁴ ABA-ZAI: F. Krutwigen «Euskarazko pronomina ofizialeak eta kolektiboak», 1952ko iraila. Txosten horretan euskal aditza sinplifikatzeko sistema proposatzen zuen, funtsean izenorde guztiak hirugarren pertsona singularrera (cf. berorika) desbideratuz. Pertsona bakarrera murriztu arren, aditzaren aspektu jokoa nahiko argi azaltzen zuen.

¹²⁴⁵ 1954an *Euzko-Gogoak* A. Ibinagabeitiaren ardurapean berriz ekin zionean lanari, F. Krutwigek euskara eta Kaukasoko hizkuntzak genetikoki lotzen zituen hipotesiaren aurkako artikulua prestatu nahi izan zuen, baina ezerezean geratu zen asmoa (Urkizu 1995: 86-92).

¹²⁴⁶ ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna A. M. Labayeni, 1953-02-16. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibinagabeitia 2000.

nazkagarriak iruditzen zitzaizkion F. Krutwigen idazlanak. Askorentzat euskal idazle onena zen N. Ormaechearen erabateko oposizioak pisu handia zuen garaiko giroan. Bilbotik, E. Erquiagak arduratuta idatzi zion gutuna lapurtera klasikoak F. Krutwigi.¹²⁴⁷ Hain zuzen, F. Krutwigek uste baino bizimodu ilunagoa eraman behar izan zuen Parisko erbestean. *Eusko-Jakintzaren* formatuko aldizkari eleaniztun bat argitaratzeko egitasmoari eutsi zion hasieran.¹²⁴⁸ Londresen bizi zen F. Echevarría eta A. Irigoyenen Bilboko taldea koordinatzen saiatu zen horretarako.¹²⁴⁹ A. Irigoyenek labayendarrei ere laguntza eskatu zien harpidedun-lankideak bilatzeko, baina F. Krutwigek eragindako istiluaren ondoren, nahikoa lan izango zuten *Euskera* agerkaria berriz argitaratzeko (Irigoyen 1990: 241-256).¹²⁵⁰

F. Krutwigek ez zuen lanbide jakinik, eta familiak laguntzen zuen ekonomikoki. Alemaniara alde egitera bultzatzen zuen familiak, gorabehera politikoak ahaztu eta fundamentuzko lanen bat aurkitu zezan, aitak sorterriko industrian zituen kontaktuei esker.¹²⁵¹ Bitartean, A. Ibinagabeitia aitatiarrak eta euskal immigrazioaren bi semek (J. Mirande-D. Peillen) osatzen zuten literatur zirkulu txikian parte hartzera mugatu zen, amestutako protagonismo handiagorik bereganatu gabe. A. Ibinagabeitiak ostatua bilatzen lagundu eta bere etxeko hizketaldietara gonbidatu zuen. Berehala antzeman zion euskaltzain gaztearen izaera handiusteari eta enpatia gabeziari. Horregatik, S. Michelena (OFM) Parisen izan zutenean bisitan, ez zioten F. Krutwigi deitu, egoera deserosoa sor zitekeelakoan.¹²⁵²

Euzko Deyak 1952ko urriaren 1eko azala eskaini arren, EJ-GEk eta EAJ-PNVk ez zioten arreta berezirik eskaini bere kasuari. Izan ere, erbeste politikoa gerraondoko krisi oso larrian murgilduta zegoen, diktadura frankista isolamendua apurto eta nazioartean onartua izateko urrats sendoak ematen ari zelako, Gerra Hotzeko antikomunismoaren aitzakian. EAJ-PNVren batzorde politikoa irailaren 22an bildu zenean, inork (J. M.

¹²⁴⁷ ABA-AIB: E. Erquiagaren gutuna F. Krutwigi, [1953ko apirila?]. *Euzko-Gogoaren* jarrera ere eklektikoegia iruditzen zitzaion urgazleari, I. Arriandiaga hiperpuristaren itzulpena argitaratzen ari zirelako: «Matai Deunak-legezko Goizparra» [Ebanjelioa Mateoren arabera].

¹²⁴⁸ Parisko argitaletxeak aurrekontua egin zion 1952ko abenduan. (BFL-AI: Société Parisienne d'Impression-en aurrekontua F. Krutwigi, 1952-12-01).

¹²⁴⁹ BFL-AI: Fernando Echevarriaren gutuna A. Irigoyeni, 1952-12-01. Agian *El Noticiero Bilbaíno* eta *CE-PV* egunkarietako echevarriarren senide zen, F. Krutwigen gizarte sareko ezagunak (cf. Krutwig 1991: 23).

¹²⁵⁰ BFL-AI: A. Irigoyenen gutuna Labayen aita-semeci, [1953-01-29].

¹²⁵¹ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-04-02.

¹²⁵² ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutunak A. M. Labayeni, 1952-07-23, 1952-08-23 & 1952-09-08. Gutun hauek argitaragabeak dira (cf. Ibinagabeitia 2000).

Leizaola, T. Monzón, J. Rezola, A. Irala, J. Jáuregui, I. Unzeta, J. Solaun, L. Zarrabeitia, J. Ajurriaguerra) ez zuen F. Krutwigen edota Euskaltzaindiaren arazoa aipatu. EGLZ-DCEko burua, esaterako, irailaren 14an Eskualzaleen Biltzarrak Alduden (Pirinio Behereak) egindako batzarrean, Espainiako banderaren inguruko gorabeherak eta Baztango alkate frankistak euskaraz emandako hitzaldia aipatzera mugatu zen.¹²⁵³

Huskeriak ziren horiek Espainia frankistak, AEBen laguntzarekin, UNESCOn, Vatikanon eta azkenean NBen lortuko zuen onarpenaren ondoan. Consejo Federal Vasco del Movimiento Europeo erakundea, hain zuzen, diktadura frankistaren aurka presio egiteko eta balizko Europa Batuan protagonismoa izateko tresna zen EAJ-PNVrentzat. M. Irujok eskatuta, F. Krutwigekek Nuevo Ateneo-ren inguruan bildu ziren pertsona «europeisten» zerrenda osatu zuen. F. J. Landáburu Consejo Federal Vasco-ko idazkariak, bere aldetik, zerrenda J. Ajuriaguerrari berbidali zion, informazioaren fidagarritasuna alderatzeko.¹²⁵⁴ Gerra Hotzeko porrotaren testuinguruan, EAJ-PNVk berebizikoa ikusten zuen barnealdean bere eragina indartzea, erresistentzia antifrankistan ez ezik, baita neutralago agertzen ziren talde europeistetan.¹²⁵⁵ Consejo Federal Vasco-k 1952ko abenduan prestatutako txostenaren arabera, F. Krutwigekek ez zuen euskaltzainik aipatu:

Supimos por el Sr. Krutwing que, en Bilbao se reunían, afectos al movimiento federal europeo, los Sres Antonio Menchaca, Luis M. de Barandiaran Sarachaga, Adolfo Gonzalez de Careaga Fontecha, Jose Maria Ibañez de Aldecoa, Vicente de Uriguen [Querejeta], Gonzalo Caballero de Aldama, Antonio Bilbao Aristegui, Javier de Bengoechea Niebla, Fray Imanol de Berriatua, Fernando de Lezama-Leguizamon, P. Lino de [Aquesolo], Andres E. de Mañaricua, y José Eulogio de Iranzo. Pasamos la lista pidiendo informacion. Reiteramos el deseo. Convendría que ese grupo, aunque alguno de sus componentes no sean vasquistas y sean antinacionalistas, o viva dentro del área del C.F.V. o no exista.¹²⁵⁶

F. Krutwigekek eragindako zalapartaren ondoren, oso emaitza urria zen hura. EAJ-

¹²⁵³ SAF-AA: EAJ-PNVren EBBk osatutako «Reunión comisión política» eta «Sobre la reunión anual de Eskualzaleen Biltzarra del 14/9/1952» txostenak, 1952-09-22, EBB-0377-1.

¹²⁵⁴ SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1952-11-03, PNV_NAC_EBB,K.00120,C.3.

¹²⁵⁵ Horregatik, oso gogor kritikatu zuten CSICen lan egiten hasi zen J. M. Azaolaren jarrera ustez independentea, frankismoaren alde ari zelakoan, eta ez zuten horrelakorik gertatzea nahi Bilboko taldearekin. Círculo Cultural Guipuzcoano-n, J. M. Azaolak abiatuta, 1950etik elkartzen zen Europa batuaren aldeko talde ideologikoki anitza (Arrieta Alberdi 2007: 238-244).

¹²⁵⁶ SAF-AA: EAJ-PNVren EBBk osatutako «C.F.E.: situación actual del problema» txostena, 1952-12-03, PNV-0076-08.

PNVko buruzagien artean, F. Krutwigen interlokutore nagusia M. Irujo izan zen. Nafarroako jeltzalearen dokumentazioan, F. Krutwigek 1952ko urrian prestatutako txosten labur bat dago, Sorbonako Unibertsitatean aurkeztu omen zuena, Frantziarekiko harreman politiko-kulturalak sendotzeko bidez. Nafarroako Erresuma-Frantziaren arteko lotura historikoetatik abiatuta, euskararen irakaskuntza, Frantzian ez ezik, Espainian sartzeko bidea nabarmendu zuen: «Etant donné que la langue Basque est une langue facultative pour le bacc. français, introduir l'étude de la langue et de la littérature basques aux Instituts et écoles françaises aux Pays Basque penins.»¹²⁵⁷ Lapurtera klasikoaz ari zen, noski. M. Irujoren bidez P. Rivet etnologo eta diputatu sozialista ohiarekin ere elkarriketatu zen.¹²⁵⁸

Baina Parisko lan aukera guztiek huts egin zuten, eta familiaren presioz, 1953ko urtarriletik apirilera Alemaniako Westfalian (Hemer izeneko herri txikian) egon zen itzulpengintza komertzialeko lanetan.¹²⁵⁹ Parisera itzuli eta UNESCOn lanposturen bat lortzen saiatu zen M. Irujoren bidez, baina gaizki irten zen. 1954ko abenduan aitaren jaioterrira (Bonn) jo zuen eta ondoren Kolonian hasi zen bizitzen, akademia pribatu batean interpreteei frantses-ingeles eskolak ematen. 1955ko uztailaren 2an Johanna Käthe Lück-ekin ezkondu zen Kolonian, ezkontza agiri zibilean komunitate budistako kide gisa agertzen zela.¹²⁶⁰ Hala ere, euskaltzain handinahia oso frustratuta bizi zen Alemanian, eta M. Irujoren laguntzaz, Parisko UNESCOn edota Indian lan egitea amets zuen.¹²⁶¹ Frantziara erbesteratu eta hiru urtera berriz jarri zen harremanetan Euskaltzaindiarekin. N. Oleagari idatzitako gutunaren arabera, amorratuta zegoen J. M. Leizaola bezalako buruzagi jeltzaleekin. Alemaniako unibertsitateetan euskal ikasketa apolitikoak sustatu nahi zituen. Besteak beste, Koloniako «Rautenstrauch-Joest Museum»erako (antropologia museoa) euskal objektu etnografikoak eta argazkiak eskatu zizkion Bilboko idazkariari (ALV 1982: 52).¹²⁶²

Garai horretako lorpen ia bakarra J. Mirande poliglota perbertso eta idazle bikaina pare bat urtez lapurtera klasikora erakartzea izan zen, baina horrek ere eragin mugatua

¹²⁵⁷ SAF-AA: F. Krutwigen txosten izengabea, 1952-10-03, IRUJO,K.00093,C.2.

¹²⁵⁸ 1952ko Euzkeraren Egunean, Parisko Eskualzaleen Biltzarrak antolatutako hitzaldietan parte hartu zuen A. Ibinagabeitiarekin batera (*Alderdi* 1953-01).

¹²⁵⁹ SAF-AA: F. Krutwigen gutunak M. Irujori, 1953-01-17 & 1953-02-22, IRUJO,K.00093,C.2.

¹²⁶⁰ EJM-MZ: Ministerio de Justicia, Registro Civil Central de Madrid, tomo 2 (Bremen), pág. 12.

¹²⁶¹ SAF-AA: F. Krutwigen gutunak M. Irujori, 1954-12-16, 1955-04-15 & 1955-11-28, IRUJO,K.00091,C.5.

¹²⁶² Museoko burua Martin Heydrich (1889-1969) zen, alderdi naziko politika arrazalogikoaren arduradun ohia (ABA-EUS: F. Krutwigen gutunak N. Oleagari, 1955ko maiatza & 1955-06-04.

zuen, J. Miranderen faxismo antikristauarekiko lilurak erdeinua sortzen zuelako abertzaleen artean. Poetak 1952ko hasieratik jarraitzen zituen lapurtera klasikoaren aldeko tesiak, eta 1952ko irailean ezagutu zuen F. Krutwig Parisen.¹²⁶³ Zoritxarrez, idazlearen kalitateagatik, euskal literaturaren historian mugarri izan zitekeen lapurtera klasikoz idatzitako *25 poema* bilduma ez zen argitaratu. A. M. Labayen bezalako jeltzaleek kezka ikusi zuten J. Mirande bezalako idazlea F. Krutwigen tesira hurbiltzea, eta euskal literatura garaikidearen historia egitea beharrezko ikusten zuten, berritzaileek ustez eragin nahi zuten etena indargabetzeko.¹²⁶⁴ Bestalde, A. Ibinagabeitiak PEN Euskal Bilkuraren euskal ataleko idazkaritza eskaini zien F. Krutwig-J. Miranderi 1952ko azaroan.¹²⁶⁵ Baina garaiko giro etsigarrian, UNESCOk Espainia frankista onartu berrian, horrek ere huts egingo zuen: «Uste dudanez' demokratitarzunaren *auto de fe* bat eman behar izanen eztugu, Demokratiek orain Francoren onharritzeaz gorotzez iantzirik baitagoz»¹²⁶⁶ (Zuazo Zelaieta 1988: 358-360; Urkizu 1995: 53-105; Ibiñagabeitia 2000: 102-169).

Ikusi dugu nola F. Krutwigentzat deskubrimendu bat izan ziren 1951n J. Miranderen idazlanak *Gernika* aldizkarian. Afinitate ilunak izan zituzten: nihilismoa, arrazismoa, misoginia, paganismoa edota parapsikologia. Europako gutxiengo etnikoetz interesatuta, J. Mirandek aurkeztu zizkion eskuin muturreko nazionalista bretoiak F. Krutwigi.¹²⁶⁷ Dena dela, jarrera horiek baztertu egin zituzten EAJ-PNVk gidatzen zuen antifrankismoko guneetatik. Sabindar imajinarioarekiko eta Gerra Hotzeko politikagintza jeltzale frustragarriarekiko eten horretan, esanguratsuak izan ziren J. Mirandek *Euzko-Gogoan* eta *Gernikan* argitaratutako artikulu politikoak: «Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz» (1952ko datarekin) eta «Euskaldungoaren etsaiak» (1953). F. Krutwigek, 1953ko urtarrilean, Parisko euskal etorkinen *Elgar* buletinean argitaratutako «Napparroako harmak» heraldikoa ezezagunagoa da. Nafarroako Erresumaren lurraldetasuna aldarrikatzeaz gain, Eliza katoliko latinoaren aurkako jarrera eta Erdi

¹²⁶³ ABA-EUS: J. Miranderen gutunak L. Villasanteri, 1952-09-19 & 1952-10-21. Gutun hauek argitaragabeak dira (cf. Urkizu 1995). *Gernika* aldizkarian, J. Miranderi 1953ko otsailean egindako elkarrizketa argitaratu zen, Parisko poeta lapurtera klasikoaren alde agertzen zuena (Ibinagabeitia 1953).

¹²⁶⁴ ABA-AIB: FA. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-04-28.

¹²⁶⁵ ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna F. Krutwigi, 1952-11-19. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibiñagabeitia 2000.

¹²⁶⁶ ABA-AIB: F. Krutwigen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-11-29.

¹²⁶⁷ «Abertzale ba'naiz oraino ez da gehiago Eskualdunzale naizelakotz, bai ordea Frantziaren higuintzale naizelakotz» (ABA-LAF: J. Miranderen gutuna P. Lafitteri, 1949-03-01. Gutun hori argitaragabea da, cf. Urkizu 1995).

Aroko gerrazetasun ustez euskogermanikoaren idealizazioa uztartu zituzten (Sdupe 2011b: 130-143; Ortiz de Pinedo 2011: 148-158).¹²⁶⁸

¹²⁶⁸ 1950eko hamarkadako euskal literaturaren ikuspegi orokorrerako: Sdupe 2011a; 2011b; 2011c.

12 EUSKALTZAINDIA 1953-1954: IRAUN ETA JARRAI

12.1 «Junta de Cultura de Vizcaya»rekin bakea

1953ko urtarrilaren 30ean Donostian batzartu ziren sei euskaltzain: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena eta N. Oleaga. Berriz ere, ez dago batzarraren agiri ofizialik, baina idazkariaren zirriborroa gordetzen da. Hain zuzen, N. Oleagak adierazi zuenez, Euskaltzaindiaren Bilboko laguntzaile batzuen eskaria jaso zuten.¹²⁶⁹ José Urrutia Bilbao (SI) Deustuko Unibertsitateko ikasketa prefektuaren aurkezpen gutun batekin zetorren eskaria.¹²⁷⁰ Gazte talde batek ALVri egoitzako gelaren bat erabili ahal izatea eskatzen zion, euskararen eta euskal kantutegiaren inguruko bilerak egiteko.¹²⁷¹ Eskaera bera A. Irigoyen, L. Torrontegui eta J. Peñak sinatzen zuten eta hiru puntu zituen:

1. Euskaltzaindiaren liburutegiko altzari eta apalak kristalezko xaflekin ixtea, liburuak giltzapean babestuta egoteko, erabiltzaileak hazi ahala. 3.500 ptako aurrekontua ere aurkeztu zuten eta prest zeuden diruz laguntzeko.
2. ALVren liburutegiko egile eta gaien aurkibidea katalogatzea, agian BPDko liburutegiko langileren baten laguntzarekin.
3. Egitasmo horien arduradun izateko Euskaltzaindiak ordezkari bat izendatzea.¹²⁷²

Eskaerak, belaunaldi gaztearen lankidetzaz itzaropentsuaren zantzua izan arren, Ribera kaleko egoitzaren egoera kaxkarra ere agerian jarri zuen. Batzarrak liburutegiko dokumentuen zerrenda egitea erabaki zuen.¹²⁷³ Lide Torrontegui abertzalez osatutako Txinpartak antzerki taldeko kidea zen. A. Irigoyen eta J. Peña (E. Erquiaga urgazlearekin batera) euskara eskolak ematen hasiko ziren Euskaltzaindian ikasturte horretatik aurrera. Gipuzkoako Javier Peña (1914-1980), erbestetik itzuli ondoren, Seguros Bilbao-n lanean ari zen eta euskara eskolak ematen zituen 1949tik. Alfonso Irigoyen (1929-1996) Bilboko

¹²⁶⁹ Argitaratutako Euskaltzaindiaren batzar agirien arabera, Bilboko laguntzaileen eskari horren berri 1952ko azaroko batzarrean eman zen, baina badirudi a posteriori egindako eransketa izan zela, 1953ko urtarriko batzar agiri ofizialik egin ez zelako (cf. ALV 1982: 25).

¹²⁷⁰ M^a Dolores Revuelta Deustuko Unibertsitateko Artxibo Nagusiaren zuzendariak konfirmatutako datuak, 2016-03-10.

¹²⁷¹ ABA-EUS: J. Urrutiaren gutuna G. Maidagani, 1952-09-20.

¹²⁷² ABA-EUS: «Proyecto que los colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca presentan a los miembros de esta», 1952-10-25.

¹²⁷³ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-01-30.

talde ugariekin harremanetan zegoen: Asociación de Artistas Vizcaínos, Nuevo Ateneo edota Euzkadi Ta Azkatasuna bilakatuko zen Ekin unibertsitario talde politikoa. EAJ-PNVren politikagintza auzitan jarriko zuen gazte abertzaleen belaunaldia, artean kulturagintzara mugatuta, gerturatzen zen ALVra.¹²⁷⁴ A. Irigoyen, L. Villasanteren sarrera ekitaldian entzule egon zen, eta ALVren bulego lanetan hasiko zen 1954ko bukaeratik aurrera, gero eta eginkizun garrantzitsuagoak hartuta (Irigoyen 1976: 27-32; 1990: 241-256; Garmendia 2008).

Bestalde, I. M. Echaide-A. Irigarayk euren arduraren berri eman zutela adierazi zen. Agiri zirriborroan ez da ezer argitzen, baina, gero ikusiko dugunez, GPDko presidentearekin izandako bileraz aritu ziren seguru asko. Hala ere, zenbait berri pozgarri eman ziren diru laguntzez, Gipuzkoako CAPari 5.000 ptako laguntzagatik eskerrak ematea erabaki baitzen. *Euskera* agerkaria berriz argitaratzeaz den bezainbatean, L. Villasante lehen aroko aurkibideen (1920-1936) prestaketaz aritu zen. Hain zuzen, batzarrean ALVren buletin berriz argitaratzea erabaki zuten, eta Gipuzkoako L. Michelena-M. Lecuona-A. M. Labayenen esku utzi zituzten horrekin lotutako zenbait ardura. Era berean, Euskaltzaindiaren estatutuen gaia ere izan zuten hizpide, eta euskaltzain izateko Euskal Herrian jaioa izateko baldintza kentzeko aukera aipatu zen, «itzez ala idatziz» euskaldun izatera mugatuta.¹²⁷⁵

ALV, orobat, gonbita jaso zuen 1953ko apirilean Bartzelonako Unibertsitatean ospatuko zen «VII Congreso Internacional de Lingüística Románica» delakotik.¹²⁷⁶ Euskaltzaindiak nazioarteko biltzar zientifikoetatik kanpo jarraitzen zuen. Salbuespen gisa, J. Gorostiaga euskaltzainak, A. Tovarrek gonbidatuta, 1952ko udazkenean hitzaldiak eman zituen hurrengo gaiez Salamancako «Manuel de Larramendi» katedran: «1) las inscripciones ibéricas y el idioma ibérico, 2) los latinismos de la lengua vasca y el fondo

¹²⁷⁴ Ekin taldeko J. L. Alvarez «Txillardegia» (1929-2012) Bilboko ingeniari eskolan ari zen ikasten. J. Echaideren bitartez ezagutu zuen F. Krutwig, txundituta utzi zuena bere ideia bitxiekin. Ondoren jeltzale historikoekin Euskaltzaindiaren egoitzan izandako bileretan parte hartu zuen (Alvarez Enparantza 1995: 128-129, 183).

¹²⁷⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-01-30.

¹²⁷⁶ ABA-EUS: VII Congreso Internacional de Lingüística Románica-ko zuzendaritzaren gutuna Euskaltzaindiari, 1952-12-09. Biltzarraren zuzendaritza hurrengoek osatzen zuten: A. Griera, A. M. Badia, A. Tovar, R. Balbín eta F. Udina idazkaria. A. M. Badia-IECeko kideen gaitasunari esker, maila zientifiko handiko biltzarra izan zen. Katalana lan hizkuntza izateaz gain, katalanaren aurkako politikagintza salatu zuten hainbat partaidek, frankismoarekin lerrokatutako hizkuntzalarien ezinegona eragin zuena. Badirudi euskal partaide bakarra J. Caro urgazlea izan zela, IECeko kideekin harreman onetan zegoena. Diktadura frankistaren inposizioak inposizio, Euskal Herriak Kataluniarekiko zuen atzerapen kulturala agerian zegoen (Balcells, Izquierdo & Pujol 2007: 110-114).

primitivo de la misma».¹²⁷⁷ Hain zuzen, ALVren urtarrileko batzarrean J. Gorostiagak argitaratutako *Épica y lírica vizcaína antigua* (1952) liburuaren eta «Literatura ibérica pre-clásica» (1952) artikulua berri eman zen.¹²⁷⁸ Euskaltzaindiak idazlanak plazaratzeko gaitasunik ez zuenez, artikulua Salamancako Unibertsitate Pontifikalaren *Helmántica* aldizkarian agertu zen. Liburua, berriz, Centro de Estudios Vascos de FET y de las JONS sortu berriak argitaratu zuen, Euskaltzaindiaren eta Bizkaiko agintari frankisten arteko istiluak konpontzeko saioen artean kokatu behar dena. Hain zuzen, batzar egunean bertan I. M. Echaidek, jarduneko euskaltzainburu gisa, F. Krutwigek sortutako arazoaz ALVk hartutako erabakiaren berri bidali zion Bilbotik JCVko buruari, urte erdiko atzerapenarekin:

Haber visto con profundo desagrado la actuación del Sr. Krutwig que la Academia estima inoportuna y por los términos empleados, el tono de exposición y la ocasión y aun el mismo tema, altamente censurable, y que se requiera al citado Académico para que la justifique para las resoluciones procedentes.¹²⁷⁹

Euskaltzaindiaren erabakiaren jakinarazpenak berehalako ondorioa izan zuen, JCVren otsailaren 19ko batzarrean hurrengo kideak bildu zirenean: J. M. Ruiz Salas, F. Echeagaray, J. B. Merino, H. Bilbao, C. Lasterra, F. Ygartua, Conde de Superunda eta E. Calle. Besterik adierazi gabe, baina inplizituki ALVren jarrera ontzat emanda, JCVren batzarrak etenda zegoen diru laguntza ordaintzea erabaki zuen: «Se acordó satisfacer a la Academia de la Lengua Vasca, tres trimestres de los cinco en la actualidad pendientes del año 1951 y 1952, y facultar al vocal Tesorero para que continúe efectuando los pagos en

¹²⁷⁷ ABA-ATO: J. Gorostiagaren gutuna A. Tovarri, 1952-08-07.

¹²⁷⁸ Euskaltzaindiaren bibliotekan dagoen J. Gorostiagaren *Épica y lírica vizcaína antigua*ren alea, A. Tovarri eskainitakoa da, Salamancan 1952ko urriaren 3an.

¹²⁷⁹ ABA-EUS/BFAH-EC: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Ruiz Salasi, 1953-01-30, Junta de Cultura C-40-01-. Euskaltzainburuordearen ofizioak dio erabakia uztailleko batzarrean hartu zela, baina ekainean izan zen. Hilabeteen izenak euskaraz bateratu gabe egoteak, bikoiztasunak eta nahasketak sortzen zituen, gaur arte iraun dutenak. «Garagarrila» ekaina nahiz uztaila izan daiteke, dialektoaren arabera. Dena dela, ALVren idazkaritza-diruzaintzan erabiltzen zen hilabete izenen terminologia nagusia hau zen:

1. Urtarrila = Urtarrila
2. Otsaila = Otsaila
3. Epaila = Martxo
4. Jorrraila = Apirila
5. Orrila = Maiatza
6. Bagila = Ekaina
7. Garagarrila = Uztaila
8. Dagonila = Abuztua
9. Iraila = Iraila
10. Urrila = Urria
11. Azila = Azaroa
12. Lotazila = Abendua

la forma que estime conveniente».¹²⁸⁰

1953ko otsailaren 27an hurrengo sei euskaltzainak batzartu ziren Donostian: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena eta N. Oleaga. ALVren zalantzazko egoera zela-eta, berriz ere ez dago batzar agiri ofizialik, baina idazkariaren agiri zirriborroa gordetzen da.¹²⁸¹ Hasteko, 1952ko ekainean urgazle izendatutako E. Erquiagaren esker oneko gutunaren berri eman zen.¹²⁸² Horrekin lotuta, «Academia Montiano» delakoaren idazki bat jaso zen, martxotik aurrera euskarazko eskolak emateko baimena eskatzen zuena, E. Erquiaga irakasle zela.¹²⁸³

ALVren biziraupenerako garrantzitsuago zena, N. Oleaga idazkariak «Junta de Culturagaz bakea» egin eta diru laguntza berreskuratu zela adierazi zuen. Auzi ekonomikoekin jarraituta, 1951tik etenda zegoen NFDaren diru laguntza ere hizpide izan zuten. Bestalde, Jefatura Nacional de Estadística-ren Bizkaiko ordezkariak laguntza eskatu zion Euskaltzaindiari, Bizkaiko toponimia ofizialeko euskal izenen ortografia eta esanahia zehazten laguntzeko.¹²⁸⁴ ALVren idazkariak poz handiarekin erantzun zion eskariari, Espainiako Gobernuaren erakunde ofizialak aintzat hartzen zituelako hala euskara nola Euskaltzaindia bera.¹²⁸⁵

Frankisten eta abertzaleen arteko euskal kulturaren inguruko norgehiagoka are barnealdeko aldizkarietan ere islatzen zen. Euskaltzaindiaren 1953ko otsaileko batzarrean, L. Michelenak, E. Zipitria «Ira» jeltzalearen «Aditz-aia» artikulua irakurri zuen. E. Zipitriak, isilpeko ikastola andereño izateaz gain, Círculo Cultural Guipuzcoano ateneoan euskara eskolak ematen zituen, L. Michelenak bezala. Artikulua A. Tovarrek eta bestelako hizkuntzalariek euskal aditzaren zailtasunaz eta horrek islatzen zuen hizkuntzaren «egoera kaotikoa»z esandakoari emandako erantzuna zen, erreibindikazio

¹²⁸⁰ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-02-19, Junta de Cultura C-62.

¹²⁸¹ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-02-27. Euskaltzaindiaren otsaileko batzarrean, halaber, A. M. Labayen *Euskera* agerkariar aritu zen eta R. M. Azkue zenaren bibliotekarekin zerbait egitea erabaki zen, gero ikusiko dugunez.

¹²⁸² ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-10.

¹²⁸³ ABA-EUS: J. Montianoren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-24. Baiezkoa jaso bide zuten, E. Erquiaga zazpi lankideri eskolak ematen hasi baitzen, baina zailtasunak zituen ikasbide egokiak aurkitzeko, eta L. Villasanterengana jo zuen, Arantzazuko santutegian euskara irakasle zelako, laguntza bila. Tartean literatur estandarren eta lapurtera klasikoaren auzia zegoen (ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-05-02).

¹²⁸⁴ ABA-EUS: Jefatura Nacional de Estadística-ren Bizkaiko ordezkariaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1953-02-14.

¹²⁸⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa Jefatura Nacional de Estadística-ren Bizkaiko ordezkariari, 1953-03-03.

tonu nabarmenarekin. E. Zipitriak salatzen zuenez, euskaldunentzat gaztelaniazko aditza ikastea bezain zaila zen alderantzizko bidea. Artikulua *BRSVAP*en argitaratu zuten «Euskaltzaindia-ren lanak» sailean, baina M. Lecuonaren izenean. «Ira» hori nor zen argitzeke, A. Tovarren erantzun mindua argitaratu zen *BRSVAP*en hurrengo zenbakiaren «Euskaltzaindia-ren lanak» sailean. Aditza zaila izateak ez zuen hizkuntza beraren balioaz ezer adierazi nahi Salamancako Unibertsitateko errektorearen ustez (Zipitria 1953; Tovar 1953). I. M. Echaidek, halaber, esplikazio bat ematera behartuta ikusi zuen bere burua: «El ataque de que fue Vd. objeto me pareció inf[u]ndado e incorrecto, aun cuando la incorrección, tengo por seguro, fue involuntaria».¹²⁸⁶

12.2 «Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo»

Dena dela, etorkizunari begira, ALVren 1953ko otsaileko batzarreko berri garrantzitsuena, GPDak sortutako «Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo» delakoa izan zen. I. M. Echaide-A. Irigarayren bidez, J. M. Caballero GPDko presidenteari zorionak ematea erabaki zuen batzarrak. Erabakia formalismo hutsa zen. 1952ko abenduan Donostiako euskaltzainak J. M. Caballero GPDko presidente berriarekin bildu ziren abiatzear zegoen egitasmoaz hitz egiteko. GPDak SFVJU 1953ko otsailaren 3an sortu zuenez, jarduneko euskaltzainburuak zoriondu egin zuen J. M. Caballero presidentea, ALV batzartu arte itxaron gabe.¹²⁸⁷ GPDaren Educación, Deportes y Turismo sailak, orobat, eskerrak eman zizkion Euskaltzaindiaren kooperazio eskaintzari.¹²⁸⁸

Bizkai-Gipuzkoako industrializazio berritua erakartzen ari zen immigrazioak ageriago uzten zuen euskararen ahultasun demolinguistikoa. Hala ere, diktadura frankistan ezin zen gizarte erabileran zuzenean eragin (adibidez, oinarritzko hezkuntzaren bidez), tokiko zenbait agintari politiko arazoz arduratuta agertu arren. GPDak sortutako mintegiak euskara eskolak ere eman nahi zituen, baina batez ere goi mailako ikerketa filologikoa bultzatzera zetorren, bereziki J. Urquijok utzitako ondare bibliografikoa erabilita. Euskal Herriak unibertsitate egituraz gabetuta jarraitzen zuenez, SFVJU

¹²⁸⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Tovarri, 1953-11-02. Lehen azalpenak L. Michelenak, *BRSVAP*eko arduradun gisa, eman zizkion (ABA-ATO: A. Tovarren gutunak L. Michelenari, 1953-06-08 & 1953-06-19).

¹²⁸⁷ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak J. M. Caballerori eta N. Oleagari, 1953-02-17.

¹²⁸⁸ ABA-EUS: GPDaren Educación, Deportes y Turismo sailaren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-03-03, eta I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-06.

Valladolideko Unibertsitateari atxikita sortu zen nahitaez, baina Salamancako Unibertsitateko «Manuel de Larramendi» katedrarekin elkarlanean aritzeko asmoarekin. RSVAPek, orobat, txalotu egin zuen egoitza GPDaren jauregian zuen SFVJUren sorrera, EI-SEVen eta J. Urquijoren legatuari jarraipena ematen ziolako eta euskararen ikerketa zientifikoa koordinatzeko gune nagusia bilaka zitekeelako. Ordeztauta geratzen ziren, berariaz adierazi ez arren, bide beretik Gipuzkoan egindako saio ofizialak: GPDaren «Instituto Esteban de Garibay» edota RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» (RSVAP 1953a; Arrieta & Barandiaran 2003: 195-196).

José M^a Caballero Arzuaga tradizionalista, Tolosako abokatu eta paper fabrikaren kudeatzailea, 1952ko uztailaren 9an izendatu zuten GPDko presidente (*La Voz de España* 1952-07-10).¹²⁸⁹ Izendatu eta berehala, I. M. Echaide-A. Irigaray harekin bildu ziren, Euskaltzaindiarentzat bulego egoki bat eskatzeko asmoarekin.¹²⁹⁰ J. M. Caballeroren euskararekiko asmoak harago joan ziren eta 1952ko abenduaren 13an aurkeztu zuen SFVJU sortzeko mozioa. Gipuzkoako erakunde ofizialetan euskararen aldeko gutxieneko giro bat sortzen ari zen. Donostiako Udalak 1914an sortutako Euskal Izkeria ta Iztunde Ikastola («Academia de la Lengua y Declamación Vasca») berrezartzea proposatu zuen 1952ko ekainaren 18ko batzarrean J. Arbide zinegotziak. EGZera arte T. Alzaga jeltzaleak zuzendutako erakunde hori ez zen hizkuntza akademia, baizik eta euskarazko antzerkigintza taldea. 1952ko abenduaren 5ean, J. Pagola alkate zuen Donostiako Udalak onartu zuen Escuela Municipal de Lengua y Declamación Vasca berrabiatzea, M^a Dolores Aguirreren zuzendaritzapean, urteko 11.500 ptako soldatarekin (*La Voz de España* 1952-06-19; 1952-12-06; *El Diario Vasco* 1952-12-06).¹²⁹¹

SFVJUren ereduak, ordea, unibertsitate mailakoak ziren; Bordele-Salamancako Unibertsitateetan, hurrenez hurren, R. Lafon-A. Tovarrek zuzentzen zituzten euskara katedrak. Bestalde, ezaguna zen 1951tik Nafarroan IPVren bidez euskara eskola ofizialak ematen zirela. F. Tirapuren ikastaroek hainbeste arrakasta izan zuten, 1952ko urrian

¹²⁸⁹ J. M. Caballero presidenteaz gain, hauek izan ziren Gipuzkoako diputatuak 1952-1955 artean: A. Ugalde, J. R. Aguirreche, F. Sagarazu, F. Legorburu, P. Irazusta, J. L. Guinea, D. Telleria, J. M. Martínez Zumalabe, C. Anitua, E. Laborde, L. Martín Santos, M. Sagardia eta R. Mendiola (Arrieta & Barandiaran 2003: 39). J. M. Caballero, bestalde, EGZean milizianoek hildako Pedro Caballero Orcolega eskuindarraren ondorengoa zen, autonomia estatutuaren aurka nabarmendu zen Tolosako Udalaren ordezkaria (*ABC* 1966-07-08).

¹²⁹⁰ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

¹²⁹¹ Dena dela, EAJ-PNVren buletinak salatu egin zituen frankismoaren hizkuntza politika zuritzen zuten saio horiek (*Alderdi* 1952-07).

laguntzaile bat eskatu behar izan ziola NFDari (Jimeno Jurío 1996: 511-513). Bordeleko nahiz Salamancako euskal filologia eskolek, ordea, (curriculumez kanpokoak zirenez eta Euskal Herritik urrun zeudenez) ez zituzten ikasle aski erakartzen. SFVJUk euskal filologoak formatzeko, doktorego tesiak burutzeko eta atzerriko irakasleak erakartzeko gune izan nahi zuen. Presidentearen mozioaren edukiaz den bezainbatean, L. Michelenaren eskuaren egiletza oso nabaria da. Mintegiari izena berak jarri zion, adibidez. M. Ciriquiain GPDko idazkaria, halaber, pertsonalki inplikatu zen erakunde berriaren sorreran (Urkizu 2004: 41; Michelena 2011c: 270).

SFVJUren programa handinahiaren arabera, euskal lexiko eta onomastika bizia jasotzen, tokiko hizkeren monografiak idazten eta mapa dialektologikoak osatzen lagundu behar zuen. Bestalde, euskal hitzen corpus historikoa zerrendatu behar zuen, iturri idatzietan jasotako lexiko eta onomastikarekin. Euskal literaturaren hiztegi historikoa osatu ondoren, azken urratsa R. M. Azkueren euskal hiztegia eguneratu eta zuzentzea zitekeen. SFVJUko eskoletan, alde batetik, hizkuntzalaritza historikoaren oinarriak erakutsi nahi ziren, ikasleak ikerketa filologikoak egiteko gauza izan zitezten. Bestetik, euskal literatura aztertuko zen, ikuspegi estetikitik nahiz historiko-kulturaletik. Esan bezala, 1943ko «Ley sobre ordenación de la Universidad española»ri jarraituta, mintegiak Valladolideko Unibertsitateari eta CSICi atxiki nahi zuen. Agerkari moduan, CSICen Gipuzkoako ordezkari zen *BRSVP* erabiltzea proposatzen zuen presidentearen mozioak. GPDko Educación, Deportes y Turismo sailak aldeko irizpena eman zuen 1953ko urtarrilaren 29an, urteko 35.000-40.000 pta inguruko aurrekontua aurreikusita (SFVJU 1955: 35-56).

Konparazione, Euskaltzaindiak 16.000 ptako diru laguntzak baino ez zituen eskuratu 1950ean, tokiko erakunde frankistekiko harremana gaiztotu baino lehenago. Baina egia da, halaber, 1953ko «Ley de Bases de Régimen Local» berriaren ondorioz, tokiko administrazioek baliabide ekonomiko gehiago izan zutela eskura, eta GPDak diru sarrera gehiago eta aurrekontu handiagoak izango zituela urte horretatik aurrera. ALVrentzat ere onuragarri izango zen tokiko administrazioen egoera ekonomiko lasaiago hori, ikusiko dugunez (cf. Arrieta & Barandiaran 2003: 60-62).

Nolanahi den, Euskaltzaindiaren ikerketa gaitasuna gaindituta ageri zen SFVJUren programarekiko. Horrek, bide batez, N. Oleaga-F. Krutwig-A. Irigarayk era batera edo bestera adierazitako Yagoleen sailaren nagusitasunari arrazoia ematen zion. Euskararen aldeko egitasmo ofizial batek, susmoak eragiten zituenez, aldarrikapen

españolista batekin itxi zuen presidenteak otsailaren 3ko batzarra, GPDak aho batez irizpena onartu aurretik:

No creo que estas mis manifestaciones puedan suscitar recelos de nadie, como no sea el de aquellos que entendieron que la conservación, defensa y difusión de nuestro acervo espiritual era monopolio de determinada ideología. Este concepto de exclusiva no lo admitimos jamás, sino que, por el contrario, y a impulsos de nuestro corazón, levantamos bandera en pro de tan altos ideales, sin que en momento alguno se haya entibiado nuestro amor por cuanto representa manifestación viva del viejo pueblo vasco. Pero al proceder así y dirigiendo una mirada retrospectiva a la historia, reafirmamos nuestro españolismo tanto más vivo por haberse forjado en el yunque de la lucha por la Patria. Por amar con delirio a nuestra patria chica y en ella sus instituciones, costumbres, manifestaciones, etc., amamos también a España, siendo para nosotros timbre de gloria, el poder ser llamados españoles.

Hoy prestamos nuestra atención a la lengua vernácula que independientemente de cuál pueda ser su origen, antigüedad e incluso su interés filológico es el instrumento o medio de expresión de gran número de guipuzcoanos[.] Sentimentalmente tampoco podemos olvidarla quienes en la misma empezamos a elevar nuestras primeras oraciones al Divino Hacedor y fué arrullo que llegó a nuestros oídos como canción de cuna. Si imperativos de la vida y el medio, ambiente en que nos vemos rodeados, la desplazaron más tarde, contribuyendo a que disminuyera su uso, hemos de poner cuantos medios estén a nuestro alcance para evitar su desaparición y lograr nuevamente su pujanza (apud SFVJU 1955: 54-55).¹²⁹²

1953ko maiatzaren 12an GPDak onartutako araudiaren arabera, euskaltzainburua sortzez SFVJUren patronatuko kide zen, beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera: GPD, Valladolideko Unibertsitatea, Donostiako Peñaflorida irakaskuntza ertaineko institutua eta *BRSVAP*. SFVJUko zuzendaria, bestalde, GPDak izendatu behar zuen, oposizio bidez, filosofia eta letretako lizentziadunen artean (SFVJU 1955: 57-59).¹²⁹³

¹²⁹²EAJ-PNVren barnealdeko EBBak informazioa jaso eta agintari frankisten zurikeria salatu zuen: «Habrán leído en la prensa el discurso del Sr Caballero. Tal como se están poniendo las cosas cualquier día nos van a hablar en puro *jagi* estos señores. Lo cierto es que éste extraño movimiento es consecuencia de haber constatado que en lugar de debilitar han reforzado el sentimiento nacional vasco que desearon y pretendieron hacer desaparecer radicalmente. Veremos [hasta] donde se atreven en la nueva orientación que están marcando. Por fin, se ha anunciado en la prensa el plazo para matricularse en la Escuela de Declamación Vasca, en cualquiera de los tres cursos que va a constar» (SAF-AA: Barnealde-erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1953-02-07, EBB-0377-1; cf. *Alderdi* 1953-02; 1953-04).

¹²⁹³KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

Bost hilabete igaro ziren J. M. Caballerok mozioa aurkeztu zuenetik araudia onartu zen arte, prozesu zaila izan zenaren seinale.¹²⁹⁴ Gipuzkoako zenbait agintarik eta Donostiako euskaltzainek adostuta, L. Michelena proposatu zuten posturako, baina bere aurrekari politikoengatik, betoa jarri zioten. 1953ko azaroaren 7an GPDak J. M. Urrutia elizgizona hautatu zuen zuzendari, eta euskaltzainburuordeak zorionak eman behar izan zizkion.¹²⁹⁵ Betoaz den bezainbatean, J. M. Caballerok berak eman zion azalpena L. Michelena euskaltzainari:

Si fuera un problema de mi empresa, apoyaría su nombre incondicionalmente. El problema reside en que el Seminario ha sido recibido ya con suspicacias en ciertos sectores; mantener su candidatura sería aumentar los recelos y poner en grave riesgo la vida del Seminario (apud Ibarzabal 2001: 147).

J. L. Banús *La Voz de España*ko zuzendariordeak ere nahigabea adierazi zion: «Me enteré —cómo no?— de lo del Seminario y creeme que lo he sentido, por ti y por el mismo Seminario. Ha sido una soberana torpeza».¹²⁹⁶ Argi dago zenbait agintari politikok, J. M. Caballerorekin identifikatzen ez zirenak, ezezkoa eman ziotela L. Michelenaren hautagaitzari. Uste izatekoa da, zenbait diputatuz gain, T. Garicano Goñi gobernadore zibilak eragina izan zukeela erabakian. Dena dela, Euskaltzaindiak erakunde berrian pisu handia izaten jarraitzen zuen. I. M. Echaide, GPDko presidentearen aginduz, J. M. Urrutiarekin bildu zen SFVJUz hitz egiteko 1954ko urtarrilaren 28an.¹²⁹⁷ Euskaltzainburuordeak elkarrizketaz idatzitako gutunean, nabari da J. M. Urrutiak ezustean jaso zuela zuzendari izendapena:

Le ví muy animado respecto de los asuntos del Seminario. Parece que va sintiendo entusiasmo por esta obra. Inútil es decir que lo animé mucho; y es que realmente creo que el Seminario tiene una importancia extraordinaria y va a ser el más firme puntal del vascuence. En la primera entrevista con el Sr. Urrutia hablamos en castellano; pero ayer, como es costumbre en las charlas, solamente hablamos en vascuence y pude notar con

¹²⁹⁴ KMK-JU: J. M. Caballeroren gutuna V. Olazábal, 1953-05-19.

¹²⁹⁵ KMK: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Urrutiari, 1953-11-09. José M^a Urrutia Salsamendi (1917-2008) Gipuzkoako Andoainen jaio zen. Gasteiz-Comillasen eliz ikasketak egin ondoren, filosofia eta letretan lizentziatu zen Salamancan. 1943tik latin irakasle izan zen Gasteizko seminarioan eta, 1953-1963 artean, Donostiako seminario berriko idazkari eta latin-euskara irakasle. Buen Pastor katedraleko kanonigo zen, oposizio bidez, 1953ko uztailetik (Jose Angel Garro Donostiako Elizbarrutiko Artxibo eta Bibliotekako zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2016-04-07; Antía Munduate 1999: 253).

¹²⁹⁶ KMK-KM: J. L. Banúsen gutuna L. Michelenari, 1953-12-05. Gutun hori L. Michelena-N. Alzola «Anai Berriotxoaren arteko gutunerian dago.

¹²⁹⁷ KMK: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Urrutiari, 1954-01-28.

agrado que habla un vascuence fluido, sencillo, correcto y elegante.¹²⁹⁸

I. M. Echaidek, azken finean, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari eta SFVJU gauza beratzat jotzen zituen. 1954ko urte amaieran erretiroa hartuko zuen, eta GPDaren jauregiko solairu nagusian zuen bulegoan kokatu nahi zuen bi erakundeon ordezkari bateratua.¹²⁹⁹ SFVJUri zegokion aurrekontuaren zati bat ALVri emateko itzaropena zuen, GPDko kontu hartzaileari adierazi zionez: «*Uno es el que sembr[a] y otro el siega*, dice el Evangelio. Yo me alegraría de que el *Seminario Julio Urquijo* obtuviera abundante cosecha. Si la Academia tiene su pequeña parte en ella, miel sobre hojuelas». ¹³⁰⁰ Erretiroa hartzeaz zegoen probintzia ingeniaria, pozez beterik agertzen zen, GPDaren laguntza ofizialarekin euskararen alde gizartean egin zitekeen lanarekin. Bide batez EAJ-PNVren kritikak isildu nahirik:

A pesar de mis muchos años (no quiero estampar la cifra, por no asustarle) tengo entusiasmos juveniles y un empeño decidido a poner la Academia y, más si cabe, el Seminario «Julio Urquijo» a una gran altura. No hay que regatearles medios. Hacer vascuence es más importante que hacer carreteras. Sin éstas se puede vivir (un poco peor); pero si el espíritu de la raza se hunde, la catástrofe es pavorosa e irremediable. Ya ve Vd. que los que somos «euskalerrizales» tenemos tanto y más entusiasmo por lo vasco que los «euzkadizales» con sus buenas dos zedas.¹³⁰¹

Baina 1954ko udan SFVJU itopuntuan zegoen, 1953ko araudiak ezarritakoa ezin beteta. Patronatua nominala zen; Valladolideko Unibertsitateak, adibidez, ez zuen inolako lotura praktikorik erakundearekin. J. M. Urrutia zuzendariak ere ezin zituen aurreikusitako ikerketa lanak burutu. 1953-1954 ikasturtean, 100dik gora lagunak eman zuten izena euskara ikasteko eskoletan (SFVJU 1955: 9). Ikasle kopuruak gaindituta, GPDko bibliotekan euskara eskolak ematera mugatu zen J. M. Urrutia. Lan horregatik, hiruhileko 4.000 ptako soldata jasotzen zuen elizgizonak.¹³⁰² I. M. Echaideren ustez, zuzendaritzan ordezkari egokia hautatu behar zen. Araudiak aipatzen zuen «Comité de

¹²⁹⁸ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-01-29. A. Zugasti Donostiako katedraleko benefiziadunak A. Yturriagaz (1778-1851) GPDko bibliotekan emandako hitzaldi baten harira bildu ziren.

¹²⁹⁹ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

¹³⁰⁰ KMK: I. M. Echaideren gutuna L. Ezcurdiari, 1954-07-14.

¹³⁰¹ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-24.

¹³⁰² KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJU rako plagitza eta dekretu egitasmoa, 1954-09-16.

Estudios» delakoa ere sortu gabe zegoen. A. Arrue abokatua uztailean bildu zen adiskide zuen GPDko presidentearekin SFVJUz hitz egiteko.¹³⁰³ Abuztuan I. M. Echaide-A. Arruerekin bildu ondoren J. M. Caballero prest zegoen 100.000 ptako aurrekontua onartu eta L. Michelena SFVJU nolakait integratzeko. A. Irigarayk berrargitaratu nahi zituen euskal literaturaren klasikoak ere ontzat ematen zituen.¹³⁰⁴

A. Arrue Gipuzkoako buruzagi falcondistak, euskaltzainburuordearen onespenearekin, gero eta eragin handiagoa zuen egitasmo hauetan. A. Arrueren ustez J. M. Urrutiak jarraitu behar zuen behin-behinean SFVJUko zuzendari nominala izaten. «Comité de Estudios» delakoan, bere buruaz gain, hurrengo kideak sartu nahi zituen: J. Elorza, J. Yrizar, Conde de Peñafiorida eta A. Irigaray. I. M. Echaide, jarduneko euskaltzainburu gisa, patronatuko kide zen. Bestalde, soldatapeko euskara irakasle bat eta ikerketa zuzendari bat (L. Michelena) izendatzea proposatzen zuen.¹³⁰⁵ Baina guzti horrek nolabait 1953ko araudia aldatzea zekarren, eta GPDko presidentek ez zuen horretan sartu nahi.¹³⁰⁶ Nolanahi den, I. M. Echaidek abuztuaren 20an gutun luze bat idatzi zion J. M. Caballerori, formalki aurkezteko A. Arruerekin adostutako lehen proposamena, eta era berean, L. Michelenak, A. Irigarayren laguntzarekin, prestatutako lan plangintza: ediziozintza filologikoa (esku artean zituzten N. Landuchioren 1562ko hiztegia eta J. Beriaynen 1626ko katixima), lexikografia, hizkuntza atlasa, onomastika, trebakuntza ikastaroak edota unibertsitate mailako elkarlana. Euskaltzainburuordeak urteko 18.000 ptako soldata proposatu zuen L. Michelenarentzat. Bereziki euskararen gizarte sustapenean, SFVJU-ALV arteko elkarlana indartzeko aukera ikusten zuen.¹³⁰⁷

A. Arrue-A. Irigaray-L. Michelenarekin adostuta, I. M. Echaidek irailean gutun formala idatzi zion GPDko presidenteari, SFVJUren etorkizuneko plangintzarekin eta 1953ko araudia aldatzeko dekretu egitasmoarekin. 1953-1954 ikasturteko euskara ikastaro arruntak alde batera utzi, eta ikerketa zientifikoa indartu nahi zuen, L. Michelenak zehaztutako bidetik.¹³⁰⁸ Irailaren 18an, GPDko presidentea eta idazkaria bildu ziren euskaltzainburuordearekin. J. M. Caballero-M. CiriQuiainek ez zuten araudirik aldatu nahi, funtsean gauzatu gabe jarraitzen zuelako. Onartzen zuten hautatutako

¹³⁰³ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-28.

¹³⁰⁴ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-08-04.

¹³⁰⁵ KMK: A. Arrueren gutuna I. M. Echaideri, 1954-08-13.

¹³⁰⁶ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-08-14.

¹³⁰⁷ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-08-20.

¹³⁰⁸ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJU rako plangintza eta dekretu egitasmoa, 1954-09-16.

zuzendaria ez zela egokia, eta aholku batzorde bat osatzeko prest zeuden, behin-behinean zuzendaritza lanak egiteko, euskaltzainburuordeak azken gutunean proposatutako hainbat kiderekin: I. M. Echaide bera, R. Mendiola diputatua, J. Yrizar eta A. Irigaray. Era berean, SFVJUren ikasturte berriari solemnitatea eman nahi zioten, euskaltzainburuordeak aipatutako K. Boudaren hitzaldiekin. Alemaniako hizkuntzalariak distira politikoki orbangabea ematen zion egitasmoari, Gipuzkoako agintarien ustez. SFVJUren ikerketa lana indartzeko prest agertu arren, GPDko agintariak ez zuten euskara ikastaroak baztertzeko asmorik, eta J. M. Urrutia SFVJUko euskara katedradun izendatu nahi zuten.¹³⁰⁹ J. M. Caballero-M. Ciriquiainek adierazitako baldintzak gehituta, proposamen berria bidali zuen euskaltzainburuordeak, aurrekoa jaso gabekotzat jo baitzen.¹³¹⁰ L. Michelenak ordurako aurreratuta zituen hainbat egitasmoren bidetik, hauek ziren SFVJUko ikerketa filologikoen zuzendariari esleitu nahi zitazakion eginkizunak:

- Publicación de cuatro textos antiguos de interés científico en el BRSVAP.
- Publicación del Diccionario de Landuchio (1562) en Salamanca.
- Recogida de microfilms de impresos y manuscritos para la Biblioteca de la Diputación.
- Puesta en limpio de los materiales Roncaleses recogidos ya en magnetofón e impresión en discos.
- Preparación de una campaña de recogida de primavera o verano en Salazar, Roncal u otro lugar apropiado.
- Recogida de materiales Iruneses, en invierno, para la tesis de Mas.
- Preparación de fichero de léxico durante el curso 1954-55; mil a 2.000 papeletas.
- Preparación de una encuesta (250 a 500 preguntas) lingüística en el país para Navidad.
- Preparación de dos trabajos sobre onomástica para el Congreso de Internacional Onomástico de abril próximo.
- Tesis doctoral sobre Fonética Histórica Vasca.
- Cursos dados por vascólogos de reconocido prestigio.
- Cursos de verano de introducción a estudios sobre la lengua vasca.
- Publicación de una antología de textos en prosa.

¹³⁰⁹ KMK: [M. Ciriquiainen] idazkia I. M. Echaideri, 1954-09-18.

¹³¹⁰ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJUko plagintza eta dekretu egitasmoa, 1954-09-20.

- Fomento de la apertura en la Provincia de escuelas de lengua y literatura vascas.¹³¹¹

GPDko presidentek euskaltzainburuordearen azken proposamena onartu egin zuen. Fiteroko bainuetxean zegoen J. M. Caballeroren aginduz, irailaren 25ean GPDko jauregian batzartu ziren hurrengo lagunak: M. Sagardia GPDko presidenteordea, R. Mendiola, I. M. Echaide, F. Arocena eta F. Juaristi karlista, idazkari lanak egiten. F. Juaristi GPDko legelariak ez zion utzi I. M. Echaideri nahi zituen puntu guztiak eztabaidatzen; Educación, Deportes y Turismo sailak berariazko irizpena egin arte.¹³¹² Dena dela, GPDko artxibozainak adierazi zuen J. M. Urrutiak ez zuela euskara irakasle izaten jarraitzeko asmorik. F. Arocenari eskatu zioten Buen Pastor-eko kanonigoarekin hitz egitea, atzera egin zezan. Bestalde, L. Michelena SFVJUko literatur irakasle izendatu nahi zuten, urteko azken hiruhileko soldata gisa 2.000 pta kobratuta. Bi hautagaiok ezezkoa emanez gero, ordezeko egokiak bilatu behar ziren. Azkenik, K. Boudak ikasturte berria irekitzeko, urriaren hiru hitzaldi ematea erabaki zuten.¹³¹³

Urriaren 9an, GPDko presidentea, R. Mendiola, F. Arocena, I. M. Echaide eta M. Ciriquiain batzartu ziren. J. M. Caballerok hurrengo erabakiak hartu zituen:

- SFVJUren aholku batzordea dekretuz sortzea, GPDko presidentea mintegiaren zuzendari izendatuta.
- J. M. Urrutiak behin eta berriz adierazitako nahiari jarraituta, hura SFVJUko zuzendari karguaz gabetzea.
- 1954-1955 ikasturtearen irekiera ekitaldia azaroaren 3an egitea, probintziako agintariak gonbidatuta.
- I. M. Echaidek hasieratik proposatu bezala, K. Boudari 3.500 pta ordaintzea irekiera ikastaroaren truke.

Bestalde, GPDko jauregian eraberritze lanak egingo zituztenez, 2.000.000 ptako aurrekontuarekin, ez zen arazorik egongo SFVJUren bulegoa behar bezala atontzeko. Batzarrak zalantzak zituen euskal hizkuntza eta literaturako ikastaroek izan zezaketen arrakastaz, baina horren inguruko erabakiak behin betiko aholku batzordearen esku uztea

¹³¹¹ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-09-20. Azken bi puntuak A. Irigarayren eta A. Arrueren iradokizunak ziren, hurrenez hurren (KMK: A. Arrueren eta L. Michelenaren gutunak I. M. Echaideri, 1954-09-11 & 1954-09-12).

¹³¹² KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-09-21.

¹³¹³ KMK: SFVJUren behin-behineko aholku batzordearen batzar agiria, 1954-09-25.

eskatu zuen I. M. Echaidek.¹³¹⁴ Urriaren 11n sortu zuten SFVJUren zuzendaritzaz arduratuko zen aholku batzordea: GPDko presidentea, Educación Deportes y Turismo sailburua, I. M. Echaide, A. Arrue, R. Mendiola, A. Irigaray eta J. Yrizar (SFVJU 1955: 10).

SFVJUren aholku batzordea lehen aldiz batzartu zen GPDko jauregian urriaren 14an: J. M. Caballero, R. Mendiola, I. M. Echaide, A. Irigaray eta A. Arrue. J. Yrizarrek ezin izan zuen etorri. Batzarrean parte hartu zuten, halaber, beste hiru lagunek: M. Ciriquiain, F. Arocena (patronatuko kide zen, GPDko artxibozain gisa) eta F. Juaristi. GPDko presidentearen ekimenez, euskara eta literatura ikastaroak bateratu egin ziren, osagarritzko hitzaldiekin. J. M. Caballerok, halaber, ikasleei matrikularik ez kobratzea, eta ikastaro amaieran gaitasun agiriren bat ematea erabaki zuen. Ikastaroak nahiz ikasturte hasierako ekitaldi solemnea prentsan iragarriko zituzten. Euskara eta literatura irakasletzarako SFVJUren aholku batzordeko kiderik ez hautatzea erabaki zuten. Hizkuntza irakasteko hautagi gisa Juana Forcada, N. Echániz apaiza eta Milagros Bidegain aipatu zituzten; baina J. M. Caballero-A. Arrueren esku utzi zuten GPDko bibliotekan emango ziren eskoletarako irakasleak izendatzea.¹³¹⁵

Bestalde, ikasketa filologikoen arduradunaren kargua sortzea erabaki zuten, L. Michelena zela hautagai bakarra. Zuzendari izena ematea ez zuten egoki ikusi, zuzendari bakarra GPDko presidentea zelako, eta «asesor técnico de estudios filológicos» terminoa erabiltzea erabaki zuten. Hileko 1.500 ptako soldata izango zuen, eta J. M. Caballerok berak hitz egingo zuen L. Michelenarekin xehetasunak argitzeko. Azkenik, I. M. Echaide arduratuko zen beharrezko inprimakien zerrenda eta bulegoko egokitzeak zehazteaz.¹³¹⁶ Hain zuzen, euskaltzainburuordeak 100.000 ptako aurrekontua prestatu zuen SFVJUren 1955 urterako: 60.000 pta langile gastuetarako, 25.000 pta argitalpen gastuetarako eta 15.000 pta material gastuetarako.¹³¹⁷ I. M. Echaidek, halaber, K. Boudaren bibliografia labur bat zerrendatu zuen, irekiera ekitaldiari begira.¹³¹⁸

Euskara irakasleari dagokionez, hautagaiez informazioa biltzeaz arduratu ziren. Horietako bat M^a Isabel Ormazábal izan zen, J. R. Ormazábal GPDko biltegiaren

¹³¹⁴ KMK: SFVJUren behin-behineko aholku batzordearen batzar agiria, 1954-10-09.

¹³¹⁵ KMK: SFVJUko aholku batzordearen batzar agiria, 1954-10-14.

¹³¹⁶ KMK: SFVJUko aholku batzordearen batzar agiria, 1954-10-14.

¹³¹⁷ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-10-20.

¹³¹⁸ J. Urquijok zuzentzen zuen *RIE*veko lankidea zen 1930eko hamarkadatik K. Bouda (KMK: I. M. Echaideren gutuna F. Arocenari, 1954-10-22).

administratzailearen alaba. Filosofia eta letretan lizentziaduna zen eta, prestatutako txostenaren arabera, erregimenaren aldekoa.¹³¹⁹ SFVJUk eragin zituen tira-bira politikoen erakusgarri, zenbait diputatuk J. Echaide abertzalea proposatu zuten euskara irakasle izateko, baina GPDko presidentek betoa jarri zion. Euskaltzainburuordearen semeak berak azaldu zuen: «Aditzea dudanez, falanjisten presioak eta *kutsadura gaizto gabeko* bere patriotismo español inork zalantzan jar zezakeen kezka, eragin zioten neurri *premiatsu* hau hartzera» (Etxaide-Itharte 1986: 212). Azkenean, M. Bidegain filosofia eta letretan lizentziaduna izendatu zuten J. M. Caballero-A. Arruek. Horrek R. Mendiola integristaren protesta eragin zuen, seguru asko berak J. Echaideren alde egin zuelako.¹³²⁰ Dena dela, Donostiako Udalak izendatutako M^a Dolores Aguirre (1903-1997) antzerti irakaslearen eta SFVJUk izendatutako Milagros Bidegain (1922-2006) hizkuntza irakaslearen inguruan, emakumeen gutxieneko agerikotasuna berreskuratu zen Gipuzkoako euskararen aldeko ekintzetan.

Horrela bada, SFVJU ofizialki sortu eta ia bi urtera, 1954ko azaroaren 3an, egin zen inaugurazio solemnea GPDko jauregian. Ekitaldiko mahaiburuak J. M. Caballero, M. Sagardia, R. Mendiola, E. Laborde, I. M. Echaide, Marqués de Aycinena eta A. Arrue izan ziren. R. Mendiola Hezkuntza Nazionaleko Gipuzkoako delegatua izanagatik, nabarmena zen gobernu mailako karguen absentzia. GPDko presidentek bere hitzaldian euskararen atzerakada deitoratzeaz gain, SFVJUren espainolismo orbangabea berriz nabarmendu behar izan zuen. Euskaltzainburuordearen aurkezpenaren ondoren, K. Boudak frantsesez eman zuen bere ikastaroko lehen hitzaldia, atzerriko euskalariez. Erlangen-go Unibertsitateko irakasleak agur hitzak euskaraz esan zituen, seguru asko EGZetik GPDko jauregiko ekitaldi publiko batean entzundako lehenak. Hurrengo egunetan, hiru hitzaldi emango zituen euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen erkaketaz (*La Voz de España* 1954-11-04; *El Diario Vasco* 1954-11-04). I. M. Echaide integristak, euskararen bazterketa azaltzeko, arrazoi politikoak isilarazi eta garapen sozioekonomikoak gizarte psikologian eragindako aldaketan jarri zuen arreta:

No en vano somos hijos de esta generación frívola y, pese a las apariencias, vulgar, que ha arrinconado las carrozas antiguas y se extasía ante las horrendas «carrocerías» impuestas por el infantil gusto americano, eso sí, chorreantes de cromado y barniz a pistola, fabricadas... ¡en serie! ¡Y luego se tendrá una piadosa sonrisa para los pobres indios de

¹³¹⁹ KMK: Txosten anonimoa M. I. Ormazábal Arzuagaz, 1954-10-30.

¹³²⁰ KMK: I. M. Echaideren gutunak R. Mendiolari, 1954-11-18, eta A. Arrueri, 1954-11-19.

América e indígenas de Oceanía que cambiaban su oro por cuentas de cristal! (apud SFVJU 1955: 21).¹³²¹

Abenduan, I. Omaechevarriak (OFM) emango zituen hiru hitzaldi «La perspectiva histórica en el estudio de la lengua vasca» gaiaz. SFVJUren filologia arloko ikerketen lehen emaitzak 1954ko *BRSVAP*en agertu ziren: L. Michelena-M. Bidegainen azterketa XVI. mendeko *Ibargüen-Cachopin* kronikako euskal idazki apokrifoez eta L. Michelenaren artikulua *Refranes y sentencias* (1596) atsotitz bildumaz. 1954koa da, halaber, L. Michelenaren artikulua erronkarieraren fonetikaz Tolosako Unibertsitatearen *Via Domitia* aldizkarian (SFVJU 1955: 11-12). N. Landuchioren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* 1562ko hiztegi garrantzitsua, Arabako dialektoaren lekukoa zelako, 1958an argitaratuko zuten M. Agud-L. Michelenak. Bi egile horiek, halaber, A. Tovarrek Salamancatik sustatutako euskal hiztegi etimologikoaren egitasmoan ari ziren lanean. J. Beriaynen *Doctrina christiana escrita en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona* (1626) delakoaren ediziorik ez zen prestatu, ordea. Ezagutzen den ale bakarra A. Irigarayren aitak eskuratu zuen, mediku lanen truke, Nafarroako Ollakarizketan 1918 inguruan (Camino & Lakarra 1993: 1029-1030).¹³²² L. Michelenaren gidaritzapean, SFVJUtik sortutako beste aldizkari bat arduratuko zen, tokiko unibertsitaterik ezean, *BRSVAP*ekin batera, euskal filologiaren ikerketa egonkortzeaz 1954tik aurrera: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (ASJU)* eta izen bereko gehigarriak. Argi dago *RIEV* 1936an desagertu zenetik, SFVJU izan zela euskal filologiaren arloan Euskal Herrian agertutako egitasmo sendoena. L. Michelenaren eragina, adibidez, frantziskotarren komentuetaraino hedatzen zen ordurako (cf. Villasante 1954).¹³²³

RSVAPEk 1948an sortutako *Egan* literaur aldizkariak den bezainbatean, 1954an A. Irigaray-L. Michelena-A. Arrue hirukoa, SFVJUren ordezkari gisa, hasi zen zuzendari lanetan. Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria izoztuta zegoenez, *Eganek* bete zuen partez rol hori ere. Alde batetik, GPDko bibliotekan Euskaltzaindiak antolatutako hitzaldiak argitaratu zituzten. Bestetik, Nafarroako medikuak bere «Naas-Maas» atalean,

¹³²¹ SFVJUk hitzaldiak argitaratu zituenean, irekiera ekitaldia urriaren 8an izan zela adierazi zuten, baina datu okerra da (cf. SFVJU 1955: 10).

¹³²² Badirudi 1940ko hamarkadan J. Urquijoren esku zegoela alea (KMK-JU: J. R. Castroren gutuna J. Urquijori, 1945-02-13).

¹³²³ ABA-EUS: L. Michelenaren gutuna L. Villasanteri, 1954-11-06.

Euskaltzaindiaren berri, izendapen, erabaki edota argitalpenak aipatu zituen (Yrigaray 1954a; 1955). Hala ere, joera guztiak ez ziren erabateko askatasunez aritu Donostiako literatur aldizkarian, A. Arruek egiten zuen zentsore lanagatik, L. Michelenak aitortu zuenez: «En el fondo, lo que Arrúe no podía tragar era el P.N.V., la democracia cristiana o el catolicismo progresista» (Ibarzabal 2001: 149). A. M. Labayenek euskararen batasunaz idatzitako artikuluak, esaterako, Guatemalako *Euzko-Gogoara* bideratu behar izan zituen, barnealde-erbestea bitasunari eutsita.¹³²⁴ GPDko agintariak edota A. Arruek ezarritako langak gorabehera, *Egan* berrituak zenbait antzekotasun zituen *Destino* aldizkariaren Bartzelonako bigarren aroarekin, nahiz eta azken hori gaztelaniaz argitaratu. L. Michelena-A. Irigarayk barnealdetik ikuspegi kritiko baina posibilista bultzatu nahi izan zuten. Diktadura frankistaren zentsurak ezartzen zituen muga estuen barruan, aldizkari euskaltzale, liberal eta demokrata izaten saiatu zen. Horrek *Euzko-Gogoarekin* lehia eragin zuen nahitaez euskaraz sortutako kulturaren hegemoniagatik (Michelena 2011e: 81-89).

12.3 Gipuzkoako Probintzia Diputazioaren liburutegiko

hitzaldiak

GPDarekiko harreman ofizialetarako I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburu gisa agertu arren, ALV Gipuzkoan abiatzen ari zen zenbait egitasmoren egile intelektuala A. Irigaray izan zen. EGZe an arrisku bizian egon ondoren, Nafarroako medikuak hari-harian ikasi zuen bere abertzaletasunaren eta diktadurak mugatzen zuen posibilismoaren artean ibiltzen: esanguratsua da nola mozorrotu zuen bere ohiko «Irigaray» deitura «Yrigaray» grafiarekin. Bera eta euskaltzainburuordea J. M. Caballero presidentearekin bildu ondoren, I. M. Echaideri idatzi zion GPDaren laguntzarekin «charlas literarias» direlakoak antolatzeaz. A. Irigarayk 10-12 lagun bildu nahi zituen hilero euskal literaturaz eta filologiaz hitz egiteko.¹³²⁵ Ideia aspaldikoa zen, L. Villasanteren sarrera hitzaldia irakurri eta *BRSVAP*en argitaratu zenekoa. Bizkaian zeuden tira-birak alde batera utzita, Gipuzkoan euskararen aldeko giroa suspertu nahi zuen instantzia ofizialetan. 1952ko azaroan frantziskotarrari idatzi zion J. Etcheberri Sarakoaren bizitza eta lanaz hitzaldi bat presta zezan, Aro Modernoko literatur euskara hori jendaurrean aurkezteko asmoarekin.

¹³²⁴ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, [1953-10-30].

¹³²⁵ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna I. M. Echaideri, 1953-03-14.

Halaber, J. Urquijoren omenezko hitzak ere eskatu zizkion, haren izenean egitasmoren bat abiatzear zenaren froga.¹³²⁶

1953ko martxoan, A. Irigarayk ohar batzuk bidali zizkion I. M. Echaideri SFVJU sortu berriaren egitekoetz, GPDko presidenteari aurkezteko asmoarekin. Euskaltzainaren ustez, SFVJUn bi sail ongi bereizi behar ziren, aurrekontu banarekin, bata ikerketa filologikoaz eta bestea euskal literaturaz, nolabait Euskaltzaindiaren Ikerle-Yagoleen sailak emulatuta. Antzematen da ikerketa, izenik aipatu gabe, L. Michelenaren esku uzten zuela eta bera agertzen zela literatur sailaren arduradun. Bigarren sail horretarako hiru proposamen zehatz egin zituen, bere aspaldiko kezka zirenak:

1. Literatur prosako lehiaketak antolatu eta sariak banatzea. Eliz testuetatik harago, irakurleak erakartzeko bestelako gaiak eta generoak landu nahi zituen: folklore narrazioak, itzulpenak, eleberri laburrak edota antzerkiak.
2. Bizimodu modernora egokitutako gaztelania-euskara hiztegi txikia argitaratzea. Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara hiztegi handia momentuz alde batera uzten zuen, agian ikerketa sailari zegokiolako.
3. Euskal testu klasikoen edizioak oharrekin argitaratzea, grafia eguneratuta: B. Dechepare, P. Axular, J. Etcheberri, S. Pouvreau, E. Materre edota A. Oihenart. Bistan da Frantziako euskal literatura zaharraren ezagutza sustatu nahi zuela Espainiako irakurle-idazleen artean. Era berean, 1596ko *Refranes y sentencias* bezalako atsotitz liburuak ere argitaratu nahi zituen. Horretarako, J. Urquiño zenaren bibliotekako funtsak erabilita, noski.¹³²⁷

I. M. Echaidek berehala erantzun zion, GPDko presidenteari bidalitako zorion mezuan ez bezala, horrelako proposamena egiteko formak gorde behar zirela, eta hobe zela ALVren batzarrean gaia eztabaidatu lehendabizi. «Charlas literarias» direlakoetz bat zetorren funtsean, baina GPDko presidenteari ordez, M. Ciriquiain idazkariarekin hitz egin nahi zuen antolaketaz eta bereziki gonbidatuak aukeratzeaz. Nolanahi den, medikuari uzten zion inizatibaren ardura.¹³²⁸ Euskaltzainburuordeak berehala Bilboko idazkariari idatzi zion, A. Irigarayrekiko korrespondentziaren kopiekin. Hurrengo batzarraren gai ordenan sartu nahi zuen SFVJU-ALV arteko harremana zehaztea, A.

¹³²⁶ ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna L. Villasanteri, 1952-11-05.

¹³²⁷ ABA-EUS: A. Irigarayren «Instituto Julio Urquijo» idazkia, [1953-03-14].

¹³²⁸ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1953-03-16.

Irigarayren proposamenetan oinarrituta.¹³²⁹

1953ko martxoaren 20an, euskaltzainburuordea eta A. Irigaray-M. Lecuona-F. Arocena bildu ziren SFVJUko hitzaldiez aritzeko.¹³³⁰ GPDko arduradunek ez zuten eragozpenik jarri laguntza emateko, baina hitzaldien ardura nagusia Euskaltzaindiarengan jarri zuten. Lehendabiziko literatur hitzaldia L. Villasantek eman zuen 1953ko martxoaren 26an GPDko J. Urquijoren bibliotekako aretoan. Aurkezpenean, I. M. Echaide-A. Irigarayk hitzaldion asmoa agertu zieten entzuleei (RSVAP 1953b). Frantziskotarrak 1952ko abendutik prest zuen hitzaldia. J. Urquijoren 1907ko *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)* liburuan oinarrituta, XVIII. mendeko egilearen bizitza eta lanaz aritu zen. Bilboko sarrera hitzaldiaren bidetik, lapurtera klasikoari eutsi zion Donostiako azalpenean ere, gerturatukoei arrotz izan behar zitzaiena. Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia bezalaxe, *BRSVAP*en argitaratu zen, «Euskaltzaindia-ren lanak» atalean.

Aro Modernoko euskal literaturaren aldeko giro bat sortu nahi zen, euskara estandar baten oinarri izan zitekeelako. Bilbon zapuztuta eta noraezean geratutako lapurterazaleak ere erakartzen saiatu ziren. Hitzaldiaren ondoren, J. Etcheberri Sarakoaren zati aukeratuak irakurri eta entzuleek zenbait galdera egin zituzten.¹³³¹ Izan ere, euskaltzainen hizkuntza egitasmoari frankismo ofizialaren kutsua kendu nahiz, erbesteko argitalpenetan A. M. Labayen-A. Ibinagabeitia-P. Lafittek XVIII. mendeko idazleari egindako laudorioak aipatu zituen hizlariak (Villasante 1953a).¹³³² Ekitaldian, A. Irigarayk GPDko presidentearen laguntza eskertzeaz gain, ALVren asmoez eta egoeraz zenbait berri eman nahi izan zituen:

Nai izan dugu mintzaldi ok antolatu Euskaltzaindia-ren itzalpean eta babesean, oraindik ere bizi delaren seiñalagarri bezala.

Errumes eta gabea daukagu, damuz, Euskaltzaindia, agerkari xume bat argitara-arazteko ere. Ez gara, ordean, eskale oraiño, eskatzen ezpaitakigu, edo bederik sosik biltzen ez yakin. Alan ta ere, laster argitara gogo dugu aldizkari ttipi bat, aspaldiko «Euskera» haren

¹³²⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-17.

¹³³⁰ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-20.

¹³³¹ Kolaborazionismo salaketak saihesteko, A. Ibinagabeitiarekin korrespondentzian hasi zen A. Irigaray eta Euskaltzaindiaren asmoen berri azaldu zion zuhurtzia handiz (ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-04-20).

¹³³² ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-04-02. Sortutako istiluen ondoren, nahigabetuta egon arren, E. Erquiagak bi idazlan argitaratu zituen lapurtera klasikoaz *Gernika* aldizkarian. N. Ormaecheak, agerkari bereko predikalekutik, berritzaileen pedanterkerian aurka egin zuen (Erkiagarre 1953a; 1953b; Orixe 1953a; 1953b).

kume bezala: laguntzaille daitezkenen bizkar dagoke, seurki, paper hunen gerora irautea eta yarraikitzea (Yrigaray 1953a: 229).

Biharamunean, euskaltzainburuordeak N. Oleagari eman zion ekitaldiaren berri. 30 inguru lagun bildu ziren, tartean J. M. Lojendio abokatua eta Conde de Peñaflorida, RSVAPen ohorezko burua. I. M. Echaide integristak, halaber, bi emakume bertaratu zirela nabarmendu zuen. GPDko presidentea ere gonbidatu zuten, baina ezin izan zuen joan.¹³³³ 1953ko apirilaren 30ean Euskaltzaindiak bigarren hitzaldia antolatu zuen GPDko bibliotekan. L. Michelenak, A. Oihenarten (1592-1667) poesiaz hitz egin zuen, eta *BRSVAP*eko «Euskaltzaindia-ren lanak» atalean argitaratu zuten. J. Urquijo zenaren bibliotekari esker literatur klasikoa maitasunez aztertu arren, L. Michelenak bere burua bereizi nahi izan zuen P. Axularren neojarraritzaitatik. Haren izenik aipatu gabe, F. Krutwigen bide erradikal bezain boluntarista, gaitzetsi egin zuen:

Ez beza inork pentsa gaurko zenbaiten asmoak erabat baztertzekoak direla derizkiodanik, batez ere —errepide ortan bide ta bidexka askok baitute asiera— Aita Villasante-Kortabitarte'k azaltzen dituen eran. Autore zaarrenganako joera, joera utsa, ezin-egokiagoa da gaurkoz, ene ustez. Ba-dirudi, ordea, euskaldunak izatez oso-zale edo integrista gerala, edo oituraz ala biurtu. Eztugu bear erdizkako gauzarik, zatirik edo apurrik; zearo eta erabat bear ditugu egin gure egitekoak. Nai izate utsa zernaitarako aski dela uste dugu nonbait, eta ez aitortu nai aunitz gauza direla gure naimenarentzat eziñezkoak. Buruenik, urteek eta mendeek jaso edo desegiña egun eta aste gutxiren buruan eraberritzea (Michelena 1953a: 446).¹³³⁴

Artean lapurtera klasikoa onartu zuen J. Mirandek, hori irakurri ondoren, protesta egin zion adeitsuki: «Batasunera eltzen ez geran artean, ondore guti ekarriko dute gure aaleginek —eta Euskaltzaindiak erabaki sendoak aritu berr lituzke orrtarako, azkenekotz» (apud Satrustegi 1996: 143). Euskal filologoa, N. Ormaechearen iritzi estetikoak aintzat hartu arren, inori zorrik ez zion autoritate berri gisa agertzen zen. Lotsagarri iruditzen zitzaion J. Gorostiaga euskaltzainak *Épica y lírica vizcaína antiguan* (1952) P. Axularri baino ez aitortzea talenturik euskal literaturaren historian, eta hala adierazi zuen hitzaldian. A. Oihenarten purismo lexikala, R. Olabideren aurrekari antzekoa, gaitzetsi zuen, baina baita S. Altuberen purismo sintaktikoa ere:

¹³³³ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.

¹³³⁴ Euskaltzainaren euskal idazlanak berrargitaratu dituztenean, testuak eguneratu egin dituzte euskara batuaren arauetara (cf. Michelena 2011d: 294).

Bai Axular'ek bai Oihenart'ek euskera gaitu, egokitu nai zuten, batek itz-lauz, besteak itz-neurtuz. Ba-zekiten garbitasunak gutxi ajola diola izkuntzari, aberastasunak, biguntasunak, errextasunak, berriz, asko. Eta latin-eredura euskera egokitu bearrean ari zirenean, uste zuten, zuzen noski, etzirela euskera naaspilatzen eta zikintzen ari, aberasten eta gaiagotzen baizik (Michelena 1953a: 461).¹³³⁵

GPDko biblioteka nagusian egiten hasi ziren euskarazko hitzaldi hauek, J. Urqujoren bibliotekari eskainitako gela txiki geratzen zelako. Hala ere, garaiko giro politikoan eragin zezaketenaren beldurrez, bilera pribatuak ziren, eta Donostiako prentsak ez zituen iruzkintzen biharamunean. I. M. Echaidek adierazi zuenez, L. Michelenaren hitzaldi ondoko eztabaida bizi-bizia izan zen. 30 inguru lagun biltzen ziren: bestek beste, J. Múgica Donostiako alkate kontrairaultzaile ohia, Conde de Peñafiorida, J. M. Lojendio, F. Arocena edota A. M. Labayen.¹³³⁶

Euskaltzainburuordeak gordetako dokumentazioan lehen bi urteetako programa zehatza gordetzen da. Horri esker baieztatu daiteke A. Irigarayk eman zuela hirugarren hitzaldia P. Axularrez maiatzaren 28an.¹³³⁷ F. Krutwig-L. Villasante bikoteak sortutako erantzun gogorren ondoren, tentu handiz ekarri zituen hizpidera, Frantziako literatur tradizioa ez ezik, baita M. Larramendi-N. Ormaechea-J. M. Mocoaren aldeko iritziak ere. Nafarroako medikuaren nahia zen P. Axularren idazlanaren zatiak aurkeztu eta *Gueroren* edizio berria iragartzea, literatur eredu ez-purista eta jasoaren erakusgarri. Hitzaldia RSVAPen *Eganen* argitaratu zuenean, berak nahi zuen grafia eguneratuarekin transkribatu zituen pasarte luzeak. J. Artecheren eskuetatik pasatu ez zen aldizkariaren lehen zenbakia izan zen hura (Yrigaray 1953b).

Euskera agerkarian argitaratzeko aukerarik ezean, *Eganen* argitaratuko zituzten hurrengo hitzaldiak ere «Euskaltzaindi-ko solas-aldia» azpigituluarekin. Izan ere, zailtasunak gorabehera, euskararen alde egon zitezkeen tokiko gizarte frankistaren pertsona esanguratsuak erakartzea lortu zuten berehala, I. M. Echaide-A. Irigarayk nahi bezala. 1953ko ekainaren 25ean A. Arrue abokatu karlistak eman zuen hitzaldia, J. B. Aguirre Asteasukoaz (1742-1823). Euskal literatura klasikoaren kanona Espainiara hedatu nahi izan zuen eta P. Axularren dohaina ukatu gabe, gipuzkeraren alde agertu zen literatur estandarrerako (Arrue 1954). Euskaltzainburuordea oso eroso zegoen

¹³³⁵ «Erbestean bezala, leenarekin edo geroarekin ametsetan bizi diren» abertzaleei keinu egitera ere ausartu zen (Michelena 1953a: 446)

¹³³⁶ ABA.EUS: I. M. Echaideren gutuna J. C. Zabalori, 1953-05-30.

¹³³⁷ ABA-EUS: I. M. Echaideren GPDko bibliotekako hitzaldien zerrenda, 1953-1955.

tradizionalista euskaltzaleekin harremanetan eta gutun adeitsuak idatzi zizkion Gipuzkoako buruzagi karlistari: «No deje V. de aprovechar esas dotes magníficas que Dios le ha concedido, para su gloria y para bien de Euskalerría».¹³³⁸

Hurrengoak, J. M. Lojendio legegizonak, 1953ko uztailaren 30ean hitz egin zuen J. A. Moguelez (1745-1804). Euskaltzainburuordearen arabera, GPDko aretoa jendez beteta egon zen egun horretan.¹³³⁹ Oso nabarmena zen S. Aranek eragindako hizkuntza iraultzaren aurreko muga ezarri nahi zela literatur kanona finkatzean (Lojendio 1954). Besteak beste, euskararen gizarte sustapenerako kaltegarritzat jotzen zen purismoaren aurkako giro bat sortu nahi zen. Horrek, Euskaltzaindiaren lexikografia edota gramatika egitasmoak arintzen lagunduko zuela uste zuten. Ondoren, J. B. Elissamburuz (1828-1891) hitz egin zuen A. M. Labayen urgazleak 1953ko irailaren 24an (Labayen 1955).¹³⁴⁰

Asmoak asmo, gipuzkera osotua, R. Olabideren purismotik ulertuta, lantzen jarraitzen zuten, bereziki erbestean. *Euzko-Gogoaren* lanaz beste, Ameriketara urte horietan itzuli zituen V. Amézagak, EJ-GVren lehen hezkuntzako arduradun ohiak, W. Shakespeareren *Hamlet* (1952) edota J. R. Jiménezzen *Platero eta biok* (1953), Espainiako euskal literaturaren eskaintza mugatua agerian uzten zuena¹³⁴¹

12.4 Resurrección M^a Azkueren ondarea eta Bilboko

egoitzaren egokitzapena

1953ko apirilaren 24an Donostian batzartu ziren hurrengo euskaltzainak: I. M. Echaide, A. Irigaray, M. Lecuona, J. Gorostiaga, L. Villasante, N. Oleaga, A. M. Labayen, J. Cincunegui eta S. Michelena. Ezin etorria adierazi zuten L. Michelena-L. Dassancek. Uztaritzeko alkatea egun horietan Frantziako udal hauteskundeetan buru-belarri zebilen.¹³⁴² Euskaltzainburuordeak, halaber, GPD-SFVJUrekin izandako hartu-emanen berri eman zuen. Diru laguntza gehiago jasotzeko asmoarekin, halaber, Gipuzkoako CAPari hilaren 16an bidalitako idazkia aipatu zuen. Era berean, GPDko jauregian

¹³³⁸ ABA.EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1953-10-08.

¹³³⁹ ABA.EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-08-14.

¹³⁴⁰ 1953ko azken bi hitzaldiak D. Azcuek (urriak 29) eta S. Onaindiak (azaroak 28) eman zituzten. 1954an hurrengo hizlariak aritu ziren: A. Zugasti, J. J. Beloqui, J. Gorostiaga, S. Michelena, J. Echaide, A. Arrue, J. Elósegui eta M. Lecuona (ABA-EUS: I. M. Echaideren GPDko bibliotekako hitzaldien zerrenda, 1953-1955).

¹³⁴¹ cf. ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1954-02-11.

¹³⁴² ABA-EUS: L. Dassancen gutuna I. M. Echaideri, 1953-04-21.

abiatutako literatur hitzaldien berri ere eman zen (ALV 1982: 26-27). Batzarrean, R. M. Azkuek izendatutako oinordekoek, G. Maidagan-J. Villa Cobian elizgizonek, ALVri zuzendutako idazki garrantzitsua irakurri zen:

Los que suscriben, herederos únicos y universales de D. Resurrección María de Azcue y Aberasturi (q.e.p.d.) Director que fue de esa Academia, en memoria del finado y respondiendo a deseos que tenía manifestados, nos complacemos en ceder o donar a esa Academia de la Lengua Vasca los libros y papeles de la pertenencia de aquél existentes en los locales académicos (Ribera 6 entresuelo), así como los derechos de propiedad literaria o créditos pendientes por este concepto correspondientes al mencionado causante.

Significamos a la Academia el deseo del finado y por tanto el nuestro inherente a la expresada donación de que la parte de los libros y papeles aludido que integraban la biblioteca particular de aquí[1], en el evento de que algún día desapareciera esa Academia, queden transferidos a la Biblioteca de la Excm. Diputación de Vizcaya, debiendo por tanto [s]er conservados por esa Academia con tal destino. No así los demás libros consistentes en obras publicadas por el finado y constitutivas de fondo comercial destinado a la venta, de los cuales podrá la Academia disponer libremente como precise o le convenga.¹³⁴³

Batzarrak aho batez onartu zuen dohaintza eta emaileei esker ona adieraztea erabaki zuen. Halaber, dohaintzako liburu eta eskubideen zerrenda zehatza egitea erabaki zuten, ongi bereziz BPDari zegozkionak eta besteak. Eginkizun horren ardura J. Gorostiagari eman zioten. Bide batez, bibliotekariari egoitzako liburu eta agiri guztien katalogoa egin eta horien erabilera irizpideak zehaztea agindu zioten. G. Lacombe zenak 1936 arte izandako bibliotekari-artxibozain postua berreskuratu eta J. Gorostiagak hartzen zuen, beraz. Azkenik, guzti horren berri BPDari jakinaraztea erabaki zuten. Hain zuzen, N. Oleaga-J. Gorostiagak JCVko ordezkariekin izandako elkarrizketen berri eman zuten. JCVk nolabait konpondutzat ematen zituen iraganeko istiluak, ALVri diru laguntza gehitzeko asmoa zuelako, bereziki Bilboko egoitza hondatuan egokitze lanak egiteko. Horrela, euskaltzainek ez ezik, bestelako erabiltzaileek ere R. M. Azkue zenaren dohaintzak aberastutako bibliotekara jo ahal izango zuten. Batzarrak esker ona adierazi zion JCVri eta J. Gorostiaga izendatu zuten asmo horiek burutzeko artekari. Ondoren, J. M. Seminariok 1949ko ekainetik zeraman ordezkaritza kendu eta N. Oleaga izendatu

¹³⁴³ ABA-EUS: J. Villa Cobian eta G. Maidaganen idazkia Euskaltzaindiari, 1953-04-06.

zuten JCVren ordezkari ALVnn (ALV 1982: 26-27).¹³⁴⁴

Bistan da erabaki garrantzitsu horiekin JCVk zeregin akademikoetan izan zezakeen eragina mugatu nahian zebiltzala. ALVko idazkariak erabakien berri eman zion idazki banatan J. M. Ruiz Salasi maiatzaren 11n.¹³⁴⁵ Euskaltzaindiko ofizioak jaso bezain laster, JCVko hurrengo kideak batzartu ziren: BPDko presidentea, F. Echegaray, H. Bilbao, J. Irigoyen, C. Lasterra, N. Zorrilla, B. Bureba, Conde de Superunda eta E. Calle. Bi erakundeon arteko harremanak hobera egin arren, ez zeuden prest JCVko kideen ALVko presentziari uko egiteko:

El Sr. Ruiz Salas dio cuenta de las conversaciones sostenidas en su día con el Sr. Oleaga, sobre el incidente surgido en la toma de posesión de nuevo Académico de la Academia de la Lengua Vasca, y a su vez informó también el Sr. Merino de otras conversaciones que se habían tenido con dicho Sr. Oleaga sobre una posible reorganización de la Academia con determinada intervención de la Junta de Cultura, y se dio lectura de una comunicación de 11 del actual enviada a la Junta por el Secretario de la Academia en que se da cuenta de haber sido designado don Nazario Oleaga y Muguruza para que en lo sucesivo ostente ante esta Junta, la representación de la Academia de la Lengua Vasca.

Cambiaron amplias impresiones los reunidos sobre las relaciones que se han mantenido y deberán mantenerse en lo sucesivo con la Academia y se convino en realizar las gestiones necesarias para que, un miembro de la Junta, fuese admitido como Académico y representase a su vez a esta entidad en la Academia, procurándose robustecer las relaciones de toda clase entre ambos organismos.¹³⁴⁶

E. Calle idazkariak JCVren erabakiaren berri jakinarazi zion Euskaltzaindiari.¹³⁴⁷ J. M. Seminario 1952ko ekainetik ez zen agertzen ALVren batzarretara. Garai horretan Bilboko *Zumárraga* aldizkari berrituan argitaratzen zituen artikulu atzerakoiak, euskarak bizitza modernoarekiko harremanak eten eta baserrian gordetzearen alde egiten zutenak (Seminario de Rojas 1952).¹³⁴⁸ *Zumárraga* urtekariaren 1953ko zenbakian J. M.

¹³⁴⁴ Argitaratutako euskal bertsioa baino zehatzagoa da artxiboan gordetzen den gaztelaniazko bertsioa, eta komeni da horra jotzea (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren gaztelaniazko batzar agiri ofiziala, 1953-04-24).

¹³⁴⁵ BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak J. M. Ruiz Salasi, 1953-05-11, Junta de Cultura C-40 - 01-.

¹³⁴⁶ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-05-13, Junta de Cultura C-62.

¹³⁴⁷ ABA-EUS: E. Calleren ofizioa N. Oleagari, 1953-05-18.

¹³⁴⁸ J. M. Areilza RSVAPeko buruak ere, F. Krutwigen futurismo elitistarekiko ez oso urruti, euskararen azterketa zientifikoa abertzaletasunaren eskuetatik kentzeko asmoa agertu zuen *Zumárraga* urtekariaren bigarren zenbakian (Areilza1953).

Seminariok argitaratu zuen «Cuatro actitudes ante una realidad evidente» idazlana. 1949ko sarrera hitzaldiaren jarraipena izan zitekeen. Euskarari buruz lau jarrera nagusi zerrendatzen zituen. Batzuk gorroto zuten herri hizkuntza. Bigarrenek euskara soilik ikergai zientifikotzat jotzen zuten, baina, M. Unamunok bezala, etsaien argudio politikoak arduragabeki indartzen zituzten. Hirugarrenak, hain zuzen, herri hizkuntzaren alde neurri utopiko eta inozoak nahi zituzten abertzaleak ziren. Laugarren jarrera hitzunen gehiengoarena ei zen. Talde horri euskararen inguruko eztabaidek ez zioten ardurarik.

J. M. Seminariok hitzun arruntan pasibitatea goraipatzen zuen, hizkuntzaren etorkizuna Jaungoikoaren eskutan uzten zutelako. Hitzun arruntak, nekazariak ez ezik, burges txikiak ziren. Hain zuzen, azken horiek izan ziren euskal idazleak XIX. mendera arte. Errealitate bizi horren aurka jartzen zituen foru erregimenaren garaiko fantasia etimologikoak nahiz atzerriko hizkuntzalarien eztabaida zientifiko antzuak. Erbestean zegoen F. Krutwigi zuzentzen zitzaiola ematen zuen. Indoeuroparrak ez izanagatik, euskara ezin zen milioika hitzunez osatutako hungariera-finlandiera bezalako hizkuntza nazionalen pare jarri. Herri hizkuntza zaharberritua, barregarri mozorrotutako aitona bezalakoa zen:

Entonces a sus nietos, que le querían mucho, no se les ocurrió mejor cosa para animarle que ponerle un bisoñé y hacerle un traje «príncipe de Gales», de esos de «gigoló», con dos aberturas muy monas en la chaqueta... y comprarle unos calcetines amarillo canario y una corbata americana del más estimulante, abigarrado e insólito cromatismo... Y para ponerle al día, su nieto mayor le compró unos libros que hablaban de la física, de los «quanta», de la desintegración atómica y de todas esas cosas así... Y le hicieron leer novelas de Lajos Zilahy, y ver películas llenas de complejos por todas partes... Item más, le enseñaron a decir que «se aburría como un tigre», o que «lo estaba pasando bárbaro»; que estaba «hecho un muslo de mar»; que aquello era una «pocholez»... ; que desde hace ya mucho tiempo, todos los que quieran pasar por gente al día, no deben decir que una cosa o una acción es mala, sino «desagradable», de «mal gusto» o «molesta» y le enseñaron a bailar el «booghie», y a montar en bicicleta, y a «soplar» en las barras de los bares (Seminario de Rojas 1953: 117).

1953ko maiatzaren 29an, hurrengo euskaltzainak batzartu ziren GPDko jauregian: A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, N. Oleaga eta J. Cincunegui. L. Dassancek ezin etorria adierazi zuen. A. Irigaray izan zen behin-behineko mahaiburua, I.

M. Echaide Madrilen zegoelako bestelako eginkizunetan.¹³⁴⁹ N. Oleaga idazkariak jakinarazi zuen JCVri bidali ziola aurreko batzarrean hartutako erabakien berri. JCVren ordezkari bat ALVn onartzeaz den bezainbatean, ordea, batzarrak arazo hori geroratu eta hobeto aztertzea erabaki zuen. Euskaltzaindia bere autonomia galtzearekiko uzkur ageri zen, batez ere J. Irigoyen-J. M. Seminariok egindako ekarpen urrien ondoren. J. Gorostiagak, bestalde, «Euskaltzaindiaren Adiskideak» izeneko taldeak egindako elkarlanerako eskaintzaren berri eman zuen, seguru asko A. Irigoyenen taldearekin zerikusia zuena. A. Irigarayk, orobat, Donostiako hitzaldien eta *Eusker*a argitaratzeko gestioen berri eman zuen. Azkenik, R. Lafonek bidalitako bi idazlan hartu zituzten: Salamancako Unibertsitateak argitaratutako *Études basques et caucasiques* (1952) liburua eta *Revue historique de Bordeaux et du Departament de la Gironden* argitaratutako «Sur une étymologie basque du nom *burdigala*» artikulua (ALV 1982: 28).¹³⁵⁰

1953ko ekainaren 26ko batzarrean, Bilboko egoitzaren arduradun izan behar zuen J. Gorostiagak bere azken idazlanaren ale bat eman zion ALVri: Salamancako Unibertsitateak argitaratutako *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* (1953). Izan ere, J. Urquijo-R. M. Azkue hil ondoko eta L. Michelena agertokira azaldu aurreko interregno laburrean, Liburu Sakratuetan eta asiriologian aditua zen barnealdeko ALVk erakuts zezakeen euskaltzain gaituena. Esan bezala, 1952-1953 ikasturtean, «Manuel de Larramendi» katedra ofizialki inauguratu aurretik, J. Gorostiaga Salamancako Unibertsitatean izan zen ikastaroak ematen, A. Tovarrek gonbidatuta (IAEV 1954). Dena dela, L. Michelena berehala hasi zen bere autoritatea markatzen. *BRSVAP*en kritika zorrotza argitaratu zuen J. Gorostiagaren akatsak nabarmenduta (Michelena 2011d: 127-129).

Aurreko batzarrean huts egin zuenez, ekaineko batzar egunean sinatu zituen euskaltzainburuordeak egoitzako bibliotekaz eta R. M. Azkueren dohaintzaz apirilean hartutako erabakien jakinarazpen ofizialak.¹³⁵¹ Bestalde, N. Oleagaren agiri zirriborroari

¹³⁴⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. C. Zabalori, 1953-05-30.

¹³⁵⁰ L. Michelena, hain zuzen, liburuaren iruzkin oso positiboa argitaratu zuen *BRSVAP*en, batez ere zubereraren fonologiaz egindako ekarpena nabarmenduta. Erkaketa kaukasiarrei egin ohi zizkien kritikak alde batera utzi zituen (Michelena 2011a: 47-50).

¹³⁵¹ BFAH-EC/ABA-EUS: I. M. Echaideren ofizioak J. Gorostiagari, G. Maidagani, J. Villari eta J. M. Ruiz Salasi, 1953-06-26, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

esker dakigu JCVko ordezkariaren izendatzea ere eztabaidatu zela.¹³⁵² Euskaltzaindiaren egoitza konpontzen laguntzeko JCVk hartutako erabakiari jarraituta, ekainaren 13an E. M. Aguinaga BPDko arkitektoa Euskaltzaindiaren Ribera kaleko egoitzan izan zen eta egoera negargarria konfirmatu zuen:

El pasado sábado se ha hecho una inspección de estos locales sitos en la calle de la Ribera nº 6 entresuelo.

Constan de una escalera particular de acceso, un hall de entrada, 3 habitaciones que dan a la calle Jardines y unos aseos.

Todo ello está en un deplorable estado de conservación, con los paramentos abombados, agrietados y con raseos descubiertos, trozos de papel despegados y viejos, pintura antiquísima, y aseos sin baldosas ni azulejos.

La instalación eléctrica es toda ella exterior y en su mitad aproximadamente no funciona. Las obras mínimas de adecentamiento deberán consistir en rascar y enlucir los paramentos de nuevo, empapelarlos y pintarlos, embutir la instalación eléctrica, colocar baldosas y azulejos y tapas de retre[t]es en los aseos, cepillar los suelos y limpiar los cristales.

El costo aproximado de estas obras, dependería del detalle concreto de lo que quisiera realizarse, pero oscilaría alrededor de las 50.000.- ptas. como mínimo.¹³⁵³

W. Bernaola buru zuen BPDko Educación, Deportes y Turismo saila arkitektoaren txostena aintzat hartu, eta lan egitasmo bat burutzea agindu zioten, baina 20.000 ptako aurrekontua gainditu gabe.¹³⁵⁴ Horrela, uztailaren 11n JCVko hurrengo kideak batzartu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, C. Lasterra eta E. Calle. Ezohiko batzarra izan zen, JCV-ALV arteko harremanak eztabaidatzeko:

El Sr. Presidente dio cuenta de los propósitos de la Corporación de atender a la reforma y mejor acondicionamiento de los locales de la Academia, y el Sr. Merino tras de dar cuenta de las gestiones hechas por su parte para el sostenimiento de la institución por la que debe velar la Junta de Cultura, habló de la necesidad de establecer un puesto fijo y permanente de custodio de la Academia, creyendo que el más indicado para ello era el sacerdote don Juan Gorostiaga.

¹³⁵² ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-06-26. I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-09-30.

¹³⁵³ BFAH-CE: E. M. Aguinagaren «Academia de la Lengua Vasca» txostena, 1953-06-15, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP- 10. Ordura arte beti Ribera 5 izandakoa lehen aldiz agertzen da Ribera 6 gisa.

¹³⁵⁴ BFAH-CE: BPDko Educación, Deportes y Turismo sailaren xedapena, 1953-07-01, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP- 10.

Los Sres. Echegaray y Lasterra por su parte coincidieron en un todo con las apreciaciones y criterios de los Sres. Ruiz Salas y Merino, que, como dijo el Sr. Echegaray era el criterio de la Junta en pleno según se pudo colegir en todas las reuniones en las que se había abordado el tema.

Después de este cambio de impresiones se acordó: 1º. Aumentar la subvención que actualmente se concede a la Academia de cinco a diez mil pesetas al año. 2º. Gestionar de la Academia la designación de don Juan Gorostiaga, con carácter permanente para ponerse al frente de la labor burocrática de la institución. 3º. Que el Sr. Gorostiaga permanezca diariamente en los locales de la Academia cuidando de su funcionamiento de 10 de la mañana a una de la tarde, por lo menos. 4º. Que de la subvención que la Junta concede a la Academia se destinen 4.800 pesetas anuales (400 mensuales) a indemnizar al académico don Juan Gorostiaga de las molestias que le ocasione su diaria permanencia en los locales de la Academia. 5º. Facultar al Vocal señor. Merino y al suscrito Secretario para llevar a la práctica estos acuerdos en relación con los directivos de la Academia de la Lengua Vasca.¹³⁵⁵

JCVk erabaki horien berri uztailaren 29an eman zion ALVri, nolabait euskaltzainburuak J. Ybarrari 1949ko urtarrilean eskatutakoari erantzuten ziona.¹³⁵⁶ Izan ere, R. M. Azkueren testamentuan BPD liburu eta agirien azken hartzaile agertzeak, Euskaltzaindia inoiz desagertuko balitz, Bizkaiko agintari frankisten jarrera goxatzen lagundu zuen. Gogoan izan J. Urquijo zenaren biblioteca erosteko gestioek porrot egin eta bilduma baliotsua GPDak bereganatu izanak asko mindu zituela. Gainera, GPDak biblioteca horren inguruan SFVJU sortu berria zuen ikerketa filologikoa eta euskararen nolabaiteko sustapena bultzatzeko asmoarekin. J. Urquijoren ondarearen balioarekin ezin konparatu arren, J. M. Ruiz Salas presidente zuen BPDak uztaileko gobernu batzarrean formalki adierazi zuen atsegín handiz hartu zuela R. M. Azkueren azken nahia.¹³⁵⁷ BPDko idazkariak ofizio baten bidez abuztuan jakinarazi zion horren berri jarduneko euskaltzainburuari.¹³⁵⁸ BPDko arkitektoak Educación, Deportes y Turismo sailaren agindua bete eta 20.000 ptako aurrekontu zehatza prestatu zuen igeltserotza, arotzeria, dekorazio, pintura eta elektrizitate lanekin. E. M. Aguinagaren laburpenak Ribera kaleko

¹³⁵⁵ Asociación Artística Vizcaína-k, ordea, soilik 2.000 pta hartzen jarraitu zuen. BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-07-11 & 1953-12-28, Junta de Cultura C-62.

¹³⁵⁶ BFAH-EC: E. Calleren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-08-11, Junta de Cultura C-40 -01-.

¹³⁵⁷ BFAH-EC/ABA-EUS: BPDko idazkariaren izapidea, 1953-07-24, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

¹³⁵⁸ BFAH-EC/ABA-EUS: BPDko idazkariaren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-08-11, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

egoitzaren egoera penagarria erakusten zuen:

Vestíbulo.- Picar y lucir los techos y paredes, colocar un nuevo rodapié y pintar.

Pasillo.- Picar y lucir techos y paredes, ejecutar un techo falso, colocar un rodapié nuevo y pintar.

Sala de Juntas y Biblioteca.- Pequeños remiendos, quitar el empapelado y pintar.

Aseos.- Colocar un inodoro nuevo, embaldosar, colocar un enchapado de azulejo blanco de 15 X 16 y pintar.

Además de lo expuesto, se colocará un punto de luz empotrado en el vestíbulo y en los aseos y 2 en el pasillo, Sala de Juntas y Biblioteca, ya que toda la instalación existente lo está por cordón descubierto.¹³⁵⁹

Educación, Deportes y Turismo sailak aurrekontu horren aldeko txostena egin eta dekretuz onartzea proposatu zion BPDko presidenteari.¹³⁶⁰ Urtea amaitu baino lehenago 20.000 ptako aurrekontua ezarri zen, Euskaltzaindiko egoitzan lanak egiteko, eta J. M. Ruiz Salas presidentek obrak abiatzea agindu zuen dekretuz 1954ko urtarrilaren 29an.¹³⁶¹ BPDko aparejadorearen ardurapean martxoan amaitu zituzten igeltserotza, arotzeria, dekorazio, pintura eta elektrizitate lanak, 13.898,94 ptako gastuarekin.¹³⁶² Uztailean, aldiz, pintura lanak eta bibliotekako arotzeria lanak amaitu ziren, 4.346,71 ptako gastuarekin.¹³⁶³ JCVko diruzaina Euskaltzaindiaren egoitzan egindako lanen berri emateaz arduratu zen *BRSVAP*en (Merino Urrutia 1954).

12.5 Gipuzkoako eta Nafarroako diru laguntza ofizialak

GPDak SFVJU sortu ondoren, J. M. Caballero presidentek I. M. Echaide-A. Irigarayri agindu zien 1953an eskatutako 3.000 ptako diru laguntza baino handiagoa lortzen saiatuko zela ALVrentzat. Halaber, gutxiegi iristen zion Gipuzkoako CAPak emandako 1.000 ptakoari. Gipuzkoako berri ekonomikoak onak zirenez, NFDko kontuez

¹³⁵⁹ BFAH-CE: E. M. Aguinagaren «Obras de reforma de la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao» aurrekontua, 1953-10-10, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

¹³⁶⁰ BFAH-CE: BPDko Educación, Deportes y Turismo-ko sailaren dekretu proposamena J. M. Ruiz Salasi, 1953-10-21, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

¹³⁶¹ BFAH-CE: J. M. Ruiz Salasen dekretua, 1954-01-29, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-

¹³⁶² BFAH-CE: R. Guerediagaren txostena BPDari, 1954-03-16, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

¹³⁶³ BFAH-CE: R. Guerediagaren txostena BPDari, 1954-07-09, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

galdetu zioten Bilboko idazkariari.¹³⁶⁴

I. M. Echaide-A. Irigaray 1953ko apirilean J. Beñaran Gipuzkoako CAPEko zuzendariarekin bildu ziren. Idazki formal bat aurkeztu nahi zioten aurrezki kutxari, diru laguntza handiagotu zezan. A. Irigarayk, halaber, Donostiako CAMEko eta Banco Guipuzcoano-ko arduradunekin bildu nahi zuen. Diru laguntza gehiago lortuko zutelakoan, euskaltzainburuordeak emakume mekanografo bat kontratatu nahi zuen, euskarazko gutunez eta bestelako idazkiez arduratzeko.¹³⁶⁵

Bizkaiko diru laguntzak bideratzea Bilboko euskaltzainen esku utzita, I. M. Echaidek arreta handia jarri zion Nafarroako eta bereziki Gipuzkoako erakundeen aurrean egin beharreko diplomazia lanari. 1953ko apirilean eskari luze bat zuzendu zion Gipuzkoako CAParen zuzendariari. ALVk burutu nahi zuen argitalpen programa handinahirako 50.000-100.000 pta beharko zituztela adierazi zuen.¹³⁶⁶ GPDak 5.000 ptako diru laguntza ematea erabaki zuenez, euskaltzainburuordeak eskerrak eman zizkion J. M. Caballero presidenteari maiatzaren 15ean.¹³⁶⁷ Honela azaldu zion N. Oleaga idazkariari, adibidez, Donostiako CAMari egin zion eskaria: «Es un poco altisonante; pero nunca faltan en estos Consejos personas que miran con malos ojos lo nuestro. Hay que acogerse a lo *científico* y a lo *hispanico*. Veremos si resulta».¹³⁶⁸ Gipuzkoako CAPEko zuzendariari aurkeztutako eskaria, A. Irigarayren argitalpen plangintzan oinarrituta zegoen:

- 1) *Eusker*a agerkari ofizialaren bigarren aroa.
- 2) Liburu klasikoak grafia eguneratuarekin.
- 3) Idazle garaikideen antologia.
- 4) Haur literatura: elezaharrak, ipuinak edota kantak.
- 5) Hiztegiak: R. M. Azkuerenaren 2. edizioa eta gaztelania-euskara hiztegi txikia, irakasle-idazleei zuzenduta.¹³⁶⁹

I. M. Echaidek, Euskaltzaindiaren ekaineko batzarrean, adierazi zuen GPDak

¹³⁶⁴ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.

¹³⁶⁵ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17.

¹³⁶⁶ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. Beñarani, 1953-04-16.

¹³⁶⁷ KMK: I. M. Echaideren gutuna GPDaren gobernu batzordeari, 1953-06-08.

¹³⁶⁸ KMK: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-10-08.

¹³⁶⁹ ABA-EUS: A. Irigarayren «Para el Sr. Director de la Caja de Ahorros Provincial» idazkia, [1953-04-16].

5.000 ptako diru laguntza eman zuela; 1943tik eman ohi zituen 3.000 ptak baino gehiago, alegia. N. Oleaga idazkariak, bestalde, jakinarazi zuen JCVk aurrera segitzen zuela Bilboko egoitza konpontzeko asmoarekin (ALV 1982: 29). N. Oleagak, agiri zirriborroan, GPDaren 5.000 ptak honela banatu zituztela adierazi zuen: 3.000 pta A. M. Labayenek egindako *Euskeraren argitalpen gastuetarako*, 500 pta Donostiako bulego gastuetarako eta 1.500 pta ALVren kutxan gordetzeko.¹³⁷⁰

Nafarroatik ere etorri ziren berri onak, Gipuzkoan bezala, presidentzian izandako aldaketekin lotuta zeudenak. 1952ko apiriletik M. Gortari zen NFDko presidente eskuindar berria, aurreko J. M. Arellano baino euskaltzaleagoa. Ikusi dugunez, ordura arte Iruñeko alkate zenak harreman adeitsua gorde zuen ALVrekin, EBEn izan zuen jarrera irekiagoarekin bat zetorrena. EI-SEVeko kide izateaz gain, autonomia estatutu bateratuaren alde agertu zen. 1953ko ekainean, A. Irigaray, ALVren Nafarroako ordezkari gisa, euskaltzainburuordearen aurkezpen gutun batekin agertu zen NFDko idazkari karlistaren aurrean, atzeratutako diru laguntzak eskatzeko.¹³⁷¹ Arazoa berehala konpondu zuten, uztailean I. M. Echaidek baimena eman ziolako A. Irigarayri, 1951-1952-1953ko diru laguntzak jasotzeko: guztira 15.000 pta.¹³⁷² Jarduneko euskaltzainburuak ofizialki eskerrak eman zizkion M. Gortariri, diru laguntza horiekin ALVren ikerketa-argitalpen egitasmoak aurrera atera ahal izango zirelako.¹³⁷³ Gestioa A. Irigarayri zor zitzaion eta berehala medikua EGZean izandako zigorrak konpontzen hasiko zen Nafarroan, M. Gortarirekin zuen harreman ona erakusten duena. 1952ko irailean Iruñeko Udalak 1937ko inhabilitazioa kentzea erabaki zuen eta 1953ko azaroan NFDak erabaki hori onartu egin zuen (Irigaray 1985: 22).

Nolanahi den, Euskaltzaindiaren izaera juridikoak kolokan jarraitzen zuen. I. M. Echaidek jarduneko euskaltzainburu gisa bidalitako gutun ofizialetarako ALVren kautxuzko zigilu bat behar zuen. Abuztuaren 25ean T. Garicano Goñi Gipuzkoako gobernadore zibilar baimena eskatu zion zigilu ofiziala egiteko hurrengo ezaugarriekin:

En el círculo, parte superior: «Euskaltzaindi», que significa «Academia de la Lengua Vasca».

En la parte inferior: Academia de la Lengua Vasca.

¹³⁷⁰ ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-06-26. I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-09-30.

¹³⁷¹ KMK: I. M. Echaideren gutuna J. Urizi, 1953-06-24.

¹³⁷² KMK: I. M. Echaideren gutuna M. Gortariri, 1953-07-20.

¹³⁷³ ABA-EUS/KMK: I. M. Echaideren gutuna M. Gortariri, 1953-08-14.

En el centro: un árbol que simboliza la pureza del idioma con una leyenda que dice «Ekin eta Yarra» que significa «dar comienzo y seguir» y alude también a esa misma acción protectora.¹³⁷⁴

Gobernu Zibiletik irailaren 1ean zigiluaren diseinuaren bi kopia eskatu zizkioten eta berak irailaren 7an bidali zituen.¹³⁷⁵ Baina administrazioaren isiltasuna erabatekoa zenez, GPDko presidentearengana jo zuen laguntza bila irailaren 25ean, eta diseinuaren beste kopia bat bidali zion.¹³⁷⁶ J. M. Caballeroren gestioari esker, T. Garicano Goñik biharamunean eman zion ALVren zigilua egiteko baimena euskaltzainburuordeari.¹³⁷⁷ Horrela, Gráficas Valverde-k egin ahal izan zuen zigilua Euskaltzaindiarentzat.¹³⁷⁸ 45,50 ptako kostua izan zuen, baina A. Valverdek azkenean ez zien ezer kobratu nahi izan.¹³⁷⁹

Euskaltzaindiaren 1953ko iraileko batzarrean I. M. Echaidek adierazi zuen A. Irigarayk NFDtik hartutako diru laguntzaren berri. Horrela, 1952an hartutako 1.000 ptako diru laguntza negargarria, 38.750 ptara igaro zen 1953an, agintari politikoekiko harremanak konpondu eta 1951-1952 artean atzeratutako kopuruak berreskuratzearen ondorioz. Honela banatu ziren 1953ko diru laguntzak: NFDak 15.000 pta, JCVk 13.750 pta, GPDak 5.000 pta eta Gipuzkoako CAPak beste 5.000 pta. Horrela ordaindu ahal izan ziren urteko 17.000 pta inguruko gastuak: egoitzaren errenta, *Euskera* agerkariaren argitaratzea, aldizkari harpidetzak, langileen soldatak (J. Gorostiaga bibliotekariarena barne) edota euskaltzainen dietak.¹³⁸⁰

1953ko azaroan, euskaltzainburuordeak hainbat arazo eztabaidatu zituen idazkariarekin. G. Maidagan 1941etik ALVko diruzaina zenik ez zekiten askok, 1948tik ez baitzen Euskaltzaindiaren batzarretan diru sarrera-irteeren errendapena egiten (ALV 1956: 329). I. M. Echaidek nahi zuen diru funtsak erabiltzeko baimena soilik Espainiako euskaltzainei ematea, Frantziako erakundeek ez zutelako laguntzarik ematen. Idazkariari aginpidea eman nahi zion euskaltzainen osterak edozein unetan ordaintzeko. Bestalde, Donostian 500 pta gordetzen zituzten, batez ere korrespondentziarako.¹³⁸¹ Hala ere,

¹³⁷⁴ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna T. Garicano Goñiri, 1953-08-25.

¹³⁷⁵ ABA-EUS: T. Garicano Goñiren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-09-01, eta I. M. Echaideren gutuna T. Garicano Goñiri, 1953-09-07.

¹³⁷⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1953-09-25.

¹³⁷⁷ ABA-EUS: T. Garicano Goñiren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-09-26.

¹³⁷⁸ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Valverderi, 1953-09-29.

¹³⁷⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

¹³⁸⁰ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1953.

¹³⁸¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

Donostian ezin izan zuten Gipuzkoa-Nafarroako diru laguntza ofizialak jasotzeko kontu korronterik ireki Euskaltzaindiaren izenean, izaera juridikorik ez zuelako. Horregatik, aurrezki libreta soil bat ireki behar izan zuten Banco de San Sebastián-en I. M. Echaide-A. Irigarayren izenean.¹³⁸²

1954an, egoera erlatiboki normalizatuan, Euskaltzaindiak 23.750 ptako diru laguntza jaso zuen, itolarri ekonomikoa gainditzeko bidean jarrita, inflazioa gorabehera. Dena dela, kontuan hartu behar da JCVk 1953an CSICetik soilik hori baino gehiago jaso zuela: 25.000 pta.¹³⁸³ Honela banatu ziren 1954ko diru laguntzak: NFDak 5.000 pta, JCVk 8.750 pta, GPDak 5.000 pta eta Gipuzkoako CAPak beste 5.000 pta.¹³⁸⁴ Horrela ordaindu ahal izan ziren urteko 25.700 pta inguruko gastuak: besteak beste, *Gueroren* berrargitalpenaren 2.000 ptak, J. Gorostiagaren 4.000 ptako soldata, euskaltzainen dietak edota egoitzako lanak. Esan dugunez, Euskaltzaindiak BPDaren berariazko laguntza izan zuen egoitzaren konponketa ordaintzeko.¹³⁸⁵ Bestalde, Donostiako CAMak emandako 1.000 ptak ALVren diruzaintzak ez zituen laguntza ofizialen artean jaso, I. M. Echaidek ez zuelako informazio hori behar bezala eman.¹³⁸⁶

12.6 Euskaltzaindiaren argitalpenak

«Euskera» agerkari ofiziala

1953ko apirileko batzarrean, A. M. Labayen urgazleak *Euskera* berriz argitaratzeaz txostena irakurri zuen, eta P. Axularren (1556-1644) jaiotzaren laugarren mendeurrena ospatzeko *Gueroren* (1643) berrargitalpena egiteko diru laguntzak eskatzea proposatu zuen. *Euskera* agerkariaren zenbaki berriaz, A. M. Labayenek martxoaren 7an N. Oleaga idazkariari idatzitako gutunean, hainbat xehetasun eman zizkion. Zenbaki berriak 48 orrialde izango zituen goiburu honekin: «1953 *Euskera* 2 gn Aroa 1'go Zenbakia XVII urtea».¹³⁸⁷ Edukiak honela banatuko ziren:

¹³⁸² KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigoyeni, 1954-11-17.

¹³⁸³ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-12-12, Junta de Cultura C-62.

¹³⁸⁴ Azken erabakien arabera, JCVri 10.000 pta ematea zegokion. 8.750 pta besterik eman ez izana, J. Gorostiagak urtea amaitu baino lehenago Ameriketara alde egitarekin lotuta dagoke; JCVren diru laguntzaren ia erdia (4.800 pta) bibliotekariaren soldata ordaintzeko baitzen.

¹³⁸⁵ ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1954.

¹³⁸⁶ KMK: I. M. Echaideren ordainagaria Donostiako CAMari, 1954-06-15.

¹³⁸⁷ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-03-07. Orrialde kopuruaren eskasiaz jabetzeko, argitaratuko azken hiru *Euskera* monografikoez 169, 192 eta 64 orrialde izan zituzten, hurrenez hurren

- Zenbakiaren aurkibidea (2. orrialdea)
- Hitzaurrea (3)
- Euskaltzainen hilberriak (4-19)
- *Euskeran* 1920-1937 artean argitaratutako idazlan eta agirien aurkibidea (20-39)
- Euskaltzain eta urgazle berrien zerrenda (40-42)
- Euskaltzaindiak azken aldian egindako batzarren, hartutako erabakien eta zenbait argitalpenen berri laburra (43-48)

A. M. Labayen bera antolatzen ari zen lehen atalak, A. Irigaray-L. Villasante-L. Michelenaren laguntzarekin. Azken bi atalak N. Oleagaren esku uzten zituen, 1941ean izendatutako idazkariak gorabehera horien berri zehatza zuelako. 500 ale argitaratzeak 3.000 ptako kostua izango zuen. Euskaltzaindiaren diru laguntzen arazoa bideratu ezean, ALVren argitalpen zaharrak saltzea proposatu zuen. Nolanahi den, ALVk kostu ahala kostu plazaratu behar zuen agerkari ofiziala urgazlearen ustez: «Nai ta naiezkoa zaigu gure bizi-agiri ta lekukotzat».¹³⁸⁸ Tolosarrak, orobat, hitzaurreako prestatutako «Aurrera!» testua bidali zion idazkariari, ezinbestean gipuzkeraz idatzia eta EGZ aurreko ALVrekiko jarraitutasuna aldarrikatzen zuena, ideologia politikoen gainetik:

Amasei urteko isilunearen ondotik berriz EUSKERA gure aldizkaria argitaratzen jarraitzea goaz.

Betikoak dira gure asmoak: alderdikeri ta etsaigo guzien gañetik gure izkuntza aztertu ta zaintzea, onela euskal-jakintza ta Literaturari indar emanaz. Ori izan bait da sartu zanetik EUSKALTZAINDI' ren xede ta elburu nagusia.

EUSKERA' ren azken banakoa agertuz geroz aldakuntza gaitzak izan ditugu gure artean. Ain maite ta begiko genitun euskaltzain ta adiskide auek il zaizkigu: Campión, Eguzkitza, Olabide, Inzagarai, Urkixo, Mgr Saint Pierre jaunak. Eta batik bat, azkenik D. R. Azkue gure lendakari ta maiburu guziz agurgarri ta aztu-eziña. G. B[.] guziok!

Beste leku batean irakurri zenitzakete aien oroitzapenez azaltzen ditugun nekroloji ta omenaldi laburrak. Ez ditugu ere antziko gure otoitzetan gure irakasle ta lankide izan ziranak Jauna' gan atsedean ar dezaten.

Euskaltzaindi' n aiek utzi diguten utsunea, ordea bete bearra zegon eta orregatik al izan dugun eran beste euskaltzain berri batzuek izendatu ditugu. Jaun auen izen eta

(cf. Moguel 1935; 1937; Altube 1936).

¹³⁸⁸ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-03-07.

xehetasunak dagokion toki berezian arkituko dituzute, baita ere.

Onela euskaltz[a]in zahar eta berriak elkarturik gure aurrekoek zabalduko bidetik joan al izango gera; ta jarraituko diogu aiek egindako lanari. Ez zan errez beti erakusbide ta lan aiek zeintzuek izan ziran jakitea. Eta ona zergatik EUSKERA'n ama sei urtez argitaratu idaz-lan eta agirien Arkibidea emen ematen dugun.

«Index» onen bitartez irakurleak eroso arki ditzake EUSKALTZAINDIa'ren erabaki nagusienak eta idazlan eta beren egilleen izenak.

Askok uste ez bezelako uzta ugari ta joria dago Euskera'ren orrialdeetan eta guzientzat ba-dago zer ikasia.

Eztabaidetan zentzuz jokatur, eta utsegite ta okerretik igesi egiñez lotu gaitean lanari gogo on et[a] biotz zabalez gure euskeraren alde galdu dugun astia Jainkoa'ren laguntzaz irabaztearren.

Gure bultzagai bitez itz auek: EGIN ETA JARRAI.¹³⁸⁹

Euskaltzaindiaren gerraondoko historia nahasiaren erakusgarri, A. M. Labayenek prestatutako hilberrien zerrendan J. C. Guerra-G. Lacombe-P. Zamarripa falta ziren. ALVren apirileko batzarraren ostean, A. M. Labayenek eskatu zion N. Oleagari, euskaltzainen zerrenda ez ezik, bizirik zeuden urgazle-deduzkoena ere osatzea, *Euskera* berriaren argitaratze lanak hasiak zirelako.¹³⁹⁰

Tolosako alkate ohiak erbesteko A. Ibinagabeitiari Euskaltzaindiaren asmo guztiak jakinarazi zizkion, eta EAJ-PNVk zalantzarik gabe urrats horien berri zuen.¹³⁹¹ A. M. Labayenen berezko optimismoa gorabehera, frankismoaren instantzia ofizialekin harremanetan zeuden I. M. Echaide-A. Irigarayk berehala atzeman zituzten agerkari ofiziala berriz argitaratzeko oztopoak. Hasteko, prestatutako hitzaurrea kentzea nahitaezko ikusten zuen euskaltzainburuordeak:

Surgen dificultades de consideración para que la censura lo apruebe y por ello estimamos prudente no dar a imprenta, por el momento, el texto que para la continuación de la misma ha sido redactado.

Ignoramos si convendrá editarla como revista o como libro, pues bien pudiera ocurrir, que como libro hallásemos mayores facilidades. Tampoco sabemos si convendrá imprimirla

¹³⁸⁹ ABA-EUS: A. M. Labayenen «Aurrera!» hitzaurrea, [1953-03-07].

¹³⁹⁰ ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-04-26.

¹³⁹¹ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari eta A. Ibinagabeitiaren gutuna A. Irigarayri, 1953-04-28 & 1953-04-29. Hain zuzen, A. Ibinagabeitia arduratzen zen barnealdeko zenbait euskaltzaini *Euzko Deya*, *Alderdi*, *Gernika*, *Elgar* edota *Euzko-Gogoa* eskuratzear. Trukean, *BRSVAP*, *Egan* edota *Aránzazu* jasotzen zituen.

en San Sebastián o fuera de la Provincia. Tal vez fuera hallemos menos dificultades y mejores precios de imprenta. Parece que en Pamplona los precios son notablemente más bajos y más aun en Zaragoza.¹³⁹²

A. M. Labayenek etsipenez ematen zion aurkitutako eragozpenen eta zenbait euskaltzainen jarrera tamalgarriaren berri A. Ibinagabeitiari.¹³⁹³ Izenik ez aipatu arren, badirudi batzar horretako A. Irigaray mahaiburua baino ezin zela izan euskaltzain beldurtia. Bertan izandako L. Villasantek ere, izenik aipatu gabe, harrituta zegoela jarrera horrekin adierazi zion Bilboko idazkariari: «Eta gaiñera erriari dirua eskatu nai diogu? Zertarako eta nola, baiña, ezpaitugu ezer ere egiten?». ¹³⁹⁴

1953ko ekainaren 26an hurrengo euskaltzainak batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, M. Lecuona eta N. Oleaga. L. Villasantek ezin etorria adierazi zuen Arantzazuko santutegiko irakasleen bilera zuelako.¹³⁹⁵ L. Dassancek ere telegrama bidali zuen bere burua desenkusatzeko.¹³⁹⁶ Euskaltzainburuordeak adierazi zuen *Euskera* agerkariaren zenbaki berriaren argitalpena ia bukatuta zegoela. N. Oleagak, B. Bureba Prensa y Propaganda-ren Bizkaiko delegatuarekin hitz egin ondoren, baimena laster lortuko zutela uste zuen (ALV 1982: 29).¹³⁹⁷ Idazkariak, orobat, egun horretan eskuratu zion I. M. Echaideri euskaltzain, deduzko eta urgazle bizien zerrenda.¹³⁹⁸

Euskaltzaindiak ez zuen batzarrik egin 1953ko uztailan, hileko azken ostirala urte horretan Ignacio de Loyola santuaren eguna izan zelako, Bizkai-Gipuzkoako patroia. Donostiako euskaltzainak, GPDaren babesarekin, indarberrituta ageri ziren. *Euskera* agerkariaren inprimaketa ia amaituta zegoen, eta ale batzuk bidali nahi zizkieten N. Oleagari, zentsura igarotzeko Bizkaian erraztasunak izango zituztelakoan. Bestalde, literatur lehiaketa bat antolatzeaz beste, Bilboko egoitzan salgai zeuden idazlanen zerrenda nahi zuten.¹³⁹⁹

Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria 1953ko urriko datarekin inprimatu zen «Cuaderno I» gisa, eta «Editorial de la Academia Vasca Bilbao-San Sebastián» oinarekin;

¹³⁹² ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. M. Labayeni, 1953-05-04.

¹³⁹³ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-06-08.

¹³⁹⁴ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-06-23.

¹³⁹⁵ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-06-23.

¹³⁹⁶ ABA-EUS: L. Dassancen telegrama N. Oleagari, 1953-06-25.

¹³⁹⁷ Bernardo Burebaren izena soilik agiri zirriborroan agertzen da (ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri zirriborroa, 1953-06-26).

¹³⁹⁸ ABA-EUS: N. Oleagak I. M. Echaideri emandako euskaltzainen zerrenda, 1953-06-26.

¹³⁹⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-08-14.

legez izanik ez zuen argitaletxea, alegia. Babesorrian, euskaltzain eta urgazle bizien zerrenda agertzen zen, I. M. Echaide euskaltzainburuaren eta N. Oleaga idazkariaren azpian. Euskaltzainen artean, J. Irigoyen ez zen agertzen, bai ordea, J. M. Seminario. Erbesteko F. Krutwig-D. de Inza ere zerrendan zeuden, baina hutsune oso nabarmena zegoen: S. Altube.¹⁴⁰⁰ Euskaltzaindiaren artxiboan ez da gordetzen S. Altuberen ukorrik, eta pentsa liteke argitaratze baimena ez lortzeko beldurrez kendu zutela erbesteko jeltzalearen izena. Hain zuzen, idazkariak I. M. Echaideri 1953ko ekainean eskuratu zion zerrendan, S. Altube ageri zen lehenengo, eta hura ezabatzea ezin zen kasualitate hutsa izan. Zerrenda horretan P. Lafitte falta zen, baina akats hori konpondu egin zuten 1953ko *Euskeraren* babesorrian.

Dena dela, S. Altubek erbesteko kulturgintzan ere ez zuen parte hartze oso nabarmenik. S. Aranaren heriotzaren 50. urteurrenean, EAJ-PNVren intelektual nagusiekin batera agertu zen, alderdiaren buletinaren zenbaki berezian. «Arana Goiri idatz-iztilari» artikuluan bere betiko leloari eutsi zion. S. Arana 1903an hil geroztiko hizkuntzalaritza-filologia kontuan hartu beharra, ortodoxia antzuan erori gabe. A. Ibinagabebitiak, aldiz, «Arana Goiri euskel-idazle» artikuluan EAJ-PNVren sortzailearen defentsa politikoagoa egin zuen (*Alderdi* 1953-11; 1954-06). S. Altube, besteak beste, EGZean frankistek Arrasateko jaioterrian eta inguruko herrietan egindako hilketen informazioa biltzen ari zen, *Alderdi*n argitaratzeko.¹⁴⁰¹

Urgazleei dagokienez, N. Oleagaren zerrendan S. Michelena-E. Erquiaga falta ziren, baina akats horiek ere konpondu zituzten argitalpenean. J. Thalamás, ordea, zerrendatik argitalpenerako bidean galdu egin zen. Idazkariaren agirian agertutako bi urgazle (J. Jauréguiberry-J. Jud) 1952an hil zirenez, kendu egin zituzten zerrendatik. Baina N. Oleagak prestatutako zerrendan ageri ez zirelako, 1953ko *Euskeran* 17 urgazle falta ziren, ALVren historia gorabeheratsuen erakusgarri.¹⁴⁰² Bestalde, idazkariaren ekaineko zerrendan eta, ondorioz, 1953ko *Euskeran* J. Diharce agertzen zen urgazle, nahiz eta agirietan izendapen horren arrastorik ez egon. Seguruenez N. Oleagaren nahaste

¹⁴⁰⁰ 1953ko *Euskeran* agertutako euskaltzain zerrendan, N. Oleagak prestatutako agiritik jasotako bi akats bitxi daude. Alde batetik, M. Olasagarre eta «Dámaso de Inza» (OFM) bi pertsona ezberdintzat jotzen ziren; bata urgazle eta bestea euskaltzain. Bestetik, J. B. Constantin (1847-1922) eta A. Constantin (1873-1957) aita- semeak nahastu egin zituzten.

¹⁴⁰¹ SAF-AA: S. Altuberen gutuna I. Unzetari, 1953-10-19, PNV_NAC_EBB,K.00144,C.5.

¹⁴⁰² O. Apraiz, J. M. Errazti, E. de Echalar, L. González de Echavarri, P. Soloeta-Dima, B. de Oyeregui, 1953ko uztailean hildako C. Elguezabal, Ch. Orabe, W. Rollo, M. Inchaurre, R. J. Slaby, J. Caro, J. Azcárate, J. Chabagno, J. Ithurriague, M. P. Ciganda eta M. Labeguerie (cf. Torrealdai & Murua Uribe 2009: 161-165).

horri zor zaio «Iratzeder» urgazle izatea. Azkenik, idazkariaren zerrendan deduzko gisa ageri zen H. Gavel, urgazle soil izatera pasatu zen 1953ko argitalpenean.¹⁴⁰³

Nolanahi den, zenbaki berriaren atal nagusia L. Villasantek prestatutako 1920-1937 arteko aurkibideek osatzen zuten, Euskaltzaindiaren garai distiratsuagoaren erakustokia zena. Ondoren «Algunos acuerdos de la Academia Vasca» atal laburra zetorren gaztelaniaz, Euskaltzaindiak 1951ko apirilean hartutako erabaki ortografikoak azaltzen zituen, «h» eta «ñ» letrez ohar batzuk gehituta. Hura zen Euskaltzaindiak gerraondoan argitaratutako lehen erabaki ofiziala, 1920an araututako ortografia partez aldatzen zuena, F. Krutwigek egindako proposamenen bidetik (Zuazo Zelaieta 1988: 383-385).

Mantener la grafía r, l, t, d, con tilde para los sonidos de erre fuerte y consonantes mojadas; pero acordó igualmente admitir como grafías correctas los signos rr, ll, tt, dd, para dichos sonidos porque en ocasiones será ventajosa esa forma por dificultades tipográficas o particular clase de lectores.

También se ha acordado aceptar como forma académica en los dialectos meridionales el signo h, aun no correspondiendo a pronunciación aspirada en determinados casos de evitación del hiato de vocales, como «ohore», «ahate», «zuhurra», etc.; o en algún caso de diferenciación semántica, como «ori-hori», «ura-hura», «ari-ahari», etc., siendo naturalmente correcto el no uso de dicho signo h.

Se ha consultado a la Academia la manera correcta de emplear los nombres geográficos. Se debe en general respetar la grafía original así por ejemplo en: Quebec, Vaticano, Córdoba, etc. o recurrir a las formas españolas o francesas que son las más conocidas entre nosotros.

Respecto a las variantes baño, baino o baiño será preferible escribir esta última en los dialectos meridionales (ALV 1953: 27).

Ondoren EGZaz geroztik hildako euskaltzainen nekrologia laburrak idatzi zituzten euskaraz N. Ormaecheak (R. M. Azkue), A. Irigarayk (A. Campión), L. Michelenak (J. Urquijo), S. Michelenak (R. Olabide), M. Lecuonak (J. B. Egusquiza), A. Anabitartek (R. Inzagaray), P. Lafittek (J. Saint-Pierre) eta egile izengabe batek (P. Zamarripa-J. C. Guerra-G. Lacombe).¹⁴⁰⁴

¹⁴⁰³ ABA-EUS: N. Oleagak I. M. Echaideri emandako euskaltzainen zerrenda, 1953-06-26.

¹⁴⁰⁴ Nire ustez «X» sinatzen zuen egilea A. M. Labayen urgazlea zen, *Euskeraren edizioaz arduratu zena* (cf. ALV 1953: 29-43).

Azkenik, «Actividades de la Academia» atal anonimoa zegoen gaztelaniaz. GPDko jauregian emandako literatur hitzaldi-hizlarien berri emateaz gain, *BRSVAP*en argitaratuko zituztela iragartzen zuten, nahiz eta gero batzuk *Eganen* agertuko ziren. Era berean, Euskaltzaindiaren argitalpenak iragarri zituzten, diru laguntza ofizial nahikorik izanez gero: P. Axular, A. Oihenart, E. Garibay eta J. Etcheberri Sarakoa. Bestalde, idazle garaikideen antologia eta haurrentzako folklore bilduma. Bukatzeko, ALVren lexikografia eta A. Irigarayk proposatutako lehiaketa izan zuen hizpide liburuxkak:

Pero el menester más obligado de «Euskaltzaindia», que no lo aborda por falta absoluta de medios, será siempre la edición invertida castellano-euskera, iniciada ha tiempo, del gran diccionario de Azkue: o por lo menos, la de un lexicon manual restringido, castellano-euskera, con criterio moderno; y dedicado a los Instructores y literatos, en el que se dé cabida a algunos términos técnicos, científicos y urbanos, de uso corriente. Si las asistencias esperadas con fundamento no fallan, será acaso conveniente pensar en algún Concurso de trabajos del tipo de los reseñados (ALV 1953: 47).

1953ko urriaren 25ean bederatzia euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, A. Irigaray, M. Lecuona, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, J. Moulier eta N. Oleaga. A. Irigarayk adierazi zuen *Euskera* agerkariaren zenbaki berria prest zegoela, eta idazkariaren esku utzi zuen argitalpenerako behar zen baimena lortzea (ALV 1982: 32). Izan ere, N. Oleaga idazkariak urriaren 15ean idatzi zion B. Bureba Prensa y Propaganda-ren Bizkaiko delegatuari Euskaltzaindiaren agerkaria argitaratzeko baimen eskaera formala, baina artean ez zegoen erantzunik. Aldizkariaren izaera apolitikoa nabarmendu zuen idazkariak, eta euskarazko testuen gai arantzatsuan, zentsurari erraztasunak emateko prest zeudela:

Que esta Academia, Corporación creada y sostenida por las Excmas. Diputaciones Provinciales de Vizcaya, Guipuzcoa y Navarra, y cuyo objeto es el estudio científico del vascuence, trata de publicar con el título de «Euskera» una modesta revista en que se insertan, a la par que sus acuerdos corporativos, los trabajos que en relación con sus fines científicos y culturales ofrezcan sus miembros de número y correspondientes, así como los colaboradores y cuantos se interesen por el estudio del milenarísimo idioma que desde hace ya muchos años lleva tras sí la atención y preocupación de los sabios más destacados en el campo filológico y lingüístico.

Al efecto solicita por mi mediación la necesaria autorización de V.S.

Como es obvio, tratándose de publicación de esta Academia y dada la materia sobre que

han de versar, muchos de los trabajos que habrán de publicarse en dicha revista irán redactados en vascuence, circunstancia que se hace notar por lo que afecta a la censura gubernativa a que hayan de someterse y que esta Academia ofrece facilitar en el más alto grado posible.¹⁴⁰⁵

N. Oleagak, halaber, jakinarazi zuen Bilboko egoitza konpontzeko lanen prestaketa JCVk abiatu berri zuela. L. Michelenak, bestalde, bere lehen liburuaren ale bat eman zion Euskaltzaindiari: RSVAPek «Monografías vascongadas» bilduman argitaratutako *Apellidos vascos* (1953). Liburu hau mugarri izan zen euskal onomastika eta etimologia modu zientifiko batean aztertzeko eredu gisa. Berehalako oihartzuna izan zuen eta 1955ean bertan agertuko zen 2. edizioa.¹⁴⁰⁶ R. Lafonek, esaterako, iruzkin positibo bat egin zion *Bulletín de la Société de Linguistique de Parisek* eskaintzen zuen nazioarteko erakustokian (Lafon 1953b). M. Agud Donostiako Peñaflorida irakaskuntza ertaineko institutuko irakasleak ere, L. Michelenaren gaitasuna goratu zuen *BRSVAPen* idatzitako iruzkinean. Jeltzalearen aurrekari politikoak baztertu eta hari SFVJUUn toki bat egiteko eskari ofiziosotzat ere har zitekeen: «Hombre de un rigor en la investigación, de una probidad y de una prudencia poco común en estas cuestiones, ha sabido, si no presentar la obra definitiva (como él mismo dice), sí establecer un punto de arranque serio y en su mayor parte incommovible en tan resbaladizo terreno» (Agud 1953: 279).

Hain zuzen, *Euskerak* izoztuta jarraitzen zuen bitartean, *BRSVAP* zen euskaltzainen lan gehienak argitaratzen zuen aldizkaria. Adibidez, L. Villasantek urriko batzarrean J. Etcheberriz emandako hitzaldiaren separataren ale bat eman zion ALVri. 1953an hurrengo euskaltzain eta urgazleek argitaratu zituzten artikulua, iruzkin edota berri laburrak *BRSVAPen*: I. M. Echaide, B. Echegaray, J. Gorostiaga, A. Irigaray, R. Lafon, M. Lecuona, L. Michelena, L. Villasante, K. Bouda, A. M. Labayen, A. Tovar, J. Vallejo eta P. Zabala. L. Michelenak bereziki, A. Oihenartez egindako hitzaldia argitaratzeaz gain, liburu iruzkinen bidez, euskaltzainburuordeak taxuz bete ezin zezakeen J. Urquijoren zentsore lana egiten zuen.¹⁴⁰⁷ Euskaltzain berria *BRSVAPeko* erredakzioaz arduratzen zen, ia zuzendari lanak eginda. I. M. Echaidek, esaterako, artikulua jakinen separatak

¹⁴⁰⁵ ABA-EUS: N. Oleagaren eskaria B. Burebari, 1953-10-15.

¹⁴⁰⁶ RSVAPek «Monografías vascongadas» sailean argitaratuko zituen, besteak beste, A. Tovarren *La lengua vascaren* 2. edizioa (1954), J. Gorostiagaren *Antología de poesía popular vasca* (1955) eta aipatutako L. Michelenaren *Apellidos vascosen* 2. edizioa (1955).

¹⁴⁰⁷ Bere eskuetatik igaro ziren 1953an hurrengo egileen lanak: R. Lafon, K. Bouda, J. Errandonea, J. Hubschmid, J. Gorostiaga, V. Amézaga, J. M. Barandiaran eta J. Seguy (cf. Elósegui Irazusta 1970).

euskaltzain guztiei bidaltzeko eskatzen zion, bereziki erbestekoei, gehien eskertzen zutelakoan.¹⁴⁰⁸

1953ko azaroaren 27ko batzarrean, idazkariak azaldu zuen artean ez zuela B. Burebarekin biltzerik izan, eta ondorioz Prensa y Propaganda-ren Bizkaiko delegatuaren baimenik gabe jarraitzen zutela *Eusker*a berria argitaratzeko. Batzarrak berriz ere N. Oleagaren esku utzi zuen hori bideratzea. Baimenik lortu gabe, *Eusker*a zenbaki berriko aleak banatzen hasi ziren argialetxetik.¹⁴⁰⁹ A. Ibinagabetiak, adibidez, azaroan jaso zuen bere alea Parisko erbestean.¹⁴¹⁰ Hori oso arriskutsua zen. Euskaltzainburuordeak agerkaria 15 ptan saldu nahi zuen eta harremanetan zegoen Donostiako liburu dendekin gordailua eta propaganda bideratzeko.¹⁴¹¹ Tolosako Editorial Muguerza-k, 48 orrialdeko *Eusker*a agerkariaren 500 alegatik, 3.200 ptako faktura egin zion ALVri abenduaren 10ean.¹⁴¹²

Nire ustez arazo nagusiak bi ziren. Alde batetik, Espainiako Gobernuak BMGko aro falangistenean aldizkariak argitaratzeko ezarritako arauak oso zorrotzak ziren. 1936ko uztailaren 18aren aurretik argitaratzen ziren aldizkariak oso argi azaldu behar zuten noiz eta zergatik utzi zioten argitaratzeari, agerkariaren helburua eta arduradun nahiz lankide guztien datu pertsonalak, besteak beste.¹⁴¹³ Euskaltzaindia, izaera legal ziurrik gabe, ez zegoen baldintza horiek betetzeko egoeran. Bestetik, zenbaki berriko euskarazko testuak oso delikatuak ziren, Prensa y Propaganda-ren Bizkaiko delegazioan ez zegoelako euskarazko irakurlerik.¹⁴¹⁴

Une horretan leher egin zuen egitasmoak. Euskaltzainburuordeak baimenaren eskaera idazkariaren esku utzi nahi arren, A. Irigaray urduriak, Bizkaiko gestioak aurrera egiten ez zuelako, bere aldetik A. Tovarri ale bat bidali zion Salamancara, «Manuel de Larramendi» katedrako argitalpen gisa ateratzeko bidea azter zezan. A. Tovarrek auziaz galdetu zuen Prensa y Propaganda-ren Salamancako delegazioan. Ordezkaritza horrek berehala jo zuen Gipuzkoara gestioen berri ematera eta agerkariaren aleak banatzen ari zirela jakinarazteko.

¹⁴⁰⁸ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1953-11-10.

¹⁴⁰⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

¹⁴¹⁰ ABA-EUS: A. Ibinagabetiaren gutuna L. Villasanteri, 1953-11-21.

¹⁴¹¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari eta A. Irigarayri, 1953-12-10.

¹⁴¹² ABA-EUS: Editorial Muguerza-ren faktura Euskaltzaindiari, 1953-12-10.

¹⁴¹³ «Vicesecretaría de Educación Popular (Sección del Papel y Revistas).- Dictando normas relacionadas con la publicación de Revistas». In: *BOE*, 1942-03-04.

¹⁴¹⁴ Dena dela, Gipuzkoan zailtasunak handiak ziren ere bai, J. Echaideren *Purra! Purra!* liburuaren argitalpena 1953 arte eten egin zuten egilearen aurrekari politikoengatik (Torrealdai 1999: 15, 23).

Prensa y Propaganda-ren Gipuzkoako delegatuak (Felipe Ugarte) A. Irigarayri telefonoz deitu zion. Euskaltzainak ukatu egin zuen aleak banatzen ari zirenik eta adierazi zion baimena Bizkaiko delegazioan eskatu zutela. Biharamunean Gipuzkoako Gobernu Zibiletik deitu zieten telefonoz I. M. Echaide-N. Oleagari. Madrilen galdetzen ari ziren ea zein inprentak izan zuen argitaratzearen ardura, aldizkarian ez zelako ageri. Euskaltzainburuordeak babestu nahi izan zituen Tolosako muguerzatar tradizionalistak, baina azkenean haien izena eman behar izan zuen, arazoa ez gaiztotzeko. Edizioa bahitu eta isuna jasotzeko arriskua handia zen. Bitartean, I. M. Echaide J. Elorzarekin egon zen hizketan, N. Oleagaren ildoko karlista-jaimista. Dena dela, euskaltzainburuordeak ALVren kanpo jardura eten egin nahi zuen, istiluak zer bide hartzen zuen ikusi arte.¹⁴¹⁵

Bestalde, A. Irigarayren 1953ko abenduaren 22ko gutunari erantzuteko, A. Tovarrek abenduaren 28an idatzi zion. Salamancako errektoreak zuzenean hitz egin zuen Informazio eta Turismoko ministroarekin. G. Arias Salgado gomendatu zion argitaratzeko baimen eskaera Salamancako Unibertsitatearen bidez egitea. A. Tovar prest agertzen zen Euskaltzaindiari laguntzeko, baina bide hori hartzea Euskaltzaindiaren izaera autonomoari uko egitea zitekeen.¹⁴¹⁶ Errektorea, ustez, ministerioko goi kargu falangisten adiskidea zen: G. Arias Salgado ministroa bera eta Juan Aparicio Prensa-ko zuzendari nagusia.¹⁴¹⁷ Baina ministerio hori falangismoaren menpe zegoen; ALVren agerkari ofiziala argitaratzeak propagandista katolikoen laguntza beharko zuen. Areago, Informazio eta Turismoko ministerioaren Gipuzkoako delegazioak Donostian zegoen edizio osoa bahitu zuen 1954ko urtarrilean.¹⁴¹⁸ EAJ-PNVren buletina euskararen aurkako neurria salatzeaz arduratuko zen (*Alderdi* 1954-03). S. Michelena (OFM) urgazleak Prensa y Propaganda-ren Gipuzkoako delegazio horretan gestioak egin zituen, baina alferrik, F. Ugartek eragozpenak jartzen baitzizkion are J. Arteche GPDko liburuzainari ere.¹⁴¹⁹

Azkenean, bi irtenbide eman zizkioten arazoari. Alde batetik, *Euskera* liburu gisa argitaratzeko baimena eskatu zuten, aldizkari gisa baino errazago izango zelakoan. Bestetik, Bizkai-Gipuzkoa arteko eskumen gatazkaren arriskua saihestu, eta zuzenean Madrilerara jo zuten. José M^a Lojendio euskaltzain berriak laguntza eskatu zion Luis M^a

¹⁴¹⁵ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-18.

¹⁴¹⁶ ABA-EUS: A. Tovarren gutuna A. Irigarayri, 1953-12-28.

¹⁴¹⁷ ABA-EUS: A. Tovarren gutuna I. M. Echaideri, 1954-01-28.

¹⁴¹⁸ ABA-EUS: F. Ugarteren ofizioa I. M. Echaideri, 1954-01-13.

¹⁴¹⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna S. Michelena, 1954-02-09.

Lojendio bere anaiari, Madrilen Oficina de Información Diplomática-ko buru teknikoa zena. Bulego hori A. Martín Artajo Kanpo Arazoetako ministroak sortu zuen BMG amaitu ondoren, diktadura frankista nazioartean legitimatzeko saioen artean. Espainia erregimen katoliko, antikomunista, baina ez-totalitarioa zela frogatu nahi zuen sektore horri laguntza eskatzen ari zen Euskaltzaindia, falangismoaren intolerantzia nazionalistari ihes egitearren (cf. Fernández Fernández-Cuesta 2016).

L. M. Lojendiok *Eusker*a agerkariaren zentsura espedientea arintzea eskatu zion F. Pérez Embid Propaganda-ko zuzendari nagusiari 1954ko azaroaren 30ean.¹⁴²⁰ Florentino Pérez Embid diktadurako katolikoen gizona zen Informazio eta Turismoko ministerioan. Hura bezalako Opus Dei-ko monarkiko intelektualak, falangista monolitikoki antiseparatistak baino irekiago zeuden katolizismoak ezaugarritutako Espainiako pluraltasun kulturala onartzera (Díaz Hernández 2008). Horrela, Bizkaiko delegaziotik bidalitako *Eusker*a liburuxka abenduaren 2an iritsi zen Madrilgo zentsurara, eta F. Pérez Embiden aginduari jarraituta, baiezkoa eman zitzaion espedienteari.¹⁴²¹ Inprimatu eta urtebetera, 1954ko azaroaren 22an Euskaltzaindiak egindako eskaerari erantzunda, argitaratzeko baimena lortu zen abenduaren 3an, baina jakinarazpen ofiziala ez zen 1955eko martxora arte eskuratuko.¹⁴²² 1956tik aurrera *Eusker*a berriz argitaratzen hasiko zen normaltasunez, aldizkariaren zinezko bigarren aroari ekinda, besteak beste, 1941-1948 arteko euskarazko batzar agirien argitalpenarekin (ALV 1956).

Literatur sariak, lexikografia eta klasikoak

1953ko irailaren 25ean hamar euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Dassance, P. Lafitte, L. Villasante, J. Moulier, N. Oleaga eta A. M. Labayen. Frantziako euskaltzainak azkenean etorri ziren, eta A. Irigarayk egin zion ongi etorri J. Moulier «Oxobi» euskaltzain berriari (ALV 1982: 30). Hizpide izan zituzten BPDak R. M. Azkue zenaren testamentuaz agertutako poza eta JCVk J. Gorostiaga bibliotekaria ALVren egoitzan egunero lan egin zezan hartutako erabakia. Batzarrak aho batez onartu zituen JCVren baldintzak eta eskerrak ematea

¹⁴²⁰ ABA-EUS: F. Pérez Embiden gutuna L. M. Lojendiori, 1954-11-30, eta J. M. Lojendioren txartela A. Irigarayri, 1954-12-02.

¹⁴²¹ ABA-EUS: F. Pérez Embiden gutuna L. M. Lojendiori, 1954-12-03, eta J. M. Lojendioren txartela A. Irigarayri, 1954-12-11. Gorabehera guzti hauek disimulatzeko, 1953ko *Eusker*a agerkariaren zenbait alek eranskailu bat dute azalean, «1954ko urria» datarekin.

¹⁴²² ABA-EUS: B. Burebaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1955-03-04.

erabaki zuten. Bide batez, J. Gorostiagak jakinarazi zuen hasia zela egoitzako liburu eta agirien zerrenda prestatzen.¹⁴²³

A. Irigarayk, orobat, euskal literatura eta lexikografia sustatzeko lehiaketa bat antolatzea proposatu zuen. Batzarrak ontzat eman eta baldintzak zehaztea eskatu zion. Dena dela, agirian ez islatu arren, euskaltzain izengabe batek gogor egin omen zuen Nafarroako medikuaren proposamenen aurka.¹⁴²⁴ Izan ere, Euskaltzaindiak ia isilpeko jarduera izan arren, zenbait euskaltzainek berebizikotzat jotzen zituzten eztabaidatutako gaiak, euskaltzainburuordeak berak adieraziko zuenez:

La experiencia de los años que llevo presidiendo las reuniones de la Academia, me ha enseñado que cuestiones, aun nimias, se discuten en su seno con un fuego que no recuerdo haber visto, en mis casi 70 años de vida, sino en asociaciones juveniles, perdiéndose un tiempo precioso y sin llegar a un acuerdo muchas veces.¹⁴²⁵

Sariketak hartuko zuen bidea ikusita, uste dut, alde batetik, A. Irigarayk aspalditik bultzatu nahi zuen erdara-euskara hiztegia arbuiatu zela. A. Ibinagabeitiari azaldu zionez, prosazko antologiak, ipuin bildumaz edota polizia nobelaz beste, Espainia-Frantziarako 200 orrialdeko hiztegi bateratua osatu nahi zuen.¹⁴²⁶ Seguru asko Bilboko idazkaria, 1941etik euskaltzainburuarekin lexikografian aritutakoa, izan zen Nafarroako medikuari eragozpenak jarri zizkiona. Izan ere, N. Oleagak, adierazi zuen R. M. Azkuek bere hiztegiari egindako gehigarriak eta *Latsibi* eleberria argitaratu beharko lituzketela, azken hori *Euskera* agerkarian zatika. Batzarrak idazkariaren proposamena ere ontzat eman zuen.¹⁴²⁷ Kontuan hartu behar da N. Oleaga erabateko purista zela, eta ez zituela inolaz ere Aro Modernoko idazleak eredugarritzat jotzen (cf. Villasante 1967: 29).

J. Elissaldek iraileko batzarra baliatu zuen M. Labeguerie urgazlerako

¹⁴²³ Irailaren 28an JCVko hurrengo kideak batzartu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echeagaray, J. B. Merino, C. Lasterra, A. Bilbao, J. M. Urrutia, E. Calle. Euskaltzaindiak proposamena onartu zuela jakinarazi zuten: «Se dio cuenta [...] de la comunicación recibida de la Academia de la Lengua Vasca, sobre la toma de posesión del Sr. Gorostiaga». BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-09-28, Junta de Cultura C-62.

¹⁴²⁴ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1953-09-30.

¹⁴²⁵ ABA-EUS: I. M. Echaidek euskaltzainei zuzendutako «Acerca de la reforma de los reglamentos» txostena, 1954-01-07.

¹⁴²⁶ ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-10-01. A. Ibinagabeitiak, besteak beste, *Euskera irudi-bidez = Nuevo método de euskera básico* (1953) liburua argitaratu berri zuen.

¹⁴²⁷ R. M. Azkue *Latsibi* 1935ean saiatu zen argitaratzen, baina Gasteizko apezpikuak geroratu egin zuen, eleberrian hauteskundeak aipatzen zirelako, EBeko tentsio politikoen ondorioz desegokitzat jo zena (Kintana 2015: 394). Euskaltzaindia-Labayru Ikastegiak ez zuten 1989 arte argitaratuko.

proposatzeko eta hala onartu zuen batzarrak (ALV 1982: 30-31).¹⁴²⁸ A. Ibinagabeitiak, mediku gaztearen izendapenaren berri jakin zuenean, argi antzeman zion J. Mirandek meritu gehiago izan arren, Baionako elizbarrutiko euskaltzainen beto ideologikoa zuela.¹⁴²⁹ A. M. Labayenek agindu zion hurrengo batzarrean bera eta J. Mirande proposatuko zituztela urgazlerako, baina ez da horren frogarik.¹⁴³⁰

Ikusi dugunez, A. Irigaray tematuta zegoen Euskaltzaindiak hiztegi modernoa burutzearekin: lexiko urbanoa, geografia-historia termino nagusiak eta euskal onomastika (santu izendegi jeltzalea barne). Frantziako kideekin eta jeltzaleekin koordinatu nahi zuen lana eta ordura arteko konpartimentazioa gainditu. Ortografia bateratua zehazteko asmoarekin, N. Oleaga idazkariari galdetu zioten Euskaltzaindiak erabakirik hartu ote zuen ingelesezko «sh» soinua irudikatzeko grafiaz.¹⁴³¹ Nafarroako medikua, 1953ko udan, A. M. Labayen-A. Ibinagabeitia-J. Miranderekin bildu zen Frantzian, hiztegiaren egitasmoaz hitz egiteko.¹⁴³² P. Charriton urgazlea, bestalde, Parisen zegoen filosofia ikasketak burutzen, eta handik euskal idazleen antologia bat prestatu nahian zebilen, A. Irigarayk bultzatzen zuen ortografia bateratuaren bidetik.¹⁴³³

P. Lafittek, halaber, Donostiara egindako bidaian dozena erdi euskal liburu berri erosi zituen, euskal argitalpenek bizi zuten loralditxoaren erakusgarri. Izan ere, berak zuzentzen zuen Baionako astekariak eman zuen iraileko batzarraren berri, zenbait xehetasun gehituta: «Eskuararen batasunari erabili dute elhe, baina ez dute orainokoan erabaki nola hel chede hortarat. Bilhatzea ere bada zerbait» (*Herria* 1953-10-01).

L. Villasantek frantziskotarren euskal aldizkari baterako Euskaltzaindiaren laguntza eskatu zuen batzarrean.¹⁴³⁴ Seguru asko I. Berriatuak 1953ko ekainetik zuzentzen zuen *Anaitasuna* bizkaierazko gehigarriaz ari zen. Bizkaiko frantziskotarra

¹⁴²⁸ Garaiko giro nahasiaren eta ALVren ziurgabetasunaren erakusgarri, M. Labeguerie berriz izendatuko zuten urgazle 1960ko urtarrilean (ALV 1982: 91).

¹⁴²⁹ ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna A. M. Labayeni, 1953-10-06. Gutun hori argitaragabea da, cf. Ibiñagabeitia 2000.

¹⁴³⁰ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-10-21.

¹⁴³¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17. 1920an araututako ortografian S. Aranek ezarritako «x» letra onartu zen soinu horretarako, baina Frantziako euskal literaturan «x» letrak S. Aranaren «ts» digrafoa irudikatzen zuen.

¹⁴³² ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-08-23 (cf. Ibiñagabeitia 2000: 141).

¹⁴³³ ABA-EUS: P. Charritonon gutuna L. Villasanteri, 1953-12-20. A. M. Labayen, Bergarako J. Oregui eta L. Villasanteren esku utzi nahi zituen Espainiako euskal antzerki, poesia eta prosa atalak, hurrenez hurren. Bera Frantziako euskal poesia garaikideaz arduratuko zen: J. Moulrier-J. Diharce- J. Mirande. J. M. Barandiarani ere eskatu zion ahozko literaturaz arduratzea eskola liburu baterako (Barandiaran 2009: 828).

¹⁴³⁴ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-10-11.

ALVren lexikografiarako begiz jotako lankideetako bat zen. Asmoak asmo, L. Michelenaren epaia negatiboa izango zen I. Berriatuaren irizpideekiko:

Eztabil guk uste genduen bidetik, zaarretik alegia, ezta gutxiagorik ere: berria dugu, berririk baldinbada. Ene iritzirako berriegia ere bai. Agertu zizkigun oiñarriak jatorrak dira geienbat, derizkiodanez, baiña populistegia, Krutwig'en itza erabili bear emen, arkitzen dut. Gauzak bere neurria bear dute beti eta erabateko jokabide extremistak ez dira beti onenak izaten jendea nai dugun bidetik eramateko. Ta batez ere euskal-literaturari zor zaiona eztiola ematen iruditzen zait. Erdal-itzak ere, iruditu zitzaidanez, gazteleratik artu nai ditu geienetan, gorago jo gabe eta beste aldekoak bertan beera utzirik, eta ortan enator bat berarekin.¹⁴³⁵

1953ko azaroaren 27an hamar euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, P. Lafitte, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, J. Moulrier eta N. Oleaga. A. Irigarayk agindutako literatur lehiaketaren programa aurkeztu zuen. Hiru sari ezberdin egongo ziren: polizia eleberrirako, ipuin bildumarako eta 1850 arteko euskaldun ospetsuen biografia bildumarako. Sarien kopuruek, ikusiko dugunez, Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko berria islatzen zuten. Idazlan guztiak euskaraz egon behar zuten eta Euskaltzaindiaren esku zegoen sariak banatu ala ez, idazlanen kalitatearen arabera. Nolanahi den, idazlan sarituen eskubideak ALVrentzat izango ziren. N. Oleagak hirugarren sariko gaia euskal idazleetara mugatu nahi izan zuen, baina batzarrak atzera bota zuen proposamena, J. Elissalderen abstentzioarekin (ALV 1982: 33-34).

Lehiaketarako iragarki bat prestatu zuten Donostiako euskaltzainek, Bilboko egunkarietan ere ager zedin. Euskaltzaindiaren izaera juridikoak kolokan jarraitzen zenez, idazlanak RSVAPen San Telmo Museoko egoitzara bidaltzeko eskatzea adostu zuten F. Arocenarekin, GPDaren izena erabiltzeko baimen ofizialik ez zutelako:

- Novela policiaca o de aventuras, original o versión preferida, tema no vasco. Alrededor 300 cuartillas, máquina, doble paso, una cara, en euskera. Primer premio 1.000 pts., segundo 750, tercero 500. Plazo, 6 meses fecha este anuncio.
- Colección de 50 a 100 cuentos en euskera tomados de Folklore o autores vascos, adoptados [sic] lenguaje popular infantil. Pueden ir acompañados de dibujos aptos reproducción. Primer premio texto 1.000 pts., segundo 500. Dibujos (si se

¹⁴³⁵ ABA-EUS: L. Michelenaren gutuna L. Villasanteri, 1954-11-06.

aceptan) 1er. premio 500 pts.; segundo 250 pts. Plazo, 6 meses fecha este anuncio.

- Galería euskaldunes ilustres, incluidos propulsores lengua vasca, prefiriéndose los poco conocidos. 500 a 600 cuartillas, una cara, máquina, doble paso, en euskera. Preferible orden alfabético y acompañar estampa personaje. Primer premio 3.000 pts.; segundo 2.000 pts. Plazo, un año fecha este anuncio.¹⁴³⁶

Euskaltzaindiaren gorabeherak zirela-eta, iragarki hori ez zen 1954ko otsailera arte argitaratuko Espainia-Frantziako prentsan.¹⁴³⁷ L. Villasantek ere lehiaketaren propaganda egin bide zuen, frantziskotar ugari agertuko baitziren sarituen artean, ordenak Euskaltzaindiarekin zuen harreman indarberrituaren erakusgarri. Irabazleak 1954-1955ko batzarretan iragarri zituzten, eta urteak igaro ahala argitaratuko ziren idazlanak. Eleberrien atalean, J. Echaideren *Joanak-joan*, H. Wast-en *Bide izkutua* (S. Berasaluzek (OFM) itzulia) eta G. Simenon-en *Aspaldiko Maigret* (E. Erquiagak itzulia) saritu zituzten. Ipuinen sailean, F. Bilbaoren (OFM) *Ipuin-barreka* edota J. Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* bilakatuko ziren bildumak saritu zituzten. Hirugarren sailean, J. Echaideren *Amasei seme Euskalferri'ko* eta V. Iñurriteguiren (OFM) beste idazlan bat saritu zituzten (ALV 1982: 44, 47, 57).

Lexikografia, beraz, lehiaketatik kanpo geratu zen. P. Múgicak (SI) 1953ko martxoan adierazitakoaren arabera, ALVk gaztelania-hiztegiarekin jarraitzeko asmoa zuen, eta frantziskotarrak eskuizkribuak mekanografiatzen ari ziren.¹⁴³⁸ Urtea amaitu baino lehenago, R. M. Azkuek zuzendutako gaztelania-euskara hiztegiko «a» letraren corpora aztertzen aritu zen I. M. Echaide, eta zailtasunak ikusten zituen hura argitaratzeko. Fitxa mekanografiatuak barik, eskuzko zerrendak izateak asko zailtzen zuen zuzenketa lana eta akatsik gabeko inprimaketa burutzea.¹⁴³⁹ 1954ko hasieran A. Irigaray-L. Michelenak aztertu zuten «a» letraren corpus hori.¹⁴⁴⁰ SFVJUko arduradun filologikoak berariazko txosten bat aurkeztu zuen 1954ko maiatzeko batzarrean (ALV 1982: 37).

Nabarmena da ez ziola etorkizun handirik ikusten egitasmoari, landutako

¹⁴³⁶ ABA-EUS: I. M. Echaidek N. Oleagari bidalitako iragarkia, 1953-12-10.

¹⁴³⁷ *El Diario Vasco* 1954-02-10; *La Gaceta del Norte* 1954-02-10; *Hierro* 1954-02-10; *CE-PV* 1954-02-11; *Herria* 1954-02-25; *Alderdi* 1954-02.

¹⁴³⁸ ABA-EUS: P. Múgicaren gutuna G. Maidagani, 1953-03-14. Era berean, Loiolako santutegiko irakasleak ukatu egin behar izan zuen bere hiztegi handia amaitzear zegoenik, zurrumurruek kontrakoak adierazi arren (KMK-KM: P. Múgicaren gutuna L. Michelenari, 1953-11-17).

¹⁴³⁹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

¹⁴⁴⁰ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari eta A. Irigarayri, 1954-03-05.

corpusak ez zirelako egokiak. Besteak beste, egileen purismoak eta dialektoei emandako garrantziak eragotzi egiten zuten hiztegi moderno bat arrazoizko denboran egitea. Nahiago zukeen P. Múgicaren esku utzi ALVko corpusak, eta jesuitaren azken emaitzaren arabera, Euskaltzaindiaren babesa eman, baina hiztegi normatibo bihurtu gabe. Uste zuen Euskaltzaindiak EBEn hiztegia argitaratzea lortu izan balu arrakasta izan zukeela, baina diktadura frankistak baldintzatuko ziurgabetasun juridikoarekin eta abertzaleek erbestean egin zezaketen aurkako kanpainaren arriskuarekin, etsita agertzen zen txostenean.¹⁴⁴¹ Hasieran, euskaltzainburuordea lexikografiarako laguntzaile bila aritu zen, baina egitasmoak ez zuen aurrera egingo. Hiztegiaren tamainak, nazioarteko terminologiak, erdarazko maileguk edota neologismoek arazo gehiegi sortzen zituzten hiztegi normatibo bat sortzerakoan.¹⁴⁴²

Gainera, L. Michelenak txostenean onartu bezala, Frantzia ordurako aurreratu egin ziren A. Tournier-P. Lafitte bikotea, 550 orrialdeko *Lexique français-basque* (1954) delakoarekin, P. Lhanderen hiztegiaren bigarren zati antzekoa. Nafarroako medikuak txalotu egin zuen egileen irizpide orokorra, oso toki gutxi egin zitelako neologismoei eta ez zirelako Espainia-Ameriketakoak bezain puristak (Yrigaray 1954b).¹⁴⁴³ Urte horretan *Euzko-Gogoan* argitaratu zen, orobat, L. Aquesolok 1952ko otsailean ezizenarekin idatzitako artikulua.¹⁴⁴⁴ Euskaltzaindiaren orde, RSVAPen esku uzten zuen lexikografiaren ardura:

Egia erran, holako lan bat Azkue zenak egin zuena dugu, nehoiz aski ederrets ezineko lana, batez ere batek egina delarik. Bainan Larramendiren lana bezalaxe, Azkuen lana ere ezta xitu ezina. Azkuen hiztegia ere berrhetu eta hobetu daiteke. Iaun berorrek hor utzi du berak erabiltzen zuen hiztegi-alea (exemplarea) berak eskuz gehitutako hitzez beltz egina. Ale horrek borts mila hitzen heina ba du, Azkuek bere eskuz ezarririk. Bertze norbaitzuek euskarazko erranera-hiztegia oso aitzina daramatela ba dakigu. Lanik erdia eginda dago. Euskalherriaren Adiskideek beren xedeak erakhutsi zituztenik huna euskararen aldeko lanek bide handiak egin dituzte, batez ere Azkue iaunari esker. Bainan oraindik

¹⁴⁴¹ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri eta berak gaztelaniara itzultitako L. Michelenaren «El diccionario de la Academia» txostena, 1954-06-14.

¹⁴⁴² ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak P. Múgicari eta I. Berriatuari, 1954-03-05. L. Michelenaren lanean oinarrituta, 1959ko apirilean euskal hitzak zein ziren jakiteko irizpide garrantzitsua onartuko zuen Euskaltzaindiaren batzarrak. Gehiegizko purismoa baztertuz, tradizio historiko indartsuarekin eten egin zuten, inpaktu handia izango zuen erabakia (ALV 1982: 75-76).

¹⁴⁴³ Bizkai-Gipuzkoako frantziskotar eskoletan berehala zabaldu zen hiztegia (ABA-LAF: L. Villasanteren gutunak P. Lafitteri, 1953-09-29, 1953-11-05 & 1953-11-16).

¹⁴⁴⁴ A. Ibinagabeitiak 1952ko abenduan bidali zion artikulua Paristik J. Zaiteguiri, F. Krutwigi zor zaizkion lapurtera klasikoazko ortografia eta aditz moldaketekin (Iztueta & Iztueta 2006: 346).

euskaldunek beren bizkuntzari zor deraukoten orhoitgailua egiteko dago. Nork hartuko othe du Azkuen lanak aitzina eramaiteko ardura?

Huna nire hitza. Larramendiren hurrena, Euskalherriaren Adiskideak agertu ziren haren lana hamaitu eta hobetu beharrez. Azkue itzali denean. Izen berekoak eta asmo berekoak ez? Hor dute lehenagokoen lana bere gai hartuko? Heiek agindua ez othe deraukote hauiek Euskalherriari emanen? (Akesolo 1954: 153).¹⁴⁴⁵

Bartzelonan P. Fabraren *Diccionari general de la llengua catalanaren* 2. edizioa (1954) argitaratzen zuten bitartean, L. Michelenak baztertu egin zuen artean forma estandarrik ez zuen euskararen lexikografia normatiboa. R. M. Azkueren *DVEF*en azterketa kritikoa oinarrituta, literatur euskararen hiztegi historiko deskriptiboaren bidetik joko zuen. Finantziazioa ere arazo zen, eta horretarako erbestearekin harremanetan zeuden. J. Bilbaori honela azaldu zion bere egitasmoa 1955eko amaieran:

No sé qué decirte sobre el Azkue. La idea de estudiar los dos presupuestos, para ver si económicamente vale la pena de hacer lo uno o lo otro, me parece muy bien. Ahora que una revisión del Azkue me parece tarea de gigantes. Creo que yo mismo, a base exclusivamente de Landuchio, textos vizcaínos antiguos, Dechepare, Leicarraga [sic], Oihenart y Tartas podría hacer cómodamente 2.000 papeletas ampliando y sobre [todo?] modificando artículos de Azkue. Me olvidaba además del diccionario de S. Pouvreau. Con material dialectal moderno podría añadir tranquilamente otras 1.000 adiciones o modificaciones. Una persona que estudiara Larramendi, Ubillos y otros autores guipuzcoanos podría añadir también una buena porción. Y eso sin contar las adiciones de Garate que son muy pocas y en general mal oídas o mal explicadas. Estoy convencido de que casi se podría, incluyendo las notas posteriores del mismo Azkue, duplicar el volumen de su diccionario. De todas maneras, cabe pensar si aunque la revisión estuviera lejos de ser perfecta, no valdría la pena de hacerla.¹⁴⁴⁶

Argitalpenen arloan, Euskaltzaindiaren berehalako lorpen handiena M. Lecuonak ortotipografia berrituarekin prestatutako P. Axularren *Gueroren* edizioa (1954) izan zen. Zarauzko Itxaropenak argitaratu zuen, J. L. Ansorena eliz zentsorearen eta J. C. Sudupe Donostiako bikario jeneralaren baimenarekin. *Eusker*a agerkaria argitaratzeko izandako

¹⁴⁴⁵ R. M. Azkueren eskuzko eranskinaren 30 sarrerako lagin xumea («a-abantzu» artekoa) Euskaltzaindiaren agerkarian argitaratu zen; R. Lafonek egindako zenbait hiztegi oharrekin batera, baina ez zuten jarraipenik izan (Irigoyen 1956; Lafon 1956). Ondoren, Euskaltzaindiari aurre hartuta, J. M. Retanak berrargitaratuko zuen *DVEF*, R. M. Azkue bizi zela L. Aquesolok kopiatutako eranskinarekin. Horrek tirabira gogorrak eragin zituen, ALVren izaera juridikoa auzitan baitzegoen (Azkue 1969; KMK: L. Aquesoloren gutuna J. L. Lizundiari, 1970-05-21).

¹⁴⁴⁶ KMK-KM: L. Michelenaren gutuna J. Bilbaori, 1955-10-13.

arazoen ondoren, J. Font apezpikuarengana jo zuten, zentsura erlijiosoa eskuzabalagoa izango zelakoan. Izan ere, eduki aldetik, Kontrarreformako aszetika liburuak ez zuen eragozpen berezirik sortu, euskaltzainburuorde integristaren erreguan ageri denez:

Por lo cual a V. E. I. muy encarecidamente suplica se digne conceder la aprobación canónica necesaria para que pueda aparecer esta nueva edición de una obra escrita con la finalidad de conseguir una reforma cristiana de las costumbres de sus lectores, para la cual sigue conservando su eficacia aun en nuestros días.¹⁴⁴⁷

Baina ez zen eduki hutsa epaitzen zena, egilearen izenak eta erabilitako hizkuntzak ere pisu handia zuten, noski. Guatemalako J. Zaiteguik 1953tik prest zuen *Bidalien egiñak* liburua, Itun Berriaren exegesia, R. Olabideren ildoko hizkera puristan idatzia. Gipuzkoan argitaratu nahi zuten, baina Donostiako elizbarrutiak eragozpenak jarri zizkion A. M. Labayen jeltzalearen bidez egindako eskariari, eta 1955 arte atzeratu zen Itxaropenako argitalpena.¹⁴⁴⁸ Koska hori berdinduta, arazo gutxiago izan zituen N. Ormaechearen *Aitorkizunak* itzulpenak 1956ko apirilean J. L. Ansorena-J. C. Sudupek sinatutako elizbarrutiaren baimena lortzeko (Ruiz Arzalluz 2003: 51-53).

M. Lecuonaren hitzaurreaz gain, A. Irigarayk aurkibide onomastikoa eta L. Michelenak hiztegi laburra erantsi zioten P. Axularren *Guerori*. Dena dela, M. Lecuonak ezin izan zion eutsi zenbait egokitzapen lexiko-sintaktiko, ahozko gipuzkeraren bidetik, egitearen tentazioari. Artean S. Altuberen teoriak kanokikotzat jotzen ziren. Are L. Villasante klasizistak *Gueroren* sintaxia zuzentzea beharrezko ikusten zuen. Artean ez zen onartzen ahozko euskarak bere legeak zituela, hein batean S. Altuberen *Erderismosen* (1930) jasotakoak, baina idatzizko euskara, nahitaez zela «artifiziala», Europako tradizio kultuan txertatua (cf. Michelena 2011d: 263-265).

Nolanahi den, edizio horrek eragin handiko literatur eredu bat hedatzen lagunduko zuen. M. Lecuonak bere hitzaurrean adierazi zuen argitalpenak euskararen batasuna helburu zuela: «Nola? *Gero*'ren argitaratze berri au, guztiontzako era errezean, Euskaltzaindiaren idazkeran eta ortographian antolatuz» (Axular 1954: XXX-XXXI). Aurreko mendean egindako 3. edizioaz geroztik, J. Urquijok *RIE* Ven faksimilea eman zuen zatika, baina EGZak eten egin zuen argitalpen hori. Besteak beste, A. Irigarayk

¹⁴⁴⁷ KMK-EUS: I. M. Echaideren ofizioa J. Fonti, 1954-05-19.

¹⁴⁴⁸ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-06-08.

Gueroren edizio berriaren ale bat eraman zion J. M. Caballero GPDko presidenteari SFVJUren aholku batzordea lehen aldiz batzartu zenean.¹⁴⁴⁹

12.7 Salamancako «Manuel de Larramendi» katedraren

inaugurazioa

N. Oleaga idazkaria JCVko ordezkari izendatzearekin eta bereziki J. Gorostiaga bibliotekaria Ribera kaleko egoitzaren soldatapeko arduradun izendatzearekin, ALV-BPD arteko harremana asko baretu zen. JCVk eskatuta, J. Gorostiaga Salamancako Unibertsitateko «Manuel de Larramendi» katedraren inaugurazio ofizialean egon zen azaroan, JCVko ordezkari gisa. Filosofia eta Letretako fakultatearen areto nagusian egindako ekitaldian A. Tovarrek, besteak beste, JCVren zorion telegrama irakurri zuen.¹⁴⁵⁰ J. M. Barandiaranek 1952ko abuztuan jaso zuen A. Tovarrengandik katedra inauguratzeko gonbita, baina 1953ko urtarrilean prostata arazo larriak izan zituen, bi ebakuntza egin zizkieten, eta ondorioz azeratu egin behar izan zuten ekitaldia.¹⁴⁵¹ M. Grande institutu katedradunaren bidez, Bilboko prentsak inaugurazio ekitaldiaren programa aurkeztu zuen:

1. Estado actual de los estudios vascos
2. La población vasca (Antropología)
3. Modos de vida tradicionales: agricultura, pesca, etc.
4. Modos de vida tradicionales: pastoreo y transhumancia.
5. Ergología (proceso y difusión de los distintos elementos técnicos)
6. Instituciones (en particular la casa y familia)
7. Religión y mitología
8. Persistencias culturales en el área vasca y vascoide
9. Antecedentes de la vida tradicional vasca
10. Plan de futuras investigaciones¹⁴⁵²

¹⁴⁴⁹ KMK: SFVJUko aholku batzordearen batzar agiria, 1954-10-14.

¹⁴⁵⁰ A. Tovarren gonbidapenaren berri 1953ko urtarrileko batzarrean bildutakoei eman zitzaizen: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao, C. Lasterra, J. M. Maiz, B. Bureba, Conde de Superunda eta E. Calle. BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-01-22, Junta de Cultura C-62.

¹⁴⁵¹ 1953ko udan, besteak beste, A. Irigarayekin bildu zen Saran, eta horrek bere ikerketa lanetan agertzen ziren ipuinak bilduma gisa argitaratzeko baimena eskatu zion, Euskaltzaindian prestatzen ari zen sariketaren bidetik (Barandiaran 2009: 829). Azkenean, A. Irigarayk *Euskalerriko ipuiñak = Cuentos populares vascos* (1957) bilduma argitaratuko zuen, Euskaltzaindiaren babesarekin.

¹⁴⁵² *La Gaceta del Norte* 1953-10-23; *Hierro* 1953-10-23. Ybarratarren *CE-PV*k, ordea, uko egin omen zion

J. M. Barandiarani dagokionez, kontuan hartu behar da egoera delikatuan zegoela. 23 urtez Gasteizko elizbarrutiaren seminarioko irakasle izan ondoren, 17 urte egin zituen Frantziako erbestean, Espainiako Eliza katolikoaren egituratik guztiz baztertuta. 1952ko otsailean RSVAP-Aranzadi elkartearen ordezkariak (J. Elósegui-M. Laborde-M. Ciriquiain) bisita egin zion, Gipuzkoara itzuli eta ikerketa prehistoriko-etnologikoekin jarrai zezan. Antza denez, Gipuzkoako agintariak ez zuten begi onez ikusten A. Tovarrek zabaltzen zion Salamancarako bidea (Manterola & Arregi 2003: 70; Barandiaran 2009: 805-806). Ikuskako arduradunak, EAJ-PNVren diru laguntza onartu arren, beti gorde zuen bere autonomia ideologikoa. Euskal Herriarekiko zuen ikuspegia, Gerra Hotzeko jeltzaleen etsipenarekin bat ez zetorrena, azaldu zien J. M. Lasarte-T. Hernandorena-G. Nardiz buruzagiei 1952ko urtarrilean egindako bileran:

Nik esan zoat, erri baten izatea lenaukoen erakaspenak eta oraingo lagun eta erbesteetatik datozen jokaerak egiten dutela. Orregaitik guk gure erriaren etorkizuna bear degula, al degun bezela, eraendu, lengoen gauza eta oitura onak ermotuak eta oraingoanek indartuaz. Ez ba degu gure asmoen arabera erriaren jokaera zuzentzen; gure lana ez da galdua izango: bere aztarnak erriaren etorkizuna, asko edo gutxi, moldeatua izanen da et[a] ez dituk galduak. -Ernandorena'k zioek Euskera galtzen ari dela eta laster ez dala inun izango, eta askoren asmoa (euskera jakinduri-gaietan euskera erabiltzea, alegia) alperrik dala eta prantzesa edo espainera edo erdera erabiltzea obe dela. Nik ere ezin uka euskera galtzen ari zaigula; bañan larrapide ori itzuli leikeala ere egia dek: bear bada, euskera arrunt galdu baño len, garai ori —itzulia artzeko egokitasuna— eldu lezakek. Euskaldunok euskerari eustea bidezko diagu eta bear ere. Bañan euskera galdu arren Euskalerrria Euskalerrri izango dek: erri baten neurria ez dek bere lurren zabalezagaz berdintzen: erriak bazetuk beste alde batera ere bere izate eta neurriak, lengo mende edo aroetaruntz alegia. Gure erria, lurrez eta mendez, beti berezia izango dek, agintzen duela Franco'k, edo agintzen duela Agirrek (Barandiaran 2009: 803).

Azkenean, J. M. Barandiaranek 1953ko urriaren 20an Espainiako muga zeharkatu, eta A. M. Labayenen Donostiako etxean hartu zuen ostatu. Azaroan eman zion hasiera euskal kulturazko ikastaroari Salamancan. Entzuleen artean I. Urquijo JCVko buruorde efektiboa ere egon zen. Indar sinboliko handia zuen euskal kulturaren patriarkaren erbestetiko itzulerak. Frankismo ofizialaren erakunde zientifiko batzuk bederen onartzen zuten norberaren kultura landu beharra zegoela: «nosce te ipsum», J. M. Barandiaranek

programaren berri emateari (ABA-ATO: M. Granderen gutuna J. Maluquerri, 1953-10-24).

latinez esango zukeenez. A. Tovarrek, bestalde, 1940ko hamarkadaren hasieran euskaltzainekin egindako ahaleginak, euskal ikasketak Espainian berriz erakundetzeko, nolabait burutzen zituen azkenean. J. M. Barandiaranek Buenos Airesko Ekinen argitaratu berri zuen *El hombre prehistórico en el País Vasco* (1953), EBEko lanen eguneratzea. Hain zuzen, R. M. Azkue-J. Urquijoren mailara irits zitekeen EGZaren aurreko belaunaldiko ordezkari bakarra zen. Erbeste-barnealdearen arteko tregoen erakusgarri, A. Tovarrek gutun luzea idatzi zion I. López Mendizábali Argentinara, Salamancako ekitaldia azaltzeko, eta *BIAEV*en argitaratu zuten (RSVAP 1953c; IAEV 1954; Barandiaran 2009: 811-835).

Azaroko inaugurazioan J. Maluquer historiaurre katedradunak Nafarroa-Aragoiko mugan egindako ikerketen berri eman zuen. Euskal Herriko arkeologiaz eztabaidatzen aritu ziren M. García Blanco, M. RUIPÉREZ, J. M. Barandiaran eta J. Gorostiaga bera.¹⁴⁵³ Bilbora itzuli ondoren, BPDko presidentek eskerrak eman zizkion euskaltzainari egindako lanagatik.¹⁴⁵⁴ JCVren abenduko batzarrean bildutakoei eman zitzairen gutziaren berri: F. Echegaray, J. B. Merino, J. M. Maiz, Conde de Superunda, H. Bilbao, J. Irigoyen, A. Bilbao eta E. Calle.¹⁴⁵⁵

«Diccionario etimológico vasco» egitasmoa

A. Tovar BMG ondoko urteetatik ari zen euskal hiztegi etimologikoaren egitasmoa bultzatu nahian, erbesteko I. López Mendizábal edota barnealdeko J. Urquijoren laguntzarekin.¹⁴⁵⁶ Donostiako 1950eko Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos-en berriz egin zuen horretarako deia, baina Salamancako Unibertsitateko «Manuel de Larramendi» katedra 1952an sortzearekin hartu zuen benetako indarra.

A. Tovar nazionalista lehiatsuak oso argi zuen Espainiak euskal ikasketetan ezin zuela Frantziaren edota Alemaniaren atzetik joan. Euskal gaiak lantzen zituzten, maila ezberdinetan, R. Lafonek Bordelen, K. Boudak Erlangen-en, W. Giesek Hanburgon edota A. Martinetek New York-en. Abertzaleen hizkuntzarekiko ikuspegi politikoari zientziarekin aurka egiteko nahi kontraesankorra ere nabarmena zen:

¹⁴⁵³ BFAH-EC/ABA-EUS: J. Gorostiagaren gutuna J. M. Ruiz Salasi, 1953-11-07, Junta de Cultura C-40 - 01-.

¹⁴⁵⁴ BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen gutuna J. Gorostigari, 1953-11-18, Junta de Cultura C-40 -01-.

¹⁴⁵⁵ BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya, 1941-1958», 1953-12-12, Junta de Cultura C-62.

¹⁴⁵⁶ KMK-JU: A. Tovarren gutunak J. Urquijori, 1947-11-14 & 1947-12-20.

De modo diverso, las generaciones vascas más recientes prefieren no asemejarse a nadie y mantener su lengua fuera de toda relación. Un mal entendido orgullo y un prejuicio casi podríamos decir racista, hace creer que el euskera, como todo lo vasco, ha caído maravillosamente del Cielo en un mundo que apenas merece tal favor, y por consiguiente, con nada terreno tiene conexión. Al viejo afán de emparentar con Túbal y con los iberos ha sucedido un aislacionismo bastante hosco. En muchos amigos vascos sorprende una alegría casi de niño que juega al escondite cuando cualquier relación que se haya propuesto para una palabra vasca resulta más o menos devanecida (Tovar 1952: 74; cf. 1954: 21).

A. Tovarrek Salamancan argitaratu zituen hainbat libururen helburua euskal etimologiaren ikerketan sakontzea zen: R. Lafonen *Études basques et caucasiques* (1952), K. Boudaren *Neue baskische-kaukasische etymologien* (1952) nahiz *Die Verwandtschaftsverhältnisse der Tschuktschischen Sprachgruppe* (1952), J. Gorostiagaren *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* (1953) edota J. Hubschmid-en *Pyrenäenwörter vorromanischen* (1954).

Garaiko hiztegi etimologiko eredugarriak ziren W. Wartburg-en *Französisches Etymologisches Wörterbuch* (1922-1967), A. Ernout-A. Meillet-en *Dictionnaire etymologique de la langue latine* (1932) edota J. Corominasen *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (1954) berriena (Michelena 2011b: 523-528). Hain zuzen, Chicagon erbesteratuta zegoen filologo katalanarekin 1952tik harremanetan zegoen A. Tovar, eta hura Espainiara erakartzen saiatu zen.¹⁴⁵⁷ J. Corominasek ohar ugari egingo zizkion euskal hiztegi etimologikoari (Agud & Tovar 1989-1994).

Hiztegi etimologikoak, noski, ez zuen R. M. Azkue-P. Lhanderen lanak osatu edo eguneratu nahi, eta horregatik ez zion konkurrentziarik egiten Euskaltzaindiaren lexikografia normatiboari. Ordura arte argitaratutako iritzi etimologikoak bildu, sailkatu eta ebaluatu nahi ziren, oinarrizko lan tresna bat eskaintzeko ikertzaileei. Horretarako lan talde triangularra osatu zuten: Bilbon (M. Grande), Donostian (L. Michelena-M. Agud) eta Salamancan (A. Tovar-L. Cortés).¹⁴⁵⁸

L. Michelenak *Emeritan* (1950) edota *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarran*

¹⁴⁵⁷ ABA-ATO: J. Corominasen gutunak A. Tovarri, 1952-1954.

¹⁴⁵⁸ Mario Grande Ramos (1917-1980) Bilboko institutuko frantses katedradunaren ikuspegia etnologikoagoa zen, eta badirudi hiztegi etimologikoaren egitasmotik kanpo geratu zela berehala. Hala ere, A. Tovarren ildoko artikulua argitaratu zituen *Zumárraga* urtekarian: «Sobre el origen del vascuence» (1952) edota «Problemas y métodos de la lingüística vasca» (1954).

(1951) argitaratutako artikuluak etimologiari eskaini zizkion, baina atzerriko hizkuntzalarien proposamen zehatzei egindako kritika dokumentatuak ziren (Michelena 2011b: 641-658, 675-683). *Apellidos vascos* (1953) liburuaren egile txalotua, fitxak sistematikoki egiten hasi eta Salamancako Unibertsitatera bidali zituen.¹⁴⁵⁹ Dena dela, argi zuen lehenago euskal lexikoaren dokumentazio historikoa bildu eta fonetika historikoa landu behar zirela, inguruko hizkuntzen azterketa mailara iristeko. 1954ko urritik, SFVJUko arduradun gisa, «Manuel de Larramendi» katedran ikastaroak eman zituen eta, besteak beste, Salamancako ICOS biltzarra (1955) antolatzen edota K. Bouda-D. Baumgartl-en *Nombres vascos de las plantas* (1955) liburua alemanetik itzultzen aritu zen.¹⁴⁶⁰

Esan bezala, euskal fonetika historikorik gabe eta literatur euskararen corpus historikorik gabe, ezin zitzaion behar bezala erantzun euskarak planteatzen zituen arazo etimologiko erraldoiei, milaka urteko geruza historikoen antza hartzen zutenak:

- 1) Aldaera dialektalak eta testigantza historikoak.
- 2) Barne azalpena (akitaniera eta Erdi Aroko onomastika barne).
- 3) Latinaren maileguak.
- 4) Erromantzeen maileguak.
- 5) Arabieraren maileguak.
- 6) Mailegu zeltiko-germanikoak.
- 7) Iberieraren maileguak.
- 8) Gainerako antzekotasun fonetikoaren azalpena: kaukasikoak, kamitikoak, semitikoak, etc. (Agud 1968: 39-40).

Zailtasun horien aurrean, L. Michelena, unibertsalki aitortutako autoritate nagusia, egitasmotik aldendu egin zen, bestelako lan egingarriagoetan murgilduz. Gainera, aurrekari politikoek baldintzatuta, ezin zituen laguntzaile izandako A. Tovar bezalako jakintsu frankista ofizialen akats zientifikoak publikoki ezeztu. Dena dela, txundituta utziko zituen nazioarteko hizkuntzalariak bere *Fonética histórica vasca* 1959ko tesiarekin, euskararen diakronia egiteko tresna nagusi bilakatuko zena. A. Tovar-M. Agudek fitxak biltzen eta hiztegia erredaktatzen jarraitu zuten, inoiz L. Michelenak sarrerak berriz aztertuko zituenaren zain. Beste bi lankideak hil ondoren, M. Agudek ia

¹⁴⁵⁹ AUSA: L. Michelenaren gutunak A. Tovarri, 1954-01-11 & 1954-09-28.

¹⁴⁶⁰ ABA-ATO: A. Tovarren gutunak L. Michelenari, 1953-1954.

40 urtez bildutako material zaharkituak *ASJU*n argitaratuko zituen, L. Michelenak ezarritako baldintza zientifikoak bete ez arren (Agud & Tovar 1989-1994; cf. Lakarra, Manterola & Segurola 2016).

12.8 Ignacio M^a Echaideren zuzendaritza eta araudi berria

Araudi berriaren arabera, ALVren egoitza sozialak Bilbon egoten jarraituko zuen, baina Donostian ordezkari ofiziosoa zegoen, GPD-SFVJUri esker. Argi dago I. M. Echaideren agintaritzan Gipuzkoak Euskaltzaindiaren bizitzan indar handia hartu zuela tantaz tanta. Euskaltzainburordeak honela adieraziko zuen 1954ko udan: «el centro de gravedad de las actividades de la Academia, se está desplazando hacia Guipúzcoa desde hace muchos años».¹⁴⁶¹

1953ko martxoaren 20an, F. Arocenarekin bildu ziren I. M. Echaide-A. Irigaray-M. Lecuona. Besteak beste, R. Inzagaray ALVko idazkari ohiaren batzar agirien liburuaz hitz egin zuten, baina falangisten eskuetan erori bide zen EGZean. Datu hori seguru asko GPDko artxibozainak emandakoa zen.¹⁴⁶² Nolanahi den, A. Irigarayk nahi zuen N. Oleagak bere batzar agiriak hurrengo batzarrera eramatea, *Euskeran* argitaratzeko asmoarekin. Era berean, ALVren gaztelania-euskara hiztegiaren corpusak ere eskatu zituen, argialetxeekin harremanetan baitzegoen. R. M. Azkue zenak utzitako zein liburu zeuden salgai ere jakin nahi zuen, erosleak bilatzen hasteko.¹⁴⁶³

N. Oleaga klinika batetik irten berria zen, beste ebakuntza bategatik. Donostiako euskaltzainek adierazitako asmoekin bat etorri arren, ALVren batzarra hilabete atzeratzea eskatu zuen, deialdirik egiteko astirik ez zuelako izan. Ordainetan, bi eguneko batzarrak berreskuratzea proposatu zuen, etekin gehiago ateratzeko bilerei.¹⁴⁶⁴ Donostiako euskaltzainak erantzun zuten nahiago zutela hilero batzar bana egin, agian goizez eta arratsaldez. N. Oleaga azken aldian makalduta zebilenez, batzar agirien kopiak beti I. M. Echaideri bidaltzea eskatu zioten, Bilboko idazkariak ezinez gero, Donostiatik deitutako batzarrak egin ahal izateko. Era berean, 1941 ondoko batzar agiriak argitaratu eta lexikografiarekin jarraitzeko asmoari eusten zioten.¹⁴⁶⁵

¹⁴⁶¹ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

¹⁴⁶² F. Arocena lanean ibili zen Donostiako euskaltzain zenaren paperekin eta bera arduratu zen *Historia Eclesiástica de San Sebastián* postumoaren edizioaz (cf. Inzagaray 1951).

¹⁴⁶³ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-20.

¹⁴⁶⁴ ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1953-03-24.

¹⁴⁶⁵ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.

Donostiako euskaltzainen asmoa zen hileko azken ostegun arratsaldetan SFVJUko hitzaldiak egin ondoren, biharamun goizean ALVren ohiko batzarra egitea. Bizkaiko euskaltzainak gonbidatzen zituzten hitzaldietan parte hartzera. Uztaritzeko alkatearen bidez, halaber, Pirinio Behereetako euskaltzainak gonbidatu nahi zituzten.¹⁴⁶⁶ A. Irigarayk muga estatala zeharkatu zuen 1953ko udan P. Lafitte-L. Dassancekin biltzeko. Frantziako kiderik ez zen ALVko batzarretara agertzen 1952ko ekainetik. Batzar deiak berandu jasotzen omen zituzten, eta muga zeharkatzeko eskaera egitetik baimena eskuratu arte, sei egun igarotzen ziren. Hori zen batzarretara ez agertzeko arrazoi nagusia.¹⁴⁶⁷

I. M. Echaidek, Donostiako ordezkartzako korrespondentzia idazteko, J. A. Esnoz GPDko laguntzailea erabiltzen zuen, baina ez zen gauza gutunak euskaraz idazteko. Horregatik, euskaltzainburuordearen gutunak ia beti gaztelaniaz zeuden. Dena dela, berak nahi zuen N. Oleagak ere laguntzaile bat kontratatzea Bilboko idazkaritzarako. Batzarrak arintzearen, I. M. Echaidek eskatu zion aurreko agirien zirriborroak euskaltzainei postaz bidaltzea beti.¹⁴⁶⁸ Uste izatekoa da N. Oleagak ez zituela beti gogo onez hartu Donostiatik iristen zitzaizkion ohar eta agindu horiek, hamar urte oso zailtan R. M. Azkuerekin eskuz esku ALVren zuzendaritzaz arduratu ondoren.

1953ko abenduaren 21ean N. Oleaga Donostian izan zen Euskaltzaindiaren urteko azken batzarrerako. Ez dago batzar agiririk ezta agiri zirriborrorik ere, baina idazkariak bidaiaren dieta kobratu egin zuen.¹⁴⁶⁹ Donostian bizi zirenez, likidazioan ez agertu arren, seguru asko I. M. Echaide-A. Irigaray ere bertan izan ziren, *Euskera* agerkariaren arazo larria eztabaidatzeko. L. Villasantek aldez aurretik jakinarazi zuen ezin etorria, Arantzazuko santutegian ikasleek ekitaldi bat antolatu zutelako.¹⁴⁷⁰ Hain zuzen, agerkari ofizialarekin kolpe berri bat jasota, Euskaltzaindia uzkur ageri zen jarduera ageriarekiko. E. Erquiaga urgazleak hurrengo galdetu behar izan zion L. Villasanteri: «Zer dinozu bada? Bizi ahal da Euskaltzaindia? Aspaldi huntan eztut egunkarietan gure Bilgu maite horren lerrotoren bat ere irakurteko zorionik izan. Biltzen ahal zarete?» (apud Sudupe 2011a: 235)¹⁴⁷¹

¹⁴⁶⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17.

¹⁴⁶⁷ ABA-EUS: J. A. Esnozen gutuna N. Oleagari, 1953-08-18.

¹⁴⁶⁸ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

¹⁴⁶⁹ ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzarretako dieta eta osteren likidazioa, 1953-12-21.

¹⁴⁷⁰ ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-12-18.

¹⁴⁷¹ ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-12-24.

1954ko hasieran 70 urte beteaz zeuden bi adinekok osatzen zuten Euskaltzaindiaren zuzendaritza: I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburua eta N. Oleaga idazkaria. Ikerle-Yagoleen sailbururik ezean, hurrengo kargua J. Gorostiaga bibliotekariarena zen, Bilboko egoitzako soldatapeko arduraduna. Bestalde G. Maidagan urgazleak behin-behineko diruzain izaten jarraitzen zuen, estatutuek diruzaina euskaltzain izatea eskatu arren.

Hain zuzen, 1954ko irailean jarduneko euskaltzainburuak hiru euskaltzain berri proposatu zituen: J. M. Lojendio, G. Maidagan eta A. Arrue. Diruzainak, bere betiko apaltasunari jarraituta, ez zuen izendapena onartu. Aitzitik, beste bi izendapenekin, Euskaltzaindiak aginte politikoarekiko lotura sendotzea lortu zuen (ALV 1982: 40-43).¹⁴⁷² Asmo hori argi ageri zen euskaltzainburuordearen hitzetan:

La familia Lojendio la constituyen varios hermanos todos inteligentísimos, muy unidos y de gran influencia en las esferas oficiales. El nombramiento de don José María nos abriría muchas puertas hoy cerradas y aumentaría enormemente el prestigio de la Academia, pues, el apellido «Lojendio» es universalmente conocido.

El Sr. Arrúe es íntimo del Presidente de la Diputación de Guipúzcoa y por tanto llave para las subvenciones de la Diputación y de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Es promotor del Seminario Filológico Julio de Urquijo que ha de constituir un puntal formidable para la Academia.¹⁴⁷³

Interesdunei ere disimulurik gabe jakinarazi zien, hala nola, Gipuzkoako buruzagi karlistari: «yo he pensado hace mucho que está Vd. llamado a ocupar sitios más altos y lo mismo que yo opina un compañero de la Academia».¹⁴⁷⁴ Abertzaleek, noski, zalantzaz hartu zituzten izendapenok.¹⁴⁷⁵ Hala ere, Euskaltzaindiaren egoera hauskorren erakusgarri, I. M. Echaideren nahia gorabehera, bi euskaltzain berriek ez zuten sarrera hitzaldirik egingo.¹⁴⁷⁶

1954ko irailean, halaber, J. Gorostiagak Ameriketara alde egin zuen eta hortik

¹⁴⁷² 1950eko hamarkadan soilik beste bi euskaltzain izendatuko zituzten. Alde batetik, erbestetik itzultitako N. Ormaechea, 1956an hildako B. Echeagarayren ordeaz. Bestetik, G. Eppherre, 1957an hildako P. Lhanderen ordeaz. Dena dela, eragin urria izango zuten ALVren bizitza akademikoan (Arana Martija 1990: 27).

¹⁴⁷³ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1954-09-02.

¹⁴⁷⁴ KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-24.

¹⁴⁷⁵ ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1954-12-13.

¹⁴⁷⁶ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. M. Lojendiori, 1954-10-30.

aurrera A. Irigoyen euskara irakaslea hasiko zen Bilboko egoitzako bibliotekaz, diruzaintzaz eta bestelako lanez arduratzen (ALV 1982: 41, 47). J. Gorostiagaren alde egiteko erabakian nabari da huts egin zuela Bilbon egitura egonkorrago bat sortzeko asmoak. Era berean, bere burua hizkuntzalari gisa gaindituta ikusten zuen SFVJUtik zetorren haize berriarekin.¹⁴⁷⁷

I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburua ez zen R. M. Azkuek izan zuen itzalaren mailara iristen, baina Euskaltzaindikozuzendari izango zen 1962an hil arte. N. Oleagak ere idazkari izaten jarraituko zuen 1961ean hil arte. Erakundearekiko konpromiso zorrotza erakutsi zuten beti, eta diktadura frankistarentzat politikoki onargarria zen irudia eman zioten ALVri. Euskaltzainburuorde integrista foruzaleak, 1940ko hamarkadan GPDak telefono sarearen eskumenak behin betiko galdu zituenean, gorabeherak izan zituen probintziako diputatuekin, baina 1952an J. M. Caballero karlista presidente izendatu zutenetik, harreman hobeak izan zituen agintariekin.

GPDko presidenteak 1953ko martxoaren 18an erabaki zuen omenaldi ofiziala egitea Gipuzkoako telefono sareraren zuzendari ohiari. Urriaren 8an, halaber, J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionalako ministerioari erregutu zion I. M. Echaide Alfonso X el Sabio-ren ordenan onartua izatea. 1953ko abenduaren 14an sinatu zuen ministerioko idazkariordeak baiezkoren jakinarazpena, baina enkomienda mailan; J. Irigoyenek edota J. Urquijok jasotako gurutze handia baino apalagoa, alegia.¹⁴⁷⁸

Dena dela, euskaltzainburuordearen aginpideari emandako bultzada ofiziala izan zen sari hura. Goi mailako ordezkaritza bildu zen GPDko jauregian 1954ko apirilaren 9an: GPDko presidentea, E. Vidal gobernadore militarra, J. Pagola Donostiako alkatea, J. Garnica itsas komandantea, D. Laffitte Gipuzkoako ingeniari nagusia eta probintziako diputatu guztiak. Mahaiburuen, funtzionarioen eta familia-adiskideen aurrean, J. M. Caballerok, M. Ciriquiainek eta I. M. Echaidek berak hitz egin zuten. Euskaltzainburuordeak euskararen alde egindako lana goratu zuenean, GPDko presidenteak berriz ere ortodoxia politiko frankista aldarrikatu zuen. Euskaltzainburuordeak, orobat, bere ideologia erreakzionarioa nabarmendu zuen

¹⁴⁷⁷ «Nik uste Gorostiaga berriz Ameriketara bialtzea gauza ona izan dela. Bere agertzean idazten bezela baldin bada, eztut uste or mesede andirik egingo zuanik. Ezitzaion atsegiñen nik *ex-nihilo* tik bezela idazten zuela jartzia, baña ala zegokion agian» (KMK-KM: J. Gáratere gutuna L. Michelenari, 1954-10-15).

¹⁴⁷⁸ Adibidez, A. Tovarrek ere gurutze handia jaso zuen: «Decreto de 18 de julio de 1954 por el que se concede la Gran Cruz de la Orden Civil de Alfonso X el Sabio a don Antonio Tovar Llorente». In: *BOE*, 1954-07-18.

hitzaldian:

Pero llegó un buen día, allá por los años de 1812, en que unos señores que se llamaban «modestamente» a sí mismos, espíritus ilustrados y progresivos, iniciaron una ridícula parodia de la Asamblea Legislativa Francesa y entonces brotó en España esa altisonante verborrea que ningún Gobierno, hasta ahora, ha sido capaz de curar. No obstante, yo espero que esto mejorará con el tiempo; ahora se trabaja más en España y el trabajo y la verborrea son enemigos (Echaide 1954: 22).

Guztiek euskaltzainburutzat hartzen zuten, baina formalki buruorde izaten jarraitu zuen, behin-behinekotasun kronikoaren erakusgarri, 1957ko ekainean euskaltzainburu izatea onartu zuen arte.¹⁴⁷⁹ I. M. Echaidek ez zuen bere buruarentzat R. M. Azkuek bizitza akademikoan izandako aginte mailaren parekorik hartu nahi izan. GPDko ingeniari izatetik erretiroa 1954ko abenduaren 1ean hartuko zuen, 70 urterekin. Abenduaren 8an enbolia batek jo zion eta horren ondorioz hanka bat ebaki behar izan zioten, baina gero ere bere Euskaltzaindiko ardurekin jarraitu zuen, eginkizun horrek pozez betetzen baitzuen (Etxaide-Itharte 1985: 362-363; 1986: 207-213).

F. Krutwigen erantzun hitzaldiak sortutako arazoa gaingiduta zirudien, baita JCVrekiko harremana bideratuta ere. Lehenago J. Irigoyen-E. Esparzarekin gertatu bezala, J. M. Seminario iraganeko oroipena zen batez ere. Euskaltzainburuordeak laguntza eskatu zion literatur lehiaketa Iruñeko egunkarietan iragartzeko eta Donostiako batzarretara gonbidatu zuen, baina Nafarroako kazetariak ez zuen inoiz gehiago parte hartuko ALVn.¹⁴⁸⁰ Abertzaleekiko gutxieneko elkarlana ere ziurtatuta zegoen L. Michelena-M. Lecuona euskaltzainen edota A. M. Labayen urgazlearen bidez. L. Michelena arduratuko zen, esaterako, Euskaltzaindiaren izenean erbestetik itzulitako N. Ormaecheari ongi etorri ematen 1954ko abenduan (Urkizu 2004: 40).

Bestalde, F. Krutwige 1949ko txostenean adierazitako eskaerari jarraituta, 1950-1953 arteko batzar ia guztiak (22) Donostian izan ziren, Bilbon egindako hiru eta Baiona-Iruñean egindako bana izan ezik. Horrela, Frantziako euskaltzainak, J. Moulier kide berria barne, batzarretara agertu ziren noizean behin. R. M. Azkue hil ondoren ere, N. Oleagak ez zuen hutsik egin 1950-1953ko batzarretara. Bilboko idazkariak gain, I. M.

¹⁴⁷⁹ Dena dela, ez dago batzar horretako agiri ofizialik (ABA-EUS: N. Oleagaren batzar agiri ez onartua, 1957-06-28).

¹⁴⁸⁰ ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. M. Seminariori, 1954-02-04.

Echaide-A. Irigaray-J. Gorostiaga-F. Krutwig-L. Villasantek eraman zuten ALVren pisua garai horretan.¹⁴⁸¹ 1940eko hamarkadan egiten ziren, urteko 5,44 batzarrak, 6,75era baino ez ziren igaro tarte horretan. Hori bai, 1949ko handitzearen eta izendapen gazteagoen ondorioz, 27 batzarretatik 17tan (%62,96) lortu zuten 1920ko estatutuek agindutako sei euskaltzainak biltzea. 1940ko hamarkadan batzarren %18,36n baino ez zuten estatutuek eskatutakoa bete. Gainera, urgazleak batzarretan sarriago parte hartzen hasi ziren. Hurrengo urtean, ordea, 1954ko batzar ofizial guztiak Donostian izan arren, Frantziako kiderik ez zen bertaratuko. Gainera, Bilboko idazkari makalduak urte horretako batzar askotan huts egin zuen (cf. ALV 1982: 35-45).¹⁴⁸²

Erbesteko kulturgintzari dagokionez, C. Mathieu Akizeko apezpikua buru zuen EIL-SIEBek 1954ko udan Baiona-Uztaritzen euskal hizkuntza eta kulturaz antolatutako biltzarra nabarmendu behar da. 1948koarekin erkatuta, diru laguntza gutxiago eta oihartzun mediatiko txikiagoa izan zuen. Batzorde antolatzailean Frantziako euskaltzain eta urgazle ugari aritu ziren.¹⁴⁸³ I. M. Echaidek adierazi zuenez, biltzarrean parte hartzeko gonbita berandu jaso zuelako ezin izan zien garaiz jakinarazi gainerako euskaltzainei (ALV 1982: 38).

Mesfidantza politikoak eragindako aitzakia hutsala zirudien. Izan ere, S. Altubez gain («Itz-berriak, itz-zaarrak eta itz-aldakuntzak»), J. Gorostiagak («El ciclo poético de Mondragón») eta L. Michelenak («Quelques problèmes de phonétique historique basque») komunikazioak bidali zituzten biltzarrerara. Hain zuzen, salbuespen politiko gisa, nabarmendu behar da J. Ybarrak «Lo romano en Vizcaya» komunikazioa aurkeztu zuela. A. Campiónen jaiotzaren mendeurrena ere ospatu zuten.

Bestalde, P. Lafitte euskaltzaina buru zuen euskararen aldeko batzordeak idazki bat plazaratu zuen euskararen egoera agonikoaz EIL-SIEBen biltzarrean. Batzordearen kalkuluaren arabera, 1934-1954 artean, Euskal Herriko 700.000 euskal hiztunak 525.000 izatera igaro ziren, besteak beste, migrazioen ondorioz. Atzerakada hori geldiarazteko neurriak Frantziako egoera sozioekonomiko eta politikoari begira aldarrikatu ziren,

¹⁴⁸¹ Honela geratu ziren 1950-1953 arteko partaidetzak: N. Oleaga (27), A. Irigaray (19), I. M. Echaide (18), J. Gorostiaga (17), F. Krutwig (15), L. Villasante (14), M. Lecuona (11), R. M. Azkue (10), J. Elissalde (8), L. Dassance (8), P. Lafitte (7), L. Michelena (6), A. M. Labayen (5), J. Moulier (3), J. Cincunegui (3), B. Echegaray (2), J. M. Seminario (2), M. Arruza (2), B. M. Garro (2), J. Urquijo (1), R. Lafon (1), J. Saint-Pierre (1), G. Manterola (1), J. A. de Donostia (1) eta S. Michelena (1).

¹⁴⁸² 1955-1964 artean batzar gutxi batzuk Gipuzkoatik kanpo egin arren, Donostiak eutsiko zion bilgune nagusi izateari (cf. ALV 1982).

¹⁴⁸³ G.. Eppherre, L. Dassance, P. Lafitte, J. M. Barandiaran, H. Gavel, J. Ithurriague, M. Labeguerie eta R. Lafon.

Espainia frankistari eta, ondorioz, Euskaltzaindiari ez ikusiarena eginda (Larronde 2004c; 2004d).

Batez ere I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburuaren ekimenez, Euskaltzaindiak erakunde gisa bere egoera argitu nahi izan zuen, eta hori nolabait formalizatzeko 1920ko araudia eguneratzea aukeratu zen. 1954ko martxoko batzarrean eztabaidatu zen gaia. A. Irigaray nabarmendu zuen euskaltzain izateko euskal jatorriaren baldintza desegokia zela. Euskaltzainburuordeak gogorarazi zuenez, puntu hori ez ezik, 1920ko beste asko ere ez ziren betetzen. 1954ko abuztuan euskaltzainburuordearen proposamena onartu eta azken idazketa egiteko batzordea osatu zuten: I. M. Echaide-A. Irigaray-L. Michelena (ALV 1982: 35, 39).

Eragozpenak saihestearren, 1920ko araudia ez bezala, 1954koa soilik gaztelaniaz eta inprimategiaren daturik gabe argitaratu zen: *Estatutos y reglamento de la Academia de la Lengua Vasca*. Agerkariarekin izandako arazoan ondorioz, Tolosako muguerzatarrek uko egin zioten araudi berria inprimatzeko eskaintzari. Ia isilpean, 100-150 inguru ale besterik ez ziren argitaratu Donostiako Izarra inprimategian 1955ean.¹⁴⁸⁴

Euskaltzainburuordeak 1920ko araudia ahalik eta gehien errespetatu eta berrikuntzak ezinbestekora mugatu nahi izan zituen. Euskaltzaindiaren izaera juridikoa guztiz ziurtatzea, diktadura frankistako legediaren arabera, ezinezkotzat jotzen zen. 34 urteko araudia zaharkitua zegoen, baina asmoa ez zen horrenbeste iraungo zuen araudi berria egitea, baizik eta EGZ ondoko ALVren egoera aintzat hartu eta urte batzuetarako egonkortzea. Usteak uste, araudi berriak 20 urte iraungo zuen (cf. ALV 1972; 1974).

Formalki, Ikerle-Yagoleen sailen bitasuna errespetatu zen, nahiz eta praktikan halakorik ez egon. 1920an iragarritako fonetika-lexikografia bulegoak sortzeko asmoa, ordea, ezabatu egin zen errealismoari men eginda. Literatur euskara ezartzeko aginduari ez zitzaion uko egin, baina literatura klasikoaren kanon antzeko bat ezarri beharra gehitu zen. Halaber, lexikografiari, itzulpengintzari, literatur lehiaketei eta euskara eskolei garrantzia ematen jarraitu zitzaion.

Batzarrak hileroko egitea ezarri zuen araudi eguneratuak, EGZ aurreko batzar bikoitzak behin betiko baztertuta. Era berean, sailbururik ezean, batzarretan mahaiburuorde lanak euskaltzain zaharrenak egitea eta idazkariorde lanak euskaltzain

¹⁴⁸⁴ ABA-EUS: I. M. Echaide-A. M. Labayen arteko gutunak, 1955-04-02 & 1955-04-15.

gazteenak egitea erabaki zuten. Quoruma betetzeko zeuden arazoak ikusita, batzarrak egiteko gutxieneko euskaltzainen kopurua seitik bostera jaitsi zuten.

1920ko araudiarekiko aldaketa nabarmena EI-SEVekiko harremana eta mendekotasun teorikoa ezabatzea izan zen. Euskaltzaindiak bizitza akademiko autonomoa izan arren, 1920ko erregelek EI-SEVen filialtzat jotzen zuten. 1954an, ordea, EI-SEV ez zen existitzen. Euskaltzaindiaren arduradunek aukera baliatu zuten independentzia akademikoa ezartzeko. Euskaltzaindia ez zen inoiz kuotak ordaintzen zituzten bazkidez osatutako EI-SEVen gisako elkartea izan, baina ezta RAE bezalako estatu mailako erakunde ofiziala. Jarduneko euskaltzainburuak 1954an nahiago izan zuen ez ikusiarena egin ziurgabetasun juridiko horri:

Veo, pues, muy difícil que se pueda legalizar la existencia de la Academia. Pero, si para ello fuera preciso convertirla en rama de una Asociación legalmente establecida, esto lo encuentro muy peligroso y atentatorio a la honra de la sabia Corporación.

Por hoy creo que este asunto no debe preocuparnos. Sigamos como hasta ahora, que el tiempo, gran proveedor de oportunidades, ya nos proporcionará una solución. La existencia de la Academia depende hoy de nuestra voluntad de vivir. Que ésta no nos falte.¹⁴⁸⁵

F. Krutwigen 1949ko txostenak ezarritako 12tik 18rako euskaltzainen gutxieneko kopuru aldaketa onartzeaz gain, batzarretara agertzen ez zirentzako euskaltzain ordezkoen («suplente») figura sortu zen:

Si un académico deja de asistir durante todo un año a las reuniones sin excusar su falta de asistencia con razones que la Academia estime suficiente, se designará un académico suplente que gozará de todos los derechos de los académicos de número y que no cesará en su cargo aun cuando el suplido comenzare a asistir (ALV 1954: 4).

Ikusi dugunez, euskaltzain batzuek (N. Oleagak?) ALVtik kanporatu egin nahi zituzten batzarretara agertzen ez ziren kideak. I. M. Echaidek ez zuen inor kanporatzea nahi, baina bai A. Arrue-J. M. Lojendiok bezalako eragin politikoa zuten ordezkoak izendatzea. B. Echegarayk gogorarazi zuenez, EGZ eta BMG ondoko egoera politikoan, N. Alcalá Zamora, Ph. Pétain edota Ch. Maurras ordezkatu ez baldin bazituzten, nola

¹⁴⁸⁵ ABA-EUS: I. M. Echaidek euskaltzainei zuzendutako «Acerca de la reforma de los reglamentos» txostena, 1954-01-07.

kanporatuko zituen Euskaltzaindiak bere kideak batzarretara agertzen ez zirelako?¹⁴⁸⁶

Gainera, A. Irigarayk eskatu bezala, iraganeko baldintza genealogikoak gainditu eta R. Lafonen gisako euskaltzainen egoera normaldu zen estatutu-erregela berrietan: «Los numerario serán vascos de naturaleza e idioma. No obstante, la Academia podrá dispensar del primero de estos dos requisitos, cuando, a juicio de la misma, concurren en los candidatos méritos especiales» (ALV 1954: 4). Urgazleei dagokienez, ordurako 60 inguru ziren, baina ez zitzairen ekarpen berezirik eskatzen.

1954ko 20 euskaltzainetatik, seik presentzia nominala besterik ez zuten. Lauk ezin zuten parte hartu bizitza akademikoan, erbesteratuta (S. Altube-D. de Inza-F. Krutwig) edota fisikoki ezinduta (P. Lhande) zeudelako. Eta beste bik ez zuten inoiz batzarretan parte hartzen: J. M. Seminario-R. Lafon. Hautatutako bi ordezkoen izaera politiko eskuindarra zalantzagabea zen: A. Arrue-J. M. Lojendio. Dena dela, iraganeko akatsetatik ikasita, zuhurtziaz hautatutako kide berriak izan ziren. Haien ekarpena, Euskaltzaindiaren erakundetzeaz den bezainbatean, garrantzitsua izan zen, J. Irigoyen-E. Esparza-J. M. Seminario hiruko politikoarena ez bezala.

Abertzaleen presentzia hein batean normalizatu egin zen, 1936an bezala ALVren %25 izatera igaro baitziren: L. Michelena, S. Altube, J. Gorostiaga, M. Lecuona eta A. Irigaray. Hala ere, diktadura frankistan euren ideologia isilpean gordetzera behartuta zeuden. 20 euskaltzainetatik, elizgizonak %40 ziren, 1936an zuten gehiengoa galduta: L. Villasante, J. Gorostiaga, P. Lafitte, J. Elissalde, M. Lecuona, D. de Inza, P. Lhande eta J. Moulier.

Lurraldetasunari dagokionez, Espainiakoak ziren 14 (%70) eta Frantziakoak %30 (P. Lafitte, J. Elissalde, P. Lhande, R. Lafon, J. Moulier eta L. Dassance). F. Krutwigen txostenak 1949an ezarritako bidetik, Frantziako kideen ordezkaritza hazi egin zen 1936an zuten %25etik.

GPDarekin lotura sendotzearen ondorioz, 1936an Bizkai-Gipuzkoa artean zegoen %25eko oreka makurtu egin zen. 1954an %35 ziren Gipuzkoakoak (L. Michelena, B. Echegaray, I. M. Echaide, S. Altube, M. Lecuona, A. Arrue, J. M. Lojendio), %20 Bizkaikoak (L. Villasante, J. Gorostiaga, N. Oleaga, F. Krutwig). Nafarroakoak bitik

¹⁴⁸⁶ ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna I. M. Echaideri, 1954-08-23.

hirura igaro ziren (D. de Inza, J. M. Seminario, A. Irigaray), nolabait Arabako ordezkariak galdua bereganatuta.

1. Luis Michelena
2. Bonifacio Echegaray
3. Luis Villasante (OFM)
4. Ignacio M^a Echaide
5. Severo Altube
6. Juan Gorostiaga
7. Pierre Lafitte
8. Jean Elissalde
9. Manuel Lecuona
10. Dámaso de Inza (OFMCap)
11. Juan Miguel Seminario
12. Nazario Oleaga
13. Angel Irigaray
14. Pierre Lhande (SI)
15. Federico Krutwig
16. René Lafon
17. Jules Moulrier «Oxobi»
18. Louis Dassance
19. Antonio Arrue
20. José M^a Lojendio

12.9 Euskaltzain berriak

Antonio Arrue

Antonio Arrue Zarauz (1903-1976) Gipuzkoako Asteasun jaio eta zuzenbidean lizentziaduna zen. 1930eko hamarkadan Donostiako *La Constancia* egunkari tradizionalistako euskal atalaz arduratu zen. Comución Tradicionalista-ren Gipuzkoako zuzendaritzako kide gisa, EBEren nahiz EAJ-PNVren autonomismoaren aurka nabarmendu zen. Hala ere, FET-JONSen bateratze politikoa ez zuen onartu EGZean, eta 1937ko abenduan militar matxinoek Granadan atxilotu egin zuten, Javier de Borbón-

Parma erregeordearen idazkari gisa.

BMGn, karlismo falcondistak falangistekin izandako tira-biretan parte hartzeagatik, Gijonera deserritu zuten urtebetez. Euskal Herrira itzulita, abokatu lanetan jarraitu zuen Donostian. 1950eko hamarkadan Gipuzkoako buruzagi karlista nagusia izan zen, baina frankismoarekiko kolaborazionismoa bultzatzen zuen Espainiako tradizionalismo ofizialarekiko oposizio etengabea. Ikuspegi ideologiko doktrinario-alderdikoi batetik, euskal kultura sustatzeko ekintzetan parte hartu zuen, bereziki hizlari gisa. Bere eragin politikoa kultur mailan hedatzeko plataformak eskuratu zituen 1954an; euskaltzain ez ezik, SFVJUren aholku batzordeko kide eta *Egan* aldizkariaren zuzendarikide izendatu baitzuten (Martorell 2009; 2011; Vázquez de Prada 2009; Sudupe 2012).

José M^a Lojendio (eta bere anaiak)

Donostian jaiotako José M^a Lojendio Irure (1910-1979) zuzenbidean doktorea zen. Conde de los Acevedos-en alabarekin ezkondu zegoen (*ABC* 1945-07-13). Tradizionalismoarekin identifikatzen ez zen eskuindar familia ospetsu bateko kide zen. Julián Lojendio aita, Estatuaren abokatu eta Gipuzkoako abokatu elkargoaren burua izan zen diktadura primorriveristan. Ignacio M^a Lojendio anaia, 1931n Euzko Ikasle Batzaren («Federación de Estudiantes Vascos») buru hautatu zuten, baina erakundeak joera abertzalea nabarmendu ahala, utzi egin zuen kargua. Juan Pablo Lojendio anaia diplomazialaria, M. Azaña EBeko presidenteak kargugabetu eta Gipuzkoako CEDAren burua izan zen.¹⁴⁸⁷ J. M. Lojendio bera ildo eskuindar horretakoa zen. 1936ko hauteskudeetan (ezkerrari aurre egitearren) EAJ-PNVren aldeko botoa eskatzea leporatu zieten karlista-falangistek. J. M. Lojendio EGZean Loiolako santutegian atxilotuta egon zen bere anaia batzuekin, J. Arteche bezalako jeltzaleek milizianoen mendekutik babesten zituztela.

Donostiako lojendiotarrak eragin politiko handiko familia ziren, beraz. Besteak beste, gerraondan Donostiako Conversaciones Católicas Internacionales demokristau joerakoak babestu zituzten. Diktadura frankistan anaia guztiek ibilbide nabarmenak izan

¹⁴⁸⁷ J. P. Lojendioren EBeko ikuspegi politikoa *El hecho histórico vasco en la unidad imperial de España* (1935) hitzaldian nabarmen ageri da.

zituzten. Luis M^a Lojendiok Kanpo Arazoetako ministerioaren propaganda zerbitzuan lan egin zuen, eta Santa M^a del Valle de los Caídos-eko abade mitraduna izango zen 1960ko hamarkadan.¹⁴⁸⁸ I. M. Lojendio 1942tik Sevillako Unibertsitateko zuzenbide politikoko katedraduna izan zen. Miguel M^a Lojendio, aldiz, Txileko Falange-ren buru agertzen zen 1937an, eta J. P. Lojendiok bezala, diplomazialari ibilbide luzea izan zuen. J. P. Lojendio oso ezaguna bilakatu zen 1960ko urtarrilean, gatazka larria sortu zuenean Kuba iraultzailearekin, Fidel Castroren konspirazio salaketei aurre egiteagatik telebistaren zuzeneko saio batean. ALVri diktadura frankistan ematen zion itzalagatik, J. M. Lojendio legegizona euskaltzainburu izendatuko zuten I. M. Echaide 1962an hil ondoren (Barruso 1999; Lojendio Osborne 2009; Aizpuru 2012; Casas 2012; Cava Mesa 2013; Intxausti 2013).

¹⁴⁸⁸ L. M. Lojendiok EGZean egindako kontrainformazio lanen emaitza da *Operaciones militares de la Guerra de España 1936-1939* (1940) liburua.

13 Ondorioak

Ez da azterketa honen helburua Euskaltzaindia ezinbestez frankistaren hagiografia korporatiboa egitea izan. Erabili dudak dokumentazio aberatsari eta egindako azterketa zorrotzari esker, uste dut frogatu dudala lekuz kanpo daudela iraganaren idealizazioak nahiz sinplifikazioak, azken finean gure historiaren ezagutza eskasean oinarritzen direnak. ALV garai horretan ez zen izan barne erresistentzian aritu zen elkarte klandestinoak, ezta diktaduraren morroi otzana ere, baizik eta muga politiko estuen barruan gutxieneko jardura prekario baina duinari eutsi zion giza erakunde inperfektua.

Erresistentzia kultural antifrankista, noski, erbesteko EJ-GEren eta EAJ-PNVren inguruko erakunde eta argitalpenen esku geratu zen. Hala ere, Gerra Hotzaren testuinguruan, nazioartean onartutako diktadura frankistak luze iraungo zuela argi geratu zenean, barnealdeko egitasmo kulturek, eta kapital sinboliko handia metatutako Euskaltzaindiak, erbesteak baino pisu erabakigarriagoa hartu zuten. Euskarazko kulturaren etorkizunaz den bezainbatean, berebizikoa izan zen jatorrizko lurraldearen eguneroko arazo eta nekeekin lotura zuzena gordetzea.

EBEk ahalbidetu zezakeen gizarte sustapenean konprometitu zen ALV, hezkuntza elebidun publiko nahiz erlijiosoa ziurtatu nahian. Zoritxarrez, erakunde normatibo ofizial bihur zitekeen ALVren ahalmena ere hutsean geratu zen, Errepublikaren aurkako estatu kolpe faxistaren erruz. 1937ko udara arte, zortzi hilabetez EJ-GEk egoitza Bilbon izan zuen bitartean, Euskaltzaindia ez zen integratu haren egitura autonomikoan. Nabarmena zen euskaltzainburuak ez zuela korporazioa ofizialki konprometitu nahi.

Frankismoaren bernazionalizazio politika antiseparatistak ezabatu egin zituen euskararen koofizialtasunaren aukera guztiak eta genozidio kulturala burura eramateko asmoa agertu zuen hasieran. Herri hizkuntzak folklorera eta bizitza pribatura murriztu ziren. Tokiko zenbait agintari frankistek egindako herri hizkuntzen laudorioak erretorikoak ziren, erabilera publikoan ondorio positiboz gabetuta. Gauza bera esan daiteke frankismoak herri hizkuntzen inguruan bultzatu edota baimendutako egitasmo zientifiko eta akademikoez.

Euzkadi autonomoaren lurralde osoa okupatu ondoren, Burgosko gobernu matxinoak Instituto de España eratu zuenean, R. M. Azkue eta J. Urquijo euskaltzainek ekitaldian parte hartu zuten, RAEko kide gisa, frankismoari leialtasun zina egiteko ekitaldian. J. Urquijo, halaber, RAEko behin-behineko idazkari izendatu zuten. IdeE-ren

eta errege akademia guztien behin-behineko egoitzak Donostian ezarri zirenez, 1938-1939ko RAEren batzar gehienak Gipuzkoan egin ziren, bi euskaltzainak mahaian egoten zirela. Bertatik, IdeE-ren filial antzeko gisa, Euskaltzaindia berpizten saiatu zen R. M. Azkue, baina ez zuen lortu P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionalako ministroaren laguntza. Estatu Berria monolitikoki espainolista eta elebakarra izango zen.

Gerra Zibilak eten egin zuen Euskaltzaindiaren jarduera, baina etena ez zen betikotu. Horregatik, izenburuan zauriaren metafora erabili dut, erakundeak bizirik jarraitu ahal izan zuelako frankismo betean. R. M. Azkue nekaezinak, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeen eta euskal frankista nabarmenen laguntza eskatu zuen ALV lozorrotik ateratzeko. Euskaltzainburuaren ustez, separatismoaren aurka egiteko neurri eraginkorrena, hain zuzen, euskara Espainiako gobernuak sustatzea zen. Kolaborazionismoa baino areago, euskaltzaletasunak gidatutako akzidentalismo politiko etengabea izan zen euskaltzainburuarena. R. M. Azkuek oso argi zuen unean uneko hierarkia politiko-erlijiosoari zor zitzaion mendetasuna. EJ-GErekin lotura organikorik ez izatea erabakigarria izan zen ALV berpiztu ahal izateko.

Estatu frankistaren egitura hierarkikoan, Euskaltzaindiari JCVk emandako bermeak nahitaez zuen eduki politikoa. Orban jeltzalez depuratutako ALV beste tresna bat gehiago izan zitekeen, Euskal Herria espainolismoaren bidetik zuzentzeko. Baina aldi berean, Bizkaiko egitura frankista berrian agintzen zuen elite monarkikoak nolabaiteko autonomia fiskala aldarrikatzen zuen Gobernu zentralarekiko, hots, kontzertu ekonomikoaren berrezarpena. Historikoki oso emankorra zen euskararen apologia eta autonomia politikoa uztartzen zituen ideologia foruzalea. Diktaturak, jakina, baldintza politikoak ezarri zituen. Alde batetik, erbesteko euskaltzainak kide espainolistekin ordeztea. Bestetik, Frantziako hiru euskaltzainak batzarretara ez deitzea.

1936ko kolapsoaren ondoren, 1941eko apirilean Bilboko egoitzan egin zen batzarra berfundazio bat izan zen, euskaltzain asko ordeztu eta ALVren egitura organikoa aldatu zutelako. Hasierako izendapenak politikoki oso markatuak izan ziren, ideologia eskuindarreko kideak nagusitu zirelako. Euskaltzaindia bere kideak gutxieneko normaltasunez hautatzeko aukerarik gabe geratu zen. Euskaltzaleak izanagatik, lehendabizi frankismoaren galbahe geografiko-ideologikoa igaro behar zuten. Bestalde, 1941ko berfundazioan desagertu egin ziren euskararen ikerketaz eta gizarte sustapenaz arduratzen ziren sailak.

J. Urquijo tradizionalista EI-SEVen zuzendaritzako kide nabarmena zen, baina oso uzkur agertu zen are *RIEV* aldizkaria diktadura frankistan berriz argitaratzearekiko. Euskal Herriaren autonomia politikoarekin estuki lotutako erakundea zutik jartzea ezinezkotzat jo zuen. A. Tovar hizkuntzalaria ere EI-SEV edota *RIEV* berriz abiatzen saiatu zen, baina ahalegin guztiek porrot egin zuten. Hezkuntza Nazionaleko ministroa jadanik J. Ibáñez Martín zen, CSIC sortu eta goi mailako hezkuntza Opus Dei-ko kideen eskuetan utzi zuena. Ardatz faxista BMGn garaitua izatearen ondorioz, katoliko integristak indartu egin ziren CSICen eta baztertu egin zituzten A. Tovar bezalako falangisten egitasmoak.

Ondorioz, EI-SEVen filial izateak ematen zion legezko izaerarik gabe geratu zen Euskaltzaindia, frankismoak toleratutako erakunde ofizioso gisa. Falangismo beligerantearen erasoan nahiz erbesteko abertzaleen salaketan beldurrez, ALVk jarduera ia sekretua izan zuen 1940ko hamarkadan. ALVk 1920-1930eko hamarkadetan urtero jasotzen zuen 26.000 pta inguruko diru laguntza ofiziala %70ean murriztu zen. JCVk, adibidez, hamar aldiz gehiago gastatzen zuen 1940ko hamarkadan. Gainera, 1951ko greba orokorrak diktadura frankistaren jarrera gogortu egin zuen. Euskaltzaindia ia diru laguntzarik gabe geratzeko arriskuan egon zen, baina 1953an agintari politikoekiko harremanak konpondu eta 1951-1952 artean atzeratutako kopuruak berreskuratu zituen.

Itolarri ekonomikoaren eta zentsura zorrotzaren eraginez, Euskaltzaindiak lehen frankismoan ez zuen argitalpen propiorik gauzatzeko aukerarik izan. R. M. Azkuek JCVra eta A. Tovarrengana jo zuen laguntza eske, baina *Euskera* aldizkari ofiziala berriz argitaratzeko baimenik ez zuen lortu. Zentsura ideologikoaren oztopo ugari gainditu eta hainbat urtez geldiarazita egon ondoren, R. M. Azkueren *EY-LPPV* (1942-1947) eta *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949) agertu ziren.

Gerra Hotzaren testuinguruan, frankismoak bere irudia nazioartean garbitu behar zuelako, hizkuntza politika lasaitu egin zen. Hezkuntza Nazionaleko ministroaren 1944ko uztailleko dekretu batek, adibidez, herri hizkuntzei lekua eman zien unibertsitateko filologia erromanikoaren sailean. Besteak beste, curriculumez kanpoko euskara nahiz proventzera ikastaro berezien aukera ezarri zuen. Liberalizazioak liburugintzan, halaber, isla erlatiboki nabarmena izan zuen. Hala ere, bazterketa administratiboak, hezkuntza elebakarrak, gaztelaniazko komunikabideen indarrak eta barne migrazioak hizkuntza periferikoen asimilazioa nahitaez ekarriko zuela uste zen.

Euskaltzaindia, bitartean, oihartzun publikorik ez zuten batzar akademikoak

egitera eta lexikografika lantzeraz mugatu zen. 1940ko hamarkadan, Bilbon eta Donostian txandaka, 49 batzar egin ziren, urteko 5,44 batzar. EBERen garaian baino hiru aldiz gutxiago, alegia. Biziera semiklandestino horren erakusgarri, 1944ko martxoan, euskaltzainburuaren irakurraldia poliziak eten egin zuen Bilboko Ribera kaleko egoitzan. Garaiko testuinguru politikoak baldintzatuta, 1936ko kolapsoaren ondoren, 1940ko hamarkadako jardura akademikoa biziraupen hutsa izan zen, baina 1950eko hamarkadan agerikotasuna irabazi zuen ALVk berriz ere.

Euskara estandarra arauturik gabe zegoen neurrian, garrantzi handiko urratsa zitekeen Euskaltzaindiak *Diccionario español-vasco* normatibo bat argitaratzea, artean 1920ko ortografia baitzen ALVk zehaztutako arau bakarra. Hura izan zen hamarkadako egitasmo akademiko nagusia, hala denbora nola gastu aldetik, baina euskaltzainburuaren 1951ko heriotzak ezinezko bilakatu zuen hiztegia amaitzea. Neologismoz betetako hiztegi normatiboaren eta hiztegi deskribatzailearen arteko eztabaida berriz piztu zen, eta bigarrenaren alde egingo zuen L. Michelena euskaltzain berriak 1954tik aurrera.

Gerraondoan, halaber, ALVk laguntasuna eskaini zuen bizkaierazko hainbat kristau ikasbideren argitalpenean. Barnealdeko basamortu editorialean, euskal katixima xume horiek poz handiarekin hartu zituzten, baita erbestean ere. Eliza katolikoaren itzala beharrezkoa zen Espainia frankistan, euskararen aldeko ekintzak gutxieneko berme politikoarekin burutu ahal izateko. Garaiko testuinguru politikoan, lorpen ikaragarria izan zen Bilboko elizbarruti berriaren buletinean zirkular informatiboak euskaraz ere agertzea. Donostiako elizbarrutiak, halaber, Gasteizko administratzaile apostolikoak ezarritako jokabideari eutsi zion, frankismoari zeharo atxikita, baina autonomia gordez herri hizkuntzaren ahozko pastoralaz den bezainbatean. Donostiako elizbarrutiaren baimenarekin, orobat, P. Axularren *Guero* berrargitaratu zuen ALVk 1954an, etorkizuneko euskara estandarren idatzizko eredu klasiko nagusia. «Cantabria» frantziskotar probintzia ere euskararen erabilerarako aterpe izan zen, batez ere Kubatik itzulitako P. Lete (OFM) 1949an probintzial izendatu ondoren.

Diktadura frankista bera bezala, euskal ikasketak nazioarte mailan guztiz isolatuta geratzeko arriskuan zeuden. Autarkia hori, J. Urquijoren harreman sareari esker hautsi zen batez ere. Hain zuzen, J. Urquijo buru zuen RSVAPek hartu zuen partez argitalpenen lekukoa, diktadurak inposatutako muga zientifikoaren barruan. Euskararen harreman genetikoaren auziak berebiziko garrantzia hartu zuen eta irakurketa antiseparatista

funsgabeak argitaratu zituen CSICek, J. Urquijoren atsekaberako. Hizkuntzalaritzaz eta batez ere tipologia genetikoaz ziharduten lanak ziren garrantzitsuenak, tesi politikoak indartzen ala ahultzen zituztelako, ondorioen arabera. Euskaltzain tradizionalista bera euskal filologia politikoki orbangabearen sinbolo bilakatu zuen frankismoak. RSVAPek 1949an egin zion omenaldi jendetsuan NFDak ere parte hartu zuen, garaiko testuinguruan zentro/periferia arteko tentsioen ikur nabarmena izan zena.

Hain zuzen, J. Bilbaok J. Urquijori 1948an gutunez jakinarazi zion, Pirinio Behereetan EIL-SIEB sortu zutela ezagun zahar eta abertzalez osatutako zuzendaritzarekin. J. M. Barandiaranek, halaber, G. Bähr zenak Alemanian aurkeztutako *Baskisch und Iberisch* tesia argitaratzea lortu zuen, EJ-GEk diruz lagundutako *Eusko-Jakintza* aldizkari berrian. Erbeste abertzaleak barnealde frankistari irabazitako lorpen zientifikoa izan zen hura. Tesiak euskara-iberiera arteko harreman genetikoa ukatu eta euskara hizkuntza isolatutzat jo zuen, nazionalismo espainolak eta tradizionalismoak hain gogoko zuten teoriaren aurka. Gerraondoko Euskaltzaindia, erbesteko euskal ekoizpenaren eta kritiken aurrean ez ezik, barnealdeko egitasmo ofizialekiko lotsagarri geratu zen. CSIC-RSVAPen euskararekiko asmoei beste batzuk gehitu behar zitzaizkien, falangismoaren itzal mehatxariaz jantzitakoak. Hezkuntza Nazionaleko ministroaren 1952ko aginduz «Manuel de Larramendi» katedra sortu zen Salamancako Unibertsitatean. Erbestetik itzultitako J. M. Barandiaranek inauguratu zuen, Espainian euskal ikasketen sare bat berriz ehuntzen hasita.

EAJ-PNVri dagokionez, hasieratik izan zuen diktadurapeko ALVren berri, baina ez ikusiarena egin zion, erabaki publikoak hartzeko gaitasunik ez zuelako, eta jeltzaleek ezin zutelako zuzenean eragin haren jarduera akademikoan. Euskararen batasuna arazoa zen jeltzaleentzat, baina ez zuten irizpide ofizialik, batez ere alderdiko kideen artean sortzen zituen eztabaidak ikusita. Literatur dialektalismoak edota lexikoaren purismoak eztabaida zismatikoak eragiten zituen. Lehentasuna nazioartean frankismoa salatu eta EBerekiko elkarlana ziren. Euskararen inguruan eztabaida bat sortzea, sabindar ortodoxoei bozgorailu bat emateko arriskuarekin, EJ-GEk saihestu egin nahi zuen. T. Monzón EGLZ-DCEko buru populistak ere, bertsolari txapelketak, Eskualzaleen Biltzarrak edota Euzkeraren Egunak antolatzaera bideratu zituen baliabide ekonomikoak. EJ-GEren babesarekin, EIL-SIEBk 1948an Biarritzen ospatutako biltzarrak oihartzun mediatiko handia izan zuen eta frankismoaren hizkuntza politika salatzeke baliatu zuten.

Hain zuzen, Bizkaiko gizarte frankistatik hautatutako euskaltzain berri bat, F.

Krutwig gaztea, ALVren erreforma bultzatzen hasi zen une horretan, zuzendaritzaren onespenezekin. Alde batetik, euskara estandarren auzia plazaratu zuen berriro, liberalismo ideologiko anbiguo bati lotuta. ALVk Aro Modernoko literatur lapurtera ofizialki euskara estandarizat hautatzea, F. Krutwigek nahi zuen bezala, eztabaida akademikotik kanpoko gehiegikeria zen. Hala ere, herri hizkuntzaren literatur estandarizazioaren arazoa ekarri zuen berriz eztabaidara, frankismoak beti saihestu nahi izan zuena. Gainera, klasismoz nabarmendu zuen euskararen irautean burgesiak eta intelektualek zuten eredu funtzioa. Abertzaleak modu iraingarrian atzerakoi ezjakinekin parekatu zituelako, erbestearen oposizioa jaso zuten asmo horiek..

Bestetik, korporazioaren berregituratze bat diseinatu zuen F. Krutwigek, berak faboratzen zuen dialektotik hurbilago zeuden Frantziako kidez osatua. Bertaratzea errazteko 1949tik aurrera batzar gehienak Donostian egin arren, haien parte hartzea oso urria izan zen korporazioaren bizitzan. Espainiako muga estatala zeharkatzea nekeza zen, baimenak garaiz eskatu behar zirelako eta garraioa motela zelako. Frantziako errepublika demokratikoan, izan ere, egoitza diktadura frankistan zuen ALV baino plataforma askoz egokiagoak zituzten eskura euskararen alde aritzeko. Besteak beste, 1951ko Deixonne Legeak bretoiera, katalana, okzitaniara eta euskara sartu zituen hezkuntza sisteman lehen aldiz. Lexikografian edota prentsa idatzian ere bide autonomia landu zuten, Espainia-Ameriketako purismoa baztertuta.

EAJ-PNVko buruzagien jarrera itzarotea izan zen, ALVri eta euskara estandarren asmoari oposizio aktiboa ez egin, baina ezta garrantzirik eman ere. Zer bide hartzen zuen ikusi nahi zuten, diktaduraren kontraesanak agerian jartzeko tresna bilakatu zitekeen ala haren hizkuntz politika estaltzeko apaingarri hutsa ote zen. EAJ-PNVren ikuspegitik, N. Ormaechearen *Euskaldunak* argitaratzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala euskaratzea eta are Gasteizko elizbarrutiaren kristau ikasbidea euskaraz agertzea, askoz garrantzitsuagoa zen, barnealdeko ALVk har zezakeen edozein erabaki baino. Hain zuzen, Euskaltzaindiarekiko oposizio gogorrena Ameriketako *Euzko-Gogoa* aldizkariak eta bereziki N. Ormaechea idazleak egin zuten, baina distantzia ozeanikoak moteldutako kritikak izan ziren. Euskararen batasuna lortzeko iragartzen ziren neurriak, literatur eremuan, ortografian edota neologismoetan, linguistikoki eztabaidagarriak ez ezik, politikoki zeharo bidegabeak ziren haientzat, diktadura frankistak indarrez sortutako eten kultural eta historiko batetik zetozelako.

Oposizio eragingarriagoa izango zen barnealdeko abertzaleek, euskaltzainek barne, egin zutena. Hizkuntza ereduaz beste, bi ikuspegi soziolinguistikok egiten zuten talka argi eta garbi. F. Krutwigi, bere maximoen programa idealistan, gizarte euskaldunaren egoera erreala eta abertzaletasunaren ekarpen historikoa aintzat ez hartzea leporatzen zioten. Posibilismoari esker, besterik ezean, azken urteetan Gipuzkoan hainbat euskal liburu argitaratzea lortu zuten Itxaropena argitaletxearen edota frantziskotarren bidez. Dena dela, S. Aranak eragindako iraultza linguistikoaren aurkako giroa sendotu egin zen ALVn, etorkizunean jarraipena izango zuena.

R. M. Azkue eta J. Urquijo hil zirenean, Euskaltzaindi zaharrarekiko lotura sinbolikoki hautsi egin zen. Betiereko euskaltzainburuak erakundean izandako eragin dominanteagatik eta J. Urquijok diktadura frankistan zuen ospe politikoagatik, ALV desagertzeko zorian egon zen une horretan. Bitartean I. M. Echaide integrista euskaltzainburuorde izendatu zuten, Gipuzkoako agintari frankistekiko harremana erraztu zuena. Bestalde, Bilboko ekitaldi publikoan, N. Oleaga ALVko idazkari karlistak euskararen egoera negargarria salatu zuen. Hiriburuan ez ezik, Bizkaiko herri guztietan euskarak zeraman atzerakada larria salatu zuen. Bide horretatik jarraituta, hizkuntzarik gabeko akademia izango zen Euskaltzaindia. Zuzendaritzak F. Krutwigen erreformari eta Bilboko idazkariaren erreklamazioei emandako babesak, agintari frankistekiko harremana gaiztotu egin zuen.

F. Krutwigekek bere burua euskaltzainburuaren premu gisa ikusten zuen ordurako. Botere hutsunea baliatu zuen, bere posizioa ALVn indartzen saiatzeko. Aldi berean, kolaborazionismo salaketak uxatzearen, jeltzaleekin adiskidetzen saiatu zen. Bestetik, Bilboko gizarte frankistan ezina lortu nahi izan zuen: euskal kulturalismo apolitikoa hedatzea. Barnealdean separatistatzat eta erbestean faxistatzat salatua, euskaltzain gaztea maniobrarako espaziorik gabe geratu zen. F. Krutwigekek Bilboko ekitaldi publikoan, ALVren posibilismoaren mugak agerian utzi zituen. Aginte politiko frankistari zuzenean eraso orde, Eliza katolikoaren euskararekiko jarrera salatu egin zuen. Atzera bueltarik gabeko urratsa izan zen hura. Fiskalak autoritateari men ez egiteagatik eta legez kontrako propagandagatik inputatu zuen, baina polizia F. Krutwig atxilotzera joan zenean Frantziara ihes eginda zegoen. Bizkaiko gobernadore zibilak ALV presionatu zuen, F. Krutwig egotzi zezan, baina batzarrak ez zuen onartu G. Riestraren interbentzionismoa.

Krisi erabatekoaren aurrean, ALV hiltzen utzi orde, barnealdeko euskaltzainek erakundearen jarraipena ziurtatu zuten. Bizkaian jasandako higadura politikoaren

ondorioz, Euskaltzaindiaren grabitate zentroa Gipuzkoarantz aldatu zen. Donostiako I. M. Echaide zuzendari lanak betetzen hasi zen. GPDak SFVJU sortu zuen 1953an, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari ofiziosoa bilakatu zena. Bizkai-Gipuzkoako industrializazio berritua erakartzen ari zen immigrazioak ageriago utzi zuen euskararen ahultasun demolinguistikoa. Hala ere, diktadura frankistan ezin zen gizarte erabileran zuzenean eragin (adibidez, oinarrizko hezkuntzaren bidez), tokiko zenbait agintari politiko arazoaz arduratuta agertu arren. Hain zuzen, ALVren ikerketa gaitasuna gaudituta ageri zen SFVJUren programarekiko. Horrek, bide batez, era batera edo bestera adierazitako ALVren gizarte sustapenaren nagusitasunari arrazoia ematen zion. L. Michelenaren ohi ez bezlako gaitasunari eta GPDaren aurrekontuari esker, *RIEV* 1936an desagertu zenetik, SFVJU izango zen euskal filologiaren arloan Euskal Herrian agertutako egitasmo sendoena.

Euskaltzaindiak aginte politikoarekiko lotura sendotzea lortu zuen Gipuzkoan. Zentsura frankistaren oztupo ugari gaudituz ondoren, *Euskeraren* zenbaki bakarra argitaratzea lortu zuten, batez ere Donostiako lojendiotarren laguntzari esker. Agerkari ofizialarena funtsezko auzia zen ALVren jardueraren berri eman eta hartutako erabakiak plazaratzeko. Tresna hori gabe, ezin zitzaion aurre egin askok salatzen zuten ALVren hutsaltasunari. Espainia erregimen katoliko, antikomunista, baina ez-totalitarioa zela frogatu nahi zuen sektoreari laguntza eskatu zion ALVk, falangismoaren intolerantzia nazionalistari ihes egitearren. Agerkaria normaltasunez 1956 arte argitaratzen ez hasi arren, atzeraezinezko urratsa izan zen hura. Literatur sarien eta Itxaropena argitaletxearen katalogoaren bidez, bestalde, euskarazko prosa laikoa barnealdean lantzea lortu zuten, argitalpenen pisu guztia erbestean utzi gabe.

I. M. Echaidek estatutu-erregela berriak bultzatu zituen, nahiz eta ALVk legezko izaera zehatzik gabe jarraituko zuen. 1920ko araudia zaharkitua zegoen, eta 1954ko araudi berriak beste 20 urte iraungo zuen, egitura berria egonkortu zenaren erakusgarri. Euskaltzain kopurua handitzeaz edota baldintza genealogikoak baztertzeaz gain, aldaketa nabarmena EI-SEVekiko harremana eta mendekotasun teorikoa ezabatzea izan zen. ALVren arduradunek aukera baliatu zuten independentzia akademikoa ezartzeko. Euskaltzaindia ez zen inoiz kuotak ordaintzen zituzten bazkidez osatutako EI-SEVen gisako elkarte izan, baina ezta RAE bezalako estatu mailako erakunde ofiziala ere. Euskaltzainek nahiago izan zuten ez ikusiarena egin ziurgabetasun juridiko horri.

Hemen azaltzen saiatu garen bezala, Euskaltzaindia ez zen diktadura frankistaren hizkuntza politika zurrizko tresna hutsa izan. Egoerak inposatutako komisario politikoek inoiz ez zuten jarduera akademikoa guztiz baldintzatzeko gaitasunik izan. R. M. Azkue euskaltzainburuak argi zuen botere politikoaren baldintzak onartuta ere, ALVen gutxieneko autonomia gorde zitekeela. Zentzu horretan, itolarri ekonomikoaren eragina larriagoa izan zen. Hizkuntzaren normatibizazioaren porrota, ordea, euskararen estandarizazio maila ahulari sor zitzaion. Azken euskaltzain sortzaileak hil ondoren, I. M. Echaidek edota N. Oleagak zuzendaritza zaharraren jarrerari eutsi zioten, ideologia espainolistari uko egin gabe. Erakundearekiko konpromiso zorrotza erakutsi zuten beti, eta diktadura frankistarentzat politikoki onargarria zen irudia eman zioten ALVri. Tradizio katoliko, foruzale eta ordurako zeharo antidemokratiko baten lekukoak ziren. Estatuaren indar zentralizatzailearen aurrean, tokiko ezaugarriak nahiz erakundeak indartzea helburu zuten, baina gizartearen ikuspegi erreakzionario baten izenean. Hain zuzen, estatu frankistaren presioari aurre egin eta barnealdeko euskaltzain jeltzaleen elkarlana onartu zuten, euskara biziak ezin zuelako falangismo ofizialean inolako aterperik aurkitu.

14 AIPATUTAKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

14.1 Artxibo eta bibliotekak

ABA-AIB: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Andima Ibiñagabeitia funtsa (Bilbo)

ABA-ATO: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar (Bilbo)

ABA-EUS: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Euskaltzaindiaren funtsa (Bilbo)

ABA-JCG: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa (Bilbo)

ABA-LAF: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Piarres Lafitte funtsa (Bilbo)

ABA-ODA: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Odon Apraiz funtsa (Bilbo)

ABA-RMA: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Resurrección M^a Azkue funtsa (Bilbo)

ABA-ZAI: Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa (Bilbo)

ABK: Euskaltzaindiaren Bibliotekaren katalogoa (Bilbo)

ACA: Adolfo Careagaren artxibo pertsonala (Getxo, Bizkaia)

AUSA: Salamancako Unibertsitatearen Artxiboa, Antonio Tovar funtsa (Salamanca)

BFAH-EC: Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio atala, «Educación y Cultura» funtsa (Bilbo)

BFAH-GAE: Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio atala, «Gobierno y Asuntos Eclesiásticos» funtsa (Bilbo)

BFL-AI: Bizkaiko Foru Liburutegia, Alfonso Irigoyen funtsa (Bilbo).

BIUA: Bilboko Udal Artxiboa (Bilbo)

EAH-EJAH-LS: Euskadiko Artxibo Historikoa, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza Sailaren funtsa (Bilbo).

EIA-MI: Eusko-ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos Artxiboa, Manuel Irujo funtsa (Donostia)

EJM-GZ: Espainiako Justizia Ministerioa, Getxoko Egoera Zibileko Erregistroa (Getxo, Bizkaia)

EJM-MZ: Espainiako Justizia Ministerioa, Madrilgo Egoera Zibileko Erregistroa (Madril)

EJM-PZ: Espainiako Justizia Ministerioa, Portugaleteko Egoera Zibileko Erregistroa (Portugalete, Bizkaia)

HUA: Hernaniko Udal Artxiboa (Hernani, Gipuzkoa)

JLA-FK: Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federiko Krutwigen biblioteka (Beranga, Cantabria)¹⁴⁸⁹

KMK: Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena Kulturunearen funtsa (Donostia)

KMK-JU: Koldo Mitxelena Kulturunea, Julio Urquijo funtsa (Donostia)

KMK-KM: Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa (Donostia)

ODS-LAC: Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa (Bergara, Gipuzkoa)

RAE-JU: Real Academia Española-ren Artxiboa, Julio Urquijoren espediente pertsonala (Madril)

RAE-RMA: Real Academia Española-ren Artxiboa, Resurrección M^a Azkueren espediente pertsonala (Madril)

RAE-XLVI: Real Academia Española-ren Artxiboa, XLVI. batzar agiri liburua (Madril)

SAF-AA: Sabino Arana Fundazioa, Abertzaletasunaren Agiritegia (Bilbo)

SSF-JMA: Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa (Gasteiz)

STM: San Telmo Museoaren Artxiboa (Donostia)

TUA: Tolosako Udal Artxiboa (Tolosa, Gipuzkoa)

14.2 Hemeroteka

ABC (Sevilla, Madril)

¹⁴⁸⁹ Josu Lavinek F. Krutwigen liburutegi pertsonalaren zati handiena gordetzen zuen, nik 2010eko udan aztertu nuenean. Liburuak aipatzean, F. Krutwigen aleen edizio urtea aipatzen dut, ez jatorrizko edizioa.

Alderdi (Baiona)

Anaitasuna (Bilbo)

Aránzazu (Oñati)

Arbor (Madril)

ASJU (Donostia)

Azkatasuna (Donibane Lohizune)

BIAEV (Buenos Aires)

BOE (Burgos, Madril)

Boletín Oficial del Obispado de Bilbao (Bilbo)

Boletín Oficial del Obispado de San Sebastián (Donostia)

Boletín Oficial del Obispado de Vitoria (Gasteiz)

BOPV (Bilbo)

BRAE (Madril)

BRAG (Coruña)

BRSVAP (Donostia)

Bulletin de la Société de Linguistique de Paris (Paris)

Bulletin du Musée Basque (Baiona)

Cantabria Franciscana (Oñati)

CE-PV (Bilbo)

Le Courier de Bayonne (Baiona)

El Día (Donostia)

Diario de Navarra (Iruñea)

El Diario Vasco (Donostia)

EAE-DOPV (Bilbo)

Egan (Donostia)

EID-BSEV (Donostia)

Elgar (Paris)

Emerita (Madril)

Euskera (Bilbo)

Eusko-Jakintza (Baiona)

Euzko Deya (Paris)

Euzko-Gogoa (Guatemala, Biarritz)

Gaceta de Madrid (Madril)

La Gaceta del Norte (Bilbo)

Gernika (Donibane Lohizune)

Gure Herria (Baiona)

Herria (Baiona)

Hierro (Bilbo)

JORF (Paris)

OPE (Paris)

Pensamiento Alavés (Gasteiz)

Príncipe de Viana (Iruñea)

RIEV (Paris, Donostia)

La Vanguardia (Bartzelona)

La Voz de España (Donostia)

Yakintza (Donostia)

Zumárraga (Bilbo)

14.3 Bibliografia

AGIRRE, Domingo (2008): *Gutun bilduma*. Bilbao: Euskaltzaindia.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba; dir. (1998): *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*. Donostia-San Sebastián: EI-SEV.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba; dir. (2002): *Bilbao desde sus alcaldes, Vol. 2*. Bilbao: Bilboko Udala.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba et al. (2007): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba & URQUIJO, Mikel; dir. (2008): *Bilbao desde sus alcaldes, Vol. 3*. Bilbao: Bilboko Udala.

AGIRREBALTZATEGI, Paulo (2003): «Euskararen erabilera eta euskarazko inkulturazioa Arantzazun, XX. mendean». In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Arantzazu: ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz = investigaciones y ensayos acerca de su historia en el siglo XX*. Arantzazu: Ed. Frantziskoarrak, 291-339.

AGUD, Manuel (1953): «Apellidos vascos. Luis Michelena». In: *BRSVAP*, **IX**, 279-281.

AGUD, Manuel (1968): «El Diccionario Etimológico Vasco». In: *BRSVAP*, **XXIV**, 39-49.

AGUD, Manuel (1988): «In memoriam: Luis Michelena». In: *ASJU*, **22**, 3-4.

AGUD, Manuel & TOVAR, Antonio (1988-1994): *Diccionario etimológico vasco*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Guipúzcoa.

AGUIREGABIRIA, Manuel (1978): «Euskaltzaindiaren lehen urratsak». In: *Euskera*, **23**, 355-356.

AINTZINA (1943): *Axular: (1643-1943)*. Bordeaux: Aintzina.

AIZPURU, Mikel (2012): *Amets baten oinordeko gara, 1936ko Euskal Unibertsitatea = Heredamos un sueño, La Universidad Vasca de 1936*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

AIZPURU, Mikel et al. (2007): *El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani*. Irun: Alberdania.

AKESOLO, Lino [ZUBERO'tar Andoni] (1954): «Euskalherriaren Adiskideak eta euskal-hiztegia». In: *Euzko-Gogoa*, **9-10**, 152-153.

AKESOLO, Lino (1985): «Aingeru bizkaitar baten oroimenean». In: *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura*, **4**, 43-49.

ALONSO CARBALLÉS, Jesús J. (1998): *1937: los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*. [S.l.]: Asociación de Niños Evacuados el 37 = 37an Atzerriraturiko Haurren Elkartea.

ALONSO OLEA, Eduardo J. (2014): «La Diputación Provincial durante la Dictadura de F. Franco (1937-1979)». In: AGIRREAZKUENAGA, Joseba (dir.): *Historia de la Diputación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia = Diputación Foral de Bizkaia, 523-550.

ALTED VIGIL, Alicia (1984): *Política del nuevo estado sobre el patrimonio cultural y la educación durante la guerra civil española*. Madrid: Ministerio de Cultura, Centro Nacional de Información Artística, Arqueológica y Etnológica.

ALTONAGA, Kepa (2006): *Etxepare, Aldudeko medikua*. Bilbo: Euskaltzaindia; Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALTUBE'tar, Seber (1933): «La vida del euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa». In: *Euskera*, **14**, 299-397.

ALTUBE'tar, Seber (1936): «Más sobre la vida del euskera: barriro euskeraren bizitzari buruz». In: *Euskera*, **17**, 1-192.

ALTUBE, Seber (1949): «La unificación del euskera literario». In: *Eusko-Jakintza*, **III**, 181-204.

ALTUBE (Euskaltzaiña) (1950): «Erbestetuek erbestetuei». In: *Euzko-Gogoa*, **1**, 8.

ALTUBE'k (1952): «¡Agur, Azkue jauna, agur!». In: *Gernika*, **18**, 20-21.

ALTUNA, Patxi (2001): *Raimundo Olabide*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ALTUNA, Nere et al. (2007): «Resurreccion Maria Azkueren musika artxiboa». In: *Musiker*, **15**, 73-115.

ALTZIBAR, Xabier (2005): «Lauaxeta eta *Euzkadi* egunkariaren euskal atala». In: *Euskera*, **50**, 559-626.

ALTZIBAR ARETXABALETA, Xabier (2015): «Eguna egunkariko idazleak (1937)». In: EZEIZABARRENA, María-José & GÓMEZ, Ricardo (ed.): *Eridenen du zertzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 27-48.

ALV (1919-1920): «Euskaltzain kideak = Miembros de la Academia de la Lengua Vasca = Membres de l'Académie de la Langue Basque». In: *Euskera*, **1**, 13-18.

ALV (1920a): *Euskaltzaindiaren soñtarauak = Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca*. Bilbao: Eusko Argitaldaria = Editorial Vasca.

ALV (1920b): *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca*. Bilbao: Eusko Argitaldaria = Editorial Vasca.

ALV (1925): «Euskaltzaindia'ren bostgafen urteko batzarak». In: *Euskera*, **5**, 115-135.

ALV (1926): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak». In: *Euskera*, **7**, 60-78.

ALV (1930a): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak». In: *Euskera*, **11**, 44-61.

ALV (1930b): «Euskaltzain eta urgazle jaunen izen-abizenak eta zuzenbideak = Nombres, apellidos y dirección de los académicos de número y correspondientes». In: *Euskera*, **11**, 319-320.

ALV (1931): «Euskaltzain, deduzko eta urgazle jaunen izen-abizenak eta zuzenbideak = Nombres, apellidos y dirección de los académicos de número, de honor y correspondientes». In: *Euskera*, **12**, 84-86.

ALV (1933): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak». In: *Euskera*, **14**, 12-25, 276-287.

ALV (1935): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak». In: *Euskera*, **16**, 43-56.

ALV (1953): *Euskera: Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak = trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca: cuaderno 1 (octubre = urrilla 1953)*. Bilbao, San Sebastián: Editorial de la Academia Vasca.

ALV (1954): *Estatutos y reglamento de la Academia de la Lengua Vasca: aprobada en reunión de 24 [i.e. 27] de agosto de 1954*. S.l.: s.n.

ALV (1956): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak». In: *Euskera*, **1**, 317-329.

ALV (1958): «Miembros de la Academia de la Lengua Vasca». In: *Euskera*, **3**, 168-170.

ALV (1961a): «Gregorio Maidagan (1891-1961)». In: *Euskera*, **6**, 350-351.

ALV (1961b): «Euskaltzaindiko urgazle berriak». In: *Euskera*, **6**, 357.

ALV (1962): «Berriak eta gai laburrak». In: *Euskera*, **7**, 357-358.

ALV (1963-1964): «Miembros de la Academia de la Lengua Vasca». In: *Euskera*, **8-9**, 503-507.

ALV (1968): «Berriak eta gai laburrak». In: *Euskera*, **13**, 273-279.

ALV (1972): «Arautegia». In: *Euskera*, **17**, 178-214.

ALV (1974): «Euskaltzaindiaren barne-erregelak = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca = Reglement interieur Academie de la Langue [i.e. Langue] Basque». In: *Euskera*, **19**, 363-387.

ALV (1982): «Euskaltzaindiaren batzar agiriak (1949-1964)». In: *Euskera*, **17**, 1-34.

ALV (2014): «Osoko bilkura Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n». In: *Euskera*, **59**, 223-232.

ALVAREZ, Marian & GARAY URRESTI, Maite (2013): *Kirolariak, artistak, idazleak = Deportistas, artistas, escritores*. Bilbao: Euskal Museoa.

ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI», José Luis (1995): *Euskal Herria helburu*. Tafalla: Txalaparta.

ÁLVAREZ GILA, Óscar (1992): «Iglesia vasca y política franquista. Ejemplos en la provincia franciscana de Cantabria». In: *Actas del I Encuentro de Investigadores del Franquismo, Barcelona 5, 6 y 7 de Noviembre*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona; Societat Catalana d'Estudis Històrics, 155-158.

ÁLVARO OCÁRIZ, José Andrés (2012): *Antonio Tovar: el filólogo que encontró el idioma de la paz*. Logroño: Siníndice.

AMÉZAGA, Elías (1993): *Esteban Calle Iturrino: centenario de un poeta*. Bilbo: Bilbao Bizkaia Kutxa.

ANAUT, Dabid (2013): *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Donostia: Euskal Memoria Fundazioa.

ANDIAZABAL, Pierre et al. (2004): «Pierre Laffitten gutundegia». In: *Euskera*, **49**, 955-983.

ANDIAZABAL, Pierre et al. (2005): «Pierre Laffitten gutundegia». In: *Euskera*, **50**, 211-274.

ANDIAZABAL, Pierre et al. (2006): «Pierre Laffitten gutundegia». In: *Euskera*, **51**, 195-239.

ANDUAGA EGAÑA, Aitor (2008): *Scientia in Vasconia: ochenta biografías de científicos e ingenieros vascos*. Donostia: Ttartalo.

ANTÍA MUNDUATE, Manuel Antonio (1999): *El Buen Pastor: de parroquia a catedral: 1897-1997*. Donostia-San Sebastián: Fundación Social y Cultural Kutxa.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1982): «José Juan Bautista Merino Urrutia (1886-1982)». In:

Euskera, **27**, 721-724.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1983a): *Resurrección María de Azkue*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1983b): «El fondo Bonaparte de Azkue Biblioteca». In: EUSKALTZAINDIA: *Piarres Lafitte-ri omenaldia = Homenaje a Pierre Lafitte = Hommage à Pierre Lafitte*. Bilbo : *Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque*, 127-153.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1990): «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat: euskaltzain sarrera hitzaldia». In: *Euskera*, **35**, 15-33.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1991): «Euskaltzaindiaren egoitza honen historia». In: *Euskera*, **36**, 429-433.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1992): «Luis Villasanteren bio-bibliografia». In: *Euskaltzaindia (1992): Luis Villasanteri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 11-87.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1993): *Julio Urkixo (1871-1950)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ARANA MARTIJA, José Antonio (1997): «Georges Lacomberen artxiboa». In: EUSKALTZAINDIA: *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 49-77.

ARANA MARTIJA, José Antonio (2004): *Bonifazio Etxegarai (1878-1956)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ARANA MARTIJA, José Antonio & UGALDE, Martin (1984): *Euskaltzaindiaren historia laburra = Breve Hª de la Real Academia de la Lengua Vasca = Brève histoire de Euskaltzaindia, Académie de la Langue Basque = A brief history of Euskaltzaindia, Royal Academy of the Basque Language = Zur geschichte des Euskaltzaindia, der Akademie des Baskischen Sprache*. Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque.

ARBELBIDE, Xipri (1997): *Piarres Lafitte (1901-1983)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

AREILZA, José Mª de (1952): *Discurso de Vergara en el centenario de los ingenieros industriales; Pregón de la Semana Vasca de 1952*. Madrid: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

AREILZA, José Mª de (1953): «Una minoría indispensable: *Los Amigos del País*». In: *Zumárraga*, **2**, 71-75.

AREILZA, José M^a de (1974): *Así los he visto*. Barcelona: Planeta.

AREILZA, José M^a de (1992): *A lo largo del siglo, 1909-1991*. Barcelona: Planeta.

AREJITA, Adolfo (2012): «Zamarriparen zurkulu ezkutu batzuk». In: *Idatz eta Mintz*, **53**, 3-14.

AROCENA, Fausto (1949): «La Revista Internacional de Estudios Vascos, de don Julio de Urquijo». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. I. San Sebastián: RSVAP, 57-66.

ARRIEN, Gregorio (1986): «Educación y escuelas de barriada de Vizcaya, 1937-1939 (su traspaso al estado y deterioro de la enseñanza)». In: *RIEV*, **31**, 629-640.

ARRIEN, Gregorio (1989a): «Algunos apuntes sobre el pensamiento pedagógico de Federico Belaustegigoitia». In: AQUESOLO, Lino et al.: *Federico Belaustegigoitia: 1876-1947*. Vitoria: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia, 53-76.

ARRIEN, Gregorio (1989b): «La labor realizada en la Junta de Cultura de la Diputación de Vizcaya y en *Gogo-Lantze Zaingoan*». In: AQUESOLO, Lino et al.: *Federico Belaustegigoitia: 1876-1947*. Vitoria: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia, 131-148.

ARRIETA ALBERDI, Leyre (2007): *Estación Europa: la política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)*. Madrid: Tecnos.

ARRIETA, Leyre & BARANDIARAN, Miren (2003): *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa, Gabinete del Diputado General, Dirección General de Cultura.

ARRUE, Antonio (1954): «Juan Bautista Agirre». In: *Egan*, **1**, 1-7.

AXULAR (1954): *Gero: bi partetan partitua eta berezia*. Zarautz'en: Itxaropena irarkolan.

AYCART ORBEGOZO, José M^a (2005): *La Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País y su «segunda época»: (San Sebastián 1899-1944)*. Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

AYCART ORBEGOZO, José M^a (2006): «El nacimiento de un Boletín *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskalerraren adiskideen elkartea*». In: *BRSVAP*, **LXII**, 171-192.

AZAOLA, José Miguel de (1947): «Cervantes y nosotros». In: *BRSVAP*, **III**, 495-514.

AZAOLA, José Miguel de (1951): «Carta de las regiones: Vasconia». In: *Arbor*, **69-70**, 118-130.

AZAOLA, José Miguel de (1980): «Aproximación a las capitales vascas». In: *Páginas de historia*

del País Vasco: homenaje de la Universidad de Navarra a D. José Miguel de Barandiaran: (abril-mayo, 1977). Pamplona: Universidad de Navarra, 59-136.

AZAOLA, José Miguel de (1985): «Vizcaya, de la foralidad residual a la Comunidad Autónoma». In: *El Correo Español-El Pueblo Vasco: 75 años informando*. Bilbao: CE-PV, 253-276.

AZKUE, Resurrección M^a de (1891): *Euskal-Izkindea = Gramática eúskara*. Bilbo'n = Bilbao : Astui-ko Jose-n moldezgintzan = Tip. de José de Astuy,

AZKUE, Resurrección M^a de (1925): «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922». In: *Euskera*, **6**, 60-66.

AZKUE, Resurrección M^a de (1928): *Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública del sacerdote Dr. D. Resurrección María de Azkue presidente de la Academia de la Lengua Vasca el día 30 de Diciembre de 1928; contestación de Vicente García de Diego*. Bilbao: Editorial Vasca.

AZKUE, Resurrección M^a de (1935): *Gipuzkera osotua*. Bermeo: Gaubeka.

AZKUE, Resurrección M^a de (1935-1947): *Euskalerraren yakintza: (literatura popular del País Vasco)*. Madrid: Espasa Calpe.

AZKUE, R. M. (1936): «Euskaleñi-yakintza: ipuin ta irakurgaiak». In: *Yakintza*, **21**, 167-169.

AZKUE, Resurrección M^a de (1949): *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*. Bilbao: Talleres Gráficos del Noticiero Bilbaíno.

AZKUE, Resurrección M^a de (1969[1905-1906]): *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

AZKUE, Resurrección M^a de (2004): «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Itaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EL-SEV, 697-729.

AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA (2006): «Azkue Bibliotekaren katalogazio erregelak». In: *Euskera*, **51**, 1109-1258.

AZURMENDI, Joxe (2007): *Volksgeist = Herri gogo: ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkarlanean.

BÄHR, Gerhard (1948): «Baskisch und Iberisch». In: *Eusko-Jakintza*, **II**, 3-30, 167-194, 381-455.

BALCELLS, Albert & PUJOL, Enric (2002): *Història de l'Institut d'Estudis Catalans. Vol. I: 1907-*

1942. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans.

BALCELLS, Albert, IZQUIERDO, Santiago & PUJOL, Enric (2007): *Història de l'Institut d'Estudis Catalans. vol. II: De 1942 als temps recents*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans.

BARANDIARAN, José Miguel de [Eusk.-I.-ren Z.] (1951): «Azkue jaunaren oroitzan». In: *Eusko-Jakintza*, **V**, 241.

BARANDIARAN, José Miguel de (2004): «Bases para un plan de cultura». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed: *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 843-846.

BARANDIARAN, José Miguel de (2009): *Diario personal: volumen II (1936-1953): durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Atun: Fundación José Miguel de Barandiarán.

BARREIRO NOYA, Alejandro (1942): «Al entrar en un nuevo período: resumen de una gestión». In: *BRAG*, **264**, 313-320.

BARRUSO, Pedro (1999): «El difícil regreso. La política del Nuevo Estado ante el exilio guipuzcoano en

Francia (1936-1939)». In: *Sancho el Sabio*, **11**, 101-140.

BAUSANI, Alessando (1947): «El Enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas (Madrid 1944) de F. Castro Guisasola». In: *BRSVAP*, **III**, 281-295.

BELAUSTE'ar, P. (1936): *Hacia una lucha verdad pro-euskera: comentarios*. Bilbao: Talleres Gráficos Jesús Alvarez

BELAUSTEGIGOITIA, Maitena (1989): «Perderika Belaustegigoitia, 1876-1947». In: AQUESOLO, Lino et al.: *Federico Belaustegigoitia: 1876-1947*. Vitoria: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia, 17-52.

BENCE, Erika & NÉMETH, Ferenc (2015): «A Hungarian writer's experience of the Mediterranean: On Ferenc Herczeg's *Szelek Szárnyán* Travelogue/ Ship's Log». In: *Acta Universitatis Sapientiae, Philologica*, **7**, 37-53.

BIDADOR, Joxemiel (2000): *José Agerre Santesteban: gerra-ondoko olerki-lanak (1949-1962)*. Iruñea: Ayuntamiento de Pamplona = Iruñeko Udala.

BIDADOR, José Migel (2003): «Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran: Larrekoren *Gerla urte gezur urte*». In: *Hegats*, **34**, 141-159.

BILBAO, Esteban de (1919-1920): «Discurso de don Esteban de Bilbao». In: *Primer Congreso*

de Estudios Vascos: recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 951-960.

BILBAO, Jon (1947): «Bibliographie basque de M. Georges Lacombe». In: *Eusko-Jakintza*, I, 495-503.

BILBAO, Jon (1949): «Bibliografía de don Julio Urquijo». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. I. San Sebastián: RSVAP, 67-87.

BILBAO, Jon (2004): «Exposición sobre la actual posición de las autoridades españolas respecto de la lengua vasca». In: LARRONDE, *Jean-Claude*, ed: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-lkaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 847-852.

BILBAO, M. Carmen et al. (1991): *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiko Julio de Urquijo hondoaren katalogoa = Catálogo del fondo Julio de Urquijo de la Biblioteca de la Diputación Foral de Gipuzkoa*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Saila = Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Cultura.

BLEIBINGER, Bernhard (2009): «Etnología simbólica: M. Schneider». In: ORTIZ-OSÉ, Andrés & LANCEROS, Patxi, ed.: *Claves de Hermenéutica: para la filosofía, la cultura y la sociedad*. Bilbao: Universidad de Deusto, 134-142.

BOISSEL, William (1937): «Le Musée Basque, musée d'histoire et de folklore». In: *Bulletin du Musée Basque*, 13, 29-47.

CAMINO, Iñaki & LAKARRA, Joseba A. (1993): «Berriain osatuz». In: *ASJU*, 27, 1029-1048.

CAMPIÓN, Arturo & BROUSSAIN, P. (1920): *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera*. Bilbao: Imp. del Ave María.

CANTABRANA MORRAS, Iker (2004): «Lo viejo y lo nuevo: Diputación-FET de las JONS. La convulsa dinámica política de la ¿leal? Álava (Primera parte: 1936-1938)». In: *Sancho el Sabio*, 21, 149-180.

CARO BAROJA, Julio (1941): «Retrosceso del vascuence». In: *Atlantis*, XVI, 35-62.

CARO BAROJA, Julio (1945): «Observaciones generales sobre el estudio del País

Vasco desde los puntos de vista lingüístico, etnográfico y antropológico». In: *BRSVAP*, I, 225-236.

CARO BAROJA, Julio (1946): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Universidad.

CARO BAROJA, Julio (1949): *Los vascos*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

CARO BAROJA, Julio (1972a): *Semblanzas ideales*. Madrid: Taurus.

CARO BAROJA, Julio (1972b): *Los Baroja: memorias familiares*. Madrid: Taurus.

CARRERAS, Luis (1938): *Grandeza cristiana de España: notas sobre la persecución religiosa*. Toulouse: Les Frères Douladoure.

CASAS, Santiago (2012): «Los Cursos Internacionales Católicos de San Sebastián (1935)». In: *Sancho el Sabio*, **35**, 143-163.

CASÁS FERNÁNDEZ, Manuel (1942): «Unas palabras». In: *BRAG*, **264**, 305-313.

CASTRO GUIASOLA, Florentino (1944): *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*. Madrid: Instituto «Antonio de Nebrija».

CAVA MESA, M^a Jesús (2013): «Juan Pablo de Lojendio e Irure (1906-1973). El balcón de las apariencias». In: MORENO CANTANO, Antonio César (coord.): *Cruzados de Franco: propaganda y diplomacia en tiempos de guerra (1936-1945)*. Gijón: Trea, 241-269.

CHACÓN DELGADO, Pedro José (2015): *Nobleza con libertad: biografía de la derecha vasca*. Bilbao: Ediciones Atxular Atea.

CHARRITTON, Pierre (1990): *J. M. Moulier «Oxobi» : (1888-1958)*. Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Publizitate Zerbitzua

CHARRITTON, Pierre [XARRITTON, Piarres] (1997a): «P. Broussainen gutunak J. Urkijori; F. Krutwigen gutunak J. Urkijori». In: *EUSKALTZAINDIA: Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 383-422.

CHARRITTON, Pierre [XARRITTON ZABALTZAGARAI, Piarres] (1997b): «Alemanak eta Baionako Eliza (1940-1944)». In: *Oihenart*, **14**, 203-215.

CHARRITTON, Pierre [XARRITTON, Piarres] (2003a): *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

CHARRITTON, Piarres [XARRITTON, Piarres] (2003b): «Euskaltzaleen Biltzarra 1919tik, 2001era. In: ZALBIDE, Mikel et al.: *Sabino Arana Kultur Elkargoa. Jardunaldiak (2001) Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 135-144.

CHARRITTON, Pierre (2007[1984]): *Pierre Broussain: sa contribution aux etudes basques (1895-1920)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

CHARRITTON ZABALZAGARAI, Piarres (2009): «Euskaltzaindiaren 90. urteburukari». In: *Euskera*, **54**, 169-174.

CHARRITTON, Pierre (2013): *Le fondement moral des droits culturels de l'homme (Kultura eskubideen oinarri etikoak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

CHARRITTON, Pierre & OURET, J. P. (2003): «Pierre Broussain-en gutundegia: laugarren gutun azaoaren aurkezpena». In: *Euskera*, **48**, 969-1021.

CHUECA, Jesús P. (1989): «José Aguerre. Euskaltzale eta abertzale baten oroimenez». In: *Gerónimo de Uztariz*, **3**, 92-96.

CHUECA INTXAUSTI, Josu (1999): *El nacionalismo vasco en Navarra (1931-1936)*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, Mariano [M. C.-G.] (1949a): «El Seminario de Lenguas Prerrománicas». In: *BRSVAP*, **V**, 387.

CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, Mariano (1949b): «La casa nativa de don Julio de Urquijo». In: *RSVAP: Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. I. San Sebastián: RSVAP, 37-56.

CLERO VASCO (1966): *El clero vasco frente a la cruzada franquista: más documentos*. Toulouse: Egi-indarra.

COHEN, Marcel (1978): *Matériaux pour une sociologie du langage: I*. Paris: François Maspero.

CONDE DE SUPERUNDA (1945): «Qué vamos a hacer». In: *BRSVAP*, **I**, 73-76.

CONSEJO SUPERIOR DE INVESTIGACIONES CIENTÍFICAS (1952): *Actas del Primer Congreso Internacional de Pireneístas: San Sebastián, 1950. T. I. Ponencia general, crónica y conclusiones*. Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

DARANATZ, J.-B. (1937): «M. le Commandant de Hoÿm de Marien». In: *Bulletin de la Société des Sciences & Arts de Bayonne*, **21**, 5-20.

DASSANCE, Louis (1952): «Eskualzaleen Biltzarraren sortze eta hastapenak». In: *Gure Herria*, **XXIV**, 211-215.

DELORI, Mathias (2007): «La mémoire de l'exil et de la résistance antifasciste comme ciment

d'une identité supranationale». In: *Cahiers d'histoire*, **100**, 99-117.

DIAZ EGURBIDE, Jon (2013): *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean: eginak eta asmoak*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

DÍAZ HERNÁNDEZ, Onésimo (2008): *Rafael Calvo Serer y el grupo Arbor*. Valencia: Universitat de València.

DÍAZ NOCI, Javier (2012): *Historia del periodismo vasco (1600-2010)*. Donostia: EI-SEV.

DIHARCE «IRATZEDER», Xabier (1997): «Alemana Arranoak inguruka eta aztaparka Beloke-ko gainean». In: *Oihenart*, **14**, 169-178.

DONÉZAR DÍEZ DE ULZURRUN, Javier M^a (1993): «La presencia de la Historia Contemporánea en la revista *Príncipe de Viana*». In: *Príncipe de Viana*, **200**, 621-635.

ECHAIDE, Ana M^a (1984): *Erizkizundi irukoitza: (Euskara 1925)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ECHAIDE, Ignacio M^a (1923): *El verbo vascongado: estudio sintáctico y morfológico y desarrollo de las conjugaciones perifrástica, sintética, respetuosa y familiar*. San Sebastián: Imprenta y librería San Ignacio.

ECHAIDE, Ignacio M^a (1925): *Programa integrista explicado*. Burgos: Imp. Rafael Ibáñez de Aldecoa.

ECHAIDE, Ignacio M^a (1944): *Desarrollo de las conjugaciones euskaras: perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares*. San Sebastian: Gráfico-Editora.

ECHAIDE, Ignacio M^a de (1952): «A propósito de la *Teoría del lenguaje*, de Karl Bühler». In: *BRSVAP*, **VIII**, 53-60.

ECHAIDE, Ignacio M^a (1953): «El Euskera y las lenguas Caucásicas». In: *BRSVAP*, **IX**, 21-35.

ECHAIDE, Ignacio M. (1954): *Los veinte primeros años de la Red Telefónica de Guipúzcoa (1908-1928)*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

ECHEGARAY, Bonifacio de (1950): *Derecho foral privado*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

ECHEVERRÍA, José Ángel de (2007): «Los capuchinos de Navarra-Cantabria-Aragón en los años treinta». In: DRONDA, Javier & MAJUELO, Emilio (ed.): *Cuestión religiosa y democracia republicana en España (1931-1939)*. Pamplona: Universidad Pública de Navarra, 145-296.

EGAN (1948): «Propósito». In: *Egan*, **1**, 1-2.

EGUZKITZA, J. B. (1950): *Umien laguna: («Argi Done Laburra» bizkayeratuta)*. Bilbao: Verdes Atxirika'ren irarkolan.

EI-SEV (1919-1920): «Crónica general del Primer Congreso de Estudios Vascos». In: *Primer Congreso de Estudios Vascos: recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas*. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 951-960.

EI-SEV (1935a): «Naskaldia». In: *EID-BSEV*, **65**, 37-47.

EI-SEV (1935b): «Naskaldia». In: *EID-BSEV*, **66**, 31-39.

EI-SEV (1935c): «Naskaldia». In: *EID-BSEV*, **67**, 22-31.

EI-SEV (1936a): «Sesión de la Junta Permanente del día 22 de Setiembre de 1935». In: *EID-BSEV*, **69**, 1-10.

EI-SEV (1936b): «Junta de Euskel-Bazkunen Alkartasuna = Federación de Acción Popular Euskerista de 21 de Diciembre de 1935». In: *EID-BSEV*, **69**, 11-13.

EI-SEV (1936c): «Escrito al Ministro de Instrucción Pública sobre bilingüismo escolar». In: *EID-BSEV*, **69**, 14-16.

EI-SEV (1936d): «Naskaldia». In: *EID-BSEV*, **69**, 34-43.

EI-SEV & ALV (1935): *Informes sobre el poema «Euskaldunak» de Nicolás de Ormaechea «Orixe»*. San Sebastián: Tip. Arrieta.

ELÓSEGUI IRAZUSTA, Jesús (1970): «Índices de autores, de materias, de recensiones de los 25 primeros años (1945-1969)». In: *BRSVAP*, **XXVI**, 1-160.

ELÓSEGUI IRAZUSTA, Jesús (1978): «Revista *Eusko-Jakintza*: índice de autores y de materias». In: *BRSVAP*, **XXXIV**, 129-167.

ERIZE ETXEGARAI, Xabier (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

ERKIAGARRE (1952a): «Euskararen hel-oihua: Unamuno zuzen othe zan?». In: *Gernika*, **18**, 39-41.

ERKIAGARRE [ERKIAGA'tar, Eusebio] (1952b): «Sinisgogorra». In: *Egan*, **2**, 27-30.

ERKIAGARRE (1953a): «Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal». In: *Gernika*, **22**, 41-42.

- ERKIAGARRE (1953b): «Iparragirre'kin solasian». In: *Gernika*, **24**, 163-164.
- ESCRIBANO HERNÁNDEZ, Julio (1998): *Pedro Sáinz Rodríguez, de la monarquía a la República*. Madrid: Fundación Universitaria Española.
- ESCRIBANO HERNÁNDEZ, Julio (2011): *Historia viva en las cartas de Pedro Sainz Rodríguez, 1897-1986: el ministro de Franco que quiso restaurar a Don Juan*. Madrid: La Esfera de los Libros.
- ESPARZA, Eladio [E. E.] (1943a): «El vascuence en el Libro del Buen Amor». In: *Príncipe de Viana*, **11**, 233-234.
- ESPARZA, Eladio [E. E.] (1943b): «Nuevas investigaciones sobre lengua vasca». In: *Príncipe de Viana*, **11**, 234.
- ESPARZA, Eladio (1945): «Sobre la representación, en Lesaca, en 1566, de la *Pasión trovada* de Diego de San Pedro». In: *Príncipe de Viana*, **20**, 487-491.
- ESPARZA, Eladio (1948): «Hispanidad, no raza». In: *Zumárraga*, **1**, 5-6.
- ESPARZA LEIBAR, Andoni (2005): «La heráldica del *movimiento renacentista vasco*». In: *Emblemata*, **11**, 307-348.
- ESTORNÉS LASA, Bernardo (1996): *Memorias: recuerdos y andanzas de casi un siglo*. Donostia: Auñamendi
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos: aportación de Eusko Ikaskuntza la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia: EI-SEV.
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia (1990): *La construcción de una nacionalidad vasca: el autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. San Sebastián: EI-SEV.
- ETXAIDE-ITHARTE, Yon (1985): «Inazio Maria Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak». In: *Euskera*, **30**, 345-371.
- ETXAIDE-ITHARTE, Yon (1986): *Etxaide Jauna: (Inazio Maria Etxaide Lizasoain injinadorearen bizitza, inguru-giroa eta lanak)*. Donostia: Erein.
- ETXE BARRIA, Jose M^a (1986a): «Euskal Herriko atlas linguistikoaren historiarako». In: *Euskera*, **31**, 375-412.
- ETXE BARRIA, Jose M^a (1986b): «Euskal hiztegietarako ondakin batzuk (II)». In: *Karmel*, **1**, 30-36.

EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA BATZORDEA (1998): *Nomenclátor de apellidos vascos* = *Euskal deituren izendegia*. Madril: Ministerio de Justicia = Justizia Ministerioa; Gasteiz: Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social = Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca.

EUSKO-JAKINTZA (1947): «Plan de Gernika Eusko-Jakintza». In: *Eusko-Jakintza*, **I**, 7-10.

EUSKO-JAKINTZA (1950): «Congreso Internacional de Toponimia y de Antroponimia». In: *Eusko-Jakintza*, **IV**, 84.

EUZKO APAIZ TALDE (1981): *Historia general de la guerra civil en Euzkadi: t. V. El clero vasco (I)*. San Sebastián: Luis Haranburu; Bilbao: Naroki.

EUZKO-GOGOIA (1951): «Euskaltzaindia». In: *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 13.

EUZKO-GOGOIA (1952): «Irakurlearen txokoa». In: *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 31-32.

FABRA, Pompeu (1932): *Diccionari general de la llengua catalana*. Barcelona: Llibreria Catalònia.

FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ-CUESTA, Juan Manuel (2016): «Luis María de Lojendio, portavoz de la política exterior española en la guerra fría». In: *Hispania Nova*, **14**, 213-228.

FERREIRO CURRÁS, Anxo (2013): *Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944): la Iglesia Vasca vencida: asesinada, encarcelada, desterrada y exiliada*. Oñati: Intxorta 1937 Kultur Elkarte.

GALLASTEGI, Cesar (2005): «Mikel Arruza (1890-1966) Bizkaiko Aldundiko euskarazko itzultzaile». In: *Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, **6**, 61-72.

GALLASTEGI, Cesar (2008): «Euskara eta euskal kultura Gasteizko elizbarrutiaren aldizkarian (1901-1950)». In: *Karmel*, **262**, 108-120.

GÁRATE, Justo (1949): «La Baronesa D'Aulnoy en Vasconia y Casiilla». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. II. San Sebastián: RSVAP, 249-273.

GÁRATE, Justo (1951): «Bi lerro». In: *Gure Herria*, **XXIII**, 190.

GÁRATE, Justo (1952): «Berbizkunde Azkue zana». In: *Gernika*, **18**, 4-6.

GARCÍA DE DIEGO, Vicente (1950): «Don Julio Urquijo». In: *BRAE*, **XXX**, 353-362.

GARCÍA DE DIEGO, Vicente (1951): «D. Resurrección María de Azkue». In: *BRAE*, **XXXI**, 361-368.

GARCÍA DE LA CONCHA, Víctor (2014): *La Real Academia Española: vida e historia*. Barcelona: Espasa Libros.

GARCÍA EZPELETA, Fermín (1934;1944): *Geografía de Navarra*. Pamplona: Aramburu.

GARCÍA ISASTI, Prudencio (2004): *La España metafísica: lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel et al. (1998): *Diccionario biográfico de los diputados forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*. Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel et al. (2002): *Historia del navarrismo (1841-1936): sus relaciones con el vasquismo*. Pamplona: Universidad Pública de Navarra.

GARCÍA VENERO, Maximiano (1945): *Historia del Nacionalismo Vasco: 1793-1936*. Madrid: Editora Nacional.

GARCÍA-VENTURA, Agnès & VIDAL, Jordi (2012): «El Instituto Ibérico Oriental (1938-1941). Un intento de introducción de los estudios sobre el Oriente Antiguo en España». In: *Archivo Español de Arqueología*, **85**, 287-296.

GARMENDIA, Elixabete (2008): *Xabier Peña Albizu (1914-1980)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GARMENDIA, Pedro (1931): «Le Statut Basque». In: *Gure Herria*, **XI**, 525-533.

GAVEL, Henri (1947): «Georges Lacombe (1879-1947)». In: *Eusko-Jakintza*, **I**, 491-494.

GAVEL, Henri (1949): «A propos de la transcription d'un son de la langue basque». In: *Gernika*, **9**, 5-9.

GAVEL, Henri (1950a): «Réponse à M. L. A.». In: *Gernika*, **11**, 38-40.

GAVEL, Henri (1950b): «En mémoire de Don Julio de Urquijo». In: *Gure Herria*, **XXII**, 257-260.

GEMBERO-USTÁRROZ, María (2011): «Músicas de tradición oral en Navarra (1944-1947). Recopilaciones conservadas en la Institución Milá y Fontanals del CSIC en Barcelona». In: *Príncipe de Viana*, **253**, 411-462.

GERNIKA (1950): «Notas, comentarios y correspondencia». In: *Gernika*, **13**, 51-56.

GERNIKA (1951): «Notas, comentarios y correspondencia». In: *Gernika*, **17**, 57-68.

GOENAGA, Patxi (2000): «Euskaltzaindia eta euskararen arautzea». In: *RIEV*, **45**, 11-41.

GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Manuel Jesús (2010): *Periplo histórico del Instituto de España; sesión conmemorativa de la fundación del Instituto de España, celebrado el 4 de febrero de 2009*. Madrid: Instituto de España.

GONZÁLEZ SÁEZ, Juan Manuel (2014): «Adolfo Careaga: retrato de un liberal antinacionalista vasco (de la Democracia Cristiana a Unidad Vizcaína)». In: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba & ALONSO OLEA, Eduardo J. (ed.): *Estatu-Nazioen Baitako Nazioak: Naziogintza Kulturala Eta Politikoa, Gaur Egungo European = Naciones en el Estado-Nación: La formación cultural y política de naciones en la Europa contemporánea Nations a l'Etat-Nació: La formación cultural i política de nacions a l'Europa contemporània = Nacions no Estado-Nación: A Formación Cultural e política de nacions na Europa contemporânea*. Barcelona: Editorial Base, 201-210.

GOROSTIAGA, Juan (1934): «Urtzi, Dios». In: *RIEV*, **25**, 672-673.

GOROSTIAGA, Juan (1952a): «Bizkai zaharreko izenak». In: *Euzko-Gogoa*, **5-6**, 22-25.

GOROSTIAGA BILBAO, Juan (1952b): *Epica y lírica vizcaína antigua, vol. I*. Bilbao: Centro de Estudios Vascos de F.E.T y de las J.O.N.S.

GOROSTIAGA BILBAO, Juan (1953): *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596*. Salamanca: Universidad.

GOROSTIAGA, Juan de (1954): «Toponimia de Vizcaya». In: *Zumárraga*, **3**, 55-76

GOYHENETCHE ETXAMENDI, Jean (1997): «Memoire et histoire immédiate: quelques remarques d'ordre épistemologique». In: *Oihenart*, **14**, 133-145.

GRACÍA ALONSO, Francisco (2011): *Pere Bosch Gimpera: universidad, política, exilio*. Madrid: Marcial Pons Historia.

GRANDE RAMOS, Mario (1952): «Sobre el origen del vascuence». In: *Zumárraga*, **1**, 63-68.

GRANDE RAMOS, Mario (1954): «Problemas y métodos de la lingüística vasca». In: *Zumárraga*, **3**, 105-126.

GRANJA PASCUAL, José Javier (1988): «Arturo Campión y la historia». In: *Príncipe de Viana*, **10**, 169-182.

GRANJA, José Javier (1989): «La obra y las ideas de Federico Belaustegigoitia». In: AQUESOLO, Lino et al.: *Federico Belaustegigoitia: 1876-1947*. Vitoria: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia, 17-52.

GRANJA SAINZ, José Luis de la (2008): *Nacionalismo y II República en el País Vasco: Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca, 1930-1936*. Madrid:

Siglo XXI de España.

GRIERA, Antoni (1941): «El estado de los estudios de Filología Románica en España». In: *Boletín de Dialectología Española*, **25**, 9-78.

GRIERA, Antoni (1963): *Memòries*. San Cugat del Vallés: Instituto Internacional de Cultura Románica.

GUAZA, M^a Luisa (1952): *La toponimia romana en Vizcaya*. Bilbao : Ayuntamiento.

GURE HERRIA (1936a): «Nos echos». In: *Gure Herria*, **XVI**, 380-384.

GURE HERRIA (1936b): «A nos lecteurs». In: *Gure Herria*, **XVI**, 385-386.

GURE HERRIA (1937): «Assemblée générale de l'Association *Gure Herria*». In: *Gure Herria*, **XVII**, 31-47.

GURE HERRIA (1938): «Assemblée générale de l'Association *Gure Herria*». In: *Gure Herria*, **XVIII**, 48-60.

GURE HERRIA (1939): «A nos lecteurs». In: *Gure Herria*, **XIX**, 1-3.

GURE HERRIA (1950a): «Nos echos». In: *Gure Herria*, **XXII**, 62-64.

GURE HERRIA (1950b): «Nos echos». In: *Gure Herria*, **XXII**, 127-128.

GURE HERRIA (1950c): «Nos echos». In: *Gure Herria*, **XXII**, 252.

HAEE-IVAP (1987): *Azkue hiztegiaren aurkibidea*. Oñati: HAEE-IVAP.

HAEE-IVAP (1997): *Hiztegia: Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa: (1936ko urritik 1937ko ekainera) = Diario Oficial del País Vasco: (octubre 1936-junio 1937)*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP.

HARITSCHELHAR, Jean (1975): «Le Professeur René Lafon». In: *Bulletin du Musée Basque*, **70**, 171-180.

HARITSCHELHAR, Jean (1997): «Aitzin-solasa». In: Euskaltzaindia (1997): *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 9-13.

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean (2009): «Gerla Zibila: Iparraldeko ikuspegia». In: *Euskera*, **54**, 991-1026.

HEAP, David (2008): «The Linguistic Atlas of the Iberian Peninsula (ALPI): A geolinguistic treasure lost and found». In: *Toronto Working Papers in Linguistics*, **27**, 87–96

HERNÁNDEZ MATA, Amelia (2007): *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944): kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

HUTTON, Christopher (2005): *Race and the Third Reich: Linguistics, Racial Anthropology and Genetics in the Dialectic of Volk*. Cambridge: Polity.

IAEV (1950a): «Informaciones». In: *BIAEV, I*, 56-57.

IAEV (1950b): «Informaciones». In: *BIAEV, I*, 184.

IAEV (1951a): «Informaciones». In: *BIAEV, II*, 44-45.

IAEV (1951c): «Informaciones». In: *BIAEV, II*, 238-240.

IAEV (1952a): «Informaciones». In: *BIAEV, III*, 55-56.

IAEV (1952b): «Informaciones». In: *BIAEV, III*, 114-115.

IAEV (1952c): «Informaciones». In: *BIAEV, III*, 178-179.

IAEV (1952d): «Informaciones». In: *BIAEV, III*, 241-244.

IAEV (1954): «Informaciones». In: *BIAEV, I*, 53-55.

IBARZABAL, Eugenio (1979): «Ayer y hoy de Federico Krutwig». In: *Muga, 2*, 50-68.

IBARZABAL, Eugenio (2001[1977]): *Koldo Mitxelena*. Donostia: Erein.

IBINAGABEITIA'tar, Andima (1951): «PEN euskal bilkura». In: *Euzko-Gogoa, 7-8*, 28.

IBINAGABEITIA'tar, Andima (1952a): «Idazti berriak». In: *Euzko-Gogoa, 1-2*, 28-30.

IBINAGABEITIA'tar, Andima [Idazkariak] (1952b): «Pen Euskal Bilkuraren urteko batzarra». In: *Euzko-Gogoa, 3-4*, 36.

IBINAGABEITIA'tar, Andima (1952c): «Kultur bidean». In: *Gernika, 21*, 237-239.

IBINAGABEITIA'tar, Andima (1953): «Olerkariarenean». In: *Gernika, 23*, 98-102.

IBIÑAGABEITIA, Andima (2000): *Erbestetik barne-minez: gutunak 1935-1967*. Zarautz: Susa.

IKUSKA (1950a): «Conversaciones de Ikuska año 1950». In: *Eusko-Jakintza, IV*, 383-388.

IKUSKA (1950b): «Primer Congreso Internacional de Pireneístas». In: *Eusko-Jakintza, IV*, 457.

INSTITUCIÓN PRÍNCIPE DE VIANA (1940): «Capítulos de la Institución *Príncipe de Viana*». In: *Príncipe de Viana, 1*, 176-178.

INTXAUSTI REKONDO, Joseba (2007): «Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008): Euskararen historia sozialerako proiektua, EHS». In: *Euskera*, **52**, 239-267.

INTXAUSTI, Joseba (2013): «Nazioartetik Donostiara. *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* (1935. 1947-[1958]-1959)». In: AGIRREBALTZATEGI, Paulo et al.: *Karlos Santamaria gaiez gai*. Donostia: Jakin; Euskal Herriko Unibertsitatea, 329-499.

INTXAUSTI, Joseba (2014a): *Euskara eta hizkuntzak, gizartean: I. Aitorpenak. Ekinbideak*. Bilbo: Euskaltzaindia.

INTXAUSTI, Joseba (2014b): *Euskara eta hizkuntzak, gizartean: II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.

INTXAUSTI, Joseba (2014c): *Euskara eta hizkuntzak, gizartean: III. Erljiioak. Eliza kristauak*. Bilbo: Euskaltzaindia.

INZAGARAY, Ramón de (1951): *Historia eclesiástica de San Sebastián*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa.

IPIÑA BIDAURAZAGA, Aritz (2014): «La depuración franquista del funcionariado de la Diputación Provincial de Bizkaia. 1937-1940». In: AGIRREAZKUENAGA, Joseba (dir.): *Historia de la Diputación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia = Diputación Foral de Bizkaia, 513-521.

IRANZO, José E. (1952): «Unamuno y el vascuence». In: *Gernika*, **18**, 29-31.

IRIGARAY «LARREKO», Fermin (1993): *Gerla urte, gezur urte: Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo*. Iruña: Pamiela.

IRIGARAY, José Angel (1985): «Aingeru Irigaray-ren biografia». In: *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, **4**, 17-28.

IRIGARAY, José Angel (1993): «Aintzin solasa». In: IRIGARAY «LARREKO», Fermin: *Gerla urte, gezur urte: Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo*. Iruña: Pamiela, 11-30.

IRIGOYEN, Alfonso (1956): «Aportaciones al diccionario vasco». In: *Euskera*, **1**, 47-48.

IRIGOYEN, Alfonso (1976): *Sorterriaren alde*. Donostia: Kriselu.

IRIGOYEN, Alfonso (1990): *De re philologica linguae uasconicae III*. Acedo: Wilsen.

IRUJO, Andrés (2004): «La editorial vasca Ekin de Buenos Aires». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos: Baiona, Ustaritz, 1954*. Donostia: EI-SEV, 113-115.

IRUJO AMETZAGA, Xabier (2007): «Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko egoitzan finkatutako politika kulturalerako ildo nagusiak (1938-1940)». In: MUÑOZ, Edurne (koord.): *José Antonio Agirre: proiektu kultural bat = José Antonio Agirre: un proyecto cultural*. Donostia: Saturrarán, 77-90.

IRUJO AMETZAGA, Xabier (2009): *Bingen Ametzaga Aristiri [sic] egindako gutunak II: (1939-1969)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IRUJO, Xabier & URRUTIA, Iñigo (2009): *A Legal History of the Basque Language (1789-2009)*. Donostia : Eusko-Ikaskuntza.

IRUJO, Xabier & URRUTIA, Iñigo (2014): «El estatus jurídico del euskera en las transiciones políticas a lo largo de los siglos XIX y XX». In: MADARIAGA ORBEA, Juan & ADOT, Álvaro (coord. = koord.): *Jornadas Internacionales: El euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la historia = Nazioarteko Jardunaldiak: Euskera gobernuko goi erakundetan historian zehar*. Arre: Pamiela, 203-256.

ITHURRALDE, P. (1950): «Paulo Zamarripa aphez zena». In: *Gure Herria*, **XXII**, 291-292.

ITZAINA, Mixel (2008): *Louis Dassance: (1888-1976)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

IZTUETA, Paulo (1991): *Orixeta bere garaia*. Donostia: Etor.

IZTUETA, Paulo (2003): «Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean». In: *Euskera*, **48**, 849-930.

IZTUETA, Paulo & IZTUETA, Ibai (2006): *Orixeta: gutunak (1917-1961)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, Paulo & DIAZ, Jon (2007): *Jokin Zaitegiri egindako gutunak: I. 1932-1955*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

JAUREGI, Oroitz (2005): *Correspondencia de Gerhard Bähr con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)*. Donostia: "Julio de Urquijo" Euskal Filologia Mintegia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

JAUREGI, Oroitz (2006): «Das Baskischetik El vascuencera: R. M. Azkue G. Bähr itzultzen». In: *ASJU*, **40**, 547-560.

JEMEIN, Ceferino de (2004): «Eusko, ala euzko?». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 731-735.

JIMÉNEZ DE ABERASTURI CORTA, Juan Carlos (1997): «Los vascos en la II Guerra Mundial: de la derrota a la esperanza». In: *Oihenart*, **14**, 57-84.

JIMENO JURÍO, José M^a (1996): «La Diputación de Navarra, el euskera y Euskaltzaindia (1949-1952)». In: *Fontes Linguae Vasconum*, **73**, 509-515.

JOHNSTON, William M. (2009): *El genio austrohúngaro: historia social e intelectual (1848-1938)*. Oviedo: KRK Ediciones.

J. M. C. (1950): «Ateneo de Bilbao». In: *Eusko-Jakintza*, **IV**, 457.

J. M. P. (1949): «El patricio vascongado don Julio de Urquijo Ybarra, capitán de investigadores y filólogos». In: *Zumárraga*, **3**, 12-13.

JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA (1952): *La obra de D. Resurrección María de Azcue: edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascófilo*. Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya.

KALZAKORTA, Jabier (2012): «Jean Elissalderen *Alemanak* testua». In: *Idatz eta Mintz*, **53**, 20-26.

KAMUSELLA, Tomasz (2012): *The Politics of Language and Nationalism in Modern Central Europe*. Basingstoke: Palgrave.

KELSO DE MONTIGNY, Alan H. (1949): *How did language originate?* Habana, Cuba: [s.n.]

KINTANA GOIRIENA, Jurgi (2008): *Intelektuala nazioa eraikitzen: R.M. Azkueren pentsaera eta obra*. Bilbo: Euskaltzaindia.

KINTANA, Jurgi (2015): *Azkue: bilbotar ezezaguna*. Donostia: Erein.

KRUTWIG, F. K. (1950a): «Sobre la reorganización de la Academia de la lengua vasca». In: *Gernika*, **12**, 43-44.

KRUTWIG, Federico (1950b): «Arantzazu euskal-poema». In: *Arantzazu*, **320**, 302-303.

KRUTWIG'tarr, F. K. (1951a): «Euskara Euskalerrriaren Kultur-Bidea ledin izan». In: *Gernika*, **14**, 8-11.

KRUTWIG, Federico [FKS] (1951b): «Bilbao, 15 de Enero de 1951». In: *Gernika*, **14**, 56-57.

KRUTWIG, Federico K. [et al.] (1952a): «Juicios sobre el artículo *Euskalerrria o Euzkadi* de Carlos Ruiz Galarreta». In: *Gernika*, **18**, 57-58.

KRUTWIG'tar, F. K. (1952b): «Azkue iaunaren in memoriam». In: *Euzko-Gogoa*, **3-4**, 39-44.

KRUTWIG'tar, F. K. (1952c): «Lafon jaunari ongi-etorria Euskaltzaindian». In: *Euzko-Gogoa*, **3-4**, 51-54.

KRUTWIG'tar, J. (1952d): «Seminario jaunari ongi-etorria». In: *Euzko-Gogoa*, **7-8**, 29-32.

KRUTWIG, Federico [KRUTWING, M.] (1953): «Napparroako harmak». In: *Elgar*, **45**, 4.

KRUTWIG, Federico (1979a): *Mikelditarrak: euskal errankaria hamaika irazkietan eta bederatz biilbetan*. San Sebastián: Ediciones Vascas.

KRUTWIG, Federico (1979b): «Sarrera = Prologue = Prólogo». In: ITHURRY, Jean: *Grammaire basque: dialecte labourdin*. San Sebastian: Ediciones Vascas, I-XXXVI.

KRUTWIG, Federico (1986a): «Un recuerdo del P. Donostia». In: *Musiker*, **3**, 65-71.

KRUTWIG, Federico (1986b): «Hitzaldi bat eta bere aurre-historia». In: *Egan*, **XXXIX**, 11-36.

KRUTWIG, Federico (1986c): «Hirur hitzaldi eta izkribu bat». In: *Egan*, **XXXIX**, 9-50.

KRUTWIG, Federico (1991): *Bilbao de los años cuarenta: en torno a Blas de Otero y Resurrección M^a de Azkue*. Bilbao: [s.n.].

KRUTWIG SAGREDO, Federico [SARRAILH DE IHARTZA, Fernando] (2006 [1963]): *Vasconia*. Bilbo: Herritar Berri.

LABAYEN, Antonio M^a [ASPALDIKO] (1951a): «Urkijo'ren eriotza». In: *Gernika*, **14**, 25.

LABAYEN, Antonio M^a [ASPALDIKO] (1951b): «Euskeraren batasuna». In: *Egan*, **4**, 9-11.

LABAYEN, Antonio M^a [IBALAN] (1952): «Euskera'ren batasuna». In: *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 26-28.

LABAYEN, Antonio M^a (1955): «Elizanburu: bere bizitza ta lanak». In: *Egan*, **1-2**, 23-31, **3-4**, 14-34.

LABAYEN, Antonio M^a (1984): «Nun eta noiz ezagutu nuen R.M. Azkue jaun agurgarria, eta nola egin nion azken-agurra». In: *BRSVAP*, **XL**, 408-410.

LACOMBE, Georges (1952): *Langue basque*. Paris: Centre national de la recherche scientifique.

LAFITTE, Abbé Pierre (1944): *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Bayonne Librairie Le Livre.

LAFITTE, Pierre (1947): «La langue basque de 1939 à 1947». In: *Eusko-Jakintza*, **I**, 11-20.

LAFITTE, Pierre (1949): *Georges Lacombe : 1879-1947*. Bayonne: Courrier.

- LAFITTE, Pierre (1950): «Lettre ouverte». In: *Gernika*, **10**, 19-20.
- LAFITTE, Pierre (1951): «Bibliografía». In: *Eusko-Jakintza*, **IV**, 309-310.
- LAFITTE, Pierre (1952a): «Le linguiste et l'écrivain basque». In: *Gure Herria*, **XXIV**, 57-63.
- LAFITTE, Pierre (1952b): *Les meilleures pages de monseigneur Jean Saint-Pierre*. Bayonne: Le Courrier.
- LAFITTE, Pierre (1979): «Georges Lacombe (1879-1947)». In: *Euskera*, **24**, 487-493.
- LAFON, René (1936): «Notes complémentaires sur adiskide et sur le suffixe casuel -ekin». In: *RIEV*, **27**, 66-72.
- LAFON, René (1949): «Hommage à la langue et à la littérature basques». In: *Eusko-Jakintza*, **III**, 19-38.
- LAFON, René (1950): «Euskaltzaindian Sartze Itzaldia». In: *Gernika*, **13**, 2-5.
- LAFON, René (1952): *Etudes basques et caucasiques*. Salamanca : Universidad.
- LAFON, René (1953a): «Le Basque dans la nouvelle édition des *Langues du monde* (1952)». In: *BRSVAP*, **IX**, 299-334.
- LAFON, René (1953b): «Luis Michelena : apellidos vascos». In: *Bulletín de la Société de Linguistique de Paris*, **49**, 160-161.
- LAFON, René (1956): «Corrections et additions aux dictionnaires d'Azkue et du P. Lhande». In: *Euskera*, **1**, 26-30.
- LAFON, René (1999): *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- LAKARRA, Joseba A. (2011): «Dialektologia diakronikoaz eta euskara batu zaharraz». In: EPELDE, Irantzu (arg.): *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 155-241.
- LAKARRA, Joseba A., MANTEROLA, Julen & SEGUROLA, Iñaki (2016): «Los estudios etimológicos vascos: historia y perspectivas». In: QUIRÓS GARCÍA, Mariano et al. (ed.): *Etimología e historia en el léxico del español: estudios ofrecidos a José Antonio Pascual ("Magister bonus et sapiens")*. Madrid: Iberoamericana; Frankfurt am Main: Vervuert, 845-871.
- LARRONDE, Jean-Claude (1994): *Eskualerri-zaleen biltzarra (1932-1937): eskualerrizaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean = Le mouvement eskualerriste : (1932-1937) naissance du mouvement nationaliste basque en Iparralde = El movimiento eskualerrista (1932-*

1937): *nacimiento del movimiento nacionalista vasco en Iparralde*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

LARRONDE, Jean-Claude (1997): *Exil et solidarité : La Ligue Internationale des Amis des Basques*. Villefranche: Bidasoa.

LARRONDE, Jean-Claude (2004a): «Crónica del Congreso». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, I-LXIX.

LARRONDE, Jean-Claude (2004b): «Histoire du VIIème Congrès d'Études Basques. Biarritz, 1948». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 17-61.

LARRONDE, Jean-Claude (2004c): «Crónica del Congreso». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos: Baiona, Ustaritz, 1954*. Donostia: EI-SEV, I-XXXVI.

LARRONDE, Jean-Claude (2004d): «Histoire de VIIIème Congrès d'Études Basques. Bayonne, Ustaritz 1954». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos: Baiona, Ustaritz, 1954*. Donostia: EI-SEV, 13-39.

LEKUONA, Juan Mari (1991): «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)». In: *Euskera*, **31**, 491-500.

LEKUONA BERASATEGI, Juan Mari (1995): *Manuel Lekuona Etxabeguren*. Donostia: EI-SEV.

LEKUONA'tar Apaizak, Manuel (1949): «Gerrateko nere amabi kantak: (bederatzi idilio, romanze bi ta imno bat)». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco, vol. II*. San Sebastián: RSVAP, 429-452.

LEKUONA ta ETXABEGUREN'dar, Imanuel apaizak (1952): «Gorozika'tik gurutzeaga'ra edo gurutzearen izena gure toki-izendegian». In: *BRSVAP*, **VIII**, 425-466.

LEQUERICA, José Félix (1919-1920): «Proposición del Sr. Lequerica». In: *Primer Congreso de Estudios Vascos: recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas*. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 427.

LHANDE, Pierre (2004): «En zigzag à travers les Amériques». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed.: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 335-339.

LHANDE, Pierre (2001[1926-1938]): *Dictionnaire basque-français et français-basque*. Donostia; Baiona: Elkarlanean.

LOJENDIO, José M^a (1954): «Mogel». In: *Egan*, **2-4**, 16-24.

LOJENDIO OSBORNE, Juan B. (2009): «Vida y obra de Luis M^a de Lojendio». In: *Ondare*, **27**, 151-192.

LÓPEZ ANTÓN, José Javier (1999): *Arturo Campión: entre la historia y la cultura*. Iruñea: Gobierno de Navarra, Departamento de Educación y Cultura; Bilbao: Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa.

LUENGO TEIXIDOR, Félix (1990): «La formación del poder local franquista en Guipúzcoa (1937-1945)». In: *Gerónimo de Uztariz*, **4**, 83-95.

MADARIAGA ORBEA, Juan (2006): *Anthology of apologist and detractors of the Basque language*. Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.

MADARIAGA ORBEA, Juan (2014): *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2014.

MAIDAGAN, Gregorio (1957): «Azkue-ren gorazarrez egindako hitzaldiak: Maidagan jaunarena». In: *Euskera*, **2**, 23-26.

MAJUELO, Emilio (2011): *La idea de historia en Arturo Campión*. Donostia: El-SEV.

MANTEROLA`tar, Gabirel (1934): «Agife euskeltzale». In: *Yakintza*, **11**, 323-334.

MANTEROLA, Ander & ARREGI, Gurutzi (2003): *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran: 1998-1991*. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiaran Fundazioa.

MARTÍNEZ SÁNCHEZ, Santiago (2012): «Las tensiones político-eclesiásticas en torno a Fermín Yzurdiaga, 1936-1939». In: *Hispania Sacra*, **extra. 1**, 223-260.

MARTORELL, Manuel (2010): *Retorno a la lealtad: el desafío carlista al franquismo*. Madrid: Actas.

MARTORELL, Manuel (2011): «Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el relanzamiento de Euskaltzaindia». In: *Euskera*, **56**, 847-872.

MASSOT i MUNTANER, Josep (2003): *Església i societat a la Catalunya contemporània*. Barcelona: L'Abadia de Montserrat.

MATA, Santiago (2012): «De la colaboración a la redención por el fuego. El obispo Leopoldo Eijo

Garay ante la Segunda República y la Guerra Civil». In: *Aportes*, **80**, 131-162.

MATHIEU, Monseigneur (1951): «Un grand deuil. Oraison funèbre de Mr St-Pierre». In: *Gure Herria*, **XXIII**, 321-237.

MENÉNDEZ PIDAL, Ramón (1921): «Introducción al estudio de la lingüística vasca». In: *CURSOS DE METODOLOGÍA Y ALTA CULTURA: Curso de lingüística*. San Sebastián: EI-SEV, 7-33.

MERINO URRUTIA, Juan Bautista [J. B. M. U.] (1954): «La Academia de la Lengua Vasca en Bilbao». In: *BRSVAP*, **X**, 101.

MICHELENA, Luis [MITXELENA, Luis] (1951): «Euskal-literaturaren etorkizuna». In: *Egan*, **3**, 17-21.

MICHELENA, Luis [MITXELENA, Luis] (1953a): «Arnaut Oihenart». In: *BRSVAP*, **IX**, 445-463.

MICHELENA, Luis (1953b): *Apellidos vascos*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

MICHELENA, Luis (2011a): *Obras completas, vol. VII. Fonética y fonología ; Morfosintaxis ; Dialectología*. Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MICHELENA, Luis (2011b): *Obras completas, vol. VIII. Lexicografía ; Historia del léxico ; Etimología*. Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MICHELENA, Luis (2011c): *Obras completas, vol. X. Norma y unificación de la lengua ; Historia de la vascolología ; Presente y futuro de la vascolología ; Reseña de gramáticas, métodos y diccionarios*. Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MICHELENA, Luis (2011d): *Obras completas, vol. XI. Textos vascos*. Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MICHELENA, Luis (2011e): *Obras completas, vol. XIV. Escritos autobiográficos y literarios ; Traducciones ; Actualidad política y cultural ; Entrevistas ; Crítica de cine. Cuestiones históricas y culturales*. Donostia-San Sebastián: Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MIKELARENA PEÑA, Fernando (2013): «Navarra entre el Estatuto Vasco y un Estatuto singular para Navarra». In: *Iura Vasconiae*, **10**, 395-459.

MIRANDE'tar, Jon (1952): «Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz». In: *Euzko-Gogoa*, **9-10**, 18-19.

MIRANDE'tar, Jon (1953): «Euskaldungoaren etsaiak». In: *Gernika*, **23**, 85.

MOGUEL, Juan Antonio (1935-1937): «La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence». In: *Euskera*, **16**, 185-354, **18**, 1-64..

MONIER, Serge (1992): *Le père Lafitte: entretiens souvenirs*. Donostia: Elkar.

MONTEAGUDO ROMERO, Henrique (2008): «Ramón Piñeiro, a Editorial Galaxia e a Real Academia Galega (1950-1962): estratexias de resistencia idiomática fronte ao franquismo». In: *Grial*, **177**, 98-111.

MUÑOIA, Pilar (2006): *Oteiza: la vida como experimento*. Irun: Alberdania.

MURUA URIA, Imanol (1996): «Piarres Xarritoni elkarrizketa». In: *Jakin*, **97**, 85-134.

MURUA URIA, Imanol (1997): «Federiko Krutwigi elkarrizketa». In: *Jakin*, **101**, 61-106.

NÚÑEZ SEIXAS, Xosé M. (1997): «Idioma y nacionalismo en Galicia en el siglo XX: un desencuentro histórico y algunos dilemas en el futuro». In: *Revista de Antropología Social*, **6**, 165-191.

NÚÑEZ SEIXAS, Xosé M. (2013): «The Iberian languages and Spanish nationalism». In: IRUJO, Xabier & MIGLIO, Viola (ed.): *Language rights and cultural diversity*. Reno: University of Nevada, 173-200.

OIHANBURU, Philippe (1951): «Sur le néologisme». In: *Gure Herria*, **XXIII**, 244-248.

OLABIDE'tar, Erraimun (1931): *Itun Berria*. Bilbo'n: Yesu'ren Biotzaren Deya.

OLEAGA, Ramón (2002): «Bilbao, 1936: Gestiones de Nazario de Oleaga para el canje de prisioneros». In: *Bidebarrieta*, **11**, 199-212.

OMAECHEVARRÍA, Ignacio [izengabea] (1951): «¿Esperanto o vascuence?». In: *Cantabria Franciscana*, **9**, 132-139.

ONDARRA, Frantzisko (1997): «Aita Polikarporen bitzta eta obrak». In: *Euskera*, **42**, 61-75.

ORIXE (1949): «La Primera Academia Vasca». In: *Gernika*, **9**, 18-23.

ORIXE (1950a): *Euskaldunak poema: XV kantuetan*. Zarautz: Itxaropena.

ORIXE [ORMAETXEA'r Nikola] (1950b): «Euskalzaindi zarra eraberritzea». In: *Euzko-Gogoa*, **7-8**, 17-18.

ORIXE (1950c): «Errores de vascólogos nuestros». In: *Gernika*, **10**, 15-19.

ORIXE (1950d): «La dichosa ortografía». In: *Gernika*, **10**, 41-43.

ORIXE [ORMAETXEA'tar Nikola] (1951a): «Quito'n arrebarekin». In: *Euzko-Gogoa*, **7-8**, 39-47.

ORIXE (1951b): «Azkue il da G.B.». In: *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 16.

ORIXE [ORMAECHEA, Nicolás] (1952a): «Ciencia y práctica de nuestro idioma». In: *Gernika*, **18**, 23-26.

ORIXE (1952b): «Esku-lztegi bat». In: *Gernika*, **21**, 269-270.

ORIXE (1953a): «Cultismos, pedanteria, barbarie». In: *Gernika*, **22**, 14-16.

ORIXE (1953b): «Ezinbestean (Andima'ri)». In: *Gernika*, **23**, 81-82.

ORIXE [ORMAECHEA, Nicolás] (1966): «Prólogo». In: *Egan*, **1-6**, 128-132.

ORTIZ DE PINEDO, Aitor (2011): *Euskal literatura «Gernika» aldizkari liberalean (1945-53)*. [S. l.]: Erroteta.

OSÉS LARUMBE, Elena (1988): «La Voz de Navarra, un periódico vasquista: sus primeras campañas 1923-1931». In: *Príncipe de Viana*, **184**, 415-435.

PABLO, Santiago de (2007): «La lingua basca durante la dittatura franchista: repressione, resistenza e identità nazionale». In: *Storia contemporanea in Friuli*, **38**, 123-144.

PAGOLA, Manolo (2003): «La construcción de la nueva Basílica de Arantzazu». In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Arantzazu: ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz = investigaciones y ensayos acerca de su historia en el siglo XX*. Arantzazu: Ed. Frantziskoarrak, 125-225.

PAGOLA, Rosa Miren (2005): *Migel Olasagarre (1886-1986): aita Dámaso Intza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

PEDRAZUELA FUENTES, Mario (2010): *Alonso Zamora Vicente: vida y filología*. Alicante: Universidad de Alicante.

PRÍNCIPE DE VIANA (1950): «Los trabajos y los días». In: *Príncipe de Viana*, **38-39**, 181-186.

RAE (1939): *Diccionario de la lengua española*. Madrid: Espasa-Calpe.

RAG (1942): «Sesión extraordinaria: acta de la sesión celebrada por la Real Academia Gallega

- en el Paraninfo de la Universidad de Santiago el 27 de julio de 1941». In: *BRAG*, **264**, 320-326.
- RAGUER i SUÑER, Hilari (2003): *Arxiu de l'Església catalana durant la Guerra Civil: Juliol-desembre de 1936*. Barcelona: L'Abadia de Montserrat.
- RAMÍREZ JEREZ, José Manuel (2005): *Académicos numerarios del Instituto de España (1938-2004)*. Madrid: Instituto de España.
- RAMOS RUIZ, Isabel (2009): *Profesores, alumnos y saberes en la Universidad de Salamanca en el rectorado de D. Antonio Tovar (1951-1956)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- REI, Luís (2009): *Ramón Cabanillas: crónica de destierros e saudades*. Vigo: Editorial Galaxia.
- RIESTRA, Genaro (1954): «Propósito». In: *Zumárraga*, **3**, 7-8.
- RIQUER, Borja de (1997): *El último Cambó (1936-1947). La tentación autoritaria*. Barcelona: Grijalbo-Mondadori.
- RODRÍGUEZ BRIOSO, M^a del Mar (2012): *Obras publicadas por el Instituto de España desde su fundación*. Madrid: Instituto de España.
- RSVAP (1945): «Nuestro propósito». In: *BRSVAP*, **I**, 3-6.
- RSVAP (1947): «Homenaje a Don Julio de Urquijo». In: *BRSVAP*, **III**, 539-540.
- RSVAP (1948): «Homenaje a Don Julio de Urquijo». In: *BRSVAP*, **IV**, 371-373, 538-539.
- RSVAP (1949): «Relación de los Sres. Suscriptores al Boletín en 1949». In: *BRSVAP*, **V**, 513-530.
- RSVAP (1949-1951): *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*. San Sebastián: RSVAP.
- RSVAP (1950): «Reunión de la Academia de la Lengua Vasca en Bayona». In: *BRSVAP*, **VI**, 358-359.
- RSVAP (1951a): «Acuerdos de las Excmas. Diputaciones de país vasco en relación con el Homenaje». In: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*. San Sebastián: RSVAP, 483-486.
- RSVAP (1951b): «Una cátedra de vascuence en Salamanca». In: *BRSVAP*, **VII**, 585-586.
- RSVAP (1953a): «El Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*». In: *BRSVAP*, **IX**, 125-126.
- RSVAP (1953b): «Actividades de la Academia de la Lengua Vasca». In: *BRSVAP*, **IX**, 130-131.

RSVAP (1953c): «Don José Miguel de Barandiarán inaugura la Cátedra Manuel de Larramendi en la Universidad de Salamanca». In: *BRSVAP*, **IX**, 475-477.

RUIZ ARZALLUZ, Iñigo (2003): «*Aitorkizunen*» *historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora*. Donostia: «Julio de Urquijo» Euskal Filologia Mintegia; Gipuzkoako Foru Aldundia.

RUIZ ARZALLUZ, Iñigo (2009): «Literaturaren zertarakoa, itzulpenak eta hizkuntzaren auzia Orixerengan». In: *ASJU*, **43**, 805-818.

RUIZ ARZALLUZ, Iñigo & SAN JUAN MANSO, Enara (2011): «Un inédito de Orixe: *El contenido espiritual de la España nacionalista (1938)*». In: *ASJU*, **45**, 1-52.

SAINT-PIERRE, Jean (1950a): «A nos amis». In: *Gure Herria*, **XXII**, 1-3.

SAINT-PIERRE, Jean (1950b): «L'antique ceinture des Basques». In: *Gure Herria*, **XXII**, 233-236.

SAINT-PIERRE, Jean (1951): «Le destin du Peuple Basque». In: *Gure Herria*, **XXIII**, 328-345.

SAINZ RODRÍGUEZ, Pedro (1978): *Testimonio y recuerdo*. Barcelona: Planeta.

SAINZ RODRÍGUEZ, Pedro (1987): *Semblanzas*. Barcelona: Planeta.

SAIZ VALDIVIELSO, Alfonso Carlos et al. (1993): *Crónica de cincuenta años (1943-1993): Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea*. [S.l.]: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

SALABURU, Pello (2015): *Writing words: the unique case of the standardization of Basque*. Reno, Nevada: Center for Basque Studies, University of Nevada.

SAN MARTÍN, Juan (1968): «Bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca»: In: *Euskera*, **13**, 293-299.

SAN MARTÍN, Juan & XARRITTON, P. (1983): «Euskaltzainen zerrenda osotzeaz». In: *Euskera*, **28**, 563-567.

SÁNCHEZ CARRIÓN «TXEPETX», José M^a (1987): *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: [s.n.]

SÁNCHEZ CARRIÓN «TXEPETX», José M^a (1991): «La herencia de Koldo Mitxelena». In: LAKARRA, Joseba A. & RUIZ ARZALLUZ, Iñigo (ed.): *Memoriae L. Michelena magistri sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1317-1334.

SÁNCHEZ CARRIÓN «TXEPETX», José M^a (1992): «Las lenguas vistas desde la historia versus

la historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social)». In: XI CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS: *Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa = Kultur antolabide berriak: Euskal Herria eta Europa*. Donostia: EI-SEV, 89-143.

SÁNCHEZ ERAUSKIN, Javier (1994): *El nudo corredizo: Euskal Herria bajo el primer franquismo*. Tafalla: Txalaparta.

SÁNCHEZ GÓMEZ, Luis Ángel (1990): «La Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria (1921-1951)». In: *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, **XLV**, 61-87.

SÁNCHEZ-TABERNERO, Alfonso (1989): *El Correo Español, el Pueblo Vasco y su entorno informativo: 1910-1985*. Pamplona: Universidad de Navarra.

SARASOLA, Ibon (2004): «Euskal lexikografiaren historiako oharrak: Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez eta Azkueren lexikografiaz». In: ARTIAGOITIA, Xabier, GOENAGA, Patxi & LAKARRA, Joseba Andoni (ed.): «*Erramu boneta*» : *festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 611-627.

SARASOLA, Ibon (2006): «Oharrak XX. mendeko lexikografiaz *Orotariko Euskal Hiztegia arte*». In: *ASJU*, **40**, 895-920.

SATRUSTEGI, José M. (1996): «Mirande eta Mitxelenaren arteko posta harremanak». In: *Fontes Linguae Vasconum*, **71**, 141-162.

SATRUSTEGI, José M. (1997): «Gerra ondoreko Euskaltzaindiaren pizkundea». In: *EUSKALTZAINDIA: Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque, 313-338.

SCHUCHARDT, Hugo (1947): *Primitiae Linguae Vasconum*. Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad; Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

SCHNEIDER, Marius (1998[1946]): *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas: ensayo histórico-etnográfico sobre la subestructura totemística y megalítica de las altas culturas y su supervivencia en el folklore español*. Madrid: Siruela.

SEBASTIÁN GARCÍA, Lorenzo (1994): *Entre el deseo y la realidad : la gestión del Departamento de Cultura del Gobierno provisional de Euzkadi (1936-1937)*. Oñati: IVAP-HAEE.

SEMINARIO DE LENGUAS PRERROMANAS (1950): «El Seminario de Lenguas Prerromanas». In: *BRSVAP*, **VI**, 97-100.

SEMINARIO DE ROJAS, Juan Miguel (1949): «El mito de Aitor». In: *Zumárraga*, **3**, 14-16.

SEMINARIO DE ROJAS, Juan Miguel (1950): «Pisar fuerte y mirar de frente». In: *Zumárraga*, **5**, 6-7.

SEMINARIO DE ROJAS, Juan Miguel (1952): «El caserío, piedra angular del País Vasco». In: *Zumárraga*, **1**, 125-138.

SEMINARIO DE ROJAS, Juan Miguel (1953): «Cuatro actitudes ante una realidad evidente». In: *Zumárraga*, **2**, 107-117.

SESMERO PÉREZ, Francisco (1954): *El arte del renacimiento en Vizcaya : (el arte en Vizcaya desde finales del siglo XV hasta la época del barroco)*. Bilbao: Indauchu Ed.

SFVJU (1955): *El Seminario Julio de Urquijo: antecedentes y constitución*. San Sebastián : Imp. de la Excm. Diputación Provincial de Guipuzcoa.

SLP (1938-1939): «Séance du 4 mars 1939». In: *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, **118**, XVI-XVII.

SLP (1947-1948): «Séance du 6 décembre 1947». In: *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, **128**, XXXV-XXXVI.

SOTO ALFARO, Francisco (2006): «La renovación didáctica durante la Segunda República. El caso de los manuales de instrucción primaria editados en Navarra». In: *Cuadernos del Marqués de San Adrián*, **4**, 139-184.

SUDUPE, Pako (2011a): *50eko hamarkadako euskal literatura: I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

SUDUPE, Pako (2011b): *50eko hamarkadako euskal literatura: II. Kazetaritza eta saiakera*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

SUDUPE, Pako (2011c): *50eko hamarkadako euskal literatura: III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

SUDUPE, Pako (2012): «Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile». In: *Euskera*, **57**, 823-838.

TAGLIAVANI, Carlo (2004): «Alfredo Trombetti et ses études sur la Langue Basque». In: LARRONDE, Jean-Claude, ed: *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: EI-SEV, 737-742.

TORREALDAI, Joan Mari (1998): *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttartalo, 1998.

TORREALDAI, Joan Mari (1999): *La censura de Franco y el tema vasco*. San Sebastián: Fundación Kutxa.

TORREALDAI, Joan Mari (2000): *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Zarautz: Susa.

TORREALDAI, Joan Mari & MURUA URIA, Imanol (2009): *Euskaltzaindia: ekin eta jarrai*. Bilbo: Euskaltzaindia.

TOURNIER, André (1950): «L'usure du Basque». In: *Eusko-Jakintza*, **IV**, 93-102.

TOURNIER, André (1951): «Réponse à un groupe de Basques». In: *Gure Herria*, **XXIII**, 295-298.

TOVAR, Antonio (1941): *El imperio de España*. Madrid: Afrodísio Aguado.

TOVAR, Antonio (1944a): *Lingüística y filología clásica: su situación actual*. Madrid: Revista de Occidente.

TOVAR, Antonio (1944b): «F. Castro Guisasola, *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*, Madrid 1944». In: *Emerita*, **XII**, 155-157.

TOVAR, Antonio (1947): «El Diccionario de Azkue». In: *BRSVAP*, **III**, 256.

TOVAR, Antonio (1948): «Estado actual de los estudios de filología euskérica. Revista de los trabajos lingüísticos aparecidos entre 1936 y 1947». In: *BRSVAP*, **IV**, 3-30.

TOVAR, Antonio (1950): *La lengua vasca*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

TOVAR, Antonio (1952): «Parentescos del vascuence». In: *Zumárraga*, **1**, 74-79.

TOVAR, Antonio (1953): «Respuesta a *Aditz-ai*». In: *BRSVAP*, **IX**, 227-228.

TOVAR, Antonio (1954): «La cátedra *Larramendi* de la Universidad de Salamanca». In: *Zumárraga*, **3**, 11-34.

TRASK, Robert Lawrence (1997): *The History of Basque*. London; New York: Routledge.

TREBIÑO, Imanol (2014): «La administración civil histórica en euskara a través de los textos que nos han llegado». In: MADARIAGA ORBEA, Juan & ADOT, Álvaro (coord.): *Jornadas Internacionales: El euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la historia = Nazioarteko Jardunaldiak: Euskera gobernuko goi erakundetan historian zehar*. Arre: Pamiela, 35-57.

UCELAY-DA CAL, Enric (2012): *Nacionalisme i imperialisme catalanista: d'Almirall a Prat de la Riba*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.

UGARTE MUÑOZ, Anton (2010-2011): «Federiko Krutwig (1921-1949): ideologo abertzale baten

hezibidea». In: *Gerónimo de Uztariz*, **26-27**, 62-102.

UGARTE MUÑOZ, Antton (2012): «XX. mendeko euskal ideia soziolinguistikoen genealogiarako». In: *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **85**, 121-140.

UGARTE MUÑOZ, Antton (2013): *Jose Miguel Azaola Uriguen: Bilboko liberal euskaltzalea (1917-2007)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

UGARTE MUÑOZ, Antton (2014): «Euskararen akademia Donostian (1880-2011)». In: *Txoriapi*, **2**, 24-35.

UGARTE MUÑOZ, Antton (2015): «Euskaltzaindia 1960ko hamarkadan: diktadura frankistako hezkuntza publikoan euskara sartzeko ahaleginak». In: *Uztaro*, **92**, 41-64.

URKIA ETXABE, José M^a (2006): *José de Arceche, un hombre de paz*, t. I. Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte.

URKIRI, R. P. Timoteo de (1979): *Un claretiano euzkeldun: semblanza del R. P. Angel de Urrutia C.M.F.* Vitoria: Eset.

URKIZU, Patri (1995): *Jon Mirandereren gutunak (1948-1972)*. Zarautz: Susa.

URKIZU, Patri (1998): *Pierre Lhande*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

URKIZU, Patri (2004): «Koldo Mitxelenaeren euskal gutunak (1951-1984)». In: *Bilduma*, **18**, 13-223.

URQUIJO, Julio de (1929): *Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública de Don Julio de Urquijo e Ybarra el día 24 de noviembre de 1929*. San Sebastián: Nueva Editorial S.A.

URQUIJO, Julio de (1934a): «Notas necrológicas: Nicolás Marr (1864-1934)». In: *RIEV*, **25**, 720-722.

URQUIJO, Julio de (1934b): «Caro Baroja, J.: *La significacion del antiguo tocado «corniforme» de las mujeres vascas*». In: *RIEV*, **25**, 726-727.

URQUIJO, Julio de (1945): «La famosa inscripcion ibero-vasca de un vaso de Liria». In: *BRSVAP*, **I**, 123-143.

URQUIJO, Julio de (1946): «Una tesis doctoral de linguistica vasca del Dr. Rene Lafon, publicada por la Universidad de Burdeos» In: *BRSVAP*, **II**, 243-259.

URQUIJO, Julio de (1951): «Discurso». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. III. San Sebastián: RSVAP, 480.

URRUTIA, Andres (2001): «Eusebio Erkiaga, berbaluaren kulunkan». In: ERKIAGA, Eusebio: *Berbaluaren kulunkan: (prosa lanak): I*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 23-70.

URRUTIA, Andres (2004a): *Nazario de Oleaga (1884-1961)*. Vitoria-Gasteiz: Esko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

URRUTIA, Andres (2004b): «Nazario de Oleaga (1884-1961), bilboko gotzaitegiaren itzultzaile juridikoa». In: *Jado*, **2**, 62-73.

URRUTIA, Andres (2013a): «Sarrera eta edizioa». In: EGUZKITZA MEABE, J. B.: *Neure entzule maiteak: Berbaldi hautuak*. Bilbao: Labayru Ikastegia, 13-74.

URRUTIA BADIOLA, Andrés M. (2013b): *Código, Compilación y Fuero Civil. Elementos para una historia del Derecho civil foral vasco (1876-1992)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia = Academia Vasca de Derecho.

VALLE, Fernando del & DELAUNET, Amadeo (1949): «La Casa Ospín de Urquijo». In: RSVAP: *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. I. San Sebastián: RSVAP, 11-26.

VÁZQUEZ DE PRADA, Mercedes (2009): «El nuevo rumbo político del carlismo hacia la colaboración con el régimen (1955-56)». In: *Hispania*, **231**, 179-208.

VÁZQUEZ SOUZA, Ernesto (2000): *Ánxel Casal (1895-1936): Biografía no seu contexto cultural, político e empresarial*. A Coruña: Universidade da Coruña.

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari (1979): *Sebero Altube*. San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

VILLANUEVA, Aurora (1997): «Los Incidentes del 3 de diciembre de 1945 en la plaza del Castillo de Pamplona». In: *Príncipe de Viana*, **212**, 629-650.

VILLASANTE, Luis [Izengabea] (1949-1951): «¿Esperanto o vascuence?». In: *Cantabria Franciscana*, **8**, 40-54.

VILLASANTE, Luis [KORTABITARTE] (1951a): «*Munificentissimus Deus* izeneko bula dogmatikoa, euskaraz. Bertan Andre Mariaren Assumpzioa kristau fedeko dogmata dala erabakitzen da». In: *Aránzazu*, **III**, 74-78.

VILLASANTE, Luis (1951b): «Angeles Sorazu edo emakume goitarr baten berri laburra». In:

Gernika, **16**, 19-24.

VILLASANTE, Luis (1952): «Literatur-euskara laphurrarr klassikoaren gain eratu». In: *BRSVAP*, **VIII**, 91-119, 259-298.

VILLASANTE, Luis (1953a): «Joanes Etxeberri (1668-1749)». In: *BRSVAP*, **IX**, 231-243.

VILLASANTE, Luis (1953b): «Euskera'ren I aroa: (1920-1937): aurkibideak = I Epoca: índices = tables». In: *Euskera*, **I**, 3-25.

VILLASANTE, Fray Luis (1954): «El estudio del euskera en nuestra carrera». In: *Cantabria Franciscana*, **20**, 138-147.

VILLASANTE, Luis (1967): «Axular eta Gero». In: *Egan*, **1-6**, 21-30.

VILLASANTE, Fray Luis (1971): «Don Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario». In: *ASJU*, **5**, 361-381.

VILLASANTE, Luis (1976): *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia*. Madrid: Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia.

VILLASANTE, Luis (1997): «Krutwig jauna edo kultura-hitzenganako minberatasuna». In: *EUSKALTZAINDIA: Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 361-381..

VIZCARRA y ARANA, Zacarías de (1939): *Vasconia españolísima: datos para comprobar que Vasconia es reliquia preciosa de lo más español de España*. San Sebastián: Editorial Española.

YBARRA, Enrique de (1985): «El Correo Español-El Pueblo Vasco». In: *El Correo Español-El Pueblo Vasco: 75 años informando*. Bilbao: CE-PV, 11-134.

YBARRA y BERGÉ, Javier de (1947): *Política nacional en Vizcaya: de la Restauración a la República*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos.

YBARRA y BERGÉ, Javier de (1949): «La casa nativa de don Julio de Urquijo». In: *RSVAP: Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. I. San Sebastián: RSVAP, 27-35.

YBARRA y BERGÉ, Javier de (1950): *La obra de Pedro de Garmendia*. Bilbao: Editorial Vizcaína, 1950

YBARRA y BERGÉ, Javier de (1951): «Discurso». In: *RSVAP: Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, vol. III. San Sebastián: RSVAP, 477-479.

YBARRA y BERGÉ, Javier de (1974): «Prólogo». In: *DE BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS*,

Gregorio. *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*. Bilbo: CAM de Bilbao, IX-XX.

YBARRA y BERGÉ, Javier de & GARMENDIA, Pedro de (1946): *Torres de Vizcaya: t. I. Las encartaciones*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto Diego Velázquez.

YGARTUA y LANDECHO, Francisco de (1947): *La tradición y el progreso vizcaínos al servicio de la unidad nacional*. Bilbo: JCV.

YRIGARAY, Angel [A. Y.] (1945): «*El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas por Florentino Castro Guisasola*». In: *BRSVAP*, I, 92-95.

YRIGARAY, Angel [A. Y.] (1947): «*Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina por Julio Caro Baroja*». In: *BRSVAP*, III, 413-415.

YRIGARAY, Angel [A. Y.] (1952): «Presentación». In: *BRSVAP*, VIII, 87-89.

YRIGARAY, Angel [IRIGARAI, A.] (1953a): «Euskaltzaindia-ren Euskal-batzarreak». In: *BRSVAP*, IX, 229-230.

YRIGARAY, Angel [IRIGARAI, A.] (1953a): «Piarres de Axular». In: *Egan*, 1-4, 1-13.

YRIGARAY, Angel [APAT-ETXEBARNE] (1954a): «Naas-maas». In: *Egan*, 2-4, 28-31.

YRIGARAY, Angel [A. Y.] (1954b): «*Lexique française-basque por A. Tournier y P. Lafitte*». In: *BRSVAP*, X, 111-112.

YRIGARAY, Angel [APAT-ETXEBARNE] (1955): «Naas-maas». In: *Egan*, 1-2, 43-46.

YRIGARAY, Angel [IRIGARAY, A.] (1956): «Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935». In: *Euskera*, 1, 41-46.

YRIZAR, Pedro de (1981): *Contribución a la dialectología de la lengua vasca, t. 1*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

YRIZAR, Pedro (2001): *Memorias de un vascólogo: mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. Madrid: Delegación en Corte, departamento de publicaciones.

ZAITEGI, Jokin [ARTZAI] (1952): «Euskal-iztegia ta Euzkadiren berpizkundera». In: *Euzko-Gogoa*, 1-2, 32-34.

ZAITEGI, Jokin (2007): *Gutunak (1923-1973)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

ZALBIDE, Mikel; JOLY, Lionel & GARDNER, Nikolas (2015): *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZAMARRIPA y URAGA, Pablo de (1935): *Firi-firi (ipuin ta naste)*. Bermeo: Gaubeka'ren irarkolan.

ZAMARRIPA y URAGA, Pablo de (1947a): *Gramática vasca*. Bilbao: Casa Dochao.

ZAMARRIPA y URAGA, Pablo de (1947b): *Vocabulario vasco-castellano*. Bilbao: Casa Dochao.

ZAMARRIPA, Pablo de (1947c): «El artículo determinado sin valor traductivo». In: *BRSVAP*, III, 225-231.

ZAMARRIPA y URAGA, Pablo de [P. Z.] (1948): «Particularidades de beste, otro, y naikoa, bastante» (1948). In: *BRSVAP*, IV, 387-389.

ZAMORA VICENTE, Alonso (1999): *La Real Academia Española*. Madrid: Espasa.

ZIPTRIA, Elbira [LECUONA, Manuel de [sic]] (1953): «Aditz-aia». In: *BRSVAP*, IX, 119-123.

ZUAZAGOITIA, Joaquín (1920): *Algunos escritores vascongados desde 1874*. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas.

ZUAZO ZELAIETA, Koldo (1988): *Euskararen batasuna = La unificación de la lengua vasca = L'unification de la langue basque*. Leioa: Servicio Editorial, Universidad del País Vasco = Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea; Bilbo: = Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque.

ZUBIRI (MANEZAUNDI), Enrique (1934): «Piarrechen izialdura. (Benabarreko eskuaraz)». In: *RIEV*, 25, 272-273.

ZUGASTI, A. (1971): «Zugasti jaunaren hitzaldia Inzagarayz». In: *Euskera*, 16, 90-97.

ZUMÁRRAGA (1948): «En el IV Centenario de la muerte de Fray Juan de Zumárraga». In: *Zumárraga*, 1, 10-11.

ZUMÁRRAGA (1949): «Algunas actividades de la Junta de Cultura de Vizcaya». In: *Zumárraga*, 2, 3-5.

ZUMÁRRAGA (1950a): «Noticiero». In: *Zumárraga*, 4, 13-14.

ZUMÁRRAGA (1950b): «Actividades de la Junta de Cultura de Vizcaya». In: *Zumárraga*, 5, 17-19.

ZURUTUZA, Joxe Luis (2003): «Aita Villasante eta Arantzazu». In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Arantzazu: ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz = investigaciones y ensayos acerca de su historia en el siglo XX*. Arantzazu: Ed. Frantziskoarrak, 487-50

15 Eranskinak

15.1 *Resurrección M^a Azkueren Euskaltzaindiko biblioteka*¹⁴⁹⁰

Egilea	Izenburua	Edizioa ¹⁴⁹¹
R. M. Azkue	Ortzuri	Mâcon : Protat Frères, [1910]
Julio de Urquijo é Ibarra	Los refranes de Garibay	San Sebastián : Imp. de Martín, Mena y Comp ^a , 1919
J. Larrasquet	Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin	Paris : Lib. Vrin, 1928
Darío de Areitio	Ensayo de un catálogo de la Sección Vascongada : autores	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919
Isidoro Ruiz de Arbulo	"Las fiestas de mi pueblo"	Tolosa : Imp. de E. López, 1914
Mujika'ko Gregorio	Eibar'ko seme ospatsuen berri batzuek	Donostia : J. Baroja ta Semearen etsean, 1908
Aizkibel'dar Bingen	Ipuin aberkoyak	Abando : Grijelmo alargun semien irarkolea, 1917
Errotaetxe'tar Iñaki	Aita Zulaibar'en goralbenez egindako yajak	Zornotza'n : Jaungoiko Zale'ren irarkolan, [1926]
Garitaonandia'tar B	Usandizaga : bere bizitza ta eres-egikuntza : 1919'g. urteko epailaren 25 ta 30'ean irakurritako itzaldia	Donostia : Martín Mena y Comp ^a , 1920
M. H. L. Fabre	Dictionnaire français-basque	Bayonne : P. Cazals, 1870
Jean Elissalde	Ama Maria Pasionekoa	Bayonne : La Presse, 1930
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria de la Sociedad, estado de caja, títulos y cargos, lista de socios : 1932-1934	San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1935 (Imp. de la Diputación de Guipúzcoa)
Pedro M. Otaño, Félix Ortiz y San Pelayo	Artzai mutilla = El zagal : ópera bascongada en tres actos	Buenos Aires : La Vasconia, 1900

¹⁴⁹⁰ ABA-EUS: J. Gorostiagak egindako katalogoa, 1953an Euskaltzaindiko bibliotekari izendatua izan ondoren. J. Gorostiagak emandako informazio bibliografikoa ABKrekin erkatu eta osatu dut Liburutegiko Dokumentuak J. Gorostiagak zerrendatutako ordenan daude.

¹⁴⁹¹ Liburutegiko lau ale berrienak 1952koak dira, R. M. Azkue 1951ko azaroan hil ondoren jasoak.

Carmelo de Echegaray, Serapio de Múgica	Villafranca de Guipúzcoa : monografía histórica	Irún : Tip. de la Viuda de B. Valverde, 1908
G. Múgica	Pernando Amezketarra : bere ateraldi eta gertaerak	Donostia'n : Iñaki Deunaren irarkola, 1927
Lizaraga'tar Joaquín	Jabier'tar Frantzisko Santuaren bizitzatxo	Iruña'n : Aita Kaputxino'en irarkolan, 1922
Ignacio Beláustegui e Iturbe	Noticia histórica de la villa de Zumárraga : con la biografía de sus hijos ilustres	Tolosa : Imp., Librería y Encuadernación de E. López, 1900
[Adrián Loiarte]	Euskal-Erria : revista bascongada	V. 75, N. 1164. - San Sebastián : Establ. Tip. y Lib. de Antonio Baroja, 1916
Arturo Campián	La familia de S. Francisco de Xabier	Pamplona : Imp. y Lib. de García, 1922
Juan Ruiz de Larrinaga	El vascófilo franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala : estudio bio-bibliográfico	San Sebastián : Imp. de la Diputación de Guipúzcoa, 1927
W. J. van Eys	Proverbes basques-espagnols : refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance-- Réédités d'après l'unicum de 1596 conservé a la Bibliothèque de Darmstadt	Genève [etc.] : Georg & C°, 1896
V. Dubarat, J.-B. Daranatz	Recherches sur la ville sur l'Eglise de Bayonne : manuscrit du Chanoine René Veillet	Bayonne : L. Lasserre ; Pau : Massignac & Vve Ribaut, 1910-1929
José Pío Aza	Vocabulario español-machiguenga	Lima : La Opinion Nacional, 1928
Manterola'tar Gabirel, Oyartzabal'dar Martín	Santuen bizitza laburrak	Bilbao : Editorial Vasca, 1925
Bazilio Joannateguy	Sainduen bizitzea. Lehen zatia	Baionan : Lasserre baithan, 1890
[?]	San Martín de la Ascensión y Loinaz hijo de Beasain : réplica contundente a las conferencias del Rev. P. Lorenzo Pérez O.F.M. y de Don Bonifacio Echegaray	Beasain : L. Zunzúnegui, [1929]
Francisco de Aranguren y Sobrado	Demostración del sentido verdadero de las autoridades de que se vale el Doctor Don	Madrid : en la Imprenta de Vega y Compañía ..., 1807

	Juan Antonio de Llorente, canónico de la Catedral de Toledo, en el tomo I de las Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas, y de lo que en verdad resulta de los historiadores que cita, con respecto solamente al Muy Noble y Muy Leal Señorío de Vizcaya	
[?]	La célebre decada de Bilbao ó sea Memoria de los festejos con que su Muy Ilustre Ayuntamiento ha procurado obsequiar a SS. MM. los reyes nuestros señores D. Fernando Séptimo y Dña. Josefa Maria Amalia, durante su permanencia en esta M.N. y M.L. villa de regreso para la Córte	Bilbao : Imprenta de Basozabal, [1828?]
Carmelo de Echegaray	Nacimiento, patria y peregrinaciones de Juan Ramon de Iturriza ; y Memoria de los archivos y papeleras ordenados por el mismo : (manuscritos inéditos del historiador vizcaino existentes en la Casa de Mugártegui, de la villa de Marquina)	[Donostia] : Publicación de la Sociedad [de Estudios Vascos], [1920] (San Sebastián : Imp. R. Altuna, 1920)
Lorenzo Pérez	Aclaraciones sobre la Patria de San Martín de la Ascensión Mártir de Japón	Madrid : Imprenta de los Hijos de Tomás Minuesa de los Ríos, 1929
Emilio Cotarelo y Mori	Iriarte y su época	Madrid : [s.n.], 1897 (Tip. Sucesores de Rivadeneyra)
Julio Enciso	Memorias de Julián Gayarre	Madrid : Imprenta de Enrique Rubiños, 1891
José Pío Aza	Estudio sobre la lengua machiguenga	Lima : La Opinión Nacional, 1924
Murde Duvoisin	Ebanjelio Saindua eskuaraz	Paben : Vignancour-en imprimerian : Sylvain Dufau , 1898
Henri Gavel	Ele´ments de Phoné´tique Basque	Biarritz : J. Labé´querie & G. Lahontaa, 1920
Julio Enciso	La Sociedad Bilbaina : apuntes históricos	Bilbao : Imp. y Enc. de la Casa Misericordia, 1913

Mariano Arigita y Lasa	Influencia social, religiosa y política de los judíos en el País Vasco : memoria leída el día 9 de septiembre de 1904 en el Salón de Actos del Instituto de Guipuzcoa con ocasión de las Fiestas de la Tradición del Pueblo Vasco	San Sebastián : Imprenta de la Provincia, 1905
Pierre Lhande	Yolanda : irakurgaya	Donostia : Argia, 1921 (Leizaola)
E. Pablo de Córdoba	Historia de Don Carlos de Borbón y de Este, y de su augusta familia : desde el Convenio de Vergara hasta nuestros días	Madrid : Oficinas y Administración, 1870
W. J. Edmondston Scott	The Basque Declension: Its Kolarian Origin and Structure	In: Bulletin of the School of Oriental Studies. - V. 1, N. 3 (1920), pp. 147-184
Pablo de Gorosábel	Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa ó Descripción de la provincia y de sus habitantes : exposición de las instituciones, fueros, privilegios, ordenanzas y leyes ...	Tolosa : Imp., Librería y Enc. de E. López, 1899-1900
P. Lafitte	Julien Héguay apeza	Bayonne : La Presse, 1930
Gonçalo de Cespedes y Meneses	Historias peregrinas, y exemplares, con el origen fundamentos y excelencias de España, y ciudades adonde sucedieron : primera parte	Impressa en Çaragoça : por Iuan de Larumbe : a costa de Pedro Ferriz, 1623
Luis G. Alonso Getino	El maestro Fr. Francisco de Vitoria y el renacimiento filosófico teológico del siglo XVI	Madrid : Tip. de la Rev. de Arch., Bibl. y Museos, 1914
R. M. Azkue	Vizcaytik Bizkaira	Bilbon : Astuitar J.-n moldagintzan, 1895
Gregorio de Balparda	El Fuero de Vizcaya en lo civil : estudio crítico del proyecto de apéndice del código civil que comprende las disposiciones aplicables	Bilbao : Imp. de la Casa de Misericordia, 1903

	en Vizcaya y en Alava	
Juan Iturralde y Suit	Cuentos, leyendas y descripciones euskaras	Pamplona : Imp. y Librería de J. García, 1912
Juan Iturralde y Suit	Las grandes ruinas monásticas de Navarra	Pamplona : Imp. y Librería de J. García, 1916
Juan Iturralde y Suit	Miscelánea histórica y arqueológica	Pamplona : Imp. y Librería de J. García, 1917
Nemesio Fernández Cuesta	Diccionario de las lenguas española y francesa comparadas : redactado con presencia de los de las Academias española y francesa, Bescherelle, Littré, Salva	Barcelona : Montaner y Simón, 1885
José Jordán de Urríes y Azara	Biografía y estudio crítico de Jáuregui	Madrid : Est. Tipográfico "Sucesores de Rivadeneyra", 1899
A. E. Brehm	Historia natural...	Barcelona : Montaner y Simón, 1880-1883
Fidel de Sagarmínaga	El gobierno y régimen foral del Señorío de Vizcaya : desde el reinado de Felipe Segundo hasta la mayoría de edad de Isabel Segunda	Bilbao : Tip. Católica de José de Astuy, 1892
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Estatuto general del Estado Vasco : anteproyecto de la Sociedad	San Sebastián : [Sociedad de Estudios Vascos], [1931] (Imp. y Lib. de Ricardo de Leizaola)
Eskoriatzar Aita Meltxior	Irugarren Ordenako Zuzenbidea	Donosti : Iñaki Deunaren Irarkola, 1924
[Número extraordinario del BRSVAP]	Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra : estudios relativos al País Vasco	San Sebastián : Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1949-1950
R. M. Azkue	Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular	[Bilbao : Garmendia, 1917?] [Bilbao : Editorial Vasca, 1932?]
Agustin Cardaberaz	Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco erreglac	Yturrisan : Eusebio López Liburugillearen Echean, 1898

Agustin Cardaberaz	Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco erreglac	Iruñean : Libruguille Antonio Castilla-ren echean, 1761
Gerhard Bähr	Ostraillika ta ostadarra Gipuzkoan = (La Vía Láctea y el arco iris)	Bilbao : Editorial Vasca, 1931
[J. A. de Uriarte]	La doctrina cristiana : traducida al vascuence, dialecto vizcaíno, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano	[Londres : Louis Luciano Bonaparte], [1862-1864] (Strangeways and Walden) [fragmentua]
J[uan] M[aría] E[guren]	Guia-Manual del lenguaje para uso de los viajeros en el Pais Vasco	Vitoria : Imp. del Semanario Católico Vasco-Navarro, 1868
R. M. Azkue	Leyendo el viejo romance	Madrid : Sucesores de Hernando, 1924
J. B. Darricarrère	Restitution du theme des vocables "raokshna", du zend ; "lauxnos", du vieux prusien... "kraskaili", "kriskailu", "kriskildu", "kruselaski", "krusuluba" et "ilarski", du basque...	Saint-Denis : J. Dardaillon, 1923
[L. L. Bonaparte]	Dialogues basques : guipuscoans, biscataens, labourdins, souletins par A. P. Iturriaga , J. A. de Uriarte, J. Duvoisin, L'Abbé Inchauspe ; accompagnés de deux traductions, espagnole et française	Londres : Impensis Ludovici Luciani Bonaparte, 1857 (W. H. Billing)
[Nemesio Fernández Cuesta?]	[Diccionario de las lenguas española y francesa comparadas?]	[Barcelona : Montaner y Simón, 1885-1886?] [fragmentua]
[E.] Inchauspe	Le peuple basque : sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères anthropologiques	Pau : Imprimerie Vignancour, 1894
[Pablo Pedro de Astarloa]	Reflexiones filosóficas en defensa de la apología de la lengua bascongada ó Respuesta á la censura crítica del cura de Montuenga	En Madrid : por Cano, 1804
Louis-Lucien Bonaparte	ReMarqués sur certaines notes, certains observations	Londres : John Strangeways, 1877

	et certains corrections, dont M. J. Vinson a accompagné L'Essai sur la langue basque par F. Ribáry	
Julio de Urquijo	El herrador vascófilo José Pablo Ulibarri : ¿historia o novela?	San Sebastián : Imp. de Martín, Mena y C ^a , 1915
[Euskaltzaindia]	Euskerearen batasunaz izan diran batzaldietan irakurritako txosten edo ikerpenak	In: Euskera. – V. 3, N. 1 (1922) ; 132 pp.
[Felipe Arrese y Beitia, Eusebio López]	[Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para uso de la juventud de Vizcaya, con ejemplos de ambos idiomas]	[Tolosa : E. López, 1905]
Arturo Campión	De las lenguas, y singularmente de la lengua baska, como instrumento de investigación histórica	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas, 1919
Jorge Bertolaso Stella	A connexao linguistica basco-america	Sao Paulo : Irmaos Ferraz, [1930?]
[F[elipe] A[rrese] y B[eitia]]	[Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para uso de la juventud de Vizcaya, con ejemplos de ambos idiomas]	[Tolosa : Eusebio López, 1884]
Pierre Lhande	Dictionnaire basque-français et français-basque (dialectes Labourdin, Bas- navarrais et Souletin) : d'après le Dictionnaire basque- espagnol-français de l'Abbe R. M. de Askué et les Dictionnaires manuscrits des Abbes M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix. Tome I, Dictionnaire basque- français	Paris : Gabriel Beauchesne, 1926
El Basco [R. M. Azkue?]	Prefacio á unos apuntes sobre el euskara	Bilbao : Imp. y Enc. de La Propaganda, 1896
Louis-Lucien Bonaparte	Langue basque et langues finnoises	Londres : Imprensis Ludovici Luciani Bonaparte, 1862 (Strangeways and Walden)

H. de Charencey	La langue basque et les idiomes de l'Oural	Paris : Challamel Ainé, 1862-1866
Manuel Irigoyen y Olondriz	Noticias históricas y datos estadísticos del Noble Valle y Universidad de Baztan	Pamplona : Imprenta Provincial, 1890
Altube'tar S	De sintaxis euskérica	San Sebastián : Martín, Mena y Comp. ^a , 1920
[Junta de Cultura de la Excm. Diputación Provincial de Vizcaya]	Privilegios reales de Valmaseda : apéndice a la "Historia de Valmaseda" de D. Martín de los Heros	Bilbao : Imp. Echeguren y Zulaica , 1926
Prantzisko Elizondarra	"Loretegi berria"	Iruñan : Kaputxinoen etxean, 1932
Ormaetxea Nikola (Orixe)	Santa Cruz apaiza	San Sebastián : Loyola'tar Iñaki'ren Irarkola, 1929
Serapio Múgica	Monografía de la Alcaldía Mayor de Aiztondo	San Sebastián : Imp. y Enc. de J. Baroja e Hijo, 1902
Tomás O. Eastman	Acento de intensidad, de altura y de duración	Bogotá : Escuela Tipográfica Salesiana, 1926
Gerhard Bähr	Los nombres de parentesco en vascuence	Bermeo : Gaubeka, 1935
Altube'tar Seber	El acento vasco : (en la prosa y en el verso)	Bermeo : Gaubeka, 1932
Luis de Eleizalde	Morfología de la conjugación vasca sintética. Tomo 1, La conjugación sintética guipuzkoana en el tratamiento cortés	Bilbao : Imp., Lit., y Enc. de Eléxpuru Hnos., 1913
E[usebio] L[ópez] M[endizabal]	Euskeratik erderara eta erderatik euskerara itzultzeko itztegichoa = Diccionario manual basco-castellano y castellano	Tolosa : E. López, 1902
Mateo Seoane	Diccionario de las lenguas española e inglesa de Neuman y Barreti en el cual se definen y explican todas las palabras en sus diversas significaciones	Londres : Simpkin, Marshall y Ca. [etc.], 1854
J.-B. Archu	Choix de Fables de La Fontaine = La Fontainaren, alegria berheziak	La Reolent : Pasquierren, moldeteghian, 1848
Francisco de P. Hidalgo	Gramática latina :	Madrid : Carlos Bailly-

	y método para aprenderla	Bailliere, 1872
Hugo Schuchardt	Mittheilungen aus georgischen handschriften	Tiflis : [s.n.], 1928
P. d' Argaiñaratz	Devoten breviariora = Le bréviaire des dévots	Chalon-Sur-Saone : E. Bertrand, 1910
E. Ragon	Chrestomathie grecque : contenant tous les mots usuels de la prose classique	Paris : Ch. Poussielgue, 1899
Cosmae Damiani a Bilbao et Ugarriza	De unicitate coniugationis latino-hispanae : seminarii cursus 1904-1905 : inauguralis cursus	Matriti : Typis Asyli Orphanorum Sacri Cordis Jesu, 1904
Darío de Areitio	Ensayo de un catálogo de la Sección Vascongada : autores	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919
[Euskaltzaindia]	Lenengo euskalegunetako itzaldiak	Bilbao : Euzko-argitaldaria, 1921
Bizkaitar bat [Sabino Arana Goiri]	Umiaren lenengo aizkidia : Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko	Bilbao : Bizkaya'ren Edestija ta Izkerea Pizkundia, 1897
J. A. de Uriarte	Le Cantique des Cantiques de Salomon traduit en basque biscayen central, tel qu'il est communément parlé aux environs de Bilbao et accompagné d'une traduction en basque biscayen littéraire de Marquina...	Londres : Impensis Ludovici Luciani Bonaparte, 1862 (Strangeways & Walden)
M. Noël, M. Chapsal	Lecons d'analyse grammaticale : contenant des préceptes sur l'art d'analyser...	Paris : Maire-Nyon [etc.], 1864
Julio de Urquijo	Introducción al Linguae Vasconum Primitiae de Bernard Dechepare : (primer libro impreso en vascuence)	San Sebastián : Nueva Editorial, 1933 (publicación de Eusko-Ikaskuntza)
C. Ferrari	Grammaire italienne : en 25 leçons d'après Vergani	Paris : Garnier Frères, [18--?]
[?]	Jesu Cristoren euanjelioa Juanen araura	London : Trinitarian Bible Society, 1884
A. S. D. Smith (Caradar)	Welsh : made easy : [a self-instructor for use in the home]	Wrexham : Hughes and Son, 1926
[E.] Inchauspe	Le peuple basque : sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères	Pau : Imprimerie Vignancour, 1894

	anthropologiques	
Henry Massoul	Neue Deutsche Grammatik	Paris : Vuibert et Nony, 1909
[M. Larreguy]	Testamen Çaharreco eta Berrico historia M. de Royaumontec eguin içan duenetic berriro escararat itçulia, exemplu eta erreflexione sainduequin bi liburutan eçarria ; Bi-garren liburua, Testamen Berria, cembeit sainduen bicitcearequin	Bayonan : Fauvet-Duharten imprimerian eguina ..., 1777
[J. B.] Darricarerrère	Langues Indo-Européennes : les variantes d'un substantif, le basque "hagina", le français "dent", l'espagnol "diente", le vieux germanique "zant", etc	In: RIEV. – V. 1 (1907), pp. 59-65.
Friedrich Kluge	Etymologisches Wörterbuch der deutschen Sprache	Berlin ; Leipzig : Walter de Gruyter, 1921
M. D. Berlitz	Methode Berlitz für den unterricht in den neueren sprachen : deutscher teil. Zweites buch	Berlin [etc.] : Siegfried Cronbach [etc.], 1901
[Edward Spencer Dodgson]	Verbi Leiçarragani dictionariolum topotheticum = Leiçarragaren eraskitzako edo aditzako hitztegicho bat	[S. l. : s. n.] , [1896?]
Michel Bréal	Essai de sémantique : (science des significations)	Paris : Hachette et Cie., 1899
[L. L. Bonaparte]	ReMarqués sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque, accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques	Londres : John Strangeways, [1876?]
K. Ostir	Drei Vorslavisch-Etruskische Vogelnamen	Vl jubljani : Znanstveno Drustvo, 1930
M. l'abbé Hatan	Explication des principaux noms propres des villages du Pays Basque Français et des Provinces Basques	Pau : Imprimerie Vignancour, 1895
J. Larrasquet	Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque	Paris : Lib. Vrin, 1928

	souletin	
[Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos]	Primer Congreso de Estudios Vascos : recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919-1920
Raimundo de Miguel, Marqués de Morante	Nuevo diccionario latino-español etimológico : seguido de un tratado de sinónimos y de un vocabulario español-latino	[Madrid : Victoriano Suárez?], [194-?]
Echeita'tar J. M., Larrea'tar N.	Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan ; Urikoa ; Jon-Uso	Donostian : Martín, Mena y C ^a .ren echean, 1915
Juan Antonio Mogel ta Urkiza	Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen konfesinoari ondo egina izateko	Bilbon : Euskalzalen moldagintzan, 1897
Etxeita'tar Joseba Imanol	Jayoterrri maitia	Durango'n : Florentino Elosu-ren echean, 1910
[P.] Zamarripa	Anayak gara : ipuiña	Bermeo : Gaubeka, 1929
[Louis-Lucien Bonaparte]	Le petit catéchisme espagnol du P. Astete traduit en trois dialectes basques : 1. Aezcoan, par Pedro José Minondo avec la coopération de Martín Elizondo ; 2. Salazarais, par Pedro José Samper ; 3. Roncalais, par Prudencio Hualde	Londres : Impesis Ludovici Luciani Bonaparte, 1869 (Strangewys & Walden)
Ludovici Luciani Bonaparte	Specimen lexic comparativi omnium linguarum europaeorum	Florentiae : [Typis Societatis Typographicae], 1847
C. C. Uhlenbeck	Beitrag zu einar vergleichenden Lautlehre der baskischen Dialecte	Amsterdam : Johannes Müller, 1903
	Homenaje ofrecido a Menéndez Pidal : miscelánea de estudios lingüísticos, literarios e históricos	Madrid : Librería y Casa Editorial Hernando, 1925
Carmelo de Echegaray	Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca que se contienen en archivos públicos	[Donostia-San Sebastián] : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, [1919]

L. Levy-Bing	La linguistique de voile é	Paris : F. Vieweg, 1880
[Obra del Cançoner Popular de Catalunya]	Materials	Barcelona : Fundació Concepció Rabell i Gibils, 1926-1929
R. M. Azkue	Ortz-zuri : iru ataletan euskeraz ta erderazko = opera en tres actos en vascuence y castellano	[eskuizkribua] ¹⁴⁹²
R. M. Azkue	Urlo	[eskuizkribua] ¹⁴⁹³
R. M. Azkue	Urlo	Bilbao : Sociedad Bilbaina de Artes Gráficas, 1912
R. M. Azkue	Andra Urraka: poema sinfónico vasco en dos partes	[eskuizkribua] ¹⁴⁹⁴
R. M. Azkue	[Originales del cancionero selecto]	[eskuizkribua] ¹⁴⁹⁵
R. M. Azkue	Lamindano : lema de la leyenda lírica Anboto	[eskuizkribua] ¹⁴⁹⁶
Emiliano de Arriaga	Aspectos típicos del Bilbao de los bilbaínos	Bilbao : Suc. de Aldama, [1919-1920?]
R. M. Azkue	Pasa de chimbos : zarzuela en dos actos	Bilbao : Imprenta de la Revista "Euskalzale", 1898
Esteuan de Garibay y Camalioa	Los quarenta libros del Compendio historial de las chronicas y uniuersal historia de todos los Reynos de España	Impresso en Barcelona : por Sebastian de Cormellas y a su costa, 1628
R. M. Azkue	[Cuaderno de melodías]	[Eskuizkribua] ¹⁴⁹⁷
R. M. Azkue	[Cancionero vasco]	[Eskuizkribua] ¹⁴⁹⁸
R. M. Azkue	[Cantos populares vascos]	[Eskuizkribua] ¹⁴⁹⁹

¹⁴⁹² cf. Altuna et al. 2007.

¹⁴⁹³ Ibid.

¹⁴⁹⁴ Ibid.

¹⁴⁹⁵ Ibid.

¹⁴⁹⁶ Ibid.

¹⁴⁹⁷ Ibid.

¹⁴⁹⁸ Ibid.

¹⁴⁹⁹ Ibid.

R. M. A[zkue]	Apaiz-Ostegunerako elizkizun ta otoitzak A. Willibrordo Menke yaregilear en apaizak eginak	Zarautz : Euzko Argitaldaria, [1936]
R. M. Azkue	[Pruebas del cancionero selecto]	[Eskuizkribua] ¹⁵⁰⁰
R. M. Azkue	La música popular baskongada	Bilbao : Imprenta y Litografía de Gregorio Astoreca, 1901 [2 ale]
Juan Antonio Ubilloskoa	Kristau doktriñ berri- ekarlea kristauari dagozkan egia siniz-bearren berria dakarrena Jaun Klaudio Fleuri abadeak argitara atera zuanetik	Bilbon : Euskaltzalen moldagintzan, 1897
J. C. de Arriaga	Tres cuartetos para dos violines, viola y violoncello	Bilbao : L. E. Dotesio, [1825?]
R. M. Azkue	Litania SS. Cordis Jesu : organo comitante tribus vocibus inaequalibus concinanda	Bilbao : Typis "Euskalzale", 1899
Julian Martínez Villar, Francisco de Gamecho	Los hijos de Aitor : zortzico para canto y piano ó para piano solo	Bilbao : Louis E. Dotesio, [18--?]
Pedro Antonio Añibarro	Eskuliburua eta berean eguneango kristinau- zereginak	Bilbon : Euskalzalzen Moldagintzan, 1897
José Aranguren	Al Exmo. Sr. D. Hilarion de Eslava guía práctica a su tratado de armonía	Madrid : [s.n.], [192-?]
[J.] Izurrategi	Jerusalen osterean semeak amari	Zornotza'n : Jaungoiko Zale'ren irarkolan, 1923
J. A. Santesteban	Cantos y bailes tradicionales vascongados arreglados para piano	San Sebastián ; Logroño : Casa Erviti, [1920?]
Tomás de Ascarate Pardo	Navarra eucarística : recuerdos de un viaje con motivo del XX Congreso Eucarístico Internacional de Colonia	Pamplona : Imprenta, Librería y Encuadernación Diocesana, 1911
José María Román	Nueva gramática griega	[S. l.] : Imprenta Real, 1832
R. M. Azkue	Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los	Bilbao : Müller y Zavaleta, 1896

¹⁵⁰⁰ Ibid.

	que se dedican á cultivar el euskera	
R. M. Azkue	Apaiz Ostegunerako otoitza = Oración para el Jueves Sacerdotal	Zarauz : Editorial Vasca, [1936]
R. M. Azkue	Lamiak Euskalerrian	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1927
R. M. Azkue	Sermón pronunciado en la iglesia parroquial de Santa María de Guernica el día 21 de julio de 1895	In: Jaungoikua eta foruak. - Bilbao : Tipografía de José de Astuy, 1896. - pp. 17-44
E[usebio] M[aría] [Azkue], R. M. Azkue	Lekeitioko Andra Mariari bederatziurrena	Bilbao : Editorial Vasca, 1931
Pedro Juan Amutxategi	Andra Marija Sortzez Garbiari bederatziurrena	[Bermeo] : Gaubeka, 1945
Juan Pérez y Malumbres	Gramática latina teórico-práctica	Bilbao : Casa de Misericordia, 1893
Blas Fagoaga	Maestro de tres generaciones : D. Pedro María Ilundáin Oyaregui	Vitoria : Imp., Lib. y Enc. del Montepío Diocesano, [1950]
[Diego Lorenzo de Urquiza Guissasa]	Liburu Virgina Santissimien errosario santuena : nun dagozán, bere explicazinoa, dá amabost misterioen ofrezimentuac...	Pamplonan : Josephe Joachin Martínezen imprentan, 1737
[Euzko-Idazkaltza-Buruba]	Egutegi bizkatarra : (ormarakua)	Bilbao : Verdes-Atxirika'tar E.'ren irarkolea, 1933
[Euskaltzaindia]	Euskaltzaindiaren sortarauak = Estatutos de la Academia de Lengua Vasca	Bilbao : Eusko Argitaldaria = Editorial Vasca, 1920
[Euskaltzaindia]	Euskaltzaindiak Naparroako Aldundi Agurgarriaren laguntzaz, agorraren 7, 8 eta 9-an Donesteben ospatuko dituan euskalegunen egitaraua (programa), 1923-garren urtean = Programa de los días del euskera que la Academia de la Lengua Vasca, subvencionada por la Excma. Diputación Foral de Navarra celebrará en Santesteban los días 7, 8 y 9 de septiembre de 1923	Bilbao : Editorial Vasca, 1923
[Euskaltzaindia]	Reglamento interior de la	Bilbao : Editorial Vasca

	Academia de la Lengua Vasca = Euskalzaingoaren Araudi Estaria	= Euzko-Argitaldaria, 1919
[Euskalzale albistaria]	Añibarrok eta Mogelek Bizkaiko euskeraz egiñiko Meza-entzukera bi	Bilbon : Euskalzaletan moldagintzan, 1898
[?]	[Esperanto Rey]	[?]
Juan Antonio Ubilloskoa	Kristau doktriñ berri-ekarlea kristauari dagozkan egia siniz-bearren berria dakarrena Jaun Klaudio Fleuri abadeak argitara atera zuanetik	Bilbon : Euskaltzaletan moldagintzan, 1897 [6 ale]
Pedro Antonio Añibarro	Eskuliburua eta berean eguneango kristinau-zereginak	Bilbon : Euskalzaletan Moldagintzan, 1897 [7 ale]
Juan Antonio Mogel ta Urkiza	Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen konfesinoari ondo egina izateko	Bilbon : Euskalzaletan moldagintzan, 1897
Pedro Antonio Añibarro	Lora-sorta espirituala ta propositu santuak bizitza barri bat egiteko Aita Palacios Misionariak Misino-ondoan emoten zituanac	Bilbon : Euskalzaletan Moldagintzan, 1897 [3 ale]
Zugatzaga'tar Pillipa	Aita gurea J. L. Señeri Paul aba'ren Gogoareu mana deritxon italerazko idaztitik	Zornotza : Jaungoiko-Zale'ren irarkolan, 1927
R. M. Azkue	Música popular vasca : su existencia	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas, 1919
Luis de Eleizalde	Raza, lengua y nación vascas : (a propósito de unos artículos publicados en El Debate, de Madrid, por el señor don Fernando de Antón del Olmet bajo el título El nacionalismo vasco y los orígenes de la raza vascongada)	Bilbao : Imp. Lit. y Enc. de Eléxpuru Hermanos, 1911
R. M. Azkue	Euskalerrriaren yakintza : (literatura popular del País Vasco)	Madrid : Espasa Calpe, 1935-1947
R. M. Azkue	Cancionero popular vasco	Barcelona : TaL. de Grabado y Estampación de Música A. Boileau & Bernasconi, [1923-1925]

Jaungoiko-Jakituriaren Irakasle-Batzordea	Vitoria-Eleizbarrutirako kristiñau-ikasbidea : Bizkai'ko euzkeraz	Zornotza'n : Jaungoiko Zale'ren Irarkolan, 1921
Eugenio de Aranzabal	Método práctico de enseñar el castellano á los niños vascongados en las escuelas de Vizcaya	Bilbao : Librería de Segundo Salvador, 1883
[R. M.] Azkue	Jesusen Biotzaren illa : bagillean irakurteko	Bilbon : Artes Gráficas-en Moldagintzan, 1901
Ramón de Basterra	El artista y el País Vasco	Bilbao : Sociedad Bilbaína de Artes Gráficas, 1913
Alejandro de la Sota	Rosalía en París	Bilbao : Publicaciones de Editorial Vasca, 1922
[?]	Documentos eclesiasticos : obsequio de El vasco a sus suscritores	Bilbao : Tip. Cat. de San Francisco de Sales, 1885
R. M. Azkue	Clave de temas : complemento del método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano	Bilbao : José de Astuy, 1896
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria y bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco	[San Sebastián] : Publicación de la Sociedad [de Estudios Vascos], 1923 (Imp. de la Diputación de Guipúzcoa)
Pascual de Larrazabal	En defensa propia : a mis convecinos	Bilbao : Tipografía de José de Astuy, 1895
A[urora] M[aría] A[zkue]	Erkindea = Geografía	Bilbo-n : Amorrortu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, 1900
R. M. Azkue	Método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano	Bilbao : José de Astuy, 1896
R. M. Azkue	Done Iosen egunerako berbaldia	Bilbon : Euskalzalzen Moldagintzan, 1897
[José Ignacio Arana]	Arte métrica bascongada ó tratado analítico de la versificación euskara	[eskuizkribua]
R. M. Azkue	Acerca del santoral vasco	Bilbao : Editorial Vasca, 1933 [3 ale]
R. M. Azkue	Urlo	Bilbao : Sociedad Bilbaina de Artes Gráficas, 1912
[Zirilo Arzubiaga]	Jaungoiko-Zale : euzkeldunei	[N. ?].- Zornotza :

	euzkeraz	[Jaungoiko-Zale Bazkuna], 1919
R. M. Azkue, Vicente García de Diego	Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública del sacerdote Dr. D. Resurrección María de Azkue presidente de la Academia de la Lengua Vasca el día 30 de Diciembre de 1928 ; contestación de Vicente García de Diego	Bilbao : Editorial Vasca, 1928
[Ayuntamiento de la M.N. y M.L. Villa de Lequeitio]	Memoria redactada por el secretario de la Corporación ... : comprende los principales actos de gestión realizados por el ilustre Ayuntamiento de Lequeitio a partir del advenimiento de la república española : febrero de 1933	Bermeo : Gaubeka, [1933?]
[Carmelo de Echegaray, Fernando de Olascoaga]	Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya	V. 1, N. 4. – Bilbao : [s. n.], 1909 (Imp. de la Excm. Diputación de Vizcaya)
R. M. Azkue	Pasa de chimbos : zarzuela en dos actos	Bilbao : Imprenta de la Revista "Euskalzale", 1898
L. L. Bonaparte[?]	[Vocabulaire basque]	[eskuizkribua] ¹⁵⁰¹
R. M. A[zkuje]	Abade-eguerako elizkizun ta otoitzak A. Willibrordo Menke yaregilearen abadeak eginak	Zarautz : Euzko Argitaldaria, [1936] [3 ale]
[R. M.] Azkue	Jesusen Biotzaren illa : bagillean irakurteko	Bilbon : Artes Gráficas-en Moldagintzan, 1901 [3 ale]
[Euskaltzaindia]	Euskaltzaindiaren sortarauak = Estatutos de la Academia de Lengua Vasca	Bilbao : Euzko Argitaldaria = Editorial Vasca, 1920 [13 ale]
R. M. Azkue	Aitaren bildur : sainete lírico vasco	Bilbao : Garmendia y Compañía, 1917
Bizkaitar bat [Sabino Arana Goiri]	Umiaren lenengo aizkidia : Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko	Bilbao : Bizkaya'ren Edestija ta Izkerea Pizkundia, 1897 [2 ale]
[Gorostiaga'tar Eulogio]	[Autorkuntza edo	[Zornotza'n : Jaungoiko-

¹⁵⁰¹ cf. Arana Martija 1983b: 152.

	confesiñorako gertaerea]	Zale' ren Irarkolan, 1928] [8 ale]
Antonio Bernal de O'Reilly	Bizarría guipuzcoana y sitio de Fuenterrabía : 1474-1521-1635-1638 : apuntaciones históricas	San Sebastián : Imp. y Librería de Juan Osés, 1872
J[uan] M[aría] E[guren]	Guia-Manual del lenguaje para uso de los viajeros en el Pais Vasco	Vitoria : Imp. del Semanario Católico Vasco-Navarro, 1868
R. M. Azkue	Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera	Bilbao : Müller y Zavaleta, 1896
[Ramon Laskibar]	Jesus' en Biotzaren deya : otoitz-bialguntzaren zabaltzallea : (bizkai'ko euskeraz)	[V. ?, N. ?]- Bilbo : El Mensajero del Corazón de Jesús, 1936
Jean Elissalde, Georges Lacombe	Euskaltzaindian sartzean Jean Elissalde aphez azkaindarrak egin duen irakur-aldia eta Georges Lacombe euskaltzain jaunak egin zion erantzuna : Azkainen, 1930 garren hazilaren 27' an	Bilbao : Editorial Vasca, 1931
Luis Astigarraga y Ugarte	Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos de ambos idiomas	Tolosa : Viuda de Mendizábal e Hijos, 1877
L[opez] M[endizabal]-tar I[xaka]	Dotriña laburra : Aita Santu Amargarren Pio-c Erroma-lurretaco eliz-barrutiai, beeco mallacoentzat aguindutaco cristau dotriñaren lenengo zatia	Tolosan : Eusebio Lopez-en echean, 1907
Eugenio de Aranzabal	Método práctico de enseñar el castellano á los niños vascongados en las escuelas de Vizcaya	Bilbao : Librería de Segundo Salvador, 1883
[Euskaltzaindia]	Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca = Euskalzaingoaren Araudi Estaria	Bilbao : Editorial Vasca = Euzko-Argitaldaria, 1919
[Euskaltzaindia]	Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento	Bilbao : Euzko Argitaraldia = Editorial

	interior de la Academia de la Lengua Vasca	Vasca, 1920
Antonio Eleas	El vasco : análisis de la lengua vasca	Tucumán : Vicente Moscardelli, Editor, 1935
Oscar Rochelt, Nicolás de Viar	La marcha de las antorchas : sainete de un acto	Bilbao : Imprenta de Euskalzale, 1896
[Euskaltzaindia]	Bigarren euskalegunetako itzaldiak Doneztebe-n : 1923-garren iraillean ospatuak	Bermeo : Gaubeka, 1926
[Justo] Garate	La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence por Juan Antonio Moguel	In: Euskera. - V. 16., N. 3-4 (1935) ; pp. 185-354
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Estatuto general del Estado Vasco : anteproyecto de la Sociedad	San Sebastián : [Sociedad de Estudios Vascos], [1931] (Imp. y Lib. de Ricardo de Leizaola) [2 ale]
Joaquín José de Landazuri y Romarate	Treviño ilustrado	[Donostia] : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, [1921]
R. M. Azkue	La estigmatizada de Konnersreuth	Barcelona : Imprenta de E. Subirana, 1929
R. M. Azkue, Vicente García de Diego	Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública del sacerdote Dr. D. Resurrección María de Azkue presidente de la Academia de la Lengua Vasca el día 30 de Diciembre de 1928 ; contestación de Vicente García de Diego	Bilbao : Editorial Vasca, 1928 [2 ale]
R. M. Azkue	Mendibururen idazkiak [i.e. adizkiak] eta idaztankera	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1928
R. M. Azkue	Urlo	Bilbao : Sociedad Bilbaina de Artes Gráficas, 1912
R. M. Azkue	Advertencias a las Notas sobre el santoral vasco del Sr. Altube	Bermeo : Gaubeka, 1935
R. M. Azkue	Música popular vasca : su existencia	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas, 1919
J. I. Arana.	Disertacion sobre la ortografia euskara	Bilbao : [s.n.], 1890

Ignazio Etxaide	Telefonia'ren sortze ta aurrerapena	Donostia'n : Martín eta Mena'ren etxean, 1928
R. M. Azkue	Clave de temas : complemento del método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano	Bilbao : José de Astuy, 1896
[Pedro Fernández Echevarria]	La Baskonia : revista ilustrada	[V. ?, N. ?]– Buenos Aires : [s.n.], 1936
Henri Bourgeois	Notes sur la déclinaison en vieux-géorgien	Chalon-sur-Saone : Impr. de E. Bertrand, 1909
[Euskalzale albistaria]	Añibarrok eta Mogekek Bizkaiko euskeraz egiñiko Meza-entzukera bi	Bilbon : Euskalzalzen moldagintzan, 1898 [8 ale]
Juan Antonio Mogel ta Urkiza	Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen konfesinoari ondo egina izateko...	Bilbon : Euskalzalzen moldagintzan, 1897
Astarloakoiak = (Amigos de Astarloa)	Araudia = reglamento	Bilbao : Editorial Vasca, 1921
Martín Landerreche	Eskuararen alde	Bayonne : Imp. Lasserre, 1902
[?]	Aita Santu izandu ciradenac conceditutaco indulgenciac, cristau fiel guztientzat, particularqui eriotzaren orduraco, esatearequin libru onetan dauden oracioac	Tolosan : Mendizábal-en alarguna-ren moldizteguian, [1855?]
[?]	Ama Birjiñaren sortze garbi ta kutsuren izpirik gabeko bisitetako Kongregazioko nescatxentzat esku-liburua	Tolosa'n : Lopez'tar E.'ren etxean, 1922
[?]	Aita San Iose gloriosoaren bederatziurrena	Tolosan : Eusebio López-en moldizteguian, 1901
Ulzamaco Apeza [Prantzisko Elizondarra]	Cristau doctriñe Aite Gaspar Astetec erderaz escribitue...	Iruñen : Erice eta Garcían Moldizteguian, 1906
[Michel Elissamburu Errecart]	Sakelako liburuchka edo Giristino guzientzat on den esku liburu ttipia	Baionan : L. Lasserre baithan ..., 1892
[?]	[San Blas eztarrico miñen aurren gaitzen, eta aberien bitarteco berecyaren bederatzi-urrena, santubaren vicitza, milagro eta martiriyoaren gañeco con-	Tolosan : [Eusebio Lopez-en moldizteguian], 1882

	daira labur batequiñ. Vitori-co apezpicu jaunaren baime- narequiñ]	
[Agustín Cardaberaz]	Ama Virjiña Doloretacuen bederatzi urruna	Durango-n : Florentino Elosu-ren etxean, 1905
[?]	Deun Erroka'ren bederatziurrena	Zornotza : [J]aungoiko- Zale'ren irarkolean, 1918
Belaustegigoitia'tar Perderika	Andoni Deunaren bizitza : (San Antonio Gaztea)	Zornotza : Jaungoiko- Zale'ren Irarkolea, 1919
[Manuel Antonio Antia]	Ama Virjiña eta San Luis Gonzaga gazteriaren patro eta gidari aundiyari cantaera ta erregualdi batzuec	Tolosan : Eusebio Lopez- en moldiztegian, 1881
E[usebio] M[aría] [Azkue], R[esurrección] M[aría] Azkue	Lekeitioko Andra Mariari bederatziurrena	Bilbao : Editorial Vasca, 1931
R. M. Azkue	Clave de temas : complemento del método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano	Bilbao : José de Astuy, 1896 [2 ale]
Iruretagoyena'tar [Jon]	Sutan biotza Xenaro Xabier Vallejos apaizak, egiña	Zarautz : Eusko Argitaldaria, 1931
[Euskal-Esnalea]	Itzaldiak	Donostian : Martín, Mena y C ^a .ren etxean, 1920
[Euskal-Esnalea]	Itzaldiak. Bigarren salla	Donostia'n : Martín eta Mena'ren etxean, 1923
[?]	[Mapas lingüísticos]	[?]
[Alexandre Mihura]	Andredena Mariaren imitacionea Jesus-Christoren imitacioneraen gañean moldatua	Bayonan : Piarres Fauvet ... liburu eguille eta saltçaillea baitan ..., 1778
[?]	Jabier'ko Franzisko Santuari bederatziurrena	Tolosa'n : E. Lopez'nean, 1923
[?]	[Identifikatu gabeko liburuki zatiak]	[?]
Vicenta Antonia Moguel ta Elguezabal	Ipui onac : ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco	Donostian : Antonio Undiano liburuguillearen echean, 1804
[Paul-Thérèse-David d' Astros]	Irakhaspena eta othoitzac 1826, urthe sainduco jubilauecotçat	Bayonan : Duhart- Fauvet ... baithan : Saltcen da Bonzom ... baithan ..., [1826] [2

		ale]
Ignacio María Echaide	Desarrollo de las conjugaciones euskaras : perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares	San Sebastian : Gráfico-Editora, 1944
R. M. Azkue	Fonética vasca	Bilbao : Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919
Darío de Areitio	El gobierno y régimen foral del Señorío de Vizcaya por Fidel de Sagarmínaga	Bilbao : Imp. de la Excma. Diputación de Vizcaya, 1932-1934
G. de Sorarrain	Catálogo de obras euskaras o Catálogo general cronológico de las obras impresas referentes á las Provincias de Alava, Guipuzcoa, Bizcaya, Navarra : á sus hijos y a su lengua euskara o escritos en ella, formado en vista de los trabajos de los Srs. N. Antonio, Gallardo, Brunet Muñoz y Romero, Allende Salazar, J. Vinson y otros con un índice de autores por orden alfabético y notas correspondientes arreglado para uso exclusivo de su autor	Barcelona : Imprenta de Luis Tasso, 1891
[Instituto Americano de Estudios Vascos]	Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos	V. 4, n. 10. - Buenos Aires : Editorial Vasca Ekin, 1952
[Instituto Americano de Estudios Vascos]	Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos	V. 3, n. 9. - Buenos Aires : Editorial Vasca Ekin, 1952
Iruretagoyena' tar Jon	Igandero' ko berriona	Zarautz : Eusko Argitaldaria, 1936-
P. Lafitte	Eskualdunen loretegia : XVIgarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia (1645-1800)	Baionan : Laserre Bibliotekan salgai, 1931
[J. B.] Eguskitza	Andoain' go Euskal-Jayetan aurtengo iralla' ren 22' an Eguskitza euskaltzañak egindako eleiz-itzaldia : (gipuzkeraz eta bizkayeraz)	Amorebieta-Zornotza : Jaungoiko-Zale' ren irarkolan, 1929
Lertxundi ta Baztarrika' tar Jon Imanol	Gauzen ikaskizunak : umientzako	Bilbao : Editorial Vasca, 1925

Sabino Arana Goiri	Deun-ixendegi euzkotarra edo Deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezartzen diran jayetako ixenan euskerazko ikurpenak / Arana-Goiri'tar Sabin'ak asmaubak egutegi bizkaitarra'rentzat ; Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxurre bategaz = Santoral vasco o sea Lista de nombres euzkerizados de los santos y traducción de los nombres propios	Bilbao : Euzko Alderdi Jeltzalia'ren Bizkai-Batzar Ordia, 1910
[R. M. Azkue]	[Sasi-eskola : atal bateko umeentzako eresi-irautsia]	[eskuizkribua]
Ortuzar'tar R.	Oroigarriak	Bermeo : Gaubeka, 1925
Lopez-Mendizábal'dar Ixaka	Ume koxkorrentzat euzkeraz egindako Zenbakiztiya edo Aritmetika	Tolosa'n : E. Lopez'en etxian, 1913 [2 ale]
Bernardum Dechepare	Linguae Vasconum Primitiae	Tolosa : López Mendizábal, 1933
Olabide'tar Erraimun	Itun Berria	Bilbo'n : Yesu'ren Biotzaren Deya, 1931
Martín Duhalde[?]	Meditacioneac gei premiatsuenen gainean : cembait abisuekin, othoitcekin eta bicitceco erregela batekin	Bayonan : Cluzeau anayen baithan ..., 1809
C. C. Uhlenbeck	Zur vergleichenden lautlehre der baskischen dialekte	Amsterdam : Uitgave van de Koninklijke Akademie van Wetenschappen, 1923
J. Larrasquet	Le basque souletin nord-oriental. Tome 1, Introduction	Paris : en vente chez l'auteur, 1934
Tomás Otaegui	Derecho de gentes argentino : su generosidad : influencia vasca en su constructividad : Irala	Buenos Aires : Sebastián de Amorrortu, [1925]
Manuel Silvestre de Arlegui	Empeños del valor y bizarros desempeños ó Sitio de Fuenterrabia que escribió en latín el P. José de Moret	Tolosa : Imp. Lib. y Enc. de Eusebio López, 1892
T. Navarro Tomás	Pronunciación guipuzcoana : contribución al estudio de la fonética vasca	Madrid : Imp. de la Librería y Casa Ed. Hernando, 1925
Lor. Urhersigarria [Fleury de Lécuse]	Examen critique du Manuel de la langue basque	Bayonne : L.-M. Cluzeau ; Mauléon : Roch Daguerre Fils, 1826

P. Soloeta-Dima	Ensayo de la unificación de dialectos baskos	Buenos Aires : La Baskonia, 1922
Fermín Herrán	Compendio de la Historia de Bizcaya del Dr. Estanislao J. de Labayru	Bilbao : Imp. y Enc. de Andrés P.-Cardenal, 1899
J. Bautista Merino y Urrutia	Más sobre el Vascuence en el Valle de Ojacastro (Rioja Alta)	Madrid : Imp. del P. de H. de Intendencia e Intervención Militares, 1932
Juan Gorostiaga Bilbao	Epica y lírica vizcaína antigua. V. I	[Bilbo] : Centro de Estudios Vascos de F.E.T y de las J.O.N.S, 1952
Jean Elissalde	Ama Maria Pasionekoa	Bayonne : La Presse, 1930
Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia	Langillientzat zartzarolegea	Donostia'n : Martín, Mena y Compañía'ren Etxean, 1921 [2 ale]
Ormaetxea'tar Nikola (Orixe)	Mistral'en Mireio	Bilbao'n : Verdes-Atxirika'renean, 1930
[Bartolome Santa Teresa]	[Icasiquizunac]	[Iruñean : Rada Alargunaren Liburuguillaan, 1816-1819]
Ibargutxi'tar J. Gurutz	Eleiz Ama Deunaren ikurtonak edo sakramentuak	Zornotza'n : Jaungoiko-Zale'ren Etxe-Argitaldaria, 1932
Ibargutxi'tar J. G.	Jaungoikoaren legeko aginduak	Zornotza'n : Jaungoiko-Zale'ren Irarkolan, 1925
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Asamblea de Pesca Marítima Vasca : recopilación de trabajos	San Sebastián : Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1927
Manterola'tar Gabirel	Goi-izpiak : (itz-neurtuz)	Zornotza : Jaungoiko-Zale, [1920] [2 ale]
Fleury de Lécluse	Sermon sur la montagne : en grec et en basque ; précédé du paradigme de la conjugaison basque	Toulouse : Imprimerie de Vieusseux, 1831
Toribio Alzaga	Bost urtian...	[Donostia] : Euskaltzaleak, 1929
Jauregi'tar Luis	Biozkadak	Iruña'n : Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan, 1929
Errotaetxe'tar Iñaki	Aita Zulaibar'en goralbenez egindako yayak	Zornotza'n : Jaungoiko Zale'ren irarkolan, [1926]
[Bizkai-Aldundiaren Eri-	Euskeraz irakurteko	Bilbao : Alvarez, 1920

Irakaskuntza-Batzordea]	irakaspidea ta Lenengo irakurkizunak	
Urruzuno' tar P. M	Urruzuno' tar P. M' en ipuiak : lenengo idaztia	Iruña : Neketako Ama-Birjinaren Irarkola, 1930
Lopez-Mendizábal' dar Ixaka	Umearen laguna : irakurtzen ikasteko biderik errezena	Tolosa : Lopez' tar E' ren etxean, 1920
[Bizkai-Aldundiaren Erri-Irakaskuntza-Batzordea]	Euskal-zenbakiztia : lenengo ikaste mallarako	Bilbao'n : Alvarez' en irarkolan, 1920 [2 ale]
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore	Vitoria : Imp., Lib. y Enc. del Montepío Diocesano, 1932
Aranaz' tar (Lezo' ko) José	Nere laguna	Zornotza : Jaungoiko-Zale' ren Irarkolan, 1922-1926
[L. L. Bonaparte]	Parabola de seminare ex Evangelio Matthaei in LXXII europaeas linguas ac dialectos versa, et romanis characteribus expressa	Londini : Impresis Ludovici Luciani Bonaparte, 1857 (W. H. Billing) [Zarautz : Eusko Argitaldaria], 1932
Iturriotz' dar Pirmin	Lutelestija : iru-malletan : euzkerazko lenengo malla : bizkayeraz	[Zarautz : Eusko Argitaldaria], 1932
[Dámaso de Inza]	Zeruko argia : illeroko aldizkingi edergarriduna	[V. ?, N. ?].- Iruña : Aita Kaputxinoak, 1919-1921
Sebastian Mendiburu	Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai	[Iruñea] : Iruñeco libru-guille Antonio Castilla-ren echean, 1760
[Campaña contra el alcoholismo]	Edariaren kalteko gudea	Bilbo : Aldundi Goitiaren Irarkolea, 1923 [2 ale]
María Luisa Guaza	La toponimia romana en Vizcaya	Bilbao : Ayuntamiento, 1952
[Pío de Zuazua]	Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latín por el Padre M. de Larramendi dedicado a la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa	San Sebastián : Establecimiento tipográfico-literario del editor, 1853
R. M. Azkue	Azkueko Resurreccion Maria abade Bizkaiko lenengo euskal-irakasleak eratu ta biurturiko Euskal-Izkindea = Gramática euskara	Bilbo'n = Bilbao : Astui-ko Jose-n moldezgintzan = Tip. de José de Astuy, 1891
[Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi' ko Agintaritzaren egunerokoa]	[Índice alfabético por materias del Diario Oficial del País Vasco]	[Bilbao: Imprenta de la Diputación de Bizcaya = Bizcaya' ko Aldundiaren Irarkola, 1936]

Real Academia Española	Diccionario de la lengua española	Madrid : Espasa-Calpe, 1947
Juan J. de Mugartegui	La Colegiata de Santa María de Cenarruza	Bilbao : Imprenta Provincial de Vizcaya, 1930
R. M. Azkue	Neologismos formados a imitación de otras lenguas	Bilbao : Editorial Vasca, 1929
Gerhard Bähr	Los nombres de parentesco en vascuence	Bermeo : Gaubeka, 1935
R. M. Azkue	Gancionero popular vasco	Barcelona : TaL. de Grabado y Estampación de Música A. Boileau & Bernasconi, [1922-1925]
R. M. Azkue	Euskerazko ereziak : elizarakoak	[Bilbo : Euskalzalzen moldagintzan, ca.1897-1899]
R. M. Azkue	Euskerazko ereziak : gizarterakoak	[Bilbo : Euskalzalzen Moldagintzan, ca.1897-1899]
Altube'tar Seber	Notas sobre el Santoral Vasco o "Deun ixendegi euzkotarra" de Arana Goiri'tar Sabin	Bilbao : Editorial Vasca, 1933
R. M. Azkue	Lamiak Euskalerrian	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1927
R. M. Azkue	Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera	Bilbao : Editorial Vasca, 1928
R. M. Azkue	Evolución de la lengua vasca	Bermeo : Gaubeka, 1935
R. M. Azkue	Mendibururen idazkiak [i.e. adizkiak] eta idaztankera	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1928
[Euskaltzaindia]	Euskera : Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak = trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca = travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque	V. 8, N. 3-4. - Bilbo'n : Euskaltzaindia'ren etxean, 1927
R. M. Azkue	La música popular baskongada	Bilbao : Imprenta y Litografía de Gregorio Astoreca, 1901 [2 ale]
R. M. Azkue	Particularidades del dialecto roncalés	Bilbao : Editorial Vasca, 1932 [2 ale]
Anabitarte-tar Augustin	Donostia : (irakurgaia)	Bilbao : Editorial Vasca, [1932] [2 ale]
R. M. Azkue	Igarkizunak = (Acertijos)	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1926

R. M. Azkue	Mendibururen idazkiak [i.e. adizkiak] eta idaztankera	Bilbon : Eusko Argitaldaria, 1928 [2 ale]
[Justo] Garate	La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence por Juan Antonio Moguel	Bermeo : Gaubeka, 1936 [2 ale]
Iturriotz' tar Pirmin	Txomiñ-ikasle : euzko-umiei irakurtzen erakusteko lenengo idaztia	Donostia : Iñaki Deunaren Irarkola, [1931] [3 ale]
[P.] Zamarripa	Gora begira	Bilbao : Emeterio Verdes, 1927
René Lafon	La Langue de Bernard Dechepare	In: Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. - V. 7, N. 3 (1951) ; pp. 309-338.
Jean Elissalde, Georges Lacombe	Euskaltzaindian sartzean Jean Elissalde aphez azkaindarrak egin duen irakur-aldia eta Georges Lacombe euskaltzain jaunak egin zion erantzuna : Azkainen, 1930 garren hazilaren 27' an	Bilbao : Editorial Vasca, 1931 [2 ale]
R. M. Azkue	Observaciones acerca de la obra "Langue basque et langues finnoises" del Príncipe L. L. Bonaparte	Bilbao : Editorial Vasca, 1927 [5 ale]
R. M. Azkue	Evolución de la lengua vasca	Bermeo : Gaubeka, 1935
[Librería Varela]	[Libros y folletos relativos al pais Vasco-Navarro]	[Bilbao: [Librería Varela?], 1949]
Altube' tar Seber	La vida del euskera : divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa	Bilbao : Editorial Vasca, 1934
Altube' tar Seber	Observaciones al tratado de "Morfología vasca" de Don R. M. de Azkue	In: Euskera. - V. 15, N. 1-2 (1934) ; 231 pp.
Intza' r Dámaso	Esaera-zarrak	Bilbao : Editorial Vasca, 1927
Rafael Pérez	La santa casa de Loyola : estudio histórico ilustrado	Bilbao : Imprenta del Corazón de Jesús, 1891

[R. M. Azkue]	Kristinauen ikasbide laburrtua Baionako Elizterikoa : Lapurdiko euskeraratik Bizkaikora biurrtua = Doctrina cristiana compendiada de la Diocesis de Bayona : traducida del euskera de Lapurdi al castellano = Kristauen ikasbide laburrtua Baionako Elizterikoa : Lapurdiko euskeratik Gipuzkoakora itzulia	Bayonne : L. Lasserre, [imp. 1897]
Louis-Lucien Bonaparte	Le petit catéchisme espagnol du P. Astete traduit en trois dialectes basques ; 1. Aezcoan, par Pedro José Minondo avec la coopération de Martín Elizondo ; 2. Salazarais, par Pedro José Samper ; 3. Roncalais, par Prudencio Hualde	Londres : Impesis Ludovici Luciani Bonaparte, 1869 (Strangewys & Walden)
[?]	Almanak uskara edo Ziberouko egunaria...	Parisen : L. de Soulle beithan, 1889-1894
Gr. Adéma	Escualdun pelegrinaren bidaltzailea	Bayonan : Andre Lamaignère alhargunsaren impremerian ..., 1877
[?]	Aita Agustin Cardaberaz : Jaincoaren serbitzari andiaren berri laburrac	Durango'n : Florentino Elosu-ren echean, 1908
G. Mujika	Lorak eta ogia : ipuia	Irun : Valverde'ren echea, 1910
[?]	Gurutcearen bidearen gaineco instruccione liburua	Bayonan : Gluzeau baithaco impremerian, [1832]
Bizcarra'co Zacarías	Cristiñauaren jaquinbide laburtua bertan dagoz Aita Astete'ren liburuchoco gauzaric bearrenen ezagüerac...	Durango'n : Elosu'ren Echean, 1911
[?]	Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren bizitza : bere debociñoeco eguiquizun, erregu eta cantacaz gueituta deboto batec iminia	Durango : Imp., Librería, Encuadernación y Centro de Suscripciones de Elosu, 1895
[F. de Brunet]	Jesu Cristoren evanjelioa Juanen araura	Londres : [s.n.], 1883

[?]	[Euskerazko ta gaztelerazko iztegia]	[eskuizkribua]
José R. de Uriarte	Aclaración ortográfica : B y no V	Buenos Aires : La Baskonia, 1927
Juan Antonio Mogel ta Urkiza	Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen konfesinoari ondo eginazateko	Bilbon : Euskalzalzen moldagintzan, 1897
Pedro Antonio Añibarro	Eskuliburua eta berean eguneango kristinauzereginak	Bilbon : Euskalzalzen Moldagintzan, 1897
Juan Antonio Ubilloskoa	Kristau doktriñ berri-ekarlea kristauari dagozkan egia siniz-bearren berria dakarrena Jaun Klaudio Fleuri abadeak argitara atera zuanetik	Bilbon : Euskaltzalzen moldagintzan, 1897
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria y bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco	[Donostia] : Publicación de la Sociedad [de Estudios Vascos], 1923 (San Sebastián (Imp. de la Diputación de Guipúzcoa))
Eusebio María D. Azkuetarra	Parnasorako bidea	Bilbon : Astuitar J.-n moldagintzan, 1896 [5 ale]
R. M. Azkue [et al.]	Jaungoikua eta foruak	Bilbao : Tipografía de José de Astuy, 1896
R. M. Azkue	La estigmatizada de Konnersreuth	Barcelona : Imprenta de E. Subirana, 1929 [2 ale]
Bonifacio de Echegaray	La vecindad : relaciones que engendra en el País Vasco	San Sebastián : Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1933
Toribio Alzaga	Bost urtian...	[Donostia] : Euskaltzaleak, 1929
[Zirilo Arzubiaga]	Jaungoiko-Zale : euzkeldunei euzkeraz	N. 309-323, 341.- Zornotza : [Jaungoiko-Zale Bazkuna], 1927-1929
	Anthropos : revue internationale d'ethnologie et de linguistique	[V. ?, N. ?].- Wien : Mechitharisten-Buchdruckerei, [19?-19-?] [zenbaki asko]
Gerhard Bähr	Ostraillika ta ostadarra Gipuzkoan = (La Vía Láctea y el arco iris)	Bilbao : Editorial Vasca, 1931
[Association "Gure Herria"]	Gure herria : ilabete guziez agertzekoa = revue mensuelle	V. 21, N. 6.- Bayonne : [s. n.] (Imp. Le

		Courrier), 1951
[?]	Karmen'go Amaren egutegia...	V. 1.- [Larrea-Zornotza] : [PP. Carmelitas], 1951 (Bilbao : Ordorika'ren irarkolean)
Erri Batzartuen Batzarre Osoa	Giza-eskubidegai guzien aitorkizunaren urtebetetzea	[S. l. : s. n.], [1949?]
[?]	[Gramática del Euskera]	[eskuizkribua]
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria de la Sociedad, estado de caja, títulos y cargos, lista de socios : 1918-1920	San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1920 (Imp. y Librería "San Ignacio de Loyola") [9 ale]
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria de la Sociedad, estado de caja, títulos y cargos, lista de socios : 1926-1928	San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1929 (Imp. de la Diputación de Guipúzcoa) [38 ale]
Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos	Memoria de la Sociedad, estado de caja, títulos y cargos, lista de socios : 1928-1930	San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1931 (Imp. de la Diputación de Guipúzcoa)
[R. M. Azkue]	Erizkizundi irukoitza = (Triple cuestionario)	[Bilbo : Euzko-Argitaldaria], 1921 [188 ale erabiliak, eta 39 berriak]
[R. M. Azkue]	Euskaltzainen laguntzale eta lankideak	[Bilbo : Euzko-Argitaldaria], 1921 [ale asko]
[Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos]	[Folletos de propaganda de la Sdad.]	[San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 19-?] [ale asko]
[Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos]	Euzko-Ikaskuntza'ren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos : Publication Internationale Trimestrielle	[V. ?, N. ?].- Donostia-San Sebastián : Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, [19-?-19-?] [ale asko]
[José Miguel de Barandiaran]	Eusko folklore : materiales y cuestionarios	[N. ?].- Vitoria : [Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos], [19-?-19-?] [ale asko]

Euzko Ikaskuntza	Araudia	Tolosan : E. Lopez' enean, [1918] [ale asko]
[Eizagirre' tar Jose]	Eusko-Erri-Ertia : (Eusko-Ikaskuntza' ren Udara' ko Ikasialdietako itzaldiaren zati bat)	[Donostia : Eusko-Ikaskuntza], [1930] ¹⁵⁰²

15.2 Euskaltzaindiaren batzarrak (1941-1953)¹⁵⁰³

1941-04-28: RMA, JU, PZ, JI, JCG, NO (bi)

1941-05-29: RMA, JU, PZ, JCG, NO (do)

1941-06-26: RMA, JU, PZ, JI, NO (bi)

1941-09-25: RMA, JU, RI, PZ, JI, JCG, NO (do)

1941-10-30: RMA, PZ, JI, NO, AI (bi)

*1941-11-27: RMA, NO (do)¹⁵⁰⁴

1941-12-20: RMA, JU, JI, NO (bi)

1942-01-30: RMA, JU, JI, AI, NO (do)

1942-02-27: RMA, JU, PZ, JI, NO (bi)

1942-03-26: RMA, JU, AI, NO (do)

1942-04-24: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1942-06-24: RMA, JU, RI, IME, AI, NO (do)

1942-10-29: RMA, JU, PZ, IME, NO, FB (bi)

1942-12-18: RMA, JU, RI, IME, NO (do)

¹⁵⁰² Azken sarrera hau ezabatuta ageri da J. Gorostiagak egindako katalogoan.

¹⁵⁰³ Hurrengo iturriak erabili dira zerrenda osatzeko: ALVren batzar agiri ofizialak, N. Oleaga idazkariaren zirriborroak, G. Maidagan diruzainaren kontabilitatea, prentsa oharrak eta testigantza pertsonalak. Batzar agiri ofizialik ez dagoenean, oin oharrean aipatzen da erabilitako iturria

¹⁵⁰⁴ ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

1943-02-26: RMA, PZ, JI, IME, NO, FK (bi)

*1943-04-30: RMA, JU, RI, IME, NO (do) ¹⁵⁰⁵

1943-06-25: RMA, PZ, NO (bi)

*1943-09-24: RMA, JU, RI, IME, NO (do) ¹⁵⁰⁶

1943-11-26: RMA, PZ, IME, NO (bi)

1944-01-28: RMA, JU, IME, NO (do)

1944-03-31: RMA, JU, NO, FK (bi)

1944-05-26: RMA, JU, RI, PZ, IME, NO (do)

1944-09-29: RMA, PZ, NO (bi)

1944-11-24: RMA, JU, IME, NO (do)

1945-01-26: RMA, JU, IME, NO (bi)

1945-03-23: RMA, JU, NO (do)

1945-05-25: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1945-09-28: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1945-11-30: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1946-01-25: RMA, JU, IME, NO (do)

1946-03-29: RMA, JU, PZ, IME, NO (bi)

1946-05-31: RMA, JU, NO (do)

1946-09-27: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1946-11-28: RMA, JU, IME, NO (do)

¹⁵⁰⁵ ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

¹⁵⁰⁶ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborroa.

1947-01-31: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1947-03-28: RMA, JU, IME, NO (do)

*1947-05-30: RMA, JU, IME, PZ, NO (bi) ¹⁵⁰⁷

1947-09-26: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1947-11-29: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1948-01-30: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1948-04-02: RMA, JU, NO (bi)

1948-05-28: RMA, JU, FK, NO, AT (do)

*1948-09-24 ¹⁵⁰⁸

1948-11-26: RMA, AI, FK, NO (do)

1949-01-28: RMA, PZ, FK, NO (bi)

1949-03-25: RMA, JU, IME, AI, FK, NO (do)

1949-06-25: RMA, PZ, FK, JMS, NO (bi)

1949-09-30: RMA, JU, PLH, BE, JE, PZ, AI, IME, FK, JMS, NO (do)

1949-11-25: RMA, JE, PZ, AI, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1950-01-27: RMA, JE, AI, IME, FK, PL, LD, ML, NO (do)

1950-03-31: RMA, JU, JE, AI, IME, FK, ML, NO (do)

1950-06-24: RMA, FK, JMS, ML, NO (ir)

1950-07-14: RMA, JE, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1950-07-15: IME, JE, FK, PL, LD, RL, JSP, NO (ba)

¹⁵⁰⁷ ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

¹⁵⁰⁸ ABA-EUS: Kontabilitate liburua.

1950-10-27: RMA, JE, IME, FK, NO (do)¹⁵⁰⁹

1950-12-29: JE, AI, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1951-02-23: RMA, AI, IME, FK, ML, JG, NO (do)

1951-04-28: RMA, BE, AI, IME, FK, JG, NO, GM, MA, BMG, LV (bi)

1951-04-29: RMA, BE, AI, IME, FK, NO, MA, BMG, LV (bi)

*1951-06-28: RMA, FK, JG, NO (do)¹⁵¹⁰

*1951-09-28: RMA, FK, ML, JG, NO, AML (do)¹⁵¹¹

1951-11-30: IME, AI, FK, JG, NO, JAD (do)

*1952-05-09: AI, FK, ML, JG, LV, NO, JC (do)¹⁵¹²

*1952-05-23: ML, FK, JG, LV, NO (bi)¹⁵¹³

1952-05-30: AI, JG, LV, NO, LM (do)

*1952-06-27: AI, JMS, PL, ML, LD, JG, LV, NO, LM (do)¹⁵¹⁴

1952-11-27: IME, AI, LV, NO, AML (do)

*1953-01-30: IME, AI, JG, LV, LM, NO (do)¹⁵¹⁵

*1953-02-27: IME, AI, JG, LV, LM, NO, AML (do)¹⁵¹⁶

1953-04-24: IME, AI, JG, LV, ML, NO, AML, SM, JC (do)

1953-05-29: AI, JG, LV, LM, NO, JC (do)

¹⁵⁰⁹ F. Krutwigen arabera, A. Irigaray batzar horretan egon zen, baina zalantzarria da nire ustez (Iztueta & Iztueta 2006: 446-447)

¹⁵¹⁰ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea.

¹⁵¹¹ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea.

¹⁵¹² ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea.

¹⁵¹³ *CE-PV* 1952-05-24.

¹⁵¹⁴ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea (*Herria* 1953-07-01; Ibarzabal 2001).

¹⁵¹⁵ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea.

¹⁵¹⁶ ABA-EUS: Batzar agiri zirriborrea.

1953-06-26: IME, AI, JG, ML, NO (do)

1953-09-25: IME, JE, AI, LD, PL, JG, LV, JM, NO, AML (do)

1953-10-30: IME, AI, LD, ML, JG, LV, JM, NO (do)

1953-11-27: IME, JE, AI, LD, PL, JG, LV, LM, JM, NO (do)

*1953-12-21: NO (do) ¹⁵¹⁷

Akademikoen batzar kopuruak

AI: Angel Irigaray (30)

AML: Antonio M^a Labayen (5)

AT: Antonio Tovar (1)

BE: Bonifacio Echegaray (3)

BMG: Bernardo M^a Garro «Otxolua» (2)

FB: Federico Belausteguigoitia (1)

FK: Federico Krutwig (24)

GM: Gabriel Manterola (1)

IME: Ignacio M^a Echaide (40)

JAD: José Antonio de Donostia (1)

JC: José Cincunegui (3)

JCG: Juan Carlos Guerra (3)

JE: Jean Elissalde (10)

Jl: Juan Irigoyen (8)

¹⁵¹⁷ ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

JG: Juan Gorostiaga (17)

JM: Jules Moulrier «Oxobi» (3)

JMS: Juan Miguel Seminario (4)

JSP: Jean Saint-Pierre (1)

JU: Julio Urquijo (39)

LD: Louis Dassance (9)

LM: Luis Michelena (6)

LV: Luis Villasante (14)

MA: Miguel Arruza (2)

ML: Manuel Lecuona (11)

NO: Nazario Oleaga (75)

PL: Pierre Lafitte (8)

PLH: Pierre Lhande (1)

PZ: Pablo Zamarripa (24)

RI: Ramón Inzagaray (6)

RL: René Lafon (1)

RMA: Resurrección M^a Azkue (58)

SM: Salvador Michelena (1)

Batzar kopuruak tokiko

(bi) Bilbo (26)


(ba) Baiona (1)

(do) Donostia (47)

(ir) Iruñea (1)


15.3 Irudiak

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza zaharraren planoak¹⁵¹⁸



¹⁵¹⁸ Eraikina 1817 inguruan diseinatu zuen Silvestre Pérez Martínez (1767-1825) arkitektoak (Arana Martija 1991).

Eugenio M^a Aguinaga Bizkaiko probintzia arkitektoaren krokisa (1953-06-15).¹⁵¹⁹



Bilboko egoitza Ribera kaleko 6. zenbakiaren 1. solairuan zegoen (Iturria: Bilboko Udala-Surbisa)

¹⁵¹⁹ BFAH-CE: Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP- 10.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza zaharraren argazkiak



Ribera kaleko egoitzaren aurrealdea 2005eko azaroan (Iturria: Bilboko Udala-Surbisa)



Ribera kaleko egoitzaren bebarua 2005eko azaroan (Iturria: Bilboko Udala-Surbisa)



Ribera kaleko egoitzaren patioa 2005eko azaroan (Iturria: Bilboko Udala-Surbisa)

«Galería de celebridades vizcaínas»¹⁵²⁰



Resurrección Mª Azkue (Iturria: Bilboko Euskal Museoa)



Juan Irigoyen (Iturria: Bilboko Euskal Museoa)

¹⁵²⁰ José Antonio eta Luis Lerchundi Sirotych anaiek, Bizkai garaikideko 239 pertsona ospetsuren erretratuak egin zituzten 1950-1957 artean. Frankismoak politikoki baldintzatutako bilduma horretan, hiru euskaltzain ageri dira, hau da, erretratu guztien %1,25 besterik ez (Bilboko Euskal Museoko Marian Alvarezren komunikazio pertsonala, 2016-05-26).



Julio Urquijo (Iturria: Bilboko Euskal Museoa)